


Xabier Amuriza

# Bizkaiko Bertsogintza IV XX. mendea



Xabier Amuriza

# Bizkaiko Bertso-gintza IV XX. mendea



## **Aurkibidea**

**Hitzaurrea.** *Xabier Amuriza*

**Sarrera. Praka bakeroak sotanapean.** *Igor Elortza*

**Bizkaiko txapelketak.** *Xabier Amuriza*

**Izenak.** *Xabier Amuriza eta Arantza Plaza*

**Bertso-eskolak.** *Xabier Amuriza eta Urtzi Urrutikoetxea*

**Elkarrizketak:**

**Sasoi batekoak.** *Arantza Plaza eta Xabier Amuriza*

**Bertso-eskolen sasoiokoak.** *Xabier Amuriza eta Arantza Plaza*

**Luze eta zabal.** *Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Arantza Plaza*

**Aurkibideak:**

**Sail bakotxean zeintzuk izen**

**Noren bertsoak non**

**Aurkibide zehatza**

**Kolaboratzaileak**

**Material batzaileak**

**Iturriak**

---

## Hogeigarren mendea



BIZKAIKO BERTSOGINTZA bildumako laugarren liburu honi *Hogeigarren mendea* ipini deusagu izenburu, zelanbait menderik gehiena harrapetan dauenez gero. Oro har, *Hogeigarren mendea* izenburua egiari jagokon arren, gerra ingurutik 1990 ingurura arte heltzen da. Gerra aurreko izenik gehienak bilduma honetako bigarren liburuan, *Bizkaiko Bertsogintza II Izendunak* izenekoan jaso genduzen. Hirugarren honetarako be, hainbat material barri aurkitu dogu, bai aro horretakoa, bai aurreragokoa, baina, azkenean, hain material interesgarri hori aparte argitaratzea erabagi dogu beste liburu batean, alde batetik, material independentea zelako, eta, bestetik eta batez be, liburu hau lodiegi geratuko zelako. Bilduma barruan bera izango da hirugarrena: *Bizkaiko Bertsogintza III Gerraurreko aurkikuntza barriak*.

*Hogeigarren mende* honen amaia be 1990. urte inguruan ipini dogu, liburu hau gidatu dauen lantaldean, kontakizuna non amaitu behar zen zalan-tzan egon ginen arren. Azkenean, oraintsuko belaunaldi gaztea "historia" bihurtzeari goiztarregi eritzirik, azken txapeldun bien, Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren izenekin laburbilduko geunkeen aroa kanpoan iztea erabagi genduen, nonoizko bosgarren liburuan sartzeko meritua egiten.

Euskarari buruz, lehenengo liburu biak batuan idatziak izan baziren, hirugarren hau bizkaieraz egitea erabagi genduen, euskalkiari bere garrantzia autortuz gainera, liburuari hurbiltasun eta sinisgarritasun handiagoa emongo eutsalakoan, batez be, bertan agertzen diren izenik gehienak oraindino bizi direla eta gehienbat euskalkian bizi direla kontuan izanik. Euskalki eredu zehaztu orduan, eten barik errepikatzen diren idatz-arau txiki eta konbentzionaletan (deklina-bidea barne), batuagazko sintonia handiagorearen alde jotzeko zalantzarik ez zen izan lantaldean, Durangaldeko *Anboto* astekariak apliketan dauen eredu onarturik.

Erizpide horretatik libre gelditzen dira kolaboratzaileen zutabeak. Honeei, bizkaieraz zein batuan, akats nahibako edo errakuntza ortografiko argiren batean izan ezik, ez ikutzea erabagi genduen, bakotzak idatzita bialdu zituen moduan itzirik.

SARRERA



## Praka bakeroak sotanapean



1958ko abuztuak 24 egun ditu. Bilboko Arenala puntarik punta jentez beterik dago, urrunetan be jentea zutunik ikusten dela, jesarleku barik. Jentetza horren erdian, zortzi bertsolari oholtza gainean: Balendin Enbeita muxikarra, Juan Ormaetxe "Taket" larrauriarra, Jose Alberdi mañariarra, Asentsio Bidaurrezaga getxoztarra, Eusebio Zubiaga urduliztarra, Pedro Kastrejana loiuarra eta Florentzio Zarraga berangarra.


Espainiako Gerra Zibilaren ostean ospatzen den lehenengo bertsolari txapelketa da: Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Aurreko domekan jokatzekoa zen berez, abuztuaren 15ean, Bilboko *Semana de Juegos y Danzas Populares*-en barruan, baina euritza handia egin eban orduan, eta urteetan zain egon eta gero, astebete gehiago itxaron behar izan dau egun seinalatuak.

Euskaltzaindiak antolatu dau txapelketa hau, Ministerio de Información y Turismo-ren lege-baimenagaz eta Caja de Ahorros Vizcaína-ren diru-laguntzagaz. Txapeldunari emongo jakozen 3.000 pezetak eta txapela bera nork eroango dauen erabagitzeko, honeek dira epaimahaia osotuko dabena: Nazario Oleaga Euskaltzaindiko idazkaria, Migel Arruza, Josu Arenaza medikua, Aita Santi Onaindia karmeldarra, Aita Martzel Andrinua pasionista, Gabriel Aresti idazlea eta Alfonso Irigoien. Azken hau da, hain zuzen be, aurreko hiletan buru-belarri beharrean ibili dena, txapelketa hau antolatzeko egin beharrekoak bere gain hartuta: bertsolariak topatu eta batu,

baimenak eta laguntzak eskuratu, epaimahaia osotu, ariketak eta gaiak prestatu... Ez dago gatx bere begien distira imajinatzen, jentetzari begira.

"1916tik, errepublika sasotik, gero gerra eta gerraoste, bertsotan entzun barik zegozenak, horrelakoak ikusten ziren gehienbat", entzuleen artean zegoen Deunoro Sarduik gogoratzen daenez, "Bilbon jente adinekoa erruz ikusten zen". Ez zen Deunoro muxikarragandik oso urrin ibiliko Gorozikako Pablo be, Bilbora joandako bertsozale asko legez, bertsolaritza galduko zen bildur zena. "Zaletasuna ez dakit, baina berotasuna orduan askoz handiagoa zen", dinosku Pablok. Parte hartu eben bertsolarien artean, Jose Alberdi zegoen, eta berak emon deusku oholtza gainetik ikusten zenaren barri: "Orduan bertsoa ehunetik laurogeik ez eban ulertzen. Gura bai, afana bai. Herria sentitzen eben eta, Euskal Herria edo horrelakorik aitatuz gero, beno!".

15



Alfonso Irigoien

Epaiak. Lesaka, 1982-V-22

Lastima da, baina orduko bertsoarik ez da gureganaino heldu. Baina badakigu zeri buruz egin eben bertsoan. Honeexek ziren gaiak: *Bizkaiko herrietako bizimodua; ardoazale askok zelan txikiteoan sarri neurritik kanpora edan daben; kotxean ala asto gainean ibiltzearen abantailak; neska gazteak eta moda barriak; aberatsak eta behartsuak; euskaldunaren estimazinoa munduan...* Antolakuntzaren barne-orri eta gutunetatik dakigu hori, eta badirudi zelanbait iragarriak zirela gaiak. Juan Ormaetxe *Takek*-ek "horrek temak sortean emon bihar dozuz, nori toketan jakozan" idazten deutso Irigoieni, bere parte-hartzea baieztuz bialdutako gutunean, eta segitzen dau: "Bertsolaria ta kazerua bardinak dira. Kazerua ehizera, kazara doianian erbia hiltzera, eperrak urtetan badautso, ahal dana hilko dau, baita oilagorra ere; urtetan dau-tsona..."

Bertsolariak, egon, ohituta be ez zegoen oraindino gaiak inork ipinita bertsoan egitera. Librean jarduten eben normalean, egiteko be aukera zeukien apurretan: auzo edo herriren bateko jaietan inoiz, tabernan edo lagunartean gehiagotan. Txapelketak beharturikoa zen ariketak eta gaiak aurretik zehaztu behar izatea. "Zortziko txikia eta zortziko handia kantatu bai, baina txapelketara joanda jakin neban nik zergaitik zen zortziko txikia eta zergatik zortziko handia", dinosku irribarrez Jon Azpillagak. Halan be, hurrengo urteetan txapelketatik kanpora be, geroago eta sarriago egingo ziren saioak gai-jartzaileagaz. Eritziak denerikoak dira. Juan Ibarzabal *Buztarri*-k "Gaia ipinita, badaukazu edo badakizu, behintzat, zeri heldu" dinon moduan, Mugartegik, gaietan bertsoan ondo egiteko, gauza asko jakin egin behar dela argudiatzen dau, eta dino: "Norberaren ideiak bakarrik ez da nahikoa izaten, eta momentuan gauza denak ez dira etortzen burura".

1958ko txapelketak berak be emon eban bertsoarako gaia. Balendin Enbeitak eroan eban txapela,

1929an Getxon irabazitako sariketaren ondoren, gerra-aurre eta gerraosteko zubi bihurtuz Bizkaiko bertsogintzan. Baina Juan Ormaetxe *Takek* Ibarriarra ez zen bigarren postuagaz konforme lotu eta bertsoak jarri zituen, "erabagia hartu behar zan / horrenbeste igarri barik" protesta eginez. Balendinek ez eban erantzuteko denbora handirik behar izan, eta epaileen denfentsan jarri zituen bertsoak, "ala uste dozu gure moduko / sasi-letrau diriala?" galdetuz *Takek*-i. Soka luzea ekarri eban guntun-trukeak, eta epaileen arteko Gabriel Arestik be jarri zituen bertsoak. Gaur be kantatzeko moduko bertso batean holan dino: "Bada txapel bat irabazteko / gizon bi dabizenetan / gal-tzen dauena ibiliko da / azkenean protestetan".

Alfonso Irigoien ez zen asko larritu gorabehera honeekaitik. Alderantziz. Bertsolarien artean temak egotea oso gauza on eta bizigarritzat jotzen eban, modu horretan, dudarik barik, bertsolari kontua Bizkaian indartsu etorriko zela eta. Balendin Enbeitari zuzenduriko gutun batean hori eta gehiago dino: "Gura dozuzan gauza guztiak esan zineioz, eta zenbat eta zirikada dotoreagoak, hobe. Ez dau ardura sekulakoak esaten badeutsazuz bere; gatzagaz eta dotore esaten badeutsazuz, ondo dago..."

Irigoienek bazekien zer lortu gura eban, eta guk be bai orain, Andoni Agirrezabali, Gasteizera, 1958ko abuztuaren 7an idatzitako gutun batera esker: "Bertsolari sariketa honegaz gura litzake bertsolari kontua Bizkaian eragin apur bat, Gipuzkoaren parera heldu arte. Bizkaian zaletasun handia dago bertsoara, baina orain arte ez jako bultzatu behar dan lez, eta behar leukean ohorea emon bere ez bertsolariari. Asko erdi ixilik egon da gerratik hona". Aita Antonio Zabalari Oñara idatzitako beste eskutitz batean, holan dino: "Bertso paperik ez neban eskuratu ahal izan. Gerra aurrean, asko egiten zireala esan eustan batek, baina, ordurik hona, ez ei da egin".

Izan be, gerra aurrean ez dirudi bat-bateko bertso tradizioa oso oparoa zenik Bizkaian, baina bertsoak jartzeko ohitura bai, orduko aldizkari eta biltzaileek egindako lanari esker dakigunez. Laukizko Eustakio Larrabeiti *Eulea*-ren erromantze airezko bertsoakera xalo eta hunkigarria batetik, eta bestetik, bertsolarietza herritarrari poesia kulturearen erreferentzia eta egikerak gehitu eutsazen Bonifazio Latxa ubidetarra, bi adibide baino ez dira.

Bat-batean egiten ebenen artean, Kepa Enbeita *Urretxindorra* da ezagunena, mende hasieran Getxon jokatu zen txapelketa batean, lehenengo saria lortu ebana, hogeita bost urtegaraz, bigarren Txirrita zela. Ordutik aurrera, eta giro abertzalean, batetik bestera ibiliko zen, 41gaz gaixotu arte, euskararen, fedearen eta, batez be, abertzaletasunaren bertsolaria izan zena. 1942an hil zen *Urretxindorra* muxikarragaz askotan kantatzen eban beste bat Esteban Uriarte Dimako hargina izan zen, 1935ean, Donostiako Pospolin aretoan jokatu zen Bertso Guduan parte hartu ebana, Bizkaiko ordezkari legez.

“Asko erdi ixilik egon da gerratik hona”, zinoen Irigoienek. Euren artean, Esteban Uriarte bera, 1943ra arte preso egon zena El Dueso, Larrinaga eta Burgosko kartzelatan. Balendin Enbeita be kartzelan egon zen, gerrako frentean ibilita gero, eta Basilio Pujana bardin, Santoñan entregatu zena. Juan Ormaetxe *Taket* edadetuago harrapatu eban gerrak, baina 1940an kartzelara eroan eben “rojo-separatista” akusazinopean. Lau urte egin zituen Begoñan eta Puerto de Santa Marian. Gal-tzaileen artekoak ziren bertsolariarik gehienak, eta artean umeak baino ez ziren bertsolariakan be asko eragin eban Espainiako gerra zibilak.

“Gernikako bonbaketa bezperan, bost urte egin nituen”, gogoratzen dau Pedro Ortuzar *Iturri* muxikarrak. “Gernika bonbardatu eben hegazki-

nak geure etxe paretik pasetan ziren. Gure etxe ondoan estarta zahar bat zegoen, sasiz zarraturik, eta haraxe joanda egon ginen, igual etxea botako ebela eta. Aita gerran eta ni etxean, ama, aitita eta amamagaz. Gero etxetik alde eragin euskuen eta Gordexolara joan ginen amagaz”. Jon Mugartegi haurra Berriatutik Ibarangelura joan zen senideekin. Jon Lopategi mutikoa Muxikatik Mungiaara lehenengo, eta handik Barakaldora gero. Jon Azpillagak betiko galdu eban aita.

Ez da, ba, harritzekoa bertsolariak zarata handirik egin barik ibili izana. “Buruan pentsamendu asko nerabilen, baina isilik egon behar. Euskaraz, ba, Arestigaz lantzean behin, Irigoienegaz... Honegaz bertsoan be egiten neban”, dino Bilbon bizi zen Basilio Pujana zeanuritarrak. “Nik sarri kantetan neban ze, bertsolariarena, berak dinona baino gehiago, esan gura ebana zela, eta entzuleak ulertu behar dauela”. Juan Ibarzabal *Buztarri* markinarrak gehiago be badino: “Geunkan gosegaz, horrelako konturik pentsatu be ez genduen egiten. Euskara eta holakorik pentsatu be ez. Euskara sobra geunkan guk; ogia falta zen”.

Badirudi 50. hamarkadan hasi zela euskaltasuna errautsetatik berpizten. Adibide batzuk ipintzearen, 1952an, Euskaltzaindiak barriro ekin eutsan 1936an isildu behar izan eban *Euskera* argitaratzeari, eta, 1956an, gerraosteko lehenengo kongresu edegia egin eban Arantzazun. *Zeruko Argia* be 1953an berrargitaratzen hasi zen. 1957an, Ikastola sortu zen Bilbon, eta urte berean, Iruñeko kaleetan, Olentzero ikusi ahal izan zen Gabonetan, gerraz gozotik lehenengoz.

Giro horretantxe kokatu behar dira 1958ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, baita Garriko bertso-eskola be, 1959an, Muxikako Ariatzan sortu zena, Fuenterrabia tabernan. Hango jabea Pedro Ajuria zen, eta holan gogoratzen dau Deunoro Sarduik: “Ha zen bertsozalea, baina zalea, haxe izan zen!



Eta gero osaba Balendin, gure bertsolari... onentzat ez, guk bertsolarien Jaungoikotzat geunkan ha". Historiako lehenengo bertso-eskolatzat jo geinken hau Muxikan sortu izana ez da, izan be, kasualitatea. Enbeitatarrak eta euren ingurukoak ez eze, Pedro Ortuzar *Iturri* eta Jon Lopategi be hangoxeak ziren. Lopategik kontatzen dauenez, tabernan koplak kantari zebilen Deunorori erantzuten ausartu zen batean, tentatu ei eban Pedro Ajuriak: "Zuek zergatik ez zaree hemen gure tabernan batzen, zapatu iluntzeetan? Egin entrenamendua eta preparatu udaberriko txapelketarako". Jon izeneko Balendin Enbeitaren ume koskorra be han zebilen: "Niretzat, zortzi-bederatzi urtegez, gauza haundia izaten zen sartu tabernara, mahaian jesarri eta nagusiakaz bertsotan egitea".

"Txo, hemendik jantokitik urten eta tabernara eroan behar joagu" esan ei eban Pedro Ajuriak egun batean. Beragaitik zela pentsatu eben besteek, baina Pedrok beste ardura bat zeukan. Jente asko sartzen ei zen bertsoak entzuten, udan be gabardinekin-eta. Halako batean guardia zibilak etorri eta pare bat hilabeterako itxi eragin eutsien taberna. Behingoagaz nahikoa ez, eta hurrengoan be, atek barriro zarratu behar izan zituen handik laster. Bigarrenez itxi eragin eutsienean, "kokoak auzoan bertan daukaguz eta hurrengoan be hauxe gertatuko da", esan ei eban. "Hemen ez dago bakerik eta hobe izango da geuk egitea bakea". Orduantxe itzi eban taberna betiko.

Halakoxea da gerraosteko giroa. Horregaitik, 1959ko irailaren 6an, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa bigarrenez jokatzera doanean, omenaldia egingo deutsie Nabarnizko Luzio Elortzari. Bera da txapelketan parte hartu dauen bertsolaririk zaharrena, eta "bertsolarien aitona" izentatuko dabe. Alfonso Irigoienek orri informatiboa dinonez, "bere izenean, lehenagoko bertsolari guztieri omenaldi handi bat egin gura jake, bertsoen ondasun ordaindu-ezin hau hagoz

hago guganaino hain sendo ekarri deuskuen bertsolari guztieri".

Baina txapelketa hau be astebete atzeratu behar izan da, ez euriagaitik oraingoan, Bilboko alkateak azken orduan altabozak kentzeko agindua emon dauelako baino. Arenalera bertso-gosez etorritako milaka lagunek alerik entzun barik hartu behar izan dabe etxerako bidea. Euskaltzaindiak, bertsozaleei zuzenduriko orri informatiboa zabaldu beharko dau, finala zergaitik ezin jokatu izan den azaltzeko, eta zera jakinarazteko: "Lortu doguz baimen guztiak, datorren domekan Arenalera bertan eiteko, lehen legez, arratsaldeko bostetan, eta oraingoan segurantzi osoa dagoala, emon zan agindua burubakoa legez aitortua izan dalako eta lege hori ezin aurrera eroan leitekeelako". Bertsozaleek ez dabe hutsik egingo oraingoan be, eta Alfonso Irigoienek, komunikabideei bialtzeko artikuluan, bertsolariek "ante un público constituido por más de diez mil espectadores que acudieron de toda Vizcaya y también de fuera de ella" kantatu dabela idatziko dau, alkateak be irakurriko dauen segurantziaz, pentsatzekoa denez.

"Por otra parte", -gaineratzen dau Irigoienek artikulurik horretan-, "sabemos que la Academia de la Lengua Vasca estudia la posibilidad de organizar un concurso de todo el País Vasco, para lo cual sería necesario proclamar primero campeones provinciales". Esan eta egin, 1960an jokatu zen, gerraostean lehenengoz, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Aro horretako hurrengo hiru txapelketa nagusiak be hamarkada horretakoak dira. 1962an eta 1964an jokatu ziren hurrengoak, eta 1967koa izan zen azkena. Donostian jokaturiko finaletan, Jon Azpillaga, Jon Mugartegi eta Jon Lopategi izan ziren bertsolari bizkaitarren ordezkari.

Baina ipini altabozak eta gatozen 1959ko Bizkaiko Txapelketara. Hogeita hamarretik gora dira

parte hartu daben bertsolariak, eta, hurrengo urte-etakoak legez, eskualdeetako sariketetarik hasi da txapelketeta hau. Bilboko final handia jokatzeko aukeratuak honakoak dira: Durangaldetik Jose Alberdi, Txorierritik Juan Ormaetxe *Taket*, Busturialdetik Deunoro Sardui, Lea Artibaitik Jon Azpillaga, Arratiatik Basilio Pujana, eta Balendin Enbeita, aurreko txapeldun moduan. Oraingoan be, Balendin Enbeitak eroango dau txapela, eta bigarren Jon Azpillaga gaztea izango da, txapelketa honetako errebelazinoa eta bertsolari belau-naldi barri baten ordezkaria.

Jon Lopategi eta Pedro Ortuzar *Iturri* entzuleen artean zegoen egun haretan. "Deunoro eta Azpillaga ziren gazte bakarrak. Eta, joño, Azpillagari beste gauza bat ikusten jakon, beste errima bat eta abar. Beste denak, Ormaetxe, Alberdi eta, ba, lehenagoko Bizkaiko eran, bertsoera hasierakoa, esan gura dot, tekniko-teknikoa barik, simpletxoa", dinosku Jonek. Abel Muniategi be, Bilbora bi bider joan behar izan eben hamar mila lagunetarik bat zen, eta eritzi hau emon deusku: "Bertsolariek, sasoi haretan, zaharrak eta baserritarrik izan behar eben. Baina 1959an destakatu ebenak mutil gazteak ziren. Baserritik zetozenak, baina nahikoa urbanoak. Gaur bertsoa gaztetuta dago eta denak dira unibertsitarioak, baina nik uste dot, 1959ko data hori klabea dela, hortik eta 1966ko txapelketara arte. Hortxe emon zen saltoa bertsolaritza ruraletik urbanora. Bertsolaritza intelektualizatu be orduantxe egin zen".

Ez dakigu hainbeste espero eban. Leitekeena da bere helburuak oraindino goragokoak izatea be, baina seguru dakiguna da, honen guztiaren atzean, Alfonso Irigoienen lana dagoela. Irigoienek eskuhartze zuzena eduki eban, Bizkaian ez eze, gainerako herrialdeetako txapelketetan zein Euskal Herri mailakoetan. Antolatzaile, gai-jartzaile, epaimahai-kide eta prentsarako artikulugile izan zen. 1959ko maiatzaren 5eko data daroan "Bizkaiko

bertsolarien bigarren sariketearen prestaerak egiteko eginikako bidajea" idazkian kontaktzen dau, goizeko 9retan Bilbon automobilean urten eta Zeaurin, Durangon, Markinan, Gernikan, Bermeon eta Mungian ibilita, zelan etxeratu zen gauzez, eskualde guztietako kanporaketak egiteko beharrezko zirenak lotuta. Txapelketak antolatzea nahikoa ez dela, bertso jarriak biltzen be behar handia egin eban Irigoienek, eta herrietan saioak antolatu eta grabatzen be bai. 1959ko txapelketaren ostean, irailaren 21ean, Bizkaiko finalistekin saio bat antolatu eban Durangon, eta Udalak emoniko diruagaz bazkaria antolatu eban Hotel Alzaan, Bizkaia osoko bertsolariak batzarrera deituta. "Bertsolaritzearen gainean berba egingo da bertan", zinoen dei-gutunean, "zelan bertso-paperak atera; herrietako ekitaldiak zelan ugaritu; eta bertsolaritzeari jagokozan gauzen gainean".

Adibide moduan, 1959ko uztailearen 15ean, Santiago jaiak gertu zirela, Irigoienek Ermuako alkateari idatzitako gutuna da hau: "Esta Academia de la Lengua Vasca en su deseo de fomentar este fenómeno que tanto color da a las fiestas populares, vería con mucho agrado que en las fiestas patronales de los pueblos, los ayuntamientos incluyesen en sus programas actuaciones de bertsolaris". Saioen propaganda zelan egiten eban,

19



Alfonso Irigoien

Gai-jartzailea. Durango, 1982-XII-05

barriz, berak esanda dakigu: "Telefono gidan, herrian, *Bar* ipintzen zuen guztietara sobre bat bidaltzen nuen, eta gero eurek jartzen zuten tabernan".

Behar horreei guztiei hain kementsu heltzeko, bertsozale amorratua behar eban Alfonsok, dudarik barik, eta bertso-jartzaile gogotsua izan zen. Lagunarteko giroan, bat-batean be ekiten eutsan, bere txanda heltzen zenean hutsik egin barik, bertsolarien artean azken berba norberak esateko grina ezagututa, afaloste bat baino gehiago goizaldera arte luzatuz. Grabatuta gelditu direnen artean, hona Lopategi, Mattin eta Lazkao Txikiri botatako bat: "Nik deiturikan egin dezute / Bilbo aldera bisita / eta etxera berriz zoazte / gaur zertxobait ikasita".

Irigoienei berea emoten bat datoz denak. "Bizkaia Irigoienek mogidu eban", dino Juan Ibarzabal *Buztarri*-k. "Irigoienek izaten zen gure orduko zuzendaria eta harek deitzen euskun eta hasi hemendik eta Durangotik eta Txorierri, Arratia... hor denean ibiltzen ginen" Mugartegik, "Irigoienek behar asko egin eban. Batzuek halakoa zela eta igual esaten dabe, baina: 'Hi! Hori inork ez jok egin!' Harexen inguruan ibiltzen ginen gu" Pujanak, eta Azpillagak: "Alfonso Irigoienek antolatutako txapelketekin hasi zen hemen mugimendua. Harexek astindu eban dena. Bizkaian ordura arte bertsoak, behin edo behin nonon. Basarri eta Uztapide, Zepai eta Txapel, Enbeita eta besteren bat... Baina horreek be zer? Bi edo hiru plaza egingo zitueen, altuena be". Mugartegik be garbi dauka: "Horren meritua autortu behar jako, eta, azkenean autortu geuntsan. Behar eskerga asko egindako gizona izan zen".

1993an egingo eutsan Bertsozale Elkarteak omenaldia Irigoienei, Aita Onaindiagaz batera, eta sasoi haretan egindako elkarrizketan berak egiten ebana hain zaila be ez zela esango eban: "Gaiak asma-

tzea, adibidez, ez zen hain zaila, edozer ipinita ere, dena baitzen berria. Orduan, alde horretatik, ez zegoen oraingo koskarik". Honakoak dira, kasurako, 60. hamarkadako Bizkaiko Bertsolari Txapelketako gaietariko batzuk: *kazorea eta guarda; baserritar ganaduzalea eta pinuzalea; euskera; dendaria eta zorduna; alper osasuntsua eta langile osasun bakoa; familia eta etxeko batasun falta; pilota eta apustuak; ijtoa eta guardia zibila...*

1960ko Bizkaiko finala irailaren 11n jokatu zen Bilboko zezen-plazan. Final haretako protagonista handi bat Ireneo Ajuria, hamalau urteko mutiko muxikarra izan zen, Mungiako kanporaketan nagusitzetik zetorrena. Gaurtik begiratuta ezer azpimarratzekotan, hurrengo hamarkadetan Bizkaiko bertsogintza gidatuko eban belaunaldiko bertsolaririk goiztiarrenek lekukoa hartu ebela esan leiteke. Jon Mugartegi izan zen txapeldun, eta Jon Azpillaga bigarren. "Eta joño, Azpillagari beste gauza bat ikusten jakon!", zinoskun Lopategik 1959ko txapelketagaitik, gainerakoek "lehenagoko Bizkaiko eran" egiten ebela.

"Bertsotako joera, gurea ez da izan bizkaieraz. Guk, lehenengo orriak eta zerak irakurtzen hasi ginenean be, Gipuzkoakoak beti" dino Mugartegik. Gipuzkoako bertso tradizioa aberatsagoa zen eta horrek euskalkian be bazeukan eragina, zelan ez: "Hartu genduen guk horixe zer hori, gipuzkeraz egitekoa". Juan Ibarzabali gaztaroan Gipuzkoan asko ibiltzea tokatu jakon buztarrigintzan, ofizioa ikasten ibili zen garaian, batez be. Hango hainbat bertsolari ezagutzeko aukera izan eban, eta "maila handia ikusten neban", dino. Deunoro Sarduik be ondo gogoan dauka, Natxitan bertsoan jardun eta gero, Uztapidegaz gertatu jakona. "Zu, Manuel!", esan ei eutsan Deunorok, eta Uztapidek erantzun: "Zer?" -"Zuek bertsoak ikasita ekartzen dozuez ala?" -"Zer, ba?" -"Hain ondo amaitzen dozuez denak!" -"Ez! Bertsoan azkena pentsatu behar da" - "Azkena pen-

tsatu?" -dino Deunorok- "Holakorik! Ha izan zen deskubrimendua!".

Ez dakigu, ordurako, bertsoaren azkena deskubrituta zeukan ala ez, baina 1961eko abuztuaren 27an, Bilboko Capitol zineman jokaturako finalean, bigarren urten eban Sardui. Oraingoan txapela Jon Azpillagarentzat izan zen, Gipuzkoako tradizioa ondo ezagutzen ebana bera, Mugartegi aurreko urteko txapeldunak legez. "Nik Pedro Mari Otañoren bertsoak ia denak buruz ikasi nituen eta nire estimua haxe izaten zen beti. Txirritarenak be bai, Xenpelarrenak, Zabala anaie-nak... Nik horko bertsoak buruz ikasi nituen, baina mordoa!", dinosku Azpillagak, umetan bertotara zelan zaletu zen gogoratuz.

Garai honetako Azpillaga eta Mugartegi gazteak berriatuarrak dira biak, eta aspalditik ezagutzen dabe elkar. Oso gazterik hasita, txapelketak egiten hasi baino lehenago, saio bat baino gehiago egin dabe elkarregaz. Amоротoko udaletxeko balkoitik eta mikrofonorik barik, 1950ean, artean gaztetxo bi zirela egin eben lehenengo plaza. Lea-Artibai inguru euskalduna eta bertsozalea da eta, bertso-paperak ezagutzen dabezen legez, nahikoa ohi-tura zabala da lagunartean bertotan egitea be. "Bederatziretako mezzatik urten eta tabernara joaten ginen. Gure entrenamenduak hortxe izaten ziren", dino Mugartegik. Juan Ibarzabal *Buztarri* markinarrak, barriz, holan dino: "Nik sarritan esan dot guk ikasi genduen bertsoaketa dirurik ez geunkalako zela. Ze bertsoak kantatzea denek kantatzea izaten zen, eta kantatzen ez ebanak koartiloa ordaindu behar".

Jon Lopategi eta Pedro Ortuzar *Iturri*-ren kasua be antzekoa da. "Lopategiren etxea eta gurea bostehun metrora zegoen", kontatzen dau *Iturri*-k. "Ni behiak jagoten egoten nintzen, Lopategi etortzen jatan, han neure etxetik hurrean, eta hantxe egiten genduzen entrenamenduak biok". Honeek

biok, gainera, Muxika inguruko gainerako bertso-lariak legez, Garriko bertso-eskolan be ibilitakoak dira. Deunoro Sardui emoten deusku barri, hango zelan izaten zen: "Pedro Mari Altunak gaiak ipintzen euskuzen tabernan, eta guk ekin hantxe. Gero, aste barrurako, beste gai bana ipintzen euskun, hiru bertso egiteko".

Mende akabera aldeko eztabaidetan goizegi sartu barik, orduan be ez zela dena berezkoa baino ez dogu esango oraingo. Horixe preparatzen zirena! Inguruan behar beste lagun ez zeukanak Jose Alberdi mañariarrak legez egingo eban bertotan, tailerreko makinaren kontra. "Makina automatikoa zenez, hamaika bider egiten neban bertsoa neuk bota eta neuk erantzun. Batzuetan, lagunak etorri eta ondoan paretan jatazen, entzuten". Errimak buruan erabiltzen zituen galdetuta be, "Bai, hori beti" erantzun deusku Iturrik, eta Lopategik hiztegi errimatu txiki bat egin ei eban, 1962ko txapelketa aurretik. Mugartegik, barriz, zera be badi-no gerora: "Bertso-munduan dabilenak -ni oraintxe konturatzen naz- irakurri egin behar dau apur bat. Apur bat baino gehiago egiten badau, hobe oraindik". Deunoro Sardui, ostera, mahaira hamabi batzen ziren etxean bakardaderik ezin topatuz, ganbarara igoten ei eban, liburuak eta paperak hartuta. *Garoa, Kresala, Auñamendiko Lorea...* Txomin Agirrearenak eta Eusebio Erkiagarenak, liburu pilo ei zeukan. Aita Santi Onaindiarenak be bai. Eta Lizardiren *Bihotz-begietan* eta Orixe eta beste pilo bat be irakurri zituen gaztaro-ko ganbaran. "Hortixek sortu jatan gauzak esateko gogoia, errimaturik eta neurturik".

Prestaketak bertsoa ardurazko zeregintzat hartzen ebela garbi izten dau, eta ardurak urduritasuna be beragaz dakar. Halan be, ardura beti izan da batzuri hazi eragin eta beste batzuri diren baino gixiago izanarazo deusana. "Txapelketan, nik pentsatzen dot... Hasi aurretik edonork edukiko dau apur bat urduritasuna, ez da?", galdetzen dau

Mugartegik, eta berorrek erantzun: "Eta amaitu-keran, igual handiagoa!". Azpillagak barriz, berak horrexetan eduki dauela bentaja dinosku. "Ni ner-bioso egon izan nazena, txapelketan bakarrik. Baina ez bertsoakaitik! Zerk urtengo dauen eta zeri kantatu edo...". Jose Alberdiren ustez be, ez zen hain gogorra: "Orain asko exijitzen dabe. Jakin be asko dakie orain eta. Guk zer egingo gen-duen orduan, ba? Datorrena bota eta, ondo badoa ondo, eta, txarto badoa, zer egingo joagu, ba?". Oraintsuagoko bertsolarien artean be, deneriko esperientziak dagoz. Jon Enbeitak, "nik txapelke-tetan, nagusietan batez be, asko sufritu izan dot. Baina ez aurreko egunetan bakarrik. Hileetan!" dinon legez, Gregorio Larrañaga *Mañukortak* beste hau bota deusku: "Ez najuan nik sufritzen. Sufritu baneu, etxean eukiko najuan nik Bizkaiko txapelen bat edo ostiaren bat..."

1962an, Jon Lopategik jantzi eban Bizkaiko txapela, Bilbon. Hurrengo hiru txapelketetan be, bera gailenduko zen, 1964an Ondarroan, eta 1966an Durangon. 1960ko eta 1961eko txapelketetan be parte hartutakoa zen Lopategi, baina ez eban fina-lera heltzerik lortu. Jose Alberdik, 1961ean, Bus-turialdeko kanporaketan ezagutu ei eban eta igar-ri egin eutsan, antza: "Gero esan eusten: 'Eta? Zer eritzi deusak?' -'Ba, Bizkaiko Basarri hortxe jagok', esan neutsen Lopategigaitik. Harek jakitu-ria itzela zekarren". Gabriel Arestik holan idatzi eban *Hierro* egunkarian, 1962ko Mungiako kanpo-raketaz egindako kritikan, Lopategik "nere gustua egin nuen da / orain bizi naiz dolorez" bukaera emonda osoturiko bertsoagaitik: "verso que mejo-ra el original iparraguirreano, que quedará en la antología de nuestra poesía amorosa, verso cuya traducción no puede expresar toda la prestancia, la elegancia y la poesía que Juan Lopategui supo darle."

Jon Lopategi sakramentinoekin ikasle ibilitakoa da. Emilio Salgari eta Julio Vernerren liburuak,

"harrapatutako guztiak" irakurritakoa. *Bertsolari-ya* aldizkariaren bilduma bat eta Manuel Lekuo-naren *Literatura Oral Vasca* liburuekin be, Tolosa-ko seminarioan topo egin eban. Eta Orixeren *Eus-kaldunak* be, orririk orri, denak iruntsi arte ez ei eban deskantsurik hartu. "Ordurako, neuk be ida-tzi nebazen neure bertsoxoak Arrese Beitiaren erara". Han ikasitakoak balioko deutso txapeldun gazteari, baina frailetza itzita dauka ordurako.

Lopategi plazarik plaza dabilela, beste batzuk dira seminarioan dagozenak. Jon Enbeita Arantzazun dago, eta Xabier Amurizak eta Abel Muniategik Derion ezagutu barri dabe elkar, izan be, semina-rioko ospakizun batean Amurizak pare bat bertso kantatzen urten dau, eta Muniategik, "bertsotan batek baino bik hobeto egingo dabelakoan", atze-tik jarraitu deutsa. "Zer egiten joagu elkarren ondo-an bizitzen, elkarren barri jakin barik?" -dinotso gero bata besteari-. Hasiko al gaituk bitarteetan elkartzen, bertsoetan egiteko?". Seminarioan ezagu-tuko dabe idatzita zegoen euskal literatura guztia be. "Dirurik ez zeukanarentzat, frailetza zen herri unibersitatea", Jon Enbeitak dinon moduan. Azpi-llagak be halan deritzo: "Amurizak ondo egiten eban bertsoetan. Bestea, Muniategi. Jente ikasia ziren. Lopategi bera be bai".

Geu be komentura goaz gehiago ikasteko. Marki-nako Karmeldarrena. 1963. urtean, bertsolarien bilera antolatu eban bertako fraileek, noiz eta urriaren hamabigarrenean. Balendin Enbeita, *Itu-rrri*, Sardui, Pujana, Lopategi, Arregi, Mugartegi eta Ibarzabal bizkaitarrez gainera, Basarri, Lazka-no, Agirre eta Egileor be han ziren, "gaurko oroi-garri bezela hor gelditu dedin" grabaturiko aur-kezpen bertsoetan entzun ahal dogun moduan. 1964, 1965, 1966 eta 1967an be, Francoren erreji-menak Pilarika eguna ospatzen eban bitartean, bertsolariak Markinan elkartu izan ziren, eta ber-tso saioaz gainera, berbaldia egin be bai azken hiru urteetan. Jose Mari Iriondok bertsolariaren

historiaz, Xabier Amurizak bertsolarien zelanbaiteko antolaketa baten preminaz, eta Juan Mari Lekuonak doinuei buruz jardun eben, hurrenez hurren.

Baina urten dagigun komentutik eta itzuli gaitetzen plazara. Lopategiren 1964ko txapelak zala-parta handia eragin dau Ondarroan. Marinel Eguñean eta kalean jokatu da finala. Ondarrutarrak jaietan dagoz eta, Azpillaga ez bada, Mugartegi gura dabe txapeldun. "Halako eskandalu ezta-darik ez dot ikusi, ezta Xalbadorri txistuak jo eutsiezenean be!", gogoratzen dau 64ko epaimahaian dagoen Xabier Amurizak. Lopategik be gogoan dauka "sariak hartu eta Iturriren motorrean arrapalada batean" alde egin izana. Txapeldunaren agurra kantatu barik ez da joango, halan be, "Txistuak eta txaloak baten / hemen hartzen ditugula" hasi eta holan amaituz: "Zutik eduki gura badegu / geure herriaren arbola / lehenauko zaharrak behinola / nahiz ez atondu inola / anaitasuna eskatzen dator gaurko gaztien odola".

60ko hamarkadan gagoz eta Euskal Herriko giro politikoa asko berotzen hasita dago. Euskadi Ta Askatasuna 1959an sortu zen, eta urte amaieran hiru lehegailu jarri zituen eraikin ofizialen kontra. 1961ean egin zen ETako zazpi kideren kontrako lehenengo gerra-kontseilua. 1962an, aurreko urtean Baionako ikasle-talde batek sorturiko *Enbata* mogimenduak, gerren osteko lehenengo Aberri Eguna antolatu eban Itsasun, eta Francoren Gobernuak salbuespen egoera ezarri eban Gipuzkoan eta Bizkaian. 1968an, Guardia Zibilak Txabi Etxebarrieta hil eban Tolosako Bentaundin, eta, bi hilabeteren buruan, ETAk Meliton Manzanasko polizia inspektore eta torturatzaile ezaguna hil eban.

Kultura arloan be aldaketa handiak dabilz gertatzen. 1963an, gerora belaunaldi barri baten erreferentzia inportanteenetarikoak izango ziren Gabriel Arestiren *Harri eta Herri*, Federiko Krut-

wigen *Vasconia* eta Jorge Oteizaren *Quousque Tandem!* argitaratu ziren. 1965ean, Durangoko Euskal Liburu eta Diskoaren Azoka antolatu eban lehenengo biderrez Gerediaga Elkarteak. 1968an, Nestor Basterretxeak eta Fernando Larruquet-ek *Ama Lur* estreinatu eban. Film dokumental honetan, bertsolariak be sartu zitueen eta, kontrastea topatu guran, Xalbador Urepelgo artzainaren ondoan, Abel Muniategi estudiante gaztea aukeratu eban pasarte baterako.

Jon Enbeita Arantzazun dago urte honeetan guztietan, eta bizitzaren udabarria aislatuta pasatu izanaren sentimendua geratuko jako betiko. "Gu



Bertsolaria. Oiartzun, 1982-XI-14

han gengozela, gauza asko gertatu zen Euskal Herrian zein kanpoan; 1968ko maiatza be bai. Ez dot esango ezergaz enteretan ez ginenik, baina ez genduen ha guztia joko-zelaian bizi. Ez ginen aldaketaren parte, irakurle baino". Abel Muniategik, barriz, 1964rako itzita dauka abadetza, eta zortzi finalistetariko bat izan da Ondarroan, Lopategik "anaitasuna eskatzen dator / gaurko gaztien odola" kantatu dauenean. 1966an be finalista da Muniategi Durangon, eta holan kantatzen deusku hasierako agurrean: "Euskera zaharrak baserrietan / hartu zun bere gorputza / ta jakituenen aldetik berriz / amaigabeko zaputza / Gaur estudioz ari geranok / goruntz nahi diogu bultza / baina galduta dago Durangon gure aitonen hizkuntza / herri honentzat premizkoa da / Kirikiñoren laguntza".

Andra Mariko elizpean kantatzen dau Muniategik bertso hau, bigarren ez ospatzen den Euskal Liburu eta Disko Azokaren stand artean. "Este día fue para Durango un día pleno de ambiente vasco, pues también el grupo *Ez Dok Amairu* puso su nota trascendental con sus modernas canciones vascas, que causaron un gran impacto ante el público", irakurriko da biharamoneko periodikoe-tan. Urte horretan bertan sortu dabe *Ez Dok Amairu* hainbat kultur gile gaztek, eta euren burua holan aurkezten dabe: "Prakadun eta gonadunak, naikoa sermoi egiñak ditugu euskeraz. Ortik beti ugari izan du gure izkuntzak. Euskera kale-jabe egin nai ba-degu, gaztediari atsegin zaizkion gaiak arrotu bearko ditugu euskal lanetan".

Muniategigaz batera, Abel Enbeita eta Gregorio Larrañaga *Mañukorta* izan ziren 1966ko izen barriak Bizkaiko finalean. *La Gaceta del Norte*-ren 1966ko irailaren 8ko alean hauxe irakurri geinke: "Destacó también, como nueva figura, Gregorio Larrañaga, de Marquina, un joven que cumple servicio militar en Ferrol". Soldadutzatik egun batzuetarako etortzeko eta txapelketan parte har-

tzeko baimena Alfonso Irigoienek egindako telefono-deiei esker lortu ebala dino *Mañukortak*. "Euskal Herriko poeta on bat nintzela eta, ahal bazen, mutila hona bialtzeko" eskatu ei eban Irigoienek, "Eta bialdu egin nindueen, birritan. Behin Lekeitiora eta hurrengoan Durangora".

Baina Mañukortak Ferrolera eta guk Markinako karmeldarreneira itzuli behar dogu. 1966ko urriaren 12a da. Goizean hitzaldia egin dau Xabier Amuriza abade gazteak eta bazkalostean be, sotana zaharraren gainetik, betaurreko barrien begiratu dakarren abade gazteak beregandu dau gehien atentzinoa. Bere bertso bakotxa algara batean eta txaloka hartzen dabe gainerakoek, "Apellidua Amuriza det / Jabier berriz izena / Bertsolai izan ta konfusioz / abade egin nazena" lakoak botatzen dituenen. Azpillagak, zein eta etorkizuna aurreikusiko baleu legez, hauxe bota dau: "Don Jabierrek oindik lan asko / daduzka Euskal Herrian / premia bada baten bat berdin / joko luke muturrian / Kardenal eta obispo zaharrak / eongo dira bildurrian / berak hainbeste dakin apaizik / ez nahi ikusi aurrian!".

1967ko Markinako bileran, barriz, Abel Enbeita gertatu zen eguneko protagonista, bezperan atxilotuta, etortzerik izan ez ebalako. Abelen aita Balendin joan egin zen, halan be, eta holan kantatu eban karmeldarrenean: "Hau ikusita ezin esan lei / Jaungoikua daguanik!". Gabriel Aresti be han zen eta gainerakoek bertsoekin batera grabatuta gelditu da harek zelan berba hartu eban: "Jaunak, hamen gauz danok kantaten ta bitartean Abel kartzelan. Nik uste dot gure kantu honekin oso mesede gutxi egiten deusagula. Eskatzen deutset hemengo bertsolari guztiei dokumentu bat firmateko, Bizkaiko gobernadoreari Abelen libertatea eskatzeko. Uste dot dala justiziari eta bertsolaritziari zor deusagun beharizan bat". Eztabaida bero samarra sortu eban Arestik, hori tokatzen ete zen, komeni ete zen... Zalapartaren

erdian, Abel Muniategik hartu eban kantua: "Gugana heldu da dokumentu bat / firmatutzeko premina / praileren batek ekarri beza / idatzitzeko makina". Ez dakigu gorabehera honegaitik gertatu zen karmeldarrek atzera egitea. Dakiguna da ez zela Markinan gehiago bilerarik egin.

"Zintzo portatzen bagera gu be / laster sartuko gaituzte" kantatu eban Amurizak, Abelen atxilotetari buruz. Eta badirudi benetan zintzo portatu zela bera, ze urtebete geroago atxilotu eta 1975eko abuztuaren 25era arte egon zen Zamoran preso. Franco hil aurreko urteak ziren, Euskal Herria borborka zegoen. 1970ean, Burgosko Epaiketa hasi zen. 1973an Poliziak Eustakio Mendizabal Txikia hil eban, eta ETAk Espainiako Gobernuko presidente zen Carrero Blanco. Urte berean, errefuxiatuen aldeko gose-greba egin zen Baionan eta, Donostiako Kresala elkarre euskaltzalean, bi lehergailuk eztanda egin eben. 1974an, ETA bitan zatitu zen: ETA militarra eta ETA politiko-militarra.

Eta berotasun honen erdian, bikote bizkaitar bat Euskal Herri osoan dabil kantari, gerraosteko bertsolarien bildurak ahaztuta. Jon Lopategik eta Jon Azpillagak euskaldun askoren bihotza eta odola berotzen dihardue plazarik plaza. "Guk bertsoa lotzen genduen abertzaletasunagaz, oso-osoan. Bertsoaren edukiaren barrukotzat jotzen genduen abertzaletasuna", dinosku Lopategik. "Politika kontuan-eta asko sartzen ginen. Esan egiten genduen guk. Besteak ez ziren atrebitzen, ez, ez zekielako, baina... Ez jaken begitantzen egin behar ebenik. Gu horretaraxe jarri ginen eta beinga!", dino Azpillagak. Pujanak Arestigaitik dinonaz gogoratu gara: "Harek mundua asko erakutsi eustan. Haregaz esaten genduen bertsolariak, kantatu bakarrik ez, esan egin behar ebal". Baina denek ez eben ondo ikusten. "Bazegozen batzuk -Jon Mugartegik gogoratzen dauenez-, ez zela sartu behar hor

esaten ebenak, hori ez zela gure mundua eta". Lopategik gogoan dauka inoiz Basarrigaz horretaz hasi eta honek ezezko keinua egin izan eutsana, izteko legez: "Eskarmentatuta egongo zen. Trabadoreetan egon zen ha". Lopategi eta Azpillaga be ez ziren beti eroso ibili, debekuak, multak eta kartzelaldiren bat tarteko.

Baina ez ziren isildu horregaitik. Adibide moduan, Deustuko unibertsitatean botatako bertso bi hartuko doguz. Horreetan urteetan eta ikasle giroan, bero-beroak gertatu ziren hango saioak. 1973an, "Euskaldun izatea / ba al degu merezi?" puntuari holan erantzun eutsan Azpillagak: "Nahiz eta dana bete / ota edo sasi / ni ez naiz hemendikan / juango ihesi". Handik bi urtera, 1975ean, "Zati bitan daukagu / lehen herri bat zana", jarri eutsien puntua Lopategiri, eta honek erantzun: "Nahi danean ezin joan / geure anaiengana / Burrukurako inork / baleuka afana / neuk emongo dautsuet / metrailleta bana".

Ez bertsogintza bakarrik, kultur mugimendua bere osotasunean bihurtu zen eztanda egiteko zorian zegozen sentimenduen ihesbide, entzun gura eta esan ezin zenaren mugan. Gitarra besapean hartuta plazarik plaza zebilzen bakarlariak indar handia hartu eben, kasurako. Euren artean, Arantzazuko habituak eskegi eta gitarra hartu eban Jon Enbeitak, berak idatzirik kantak grabatzen be heldu zenak. "Bertsotan be egiten neban, baina gitxi. Kantuan arinago sartu nintzen" dinonean, igarri egiten jako gomuta onak daukazela.

Baina laster hartuko eban Jonek bertsolari bidea, eta bere anaia Abel Enbeita, *Mañukorta*, Juan Mari Areitio *Gaztelu*, Jose Luis Mugarza *Elgetzu* mallabiarra eta Jose Inazio Intxaurreaga zeberiotarraz batera osatu eban bertsolari bizkaitarren hurrengo belaunaldiko ordezkari nagusia izango dogu. Belaunaldi honek, 1970eko hamarkadan, bertsolari gazteentzat antolatutako sariketetan



zabaldu behar izan eban bidea: Zepai, Orixe, Artxanberri... Sariketa horreen artean, ezin gogoratu barik itzi Mallabian hiru urtez jokatu zena.

1975ean hilko da Franco. Datozen aldaketetarako, bertsolariak prestatuta egon behar dabela-eta, taldetxo batek "ikastaroak" antolatu ditu Loiolan. Zapatu goizetan elkartuko dira hiru bat hilabete-an zehar. Abel Muniategi izango da hizlari eta honako gaiok landuko ditue: *Sabino Arana, aber-tzaletasuna, nazinoa, estatua, partidu politikoak, langile mundua, sindikatuak* eta abar. Muniategik dinon moduan, "apur bat konturatzeko ezingo zela kantatu lehengo estilora. Beste mundu bat agertuko zela eta entzuleak be beste modu batekoak izango zirela, ze ordura arte zen 'Gora Euskadi' esan eta aurrera". Azpillagak gogoan dauka aldaketa hori. "1975ean, Franco hil, demokrazia etorri eta orduan libre zen. Bertsolariak gura ebana esan zeikeen, eta Lopategi eta Azpillagarena hortxe amaitu zen", dino. "Ordura arte, dena zen alderdi bat legez. Espainolisten kontra abertzaleak. Gero gertatu zen banaketa. Partidu bat, beste partidu bat, beste partidu bat... Bertsolari-tzari be eragin eutsan horrek, baina gehiago zen, libertateagaz, guk esaten genduenak ez zeukala indarrik".

Gertakariak bata bestearen ostean hasi ziren pilotzen. 1976an, Jurramendin tiroz eraso zitueen Karlistak eta lagun bi hil ziren; Gasteizen poliziak gogor jo eban langileen kontra, eta bost lagun hil zituen. 29 presok ihes egin eben Segoviako kartzelatik. 1978an, Argala hil eban BVEk. Hego Euskal Herriak ezezkua emon eutsan Espainiako Konstituzinoari. 1979an, Gladys de Estal hil eban poliziak, Lemoizen kontrako martxa Tuteran sartu zenean. Gernikako Autonomi Estatutua onartu zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat.

Kultur munduan be badago zer aitatu. 1976an, Atxagaren *Ziutateaz*, Koldo Izagirreraren *Itsaso*

*ahantzia* eta Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro* argitaratu ziren. Urte berean, Errobi taldea sortu eben Mixel Ducauk eta Anje Duhalde; Niko Etxartek, Minxoriak. 1977an jaio zen Zakilixut. 1978an, Bai Euskarari kanpaina antolatu eban Euskaltzaindiak. 1979an, Martin Zabaleta eta Pasang Temba sherpak 1977tik legezkoa zen ikurrina jarri eben Everest gainean. 1980an, lehenengo Korrikak Oñatitik Bilborako bidea egin eban. Urte berean Itoiz taldeak Ezekiel diskoa emon eban argitara eta Ruper Ordorikak, *Hautsi da anphora*.

Eta 1980. urtera ailegatu bagara, Errege Eguna izango da honezkero. Eta Errege Eguna bada, Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan behar dugu. Euskaltzaindiak barrero ekin deutso bertsolari txapelketak antolatzeari eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko finala da jokatzekoa gaur. Xanpun, Etxeberria, Gorrotxategi, Garmendia eta Larrañagaz kantari, Jon Azpillaga, Jon Enbeita eta Xabier Amuriza dira finalistak. Etxanokoak jantziko dau txapela, Bizkaiko bertsogintzan baino gehiago, bertsolari-tzaren historian mugarri bat jarriz. "Amurizaren bertso-teak eta bertso-giroak aldaketa ekarri eban. Horrek bertso mundu bat barria sortu eban eta nik pentsatzen dot hortik segitzen dauela gaur be", Mugartegik dinon moduan.

Amurizak berak txapelketa haretara ilusino konbatiboz joan zela dino, batez be, finalerako sailkatzean, bere aurreikuspen anbizinotsuak gertagarritzat jo zituenean. "Zenbait doinu eta neurri barritan menturatzea, batuan kantatzea, aurretik zaleen aldetik nahikoa eztabaidaturik eta ez gitxik maiseaturik nekarren izena duintasunez markaturik iztea, eta, oro har, egin neban lakoxe saio bat egitea", dino orain, harrotasunez. Baina denek ez eutsien bertsolari-entzuleen zenik erraz onartu. "Amuriza ezin irunsi eben tradizionalistek" gogoratzen dau Lopategik, "Ez eben dijertzen. Larzen". Eta kontrakoek be laster urtego eben,

Amurizaren bertsokera "botikako bertsolaritza" zela esaka. Trino Azkoitiak be badaki orduko eztabaiden barri: "Ni entzunda nago Amurizagaitik: 'Hori bertsolaria al da, ba?'. Eta gaur egun bere miresle handiak dira".

Amuriza menditarra eta rurala zen sortzez, baina karrera bat egin zen; pentsamenduaren, literaturaren eta artearen mota eta korronteak ikasiak eta batzuk oso barneratuak zituen; preso egoniko urteetan bertso surrealista be egin ei zen, kontzientzia osoz; hiztegi errimatua eta beste hainbat gauza idatziak zituen, eta *Egin*-eko zutabegilea be bazen. "Horrek bertsotan be nahitaez agertu behar eban", berak dinon moduan. Eztabaida honetan, argigarria izan leiteke Jon Lopategiren eritzia: "Beste bidea be bertsolariak landu ebalako egin zen. Bertso zaharrak eta esakerak ikaste hori. Euren eskemak, inkontzienteki igual, baina bertso zaharretatik-eta hartutakoak ziren. Bakotxak modu batera asimilatu arren, sistemak denak dira bardinak" Baina Xabierri asko sufritu eragin eutsan bere txapela eta, batez be, bertsokera, batek baino gehiagok zalantzan ipini izanak. "Hogeita bosgarren urteurrena igaro ondoren, izan dot halako unera heltzeko zoria, non, gazi-gozoen bilakaeran, gaziak eta gozoak apartzen joatazen", dinosku orain.

Denporagarrenean, irabazleagaz baino ez gogortzea ohikoa bada, Amurizaren txapelak atera eban zaratagaz pentsatu leiteke beste inork ez ebalako orduan bertsotan egin, baina txapelketa haretan Jon Enbeita izan zen bigarren, eta bere meritua autortu behar jako 1982, 1986, 1989 eta 1993an be Euskal Herriko finalista izandako muxikarrari. "Txapelketa Nagusi haretako finala, urduritasuna barne, gozada bat izan zen", dinosku, 1980ko txapelketa gogoan. "Neure aldetik, zegoen teoria bat aldatu gura izan neban, baina ez ulertu zen moduan", dino Enbeitak. "Orduan poesiak ez zeukala zerikusirik bertsoagaz esaten zen; bertsoa

gauza bat zela eta poesia beste gauza bat. Nik poesia egin leitekeela bertsotan demonstratu gura izan neban". Entzun behar izan zituen bereak Jonek be.

Zalantza batzuk argitzen joan daitezen, 1982ko Euskal Herriko Txapelketa Nagusian be Xabier Amuriza gailenduko da, eta bigarrena be bizkaitar bat izango da beste behin: Jon Lopategi oraingoran. Ordurako, bertso-mugimenduan gauza asko dagoz aldatzen hasita.

Bizkaiko Museo Historikoan gagoz, Bilbo hiriburuan. Jon Aurre bertsozale zornotzarra da bertako Pedagogia saileko arduraduna eta, bertako azpiegitura erabiliz, Xabier Amurizari deitu eta bertso-ikastaroa antolatu dau. "Artean, *Hiztegi Errimatua*, gerora bertso eskoletako oinarri-oinarrizko liburua izango zena, oraindino argitaratu barik zeukan Xabierrek, eta originalaren fotokopiak erabili genduzen ikastaroan", Aurrek dinonez. Bilbo inguruko giro unibertsitario eta industrialean mugitzen diren hainbat bertsozale batu dira, gaur egun Euskal Museoa esaten jakon horretan: Trino Azkoitia, Jose Ramon Etxebarria, Iñaki Antigüedad, Iñaki Lasa eta Koldo Tapia, besteak beste. Hamabostean behin



Alfonso Ingoleen

Bertsolariak. Zornotza, 1982-VI-06

batuko dira urte osoan zehar. 1980ko hamarkada hasiera da, eta Euskal Herri osora zabalduko diren bertso-eskolen hazia ereinda dago.

"Nik uste dot geugaz esperimentatu zituela Amurizak idatzi zituen bi edo hiru liburu horreek. Geu izan ginen esperimentuko kuiak. Eta halantxe hasi ginen, ni behintzat, bertso-technikaren tripak ikusten eta ikasten", gogoratzen dau Jose Ramon Etxebarriak. "Gero bertso-afariak egiten hasi ginen, hilean behin edo, Alde Zaharreko Gernikesa tabernan, eta hasieran etortzen ziren Xabier Amuriza bera, Jon Lopategi eta holan". Jon Aurrek be ondo gogoan dauka afari hareetako giroa: "Elkar zirikatu, ondo pasatu, kantetako giroa sortu, alaitasun giroa garatu... Bertsolaritza guretzat bizitza zen. Plaza batzuk be egin genduzen. Geure zirkuitutxo osatu genduen". Penagarria izan zela dino Trino Azkoitiak: "taberna ha Bilboko urioletan amaitu zen".

28

Bertso-eskolen mogimendua, barriz, hasi baino ez zen egin. Algortakoa, adibidez, Trinok berak kontatzen dauen moduan: "Horrelaxe ezagutu neban nik Andoni Iriondo. Eta askotan esaten geuntsan elkarri; 'Zergaitik ez joagu bertso-eskola bat edo horrelako zerbait hementxe egiten?'. Eta antzera beste herri askotan be. 'Gero hortik egin genduen zen, bakotzak bere lekuan, antolatzaile ardura hartu. Saio asko egin eta berreskuratu zen guri eskerrak", dinosku Kristina Mardarasek Durangaldetik. Sasoi haretakoa da, besteak beste, nabarniztarren sistema: bat jartzen da mahai edo sila gainean, eta besteak behean. Goikoak bertsoa botatzen dau eta, beheko norbaitek ontzen badau, publikoak erabagitzen dau nork igon behar dauen gora. Goikoa jaitsi eta beste bat gora. "Nik Nabarnizen egiten eben txapelketa baten ezagutu neban hau. Gaurko eskolakoentzat barria da eta asko gustatzen jake", dino Trinok barrez.

Orduantxe sortu zen eztabaida, bertsotan egitea

berezkoa den ala ikasi ete leitekeen. Landu zeitekeela zinoen bertso-eskoletako bultzatzaile eta kideek. Beste gauzak ikasteko badira, ea zergaitik ez den ikasiko bertsogintza be. "Beste kontu bat da puntako bertsolari izatea", dino Jose Ramon Etxebarriak, "baina horrela, lagun artean eta bertso batzuk botatzeko? Hori edonork". Kristina Mardarasen eritzia da hurrengo hau: "Egia da bertsolariak ekarria behar dauela, eta etorria be bai, ze beti ekartzen be ezin leiteke ibili; etorri be egin behar jake; berezkoa be behar dau zeozer. Baina landuta, askoz hobeto". "Amurizagaz asko diskutitu dot horretaz", da urteetan bertso-irakasle ibili den Lopategik dinoskuna, eta holan segitzen dau: "Jaio, bai. Ze ez da bakarrik bertsoa botatzeko gai izatea. Norberaren adorea, jente aurreran egoteko zer hori... Nik ibilian ikusi dot. Hainbeste bertsolari on egin doguz, baina ibiltzeko arranke hori ez dabe denek edukitzen. Ostera, ibili dabilzenak, denek daukie zeozer, jenteari atentzinoa emoten deusana. Ez da intelijentzia asuntoa. Kontua da zeozer edukitzea, jenteari atsegin suertatzen jakona. Eta hori berezkoa da. Bertsoaren kalitatea da gauza bat eta beste bat emoteko modua, karisma. Zeozer behar da, bai".

Hautsak harrotu zituen beste kontu bat emakume bat plazara bertsotan urtetea izan zen. Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoak holan dino Kristina Mardarasi eskainiriko sarreran: "Durangaldeko bertsolari-eskolan hasi eta 1982an plazaratu zen lehen aldiz. Asko nabarmendu ez bada ere, txapelketa batzuetan hartu zuen parte. 1980.eko hamarkadaren hasieran emakume bertsolari bakarra izan zen, gero etorri direnentzat bide-irekitzaile". Kristinak berak holan kontatzen dau: "Gogoan daukat lehenengoz kantatu nebanekoa, Bilbon. Entzuleen artean sekulako isiltasuna sortu zen, ea zer kantatuko neban. Eta gero, bertsoa kantetan nebanean, ordaina txalo piloa izaten zen". Denek ez ei eben, baina, ondo-ondo hartu: "Entzunda daukat bertsolariren batek edo bestek ez ebalu niaz kan-

tatu gura, feminista nintzelako. Andrazkoek horretan eta beste hainbat gauzatan demostratu behar izan dabe ahal dabela, eta bertsolaritza beste erronka bat gehiago zen".

"Kristina Mardaras izan zen lehenengoa, eta gero urteetan ez zen besterik izan, baina orain, ea zenbat dagozen! Onak, gainera", dinosku Jon Azpillagak. Lehenengo bertsolaria, Euskal Herrian, Mari Lasturkoa izan zela zelan esaten daben gogoratu deusku. Bertsoak haregandik hasi ei zirela. "Hori ez dot sinisten -dino berak. Bertsole-riek bazter guztietan urtengo eban, lantzean batek. Baina Lasturko Mari be bazen, behintzat, bertsolaria, lehen be".

1980.eneko hamarkada be emonkorra bezain gatazkatsua gertatu zen Euskal Herrian. 1982an, Juan Mari Lekuonak *Ahozko Euskal Literatura* argitaratu eban; ETB Gabon gauzez hasi zen lehenengo emisioekin. 1983an, gerora hainbat herri-tan sortuko ziren euskara elkarteetan aitzindari izango zen AED sortu zen Arrasaten. 1984an, Hertzainak eta Zaramaren lehenengo diskoak kaleratu ziren. 1988an, bertsoak pantailara egin eban jauzi *Ahotik* *ahora* ETB-ko programagaz. 1989an, Bernardo Atxagak *Obabakoak* argitaratu eban, eta 1990ean *Euskaldunon Egunkaria* kioskoetan zegoen.

Gorabehera politikoei jagokenez, barriz, estatu-kolpe saiakera izan zen Madrilen 1981ean. HABEn istiluak sortu ziren 1982an, lau polizia matrikulatu zirelako. 1983an, Sestaoko AEKtik ertzain bat kaleratu eben; udan, Banderan Gerra legez ezagutu dena hasi zen Tolosako gertakizunekin. 1984an, Santi Brouard hil eban GALEk; 1985ean, Joseba Sarrionaindiak eta Iñaki Pikabeak ihes egin eben Martuteneko espetxetik. 1987an, Gernika 37-87 plataformak Gernikako txikizioaren 50. urteurreneko ekitaldiak antolatu zituen. 1989an Josu Muguruza hil eben Madrilen.

Bertsolaritzak bere bilakeragaz jarraitu eban hamarkada honetan, eta laster sortuko zen Bertsozale Elkartea be, Euskal Herri osoko herrialde-etara zabalduko zena. Bertsolarien Lagunak Ipar Euskal Herriko Elkartea 1980an sortu zen, baina nazino mailako proiektuak 1985ean dauka sorburua. Euskaltzaindiak 1982tik txapelketarik antolatzen ez ebala eta, bertsolariak heldu eutsien erronkari, epaimahaiaren osaketari eta erizpideei jagokezen desadostasunak zirela tarteko.

Txapelketaren antolaketak, baina, zeregin zabala-goei eta anbiziotsuagoei heltzeko egitura sortu eban. Holan dinoe 1985eko urriaren 3an Azpeitian egindako batzarrean onaturiko Euskal Herriko Bertsolari Elkartearen lehenengo estatutuek: "El objeto de la Asociación es la conservación, fomento y promoción del bersolarismo, fenómeno cultural exclusivo de Euskal Herria y medio eficaz para la supervivencia del euskera". Bertso-eskolak, bertso saioak, bertsolarien arteko lankidetzak, udaletxe eta gainerako instituzinoakazko hartu-emonak eta beste hainbat egitekeri ekin jakon orduan.

Eta bidea ibilian egiten den seinale, egiteko barriak be sortu dira geroztik; komunikabideetan bertsolaritzaren tratamendua lantzea, hezkuntza arautuan bertsogintza eta bere baliabideak gartzeta, edo, bertso-mogimenduaren bilketa eta ikerketa lana, kasurako. Ibilbide horretan bidelagun barriak be topatu doguz, Euskal Herriko mugetatik kanpora jo, eta lehenengo pausuak emokeran pentsatzen ez genduen arren, munduan gurea lako fenomenoak badirela ezagutuz. Bizkaiko Bertsozale Elkartean beharrean urteak egindako Jose Luis Basterretxea *Altzaleik* laburbildu deusku bide arrakastatsu honen nondik norakoa: "Sail bako-tzeko azterketa ondo egitea da giltza, perspektibaz eta harrotasun puntu bategaz, gainera, 'hau ontzeko kapaz gara' pentsatuta. Ondoren egitas-moa betetzea baino ez da gelditzen".

1986ko Bertsolari Txapelketa Nagusiagaz egingo dau Bertsozale Elkarteak bere ibilerako lehenengo urratsa, eta txapelketa honetan, Euskal Herriko bertsolaririk onenenekin batera parte hartuko dabe bertso-eskoletako hainbat kidek be. Jose Ramon Etxebarriari itziko deusagu kontatzen: "Bertsolari eskolan, dozena bat lagun inguru ginen, denak pertsona helduak, eta kurtsoan esan genduen: 'Mekasuenlamar! Presentatu egin behar joagu'. Hamar apuntatu ginen eta ez genduen ridikulatorik inork be egin". Jose Ramonek berak "Gauza politik eingo dot, baina / milagrorik ez eskatu" kantatu eban agurra Bergaran, baina askok pentsatu baino aurrerago iritsi zen txapelketan. Kristina Mardaras, Justo Alberdi, Jose Luis Basterretxea *Altzalei*, Jose Antonio Aranburu *Natxi*, Jose Mari Aranbarri *Botx*, Liborio Urrutia, Jon Arrizabalaga, Xalbador Laka, Xabier Arriaga *Txiplas*, Jose Luis Anakabe, Manu Ziluaga, Jose I. Goenaga *Gorri*, Xabier Bidaburu *Txirri* eta Anton eta Josu Arriola anaiak dira Bizkaiko bertso-eskoletan trebatu eta txapelketan urten eben beste batzuk. Arriolar gazteenak holan amaitu eban bere lehenengo agurra Saran: "Geuk dakiguna azaldu gabe / behintzat ez gara joango / kantatu txarto zein ondo / aurren edo azkenengo / behintzat txaloak jo sendo".

Garaiak legez, gaiak be aldatzen hasita dagoz den orduko. Korapilotsuago bihurtu direla esan geinke, eta adibide hauxe jarri: "*Ireneo, zuk, egoerak beharturik, atrako bat egitea erabaki dozu eta bai egin be: narruzko abriguz jantzita datorren andre dotore bateri 'la bolsa o la vida' esan deusazu. A zer sustoa zeurea, Josu Arriola zeure emaztea dala konturatu zarenean*". Tematika aldetik, honakoak aitatu geinkez: umeak ekarri ala ez eztabaidatzen daben senar-emazteak; erretzailea eta ondoan doana; udaltzaina eta gruak autoa daroatsona OTAgaitik; zabor-biltzailea eta zabor-ontzian lotan dagoena; ikastolak; euskarazko liburugintza...

Jon Lopategi, Jon Enbeita eta Xabier Amuriza izan ziren 86an finaleraino ailegatu ziren bizkaitarrak. Xabierrek azkenengoz hartu eban parte Txapelketa Nagusi batean. Txapela Sebastian Lizasok jantzi eban. Lan-erdietan Jon Lopategi aurretik zen, baina bigarren postuagaz konformatu behar izan eban barriro. Hiru bertso antologiko bota eutsazen zaborretatik arropak biltzen zebilen eskekoari, eta arratsaldeko kartzelako lanean, arriskatu egin behar ebala-eta, goizean hain emoitza onez saiaturiko bederatziko txikiari heldu eutsan barriro: "Hantxe galdu neban txapela neure erruz, tentsinoan paratu nintzelako".

1964tik Euskal Herriko hainbeste finaletan lehia-tu eta gero, bi bider hain gertu edukita, 1989an lortuko dau Lopategik bere buruari ipinitako erronka betetzea. Baina 1989ko txapelketaren antolaketa be gatazkatsua gertatuko da. Epaileen hautaketa dela-eta, eztabaida gogorak eta istiluak izan dira bertsolarien artean. Bizkaitarrek parte hartzeari uko egitekotan be bai ei dagoz. Azkenean, Donostiako Belodromoa bete-beterik dela, Jon Lopategik jantziko dau txapela. "Amaitu da! Eta orain esan daieela esan gura dabenek esan gura dabena, baina amaitu da", pentsatu ei dau orduan. "Exijentziak beteta geratu nintzen, tenplau".

Baina tarte honetan, Bizkaiko Txapelketa bat be antolatu eban Bertsozale Elkarteak. Araba eta Bizkaiko Txapelketa, zehatzagoak izanda, laurogeita hamargarreneko hamarkadako erdialdera arte, arabarrak be bizkaitarrekin batera lehiatu ziren eta. 1987ko abenduaren 20an jokatu zen finala Bilboko Arriaga antzokian, eta honakoak izan ziren finalista: Aritz Lopategi, Xabier Amuriza, Ireneo Ajuria, Jon Enbeita, Jon Lopategi, Jose Luis Mugarza *Elgetzu*, Juan Mari Areitio eta Jon Azpillaga. Txapelketa honetan zeresana emon eban ekarpen bat Amuriza eta Lopategik

bizkaeraz kantatzea izan zen, ordura arteko gipuzkerazko nahiz batuazko eredia aberastu, eta, etorkizunean nagusituko zen joera bati hasikera emonez.

Baina egun honetan Arriagan baturiko bertsozaleak errelebo esanguratsuen lekuko gertatu ziren batez be. Hasteko eta bat, antolakuntzari jagokonez, Bertsozale Elkarteak Alfonso Irigoieni emon eutsan irabazleari txapela janzteko ohorea. Lopategi izan zen gainera irabazle, Bizkaiko laugarren txapel honegaz 1960ko eta 1980ko hamarkadetak txapelketak modu dotorean batuz. Eta txapela buruan zeukala, erantzi eta finalean kantari egondako Aritz semeari bota eutsan, agurra holan kantatuaz: "Baina etxetik bi heldu gara / aita ez zan bakarrik ari / seme maitea, hartu txapel hau / eta eroan amari".


"Arraro egiten da, niri, behintzat", dinosku Aritzek berak aitaren ondoan bertsoan egiteari buruz. "Ez dakizu zer esan zeinkeen, zer ez. Ez dakizu etxean ala plazan ari zaren, edo ari behar dozun". Aritz Lopategik hamabost urteko ibilbide garrantzitsua hasi eban 1987an, Arriagan. Ehundaka plazatan eta Bizkaiko hainbat finaletan ez eze, Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko finalean be bi bider kantatutakoa da, 1993an eta 1997an. Bertsozale askoren penarako eta ia denen eritziz onenean zegoela, bertsoari itzi egin eutsan hogeita batgarren mendearen hasikeragaz batera, gazte oraindino. Urteotan, bat baino gehiago dira sasoiko zegozela plazaz plazako bertsozaintzari itzi dautseenak, baina zeresan gehien eragin dauen hutsunea berea izanik, entzun dagigun Aritzek erabaki hori zelan azaltzen dauen: "Uste dot norberak lortu leikeen maila horixe lortu leitekeela, aurrera jarraituta be. Ikusi nebanean gehiago ezin nebala lortu edo ezin nebala aurrerago joan, ba, beharbada, horixe izan neban azkeneko erabagia hartu eragin eustana".

Guk be erabagi bat hartu behar genduen: XX. mendeko Bizkaiko bertsozaintzaren errebasoa non itzi. 1990eko eta 1992ko Bizkaiko Txapelketak aukeratu doguz. Txapel biok Jon Enbeitak jantzi zituelako, batetik. Eta, bestetik, Lopategi eta Amuriza ez aurkezteagaz batera, mende honetako Bizkaiko bertsozaintza gidatu dauen belaunaldi osoa dalako apurka-apurka lekukoa izten hasi dena. Txapelketa bi honeetako finalisten izenei erreparatuta, Xabier Arriaga *Txiplax*, Aritz Lopategi eta Juanjo Respaldiza zubi-lana egin dauen belaunaldikotzat jo geinkez, eta bertsolari belaunaldi gazte bat da lekukoa hartzeko gogoz datorrena.



Argazkilaria. Idiazabal, 1982-XI-28

1950. hamarkadan hasi dogun ibilbidea borobiltzeko, 1990. urtea beste arrazoi bategaitik be bada seinalatua. Izan be, Bertsozale Elkartek Basilio Pujana eta Jose Alberdi omendu zituen, Bizkaiko lehenengo txapelketa hareetan parte hartzaile izanikoak eurak. Basiliok, gainera, urte horretako Bizkaiko txapelketan parte hartu eban 77 urtegaz. 1992. urteko finaleko gai batean laburbilduko dogu, honenbestez, praka bakerodun gazteak sotanadunen lekua hartzera datozela ikusiz amaitu dogun ibilbide hau: *"Zu, Ireneo Ajuria, porroa egiteko paperik ez dozula-eta, Jon Enbeita abade honengana heldu zara paper eske"*.







# Bizkaiko txapelketak

## Bizkaiko txapelketak



Bizkaiko bertsolaritza zelanbait eratua Bizkaiko txapelketekin hasi zela esan geinke. Erakuntza hori Euskaltzaindiaren ekimena izan zen eta, Euskaltzaindia esatean, dudaren izpirik be barik, Alfonso Irigoien esan behar dogu. Egia da, erakunde moduan, erabagitzaille eta erantzule ofizialtzat, beti Euskaltzaindia agertu zela. Bere partaideen artean, bertsolaritzagazko jarrera oso aldekorik izan ez balitz, bai bertsoagaitik beragaitik, bai, batez be, euskararen bizkundearen atal legez, halako mogidarik ezin izango zen aurrera atera. Baina, autortza argia eginik, eta premisa hori nahitaezkotzat jorik, egia da, baita, Alfonso Irigoien izan zela Bizkaiko (baita, jarraian, Nafarroako, Gipuzkoako eta Euskal Herri osoko) txapelketen lehenengo aroaren (1959-1968 bitartean) eragile eta eratzaile nagusia, sarritan ia bakarra.

Txapelketa haren nondik norakoaz be, bera dogu iturri idatzi nagusia, sarritan, zoritxarrez, ia bakarra. Berak itzi euskun artxiboagaitik izan ez balitz, informazino zehatz oso urria izango geunke, orduko bertsolari eta entzule bizirauleen lekukotza orokor eta lanbro samarraz harago. Irigoien artxiboan bertan be, urtetik urtera, alde handiak dagoz, batez be, bertsoen jasoeran. Urte batzuetan, finaleko bertso guztiak dagoz eta, beste batzuetan, ia bat be ez dago. Grabazinoak hartuko ziren, baina, egin doguzen ahaleginetan, hutsune guztiak ezin izan doguz bete. Halan be, oro har, txapelketei eurei buruzko informazino eta xehetasun interesgarri ugari dago Irigoien pape-retan, eta horixe izango dogu txapelketen kronika honen iturri printzipala.

# 1958ko BIZKAIKO TXAPELKETA




## Laburpena:

- Euskaltzaindiak Bizkaiko Bertsolari Txapelketa eratzea erabagitzen dau.
- Lehenengo urtean, zenbat bertsolari diren eta zelako harrera izan leikeen kalkulatzea gatxa denez gero, ezagupidea daukan bertsolariak gonbidatuz egitea erabagitzen dau, finala izango litzatekeen moduko saio bakarrean.
- Saioa Bilboko Arenalean egitea erabagitzen da, abuztuaren 15ean. Egun horretan gertatu zen eurtza handiagaitik, atzeratu eta, azkenean, abuztuaren 24an egiten da.
- Gabriel Arestiren bertso batzuek dinoenetik, epai-leak honakoak izan ziren: Nazario Oleaga, Migel Arruza, Josu Arenaza, Aita Santi Onaindia, Aita Martzel Andrinua, Alfonso Irigoien, Aresti bera eta "Abeletxe, Garroren orde" dinona.
- Lehenengotan, sei bertsolarigaz egitea pentsatu zena, azkenean, zazpigaz egiten da. Partaideak eta sailkapena honela geratu zen: Txapeldun, Balendin Erbeita, Muxikakoa. Bigarren, Juan Ormaetxe, "Taket", Larraurikoa. Hirugarren, Jose Alberdi, Mañarikoa. Laugarren, Asentsio Bidaurrazaga, Getxokoa. Bosgarren, Eusebio Zubiaga, Urdulizkoa. Eta gero, Pedro Kastrejana, Loiukoa, eta Florentzio Zarraga, Berangokoa, zein zenbatgarren izentatu barik.

Urte honetatik, nahikoa informazio ugari itzi deusku Alfonso Irigoien funtsak. Esan beharrik

ez dago, politikoki, Francoren diktaduraren aro gordin-gordinean gagozela. Horregaitik, erdarazko dokumentu mordo bat bere-berean emoteari egoki eritzi deusagu, zelako baimen eske eta diligentzia bihurriak egin behar ziren zuzenago ikusi eragiteko. Hona hemen Bizkaiko Bertsolarien Lehenengo Txapelketa iragartzeko atera eben kartela:

EUSKALTZAINDI  
Academia de la Lengua Vasca



1.ER CONCURSO DE BERSOLARIS VIZCAINOS

24 de agosto de 1958  
6.30 de la tarde  
KIOSKO DEL ARENAL

**BIZKAIKO BERTSOLARIEN LENENGO SARIKETA**

Andra Marietan euriagatik egin barik itxi zan eta San Bartolome egunean erabagiko da nor geldituko dan Bizkaiko txapeldun. Lenengo saritzat, diruz gaitiera, Bizkaiko Diputazioaren kopa onongo jako. Bigarren ta irugarrenari beste kopa bana. Aborro-kaxa Bizkaiko ta Bilbokoan.

Lenengo saria irubaztoko burruken gogorra izango da eta zorrozinaun andia bearko dube hertsolariak teman ekiteko.

**¡Ezeizu galdu ezelan bere egun oril!**

## I. CONCURSO DE BERSOLARIS VIZCAINOS

Sasoi haretan, edozein kultur ekitalditarako, Informazio eta Turismo Ministerioaren baimena behar zen. Hona, 1958-VI-11n, Euskaltzaindiko orduko idazkari Nazario Oleagak egin eban eskaera:

Ilmo. Sr. DELEGADO JEFE DEL MINISTERIO DE INFORMACION Y TURISMO DE VIZCAYA.

D. Nazario de Oleaga y Muguruza, Secretario de la Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6 bajo-Bilbao, a V. I. Con el debido respeto digo:

Que la mencionada Corporación proyecta celebrar dentro de la "Semana de Juegos y Danzas Populares" que organiza el Excmo. Ayuntamiento de Bilbao, con motivo de las fiestas de la villa, un certamen de bersolaris vizcaínos, patrocinado por dicha Corporación Municipal, según programa que se adjunta.

Suplico a V. I., en nombre de la citada Academia organizadora, que se digne conceder la autorización que legalmente se precisa para la celebración del citado certamen.

Gracia que espero merecer de V. I., cuya vida guarde Dios muchos años.

Irigoieneren paperen artean, erdarazko orri bat agertzen da, berak idatzia, seguruenik, non txapelketa horren deskribapen oso samarra emoten dauen. Jarraian dakargun orri hori baimen eskaeren gehigarria izan zeitekeen, baita komunikabideentzako txosten informatiboa be.

### CONCURSO DE BERSOLARIS VIZCAINOS

Dentro de la Semana de Juegos y Danzas Populares organizada por el Excmo. Ayuntamiento de Bilbao, con motivo de las fiestas de la Villa, agosto de 1958, en el Kiosko del Arenal:

1.- La Academia de la Lengua Vasca invitará a seis bersolaris vizcaínos de entre los que se suponen más destacados.

2.- El concurso será por eliminatorias.

3.- En cada contienda de la primera eliminatoria, los contrincantes recitarán versos de la siguiente manera:

1.- Un verso de saludo.

2.- Dos, sobre los modos de vida actual en los pueblos vizcaínos, comparados con épocas anteriores.

3.- Continuar la siguiente iniciación, recitando dos versos "Ardoazale askok txikiteuan sarri neurritik kanpo edan" (muchos aficionados al vino algunas veces beben sin medida). 4.- Luchar en desafío, contestándose mutuamente; tres versos cada uno.

4.- En la segunda eliminatoria: el tema número dos será para un contrincante, sobre las ventajas del automóvil, y para el otro sobre las del burro. El tema número tres comenzará así: "Neska gazteak beti begira moda barri guztieri" (Las chicas jóvenes siempre están mirando a todas las modas nuevas).

5.- En la final, el tema número dos versará para uno sobre las ventajas de ser pobre y para el otro sobre las de ser rico. El tema número tres comenzará así: "Estimazino handikoa da euskalduna mundu osoan" (El vascongado es de gran estimación en el mundo).

6.- La Academia de la Lengua Vasca nombrará un jurado calificador, el cual verificará el sortero de los contendientes.

7.- Los premios serán: 1º, de tres mil pesetas. 2º, de mil. 3º, de setecientos cincuenta. 4º, de quinientas, y 6º, de quinientas.

Orri honetan, gaurko ikuskerarako, oso zer arraro bat agiri da: gaiak, zelanbait, iragarri egiten dira. Antolakuntzaren barruko orri bat zen? Bertsolariak horren jakitun etorriko ziren? Badirudi bersolarien ezagutzara be heldu zela honelako zozoz, Juan Ormaetxe larrauritarrak, "Sollubepek", 1958-VIII-22an, Alfonso Irigoieni bialdutako gutun honetan dinonetik:

Agur, adiskide: zeure kartatxua eskuan eta bertan ikusi det zuen erabagia. Argi esateko, ez det ondo topetan. Dinozu ensaioa. Ba, nik ez det ondo topetan bertsolariak ensaiorik bihar ebanik. Orfeoiko kantariak bai, eta musikoak ere bai, baina bertsolariak ez. Bertsolaria ta kazerua bardinak dira. Kazerua ehizera, kazara doianian erbia hiltzera, eperrak urtetan badautso, ahal dana hilko dau, baita oilagorra ere; urtetan dautsona. Bertsolaria horretan doia, urtetan dautson puntua harrapetan.

Orain gauza bat esango dautsut. Horrek temak sortean emon bihar dozuz, nori toketan jakozan. Norberak ez degu bihar nahi dabena hartzeko erarik. Hori ez da bertsoetan eitea. Ni, Jainkoak nahi badau, hor izango naiz, baina gauzak barregarri ez egin. Nire gogua hori da, baina zeuek esango dozue.

Agur ta ordura arte. *Sollubepe.*

Gorabehera honen esplikazino bat, ia ziurra, honakoa izan daiteke: orduan, Informazino eta Turismoaren baimena lortzeko betekizun bat ekitaldiaren edukia izaten zen. Kantariak, esaterako, kantatuko zituen kanten testuak baimen eskean insertatu behar zituen, zentsura horren arabera etorriko baitzen baimena edo debekua. Bertsolarien kasuan sortzen zen kontraesanak pikareska ugari sortu eban, betekizun hori saihesteko. Zelan aurreratu inprobisazinoaren, definizinoz, uneko sorkuntza zenaren edukia? Lazkao Txikik badauka pasadizo bat, guardia zibil batek zertara zihohan itaundurik, bera bertsolaria zela erantzutetik sortua:

- ¿Qué es eso?
- Pues, uno que canta versos.
- ¿Y qué va a cantar?
- No sé. Allá lo verá.
- ¿Que no sabe lo que va a cantar? ¡Pues, vaya cantor de la hostia que es usted!

Iturrik berak be, (ikus bere elkarrizketa) ia pasadizo bardin-bardina kontetan dau. Baimena emon behar ebenen buruera be sarritan horrelakoxea zen, eta kontraesana biguntzeko modu bat izaten zen, eduki literala ez bazen be, gitxienez, ekitaldia osatuko eben gaien zerrenda aurreratzea. Alfonso Irigoien horrelakoxe preminaren baten aurrean aurkituko zen, edo aurkituko zela aurreikusiko eban, lehenengo txapelketarako bideak zabaltzen hasi zirenean.

Txapelketari ospea eta garrantzia emoteko, lekurik egokiena Bilbo zela argi zegoenez, hiriburuko Udalaren baimena eta begiona irabazi behar zen. 1958ko uztailaren 1ean, Euskaltzaindiko idazkariak honako eskaria bialtzen dau:

El que suscribe, Nazario de Oleaga, como secretario de la Academia de la Lengua Vasca y en su representación, a VE. Expone:

Por acuerdo de la Academia, y con el fin de que en los concursos y certámenes de "bertsolaris" que se celebran en el País Vasco y fuera de él, en los lugares en los que se quiere conocer y estudiar el fenómeno del "bertsolarismo" y del idioma vascongado —como recientemente en París, ante los profesores de la Sorbona— pueda tener en Vizcaya la representación de que ahora carece, ha decidido organizar un certamen entre los mejores "bertsolaris" vizcaínos, este año en vías de ensayo, y el año próximo con mayor extensión, y como resultado de concursos comarcales, con una final en Bilbao.

Para el certamen de este año, a celebrar en Bilbao, ha pensado que se podría incluir dentro de las fiestas de la "Semana de juegos y danzas populares", y es lo que proponemos a V. E. en este escrito, ofreciéndole el patrocinio del concurso a ese Ayuntamiento.

La Academia de la Lengua Vasca correría con la organización del concurso, así como con la designación del Jurado, en el que, si lo desea, podría tomar parte una representación designada por ese

Ayuntamiento. Y con la presencia de algunos chistularis, que amenizarían los descansos y darían más ambiente a la fiesta.

La Academia Vasca tiene el siguiente proyecto para dicho concurso: participación de los seis bersolaris...

(aurreko agirian agertutako saio egitaraua errepikatzen da hemen, gaiak eta abar).

La Academia de la Lengua Vasca solicita de ese Excmo. Ayuntamiento, al mismo tiempo que la inclusión de este Certamen entre los actos de la Semana de Juegos y Danzas populares del próximo mes de agosto —en la seguridad del éxito de esta milenaria demostración popular de ingenio y versificación de las gentes de nuestro agro, poco conocida en Bilbao—, el patrocinio de dicho Certamen y la subvención que estime que debe conceder esa Corporación, para los premios y gastos de preparación del acto, consistentes en la visita a las distintas comarcas, en las que viven los más destacados "bertsolaris", para hacer que concurren al Certamen.

Con el pensamiento de que ese Certamen encaja plenamente en la actualidad y en los deseos de dotar a la "Semana de Juegos y Danzas populares" de las fiestas de Bilbao, con tan buen acuerdo montada por ese Excmo. Ayuntamiento y de tan buen eco popular, esperamos que este acto del los "bertsolaris" sea incluido en el programa, y que sea patrocinado por esa Corporación.

Dios guarde a V. E. muchos años.

1958ko uztailaren 2an, Concha Goiri izeneko emakume bati honako gutuna bialtzen deutso Irigoienek:

Distinguida Sra.:

Le adjunto copia de la solicitud presentada ayer en el Ayuntamiento, despues de la entrevista que tuvimos el Sr. Astiz y yo con varios miembros de la comisión de la "Semana da Juegos y Danzas

Populares", para incluir dentro de dicha semana un concurso de "bertsolaris". Si el resultado es favorable, como esperamos, intentaremos que la Diputación done como mínimo una Copa para el vencedor.

Animados por lo de Bernagoitia, los guipuzcoanos se han reunido el domingo pasado en Larraiz, cerca de Villafranca de Oria, aprovechando las fiestas de San Pedro que allí se celebran. Fue mucha gente y hubo mucha animación, destacando notablemente el uso del vascuence y las canciones vascas.

Hace dos domingos, en el homenaje que los chistularis y el pueblo de Lejona tributó al veterano Joaquin Basañez, actuaron en la comida tres "bertsolaris" de dicha zona: Eusebio Zubiaga de Sopelana, Luis Llona de Lejona y Castrejana de Lujua. Aun despues de que los comensales se fueron, continuaron en desafío cerca de allí, despues andando por la carretera, para terminar en otro lugar a las nueve y media de la noche, sin que en todo ese tiempo se tomaran descanso alguno. Le saluda atte. A. Irigoyen.

1958-VIII-18an, ondorengo gutunaren hartzailea Maria Dolores Agirre Donostiakoa da.

Nire adiskide hori:

Ama Virginearen egunean egitekoa zan bertsolarien sariketea ez zan egin, azkenean, eguraldi txarragaitik, eta hurrengo egun baterako ixtea erabagi zan. Hain zuzen bere, gaur hartu da erabagia, datorren domekan egiteko, lehengo tokian bertan, arratsaldeko sei ta erdietan. Sariak eta kopak bardintsuak. Esaten neuntsun baino kopa bat gehiago dago, Bilboko ahorro-kaxeak emona, hirugarren saritzat, eta bigarren saria, dirutan, bi mila pezeta izango da, lehenengo esan zan mila pezetaren orde.

Eskerrak emonik egin dozuen zabalkunde handiagaitik, eta oraingo egoerearen barri be emongo dozuen ustean, bihotz-bihotzez. A. Irigoyen.

Azpian, eskuz idatzita:

Bertso sorta bat be bajoatzu, sariketa honen gainean ifiniak, zirikatatxo batzuk be aldean daroazala, piztugarritzat.

1958-VII-10ean, Aita Antonio Zabalar Oñara idazten deuto:

Ene adiskide hori:

Hemen joatzuz bertso batzuk. Ez dakit norenak direan.

Uste dot datorren hilean, gauzak okertuten ez badira, Bilbon bertso-sesio bat egingo dala, Bizkaiko sei bertsolari aukeratuta. Ondo urtetan badau, gero urtero egiteko gogoia dago, ia apur bat mogiduten dan bertso kontua. Batez be, Txorierrri ta itsasaldean, oindino bizirik dago bertsoarako gogoia, ikusi dodanez. Oraintsu, Leioan izan nintzan, hiru bertsolari egozala, ta arratsalde osoan gelditu be egin barik ekin eutsien. Bata Sopelakoa zan, bestea Loiukoa eta bestea Leioakoa. Halan da guztiz be, bertso paperik ez neban eskuratu ahal izan. Gerra aurrean, asko egiten zireala esan eustan batek, baina, ordurik hona, ez ei da egin. Beste barik, bihotzez. *A. Irigoyen.*

Saso haretan, oraindino telefonorik apenas zegoen bertsolarien etxeetan, eta hartu-emonak gutunez egin behar ziren. Txapelketako partaidetzat pentsatu zituenei bialdutako gutunen erakusgarri, hona, esaterako, Loiuko Pedro Kastrejanari idatzi eutsana, 1958-VIII-06an:

Nire adiskide hori:

Aguztuko 15ean, Ama Virginearen egunean, Bizkaiko bertsolarien sariketa bat egongo da Bilbon, arratsaldeko zazpiretan, Arenaleko kioskoan. Sariak dira: lehenengoa, hiru mila pezeta; bigarrena, mila; hirugarrena, zazpirehun eta berrogeta hamar; eta beste hiru bostehun pezetako. Goizean, Ama Birgina Begoñakoari, zortziretako mezea akabauta,

bertso batzuk botako jakoz. Guztira, sei bertsolari hautatu dira, aurtengo, parte hartuko dabenak, eta zeu be hautatuen artean ifini zaitugu.

Sariketarako jakinerazoten dan gaia hau da: lehenengo, agurra, bertso bat; bigarren, gaur eguneko bizimodua Bizkaian, lehenagoko zaharrakaz konparauta, bertso bi. Gainerako gaiak hantxe bertan jakinerazoko ditu Euskaltzaindiak izendatuko dauen batzarrak. Zure baiezeko erantzunari begira geldituten gara, bihotzez, *A. Irigoyen.*

Juan Ormaetxek honen antzeko gutuna hartuko eban, Larrauritik, 1958-VIII-07an, honela erantzun ebanean:

Agur, nire jaun hori:

Zeure idazkia nire eskuan une honetan hartuta, aditu det zein dan EUSKALTZAINDI guraria. Ta ikusten det oso pozgarri gure Euskeran alde hartu daben erabagia. Nire baiezeko erantzunari begira geldituten (...?), Jaungoikoa bitarte, hor izango naiz egun horretan. Ni zahartxua banaiz, baina egingu ahal deguntxua ta ez dago beste zorrik.

Ama Neskutsearen egunera arte, Jaungoikoak nahi badau. *Ormaetxeatar Jon "Sollubepe".*

Komunikabideetan lortu gura eben oihartzunari buruz, adierazgarria da, 1958-VIII-07an, Andoni Agirrezabali Gasteizera bialdu eutsan gutun hau:

Ene adiskide hori:

Ama Virginearen egunean, aguztuko hamabostean, Bilbon Bizkaiko bertsolarien sariketa bat egongo da. Euskaltzaindiak prestau dau, Bilboko Ayuntamentuaren euskal dantza ta jokoen astearen barruan. Bizkaiko Diputazioak kopa bat emon dau lehenengo saritzat, eta Bizkaiko ahorro-kaxeak beste bat, bigarren saritzat. Sei bertsolari izango dira parte hartuko dabenak. Lehenengo saria hiru mila pezetakoa izango da, dirutan; bigarrena, mila pezetakoa; hirugarrena, zazpirehun eta berrogeta hamarrekkoa; eta beste hiru bostehun pezetako.

Guzti hau dinotsut, ahal badozu, jakitun ifini daizuzan euskal emisinoak egiten dabezanak, ondo baderitxie, honen barri emon daien.

Bertsolari sariketa honegaz gura litzake bertsolari kontua Bizkaian eragin apur bat, Gipuzkoaren parera heldu arte, behintzat. Bizkaian zaletasun handia dago bertsotara, baina orain arte ez jako bultzatu behar dan lez, eta behar leukean ohorea emon bere ez bertsolariari. Asko erdi ixilik egon da gerratik hona.

Beste barik, bihotz-bihotzez goraintziak horko ezagun guztieri. Ikusiko dogu alkar aurten, Urbian, urrietako lehenengo domekan? Agur. *A. Irigoyen.*

Iurretatik, 1958ko abuztuaren 8an, Jose Alberdi mañariarrari buruzko gutun esanguratsu bat hartzen dau Alfonso Irigoienek, erdaraz idatzia:

Amigo Alfonso:

Ayer y hoy he intentado hablar contigo por teléfono sin conseguirlo, pues no contestabais. El asunto que quería tratar contigo es el siguiente: un muchacho de ésta (a efectos de edad, ten presente que yo tambien me considero muchacho) se ha informado del festival que organizais para el próximo día 15, y como es un bersolari muy entusiasta, de buena voz y que no carece de picardía imaginativa, desearía tomar parte en el certamen del Arenal.

Yo, despues de leer la prensa, le dije que es muy posible que tengais ya todo preparado y que quizá llegásemos tarde, pues estarían elegidos los seis vizaínos que anunciabais. No obstante, teniendo en cuenta sus vivos deseos de presentarse a la palestra, ta agradeceré me informes seguidamente con lo que se puede hacer, si aún es tiempo. Remitiéndome, en su caso, el programa o detalles que tengas por conveniente.

Sobre el asunto de las clases de euzkera, creo que dentro de este mes tendremos preparada ya una profesora, y entonces será el momento de tu intervención cerca de D. José. Ya te avisaré con tiempo, para que pases el día con nosotros y aprovechemos para cambiar impresiones sobre muchas cosas.

Pendiente de tus rápidas noticias, recibe un cariñoso agur de tu buen amigo. Nota.- El nombre del bersolari de lurreta es José Alberdi, que en la actualidad tiene su domicilio en Mañaria. *J. de Sopelana.*

Gutun honetan aitatzen den "D. José" hori, seguruenik, Don Jose Echeandia Durangoko Santa Anako parrokoa izango zen, karlista eta frankista sutsua eta eragin handikoa izanik, bitartekotzat erabiltzen ebena, zenbait gauza lortzeko. Bertsolarien epaimahaian be sartu eben, ha tartean ibiltzea baimenak lortzeko berme bat zen eta. Makinaz idatzitako gutun honen gainean, Alfonso Irigoienek honako esaldiak datoz, eskuz idatzita:

Telefonoz esan deusat hautatuta dagoala, baina, halanda guztiz be, Bilbotik etorten bada, ezagutu gura neunkeala. Kantari talde bat topauko ete deuskuzu egun horretarako?

1958-VIII-18an, Urdulizko Eusebio Zubiagari gutun labur hau idazten deusot, bertso batzuk be aitatuz.

Nire adiskide hori:

Ama Virginearen egunean hurrengorako itxi zan sariketea datorren domekan egitea erabagi da, arratsaldeko sei ta erdietan, lehengo tokian bertan. Bigarren saria bi mila pezeta izango da, esan zan milaren orde. Etorriko zareanen barri hartuteko usteagaz, bihotz bihotzez, *A. Irigoyen.*

Bajoatzuz bertso batzuk bere. Azkenengo bertsoan, Llonari zirikatatxo bat sartu deusot.

Bertso horreek, zorionez, Irigoienek paper artean agertu dira. Bitxia da, alde batetik, berak be bertso-tarako zeukan gogo eta, bestetik, zelan bertso-papereen grina zaharrari heltzen deusotan, txapelketaren propaganda egiteko eta, bide batez, saltsa apur bat ipintzeko. Merezi dau bertsook hona ekartzea, bai Irigoienek erakusgarri legez, bai, bertso-papereen usantzara, informazioa be emoten dabelako.



ANDRA MARITAN BILBO HANDIAN  
(Alfonso Irigoien. 1958)

1)

Andra Maritan Bilbo handian  
bertsolariak nagusi  
urteak mila bederatzirehun  
berrogeita hamazortzi  
Kristo jaiota igaro dira  
gertari eder hau ikusi  
nor txapelduna izango dan gaur  
prisaz gura geunke ikasi.

2)

Zoritzarrean eguraldiak  
ondo lagundu ez deusku  
penaz beterik hurrengorako  
iztea erabagi dogu.  
Txarto edo ondo borondate onez  
jaiari emon jako pagu  
zergaitik itxi dan gerorako  
tristerik egin da erregu.

3)

Kopa ederrak dirutza ona  
Bilbon dirade gelditu  
luzamendutan ibili barik  
laster da egingo deitu.  
Bertsolaririk nagusienak  
pozik daitezcan jabetu  
izen handia herririk herri  
zabaldu daien kontentu.

4)

Ikasi dogu kontuz ibiltzen  
bertsolari guztiakaz  
ziri ederrak sartu deuskuez  
guztiz zuhur ez ibilteaz.  
Geure burua gordeko dogu  
lepoko ederrak emonaz  
badakigu ondo defendietan  
ziri handiakoakaz.

5)

Hain zuzen bere zirrikada asko  
behar dogu euskaldunak  
bertsolariak bizi nahi badau  
hor pasadu behar penak.  
Bizi gogorra indar handia  
emoten dituez temak  
holan bagabiltz urte askotan  
sekulako indarra hitzak.

6)

Goxeko mezan dogu agurtu  
Begoñako Birjinea  
elixa aurrean deusagu eskatu  
osasuna ta bakea  
Jarraitu daigun guztiz indartsu  
gaur hasi dogun bidea  
anaitasuna zabaldu daien  
baita bere euskerea.

7)

Bizkaiko seme argi ta zuhurak  
alboetan dozuzala  
Llonak bildurrez huts ein deusku  
kazari joan da epela.  
Zelan gineion sartu buruan  
Jesukriston parabola  
askori deitu gitxik erantzun  
zeruetan sartu nola?

02. **Jaiari emon jako pagu:** behar den ordaina  
emon jako, behar den moduan egin da.

04. **Defendietan:** defenditzen.

05. **Pasadu:** bizkaierazko aditz forma arkaikoa,  
erromantzetik harako aditzetan, gaurko egu-  
nera arte, *pasau*, *kantau*, *gozau*, *pentsau* eta  
horrela gelditu dana.

**Temak:** eztabaidak, liskarrak.

07. **Gineion sartu:** sartu geinkion, sartu ahal  
geuntsan.

### Txapelketaren emoitza eta ostea

Azkenean, euritza handiagaitik, pentsatutako abuztuaren 15eko Andra Mari egunean barik, 24an egin zen ekitaldia. Biharamonean bertan, 1958-VIII-25ean, Maria Dolores Agirre andreari idatzitako gutunean, saioaren informazioa hone-la emoten dau. Lehenengotan pentsatutako sei bertsolari barik, zazpi izan ziren.

Nire adiskide hori:

Azkenez, atzo egin zan Bizkaiko bertsolarien lehenengo sariketean. Bizkaiko txapelduna gelditu zan: Valentin Enbeita, Muxikakoa; bigarren, Juan Ormaeche, Larrorikoa; hirugarren, Jose Alberdi, Mañarikoa; laugarren, Asensio Vidaurrezaga, Getxokoa; bosgarren, Eusebio Zubiaga, Urdulizkoa; ta gero, Pedro Castrejana, Loiukoa eta Florencio Zarraga, Berangokoa. Aurrez adierazota egozan sariak emon zirean. Bilboko Arenala puntatik puntara beterik egoan gentez, eta urrunetan be, gentea zutunik ikusten zan, ezarleku barik. Hiru kopak irabazi ebezanak agurrezko bertso bana bota eben eta entzuleak txalo berotan joan zirean, arratsalde benetan on bat gogoan eroanik. Entzulerik gehienak herrietatik etorriak zirean. Datorren urterako dagoen asmoa da, hainbeste bertsolari agertu dan ezker azkenengo momentuan, herrietan eliminatoriak eginik, finala Bilbon egitea.

Beste barik, bihotzez eskerrak emonik egin dozuen propaganda guztiagaitik, zure esanera geldituten naz. *A. Irigoien.*

Irailaren 3an, Kontxa Goiriri idazten deutsan gutunean be, informazino interesgarria agiri da.

Distinguida Sra.

Era mi intención haberle escrito antes, pero en el deseo de darle algunas noticias que hasta última hora no he tenido definitivamente, se ha pasado el tiempo.

El concurso de bersolaris ha creado un interés extraordinario. Son varias las personas que se han dirigido a la Academia para felicitarla. Entre otras, el Sr. Urcelay de la Caja de Ahorros Vizcaína, quien prometió para el año próximo más y mejor. Los elementos de la Academia donostiarra estaban informados muy favorablemente y en el momento que llegamos D. Nazario y yo, era el comentario general sobre los bersolaris. D. Nazario con sus palabras reforzó aun más el interés que flotaba en el ambiente. Desde luego están muy interesados en hacer un concurso de bersolaris guipuzcoanos.

D. Nazario habló en la junta de la Academia sobre el Caserío, después de la conversación que sostuvo con Vd., y se enfocó en el sentido de sugerir a la Caja de Ahorros Vizcaína y Excm. Diputación de Vizcaya. Arrue apoyó con interés esta cuestión del caserío, hablando incluso de algunos casos concretos, dentro de la complejidad del tema. Le mando copia de la carta que se ha dirigido a la Caja de Ahorros Vizcaína. Se ha dirigido otra casi en iguales términos a la Excm. Diputación de Vizcaya, juntamente con la solicitud de apoyo económico al diccionario de Azkue, cuya copia le adjunto.

Le adjunto también una carta de agradecimiento que en nombre de la Academia firma D. Nazario, dirigida a Vd. y sus colaboradores.

D. Nazario está recobrando la euforia por momentos al ver que toda aquella gente en el Arenal seguía con tanto calor las salidas de los bersolaris. A la venida de San Sebastián me dijo que él no quisiera morir sin ver en un sitio céntrico de Bilbao el monumento a D. Resurrección María de Azkue. Le remito unos bersos sobre D. Resurrección, de los cuales tengo intención de sacar copias a multicopista y enviar a todos los bersolaris que conocemos, con el objeto de que los difundan.

Aun después del concurso, ha llamado un bersolari poniéndose a la disposición de la Academia para cualquier concurso. Para el año próximo la expectación es extraordinaria entre ellos, y habrá que dar cabida a todos los que no hemos podido admitir

este año por haber llegado a última hora y no ser posible su actuación en un solo día. Sin duda ninguna que también saldrán figuras entre algunos que no han actuado, pues hay elementos muy jóvenes y agudos. En el Ayuntamiento me prometieron incluir oficialmente, dentro del programa de fiestas, para el año próximo el concurso de bersolaris.

D. Antonio Arrue está dispuesto a venir a Bilbao a dar una conferencia en vascuence sobre los palan-karis, en el momento y lugar que nos parezca oportuno. Le saluda atte. *A. Irigoien*.

Bizkaiko lehenengo txapelketako saioaren grabazinoz ez dogu aurkitu. Han kantaturiko bertsoen beste iturririk be, ez osorik, ez partzialik, ez da inon agiri. Alde horretatik, gertaera kulturalaren eta mogida sozialaren barri baino ez jaku geratu. Baina hutsune hori bete-ko eban saltsabide bat ez zen falta izan, eta hori bai itzi deusku Alfonso Irigoien funtsak. Antza denez, Juan Ormaetxe larrauritarra, berak "Sollubepe" ezizenez sinatzen eta beste-ek "Taket" gatzizenez esaten eutsiena, ez zen epaimahaiaren erabagiagaz konforme geratu eta, motibo horren gainean, usadio zahar eta horzkariaren arabera, bertso sortatxo bat atera eban, buztan luzea ekarriko ebana. Baleiteke buztan hori, produktu moduan, saioa bera baino interesgarriagoa izatea. Eta, bide batez, bai Ormaetxeren, bai Balendin Enbeitaren eta beste batzuen bertsoak adierazoten deuskue. Baleiteke hareen bat-bateko bertsoen eta jarrien egikera antzekoa izatea, baina, behintzat, ez da pentsatzekoa bat-batean jarrietan baino hobeto egingo ebenik.

AMAITU DA BA TXAPELKETIA  
(*Juan Ormaetxe*)

1)  
Amaitu da, ba, txapelketia  
Enbeita zala onena  
hamabost egun dira, Alfonso,  
nik hau igarri nebana.  
Ez noia gaur ni hasarrerikan  
erakusten inogana  
bataren batek igarko eban  
zer zan han egin ber zana.

2)  
Ez dau balio ona izatea  
ez bada zuzentzailerik  
ahalegin dana eginagaitik  
guzti-guztia alperrik.  
Argi dirautsut Enbeitagaitik  
ez daukat zeresan txarrik  
erabagia hartu behar zan  
horrenbeste igarri barik.

3)  
Aurtengua hemen amaitu da ta  
agur beste baterarte  
hurrengokuan jua berko da  
hobeto hau ikasite.  
Arriskuan gauz gizon guztiok  
egon zaite sinistute  
kendu lekio hurrenguan be  
aitabitxi ona ekarrite.

4)  
Agur gozo bat Aita Onaindia  
baita aita Martzeleri  
agur bardina Oleaga ta  
Garro lez Arrugaineri.  
Aresti jauna, Abeletxe ta  
baita be Arenazari  
osasun bake emon deiskula  
Birjina amak danori.

01. **Igarko:** igarriko.

**Ber:** behar.

03. **Gauz:** gagoz.

Bertso honeek argi zegoen erantzunen bat ekarriko ebena. Hona Balendin Enbeitaren lehenengo erantzuna:

ARENALIAN BATU GINIAN

(Balendin Enbeitak Juan Ormaetxeri)

1)

Arenalian batu ginian  
txapelketa jokatzeko  
toki ederra euki genduan  
ahal genduna egiteko.  
Baita ederto jokatu bere  
dakiguna erakusteko  
hainbat jokaldi egin genduan  
txapela irabazteko.

2)

Aitabitxiren kontu horregaz  
ikusten da oker zauzala  
zazpi jakintsu ta zentzundunak  
bakizu han ziriala.  
Eta uste dozu epaia honek  
oker emongo ebela  
ala uste dozu gure antzeko  
sasi-letrau diriala?

3)

Parkatu baina ez neban uste  
zinianik hain arina  
zer jazoten da holan minduta  
erabilteko mingaina?  
Gizonak hutsik urten legike  
egin arren ahalegina  
askoz hobeto egingo zendun  
ixilik egon bazina.

4)

Aitabitxi onak euki ezkerok  
barriro be egin leikela  
jakin egizu gizon makalak  
atxaki asko daukala  
Ez al dozu uste esate horrek  
zuretzat motz diriala?  
nik uste nabenez zu hori baino  
askoz gehiago zinala.

5)

Mingainaz eta baita idatziz  
kontuz ibili bakotxa  
egikeretan erakusten dau  
gizonak bere jakintza.  
Entzuliaren gorapenetan  
nahi bozu eruan bizitza  
apala izan eta maitekor  
nunahi agertu bihotza.

02. **Zauzala:** zagozela.

03. **Jazo:** gertatu.

04. **Motz:** itsusi, zatar.

Handik denpora laburrera, (bitartean zer esanak eta zen entzunak izango ziren), Balendin Enbeitak barriro ekiten deutso. Honen bertsoetatik, ("ez ete dozu, aiskide Enbeita / etxian zuk espilurik?"), eta beherago dakargu gutun batetik ("Ormaetxek bigarren egin eustazan bertsoetan"), Ormaetxek beste bertso batzuk atera zituela emoten dau, baina bertso horreek, Irigoienek papere-tan, behintzat, ez dira agiri. Balendin Enbeitari bialdutako gutuna izanik, beharbada, honen jaiotetxeko zokondoren batean egon leitekez.

ARENALEKO GAUZA EDERRA

(Balendin Enbeitak Juan Ormaetxeri)

1)

Arenaleko gauza ederra  
hainbat milak ikusteko  
gehien-gehienak hantxe zirian  
zer jazo zan ikasteko.  
Batak egin ta besteari emon  
hori ez da federako  
hau irakasten ez zan etorri  
lurrera gure Jangoiko.

2)

Zazpi jakintsu esaten dozu  
hantxe egon ziriala  
zortzigarrena ez ikusteko  
ez zan, bada, hain argala.  
Gainera uste dot zentzunez bere  
ez dala holan makala  
baita erakutsi batzuek baino  
sskoz zintzuago dala.

3)

Buruarintzat ipinten nozu  
zeurial aditu barik  
nire ustian zuriak bere  
ez dauko buelta handirik.  
Zenbateg berba egiten dogun  
Norberana ikusi barik!  
"Ez ete dozu, aiskide Enbeita  
etxian zuk espilurik?"

4)

Batzuk ez dabe nahi bere izaten  
egiak azaldutia  
hauxe dalako guzurtientzat  
osoko kaltegarria.  
Horregaitikan esaten dabe  
dala hori atxakia  
nahi dabela ixil egonda  
gura dabena eitia.

5)

Erdi amenazuz ez dakit, bada  
azkenen dinozun hitza  
ez al dakizu nola emon eban  
gure Jangoikok bizitza?  
Alde batera itxi ber zala  
dino gorrotoan giltza  
bere bidiak albora itxirik  
oker ez ete zabilta?

6)

Zortzi zirian epaikariak  
gauzia ondo egiteko  
zertan gizon bat epaia emoten  
bertso bi esan orduko?  
Uste ete dozu nagoala ni  
zer pasau zan jakiteko?  
Baina itxi daigun berbeta hori  
eta amaituko betiko.

7)

Ba al dakizu zer esan zendun  
orain dirala bi urte  
nire herriko gizon batzuri  
zeure etxe onduan jarrite?  
Hau bere ez dot inoz agertu  
izan ez arren ahaztute  
baina nigandik danak daukazuz  
gaur artian parkatute.

8)

Agur danori barru-barrutik  
ez dago nigaz har txarrik  
bihotzetikan hau dirautsuet  
inoren gorroto barik.  
Baina inor bada oraindikarren  
aurrera jarraitu nahirik  
nigandik bere ez dau izango  
holan badator amairik.

03. **Zeuriai aditu barik:** zeureari begiratu barik.  
 08. **Oraindikarren:** oraindino.

1958ko azaroaren 23an, Balendinek honako gutuna idazten deutso Alfonso Irigoieni:

Aspaldiko aiskide zintzo horri, agur:

Atzo hartu neban zure idazkia eta bertsoakaitik diraustazunak bere zioa dauka. Ormaetxek bigarren egin eustazan bertsoetan, zazpigarren bertsoan holan dino:

Ba al dakizu zer esan zendun  
 orain dirala bi urte  
 nire herriko gizon batzuri  
 zeure etxe onduan jarrite?  
 Hau bere ez dot inoz agertu  
 izan ez arren ahaztute  
 baina nigandik danak daukazuz  
 gaur artian parkatute.

Esan nebana esan nebala, neuk ez daukat gogoan zer izan leiken. Dana dala be, zuk ez dozu ikusten oso motza dala hori esatia? Berak hori esanagaz, irakurlien gogo-belarrietan ederto geratzen da, orain artian ez dabela agertu, baina parkatzen daustala. Askok esan dauste umekeri horrek ez diriala gizon ikasiaren egikerak, eta oragin gura dau idazki horren gauzarik ez agertzia!

Erderazko esakun batek dino: si vienen con balas, la cosecha no será de flores. Txapelketia egin genduan ezkeru, hasi eta gehiago, ez da ixildu. Bertsoz, idazkiz eta berbaz nahikoa entzun dogu. Nik, eginahalak egin arren, ez daukat begi txarrik, maite dot, baina bere eginak ez dodaz hain maite. Beraz, baktoxari beria.

Nik ez neban idazki konturik aitatuko, bera ondo etorri balitza. Jesusek dino harria jaurtiten dabenari ogiagaz erantzuteko; bertsolariak bestera egin ohi dabe: harriari burdiniagaz erantzun. Nire bertsoak bere dagozan lez izan behar dabe, ez gehitu eta ez gitxitu; berak ere erantzuteko eskubide bardina dauka. Idazki kontu hori bertsolari askok ikusi behar dabe; berenak be halantxe ikusi ebezan, ez da egia?

Ormaetxea ustez ni baino zaharragua da, baina neu bere ez naz atzokoa, igarri barik katua erbitzat sartzeko. Idazki kontu hori be, zugandik barik, Ormaetxearengandik etorriko da, hor ikusiko ebezalako; baina, dana dala, nik ez daukat bihotzgetasunik, ezta mingainian arantzarik be, bihar dana esateko. Parkatuko daustazu, gogortxu erizten badautsazu. Gehiagoko barik agurtzen zaitu egiz maite zaituzan *E. tar Balendinek*.

“Ormaetxek bigarren egin eustazan bertsoetan” dino Balendinek, baina bertso sorta hori ez dogu inon aurkitu. Gauzak ez zegozen, antza bakerako. Balendin Enbeitak beste bertso sorta luze bat bialtzen deutso Irigoieni, *Ormaetxeari bigarren erantzuna* izenburuz, nahiz eta, dagoeneko, hirugarrena be baden.

#### ORMAETXEARI BIGARREN ERANTZUNA

(“Bertso berriak, Juan Ormaetxeari Enbeitak jarriak. Bigarren erantzuna”)

- 1)
 

Bizkai aldeko bertsolariak  
 gaur badogu zeregina  
 zuk Ormaetxea jarri dauskuzu  
 apur bateko ekina.  
 Zuri txapela han emotia  
 ez zan bidezkoa baina  
 bake santuan biziko ginan  
 txapeldun izan bazina.
- 2)
 

Bertso kontuan abila zala  
 lau puntukoan gogorra  
 Ormaetxeari neuk entzuna da  
 ez noia esaten guzurra.  
 Geuk be halantxe uste genduan  
 euki genduan bildurra  
 baina gizonak uste ez arren  
 euki legike okerra.

3)

Arenalian zer jazoko zan  
aurretik zendun jakina  
azeri zaharrak pausoa labur  
baina zorrotza hagina.  
Zeure ustia ez zendun bete  
egin arren ahalegina  
hoba zenduan ez jakinian  
geu legez juan bazina.

4)

Epaikariak egin dautsue  
egin be egitekoa  
bertsolaririk onena izanda  
emon ez lehenengokoa.  
Askok dinonez bigarrenagaz  
euki zenduan nahikoa  
zu baino hobatzat daukielako  
Alberdi Mañarikoa.

5)

Bertsolarien izakeria  
zorrotza izan da beti  
euren esanak gizaldietan  
gogoan ohi dira euki.  
Ez diran gauzak gura badozuz  
herriai egitzat jarri  
badaezpadan be atzaii ondo  
begiratuta ibili.

6)

Amenazutatz hartzen daustazu  
bosgarren nire bertsoa  
la ez badakit nola emon eban  
Jesusek azken ordua.  
Egia esan, gitxi maite dau  
bihar dan lez Jaungoikua  
zu lango santu ongillientzat  
bakarrik dago zerua.

7)

Zeure erderazko idazki horretan  
parabola asko daukazu  
Jesukristoren heriotzia  
Adan da Ebaren pekatu.  
Ur azalian uger eiteko  
konturik zeuk ez daukazu  
baina sakontzen sartu zara ta  
urtetan kostako jatzu.

8)

Eleiz-gizonak Jesus hil' bela  
zeure idazkian dinozu  
Arenalian honek zirala  
zure kontra esan nahi dozu.  
Pilatos jaunak egin ebana  
ahaztuta bizi zara zu  
holan errudun inor jarteko  
ta zeuk eskuak garbitu.

9)

Zure hirugarren bertsoan barriz  
hau da esaten dozuna  
ez ete dodan neure etxian  
ispiluren bat ohi dana.  
Ispilua oso beharrezko da  
askoren jatzi-laguna  
baina hain barik pasau leiteke  
era hortako gizona.

10)

Urte bi ditun trapu zaharren bat  
euki daustazu agertzeko  
beti daukagu lagun onen bat  
barri onak zabaltzeko.  
Zugana heldu zan lagun hori be  
ez zan edonor izango  
tabernerutzat hala-halakoa  
katua erbitzat saltzeko.

11)

Neuk be trapuak asko daukadaz  
zesto zahar baten sartuta  
eguzkitera atarateko  
lixuntzen ere dagoz-ta.  
Baina trapuen astintze horrek  
atsoen gauzak dira ta  
zure lagunak datozeneko  
daukadaz ondo gordeta.

12)

Aresti jaunak sartu ei daustu  
barruragino eztena  
zergaitik honek esan daustu, ba  
ez zariala gizona?  
Aresti ondo ikasia da  
asko ikusten dabena  
honek jakin lei nundik dabilen  
azeri zaharran buztena.

13)

Epaikariak eukela errua  
argi autortuten dozu  
horretaiko bat, Aresti jauna  
zeure alde egona dozu.  
Ez zariala gizona esanda  
oragin itxi bazaitu  
egia esan, Ormaetxea  
pena emoten daustazu.

14)

Arestik baina esan ebala  
bost zirala zure aldeko  
beti daukagu laguntzailen bat  
ezin dabena pozteko.  
Hurrengoan be Arestiren bat  
ez dogu falta izango  
baina alperrik, ez daukanari  
ezin atara gehiago.

15)

Gorrotorikan ez daukazula  
eta parkatzeko gertu  
zorioneko benetan zara  
bihotzetik badinozu.  
Nahiko gizon da oker eginaz  
egiten dana damutu  
gaurtik aurrera leialaguak  
izango gara ni ta zu.

16)

Bihotzez danoi opa daustuet  
osasuna ta bakia  
ez dogu gura bertsoakaitik  
gizonak hasarratzia.  
Anaitasunez eroan daigun  
alkar arteko bizia  
herri ta erbeste zabalduagaz  
geure euskera maitia.

Alfonso Irigoienek, bertso honeen gainean, 1958-  
XI-21ean, gutun adierazgarria idazten deutso  
Balendin Enbeitari, non, bide batez, berak, Iri-  
goienek, bertsoari buruz zeukan erizpidea dela-  
eta, xehetasun interesgarriak aurkitzen doguzen.

Nire adiskide hori:

Astiro arakatu dodaz joan dan astean Juan  
Ormaetxeri iminiko bertso ekarri zeunstazanak. Oso  
ondo dagoz. Baina. Halan da guztiz bere, zerbait  
esan behar deusut. Karta batean berak esan deu-  
tsuzan gauza batzueri erantzuten deusazu, eta,  
zelan bertso honeik bertsolari askoren artean zabal-  
duko direan, nire ustez hobeto egongo litzake  
berak kartaz esan deusunari zuk bere kartaz eran-  
tzungo bazeunskio, eta zuon artean bakarrik geldi-  
tuko balitz. Gainerakoan, gura dozuzan gauza guz-  
tiak esan zineioz, eta zeinbat eta zirikada dotorea-  
goak, hobeto. Ez dau arduza sekulakoak esaten  
badeusazuz bere; gatzagaz eta dotore esaten  
badeusazuz, ondo dago.

Beraz, atzera bialduten deusudaz, bertsook kendu



eta, horren orde, barriak imini gura badeutsazuz, holan egin daizun eta barriro niri bialdu.

Bertsolarien artean, temak egotea oso gauza ona da eta oso bizigarria. Modu horretan, ez dago dudarik bapere, indartsu etorriko dala bertsolari kontua Bizkaian, hain beharrezkoa dogun momentu honetan. Topau dozuz Jesukristoren biziaren gainerko bertsoak? Ni bere ahalegindu naz, itxi neuntsazanari topau daizan eragiten. *Alfonso Irigoien.*

Aurreko hileko, urriko beste gutun batean be, Balendin Enbeitak, Jesusen bizitzari buruzko antzerki baten eskaria egiten deutsan gutun batean, azkenean, gehigarri legez, honakoa eransten dau:

Zer dino gure Ormaetxeak? Gizon horrek tornilo guztiak ez daukaz ondo. Hoba zan txapeldun jarri bagendu, bakean biziko ginan ta. Holango lotsagarririk! Epaikari edo juezak leku onian ipinten ditu, eta Enbeitatarrak iruntsi egingo leukez. Bere semiak be esan ei dau bere aitari lehenengo saria ostu egin dautsela. Ikusiko bazendu zelango idazkia egin daustan? Eta erderaz, gainera. Bertso baten ipinten neutsan arina dala, baina ez neutsan guzurrik jarri. Barriagoak be hartu dodaz. Laster izango dabe erantzuna nunbaiteti. Agur.

Beste batzuk be sartu ziren sailean, Muxikako Areatzako Pedro Ajuria, esaterako. Hau Balendinen koinatua zen eta, geroago, bertsolari ezaguna izango zen Ireneo Ajuriaren aita.

HASARRE SAMAR AGERTZEN JAKU  
(*Juan Ormaetxeari Pedro Ajuriak iminiak*)

1)  
Hasarre samar agertzen jaku  
Meñaka aldetik txoria  
esan leiteke amaitu dala  
aurtengo uda aldia.  
Negu gorria ganian dogu  
hau penearen handia  
beste batzuek kendu deutsie  
beretzat eukan habia.

2)  
Aitabitxi onak ditun gizona  
beti polito munduan  
nahizta ibili azken samartxu  
beraren jakiturian.  
Hau ez badago, sarri atzetik  
ibili bihar herrian  
beste hainbeste jazoko zan, ba  
aurtengo bertso sarian.

3)  
Zeuk dinozunez, lehentxuagotik  
ibili zara urduri  
Arenalian zer jazoko zan  
iragarriak askori.  
Han egon ziran hainbat gizon jaun  
juez eta epaikari  
honen onduan azkarra zara  
ein botsazue igarri.

4)  
Gauza guztiak euki ohi dabe  
beti euren arrazoia  
neuk be oragin danen aurrian  
esan gura dot egia.  
Honelangorik ez zan jazoko  
hau da nire eretxia  
Arenalian emon botsuen  
zuri lehenengo saria.

5)  
Gaurko niretzat nahikua da ta  
emoten noia amaia  
ez neunke gura hasarratzerik  
esanagaitik egia.  
Bihotz-bihotzez opa deutsuet  
zorioneko bizia  
eta guztiok txalotu daigun  
Bilboko Euskaltzaindia.

03. **Honen onduan:** honeen, euren ondoan.  
**Ein botsazue igarri:** egin badeutsazue igarri,  
igarri badeutsezu

04. **Emon bortsuen:** emon baeutsuen, emon baleutsue.

Ondorengo urteetan, partaide zintzoa izango zen Basilio Pujanak, jakin ez ebalako, edo bere barriarik Euskaltzaindian ez eukielako, lehenengo txapelketan ez eban parterik hartu, baina bai sartu zen epaiaren inguruko auzi haretan, berak be honako bertsoak jarritz:

INOR BE EZ DOT EZAUTZEN BAINA  
(Bertso barriak, Basilio Pujanak ifiniak)

1)  
Inor be ez dot ezautzen baina  
gure Enbeita kenduta  
zeozergaitik Juan Ormaetxe  
daukagu oso minduta.  
Nasaitu zaitez, bada, gizona  
gauza motz hori aiztuta  
ia zertxobait egiten dogun  
alkarrerri lagunduta.



Alfonso Irigoienaren arxiboa. XIZ

2)  
Neugaz be inor ez zan gomutau  
ez lagun ta ez auzoak  
bestelan pozik joango nintzan  
esaten neure bertsoak.  
Gizonik asko munduan baina  
gehienak gara gaixoak  
azaldu nahi ez geuk dogun gatxa  
baina eingo dau Jangoikoak.

3)  
Gauza motzen bat egin deutsue  
bertsoen epaikariak  
ahaleginagaz egin arren be  
danak ez ziran garbiak.  
Baina hartu behar dirianian  
Jangoikoaren sariak  
han okerrikan ez dago bape  
ba berak daukoz neurriak.

4)  
Zoritzarrean mundu honetan  
epai zuzenik ez dogu  
hil beharreko gizonak gara  
horrelan sarri erratu.  
Eta zentzunez ez bagabiltza  
oso galduta gagoz gu  
Kristo berberak erakutsia  
ondo egiten ez badogu.

01. **Gauza motz hori aitzuta:** gauza itsusi hori  
ahaztuta.  
02. **Gomutau:** gomutatu, gogoratu.  
03. **Erratu:** huts egin, oker egon.

Temarako gogorik (eta, bere ustez, arrazoirik)  
falta ez jakon Ormaetxek ez eban birritan pentsa-  
tu Pujana "ezezagunari" erantzuteko.

ZERBAIT ESATEN EDO ESAN NAHIRIK  
(Bertso barriak, Juan Ormaetxek Basilio Pujanari  
iminiak)

1)  
Zerbait esaten edo esan nahirik  
agertzen zara, Pujana  
erdi urduri ikusten zaitut  
orainguan zatozana.  
Zuk badakizu batak bestia  
ezaututen ez doguna  
bildurra emon lei zirikatzia  
gizon ezauna ez dana.

2)  
Zazpi ginian Arenalian  
ginianak gu kantari  
zazpiron arte ezaupidia  
emoten zeuntsan bateri.  
Hareri itxita zirikadaka  
zatozan Ormaetxeri  
holantxen danak egiten dautse  
ni lako koitedueri.

3)  
Azagari ta azkonarrak lez  
asko ein dozuz ezautu  
neuk bere hori apur-apur bat  
egiten deutsut sinistu.  
Batzuk eiten du nahi dana esanda  
hatxaren zuloan ostu  
egunen baten handik urtenda  
jana bilatu bihaku.

4)  
Banoia ixiltzen ni, Basilio  
agur beste baterarte  
nire barruan gorrotorikan  
inontzat ez da orainarte.  
Kristauak alkar anai bat legez  
bihar geunke izan maite  
gurari hauxe danori izanik  
geratzen da Ormaetxe.

01. **Emon lei:** emon leike, eman lezake.

03. **Azagari:** azeria.

**Eiten du:** egiten dogu.

**Hatxaren zuloan ostu:** haitzaren zuloan ostendu, ezkutatu.

**Bihaku:** beharko dogu.

Eta, azkenean, ika-mikan nor sartuko eta hor jatorku Gabriel Aresti bera beste bertso sorta bategaz, eta ez edozelakoa berau, hamazortzi bertso egin zituen eta. Sorta hau ezin hobeto jatorku, Arestiren beraren beste alderdi bat ezagutzeko. Bertsozalea zen; bertsolaritzaaren bizkunde haretan, Irigoienegaz batera, oso parte aktiboa izan eban. Bertsoak jartzea oso gogoko eban eta, hasten zenean, sorta luzeak egiten zituen. Eta beste arloetan be, barrizalea eta polemikazalea zenez gero, honelako aukerarik ezin eban albora itzi, bera be liskarrean sartzeko. Bertso honeei eskerak, bera be, urte honetan, epaimahaiko izan zela jakin dogu. Handik urte batzuetara be agertu zen barrero epaimahaian. Eta, azkenik, esan beharrik ez dago bertso honek Arestiren estilo guztiz pertsonalean eginda dagozela, azpitolutik bertatik hasita, "erantzunak bertotan bakarrik" izan daitezela exigitzen dauenean.

JUAN ORMAETXE JAUNARI

(*"Bertso barriak, Sollubepeko bertsolari Juan Ormaetxe jaunari". Aresti Bilbotarrak. "Erantzunak, bertotan bakarrik"*)

1)

Bertsolarien sariketea

Bilboko Arenalean

Euskaltzaindiak prestaduteko hemengo aste nausian.

Alfonso jauna Irigoengok

ahaleginak ein zituan

zuk ez dakizun modu batean

gogorrik ahalegindu zan.

2)

Zuk badakizu zer jazoten dan

orain euskerearekin

hilten jakula gure aurrean

jakin barikan zer egin.

Amorioa ta gorrotoa

haren kontra doaz arin

pentsau behar da zelan segidu

osorik berpiztu dedin.

3)

Mogimentu bat indar barriko

Bilbon sortzen da haren alde

beste leku ta toki askotan

egin dabenaren pare.

Bandera barik, kolore barik

euskerea gura dabe

ondo indartu sano berotu

euren fedea da lege.

4)

Sollubepeko bertsolaria

Ormaetxe famadua

bertsoak ondo neurtuten dozuz

handi da zure zentzua.

Bihotz berotu horren ganean

altu daukazu burua

aditu eistazu zer dinodan nik

aldendu bedi damua.

5)

Aitabitxi bat eduki barik

inor ez da bateatzen

gizon gaiztoak mezak pagauta

elexan dirade sartzen.

Jangoikoaren justiziarik

ezelan bere ez dago hemen

oraindino hori ez badakizu

ikasi ahalbait lasterren.

6)

Herrietatik heldu zirean  
gure Bilbo honetara  
Andra Maritan bertsolariak  
hamahiru zapata dira.  
Baina sei buru, batek bidean  
bota ebalako errekerak  
danok dakigu hau izan zana  
Asensio Bidaurrezaga.

7)

Enbeita jauna Muxikakoa  
bere aitaren semea  
gure euskerea maitatzen badau  
askoz gehiago elezea.  
Baita Zarraga Berangokoa  
hartuaz Llonan partea  
ta Kastrejana Lujukoak  
horrek dirudi belea.

8)

Gero Zubiaga Urdulizkoak  
Sollubepeko eskolan  
ei dau ikasi modu ederrean  
puntu gaxa segietan.  
Eta zuk bere, Juan Ormaetxe  
zerbait bakizu bertsoan  
ganadu ona haragitako  
Bilboko mataderoan.

9)

Bidaurrezagak erantzunik ez  
huts bat estaldu beharra  
Durangotikan etorri jakun  
Alberdi mañariarra.  
Antiojudun bertsolaria  
kantetan ez da oso txarra  
eta Asensio kopa barikan  
hau da bere zoritxarra.

10)

Euskaltzaindiak batzarra izentau  
hori da bere usuario  
gure mahaipuru maitagarria  
izan zan Don Nazario.  
Gizon prestua ta zentzunduna  
ta gure sekretario  
haren ganean ez egin berbaz  
dalako oso serio.

11)

Migel Arrutza estimadua  
bere eskuman jesarrita  
Ta Frai Sonrisas Onaindiako  
joan zan ezkerretara.  
Honen ondoan Frai Martzel ona  
egiazko pasionista  
ixilduko naz ez dot berba eingo  
abadetzearen kontra.

12)

Gero Abeletxe, Garroren ordezkari  
ona komediantia  
antzineta teatroari  
firma daukotsa jarria.  
Eta Arenatza jaun medikua  
nire adiskide maitia  
eskribietan ei dau sarritan  
euskeraz errezetia.

13)

Mikrofonuan Irigoienek  
berba politak agoan  
zerbait lodia ta bajutxua  
hartu ez dau loak lastoan.  
Eta guztirik umilena ni  
han jesarrita nengoan  
batzar haretan bertsoan baino  
jente gehiago egoan.

14)

Ondo dakizu, Ormaetxe ona  
euskaldun barri nazana  
ume denporan bapere euskeraz  
ezertxo ez nenkiana.  
Baldrestasun hau itxadoten dot  
parkatuko deustazuna  
dotorezia irabazteko  
ez naz joan amagana.

15)

Kexaka zabiz kopa nausia  
ez deustugulako emon  
bere zortea ezin onartu  
leikiana ez da gizon.  
Bigarrena da zuretzat ona  
hartuizu ta arratsalde on  
hurrengorako ondo preparau  
irabazi ta hor konpon.

58

16)

Juraduetan justizia gitxi  
egoten da gehienetan  
hau pasetan da Euskal Herrian  
Madrilen ta Ameriketean.  
Bada txapel bat irabazteko  
gizon bi dabizenetan  
galtzen dauena ibiliko da  
azkenean protestetan.

17)

Baina gauza bat esango deustut  
apur bat zu poztuteko  
akaso nigaz honegaitikan  
hasarratuko da asko.  
Bost ginean han zure aldeko  
ta hiru bakarrik kontrako  
baina txapela Balentineri  
bere aita Kepa zalako.

18)

Amaituteko egiten deustut  
firmadurik prometidu  
ez nazala eingo juradu baten  
aitabitxigaz egondu.  
Eta danori besarkada bat  
emonik dana akabadu  
badakizue non naukazuen  
ta txarto esanak parkatu.

04. **Aditu eistazu:** entzun eidazu, iezadazu.

06. **Hamahiru zapata dira:** Arestiren ironia tipikoa,  
ia mingarria. Ormaetxek, "Taket"-ek, hanka bata  
zurezkoa, "taketa" zeukan. Beraz, zazpi bertso-  
lari izan arren, hamahiru zapata edo hanka baka-  
rrik. Bertso honetan Bidaurrezagaitik dinon  
"batek burua bota ebalako errekarra" horrek ez  
zela aurkeztu esan gura dauela emoten dau,  
baina horrela ezin dau izan, Irigoien txapelke-  
taren emoitziari buruzko gutun gorago emon  
dogun batean, Bidaurrezagak laugarren egin  
ebala agertzen da eta. Hau be, Alberdi mañaria-  
rrak kendu eutsan hirugarren sariagaitik haserre  
zebilela esan gura ete dau? Bata zein bestea esan  
gura dauela, hau da, sei zein zazpi bertsolari  
zirela, "hamahiru" zapata. Sei baziren, Ormae-  
txearen hiru kontatzen ditu: hanka sanoa gehi  
zurezkoa gehi makila. Zazpi baziren, hamalau  
hanka sano ken zurezkoa.

08. **Segietan:** segitzen.

10. **Haren ganean ez egin berbaz:** ez egin berba  
edo ez ekin berbaz izan behar dauela dirudi.

11. **Frai Sonrisas Onaindiako:** Aita Santi Onaindia.

12. **Eskribietan:** eskribitzen.

17. **Bere aita Kepa zalako:** Kepa Enbeita "Urre-  
txindorra".

Arestik hamazazpigarren bertsoan dinonagaz,  
Ormaetxe "Taket"-i, "apur bat zu poztuteko" moti-  
boa aurkitu beharrean, barriro erasora jotzeko  
grina sutu jakon. Horretan zen, ba, bera!

KEXAK EMOTEN NI NABILELA  
(Juan Ormaetxe Arestiri iminiak)

1)  
Kexak emoten ni nabilela  
Aresti, zabiltz argitzen  
holan gauzarik egin dodanik  
ez jat niri gomutatzen.  
Egi hutsari izen horregaz  
ikasi badozu deitzen  
apur bat gehiago ikasteagaz  
ezer bere ez dozu galtzen.

2)  
Umetan ikasiko bertso bat  
.....  
soldadu batek emoten deutso  
bere arpegi ederrean  
belarriondoko handi bat, zeinek  
ezarri eban lurrean  
eta zeruak dira lotuak  
hau ikusi dabenean.

3)  
Oker ez banaz izan behar dau  
bertso hamabosgarrena  
argi-argian esaten dozu  
ez nazala ni gizona.  
Sinistu eidazu bihotzeraino  
sartu jatana eztena  
berba hori da orain artian  
inoz entzun ez dodana.

4)  
.....  
.....  
Baldin deungaro berba egin badot  
errazoia emon eidazu.  
Baina ez badot -dino Jesusek--,  
ezetan bere erratu  
zegaitik, arren, berba egin arren  
honelan tratetan nozu?

02. **Ikasiko:** ikasitako.

.....: hemen eta laugarren bertsoan, puntuok datozen zatia hutsik dago paperean.  
**Belarriondoko handi bat, zeinek:** erlatibo forma hau Ormaetxe lango herritar soil batek erabiltzea seinalagarri da.

04. **Deungaro:** gaiztoki.

**Erratu:** huts, oker egin.

Arestik bertso honeei ez eutsen erantzun, antza, hurrengo bertsoetan dinonetik ("luki zaharrana egin deustazu / iges alboko aldeti"), edo ez eutsan berak gura baizen zuzen erantzun, eta Taketek barriro ekingo deutso.

ZIRIKADA BAT, ARESTI  
(Juan Ormaetxe)

1)  
Zirikada bat emoten nintzan  
zugana jua, Aresti  
luki zaharrana egin deustazu  
iges alboko aldeti.  
Apur bat gehiago zuri erasoten  
izan nintzan ni poliki  
tirua alperrik jaurti dot, bada  
kazeru ona izanagaiti.

2)  
Aspalditxoan begira nago  
noz izango ete dan hotsa  
baina zeozek hotzitu deustu  
nire ustian bihotza.  
Barruntau deustut, ez dakit baina  
horra bildurtian antza  
horrela bada, eskatuiozu  
Irigoiene laguntza.

3)

Urrietako domeka aurrena  
zuok Arantzazurako  
izan handikan osasunagaz  
Amagana helduteko.  
Bihotz barruti eskatu bertan  
gure euskereantzako  
haren laguntzaz ez dao bildurrik  
inoz ez jaku galduko.

4)

Agur, Aresti, ez zaukadaz nik  
oraindi ondo ezautute  
gure neunkena ordu erdi bat  
alkarren aurrez jarrite  
Kafetxu bana dotore hartu  
Alpontsok be lagundute  
geratu, bada, adiskidiak  
besarkada bana hartute.

01. **Luki:** azeria.

**Kazeru:** kazari, ehiztari.

Bizkaiko lehenengo bertsolari txapelketaren kalitate maila ezagutzeko materialik ez dogu aurkitu, baina, txapelketaren helburuetariko bat Bizkaiko bertsolaritzari eragitea eta bertso-giroa astintzea bazen, Ormaetxe "Taket"-ek bigarren geldituta gehiago lortu ebala esan leiteke, lehenengoa emon izan baleutsie baino.

.....



# 1959ko BIZKAIKO TXAPELKETA



## Laburpena:

- Urte honetako txapelketa eskualdeka hasi zen, bost, hain zuzen.
- Urkiolan, ekainaren 13an, San Antonio egunean, bost bertsolari aurkeztu eta Jose Alberdi mañariarra txapeldun. Mungian, ekainaren 28an, zazpi bertsolari aurkeztu eta Juan Ormaetxe "Taket" larrauritarra txapeldun. Bermeon, ekainaren 29an, bost bertsolari agertu eta Deunoro Sardui muxikarra txapeldun. Markinan, uztailearen 18an, zortzi bertsolari aurkeztu eta Juan Azpillaga txapeldun. Zeanurin, abuztuaren 15ean, hiru aurkeztu eta Basilio Pujana zeanuritarra txapeldun.
- Urte honetan, finalaurrekorik ez zen egin.
- Finala Arenalean egiteko zen, jaien barruan, abuztuaren 30ean, baina orduko alkateak alabozak kentzeko agindua emon eban. Sortutako istilua zuzendurik, hurrengo domekan jokatu zen finala.
- Finalistak: Balendin Enbeita muxikarra, Jose Alberdi mañariarra, Juan Ormaetxe "Taket" larrauritarra, Deunoro Sardui muxikarra, Jon Azpillaga berriatuarra eta Basilio Pujana zeanuritarra.
- Balendin Enbeita barriro txapeldun izan zen eta Jon Azpillaga, bigarren.
- Epaimahaiko izan ziren: Nazario Oleaga, Alfonso Irigoien, Eusebio Erkiaga, Aita Martzel Andriñua, Don Jose Etxeandia eta Sabino Berasaluze.

(Iturria: Bizkaiko Bertsozale Elkarteak ateratako Bizkaiko eskualdeetako bertsolari txapelketa 2000 izeneko prentsa-txostena).

Urte honetatik, nahikoa informazino ugaria eta zehatza itzi deusku Alfonso Irigoienek funtsak. Eta, batez be, oraingoan, finaleko saio guztia jasota dago, bai Irigoienek itzi eban ale mekanografiatuan, bai Anaitasuna aldizkariak osorik atera eban alean.

## PRESTAERAK EGITEKO "BIDAJEA"

Hasteko, benetan interesgarria da Irigoienek egiten dauen bere "bidaje" baten kronika. Gitxi gorabehera, honelakoxea zen haren ibilera, Bizkaiko, Nafarroako, Gipuzkoako eta Euskal Herriko aro haretako txapelketa guztietan.

1959 maiatzeko 5ean, Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketearen prestaerak egiteko eginikako bidajea.

Automobil batean, goxeko 9etan Bilbotik urten Zeanuriraino. Han Ignazio Echezarragagaz berba egin dot. Agustuko 16an, arratsaldeko 6retan egiteko gelditu gara. Eurak konponduko dira egun osoko jaialdiak euskal-kutsu bat izan daien. Kopa bi emongo dabez eta meriendea. Larrean, karmeldarren komentuan egon naz Aita Onaindiagaz berba egiteko asmotan, "Xabiartxo",

argitaratu gura dauen liburuaren gainean, baina kanpotik zan.

Durango, D. Jose Echeandiaren etxean dei egin dot, aurrez berba egin genduan legez, biok alkateagana joateko, baina ez egoan inor etxean. Jakin be ez ekian orduan joango nintzanik. Ayuntamentura joan naz, baina alkatea ez egoan eta Larracochea Jaun interventoreagaz berba egin dot. Esan deust programea eginda daukiela, oraindino argitaratuten hasi ez badira be. Halan da guztiz be, zelan sartu leitekean pentsetan ekin deustagu. Esan deustat zelan eurak kopa bat emotea nahikoa izango litzakean eta, gainera, han egiten ez badodu, zelanbait egingo dogula Durango aldeko bertsolarien txapelketa, Bilborako izan daigun alderdi horretako txapelduna. Bihar berba egingo dot telefonoz, ia zer erabagi daben gaur arratsaldean.

Markinan, Ayuntamentuko sekretarioagaz berba egin dot eta oso ondo eretxi deutso asmoari eta Juan Jose Garateren etxera bialdu nau, haregaz konpondu naiten. Egon naz beragaz eta garagarri-leko 19<sup>a</sup> finkatu dogu, ahal bada, arratsaldeko sei ta erdietan, pelota partidua amaitu ta gero; bestela, goxeko 12etan. Erantzungo deust orduarena.

Gernikan, Arrienean bazkaldu dogu. Han topau dot Unzalu Gaztediko dantzaria eta berbaz ekin deustagu dantzen gainean. Prest dago bera zezen-plazako finalerako dantza-programa bat egin eta talde gehientsuak be parte hartu daien lan egiteko.

Bermeon, Jesus Torrontegigaz, bere tabernan egon ostean, alkateagaz berba egin dot. Alkatea eskolan egoan, eskola-maisua da, dirudianez. Bere aldetik, oso pozik emoten dau baimena, kioskoa eta bertako mikrofonoak erabilteko eta, gainera, kopa bat. Kofradiako sekretarioagana bialdu nau, jai eurak prestetan dabelako. Joan naz eta konpndu gara. Bagileko 28an, goxeko hamabietan, erabagi da. Alkatearen izena: Pedro Fernandez Arrien. Kofradiako sekretarioarena: Julio Antonio Perez.

Mungian, Antonio Cayerogaz egon naz. Festen komisinoko bategaz berba egin dogu. Eurak San Pedro bezperan gura leukie, San Pedro hurrengo domekako dantzak kendu gura ez leukiezalako.

Baina zelan Bermeon egun hori erabagi dan, ezina gertetan da. Bestela, garagarri-leko 19an egin behar. Erantzungo deustadala esan deustat. Bermeokoakaz berba egin beharko dot telefonoz, ia eurak San Pedro egunean egitea gura daben. (1)

A. Irigoien.

(1) Berba egin dot eta San Pedro egunean egiteko gelditu gara. Hain zuzen be, eurentzat hobeto dator egun hori, bezperea baino hobeto. Beraz, Mungian, San Pedro bezperan egingo da, goxeko 12etan.

1959-VI-08an, Jesus Bilbaori gutun hau idazten deutso Astrabuduara:

Nire adiskide hori:

Datorren egunean, arratsaldeko 8retan, batzar bat izango dogu Euskaltzaindiaren etxean, Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketearen gainean berba egiteko. Parte hartu gura badozu zure lana eskeiniz, etorri batzarrera. Guztion laguntasuna behar izango da, aurrera aterateko Bilboko zezen-plazako jai nagusia eta bertso-liburuen zabalkuntzea. Bide batez, beste gauza askoren gainean berba egiteko erea izango dogu. Bertsolarien lehenengo txapelketa Urkiolan hasiko da, datorren zapatuan, San Antonio egunez. Beste barik, bihotzez, zure Irigoien.

Eskuz idatzita, izen honeek datoz, batzarrera deituak izan zirenak, seguruenik: Rafael Beitia, Kape Zubia, Iñaki Uria, Alejandro Echevarria, Juan Jose Arrieta Echevarria. Gainerakoeri berbaz.

Euskaltzaindiaren idazkari Nazario Oleagak Bizkaiko Informazino eta Turismoko ordezkariartzara egiten dauen baimen-eskea eta erantzuna datoz jarraian, informazinoaz gainera, xehetasun esan-guratsuak dakarrez eta.

Nazario de Oleaga y Muguruza, Secretario de la Academia de la Lengua Vasca, ante V.I. con el debido respeto digo:

Que proyectando la Academia de la Lengua Vasca la celebración del segundo concurso de bersolaris vizcaínos el día 30 de agosto del presente año en la

Plaza de Toros de Vista Alegre, juntamente con un alarde de danzas y orfeones en los que participarán diversos grupos folklóricos, y dentro del programa de las fiestas de la Villa, y teniendo en cuenta que para la celebración del citado concurso de bersolaris se proyectan concursos locales previos, patrocinados por los Ayuntamientos respectivos de los siguientes pueblos: Abadiano, 14 de junio, Munguía, 28 de junio, Bermeo, 29 de junio, Marquina, 19 de julio, y Ceánuri, 16 de agosto, Solicita de V. I. el permiso oportuno para la celebración de los citados concursos de bersolaris, cuyos bersos serán improvisados según temas populares de la vida cotidiana que les impondrá el jurado, presente en cada caso. Gracia que espero merecer de V. I., cuya vida Dios guarde muchos años. Bilbao, a veintiseis de mayo de mil novecientos cincuenta y nueve,


B. Bureba Muro sinatzen dauen Ordezkarri Probintzialak honela erantzuten dau:

A la vista de su instancia de 26 de mayo pasado, en que interesa autorización para celebrar el segundo concurso de bersolaris vizcaínos el día 30 de agosto del año en curso, previos los locales patrocinados por las alcaldías respectivas, se autorizan éstos en la forma acostumbrada, o sea, bajo la inspección delegada de los alcaldes, en Abadiano, el 14 de junio; en Munguía, el 28 de junio; en Bermeo, el 29 de junio; en Marquina, el 19 de julio, y en Ceánuri, el 19 de agosto, y por lo que respecta al festival proyectado para el citado 30 de agosto próximo en la Plaza de Toros de Vista-Alegre, estimando este centro directivo que no resulta adecuado el local elegido al acto proyectado, resuelve diferir la resolución pertinente a la propuesta de otro local cubierto, cualquiera de la villa, en cuyo caso no tendría esta Delegación objeción que oponer a sus deseos.

1959-VI-05ean, Alfonso Irigoienek, orritxo batean, Bizkaiko bertsolarien bigarren "sariketa" (halan dino berak) abiatzea iragartzen dau, era honetan:

Garagarriaren 13an, San Antonio egunez, hasiko da Urkiolan Euskaltzaindiak antolatzen duen Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketa.

Bizkaia bost zatitan partitu da, eta toki bakoitzeko txapeldunak eta baita igaz Bizkaiko txapeldun gelditu zana, Bilbon agustuaren 30ean egingo dan txapelketa nagusira joango dira. Aukeratu diran beste herriak hauek dira: San Pedro bezperan Mungia, San Pedro egunez Bermeo, Karmenetan Markina, eta Andra Marietan Zeanuri.



Jose Alberdi, 1959ko ekainaren 13an, San Antonio egunez Urkiolan irabazitako saioko kopa eskuan dauela.

Beraz, San Antonio egunez, goizeko hamabiak aldean, Urkiolan, Durango inguruetako bertsolari guztiak ekingo diote ia nor gelditu txapeldun, Bilboko txapelketa nagusira joateko. Urkiolako sariak izango dira: lehendabizikoari mila pezeta eta Abadinoko Ayuntamentuaren kopa eder bat. Gainerako guztieri bostehun pezeta bakoitzari. Beste lau herrietan berdin izango da.

Bilboko sariak askotaz ere haundiagoak izango dira, eta txapeldunak Bizkaiko Diputazioaren kopa nagusia eramango du.

1959-VI-02an, Mañariko Jose Alberdik gutun bitxia idazten deutso Irigoieni, jokalegeen eta ordainen barri itaunduz.

Lagun maitia:

Hiru edo lau hizki bakarrik, jakitun jarri zaitezcan zelan nahi dogun, San Antonio egunian, Urkiolan, bertso sarietan, Felix Bikandi Petralanda lurretako semiak eta nik, dakizun bezela, Jose Alberdi Mañarikuak. Nere lagun honek jakin nahi luke zetara, hobeto esateko, zer legeren barruan bertsuetan egin behar duten. Baita ere jakin nahi dau ze ordaintza izango dan egun horretan bertsolarien-tzat. Beste barik zure izparren begira, agurtuten zaitu zure lagun dan Josebak.

*Jose Alberdi jauna eta baita: Julian Martitegui, Felix Vicandi.*

Erantzuna berehala jasotzen dau, ordain kontuak argituz, nahiz eta jokalegerik aitatu ez. Jokalege kontuan, "7 eta 6 silaba" dituen puntua badirudi, bertsolarien artean, kezkarri zela, nobedadea zelako.

Nire adiskide hori:

Durango aldeko bertsolarien txapelketea Urkiolan egingo da bagilleko hamalauan (domeka goxean). Sariak izango dira: lehenengoari mila pezeta eta Bilboko txapelketarako gelditu. Gainerako guztieri bostehun pezeta bakoitzari. Lehenengoak, gainera,

Abadiñoko Ayuntamentuaren kopa bat irabaizko dau. Zure izena hartuta daukat, eta uste dot egun horretan Urkiolan ikusiko zaitugula. Txapelketea elexa ostean izango da, hamabiak inguruan. Ordurarte, bihotzez, A. Irigoyen.

Bardin idatzi deusiet Julian Martitegui eta Felix Vicandiri. Berba egin eurakaz eta esaidazu konforme dagozan juraduak iminiko dauen puntu kontuan. Badakizu zein iminiko dogun: 7 eta 6 silaba dituana.

1959-VI-15ean, Jose Maria Urrutioetxerari honela idazten deutso Mungiara:

Jaun hori:

Bagilaren 28an, San Pedro bezperan, goizeko hamabietan, Mungian, alderdi horretako bertsolarien artean txapelketa bat egingo da. Txapeldun geldituten danak Mungiako Ayuntamentuaren kopea eta mila pezeta irabaziko ditu. Gainera, Bilbon agustuaren 30ean egingo dan azken txapelketa nagusirako geldituko da. Beste guztieri bostehun pezeta bakoitzari emongo jakie.

Uste dogu zuk be parte hartuko dozula. Zure izena hartuta daukagu. Han ikusiko zaitugulakoan, bihotzez, A. Irigoyen.

Eskuz idatzita, goienean, izen honeek datoz: Eusebio Zubiaga - Sopelana. Jose Maria Urruticoechea - Mungia. Eusebio Olalde - Larrauri. Asensio Vidaurrazaga - Guecho. Florencio Zarraga - Berango. Luis Llona Libano - Lejona. Juan Ormaeche - Larrauri.

1959-VI-16an, Pedro Mari Aldanak honako gutuna bialtzen deutso Alfonso Irigoieni. Aldana hau Muxikako Areatzakoa da, hango bertsolari eta bertso eskolaren eragile nagusietariko bat izan zena eta orain, urteetan, Basaurin bizi dena.

Muy señor mío:

Tengo el honor de presentarle los nombres de dos amigos míos, conocidos de Ud., para el concurso de bertsolaris del día de S. Pedro en Bermeo.

Se trata de Pedro Ortúzar y de Deunoro Sarduy, conocido el primero de ellos por el sobrenombre de "Iturri". Ambos bertsolaris son de Múgica, del pueblo del actual campeón Valentín Embeita.

Deseando tome nota de estos dos compañeros míos, entusiastas bertsolaris y auténticos abertzales, para el concurso anteriormente citado, aprovecho la ocasión para testimoniarle mi más sincero aprecio por la labor que en este sentido viene desarrollando.

Le saluda atentamente, Firmado: *Pedro Mari Aldana*.

Alberdi eta Urrutikoetxeari lango gutuna bialtzen deutso Mundakako Anton Leon San Juan be, bagilaren 29ko Bermeoko kanporaketaren barri eta baldintzak azalduz. Eskuz idatzita, izenok agertzen dira: Julian Mugica - Bermeo. Lucio Elortza - Navarniz. Deunoro Sarduy - Mugica. Pedro Ortuzar - Mugica. Amilla baserrikoa (izena eskatu) - Guernica. Modesto Aberasturi - Murueta.

Bermeoko saiorako, hango San Pedro Arrantzale Kofradiara jo eban Irigoienek, eskualdeko kanporaketa antolatzekeo laguntasun eta babes bila. Arrantzale Kofradian begi onez hartu eben proposamena, eta hona, adierazgarri, Kofradiako idazkariaren gutunetariko bat:

Muy Sr. Mío:

Para su conocimiento, tengo el gusto de enviarle adjunta, copia de la instancia que el día del actual ha dirigido esta Cofradía al Sr. Gobernador Civil de la Provincia en petición de autorización para celebrar el Programa de Fiestas (cuya copia se adjunta tambien) para la festividad de San Pedro Apóstol. Sírvase comunicarnos si le parece bien recogida en el Programa la parte correspondiente al Concurso de Bersolaris, para mandarlo imprimir del mismo

modo, tan pronto como obtengamos la autorización gubernativa solicitada.

Tambien le envió la carta que nos ha dirigido el Alcalde de esta Villa, relativa a la inscripción de la copa, con el ruego de su devolución.

En espera de sus noticias, queda de Vd. Afmo. Seguro servidor q.e.s.m.

El Secretario *Juan Antonio Pérez*.

Jon Azpillagari bertsolari guztien antzeko gutuna bialtzen deutso Ondarroara, Markinan, garagarri-laren hamazortzian, eguerdiko hamabietan jokatuko den kanporaketaren barri emonez. Eta amaituz: "Zure izena hartuta daukat Markinarako. Halan da guztiz be, eta zure izena hartua izanagaitik, pozik hartuko neukez zure letratxo bi, bazoazala esanik".

Eskuz idatzita, honako izenak datoz: Juan Ibarzabal - Ondarroa. Jose Maria Totoricaguena - Murelaga. Jose Maria... (ez dakar abizenik) - Ea. Juan Bermeosolo - Nachitua.

Juan Ibarzabalen "Ondarroa" horretan, Irigoien erratu egin zen, "Buztari" ezizenez ezagutzen zen Ibarzabal Markinakoa zen eta. Txapelketaren antolakuntza aurrera doa, baina, eskualdekako kanporaketak zirela-eta, inguru ezbardinetako bertsolari mailen gorabehera berehala agertu zen zeresangai, baita susmogai be. Auzi hori, geroago be, eskualde, probintzia eta Euskal Herri mailan eten barik planteatu izan da, eta faktore ezbardinak kontuan hartuta osatu beharreko oreka hain gatxa ez da beti lortu, tartean interes ezbardinak be gurutzatzen dira eta. Auzia, lehenengo bide- rrez, Jose Mari Etxaburu ondarrutarrak planteatzen dau, Alfonso Irigoieni urte honetako maia- tzaren 28an bialdutako honako gutunean. Gutunaren bigarren partean, bertsolaritzari ez jagokozan beste kontu batzuk aitatzen ditu, jasotzea pentsatu dogunak, interesgarri direla usteta.

Ene euskeltzale ona: Datorren urtian euskeldun umiak in egingo dozuezan sariketak dirala-ta, halako baten idatzi bihar neutsula neguan, baina hemengo bersolariak euren txapekelta dala-ta daukezan buruhaustiak segiduan idazten ipinten nabe. Lehengo baten, euren egon nintzan da ez dagoz koprome, egiteko ustia dan eran eitia txapelketa hori. Itxura artzen dausetenez, azkenengo edo Bilboko norgehiagokara nahi dabe heldu. Ta euren dinue, Markinako barrutian ontxuenak dagozala-ta, bertatik bat baino gehiago aurrera ataratia bidez-kua dala, ze beste barrutiren baten, esate baterako, Bermeon, bertsolari ona dan bat baino ez dagolanta. Da batetik bat eta sei edo zortzitik bat, ez dago-

la ondo. Honek nahi dabena hauxe da: Markinako txapelketan, bat baino gehiago klasifikau edo euri beste barrutiren baten txapelketara juan daitezela laga.

Ez dakit euren nahia zuzena dan edo ez, baina euren nahia hasarria ta zeresana ipinteko ez bada, erreztasun apur bat emon egiezula arren eskatzen dautsut. Ez dauke lagunak alkarren aurka jokatzeko gogorik.

Hemen bertsolariak bi dira. Hirugarrena, Urrutia, bertso kontuan zaletasun handia dauka ta ikasitakuak kanta be asko kantatzen ditu, baina ez da bertsolaria; ez dautso bat-batian bertso barriak urte ten. Behin bertso batzuk idatzi zituan, baina apur



Foto Cecilio. Alfonso Irigoienen artxiboa. XDZ

B. Enbeita kopa eskuan dauela Nazario Oleagari eskua emoten eta A. Irigoien, gai-jartzailea, txapela Balendini luzatzen.

bat neuk orraztu bihar izan neutsozan, "Zeruko Argia"ra bialtzeko. Beraz, ondo jakin bihar dozu txapelketarako gauza dan edo ez, txapelketaren kategoria barregarri ta ridikuluan ipini barik.

Ta orain umien sariketagitik (euskel sariketak) esan bihar dot zerbait. Euskera alde egin leiken lanik ederrena horixe da: umiak euskaldundu. Nik, behintzat, pozarren irakurri nebazan Astizen arazo horretzako izparringiko berriak, ta sariketak ahalik eta onduen urten daien, neure lagutza eskeintzeko gogua etorri jatan. Nik badaukadaz horretarako adina dauken hiru ume. Ta ahaleginak egingo dodaz horretarako gertuten, nahita eurak gogo gitxi euki. Gainera, hori baino gehiago nahi dot. Herriko beste umiekin be zerbait egin nahi neuke. Ez dakit, baina ez dot uste hemengo abade ta herri agintariekin laguntza handirik izango dogun. Dana dala, gu, behintzat, hemen gagoz, ahal doguna egiteko. Umiak euskera irakurten ipinteko bide bat badago. Eurei gogoko jakena emon bihar. Ta eurei gogoko jakena badakigu zer dan: T.B.O. antzekuak. Hauxe da Zeruko Argiak dauken asmua. Beraz, laster aterako balitz, zeozer asmauko geunke. Lehenago agindu neutsun lez, hemengo melodi batzuk batuta daukadaz. Baina uste neban arren, ezin neikez gauzak magnetofioan hartu. Biharbada, zeuk hartuko dozuz egunen baten. Gehiagoko barik, amaitzera nua. Agindu nahi dozuna, holako edo-zertarako eskeintzen jatzun honi. *Etxaburutar Jose Mari.*

Irigoienean erantzunean, bertsolarien mailaz beste erizpide bat formulatzen da, erizpide zabaltzailea esango geunkeena, era honetara:

Nire adiskide hori:

Hartu dot zurea. Bertsolarien gurari horreik direalata, esango deutsut: 1. Baleiteke beste barrutietan, Markina aldekoen ainako bertsolaririk ez izatea. Baina gure asmoa eta gogo da Bizkaia osoan ahalbait bertsolari gehien sortu eta ondu daitezana. Eta horregaitik, hain onak ez badagoz be, barruti bako-

txean bertako txapeldun bat izatea gauza ona izango litzake, bertsoetarako gogo zabaltzeko. 2. Bermeora, Gernika aldekoak be joango dira. Eta bada-goz banaka batzuk, beharbada zuok ezagututen ez dozuezanak.

Sariak barruti bakoetxean izango dira: lehenengoari mila pezeta eta Bilborako gelditzea. Gainerako guztiak bostehun pezeta bakoetxak hartuko ditu. Lehenengoari, gainera, egiten dan herriko Ayuntamentuko kopa eder bat.

Txapelketetan, bertso-sorta bat zabalduko dogu, umeen sariketarako balioko dabena. Agertuten danean, bialduko deutsut eta bertan ikusiko dozuz sariketearen zimentarriak. Bihotzez, hurrengora arte, *A. Irigoien*

Beste ondarrutar batek, Jose Maria Azpirik, gai berari ekiten deutso, era zorrotzagoan, zenbait bertsolarien eledun bihurturik. Eskualde kanporaketak hasiak zirela, (Urkiolakoa eginda zegoen), uztailaren seian honako gutuna bialtzen deutso Alfonso Irigoieni:

Neure Jauna: Aspaldian egon naiz zuri kartatxo bat egiteko, bada, Ondarroan egon zinanean, (denpora gitxi, zoritxarrez) geure gaia aurtengo Bizkaiko bertsolarien txapelketea izan zen, eta neure ustez, nahi aina kontu esateko erarik ez gendun izan. Nik Berritxuko bertsolari gazte bateri zer jazoten jakon esan neutsun, eta baita neure eritxia agertu be, Markina txapelketara eruateko. Hemengo bertsolariak ez ziran kontentu. Euren ustez, bertsolarien txapelketa txarto antolatuta dago. Ezin lei ez Dugangon, ez Zeanurin, Markinan beste bertsolaririk batu, eta Mungian eta Bermion askoz gutxio. Gainera, ez zan bidezko gauza (eurek zinoen lez) leku guztietan bat saritzea edo apartatzea Bilborako. Nola leike izan Bermiotik edo Mungiatik, gehien hiru bertsolari emongo ditue ta, guretik aina Bilbora juatea? Itaun honeri erantzun hau egin neutsun. Zenbat batuko zarie, ba, Markinan? Zazpi, gitxienez, erantzun eusten. Baten ustez, Markinatik bik joan behar leukie

Bilbora. Besteari, ostera, ez dio ardurarik parterik ez hartuta be. Bere eritxia, Bermion lehenengo atarazten dabena baino hemengo bigarrena (edozein izanda be) askoz gehiago da.

Badakit Ondarrutik idatzi deusua gai hontaz. Nik ez dot nahi izan, Bermeoko ta Mungiko gorabehera jakin arte, eta benetan dinotsut. Hemengoak ez eben uste horrenbeste bertsolari batuko zanik.

Berritxuko gazteari karta bat idaztea komeni jaku. Aukeratu egizu, bada, erizten jatzun gaia, eta dei bat egiozu. Bere zuzenbidea hauxe da: Juan Mugartegi. Caserío Astapocha. Berriatua – Bizkaia. Beste barik, Markinako jaian ikusteko asmoagaz, agurtzen zaitut. Agur, bihotzez, *Jose Maria de Azpiri*.

Irigoienek berehala erantzuten deutso, labur, baina ez ironia puntu barik.

Nire adiskide hori:

Gaur hartu dot zure karte. Asko poztuten naz Ondarroan hain bertsolari onak dagozala jakinik. Ez deritxazu, han Bizkaiko onenak badagoz, bertako batek irabaziko dauela txapel nagusia? Eta hori, nire ustez, ohore handia da, ez bakarrik irabazten dauenarentzat, baita inguruko euskaldunentzat be. Baina, egia esan, lehenengo irabazi egin behar da txapela. Hain zuzen be, oraintxe idatzi deusat izena emon deustazun bertsolariari. Beste barik, Markinan alkar ikusi arte, bihotzez zure, *A. Irigoien*.

Uztailaren 6an, Zaratomoko Jose Antonio Uriarteari idazten deutso, Zeanurin izango den txapelketaren barri emonez. Interesgarri deritzogu, bertan agertzen diren izenakaitik, batez be.

Jaun hori:

Berba bi baino ez, esateko Zeanurin egingo dan bertsolarien txapelketea agustuaren 16an barik 15ean izango dala, arratsaldeko bostetan. Bertan txapeldun urtetan dauenak Bilbora joan ahal izango dau, agustuaren 30ean, eta Bizkaiko beste

alderdi batzuetan txapeldun gelditu direanakaz jokatu. Gainera, sari oso onak dago. Beste barik, bihotzez, zure, *A. Irigoien*.

Eskuz idatzita, Zeanurin kantetakoak direla dirudien bertsolarien izenok datoz: Jose Maria Artech-Ceanuri. Antonio Atucha-Dima. Eulogio Inchaurreaga. Ceanuri. Bartolome Inchaurreaga-Ceberio. Marcelino Artiñano-Ceberio. Feliciano Petralanda-Yurre. Ramón Yurrebaso-Yurre. Faustino Echevarria-Dima. Basilio Lejarza-Ceanuri.

Basilio Lejarza honek Basilio Pujana izan behar dau, inondik be. Izenok Irigoienek proposamena egiteko pentsatuta zeukazanak izan behar dabe, azkenean, hiru besterik ez ei ziren aurkeztu eta. Pujana bera eta beste biak Jose Maria Artetxe eta Ramon Yurrebaso izan ziren.

Eskualdeetako txapelketez gainera, beste saio batzuetarako aukera eta babes bila zelan ahalegintzen zen ikusteko, adierazgarria da, 1959ko uztailaren 15ean, Ermuko (eta beste udalerrri batzuetako) alkateari bialdu eutsan gutun hau:

Muy Sr. Nuestro:

Esta Academia de la Lengua Vasca tiene organizado para este verano el segundo concurso de bersolaris vizcaínos, cuya final se celebrará en Bilbao el 30 de agosto, y en su deseo de fomentar este género que tanto color da a las fiestas populares, vería con mucho agrado que en las fiestas patronales de los pueblos, los Ayuntamientos incluyesen en sus programas actuaciones de bersolaris. Estando próxima la festividad de Santiago que se celebra en esa localidad, con mucho gusto nos ofrecemos a Vd. para facilitarle la actuación de los mismos. Para ello no hace falta más que la instalación de altavoces adecuados. La retribución de los bersolaris quedaría a su discreción. Esperando sus noticias, le saluda atentamente, *A. Irigoien*.



Eskuz idatzita, goien eskuman, honako zerrenda dator: "Escrito a los alcaldes de: Lemona-San Ignacio. Busturia-Santiago. Berango-Santa Ana. Guernica-San Roque. Villaro-San Bartolomé. Lejona-id. Lequeitio-San Antolín. Gauteguiz de Artea-ga-id. Elorrio-1er domingo de sept. Galdacano-Santa Cruz. Baquio-San Juan Degollado. Urduliz-Virgen de Sept."

Seguruenik, prentsara-edo bialtzeko idatzitako erdarazko orri batean, Markinako kanporaketaren kronika itzi euskun, hainbat datu eta xehetasun interesgarri emoten dituena. Gaurtik begiratuta, beharbada, larregi begitandu leitekeen kalitatearen apologia orduko kontestuan ulertu behar da. Alde batetik, Irigoienek fenomenoaren handitasuna nabarmendu gura dau, bertsolaritzari susta-tzaileek sentitzen daben ospea ezartzeko eta, ez gitxiago, behar diren babesak eta onarpenak lortuz joateko. Eta, bestetik, neuk be neure burutik ondo gogoan daukadan legez, bertsoa hasi eta amaitzea balentria handitzat geunkanontzat, orduan gertatzen ari zena benetako miraria zen.

II CONCURSO DE BERSOLARIS VIZCAINOS  
ORGANIZADO POR LA ACADEMIA DE LA  
LENGUA VASCA

El sábado pasado se celebró ante numeroso público, con motivo de las fiestas del Carmen de Marquina, el concurso comarcal correspondiente a dicha zona.

En la presidencia se encontraban el alcalde y arcipreste del Marquina, el alcalde de Ondarroa y D. Nazario de Oleaga, como presidente del jurado que estaba constituido por D. Alfonso Irigoyen como secretario, D. Eusebio Erquiaga, R. P. Marcelo de Andrinua y D. José Echeandia.

Se presentaron ocho bersolaris y resultó una competición reñidísima y de extraordinaria categoría. Quedó campeón Juan Azpillaga de Ondarroa, después de una lucha muy dura por obtener el título, pues había varios bersolaris que no le iban a la

zaga, entre ellos Juan Ibarzabal de Ondarroa, que quedó segundo, Juan Mugartegui de Berriatua, bersolari fino y de excepcional categoría, Anastasio Eguía de Echevarría, y otros como Totoricaguena, Bermeosolo y Oñederra. Fué de gran interés y de indudable valor la competición entre Mugartegui y Azpillaga, defendiendo el primero su personalidad como gato y el segundo como ratón.

Es de observar la gran capacidad retentiva entre los oyentes aficionados al berso, uno de los cuales retuvo completamente en su memoria la continuación que Azpillaga dió al pié forzado que el jurado le impuso. A la pregunta del jurado:

*Zer egingo zeunke zuk  
txoria bazina?*

respondió:

laster egingo neuke  
hegazkada fina.  
Mundu guztia ikusten  
egin ahalegina  
gura izanagaitik  
ezin joan baina.

El alcalde de Marquina hizo entrega del trofeo del Ayuntamiento al campeón, el cual obtuvo mil pesetas en metálico, y todos los demás quinientas pesetas cada uno. Los premios en metálico estaban otorgados por la Caja de Ahorros Vizcaína.

Juan Azpillaga queda clasificado para llevar a la gran final que se celebrará en Bilbao el 30 de agosto a las cinco de la tarde, el honor de los bersolaris de la zona de Marquina, y de la cual final saldrá el campeón vizcaino de 1959.

Debemos destacar la juventud de la casi totalidad de los bersolaris presentados. El campeón no cuenta aún veinticinco años, así como tampoco Mugartegui.

Hartzailearen izenik ez sinadurarik eroan ez arren, Alfonso Irigoienena dela argi dagoen eta orri informatiboa dirudien beste batek txapelketa-ko egitarauaren hainbat datu eta, bide batez, beste xehetasun batzuk emoten ditu.

El sábado día 15 de agosto, festividad de la Asunción de Nuestra Sra., y no el día 16 como estaba anunciado, se celebrará en Ceanuri a las cinco de la tarde, el concurso comarcal correspondiente a aquella zona. Como en los demás concursos comarcales, los premios serán de mil pesetas y Copa del Ayuntamiento de Ceanuri para el campeón y quinientas pesetas para cada uno de los demás concursantes. Los premios en metálico están concedidos por la Caja de Ahorros Vizcaína. Una distinguida familia de Ceanuri ha donado una Copa para quien mejor desarrolle los bersos de pié forzado que se impongan para tal efecto.

El domingo a las cinco de la tarde, el Ayuntamiento de Ondarroa organiza también un concurso de bersolaris vizcaínos, sin limitación de zonas y con importantes premios, para fallar el cual ha solicitado un jurado de la Academia de la Lengua Vasca. El lunes día 17, San Roquechu, a las once de la mañana y organizado por el Ayuntamiento de Guernica, harán una exhibición los seis bersolaris finalistas que han de actuar en Bilbao el 30 de agosto, domingo, a las cinco de la tarde en el kiosco del Arenal. Para dicha final existe una expectación enorme, dada la calidad, que de día en día es creciente, de los bersolaris que han conseguido llegar a ella. Por otra parte, con motivo de las fiestas de Bilbao, se puede visitar la Feria de Muestras y otras cosas relacionadas con el ambiente de fiesta. Hasta el momento presente los finalistas son: Valentin Embeita, campeón vizcaíno en 1958; José Alberdi, de Mañaria; Juan Ormaeche, de Larrauri; Deunoro Sarduy, de Mugica; Juan Azpillaga, de Ondarroa; y el que quede campeón el próximo día 15 en Ceanuri. Cada uno de los cinco últimos representa a cada una de las cinco zonas en que ha sido dividida Vizcaya.

Está madurándose en el seno de la Academia la posibilidad de organizar un concurso entre los campeones de distintas provincias, en el que participarían Vizcaya, Guipuzcoa, Navarra y el País Vasco-Francés. De dicho concurso saldría el campeón del País Vasco.

1959ko uztailaren 29an, Concepción Goiri izeneko emakume bati gutun informatibo bat bialtzen deutso, non, txapelketako martxaz gainera, beste hainbat asmo interesgarriren barri azaltzen dauen: bertsolarien batzarra, bertso plazen zabal-kundea, aldizkari bat... Geroago, urteetara, bertsolaritzan garatuz joango zen egitasmu ugari zebilen Irigoienen buruan.

Distinguida Sra.:

Dos palabras para informarle de algunas cuestiones relacionadas con la lengua vasca. El concurso de bersolaris está obteniendo, hasta el momento presente, un gran éxito. Se espera que la final que se celebrará el 30 de agosto revista gran interés por parte del público. La competición de Marquina resultó de una calidad extraordinaria. El campeón de dicha zona solamente cuenta con 23 años y ha sido una revelación para otros bersolaris que también aspiran al título de campeón.

Estamos pensando en celebrar una reunión, por ejemplo, en Urquiola, con todos los bersolaris que se han presentado al concurso y que son más de treinta. Se podrían realizar varias actividades:

1. Dirigirse a todos los Ayuntamientos, ofreciendo la actuación de bersolaris para las fiestas patronales. De esta manera, se multiplicarían para el año próximo las actuaciones en pueblos, que ya son muchas. Algunos bersolaris que aun están en la oscuridad, pero que son de calidad, tendrían ocasión de darse a conocer más.
2. Sacar una revista de cuatro páginas y de tirada limitada para los círculos de bersolaris y de aficionados. Podría titularse BERTSOLARI. En ella se recogerían los bersos que por cualquier motivo escribiesen los bersolaris. Se podrían hacer separatas de los mismos y entregarlas al autor para su venta o reparto. Las separatas podrían llevar por una cara el anuncio de alguna casa, por ejemplo, de la Caja de Ahorros Vizcaína, que serviría para pagar la edición. De

esta manera se restauraría la tradicional costumbre de los bertso-papelak, y por otra parte, encuadrando la revista, tendríamos agrupada toda la procección bersolarística. Sin duda ninguna, este proyecto bien llevado sería de una eficacia, para la vida ascendente de la lengua, de primer orden.

Se está preparando también, para mediados de octubre, el Congreso de la Lengua Vasca de Eibar, que versará sobre el siguiente tema principal: "Moguel en la literatura vasca y problemas de la lengua literaria". Aparte del aspecto de estudio, habrá el aspecto de fiesta. Se proyectan actuaciones de teatro vasco. Y el domingo una gran fiesta popular con misa, auresku de honor, exámenes sobre lengua vasca a niños, trajes típicos, bersolaris, etc., que el pueblo de Eibar ofrece en honor de la Academia. El alcalde apoya esta iniciativa. Le saluda atentamente, *A. Irigoien*.

Hurrengo kronika hau komunikabideetara bialtze-ko idatzita dago. Eskualdeetako barri emonez, Bilbon izango den finalerako giroa berotu gura dau, itzar-aro edo bizkunde abiabarri haretan, giroa berotzea ez zen lan zaila baina.

El sábado día 15 de agosto se celebró en Ceánuri la competición correspondiente a la zona del Valle de Arratia, Orozco, etc. Se presentaron tres bersolaris y quedó campeón Basilio Pujana, gran bertsolari, hijo de Ceánuri, y que ganó la Copa del Ayuntamiento de Ceánuri y mil pesetas de la Caja da Ahorros Vizcaína. En segundo lugar quedó clasificado José María Arteché, de Ceánuri, que ganó también en la competición de bersos de pié forzado. En tercer lugar Ramón Yurrebaso, de Yurre, bersolari de mucho ingenio y sentido popular. En el Valle de Arratia y sus inmediaciones hay gran interés por el bersolarismo y se espera que el año próximo los numerosos bersolaris afidionados que todavía no se han atrevido a presentarse lo hagan. El alcalde de Ceánuri hizo entrega del trofeo del Ayuntamiento

ante el numeroso público que escuchaba en la plaza.

En Ondárroa, el Ayuntamiento organizó el domingo un concurso de bersolaris vizcaínos sin limitación de zonas en la que hizo de jurado el mismo que la Academia de la Lengua Vasca tiene designado para el Segundo Concurso de Bersolaris Vizcaínos. Se presentaron siete bersolaris que actuaron ante numerosísimo público. Quedaron clasificados de la siguiente manera: 1. Mugartegui, de Berriatua. 2. Azpillaga, de Ondarroa. 3. Ibarzabal, de Ondarroa. 4. Ortuzar, de Múgica. 5. Sarduy, de Múgica. 6. Iturralde, de Amoroto. 7. Eguía, de Echevarría. Fue de enorme interés la actuación de Mugartegui y Azpillaga que para el jurado fue difícil inclinarse a favor del primero. Fueron magistrales y de profundo sentido práctico de lo social los bersos que cantaron tomando el uno la personalidad de trabajador y el otro de patrono, que el azar hizo que les tocara como tema. El numerosísimo público allí concurrido cantaba con ellos en coro la última palabra de cada berso, ya que la rima y el sentido completo del mismo hacía adivinar al público la mayoría de las veces la palabra final que iba a cantar el bersolari. El lunes a las once de la mañana, en Guernica hubo una exhibición entre los seis bersolaris vizcaínos que acudirán a la final de Bilbao el 30 de agosto, domingo, a las cinco de la tarde, en el kiosko del Arenal. A dicha exhibición organizada por el ayuntamiento de Guernica asistieron algunos miles de personas. Los finalistas como se sabe son: Embeita, de Múgica, campeón vizcaíno el pasado año. Alberdi, de Mañaria, campeón de Urquiola. Ormaeche, de Larrauri, campeón de Munguía. Sarduy, de Múgica, campeón en Bermeo. Azpillaga, de Ondarroa, campeón en Marquina. Y Pujana, en Ceánuri el sábado pasado.

Eskuz idatzita, goien eskuman, zerrenda haurdator: "Enviado a: El Diario de Navarra. El Pensamiento Navarro. Unidad. La Voz de España. El Diario Vasco. El Correo Español. El Pensamiento

Alavés. D. Cesáreo Elgarra (?). Radio Segura. Basarri y María Dolores Aguirre. Lafitte”.

Azkenean, Bilboko finalera hurratzen gatozela, Irigoienek orri informatibo luze samarra idazten dau, Euskaltzainditik hasi eta euskarazko zirkuito guztietara bialtzeko.

#### BIZKAIKO BERTSOLARIEN AZKEN TXAPELKETA NAGUSIA BILBON

Agustuaren 30ean, arratsaldeko bostetan, Arenaleko kioskoan izango da. Heldu gara Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketarean azken txapelketa nagusia. Bost herritan egin direan txapelketa ederrak Bilboko Arenalean izango dabe akabera nagusi bat. Bizkaia goitik behera arakatu da eta gogoia izan daben bertsolari guztiak agertu dabe burua, burua agertzeagaitik bakarrik bostehun pezeta bakotzak, gitxienez, irabazirik.

Bizkaiko Ahorro-Kaxeari eskerrak emon behar jakoz, bere laguntasun sendoagaitik. Herri guztietan ikusi da euskaldunen artean, bertsoetara dagan joera ikaragarria. Badirudi gure herria herri kantaria dala, kantuaren bidez esaten direan gauzak barruraino sartzen jakozala, mistika-mueta liluragarri baten bidez. Herri handia gure herria. Greziako denporetan legez kantetako, berezko etorria daukan herria, eta bere hizkuntzan berba egin gura dauena, ixilik egon barik, betiko mutu gelditu ez daiten gure euskaldun mingaina. Eta kantuz berba egin gura dau, pozez beterik, txoriak arboletan egi ten daben modura.

Gehienok, beharbada, jakingo dozue zelan sei bertsolari gelditu direan azken txapelketarako: Embeita, Alberdi, Ormaeche, Sardui, Azpillaga eta Pujana. Eta sariak: lehenengoari Bizkaiko Diputazioaren kopa nagusia, txapela eta Bizkaiko Ahorro-Kaxearen hiru mila pezeta. Bigarrenari Bizkaiko Ahorro-Kaxearen kopa ederra eta mila pezeta. Eta gainerako laureri mila pezeta bakotxari. Hilabete honetako 17an, Gernikan agertu zirean sei bertsolariok,

hango Ayuntamentuak dei eginda, eta mila batzuk entzule zituezala ekin eutsien. Jente guztia pozez beterik gelditu zan, sei bertsolarien erreztasun eta askontasunagaz, eta euren artean diferentzi handirik ez egoala ikusi eban. Horrek esan gura dau burruka handia egongo dala Bilbon, Bizkaiko txapela irabazteko.

Itxurea danez, herrietatik jente asko etorriko da Bilbora, bertsoak gogoz entzuten, eta horretan poza hartu beharra daukagu euskaldun-sustraira sendotzeko biderik onenatarikoa dalako. Juradua herrietan ibili dana bera izango da. Gipuzkoa aldetik, hainbat euskalzale etorteko asmotan ei dira, Bizkaiko bertsolariarik gorengoak ezagututen, ia gipuzkoarren parean imini leitekezan.

Gainera, Arenalean sariketea hasi baino lehen, Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketa honetara bere burua agertu dauen bertsolariarik zaharrenari omenaldi moduko bat egingo jako, “aitona” izentaurik. Hain zuzen be, hirurogeita hamabost urtetik gora ditu eta ikusten da bere denporan bertsolari argia izanikoa dala, orain zahartzaroko ajeak sortuten hasi bajakoz be. Bere izena Lucio Elorza da eta Navarnizen bizi da. Bere izenean, lehenagoko bertsolari guztieri omenaldi handi bat egin gura jakie, bertsoen aberastasun bikain hau gorde eta sendotu ebelako, sarri askotan euren izenak gitxi ezagutu zireala. Euren zaletasun eta maitasun hau gure gogorazinora ekarririk emon gineie saririk ederrena bertsoen ondasun ordaindu-ezin hau hagoz hago guganaino hain sendo ekarri deuskuen bertsolari guztieri.

Jente asko batuko dala dirudi Bilboko Arenalean, Bizkaiko sei bertsolariori entzuten, eta ikusten nok eroaten dauen txapela eta izena. Mikrofono onak egongo dira.

Paper honek ez dauka hartzailearen izenik ez sinadurarik, baina argi dago Alfonso Irigoienena dela. Ezabapen asko eta eskuz idatzitako berbak dagoz, eta zirriborro antza dauka.

Hona orain, finala gainean dela, abuztuaren 4an, Nazario Oleagak, Euskaltzaindiko idazkariak, Bilboko Udaletxera egin eban eskaria:

EXCMO. SR. ALCALDE-PRESIDENTE DEL  
AYUNTAMIENTO DE BILBAO

La Academia de la Lengua Vasca tiene organizado el Segundo Concurso de Bersolaris Vizcaínos, y en algunos pueblos de la provincia en los que estaba prevista la celebración de concursos comarcales previos han sido realizados ya éstos.

Entra dentro de sus planes el realizar la final de dicho Segundo Concurso de Bersolaris Vizcaínos en Bilbao, con la participación del campeón vizcaíno del pasado año y los campeones comarcales que previamente hayan obtenido tal título, y que hasta el momento presente son: José Alberdi, de Mañaria; Juan Ormaeche, de Larrauri; Deunoro Sarduy, de Múgica; y Juan Azpillaga, de Ondarroa.

Le fecha más adecuada nos parece, en principio, la del 30 de agosto a las cinco de la tarde, y el lugar de la celebración el kiosko del Arenal.

El jurado está constituido por: Nazario de Oleaga, como presidente; Alfonso Irigoyen, como secretario; y Eusebio Erquiaga; R. P. Marcelo Andrinua; R. P. José Echeandia; y Sabino Berasaluce.

Lo que comunico a V. E., para, si es su satisfacción, incluya dicha final del Segundo Concurso de Bersolaris Vizcaínos en el programa de fiestas de la Villa. Dios guarde a V. E. muchos años.

Bilbao a veinte de julio de mil novecientos cincuenta y nueve. Firmado: *Nazario de Oleaga*.

Nazario Oleagak berak, Bizkaiko Aurrezki Kutxara, honako eskaria egin eban, Euskaltzaindiaren izenean:

Muy Srs. Nuestros:  
Recibimos con profundo agradecimiento la ayuda económica de esa Institución con motivo de la Organización del Segundo Concurso de Bersolaris

Vizcaínos, valorada en once mil quinientas pesetas, y con el fin de distribuirlas de la siguiente manera: dos mil pesetas para cada uno de los concursos comarcales previos y mil quinientas pesetas y Copa de la Institución para el ganador del concurso provincial.

Sin establecer aun los premios que se repartirán en la final de Bilbao, a la cual deseamos darle gran esplendor, nos hemos hecho las siguientes consideraciones: que como el año pasado el campeón recibió un premio de tres mil pesetas, este año no debiéramos reducirlo. Y que a los cinco finalistas restantes debiéramos dar una cantidad igual a todos, no haciendo más distinción que la del subcampeón con la Copa donada por esa Institución, pues el Campeón recibirá de la Diputación de Vizcaya. Esta cantidad podría ser de mil pesetas a cada uno.

Veríamos con agrado que la Caja de Ahorros Vizcaína alterase su aportación para la final, acomodándola dentro del plan formulado en estas consideraciones que nos hemos formulado. Por otra parte, veríamos con sumo agrado también que un representante de la Caja estuviese presente, para realizar la entrega de los premios. Les saludamos atte. EL SECRETARIO. Firmado: *Nazario de Oleaga*.

Azkenik, tramite ofizialik beharrezkoena falta zen. Hona hemen Informazino eta Turismora eginitako eskaria, lehenik, eta erantzuna, ondoren, Nazario Oleagari

ILMO. SR. DELEGADO PROVINCIAL DE VIZCAYA  
DEL MINISTERIO DE INFORMACION Y TURISMO

Nazario de Oleaga y Muguruza, Secretario de la Academia de la Lengua Vasca y en su nombre, ante V.I. con el debido respeto digo:

Que habiendo realizado en las localidades de Abadiano, Munguía, Bermeo y Marquina los concursos comarcales previos del Segundo Concurso de Bersolaris Vizcaínos y faltando aún de realizar en Ceá-

nuri el correspondiente a dicha zona, y proyectando celebrar la final de dicho Segundo Concurso de Bersolaris Vizcaínos en Bilbao, el día 30 de agosto del presente año, a las cinco de la tarde en el kiosko del Arenal y dentro del programa de fiestas que organiza el Excmo. Ayuntamiento de la Villa, SOLICITO de V. I. la autorización correspondiente para la celebración de dicha final.

Gracia que espero merecer del magnánimo corazón de V. I., cuya vida guarde Dios muchos años. Bilbao a veintitrés de julio de mil novecientos cincuenta y nueve.

MINISTERIO DE INFORMACION  
DELEGACION PROVINCIAL DE VIZCAYA

A la vista de su instancia de 23 del actual por la que solicita autorización de esta Delegación Provincial para celebrar la final del SEGUNDO CONCURSO DE BERSOLARIS VIZCAINOS en Bilbao el 30 de agosto próximo, a las cinco de la tarde en el kiosko del Arenal y dentro del programa de fiestas que organiza el Excmo. Ayuntamiento de la Villa

Le comunico que este Organismo, en virtud de las atribuciones que le están conferidas. Ha resuelto acceder a lo solicitado.

Dios guarde a Vd. Muchos años.

EL DELEGADO PROVINCIAL Firmado: *B. Bureba Muro.*

Abuztuaren 30eko domekan jokatzera zihon finalean, garai arbitrario eta autoritario haretarako be nahikoa ulergatxa zen ezustea sortu zen, Bilboko alkateak, zarata-atxaki barregarrian, altabozak erretiretako agindua emon ebanean. Euskaltzaindiak agiri bat atera eban, non gorabehera azaldu eta, arazoa ahalik egokien konpondurik, finala hurrengo domekarako iragarri eban:

Bizkaiko bertsolarien azken-txapelketa nagusiko entzule maitea:

Zoritzarrez, eta guk errurik bape ez geunkala, joan

dan domekan (agustuaren 30a) ezin egin izan genduan azken-txapelketa nagusia. Hain zuzen be, arratsalde haretan bertan jakin genduan zelan alkate jaunak berak, Ayuntamentuak guretzat imini zituan altabozak kentzeko agindua emon eban. Ahaleginak egin genduzan zelanbait gauzak zuzendu eitezan, baina alperrik izan zan, alkatea inondik ezin topau izan gendualako.

Badakigu, entzule bihotzekoa, ordu haretan bertsoak entzuteko gogo ikaragarria zeunkana eta minduta gelditu zineana, baina sinistu ondo guk sentidu genduan penea oraindino askozaz be handiagoa izan zala.

Halan da guztiz be, gure eginbehar bakarra eta nagusia euskerea plazara ateratea dala jakin behar dozu, geroago ta sendoago ta biziago, eta, horretarako, Jesukristo gure jaunaren parabolako ereileak legez, ahalbait eta gehien botaten gabiltzala hazia Euskal Herriko lur onean. Eta ezin gelditu geintez osatu barik hartu dogun golpe hau. Horretarako, lehen egingo genduan baino gauza handiago bat egin behar dogu zelanbait.

Beraz, lortu doguz baimen guztiak, datorren domekan (irailaren 6an), Arenalean bertan egiteko, lehen legez, arratsaldeko bostetan, eta oraingoan altabozen segurantzi osoa dagoala, emon zan agindua burubakoa legez aitortua izan dalako eta lege hori ezin aurrera eroan leitekealako.

Euskerea sendotu gura badogu, gure min hau alboan itxi behar dogu, herriaren benetako indarra eta bihotza erakutsirik.

Bihotz-bihotzez, datorren domekan alkar ikusi arte, gure-gurea dan euskera eta bere bertsolari handierri txalo egiteko. *Euskaltzaindia*

Bilboko alkatearen jauntxokeria harek beste erre-akzino batzuk be ekarri zituen. Halan, Deustuko Jabier Lopez de Guereñok, biharamonean bertan, abuztuaren 31n, Bilboko alkateari honako gutuna idatzi eutsan, Alfonso Irigoien paper artean agertu dena:

Sr. D. Lorenzo HURTADO DE SARACHO,  
Alcalde de BILBAO

Señor:

Tiene por objeto la presente solicitar de Vd. una suavización de las medidas que tienden a suprimir los ruidos en Bilbao, permitiendo el uso de altavoces de potencia reducida en ciertos espectáculos públicos en los que es completamente necesario para su debida audición.

En el caso concreto del acto anunciado para ayer por la tarde en el Arenal, el II Concurso Vizcaíno de Bersolaris, que se suspendió ante la imposibilidad de que pudiese ser escuchado por la mayoría del público ante la falta de altavoces. Daba pena ver a

varios miles de personas llegadas desde pueblos alejados de Bilbao, especialmente de Ondarroat, Lequeitio y la zona de Marquina, quienes debido a las malas comunicaciones con la capital hubieron de comer en Bilbao, viéndose privados del espectáculo objeto de su viaje por una medida que pareció excesivamente rigurosa.

El uso de altavoces de potencia reducida, cuya audición se limitase a la zona asignada para el acondicionamiento del público, no molestaría más que los conciertos normales desde el kiosko y permitiría la presentación de espectáculos que de otra forma no podrían tener lugar debidamente, ya que la voz humana al aire libre pierde mucho su potencia auditiva.



Foto Cecilio. Alfonso Irigoien artxiboa. XDZ

Ezkerretik eskumara: Luzio Elortza "Arrola", J. Azpillaga, J. Alberdi, D. Sardui, J. Ormaetxe,  
B. Enbeita eta B. Pujana. Aurreko ilaran, gonbidatuak.

Confiando en tu comprensión y benevolencia, le saluda atentamente.

Beste batek, "Un Bilbaño" legez sinatzen daue-nak (badaezpadan be), Bilboko La Gaceta del Norte egunkarian idazten eban Miguel Angel Astiz kazetariari zuzenduriko gutunean, askoz berba biziagoetan isurtzen dau bere hasarrea. Kazetari hau nafarra zen, berez, eta bazeukan euskeragazko eta euskal ezaugarriekiko halako sentiera bat.

Distinguido Sr.:

Como uno de los miles de espectadores que acudieron al Arenal el pasado domingo, para presenciar el concurso de Bersolaris, no tengo más remedio que expresar mi indignación, ante la suspensión de la fiesta, sin ninguna razón como no fuera la ineptitud demostrada por quien hace de alcalde y acaso el odio cerril a nuestras cosas, lo que significaría una traición patente a su Raza, acto bien despreciable.

Suspender el acto no dejando poner altavoz a causa de los ruidos que pueda producir y permitir que al día siguiente (ayer lunes) actuara en el mismo lugar un grupo portugués, con unos altavoces bien ruidosos por cierto, constituye un INRI a nuestro Pueblo, incomprensible en una Capital como Bilbao, como si fuera villorrio de mala muerte, presa de una rabietta de uno de esos Poncios pueblerinos. Pero ¿es que Bilbao merece tener un alcalde de esta catadura?

Vd., Sr. Astiz, hombre enamorado de nuestras cosas y cuyas campañas en pro del resurgimiento de nuestras características, a quien debemos gratitud cuantos deseamos hacer brillar las particularidades de la Raza, creo, si le dejan, puede y debe hacer una campaña de protesta por este acto vergonzoso, incalificable, que demuestra la bajeza de quien ha sido el causante de ello.

Me consta la indignación de multitudes de gentes apenadas, al ver que todavía ocurran semejantes

hazañas impropias de un País civilizado. Realmente es un genocidio, penado en las Naciones Unidas y más aún con la repulsa de la conciencia universal. ¿Será posible airear este asunto en el diario La Gaceta del Norte por su prestigiosa pluma, tan grata para los enamorados de nuestro Pueblo? Dios se lo premie, si puede hacerlo así.

Con esa esperanza le saluda afectuosamente, *Un Bilbaino.*

Azkenean, irailaren 6an, Arenalean jokatu zen Bizkaiko bigarren bertsolari txapelketako finala. Alfonso Irigoienek artikulu luze samarra idatzi eban, komunikabideei bialtzeko, eta berau da saio haretatik geratu jakun kronikarik osoena eta zehatzena.

#### FINAL DEL SEGUNDO CONCURSO DE BERSOLARIS VIZCAINOS ORGANIZADO POR LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

El domingo celebró en el Arenal de Bilbao ante un público constituido por más de diez mil espectadores que acudieron de toda Vizcaya y también de fuera de ella, la final del Segundo Concurso de Bersolaris Vizcaínos. En ella intervinieron seis bersolaris: el campeón vizcaíno del pasado año y los cinco bersolaris que han quedado campeones en cada una de las cinco comarcas en que ha sido dividida Vizcaya. Son: Valentín Embeita, de Mugica; Juan Azpillaga, de Ondarroa; Jose Alberdi, de Mañaria; Juan Ormaeche, de Larrauri; Deunoro Sardui, de Mugica; y Basilio Pujana, de Ceánuri. Después de una reñidísima y brillante competición, fue proclamado campeón Valentín Embeita, que por segunda vez ha conseguido este honor. En segundo lugar quedó clasificado el joven y formidable bersolari Juan Azpillaga. El campeón recibió de manos de Nazario de Oleaga la copa donada por la Diputación de Vizcaya, tres mil pesetas de la Caja de Ahorros Vizcaína y la chapela que le fue impuesta mientras el público se descubría ante él. El resto de los participantes, mil pesetas.



La competición fue dirigida por D. Alfonso de Iri-goyen, como secretario del jurado, el cual estaba constituido por D. Nazario de Oleaga, D. José Echeandía, D. Eusebio Erquiaga, P. Marcelo Andrinua y D. Sabino Berasaluce. Después de unas palabras de salutación y de dar las gracias a todos los organismos e instituciones que han colaborado en el éxito de este segundo concurso, se le rindió homenaje a Lucio Elorza, el bersolari más viejo que se ha presentado al concurso, entregándosele una copa y nombrándole "aitona" de los bersolaris vizcaínos. Una vez recibido el galardón, que lo hacía en nombre de todos los bersolaris que hasta ahora han existido y que con su amor y dedicación han hecho llegar hasta nosotros este precioso don popular, improvisó magistralmente una serie de bersos ante el cálido aplauso del público, que ponía toda su atención para escucharlos, debido a la voz un poco rebajada, que por causas de la edad tiene este benemérito y gran bersolari.

Acto seguido, se procedió al sorteo para ver en qué orden habían de actuar y uno por uno saludaron al público. Inmediatamente después, cantó un berso cada uno sobre cómo de puede enderezar y reforzar el Atlético de Bilbao. Y comenzaron a actuar por parejas. Primero debían terminar un berso con arreglo al pie forzado impuesto por el jurado y que de una boina ellos mismos sacaban al azar. Acto seguido, sacaban un tema de desafío en que cada uno representaba un papel determinado, y finalmente se imponían mutuamente bersos de pie forzado.

La primera pareja que actuó fue Alberdi-Azpillaga, desarrollando el primero el papel de cobrador de la luz y el segundo el de ama de casa. La segunda pareja fue Embeita-Ormaeche, siendo el primero el padre de una muchacha hermosa y joven y el segundo el solterón. A la tercera pareja, Pujana-Sarduy, le tocó en suerte defender la personalidad de la ama de casa y la de la criada.

Mientras el jurado decidía quiénes habían de disputarse en la competición final el primero y segundo premios, el grupo de danzas vascas Dindirri

actuó magistralmente, dando con sus bellas danzas colorido a la hermosa y cálida fiesta que se desarrollaba en el Arenal.

Se determinó que habían de disputarse la "chape-la" en la competición final Azpillaga y Embeita, los cuales desarrollaron como tema el primero el papel de joven que tiene una novia fea, pero rica, y el segundo el joven que tiene una novia pobre, pero hermosa.

El numerosísimo público escuchó enfervorizado las magistrales improvisaciones de todos los bersolaris, entre los cuales no hay diferencias notables, siendo todos ellos de primera categoría.

En la presidencia de honor se encontraban Moseñor Anasagasti, Obispo franciscano, D. Valeriano Gurtubay, alcalde de Marquina y diputado, y D. Santiago Urcelay, de la Caja de Ahorros Vizcaína.

Los seis bersolaris, a la mañana, habían actuado en Lequeitio ante numerosísimo público, con motivo de las fiestas de San Antolín.

Transcribimos a continuación un deseo que manifestó la Academia: "La Academia de la Lengua Vasca, al terminar el Segundo Concurso de Bersolaris de Vizcaya, agradece vivamente su apoyo moral y material a la Excma. Diputación de Vizcaya, Excmo. Ayuntamiento del Bilbao, a la Caja de Ahorros Vizcaína, a los señores Alcaldes de los pueblos donde se han celebrado los concursos comarcales y a todos los que con su entusiasta actuación han dado vida a esta peculiar manifestación de nuestra lengua. Patrimonio de nuestro Pueblo que ha sido y será defendido con valiente tesón ahora y cuando convenga por esta Entidad que pone un empeñado esfuerzo por conservarla, enriquecerla y defenderla, anhelando que ello sirva para unir a los vascos, cualquiera que sea su ideología y su posición social, pues a todos pertenece el inapreciable tesoro que recibimos de nuestros mayores. A todos invitamos a la tarea y a los que no siendo vascos, por convivir entre nosotros, consideran suyas nuestras propias cosas. Trabajar por conservar la lengua de nuestros padres es laborar por la justicia y defender un derecho natural".

Por otra parte, sabemos que la Academia de la Lengua Vasca estudia la posibilidad de organizar un concurso de todo el País Vasco, para lo cual sería necesario primero proclamar campeones provinciales.

Eskuz idatzita, orriaren ezkerreko tartean dino:

“Enviado a: Hierro. El Correo Español. La Voz de España. El Diario Vasco. Unidad. El Pensamiento Navarro. El Diario de Navarra. El Pensamiento Alavés. Radio Segura. Ignacio Eizmendi. Pierre Lafitte”.

Txapelketa amaitu eta berehala, 1959-IX-21ean, aurretik be asmozat zerabilen bertsolarien batzarra antolatu eban Irigoienek. Horretarako, bertsolarietara eta bertsoaren ingurukoetara honako gutuna bialdu eutsen, deialdi eta gai-ordena moduan, batzarrean tratatuko ziren asmoak iragarri:

#### BIZKAIKO BERTSOLARIEN BATZARRA

Datorren hileko 11-n, batzar bat izango dogu Durangon Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketan parte hartu dogun guztiak. Goxeko 10:30ean izango da Hotel Alzaan. Bertsolaritza gainean berba egingo da bertan: zelan bertso-paperak atera; herrietako ekitaldiak zelan ugaritu; eta bertsolaritzaari jagokozan gauzen gainean.

Eguerdiko hamabietan, Bilboko azken-txapelketa nagusirako gelditu zirean sei bertsolariak ekitaldi bat egingo dabe eta Durangoko Ayuntamentuak emongo deusien dirua guztien bazkarirako eskeiniko dabe. Bazkaria Hotel Alzaan izango da, esan dogunez, dubarik. Bertsozaleren batek etorri gurea baleuko eta sariketan parte hartu ez dauena izan, bere bazkaria pagau behar izango leuke.

Dei honegaz batera, Pujanak atera dituen bertsoen orri batzuk joatzuez, eta baita Bilboko Euskaltzaindiak Bizkaiko bertsolarien azken txapelketa nagusia egin zanean zabaldu zituen orri batzuk be. Mesez, zabaldu banaka-banaka, bertsozaleen artean.

Batzar horren eta aurreko saioaren barri emonez, erderazko orri bat agiri da, komunikabideetara bialtzeko egina, seguruenik. Durangoko udaletxearen inplikazioa lortzeak, bertsolarien antolakuntzaren germena izan zeitekeen batzarrak eta bertan jorratu ziren gaiak, gaur egungo perspektibatik be, argi dago ez dabela interesik galdu.

#### ACTUACION DE LOS BERSOLARIS VIZCAINOS EN DURANGO

El domingo tuvieron una exhibición en el frontón de Durango, ante un público numeroso y entusiasmado, los bersolaris que actuaron en la final del Segundo Concurso de Bersolaris Vizcaíno, organizado por la Academia de la Lengua Vasca. Dicha exhibición estuvo patrocinada por el Ayuntamiento de Durango, como prólogo de las fiestas de San Fausto. Actuaron también los danzaris de Yurreta, que dieron su nota de colorido.

Después de la actuación, se reunieron en el Hotel Alzaa casi la totalidad de los bersolaris que han participado en el concurso, y que son veintinueve, así como también los miembros del jurado que intervinieron y algunos “bertsozales” más. Se habló principalmente de la manera de fomentar los tradicionales “bertso-papelak” y de las exhibiciones en fiestas populares e íntimas, que este año han sido muchas, al calor del concurso. Se dijo también cómo la Academia de la Lengua Vasca abraza el proyecto de organizar un concurso cumbre entre los mejores bersolaris de todo el País Vasco, como consecuencia lógica de los concursos provinciales. Los bersolaris finalistas fueron los que invitaron a la comida a los asistentes, dando con ello una nota de hermandad y de unión. Presidió D. Nazario de Oleaga.

Alfonso Irigoien en urte honetako paperen artean, badago gutun bat, Martin Arrizubieta abadeak 1959-IX-19an idatzia. Gutun luzea da eta, alde askotatik, oso adierazgarria. Abade hau mundakarra zen, baina Cordobako Santa Marinaran parro-

ko zegoen. Handik urte batzuetara, neuk be eza-gutuko neban pertsonaia hau. Udan, eta urtean zehar be bai, lantzean-lantzean, bisitan etortzen zen gizon hau neugaz egon gura ebala-eta agertu jatan behin. 1966an edo izango zen. Bizkaian gero Gogor izena hartuko eban abadeen mogimentua indartuz zihoan eta, neu be tarteko nintzenez, Martin Arrizubietak nigana jo eban eta, harrezkerro, etortzen zen guztian ahaleginduko zen nigaz egoten. Harrituta izten ninduen. Alde batetik, orduko abaderik eta herritarrik ustez aurreratuenok baino aurreratua goa eta iraultzaileagoa zen, bai intelektualki, bai burruka metodoei buruzko ikuspegian. Bestetik, ez neban ulertzen, eta ez eustan inoiz garbi azaldu, zelan edo zergaitik zegoen abade Cordoban, eta ez hemen, berak hain sutsuki defendatzen eban Euskal Herrian. Gero, gu be kartzelara ezkutatu ginen eta abade misterioso haregazko hartu-emona guztiz galdu neban. Dударик ez dagoena da gizon jantzia, jakintsua, iraultzailea eta abertzalea zela. Cordoban zer bizikera egiten eban ez dakit. Eta hona, Irigoienek paper artean, haren gutun luze bat non agertzen den. Zatirik garrantzitsuenak hona ekartzeari ezin egokiago deritzogu, garai haren leku-kotza guztiz adierazgarria eskaintzen dabelako. Oraingo ortografian transkribatuko dogu, irakurtzea errazteko.

Irigoyendar Alponso lagunari, agur t'ardi:

Zugandik, Bizkaiko bertsolarien azken-txapelketa nagusiar buruz, eskuratu dodazan idazlan biok, egiz, asko poztu nabe, ikusirik, zuen gizalege ta esku-bigun horri eskerrak, aktu hori ospatu ta jaialduta leitekean.

Egunak dira, Bilboko "El Correo Español" albistaria heldu jatala, ta bertan, bertsolari garaileen photoa ikusi nebala. Benetan pozik gelditu naz, jakinik bertsolarien azken txapelketa nagusia barriro eratu ta egin dozuela hile honetako lehenengo domekan. Pena haundiz gelditu nintzan agustuaren 30ean...! Bertsolarien kantak entzuteko asmoz Bilboratu nin-

tzan-eta, baina azkenian, tautik be ez entzuteko... Baina zuek Euskaltzaindikoak, eroapen haundiagaz, inor mindu barik eta inogandiko zirikadak ezinbul-tzatuok (sic), aurrera, eskukada bigunaz edo, hobeto esateko, oinkada ixiltuagaz, jokatu dozue, anto-laturik hurrengo domekarako, lehenago eragotzi euskuena... Honelakorik jakin eragitea ta eragin jakitea, orain arte ez da jazo inoiz gure artean.

Zuen ekinbide hori, gizalege ta eskubigun horixe, behinolatik deritzat bide onena, laburrena, euskeraren alde zeozer onurakor egiztuteko aurrerakoan. Eta honelako ekinbide bigun eta jakintsu bitartez, edozein gai ta gauzetan, batez ere, politrikako kontuetan hainbeste on lortu leiteken, ikusirik politrikia ez dala besterik eguneroko ahalezkoari gaurko izatea emotea baino. (...)

Zuek erabili dozuen ekinbide argi ta garbi lakoagaz, aldatuko litzake, askotan, euskeraganako bekoki ilunezko ingurua. (...)

Nork, gaur hamar urte, esango euskun honelako txapelketarik Bizkai aldean egingo zala? Ba, hor dago! Zuek eragin dozuen hori ikusteko itsueri be, legeazpiko bidezabalean zehar ibili leitekeala...! Zenbat bider, ezinak egiteko ametsak alper bizitze-ko atxakiak izan dira. Gai honeri buruz, liburu eder bat idatzi geinke. Jazoera honetatik atara daiegun ondorengo azalgarriena jaku: Euskaltzaindiaren bitartez, hainbeste gauz onurakor lortu geinkeala. Euskaltzaindiaren kerizpean, horregaitik, danon indar eta ahaleginak bildu behar doguz. (...)

Gure opor-aldiko hizketaldietan, bertsolarien erakundeari buruz, maiz eta askotan solas egin genduan. Gizonok, gure herriaren jaiotzetiko, berezko, sortzezko loreok, milaurteko elerti hau, izan arren, egikizun haundi ta goragotarako egin behar doguz, trebeagoak oindino. Eurak, sustraieztatik hostoetaraino doan leinuagaz, eurak dira, gure idaz-elertia ere, sortu behar dabenak. Eurak sortuko dabe elerti idatzia, ez ederti-legez ala antzez egina, izatez-koren bat baino, herriak irakurri leikena baino. Behar-behrezkoa eurak jake eta jaku geuri ere BERTSOLARI izenaz argitalduko dozuen aldizkaria. Zure

asmo hori garrantzi haundikoa da. Hain haundia ze, nahi dodala nik, ametsak amets, zure asmo ta egin-gura hori biribildu, bertsolarien hiru helburuko organizazino indartsu bategaz.

Lehenengo helburua: Bizkaiko txapelketan agiri direan hogeita hamar bat bertsolari, BERTSOLARI aldizkariaren inguruan alkartu ta bildu behar dira. (...)

Bigarren helburua: Egoki litzake, mainetophon bidez, euskel elertiari ta gure herriaren kondairari buruz, irakaskizunen araura, hitzaldi batzuen erreskada gertu eta hitzaldiok, irakaskizunok, mainetophon bidetan hartunda, bertsolarien etxerik etxe ibili jiraka ibili daitezala, gure bertsolariok, beuren base-ritik urten barik eta beuren eguneroko lanak geldiarazo barik, entzun eta ikasi dagiezala. (...)

Hirugarren helburua: Bertsolariari arkitu behar deu-

tsagu beuren gogozko lanetik urten behar ohi jakon sari ta ordain bat. Horretarako, bertsolarien gogozko lana izan ahal daiten dirukorra, sari ta ordain bategaz, beuren lan irazalea, aldi batean, alkartu ta konpondu behar dogu. (*Hemen proposamen bitxia zehazten dau, futbol partiduetan, tabernetan eta abar, bertsolarietara kantatzeko era ordaindu bat zelan gauzatu zeitekeen. Baita Venezuelan eta New Yorken be, asmook aurrera eroateko, zelako bideak urratu zeitekezaen*).

Ointxe-ointxe zure azkenengo bialdua heldu jat. Pozik baino pozago jakintzen dot Arestik irabazi daula lehenengo saria. Egin behar geunke zeozer beren omenez. Aupa, Aresti! (...)

Zure ta aldreakoen asmoeri deika ta itxaronka, gure herriaren alde zeozer egiteko asmoz, *Arrizubieta'tar Martin*.




Foto Cecilio. Alfonso Irigolenen artxiboa. XDZ

Luzio Elortza "Arrola", bere agur-bertsok kantatzen, Arenalean.

**Finaleko bertso guztiak Anaitasuna-n**

Aurreko urtekorik ezer ez badaukagu, 1959ko finala, zorionez, osorik heldu jaku, *Anaitasuna* aldizkariak atera eban gehigarri bati eskerrak, 1959ko abenduaren 12ko 67. zenbakian. Sarrera-ohar txiki batean dino: "Bilboko Arenalean, aurtengo irailaren 6an egin zan Bizkaiko Bertsolarien Azken Txapelketa Nagusiaren gorabeherak oso-osorik emoten doguz *Anaitasuna*-ren irakurleentzat. Bertsoak ukutu txikiren batzuk besterik ez daukiez, neurriak eta hutsuneak betetako egin direanak".

Alfonso Irigoienek, hasierako aurkezpenean, ondo-eterrien eta esker-emoteen ondoren, dino:

Laster emongo deusagu hasieraa txapelketeari. Baina lehenago esan behar deusuet zelan Bizkaiko herrietatik zehar ibili garean bertsoak zabalduten, eta zelan hainbat bertso-liburu zabaldu doguzan, "Euskal Kantak" izenagaz. Horregaz, gure gogo da Euskal Herri osoan, eta orain Bizkaian, bertsoak zabaldutea, ahal dala gazte-jenteak ikasi, buruz ikasi, eta bertsolariak ugaritu daitezcan. Hain zuzen be, bertsoak ikasten dabezcan Bizkaiko neska-mutil gazteak, datorren urtean, Euskaltzaindiak egiten dauen esamina batera etorri leitekez. Esamina horretan itanduko jakiez: bertsoak buruz ikasita, kristinau dotrinea, eta beste gauzatxu batzuk, eta sari ederrak emongo jakiez, ondo ikasten badabez. Ahaleginak egin, jente gazteak ikasi daien. Orain hemen ez daukaguz liburuak, baina inork gura baditu, gero, hau amaituta gero, joan daitela Euskaltzaindira, horra Erribera kalera, hortxe bertan dago, eta hantxe emongo deusaguz. Bost pezeta besterik ez dau balio eta, bertan, hainbat bertso eder datoz, bai bertso zaharrak eta bai bertso barriak, hemen dagozan bertsolari batzuk be ipini dituezanak.

Irigoienek hemen iragartzen dituen bertso-liburuetariko bat, 1960an ateratakoa, orduan seminarioan gengozen ikasle batzuen eskuetara be heldu zen, eta autortu beharra daukat oso inportantea eta ezin kutunagoa izan zela, euskarari erdi isilka ekiten hasiak ginenontzat. Irigoienek darrai:

Beste gauza bat oraindino: Luzio Elorza jaunari kopa eder bat emongo deusagu. Hain zuzen be, bera da sariketa honetara etorri dan bertsolaririk zaharrena. Bermeon agertu zan eta bigarren gelditu, baina, apurtxo bat gazteagoa izan balitz, buruko min handiak emongo eutsezcan gazteeri. Ikusten da zelan bere gazte denporan bertsolari ona izan dan, baina orain, bere zahartzarogatik, apurtxo bat gortuten hasia da, baina merezimentu asko ditualako, eta ia denpora asko izan ezin dauelako, sariak irabazteko, kopa eder bat emotea erabagi dogu, Bizkaiko bertsolarien aitona izentaurik. Oleaga jaunak oraintxe bertan emongo deutso kopea, eta berak bertso batzuk esango deusuez.

Luzio Elortza hau Nabarnizkoa zen, Arrola baserrikoa, eta denek "Arrola" legez ezagutzen eben. Gizon ikaragarri popularra Gernikalde eta Lea ibar guztian, bai izakeragaitik, bai bolumenagaitik, 150 kilotik gora ibiltzen baitzen. Bere ohiko brusa baltzez jantzita, Gernikako astelehenetan, ikusgarria izaten zen sortzen eban ikusmina, beti gizon eta mutil gazte pilo inguruan, haren kontuez eta kontakeraz gozatzten. Uztapidek be, bere Lengo egunak gogoan-en, bigarren liburuko 174. orrialdetik aurrera, harriduraz kontatzen ditu haren pasadizoak, behin, Natxituan, bertso saio bat zela-eta, bat egin eben egunean entzunak eta ikusiak. Hain gizon mando handia izan arren, praka nasai-nasaiak erabilten zituen eta, behin, Gizaburuagatik Lekeitiorantz zihoala, tabernandreak tentatu ei eban:

- Luzio! Prakok nasaitxu ez daukazuz?
- Bai! Amak egin eustazen, handia haziko nintzelakoan.

Txapelketara itzulita, eskaini eutsien kopa harturik,  
honako bertsoak kantatu zituen Bilboko Arenalean:

1)  
Arratsaldeon eman deigula  
Santu ta Birjinak  
munduan zerurako  
lagun atseginak.  
Kantuan ingoitugu  
geure ahaleginak  
ez du oin balioko  
lehen huts eginak.

2)  
Hemen esango deuset  
euskaldun daneri  
zela tokaten jatan  
egun hau gaur neri.  
Zahartuta nago ia  
oindikan agiri  
gerokuari begitu barik  
oraintxe nabil ni.

3)  
Hainbat lagun on hemen  
aurrean gaur dia  
Bilbon hainbat euskaldun  
hortxe batu dia.  
Neure lagun batzuek  
ere gaur badia  
Balentin Enbeita ta  
Irigoiñ jauna ta  
Don Jose Etxeandia.

4)  
Ia nahikua det nik  
samia galduta  
lehen ona nintzan baina  
oin nago zahartuta.  
Gehiagorik ez hartu  
gaurko hau hartuta  
neure ofeziua  
daukat ugartuta.

5)  
Munduko gauza asko  
honela ohi dia  
neri pasatu jatan  
gazte denporia.  
Lehengo kontuak akordatzia  
alperrikan dia  
berriz ikusten horrek  
gaitz izango dia.

6)  
Lehenengotik hartu det  
hemen propinia  
gero ez dakit zer dan  
oin baukat kopia.  
Zer etorri badago  
men edango dia  
gitxi baino ez bada  
kabiduko dia.

7)  
Hau de lehenengotatik  
daukadan lan hori  
gaizkirik esatera  
ez nua inori.  
Atzo pasau jatana  
pentsatzen det neri  
eskerrik asko orain  
publiko danari.

Arrolak erabiltzen eban doinu erreztatiboan, neu-  
rriaren luze-laburrak berez-berez sartzen ziren.  
Hirugarren bertsoaren azken puntuan, bardin  
luzatu zeikeen honela: Balentin Enbeita ta, Iri-  
goiñ jauna ta, Arenal guztia ta, Jaungoikua bera  
ta... Don Jose Etxeandia. Kantatu zituen arrazoi  
batzuk, barriz, bitxiak dira, benetan: gerokuari  
begitu barik oraintxe nabil ni; neure ofeziua dau-  
kat ugartua; berriz ikusten horrek gaitz izango  
dia; gitxi baino ez bada, kabiduko dia. Eta, batez  
be: ez du oin balioko lehen huts eginak.

Luzio Elortza "Arrolaren" ekitaldia amaiturik, sei finalistek, tokaturiko ordenan, agurrak kantatu zitueen:

*J. Alberdi*

Arratsalde on eman ondoren  
hasi nahi nuke lanian  
ez dakit zelan moldauko naizen  
hainbeste jente aurrian.  
Hazi ederrak erain dituez  
euskalzalien artian  
landarak ere ikusten nago  
gaur hemen Arenalian  
aspertu gabe jarraitu daigun  
bakotxak bere sailian  
euskal ohiturok bizi daitezcan  
uri eta baserrian  
diferentziok utzi daiguzan  
jetxi eta alde batian.  
Gorroto biziz ikusi gendun  
zer igaro zan lehenian  
hamaika anai errubakuak  
estaldu ziran lurpian.  
Mundu honetan bizi gaitzean  
anaikor maitasunian  
Jesus maisuak lagundu deiskun  
zeruetako atian.

*J. Azpillaga*

Ondarruako gazte apal bat  
zugana dator kantari  
Bilbo maitea, zu ikusita  
sentitzen naiz ameslari.  
Aurre aldera begiratzea  
benetan da zoragarri  
zahar eta gazte, andre ta gizon  
kaletar nahi nekazari  
Bizkai guztitik etorri dira  
jarraituz gure deiar  
batasun honek itxaropenak  
eman behar Bizkaiari.  
Esaten datoz prest dagozala  
oratuteko lanari  
uzteko bide okerrari  
lotuteko zuzenari  
ta euren bihotzak oso eskeintzeko  
geure ama Euskerari.

*B. Enbeita*

Igazko urtian hemen ginian  
zazpi bertsolari txiki  
aurtengo urtian banan-banango  
sei txapeldun gara etorri.  
Pujana, Ormaetxe, Sardui, Azpillaga  
Enbeita eta Alberdi  
igaztik hona bertsolariak  
Bizkaian dira ugari  
eskerrak emon behar deitsaguz  
gure Euskaltzaindiari  
urtebetian berak ein dauen  
lan goragarriagaiti  
eta zuontzat, anai ta arreba  
eleizgizon ta agintari  
bertsolarien besarkadarik  
anaikorrena danori  
txapelketa hau izan dagigun  
guztiorrentzat pozgarri  
bihotzez otoi egin deiogun  
gure Begoñako Amari.

*J. Ormaetxe*

Arratsalde on opa deusuet  
etorri zeratenari  
bihotz barruti agur eder bat  
Bizkaiko Euskaltzaindiari.  
Ezertxu ere kendu egin gabe  
Araba, Nafarroari  
besarkada bat Gipuzkoako  
anaia ta arrebari.

*B. Pujana*

Gure artian sarri izan dira  
saminak eta ilunak  
zorionean poz apurtxo bat  
badeusku gaurko egunak.  
Ume txikia poztuten denez  
amaren berba bigunak  
zuen bihotzak poztu daizala  
guk hemen esango'gunak  
ondo etorriak izan zaiteze  
orain hemen zagozenak  
epaikariak, obispo jaun ta  
bai beste entzule danak  
agur gozo ta besarkada bat  
opa deusue Pujanak  
ta Jaungoikoak gorde zaizela  
bihotzeko euskaldunak.

*D. Sardui*

Hainbeste zahar ta hainbat jakitun  
ikusiz nere aurrian  
lotsaren lotsaz jarriten naiz ni  
ia mutu biharrian.  
Baina honera etorri ezkeru  
jarraitu bihar lanian  
zaharrak parkatu, baina ni nola  
gaztea horren sasoiari  
hemen badago etorkizuna  
eurak gura dutenian  
gazteok, ekin zeuen lanetan  
jarraitu zintzo bidian  
gure Euskera sendotu daiten  
jarraitu gogor lanian.

Irigoi: "Agurra egin ostean, beste bertso bana botako  
dabe, bana-banaka. *Bilboko Atletikoa zelan zuzendu eta  
indartu leitekean.* Lehenengo, Alberdi Mañarikoak".

*J. Alberdi*

Zuzentza hori ez al daukagu  
begien aurrean argi  
dudatxoren bat zure aldez badao  
Alpontso belarriak zoli.  
Batzar hartako agintariak  
ondo dakielako hori  
hona erbestetik inortxo bere  
ez dabe egiten ekarri  
nahikoa ere dirazelako  
urtenekoak bertati  
geuria izanda, zeinek ez maite  
bihotzetikan Atleti.

*J. Azpillaga*

Nik esan nahi det zer behar duan  
Bilbo Ateletikuak  
adar ederrak ematen ditu  
zugaitz sustrai onekuak.  
Beste herrietan hor ostikoka  
dabiltz atzerritakuak  
honuntz etorri ta hemen dagoz  
guztiak apurtzekuak  
guk kanpotarrrik ez degu behar  
nahiko dira etxeakuak.

*B. Enbeita*

Oizko beliak esaten dabe  
Oizera nahi daula beti  
zetan esan bez, begiak argi  
danak bere kabiari.  
Herri guztiak euren jokoak  
gaur arte dituez euki  
geuk be halantxe pelotariak  
palankari ta aizkolari  
euskaldun hutsez izatekotan  
gaur arte zein dan nagusi  
dudarik barik mundu guztian  
Bilboko gure Atleti.



*J. Ormaetxe*

Maitagarria gure Atleti  
Bizkai guztiarentzako  
ederragorik mundu honetara  
inoiz etorri ez dalako.  
Gaur bere goitik egongo leite  
dirautsuet entzuteko  
zorioneko maitagarria  
ezauna dana dalako  
nahiago neuke gaurkoan bere  
Zarra gaztiao balego.

*B. Pujana*

Gure Atletik orain badauka  
hemen zuzendu biharra  
hemen daukagu gaur Joma jauna  
ez da zuzendari txarra.  
Atletik baki nondik dadukan  
garaitzarako izarra  
ta orain arte lez beti izango da  
nagusi Atletitarra.

*D. Sardui*

Ez da erreza loka dagoan  
hormia sendotutia  
aspalditxuon gure Atleti  
daukagu nahiko lokia.  
Martxa horretan kostako jako  
gauza handirik egitia  
sendotzeko nere ustez, behintzat  
onen-onen txuletia.

Irigoien: "Orain binaka agertuko dira. Lehenengo,  
puntu bana ipiniko deutsegu".

Puntua: *Zelan ibili zara  
Lekeitio aldetik?*

*J. Alberdi:* Guztiz dotore etorri naiz  
ni hona bertatik.  
Jan eta edan egin det  
inoren lepotik  
baita txurruta ere  
zedorrenagaitik.

Puntua: *Euskaldunak begira  
eta gu kantari*

*J. Azpillaga:* Zerbait esan beha'iot  
gaur Arenalari.  
Kanpotik etorri dan  
jente guziari  
bihozkadak ematen  
dizkiet danari.

Irigoien: "Orain teman ekingo deutsie. Bost bertso  
bakotxak. *Alberdi izango da argi kobratzailea eta  
Azpillaga ugazabandrea, etxeoandrea.*"

*J. Alberdi*

Zetanbaitetik jan behar eta  
naiz ni errukarria  
alper-alperrik joatelako  
mundu hontako denporia.  
Hara ta hona aspertu gabe  
badet jira ta bueltia  
alperreko da etxeoandra honi  
sasoiz atia jotia.

*J. Azpillaga*

Honek esan dun lizunkeria  
ez inork goguan hartu  
etortzen da ta ateik jo gabe  
igual etxera sartu.  
Ez det nik ezer entenitzen da  
berak nahi duna kobratu  
zuzentxuago ibili behar  
nahi ez badek kondenatu.

*J. Alberdi*

Dotore samar esan ditu honek  
txaloz berotu dozue  
baina oindio kobratzaileak  
argirik dauka gogue.  
Itaun txiki bat ziharo bertan  
bero ni egiten nue  
nun ete dauka hori holan bada  
honek han errezibue.

*J. Azpillaga*

Zuk emandako errezibuak  
 etxian nik haintxen ditut  
 etorri eta pare bat duro  
 gehiago kobratzen ditu.  
 Han hartutako diruarekin  
 tabernak pasatzen ditu  
 daukan jornalez zelan ibili  
 honek ostuko ez balitu.

*J. Alberdi*

Badakizute lehenaoko zorra  
 ez ein hainbeste zarata  
 herri ta erbeste aspalditxotik  
 ondo zagoz ezaututa.  
 Nere bihotza lehenago bere  
 baita orain bere galanta  
 orain osua parkauko deutsut  
 hemen erdia pagauta.

88

*J. Azpillaga*

Bere burua gezurrak esan  
 ta jarri nahi du apaina  
 ez zaitez izan horrelakua  
 ez zak jenderik engaina.  
 Hau etortzen da nere etxera  
 ustean halako fina  
 falta horretxek ditu bakarrik  
 bestela formal da baina.

*J. Alberdi*

Etxekoandra eskasak ere  
 atxakia dau ugari  
 baina ez uste engaino barririk  
 emongo'stezula neri.  
 Berbaz hasi ta lagun aurrian  
 honek zerbait badirudi  
 hartu-emonetan gehiao gur'utso  
 onrrai baino diruari.

*J. Azpillaga*

Nik esandako egi hau behintzat  
 zuk ez dezu ukatuko  
 lehendik guztiak kobratu dezuz  
 berriz ez dek kobratuko.  
 Hau hemen dabil nun edo handik  
 niri ziria sartuko  
 nik emandako baso erdirik  
 berriro ez dek hartuko.

*J. Alberdi*

Erdika hemen ibili gabe  
 esan behar da guzia  
 gauza ederra azken orduan  
 izango garbi egotia  
 Ez det eskatu orain artian  
 izan ez dana neria  
 gauza ederra dalako hemen  
 bakotxarentzat beria.

*J. Azpillaga*

Hau esan arren jendiaentzat  
 ez da ba izango kalte  
 zuen moduko kristauagandik  
 hobe da bizi aparte.  
 Aurrian zauden emakumeak  
 gaur enteratu zaitezte  
 argi kobratzen zabilztenak  
 denok berdinak zerate.

Irigoién: "Orain puntua alkarrereri ipiniko deutsie".

*Alb.* Zer da biharrekua  
 zerura juateko?

*Azp.* Obispo ta apaizak  
 daude hori esateko.

*Alb.* Hamar mandamentuak  
 ikasi lehenengo

*Azp.* Oindio bihar hori  
 zagoz egiteko.

Azp. Arenaleko jentia  
zer zatzu iruri?

Alb. Gehienak ikusten det  
dagozala argi.

Azp. Danok belarri alerta  
aditzeko guri

Alb. Eskerrak eman behar  
euren txaloari.

Irigoien: "Honegaz amaitu dabe Alberdik eta  
Azpillagak, eta orain Enbeita eta Ormaetxek ekin-  
go dabe. Lehenengo, puntu bana:"

Puntua: *Gure euskerea sendo  
biziko da beti*

B. Enbeita: Horretako lanian  
jarraitu gogoti.  
Gaurko antzera hainbat  
badaitez etorri  
bultz egingo deutsagu  
euskera zaharrari.

Puntua: *Txoria izatekotan  
zer gura zeunke izan?*

J. Ormaetxe: Mundu honetan hobeto  
bizi izan gisan.  
Hasieratik danak  
hor balira holan  
geure antzeko guztiok  
Hori izango ziran.

Irigoien: "Enbeita izango da neskatila galant  
baten aita eta Ormaetxe, mutilzaharra".

B. Enbeita  
Hainbat urtian harturik daukat  
neure ezkon buztarria  
Jainko bidetik ekarririkan  
baita ederra sendia.  
Semeak baitut, gainera barriz  
dotorea alabia  
mutilzahar honek oraintxe egin deust  
beretzat eskabidia.




Foto Cecilio. Alfonso Irigoienen artxiboa. XDZ

1959ko Bizkaiko Txapelketako finaleko oholza prest, Arenalean.  
Entzuleria bertsolarien zain.

*J. Ormaetxe*

Nola izan leike eskari hori  
sobran dunari egitia?  
Ez neuke gura opazka daonai  
hartutia alabia.  
Neronen ustez hak eukiko dau  
haren batian tranpia  
hoba izango da beste bateri  
ahal badot jarraitua.

*B. Enbeita*

Mutilzaharretan beti egoten da  
barren-barrendik tranpia  
horrexegaitik igarri barik  
etorten jake zahartzia.  
Honek gura dau neskatxa polit  
bikaina hor bilatzia  
mutilzaharrentzat neure ustian  
joan da hortako sasoi.

90

*J. Ormaetxe*

Ez det uste nik oraindikarren  
daguazanik belurik  
oindinokarren zahar edo gazte  
topateko ez det bildurrik.  
Baina barruan gogo bat daukat  
bihotzeraino sarturik  
zahar ein ezkeru zetan hartuko  
ez badaukia dirurik?

*B. Enbeita*

Gauza ederra da mundu honetan  
honek dinonez dirua  
diru ta emazte, bietan dauka  
baina sarturik burua.  
Dirua nahi dau ondo eroateko  
berarentzat zahartzarua  
zahartzaro hontan andrea barik  
izango kanposantua.

*J. Ormaetxe*

Sekula bere gaur arte behintzat  
ez det pentsau holakorik  
zaharra naiz baina oindino ez det  
uste nik hil egiterik.  
Mundu hontara etorri gera  
Jaungoikuak ekarririk.  
Nora arraio juango naiz ni  
berak deitu egin barik?

*B. Enbeita*

Aitu gura ta aitu ezina  
hau da daukagun penia  
mutilzahar honek nere ustian  
gaur dauka nahiko tranpia.  
Ezkondu gura, ezkondu ezin  
ezin bilatu andria  
andria baino nahiago du honek  
tabernan txurrut eitia.

*J. Ormaetxe*

Danak dirade bardineko holan  
nahi bada ulertutia  
beronek bere laster aurrian  
amaitu egin dau kopia.  
Ze gauza ederra hainbesten aurren  
besten erru ematia.  
Uste ete dezu nere adiskide  
horregaz engainetia?

*B. Enbeita*

Ardauan eta diruan honek  
gaur egiten deusku amets  
zahartuta egonda ez zara holan  
ezkondu izango errez.  
Zu langoari jazoten jako  
mutilzahar askori legez  
etxe ondokua inok eruan  
eta kanpuan topau ez.

*J. Ormaetxe*

Uste dau honek berba horregaz  
ni ikaratu egitia  
nahi dauena da, igarkozue  
emon niri alabia.  
Igual izango da, ez dakit baina  
bera edari zalia  
hoba egingo'zu, nire adiskide  
beste bateri ematia.

Irigoién: "Orain alkarregaz puntura".

*Enb.* Zetan etorri zara  
gaur Arenalera?

*Orm.* Bakotxak egitera  
ahal dauen erara.

*Enb.* Bigarren txapelketa  
pozik jokatzera

*Orm.* Nahiago lehengo lepua  
eruan etxera.

*Orm.* Zetan etorri zara  
gaur, Enbeita, hona?

*Enb.* Txapelketa jokatzén  
hemen ahal doguna.

*Orm.* Ai banenduke nik han  
lehen euki nuena

*Enb.* Laster ikusiko da  
Zein garen onena.

Irigoién: "Amaitu dabe Enbeita eta Ormaetxek, eta orain Pujana zeanuriztarrak eta Sardui Muxikakok ekingo deusie. Lehenengo, puntu bana:"

Puntua: *Lurretik zeruraino  
zenbat metro dira?*

*B. Pujana:* Oraindino ez dot neurtu  
on arren begira.  
Gu hara heldu orduko  
luzatuko dira  
pozik joango nintzake  
ni Garbitokira.

Puntua: *Gura izango zeunke  
txapela irabazi?*

*D. Sardui:* Hortako bertsoetan  
bihar da ikasi.  
Gero onena zein dan  
juezak ikusi  
buru txikia daukat  
ta eingo dau igesi.

Irigoién: "Temarako gaia hau da. *Pujana izango da ugazabandrea, etxekoandrea, eta Sardui, neskeamea, kriadea*".

*B. Pujana*

Gazte ta indartsu nintzanian ni  
ez neukan biharrizenik  
eta orduan nire etxean  
behar ez zan neskamerik.  
Baina oragin daukadazanez  
indarrak be urriturik  
etorri zaitez neskeme hona  
gogoan ondo harturik.

*D. Sardui*

Bata-bestien biharrizenez  
beterik dago mundua  
uzabandriak nere ustian  
ointxe dau sekulakua.  
Gazte irudiz, sendo gorputzez  
neskametzat modukua  
honek ta nik gaur laster eingo'gu  
aurrerantzako tratua.

*B. Pujana*

Zorionean ondo hasi gara  
ta sartu gara nahastean  
zu ondo izaten baldin bazara  
egongo zara etxean.  
Ez zaitut inoiz bialdu eingo  
nire etxetik eskean  
nire etxean salda beroa  
eukiko dodan artean.

*D. Sardui*

Gaztea naz ta burutasunak  
dodaz aurrerantzerako  
ez da sasoia lan egiteko  
bere janen trukerako.  
Zerbait bihar dot nere zahartzia  
ahal ondoen pasetako  
diru konturik ez dau atara  
uzabandra ona izateko.

*B. Pujana*

Andra ona lez entzun dot eta  
oragin esan dabena  
bildur bagarik egin eidazu  
nire etxean dan lana.  
Laguntasuna emongo deutsat  
ahal dodanetik ahal dana  
bakarrik naiz ni etxean eta  
gero zeuretzako dana.

*D. Sardui*

Lartxo eskeintzen dator hau hemen  
ni lanian ikus barik  
ez du nahi izango hartzia beonek  
hor kriedarik alperrik.  
Dana neuretzat izango bada  
dudan jarriten dot ba nik.  
Ez ete dauka loba edo holako  
ni baino aurreragorik?

*B. Pujana*

Oin be errazoia esan dozu ta  
hau da goguan hartzeko  
honek agoan ez dau bizarrik  
lan ein barik eskatzeko.  
Dirua gura bozu etorri  
etxean lan egiteko  
eta lehen legez izango zara  
laguna zu niretzako.

*D. Sardui*

Zure azken hitzak ez dauke, lagun  
nere ustez bape indarrik  
ez dot nahi izan zure etxian  
beti ibilteko hondarrik.  
Lehen dirua ta etxia ere  
eskini bildurrik barik  
oragin dino lagun izanda  
nahikua dala bakarrik.

*B. Pujana*

Beti berera joaten da ta  
nik esan deutsat nahikua  
bihotza apur bat bigunduizu  
ta ez izan horrelakua.  
Erdi gexorik andria eta  
zapaldu lagun urkua  
hemen ez dago bihotzik eta  
erruki izan, Jaungoikua.

*D. Sardui*

Baten bateri honen errukik  
egingo eutsan nahiko minik  
baina neskame honek horgaitik  
ez du egiten zirkinik.  
Hemen erruki danok daukagu  
baina geuriak eginik  
eta bestiak hor konpon eta  
konpondu euren aldetik.

Irigoien: "Orain, alkarregaz puntura egingo dabe".

*Puj.* Aitatuko ete dogu  
oraingo gazterik?

*Sar.* Erdiak dagoz orain  
ia zoraturik.

*Puj.* Neskaxetan ez dago  
arpegi garbirik

*Sar.* Danak dabiltzaz-eta  
urunez beterik.

Sar. Adiskide, egizu  
gazteria aitatu

Puj. Zeuk aurretik eginda  
ezin neri ukatu.

Sar. Gehiago danari beti  
baezpadan parkatu

Puj. Handiak daozean  
burua makurtu.

Irigoi: "Amaitu dabe Pujanak eta Sarduiak. Orain juraduak erabagia hartu behar dau. Sei bertsolari honeitatik, bik gelditu behar dabe, lehenengo saria eta bigarrena eroateko. Horreik biak hemen azkenez ekingo deusie. Eta juraduak erabagia hartuten dauen bitartean, Dindirrikoak dantzan egingo dabe, hemen aurrean.

Dindirriko mutil gazte eta neska galant honeik euren dantzak egin ostean, juraduak emon dauen erabagia esango dot. Azkenerako gelditu dira Azpillaga ta Enbeita. Hona aurrera agertuko dira eta biak burrukan egin beharko dabe, ia nok eroan Bizkaiko txapel handia eta izena. Lehenengo, puntu bina. Erdu hona, mesedez".

Puntua: *Berriotxoia santu  
noz egingo dabe?*

J. Azpillaga: Oingo eginda balego  
askozaz e hobe.  
Bizkaian santuakin  
gera honen probe  
zelan gaude Bizkaiko  
patrorikan gabe?

Puntua: *Saria jasotzeko  
baukazu bihotza?*

J. Azpillaga: Animua emateko  
hori bada hitza.  
Kopa ederra dago  
daukagu bakoitzak  
ta emango diote  
hobia danentzat.

Puntua: *Bertsolari onari  
euskaldunak txalo*

B. Enbeita: Txarrai zetan esan bez  
deitzen deutse malo.  
Ondo egin beharra  
etor dan ezkerro  
zerbait atonduko'gu  
astiro-astiro.

Puntua: *Norentzat izango da  
Aurtengo txapela?*

B. Enbeita: Zuk bakizu naizela  
nahikoa umila.  
Txapela onentzat  
gaur izan dedila  
nahiz dala ezkondua  
nahi izan mutila.

Irigoi: "Orain teman egingo dabe, bosna bertso.  
*Azpillaga izango da andregai diruduna eta motza daukana, eta Enbeita, galanta, baina dirubakoa daukana*".

93

J. Azpillaga

Hau da guretzat halako zaila  
hurren ipini diguna  
usterik gabe ezkontziakin  
etorriko zat fortuna.  
Nere andregai itsusia da  
baina guztiz diruduna  
ederra izanda zertarako det  
doterik ez dadukana.

B. Enbeita

Gauza ederra mundu honetan  
gizonentzat maitasuna  
maitasun horrek emoten deusku  
etxietan poztasuna.  
Andrea barriz galant on arren  
ez badau gura izena  
nahi izan arren ez da ondo hor  
ibili izango gizona.

*J. Azpillaga*

Nere lagunak zer esan duan  
danak dezue aditu  
andregei ona dadukala ta  
barruan ezin kabitu.  
Nik itxusia baino ederki  
Aiga baten paseatu.  
Diru beharrez arkitzen bada  
neri behintzat ez eskatu.

*B. Enbeita*

Diru artian, aiskide maite  
egiten dozu zuk amets  
gaur egunian beste askotxok  
egin ohi daben legez.  
Zuk nahi badezu bizi ni legez  
maitasun ta zorionez  
diruaz barik ezkondu hadi  
maite zaitunaz bihotzez.

94

*J. Azpillaga*

Nere lagunak andrageientzat  
badu arrazoi legunik  
baina guri gaur ezin esan du  
diruen jabea danik.  
Ez da munduan sortu oraindik  
ezta sortuko geroztik  
diru ederra edukitzia  
baino hobekio danik.

*B. Enbeita*

Nere laguna ikusten juat  
diru zaletxu bat dana  
diruagaitik alde batera  
itxiten dau maitasuna.  
Gogoan hartu eik, Azpillaga  
Enbeitak gaur dirautsuna  
ezkonduteko maitasuna da  
Diru lagunik onena.

*J. Azpillaga*

Honen epoka etorri zaten  
dirua du gogotikan  
nere andregeia itxusia da  
ez dago zer esanikan.  
Baina nik ez det bat ikusitzen  
ha baino politaorikan  
diruagatik ez da bakarrik  
maite det bihotzetikan.

*B. Enbeita*

Nere laguna astiro-astiro  
bidia hartuta dua  
lehentxuago hor diruarekin  
egin dau ames gozua.  
Maitasun bila hasi da eta  
neure ustez ondo dua  
honek nahi ditu maitasuna ta  
bigarrentzako dirua.

*J. Azpillaga*

Dirua alde batera hartuta  
ez det saltzen maitasunik  
zuei ez zaizuela gaur ahaztu  
nik esaten ditudanik.  
Nere andregeia laster hartuko  
det emaztetzat hurrendik  
ez da munduan sortu gizonik  
ni ainan biziko danik.

*B. Enbeita*

Gauza erreza da mundu honetan  
neskeri begiratzia  
horren erreza ez da, adiskide  
gustokoa aurkitzia.  
Nahi nukena da andria aurkitu  
nere bihotzen jaubia  
geure bizitzan izan dagigun  
zoriona ta bakia.

Irigoi: "Biak alkarregaz puntura".



*Azp.* Nik andregei itxusia  
ta Enbeitak ona

*Enb.* Hortarakoxe, behintzat  
etorri gara hona.

*Azp.* Nahikoa da nerekin  
daukadan fortuna

*Enb.* Zuretzat motza eta  
nitzat galant ona.

*Enb.* Hainbat mila daukagu  
gaur guri begira

*Azp.* Bertsuak entzutera  
etorriak dira.

*Enb.* Euskaltzaliak behintzat  
dagoz zenbat gura

*Azp.* Pozik egin dezatela  
gaur Bilboko jira.

Irigoien: "Eta honegaz amaitu dabe. Orain, momentu baten, juraduak erabagia hartuko dau, nor dan Bizkaiko txapelduna. Egon zai apurtxo baten. Hartu da erabagia. Bata bestearengandik ez da diferentzi handirik egon. Baina, puntu bategaitik, Enbeitak irabazi dau. Oraintxe bertan, D. Nazario Oleaga Euskaltzaindiko sekretario jaunak emongo deutso kopea eta, gainera, hiru mila pezeta, Bizkaiko Ahorro Kaxearenak, eta txapela ipiniko deutso. (...) Bigarren saria, Bizkaiko Ahorro Kaxearen kopea eta mila pezeta, Azpillaga bertsolari handiari. Eta orain bertso bana botako deutsue agurrezkoa, gainerako bertsolari guztieri mila pezeta bakotxari emonda gero".



Foto Cecilio. Alfonso Irigoienen artxiboa. XDZ

*Luzio Elortza "Arrola", final honetan omendutako bertsolaria,  
Nazario Oleagaren eskutik oroigarria jasotzen, A. Irigoien gai-jartzailea alboan.*

*B. Enbeita*

Aspertu gura ta ezin aspertu  
 bihotza daukat erdi bi  
 hainbeste mila anai-arreba  
 hemen adi ikusirik.  
 Bizkai, Gipuzko, Araba, Napar  
 hemen dira gaur baturik  
 anaitasunik ederrenian  
 alkarraz besarkaturik  
 Ginebran ere ez da izango  
 era hontako batasunik  
 handik bakia egin nahi dabe  
 besterenaz jaubeturik  
 ez dagolako Arenalian  
 dagoan anaitasunik  
 gure bihotzak gainezka dagoz  
 euskeraz dana eginik  
 mundu honetan bakerik ez da  
 bakotxai beria emon barik  
 eta egizko maitasun barik  
 ez dagolako bakerik  
 agur danori jarraitu daigun  
 alkar maite-maite izanik.

*J. Azpillaga*

Bertso honekin bizkaitar danak  
 maitekor ditut agurtzen  
 ta Euskaltzaindiko agintaria  
 bihotzetikan eskertzen.  
 Ikusmen motza euki badegu  
 hasi gerade argitzen  
 ikusten degu euskera dala  
 gure preminan aurkitzen  
 amatasuna deusagulako  
 aspalditikan ukatzen  
 gure Jainkuak emandakua  
 arinka doiala galtzen  
 geure errua ezagaturik  
 lanari goiaz oratzen  
 bide onetik jokatzen  
 gaixo dagona osatzen  
 danok lehenbailehen ikusi daigun  
 gure euskera loratzen.

Irigoien: "Eta beste laurak bana-banaka agurra  
 botako dabe. Ez da berezi lauretatik nor gelditu  
 dan aurrenengo".

*D. Sardui*

Gauza onena momentu hontan  
 dot nik txapela kentzia  
 ta esker beroak Euskaltzaindiai  
 bihotzetik emotia.  
 Gaztiak gera, aurretik dogu  
 oindik bizitza luzia  
 gure buruai txarto ez jatorko  
 hemen guk gaur ikasia  
 bihotzetikan agurtzen joat  
 kanpeoi nere osabia  
 datorren urtez ikusiko'gu  
 zein ete garen hobia.

*B. Pujana*

Bertan txapela jarri deutse ta  
 gehien egin dabenari  
 agur eginda itxi deiogun  
 ekarri dogun lanari.  
 Agur, entzule bihotzekuak  
 lagun eta epaikari  
 agur, abade, fraile guztiak  
 eta agur, bertsolari.  
 Sarri askotan bihotz-bihotzez  
 eskatu goiko Jaunari  
 era hontako egun gozoak  
 bialdu deiskuzan sarri  
 guk euskaldunok bihotz-bihotzez  
 maite deusagu alkarri  
 besarkada bat hartu guztiok  
 maitasunen ezaugarri.

*J. Alberdi*

Gaztetan nintzan ni ere umezurtz  
guraso onak galduta  
geroztik gehiago nere barrena  
hemen dabil urratuta.  
Sarri ta askotan aurkitua naiz  
prezio gabe galduta  
gaur be daroat txoko hontatik  
bihotza erdibituta.

*J. Ormaetxe*

Politikiai erru emanda  
danak erderaz bakarrik  
lotsagarria baino ez da ikusten  
baserrietan besterik.  
Ez al dakie gure euskerak  
ez dauela horren errurik?  
Esan leiteke dagozala gaur  
danak hemen zoraturik.

Irigoien: "Eta honegaz amaitu da gaur Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketea. Datorren urtean, ahaleginak egingo doguz, hirugarrena aurten baino oraindino hobeto egiteko, ia euskerea, Etxepare idazle zaharrak esaten eban legez, plazara ateraten dogun. Eta, beste barik, guztiori agur eta datorren urtera arte."

# 1960ko BIZKAIKO TXAPELKETA



## Laburpena:

- Urte honetako txapelketa be eskualdeka hasi zen, lautan oraingoan.
- Urkiolan, ekainaren 19an, San Antonio egunean, German Uriguen ermuarra txapeldun. Mungian, ekainaren 17an, Ireneo Ajuria muxikarra txapeldun. Markinan, uztailaren 24an, Juan Mugartegi berriatuarra txapeldun. Zeanurin, abuztuaren 14an, Faustino Etxebarria dimarra txapeldun.
- Finalaurrekoa Ondarroan egin zen, abuztuaren 15ean. Juan Mugartegi irabazi eban.
- Finala Bilboko zezen-plazan izan zen, irailaren 11n, eta finalistak honakoak: Juan Mugartegi berriatuarra, Juan Azpillaga ondarroarra, Ireneo Ajuria muxikarra, Jose Alberdi mañariarra, Balendin Enbeita muxikarra, Juan Ormaetxe larrauritarra, Basilio Pujana zeanuritarra eta Deunoro Sardui muxikarra.
- Txapeldun Juan Mugartegi izan zen eta Juan Azpillaga bigarren.
- Epaimahaiko nortzuk izan ziren ez dogu aurkitu.

(Iturria: Bizkaiko Bertsozale Elkarteak ataratako Bizkaiko eskualdeetako bertsolari txapelketak 2000 izeneko prentsa txostena).

1960-V-30ean, Euskaltzaindiko idazkari Nazario Oleagak Bizkaiko Aurrezki Kutxari gutun bat idazten deutso, Bizkaiko hirugarren txapelketaren barri emonez eta laguntasuna eskatuz. Besteren artean, honakoak dinoz:

El pasado año quedamos muy agradecidos por la ayuda que nos prestaron, al dotar los concursos de cinco zonas con dos mil pesetas cada una, además del primer premio de la final de Bilbao con tres mil y una copa.

Al proyectar el III concurso de bersolaris vizcaínos, solicitamos de Vds. que doten este año también los premios de la forma que Vds. crean conveniente. No dudamos que tomarán en consideración la presente cuestión, que a nuestro juicio puede servir, además de la propaganda que puede realizar esa digna Institución, para colaborar en una labor de cultura popular en nuestra provincia que tanto arraigo y tradición tiene".

Alfonso Irigoienek, 1960-VI-08an, Aita Antonio Zabalarri Oñara honako gutuna bialtzen deutso:

Adiskidea:

Bialdu deusut *Euskal-kantak* barria. Erratutxoren batzuk be urten dabe.

Lekunberrin izango da Nafarroako bertsolarien txapelketa, hil honen 26an, arratsaldeko lauretan. Juraduan parte hartu bazinei, idatzi eidazu, nafarrai esan daiedan. Arrue, Irigaray, Bordari-eta be joango dira. Beste txapelketea Elizondon, Santiago egunean izango ei da. Esan neutsun lehen bidajea pagetan deusiela juradukoai.

Lanez beterik nago bolada honetan Euskera barria ateraten, hirurehun orrialde baino gehiagokoa. Las-ter urtengo dau, J. I.

Bizkaiko bertsolarien txapelketea Urkiolan hasiko

dogu astelehenean. Igaz, Bilboko azken txapelketa nagusira joan zireanak ez dabe parte hartuko herrietakoan. Halan da guztiz be, Ondarrun egingo dogu beste txapelketa bat, aurtengo herrietako txapeldun barrien artean eta igazko Bilboko txapelketa nagusira joan zirean lauren artean, ia nor geldituko, aurtengo azken txapelketa nagusirako. Bihoztez, zure, A. Irigoien.

Nazario Oleaga Euskaltzaindiko idazkariak, 1960-V-30ean, Informazino eta Turismora baimen-eske hau egiten dau, derrigorrezkoa den moduan:

Nazario del Oleaga y Muguruza (...), ante V. I. Con el debido respeto digo:

Que la citada Academia proyecta la celebración del III concurso de bersolaris vizcaínos, celebrando actuaciones en los siguientes lugares, de acuerdo con los Ayuntamientos, dentro de los programas de fiestas y con premios y trofeos de los mismos, así como de la Caja de Ahorros Vizcaína: En Urquiola, el día 13 de junio, festividad de San Antonio. En Munguía, el día 19 de junio, festividad de San Pedro. En Marquina, el 17 de julio, fiestas del Carmen. En Yurre, el 14 de agosto, fiestas Andra-Mari. En Ondarroa, el 15 de agosto, fiestas de Andra-Mari. Asimismo se proyecta la celebración de la final en Bilbao, dentro de las fiestas de la villa, el día 28 de agosto, en el kiosko del Arenal. Por todo lo cual:

SOLICITO de V. I. Conceda la autorización necesaria para la celebración de este III concurso de bersolaris vizcaínos. Gracia que espero merecer de V. I., cuya vida guarde Dios muchos años.

1960-VI-08an, Informazino eta Turismo Ministerio Ordezkaritza Probintzialetik Urkiola eta Mungiaiko saioetarako baimena dator.

Egun horretan bertan, Alfonso Irigoienek bertsolarietara hain bialtzen deutse:

Bertsolari maitea:

Datorren astelehenean, San Antonio egunez egingo da, Urkiolan, bertsolarien txapelketa bat, Durango eta inguruko bertsolarien artean. Aurten ez dau parte hartuko Alberdik Urkiolan, igaz, Bilboko azken txapelketa nagusira joan zalako. Urkiolako aurtengo txapelduna eta beste tokietako aurtengo txapeldunak Ondarrun jokatu dabe igaz Bilboko azken txapelketa nagusira heldu zirean lauz, ia nortzuk gelditu aurten Bilborako.

Beraz, San Antonio egunean, hamabietan izango da Urkiolan inguru horretako txapelketa. Joan gura badozu, agertu han. Eta aurrez bota bazinei hona karta bat esanik bazoazala, hobeto.

TERCER CONCURSO DE BERSOLARIS  
VIZCAINOS ORGANIZADO POR LA ACADEMIA DE  
LA LENGUA VASCA.

Izenburu honez, idazki labur bat dator erdaraz, aurreko gutunean lako barria emonez Urkiolako saioaz, eta sariak be izentatuz, honela:

El Ayuntamiento de Abadiano donará una copa al campeón de Urquiola, y la Caja de Ahorros Vizcaína dará los siguientes premios : 1º: setecientas pesetas. 2º: quinientas. 3º: cuatrocientas. 4º: cuatrocientas. Ese día de San Antonio suelen ir muchos romeros al Santuario de Urquiola y tendrán ocasión de asistir a esta competición en que cada bersolari deberá hacer gala de su agudeza e ingenio.

Ondoren, beste erdarazko idazkitxo batek dino:

El lunes, festividad de San Antonio, no se pudo celebrar en Urquiola, a causa del mal tiempo, el concurso comarcal correspondiente a la zona del Duranguesado. Por dicho motivo se celebrará el próximo domingo, día 19, a las 12 del mediodía. Hay gran expectación para ese día. Los premios son ..." (aurreko idazkian zehaztuak).

1960-VII-06an, Euskaltzaindiko idazkari Narazio Oleagak Bizkaiko Informazino eta Turismora baimena eskatzen dau, Mungian, uztailaren 17an, "aplazado del mes pasado", eta Markinan, uztailaren 24an, jagokezen eskualde-txapelketak jokatzeke. Uztailaren 13an, Ordezkaritza Probintziales-tik baimena dator.

1960-VI-27an, Mungiako Udaleko Batzorde Iraunkorrek erabagitzen dau:

Autorizar a la Academia de la Lengua Vasca la celebración de un concurso de 'Bertolaris Vizcaños', lo cual tendrá lugar el día 17 de Julio próximo, a las doce del mediodía, en la Plaza de los Fueros, comprometiéndose el Ayuntamiento a la instalación de un equipo de altavoces y regalando un trofeo para tal fin".

1960-VII-05ean, Balendin Enbeitak gutun hau bialtzen deutso Alfonso Irigoieni.

Adiskide maite:

Datorren domekan, ezin neiteke Goierriara jua, ez nabil ondo. Oizerako konpromiso haundi bat egin da nago, Aita Martzel eta Munitibarko ayuntamentuagaz, baina ez dakit juango nazan; geldi eta lan bage egoteko aginduta nago, zati baten. Lehengo hilaren 26an, Mungian izan ginan, Mugartegi, Alberdi eta ni; 29an, Munitibarren, Sarduy, Iturri, Lopategi eta ni. Hilaren 3an, Zeanurin, Artetxe, Pujana eta Enbeita.

Bertsolarien artean, nortasun ikaragarria sortu da. Mugartegik esan eustan hoba zala sariketarik sortu ez bazan, gorrotoa baino ez dabela sortu ta. Guzurre dala esan legike jazoten dana. Mingaineko euskal zaletasuna eta gizatasunik eza besterik ez dot ikusten. Bide honetatik ez goiaz inora be. Bertsolarien arazuk politikatzat hartuta ikusten dodaz, bai beheko, eta goiko. Harrokeria eta nortasuna gaitzako, zu baino ni gehiago, Euskera goratzeko baino, norberen laguna lurreratzeko,

indar gehiago egiten dogula. Zoritxarra, benetan, jazoten dana. Aurtengo sariketiak ere ondorena itxiko dau. Lehengoak baino usain gehiago itxiko dabela uste dot. Agintariak gogor eta buruz jokatzen ez badabe, bertsolariak alkar arteko anaitasuna galdua izango dabe. Agur eta ikusi arte. Zure lagun *Enbeita*.

Alfonso Irigoienek, 1960-VII-08an, Balendin Enbeitaren gutunari behingoan erantzuten deutso, honela:

Adiskidea:

Hartu dot zurea. Dinozu Goierriara ezin joan zeintezala, ondo ez zabiltzalako. Nahikoa arrazoi da eta ondo da. Baina Oizera konpromiso "handi" bat eginda egotea ez da arrazoia. Goierrikoa ez da konpromiso "handia" ala? Nik uste dot berbeari eutsi egin behar jakola. Hoba da mila bider lehenengotik ezetz argi esatea, gero bidekurutze honeik sortu ez daitezkan. Ta, gainera, lehenengo momentuan ezetz esateko, ez da emon behar arrazoirik. Nahikoa da ezetz huts-hutsik esatea, norbere borondatea halan bada. Goierri, zure izena zabaldu dabe. Halan da guztiz be, dei egin deusiet, esanik gexorik zagozala. Baina ez litzake itxurazkoa izango beste toki batean kantau daizun. Ezin jokatu leiteke karta guztietara batera.

Gero, zure kartan esaten deustazuz gauza batzuk, ezelan be ulertzen ez ditudanak. Bertsolarien alkar arteko anaitasuna, nortasun ikaragarria, mingaineko euskalzaletasuna, gizatasunik eza, bertsolarien arazoa politikatzat hartua, harrokeria ta nortasuna. Eskertuko neuskizu, bihotz-bihotzez, esango bazeunst zer gertetan dan. Bihotzez, *A. Irigoien*

Balendin Enbeitak berehala erantzuten deutso, hil horren 12an, Irigoienek gutun horri, honela:

Adiskide:

Muxikatik Mungiara joango diran bertsolariak honexek dira: Jon Lopategi, Pedro Ortuzar "Iturri" eta Irineo Ajuria.

Zure idazkia domeka goxean hartu neban. Goierri-koagaitik dinostazuna, jakin egizu ez neutsula baiezkorik emon. Oizerako neukala berba emonda, baina izan leitekela Goerrira juatia, neure lagunak Oizera bialduta, eta esango neutsula. Ustia baneukan Goierri horretara juateko, baina, esan neutsun lez, nire osalariak agindu eustan ahal dan gitxian ibilteko. Beraz, San Kristobal egunez, etxian geratu nintzan. Azpillaga izan da? Honek ez deutsu bidekurtzerik eragin?

Beste bertsolarien nortasun, anaitasun eta abar, zer esan nahi dotan jakin nahi dozu. Nik uste dot zuk hori baino gehiago dakizula eta dakian bateri azalpenik emon beharrik ez dago. Ez badakizu zer jazoten dan, jakin erazoko deutsue. Gure Euskera eta herria egiz maite bagenduz, ez litzake ibiliko gaur bertsolari artian dabilen burruka hori. Tamala da jazoten dana. Ez txartzat hartu dirautsudana eta ez zabaltzen ibili. Agur eta nahi dozun arte, *Balentin*.

1960-VII-08an, Irigoienek bertsolariei, Mungian, uztailaren 17an izango den Mungia eta Gernika aldeko kanporaketaren eta sarien barri emonez idazten deutsen gutunean, dino: "Egun horretan, 11:30ean, meza bat izango da, Mungiako Parrokian, Juan Ormaetxeren emaztea izan zanaren alde. Parte hartu gura badozu txapelketan, joan zeintekoz, eta, ahal badozu, aurretik bialdu izena Euskaltzaindi honetara". Egun berean, hilaren 24an, Markinan jokatuko den kanporaketaren barri emonez, eskualde haretako bertsolariei be antzeko gutuna bialtzen deutse.

Ariatzako Kepa Ajuriak berehala erantzuten deuto gutunari, 1960-VII-11n. Kepa Ajuria hau Ireneo Ajuriaren aita da, orduan, Ariatzako Fuenterrabia taberna zeukana, eta letra elegantez eta gutunaren enkoadru txukunean, dino:



Alfonso Irigoienaren artxiboa. XDZ

Bertsolari eta bertsozaleak saio osteko bazkarian. Eserita, ezkerretik, A. Irigoien, J. Mugartegi, Nazario Oleaga, J. Ibarzabal. Eskuman, zutik, B. Pujana.

Adiskide maitea:

Atzo hartu neban zure idazkia, eta bertan ipinten zeustan Mungiko txapelketan parte hartu gura badot, ahalbait lasterren izena Euskaltzaindira bilatzeko. Zure idazkiaz animu apur bat harturik, aita-semeok, Jaungoikoak lagun, igandean Mungian izango gara, 11:30eko mezan, gero txapelketan jokatu teko. Hemen bialtzen deusudaz txapelketarako izen eta abizenak.

Beste barik, bihotz-bihotzez, zure lagun *Ajuria'tar Kepa*.

Txapelketarako izenak: *Ajuria'tar Kepa* eta *Ajuria'tar Ireneo*, 14 urtekoa.

*III Concurso de Bersolaris Vizcaínos Organizado por la Academia de la Lengua Vasca* izenburuz, erdaraz idatzitako kronikatxo honek prentsara bialtzeko egina dirudi. Ez dakar sinadurarik ez hartzailerik, baina argi dago Alfonso Irigoienek idatzia dela.

El domingo se celebró en Marquina el concurso comarcal correspondiente a la zona del Marquinesado. Se presentaron cuatro bersolaris: Juan Mugartegui, de Berriatua; Jaun Ibarzabal, de Ondarroa; Juan Oñederra, de Echevarria; y Anastasio Eguia, de Echevarria. Quedó campeón, despues de una reñidísima competición en que se cantaron bersos de antología, Juan Mugartegui. La diferencia fue mínima y la talla del gran bersolari Ibarzabal no queda a la zaga de Juan Mugartegui, más bien una equiparación entre ambos. Pero las bases del concurso no daban pié para clasificar a los dos para la semifinal de Ondarroa, que se celebrará el día 15 de agosto a la tarde. El campeón recibió ... (sarien barri).

La final de Bilbao se celebrará el día 11 de septiembre, domingo, a las cuatro y media de la tarde, en la plaza da toros. El precio de las localidades oscilará entre dos pesetas la más barata y diez la más cara, habiendo once tipos diferentes. Bien merece la pena oír sentados por una cantidad tan módica, sin tener que estar de pie, como el año pasado, en el Arenal y en Eibar.

1960-VIII-04an, ordezkaritza probintzialak baimena emoten dau, "para celebrar las actuaciones de bersolaris el día 14 de agosto en CEANURI, el día 15 en ONDARROA y el día 17 de agosto en GUERNICA, dentro del III Concurso de Bersolaris Vizcaínos".

El próximo domingo día 14 de agosto, se celebrará en Ceánuri, a las cinco de la tarde, el concurso comarcal correspondiente a la zona de Arratia, Orozco, etc., y el lunes a la tarde, festividad de Andra Mari, la semifinal en Ondarroa. A la semifinal acudirán cuatro bersolaris finalistas del pasado año y cuatro campeones comarcales del presente. De ellos se clasificarán seis para la final de este año, que juntamente con el campeón y subcampeón, hacen en total un número de ocho finalistas. Los premios están donados por la Caja de Ahorros Vizcaína y el Ayuntamiento de Ceánuri y Ondarroa. Asimismo, el día 15, a las once de la mañana, actuarán en Guernica cuatro bersolaris; Alberdi, Ibarzabal, Mugartegui y Ormaeche. Y en Ceánuri, Arteche, Azpillaga, Embeita y Pujana. Como se sabe, la final se celebrará el 11 de septiembre, en la plaza de toros de Bilbao.

Ez hartzaile izenik ez sinadurarik ez dakarren, baina Alfonso Irigoienena izan behar dauen beste orritxo batek, prentsarako eginiko oharra dirudienak, dino:

El domingo se celebró en Ceánuri el concurso comarcal de bersolaris correspondiente a la zona de Arratia, Orozco, etc. Se presentaron cuatro bersolaris, de los cuales quedaron igualados Faustino Echevarría de Dima y Jose María Arteche de Ceánuri, y por sorteo quedó clasificado el primero. El lunes, festividad de la Asunción, se celebró en Ondarroa la semifinal en la que participaron ocho bersolaris, cuatro finalistas del pasado año y cuatro campeones comarcales del presente. Quedaron clasificados seis para la final que se celebrará en Bilbao: Juan Mugartegui y Deunoro Sarduy, primero y segundo



en Ondárroa, e Ireneo Ajuria, José Alberdi, Basilio Pujana y Juan Ormaeche, que con el campeón y subcampeón de Vizcaya Valentín Embeita y Juan Azpillaga hacen en total un número de ocho finalistas para el presente año.

Tanto en Ceánuri como en Ondárroa, los participantes recibieron copas y premios del Ayuntamiento y premios en metálico de la Caja de Ahorros Vizcaína.

Hay gran expectación para la final de Bilbao, que se celebrará el 11 de septiembre a la tarde, en la plaza de toros.

Kontetan gabilzen fase honetan, Alfonso Irigoien-en bertso bitxi batzuk dagoz, orduko giroa eta istiluak azalduz gainera, bere izakera adierazoten dabenak. Bera ez zen antolatzailea bakarrik, bertsozalea baino. Baita bertsoegile ekinkorra be, eta, auziren bat sortzen zenean, ez eban aukerarik galduko, bertsoan defenditzeko, edo erasotzeko, bertso-paper tradizionalen erara.

104

### Lagun bat daukat

1)

Lagun bat daukat herri batian  
itxuraz da aberatsa  
taberna baten jabea da ta  
ez da izango eskasa.  
Kantatutzen du jente aurrian  
jarririkan oso lasa  
baina konforme ezin gelditu  
beretzat ez da erraza.

2)

Joan nintzan ta lagun horrekin  
ondo nuen nik kunplitu  
hala ta bere bere bihotza  
ez da oraindik kupitu.  
Nere arrazoia ez du ontzat hartzen  
nahizta izan bost pulpitu  
kasu gehiago egingo luke  
tripak gosiak balitu.

3)

Bere tabernan jaun ta jabe da  
kaballero baten gisa  
horregatikan ustia dauka  
nagusi dala bere hitza.  
Bostehun pezeta hartzeko harek  
ez dauka batere prisa  
nahiago luke bere etxian  
ura ardua balitza.

4)

Txapelketa bat egin genduan  
nork hobeto esan bertsuak  
harriturikan gelditu ziran  
entzuten juandakuak.  
Baina bi ezin batera izan  
Ondarrun kantatzekuak  
nere laguna biguntzen bada  
hemen daduzka diruak.

5)

Bi bertsolari gertatu ziran  
kopa hartzeko batera  
eta sorteoaz egin genduan  
txapelduna han atera.  
Eskua bota zuen bertara  
gelditu nahirik aurrera  
bigarrena hartu zuelarikan  
hasarre juan zan etxera.

6)

Lagun maitia, ez eizu izan  
barruan gorrotorikan  
pasatuko naiz lehen bezelaxe  
ni zure tabernatikan.  
Ekingo degu bion artian  
kantatutzen bertsorikan  
zure herria eta jentia  
maite det bihotzetikan.

7)

Gure bihotzak ez dira izan  
inoiz marmol ta harriak  
hau gogorrago esango nuke  
ahal balu nere eztarriak.  
Ekinaldia ez du pagatzen  
munduan dagon urriak  
samin gogorra bigunduko du  
bihotzeko Euskal Herriak.

1960-VIII-14. Alfonso Irigoien.

Bertso honeek Zeanuriko kanporaketa izan zen egunaren data bera daroe. Etxera goizegi ez zela erretiratuko pentsatzekoa den batek, sorta hau egun berean egiteko, bazeukan zeozertarako grina eta trebetasuna. Baleiteke geroago eginak izatea, nahiz eta egun horren data ipini, kasua orduantxe gertatu zelako. Bertsolariaren ez herriaren izenik zehazten ez badau be, argi dago, goragoko erdarazko orrian kontatu dauenez, Zeanuriko Jose Maria Artetxez ari dela, Faustino Etxebarriagaz bardin gelditurik, zotz egitea erabagi eta kanporatzea egokitu jakon tabernaria. Hasarrea bizi samarra izango zen, orduan dirua zen bostehun pezetako saria kobretako prisarik ez edukitzeko, bertsoek dinoenez.

Biharamoneko Ondarroako finalerdian be, badirudi denak ez zirela konforme geratu. Alfonso Irigoienek ez eban behar erraza hartu, hasarre gelditzen ziren guztiei bertsoak ateratzen. Hona 1960-VIII-16an datatu zuen sortatxoa, Ondarroako finalerdiaren biharamonean.

### Bertsolari bat adiskide det

1)

Bertsolari bat adiskide det  
berez hasarregarria  
galdutzen badu ezer beretik  
laster jartzen da larria.  
Aspaldi hontan temoso dago  
gogor daukagu jarria  
bertso batzuek paratu dizkat  
bihotza ez det harria.

2)

Ustia zeukan hartzia Ondarrun  
berak bigarren saria  
pena handia sentitu nuen  
ez zan izandu beria.  
Danen aurrian bero-berotan  
kantatu zigun ziria  
neuregatikan libre daduka  
zeruetako atia.

3)

Bertso kantari herririk herri  
aspaldi honetan dabil  
dadukalako Jaunak emana  
mingaina ta agoa habil.  
Baina hasarre jartzen danian  
ditu hamaika maratil  
erabakira sekula ere  
ez da errenditzen umil.

4)

Mundu honetan bizi gerade  
batera txar ta justuak  
eta ezin egin sarri askotan  
jente guztien gustuak.  
Han geundenetan erabakitzen  
asko ez geunden gaiztuak  
bere aldera jarri nintzan ta  
garbitzen ditut eskuak.

5)

Bizitza hontan lagun jartzeko  
daude makina bat bide  
orain artian ibili gera  
bagina legez senide.  
Ni debalde ta bestek kobratu  
askok hori badakite  
bihotzetikan hemen naukazu  
lehen bezela adiskide.

Ondarroan, Mugartegi eta Sardui izan zirela lehenengo-bigarrenak kontatu deusku goragoko orri erdarazkoan. Beste lau be, Ajuria, Alberdi, Pujana eta Ormaetxe, Bilboko finalerako sailkatu ziren, baina honeetariko bat ez zen, antza, sailkatze hutsez konformatu. Egun haretako bigarren saria merezi izan ebala uste eban. Eta, gainera, "danen aurrian bero-berotan kantatu zigun ziria". Lehendik be aurrekari hasarrezkoak bazituenak eta "erabakira sekula ere umil errenditzen ez denak" Ormaetxe izan behar dau, inondik be. 1958an, Balendin Enbeitak jantzi eban Bizkaiko lehenengo txapela berari emon ez eutsielako, zarata garratza atara eban eta bitxia da, orduan epaile egon zen Arestik ateratako erantzun-bertsoetan, bere botoa Ormaetxeren aldekoa izan zela autortu eban moduan, oraingoan, Irigoienek be, bertsolari hasarretia gatxetsi arren, pasadan, beronen aldeko botoa adierazo barik ez dauela izten: "bere alde- jarri nintzan ta garbitzen ditut eskuak".

Finalerdi egun horretako goizean, Gernikan Andra Mari jaiak izanik, Irigoienek bertso saio bat antolatu eban, Ibarzabal, Mugartegi, Alberdi eta Ormaetxegaz. Baita bertso-sorta bat egin be, Gernikako ibileraren barri kontatuz.

### Andra Mariak ailegatuta

1)

Andra Mariak ailegatuta  
izandu ginan Gernikan  
arratsaldian Ondarru aldian  
kantatu zan bertsorikan.  
Arrienian ikusi nuen  
Alberdi ezarririkan  
oso dotore zeguan eta  
bota nion ziririkan.

2)

Jentia gendun bildu plazara  
hortarako da altaboza  
bertso ederrik ezin liteke  
entzun gaberikan goza.  
Ibarzabalek ta Mugartegik  
egin zuten beren hotsa  
Jose Alberdik ta Ormaetxek  
eragin ziguten poza.

3)

Bertsolarien gradurik ez det  
nago haiek baino beherago  
beste gauzetan askok badaki  
oso altuan ez nago.  
Hala ta ere, haien ahotik  
bertsua entzun nahiago  
gauza ederrik munduan bada  
zer dan ikasi lehenago.

4)

Bazkaldutzer a joan ginaden  
morduan danak batera  
mahaigain haretan ez zan ageri  
inon hutsikan platera.  
Goiz hasi ginan eta ordua  
zihoakigun aurrera  
toki egiteko bota gintuzten  
kafe bagerik kalera.

- 5)  
Berotu ginan hori entzunda  
egin genduan protesta  
esan ziguten egun haretan  
Gernikan zutela festa.  
Baina bestetan sekula ere  
inor bota egiten ezta  
mundua dago diru ametsez  
aspaldi jotzen tronpeta.
- 6)  
Beste tokira joan ginan ta  
genduan kafia hartu  
umorerikan galdu gaberik  
guztiak ginan alkartu.  
Bertsotan beti amairik gabe  
gutarrak kemena badu  
bertsolaririk baldin badago  
ez du hobia pasatu.
- 7)  
Arratsaldeko lehenengo orduan  
atera ginan kotxian  
kamino danak igarri gabe  
gelditu ziran atzian.  
Txapelketia Ondarruan zan  
egiteko justizian  
jentez beterik zeguan plaza  
bertsolarien grazian.
- 8)  
Olalde ere han ageri zan  
erraturikan joanik  
goizian goizik Mungiatikan  
Gernikara aterarik.  
Gure Ormaetxek kotxia zeukan  
lagunarentzat dubarik  
baina etxerako, uste zuenez  
ez zuen izandu planik.

- 9)  
Gernikatikan Ondarruara  
aldatu zan motorrian  
ez dakit, baina alde batetik  
zerbait umore txarrian.  
Bertsozalea benetan da ta  
bestetik oso ederrian  
emazteakin bere etxian  
jarriko zan hasarrian.

- 10)  
Ez da izaten segurukua  
jartzia inoren pentzura  
horregatikan gure laguna  
jun zitzaigun Ondarrura.  
Ondo dakigu han izan zala  
entzuten oso gustura  
hurrengo jua dana utzita  
aurretik zure kontura.

- 11)  
Jan eta edan patxadan egin  
bertsotan ondo gabiltza  
aurkitu degu nola pasatu  
jai egunetako giltza.  
astegunez lan nolabait egin  
igandez kantatu hitza  
osasun ona dan bitartian  
ez degu txarra bizitza.

01. **Arrienian:** Arrienenean, Arrien jatetxe  
entzutetsuan.  
10. **Inoren pentzura:** inoren gorabeheran,  
ardurapean.

Hasarreak txapel eta sarietatik aparte be baziren,  
antza. Irigoienek bertso honeetan aitatzen eta ziri-  
katzen dauen Eusebio Olalde larrauritarrak be,  
Ormaetxeren herikideak, aurkitu eban asasketako  
motiboa, Irigoieni erantzuteko atxakian, berari  
egun horretan gertaturiko kasua kontetan dauen  
bertsootan agiri danez.

**Irigoeneri bueltak**

1)

Bertso batzuek jarriko ditut  
ta jaiegun arratsaldez  
neri zer pasatu jaten aurten  
Andra Mari zan egunez.  
Gernikara jua nahi izan nuan  
goizetikan autobusez  
egun haretan niretzat ziran  
gauza guztiak aldrebes.

2)

Autobusikan ez zeguan da  
Ormaetxe bilatu nuan  
enkargutxu bat Gernikatikan  
aber egingo al zuan.  
Alkarregaz gu beti gabiltza  
bizitza honetan teman  
neri mesede bat egiteko  
sekula be ez da izan.

3)

Enkargurikan ez zuan ein nahi  
eskatuatik mesedez  
haregatikan bete nintzan ni  
momentu hatan hasarrez.  
Eta bera ogera sartu zan  
esanda nago logurez  
mezea bere entzungo neutsan  
esan baleusta bere ordez.

4)

Mungiatikan hamarretako  
egin genduan guk alde  
txoferra eta biak aurrian  
ta ni atzian aparte.  
Estankoan erosi neutsan  
bi zigarro pakete  
Gernika arte ni jua nintzan  
Ormaetxen zerbitzaile.

5)

Esan neutsan nik sartu orduko  
txofer horretxei kotxera  
aber ekarriko al ninduan  
Gernikatikan atzera.  
Erantzun ziran sartzeko eta  
"segiran gatoz atzera"  
Alberdirekin apurtu zuan  
Mungian ein zan papela.

6)

Heldu orduko gure Alberdik  
egiten dautso galdera  
kotxiarekin juango al zan  
arratsaldez Ondarrura.  
Zer egin eban jakin orduko  
dana arreglatuko zala  
baina zan gero Olaldentzako  
kotxian lekua falta.

7)

Txoferra da bat, Ormaetxe bi  
Alberdi hiru, Alfonso lau  
danen artian bakar-bakarrik  
Gernika erdian hemen nau.  
Ez Ondarrura ez Mungira ni  
eruan barik laga nau  
horrelako gizonari nik be  
ezin neskio ezer pagau.

8)

Inon pentzura jua nintzala  
jarri dozu zuk papelan  
inon kontura bizitekua  
sekula be ez naz izan.  
Mundu honetan bizi ahalikan  
beharrarekin pobrezan  
esandako modura ein bazan  
dana pagatuko neutsan.

9)  
Lauko-Laukuan juan nitzan da  
ta etorri berriz Bespan  
etxera heldu nintzenerako  
ordu berandu izan zan.  
Eta nere emaztea bera  
agirika han hasi zan  
arrazoi danak berak zituan  
ta nik ezer ezin esan.

11)  
Hurrengorako ikasi daigun  
ddiskideak alkartzen  
eta Gernikan eta Mungian  
akeita bana legortzen.  
Maitasunean alkartuteak  
Kriston legean bizitzen  
bata besteen huts egiteak  
alde batera utzitzen.

07. **Hemen nau:** hemen nago.

**Ezin neskio:** ezin neikio, niezaioke.

08. **Inon pentzura:** inoren lepotik, bizkarretik.

09. **Lauko-laukuan:** "cuatro-cuatro" esaten  
jakon kotxe txiki bat, lehenengoetarikoa.

**Bespa:** Vespa markako motorra.

Alfonso Irigoienek Olalderen bertso honeei bere-  
hala erantzuten deutse, labur bada be:

### Olalderi

1)  
Hartuak ditut zure bertsuak  
ta bertan dezuna esan  
erantzun labur bat botako det  
egina guztiz noblezan.  
Biok gerade aspaldi hontan  
bizi etxean pobrezan  
baina Ormaetxekin zure lagun hau  
Ondarrura juan ez zan.

2)  
Hasi zerade erantzuten da  
zerbait badezu erratu  
urduri zaude, baina oraindik  
ez zaitut gaizki tratatu.  
Eta egin badet, lagun bezela  
oraindanikan parkatu  
Josafateko zelai santuan  
egingo gera juntatu.

02. **Erratu:** huts egin, oker egon.

1960ko irailaren 11ko Bizkaiko hirugarren txapel-  
keta aurretxoan, erdarazko orri bat agiri da, Alfon-  
so Irigoienek prentsarako, hitzaldiren baterako,  
edo erakunde laguntzaileei argibide eta estimulu-  
tzat idatzia. Hemen emotea merezi dauela uste  
dogu, Irigoienek bertsoaritzaz zelan karakterizetan  
eta orduko unean zelan kokatzen dauen ikusteko.

### QUE ES EL VERSOLARISMO?

¿Qué es el versolarismo? Llamamos versolarismo a un género de literatura popular que tiene vigencia en la actualidad en toda la zona de habla vasca. Tiene una forma de manifestación típica en la pugna entre dos versolaris que improvisan sus versos, contestándose mutuamente. Estos pugilatos suelen caracterizarse por una gran dosis de ironía y humor, y por una gran finura en el decir. También se suele manifestar en la publicación de hojas sueltas con versos sobre algún tema sobresaliente y destacado en la vida popular, en los cuales tampoco suele faltar el buen humor. También suele darse cierto lirismo.

Versolaris de siempre. Ha habido versolaris que aun hoy día viven en la memoria de los "versozales", a pesar de haber transcurrido bastante tiempo de su muerte. Los versos que entonces hicieron época viven aún en la mente popular con pujanza, como en otras zonas del País Vasco viven otros géneros populares. Podemos destacar como versolaris de gran talla a los siguientes: Txirrita, Xenpelar, Pello

Mari Otaño, Bilintx, Iturrino, Zabaleta, Pedro Enbeita, etc., etc., e infinidad de ellos más. Podría hacerse una gran legión con los nombres que conocemos y con los que no conocemos, pues entre los antiguos hay muchos que han compuesto versos que en la actualidad tienen gran vida popular, sin que conozcamos sus nombres. Puede decirse que la vida de estos versos cantados se distingue por las variantes que en el transcurso del tiempo suelen producirse en torno a un mismo tema original, en los cuales se pierde la noción de autor.

Versolaris de hoy. Hoy, sobre todo, después de la guerra, el versolarismo está adquiriendo una gran pujanza. Quizá los prejuicios puristas respecto a la lengua vasca de mucha gente de la clase culta, los cuales están desapareciendo rápidamente, impidieron antes el desarrollo natural a este género de literatura popular, arrinconándolo como cosa de gente menos culta. No obstante, como llevaba dentro de sí una fuerza natural, siempre siguió cumpliendo una función social entre la gente euskaldun. En la actualidad, podemos destacar como versolaris de gran talla a: Basarri, Uztapide, Michelena, Lasarte, Lizaso, Zepai y otros más, guipuzcoanos. Azpillaga, Enbeita, Mugartegi, Alberdi, Pujana, Ormaetxe y otros más, vizcaínos. Entre los vasco-franceses destacan Mattin y Xalbador. En Navarra han comenzado ahora a impulsar a estos bardos populares y pueden citarse a Narvarte, Perurena y Madariaga. En Vizcaya es el tercer concurso el que va a celebrarse el 11 de septiembre, en la plaza de toros. Durante los dos años anteriores, quedó campeón Balentín Embeita. Se proyecta celebrar en Fuenterrabía un concurso de todo el País Vasco, entre los mejores versolaris de cada provincia, incluidos los vasco-franceses. En principio, está pensada la fecha el 9 de septiembre. En Navarra también están celebrando un concurso navarro, y dentro de este mes tendrán la final en Lesaca, y en ella se proclamarán, como en Vizcaya, el campeón y subcampeón, los cuales participarán en el concurso final del País Vasco.

1960-VIII-20an. Alfonso Irigoienek Nazario Oleagari gutun labur batean dinotso:

Emon deuskue baimena, bertsolarien azken txapelketa nagusia zezen-plazan egiteko. Telefonoz berba egin dot horren ardurea daukan jaunagaz eta astelehenean joan neintekeala bila esan deust, ontzat hartuta dagoela-ta. Bide batez, mesede bat eskatu deust, ia zelan esaten dan euskeraz "bienvenido". Ingalaterratik egin ei deutsie itaun hori, berba hori hizkuntza askotan zelan esaten dan jakin gura dabelako. "Ongi etorri" erantzun deusatz, etxe askotako sarreran iminten dan usura. Bihotzez, A. Irigoien.

Komunikabideetara bialtzekoa dirudien beste erdarazko orritxo batek finalerako propaganda eta giro-berotzea dau helburu:

GRAN FINAL DE BERSOLARIS VIZCAINOS EN LA PLAZA DE TOROS DE BILBAO

El próximo domingo, 11 de septiembre, a las cuatro y media de la tarde, se celebrará en la Plaza de Toros de Bilbao, la final del III Concurso de bersolaris vizcaínos, que la Academia de la Lengua Vasca ha organizado. En ella tomarán parte los ocho bersolaris clasificados: Embeita, Azpillaga, Ajuria, Alberdi, Mugartegi, Ormaeche, Pujana y Sarduy. De entre ellos saldrá el campeón y subcampeón vizcaínos del presente año, los cuales quedarán clasificados para una competición entre bersolaris de todo el País Vasco. Existe gran expectación para esta final vizcaína, ya que la calidad del bertsolario va mejorando notablemente y la lucha por el primer puesto se presenta muy reñida. Los temas de los bersos que en el momento de la competición se impondrán por sorteo se mantienen en riguroso secreto. Los precios de las localidades oscilan entre dos y diez pesetas y pueden adquirirse éstas en la Academia (Ribera, 6, BILBAO) o en las taquillas de la Plaza de Toros.

Irail honen bian, Azpillagari gutun hauxe bialtzen deutso Ondarroara:

Adiskidea: datorren eguaztenean, irailaren 7an, eguerdiko 12etan, Radio Bilbaon hartu gura dabe alkarrizketa bat, barikuan emoteko, domekako txapelketea dala-ta. Esan deustie bertsolariren bat be etorriko balitz, egoki izango litzakeala. Zuri eta Enbeitari bialtzen deusuet deia, etorri gura bazendue, etorri zaitezieran. Bihotzez, A. Irigoien.

Azkenik, finala jokatu zen, pentsatutako moduan, eta Alfonso Irigoienek komunikabideetara bialtzeko egina dirudien kronika hauxe idatzi eban erdaraz:

EL DOMINGO SE CELEBRO LA FINAL DEL  
III CONCURSO DE BERSOLARIS VIZCAINOS  
EN BILBAO

El domingo se celebró en la plaza de Toros de Bilbao, ante numerosísimo público y con notable éxito, la final del III Concurso de Bersolaris Vizcaínos, organizado por la Academia de la Lengua Vasca. Participaron los ocho bersolaris clasificados. Quedó campeón Juan Mugartegi, de Berriatua, y subcampeón, Juan Azpillaga de Ondárroa, los cuales recibieron la copa de la Excm. Diputación de Vizcaya y de la Caja de Ahorros Vizcaína respectivamente, además de premios en metálico de la citada institución de ahorro. Los ocho bersolaris participantes tuvieron grandes aciertos y el público siguió con suma atención las improvisaciones de todos. Los restantes participantes fueron: Ajuria, Alberdi, Embeita, Ormaeche, Pujana y Sarduy (...). Es de notar el gran impulso que va adquiriendo este género de literatura popular en el País Vasco. La Academia de la Lengua Vasca agradece vivamente (...).

Txapelketa honetako finaletik geratu jakun (edo aurkitu dogun) bertsozko lekukotza bakarra Mugartegik eta Azpillagak egindako saio bat da, handik egun batzuetara, bertso-paper modura zabaldu zena, dudarik barik, Alfonso Irigoien

burutapena eta egintza. Orduan hamazortzi urte neukazala, final haretan egon izana ez daukat ahaztuta, Enaz banaz-en kontetan dodanez, ezta bertso-paper hau gurera zelan heldu zen be. Gure aitak hamaika bider kantetan zituen, etxean eta edonon, buruz ikasita, neskazahar-mutilzaharren bertsook.

### Bertso berriak

*"Mutilzaharra eta neskazaharra. Juan Azpillaga mutilzaharra, Juan Mugartegi neskazaharra"*

#### J. Azpillaga

Urte batzuek pasa ezker  
ez da izaten lotsarik  
gaurko kaleak ikusten dira  
neskaharrakin beterik.  
Itxura danez ez dadukate  
lehenako zaharren legerik  
zer darabiltzu sasoi horretan  
gona motz-motzak jantzirik?

#### J. Mugartegi

Atzerritikan moda berriak  
ekartzen ditugu herrira  
ta mutil zaharrak engainatzeko  
kontuak hauexek dira.  
Ikusten ditut oso zahartuak  
dotore jantzitzen dira  
horregatikan zu beti zabiltz  
neri atzetik begira.

#### J. Azpillaga

Begiratzeak kunplitutzen du  
mutilzahar on baten gala  
zuk badakizu zuek baino askoz  
orrauaguak gerala.  
Ta neskazaharrak hortxe dabilta  
zer egin ez dakitela  
hauts ta pinturan gastatzen dute  
aste guztiko jorñala.



*J. Mugartegi*

Mutilzahar honek tentatutzen nau  
sarritan ames gozotan  
honenbesteko trasterik ez da  
sortu neronen auzotan.  
Oker zabilta nere ondoren  
egin dituzun pausotan  
zu baino askoz gaztiaguak  
ibiltzen ditut besotan.

*J. Azpillaga*

Gezur batzuek esanda hemen  
mutilzaharra nahi engaina  
gaztetutzen da pintaturikan  
atzazkal eta ezpaina.  
Ez daki nora pausua bota  
hain jarritzen da apaina  
berandu samar akordatu da  
oindik ederra da baina.

112

*J. Mugartegi*

Zahartuta gero ez da izaten  
horretan ilusiorik  
apaindutzeko nik ez det hartu  
sekula afiziorik.  
Lehen ederra dan batek ez dauka  
ondutzeko desiorik  
mutilzahar honek besterik ez du  
holako desafiorik.

*J. Azpillaga*

Lehenago ez zan horrelakua  
mudatu da azkenian  
gabaz kalera ateratzeko  
preparatu egunian.  
Denbora gutxi pasatutzen du  
bere etxeko lanian.  
Gure herrian zelako festak  
hau ezkondutzen danian!

*J. Mugartegi*

Gazte ginala ibili ginan  
ezkondutzeko asmotan  
orain halako gauzarik ez det  
inoiz neronen gogotan.  
Mutilzahar hauek sinistu danok  
oker dabilzala hortan  
ni ez nintzake zugaz egingo  
gaizki bizi izatekotan.

*Azp.-* Lehen gazteak ginan  
zahartuak gerade

*Mug.-* Oraindik ez daukagu  
hainbeste erade.

*Azp.-* Baina gera estimazi-  
o larregi gabe

*Mug.-* Bakarrik bizitzia  
degu askoz hobe.

*Mug.-* Inoiz izandu ditut  
ezkontzeko deiak

*Azp.-* Baina beste batera  
buelatu begiak.

*Mug.-* Hortan ez dira izango  
inoiz gure jaiak

*Azp.-* Lehen ez zan, baina edertu  
du hau pinturiak.

1960-X-29an, Alfonso Irigoienek Aita Antonio Zabalari, Gandiara (Valentzia), honako gutuna idazten deutso, esanez:

Adiskidea: hartu dot zure karte, hil honen 26koa. Saiatuko naz ia suskitorre gehiago lortzen dan Auspoa-rako. Ia, azkenean, zorionean jaioten dan. Bizkaiko bertsolarien txapelketan, Mugartegi Berriatua gelditu zan txapeldun, eta bigarren, Azpillaga Ondarrukoa. Besteai ez jaken gradurik izentau. Nafarroan, Andres Narvarte Goizuetakoa txapeldun, eta bigarren, Juan Perurena Arizkungoa. San Tomasetan, Donostian egingo da Euskal Herri osoko txapelketea. Basarrik be parte hartuko dau bertan

eta txapela arriskuan imini behar izango dau. Bizkaitar biak eta nafar biak be parte hartuko dabe, eta baita Mattin eta Xalbador beste aldekoak be. Uztapide ta Michelena Eibarren lehenengo ta bigarren gelditu zireanak joango dira Gipuzkoaren ize-nean. Guzti horretatik aparte, zemendiaren 27an, Bilbon egingo da desafio bat, adiskide gisan, bizkaitar bien eta nafar bien artean. Bide batez, saiatu egingo dira, San Tomasak heldu baino lehen. Donostiakoa gogorra izango da. Zure zerbitzuan gelditzen naz. *A. Irigoyen.*

Azkenik, aurreko urtean be egina ebanez, 1960-VII-30ean, Galdakaoko Udalera bialdutako gutun bategaz amaituko dogu urtea, non ikusten den zelan Alfonso Irigoienek (eta orduko Euskaltzaindiak, jakina), txapelketaren sonaz baliaturik, bertolaritza beste plaza batzuetara zabaltzea sustatzen eban.

Ayuntamiento de Galdácano

Nuy Srs. Nuestros:

Este año, esta Academia está celebrando con notable éxito el III Concurso de Bersolaris Vizcaínos. Comoquiera que se acercan las fiestas de esa localidad, nos permitimos ofrecerles a Vds., por si les interesa incluir en el programa de fiestas la actuación de algunos bersolaris. El presupuesto ascendería a cuatrocientas pesetas a cada bersolari, además de la comida. Podrían actuar, por ejemplo, cuatro bersolaris. Pero, si Vds. lo desearan, podrían ser más o menos. Es necesaria la instalación de altavoces y micrófono.

En espera de sus gratas noticias, les saludamos atte.  
*A. Irigoyen.*

# 1961eko BIZKAIKO TXAPELKETA



## Laburpena:

- Urkiolan, ekainaren 13an, Frantzisko Mandiola ermuarra txapeldun. Mungian, uztailaren 16an, Jon Lopategi muxikarra txapeldun. Markinan, uztailaren 18an, Juan Ibarzabal markinarra txapeldun. Igorren, abuztuaren 15ean, Jesus Urrutia dimarra txapeldun.
- Finalaurrekoa Gernikan izan zen, abuztuaren 21ean. Txapeldun, Deunoro Sardui muxikarra.
- Finala Bilboko Capitol zineman izan zen, abuztuaren 27an, finalistak zirela: Juan Mugartegi berriatuarra, Juan Azpillaga berriatuarra, Balendin Enbeita muxikarra, Ireneo Ajuria muxikarra, Juan Ormaetxe larrauritarra, Jose Alberdi mañariarra, Deunoro Sardui muxikarra eta Juan Ibarzabal markinarra.
- Jon Azpillaga izan zen txapeldun eta Deunoro Sardui, bigarren.
- Epaimahaian nortzuk egon ziren ez dogu aurkitu.

(Iturria: Bizkaiko Bertsozale Elkarteak ateratako Bizkaiko eskualdeetako bertsolari txapelketak 2000 izeneko prentsa txostena).

Urte honetako txapelketatik, ez da dokumentu larregi gelditu Alfonso Irigoienaren artxiboan, baina, zorionez, oraingoan, finaleko bertsoak be asko dagoz jasota. 1959ko final osotik eta urte honetako ia osotik, ikuspegi konpleto samarra atera geinke, Bizkaiko bertsolaritzaren abialdi gor-

puztu haren antz bat edukitzeko, nahiz eta, beste urteetatik, ia bertsorik bat be gelditu ez. Txapelketa honetako nobedade nagusietariko bat Ireneo Ajuria izango zen, duda barik, 1946. urteko otsailaren 10ean jaiorik, oraindino mutikoa zena.

Aurreko urteetan, dokumentu asko (baimen-eskeak, erdarazko kronikak eta abar) hitzez hitz emon doguz, garaiaren lekukotza era adierazgarriagoan emoten ebela pentsaturik. Horrelakoak, urte honetan eta hurrengoetan be, antzera errepikatzen direnez gero, aurrerantzean era indirektoan aita-tuko doguz, hareetatik behar dan informazioa geure erara emonez.

1961eko maiatzaren 15ean, Euskaltzaindiko idazkari Nazario Oleagak Bizkaiko Aurrezki Kutxara gutun bat idazten dau, aurreko urteetan legez, Bizkaiko IV. Bertsolari Txapelketa Nagusirako laguntasunak eskatuz eta txapelketaren egituraren barri emonez. Bertan dinonez, bost eskualdetako kanporaketak aurreikusten ditue, bost herri ezbar-dinetan: "Urkiolan, ekainaren 13an, San Antonio egunean. Lekeition, ekainaren 29an, San Pedro egunean. Mungian, uztailaren 2an, San Pedro jaie-tako egitarauaren barruan. Igorren, abuztuaren 15ean, Andra Mari egunean. Gernikan, abuztuaren 17an, San Roketxu egunean".

Gero, plangintza definitiboan, bost herriok lautan geldituko ziren eta egunak be ez ziren hasieran

pentsatuak izan. 1961-VII-13an, Bilboko egunkari *La Gaceta del Norte*-k kronika bat argitaratu eban, titular eta azpitiular honeekin: “*IV campeonato de versolaris vizcaínos organizado por la Academia de la Lengua Vasca* - El domingo, en Munguía, y el martes, en Marquina, concursos comarcales”.

Artikulu honek dakarrena, hitzez hitz, Alfonso Irigoienen orri batek dinona da. *El Correo Español* egunkariak informazino bardintsua emoten dau, egun bi lehenago, baina ez hitzez hitz, bere erara egokituta baino. Horrek esan gura dau Irigoienek artikulu egina bialdu ebala komunikabideetara eta *Gaceta*-k errazena eta, beharbada, seguruen egin ebala. Orduan eta orain be, lana eginda emonez gero, arrisku handiagoa dago, jaramon egin daien.

Artikulu horretan dino, Mungian, uztailaren 16ko 12:00etan, eta Markinan, uztailaren 18ko 11:45ean izango direla saioak. Txapeldunari 700 pezeta eta bigarrenari 500 pezeta emongo jakez. Hirugarrenari, 300 pezeta, eta laugarren-bosgarrenei, 250na. “Bizkaia lau eskualdetan banatua izan da -dino erdaraz artikuluak-. San Antonio egunean, Durangaldeari jagokon lehiaketa Urkiolan jokatu zen eta Mallabiako Frantzisko Mandiola gelditu zen txapeldun. Abuztuaren 15ean, Andra Mari egunean, Igorren izango da Arratia, Orozko eta abarri jagokona. Lau eskualdeetako txapeldunek, gehi igazko finalean, Bilboko zezen-plazan, parte hartu eben eta txapeldun edo txapeldunorde gelditu ez ziren seirek Gernikako finalerdia jokatu dabe, abuztuaren 21ean, astelehenean, arratsaldeko 16:30ean. Handik, sei bertsolari sailkatuko dira, Mugartegi txapeldunagaz eta Azpillaga txapeldunordeagaz, 1961eko titulua Bilbon jokatu dabenak”.

Euskaltzaindiko idazkari Nazario Oleagak, Informazino eta Turismoaren Bizkaiko Ordezkaritzara eskatzen dauen baimenean, eskualdeko saioen

non-noizez gainera, finala Bilboko Capitol zine-man izango dela dino, abuztuaren 27ko 10:30ean.

Aurreko urteetan legez, oraingoan be, Alfonso Irigoienek bertsolari bakotxari gutun bana bialtzen eutsan (*bertsolari bihotzekoa: bagilaren 13an, San Antonio egunez, Urkiolan hasiko da...eta abar*), non, noiz, zer sari eta, aurrerako sailkatuz gero, hurrengo non eta zelan izango zen barri emonez. Kanporaketak jokatu ziren herrietako udaletxeetara be bardin idatziko eban, honeetara erderaz, zego-zozan xehetasunak eta eskariak eginez. Mungiako kasuan, hango Andoni Cayerori, bertsozale eta udaletxean zerikusia zeukanari, honela idatzi eutsan:

Nire adiskide hori:

Ze barri dago bertsolarien txapelketaren asuntoan? Bota neutsan karteak alkateari. Datorren hileko 2an edo 16an egiteko eskatzen zan. Altabozak eta kopea Ayuntamentuaren kontura. Bosgarren saritik aurrerakoak be aipatzen zirean, baina ez dakit euren kontura hartuko dituezan ala ez. Berrehun eta berrogeta hamar pezeta dira datorren bakotxagaitik, baldin bost baino gehiago badatoz. Kopan imini behar da: Ayuntamiento de Munguía. Bizkaiko Bertsolarien Laugarren Txapelketea. Mungian txapeldun. 1961eko garagarriaren 16an (edo egingo dan eguna). Bihotzez, zure A. *Irigoyen*.

Lehenengo bosten diru sariak Bizkaiko Aurrezki Kutxaren kontura zihoazen eta, gehienez, nekez izaten ziren gehiago, baina urte honetan, Mungian, zazpi aurkeztu ziren, uztailaren 16an. Handik hamar egunera, Irigoienek honela idazten deutso Mungiako alkateari:

Muy Sr. nuestro:

Como sabe usted, el día 16 se celebró (...). Cantaron, sin embargo, siete bersolaris. Y a los dos restantes les fueron abonadas doscientas cincuenta pesetas a cada uno, que en total suman quinientas pesetas, y que, según conversación sostenida con el

Sr. Cayero, corren a cargo del Ayuntamiento. Les agradeceremos nos confirmen esta cuestión para hacer efectiva dicha cantidad, la cual fue abonada en el concurso celebrado. Esperando sus noticias y muy agradecidos por la colaboración prestada, lo mismo este año que en los anteriores, le saludamos atentamente, A. Irigoien.



Luis Baraiazarra

## BAT-BATEKO BERTSOA

"Horrek holan ez dau balio; bertsoa bota egin behar da, bota!" esan ei eutsan A. Emiliano euskal idazle eta musikari karmeldarrari gizon zahartxu batek, harek paperetik bertso jarriak kantatu ostean.

Bertsogintzan ez da adierazten bertsoa bat-batekoa ala jarria dan; bertsolaritza, ostera, bere izaeraz eta definizioz bat-bateko jarduera da.

Bat-bateko izate horrek, beste barik, ez dau sortzen entzulearen mirespena, bat-batean emaitza ona lortzeak baino. Alkarren arteko lehiaren eta espiritu ernearen emaitza artistikoa da bat-bateko bertsoa, xumea bada be. Bestalde, ez da inspirazioaren miraria, aurreko lan isilaren emaitza baino; hau da, bakarreko gogoetaren, norbera bakarrik lekuko dala nahiz beste batzuen aurrean eginiko hamaikatxu proba eta trebatze-ariketaren emaitza.

Bertsoa konposizio osoa da, autonomia. Halan be, hainbat osagairen gainean eregia izan ohi da. Ondo biribildua, koska nabarmenik bakoa eta egoki giltzatu izan behar dau.

Aurreko faseak, saioak, probak, hasi barrien pauso traketuak ez gaitue liluratzen, baina behar-beharrezko baldintza dira horreek, gero konposizio duina, artistikoa lortzeko.

Urte honetan, txapelketaren egikerari buruzko eztabaida bitxi bat sortu zen, epaile egiten eban Aita Martzel Andrinuak, 1961-V-22an, idatzitako gutun batean agiri denez.

Bertsolaria, mikrofono aurrean, bakar-bakarrik da bere mezu eta hitzarekin. Alperrik izango dau jendetza ikaragarria entzule. Berak bakarrik egin behar deuta aurre desafio hari. Horrek arrisku-sentimendua eragiten dau bertsolari ez dan entzuleengan eta, une haretatik ondo urten balegi, mirespena. Arriskuaren larria eta garaipenaren poza ia une berean izango ditu. Hatxean gora doan eskalatzaila jatort gogora. Bertsoaren sokatik eskegita hitzaren horman gora doala ikusten dot bertsolaria. Amildegia beti be hantxe azpian dau, baina ziur doa tontorrerantz, hitzeko jolas honetan dauan trebetasunean fidaturik.

Eztia egiteko gaitasuna erleak bakarrik dau; baina ezta gozoa da eta haren inguruan batzen dira euli, inurri eta beste zomorro asko. Bertsoaren esparruan be halako zer bait gertatzen da: arte honek erakarririk, jende ugari batzen da. Zorionez, esango neuke, bertsolariak nahitaezkoa dau-eta entzuleen eta bertsozaleen babes. Kontua da, bertsolariak baino gehiago garela bertsozaleak, bertsoaren eta bertsolarien inguru-minguru zertan edo haretan gabiltzanak: bertso-jartzaile, gai horretaz ikerketak eta gogoetak egiten, gai-jartzaile, epaile, entzule soil... Nik be multzo handi horretakotzat dot neure burua eta gogoetatxu honekin etorri nahi izan dot gaur maite dodan txokora.

Eubatik. Irigoendar Alpontxo jaun argi, ene adiskide horri:

Egunak dira, zugaz egon gura izan dodala. Baina, ez telefonoz, ez berbaz, ezin izan dot. Gaur nator-tzu kartaz. Eta, jakina, bertsolarien txapelketa horreik zuzenduteko asmoz da. Lehengo baten egon nintzan euretariko bategaz eta askoren artean zabaldua dagon eritxi hauxe azaldu eustan: bertsolari guztiak leku guztietan parte hartu behar leukiela. Esate baterako: datorren 13an, Urkiolan, Bizkaiko guztiak. Epaikariak ez leukie emongo bako-txian bako-keko erabagirik, ezta saririk be. Gainera, erabagi horreik zuzenagoak izango lirake, bako-txian bertan hartutako notaz gainera, hurrengo egun baten barriren barri alkartu eta, magnetofonoaren laguntasunez, zerbait zuzendu beharrik bada, zuzenduaz. Eta, ekitaldi guztia amaitutakoan, bertsolari bako-kearen osoko notia atera. Holan, azkenera orduko, nagusi txapel-duna agertuko litzake berez eta inortxok be ez leuke izango zeresanik. Agirikoa danez, batek, nahizta onena izan, izan leikez egun onak eta txarrak, eta bardin txarra danak be. Ez dot uste bertsolarietatik inork jokabide hau txarto hartuko leukenik. Eta zuk zer deritxozu? Ontzat hartu ezkeroz, lehenbailehen erabagia hartu beharra da. Azaldu dautsudan bide honek be badi-tu bere eragozpen, alderdi eskastxoak. Horretara, bat edo bat baztartuta geratuko litzake, bildurrez edo... Eta, batera egiteko, beharbada, bertsolari gehiago... Goiz eta arratsalde ipini beharko. Holan, bako-kearen jente gehiago batuko litzake, eta bertsolariak alkarri entzunda, hobeto geratu be bai. Behin baino ez bada be, holan egin behar gendukela uste dot nik. Zuk ikusi. *Aita Martzel.*

Alfonso Irigoienek berehala erantzuten deustogutun honi, era honetara:

Nire adiskide hori:

Hartu dot atzoko zure karte. Dinostazunaren gainean, Enbeitak ekin eustan Euban. Harek gura leuke parte hartzen dauen bertsolari bako-ke beste

guztiakaz bana-banaka probetea, erabagia emon orduko. Horretara, igaz Bilbon kantau eben zortzi bertsolariak hartuko bagenduz, alkarren artean probau daitezcan, hogeta zortzi ekitaldi beharko leukiez. Zazpi ekitaldi egin ezkerok jai bako-kean, lau jai beharko litzakez, bertsolari nagusiak probetako bako-kean. Eta barriak zelan probau? Maila bi edo hiru egin beharko litzakez, futboleko ligan legez? Azpillagak eta Ibarzabalek dinotsudan berbera esan eutsien Enbeitari. Nik neuk ez dot ikusten nahikoa arrazoi, era horretara egiteko, oraingo. Dana dala, oso ondo dago agertu dan ardura hori. Beste barik, bihotzez, *A. Irigoien.*

Urte honetako txapelketako nobedaderik handienetarikoa finalaren lekua izan zen. Lehenengo urte bietako Arenaletik eta 1960ko zezen-plazatik, urte honetan, zinemara pasetan dira. Capitol zinema oso handia zen, noski, baina inoiz be ez Arenal edo zezen-plaza bestekoa. Aldakuntza hori zelan planteatu zen eta zergaitik halan onartu zen azaltzen dauen paperik ez dogu aurkitu, baina, aurreko urtean, zezen-plazaren egokitasunari buruz, izan ziren eztabaidak, baimena emon behar eban Informazino eta Turismoko ordezkari-tzatik, besteren artean, erreparoa ipiniz ezen, horrelako ekitaldi baterako, zezen-plazak ez zirudiela lekurik egokiena. Arenalak, lehenengo urtean eta bigarreanean be, arazoak agertzeaz gainera, leku edegiegia emoten eban. Eta, seguruenik, lehenengo urteetako nobedadeak erakarritako publikoaren etorrera masiboa eta beroa be apur bat bere neurrira etorriko zen. Eta, azkenik, barrua beti da batuagoa eta honelako ekintzek eskatzen daben kontzentrazinorako egokiagoa. Geroago, Alfonso Irigoieni-eta entzun izan neutsen moduan, horreexek izan ziren, gitxi gorabehera, finala zinemara eroateko arazoak.

Txapelketa amaitzetik hilabete eta erdira, Aita Antonio Zabalari eginiko gutun batean, Irigoienek, beste zenbait konturen artean, idazten deu-

tso: "Iruñeako Ulzurruni aditu nion behin Leitza-ko bertsolarien txapelketara joango zerala. Jakin-go dezu hil honen 24an dala. Alkar ikusteko modua izango ote degu? Bilbon Azpillaga atera zan txapeldun. Txapelketa oso ona gertatu zan. Aurrerapide handia egin da bertsoan Bizkaian".

Urte honetako finaletik, transkripzino luze samarra itzi euskun, zorionez, Irigoienek, nahiz eta osorik ez egon. Tarteka, "puska borratua", "gainerako guztia borratua dago zintan" eta horrelako oharrak agiri dira. Hutsunerik handiena Ibarzabal eta Alberdirena da, honeen bertsoarik ez baita jasota agiri, lehenengo agurraz besterik. Dena dala, beste seirenak badatozenez gero, ez da mostra txarra gelditu, orduan Bizkaian, bertsoan zelan egiten zen ikusteko. Esan beharrik ez dago, kanporaketetatik, ez dogula ez urte honetako ez aurreko urteetako ezer aurkitu.

### Finaleko bertsoak

1961eko abuztuaren 27ko 10:30ean, Bilboko Capitol zineman jokatu zen finalaren hasieran, Jon Enbeitaren saio bat agiri da, txapelketatik kanpora, sarrera edo gehigarri deigarri legez. Eta benetan deigarri gertatuko zen, orduan Jon Enbeita (1950-III-22an jaioa) umea zen eta. Hasteko, puntu bi ipini eutsazen Irigoienek:

Puntua: *Gustetan ete jatzu  
talo ta esnia?*

*J. Enbeita:* Sarritan eukiten dot  
nik hori jan nahia.  
Baina etsian urunik  
ez egon baia  
auzotik eukiten dot  
nitzat ekarria.

Puntua: *Bertsolaria egoten  
danian umorez*

*J. Enbeita:* Ez deuela nahi izaten  
besterik ezer bez.  
Hantxe ipiniten da  
kopak edan nahiez  
eta gero etsera  
heltzen da mozkorrez.

Irigoien: "*Lau bertsoan esango deusku bere eda-  
deko umeak, Euskerea zainduteko, zer egin behar  
daben*".

Gure Euskera ikusten dogu  
dagola indargeturik  
gogor jokatu beharra daukou  
berai neurriak harturik.  
Etorkizuna umetxoetan  
ondoan dao ikusirik  
lan egin daigun ipiniteko  
umeak euskal bidetik.

Onea dogu txikitatikan  
euskeraz ikasitia  
oso tristerik negarrez dago  
gure amatxo maitia.  
Berak nahi dausku danori emon  
euskerazko hizkuntzia  
Guztiok jarrai ta hartu daigun  
euskera daukan bidia.

Aita ta ama neuri be holan  
hasi ziran erakusten  
eta gogoan hartun eginaz  
nituzan eurak ikasten.  
Orain hementxe dabilen legez  
berba hauze aginduten  
euskera inoiz ez baztartzeko  
danori dautsut esaten.

Sarri askotan ikusten dira  
hainbeste gauza munduen  
batzuk kontra ta bestiak alde  
daukien euren buruen.  
Baina neuk ere esango dot oin  
danok entzun ein daizuen  
ia nozonoz ikusten dogun  
eusker a erderan lekuen.

*"Hemen norbaitek -dino Irigoienek- hamar hogerleko bat bota deutso, eta horrexeri bertsoa":*

Antza, nonok oin nire bertso bat  
hartu daulako gogoan  
bere maitasun eta gainera-  
koa daukala nahikoa  
nere partetik eskerrik asko  
ene gizona, hor doa.

Hamar hogerleko edo berrogeita hamar pezeta  
orduan ez zen, ume batentzat, sorpresa makala.  
Jon Enbeitak, bere saioa amaitzeko, agur hau kan-  
tatu eban:

Azken agurra orain eiteko  
egin nabiela bi ordu  
nere partetik egin nahi nuke  
hemengo danak agurtu.  
Anai-arrebak, zeuen bidean  
aurrera zuzen jokatu  
sekula ere hori eginaz  
ez jaku ingo damutu.

**Egin nabiela bi ordu:** *Egin dabiela bi ordu ez bada, besteen saioaren luzera aitatzuz, bi ordu honek biortu-biortu (bihortu-behartu) edo horrelako zoezer izan behar dau. Orduenak ez dauka zentzunik, ume baten buruan, zentzuna diferentia izan leiteke baina. Jarraian, zortzi bertsolari finalisten agurrak datoz.*

*B. Enbeita*

Maitasunagaz agurtzen nator  
arriba eta anaiak  
toki honetan aurkitzen diran  
euskeldun bertsozaliak.  
Gauza handirik ezin lei esan  
ni lez bertsolai txikiak  
bainan nik ere esango ditut  
neure aldeko egiak.  
Arbola zaharrak emoten ditu  
ondoan kimu barriak  
Jaunai eskerrak, guk e badoguz  
ondorengoak gaztiak  
ilobak eta semiak  
bikainak bertsolariak  
zahar batentzako honexek dira  
bere lanaren sariak  
poztu gaitez an guztiak  
bertso faltarik ez du izango  
gero be Euskal Herriak.

*J. Mugartegi*

Pozez beterik agurtzen ditut  
lelengoz lehendakariak  
gure hurrengo gu juzgatzer a  
datozan epaikariak.  
Guri entzuten etorri diran  
aurreko agintariak  
eta gaur hemen ikusten diran  
anai-arriba ugariak  
egun on bana opa dizue  
bihotzez bertsolariak.

*J. Ormaetxe*

Nere agurra apal (...?)  
fraile ta Euskaltzaindiri  
besar kada bat etortzeaiti  
anaiai lez arrebari.  
Otoi bero bat eginde etor naz  
geure Begoñako amari  
..... ?



*I. Ajuria*

Nere begiak zuen aurrean  
hasi dirade edertzen  
sendi bat legez alkaturikan  
guztiok gara agertzen.  
Gure frutuak eta ohiturak  
ez dijuaz ahaztutzen  
nahiz gurasuak eta semeak  
hasi euskeraz mintzatzen  
hau einez gero Euskal Herria  
barriz hasko da loratzen.

**Hasko:** hasiko.

*D. Sardui*

Euskaltzaindian ardurapean  
antola dan gaurko jaiak  
alkartu gaitu anai-arrebok  
ta zortzi bertsolariak.  
Ze atsegin dun euskeldun horrek  
danoi ongi etorriak  
gaurko eguna ona izango du  
Euskera ta Euskal Herriak.

*J. Azpillaga*

Zuek agurtzen hasia nengon  
sartu orduko atian  
izan ere gu lagunak gera  
juan dan hiru urtian.  
Pozez beterik egoten gera  
alkarrena etortian  
oroiturikan gure jatorri  
eta Euskera maitian  
pozez beterik ahalegin dana  
eginik bihotz betian.  
Euskera dabil txoritxo legez  
luma gabe hegupian  
bertsolariak gera heguak  
eta saiatu gaitian  
alkartu hau esatian  
Jaunaren borondatian  
euskaldun danak hil ditezela  
Euskerarekin batian.

*J. Ibarzabal*

Nere partetik hauxen diju  
bihotzeko euskaldunak  
eta egun on bat eman begi  
gure Begoñako Amak.  
Poz hau hartzera hainbat bidian  
etorri zeaten gizonak  
nere partetik orain dijoaz  
eten gabe zorionak  
alaitasuna nun zan bazekin  
jai hau asmatu zigunak.

*J. Alberdi*

Egun on bana opa deusuet  
txiki eta handi danak  
egun gozoa benetan dogu  
euskera maite dogunak.  
Zeinen bihotza ez du poztuko  
hemengo alaitasunak?  
Bide zintzo hortan gorde zaizala  
Begoñako Ama kutunak.

121

Irigoién: "Agurra bota eta aurrerako bertsoak aintzat hartuko ditu Juraduak".

***Balendin Enbeita eta Juan Mugartegi***

Puntua: *Gaurko gazteak lotsa  
euskeraz egiten*

*B. Enbeita:* Guraso asko ere  
dira lotsatuten.  
Horgaitik doia euskera  
aspaldi galduten  
saiatu gaitzan danok  
indarra emoten.

Puntua: *Gaurko neskak nahi dabe  
lan ein barik bizi*

*J. Mugartegi:* Martxa horretan nik gutxi  
ez ditut ikusi.  
Dotore jantziaz eta  
ibilia nahasi  
hobe da lana eginda  
dirua irabazi.

*Irigoien:* "Orain ofiziotan egingo dabe. *Enbeita*  
*gizon formala ta ura edaten dabenetakoa. Mugar-*  
*tegi parrandan gabaz ibiltzen dana*".

*B. Enbeita*

Gizonak ondo oldoztu behar  
bizia eruateko  
ura edanda beti argian  
ibiltzen da lanerako.  
Nere lagunak ardaua dauka  
beti bere gogorako  
ni baino lehenau bide hortatik  
albora zara jausiko

*J. Mugartegi*

Gizon zuzenak mantendutzen du  
bera eta familia  
honek ez al du damu izango  
bide hortan ibilia?  
Lana eginda nola zerate  
zu ere uren zalia?  
ardo gustatzen ez baizu zuri  
ez zera bertsolaria.

*B. Enbeita*

Beste bertso bat nere lagunai  
barrendik noia erantzuten  
urakin ondo neure egarria  
beti juat asetuten.  
Bertsoetako nere burua  
maizen dau argituten  
ardauak (...?) ez sekula ere  
bertsolai ez du egiten.

*J. Mugartegi*

Zer esanikan asko badaukat  
honako gizon batekin  
lanean gogor ura edanda  
inoiz ezin leio ekin.  
Horregatikan konfiantzarik  
bat ere ez daukat zurekin  
ura edaten duanak ez du  
asmo onikan berekin.

*B. Enbeita*

Nik ere laster emongo dizut  
gauz honen erantzupena  
ni urarekin ibili arren  
lasai daukat nik barrena.  
Zelakua dan nik ondo dakit  
ardauzalien edana  
bazarren baten ikusiten da  
itsusi bere azkena.

*J. Mugartegi*

Sinistu zazu horren alde dan  
ez det egingo hitzik  
ni urik edan gabe biziaz  
bat ere ez daukat lotsikan.  
Ardu eraten ibilitzeko  
ez det barruko gaitzikan  
Jaunari eskerrak ez det oraindik  
neugan rejimenarikan.

*B. Enbeita*

Beste bertso bat oragin dauka  
honeri erantzuteko  
uraz dabizen gizonak arin  
ez diriala galduko.  
Edari danak Jaunak eginak  
neurriagaz ibilteko  
ez zure antzera, ardu edanta  
berarekin mozkortzeko.

*J. Mugartegi*

Osasunaren alderakua  
ardua beti izan da  
horrek ez digu kalte egiten  
bere negurriz edanda.  
Baso txiki bat edo bi berdin  
aurretikan zerbait janda  
ardua etxian ez bada aurkitzen  
hurrengo tabernan juanda.

Alkarregaz puntuka.

*Enb.-* Ardaua baino nitzat  
ura da hobia

*Mug.-* Berak ilunduko dizu  
zeure memoria.

*Enb.-* Horrixek emon jaustak  
betiko argia

*Mug.-* Hemen ikusi behar da  
bera eroria.

*Mug.-* Deskoiduan e urik  
zuk ez zazu edan

*Enb.-* Ardaurik ez nua hartzen  
hemen da bistan han.

*Mug.-* Ardauari tragoska bat  
golpetikan eman

*Enb.-* Ostian mozkortzeko  
ez dot nik.....?

***Juan Ormaetxe eta Ireneo Ajuria***

Puntua: *Elexak erdi hutsik  
zineak beteta*

*J. Ormaetxe:* Holango asko nago  
aspaldin ikusita.  
Banua oin igarten  
nola dan galduta  
ez daolako nerau legez  
zinean sartuta.

Puntua: *Bertsolari izateko  
zer egin behar da?*

*I. Ajuria:* Ardau pixkat edatera  
hau da gaurko moda.  
Bizkortzeko burua  
hobarikan ez da  
Hau edaten jun hemetik  
bertsolairik bada.

Irigoien: "Ofizioak. *Ormaetxe*, gizon baketsua.  
*Ajuria*, emazte harro ta gastatzailea".

*J. Ormaetxe*

Hau da munduen aurkitzen dala  
antxinetik ezaututa  
zenbat biderrez etsera etorri  
diruek irabazita.

Pozik barrue izanagaitik  
etsian deko ilunduta  
beti tabernan sartu eiten da  
daroazen danak hartuta.

*I. Ajuria*

Esan dozune era horretan  
Nn ere nago ohituta  
gatzetatikan hitz asko dala  
oraindik ez det ahaztuta.  
Zer eiten dozu era horretan  
beti etxean egonta?  
Hara juateko nere ustean  
zuk dirua dezu falta.

*J. Ormaetxe*

Holango berbak esaten ditu  
bapere susmau ein barik  
bakezaliak ez deu nahi izaten  
famelian haserririk.  
Baina holanguak ez dau pentsaten  
sekula holau geuzarik  
harrokeria buruen eta  
ez etseko ardurarik.

*I. Ajuria*

Hara zer degun alkar artean  
senarra, hemen ikusten  
era txarran ibili behar  
hain ona ez da izaten.  
Gazte denporan horren antzean  
zu be ez zaituan ikusten  
danak gaste'txuz ta horregatikan  
juaten ez da hau zutitzen.

*J. Ormaetxe*

Begira nola emazte honek  
egiten duen berbia  
berau au-au-au barriketan da  
ezkaratz lohia guztia.  
Sarri askotan ahaztuten dako  
ohiak bere astindutia  
nahiago izaten ....? joan arte  
eragoten ibiltia.

*I. Ajuria*

Andre izan arren nik gizonari  
ba deusat zer esateko  
ez ginala gu buztartu gero  
hola hasarratuteko.  
Hainbat bidean ibili zinan  
zu nirekin ezkontzeko  
jakin baneban zer jazoko zan  
ez ninduzun harrapauko.

*J. Ormaetxe*

Nahi dabena esaten dabilz  
nor ete da sinesteko?  
hainbat bidarrez ibil naizela  
atzian bera lortzeko.  
Egie da hori, baina ez nuen  
igarri ekarri orduko  
asko hobia izan zainen zu  
bertan behera utziteko.



*I. Ajuria*

Egun danetan borondateaz  
juaten naiz eleizara  
gaztea naiz ta horren antzera  
sarritan erromerira.  
Dirua ez da geldi eukiteko  
ni beti nao gastetara  
oin txarto bizi ezkerro ez naz  
gerokuari begira.

Alkarregaz puntuka

*Orm.*- Bakizu zuk, emazte  
hasarre ez gaozela

*Aju.*- Ondo atondutzeko  
ez da gauza ona.

*Orm.*- Zu nobie izan bazinan  
asko hoba zana

*Aju.*- Nik ezin dot oin bete  
senarran esana.

*Aju.*- Eleizan alkartuta  
ein gendun buztarri

*Orm.*- Ez jakin baneu gaur lez  
eginaz igarri.

*Aju.*- Ez dakit zertan nigaz  
ein zinan etorri

*Orm.*- Ordutik hona sarri  
bizi naz ni larri.

*Deunoro Sardui eta Jon Azpillaga*

Puntua: *Bertsogile ona zan*  
*Arrese-Beitia*

*D. Sardui:* Atsegin jat beratzaz  
oin hitzegitia.  
Danorentzat ongi bere  
bide egitia  
pozez bizi daitean  
Euskera maitia.

Puntua: *Perrilak baino hobak*  
*al dira azelgak?*

*J. Azpillaga:* Bai, jotzen ez baditu  
gaitzak edo plagak.  
Harek ditun indarrak  
dirade makalak  
sarritan ez ditula  
janik Azpillagak.

Irigoien: "Ofizioak. *Sardui, mendiko guardea.*  
*Azpillaga, kazan dabilena*".

*D. Sardui*

Zuk badakizu mendi tontorrez  
gagozala gudariak  
zaldi ta iskiluz hornituak da  
ehizez nahiko ugariak.  
Gaur egunean tranpan dabilzan  
hamaikatxo ehiztariak  
arrano horrek kentzen daustiez  
ordu onez loguriak.

(**Arrano horrek:** barraban, gaizto horreek, horiek)

*J. Azpillaga*

Aizazu, egon zinezke...  
..... eta ixilikan  
ez uste izan mendian inoiz  
lan txarrik egin danikan.  
Legien kontra ez det eraman  
ez hegazti, erbirikan  
lan egin gabe bizi haiz eta  
.....

(Gainerako guztia ezabatua dago zintan)

*Jon Azpillaga eta Balendin Enbeita*

Puntua: *Fidel Castrok puruak  
karu jarri deuskuz*

*B. Enbeita: Ez dira ekartzen errez  
haindi behintzat eskuz.  
Erre gura ta ezin  
asko dagoz damuz  
guk hartuko gendukez  
ekarko baleuskuz.*

Puntua: *Gizona joango ete da  
laster ilargira?*

*J. Azpillaga: Gizon handiak hor dabiltz.  
nola joan begira.  
Juango litzakez, baino  
gero zelan jira?  
Hau konpondutzen ere  
lan asko badira.*

126

Lau oin Azpillagari: *kolore, hobe, pobre, adore.*

Euskal Herrian badabil  
hamaika kolore  
gutxiago baleude  
guretzako hobe.  
Euskera horregatik  
dago honen pobre  
gaur eman behar diogu  
indar ta adore.

Lau oin Enbeitari: *serio, zer dio, merio, erremedio.*

Enbeita hemen dago  
nehikua serio  
ni hola ikusita  
jentiak zer dio?  
Txartzat hartuten badau  
ez dago merio  
eta nik ezin jarri  
horri erremedio.

Irigoi: "Ofizioak. Azpillaga, baserritar ganaduzalea. Enbeita, baserritar pinuzalea".

*J. Azpillaga*

Gaurko pinadi zalien kontra  
hau nahi nuke esatea  
zuek zarratu dituzuela  
gauza on danen atea.  
Solo guztiak pinu sartuta  
zer nahi dozue atera?  
Hori al da, ba, jaiotzatiko  
euskalduna izatea?

*B. Enbeita*

Behizale honek arrazoia dau  
beruz (?) ez ditu jarriten  
aspalditxuan honen antzera  
asko daukagu ekiten.  
Ez al daukagu eskubiderik  
geuk gura dogun sartuten?  
Diruarekin kanpotik ere  
jana bardin da etorten.

*J. Azpillaga*

Aizu, laguna, ez dizut gauza  
hori nik gaur ontzat hartzen  
Amerikatik ikusten ditut  
pinu hobeak ekartzen.  
Ta txahalik berriz pinu orbelez  
inolaz ez da gizentzen  
zuek zabiltzaz lehengo antzeko  
laur eder hau bajatutzen.

*B. Enbeita*

Jaunak emonda bakoitxak dauka  
beraren eskubidia  
ein behar dana nundik datorren  
ikusi hemen ogia.  
Ameriketan izan ledike  
pinudiak egotia  
handikan baina hona ez dator  
pinuen irabazia.

*J. Azpillaga*

Baserritarrak batzuk badira  
jokera txarrean jausi  
soluak pinu sartu ta gero  
kalera guztiak jetxi.  
Han bizi dira nahi bezelaxen  
ta asko ditut ikusi  
horrelakuak baserritarren  
izenik ez du merezi.

*B. Enbeita*

Erantzupena emongo dautsut  
nik maite det baserria  
ta soloetan nik sartu neban  
lehen ederra pinudia.  
Haren diruaz, zuk dinozun lez  
ein neban etxe barria  
behiakin zuri kostako jatzu  
ni legez bizi izatia.

*J. Azpillaga*

Bate ez deusta grazirik egin  
bertso hori esatian  
uste al dezu ondo dagola  
baserritik juatian?  
Beste pinurik lur hartan ez da  
beste berrogei urtian  
eta zuk zer egin behar dezu  
hartutakuak jatian?

*J. Enbeita*

Errazoiagaz dagola ustez  
hau erraturik bai dago  
pinuarentzat beti izan dot  
sartutia nik lehen gogo.  
Lehen hartutako diruak ere  
etsian ditut nik majo  
lurralde honetarik ni juango naiz  
haretan aitu orduko.

Irigoien: "Gai bardina. *Euskera biziko bada, zer egin behar dogun*".

*J. Azpillaga*

Zer egin behar dan esango det  
Euskerak nahi badu bizi  
oso hizkuntza ederra da ta  
galtzerik ez du merezi.  
Gaztetatikan hartu genduan  
ohitura ederrei eutsi  
ta erderazko kutsu hauetan  
behin ere ez gaitela jausi  
ama ta aitak euskeraz egin  
ta semiei erakutsi.

Gu jaio ginan lur eder hontan  
guziok gera mantendu  
ta asaba zaharren ohitura hauetan  
hil arteraino egondu.  
Guk geureakin nahikoa degu  
ta besteari ez kendu  
oker dabilzan traketsak ere  
ondo esanda zuzendu  
Euskera gora jaso liteke  
hori egingo bagendu.

Beste lora bat Euskerarentzat  
botako det orainguan  
lora ederrik ez da egoten  
zelai batean neguan.  
Orain bezela lehengo urtetatik  
hau egin behar genduan  
danok hitz egin euskeraz eta  
itzi itxaropen senduan  
jarri dezagun gure hizkuntza  
oin ehun urte zan lekuan.

Goian dagonik beheruntza ezin-  
go degu sekula bota  
oraintxe hasi beharko degu  
indar berriak hartuta.  
Zugaitza eder bizkortutzen da  
belar gaiztuak kenduta  
hasi gaitezcan danok batera  
bestela indarririk ez du-ta  
ta esan danok batera sarri  
bestela hilgo zaigu-ta.

*B. Enbeita*

Guraso asko ikusten ditut  
sendiagaz gazteleraz  
aita ta ama euskaldun eta  
seme-alabak erderaz.  
Esaten dabe: "euskaldun gara  
Jaiotzaz eta ohituraz"  
Euskera baldin maite bozue  
umeai egin euskeraz.

128

Alperrik dogu mingainez hemen  
hitz egiten ibiltia  
egipenetan erakusten dau  
nok maite daben herria.  
Gure herrien bizitza bada  
guk daukagun Euskaria  
emon daiogun zahar eta gazte  
berak behar daun bizia.

Amaordea etsian dana  
ta semeordeak lagun  
etsiak ditun galdu-gordetan  
itsuak dira errudun.  
Gure Euskera gura badogu  
iraun dagian zorundun  
kanpoko gauzai geldi itxita  
etsia zaindu dagigun.

Bakoitzak hemen hartu dagigun  
geure herrien ardura  
ardura gabe gure hizkuntza  
baidator goitikan behera.  
Euskalzaleok saiatu gaizan  
amazaleak bagera  
zahar eta gazte alkarturikan  
beti ein daigun Euskera.

03. **Etsian, etsia:** etxia, etxea. Bizkaiko eskualde  
askotan, *etse-etze* ahozkatzen da.

*Jon Mugartegi eta Deunoro Sardui*

Puntua: *Tifusik hartzen al da  
ardua edanda?*

*J. Mugartegi:* Gehiegi eginez gero  
kalterako izan da.  
Hortik sortu liteke  
plaga horren banda  
nik ez det etxeratuko  
neu bila juanda.

Puntua: *Atzo Arenalian  
txistulari onak*

*D. Sardui:* Zintzo euren lanari  
guztiak emonak.  
Ze atsegin nere bihotzak  
ba zuan han egonak!  
Prakan artian egon naiz  
zirean han gonak.

Mugartetiri oinak: *izarra, indarra, garra, igarra.*

Gauetan sututzen zaigu  
zeruan izarra  
lurraldia argitzeko  
ematen indarra.  
Guk argi ibiltzeko  
hartzen degu garra  
berak ematen digu  
bidean indarra.



Sarduiri oinak: *ekarri, alkarri, sarri, larri*

Gaurko goizean etxetik urten  
ta asmo hau ein dot ekarri  
anai-arrebak zintzo bagera  
lagun daiogun alkarri.  
Hau egitean, geure Euskera  
hizketan ikusko'u sarri  
beste bidetik beherantz goiaz ta  
ikusi ez daigun larri.

Irigoien: "Orain ofiziotan. *Mugarategi, dendaria.*  
*Sardui, jeneroa beti zorrean erooten dauena*".

*J. Mugarategi*

Dendari batek hitz txarrik zuri  
orain ez dizu esango  
saltzen gaudenak buruen kontra  
ez gera inoiz joango.  
Dirurik gabe etortzen zera  
ez det dudarik izango  
berriz horrela agertzen bada  
ez diot ezer emango.

*D. Sardui*

Jaiotzatikan neugandua det  
bizi guztiko negarra  
gazte be bai naiz ta lanerako  
sobra badaukat indarra.  
Baina jornalaz ezin ailegau  
hauze da, ba, gauza txarra  
ez baldin badaustazu emoten  
bilozik egon beharra.

*J. Mugarategi*

Nere dendatik eraman nahi du  
berebiziko jantzia  
eta nik libre, pagatu ezik  
daukat zuri ez ematia.  
Zuk ere ez dezu izango beti  
errez ein gabe joatia  
berriz etortzen bada ez dizut  
zabalduko nik atia.

*D. Sardui*

Ni gertu nago beste bertsu bat  
orain zuri erantzuteko  
denda ederren jaubia zera  
nahi dezun lez biziteko.  
Ni hemen nozu ezertxu gabe  
soina be estalduteko.  
Borondaterik ez al daukazu  
txiruak mantentzeko?

*J. Mugarategi*

Osasunaren jabe bada ta  
ez du nahi egin lanikan  
horregatikan aurkitutzen da  
beti dirurik barikan.  
Lehen gauza asko dituzu nere  
etxetik eruanikan  
gehiago ez nua ezer ematen  
horrek ordaindu barikan.

*D. Sardui*

Nere lagunak ez du oragin  
ez emoteko konturik  
gizalegiak oraindik daukaz  
txiruarentzat ahazturik.  
Gure diruak eskasak dira  
bestienaz jabeturik  
ez uste holan portatu eta  
zeruetan sartuterik.

*J. Mugarategi*

Egia esan, neure bururik  
gaur ez dizut bajatuko  
danak esaten hasi ta ez du  
berak gustora aituko.  
Etorri eta hartu ta eraman  
ezer ez du pagatuko  
hori egiten dezun artean  
zu ere ez zera sartuko.

*D. Sardui*

Tripeak behar daustan apurra  
ez badauste emoten, lanak  
alperrik dira zure atean  
egi hutsagaz esanak.  
Orain artean ibili arren  
aurrerantza dodaz lanak  
emoidazu ta ordainduko'izu  
zuri be zeruko Jaunak.

Irigoién: "Gai bardina. Gizonari komeni ete jakon  
ezkontzea".

*J. Mugartegi*

Egi bat zuzen esango dizu  
danori geure jardunak  
mundu honetan ezkondu gabe  
ez gera izango gizonak.  
Ta hurrengo hau gaur eta bihar  
beraz, izan nahi duanak  
ezkondutzia ondo egingo du  
epoka izaten dunak.

Ezkondutzeko bide horrexek  
zeregina izaten du  
entzuten dauden guztiarentzat  
honek garbi esaten du.  
Sartu ta gero bakartadean  
ezin gorputzak mantendu  
laguntasunaz bizi izateko  
hobe izango da ezkondu.

Ejenplu honek aitzen emanda  
konturatu zaitez danak  
ezkondutzeko asmo hartutzen  
beti izaten dira lanak.  
Mundu honetan gero hartzen dira  
haurtxo gozoen laztanak  
hori ez daki zer izaten dan  
guraso eiten ez danak.

Beste bertso bat gai honen bidez  
ahal badet nahi nuke esan  
bide horretan argitasunez  
guztiok jua gaitazan.  
Bakartadean bizi diranak  
daude egundoko perezan  
horregatikan, libre dago ta  
danok ezkondu gaitazan.

*D. Sardui*

Arlo honetan ez da erreza  
gogakizun zuzenduten  
ez dakit konbeni jakun baina  
asko dira ezkonduen.  
Adan ta Eba Jaunak jarriak  
lehenengo ziran buztarten  
ona izango da, ba Jaungoikoa  
ez da inoz erratuten.

Gizonak beti eukiten ohi dau  
on-txarrerako argia  
Adan ta Eba solteru ziran  
esan behar da egia.  
Bien artian beteten eben  
mundu hontako legia  
neri ez jat orain esan toketan  
bazan txarto egitia.

Haien ondoren asko dabilnaz  
litzakezela ezkonduko  
ezetz esanda nesken atzian  
berandu egin orduko.  
Hau bere egia esango dot ta  
ez jat inoz damutuko  
asko ezkonduko litzake ez balitz  
euren buruk galduteko.

Izan leiteke egia, baina  
 neu ez nago, ba, seguru  
 ezkonduak ondo bizi dira  
 zaintzen dabe euren buru.  
 Badaezpadan itxi pasetan  
 urteak bi edo hiru  
 ezkonduik onena baino hobeto  
 ez ete dagon solteru.

**Deunoro Sardui eta Jon Azpillaga**

Sarduri oinak: *esana, afana, nigana, lana.*

Anai maiteak, ez txartzat hartu  
 Deunorok hemen esana  
 bertsolariei emon deusie  
 larregitxuan afana.  
 Bata txapeldun, bestia neusi  
 ez etorri ba nigana  
 horri igarten emoten deutse ta  
 neusiei nahikoa lana.

Azpillagari oinak: *galaia, nahia, usaia, jaia*

Ezkondu baino aurreragotik  
 ni ere nintzan galaia  
 baina urteak banitun eta  
 heldu zan ezkondu nahia.  
 Aurreragotik hartua neukan  
 ederra zanen usaia  
 ezkondu eta geroztik ere  
 hartutzen den nahiko jaia.

Irigoien: "Ofizioak. Sardui, alper osasuntsua.  
 Azpillaga, langile osasun bakoa".

*D. Sardui*  
 Nik jakin arren nere itzalen  
 aurka joko daustazuna  
 lanerako ni atzera nago  
 baitaukat etorkizuna.  
 Etxerik etxe eskatutzen det  
 ta ... (¿) nahiko dedana  
 lanen kontrako ederra daukat  
 soinean nik osasuna.



Alfonso Irigoienen artxiboa

Agintariak balkoitik saioa ikusten, Gernikako plazan.

*J. Azpillaga*

Jakin dirade zertan diraden  
nere lagunen biziak  
ta ni, ostera, gazte-gaztetan  
hartu nindun desgraziak.  
Hori gogor ta nire indarrak  
daduzkat behera jausiak  
munduan suberte ona dauke  
alperrak diran guziak.

*D. Sardui*

Zeuek esana nire bertsoaz  
nahi nuke gehiau indartu  
gizona ezerk ez du oin arte  
lan egitera behartu.  
Zeuk be osasun gitxi daukazu  
neugana zaitez bihurtu  
lana bestiek egin daiela  
ta neu lez ein zaiz alpertu.

*J. Azpillaga*

Alperkerian dabilen batek  
eskatu inon atetan.  
Ba al dakizu ofizio horren  
kontra nik zer grina detan?  
Besterik ez dun garaian hasi  
beharko du lapurretan  
zu languakin sozio ez naiz  
sartuko mundu honetan.

*D. Sardui*

Pena emoten deust nere dei honi  
zuk entzun barik iztian.  
Nok sartu dautsu lan egiteko  
samarra zuri bistian?  
Lan egin barik biziko gera  
beste hainbeste urtian  
oraingoiz hemen ez doguna eingo'u  
hildakuan guk bestian.

*J. Azpillaga*

Guk ez dakigu hil ondorengo  
izango dogun barririk.  
Baino, Sardui, hau pentsatuta  
ez al daukazu larririk?  
Lanik ein gabe hemen bizi da  
lapurretan duda barik  
lege horretan dagonak ez du  
zeruetan sarrerarik.

*D. Sardui*

Adiskidea, erantzun behar  
zagozela okerretan  
erraturik zauz, geu eta egun  
murgilduz zeure lanetan.  
Zuk ez daukazu denporarik ba  
hasteko ta gogaketan  
zerura nundik joan pentsetan  
lanean zaozen artetan.

*J. Azpillaga*

Ez al dakizu, nere laguna  
Jesukriston dotrinikan  
Egia esan, nere gorputzak  
ez du paltatzen minikan.  
Lehen naz lan asko egindakua  
nahiz gero gabetanikan  
orain txit lasai bizi naiz gero  
emazteak eginikan.

Irigoien: "Gai bardina. *Fameliak gaur egunean  
daukazan gatzak, etxeko batasunaren kaltean*".

*D. Sardui*

Gaur egunean tamal da baina  
ez dao famili osorik  
gazte ta zaharrak bakoitza bere  
bideak daukaz harturik.  
Esango neuke aspaldi dagoz  
guztiak gaur txoraturik  
danen errua da ez dalako  
etxean erretirorik.

Gaur egunean jentea dabil  
soinekoz behintzat apaina  
etxean gose pasauta ere  
hitz eiten laban mingaina.  
Batasunaren kontra guztiak  
eiten dabiz ahal dan aina  
danak dabiltzaz hara ta hona  
pakerik ez dago baina.

Guraso zaharrak autu hau degu  
sekula ez ahaztutzeko  
seme-alabak haundi izan arren  
dagoz kontu hartuteko.  
Ez apaina dan buru-jaubea  
bat bertan behera izteko  
gogortxuago ein beharko da  
batasuna lortuteko.

Ez ahaztu inoiz, nahita txikiak  
bertsolarien esanak  
gure beharra dauka aspaldi  
etxean gu batasunak.  
Zergaitik dabiltz alkarren aurka  
euzokoi eta eukoanak?  
Ez al gera, ba, anai maiteak  
gu guztiok euskaldunak?

*J. Azpillaga*

Gaitzikan ez du egingo noski  
berri batzuk esatiak  
gaurko gaitz askok zabaltzen ditu  
fameliaren atiak.  
Ba al dakizu nolako gauzak  
diran sendiko kaltiak?  
Hortikan datoz hasarrea ta  
hortik datoz zaratiak  
kulpaik gehiena izan behar du  
juergak eta edatiak.

Zenbat alditan nere artean  
gauza hau banaiz esana  
senar askorek emaztea du  
bere mendera etzana.  
Era horretan ez behar hartu  
nok beren andre laztana  
hau da gauza bat gizon on baten  
inoiz ikusi eztana  
fameli baten pake santua  
da lehenengo behar dana.

*(Puska borratua)*, ipintzen dau paperak.

Hauxe da 1961eko Bizkaiko finaletik aurkitu dogu-  
na. Txapelketa osoaren laburpen bat eginik, lau  
kanporaketa jokatu ziren: Urkiolan, Mungian, Igo-  
rren eta Markinan. Finalerdia Gernikan jokatu  
zen, eskualdeetako lau txapeldunak gehi aurreko  
urteko finalistak, Mugartegi txapelduna eta Azpi-  
llaga txapeldunordea kenduta. Honeekin biokin  
eta Gernikan sailkatu ziren seirekin (Balendin  
Enbeita, Ireneo Ajuria, Juan Ormaetxe, Jose  
Alberdi, Deunoro Sardui, Juan Ibarzabal), Bilboko  
Capitol zineman izan zen finala, abuztuaren 27ko  
goizean. Txapeldun Azpillaga eta Sardui txapel-  
dunorde izan ziren.

Bertsoak transkribatu doguzen paperean, beste  
bertso bi datoz, norenak diren ez dakarreenak.  
Batak partaideren baten agurra dirudi.

Agurtzen zaitut baserritarra  
gaur Bilbora etorria  
kalean gaixo dan Euskerari  
goxotzen ordu larriak.  
Baita kaleko euskaltzaleak  
benetan agurgarriak  
amatxok pozez hartzen dauz gaur  
zuek dakazuen barriak  
lau haizetara dinozue ta  
bizi dala Euskal Herria.

Bestea be, bederatzi puntuko laburra bera, agurren bat izan leiteke:

Penagarri da hemendik  
oragin juatia  
nahi nuke bertsoetan  
txit egitia.  
Sorgin askoren berri  
zuoi emotia  
nahizta gitxi jakinaz  
dakidan guztia  
herri ta erbestia  
dana da nahastia  
bata ta bestia  
negar da pistia  
sorginak dauko honen  
erru guztia.

**Negar da pistia:** pista, begiko makarra, bekarra.

# 1962ko BIZKAIKO TXAPELKETA



## Laburpena:

- Eskualde kanporaketetan, Urkiolan, ekainaren 13an, Julian Martitegi mañariarra izan zen txapeldun. Mungian, uztailaren 15ean, Jon Lopategi muxikarra txapeldun. Markinan, uztailaren 18an, Jose Maria Arregi berriatuarra txapeldun. Eta Igorren, abuztuaren 15ean, Basilio Pujana zeanuritarra txapeldun.
- Finalaurrekoa Gernikan izan zen, abuztuaren 20an, eta Jon Lopategi izan zen txapeldun.
- Finala, abuztuaren 26an, Bilboko Irakaskuntza erdi mailako Institutuan izan zen, finalistak honakoak zirela: Jon Lopategi (Muxika), Jon Azpillaga (Berriatua), Deunoro Sardui (Muxika), Juan Mugartegi (Berriatua), Juan Ibarzabal (Markina), Ireneo Ajuria (Muxika), Jose Maria Arregi berriatuarra eta Balendin Enbeita (Muxika).
- Txapeldun Jon Lopategi eta bigarren Jon Azpillaga izan ziren.
- Epailleak honakoak izan ziren: Alfonso Irigoien, Augustin Zubikarai, Eusebio Erkiaga, Gabriel Aresti, Aita Antonio Zabala jesuita, Don Jose Etxeandia, Durangoko Santa Anako parrokoa, eta Aita Martzel Andrinua pasiotarra.

(Iturria: Bizkaiko Bertsozale Elkarteak ateratako Bizkaiko eskualdeetako bertsolari txapelketak 2000 izeneko prentsa txostena).

1962. urteko Bizkaiko txapelketaren gaineko informazio handiegirik ez da gelditu Alfonso Irigoien funtsean, eta okerrera bertsorik be ez dogula aurkitu, finalerdiko batzuk (Euskadi Irratian daukien grabazino batekoak) eta Lopategik Mungiako kanporaketan kantaturiko bat besterik, Arestik Hierro egunkarian idatzitako erdarazko kronikan jaso.

Aurreko urtean legez, oraingoan be, lau eskualde txapelketa jokatu dira: Urkiolan, Igorren, Mungian eta Markinan. Lehenengoa, ohi zenez, Urkiolakoa izango da, San Antonio egunean eta, saio honetarako, gutun bitxi bat dago, bertso eta guttikoa, Iurretako Goiuriko Manuel Sarrionandiak Irigoieni bialdua. Eta eskuz idatzia, jakina.

Goiuria 6 d 6-62

Alfonso: me pongo a escribir tres letras diciendo que el día San Antonio haber si celebra el concurso de bersolaris en Urquiola, quiero saber cuando antes y mandame contestacion. Sin mas me despi-do que soy Manuel Sarrionandia. Las señas son Goyuria Yurreta Durango Vizcaya.

Eta alboan bertso hauxe, maiuskuletan idatzia:

Gura neukena jakin  
 nik juen aurrian  
 Zzer sari ete dauen  
 Urkiola aldian  
 Diruaz gaizki gabiz  
 juan dan aspaldian  
 erantzuna bialdu  
 kartiaz batian.

Urkiolako saioaren barri Euskaltzaindiko orri batek, seguruenik, Irigoienek prentsarako idatzia, honela emoten dau erdaraz:

Julián Martitegui, de Mañaria, ganó el concurso celebrado en Urquiola. Queda clasificado para la semifinal vizcaína.

El día San Antonio, ante numerosísimo público, se celebró el concurso comarcal de bersolarismo, organizado por la Academia de la Lengua Vasca. El tiempo, que en un principio era lluvioso, quedó despejado ante la alegría de los romeros, y pudo celebrarse el concurso agradablemente. Se presentaron seis bersolaris, los cuales tuvieron grandes aciertos, dándole color al día tradicional. Quedó campeón Julián Martitegui, de Mañaria, recibiendo la copa del Ayuntamiento de Abadiano y un premio en metálico de la Caja de Ahorros Vizcaína. En segundo lugar se clasificó Germán Uriguen y en tercero, Francisco Madiola, los cuales recibieron también premios en metálico de la Caja de Ahorros Vizcaína. Julián Martitegui queda clasificado para participar en la semifinal vizcaína, juntamente con los que queden campeones de zonas y los finalistas del pasado año, excepto el campeón y subcampeón.

Igorren, abuztuaren 12an, Arratia, Zeberio eta Orozko ingurua hartzen eban eskualdeko kanporaketa jokatu zen. Orduko erdal prentsako erre-korte batek dinonez (*La Gaceta del Norte*, seguruenik):

Fue proclamado campeón Basilio Pujana, que hubo de luchar tenazmente para, en la competición final, vencer a José María Gurtubay. (...) El Jurado estuvo constituido por los padres Marcelo Andrinua y Félix Bilbao; Antonio Bilbao, premio de poesía Lizardi del presente año; y Alfonso Irigoyen, que dirigió la competición. Desde el pasado año se ha notado mucho progreso en el arte de los bersolaris arratianos. Se espera que esta tendencia siga en línea ascendente.

Markinako kanporaketaren kronikarik ez dogu aurkitu. Jose Maria Arregi berriatuarrak, "Altzu" ezizenez ezagutuak, irabazi eban aurrerako txartela. Saio hau dela-eta, Augustin Zubikarainen gutun bitxi bat dago, 1962ko abuztuaren 8an datatua:

*Kaixo, Alpontso: Hartu neban zurea. Bilbon izan nintzan atzo. Ez neban astirik hartu, zu ikusteko. Markinako alkatea guztiz haserre etorri jatan, Arestiren esakerakaitik. Zugana joango ete dan erakutsi eustan. Gehiago ez ei dau ikusi nahi Markinan, juradu lez, behintzat, Aresti. Hor konpon. Ondarrun zer? Badakit alkatea hor izan zala. Txori batek esan eustan. Dana gertuta egongo da, ezta? la dotore-dotore zerbait egiten dan. Gaietan, arrantzale usaina sartu. Hemen bestelakorik hartu be ez dabe egiten askok. Izan lei bertsolariak eurak arrantzale gaiz ondo-ondo ez ibiltea, baina, ze arraiol! Ikasi daiela. Agur ta erdi ta ikusi arte. A. Zubikarai.*

Polemiko fama zeukan eta izan be bazen Gabriel Arestiri ez jakon askorik kostako orduko alkate klaseak hasarrazteko moduko zeozer esatea. Zubikarai aitutzen dauen Ondarroakoa, abuztuaren 15eko Andra Mari egunekoa, sariketa bat izan zen, bertako udaletxeak antolatua, Euskaltzaindiaren laguntasunez. Asmoa zen bizkaitarrak, nafarrak eta giputzak batzea, baina, orduko erdal prentsako kronika batek dinonez, giputzak ez ei ziren etorri. Nafarroatik Andres Narbarte goizue-




tarra eta Bautista Madariaga arantzarra etorri ziren, eta Bizkaitik, Juan Mugartegi eta Deunoro Sardui. Mugartegik irabazi eban trofeoa eta mila pezeta eta, besteren artean, sariak bardinean banatuak izan ei ziren, bakotxak 900 pezeta.

Bertsolariek bazkaldu eban lekuan, espektazino itzela izan zela dino kronikak. Ezin ei eutsien kantatzeari itzi eta, arratsaldeko zazpiretan, nafarrek autobusa hartu behar izan ez balebe:

Hubiese durado largas horas el canto. Sobre todo, Narvarte cantaba, uno detrás de otro, cada vez

mejores versos, al estilo del Gran Txirrita, al que en tantas cosas se parece nuestro vate goizuetarra. Puede decirse que en la mesa cantaba los mejores y más inspirados versos. Además, no pudieron des- pedirse sin cantar una serie de versos de nueve puntos.

Nafarrek eta Sardui bizkaitarrak alde egin ondoren, askaltzera sartu ei ziren Alfonso Irigoien, Juan Mugartegi eta Juan Ibarzabal. Eta han be bertso ugari kantatu ei eban, giputzak aitatuz eta desafiatur, Ondarroan bizkaitarrekin eta nafarrekin kantetako gonbita ez onartzearren, batez be.



Joseba Arregi kantatzen, kopa eskuan dauela. Markina. 1962-VII-18.

Si hubiese habido allí un magnetofón, se hubiese registrado todo lo satírico que contenían. Pero no había y, entre otros, se trató de fijar en la memoria el siguiente:

Ez dira etorri gaur Ondarrura  
alboko gipuzkoarrak  
zergatik izan dan ez dakigu  
igual eskas indarrak.  
Hala ta ere entzun ditugu  
halako bertso edarrak  
bildurti haiek zuzenduteko  
hartu ditzagun abarrak.

**Abar:** zuhaitz adar txiki samarrak, zigortzeko erabiltzen zirenak.

Y con este verso se quiere lanzar un desafío a los guipuzcoanos, para batirse donde quieran, como quieran, el día que quieran, con el jurado que quieran, ofreciendo garantías de imparcialidad, y no les importa a los vizcaínos no cobrar dinero, aunque no les molesta. Tampoco les importa no quedar vencedores, pero harán todo lo posible por conseguirlo. Los versolaris guipuzcoanos desafiados son los siguientes: José Aguirre, de Azpeitia; Manuel Lazcano, de Azpeitia; Jesús Eguileor, de Los Mártires; y José Luis Lecuona 'Lexoti', de Oyarzun, este último, si es que recibió la carta, invitándole a participar en Ondárroa.

Mungiako kanporaketaren informazio luze eta zehatzagoa daukagu, kronikari ospetsu baten eskutik, hain zuzen. Gabriel Aresti dogu bera. Beharbada, aurreko artikuluen egilea be bera da, errekteak ez dau sinadurarik ez egunkariaren izenik hartzen baina. Aresti epaile izan zen lehenengo Bizkaiko txapelketan, 1959an. Bitarteko hiru urteetan, haren izenik ez da agiri, baina, 1962an, saltsara itzultzea erabagi eban, antza, eta epaimahian be ibili zen. Eta itzulerak Aresti erakoa izan behar, Zubikarainen gutunean agertu denez.

Oraingo honetan, 1962-VII-17ko *Hierro* egunkarian, kronika luzea idazten dau, Mungiako kanporaketari buruz. Euskaraz irakurtzen ohituta gagozen kronika akritiko eta diplomatiko samarren aldean, Arestik beste zorroztasun bat erakusten dau idazkeran, bere balorapena, onerako, txarrerako zein dudarako, emoteko mihinpekorik barik. Kronikaria bera Aresti delako, eta kronikaren estiloa den modukoa delako, merezi dau zatorrik garrantzitsuenak liburu honetara ekartzea.

CONCURSO COMARCAL DE BERSOLARIS  
EN MUNGUIA

Ganó Juan Lopategui, en cerrada lucha con Embeita

Para cualquiera que desde Bilbao, remontando primero el alto de Santo Domingo y despues el menos alto de Artebacarra («el monte de la encina solitaria», como nos decía nuestro buen amigo, el gran bersolari arratiano y mejor bersopapelista Balisio Pujana, que con amabilidad nos condujo hasta Munguía en su brioso Fiat), el llegar a Munguía, la capital geopolítica de lo que los gacetistas han venido en llamar el Munguesado, pero que nosotros, los vizcaínos, llamamos el Chorierrri (o «tierra de pájaros»), es como reintegrarnos a una nueva Arcadia, alejarnos del humo de la ciudad, de la rectilineidad urbanística. (...) El domingo era día de feria en Munguía. Oír la cantidad de baserritarras que acuden a hacer sus tratos de ganados, día apropiado para celebrar una semifinal de bersolaris. La cual se celebró en la plaza misma, tanto munguies como de los pueblos de los alrededores. Lo cual dio a la plaza de Munguía una gracia y una sal verdaderamente pictórica, verdaderamente impresionista, que hubiera subyugado a cualquier Regoyos o a cualquier Zuloaga.

Al concurso se presentaron diez bersolaris. Y para Jurado estuvimos cuatro académicos correspondientes, y el que, sin serlo, es gran poeta y ha ganado el reciente concurso "Lizardi", el morgatarra

Antonio Bilbao. Los bersolaris presentados fueron: Florencio Zárraga y Pedro Castrejana, a quienes desde el primer concurso de bersolaris de Vizcaya no hemos encontrado superación alguna; Nicolas Ibarguengoitia, de Múgica, y Juan José Uriarte, de Rigoitia, a quienes les deseamos un espíritu de superación que les libre del pobre destino de los dos anteriores; Eusebio Olalde, más enjundioso, pero todavía, a pesar de su edad, sin formar; los hermanos Ortúzar (sobre todo, ese revoltoso duende que responde al nombre de "Iturri"), también de Múgica, a quienes auguramos un venturoso porvenir bersolarístico para el día que lleguen a medir y rimar bien los versos, puesto que lo demás ya lo tienen; Abel Embeita, hijo del gran Valentín Embeita y nieto del mayor Pedro de Embeita, el vasco a quien celebró Lugones; un muchachito guerniqués llamado Manuel Basabe y J. Lopategui.

Del anteúltimo tenemos que decir que nos impresionó vivamente la forma que tuvo de seguir el primer punto que se le puso, pero que después nos desimpresionó la timidez, la falta de seguridad y de formación como "plaza-mutil"; a pesar de ello, dada su juventud y el sentido que tiene del verso, le recomendamos el estudio de los grandes bersolaris de pasado (Chirrita, Frantzesca, Xenpelar); le deseamos una buena dirección en su formación (ya sabe dónde nos tiene aquí en Bilbao, si de ayuda le podemos servir), puesto que vemos en él una gran promesa.

Tras de los primeros ensayos, fueron eliminados de un golpe seis de los bersolaris, contendiendo en semifinales: J. Lopategui contra Basabe y A. Embeita contra P. Ortúzar.

De los dos primeros, salió vencedor, por amplio margen, Lopategui, quien demostró, como su exhibición anterior, una gran clase. Acaso contribuyó en su triunfo la corta edad de su contendiente.

Los otros dos semifinalistas estuvieron más nivelados. Hasta el punto de que el Jurado tuvo que proponer una nueva prueba, para determinar quién debiera seguir adelante. De todas formas, entre

ellos dos observamos una oposición de caracteres. Mientras Abel Embeita nos pareció demasiado tímido, "Iturri" nos pareció todo lo contrario. El primero mataba su buen oficio con su demasiada vergüenza, mientras el segundo dominaba al público con su buen cantar, su desparpajo, su gracia, ocultando detrás de ello su falta de oficio, que quizá le fuera muy fácil adquirir. Así quedaron tan igualados que solo un "pot", un ripio del segundo, determinó la exclusión de "Iturri".

Al final quedaron mano a mano Abel Embeita y J. Lopategui. En esta parte Abel tuvo una actuación sobresaliente, que en puridad de concepto le hubiese valido la victoria sobre su contricante, si éste no hubiese demostrado en las anteriores eliminatorias ser el mejor. En la forma de seguir el punto, Abel y Lopategui estuvieron igualados, mientras que en el tema sobre el ferrocarril de Bilbao a Munguía, si Abel le echó más gracia, más salero, haciendo reír sanamente al público y al Jurado, Lopategui midió mejor los versos, enriqueció más la rima, el punto, cosa que si el público no apreció, sí estimó, y gratamente, el Jurado. Con lo cual, y mirando sobre todo la anterior actuación de Lopategui, el Jurado concertó un desempate, el cual consistió en una prueba verdaderamente apreciable, bonita de veras, nueva en las lides bersolarísticas, hija de la buena idea de nuestro estimado Alfonso Irigoyen, más definitiva, creemos, que la de las cuatro rimas, que fue la de dar el punto final del verso.

Se sortearon, entre Abel y Lopategui, dos finales de verso de un canto humorístico de Iparragirre, del gran Iparragirre de nuestras calles, y los bersolaris debían cantar un verso, acabándolo en el punto impuesto. Quizá, como más conocido, a Lopategui le cupo en suerte una tarea más fácil, pero el verso que cantó, el verso que improvisó allí, delante del público y del Jurado, fue uno de esos versos marmóreos, uno de esos versos que restarán en la memoria del pueblo, verso que a continuación transcribimos y que quedará en la antología de nuestra poesía amatoria, verso que mejora el origi-

nal Iparragirreano, verso cuya traducción no puede expresar toda la prestancia, la elegancia, la poesía que Juan Lopategui supo darle:

Enamoratu egin nintzan ni  
behin udabarriko lorez  
oso dotore zegoalako  
goitik beheraino kolorez.  
Ezkondu nintzan zoritxarrean  
bihotz erdiko amorez  
nere gustua egin nuen da  
orain bizi naiz dolorez.

(Me enamoré una vez  
de una flor primaveral  
por ser muy pulida  
toda vestida de colores.  
Por mi desgracia me casé  
Con complacencia del corazón  
hice mi gusto,  
hoy vivo doloridamente)

Este solo verso le hubiese valido a un Chirrita, a un Xenpelar, cualquier campeonato. También le valió a Lopategui el campeonato comarcal de Munguía, la copa donada por el Ayuntamiento de dicha localidad y el dinero en efectivo, destinado a tal fin por la Caja de Ahorros Vizcaína. *Gabriel Aresti.*

Lau eskualdeetako kanporaketak eginik, finalerdia abuztuaren 20an jokatu zen, Gernikan. Saio honen grabazino bat Euskadi Irratian aurkitu dogu, hain zuzen, kopiatzen eskuzabal itzi deuskuena.

#### Gernika 1962-VIII-20

(Finalerdia. Euskadi Irratiko grabazino bat)

Bertsolariak: Juan Mugartegi, Juan Ibarzabal, Julian Martitegi, Jose Alberdi, Jose Mari Arregi, Basilio Pujana, Balendin Enbeita, Ireneo Ajuria, Jon Lopategi.



Alfonso Irigoienen artxiboa. XDZ

1962ko uztailaren 15ean, Mungian egindako saioa. Epaimahaian ageri dira Augustin Zubikarai, Aita Martzel Andrinua eta Gabriel Aresti.

Aurkezlea: Alfonso Irigoien

Bederatzi bertsolarion zerrendan, Azpillaga eta Sardui falta dira, aurreko urteko txapeldun eta txapeldunorde hurrenez hurren izanik, finalera zuzen pasatuko zirenak. Urte honetako txapelketatik, grabazino hauxe beste dokumenturik ez dagoenez gero, (finalekorik ez dogu ezer aurkitu), osorik emongo dogu bera, agurrak eta guzti, orduko bertsolaritza zelan zebilen antz bat emoteko.

#### AGURRAK

*J. Mugartegi*

Agur herriko agintariak  
eta jaun agurgarriak  
gure juradu bihotzekoak  
entzule maitegarriak.  
Gaur ekarriko zituan hona  
bertsoaren egarriak  
egarri hoiek asetutzeko  
guk ditugu iturriak  
holako egun bat merezi zuen  
Gernika zoragarriak.

*J. Ibarzabal*

Zerua hemen hurren dagola  
ez daukat bate dudikan  
itzaltzen ez dan argi eder bat e  
badaukazute Gernikan.  
Jaiegun eta astelehenean  
ez dute eiten lanikan  
halan da ere ez dadukate  
auzo-herritan zorrikan  
Euskal Herriak ba ote dauka  
txoko ederragorikan?

*J. Martitegi*

Euskal Herria bihotzetikan  
beti izandu det maite  
Gernika aldeko euskalzaleok  
honuntz etorri zerate.  
Ni aspaldian egondu gabe  
gaur ikusten nauzute  
txoko zoragarri honetan  
ondo bizi al zerate?

*J. Alberdi*

Euskerazale anai-arrebak  
etorri gera honera  
guk jartzen dogun bertso argala  
indartsu txalotutzera.  
Hau ikusita zeinek ez hartu  
poz haundi bat bihotzera  
zuek goratzeko ezin dodanez  
barrutik hitzik atera  
neuk emandako besarkada bat  
hartu'izue danok batera.

*J. Arregi*

Lehendabiziko agurtzen ditut  
lagun euskaltzaindikoak  
eta hurrena juzgatzera hemen  
dauden epai-mahaikoak.  
Anai-arreba, herri ta erbeste  
honera bildutakoak  
arratsalde on opa nizuke  
daizutela Jaungoikoak.

*B. Pujana*

Agur euskaldun entzule zintzo  
eta agur alkatea  
epaikaria ta euskaldun danon  
arbola santu maitea.  
Aurten gogorra izango dogu  
hemengo txapelketea  
gizonarentzat gauza handia  
txapela irabaztea  
askoz gehiago izango dogu  
behar dan legez hastea. (ez da ondo entzuten)

*B. Enbeita*

Errekatxoak jaisten diran lez  
beheko ibairuntz apurka  
bertsozaliak gaur Gernikara  
etorri dira milaka.  
Bertsolariok hartu gaitube  
anaitasunez txaloka  
geuk ere bardin opa dautsogu  
geure maitasun besarka  
baina zuretzat apartekoa  
bihotz erdiko Gernika.

*I. Ajuria*

Agintari ta anai-arrebok  
pozez dodaz besarkatzen  
euskaldun oroi gauza bat nator  
zuon artera eskatzen.  
Errezkeriak alboan itzi  
hasi geuriaz saiatzen  
ta galdutako ohitura onak  
eratu eta goratzen  
era horretan Euskal Herriak  
hasi leitekez loratzen.

*J. Lopategi*

Arratsalde on bihotz erditik  
gernikar zahar ta gaztiak  
zelako poza emoten dauskun  
danok alkar ikustiak.  
Zuen eskutan ipinten doguz  
geure amets ta ustiak  
batzuk Bilbora juango dira  
berton gelditu bestiak  
baina gaur zuen gustua egin  
gura genduke guztiak.

*Balendin Enbeita,*

*Ireneo Ajuria eta Jon Lopategi*

Puntua: *Arduak ematen dau  
laster aditzera*

*B. Enbeita:* Badaezpada norbaitek  
kontuz gu ai gera.  
Sarritan joan arren  
txurrut egitera  
buru argiak goaz  
gu beti etxera.

Puntua: *Buru galduak ez dau  
txapel beharrikan*

*I. Ajuria:* Askok ez du izaten  
horren indarrikan.  
Guk ez degu izango  
bate hasarrikan  
hau hartu ezta ere  
nik ez negarrikan.

Puntua: *Zenbat indar daukazun  
behar neuke jakin*

*J. Lopategi:* Hori ikusko degu  
oraingo probakin.  
Zahar ta gaztiak dagoz  
hemen alkarrekin  
gauz haundia ezin egin  
gazte pobriakin.

Gaia: "Balendin Enbeita izango da ijito bat. Ireneo Ajuria dendari bat eta Juan Lopategi guardia zibila".

*B. Enbeita*

Mundu honetan ijitoaren  
izenak garrantzi dauko  
dendariak be beren aldetik  
berena dau babestuko.  
Guardia Zibila barriz beti  
gure paltak hartutzeko  
baina hau be hautsiko jaku  
bi biok lotu orduko.

*I. Ajuria*

Zu beti zagoz gau eta egun  
geratutzeko aruan  
denda hontatik zer daruazu  
ijito kolko barruan?  
Gauza guztiak apain ditudaz  
baina ez dauz seguruan  
bakizu honek zer egin daben  
nahi zun lekura eruan.

*J. Lopategi*

Juzkatutzera noa oraintxe  
dendari ta ijitua  
nereganantza ekarri dabe  
biok e diskusiua.  
Bat eta bestek ostutzerako  
daukate afiziua  
alkarraz lotu eta kartzelan  
biak sartzera gaur nua.

*B. Enbeita*

Guardia zibil hau hemen hasi da  
fanfarroitzuen antzera  
geure gauzetan oindinokarren  
gu zuzen, ba, ari gera.  
Baldin gu geure gauzak bagoiaz  
hemen oker egitera  
orduantxe bai etorri zeinkez  
gu kartzel hortan sartzera.

*I. Ajuria*

Badakizue denda honetan  
jaso izan diran lorrak  
nahi daben gauza eiten sartuta  
dabiltz ijito gogorrek.  
Ein daustiezan kalte larriak  
ez dirade hain koxkorrek  
baina nok pagauko dituz hemen  
dendan egindako zorrak?

*J. Lopategi*

Lapurretia eiteko ustez  
etorri zinan mundura  
gauza horretan nere ustian  
bardina dute itxura.  
Baina oinguan alkarren kontra  
ez dira arkitu gustura  
kopla guztiak alde utzi ta  
biok kartzelan barrura.

*B. Enbeita*

Denderu honek ijitoari  
emoten dautsa kulpia  
guardia zibilak hartuten dauku  
hemen bie arduria.  
Esan lei biak daukela hemen  
neu apurtzeko guria  
eskatu beharra daukat hemen  
alderako justizia.

*I. Ajuria*

Zer jaso zuan nere etxian  
ez da hainbeste denpora  
epai horixe emoteko gaur  
gauza bat jatort gogora.  
Oraintxe hemen aurkitzen gera  
hiru gizadi batara  
zigur azote onak emonda  
bialdu herritik kanpora.

*J. Lopategi*

Abogaduen itxuran biak  
ondo dakite eiten hitz  
guardia zibilan aurrean jarri  
ta argudioan dabiltz.  
Holangoakin gure langoak  
larri eta estu gabiltz  
mundu honetan ze izango litza  
guardia zibilik ez balitz?

Balendin Enbeitari bertsoaren azkena: "Errespetua ahaztuta itxi / zun amaren sabelean".

Jakin beharra dogu munduan  
zertako etorri garean  
bizi beharra hemen daukagu  
goiko Jaunen babesean.  
Lotsa gaberik ibili eta  
bera galdu ein zuan  
errespetua ahaztuta utzi  
zuen aman sabelean.

Ireneo Ajuriari azkena: "Gero juezak irakurri zun / sententzia bat tristia".

Edariagaz mundu honetan  
euki behar da bistia  
zentsun galduaz bat ikusi det  
izanagatik gaztia.  
Ez du balio sasoi onian  
modu honetan hastia  
gero juezak irakurri zun  
sententzia bat tristia.

Juan Lopategiri azkena: "Gezur guziak izan ziraden / nere buruaren kaltez".

Ezkondu nintzan egun batian  
neska dotore ta maitez  
zelako tranpa ibilko nuan  
orain konturatu zaitez.  
Gaur gustorago jungo nitzake  
emazte hortatik apartez  
gezur guziak izan ziraden  
nere buruaren kaltez.

Puntua: *Ardoak ez zuela  
zenion indarrik*

I. Ajuria: Mesede gitxi eta  
batzuntzat alperrik.  
Horregaitik uste dabe  
ez dogu okerrik  
askok ez du izaten  
arduan beharrik.

Puntua: *Goizetik egunero  
hasten naiz lanian*

J. Arregi: Ez det damuik hortarako  
sano nagonian.  
Sekula ez naiz ibiltzen  
era alperrian  
gero zerura nua  
zuzen-zuzenian.

Puntua: *Nolakoa izaten da  
gerran ondorea*

J. Lopategi: Betiko galdutzen da  
gure umorea.  
Txarto aberatsa ta  
txarrago pobrea  
bakean bizitza  
danontzat hobe.

Gaia Lopategirentzat: "Bertso bitan kantatuko du ama batek sehaskan daukan haurrari esango liokeena".

Ezkondu eta beti jatorku  
umilaren arazua  
nere bihotza arkitutzen da  
maite honekin presua.  
Laguntasunen beharrez zaude  
bihotz erdiko goxua  
amarik gabe nola litzake  
mundu honetan gaixua?



Ezkundu nintzan egun batian  
gazte denporan ta garaiz  
mutil polit bat izandu nuan  
gertaera oso alaiz.  
Bere penetan izandu arren  
egun askoetan ta maiz  
ene maitia ordu guztitan  
zuretzako biziko naiz.

**Juan Mugartegi eta Juan Ibarzabal**

Puntua: *Bakean bizitzeko  
Jaun zerukuari*

J. Mugartegi: Lehendabiziko grazia  
eskatu berari.  
Gaur egin behar detena  
horixe da neri  
eskatzea libre dago  
eman leikenari.

Puntua: *Hegazti ta txakurrak  
txupatzen hazurrak*

J. Ibarzabal: Alfonsok esan ditunak  
ez dira gezurrak.  
Haiek hortik ordaintzen  
dituzte beren zorrak  
ni hortan jarriko ote naiz  
ez nago bildurrak.

Gaia: "Biak dirua jokatu dabe pelota partiduan.  
Mugartegik urdinen alde eta Ibarzabalek gorrien  
alde. Gorriek irabazi dabe, baina jendeak uste dau  
tranpaz izan dala".



1962ko Bizkaiko txapelketako finalistak.

Ezkerretik eskumara: I. Ajuria, J. Ibarzabal, D. Sardui, J. Lopategi, J. Arregi, J. Mugartegi, J. Azpillaga eta B. Enbeita.

*J. Mugartegi*

Pelota partidua izaten da  
gustagarria danetan  
ikusi degu nola saiatu  
diran gaurkuan benetan.  
Zein baino zein hobetuaguak  
beso eta indarretan  
eta gorriak irabaztunak  
azken orduan tranpetan.

*J. Ibarzabal*

Lagun maitea alperrikan zu  
ez zazu zabal agorik  
aspaldixotik ez det aditu  
adiskide holakorik.  
Zeure denboran ikusi dozu  
pelotarien jokorik  
hioen tartean ez ohi da izan  
tranpa pixka bat bakorik.

148

*J. Mugartegi*

Pelotariak izaten ditu  
beti bere zereginak  
baina gaurkoan ikusi degu  
tranpa haundiak eginak.  
Gorri aldeko jokalaria  
ez dira azaldu finak  
ondo jokatu izan bazuten  
irabaztunak urdinak.

*J. Ibarzabal*

Nere lagunai lehen ere esanik  
makinatxo bat holako  
orain koplakin hementxe dator  
dirua galdu dulako.  
Aurkitzen zera buru galduta  
patrikaratikan plako  
holan bazabiz hartu behozu  
gero're hainbat holako.

*J. Mugartegi*

Bi aldetatik ikusi deguz  
gogor jokatzeko jarriak  
ta uste gabe jausitzen dira  
sarri holako harriak.  
Bate uste gabe egin dituzte  
gaur tranpa negargarriak  
horregatikan betiko galdu  
dirade hemen gorriak.

*J. Ibarzabal*

Ikusten nago nolakua dan  
gizon honen korajia  
izan zaitez zu joko kontuan  
umil eta suabia.  
Gorriak azaldu dute hortxe  
beren abilidadia  
besteak irabaztekoan e  
izan behar zuan hobia.

Azkena Mugartegiri: "Negu gogorrik egiten badu /  
laster mundutik adio".

Negu gogorra makalarentzat  
jartzen da gauza serio  
eta indarrik ez daukan batek  
ez dauka erremedio.  
Gaixoarekin hasi ezker  
gorputzak ez du balio  
negu gogorrik egiten badu  
laster mundutik adio.

Azkena Ibarzabali: "Mundu honetan ezin bizi ta /  
ez degu joan nahi bestera".

Oraintxe nator hemen gauza bat  
berria da ta ikastera  
igual sartzen gera gorrotoz  
izugarritzko nahastera.  
Kilo mordoxkak azaltzen dira  
ia urtetik urtera  
mundu honetan ezin bizi ta  
ez degu joan nahi bestera.

Alfonso Irigoienen epaia bertsoan:

Eginda dago gaurko egunez  
erabagi behar genduna  
sei aurrerantza joan dirade  
beste saioa biguna.  
Domekan Bilbon izango degu  
burrukarako eguna  
Gernika hontan gelditu zaigu  
Lopategi txapelduna.

Ikusten denez, grabazioa erdizkakoa da, zerrendan eta agurretan agertu diren bederatzi bertsolarietarikoz batzuren (Martitegi, Alberdi, Arregi eta Pujanaren) saioak falta dira eta. Bakarrean be, Lopategirena bakarrik agiri da.

Lopategiren agurra:  
Eskerrik asko bihotz erditik  
hemen zaozien danari  
ez neban uste hainbeste txalo  
joko zenduela neri.  
Neure kopa hau eskeintzen dautsat  
zeruan detan aitari  
bizi balitza hemen legoke  
gogoz behintzat bertsolari.

Alfonso Irigoien: *“Orain Juraduak erabaki behar dau zer egin. (Handik gerotxoago). Bilbora doaz Ireneo Ajuria, Juan Mugartegi, Jose Maria Arregi, Juan Ibarzabal, Balentin Enbeita eta Juan Lopategi. Datorren domekan, arratsaldeko 17:00etan, Bilbon egingo da Bizkaiko azken txapelketa nagusia. Tokia da Institutuko patioa, ederra, eta ez da ezer kobratuko. Miserikordiaokek, gainera, silla batzuk jarriko dituzte. Eta joan mesedez”.*

### Finala

Finalaren beraren ezelako dokumenturik ez dogula aurkitu esan dogu gorago, baina, gitxienez, eta zorionez, badaukagu kronika nahikoa luzea, Alfonso Irigoienek idatzia. Bizkaiko txapelketa

barruko testuak bizkaieraz idazten bazituen, hau gipuzkeraz, edo zelanbait, orduko batuan idatzi eban, Euskaltzaindi mailako txosten legez edo. Hona, hitzez hitz, 1962. urteko Bizkaiko bertsolarien finalari buruzko Irigoienen kronika:

Publiko ugari zegoela, joan dan igandean, Bilboko Institutoko patioan, Bizkaiko bertsolarien bosgarren azken txapelketa nagusia egin zan, Euskal Akademiak antolatuta. Altabozak oso ederki jarriak zeuden eta, aurrekaldean, bertsolariantzat, leku eroso. Gainera, Institutoa nola kulturazko zentro bat dan, oso toki egokia zan azken txapelketa nagusirako, bertsolariak herriaren kultura biziki ondo gordezten baitute.

Juradua hurrengo jaun hauek osatu zuten: Alfonso Irigoyen, saioa gidatu zuena, Augustin Zubikarai, Eusebio Erkiaga, Gabriel Aresti, Aita Antonio Zabala, jesuita, Jose Etxeandia, Durangoko Santa Ana parrokiako erretorea, eta Aita Marzelo Andrinua, pasionista. Aurrekaldean, ohorezko mahaipuru bat zegoen, jaun hauek osatua: Mario Grande, mutilen Institutoko zuzendaria, Juan Bautista Merino Urrutia eta Santos Pagadigorria, Bizkaiko kultura Batzarrekoak, Nazario Oleaga zanaren seme Jesus Oleaga, Lezaun Leguizamon, eta Luis Maria Barandiaran.

Bilbon kantatzeko klasifikatuta zeuden zortzi bertsolariak presentatu ziran: Juan Azpillaga, igazko txapelduna, Deunoro Sardui, igazko bigarrena, Juan Lopategui, Juan Mugartegi, Juan Ibarzabal, Ireneo Ajuria, Jose Maria Arregui eta Valentin Embeita.

Alfonso Irigoyen jaunak egindako hitz batzuekin hasi zan txapelketa. Tema hastera zijoala eta bertan jokutzen zana esan ondoren, eskerrak eman zituen, patioa utzia izan zalako, egingo zan txapelketarako oso egokia. Eskertu ere zituen Bizkaiko Kultura Batzarreko jaunak, Bizkaiko Diputazioa, Bizkaiko Ahorro Kaxa, txapelketak egin diran herrietako Ayuntamentuak, juradua, bertsolariak, eta publikoa, bere afizioz eta bertsolarako gogoarekin, txapelketari berotasuna eman baitie, urtetik urtera kalidadean goruntz bultzatuaz bertsolariak.

Eta txapelketa hasi zan, orain artean egin diranetan, gorengo mailan jartzeko bezelakoa. Juraduak gauza txikiak ere kontuan hartu behar izan zituen, erabakia ahal zanik ondoen emateko, hain ondo saiatu baitziran. Pena ematen zuen atzean uztea bertsolariak. Baina txapelketaren legeak agintzen zuen eta erabakiak hartu egin behar ziran. Txapelketa hasi baino lehen, Alfonso Irigoyen jaunaren eskabidez, bertsolari guztiak ohituraz kantatzen dan agurra egin beharrean, Nazario Oleaga zanaren omenez, bertso bana kantatu zuten. Lehendabiziko ekitaldian, aurrera pasatu ziran Juan Mugartegui, Juan Lopategui, Juan Azpillaga eta

Deunoro Sardui, eta, azkenerako, tema gogorretan, Juan Lopategui eta Juan Azpillaga gelditu ziran. Juraduaren erabakia ez zan aho batez hartu, baina, aurtengoz, txapela Juan Lopateguiri emateko asmoa atera zan nagusi. Egia esan, iritzia txapelketa bakoitzean kantatzen dana kontuan edukita ematen da eta, bateratsu daudenean, aurreko urteko titulu nagusiagoak bultz egiten du. Bertsolariak bere historia landu behar du urteen buruan. Eta lortu dan historia ona betiko da.

Entzuleak ezitan egon ziran, bertsolarien ateraldi bikainak entzuten, bai gai sakonak aditzen zituztenean, eta bai umorezko ateraldiak, askotan besteak bezin sakonak.

Juan Lopategui gelditu zan Bizkaiko txapeldun eta Juan Azpillaga bigarren. Biak joango dira, Bizkaia-  
ren izenean, Victoria Eugenia Teatroan, Donostian, urtearen bukaeran egingo dan Euskal Herri osoko txapelketara. Juan Bautista Merino Urrutia jaunak eman zion txapeldunari Bizkaiko Diputazioko kopa ederra eta bigarrenari Bizkaiko Aharro Kaxakoa, publikoaren txalo artean. Alfonso Irigoyen jaunak, bertso batean, juraduaren erabakia kantatu zuen eta txalo asko entzun ziran, jakin zanean.

Juan Lopateguik lehendabiziko aldiz kantatu du azken txapelketa nagusi batean eta, denbora laburrean, aurrerapide haundia egin du, bertsolari bezela. Bilbon agertu da eta beste guztiak atzean utzi ditu. Ikasbide ederra bertsolari gaizteentzat.

### Bizkaiko txapeldunarekin hizketan

Izenburu honegaz, Aita Villasantek Jon Lopateguiri egindako elkarrizketa bat gorde eban Irigoienek, bere paperen artean. Orrietan ez da liburu edo aldizkariaren izenik agiri. Elkarrizketaren zati batzuk hona ekartzea interesgarri begitandu jaku, bai Lopateguiren, urte berean, barrenetik goienaraino disparatu zen figura barri, diferente eta modernoaren lehenengo elkarrizketa garrantzitsua izateagaitik, bai elkarriztegilearen beraren kategoriagaitik. Urte honetan, Aresti kronikari, Villasantek



Alfonso Irigoyenen artxiboa. XDZ

Balendin Enbeita. Atzean, J. Arregi,  
J. Mugartegi eta J. Azpillaga.

te elkarrizketagile, pertsonaia gailenak batu ziren bertsolaritzaren ingurura. Hemendik aurrerantzakoa elkarrizketa luze haretako pasarteak dira:

Periodiku eta radioetatik jakin genduen berria: nola, joan dan aguztuan, Bilbon egin zan bertsolarien txapelketa, eta Jon Lopategi atera zala txapeldun. Hurrengo hila izan nuen Gernika aldera osterata egiteko ere, eta orduan ezagutu nuen txapeldun gazte berria. Foruako gure komentura etorri zitzaiztan. Aita Felix Bilbao, Aita Azurmendi eta Anai Billar ere han ziran nerekin. Oso gaztea ematen du. Badu oraindik halako ume tankera. Bizkorra, luze-laburrez, txikia.

- *Izen-abizenak?*
- Jon Lopategi.
- *Urteak?*
- Hogeita zortzi.
- *Zure jaioterria?*
- Areatza, Muxikako auzoa.
- *Areatza hortan, bertsolari asko dagoela entzun izan dot. Han perretxikoak bezela urteten ei dabe bertsolariak.*
- Bai, afan handia dago han bertsoetarako.
- *Zenbat bertsolari zaoze Areatzan?*
- Konkursora presentaurikoak: Valentin Enbeita, Abel semia, ta txikia be presentaurikoa da: Jontxu. Gero, Iturri anaia biak, bost. Sardui, sei. Ajuria, zazpi. Ibarquengoitia, zortzi. Ta neu, bederatzi.
- *Bederatzi bertsolari auzo kaxkar batean, horraitio! Ta zelan etorri jatzu zuri zaletasun hori? Oraingo konkursoekin? Edo lehendik ere ba al zenduan?*
- Lehen be baneukan. Bertsozalia beti izan naiz. Enbeitaren bertsoak eukitzen nituan nik danak. Idatzi be apur bat egin dot lantzean behin.
- *Konkursoetan esaniko bertsoaren bat edo beste botako al zenduke hemen?*
- Bai! Niri horreek ez jataz akordetan. (...) Beste baten, lau rima hauek ipini euskuezan: *fama, dama, ama, darama*. Nik modu honetara atondu neban:

Bizi guztian euki izan dot konkistadorien fama nahizta hasarrez eukiagaitik etxian aita ta ama. Herri honetan ezaututzen dot maitatutzen dotan dama baina ni pobre arkitzen naiz ta aberats batek darama.

- *Hortxe egin zendun zuk puntu itzela. Polita izan zan hori gero!*
- Beste behin, azkeneko puntu hau ipini eustien: "Orain glorian aurkitutzen da / aingeruekin zeruan". Ta nik abestu nebana izan zan:  
Bere aitaren akordua dago  
Lopategiren buruan  
bizi guztia pasatu neban  
beti bere inguruan.  
Nahi nuke izan oso santua  
bera genduan moduan  
orain glorian aurkitutzen da  
aingeruekin zeruan.


Beste behin, amaitukeria ipini eustien: "*kaltez*". Eta honela konpondu neban:  
Ezkundu nintzan egun batian  
neska dotore ta maitez  
zelako tranpak ibilko nitun  
orain konturatu zaitez.  
Ondo pozikan eongo nintzake  
andra hortatik apartez  
gezur guztiak izandu ziran  
neure buruaren kaltez.

- *Noiz hasi zinan konkursoetara azaltzen?*
- Orain dala hiru urte. Mungian presentau nintzan ta hirugarrena atara neban. Gero, igaz, Mungian bertan irabazi neban kopea. Gero, Gernikaren geratu nintzan eliminauta. Aurten, osterata be irabazi behar Mungian, "Gernikara etorteko. Ta gero, Gernikaren be bai ta Bilbon be bai irabazi dot. Abenduan, Donostiara joan behar dot, San Tomas

inguruko festetan. Lehenengoa ta bigarrena goaz hara, hau da, neu eta Azpillaga.

- Herrietako jaietara be deituko deusue, ezta?
- Atzo be Narbarnizen izan nintzan. Sardui, Iturri ta neu izan ginan.
- Ta nun egiten dozu hobeto? Herrietan ala konkursoetan?
- Nik, konkursoetan beti hobeto. Konkursoetan, beti esaten deuskue: hauxe ta hauxe.
- Ba, horrek lotu egingo dau.
- Lotu bai, baina idea emon be bai.
- Beste anaiarik ba al daukazu?
- Bat, Amerikan.
- Zuk bertsoakin baino gehiago irabaziko dau harek han.

- Bai. Irabaziagaitik bertsoetara ezin leike joan. Bilbon, mila ta berrehun bakarrik emon eustien.
- Bueno, baina horrek emon deusue ospea, fama. Ta fama horrerik eskerrak, herrietatik be deitzen deusue; ta beti irabaziko dozu zeozer.
- Herrietan, mila errial ta bazkaria. Hirurehun peze-ta be kobretan dogu lantzean behin. Hil honen hogeta hamarrien goaz lurretara Azpillaga, Enbeitata ta neu. Irigoienek bota euskun errekadue Akademiatik: larehun pezeta ta bazkaria.
- Bederatzi puntuko bertsoa oso gatxa dala dinue.
- Gatxa? Idea eramaten goitik behera da hor gatxa.



Ta berehala asmatu ta bota euskun bederatzi puntuko bat:

Bederatzi puntuan  
 behar dot oin ekin  
 nahizta gauza horretan  
 asko ez jakin.  
 Zelan nagoan hemen  
 fraile koadrilakin  
 zerbait armauko dogu  
 behinguan eurakin  
 buru argiakin  
 gaztetasunakin  
 nire indarrakin  
 eta goguakin  
 halan da guzti ere  
 gauza asko ezin.

- Bizkaitarrak izanda be, bertsoak egiterakoan, beti sartzan dozue gipuzkerazko zerbait. Zergaitik da hori?
- Idatzita dagozan bertsoak (Xenpelarrenak-eta), ia danak gipuzkeraz dagoz, eta bertsolaria beti ibiltzen da horiek irakurtzen eta horietatik ikasten. Hortik dator hori. (...)

Hona hemen beste muestra eder bat. Lopategiren tankera bihurri-arin eta zorrotza bertan agiri da ondoen:

(Amerikanu bati izenburuko hiru bertsoetarik lehenengoa jasotzen dogu hemen)

Gernikan agertu da  
 amerikanua  
 hainbat urte mendian  
 eginikua.  
 Poltsa beterik eta  
 buruan txanua  
 nobia bat bilatzen  
 dabil arranua.  
 Ikusi mundua  
 ta hartu modua  
 badu engainua  
 ta diru soinua  
 baina neskakin ezin  
 egin tratua.

**Arranua:** barrabana, okerra, maltzurra.

Ta honenbestez agurtu gendun gure txapeldun berri-gaztea. Zorionak, eta urte askotan, Lopategi.

### Gernika 1963-VIII-19

Urte honetan ez zen Bizkaian txapelketarik egin. Jaialdi berezi batzuk egin ziren ordezeko legez. Euskadi Irratiko grabazinoetan, jaialdi hauxe agertu da, nahiz eta ez osoa, eta zati batzuk hemen emoteari egoki eritzi deusagu, urte hareen erakusgarri. Gernikako Udaletxe aurrean, arratsaldean, Alfonso Irigoien gaijartzaile zela, 1962ko txapelketako finalean kantatu ebenek parte hartu eben: Jon Lopategi, Jon Azpillaga, Ireneo Ajuria, Balendin Enbeita, Deunoro Sardui, Juan Ibarzabal, Joseba Arregi, Jon Mugartegi.

Agur bana kantatu ondoren, Irigoienek honako gaia ipini eutsen zortzirei:

*“Zortzi bertsolariak jarriko doguz banaka, eta ea nork esaten dituen gezur handi eta gehienak”.*

*J. Mugartegi*  
 Euririk ez digu egin  
 bate ere aurten  
 eta belarrak ere  
 ez du inun urten.  
 Zer pasatu danikan  
 ez diot igarten  
 Gernikako arbola  
 sagarrak ematen.

*I. Ajuria*  
 Aingeru bat jua zan  
 traje bat ostuta  
 zeru ta lurra dira  
 alkarrak nahastuta.  
 Andre bat gizona hiltzian  
 jarri zan poztuta  
 lur azpiko hila ere  
 jarri zan piztuta.

*D. Sardui*

Zortzi mila urteko  
gizontxu bat bazan  
behin gosetuta ilargira  
jaten jua zan.  
Aidean aker ta idiak  
beti dabiltz dantzan  
hau ikusi ez dabenik  
bat be ez dago plazan.

*J. Lopategi*

Gure idiak txahal bat egin du  
bera baino haundiagua  
aurretik dauka buztana eta  
atzetik dauka ahua.  
Bizkar gainian ibiltzen da  
eta gorantza zankua  
buzterrirako ederra da ta  
behitzako haztera nua.

*J. Arregi*

Ni ilargitik etorri naiz gaur  
lehendabiziko gizona  
eta dadukat beraz neronek  
tripa Luze-haundi izena.  
Nik banekien handik honuntza  
asko etortzen ebizena  
ta gaur Gernikan tragau behar det  
hamar erraldeko zezena.

*J. Azpillaga*

Gaurko zahar jendea ere  
ez dago txit mantso  
notizi hau jakingo  
zenduen akaso  
plaian ikusi ditut  
hamazazpi atso  
bainuko trajiakin  
bainatutzen atzo.

*J. Ibarzabal*

Hamar arruko harri bat  
sartu zait begian  
mingainan det hartu ta  
bota det aidian.  
Indar asko egin gabe  
sei metro bidian  
egi hori sinistatu  
dutela herrian.

*B. Enbeita*

Ilargian bizi naiz  
joan dan aspaldiz  
hango lurrak bustiaz  
bekokiko izerdiz.  
Itsasoan ibiltzen naz  
hara ta hona zaldiz  
egi honek esaten  
nabil lau gizaldiz.

*Juan Ibarzabal eta Balendin Enbeita*

Puntua: *Etxean otso baina  
kanpoan usoa*

*J. Ibarzabal:* Hargatikan eman det  
honuntza pausoa.  
Zuk esan duzuna netzat  
ez zala gozoa  
ez ote naiz laguna  
gizon eroso.

Puntua: *Aita Santu zaharra zan  
gizon atsegina*

*B. Enbeita:* Mundu honetarako  
danentzat bikaina.  
Ondo ibili eban  
beraren mingaina  
ez da barriz etorko  
beraren bardina.



Puntua: *Indarra ta dirua  
gorde egiten dira*

*J. Ibarzabal:* Alfonso aspaldi dago  
gauz horrei begira.  
Noiz ikusiko ote degu  
honen erretira  
jaiero hortxe dabil  
txanpon zaharrei tira.

Puntua: *Etxe bat egin nuen  
pentsamentuakin*

*B. Enbeita:* Nik baino hobeto Alfontso  
hori dausku jakin.  
Ha egiten ein eban  
hamaika ahalegin  
hantxe pozik bizi da  
Enbeita Balentin.

Irigoien: *"Ibarzabal izango da neska gazte eta galant  
bat, eta Enbeita taberna zuloetan ibiltzen dan muti-  
la. Emakumeak dinotso indar gehiago daukala mutil  
askorentzat ardaauak neskak baino".*

*J. Ibarzabal*

Aizu mutila, ez nator orain  
zuregana gezurrian  
baldar samarra ikusten zaitut  
nik hortxe iluntze aldian.  
Itsusi samar ematen dezu  
zuk horrelaxen kalia  
zu bezelako senarrik ez det  
maitatzen aldemenian.

*B. Enbeita*

Neska gazte hau ikaratzen da  
ni tabernara sartuta  
eta itsusia nagola dino  
hori da gezur galanta.  
Nor juan leike nesken ondora  
bere itxura ikusita  
aspaldi hontan pinturaz dabil  
gainera prakak jantzita.

*J. Ibarzabal*

Mutiko haxe ezin liteke  
ondo esanaz erosi  
hegal guztitan aurkitutzen da  
narratsa eta itsusi.  
Berak uste du gauza horrekin  
baditula mila grazi  
baina ni ez noia zugaz ezkontzen  
juan zintek ez igasi.

*B. Enbeita*

Badaezpadan be ez zauz neskak  
ezkontzarekin ahaztute  
polito samar etorten zera  
jantzi itsusiak hartute.  
Nigaz ezkontzeko bildur zara  
eta ez egon damutute  
nigaz ez zaitetz etorri lagun  
harik neuk dei egin arte.

*J. Ibarzabal*

Mutiko haxe beti daukagu  
diebru zaharrez betia  
dabilen leku guztitan berak  
okerra edo kaltia.  
Taberna hoitan sartuten da ta  
eten bako zurrutia  
nik nahio nuke hurrean baino  
zurekin gaur urrutia.

*B. Enbeita*

Zu bere aspaldi egiten zaitut  
zelan zabizen ezautu  
ni zuregana etorko naizen  
asmuaz ez da larritu.  
Ardauai trago egiten dautsat  
gaur arte ez jat damutu  
zurekin ezkondu baino hoba det  
hemen mutilizahar gelditu.

*Joseba Arregi eta Jon Azpillaga*

Puntua: *Desgrazi bat pasa zan  
Costa Cantabrian*

*J. Arregi:* Seguru ibiliko zan  
hori motorrian.  
Erdi edana eta  
martxa haundian  
holako asko dago  
gaur Euskal Herrian.

Puntua: *Gauza onik ez dakar  
ezinikusiak*

*J. Azpillaga:* gauza hori aspaldian  
gaude ikusiak.  
Gaitz bera arkitzen du  
gaur mundu guziak  
guk ez dadukagu ta  
Jaunari graziak.

156

Puntua: *Zentzun gabeko franko  
bagera munduan*

*J. Arregi:* Ai jausiko bagina  
bakoitza kontuan.  
Baino ez dakigu inok  
kulpa hori nok duan  
eta ibili hementxe  
ahal degun moduan.

Puntua: *Aita Santu berria  
gizon seriua*

*J. Azpillaga:* Kristinauarentzako  
dun amodiua.  
Aita Santu izateko  
mundura jaiua  
bizirik dagon arte  
ia zerura igua.

Irigoién: "Arregi eta Azpillaga itsasoko ontzi batean zihozten eta ontzi hori hondatu egin da, eta biak ur gainean gelditu dira. Bai bata eta bai beste ohol zahar bateri helduta dagoz, baina biak

*kontuan jausi dira, biek oholari eutsiz gero, hondoratu egingo dirala eta oholak bat bakarrari baino ezin eutsi deusala, eta alkarregaz bertsotan hasten dira, ea nor geratuko den oholagaz".*

*J. Arregi*

Garai estuan aurkitzen gera  
oraintxen ni ta laguna  
ordu estua oso da hauxe  
biori heldu zaiguna.  
Berak bezela neuk ere daukat  
bihotza oso biguna  
eta hondora nor joango geran  
zuk esan zazu laguna.

*J. Azpillaga*

Hau da trantze bat bildurgarria  
guregana iritsita  
biok itozteko zoriakin  
uren gainera jausita.  
Ni itotzea hobeko dala  
lagun, nago iritzita  
ni ere berdin hilko nitzake  
zu hondoratzen ikusita.

*J. Arregi*

Orain aurkitzen gera, laguna  
oso era itsusian  
baino Jainkua sarturik daukat  
sakon nere bihotzian.  
Ta nahiago det badaezpada ere  
neu hondoratu naitian  
nagualako hiltzeko gertu  
Jaungoikuaren grazian.

*J. Azpillaga*

Hau da gizon bat jatorra eta  
gauza asko ikasia  
esate batez ni morroia ta  
hauxe nere nagusia.  
Ni itoko naiz ta erreztzeko  
dezu denbora luzia  
baina esan nere emazteari  
eman dedala bizia.

*J. Arregi*

Lagun ez zaite iritzi hortan  
sartu hemen aurrenien  
solteru nago ni, laguna, ta  
zu aita zeure familian.  
Nik nahi detana bakarrik hau da  
sentitzen det barrenian  
eskumatikan izan gaitzala  
azken juicio egunian.

*J. Azpillaga*

Heriotzea etorri zaku  
jaio ta hiru-lau urtera  
oraindik biok gazteak gera  
konparazio batera.  
Bitatikan bat zertan salbatu  
goazen biok batera  
bertso kantari San Pedrogana  
zeruetako atera.

Beste lau bertsolarien (J. Lopategi, I. Ajuria, J. Murgartegi, D. Sardui) saiorik ez dago grabazinoan.

# 1964ko BIZKAIKO TXAPELKETA



## Laburpena:

- Eskualde kanporaketetan, Urkiolan, ekainaren 13an, Julian Martitegi mañariarra izan zen txapeldun. Mungian, uztailaren 19an, Felix Ortuzar "Iturri" muxikarra txapeldun. Markinako Larruskainen, uztailaren 31n, Abel Muniategi ereñarra txapeldun. Eta Igo-rran, abuztuaren 16an, Basilio Pujana zeanuritarra txapeldun.
- Finalaurrekoa Gernikan egin zen, abuztuaren 17ko goizean, eta Juan Mugartegi berriatuarra izan zen txapeldun.
- Finala Ondarroan izan zen, abuztuaren 17ko arratsaldean. Finalistak honakoak: Abel Muniategi, Jose Mari Arregi, Basilio Pujana, Deunoro Sardui, Ireneo Ajuria, Juan Mugartegi, Juan Azpillaga, Jon Lopategi.
- Jon Lopategi txapeldun eta Juan Mugartegi bigarren izan ziren.
- Epailen zerrenda zehatzik ez dogu aurkitu.

(Iturria: Bizkaiko Bertsozale Elkarteak ateratako Bizkaiko eskualdeetako bertsolari txapelketak 2000 izeneko prentsa txostena).

1964. urteko Bizkaiko Txapelketari buruz, oso informazio urria agiri da Alfonso Irigoienaren funtsean. Zorionez, Euskadi Irratiaren artxiboan, Markinakoaz beste hiru kanporaketak, Gernikako finalerdia eta Ondarroako finala jasotzen dituen

grabazioak aurkitu doguz, nahiz eta grabazio honek be, zoritxarrez, nahikoa murrizak diren.

Lopategi eta Azpillaga finalera zuzenean pasatu ziren, aurreko txapelketako lehenen-bigarrenak izatearren. Gernikako finalerdia eta Ondarroako finala, biak egun berean izan ziren, baina Gernikakoa goizean eta Ondarroakoa arratsaldean. Hemen, oraindik ikasle, neuk be ondo gogoan daukat entzule egon nintzena, eta ez zen izan, ez, ahaztekoa. Ondarroan marinel eguna zen. Egun horretan izaten den parranda eta martxa giroan, bertsolarien final bat kalean egitea atrebentzia benetan temerarioa izan zen. Batzuk finala entzuteko gogo biziz joan ginen, baina, han zebilen jente zaparradan eta algara kontrolbakoan, ezer entzutea miraria zen.

Ez uste, halan be, jenterik entzutera batu ez zenik. Batu baino gehiago, pilotu esango neuke, ikusle gehiago, ezer izatekotan, entzule baino, bakotzak bere kontzertua martxan zerabilen eta. Ikusminik edo espektazinarik ez zegoenik be ezin esan leiteke, plaza eta plaza inguruak jentez jositak baitzegozen, denak saltari, bat-batean ur barik geratutako arraineria lez. Entzuteko tentazioa bai, baina isilik egon ezin. Gainera, kaleetan gora eta behera, jentetza guztia zebilen algaran, kantuan, turutaka, txaranga hotsean. Halako jai-uholean, eta areago Ondarroa lako herri batean, izan leitekezen zarata klase guztiak batu ziren. Arrai-

nak lehorrean laster geratzen dira, arnasa barik, baina han alderantziz zen, geroago eta burrunda da handiagoa, batez be, irabazletzat gura eben inguruko Mugartegi barik, Lopategi txapeldun ikusi ebenean. Halako eskandalu eztandarik ez dot ikusi, ezta Xalbadorri txistuak jo eutsiezenean be. Gertatzen dena Xalbadorrena beste maila batean eta pilotaleku itxian izan zela, baina Ondarroakoa, kale edegian eta marinel egun betean, herri guztia, urdin jantzita, haluzinazino puntutik gora zebilenean, apoteosikoa izan zen bere generoan. Amaitutakoan, zer egin eban itaundurik, inoiz Lopategiri entzun deusatz esaten: "Buruak makurtu eta kale bitartetik ospa arin, txapela besapean hartuta".

Urte honetako Irigoienen paper urrien artean, badago Joseba Intxausti frantziskotarraren gutun bitxi bat, ordena honen Foruko komentutik idatzia, dinona:

160

Foru 1964-08-12  
Alfonso Irigoyen J.

Adiskide min: Agur!

Nere nagusiak halaxe agindurik, Areatzako erdi-erretore bilakatu naiz. Ta handik nabil, joan den zenbait igandetan. Gaur ere mendirantza irten dabe, Oizera, beren bertsolari ta guzi. Ez da iturri hori agortzekoa Areatzan. Hain zuzen, elizatik irteztekoan, Balendin Enbeita etorri zait, etxeko mutil koskorra aitatuaz. Mungiko txapelketarako gogoarekin omen dabil. Ez ote legoke honentzat txokoren bat? Hamalau urte dituela esan didate. Benetan poztuko nintzake, aurrerapiderik emango bazenio. Izan ere, badakizu, noski, Jontxu hau Arantzazuko ikastetxera joan zitzaiguna. Prailegaia da, beraz. Ta oraintsu; Santutegian esan zidatenez, oso dator ongi: buruargikoa ta ona. Nere kezka beti izan da, prailegaitzean, ez ote zuen galduko, gero, bertsoetarako gaitasun hura. Baina, zorionez, hobetzen doa. Ikastetxean ale bakarra denez, ez dauka, urte-

an zehar, ezer haundirik egiterik; honegatik, errez-tasunak kanpotik ematen ahalegindu behar geun-kelakoan nago. Agian, praile gazte bat, txapelketa-rako, ez litzake kaltegarri etorriko. Baina, honetara-ko, nik uste, oraindixe zerbait egiterik balego, bide-ko sasi erdiak garbituta lirake. Zer derizkiozu, Alfon-so? Mutikoa, orain, Areatzan dago, hilabeteko opo-raldiarekin.

Zure deiren bat-edo izango balu, pozarren joango litzakela esan didate. Zure esku dagoena bada, behintzat, horixe eskatzera ausartuko nintzake, gure komentuetoako euskal giroak holako erakarga-ri batzuek behar baititu. Laister atzerrirako bidea hartzen dut, baina aurretik adieraziko dizut nere norakoa, ez baitut hemengoekin hartu-emanik eten nahi. Bospasei urterako izango naiz kanpotik. Gaur-koz, eskerrik asko zure harrera onagatik eta agindu nahi duzuna. *Intxausti'tar Joseba.*

Gutun honi buruz, ezin dut bide batezko ohar-txo deigarri bat egin barik itzi. Liburu honetan, tes-tuak gaurko grafian eta ortografian idaztea eraba-gi dogu, gaurko irakurleentzat, hieroglifikoak eki-ditearren. 1964an, euskara batuaren aldeko hotsak entzuten hasita bazegozen be, oraindino urte batzuk falta ziren, Euskaltzaindiaren 1968ko Arantzazuko batzar ospetsurako, non euskara batuaren arautze erabagigarriari heldu jakon, hatxearen auziak, batez be, markatu eban sasoi-a bera. Alfonso Irigoienek, urte honeetan, oraindino ez darabil hatxerik bere idazkeran, bertsolaritza arloan, behintzat. Joseba Intxaustik, ostera, gutun hau gaurko lako hatxe guztiekin idazten dau 1964an, eta pentsetakoa da aurreragotik be halan egingo ebala.

Aurreko urtean, 1963-II-05ean, Abel Enbeitak be antzeko gutuna idazten deutso Irigoieni, esanez:

Horregaitik, hara lau hitz, nere anai Jontxuren gogo bat azaltzeko. Ixildu barik daukat, aspaldian, idazteko Irigoienari aurtan jua ahal leiteken Mun-

giara. Hamahiru urte egingo ditula eta badaukala adina hortarako. Gainera, aurten, praile doala eta, joan orduko, txapelketa baten parte hartu gura dabela.

Irigoienek, 1963-III-14an, honela erantzun eutsan gutun honi:



*Martzel Andriñua, pasiotarra*

## ◆ BERTSOA NIRE BIZITZAN

Bertso saltsa hau berezkoa joko euskaldunari gitxi asko, nire ustez. "Bertsoa" dinodanean, zera esan gura dot: esaera zaharrak, ateraldi barregarriak, koplak zaharrak, hitz-joko bizi, esanguratsuak eta abar. Holakoren bat edo beste botatzerakoan, behin baino gehiagotan entzun izan dot ingurukoaren artean, barre algara eta guzti: "Ederra bota jok; bai, bertsolaria dok eta". Niri berez sortzen izan jat tarteka-marteka bertso izpitxoren bat, berbaldiari edo edozetariko jardunaldi bati gatza eta bizitasuna ezarri nahirik.

Egia esan, bertso haizeak eragitean, gehien baten, bizitzako alderdi alai eta baikorrak adieraztera jotzen izan dot; batez ere, azken aldion, Bizian Gora mungimenduko adinekoen gogo-bihotzak jaso eta gozatzeko arduraz. Eta, jakina, beste bihotz hondoan kilikili egitean, norbera ere umorez eta pozik jarri ohi da. Bertso joera honek asko lagundu deust bizitzan zehar umore onez bizi eta inguruan bizipoza zabalitzen. Behin baino gehiagotan astindu dodaz barruko ilungarrazak nigandik, bertso sorginaren doinura.

Abel Enbeita adiskidea:

Hartu neban zure karte eta zer erantzun ez nekiala egon naz luzaro. Bitartean, kanpoan be egon naz denporaldi bat. Egia esan, zure anaiak, txapelketan parte hartzeko, oraindino edade gitxi daukala iruditzen jat. Beste batzuri be bai. Baina, hainbesteko gogo daukan ezker, parte hartzen itxi beharko joko, inok trabarik ipinten ez badau. Ia, horretara, pozik doan komentura. Ekin bertsoan sendo. Ondo bizi zaitezela zu eta etxeko guztiak deuseo dot. Bihotzez, A. Irigoyen.

Bertso-jarduna, bestalde, niretzat aberastasun bide bat izan da: bestetara baino pentsaera eta esaera egokiagoak eta beteagoak sortu izan jataz. Honetaz ez dot zalantzarik: nire milaka berbaldi eta idazlanetatik, norbaitengan zerbatit gelditu bada entzule-irakurleen gogoetan, bertso kutsuz esandakoak eta idatzitakoak izan dira. On egin deioela! Bestetxo hau esan barik ezin zaitut agurtu: gure artean izan da holako uste edo eritzi aldrebes bat: irribarrea, bertsoa, xeblekeria, parabolak, kontuak, koplak zaharrak eta abar, buruarinen kontuak dirala; gizaki heldua beti dala serioa eta betoskoduna. A zelako txorimaloa! Niri ez deust sekulan santan inok eskatu inperuari buruzko berbaldi garratz eta latzik; baina bai milaka ipuin, txiste, bertso, parabola eta kontu barregarriak. Dana dala, niri eta beste askori on egin deusku bai, eta ez gara damu. Inori minik emon badeutsot, parkatu; ez zan izango bertsoagaitik, erabilitako eztenagaitik baino. Eta hori ere ongarri suertatu leiteke.

Urte honetako uztaillaren 31n, San Inazio egunean, Markinaldeko kanporaketa Larruskainen jokatu zen. Alfonso Irigoienek erdarazko kronika labur batek, beste xehetasun batzuen artean, dino:

...ante nutrido e interesado público... Se presentaron cuatro bersolaris. Quedando dos eliminados, se desarrolló el desafío final entre Abel Muniategui y Domingo Iriondo, el cual fue de un interés extraordinario y competidísimo. El jurado, después de haber dado amplio margen de tiempo a los actuales, para que pudieran mostrar sus habilidades e ingenio, optó por clasificar para la semifinal que se celebrará en Guernica, a Abel Muniategui, joven de Ereño que promete un futuro halagüeño.

Saio haretan, neu be entzule egon nintzen, oraindino ikasle, hurrengo urtean abade egiteko. Jentetza handia eta arretatsua egon zena egi-egia da. Lau bertsolarien artean, Mañukorta izan zen bat, gazte-gaztea, hogeiturokoa. Nork pentsatuko eban orduan ikusi genduen mutil argal-argal ha, kantuan eta errima-neurrietan kode indeszifrabilea zerabilena, geroko Mañukorta handiaren aurrekaria zenik!

Muniategik eta Iriondok egin eben saioak, sasoi haretarako, benetako kalidadearen inpresinoa egin euskun. Domingo Iriondo hareri, harrezkero ikusi dodan hainbeste alditan, beti esan izan deusat penagarria izan zela hain bertsolari eleganteak eta hain gizon atseginak bertsoari itzi izana. Abel Muniategik irabazi eban eta betiko gogoan gelditu jatan haren bertso baten bigarren erdia. Lehengo parteaz ez naz gogoratzen, baina bai lau oinek *-itun* errimatzen ebena. Zortziko txikiko saioa zan. Iriondo oiloa eta Muniategi azeria ziren. Oiloak azeri zaharrari burla egin eutsan batean, honek erantzun eban:

Zeure destinoagaz  
jartzeko jakitun  
ama ta amama be  
neronek jan nitun.

### Kanporaketak

#### Igorre 1964-VIII-16

Igorreko udaletxe aurrean jokatu zen Arratiako kanporaketan, lehiakide bi bakarrik aurkeztu ziren: Jose Mari Gurtubai Lemoakoa eta Basilio Pujana Zeanurikoa. Bi bakarrik eta eurona be ez dau grabazinoak osorik hartzen. Horregaitik, datorren guztia emongo dogu.

*J. M. Gurtubairen agurra*  
Toki hontara etorri gera  
geu ere bi bertsolari  
udabarrien txorie bezela  
hemen zuen abeslari.  
Agurtutzen dot alkate jauna  
baita ere eliz gizonari  
nere agurra bihotz-bihotzez  
aurrian zauzan danari  
gaurko eguerdia izan dadila  
guztientzat pozgarri.

*B. Pujanaren agurra*  
Agintariak, epaikariak  
eta entzule zintzoak  
arrasti on bat opa dizue  
Pujana Zeanurikoak.  
Ta eskerrik asko etortearren  
entzuten gure bertsoak  
gizonak beti garean legez  
beharrizen handikoak  
bere grazian bildu gaizala  
gure aita betikoak.

Puntua: *Arratiko tranbia  
oindino badabil*

*B. Pujana:* Eta tranbi horretan  
bai neska ta mutil.  
Oindino guretzat hori  
oso dogu util  
apurtu artean dana  
kaja eta gurpil.

Puntua: *Orain gaztea dana  
laster agurea*

*B. Pujana:* Horrexek emoten deusku  
guri ardurea.  
Beti guk eukiten dogu  
gazte izan gurea  
zahartasuna laster dator  
bai behintzat neurea.

*B. Pujanari bakarrerako gaia: "Arratiako tranbiari  
pare bat bertso".*

Lartxo eragiten deusku baina  
daukagu kanta beharra  
oin bertso biten azaldu beharra  
Arratiko tranbi zaharra.  
Bidetik zala-kala doiala  
horrek dirudi akarra  
Zeanurin urten ta Bilbora orduko  
urtetan deusku bizarra.

Bertso horretan tranbi zahar hori  
oso izan dot iraindua  
baina zertxobait esan behar nik  
betetzeko agindua.  
Oingo bertsoan emongo deusat  
lehengo bertsoan kendua  
arratiarrak horri eskerrak  
ikusi gendun mundua.

Puntua: *Elizako kanpaiak  
joten dabenian*

*J. M. Gurtubai:* Jentia barrure dua  
enjeneralian.  
Bizi gure dabenak  
Jaunaren legian  
juatia komeni  
ta diot onian.

Puntua: *Paradisuko fruta  
Ebak probatuta*

*B. Pujana:* Hortixik gelditu zan, ba  
mundua galduta.  
Galdu behar asko dogu  
munduan sartuta  
ia zerbait zuzentzen deun  
zerbait saiatuta.

Puntua: *Zekor txikia baina  
bada gogorrena*

*J. M. Gurtubai:* urdie atarateko  
hori da onena.  
Basarritarra sarri  
desio horrena  
norekin egin leike  
holako zezena.

Puntua: *Aberatsen lujoa  
pobreen nekea*

*B. Pujana:* Gogotik hartzean dot nik  
horri erantzutea.  
Zuk esan dozun egia  
da bete-betea  
baina gehiago da beti  
pobreen bakea.

Puntua: *Estimaziorikan  
ez da diru gabe*

*J. M. Gurtubai:* Bape bakua baino  
askozagaz hobe.  
Gizona daguana  
mundu hontan pobre  
ez da izan egiten  
buruaren jabe.



A. Irigoien: "Juradua Basilio Pujanaren alde jausi da. 700 pezeta emongo dautsogu, eta 500 pezeta Gurtubairi".

*B. Pujanaren agurra*

Dirua hartu dogu guk baina  
hemen falta da kopea  
halan da bere tokaten jate  
danoi esker emotea.  
Eskerrik asko, entzule, eta  
eskerrik asko, alkatea  
danon artean izan daitela  
justizia ta bakea.

**Urkiola 1964-VI-13**

Saio honen grabazinoa luzea da, ez dakigu osoa baina. Honako sei bertsolari aurkeztu ziren: Julian Martitegi (Mañaria), German Uriguen (Ermua), Frantzisko Mandiola (Mallabia), Jose Alberdi (Mañaria), Manuel Sarrionandia (Iurreta), Inazio Urkidi (Iurreta). Martitegi gelditu zen txapeldun. Hona hemen saio haretako agur bat eta puntuen erantzun batzuk:

*J. Alberdiren agurra*

Larrosa gorritz jantzi dezutez  
Urkiolako mendi gainok  
egun goxoa benetan dogu  
behintzat gaur euskaldun finok.  
Euskal Herriak fedeik ez dula  
ez deigula esan inok  
bera usaintzen egin daiguzan  
bakoitzaren ahaleginok  
eta honetan lagun deigula  
gure aita San Antoninok.

Puntua: *Ezer ez dadukanak  
ez dauka zer galdu*

*F. Mandiola:* Nola edo hala hoiek  
ere behar azaldu.  
Nundik etorrik ez badu  
harek gaizki behar du  
alkarren artian hobe degu  
ondo-ondo konpondu.

Puntua: *Pertsatu nola pasa  
eternidadia*

*G. Uriguen:* Ai baneuka hortarako  
abilidadia!  
Bihotza zaindu ezinda  
ibilitzen dia  
baina ondo ibilita  
asko galtzen dia.

Puntua: *Gizon pobreak ez du  
nola aberastu*

*F. Mandiola:* Gauza horren gainian  
aurkitze'ira estu.  
Ni sekula ere ez nau  
horrek eiten poztu  
aberastu nahi duenak  
gauza horrekin ahaztu.

Puntua: *Sekula ez naiz ibili  
behar ez dan plantan*

*J. Martitegi:* Hemen ez gaitetzen hasi  
horrelako zaratan.  
Ni beti formal ibili naiz  
hamaika lekutan  
bestela galdetu zazu  
jun naizen tokietan.

Puntua: *Urkiola gainera  
gatoz gu urtero*

*M. Sarrionandia:* Eta gaur behintzat ni  
nago ni pozkiro.  
Ai etorko bagina  
hona egunero  
gutzat hau ez litzake  
kalte izango gero.

Puntua: *Zure mende ez daude  
gonadun guziak*

*J. Martitegi:* Etxean daudenak ere  
ez dute egiten graziak.  
Laster jaten dituzte  
nere irabaziak  
batere ingo ez banu  
oso mereziak.

Puntua: *Urkiolan daukagu  
guk San Antonio*

*M. Sarrionandia:* bera ikusten, bada, ni  
ez naiz joan oindio.  
Seguru samar bera  
eongo da serio  
astirik ez daukat eta  
zer erremedio.

Puntua: *Gezurrikan ez esan  
baizikan egia*

*J. Alberdi:* Oin baino lehenagotikan  
nago igarria.  
Ahaztu gabe daukat  
lehenau ikasia  
hortik dadukalako  
geroko grazia.

Puntua: *Nik ez dizut galdu nahi  
dezun kreditua*

*J. Alberdi:* Ez det horri erantzuteko  
nik argi burua.  
Baina eskatu behar  
deukot nik ondua  
berak kendu eustalako  
neukan apurtxua.

Puntua: *Karu erosten degu  
daukagun dirua*

*J. Martitegi:* Gutxi irabazten dalako  
hor dago negua.  
Hartzen dan apurra berriz  
oso segurua  
gurera eramanez gero  
dana hor dijua.

Puntua: *Heriotza egun baten  
degu ikusiko*

*J. Martitegi:* Gero pasatuko dana da  
bizi guztirako.  
Ez dakigu norako bidia  
han degun hartuko  
ordukua izango da  
beti sekulako.

Puntua: *Bakean bizi dana  
haserre gerrakin*

*J. Martitegi:* Zuk esan gabe ere  
nik hori banekin.  
Hamaikak egiten du  
aldeten ahalegin  
etortzen danian behintzat  
ezer ezin egin.

#### Mungia 1964-VII-19

Mungiako kanporaketan, honako bertsolariak izan ziren: Jon Enbeita (Muxika, 14 urtekoa orduan), Manuel Basabe (Lumo), Pedro Ortuzar "Iturri" (Muxika), Juan Olarra (Errigoiti), Felix Ortuzar (Muxika), Juan Jose Agire (Gernika), Pedro Kastrejana (Loiu), Juan Ormaetxe "Taket" (Mungia). Hona grabazino luze samar horretatik ale bat edo beste.

Jon Enbeita eta Ormaetxe "Taket"-i gaia: "*Jon Enbeita izango da uretan dagoen arrankaria eta Juan Ormaetxe izango da arrantzale bat, harrapatu gurarik dabilena*".

*J. Enbeita*

Uretan nabil oso pozikan  
bizia aterateko  
geure janariz arrain txikiak  
egunean garbitzeko.  
Mundu honetan sortua naiz ni  
ofizio horretarako  
bihotz gogorra daukazu lagun  
orain ni garbituteko.

*J. Ormaetxe*

Zelan lanak emate'ustiaz  
gaztiak harrapetako  
nahiz ta uretan nahiz bardin lurrez  
ni baino abilau daulako.  
Gainera dino bihotz gogorra  
deukodala berantzako  
nahiago neuke hanka gogor hau  
baneuka arin egiteko.

*J. Enbeita*

Ni langoakin egiten dabez  
egunero euren janak  
ez dira ikasten mozo (¿?) txikia  
harrapatzen dituenak.  
Eta ni hamen lagunan legez  
pobretxo bizi garenak  
ez dau zerurik inolan ere  
zure legez dabilenak.



*J. Ormaetxe*

Nere ustian arrainak ez deu  
zuk dinozun arimerik  
nola joango da zeruetara  
bautismue hartu barik?  
Ez al dakizu urian ez daua  
kristinau bat bautizeurik  
ia zeu bazauz, adiskidia  
gauz horretaz erraturik.

*J. Enbeita*

Era luzea emon daustazu  
berba bat pentsatuteko  
zure etxia zelakoa dan  
barrutik igarriteko.  
Bautizeu barik bizi zarie  
juergan pasatuteko  
ezaguna da ze bautizeurik  
ez dau hori esateko.

*J. Ormaetxe*

Hau da gauze bat inondik ere  
aditu ezin dodana  
bautizau barik nola ipini  
eustian niri izena?  
Ikusten det nik estudiantetxu  
arrantxu gaztia dana.  
Zer esaten ni joan ein neike  
holango umiakana?

Oinak Jon Enbeitari: *hitza, bizitza, gabiltza, giltza.*

Ezkontzeko emonik  
dauku gure hitza  
horrela bizi gera  
gu geure bizitza.  
Mutila nesken atzen  
honela gabiltza  
gero eurak hartzeko  
gure etxeko giltza.

Puntua: *Neska dotoreari  
begira nengoan*

*M. Basabe:* Hau ez jat sartu neri  
sekula buruan.  
Neska politak ere  
badira munduan  
baina andrea dauket  
oain nere onduan.

Puntua: *Munduan zabaldua  
dago euskalduna*

*P. Kastrejana:* Aurrera bere behar da  
holako laguna.  
Asko tardauta bere  
badator eguna  
hauze dogu guztiok  
goraldu behar douna.

Puntua: *Esan eizu nongoa  
zeraden bertsotan*

*Iturri:* Muxiken jaio naiz ta  
ez nabil olgetan.  
Aspaldiz egon naiz ni  
egun hau pentsetan  
ez gero uste etor naizenik  
hona ni brometan.

#### Finalerdia. Gernika 1964-VIII-17

BERTSOLARIAK: Basilio Pujana (Zeanurikoa, Igo-  
rreko irabazlea), Iturri (Muxikakoa, Mungiako ira-  
bazlea), Abel Muniategi (Larruskain-Markinako  
irabazlea), Julian Martitegi (Mañariakoa, Urkiola-  
ko irabazlea), Juan Mugartegi, Ireneo Ajuria, Deu-  
noro Sardui.

Finalerdi honetara etorri beharrekoen artean,  
Balendin Enbeitak (gaixotasunagaitik) eta Juan  
Ibarzabalek ("familiako oker bategaitik", berak  
gutun batean azaldutako moduan) ezin-etorria  
agertu eben. Oraingo grabazinoa nahikoa murri-

tza dogu. Saio honetan nobedade nagusia zen Abel Muniategik agur hauxe kantatu eban:

Deunoro eta Ajuria  
gero Mugartegi  
Iturri ta Pujana  
ondoren Arregi  
Mañari aldekoa  
dogu Martitegi  
zuek zerbitzen dago  
gaur Muniategi  
haritz zaharran geizpetan  
danok ondo segi.

Puntua: *Oilasko pareta guk  
ondo jan genduan*

A. Muniategi: Ez zegoan hain giro  
bazkari orduan.  
Alpontso hantxe zegon  
neronen onduan  
hau baino jatunaurik  
ez dago munduan.

Puntua: *Gernikan astelehenez  
merkatu bikaina*

A. Muniategi: Hementxen egoten da  
danetik nahi aina.  
Lehengoan batek neri  
hartua tamaina  
karteria kentzeko  
hark bazuan maina.

Puntua: *Dantzan ari ginaden  
txistu-soinuekin*

D. Sardui: Zer eiten gendun ez genkin  
baina ekin ta ekin.  
Sarri ibiltan gara  
geure antzekuekin  
gaur be hobe bagenduke  
dantzatu norekin.

Puntua: *Euskeraz ikasitzen  
ez badabe haurrak*

D. Sardui: Hamen saiatu bediz  
guraso txit zuhurrak.  
Banituan aspaldi  
nik horren bildurrak  
gure euskera iruntsiko  
ote duan lurrak.

Oinak I. Ajuriari: *teilatua, katua, lekua, altua.*

Gure etxeak dauka  
goian teilatua  
eguzkiai miauka  
hantxe da katua  
gorago nahi du lortu  
beretzat lekua  
baina iltargia  
da oso altua.

#### Finala. Ondarroa 1964-VIII-17

Urte haretako finalistak, Alfonso Irigoienen esanetan, honakoak ziren: Abel Muniategi, Jose Mari Arregi, Basilio Pujana, Deunoro Sardui, Ireneo Ajuria, Juan Mugartegi, Juan Azpillaga, Juan Lopategi. Saio haretatik, Euskadi Irratian daukien grabazioan ez da dena aurkitzen, ezta gitxiagorik be. Aurkitu dogun dokumentu bakarra eta finalekoa izanik, dagoen moduan osorik eskainiko dogu.

Agurrak

J. Lopategi

Atsalde on bat bihotz erditik  
danoi emon beharrian  
ernari daukat neure bihotza  
Ondarruako herrian.  
Jende prestua ikusirik  
anaitasun ederrian  
arrantzaleak zahar eta gazte  
bertsuaren egarrian  
dana galduta ez da oraindik  
jenerazio barrian.

*I. Ajuria*

Ikusten degu gure Ondarroa  
zelan edertuta dagon  
hona etorri baino lehenago  
gauza hau pentsatzen nengon.  
Hemengo euskaldun anai-arrebak  
euskalduntasuna jabon  
gure zeruko aita Jainkuak  
argitasun bedi emon  
hortan saiatzen zeratenori  
bihotzez arratsalde on.

*J. Azpillaga*

Ondarruari nere lehenengo  
agur ta ongi-etorriak  
Antiguako Ama, argitu  
bertsoaren iturriak.  
Guk zer esango ote diogun  
denak hor daude jarriak  
entzun gogotik gure bertsoak  
ase zuen egarriak  
hau ta gehiago merezi zuen  
gure Agirre haundiak  
euskera galdu nahi ez badegu  
hartu ditzagun neurriak  
euskerazkuak dirade gure  
izate ta jatorriak  
esnatu gazte berriak  
itxi atzerrikeriak  
euskerarekin bizi nahi badu  
Ondarruako herriak.

*J. Mugartegi*

Ondarroa nik beti izan det  
auzoa eta laguna  
Berriatuan bizi izan arren  
asko maitatzen deguna.  
Hemen baitago jende ona ta  
baita ere euskalduna  
Antiguako ama izan da  
danok ekarri gaituna  
zorionean igaro daigun  
arrantzalien eguna.

*B. Pujana*

Agintariak, epaikariak  
ta entzule bihotzekoak  
arrasti on bat opa dizue  
Pujana Zeanurikoak.  
Bere grazia bota deigula  
gure aita betikoak  
eskerrik asko etortearren  
entzuten gure bertsoak  
ta eskerrik asko hemen zagozen  
alkondara azulezkoak.

*D. Sardui*

Dakizuenetz ni Ondarruko  
semea ere ez naiz baina  
ondarrutarrak alaitu guraz  
egingo det ahalegina.  
Kofradietan arrantzaleak  
tarte dute zeregina  
herrian ontzat oraintxen dago  
alkartuteko premina  
bitartekotzat hartu dagigun  
Antiguako Ama Birjina.

*A. Muniategi*

Txomin Agirren herri honetan  
agertutzen naiz kantari  
euskaldun arrantzale zintzoak  
ikusten ditut ugari.  
Kantauriko lehoiak  
marinel ta patroiak  
eutsi gogor euskerari  
horretan duan izen aparta  
ez lohitu Ondarruari.

J. Arregi

Gaur zera Ondarru euskal subal (?) bat  
lorenz zaudena indarrez  
zortzi urretxindor zu agurtzeko  
jarri dira aurrez aurrez.  
Inguru danak ikusten dira  
euskal arnasaz kolorez  
baratza hobe bat aldatutzea  
ez litzake inun errez  
hau ikusita pozaren pozez  
aitonak daude negarrez.

J. Lopategiri gaia: "Honantza gatozala, hor ikusi  
ditugu eguzki batzuek jantzita, kartel bat  
atzean zutela, 'Busco novio' jartzen zuena. Haiei  
bi bertso".

Nobio bila bat dabilela  
gerta zait irakurtia  
izan ere gaur saltzeko asko  
daukagu gazte jentia.  
Entzun eidazu kontseju on bat  
ai neska gazte maitia  
zu ote zaude juzgu onean  
ta zentzunakin betia?  
Propaganda hori egitea baino  
hobe da monja joatia.

Nik kontseju hau neskaxa horri  
emango diot aitzera  
urtez aurrera badijua ta  
sasoiarekin atzera.  
Amerikatik indianuak  
datoz orbela antzera  
zu jua zaite kezkarik gabe  
nik esandako hitzera  
kartelik gabe bilauko dezu  
neska jatorra bazera.

Oinak J. Lopategiri: *aingerua, ingurua, burua,  
zerua.*

Argituko ote det  
gaur nire burua  
alde denera begitu  
dana aingerua.  
Edertasunez beterik  
daukat ingurua  
benetan esan leike  
hau dala zerua.

J. Mugartegiri oinak: *ardiak, erdiak, erbiak,  
argiak.*

Ondarruko herriak  
baditu ardiak  
geure barrutikoak  
baitira erdiak.  
Bizkor ibiltzen dakite  
hemengo erbiak  
izan zaitezela beti  
holako argiak.

J. Azpillaga eta J. Arregiri gaia: "Motorrean zihor  
azen bi euskaldun, eta buelta batean alkarren  
kontra jo dute, eta eztabaidan hasi dira".

J. Azpillaga

Ai, San Cristobal, nere burura  
pixka bat argi egizu  
formal dabilten gainera dator  
orain makina bat pisu.  
Azpian damakizun tresna hori  
manejatzen ez dakizu  
baina, laguna, zuri karneta  
non eta nork eman dizu?

*J. Arregi*

Nere lagunak bereganduta  
daduka moxkorkeria  
eta horrela daguela hau  
da motorrean jarria.  
Guardia zibil bat kuarteletikan  
honuntza da etorria  
eta berak epaituko gaitu  
nork egin degun egia.

*J. Azpillaga*

Nor bere alde edo eskubia  
behar bezin zaindu daigun  
ta alkarrekin konpontzea hobe  
segi behar degu lagun.  
Baina, laguna, zer egin dezun  
esan behar dizut bigun  
andre gazte bat ia-ia-ian  
zuk utzi dezu alargun.

*J. Arregi*

Ni arrazoian jokatuko naiz  
ta ezingo dezu ukatu  
gu ezingo gera gai horretaz gaur  
hemen bertan burukatu.  
Guardia zibil bat egina dago  
etorritzeko eskatu  
ta ez da besterik, egina dago:  
kulpa duanak pagatu.

*J. Azpillaga*

Kulpa duana oso errez da  
nere ustez juzgatzia  
zuk nun daukazu zentzuna eta  
zuk nun daukazu lotsia?  
Beraren kulpa zan gauza dana  
nahi du arrazoi hartzia  
gauzik onena izango degu  
zuri karneta kentzia.

*J. Arregi*

Nere lagunak zerbait nahi luke  
arpei gogorra dalako  
lehendikan ere egina dago  
makinatxo bat holako.  
Baino beroni gaurko hauxe  
ongi kostatuko jako  
kartzelan sartuko dabe eta  
handik ez dabe aterako.

A. Irigoien: "Aurrera pasatzen dira lau bertsolari:  
Juan Mugartegi, Juan Lopategi, Jose Maria Arregi  
eta Juan Azpillaga".

J. Lopategiri gaia: "*Ondarroan orain arte denbora  
guztietan bizi izan diren euskaldun guztiei*".

Ondarruarrak goratu nahirik  
ni gaur ahal detan azkarren  
Muxikatikan honera arte  
bihotz zabalik nentorren.  
Hortxen ikusten genduzan beti  
itsas zabalaren barren  
euren gainetik pasaturikan  
konta ezinezko galerren  
askok bizia galdu zularik  
familia mantentzearren.

Zeinek ez daki herri honetan  
gizon haundiak zeudela  
Txomin Agirren irudiari  
begitu pixkat bestela.  
Eta horra hor seme berriak  
gaur honuntza datozela  
landara danak porta zaitezte  
arbola zaharra bezela  
bide zuzenez eramateko  
Ondarruako batela.



J. Lopategiri beste gai bat: "Ondarrura sartzen dan arrainari".

Ondarrua hau arrantza hortan  
beti gendun aberatsa  
neri ofrezitzen etorri da lehen  
hortikan neska maratza,  
Ederra zeukan atuna eta  
bixigu eta legatza  
baina lehenago gustatu zaigu  
hizketan zedukan gatza.

Ikusi degu arrain ederrak  
itsasotik datozela  
ta nork ez daki probatutzeko  
desiuan gagozela.  
Neskak igarri digu behinguan  
jate goguan naizela  
marmitakua eskatu diot  
hemengo ohitura bezela.

Puntua: *Ura edaten badezu  
ardoaren partez*

J. Lopategi: *Tripa haundiko jat  
neronentzat kaltez.  
Ez naiz ni ur zalia  
neronen izatez  
ardoai begitutzen  
diot beti maitez.*

Puntua: *Apaiz bateri entzun  
genion sermoia*

J. Lopategi: *Ondo astintzen zuan  
pulpituen goia.  
Harek zapaldu nahi zun  
beti bide lohia  
Alpontso zapatuan  
konfesatzen doia.*

J. Mugartegiri gaia: "Itsasoa".

Itsas barruan ikusten dira  
marinel ta hainbat ontzi  
neke aldiak hartuagatik  
eramaten pazientzi.  
Hori izan da arrantzaliak  
berekina daukan herentzi  
Antiguako Aman bitartez  
ez zazu odolirik iruntsi.

Ekaitz aldiak izaten ditu  
beti itsaso zabalak  
bertan lanean saiatu behar  
hemengo gizon argalak.  
Handikan hartzen dituzte eurak  
etxeratzeko jornalak  
Ama maitea, gorde itzazu  
Ondarruko marinelak.

Puntua: *Tratatzen hasi ziran  
alkarren nobio*

J. Mugartegi: *Beti izaten degu  
hainbat amodio.  
Formal ibilitzeko  
gaiak hala dio  
ni andragaiakin beti  
hor nabil serio.*

Puntua: *Arrantzale eguna  
gaur zelebrazten da*

J. Lopategi: *Eta gure bihotza  
hemen askatzen da.  
Euskal jende prestua  
asko ikusten da  
Bizkaiaiko bihotza  
oainguan hemen da.*

Puntua: *Jaiak diradenian  
negar danak galdu*

*J. Mugartegi:* Arpegi onarekin  
nahi degu azaldu.  
Entzuten dagozenak  
ez bediz itzaldu  
zuen bihotzak beti  
guretzat zabaldu.

Puntua: *Itsasoan haundiak  
daudelako urak*

*J. Lopategi:* Marinelentzat sarri  
hor datoz esturak.  
Ta etxe askotara  
halako tristurak  
ta emakume askok  
alargun itxurak.

Puntua: *Uso zuri bat heldu  
da nere ingurura*

*J. Mugartegi:* Berak eramango gaitu  
gaurkoan zerura.  
Lehenengo atetikan  
goaz gu barrura  
zorion hau ekarri  
bedi Ondarrura.

Puntua: *Ametsikan ez egin  
ez dagon lekuan*

*J. Lopategi:* Baina zerbait badago  
hemen oingokuan.  
Ondarrua guztia  
hor dabil jokuan  
marinela be ez da  
gelditu barkuan.

Alfonso Irigoien: "Txapeldun gelditu da Juan Lopategi. Hiru boto izan ditu alde, eta Mugartegik bi. (Sekulako txistu eztanda eta "fuera!" eta "fuera!" entzuten da, luze, gainera). Lopategik jasoko du Bizkaiko Diputazioaren kopa eta 1500 pezeta, Bizkaiko Caja de Aho-

rosek emona. Hemen daukagu Ondarruko alkate jauna, Jose Aranbarri, eta berak emongo dizkio".

### Azken agurrak

*J. Lopategi*  
(Bertso osoan zehar, jentea txistuka ari da).

Txistuak eta txaloak baten  
hemen hartzen ditugula  
behar bezela ez da asetzen  
nik sentitzen nuen gula.  
Nik ondo dakit Mugartegi hori  
ez gendun gizon ahula  
lagun maiteak pentsatzen det  
zuk'e hau pentsatzen dezula  
guk euskaldunak zahar eta gaztek  
bat egin behar degula  
begiraturik Euskal Herriak  
derrigorrezkua dula  
zutik eduki gura badegu  
geure herriaren arbola  
lehenauko zaharrak behinola  
nahiz ez atondu inola  
anaitasuna eskatzen dator  
gaurko gaztien odola.

*J. Mugartegi*  
Agur bihotzez Ondarrua ta  
entzule maitagarriak  
gu gerade gaur zuek alaitzen  
honeraino etorriak.  
Txalo bizitan hartu gaitu gaur  
Ondarroako herriak  
nik horregatik eskerrik asko  
zuen gozo atzerriak  
agur berriro etorri arte  
entzule maitagarriak.

Alfonso Irigoien: "Gainerakoek 800 pezeta jasoko dituzte. Gainera, Ondarroako Ayuntamentuak bandeja bat ematen du hirugarrenarentzat, eta hori Jose Mari Arregirentzat izango da".

*J. Arregi*

Azken agur bat bihotzetikan  
nahi denoi adierazi  
sinistu gero Ondarrutikan  
urruti ez naizela bizi.  
Gaurkuan hemen jator  
kantatutzer a nator  
eta nahi neuke lehenbizi  
aurreruntz ere Ondarru hauxe  
ondo dedila ikusi.

# 1966ko BIZKAIKO TXAPELKETA



## Laburpena:

- *Eskualde kanporaketetan, Zornotzako Euban, maiatzaren 1ean, Julian Martitegi mañariarra izan zen txapeldun. Markinan, uztailaren 24an, Gregorio Larrañaga "Mañukorta" larruskaindarraren txapeldun. Zeanurin, abuztuaren 15ean, Jose Mari Gurtubai lemoarra txapeldun. Eta Mungian, abuztuaren 21ean, Abel Enbeita muxikarra txapeldun.*
- *Finalaurrekoa irailaren 8an egin zen Lekeition, eta Jose Maria Arregi "Altzu" berriatuarra nagusitu zen.*
- *Finala Durangon egin zen, urriaren 30ean, finalistak zirela: Jon Lopategi, Juan Mugartegi, Jose Maria Arregi, Abel Enbeita, Jose Maria Gurtubai, Gregorio Larrañaga, Julian Martitegi eta Abel Muniategi.*
- *Hirugarrenez, Jon Lopategik urten eban txapeldun. Bigarren, Juan Mugartegi izan zen.*
- *Epaimahaian, Alfonso Irigoien, Aita Antonio Zavala, Juan San Martin, Aita Martzel Andrinua, Xabier Amuriza eta Jesus Oleaga egon ziren.*

(Iturria: Bizkaiko Bertsozale Elkarteak ateratako *Bizkaiko eskualdeetako bertsolari txapelketak 2000* izeneko prentsa txostena).

Bizkaiko bertsolari txapelketen lehenengo aroaren amaia (hurrengo 1987an izango zen) ekarriko eban honetatik be ez da, zoritxarrez, dokumentu askorik geratu Alfonso Irigoienaren funtsean.

Urte honetako kronika Aita Martzel Andrinuaren gutun esanguratsu bategaz hasiko dogu. Urte hareetan, epaimahian ohikoa zen pasionista honek bere Eubako komentutik honako gutuna bialdu eutsan Alfonso Irigoieni, 1966-III-08an:

Agur t' erdi, aixkide:

Lehenengo ta bat, zorionak, bihotzez, eskuratu dozun olerki sari eder horigaitik! Bigarren, eskerrik asko, Euskaltzaindiko bilerak dirala-ta bialduten daustazuzan orritxoak gaitik. Azkenengoan, irakurri dodanez, Bertsolari Txapelketetarako mahaiko izendatu nozue. Ahalegintxo egiteko gertu nago. Bizkai alderdiko Txapelketa dala-ta, zertzeladatu bat agertutera natortzu. Ondo dakizunez, Urkiolako hori beti izan ohi da neketsu, bateko baimen, altaboz, jente-ta. Ez litzake hobeto izango aparteko lau ekartea –lau Probintzietako onentxoena– eta txapelketa hori beste lekuren baten egin? Abadiño-ko herriak lagunduko leuskigu bakotxari zertxobait emoteko. Gainera, entzuleak be pozago geratuko litzatekez. Durango ingurukoak hain exkax izanik, hara datorren jenteak hobetxoagoak merezi ditu, nik uste. Eta txapelketa hori nun egingo? Egun eta leku bat gogoratuten dautsut: hemen, Eubako jaietan, inoiz egon zara. Harrezkero, urteetan, gero ta jendetza haundiagoa bertoratu jaku. Igaz, hiru-lau milara inguratuko ziran. Horrenbeste ta gehiago hartuko leukezan plaza haundi nasai bat be bada-go. Hemendik igaro dira onentxoena: Basarri, Lazkao Txiki, Azpillaga, Mugartegi, Lopategi, eta abar.

Aurten be, holango beste zeozer ez egitekoan, holakoren batzuk ekarteko ustetan nago. Dirua nundik nora batuko? Holango txapelketan izaten diran sariak gogoan hartuta, ez dot uste buru-hauste haundirik izango gendukeanik. Zer deritxazu burubide honi? Dana dala, zeure eritxia jakin gura neuke lehenbailehen, bat edo bestera jokatu teko be. Ezezkoan, beste batzuei dei egin behar dautset. Noz izango litzaken? Bertoko jaiak apirilaren 28an izaten da, baina hurrengo domekara atzeratu ohi da. Aurten, maiatzaren lehenengoan jatorku. Mese dez, urrutizkinez edo, lehenbailehen erantzun egidazu. Eskerrik asko! Zure aixkide, (sinadurarik ez dago)

Irigoienek, paperaren goialdean, *hitz egin det berarekin* eskuz idatzita dauka. Erantzuna zelakoa izan zen ez da agiri, baina Aita Martzelen proposamena onartu egin zen, Irigoienek, 1966-IV-25ean, bertsolariei bialdutako gutun honetan azaltzen denez:

Bertsolari maitea:

Datorren maiatzaren 1ean hasiko da Bizkaiko bertsolarien txapelketa Euban. Eguerdiko hamabiak inguruan izango da. Aurten ez da egingo Urkiolan. Eubakoa, beraz, Durango aldeko bertsolarientzat izango da. Sariak, aurreko urteetan legez, Bizkaiko Aharro Kaxeak lagundurik emoten dira. Han ikusiko zaitugulakoan, bihotzez, A. Irigoyen.

Irailaren 8an, Lekeitioan jokatu zen finalaurrekoaz, erdarazko kronika labur batek (*La Gaceta del Norte*, seguruenik) dino:

Se clasificaron para la final (...) los siguientes: José María Arregui, Abel Embeita, Abel Muniategui, Gregorio Larrañaga, Julián Martitegui y José María Gurtubai. Participarán también en dicha final el campeón y subcampeón vizcaínos del campeonato anterior: Juan Lopategui y Juan Mugartegui.

La copa del Ayuntamiento de Lequeitio la ganó José María Arregui, que tuvo una actuación brillantísima, y el segundo puesto quedó repartido entre los jóvenes bersolaris Abel Embeita —último retoño de la dinastía de los Enbeita— y Abel Muniategui. Destacó también, como nueva figura, Gregorio Larrañaga, de Marquina, un joven que cumple servicio militar en El Ferrol.

Urte honetan, aitzazkoa da, prentsara begira, lehenengoz gauzatu zen ekimen bat, Irigoienek, 1966-X-17an, bertsolari finalistei bialdutako gutun honetan agiri dena:

Bertsolari maitea:

Durangoan egingo da, hil honen 30ean, Bizkaiko Bertsolarien azken txapelketa nagusia. Goizeko 11:30ean izango da.

Bilboko La Gaceta del Norte-n gura genduke, egun bakoitzean, bertsolari baten erretratua eta bere barri emotea. Horretarako, mesedez, zure erretratu bat bialdu eta hurrengo dato honek be bai: Non jaito zinan? Noiz? Non bizi zara? Ze ofiziotan egiten dozu behar eta zer egin dozu orain arte? Zeinbat aldiz joan zara txapelketetara eta zeinbat sari irabazi dozu? Zer gehiago jartzea gura dozu? Zure erantzuna laster izango dalakoan, bihotzez, A. Irigoyen.

Urriaren 30ean, Durangoan jokatu zen finalari buruz, erdaraz idatzitako kronika bat dago, Irigoienek berak idatzia, seguruenik, prentsara bialtzeko. JUAN LOPATEGUI CAMPEON VIZCAINO DE BERSOLARIS izenburuagaz, lehenen Lopategi eta bigarren Mugartegi geratu zirela dino, eta beste parte-hartzaileak honakoak izan zirela: José María Arregi, Abel Enbeita, José María Gurtubai, Gregorio Larrañaga, Julián Martitegui eta Abel Muniategi. Goizeko saioa Astarloa Aretoan izan zen, "*repleto de público, dentro de un clima cálido, producido por los grandes aciertos que tuvieron*".

Zortzi parte-hartzaileetarik, arratsalderako lau honeek pasatu ziren: Lopategi, Mugartegi, Arregi eta Muniategi. *"Este último fue aplaudidísimo, sobre todo, por un verso que daba una visión popular nueva de San Ignacio, de carácter huma-*

*no"*. Famateu egin zen bertso harek, Irigoienek nahikoa biguntasun eufemistikoz definitzen dauen "giza izaera" baino gehiago, San Inaziori buruzko ikuspen militar eta erdaldun gordina adierazoten dau, geroago ikusiko dogun moduan.



Jose Antonio Arana Martija

### ● BERTSOLARITZAZ NIRE APURRAK

Aspalditik datoz bertsolari eta bertsolaritzarekin izan ditudan harremanak. Ibarruriko nire aitonaren Txakile baserrian ezagutu nuen, eta berarekin bazkaldu, Kepa Enbeita "Urretxindorra", 1942.eko San Pedroetako jaietan.

Enbeitatarren leinuarekin beti izan dut gero hurbileko eza-guera, baita Areatzan (Muxikan) sortu zen Garriko bertsolari talde eta bertso eskolarekin, Balendin Enbeita tartean zelaririk. Bestalde, ez ditut ahanzteko, 1965ean gaixoaldi luzea pairatu nuenean, astelehen guztietan, Gizaburuagatik etorrita izaten nituen Xabier Amurizaren bisitak. Garai hone-tan, Gernika hiri sortzearen mendeurrena ospatu zenean (1966) liburu baten argitaratu nuen, gaztelaniaz halabeha-rruz, jakina, "Los bertsolaris" artikulua.

Aspaldidanik izan da musika, eta bereziki euskal musika, nire zaletasunetako bat. Eta bertsolaritzan ere hori izan da nire ardura eta kezkarik handiena. Baina bertso doinuen idazkeran, nahiz eta doinuaren konpasa erdibitu behar, beti uste izan dut doinuak bertsoaren tankera errespetatu behar duela. Hau da: edozein motako bertsoaren lerro bakoitzari pentagraman doinuaren zatia dagokiola. Prosa erara idaz-ten zen doinua, bertsoen lerroak eta puntuak kontutan hartu gabe, eta idazkera hau baztertu egin beharko genuela iruditu zitzaidan. Gaur egun ere, jokabide hori erabiltzen da Eliza batzuetan, nire iritziz bertsoa desitxuratzen, kanta-

tzeko ematen diren diapositibetan, bertso neurriko kantak prosan lerrokatuz. Eta 1980.eko hasieran nire irizpidearekin idatzi nizkion era berriko bertso batzuk Antonio Zavala adis-kideari Auspoa bildumarako. Sistema berri honen alde argi-taratu nuen "Bertsoen doinua" artikulua *Jakin* aldizkarian (1980). Urte berean, Euskaltzaindiak antolatutako txapelke-tan, kanporaketetako herrietan azpiegitura prestatuz gain, doinuen saria epaitzeko ardura eman zidan Akademiak. Txapelketa honen bertsoak Auspoan argitaratu ziren (1980, 141. zn.) nire sistema berriarekin jarritako doinuekin. Berdin jokatu nuen 1982an, Euskaltzaindiak antolatutako txapelke-tan, bertso eta doinuekin *Jagon 1* liburua prestatuz. Donostiako Hoja del Lunes astekariko ale batzutan argitara-tu nituen txapelketako bertsoak doinu eta guzti. Gai honi buruz, Gipuzkoako Kutxak antolatutako jardunaldietan, 1982.eko azaroaren 9an, hitzaldi bat eman nuen "Bertso doinuak bertsolaritzaren historian zehar" izenburupean. Euskal Herritik kanpo bertsolaritzari buruzko nire ekarpena ere egin izan dut Parisen, Euskal Etxean, 1984ko urtarrilaren 26an emandako hitzaldian eta Londreseko British Library delakoan, Bonaparteren heriotzaren mendeurrena zela eta (1991), euskaltzale honen omenezko hitzak mota guztietako bertsoetan kantatu baintuen.

Arratsaldeko saioa Andra Mariko elizpean izan zen, "donde estaban los stands de la Feria del Libro y del Disco Vasco, dentro de un ambiente de suma espectáculo". Kronikak dino, azken duelora, Lopategi eta Mugartegi pasatu zirela eta epaimahaiak lehenengo saria Lopategiri emotea erabagi ebala, Mugartegi txapelkunorde gelditurik.

El jurado estuvo constituido por los Sres. Alfonso Irigoyen, que puso los temas, el P. Antonio Zavala, S. J., Juan San Martin, P. Marcelo Andrinua, Xabier Amuriza y Jesus Oleaga. Los temas impuestos para la versificación espontánea planteaban, en general, una problemática social. (...) Este día fue para Durango un día pleno de ambiente vasco, pues tambien el grupo conocido EZ DOK AMAIRU puso su nota transcendental con sus modernas canciones vascas, que causaron un gran impacto ante el público.

Eta hortxe agertzen naz neu be epaimahaiko, lehenengoz, ez ahazteko moduan, gainera, txapelketa amaitu eta egun gitxitara, idazki luzea bialdu baineban Euskaltzaindira, azken buruz burukora, Mugartegi barik, Muniategi pasatu izan beharko genduela argudiatuz. Guztiz galdutzat neukan idazki ha hona non agertu den orain Alfonso Irigoienek paper artean.

Aurrera jo aurretik, irakurleak parkatuko ahal deust ohartxo bat, kronika horretan nire izena emoteko moduz. Beste elizgizonak "P. Antonio Zavala" eta "P. Marcelo Andrinua" dira. Aurreko txapelketetan, Durangoko Santa Anako parrokoa "Don Jose Echeandia" zen. Neu be txapelketa honetan, eta oraindino urte batzuetarako, abade jauna nintzen, baina badirudi kronikariak elizgizon guztiak ez zituela bardin ikusten.

Aitatu dodan idazki harek, nire orduko zenbait erizpideren lekuko izatearen balioa baino gehiago, (hori gura leukeenak Alfonso Irigoie-

nen artxibo dagoeneko ordenatuan aurkitu leike), final haretako hainbat bertso jaso izanaren balioa dauka. Idazkiaren helburua zera zen: Lopategigaz txapela jokatzeko, aurrera pasatu beharrekoa, Mugartegik barik, Muniategik izan behar izan ebala argudiatzea. Kezka handia gelditu jatan eta, zelanbait, neure erru-ustea halantxe bigundu gura izan neban, atzetiaz bazen be, gitxienez, neure eritziaren konstantzia itzirik. Halan, ba, Muniategiren lehenasuna defenditzen nebanez gero, honen eta Mugartegiren aurreko bertso guztiak jasotzen nituen, baita biekin teman egokitu ziren beste bertsolariak be, kasu honetan, Arregi, Martitegi eta Lopategirenak. Idazki horixe agertu izan ez balitz, final haretako eta txapelketa guztiko bertsoarik bat be ez jakun geldituko. Idazkiaren sarrerak dino:

Erbiak igesita gero nator tiroka, baina egin beharrean nagola uste dot. Urriaren 30eko Bizkaiko bertsolarien txapelketatik, kezka haundi bat ekarri nuan etxera, pekatu eginda bezelako kontzientzi-mina edo. Alde batetik, Abel Muniategi merezi baino beherago itxi gendula neritxon. Bestetik, Lopategi ta Mugartegiren arteko bereizkuntza pota baten gorabeheran jarri gendula pentsatzeak lotsatuta nauka. Dalako pota hori -neure ustez- arrazoi baino gehiago, aitzaki edo igesbide bat izan gendun, edo arrazoi xehea, behintzat, bestela, arrazoi garbi ta sakonik ez bai gendun bilatzen. Guzti honeik pentsaketan niharduala, argitasun gehiago atera behar nebla-ta, bihamonean bertan, neure ustez eztabaidagarri ziran bertso guztiak magnetofoi batetik kopiatu nitun, lasaiago aztertu ta zimendu gehiagoko eritxi bat ateratzeko. Eritxi hori juraduan izan zinien guztiai bialtzen deusuet. Zertan esanik ez dago eritxi hau neure-neurea dala, ta zuek neure usteetara makurtzeko asmotan ez nazela ari.

"Bertso guztiak magnetofoi batetik kopiatu nitun". Horrek esan gura dau (eta gogoan daukat) final

haren grabazinoa eskuetan izan nebala. Non dago zinta ha? Gurean ez, behintzat. Eta beste inon ezin izan dogu aurkitu. Horrelakoxeak gara euskaldunak eta horrexegaitik da hain gatxa gu desmantelatzea.

### Bertsoak

Hona hemen nire idazki haretan jasota dagoen bertsoak, 1966ko txapelketatik gugana heldu diren bakarrak, oraingoz, behintzat:

*A. Muniategiren agurra:*  
Euskera zaharrak baserrietan  
hartu zun bere gorputza  
ta jakitunen aldetik berriz  
amai gabeko zaputza.  
Gaur estudioz ari geranok  
goruntz nahi diogu bultza  
baina galduta dago Durangon  
gure aitonen hizkuntza  
herri honentzat premizkoa da  
Kirikiñoren laguntza.



Balendin Enbeita Durangoko saioan. (1966-X-30)



Puntuak Mugartegiri

Puntua: *Konbidatuko al gozuz zure ezkontzara?*

*J. Mugartegi:* Honek etorri nahi luke neronen bodara. Traje berriaz jantziko zerade modara lagunekin etorri zindezke bertara.

Puntua: *Durango euskalduntzen ez dago erreza*

*J. Mugartegi:* Jenteak ez du hartutzen hainbat interesa. Hortarako jarri behar burutik amesa bestela gure euskera dago ezereza.

Puntua: *Ikastearena ez da galtzea denbora*

*J. Mugartegi:* Hortan atera liteke hainbeste mejora. Lehen behian daukaguna altxatzeko gora euskera indartzearren nator Durangora.

Puntua: *Salgai egongo dira hainbeste liburu*

*J. Mugartegi:* Kostako diradenak zazpi duro inguru. Erostita nahi dunak hor dauka seguru diru asko ez da ta ez izan apuru.

Puntuak Muniategiri

Puntua: *Bilbo aldean zara estudiantea*

*A. Muniategi:* Baina ez asko legez erdi tunantea. Hortarako izan nun nere suertea Euskal Herriak ez du izango kaltea.

Puntua: *Beti entzun behar da gizonaren hitza*

*A. Muniategi:* Hobe hortan askozaz gehiago banintza. Hala ere ahaleginez guztiok gabiltza ondo entzuteko gaur denok ondo mintza.

Puntua: *Andra bat behar dogu prezio merkean*

*A. Muniategi:* Banuke, ez dakit zer egingo nukean. Alfontso zu zabiltza horretan nekean baina gaur libre zagoz trankil ta pakean.

Puntua: *Etxe aurrian daukat gaztain arbolea*

*A. Muniategi:* Sarritan gelditzen da poliki belea. Pizti hori nola dan janari zalea aguro tragatzen du gaztaina alea.

Mugartegi eta Martitegi teman: *"Mugartegik hamar orduko lana egiten dau. Hala ere, familia ezin mantendu. Ezkontzaren trabak azalduko ditu. Martitegi, lan gutxirekin,*

*ezkondu barik patxadan bizi da. Ezkontzaren bentajak”.*

*J. Mugartegi*

Hamar orduan lana eginez  
nabil bizi ezinean  
nagusi honek ez naitu jartzen  
merezi detan oinean.  
Emaztearen ondorengoak  
han ditut nere gainean  
eta hau barriz lanik ein gabe  
bizi patxara onean.

*J. Martitegi*

Nahigabe hori sendatutzerik  
ez dago nere aldetik  
ezkondu zinan eta horrela  
ibili beharko zu betik.  
Familiaren karga gainera  
mantendu ezinda inundik  
hamar orduko dirua dio  
gutxi dirala oraindik.

*J. Mugartegi*

Lanaren bidez egiten ditut  
indartzeko ahaleginak  
baina alperrik izaten dira  
hemengo nire eginak.  
Gose-egarriz egun askotan  
sufritu beharra minak  
beste munduan hartuko ditut  
hemengo neken ordainak.

*J. Martitegi*

Ez zabiltzala gusto guztian  
eta nik maitatzen zaitut baina  
erremeditu ezina.  
Alperrik degu nagusiari  
egindako ahalegina  
hoba zenduan ni bezela  
ezkongai egon bazina.

*J. Mugartegi*

Zure esanak entzun ondoren  
jarri naiz ia minduan  
sinestu gero ez zabiltzala  
Jaungoikoen aginduan.  
Dana eginda ezer eman ez  
hartu behar dan orduan  
zu bezelako nagusi asko  
daukagu gaurko munduan.

*J. Martitegi*

Ez banaiz hemen ni lotsatuko  
oraingo hitz hau esaten  
eta jendea zoli baitago  
zer dedan orain esaten.  
Diru gutxitik bizi ezinda  
garbiro degu ikusten  
ume asko ta karga haundiak  
nola dituanok hartzen.

*J. Mugartegi*

Beste berso bat oraindik ere  
bazera hemen aitzeko  
ni izaten naiz zure lanean  
beti zuri laguntzeko.  
Eta zu berriz hor zabiltzazu  
ahal danetikan kentzeko  
nahikoa zera neu ta neronen  
famili dana galtzeko.

*J. Martitegi*

Hau da gizonak ezin asean  
dirutikan hondoraino  
nik pagatzia nahi nuke honi  
asko ez du merezi baino.  
Lanian ere saia beharra  
dago hori baino hobeago  
ondo portatzen ez danentzako  
diru gehiago ez dago.

Arregi eta Muniategi teman: “Arregi izango da elei-  
zeak azpian errez harrapauko leukena. Muniategi  
eleizeak sekula azpian harrapauko ez leukena”.

*J.M. Arregi*

Bakoitzak berena egitea  
beti da gauza erreza  
baino agertu nahi dizut, lagun  
hemen gaur nire amesa.  
Aspalditxuan darabilkizu  
oso bide aldrebesa  
ta zuentzako nik entzuten det  
zugaitik egunero meza.

*A. Muniategi*

Adiskidia, zertan hartutzen  
dezu gaur nire ardura?  
Urte askotan ikusten zaitut  
txit elizkoien modura.  
Traza horretan zu ikustiaz  
nik hartutzen det tristura  
Euskal Herriak eliz asko du  
falta duana kultura.

*J.M. Arregi*

Esan nahirikan gauza hauxe nik  
dadukat nere buruan  
zure antzeko asko ikusten  
dirade gaurko munduan.  
Mundu pixka batek engainauta  
noranhai nahi luke jua  
baino guztiak damutzen dira  
heriotzako orduan.

*A. Muniategi*

Une honetan ez zazu egin  
heriotzan esamina  
horren ardura gaberik dabil  
munduan kristinau fina.  
Ez geunke euko, adiskidia  
daukagun bizitz samina  
sasoi zanean jakituriaz  
ondo hornitu bagina.



Merino. Alfonso Irigoienen artxiboa

*J. Arregi kantuan. Atzean, Don Jose Etxeandia, Aita Zavala eta X. Amuriza,  
A. Irigoienen atzean.*

*J.M. Arregi*

Halan da ere lagundutzeko  
ni beti naukazu gertu  
horregatikan samurtasuna  
beti nahi dizut agertu.  
Munduarekin ez ote zera  
inoiz egingo aspertu?  
Zu azkenian eingo zerade  
laguna, inpernuratu.

*A. Muniategi*

Mundu honetan dago inpernua  
bai su ta bai ere garrez  
ikusten danez hortik irtetzen  
oraintxen ez dago errez.  
Eleiza hortan ibiltzen zera  
hain orazio samurrez  
baina gu preso aurkitzen gera  
erlijioen bildurrez.

*J.M. Arregi*

San Inaziok azken bizitzan  
hauze zion egunero  
mundu hontako harro-bideaz  
sekula ez gintezke ero.  
Zer balio dau mundu hontako  
ondasun danak espero?  
Alperrikuak dirala danak  
zerua galdu ezkeru.

*A. Muniategi*

San Inazio militarra zan  
eta arretaz aditu  
gugaitik eta herrien alde  
ez zuan ezer sufritu.  
Bera zala ta bera ez zala  
erdera gailen gelditu  
ejerziziuak askoz hobe zan  
euskeraz egin balitu.

### Arratsaldeko saioa

#### Mugartegiri puntuak

Puntua: *Txarto ibiltzen danak  
txarra du geroa*

*J. Mugartegi:* Ez pentsatu naizenikan  
nire aingeroa.  
Maitasunaren indarra  
badaukat beroa  
ta irabazi nahi nuke  
betiko zeroa.

Puntua: *Santa Mariapean  
gu kantuan gagoz*

*J. Mugartegi:* Nere abesti zaharrak  
harturikan gogoz.  
Sarri batuko bagina  
nahiago det askoz  
bestela galduko gero  
okerreko gogoz.

185

#### Muniategiri puntuak

Puntua: *Ezkonduko al zinake  
lamina batekin?*

*A. Muniategi:* Bakarrik ez gelditzeko  
ahaleginak egin.  
Alfontso pozik zaude  
zure lagunekin  
biok ezkonduko gi-  
nake edozeinekin.

Puntua: *Abadeak erropaz  
aldatu dirade*

*A. Muniategi:* Ez daude antxinako  
ohitura askon mende.  
Obispo askorentzat  
ehun kalamidade  
aldakuntz handiaok  
egiteko daude.

Mugartegi eta Arregi teman: "Mugartegi seme pelotaria izango da, tongo egitera doana. Arregi, semearen alde jokatu dauan aita, tongo egingo ebalá jakin barik".

*J. Mugartegi*

Pelotaria naiz eta beti nahi det bizia mantendu aita bateri ez nioke nahi nere laguntz hori kendu. Baina beraren laguntasunez ez naiz munduan zuzendu nik tongorikan ez nun egingo zeuk lehen lagundu bazendu.



Merino. Alfonso Irigoienen arxiboa. XDZ

*J. Lopategi kopagaz eta A. Irigoien. Atzean, J. Arregi.*

*J.M. Arregi*

Seme maitea nola esa'zu gaurkuan holakorikan? Hitz lizunikan adituzeko aitak ez du gogorikan. Zuzentasunez ez ote degu guk bizimodurikan aitak ez dizu sekula emon holako kontsejurikan.

*J. Mugartegi*

Aita-semeak inguratzean bihotza jartzen da minez neronek nahita nire egitez gaur aurkitzen da saminez. Irabazteko zerbait ein behar tongo batzuek eginez bestela galduko naiz betiko aita, egon zaitez jakinez.

*J.M. Arregi*

Aitak gaur hauxe esango dizu garbiro bere ustian ta bide hontatik jarraitu zazu herri eta erbestian. Nahiz partiduak eite'ituzula Durangon ta Donostian askoz hobe da tongo aberats baino pobre mundu ostian.

*J. Mugartegi*

Semeak aita maitatutzen du bere bihotza betian ta pena haundiz hitz egiten du semearen izatian. Nik ondo dakit gaurko jokoá dala aitaren kaltian gaurko galdua ordainduko'izut Amerikara juatian.

*J.M. Arregi*

Nere semeak oraingo hontan  
bai esan dula edarra  
baina derrigor obligazioz  
det errepara beharra.  
Gauza horixe pentsaturikan  
ixuritzen det negarra  
seme bat baino ez euki eta  
holakua izan beharra.

Muniategi eta Lopategi teman: *"Muniategi plazuetan  
automobila saltzen dauana izango da eta Lopategi,  
dirurik ez euki arren, eroatera datorrena"*.

*A. Muniategi*

Adiskidia, zerbitzurako  
hemen jarria naukazu  
aspaldixuan estutasunez  
oso beterik zaude zu.  
Nere etxean gauza ederrak  
kotxe honetan dituzu  
dirurik izan ez arren hemen  
aukera ederra daukazu.

*J. Lopategi*

Gizon hau holan ikusitzean  
ez al nago suertian?  
Kotxiarekin ibili neike  
gainera martxa fuertian.  
Plazuak ere baditu eta  
gaur dabil borondatian  
mila duro gaur hartu egizuz  
besteak hurrengo urtian.

*A. Muniategi*

Neri burlaka ez zaite etorri  
horren itxura preskuan  
plazuak lehendik jarriak daude  
oso era legezkuan.  
Automobilak hemen dituzu  
bakotxa bere lekuan  
gero ez damutu, adiskidia  
sasoia juandakuan.

*J. Lopategi*

Sasoia joanda nire diruak  
egin leikie gorantza  
bin bitartean bozinarekin  
harantza eta honantza.  
Modu horretan aberasteko  
baldin ba'zu esperantza  
klientiakin euki egizu  
benetako konfiantza.

*A. Muniategi*

Zu lakuakin konfiantzetan  
erdi aspertuak gera  
baina hala ere juzgatuzten det  
bakoitza bere legera.  
Jatortasunez hitz egiten det  
gainera bihotz onbera  
automobila hemen dozu ta  
aprobetxatu aukera.

*J. Lopategi*

Kotxiarekin bilera ederrak  
honela ein nahi nituke  
saltzaileak be horregatikan  
suertia izango luke.  
Emon eidazu kotxe eder hori  
kondizio hoiexen truke  
gero zuretzat izan liteke  
pagatu ezin banuke.

Mugartegi bakarrean: *"Fabriketako tximinitik gora  
doan keari hiru bertso"*.

Zer esan ere ez dakit baina  
hasi nahi nuke aitortzen  
fabriketako tximinitara  
jarria naiz begiratzen.  
Suaren gar ta indar guztiak  
ketan dirade urtzen  
ta gauza horren ondorengorik  
inork ez baidigu hartzen.

Haizearekin batera dabil  
tximinetako kea  
bertatik nunbait ateratzeko  
langilearen nekea.  
Hau egiten da kaltegarri ta  
nun daukagu mesedea?  
Hobe genduke jornal onakin  
osasuna ta bakea.

Tximini zaharra, zer esan asko  
badaukat gaur zuregana  
haizearekin nola daukazun  
kearen hartu-eman.  
Era berean ordaindutzen da  
langile hotzaren lana  
inok ez digu aprobetxatzen  
haizearekin doana.

Muniategi bakarrean: *"Hiru bertso, munduko aber-  
rastasunak zelan dauden banatuta gizonen artean".*

188

Gauzak ez ditut ondo ikusten  
arkitzen diran moduan  
zer ein behar dan lehenengotikan  
eukia det akorduan.  
Askoz mixeri gutxiagoxe  
euko genduke munduan  
langile danak jarri ezker  
kapitalisten graduan.

Diru guztia arkitutzen da  
oso gaizki banandurik  
kapitalistak ikusten ditut  
kartera danak beterik.  
Beste batzuek bizi izateko  
ia ez daukate modurik  
mundu honetan ez da ezer ingo  
goikoari kendu barik.

---

Hainbat ezbehar suertatzen da  
oraingoz Euskal Herrian  
goiko ta beheko hortxe dabilta  
sekulako indarrarian.  
Ezer oraindik ez da gertatu  
behar ez degun neurrian  
justizia hemen jarri bihar da  
esplotatu biharrian.

# 1987ko ARABA ETA BIZKAIKO TXAPELKETA



## Laburpena:

- *Eskualde kanporaketetan, Bermeon, 1987-XI-08an, Aritz Lopategik atera eban punturik gehien. Lekeition, 1987-XI-15ean, Josu Arriolak. Zornotzan, 1987-XI-22an, Anton Arriolak. Igorren, 1987-XI-29an, Ireneok Ajuriak.*
- *Finalurrekoetan, Durangon, 1987-XII-06an, punturik gehien Xabier Amurizak atera eban. Gasteizen, 1987-XII-13an, punturik gehieneko bi izan ziren, Moises Enbeita eta Juan Mari Areitio, baktixa 499, Segaz. Baina, Durangoko finalerdian, Ireneok Ajuriak be horrexen beste atera ebanez, bardinketa hirukotx bitxia gertatu zen. Hiruretarik bi zirenez finalean sartzekoak, desentpatea jokatu eragin eutseen, eta Juan Mari Areitio eta Ireneok Ajuria pasatu ziren finalera. Batzuetan, kasualitatea zehaztasun bildurgarri- ra jaisten da.*
- *Finala Bilboko Arriagan izan zen, 1987-XII-20an, zortzi bertsolariokin: Aritz Lopategi, Xabier Amuriza, Ireneok Ajuria, Jon Enbeita, Jon Lopategi, Jose Luis Mugarza "Elgetzu", Juan Mari Areitio, Jon Azpillaga.*
- *Laugarrenez, Jon Lopategik urten eban Bizkaiko txapeldun, eta bigarren Xabier Amuriza gelditu zen.*
- *Epaimahaiari, Luis Baraiazarra, Iñaki Sarriugarte, Abel Muniategi, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Trino Azkoitia eta Eusebio Osa egon ziren.*

Bizkaiko txapelketetan, 1987ko hau 21 urteko zuloa betetzera zetorren. Euskal Herriko txapelketa nagusietan, 1967ko azkenengotik 1980ra, 13 urteko hutsunea izan bazen, lurraldekoei askoz gehiago kostatu jaken berrabiatzea. Erabagi horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak txapelketari emotea onartu eban babes eta laguntasun ekonomikoak be ez eban zerikusi txikia izango. Orduan oraindino 'Bertsolari Elkarteak' izena zeukanak ateratako *Araba eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 87* izeneko liburuaren sarrerak dino:

Txapelketa hau, gerrate ondoan, Bizkaian, 1958tik 1966ra bitartean eta Euskaltzaindiak antolatuta egindako zazpiekin zubia egiteko asmotan jaio zen, nahiz eta berau izan Araba eta Bizkaiko izenarekin egiten zen lehena, gaur egun, bertsolaritzaren esparru geografikoaren barruan, Euskal Herria lau zatitan banatzen delako, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroarekin batera, Araba-Bizkaia izanik gure eskualdea.

Hainbeste urteren ondoren, lurralde txapelketa barriro abiatzeko barri nagusiaren ondoren, beraz, urte honetako nobedadea Araba be, Bizkaia gaz batera, txapelketan sartzea izan zen. Liburuaren sarrerak esaten jarraitzen dau, lurralde-lehiaketok, "hurbiltasunagatik, Euskal Herriko Txapelketa Nagusiak ez duen etxekotasun eta gozotasuna" dabela. Halan be, txapelketa hau ez zihoala eze-



lan be nagusiari konpetentzia-edo egitera, alde-  
rantziz baino, "honen helburuetariko bat hurren-  
go Txapelketa Nagusiaren lehen atala izatea bai-  
tzen, hots, gure eskualdetik egin beharko den  
aukeraketa Txapelketa honetan lorturiko puntuen  
arabera egitea".

### Arauk eta baldintzak

Txapelketa honetan jakinarazo zitueen arauen  
artean, honako hirurak nabarmendu ziren, libu-  
ruaren sarrerak dinonetik. Lehenik, puntuaketa  
bertso bakotxari emongo jakon eta ez ariketa  
ezbardinetakoko bertso-bildumari, azken txapelketa  
nagusian egin zen moduan.

Bigarrenik, puntuaketa publikoa izatea, baina ez  
agirian erakutsita, baizik, saioa amaitutakoan,  
gura eben guztien eskuan itzita, bardin bertsolari,  
zale zein kazetari. Honek alboan izten eban aurre-  
ko urteko txapelketa nagusiko erabagi oso ezta-  
baidatu bat, zeinaren arabera, epaile bakotxak  
bertso bakotxaren puntuaketa, bertso bakotxaren  
amaieran, publikoari erakusten eutsan. Garbitasu-  
naren edo joko ezkuturik ezaren izenean burutu  
zen praktika erridikulu samar hau gehiago ez zen  
errepikatuko.

Azkenik, epaimahaia bertsolarien eurek aukera-  
tuko eben, antolakuntza batzordeak eskaintzen  
eban zerrenda luze batetik. Kasu honetan, sei  
epaile aukeratzeko, 15eko zerrenda aurkeztu zen  
(sarrerak, beste une batean, "18 epailegaren  
zerrenda bat aurkeztu zen" dino) eta hautagai  
guztiek izan eben botoren bat. "Beraz, -dino  
liburuaren sarrerak-, zerrenda egokia izan zela  
esan dezakegu". Honeexek izan ziren 6 aukera-  
tuak: Luis Baraiazarra, Iñaki Sarriugarte, Abel  
Muniategi, Anton Mari Aldekoa-Otalora, Trino  
Azkoitia eta Eusebio Osa. Aurkezle Bernardo  
Mandalunizek egin eban eta idazkari lanak  
Andoni Iriondo eta Karlos Ibarzabalen artean

banatu zitueen. Gaien arduradunak honako bos-  
tak izan ziren: Iñaki Sarriugarte, Trino Azkoitia,  
Bernardo Mandaluniz, Iñaki Beitia eta Karlos  
Ibarzabal.

Saioen leku, data, lan mota eta abarren baldintzen  
artean, Jon Lopategi finalera zuzen sartzea erabagi  
zen, Bizkaiko azken txapelduna zelako, 1966an  
jokatu zen azkeneko Bizkaiko txapelketatik. Era  
bidezkoa eta elegantea izan zen berau, 21 urteko  
hutsuneari zubi egiteko. Beste baldintza bat honela  
zehaztu eben: "Finalaurreko hauetara, zuzenean,  
azken urteotan Euskal Herriko Bertsolari Txapelke-  
ta Nagusiko finalean edo finalaurrekoan parte har-  
tutakoak joango dira, hau da: X. Amuriza, J. Enbei-  
ta, J. Azpillaga eta G. Larrañaga «Mañukorta»".  
Finalerdietako 16rainoko beste 12 bertsolariak kan-  
poraketetan sailkatzen zirenak izango ziren. Kan-  
poraketok azaroaren 8, 15, 22 eta 29an jokatu-  
ko ziren honako herrietan, hurrenez hurren: Bermeon,  
Lekeition, Zornotzan eta Igorren.

### Antolakuntza

Azkenik, beste zenbait xehetasun puntualen artean,  
antolakuntzari buruz, liburuaren sarreran jasotzen  
diren baldintzen arteko 19.ak dino txapelketa hau  
Bizkaiko Foru Aldundiaren babes ekonomikopean  
egongo zela, aretoak Udal bakotxak ipiniko zituela,  
eta antolakuntza Euskal Herriko Bertsolari Elkartea-  
ren Araba eta Bizkaiko lurraldeak eroango ebala.  
Antolakuntza hori talde honen eskuetan egon zen:

Karlos Ibarzabal: gaiak, epaimahaia eta puntuaketa.  
Juanjo Basterra: antolakuntza tekniko eta Udale-  
kiko hartu-emonak.

Koldo Tapia: publizitatea, komunikabideak eta  
erakundeekiko hartu-emonak.

Joserra Bilbao: diru-kontuak eta erakundeekiko  
hartu-emonak.

Grabazinoetatik liburu egiteko transkribapena

eta doinuen aukeraketa eta sailkapena (liburuak doinutegi bat be badaroa) Begoña Iturrizak egin eban. Azkenik, argazkigilea Mikel Alonso eta azalaren diseinugilea Paradox taldea izan ziren.

### Diru-kontuak

Batetik, diruaren txintxin hotsa beti be gozoa delako; bestetik, datu ekonomikoen zaleak bat baino gehiago izaten direlako; eta, azkenik, konparazino-erreferentzia interesgarria izan daitekeelako, txapelketa-liburuak emoten dauen laburpen ekonomikoa honakoa izan zen: sarrerak, 4.210.588 pezeta. Urterak, 4.196.806 pezeta. Superabita, 13.782 pezeta.

Sarrera iturrietan, aitagarriena Bizkaiko Aldundia da, 2.700.000 pezeta emon zituena. Bilboko Udalak 212.000 pezeta jarri zituen eta Durango, Igorre eta Bermeoko Udalek 50.000na pezeta. Txapelketan zeharreko saio guztien artean, 1.148.400 pezeta atera ziren. Interesek be euren ekarritxoak egin eben: 188 pezeta.

### Bertsolariak

Parte-hartzaileak, guztira, 31 izan ziren. Finalera zuzen sartuko zen Jon Lopategi eta finalerdietan hasiko ziren aitaturako laurak ez beste 26rak honakoak izan ziren, saiorik saio bananduak:

Bermeon: Faustino Etxebarria, Aritz Lopategi, Jon Mugartegi, Juan Mari Areitio, Moises Enbeita, Abel Enbeita.

Lekeition: Basilio Pujana, Jose Mari Aranbarri "Botx", Josu Arriola, Juanjo Respaldiza, Jon Arriabalaga, Liborio Urrutia, Pedro Bizkarguenaga "Bizkar", Xalbador Laka.

Zornotzan: Xabier Arriaga "Txiplas", Anton Arriola, Jose Antonio Aranburu "Natxi", Jose Luis Anakabe, Manu Ziluagoa, Rikardo Gonzalez de Durana.

Igorren: Ireneo Ajuria, Jose I. Goenaga "Gorri", Jose Luis Bastarretxea "Altzalei", Jose Luis Mugarza "Elgetzu", Serapio Lopez, Xabier Bidaburu "Txirri".

Honeetarik sailkaturiko 12gaz eta finalerdietan hasiko ziren 4rekin, hamasikoa honela osatu zen.

Durango, 1986-XII-06an: Ireneo Ajuria, Josu Arriola, Jon Azpillaga, Xabier Amuriza, Jon Enbeita, Jose Luis Mugarza "Elgetzu", Aritz Lopategi, Anton Arriola.

Gasteizen, 1987-XII-13an: Rikardo Gonzalez de Durana, Abel Enbeita, Jon Mugartegi, Moises Enbeita, Gregorio Larrañaga "Mañukorta", Xabier Arriaga "Txiplas", Juan Mari Areitio, Jose Luis Basterretxea "Altzalei".

Hamaseirotarik sailkaturiko zazpirekien eta finale-ra zuzen sartu zen Jon Lopategigaz, finala, Bilboko Arriaga antzokian, 1987-XII-20an, honela osatu eta honelaxe sailkatu zen, puntuaketaren arabera: Jon Lopategi, Xabier Amuriza, Jon Enbeita, Jose Luis Mugarza "Elgetzu", Jon Azpillaga, Ireneo Ajuria, Juan Mari Areitio, Aritz Lopategi.

### Bertsoak

Gatozen orain txapelketa honen finalerdietako eta finaleko bertsoen hautu bat eskaintzera. Hautuak hautatzea esan gura dau eta era bitara egin daiteke. Bata da, binango saioetan, emongarri den bertsoa bere lehiakidearenagaz batera jasotzea. Biek merezi dabela ikustean, halantxe egin daiteke, baina, sarritan, bienak ez dira bardin aintzat hartzekoak izaten. Batarena jasotzearen, hainbestekoa ez den bestearena jaso beharretik libratzeko, bertsoa atera egingo dogu, kontesturako behar diren argibide minimoak emonez.

## Finalerdiak

### Ireneo Ajuria

*"Ireneo, zuk, egoerak beharturik, atrako bat egitea erabaki dozu eta bai egin be: narruzko abriguz jantzita datorren andre dotore bateri 'la bolsa o la vida' esan deutzazu. A zer sustoa zurea, Josu Arriola emakumea zeure emaztea dala konturatu zarenean". Bigarren bueltan, haxe kantetan dau:*

Zotzik ez dezu, esaten zabiltz  
baina ez jarri apala  
nik ondo dakit sorgin antzeko  
emakumea zarala.  
Eta dirua eskatzen dizut  
beste askori bezala  
suberte ona espero nuen  
eta gertatu da hala  
orain badakit nora joaten zen  
nere hileko jornala.

### Anton Arriola

*"Anton Arriola, fama handiko pelikula bat ikustera joan zara, baina zure aurrean dagoen bikoteak ez deutzazu ikusten izten. Zu, Ireneo, neskarekin zirrika zagozen mutila zara, Antonen aurrean". Lehenengo buelta biak honela joan ziren:*

Danetatik daukagu  
hemen jenerua  
ezer ezin ikusi  
hau da apurua.  
Ireneo daukagu  
gori ta berua  
pantaila ikusi nahi dot  
ta ez zure burua.

### I. Ajuria

Gazteak du odola  
gori ta mardula  
atzera egiterik  
ez uste sekula.  
Pentsatu gaur aukera  
ona daukazula  
ez al zaizu gustatzen  
gure pelikula?

### A. Arriola

Zinematarra dator  
hainbat astakirten  
zer egin, hau ikusi  
ala kanpora irten?  
Neskatxagaz baduzu  
hainbeste sentipen  
hoba hasten bazara  
filmeak egiten.

### I. Ajuria

Zuri gura dizut nik  
hau adierazi  
linboan ezin leike  
lagun, hola bizi.  
Espabilatzen ere  
behar zara hasi  
aukera daukazu ta  
oraintxe ikasi.

### Jose Luis Basterretxea "Altzalei"

Azken puntua: *Hurbiltzen doa baina oraindik ez jaku heldu garaia.*

Gaurko egoera inolaz ere  
guretzat ez da lasaia  
jo ta jo dabil beti bezala  
Euskal Herrian etsaia.  
Halan ta ere dakigu egiten  
komeni danean jaia  
askatasuna beti izan da  
Euskal Herriaren nahia  
hurbiltzen doa baina oraindik  
ez jaku heldu garaia.

Kartzelako gaia: *"Joan den hilean zabaldu dabe  
Kanbon, Iparraldean, lehenengo euskal institutua.  
Zure hiru bertsoak Batxilerra euskeraz egiten hasi  
diren neska-mutilei"*. Hirugarrena honela kantatu  
eban:

Garai batean ez zan izaten  
era hortako aukera  
ta nola gero etortzen ziran  
guri edozer esatera.  
Hazitxo hori geroxeago  
igual lorea ote da?  
Lizeo hortan zaindu zazue  
euskaldunon izakera  
askatasuna lortuko baita  
euskalduntzeaz batera.

**Juan Mari Areitio**

*"Zuek senar-emazteak zarie. Zuk, Areitio, sena-  
rrak, umeak izan gura dozuz, eta zuk, Altzalei,  
emazteak, ez dozu seme-alabarik izan gura"*.  
Azkenengo bertsoaz besteak honakoak izan ziren:

*J.M. Areitio*  
Ezkonduarien bizimodua  
beti izaten da binan  
ta erabakiak hartu beharra  
izaten dogu tamainan.  
Hori horrela izaten dogu  
bai orain ta bai antxinan  
ni ta emaztea aurkitzen gara  
orain arazozen grinan  
haurrik mundura ez ekartzeko  
zertako ezkondu ginan?

*Altzalei*  
Ume barik be bizi leike ta  
hartu egizu patxada  
nik zertarako hartu behar det  
ume ekarten pasada?  
Besotik heldu alkarri eta  
pasiatutuz plazara  
nahiko dotore biziko gara  
eta ez zaite ikara  
ume gehiago zertan ekarri?  
Zeu be nahiko ume zara.


*J.M. Areitio*  
Honi umerik ekarri ez arren  
ez dio bate axola  
garbi ikusi da une honetan  
mintzatu baitzaigu hola.  
Emakumeak erabaki hoi  
hartu du ez dakit nola  
ikusten dezu nere barrena  
triste ta goibel dagola  
mundu honetan zertarako da  
frutu gabeko arbola?

*Altzalei*

Erantzun hori izango zala  
nengoen horren susmotan  
frutuen bila ezkontzen dala  
entzunda nago askotan.  
Halan ta ere ni ez naukazu  
oindik gauz horren asmotan  
dale ta dale kanta berari  
berdin kale berdin lotan  
pare bat ume ekar ditzagun  
baina zeuk ekartzekotan.

*J.M. Areitio*

Gizona ezin leike erori  
emazte honen lazuan  
erabakiak hartuko ditut  
nik hor pausuan-pausuan.  
Asmo txar hori ikusten danez  
honek lehenagotik zuan  
haurtxoak oso politak dira  
etxean eta basuan  
zuk ekarri nahi ez badezu nik  
ekarriko'itut auzuan.



Mikel Alonso. XDZ

Faustino Etxebarria mikrofonoan. Jesarrita ezkerretik, J. Mugartegi, M. Enbeita,  
J. M. Areitio, A. Enbeita, A. Lopategi eta B. Mandaluniz. Bermeoko kanporaketa, 1987-XI-08.

Puntua: *Zazpigarren alaba  
ei dogu Araba*

*J.M. Areitio:* Hori pentsatzen nago  
eguna ta gaba.  
Senidea da eta  
ezin dogu laga  
estimaiko genduke  
euskalduntzen bada.

Puntua: *Zelan igaro dozu  
aurtengo urtea*

*J.M. Areitio:* Ez zuek izan behintzat  
nahigabez betea.  
Orain arte izan det  
nahiko suertea  
izan det zoriona  
nahi ta ez bakea.

#### *Xabier Amuriza*

*"Azpillaga: zuri 'paroa nago eta borondaterik  
bada' esan deutsu Xabier Amurizak, hogeita bost  
urteko mutil gazte honek". Azpillaga hasi zen,  
honela:*

Paroan dagon mutil gazte bat  
etorri da neregana  
hau da sinale bere bizitzan  
problema asko daukana.  
Bera oraindik mutil gaztea  
ta zahartuta dauka ama  
inguruetan somatutzen det  
mutil formalaren fama  
ta hortarako baldin bazagoz  
nik emongo deutsut lana

#### *X. Amuriza*

Gazte izanik, oso gazterik  
prolemak etorri jataz  
zuk badakizu zelan nagoan  
atez ate lanen faltaz.  
Asteburuan gasturako be  
aukera ederrak daukatzaz  
zure eskeintza ez onartzeko  
ez ahal naz izango kapaz!  
Emon dirua, zeuk egin lana  
eta holan biok enpaz.

Bigarren bueltan, Amurizak *"zeure alabakin  
ezkonduko naz / aberasten nazenean"* amaiturik,  
Azpillagak jarraitzen dau:

Gutxienean berakin dauka  
hamar urteko karrera  
alproja gisan ibiltzeko  
ez zinan sortu lurrera.  
Nere alaba nahi ote duen  
bere hurrengo harrera  
neregandikan aparte zabiltz  
etorri zaitte hurrera  
ilea moztu, bizarra kendu  
eta jarraitu aurrera.

#### *X. Amuriza*

Alperrekoa izango da gaur  
Azpillagaz barriketa  
ia ez dakit hanka egin edo  
hartu neure eskupeta.  
Honek nunbaiten lortua dauka  
haziendako karneta  
besteri oindik burla egiten  
berak etxea beteta.  
Zelan moztukot bizar ta ulea  
dirurik ez daukat eta?

Azken puntua: *Udazkeneko iluntze hori  
ez jat sekula ahaztuko.*

Udazken edo udagoienak  
aparteko xarma dauko  
maitale batek arratsalde horri  
ez leio egin inoiz uko.  
Nik maitetxo bat banuen noski  
frailletzan sartu orduko  
orbelak jausi ta hantxe etzun  
ez ginan gu gogaituko  
udazkeneko iluntze hori  
ez jat sekula ahaztuko.

Kartzelako gaia: "Aurten, ehun eta hoge euska-  
razko liburu barri agertu dira Durangoko Azoka-  
ra". Hirukotik, bigarren-hirugarrenak honakoak  
izan ziren:

Urterik urte Durango aldera  
euskaldunak pozik datoz  
liburu eta disko barriek  
damoskue hainbeste poz.  
Gitxi garela, asko garela  
itaun bat daukat aprapos:  
portzentaje horri gero jendeen  
kopuruak bajatorkoz.  
Hainbat liburu publikatzeko  
zenbat irakurle dagoz?

Euskeran alde bertso ta bertso  
hortxe gabiz herriz herri  
harrigarria deritxot, jaunak  
liburu kopuru horri.  
Ni gogaituta nengon ta aurten  
ez joat bape ekarri  
hainbat liburu ipini dabez  
guztion erakargarri.  
Ez al da hoba gitxiao idatz  
eta gehiago irakurri?

### Josu Arriola

Puntua: *Beterik al daukazu  
etxeko ganbara?*

J. Arriola: Hainbeste sagu txiki  
heldu da bertara.  
Katua ere lotan  
egun eta gaba  
laster handik kanpora  
urten behar gara.

"Zu, Josu, hoge urtetan zoologikoan egon dan  
lehoi zaharra zara eta zu, Azpillaga, orain daka-  
rren barria". Josuk hasiera hauxe emon eban:

Zu be ibilia hor  
libre eta aske  
baina pizti guztiak  
harrapa litezke.  
Leku onena danik  
zuk ez zazu uste  
tonto guztiak hona  
ekartzen dituzte.

Kartzelako gaia: "Aurten, ehun eta hoge euska-  
razko liburu barri agertu dira Durangoko Azoka-  
ra". Hirukotik lehenengo biak honakoak izan  
ziren:

Idazle hoiek zoriontzea  
erabaki dot orain nik  
gure herriko kultura hori  
jasoko da hoiengandik.  
Eta trabarik ez bada sortzen  
herri hontara inondik  
beste hainbeste helduko dira  
gure herrira oraindik.

Ez egon inor erdara horri  
deika edo erreguka  
Euskal Kultura gorantza doa  
hori ezin dogu uka.  
Apurka-apurka irabazi da  
hasi genduan burruka  
ikusten danez, gure Herriak  
euskara gosea du ta.

**Anton Arriola**

Kartzelako gaia: *“Aurten, ehun eta hoge euskarazko liburu barri agertu dira Durangoko Azokara”*. Hirukoa honelaxe hasi eban:

Hainbeste urtetan gure hizkuntzak  
jasan izan dau itzala  
Francon garaian errepresio  
hori ez zan izan makala.  
Esaten dabe hainbat liburu  
euskeraz egiten dala  
argi ikusten da gure euskera  
apurkan gorantz doala.

**Jon Azpillaga**

Kartzelako gaia: *“Aurten, ehun eta hoge euskarazko liburu barri agertu dira Durangoko Azokara”*. Hiruko sortatik, lehenengo-hirugarrenak honakoak izan ziren:

Durangon dagon azoka honek  
badu halako harrera  
ehun ta hoge liburu nunbait  
dagoz gutxi gorabehera.  
Zerbait erosi nahi duentzatz  
hor azaldu da aukera  
zer edertasun euskera maite  
duten guztien aurrera!  
Lehengo kontuak amaitu ziran  
mejoratzen ari gera.

Beste azoka ederrago bat  
sekulan ez det ikusi  
gaurkoa ez da, orain hiru egun  
hor martxan ziraden hasi.  
Gaurko eguna euskozaleak  
ez zaizue gaizki jausi  
zuek e hainbat gauza irakurri,  
saltzaileak irabazi  
Durangotikan joaterako  
liburu bana erosi.

**Jose Luis Mugarza “Elgetzu”**

*“Jon Enbeita, goizean lanera trenean zoazela, erre-tzaile porrokatu honen, Elgetzu honen alboan jesarri zara”*. Jon Enbeita honela hasi zen:

Trenea sartu ta oso lasai  
neure lanera nentorren  
trenean behar kotxean orde  
dirua ez izatearren.  
Nire ondoko laguna ere  
nahiko urduri zetorren  
zigarroa du golpean biztu  
ketan kanpo eta barren  
zeurekin egin nahi dana baina  
neu ez erre, lagun, arren.

Elgetzuk saioa honela amaitu eban:

Etsai txikien kontra daduzka  
berorren borondateak  
kez inguratuz pasatzen dira  
egun guztiko parteak.  
Kutsaduraren hondakinekin  
itsas ta mendi tarteak  
gure herriak tubo-eskapan  
ke zikinekin beteak  
eta kezkatu ipintzen dau hau  
zigarrotxo baten keak.



Puntua: *Batzuk atzera eta  
besteak aurrera*

*Elgetzu:* Nork daki nun dagoan  
gaur gure barrera?  
Durangok egin digu  
halako harrera  
Arriagan bukatu  
nahi det nik karrera.

Puntua: *Txapelaren egarriz  
daukagu gaztea*

*Elgetzu:* Eta bila nahi nuen  
aspaldi hastea.  
Ez nuke galdu nahi nik  
txapelan ustea  
ai zer zoragarria  
neronek jaztea!

Kartzelako gaia: *"Aurten, ehun eta hoge euskarazko  
liburu barri agertu dira Durangoko Azokara".* Lehe-  
nengo-bigarren bertsoak honakoak kantatu zituen:

Lapiko zaharra zintzilik dago  
euskaldunon laratzean  
ta aspaldian aurkitzen ginan  
suondo triste antzean.  
Baina Anboto aldetik gora  
goizean begiratzean  
poza hor dator liburuz gure  
azoka hori jaztean  
lore berriak ernetzen doaz  
euskaldunon baratzean.

Gure kultura alde hortatik  
beti izan da apala  
liburu bat guk nola genduan  
geure amaren magala.  
Baina idatziz berbizten dator  
orain hurrengo atala  
eta izan bedi munduan zehar  
behar dun indar zabala  
erakusteko behar dan tokian  
oraindik bizi garala.

### **Abel Enbeita**

*"Abel, hamabost urtean alkarregaz bizi ondoren,  
Rikardo zure emazteak 'ni banoa' dinotsu".* Hiru-  
garren bueltan, Rikardok *"ni ez nazake sekulan  
bete / munduan gizon bakarrak"* kantaturik, Abe-  
lek saioa honela amaitzen dau:

Ta horregatik bakarrik al da  
zu joatea aparte?  
Askon artean lortu daiteke  
ezbeharra edo kalte.  
Nere barrena triste utzita  
hemen ta bien bitarte  
hala ta ere, nahiz ta agurrak  
atze txarra baitaukate  
beste gauzarik ez dizut opa  
zoriontsu bizi zaite.

Kartzelako gaia: *"Joan den hilean zabaldu dabe  
Kanbon, Iparraldean, lehenengo euskal institutua.  
Zure hiru bertsoak Batxilerra euskeraz egiten hasi  
diren neska-mutilei".* Lehenengo-hirugarrenak  
honakoak izan ziren:

Kanbo aldetik hor oihartzuna  
Euskadi danak gogoz entzuna  
Instituto bat sortua dela  
ta gainera euskalduna.  
Hara hor, gazte laguna  
sarri eskatzen genduna  
ta gaur opatzen zaizuna  
ea zuekin gure herriak  
lortzen dun etorkizuna  
hor duzue gaur, zuentzat horra  
guk ezin izan duguna.

Gogotik nator gaurkoz kantari  
ta errazoiak ditut ugari  
Instituto bat ta euskalduna  
neske-mutilentzat sari.  
Baina hara hortik adi  
txintxo jarrai bideari  
martxa hau ezin da geldi  
nik zuentzako hauxen dadukat  
agure baten opari  
zuen eskuan daukagula guk  
bihar-etziko Euskadi.

*Moises Enbeita*

Azken puntua: *Egun horretan igarri barik  
egin nintzan ni aitond.*

Berrogeita hamar urte joanak  
ederto gara konpondu  
emazteak ta nik oso ondo  
etxeke gauzak atondu.  
Sendi eder bat sortu genduen  
guretzako horrek on du  
seme zaharrena sendi ta guzti  
zorionez da ezkondu  
egun horretan igarri barik  
egin nintzan ni aitond.

Kartzelako gaia: *"Joan den hilean zabaldu dabe  
Kanbon, Iparraldean, lehenengo euskal institutua.  
Zure hiru bertsoak Batxilerra euskeraz egiten hasi  
diren neska-mutilei".* Hona lehenengo-hirugarrenak:



Ezkerretik eskumara: R. Gonzalez de Durana, A. Enbeita, J. Mugartegi, M. Enbeita, Mañukorta, Txiplas, J. M. Aretio eta Altzalei. Gasteizko finalaurrekoa. (1987-XII-15)

Zein atsegina euskaldunontzat  
Bernardo, zure barria!  
Euskera baita euskaldun danok  
lotzen gaitun lokarria.  
Iparraldean instituto bat  
hori gauza pozgarria  
horretarako aspalditikan,  
genduen guk egarria.  
Ez al da hori bide onetik  
goazen ezaugarria?

Hau entzutean urruntzen jaku  
apur bat gure ikera  
euskeran alde neska-mutilak  
hor ikusita batera.  
Ez daigun beraz alperrik galdu  
emon dauskuen aukera  
liburu danak hausnartu eta  
hola jarraitu aurrera  
hori egiten dogun artean  
ez jaku hilgo euskera.

### **Jon Enbeita**

*“Zuek auzo bereko neska-mutilak zarie. Amurizak, neska honek, zuri, Jon, mutilari, inoiz ez zaituela neskakaz ikusten dinotsu”. Amurizak lehenengo bertsoan “neskakin ia ez zaitut / nik ikusten bape / zein kanal darabilzun / jakin gura neuke” kantaturik, Enbeitak jarraitzen dau:*

Ez zaizu damutuko  
hori esaterik  
nik neskari ez diet  
zabaltzen aterik.  
Zeu ikusita nago  
ni pozez beterik  
bihotz honek ez baitu  
zeu beste maiterik.

*X. Amuriza*  
Oraintxe jarri naz ni  
mutilan maitean  
ez neban amaitu nahi  
holako bakean.  
Zatoz nahi dozunean  
hurrengo batean  
bitartean bistatik  
ezkutau naitean.

*J. Enbeita*  
Nire hitzak damotsu  
hainbeste arazu  
hala ta guztiz ere  
neska zai daukazu.  
Ondo pasa gindezke  
aurrerantz ni ta zu  
ez zara damutuko  
probatzen banauzu.

*X. Amuriza*  
Gauza ona probatzea  
gozoa benetan  
holako aukerarik  
ez neban kontetan.  
Ezkundu be egingo  
nintzake berbertan  
bihamon goizerako  
alarguntzekotan.

*J. Enbeita*  
Kontuan ez al zera  
zu egingo jausi?  
Lotsaren kate hori  
behar dozu hausi.  
Neska, ikusten zaitut  
nahikoa itsusi  
zoriona auzoan  
ta ezin ikusi.

Kartzelako gaia: "Aurten, ehun eta hogei euskarazko liburu barri agertu dira Durangoko Azokara". Hirukotik, lehenengo-hirugarrenak honakoak izan ziren:

Liburuak datozela  
amaibako katera  
herriko kulturarentzat  
hori ez da kaltera.  
Gure hizkuntzaren jaube  
noizbaiten izatera  
bide hortatik segurua  
gu iritxiko gera  
baina herri honek zor du  
bestelako irtera:  
ea herri hau badoa  
liburuaz batera.

Ehundik gora omen dira  
ekarriak gaur egun  
zorionak ta aurrera  
bide horretan jardun.  
Elkartu abertzaleok  
denok elkarren lagun  
kultura jaso behar da  
edonoz eta nahinun  
baina herri hau munduan  
izan daiten ezagun  
borrokaren liburuak  
geuk idatzi dezagun.

**Rikardo Gonzalez de Durana**

Azken puntua: *Berriz halako gizon klaserik  
sortuko al da mundura?*

Euskal Herrian horretarako  
baldin badago ardura  
uste dut hortik jo litekela  
txit leku bat segurura.  
Orain datorkit hain zuzen ere  
une hontan nere burura  
Xalbadorrekin aberats dela  
euskaldun literatura  
berriz halako gizon klaserik  
sortuko al da mundura?

*"Bazkaltzeko batu zarie zuek biok. Zuk, Altzalei,  
ardaoa eskatu dozu eta zuk, Rikardo, barriz, ura".  
Altzalei hasten da:*

Badakit edateko  
ura be dagola  
baina zertan burua  
horrela kontrola?  
Urik ez det edaten  
sekulan inola  
askoz be hobea da  
Kristoren odola.

*R. Gonzalez de Durana*  
Zeozar entzun behar  
horrela hasita  
gaizki gorputza eta  
gaizkigo patrika.  
Zuk edaten duzuna  
hortik ikusita  
ez da odola baizik  
gizonen kimika.

Hirugarren bueltan, Altzaleik "zuk edan zazu ura  
/ eta nik ardoa" kantaturik, Rikardok saioa hone-  
la amaitzen dau:

Eztabaidan hasita  
orain nereko  
ardoa defendatzen  
duzu zuk polito.  
Edan gura duzuna  
zerorrek ta kito  
nik asko edan dut ta  
oindik ez naiz ito.

Kartzelako gaia: *“Joan den hilean zabaldu dabe Kanbon, Iparraldean, lehenengo euskal institutua. Zure hiru bertsoak Batxilerra euskeraz egiten hasi diren neska-mutilei”*. Hirugarrena hauxe kantatu eban:

Ezin da esan: “Euskal Herria  
behin betirako akabo”  
nahiz ta agertu gure artera  
zenbait fitxaje arraro.  
Besten mendean nahiz ta hementxe  
urte asko den igaro  
erabat seguru nago  
zuen laguntzaz berreskuratu  
dezakegula zeharo  
borondaterik dagoenean  
ezinikan ez baitago.

### **Aritz Lopategi**

*“Aritz Lopategi eta Anton Arriola. Zuek biok amasemeak zarie. Zuk, Aritz, ama alarguna den Antoni ezkontzari buruzko zeure asmoak azaltzen deutzazuz: ez zara ezkonduko ez Juzgadzuz, ezta Elizaz bere, batu baino”*. Anton Arriolak *“betiko ohi-tura izan danetik / ez zaite aparta, alaba”* amaiturik, Haritzek jarraitzen dau:

Gu alkarrekin batuta gabiltz  
urtebetean inguru  
ta maitasuna hasieratik  
gogo handiz daroagu.  
Orain guk biok bat egitea  
jarria dogu helburu  
bion gogo hori da eta  
zu, ama, egon seguru  
bedeinkapenik ez dogu behar  
alkar maitatzen badogu.

Eta hirugarrenean:  
Neure nobiaz pentsatzen nago  
beti egun eta gaba  
ezkondu barik batu nahi gara  
ta mesedez, ama, laga.  
Gero parejan joango gara  
pozik hona eta hara  
nahiz eta orain zuk, ama, jarri  
hainbat oztopo ta traba  
ilobatxo bat dakargunean  
orduan poztuko zara.

### **A. Arriola**

Umerik ezin dozu ekarri  
zure estadu horretan  
gogoratzen naz ze egun gozoak  
zenituen zuk umetan.  
Ondino ere, ene alaba  
nik maite zaitut benetan  
faltsukeria ta pekatua  
dago gaur mundu honetan  
hori egiten badozu ama  
hil egingo da penetan.

*“Elgetzu, zu kale-garbitzailea zara eta gaur gabaz, zaborrak batzen zabilzela, zabor-ontzi batean sartuta, Aritz aurkitu dozu”*. Elgetzuk lehenengo bertsoa *“arratoia da edo / ganauaren kaka / kiratsa dauka eta / itxi daidan tapa”* amaiturik, Aritzek jarraitzen dau:

Patxaranak egin daust  
barren dana hautsi  
igual zuzenduko naiz  
bihar edo etzi.  
Gizonan itxurarik  
ezin erakutsi  
hemen ondo nago ni  
ta bakean utzi.

**Gregorio Larrañaga "Mañukorta"**

Azken puntua: *Bertsolaria horrexegatik  
ikusten dogu kezkatu.*

Zerbait nahi eta askatasuna  
ikusten degu urruti  
eskatu arren ezetza dator  
dudarikan gabe beti.  
Euskal Herria zoritxarrean  
eginda degu lau zati  
nahi ta ikurrina hortxen ikusi  
adar haundi baten zuti  
bertsolaria horrexegatik  
ikusten dogu kezkatu.

Kartzelako gaia: *"Joan den hilean zabaldu dabe  
Kanbon, Iparraldean, lehenengo euskal institutua.  
Zure hiru bertsoak Batxilerra euskeraz egiten hasi  
diren neska-mutilei".* Hona lehenengo biak:

Hortik zabaldu dira  
lehenengo burpilak  
jende argiak gera  
gainera umilak.  
Gu zertarako egon  
euskeraz isilak?  
Horretarako daude  
ikastola pilak  
ta zorientzen ditut  
neska ta mutilak.

Batxiler horretatik  
badator aukera  
gazteak ikasteko  
hartu dute era.  
Zuzen joka zazute  
hemendik aurrera  
ea baztartzen degun  
apur bat erdera  
ta indartutzen jarri  
maite deun euskera.

**Jon Mugartegi**

*"Jon, gaur zu herriko frontoira eskupelotan egiteko  
asmoz etorri zara, eta Moises Enbeita saskibaloian  
olgetan aurkitzen dozu bertan, balonzestora olgetan".  
Moisesek "frontoia libre izango zundun / goizago  
jaiki bazina" amaiturik, Mugartegik jarraitzen dau:*

Ikusten nago argi samarra  
nola zabiltzen talentuz  
baina nik gauza guztiak hemen  
jarri nahi nituke puntuz.  
Zure esanetan ni ez naiz bizi  
arlo berean kontentuz  
ni hemen nabil euskal kirolez  
eskupelotan jokatzu  
ohitura zaharrai jarraitu eta  
Euskal Herria goratuz.

Azken puntua: *Drogaren bildur handirik behintzat  
ez zan izaten orduan.*

Bizi izaten ere ez dago  
erreza gaurko munduan  
gaiztakerien bildur handirik  
ez zan nere akorduan.  
Anai ta arreba alkartzen ginan  
danok alkarren onduan  
herri bat hortxen bizi bai zela  
oso osasun senduan  
drogaren bildur handirik behintzat  
ez zan izaten orduan.

*“Zu, Abel Enbeita, irakaslea zaitugu. Azterketa bezperan parrandan zabiltzala, zure ikaslea dan Jon Mugartegi aurkitu dozu goizaldeko orduetan”. Lehenengo bertsoan, irakasleak “bihar kalabazak” agindurik, Mugartegik jarraitzen dau:*

Agertu nahi nituzke  
bide umilenak  
ez ditut probatuko  
hegal debilenak.  
Goizeko laurak aldean  
hala zebilenak  
zer erakutsi behar du  
hola dabilenak?

Hirugarren bueltan, Abelek *“mozkorra kendu eta / etor hadi etzi”* amaiturik, jarraitzen dau:

Nik ez daukat joan beharrik  
mozkorra kentzera  
maisua bai bere lanak  
ondo atontzera.  
Halan ta ere dator  
nere bihotzera  
hobe joaten bazera  
ardiak zaintzera.



*Arriagako sarrera-eskilaran, bertsolariak eta Bertsozale Elkartekoak, Alfonso Irigoien erdian dabela.*

Kartzelako gaia: *“Joan den hilean zabaldu dabe Kanbon, Iparraldean, lehenengo euskal institutua. Zure hiru bertsoak Batxilerra euskeraz egiten hasi diren neska-mutilei”*. Lehenengo-bigarrenak honakoak kantatu zituen:

Iparraldeko Kanbo horretan  
zertan daukagun bizitza  
neska-mutilak irakatsiaz  
egin nahi dute eskintza.  
Zorioneko izan dedila  
hartu dezuten balditza  
Batxiler horrek merezi baidu  
goiko mailako jakintza  
gu ere hemen ikasi nahirik  
aspalditxoan gabiltza.

Neska-mutilak preparatuzten  
ari dira lanerako  
egunez gauak pentsatu eta  
gauza onak ondoreneko.  
Hau ikustean nere bihotzak  
ezer ez du kalterako  
batxiler hori izan dedila  
jakintsuen mailarako  
eta egiten dezuten lana  
Euskadiren onerako.

**Xabier Arriaga “Txiplas”**

*“Zu, Mañukorta, nautika ikasketak eginda, itsasoan asper-asper eginda, lehorrean geratzeko dagoen Txiplasen postua betetzera zoaz. Beraz, Mañukortarentzat lehenengo bidaia eta Txiplasentzat azkena”*. Mañukortak bigarrena honakoa kantetan dau:

Tokia ondo betetzeko hor  
agintzen baitit lagunak  
hauek dirade urte askoan  
itsaso hortan jardunak.  
Ta Mañukortak pasauko ditu  
gaba luze ta egunak  
arrai freskoaz bete nahirikan  
lur hontako euskaldunak  
gaurtik aurrera atrapaiko'itut  
txitxarro eta atunak.

*Txiplas*

Arrantzalea jatorra dugu  
eta hortik erabaki  
lanerako inoiz ez du jarriko  
ez oztopo ta atxaki.  
Baina kontseju batzuk ematen  
noa orain lagun bati  
hau galdetu dut sartu orduko  
gainerako ta hainbati  
nire puestora doan lagunak  
igerian ote daki?

*“Txiplasek, sasi-eskola besterik egiten ez dauen honek, zuri, Areitio, ikasle zintzo horri, kopiatzen izteko esan deustu”*.

*J.M. Areitio*

Ni naiz ikasle zintzo  
fin eta abila  
liburuak etxean  
ditut hamar mila.  
Ta hau mendira joaten da  
txorikume bila  
ikasi nahi ez badu  
hor konpon dedila.



*Txiplas*

Badakit ez naizela  
ikasle argia  
ta joko hau ez dela  
niretzat garbia.  
Baina konpartitu gaur  
zeure izerdia  
gutxienez utzi, ba  
kopiatzen erdia.

Kartzelako gaia: "Joan den hilean zabaldu dabe  
Kanbon, Iparraldean, lehenengo euskal institutua.  
Zure hiru bertsoak Batxilerra euskeraz egiten hasi  
diren neska-mutilei". Lehenengo biak honeexek  
kantatu zituen:

Albiste on bat entzun nuen nik  
irradi batetan danba  
ta hemendik neuk egin nahi nuke  
golpera hor propaganda.  
Lehen Hegoan ta Iparrera ere  
heldu zaio bere txanda  
ezin leike inoiz mutil ta neskak  
galdu horrelako ganga  
albiste hori guk entzuteko  
ia sasoi izan da.

Nere iritziz han bazegoen  
holako baten beharra  
ta gauza hori bene-benetan  
izan da oso edarra.  
Iparraldean ere euskerak  
antza, hartua du garra  
gorantza doa apurka-apurka  
hizkuntza honen indarra  
ea horren bidez batzen ditugun  
Hegoa eta Iparra.

**Finala**

**Ireneo Ajuria**

"Ajuria, zu anbulantzia baten hilzorian zoaz eta  
zu, Jon Enbeita, anbulantzia horretako txoferra  
zaitugu. Tamalez, trafiko arazo handiak dagoz eta  
anbulantzia lotuta dago".

Jon Enbeita, bigarren bueltan:  
Nahiko ez al da hilzorian den  
lagunak duen samina?  
Nola asetu trantze honetan  
nire bihotzeko mina?  
Hauxe da, jaunak, lagun on bati  
lagundu nahi ta ezina  
zu lasai egon, egingo dut nik  
ailegatzen ahalegina.

*I. Ajuria*

Gauza horiek bete ezkeru  
hi bapo portatuko haiz  
kaminoan dan iskanbila hau  
guri gertatzen zaigu maiz.  
Ospitalera ez banaiz heltzen  
bizi izateko garaiz  
emazteari mosu bat eman  
kaminoan hiltzen banaiz.

"Neguko lehen edurrari bertso bi". Lehenengoa  
hauxe kantetan dau:

Mendi gainean kapela  
zuri duzu egina  
neguan gauza bat ez da  
besterikan berdina.  
Ifarra dator honuntza  
bera da haize fina  
menderik mende hola da  
neguaren ekina  
zuri begira jarrita  
zer gauza atsegina!  
Nahiago nuen honera  
lehenao heldu bazina.

**Xabier Amuriza**

*"Zuek biok egunkarira joan zarie, iragarki bat jartzera. Zuk, Aritz Lopategi, baserria saldu nahi dozu eta zuk, Amuriza, baserri bat hartuko zeunke". Haritzek lehenengo bertsoan "baina ez dakit balio duzun / baserriar izateko" kantaturik, Amurizak darrai:*

Balio bako baserriarrak  
dinozu dirala batzuk  
zeozergaitik saltzeko asmoa  
hartuko zendun baita zuk.  
Hasieratik hasarrau barik  
bihotzetik nik dinotsut  
lartxo eskatzen ez badaustazu  
pozik erosiko dautsut.

*A. Lopategik, hirugarren bueltan:*

Itxura horrekin ziur zaudela  
hainbeste diruz beteta  
baina alperrik dauzkazu, lagun  
banku batean gordeta.  
Zu mendikoa ez zara eta  
jarri ezazu arreta  
abarkak ere eros itzazu  
beharko dituzu eta.

*X. Amuriza*

Honekin tratu onik egiten  
gaur ez jekoat hain errez  
anuntzioa jartzera etorri  
ta dana jarri aldrebes.  
Hartuko dautsut baserri hori  
jatorra bazina legez  
baina sasiak eta simaurrak  
zeugaz eroan mesedez.

*"Zu, Amuriza, txakur-korotza zapatetatik garbitu ezinean zabilzela, hara non datorren Areitio hau txakur dotore batekin pasean". Amuriza hasten da:*

Hemen alkartu gara  
Juan Mari, ni ta zu  
txakur korotza eta  
txakur bat daukazu.  
Holako animali  
abila badozu  
nire zapata zahar hau  
mizkau eraiozu.

*J.M. Areitio*

Ez det hartzen egia  
esaten dun trazik  
txakur honek inori  
ez dio egin gaitzik.  
Ta hemen ez zazu bota  
horrelako hitzik  
honek ez du egiten  
korotz eta pixik.

*X. Amuriza*

Esan dozuna ez dozu  
sinestuko zeu'pe  
baina milagro hori  
igual gerta leike.  
halan balitz gustora  
ikusiko neuke  
txakurra hartuko deustut  
zapataren truke.

*"Amuriza, azken inkesta batzuek adierazoten dabenez, euskaldunik gehienak zoriontsuak dira. Zer dinozu zuk? Bertso bi".*

Inkesta horreik egingo dira  
 oso prezio merkean  
 hemen holako barririk ez da  
 joan dan aspaldi partean.  
 Ez dakit zelan agertu diran  
 horrek gaur nire atean  
 zoriona ta zoritxarra zan  
 kasila bana batean  
 igual jornala izango dabe  
 oso altura fuertean  
 anaia batzuk lurpean  
 beste batzuk bitartean  
 zoritxarrari ihes eginik  
 hortxe dabiz jo ta kean  
 danak leloak baldin badira  
 ni ez nago hoi en artean.

Ez pentsa gero arrazoi horrek  
 barrutik ez daustan urten  
 holako gauzak zabaldu dira  
 lehenao ta baita be aurten.  
 Zorionaren amesa ezin  
 leiteke guzurrez eten  
 baina hori egin dabenak dagoz  
 halako magia baten  
 Euskadin hori ez dakit zelan  
 ia publiko leiteken  
 ez dago errez esaten  
 hori zelan gerta daiken  
 baina egingo dogu modua  
 noizbaiten eta nonbaiten  
 gure herri hau hilko balebe  
 zoriontsu biztu daiten.

*“Amuriza, zuk OTA deritzan tokian itzi dozu kotxea. Amaierako ordua baino bost minutu beranduago heldu zara, eta autoa guari lotzen aurkitu dozu Elgetzu udaltzaina”.* Amuriza hasi zen, honela:

Bilbora etortzea  
 zer gauza petrala!  
 Kotxea nun itxi be  
 istilu legala.  
 Bost minutu goitikan  
 kotxea doala  
 ez nuen pentsatuko  
 sekulun sekula  
 Gorordoren morroiak  
 hain finak zirala.

*Elgetzu*  
 Morroitikan morroira  
 da diferentzia  
 ordu erdirako zuk  
 zendun lizentzia.  
 Palta txoferra eta  
 grua iritxia  
 ez pentsa! Bilbon nola  
 nahizu ibiltzia?  
 Bota mila duro ta  
 zuretzat kotxia.

*X. Amuriza*  
 Honen aginpidea  
 hain dago gaur sendo  
 baietz esango neuke  
 burutik banengo.  
 Mila duro eskatzea  
 ez dozu egin ondo  
 hau bai benetan, jaunak  
 izan dala tongo  
 faltsoa zaralako  
 ez deusut emongo.

Tongo kontua aurreko saioko gaia izan zen. Elgetzuren erantzuna "kotxea garajera / ta hau kalabozuan" izanik, Amurizak darrai:

Lehen be hor egona naz  
dakizun antzera  
ez naz deskuidatuko  
gerizan sartzera.  
Kotxea eroaizu  
kaletik kalera  
nahi badozu adornutzat  
Bellas Artesera  
edo bestela salgai  
Corte Inglesera.

*Elgetzu*

Beraz, eman didazu  
hainbeste aukera  
eta portatuko naiz  
nahi dudan antzera.  
Nigana azaldu zera  
edozer esatera  
zeuk dinozu lehen joan  
zinan espexera  
barruan egoteko  
zu hobea zera.

Kartzelako gaia: "Lehenengoz eskolara eroan eta bertan negarrez hasten jatzun semeari. Hiru berzo". Amurizak hiruko hauxe kantatu eban:



Ezkerretik eskumara: A. Lopategi, X. Amuriza atzean, I. Ajuria, J. Enbeita, J. Lopategi, J. L. Mugarza, J. M. Areitio, J. Azpillaga eta B. Mandaluniz. Finala. 1987-XII-20.

Bide luzea eskolaraino  
 ibilia naz neu be gaurdaino  
 eta oraintxe nire umeak  
 "eskola ez dot nahi" dino.  
 Ez dago eskola baino  
 ondo pentsatu ezkino  
 behar dozu orraitino  
 eskola zer dan konprenditzeko  
 txikia zara oindino  
 lehor malkoak ta egon zaitez hor  
 ama etorri artino.

Nire umeak pena damosta  
 bihotzeraino egin daust zasta  
 eta maisuak haurra etxera  
 eroateko esan dausta.  
 Baina, umetxo, hau koska!  
 Mundua erreza ezta  
 ez ein hainbeste protesta  
 ikasi eizu, egon zaitez hor  
 nahiz ta malko batzuk kosta  
 eskola bako jendeak lehen be  
 Euskadin nahiko dagoz ta.

Herri eskolak izan genduzan  
 orain ohitura hori galdu zan  
 nire umea ikusten nago  
 neu egon nintzaden gisan.  
 Aizu, umea, ez izan  
 kezkarik zure arnasan  
 kontuak hartu daiguzan:  
 aitag ez eban aukera izan  
 danak enterau daitezaz  
 baina semea inuzentea  
 danik ez daiela esan.

**Juan Mari Areitio**

*"Goizean jagi eta ispilu aurrean jarri zara. Kanta eiozuz bertso bi ispiluan ikusten dozunari".* Lehenengo hauxe kantatu eban:

Ez naiz gaztea ez zaharra  
 pixkat arpegiz baldarra  
 baina horgatik ez zait irtetzen  
 neri, ez, negarra.  
 Ai nere ispilu bakarra!  
 Bistan dadukat dardarra  
 estuasuna Arriagara  
 gaur joan beharra.

*"Zu, Ireneo, ijito familia handi bateko semea zara. Eta, karroan zoazela, jausi eta ez Areitio zure aita, eta ez besterik ez da konturatu egun bitan zu falta izan zaranik".* Ajuriak lehenengo bertsoa *"askorik ez nauzu zuk / gaur aita maitatzen"* amaiturik, Areitiok jarraitzen dau:

Nik asko maite zaitut  
 semetxo pilpila  
 baina hola gerta da ta  
 hola izan dedila.  
 Ijitoak gabiltza  
 holako koadrila  
 semea galdu eta  
 ez gara jun bila  
 bat galdu arren dugu  
 sekulako pila.

*I. Ajuria*

Nere zoriona da  
 nahikoa elbarri  
 ta esan dozun gauza  
 nahiko lotsagarri.  
 Antxinatik neutsun nik  
 aitatxo, igarri  
 gehiago dakizu zuk  
 auzotako barri  
 horretarako haurrik  
 ez zazu ekarri.

Beste buelta baten ondoren, Areitiok saioa honela amaitzen dau:

Ijituek badugu  
nahikoa delitu  
orain zer egin dogun  
guztiok begitu.  
Baina geure dotrina  
behar du jarraitu  
ijito izaera  
ez dedin amaitu  
amak beste haurtxo bi  
ekarriko ditu.

**Behar du:** *behar dogu*-ren laburpena.

Kartzelako gaia: *"Lehenengoz eskolara eroan eta bertan negarrez hasten jatzun semeari. Hiru bertso"*. Lehenengo biak honakoak kantatu zituen:

Ume denbora polita eta  
itsusia da munduan  
nere semea gaur eskolara  
daramat nere onduan.  
Sufritutzen det ikusirikan  
zenbat negar egin duan  
neu eskolara joan nintzen egun  
hura dadukat goguan.

Eskolako ate zahar haietan  
zenbat negar ta karrasi  
eskolara joan beharrak bazun  
neretzat nahiko desgrazi.  
Nik erderarik bate ez nekien  
bakar-bakarrik *no* ta *sí*  
ta gero ere *Cara Sol* besteik  
ezer ez nuan ikasi.

**Jon Azpillaga**

*"Neska-lagun bi zarie zuek biok. Zu, Jon Azpillaga, bion artean politena zara, baina mutilez inguraturik dabilena Aritz Lopategi da"*. Azpillaga honela hasten da:

Zure pasadizua  
lehendik det entzuna  
zu zara itsusia  
nik edertasuna.  
Baina mutiletan zer  
galga daukazuna!  
Neska, zer ote da zuk  
emoten dozuna?

Bigarreanean:

Hemen zer gertatzen dan  
daukat ikusia  
ni naz neska ederra  
ta zu itsusia.  
Berak ditu hitz, musu  
eta igurtzia  
emoten dautsazue  
nahi daben guzia.

*"Esaiguzu zer esango zeunken biharko periodikotan. Bertso bi"*.

213

Periodikoa bihar argira  
azaldutzeko barria  
denen gaintetik izan leiteke  
egi ikaragarria.  
Bertso saioan pasa nuela  
beldurra eta larria  
baina halare han izan zala  
Euskadiren oinarria  
hainbeste jende Arriagara  
bertsotara etorria  
ta Arriagan izan gendula  
jardin eder bat jarria  
oraindik ere indar haundian  
dagola Euskal Herria.

Arriagako antzoki eder hau  
lore ederrez jantzia  
pozez beterik pasa zuela  
han hurbildu zan guzia.  
Aspaldi ikusi gabekoa  
era franko ikusia  
bertsota gendun hilan hogeiko  
eginkizun nagusia  
handik ertenda hau izan zala  
jendearen iritxia  
denak euskera egiten zuten  
gure hizkuntza bitxia  
gutxienean badadukala  
mila urteko bizia.

Kartzelako gaia: *"Lehenengoz eskolara eroan eta bertan negarrez hasten jatzun semeari. Hiru bertso"*. Lehenengoa eta hirugarrena honela kantatu zituen:

214

Seme maitea, kontatu behar  
gertatu jatzun kasuan  
gaur eskolara triste eroan dot  
lepuan eta pausuan.  
Gero negarrez nun hasi jatan  
hain era lastimosuan  
pentsatu, seme, zure aitak be  
bardin-bardin egin zuan.

Mutil gaiztoak ibiltzen dira  
eskolatikan kanpuan  
horixegatik zuk eskolara  
zintzo behar dozu juan.  
Negarrez triste aurkitu arren  
normala da hori gaurkuan  
damu haundirik ez dozu izango  
haundia hazitakuan.

**Jose Luis Mugarza "Elgetzu"**

*"Jon Lopategi, zuri, aitita zahar horreri, zure loba gazte honek, Elgetzuk, zera esan deustu siku-*

*sikuan: 'egon isilik, ezer ez dakizu eta'". Jon Lopategik lehenengo bertsoa "ai zer harroak urten jakuzan / gure iloba ziztrinak" amaiturik, Elgetzuk darrai:*

Iloba ziztrin honek aitona  
beti izan du bere maisu  
baina aspaldi makaltzen doa  
memoritik dago izu.  
Halare mingain azkarra dabil  
beti sermoi ta abisu  
asko ikasi zendun gaztetan  
gehienak ahaztu zaizkizu.

*J. Lopategi*

Hona gaur zelan agertzen jakun  
lotsabako eta mamu  
nik ondo dakit zelan hornitu  
gaurko zenbait egitamu.  
Nahiz ta sarritan bihotz erditik  
izaten nauzuen damu  
mundura ez zinan zu etorriko  
nik ezer jakin ez banu.

*Elgetzu*

Lehen esan dizut bazenkiala  
ta sortu garai onean  
baina aspaldi galtzen zoaz zu  
memori ederrenean.  
Eta gustora egoten naiz ni  
beti zure aldamenean  
baina gehiago maitatzen zaitut  
isilik zagozanean.

Lopategik hurrengoan *"lehen ikasi behar dozuna / zaharrentzat errespetua"* kantaturik, Elgetzuk amaitzen dau:

Ni ez nijoa aitona zaharra  
 mundu hontan baztertzera  
 maitatuko det lehenago berak  
 maitau nauan antzera.  
 Baina ez zazu hainbeste hitz egin  
 arren hitzetik hortzera  
 ordua da ta amonarekin,  
 zoaz oin errezatzera.

*"Afrikara, safari batera joan zara, Elgetzu, eta  
 hogei urtean ikusi ez dozun Ireneo Ajuria lapiko  
 barruan ikusten dozu, baltz guztiak dantzan  
 dabilzela". Elgetzuk hasiera hauxe emoten dau:*

Nola aldatzen zaigun  
 bizitzaren malda  
 lapikoan sartuta  
 ura dago galda.  
 Azkar egingo dute  
 gaur zurekin salda  
 neretzat haragirik  
 sobratuko al da?

*"Bankuko zure kontu korrontean, ustebagean,  
 ehun milioi agertu dira. Bertso bi". Eta honeexek  
 kantatu zituen:*

Bostehun ta hiru pezeta  
 nituan hor lehenago  
 hartzera joan naiz hoi  
 premian ni bainago.  
 Eta deskuidoren bat  
 izan al degu edo?  
 Nere beharkizun hoiek  
 gaur dirade akabo  
 ames onak egin ditut  
 eta diruz gorago  
 arren deskuidoren bat  
 ez ahal degu izango!

Hoiiek hor uzteko ez det  
 egin hainbat meritu  
 aiton zaharren batek sobra  
 ta bertan utzi ditu.  
 Bankeroak esan du ta  
 nik ezin nun aditu  
 negar ala barre egin  
 hainbeste naiz harritu!  
 Hartu ditut diru hoiek  
 ezin naiz errenditu  
 Euskal Herrian badago  
 nun ta nola partitu.

Kartzelako gaia: *"Lehenengoz eskolara eroan eta  
 bertan negarrez hasten jatzun semeari. Hiru ber-  
 tso".* Lehenengo-hirugarrenak honeexek kantatu  
 zituen:

Holako gauzak ekartzen ditu  
 bizimoduko jokuak  
 haurtxo maitea, zuk badauzkazu  
 orain momentu estuak.  
 Baztertu behar olgetak eta  
 baserriko sutonduak  
 ikastolan zu egongo zera  
 eginaz lagun hurkuak  
 hemen txarrikan ez daukazu ta  
 arren lehortu malkuak.

Aita sekulan ez dezu izan  
 eskola haundien jabe  
 baserriaren kultura beti  
 izan det nik neure habe.  
 Baina eskola hartzen badezu  
 haurra, zeuretzako hobe  
 mundu honetan ibiltzearren  
 beste gehientsunen pare  
 bizimodua eramateko  
 gorputzik apurtu gabe.



*Jon Enbeita*

*“Jon Enbeita, zu, oraingo honetan, magoa zara eta zu, Jon Lopategi, mago honen kapelan dagoan uso zuria”.* Jon Enbeitak lehenengo bertsoa *“bakez bete ezazu / herri euskalduna”* amaiturik, Jon Lopategik darrai:


Nigana heldu zinan  
zu behin pausuz pausu  
geroztik izan ditut  
hamaika abusu.  
Batzuentzako ni naiz  
pakearen usu  
zuk diru egiteko  
esplotatzen nauzu.

*J. Enbeita*

Zurekin hainbat diru  
manejatzen nengon  
baina Herria ere  
nahiko triste zegon.  
Magoak ere noizbait  
behar du bihotz on  
joan ta denei emon  
gaur bakezko Gabon.

Beste bertso bana tartean, Lopategik honela amaitzen dau saioa:

Nire luma zuriak  
badauke dizdira  
badakit gizon hoiek  
zer daben desira.  
Amaitu dot, magoa  
zurekiko jira  
pakearekin noa  
neure Euskal Herrira.



Mikel Alonso. XDZ

*"Hamahiru urte falta direla, zelan ikusten dozu hogeita batgarren gizaldia? Bertso bi".* Bigarreanean haxe kantetan dau:

Amesak beti beharko doguz  
besten eskuan ezarri  
justizi baten egarri  
ta beti gaude inoren menpe  
ez geure lur ta ez harri.  
Etsaiak goitik golpatzen gaitu  
ta geu muturka elkarri  
etorkizuna elbarri  
zer izango den galdetzen duzu  
gureztat gizaldi berri  
denon artean egin dezagun  
askatasuna ekarri.

*"Santo Tomasetan, zuk, Jon Enbeita, medikuak, errejimenean daukazun Jon Azpillaga hau ohidalako txorizo bokadiloa jaten topatu dozu txosna batean".* Bigarren bueltan, Jon Enbeitak honakoa kantetan dau:

Hau da bokadiloak  
egiten dautsuna  
bizia labur egin  
lehen labur duzuna.  
Aho-bero zarala  
gertatzen zaizuna  
agur medikuari  
kontsultan entzuna  
ehun kilo haragi du  
gramoko zentzuna.

*J. Azpillaga*  
Horrek nere barririk  
ez baitaki bate  
mediko hoiek nitzat  
gorroto daukate.  
Lehen ere jardun naiz  
aterikan ate  
igual mesederako  
edo igual kalte  
baina gozatu nahi det  
bizi naizen arte.

Kartzelako gaia: *"Lehenengoz eskolara eroan eta bertan negarrez hasten jatzun semeari. Hiru bertso".* Lehenengo-hirugarrenak honakoak kantatu zituen:

Gaur arte zendun zuk irriparra  
ta heldu zaizu gaur zoritxarra  
ezin dut hola malkoz ikusi  
nire etxeko izarra.  
Zabaldu, seme, bularra  
zuk badaukazu indarra  
danak goituteko garra  
nahiz eta orain triste zagozen  
aitzen dut zure negarra  
baina ikasi behar duenak  
dauka sufritu beharra.

Ikusten zaitut, seme, leher ia  
garratza duzu gaur aldarria  
aitaren hitza izan diteke  
zureztat gogaikarria.  
Begira duzu Herria  
itxaropentsu jarria  
kendu deiogun larria  
etorriko da zure eskutik  
etorkizun pozgarria  
zure negar hau bihurtuko da  
Aberri honen irria.

#### *Aritz Lopategi*

*"Astelehen goizeko despertadoreari bertso bi".*  
Lehenengoa haxe kantatu eban:

Asteburuan izaten  
dira nire afanak  
alde batera utzirik  
lehengo eguneko lanak.  
Astelehenez esnatzeko  
esaten dausta amak  
beraz, ahaztu egin behar  
ordurarte izanak  
trasto honek esnatzen dauz  
bere inguruko denak  
soinu horrekin hasten dira  
aste osoko penak.

*"Zu, Aritz, musturreko bat hartuta, lona gainean  
ahospesz jausita zagozela, Jon Lopategi hau 'tongo,  
tongo!' oihuka dago publiko artean". Lehenengo  
buelta biak honelaxe joan ziren:*

*A. Lopategi*

Hemen lonan etzunda  
neu nago bakarra  
hasieratik galdu  
dot nire indarra.  
Kontrarioak berriz  
sua eta garra  
hortik tongo entzutea  
ez da gauza edarra  
kristonak hartu eta  
hori entzun beharra.

*J. Lopategi*

Beriro tongo-tongo  
behar dozu aitu  
zutaz lehenago ere  
bazen nahiko aipu.  
Burrukan hasi eta  
bebingoan gogaitu  
zütitu zaite barriz  
hau ez da amaitu  
hain errez erortzeko  
nork erosi zaitu?

*A. Lopategi*

Kontrarioak gogor  
dauka atakea  
hauxe da nire mina  
ta nire nekea.  
Hemen atara dizkit  
sua eta kea  
golpeak hartzen egon  
behar izatea  
ez da gauza gozoa  
tongo egitea.

*J. Lopategi*

Dirua galtzen dot nik  
barrua su ta gar  
nire emazte gaixoak  
egingo du negar.  
Zurekin ez dot izan  
gaurkoz suberte lar  
itxuraz izanikan  
haundi eta edar  
lehenbiziko kolpetan  
ez da jausi behar.

Kartzelako gaia: *"Lehenengoz eskolara eroan eta  
bertan negarrez hasten jatzun semeari. Hiru ber-  
tso". Aritzek honela hasi eban saioa:*

Eskolak dira, ene semea  
geroaren oinarriak  
neure garaiak izaten ziran  
oso eskas ta urriak.  
Ene semetxu, ez eizuz egin  
horren negar mingarriak  
hemen topauko dituzulako  
zeure laguntxu barriak.

*Jon Lopategi*

*"Bilboko Gran Vian dagoan gaztaina saltzaile bati  
bertso bi".*

Ordena bako gizona naiz ni  
neure izatetik berez  
eta Bilbora gaur etorria  
pentsamentu alegerez.  
Neure barrua asetu barik  
goizeko gosari ederrez  
orain tripa hauek kirrin-kirrinka  
agertzen dira haserrez  
horrexegaitik nator zugana  
gaztain-saltzailea legez  
zerbait dozunaren fedez  
nola joan orain ihes  
zerbait barrura sartzea zelan  
egiten dodan nik ames  
ahalbait arinen dozenatxo bat  
ekarridazu mesedez.

Gaztaina batzuk bero-berorik  
eta beste batzuk gordin  
nik dadukadan apetitoaz  
gaur guztiak dira berdin.  
Dana iluna ikusten neban  
jaten hasi eta urdin  
saltzaile pobre bat zaitugu zu  
baina ez zabilta erkin  
behar dunari emon gurarik  
erretzen ekin ta ekin  
zu zaitut neure atsegin  
lehen baneban nahiko samin  
beste dozena eder bat bere  
emon egidazu arin  
Arriagako bertso saiora  
adoretsu joan nadin.

Puntua: *Haginik ez danean  
turroia ugari*  
*Jon Lopategi:* Halan be egiten dogu  
hainbeste eskari.  
Gauza goxotik zelan  
ez dogun gehiegi  
inondik sobra balitz  
gaur ekarri neri.

Kartzelako gaia: "*Lehenengoz eskolara eroan eta  
bertan negarrez hasten jatzun semeari. Hiru ber-  
tso*". Hiru bertsoak honakoak kantatu zituen:

Ene umea lehenengo aldiz  
gaur eskolara hazia  
zuk ezin dozu ondo ulertu  
aitak dadukan auzia.  
Gizon jakintsu izan zaitela  
baita nire gutizia  
oso estua izaten dogu  
ezjakinaren hesia  
eta gainera etorten jako  
etsai danen malezia  
horrexegaitik eskeintzen dautsut  
nik eskolaren grazia  
horrek ez dauka inun galtzerik  
dana da irabazia  
hau da aukera berezia  
aberasteko bizia  
eskola bidez lortuko dozu  
gero nahi dozun guzia.

Beharrezkoa dudarik gabe  
da eskola gizaratean.  
hori gerora azalduko da  
haurra, zeure izatean.  
Aitak zu zelan hona ekarri  
ez balitz borondatean  
badakit nik zer ondorio dan  
maisungana joatean  
gu ere bardin ibiltzen ginan  
banaka edo katean  
denbora askorik ez nintzan joan  
hori zen neure kaltean  
ene semea, ez zaite jarri  
aukera honen apartean  
ikasi bete-betean  
ahalegin eta nekean  
ez egidazu negarrik egin  
gaur jakintzaren atean.

Eskola hori publikoa da  
hala jarri dabe moda  
jende guztiak erabiltzeko  
hemen ta hemendik kanpora.  
Haur guztiak lez pasatu bertan  
behar den hainbat denbora  
bildurrez zagoz, ume maitea  
baina egizu aproba  
aitak dinona egia bada  
ziurtatzeko asmora  
orain ez zatoz toki hontara  
dirudienez gustora  
ze gauz ona dan jakingo dozu  
ta momentuz ez aztora  
zu zara Herriko lora  
ta jaso bihotza gora  
zure jakintzaz egunen baten  
gure herria salbako da.

Txapeldun urten eban Jon Lopategiri Alfonso Iri-  
goienek jantzi eutsan txapela, honako bertsoa  
kantatuz:

Lopategi, zu nagusi legez  
lehendikan zinen ezagun  
Bizkai aldean hirutan behintzat  
txapela irabazi zendun.  
Orain Bizkaian ta Araban nola  
txapelketa egin dugun  
eginik zaude Arriaga honetan  
bertsolarien txapeldun.

Jarraian, Jon Lopategik, txapela buruan eta, atze-  
ko zazpiren artean bere seme Aritz ebala, azken  
agur haxe kantatu eban:

Lehenengo eta behin, anai-arrebak  
milaka esker danori  
goizean goizik etorri eta  
ez ginan aurkitzen nagi.  
Baina etxetik bi heldu gara  
aita ez zan bakarrik ari  
seme maitea, hartu txapel hau  
eta eroan amari.

# 1990ko ARABA ETA BIZKAIKO TXAPELKETA



## Laburpena:

- Eskualde kanporaketetan, Mungian, 1990-XI-11n, Iñigo Gojenolak atera eban punturik gehien. Lekeition, 1990-XI-18an, Josu Arriolak. Zornotzan, 1987-XI-22an, Xabier Arriaga "Txiplasek". Orozkon, 1990-XI-25ean, Gregorio Larrañaga "Mañukortak".
- Finalurrekoetan, Gernikan, 1990-XII-02n, punturik gehien Unai Iturriagak atera eban. Duran-  
gon, 1990-XII-09an, Jon Enbeitak.
- Finala Bilboko Arriagan izan zen, 1990-XII-23an, zortzi bertsolariokin: Aritz Lopategi, Ireneo Ajuria, Jon Enbeitak, Gregorio Larrañaga "Mañukorta", Igor Elortza, Abel Enbeitak, Xabier Arriaga "Txiplas", Unai Iturriaga.
- Jon Enbeitak urten eban txapeldun, eta bigarren Unai Iturriaga gelditu zen.
- Epaimahaian, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Irino Azkoitia, Luis Baraiazarra, Abel Muniategi eta Iñaki Sarriugarte egon ziren.

1990. urteko txapelketa be osorik jasota dago, Bizkaiko Bertsozale Elkarteak argitaratutako *Araba eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 1990* izeneko liburuari eskerrak. Izenburuak berak dinonez, Bizkaiaz batera, Araba be eremu berean sartzen jarraitzea erabagi zen, 1987koan legez, eskualde honek, bakarrean, bere txapelketa antolatzeke besteko entitaterik oraindino ez zeukala uste zela-

ko. Liburuan, finalerdi bietako eta finaleko bertsoak jasotzen dira, aurreko kanporaketa guztiak sartzeak, interes handiegirik ez izateaz gainera, luzeegi joko ebalako.

Aitatutako liburuaren sarreran, honako "baldintza orokorrak" azaltzen dira:

1. "Txapelketa hau Araba-Bizkaiko Bertsolari Elkarteak antolatzen du, Bizkaiko Foru Aldundiak babesten duelarik".
2. "Arabian edo Bizkaian bizi edo jaio diren 18 urtez gorakoak dira partaide. Gainera, eskubidea izan dute, partaidetza honetarako, 1990.eko Euskal Herriko gaztetxoek txapelketan finalera heldu ziren bizkaitar-arabarrak".
3. "1987ko Araba-Bizkaiko txapelketan, finalean sartu zirenak finalurrekoetara doaz zuzenean; 12rainoko beste bertsolariak kanporaketetan punturik gehien lortzen dutenak izango dira. Eta, Arriagako finalean, finalurrekoetan ondoren sailkatzen diren 8rak izango ditugu".

Urte honetako nobedadeetariko bat aurreko txapelketako lehenengo-bigarrenak (Jon Lopategi eta Xabier Amuriza) ez aurkeztea izan zen. Lopategi 1989ko Euskal Herriko txapelketa nagusia irabazia zen eta aurrerantzeko txapelketetan parterik ez hartzea erabagita zeukan. 1960 inguruan txapelketetan hasi zenetik, nahikoa motibo pilaturik

zeukan erabagi horretarako. Amurizak be, eztarriko ebakuntza bat bide, 1989ko txapelketa nagusian parte hartzerik izan ez ebanak, txapelketei agur egitea erabagi eban.

Hiru arau orokorrak eta ausentzia biok honela zirela, hogeita hiru bertsolarik parte hartu eben urte honetako txapelketan. Hona hemen zerrenda osoa, zaharrenetik gazteenera:

- Basilio Pujana. Zeanuri. 77 urte.
- Faustino Etxebarria. Galdakao. 73 urte.
- Juan Mugartegi. Berriatua. 57 urte.
- Abel Enbeita. Abornikano. 48 urte.
- Gregorio Larrañaga "Mañukorta". Larruskain. 47 urte.
- Moises Enbeita. Muxika. 45 urte.
- Ireneo Ajuria. Muxika. 45 urte.
- Juan Mari Areitio. Abadiño. 45 urte.
- Jon Enbeita. Muxika. 40 urte.
- Xabier Arriaga "Txiplas". Errigoiti. 33 urte.
- Jose Luis Basterretxea "Altzalei". Berriatua. 33 urte.
- Rikardo Gonzalez de Durana. Oreitia. 31 urte.
- Serapio Lopez. Ziorraga. 30 urte.
- Juanjo Respaldiza. Orozko. 26 urte.
- Aritz Lopategi. Gernika. 21 urte.
- Iñaki Aurrekoetxea. Bilbo. 20 urte.
- Zigor Enbeita. Abornikano. 19 urte.
- Txabi Ajuria. Lekeitio. 19 urte.
- Ainhoa Munitxa. Durango. 18 urte.
- Iñigo Gojenola. Berriatua. 18 urte.
- Iñigo Olabarri. Igorre. 17 urte.
- Unai Iturriaga. Durango. 16 urte.
- Igor Elortza. Durango. 15 urte.

Zerrenda honek erakusten dauen adin tarterik apenas izango zen ezein txapelketatan, Basilio Pujanaren 77tik Igor Elortzaren 15eraino. Eskilara hori goitik laster moztuko zen, zaharrek txapelketara aurkezteari itzi egingo eutsien eta. Behetik

be, eskilarari zati bat moztuko jakon, urte honetan hain adin gaztekoak nagusien txapelketan sartzea oso eztabaidatua izan zen eta. Aurrerantzean, hamazortzi urtetik beherakoek ez eben helduen txapelketan parte hartuko.

Urte honetako txapelketa liburuak beste puntu deigarri bat dakar sarreran:

Liburuari dagokionean, berriz, argi utzi gura genuke liburu hau ez dela txapelketaren akta idatzi hutsa, egin ere, orrazketak egin baitizkiogu, bere irakurketa samurrago eta atseginago gerta dadin. Beraz, inork txapelketaren benetako akta diren zuzeneko grabazioak entzun nahi izanez gero, Araba eta Bizkaiko Bertsolari Elkartera jotzea baino ez dauka, bertan baitaude edonork erabiltzeko moduan.

Erizpide hau, orduan ez eze, oraintxe be hizpide izaten jarraitzeko modukoa da, orrazketa horreek noraino heltzen diren ez da zehazten eta. Era batuan emotea bidezkotzat jotzen den grafiaz eta ortografiaz harago, (oraindino batzuek horixe be tematu egiten dabe baina), testuari be "orrazketak" egitea esan gura badau, eginkizun labanean eta okerrean sartuko ginatkeela uste dot.

Lehenengo kanporaketak Mungian, Lekeitio eta Orozkon jokaturik, finalerdietan hamabiko bat osatu zen, Gernikan eta Durangon banaturik. Gernikan kantatu ebenak honakoak izan ziren: Rikardo Gonzalez de Durana, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Juan Mari Areitio, Ireneo Ajuria, Juanjo Respaldiza. Durangon: Jon Enbeita, Iñigo Gojenola, Aritz Lopategi, Abel Enbeita, Gregorio Larrañaga "Mañukorta", Xabier Arriaga "Txiplas". Hamabiotarik, Bilboko Arriagako finalera, 1990-XII-23an, honako zortzikoa pasatu zen, puntuazi-noaren arabera, honela gelditu zena: Jon Enbeita, Unai Iturriaga, Ireneo Ajuria, Aritz Lopategi, Gregorio Larrañaga "Mañukorta", Igor Elortza, Jabier

Arriaga "Txiplas", Abel Enbeita. Txapeldun, beraz, Jon Enbeita izan zen eta txapeldunorde, Unai Iturriaga.

Urte honetako epaimahaia honela osatu zen: Antton Mari Aldekoa-Otalora, Trino Azkoitia, Luis Baraiazarra, Abel Muniategi, Iñaki Sarriugarte. Idazkaria Karmen Marina Arteagabeitia izan zen eta gai-emoile Bernardo Mandalunizek egin eban.



Karmen Marina Arteagabeitia

## TXAPELKETETAKO IDAZKARI LANEAN

Bertso zaletasuna aspalditik neraman soinean; gero, gaztetxo aroan, Xabier Amurizarekin izandako harremanek seguruenik sendotu egingo zuten bertsoak duen magia horrekin lotura.

Abiapuntua beraz ondo finkatua neukan eta txapelketaren egiturari sartzeari kasualitatea baino ez zen izan. Nire lan eta lagun ingurua bertsozalez ingurututa zegoen eta Bizkaiko Elkartearekin lotura zuzena ez ezik, partaide ziren bertan: Jon Lopategi, Manu Ziluaga eta Natxi Aranburu. Nire ohiko langintza idazkaritza izanik, laster bota zuten lazua eta 90.eko hamarkadan Araba-Bizkaiko txapelketetan murgildu zen/nuen neure burua; kateatuta zelanbait zaletasun, magia eta morbo horretan.

Asmatzea baino, hutsik ez egitea zen nire erantzukin handiena; bertsoa bat-batekoa, harekiko juzkua ere berdina, eta ondoren, neuk ere ez nuen denbora soberakinik batuketetan asmatzeko. Egia esan, bertsolariak oholtza gainean zeuden, epaileak ezkutuago baina bistan, eta ni, ezkutuan, epaileek bidalitako zenbakiak pilatu eta errepatatzen arinarin, baina hansartzerik barik. Txapelketa aurrera joan

## Bertsoak

Goazen orain finalerdietako eta finaleko bertsoen hautu bat egitera, 1987ko txapelketan erabilitako erizpideekin, hau da, binango saioetan, batzuetan, batenak bakarrik jasoz, beste batzuetan, bienak, merezi dabela ikusten den arabera.

ahala, eta bereziki finaletarako, laguna eskatu nuen; honek beste lasaitasun bat ematen zidan.

Nerbioak?, Hoba ez! Talde teknikoaren konfiantza banuen, neure buruarena ere bai; hala ere erantzukizuna ere dexentea zenez, nire batuketetetan hutsen bat izanez gero, bertsolariaren baten mesedetan eta beste baten kaltetan joango zen, eta horrek gauren bat edo beste –aitortu behargarrean nago– kendu zizkidan. Hala ere, gustura ibili izan naiz 1990etik 2002ra bitartean, eginkizun horretan; bertsolariak ez ezik, bertsoaren estomagoa ere arakatu ahal izan dut. Anekdotarik? Beno, bertso mundua gizonezkoena izanik, nire lanbidearen haseran, matxista tokedun esamesen bat jasan beharra izan zuen; bertsolari eta Elkartearen ardura handia zuen batek zera azaldu omen zuen nire lanaz:

"Emakumea izateko, txukun egiten dizkik bere zereginak".  
Tarte horretan aldaketarik izan duzun? Horixe! Eskuz egiten nituen lehenengo koadroak, gero idazmakinan eta fotoko-plagailuaren laguntzaz, eta asmakizunik onena ordenagailua izan da nire lanerako.



Gorago emoniko zortzi finalisten zerrendako Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren eta semifinalistetako Iñigo Gojenolaren bertsoarik ez dogu jasoko, honeen belaunalditik honanzkoa liburu honetatik kanpora iztea erabagi dogulako. Nonon muga ipintzea derrigorra zenez gero, bertsolari bion arora arte iristeari eritzi geuntsan zuzenena. Aritz Lopategigaz dudan egon gara, hau be belaunaldi horretakotzat gehiago jo baileiteke, baina, 1987ko finalean be sartu zenez gero, bere zati handiegia kanpoan iztea izango litzateke. Beraz, nahiz eta Iturriaga eta Elortza txapelketa honetan eta hurrengoan be partaide izan, belaunaldi honen gorabeherak eta bertsoak begoz bertan, ontzen, bosgarren liburuaren zain, hori be ailegatuko da eta.

### Finalerdiak

#### *Juan Mari Areitio*

226

*"Zuek aita-semeak zarie. Zu, Igor, aita, zu, Juan Mari, semea. Gaur, aita jubilatzen den egunean, Juan Mari semea hasten da lanean".*

Areitioaren bigarren bertsoa honakoa izan zen:  
 Aita on batek semearentzat  
 ez daduka asmo txarrik  
 aita maite hau ikusita nik  
 ez det egingo negarrik.  
 Ta lanerako ez zaizkit falta  
 gogorik eta indarrik  
 zuk ein dozuna eiteko ez da  
 izango askoren beharrik.

*"Juan Mari Areitio eta Ireneo Ajuria. Zuek lagun bi zarie. Zinera joan eta etxeraterakoan, ateko giltza falta jatzuela konturatu zarie"*

Areitioaren bigarren bueltan:  
 Aizu, horrelakoa  
 ez zinan lehenago  
 baina egin dituzu  
 hiru-lau bat trago.  
 Etxera heldu eta  
 giltzikan ez dago  
 moxkortuta zauzela  
 pentsatutzen nago.

#### *I. Ajuria*

Zu kontsolatzen ez da  
 ene lagun errez  
 horrelakorik neri  
 ez esan mesedez.  
 Burua zaintzea da  
 gaur zuretzat onez  
 inorenik ez dozu  
 zeurerik ere ez.

#### *J.M. Areitio*

Nere lagunak ditu  
 zentzun danak galdu  
 lau trago edan eta  
 indar danak ahuldu.  
 Eta horrela oso  
 gaizki guk behar du  
 nere giltzakin behintzat  
 ezin lei zabaldu.

**Guk behar du:** guk behar dogu-ren laburpena.

*"Zuek senar-emazteak zarie. Zu, Rikardo, senarra, zu, Juan Mari, emaztea. Emaztearen soldata, Rikardo, zurearen doblea da".*

Bigarren bueltan, Areitiok kantetan dau:  
Bere burua gora  
nahi du honek io  
horretan egiten du  
makina bat saio.  
Baina andre hau berdintzen  
kosta behar zaio  
ez zerade portatzen  
txintxo eta iaio  
ezertarako ere  
ez dezu balio.

Rikardok hurrengoa "kontrakoa frogatuko / dut  
nahi duzunean" amaiturik, Areitiok jarraitzen dau:

Honek kontatu behar  
beraren azainak  
nahi ditulako hartu  
andrearen gainak.  
Baina hauek zer diran  
gu gaude jakinak  
hain dira petralak ta  
hain dira ziztrinak  
ia gizon guztiak  
zarete berdinak.

Kartzelako gaia: "Ikasle izan zinen eskolara irak-  
kasle zatoz". Areitiok hiru bertsoetarik lehenengo  
biak honakoak kantatu zituen:



T. Ajuria eta I. Elortza kantuan. Atzean, ezkerretik, B. Pujana, Mañukorta, U. Iturriaga,  
R. Gonzalez de Durana eta B. Mandaluniz gai-jartzailea. Orozkoko saioa, 1990-XI-25.

Haurtxoa izan nintzanetikan  
pasa da hainbat denbora  
bizitzan zehar hor ibili naiz  
nunbait behera eta gora.  
Gaur irakasle, lehenago ikasle  
izandako ikastolara  
zenbat gogoeta ta oroitzen  
datorren nire gogora.

Ikastola hontan ikasle izan  
nintzan ni denbora baten  
nola edo hala gure denbora  
hementxe gendun ematen.  
Garai hartako kontuak ez da  
oso erreza esaten  
saiatuko naiz nik neuk ikasi  
ez nuana irakasten.

Agurrean, hauxe kantatu eban:

Denori agur eta  
bagoaz ihesi  
eskolan jardun arren  
ez naiz asko hezi.  
Naizen apurra ere  
ez det eman kasi  
era horretan nabil  
ni beti "no" ta "sí"  
gaztetxo hauengandik  
badet zer ikasi.

**Rikardo Gonzalez de Durana**

*"Zuek irakasleak zarie. Zuk, Rikardo, umeak  
gehiago jolastu behar leukeela dinozu. Zu, Unai,  
ostera, gehiago ikastearen alde zatoz".*

Rikardok saioari honelako hasiera emon eutsan:

Jarraitu nahirik une honetan  
jarri naiz horri begira  
nola erabili eta bidali  
gizartearen harira.  
Ume guztiak joaten badira  
liburu hoiengaz azpira  
ez dira naturalak izango  
makinak izango dira.

*"Zuek zuzendaria eta sekretaria zarie. Zu, Juanjo,  
zuzendaria eta zu, Rikardo, sekretaria. Gaur,  
lanak amaitu ondoren, Rikardo sekretariak afal-  
tzera gonbidatu zaitu, Juanjo".*

Lehenengo bueltan, Respaldizak "nik hau ez nuen  
sartu / kontratu barruan" amaiturik, Rikardok  
jarraitzen dau:

Nahiz ta zure aldetik  
hori ez sinista  
aurrezten dut dirua  
neronek aldizka.  
Nolabait ere orain  
nahi egin irrista  
afaria ordaintzeko  
badadukat pixka.

*J. Respaldiza*

Lana oraindik ere  
badaukagu hainbat  
eta zeozer hiri  
prestatuko dinat.  
Asmoak gerorako  
juergan zeuzkanat  
irabaziko dun hik  
sueldo extra bat.

R. Gonzalez de Durana  
Orain jarri zerade  
piztien antzera  
aurrera egin beharrez  
eginik atzera.  
Izango duzu hori  
segurki galtzera  
nik gonbidatu zaitut  
soilik afaltzera.

Kartzelako gaia: *"Ikasle izan zinen eskolara irakasle zatoz"*. Rikardok honelaxe emon eutsan hasiera saioari:

Lanpostu hori emanda gero  
poztu nintzen berehala  
txikitandiko garai jatorrak  
gogoratuak hor hala.  
Besteak legez nintzadelako  
mutil bat nahiko normala  
nere eritzi zabala  
nahiz sarri izan petrala (bir)  
orain dakusat irakasleak  
guregan zuen itzala  
eta uste dut zerbaiteko  
behintzat balio zidala.

### Juanjo Respaldiza

*"Zuek ama-alabak zarie. Ireneo, zu ama. Juanjo hamazortzi urteko alabea. Gaur, Juango alabeak bere bidea egin gura dauela dinotso amari"*.

Bere lehenengo bertsoan, Respaldizak kantetan dau:

Hamazortzi bat urte daukat ta  
hartu dut heldu itxura  
ama, txoriak ez zaizkit heldu  
oraintxe neure burura.  
Badakit nondik ibili eta  
ez dago zertan ardura  
bizitza zer dan ikasi nahi dut  
baina neronen kontura.

Bigarren bueltan, Ajuriak "lagun askogaz gozatu zaitte / ta bisitatzen etorri" amaitu ondoren, kantatu eban:

Neure kontura ikasi nahi dot  
munduaren panorama  
behar bat bere aurkitutzeko  
eginik daukat programa.  
Gauzak okertu egin ezker  
berriz nator zuregana  
askatasuna eman didazu  
ta eskerrik asko, ama.

*"Zuek aurrez aurre dagozen jatetxe biren jabeak zarie. Zurea, Igor, Begetarianoa da. Juanjorena, ostera, erretegia"*.

Elortzak lehenengo bertsoa kantaturik, Respaldizak jarraitzen dau:

Negozio batean  
egin ditut bueltak  
orain etortzen zaizkit  
nei diru-errekak.  
Ikasi nituenez  
hontarako tretak  
exitoa daukate  
nire errezetak  
Orozkon jaten dira  
kristoren txuletak.

Bigarren bueltan, Elortzak erretegitik "damututa, ondoren / niregana datoz" amaiturik, Respaldizak jarraitzen dau:

Inor ez da joango  
letxugaren eske  
txuletak askoz ere  
nahiago dituzte.  
Nire jatetxe honek  
badu hainbat ospe  
zuretik ateratzen  
dira nahiko triste  
entsalada ona da  
okelagaz nahaste.

Puntua: *Bizkaiko bertsoqintzan  
badatoz loreak*

*J. Respaldiza:* Mutiko gazteak ta  
bertsotan nobleak.  
Botatzen dituztela  
bertso dotoreak  
eta sarri askotan  
guk baino hobek.

### *Iñigo Gojenola*

*"Jon Enbeita eta Iñigo Gojenola. Zuek zinegotziak  
zarie. Zuen herrian hutsik dagoen etxe bateri  
buruz dator eztabaida. Zuk, Jon, gaztetxea egin  
gura zeunke. Zuk Iñigo, ostera, jubilatuen etxea".*  
Bigarren bueltan, Gojenolak kantetan dau:

Oneraezin antzematen dut  
gaurko gazteen ganora  
beste gaztetxe batzuk ikusi  
eta zerorrek konproba.  
Etxetxo hori konponduz gero  
behetik hasi eta gora  
gazteak joan ta lizunkeriz  
beteteko izango da.

Enbeitak hurrengo bertsoa "gaurko gazteen hezi-  
keta da / gure hil edo bizia" amaiturik, Gojenolak  
jarraitzen dau:

Ez zait batere ondo iruditzen  
zuen ahotik entzuna  
konponketa bat ahal dan ondoen  
da hemen behar duguna.  
Etxe horretan eginez gero  
gazte ziztrinen bilduma  
nora joango da baserri puntan  
dagoen xahar alarguna?

Kartzelako gaia: "Lantegian berrogei urte emon  
dozuz peoitzan. Gaur zure semea zuzendari jator-  
tzu enpresara". Hiru bertsoetarik, lehenengo-hiru-  
garrenak honeexek kantatu zituen:

Zuzendari lez etorri zara  
peoitzat ez zan komeni  
lantegi txarra gertatu zaio  
ni lako hainbat gizoni.  
Puesto horretan ez dizut opa  
ez neke ta ez agoni  
estopa eta fletxa erabiltzen  
aspertuta bainago ni.

"Ikasi eta lanpostu on bat  
izango duzu seguru"  
esan nizun ta baita egin ere  
nahiz pasa hainbat apuru.  
Zure menpean aurkitzen dira  
aita ta bere inguru  
halan ta guztiz aita-semeak  
izaten jarraiko dugu.

### *Jon Enbeita*

Kartzelako gaia: "Lantegian berrogei urte emon  
dozuz peoitzan. Gaur zure semea zuzendari jator-  
tzu enpresara". Hiru bertsoetariko lehenengoa eta  
bigarrena honeexek kantatu zituen:

Berrogei urte luze latzetan  
emona naiz peoitzari  
fabrika hontan hainbat ordutan  
nagusien zerbitzari.  
Eta hara nun aurkitzen naizen  
zoriontsu ta kantari  
nire aurpegian ez al duzue  
gaur irriparra nabari  
neure izerdiak neure semea  
egin baitu agintari.

Nire bihotza ezin da egon  
gaur dagon baino pozago  
nire lanaren frutu garbia  
aurrean ikusten nago.  
Baina fabrika ez bedi inor  
izan inoren esklabo  
ehunda hamarren jokabidea  
zeure eskuetan dago  
baina ez zara nortasunean  
peoi bat baino gehiago.

**Ireneo Ajuria**

*"Zu, Ireneo, zaharretxean egonik, gaur bere moz-  
kor-mozkor eginik zatoz. Unai, zaharretxeko  
superiora honek, agiraka egin deustu".*

Iturriagak lehenengo bertsoa "lehen txarto zeun-  
den eta / oraindik edaten" amaiturik, Ajuria  
jarraitzen dau:

Argitasun askorik  
ez dozu buruan  
gertatu dana gaur be  
egin behar nuan.  
Kontu kontari nengon  
taberna onduan  
neure lagunarekin  
betiko moduan  
beste ilusiorik  
ez daukat munduan.

Puntua: *Bizkaiko bertsogintzan  
badatoz loreak*

I. Ajuria: Hemen azaldu dira  
oso dotoreak.  
Kanta dituzte nahiko  
bertso zelebreak.  
Horrek izango al dira  
gu baino hobeak!

Kartzelako gaia: *"Ikasle izan zinen eskolara ira-  
kasle zatoz".* Hiru bertsoetarik, bigarren-hirugarre-  
nak honeexek kantatu zituen:

Gogoa daukat, ez da izango  
hori neretzat nekeza  
horretarako ikasia naiz  
ta badaukat interesa.  
Gaztetxoari erakutsiaz  
eskeini nere babes  
nahiz eta ez dan erreza (bir)  
hautatu naute eta herriak  
hori argi euki beza  
nahiago nuke maisu zaharraren  
beste neuk ein ahal baneza.

Aukera hauze izan da nere  
poza eta atsegina  
derrigorrean loretu behar  
dut aurrean dan jardina.  
Gau eta egun beraren alde  
nik egingo dut ekina  
hori ondo da jakina (bir)  
pasako ditut atsekabeak  
eta hainbat esamina  
baina ahal danik ondoen eiten  
egingo dut ahalegina.

**Aritz Lopategi**

*"Tñigo Gojenola eta Aritz Lopategi. ETBrako saio  
batean, milioi bateko saria dago, narrugorritan  
agertzeagaitik. Zuek biotatik, nor joango ete da?"*

I. Gojenola  
Telebistan premio  
guk hemen disputa  
nor agertuko ote den  
arropa kenduta.  
Eztabaida hau laister  
dago bukatuta  
zu ez zaitez agertu  
txikia duzu ta.


*A. Lopategi*

Ez zait asko gustatu  
zure erretolika  
faltatzen hasi zara  
hona etorrita.  
Ez al jatzu gustatzen  
nire erreminta?  
Txikia daukat baina  
zihero polita.

Gojenolak hurrengo "tximinoa zarela / pentsatu-  
ko nuke" amaiturik, Aritzek jarraitzen dau:

Hala ere han agertzeko  
badaukat indarrrik  
ta zure hitz guztiak  
fituzu alperrik.  
Inork ere ez baitauka  
nik bezain ederrik  
milioi bat balio du  
berorrek bakarrik.

*"Aritz Lopategi eta Txiplas. Zu, Aritz, jueza zara.  
Zu, Txiplas, hamazazpi bider atxilotua izan den  
gizona". Aritzek honela hasten dau saioa:*



Kale hoietan zehar  
 ibiltzen da hegaz  
 atsoak atrakatzen  
 inoiz ez patxadaz.  
 Arpegian be golfo  
 itxurak badaukaz  
 hamazazpi biderrez  
 esaten da erraz.  
 Zertan zatoz nigana  
 barriz ere, Txiplas?

Hirugarrenean, lapur inkorregibleari konponbide  
 haxe emoten deutso:

Jendea ezagutzeko  
 badaukat aukera  
 baina honekin dator  
 danontzat galera.  
 Beragaz ibili naz  
 gora eta behera  
 ta bakean iztea  
 igual hobe da  
 firmaidazu papel hau  
 ta joan kalera.

**Gregorio Larrañaga "Mañukorta"**

*"Abel Enbeita eta Mañukorta. Hona hemen gizon  
 garrantzitsu bi. Abel George Bush dugu. Mañukor-  
 ta, Sadam Hussein".* Lehenengo bueltan, Abelek  
 "gerra nahi ez baduzu / Kuwaitetik ospa" amai-  
 turik, Mañukortak jarraitzen dau:

Sadam Hussein ez dago  
 hain gizon gozua  
 indar eta armetan  
 oso erosua.  
 Zuk ere kontuz eman  
 nigana pausua  
 nik galdu nezake gaur  
 hor mundu osua.

*"Iñigo Gojenola eta Mañukorta. Iñigo, zuk gorbatea  
 astegunetan jazten dozu. Mañuk, ostera, domeketan eta  
 jaietan".* Mañukortak lehenengo bueltan kantetan dau:

Eskolarikan gabe  
 txulo itxurakin  
 fanai agintzen dabil  
 ni hemen nabil fin.  
 Odolak ere neri  
 eiten dit irakin  
 gure artian bada  
 hainbeste ezjakin  
 kolpeik ein gabe dabil  
 hau gorbetarekin.

Kartzelako gaia: *"Lantegian berrogei urte emon  
 dozuz peoitzan. Gaur zure semea zuzendari jator-  
 tzu enpresara".* Mañukortak hiru bertsoetarik bigar-  
 ren-hirugarrenak, honakoak kantatu zituen:

Gazte jatorrak etorten dira  
 batere kulpik gabiak  
 eskola asko ikasi eta  
 jakindurian jabiak.  
 Aita zaharrak e oso ongi dakiz  
 lantegiaren legiak  
 lehengoak onak izan ginan ta  
 gaurko gaztiak hobiak  
 behar bezela tratatu zazuz  
 arren, langile pobriak.

Berrogei urte makina hontan  
 buzo zaharrakin emona  
 seme jatorra ongi pentsatu  
 hori nola ez dan broma.  
 Gaur agintzera zu hemen zatoz  
 gazte argi ta sakona  
 hau da aita zaharra zuri eskatzen  
 aholku ematen dagona  
 danen gainetik zu izan zaite  
 egi hutsezko gizona.



**Xabier Arriaga "Txiplas"**

"Zu, Jon, zeure seme-alabakaz paseoan zoazela, hara non sartzen jatzuzan jostailu-denda batera. Hemen jatortzu Txiplas dendaria". Lehenengo buelta biak honela joan ziren, Txiplas hasita:

*Txiplas*

Jugeteetan bada  
makina bat moda  
aukeratzen ez bota  
hainbeste denbora.  
Badaude muñeketan  
zenbat behera-gora  
baina zuk zeuk erosi  
aurreko tratora.

*J. Enbeita*

Hamar mila jugete  
beste hainbat seilu  
haurrak dirala eta  
hamaika istilu.  
Baina alperrik zabiltz  
dendari kankailu  
lau hurrekin badaukat  
nahikoa jostailu.

*Txiplas*

Hona sartu ta gero  
hainbeste algara  
umeak be bueltaka  
makina bat traba.  
Dena endredatuaz  
hona eta hara  
zertan etorri zara  
zu nire dendara?

*J. Enbeita*

Zuk badakizu haurrak  
etorri dirana  
ta zuk eurari saltzen  
daukazu afana.  
Dana da elektronika  
arma-gauza dana  
bakea da etxean  
nik behar dudana.

"Zuek bertsolariak zarie. Zu, Mañu, librean kantatzearen aldekoa zara. Zu, Txiplas, ostera, gai-jartzaileagaz gustorago sentitzen zara". Mañukortak, lehenengo bueltan, "nik gai librean zerbitu nahi dut / neu bizi naizen herria" kantaturik, Txiplasek jarraitzen dau:

Honek ez du nahi bere ondoan  
ez gai-jartzaile ez etsai  
bere moldera ibiltzen zaigu  
erdi baldar erdi alai.  
Gaia jarrita kantatzeko ez da  
edonor izaten gaur gai  
honek gai libre batik nahi du ta  
doinu ta neurria ere bai.

Mañukortak hurrengo bertsoa "ta Mañukortak ematen daki / bere gustoko jakiak" amaiturik, jarraitzen dau:

Gaia jarrita egiten ditut  
hortan neure ahaleginak  
batzutan hola izaten dira  
euren nahiak ta ezinak.  
Horrexegaitik gairik ez du nahi  
nere alboko lagun minak  
gaia jarrita be kantatzen dauz  
betiko bertso berdinak.

### **Abel Enbeita**

*"Zuek politikagintzan zabilze aspaldi honetan. Zu, Aritz, hiru bider izan zara aukeratua, beti partidu ezberdinetan egonda. Zu, Abel, beti egon zara partidu berean, baina ez zara behin ere aukeratua izan".* Lehenengo bueltan, Abelek kantetan dau:

Batetik eta bestera dauka  
beti hamaika aitzaki  
hiru partidu pasatu ditu  
ta denetan erabaki.  
Zer esan behar gaur nik holako  
mutiko gauzeztan bati?  
Gauz onik ez du egiten baina  
txaketa aldatzen badaki.

Hirugarren bueltan, Aritzek "hurrengoan be neu izango naiz / geure herriko lehendakari" amaiturik, Abelek jarraitzen dau:

Hori entzunda hara buruan  
badut hainbat oroitzapen  
hiru txaketa aldatu ditu  
han harrapatu, hemen ken.  
Lehendakaria izango dala  
ausartu zaigu esaten  
gaur eztaiz nun dan ta hurrengoan  
seguru dagola PP-n.

### **Finala**

#### **Jon Enbeita**

*"Etorkizunari buruz hasi zarie alkarrizketan. Zuk, Aritz, argi ikusten duzu; zuk, Jon, ostera, ilun deritzazu".* Lehenengo bueltan, Aritzek "etorkizuna ederra dauka / gogor lan eiten dauenak" amaiturik, Jon Enbeitak jarraitzen dau:

Lana da egiz etorkizuna  
itxartu leiken aldaba  
zoritxarrean herri honetan  
bada makina bat traba.  
Zail izango da argitzen gure  
itxaropenaren gaba  
anai artean gaur arte legez  
borrokan ari bagara.

*"Jon, zu oportetan atzerrira joan zara. Han honako itaun hau egin deutsue: Zer barri Euskal Herrian?"*  
Hirukoari honako hasiera emoten deutso:

Kanpoko aberri baten  
beti hola da izaten  
zer barri dogu esaten  
saminik ez dogu eten.  
Etsaien menpe hainbat urtetan  
ta odolak irakiten  
aberrirako maitasun suak  
danoi deusku eragiten  
bertara joan barik gatxa da  
zer trantzea dan jakiten  
danen gainetik guk dihardugu  
geure borroka egiten  
egunen baten Euskal Herria  
askatua izan daiten.

*"Gaur gauerako, menu ezbardinak aukeratu dozuez. Zuk, Jon, marisko eta angulak. Txiplasek, ostera, azalorea eta karakolak".* Txiplasek lehenengo bertsoa honakoa kantatu eban:

Nik afari sinplea  
beti dut amesti  
karakola ta azak  
preparatuz beti.  
Eta honek mariskoa  
gainera garesti  
holaxe ibiltzen da  
eta ez da aski  
baietz mariskoa jan  
kaskara ta guzti.

*J. Enbeita*

Karakolak be badau  
beraren kaskara  
eta hortzetan leike  
ipini dardara.  
Zu aldatu gabeko  
artaburu zara  
noizbait agertu behar  
nik neure patxara  
pobreak be noizbaiten  
ase behar gara.

Txiplasen hurrengoa "honen angulak ezin / nire  
garraisia" amaiturik, jarraitzen dau:

Etorri eta zazu  
nirekin aproba  
damu izango dozu  
bestela gerora.  
Marisko ta angula  
hau da gaurko moda  
orio-aza ez da  
gizonen ganora  
urtean zehar daukat  
hortako denbora.

Puntua: *Amuriza, Lizaso  
eta Lopategi*

*J. Enbeita:* Nire lako batentzat  
da izen gehiegi.  
Baina euren bidetik  
gura neuke segi  
ta neuk ere txapela  
iltzean eskegi.

**Gregorio Larrañaga "Mañukorta"**

"Zuk, Mañu, alkoholaren menpe luzaro egonda  
gero, oraintsu itzi deutzazu edateari. Zu, Igor, eda-  
ten hasi barria dan gaztea zara". Mañukortak  
honela hasten dau saioa:

Gazte denbora nik pasatu nun  
erdi mozkor ta tristia  
edaten nuen ardo ta txanpan  
tekila eta whiskia.  
Erdi loetan ta buruz behera  
berdin jai eta astia  
bide txarretan sartu zera ta  
aldegin zazu, gaztia.

Elortzak erantzuna "larunbatetan pixkat edanda /  
ederto pasatzen dugu" emanik, bigarrean jarrai-  
tzen dau:

Begiratuta zurekin dezu  
aingeru baten itxura  
aita ta amak zein mutil ona  
hau sortu zuten mundura.  
Galdu zenzake osasun dana  
zure herriko kultura  
koñak zikina utzi zazu ta  
edan iturriko ura.

Kartzelako lana: "Iluntzean, 'oilok kotara eta  
umeak lotara' esan ohi da. Zure alabatxoak, tele-  
bista aurrean liluraturik, ez dauka oherako presa-  
rik. Ea, zure bertsoen bitartez, loak hartzen  
dauen". Bigarren bertsoa honakoa kantatu eban:

Ume on batek begi aurrean  
egiten du hainbat grazi  
lorik ein gabe ibiltze hori  
zuentzako da itsusi.  
Ikasitzeko, galera da ta  
holakoik ez du merezi  
eskola eta kultura degu  
mundu honetan lehenbizi  
ta gero ere izango dezu  
telebista noiz ikasi.

**Aritz Lopategi**

"Zu hiru umeren ama zaitugu. Pare bat urte da,  
senarrarengandik banandu zinela, eta ondino ez

*dozu harengandik hogerlekorik bere kobratu*".  
Lehenengo bertsoa "senar honek bere umeak / ez  
ditu asko maite" amaiturik, bigarrenean kantatzen  
dau:

Neure etxean daduzkat  
hiru umetxo edar  
eurak jaboteko badut  
nahiko gogo ta indar.  
Senarrarengana joan naiz  
ni makina bat bidar  
ta umeak jolasean  
dabiltz etxean zehar  
dirurik egon ez arren  
ez eizue egin negar  
maite ez zaituen aitarik  
ez baitozue behar.

Kartzelako lana: "*Iluntzean, 'oilok kotara eta  
umeak lotara' esan ohi da. Zure alabatxoak, tele-  
bista aurrean liluraturik, ez dauka oherako presa-  
rik. Ea, zure bertsoen bitartez, loak hartzen  
dauen*". Aritzek lehenengo bertso biak honakoak  
kantatu zituen:

Telebistari begira duzu  
hainbat ames eta grina  
eta ogera zu eroatea  
niretzako da ezina.  
Baina bihar be zure ikastolan  
badaukazu zeregina  
zu lokartzeko ekina  
jarria dut nik, jakina (bir)  
horrexegaitik kantatzen dautsut  
doinu goxo ta atsegina  
logura ez zara, baina egizu  
lokartzeko ahalegina.

Umea ezin ohean sartu  
hauxe da nire burruka  
ezin izango natzaio ari  
hasarre edo oihuka.  
Ogerantz gura neuke eraman  
bere besotik helduta  
jarri zaite lokartuta  
loak gauza ederrak dauzka (bir)  
ogean sartu gura zaitut ta  
ez egidazu hori uka  
zeru gaineko aingeruekin  
ames egingo dozu ta.

### **Ireneo Ajuria**

"*Ostera bere heldu jakuz Gabonak*". Bakar gai honi  
lehenengo bertso biak honela kantatu eutsazen:

Intxur-saltsa eiten izango dira  
amona eta aitona  
eta etxean umearen zai  
berdin andre ta gizona.  
Sukaldeetan mahai danak txukun  
jan eta edari onak  
karta-joko eta bromak (bir)  
Gabonak ondo pasako ditu  
aukera hortan dagonak  
bezperan gaude ta guztiori  
nere partez zorionak.

Baina guztiak ez dauz beteko  
janari onan usaiak  
betidanikan gogor jo dausku  
Euskal Herrian etsaiak.  
Batzuek triste, beste batzuek  
izango dira alaiak  
hola dira Gabon jaiak (bir)  
ta sentipena mugituzea  
eskatzen dausku garaiak  
nere bertsoan agurtzen ditut  
kartzelan dauden anaiak.

**Abel Enbeita**

*"Zuek neska-mutilak zarie. Zu, Abel, neskea, zu, Irene, mutila. Bost egunean hasarraturik eta barbarik egin barik egon ostean, Ireneok, mutilak, hain zuzen, telefonoz deitzen dizu, Abel".* Ajuriak, lehenengo bertsoan, "ezin naiz bizi luzaroago / zure maitasunik gabe" kantaturik, Abelek jarraitzen dau:

Maitasunaren inguru bada  
baina, lagun, hainbat nahaste  
egun hauetan hausnartu eta  
bizi izan naiz oso aske.  
Gaur telefonoz berriro zatoz  
maitasun horreixen eske  
lehengoa ahaztu baldin bazaizu  
berriz elkartu gintezke.

*I. Ajuria*

Zurekin ere nik ikusten dut  
makinatxo bat tristezi  
bizia joanez ta hasarraturik  
asko genzake ikesi.  
Toki onetik toki txarrera  
zertako joan igesi  
maitasunikan ez dan tokian  
biziak ez du merezi.

*"Hamabost urtez, familiarik izan ezinik egon ondoren, gaur jakin dozu haurdun zagozena".*  
Lehenengo bertsoa honakoa kantatu eban:

Ia lanean ere baginan  
nolabait zerbait aspertu  
itxaropenik nahiz ta sekula  
guk ez dugun, ez, baztertu.  
Ilusioak egin genduzen  
eta guztiak okertu  
baina hara da edertu (bir)  
esan didate ume eder bat  
laister daukadana gertu  
momentu honetan ez dakit nola  
nere zoriona eskertu.

*"Abel Baltasar da eta Mañukorta Olentzero".* Abelek lehenengo bertsoa "Jesus umea ere / ez zuen ikusi" amaiturik, Mañukortak jarraitzen dau:

Gizon hau burutikan  
gaur ez dago ero  
maitasuna jario  
nunahi bero-bero.  
Euskadin nik baditut  
hainbeste bezero  
ta erregali asko  
fitut honezkero  
bete-bete eginda  
dator Olentzero.

*A. Enbeita*

Bakit erregaliak  
gaurkoz zer dakarten  
egun aproposa hau  
baitugu izaten.  
Baina ausartu behar  
natzaizu esaten  
nik mundu osorako  
baititut ematen  
ta Olentzerok bakarrik  
herri txiki baten.

**Xabier Arriaga "Txiplas"**

"Zure senarra Pertsiar Golkora bialdu eben soldadu. Handik itzultzerakoan, gorpu dator". Hona bigarren eta hirugarren bertsoak:

Nahi ezta ere hartu behar zuen  
ta egin harako dema  
mundu honetan bazegolako  
hainbat ta hainbat problema.  
Joan orduan itzalia zan  
nik nedukan zoramena  
hura negarra ta pena  
amaitua gendun dena (bir)  
baina itzulera izan genduen  
pentsatu ta nabarmena  
modu horretan heldu beharra  
hori izan gendun txarrena.

Hotzikeratan jarria neukan  
azala edo larrua  
zotinka eta taupaka hotsean  
gainera neure barrua.  
Joan orduko be izan nuen  
horrexen zurrumurrua  
baina hau da amorrua  
egoera deabrua (bir)  
niretzat da gaur neurri hortako  
gaitz eta deskalabrua  
kapitalisten sistema honek  
dauka guztien errua.

Puntua: *Amuriza, Lizaso*  
*eta Lopategi*

*Txiplas*: Hoi en artean bada  
hamaika komedi.  
Horren bidetik neuk be  
gura nuke segi  
baina ez al da izango  
niretzat gehiegi?

# 1992ko ARABA ETA BIZKAIKO TXAPELKETA



## Laburpena:

- *Seinako hiru eskualde kanporaketetan, Gasteizen, Azaroaren 8an, Iratxe Ibarak atera eban punturik gehien. Azaroaren 18an, Gernikan, Jon Mikel Omagogeaskoa nagusitu zen. Azaroaren 22an, Igorren, Iñigo Gojenola izan zen lehenen.*
- *Finalaurrekoetan, Durangon, 1992-XII-06an, Igor Elortza eta Markinan, 1992-XII-08an, Jon Enbeita nagusitu ziren.*
- *Finala Bilboko Arriagan izan zen, 1990-XII-20an, honeen artean: Juanjo Respaldiza, Jon Enbeita, Kepa Intxausti, Aritz Lopategi, Gregorio Larrañaga "Mañukorta", Igor Elortza, Juan Mari Areitio, Unai Iturriaga. Barriro be, Jon Enbeita txapeldun eta Unai Iturriaga txapeldunorde geratu ziren, 1990ean legez.*
- *Epaimahaian, Juan Ignazio Intxaurrea, Abel Muniategi, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Luis Baraiazarra eta Trino Azkoitia izan ziren. Idazkari lana Karmen Marina Arteagabeitiak egin eban eta aurkezle, Bernardo Mandalunizek.*

Bizkaiko bertsogintzaren IV. liburuari amai-muga bat ipintzeko, 1990a izango zen egokiena, dataren biribiltasunari begiratuta. Izatez, liburu honen periodoa izentakeran, "Gerra ingurutik 1990era arte" esango dogu. Edo, gehienez be, "1990 ingurura arte". Gertaerak ez dira, jakina, daten biribiltasunaren arabera jazotzen. Jon Enbeitaren urte

honetako txapelak 1990ekoak beste balio dau. Baina nonon muga ipini guran genbilzenez gero, egia da, daten biribiltasunetik aparte, 1990ean somatu zen gazteen sarrera handiak, belaunaldi barriak zelanbait esateko, 1992an bardin jarraitu ebala. Ez dago dudarik, inoiz bosgarren libururik egiten bada, 1990etik hasi beharko dauela, aro biak hortxe hasi baitziren erdiz erdi gurutzatzen. 1992an, kopuruz eta bertsogintzaz, aldakuntza garbi agiri zen.

Guztira, 26 bertsolarik parte harturik, lehenengo kanporaketetako hamaseirak honela banandu ziren, seinango hiru saiotan:

Azaroaren 8an, Gasteizko Floridako Kultur Etxean, goizeko 11:30ean, Zigor Enbeita, Iratxe Ibarra, Juan Mari Areitio, Dani Kastaños, Ibon Iza eta Unai Ormaetxea izan ziren. Punturik gehien atera ebana eta, beraz, finalerdietara zuzen pasatzekoa, Iratxe Ibarra izan zen.

Azaroaren 18an, Gernikako Santanape pilotalekuan, goizeko 11:30ean, Jon Mikel Omagogeaskoa, Rikardo Gonzalez de Durana, Mirari Azula, Iñaki Aurrekoetxea, Iñigo Olabarri eta Txabi Aju-ria. Punturik gehien Omagogeaskoak atera eban.

Azaroaren 22an, Igorreko Kiroldegian, goizeko 11:30ean, Mikel Urdangarin, Aitor Elexpuru, Kepa

Intxausti, Iñigo Gojenola, Juanjo Respaldiza eta Serapio Lopez. Punturik gehien Iñigo Gojenolak atera eban.

Finalerdietan, honako zortzikoteek kantatu eban:

Durango, 1992-XII-06an: Mirari Azula (Lekeitio), Aritz Lopategi (Muxika), Gregorio Larrañaga "Mañukorta" (Larruskain), Juanjo Respaldiza (Orozko), Iñaki Aurrekoetxea (Santutxu), Zigor Enbeita (Abornikano), Juan Mari Areitio (Iurreta), Igor Elortza (Durango).

Saio honetan kantatzea zegokon Jabier Arriaga "Txiplas" preso gertatu zen eta ez eban izan bertsolari lagun eskaintzak eta entzuleen txaloak jasotzeaz beste aukerarik.

Markinan, 1992-XII-08an: Iratxe Ibarra (Markina), Kepa Intxausti (Igorre), Jon Mikel Omagojeaskoa (Gernika), Iñigo Gojenola (Berriatua), Abel Enbeita (Abornikano), Ireneo Ajuria (Muxika), Jon Enbeita (Muxika), Unai Iturriaga (Durango).

Kanporaketetan eta finalerdietan agiri diren artean, beteranoak bost bakarrik dira: Areitio, Mañukorta, Jon Enbeita, Abel Enbeita eta Ireneo Ajuria. Beterano samarrak Rikardo, Respaldiza, eta Serapio. Beste guztiak 20 urte ingurukoak edo azpikoak ziren. Gehienak, beraz, errelebo-belaunaldikoak dira, hori 1990eko txapelketan behalantxe nabarmendu zen baina.

Bilboko Arriaga antzokiko finalerako, 1992-XII-20an, sarrerako laburpenean izentaturiko zortzikotea sailkatu zen.

Hemen, aurreko belaunaldikoak hiru dira garbi: Jon Enbeita, Areitio eta Mañukorta. Nahiz eta, dudan egon ondoren, Juanjo Respaldiza eta Aritz Lopategi be bertsoen aukeraketan sartzea erabagi dogun, argi dago eurak biok eta beste hirurak

(Intxausti, Elortza, Iturriaga) errelebo-belaunaldikoak direla.

1992an beste aro bat abiatzen zelako seinale bat gehiago izan leiteke (kointzidentzia hutsa be baleiteke baina) Bertsozale Elkarteak ez ebala txapelketaren libururik atera. Finalerdi bien eta finalaren transkribapena Xenpelar Dokumentazio Zentroan dago, koaderno txukunean, baina gaiak eta bertsoak bakarrik jasotzen dituela. Ez dago aurreko txapelketa liburuek zekarreen sarrerarik, non txapelketako xehetasun nagusien eta interesgarrien barri emoten zen.

Finalerdietako puntuaketari jagokonetik, Durango Igor Elortza nagusitu zen, bigarren Aritz Lopategi eta hirugarren Juanjo Respaldiza izanik. Markinan, Jon Enbeita nagusitu zen, bigarren Unai Iturriaga eta hirugarren Kepa Intxausti. Finalerdi bietako lehenengo laurak honela puntuaturik geratu ziren: Jon Enbeita (511), Igor Elortza (498), Unai Iturriaga (493,5), Kepa Intxausti (482,5).

Finala, Bilboko Arriagan, Bizkaiko txapelketetan lehenengoz, 8-4-2ko piramide sisteman egin zen. Lehenengo fasean, zortzitik laura, Jon Enbeita, Unai Iturriaga, Aritz Lopategi eta Igor Elortza sailkatu ziren. Fase honetatik buruz burukora Jon Enbeita eta Iturriaga pasatu ziren eta, azkenean, Jon Enbeita izan zen barriro txapeldun, 951 puntugaz, eta Unai Iturriaga txapeldunorde, 923 puntugaz, hau be bigarrenez, 1990ean legez. Hirugarren Aritz Lopategi eta laugarren Igor Elortza geratu ziren.

### Bertsoak

Bertsoen hautua egikeran, aurreko txapelketan be, finaletik edo finalerdietatik, aro barrukotzat jo genduzenak (Jon Enbeita, Aritz Lopategi, Gregorio Larrañaga "Mañukorta", Juan Mari Areitio, Ireneo Ajuria, Abel Enbeita) eta oraingoan finalerai-




no heldu zen Juanjo Respaldiza hartuko doguz,  
beste guztiak liburu honen mugatik haragokotzat  
itzirik.

### Finalerdiak

#### *Ireneo Ajuria*

*"Zu, Ireneo Ajuria, porroa egiteko paperik ez dozu-  
la-eta, Jon Enbeita abade honengana heldu zara  
paper eske". Ajuriak bigarreanean kantetan dau:*



*Jon Enbeita txapela jantzi barri. Atzean, J. Lopategi.*

Zurekin konfesatzen  
sarritan izanik  
nahiko ezagun gara  
ez da zer esanik.  
Papera eskatzen dizut  
gainera dohainik  
konfesonarioan  
ikusit dautsut nik.

#### *J. Enbeita*

Ointxe bota daustazu  
semea, edarra  
arazo barri hau be  
argitu beharra.  
Burua zoli dozu  
ta begia txarra  
katezismo berria  
dut paper bakarra.

#### *I. Ajuria*

Mundura ez naiz etorri  
triste egoteko  
borondatea gitxi  
dozu emoteko.  
Hori ez litzateke  
neretzat kalteko  
apaizak ez al zauze  
mesede egiteko?

#### *J. Enbeita*

Horixe baino orain  
ez genduen falta!  
Mesede egiteko  
neu nauzu aparta.  
Bidea egingo dizut  
kontuak lagata  
porroa itzi eta  
jan porru-patata.

*"Neska lagun bi zarie. Zu, Kepa Intxausti, zeure  
mutil-lagunagaz egunero egoten zaren bitartean,  
Ireneo Ajuria astean behin eta labur". Intxaustik*



Joseba Santxo

## ERATZEKO EREA. HORNITZAILEAREN GARRANTZIA

Bertsolaria ez da beti eratzaillea izaten. Ez dauko zertan. Baina izan leike. Baina ez dauko zertan. Bertsolari ona nekez izaten da eratzaille ona. Eratzaille onak ez dauko zertan bertsolari ona izan. Gitxi dira bertsolari onak izan eta eratzaille onak direanak. Hori bai, horreek etxerako modukoak izaten dira!

Nik dakidala, Euskal Herrian ez daukogu bertso-ekitaldiak eratzeko beren beregi sortuko eskolarik. Praktiketako aukeak, barriz, inon baino gehiago. Algortako Bertsolari Eskolan lizentziatu nintzan ni erakuntzan. Andoni Iriondo eta Trino Azkoitia katedratiko bikainen eskutik. Behinola, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen Karlos Ibarzabalaren idazkari jardun izanak bere asko aberastu ninduan. Eta zer ikisi dodan? Ba, hoba dala gauza gitxi ondo egitea, asko txarto baino.

Gauzak ondo egiteko, lehenengo txarto egin behar direala. Arin eta ondo, usoak egiten dauala hegan. Ikustea ikisi aurreko urrats ezinbestekoa dala. Borondatea eukitea oinarri ona izaten dala, emoitzia ona lortzeko. Borondate ona eukiteak ez dauala beti emoitzia onik ekarten. Gehiago irabazi leikeala porrotetik garaipenetik baino. Eraketan lehenengo helburua heltzea dala, eta bigarrena ondo heltzea. Behar ondo egiteko, beharkide finak behar direala ondoan, gitxi badira bere. Ondo eginaren pagua, ate ostean palua izaten dala sarri. Norberaren indarrak neurtzen ikisi behar dala. Ezetz esaten ikisi behar dala. Baietz esan eta egin eztea pekatu larria dala. Eta abarraren abarraren abarraren abar luzea.

Neure kontura eta laguntzino barik ikisikoen zerrendea laburra da, hatan bere. Baina bada, txosna giroan nihardu-  
la, neurez ikisiko zer bat: zeinen garrantzitsua dan hornitzailearen beharra!

*–Zazpi zurito eta lau kali!–* dino edansarri batek txosnako barraren kanpoaldetik.

Garagardaoaren iturriari eragin eta...: *Ai ene! Akaba dok! Orduan plastikontziak barra ertzean itzi eta kupel bila hoa. Baina kupela astuna izan eta laguntzinoa behar. Ondoko txosneroari eskatu deusok laguntako. Hak jaramonik ez, bereagaz nahikoa daukola-ta. Orduan kupeltzarrari oratu eta dandarrez eroaten hasi haz. Eskuak laprast. Garrian min. Eskatzailea muzinka. Hi ernegetan hasita. Eroan dok nonoz kupela iturripera. Ezin kupel hustuaren burukoa askatu. Ostikoka hasi haz kupelaren aurka. Ukabilkadea emon deusok iturriari. Alperrik habil, baina. Egarriz zireanak hanka eginda jagozak, egarriz asetu barik, eta hi gauzeztan hutsa hazelako ustean.*

Boltsara txin-txinik ez. Hurrengo urteko txosnan jazokunea errepikatu egiten da: *Baina hi ez haz arteragoko zerbitzari badaezpadako ha. Hi barra barruko izkina baten hago, abagadunearen begira. Halango baten, beharkide bat kupelaren trantze gorrian ikusi dok. Berak eskatu orduko, han joan haz, eskunarruak jantzita, eta kupela, behearen ganean, batera eta bestera belauartean jiratuazoz. Ti-ta baten ezarri deusok tutuaren musturra kupel barriari. Bajariok, jario, urrezko mama garratz-goza iturritxoaren agoari. Txosnakidea eskerroneko. Bezeroaren edangurea asetuta. Eta dirua txosnako boltsan.*

Ha ikisi nenduanetik, zerbitzari barik hornitzaile ibili ohi najatzue. Zorionez, zerbitzari gazte eta prestuak ugari daukoguz, barrako jeneroa barra-barra zabaltzeko.

lehenenengo bertsoa *"lanerako bakarrik / al daukazu neska?"* amaiturik, Ajuriak darrai:

Badaukatzut, laguna  
zuri esateko  
askorik ez du behar  
ondo izateko.  
Hala ta ere lana  
ondo dut beteko  
asteazkena ez da  
neretzat kalteko  
ordubete nahiko dut  
lanak egiteko.

#### **Juan Mari Areitio**

*"Zuk, Juan Mari, harategia eta, zuk, Zigor Enbeitata, perfumeria alkarren ondoan daukazuez. Zu, harakina, odolosteak egiten hasi eta alboko Zigor, perfumerua, protestaka etorri jatzu".* Zigor Enbeitak, dutxatzean be, odolosteekin igurzteko esanik, Areitioak darrai:

Dutxatzean horrekin  
igurtzeko dino  
jendea engainatzen  
horrenbeste enpeino.  
Baina argi daukagu  
hemen oraindano  
txuleta hoba dala  
perfumea baino.

#### **Abel Enbeita**

*"Zuk, Iñigo Gojenola, makinan diru partida jokatuta eta ezer ez dozu lortu. Abel Enbeitari, oster, bost hogerleko sartu eta sari nagusiak urten deuto".* Gojenola *"tontoen suertea / argi dago hemen"* kantetan hasirik, Abelek darrai:

Itxuraz berez batzuk  
tonto hutsak gara  
horretarako gertu  
hori hola bada.  
Bost mila duro bota  
ditu makinara  
honek berotu eta  
gero nik atara.

*"Erretratu zaharrei begiratzen zabilzela, soldaduzkako bat aurkitzen dozu. Zer dakartzu gogora?"* Abelek hirukoa honela hasten dau:

Garai bateko argazki zaharrak  
ateratzean argira  
oroitzapenak etorri dira  
berriz nire memorira.  
Militarrekin izan nituen  
makina bat tirabira  
momentu honetan argazki hori  
ikusi ez banu sikira!  
Soldaduzkako une garratzak  
oroitzapen txarrak dira.

#### **Jon Enbeita**

*"Frutu asko emoniko solo bi zarie. Zu, Jon Enbeitata, zabortegi eta zu, Unai Iturriaga, pinudi bihurtu zarie".* Unai *"izen bi baino ez dira hoiak / gauza berdinentzako"* amaiturik, Jon Enbeitak darrai:

Sortu ta gero frutu emaile  
lanean ginen gu hasi  
baina alferrik orain berandu  
ditugu gauzak ikasi.  
Ni dana nago kakaz beterik  
zu dana pinu ta sasi  
lana eginez jubilazio  
ona dugu irabazi.

### **Aritz Lopategi**

*"Aritz Lopategi, tonbolan diru partida jokatu eta gero, Mañukora muñeka hauxe tokatu jatzu. Bion arteko alkarrizketa".* Aritzek bigarren bueltan kantatu eban:

Tonbolan pasatu dut  
hainbeste apuru  
diruagaz jokatzeko  
ordu erdi inguru.  
Eta azkenean sari  
hauxen hartu dugu  
muñeka ala baloia  
dan ez naiz seguru.

*"Zu, Aritz Lopategi, Heynkes zara eta zu, Zigor Enbeitia, Clemente. Entrenatzaileentzako ikastaro batean topo egin dozue".* Zigor Enbeitak Espainiako selekzioa aitaturik, Aritzek darrai:

Hori entzunda lehendik  
ere banangoan  
mila hitz entzuten da  
Clementen agoan.  
Orain be harro zabilta  
selekzio ondoan  
zuk nahiz ta euskaldunak  
eduki gogoan  
nere jokalaririk  
ez eizu eroan.

*"Zuek amama-lobak zarie. Zu Elortza, amama eta zu, Aritz Lopategi, loba. Zu, Aritz neska, gaur zeure senargaiagaz joan zara amama bisitatzera. Lotarako ordua heldu denean, amamak zera dinto: mutila kamarara eta zu neugaz ohera".* Bigarren bueltan, Aritzek kantatu eban:

Amonak jarri gura  
dau, antza, stopa  
ta gure erlazioa  
golpean oztopa.  
Diskusioan orain  
sortu da koloka  
ni zure kuartorantza  
ez nazazu bota  
gure aitita be hantxe  
bakarrik dago ta.

### **Juanjo Respaldiza**

*"Zu, Mañukorta, Ameriketan urte mordoia emon eta gero, Juanjo, neskalaguna zenduen hau, bisitatzera joan zara".* Bigarren bueltan, Mañukortak "zukin ezkondu ta bizitzea / beste gauzarik ez det nahi" amaiturik, Respaldizak darrai:

Denbora pasa ta gero dozu  
horrenbeste amodio  
hegazkinean etorri zara  
bisitatzera propio.  
Ezkontza kontu honetaz zerbait  
esan behar dautsut serio  
Ameriketan balio ez dunak  
hemen be ez du balio.

### **Mañukorta**


Euskal Herriak sarritan ez du  
era hontako jentilik  
dana indartsu arkitutzen zait  
ezer e ez det debilik.  
Neska maitia, egon zaite zu  
une honetan isilik  
seguru nago ez dezu topauko  
ni bezelako mutilik.

*"Zu, Igor Elortza, izen handiko bertsolaria izanik, aspaldian ez dozu asteburu bat be libratu. Gaur Juanjo, hamar urteko alabatxoa, hasarre bizia agertzen jatzu".* Juanjo honela hasten da:

Behin dala saioa ta  
behin dala mitina  
beti kantuan dozu  
domekaz mingaina.  
Bitartean haziaz  
alaba sorgina  
zuk ez dakizu zer dan  
zure zeregina  
nik ez al dot balio  
bertsoak adina?

Zeu kanpora zoaz ta  
ama ta neu bertan  
familia ez dago  
horrela kopletan.  
Tristezia haundia dot  
momentu honetan  
esan behar dautsut nik  
horixe benetan:  
sekula ez daustazu  
bertsorik kantetan.

Igorrek, bigarren bueltan, astebururik "baina bat  
libre ez dut / sei hilabetetan" esanik, jarraitzen dau:



247

Foto Sol

Epaimahaia, Arriaga antzokiko finalean. Ezkerretik, K. M. Arteagabeitia idazkari-lanetan,  
T. Azkottia, L. Baraizarra, A. M. Aldekoa-Otalora, A. Muniategi eta J.I. Intxaurreaga.

## Finala

### *Juan Mari Areitio*

"Zu, Iturriaga, hiru semeren aita alarguna zara. Gaur Juan Mari zure alaba txikerrari hauxe dintsazu: hemendik aurrera, bost izango gara etxean, bosniar bat hartuko dogu eta". Areitiok bigarrean-an kantetan dau:

Bosniar hoi en egoera da  
benetan tamalgarria  
beren gainera jausi baitzaie  
negargarrizko harria.  
Hala ere oraindik trantze horretan  
ez dago Euskal Herria  
dudik ez dago, gure partetik  
hau da ongi egorria.

Iturriagak hurrengo "faltan dugunok badakigu ta / falta izatea zer den" amaiturik, Areitiok darrai:

Bosnia aldetik Euskal Herrira  
babes pixka baten bila  
batzuk etorri dira ta etorri  
nahi dabie hona pila.  
Gure etxean bada oraindik  
zer jan ta izan dedila  
hemen gitxinez badogu behintzat  
artua edo morokila.

Puntua: *Kontsumismoa dator  
Gabonez jantzita*

*J.M. Areitio:* Sarri honek horrela  
eiten dau bisita.  
Ni ez naiz alaitutzen  
hori ikusita  
famili asko baidaude  
ia ezin bizi-ta.

### *Jon Enbeita*

"Zuek aurrez aurre bizi zarie. Goizean Jon Enbeitak atea zabaldu eta Kepa Intxausti aurkitzen dau bertan lo". Jon Enbeita honela hasten da:

Beti hartzen dau euki  
ezin dan arloa  
emon beharko dautsat  
gaur ere txaloe.  
Atearen aurrean  
a zelako loa!  
Gaur be deskuidatu da  
gure mozoloa.

Intxaustik hurrengo "hemen nago ni ama / hasarratu da ta" amaiturik, Enbeitak darrai:

Hasarratzeko badu  
harek nahikoa gai  
ardoz ibiltzen zara  
goitik beheraino blai.  
Lanetik ihesian  
ta parrandari bai  
ume mokoa eta  
haundia izan nahi.

"Zu, Jon Enbeita, karterua zara. Gaur andra bati zuzendutako eskutitz baten, Iturriaga zure aita honen letra ezagutu dozu". Bigarren bueltan, Iturriagak "andrea topatu dut / ta nabil oparo / sasoia ez baita joaten / gogoa badago" amaiturik, Jon Enbeitak darrai:

Andra aurkitu duzu  
esan duzun eran  
asko ez da izango  
zuretzat aukeran.  
Baina zertan jarraitu  
horregatik teman?  
Esaidazu zuk, aita  
normala ote dan  
semeari kendu ta  
keridari eman?

Bakar gaia: *"Zu aspalditik bakar-bakarrik bizi zara. Gaur Gabon eguna dela-eta, zu zaintzera etortzen jatzun asistentia sozialak bere etxera joateko dinotzu afaltzera"*. Hirukoa honela hasi eban:

Giro hotza zein epela  
lehorra edo umela  
etxe hau nuen gartzela  
edo zer deitu bestela?  
Baina gaurkoan kanbiatu zait  
destinoaren kordela  
lehio ertzetik ikusi baidut  
laguntza badatorrela  
eta esan dit: zatoz etxera  
beste kide bat bezela  
aitortu nahi dut mundu honetaz  
erraturik nengoela  
konturatu naiz oindik munduan  
maitasun surik badela.

*"Zuek senar-emazteak zarie. Zuk, Jon Enbeita senarrak, Kanarietara joatea erabaki duzu, eta zuk, Iturriaga andreak, Alpeetara eskiatzera. Handik hilabetera, barriro alkartzen zarie"*. Iturriagak "lehorrean eskiatzen / ikasi dut baina" amaiturik, Jon Enbeitak darrai:

Burua beti duzu  
bete ames askoz  
egia esan arren  
zure errespetoz.  
Norbaitek eingo zizun  
kinua deskuido  
ta ligatu duzula  
sinistuta zatoz.

*"Zuk, egun baten, etxetik alde egiteko erabagia hartu zenduen. Gaur telebistan, zeure gurasoak ikusten dozuz, zure barri jakin guran"*. Lehenengo-hirugarrenak honakoak kantatu zituen:

Egin behar dut aitortza  
ta esaten ez naiz lotsa  
nire etxeko morrontza  
nuen niretzako hotza.  
Eta barnean sartu zitzaidan  
ihesaren abots hotsa  
gaur telebistaz ikusi eta  
hauxe da samin zorrotza  
une batean sentitu bainaiz  
krudela eta arrotza  
ezin dut kendu barneratu den  
gazia eta mingotsa  
nik ez nuen nahi hola lehertzerik  
gurasoaren bihotza.

Buru gutxi, mila zango  
txoriburu ta fandango  
zaldi uste eta mando  
baina eskarmenta naiz ondo.  
Telebistako eskaria zait  
barnean itsatsi sendo  
egindakoa hainbeste zenik  
ez nuen uste egundo  
intxaur-saltsa ta orio-aza  
batera ditugu jango  
ama laztana, berriz ez dizut  
atsekaberik emango  
eta sekula zuen ondotik  
ez naiz inora joango.

### **Aritz Lopategi**

*"Hogeita hamar urtean itsurik egon eta gero, barriro ikusteak lortu dozu"*. Hirukotik lehenengoa, honakoa kantatu eban:

Lehen itsu nengoen eta  
ha ez zan berriketa  
kalean zehar umeek  
eiten eusten iseka.  
Ta nire ezintasuna  
inun ezin gordeta  
baina orain argitasunan  
jarria dut arreta  
begiak zabal-zabalik  
harriduraz beteta  
orain nora begiratu  
ere ez dakit eta.

**Gregorio Larrañaga "Mañukorta"**

"Zuk, Aritz Lopategi, aurten lehenengoz harrapatu dozuzen angulak Mañukortari erregalatu deusazuz. Handik momentu batera, plazan ikusten dozu angulak saltzen". Aritz hasirik, Mañukortak darrai:

Kontzientziz ez nago  
laguna, lasaia  
irabazirik gabe  
nago eroria.  
Plazan saltzen ari naiz  
hori da egia  
hauekin erosteko  
urteko ogia.

Puntua: *Sestaotik Bilbora  
geroaren kezka*

*Mañukorta:* Hainbeste langile fin  
hor datoz galdezka.  
Berdin andre ta gizon  
mutil eta neska  
lan gabe bukatzen da  
behartsuen festa.

**Juanjo Respaldiza**

"Zuek aita-amak zarie. Zu, Iturriaga, aita; Respaldiza, semea. Zuk, aitak, poliziarentzat porrak egiten dozuz. Eta, lanez gainezka zagozela-eta, laguntasuna eskatzen deusazu Juanjo zeure seme bakezale horri". Iturriagak lehenengo bertsoa "pakea ezartzeko / omen dira eta" amaiturik, Respaldizak darrai:

Jenteari behar jako  
hainbat errespeto  
kale gorrian dira  
bakean kalteko.  
Bakea ezartzeko  
askozaz hobeto  
egingo neunkez baina  
zeuri emoteko.



## BIZKAIKO 2. MAILAKO BERTSOLARI TXAPELKETAK - MALLABIA



Bizkaiko txapelketen artean, eta Bizkaiko bertsolaritza suspertzeko saialdirik garrantzitsuenetari-koen artean, 1975-76-77 urteetan Mallabian anto-  
latu eben txapelketa izan zen, "Bizkaiko 2. maila-  
ko Bertsolari Txapelketa" izenez. Txapelketa hare-  
tako grabazinozik ez dogu aurkitu, eta argazkirik  
be apenas. Sasoi haretan antolatzaile ibilitakoen  
artean, zehaztasun handiegi bako lekukotzak aur-  
kitu doguz hasieran, baina, handik tiratu, hemen-  
dik sakatu, azkenean, txapelketa hareen gaineko  
informazinoa nahikoa zehaztea lortu dogu.

Iturri nagusia, Mallabiako Trabaku Goiko taber-  
nan, 2005-IV-09ko arratsaldean egin genduen  
batzarra izan zen, non hiru informatzaile honee-  
kin batu ginen: Mari Paz Zelaieta, Jose Luis  
Mugarza eta Pello Mugarza, "Elgetzu" anaiak  
eurok. Aurretik, bakotzak, honi eta hari galdetuz,  
nahikoa datu jasota zekarren, eta hona emoitza,  
gero beste bertsolari parte-hartzaile batzuen xehe-  
tasunekin osatua.

### Jai batzordea

Lehenik eta behin, txapelketa horren ideia beste  
ekimen askoz zabalago baten barruan sortu zen.  
1970eko hamarkadan, Mallabiako gazteriak oso  
dinamika lantsua eta indartsua abiatu eban. Herri-  
ko jai nagusiak eta auzoetakoak (10 ermita konta-  
tu zitueen) antolatzen, erdi hilik edo motel zego-

zenak indartzen eta, urteko mezaz gainera, ezer  
gitxi egiten zen auzoetan egitarau barriak sortzen  
hasi ziren. Denpora laburrean, herriari astinaldi  
itzela emon eutsien. Lana ez zen edozelakoa,  
auzo guztietara helduko baziren, heldu ziren  
moduan.

Esan beharrik ez dago lanik handiena herriko jai  
nagusiek, abuztuko Andra Mariek emoten eutsee-  
la. Hasteko, frontoia estaldu egiten eben urtero,  
zati bat, behintzat. Behin, oso-osorik estaldu  
eben, plastikoz eta tentsetako egundoko lanak  
harturik, eta haizeak osorik eroan eutsen. Ekitaldi  
guztiak Pesako nabeetan egin behar izan zitueen.  
Jaialdi handiak antolatzen zitueen, orduko kanta-  
ririk ospetsuenekin: Benito Lertxundi, Gorka  
Knörr, Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Antton Val-  
verde eta abarregaz. Orduan ospearean gailurrean  
zebilen Egan taldea be urtero ekarriko eben.

Frontoia estaldu ez ezik, gau eta egun txandak  
egin behar zitueen, hurrengo eguneko probetara-  
ko, inork xaboirik edo beste labangarririk egin ez  
zeien zaintzen. Horretarako, kanposantu zaharre-  
an lo egiten eben, elizaren beraren atzeko elizpe-  
an. Haxe hartzen eben aterpetzat, eurek lo egite-  
ko, gauzak gordetzeko eta denerako. Kanposan-  
tuan lo egiteak erreparorik ez ete eutsen emoten  
edo herritarren artean txarto-esanik ez ete zen sor-  
tzen itaundurik, ezetz dinoe; jada martxan ez


zegoen kanposantu zaharra zela, nahiz eta, urte batez, baten batek harlauzaren bat jasotzean, burhezurren bat agertu zen.

Oraindino diktadura sasoia izan arren, orduko Udaletxeagaz nahikoa ondo konpontzen ei ziren. Jaien amaieran, Udaletxeak afaria ordaintzen eutsan gazteriari Bastidarenean. Urteren batean, partikular batek be ordaindu ei eban afari hori, herriko gazteria hain langile eta zintzoa saritu guran. Jaiekin zorrik egiten baeben, Udaletxetik edo ahal zen lekutik lortzen eben kitatzeko modua. Bastidareneko ugazabak berak be aurretzen ei eutsen dirua, kantariak eta abar gertatu ahala ordaintzen joateko. Urte batez, Eibarko Astelenan, jaialdi erraldoia antolatu eben, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lourdes Iriondo eta aba-

regaz, jaietako zorrak ordaintzeko dirua ateratzeko. Jente pilo izugarria batu ei zen eta helburua bete egin eben. Gaurtik pentsaezina badirudi be, orduan kantaldiek dirua ateratzeko balio eben.

Gazteriaren mogida ha guztia zergaitik abiarazo eben itaundurik, "herri-mina", "biztu nahia", "euskal kontzientzia" eta horrelako kontzeptuak jaulkitzen ditue. Mallabia, sasoi haretako bizkunde olatuan, aurrelaria izan zen, herri guztiak be, oro har, ilusino handiz jarraitzen eutsela. Ez zen, izan be, jaiak antolatzeko mogimendu hutsa. Euskarazko ikastaroak egiten zitueen, esaterako, Justo Azagirrek emonak, alfabetatze mailan. Bertsolaritza ikastaroa emotera be ekarri eben Abel Muniategi, Trabaku Goiko tabernan. Ikastaroak tabernan! Horretan be gauzak aldatu dira apur bat. Oro har, asteburu guztietan batzen ziren gazteak zerbaiteko, sasoi eztabaida politikoak barne.

Mogida haren guztiaren espiritua kamiseta batek islatzen eban, "4 + 3 = 1" ipintzen ebana, jaietan gazte guztiek soinean zerabileena. Mogimenduaren bolumenaren antz bat hartzeko, gitxi gorabehera zenbat gazte ibiliko ziren galdeturik, izen batzuk emoten hasi ziren eta zerrenda ez zen behingoan amaitzen. Hasieran aitatutako hiru informatzaileez gainera, Bixente eta Justo Azagirre, Rikardo eta Iñaki Bastida, Emilio Txurruka, Belen eta Marisa Telleria, Arantza eta Miren Mallabiabarrena, Asun Antxia, Isabel Garitagoitia, Martzel Garitagoitia, Juan Luis Gallastegi, Juan Luis Mugarza, Jose Antonio Pagaldai, Pedro Astarloa, Santos Aranburu, Santi Uzuriaga, Pedro Aranburu, Laureano Garitagoitia, Jose Antonio Gisasoia "Zelai", Sabino Olade, Migel Anjel Olalde, Inazio Solozabal, Belen Abendibar, Agurtzane eta Jose Antonio Ormaetxea, Bizente Amesti, Luis Pradera, Txarrate... Esan beharrik ez dago zerrenda honetan izenak faltako direla, halantxe une batean banan-banan tiraka eta elkarri lagunduz



Bertsolari aldizkaria

Jon Enbeita 1975eko Mallabiako txapelketako irabazlea.  
(Ez da egun horretako argazkia)

atereak baitira, baina, arrisku hori eta guzti be, merezi eban 1975. urte inguruko Mallabiako gazteria ekintzailearen konstantzia bat iztea.

### Bizkaiko 2. mailako bertsolari txapelketa


Gazteriaren mogimendu horretan eta jai batzordearen barruan, Bizkaiko bertsolari txapelketa antolatzeko ideia sortu zen, baita aurrera urten be, orduan hainbesteko gogoz eta kopuruz ziharduen gazteriaren asmoak ia hutsik gabe burutzen ziren eta. Alfonso Irigoienengana jo eben aholku eske, Aulestira, eta honek esan ei eutsen: "Gatx izango dozue. Euskaltzaindia be ibili da Bizkaiko Txapelketa antolatu guran, baina ezin izan dau". Ezin hori, antza denez, baimen kontuagaitik zen, orduan Gobernu Zibilak emona izan behar ebana. Mallabiako gazteek ez ei eben behar ziren baime-nak lortzeko eragozpen handirik izan. Jose Mari Iriondogana be jo eben aholku eske, txapelketaren egitura, epaile eta abarren inguruan.

Zer txapelketa mota egiteko kontuari buruz, ez eben eztabaida luzean jardun beharrik izan. Bizkaiko txapelketa nagusia gatx edo ia ezinezko ikusten eben, orduan figura zebilzen guztiak (Jon Lopategi, Jon Azpillaga eta abar) sartuta, behintzat. Gainera, euren asmoa, batez be, gazteak eta plazan gitxi ikusten zirenak bultzatzea zen. Orduan, txapelketa nagusia edo lehenengo mailakoa egiterik ez zegoenez gero, honako izena ezarri eutsien txapelketari: "Bizkaiko 2. mailako bertsolari txapelketa". Baldintza nagusiak honakoak ziren:

- Bertsolariek bizkaitarrak izan behar eben. Bizkaiko txapelketa zen, beraz, eta ez orduan ohikoak ziren beste zenbait sariketa probintzia arteko lakoa.
- Bizkaia barruan, parte-hartzea guztiz edegia zen, adinaren tope barik.
- Behin txapeldun urtetan ebanak hurrengo

- txapelketetan ezingo eban parterik hartu. Honen promozinoa egintzat emoten zen.
- Epaileak eta aurkezlea antolakuntzak iragar-tzen zituen urte baktxean.

Sarietan, txapeldunari ohiko txapela eta besteei trofeoak, plakak eta halakoak emoten eutseezen. Diru sariak zenbatekoak ziren ez daukie gogoan, baina apenas askorik izaten zen. Bertsolari bila, gehienbat, Mallabiako gazteak eurak joaten ziren, baten baten barri bazekieen edo izan zeitekeen herrietara. Halan, bertsolarien izen-emotea baino gehiago, bila joanda eginiko gonbitak ziren.




Juan Mari Areitio 1976ko Mallabiako txapelketako irabazlea.  
(Ez da egun horretako argazkia)

Txapelketa, normalean, Mallabian hasi eta amaitzen zen, kanporaketak eta finala, dena bertan jokatu. Herriko jai nagusien, abuztuko Andra Marien egitarau barruan sartzen zen txapelketa. Urte batez, halan be, kanporaketak beste herri batzuetan jokatu ziren, Mallabiarako finala itzirik. Bertsolariek hiru-lau lekutan kantatzen eben, bat libratu. Leku horreen artean, honakoak gogoratzen ditue: Urkiola, Zeanuriko Ipiñaburu, Forua eta Fika. Baleiteke baten bat falta izatea.

Txapelketako saioen eta finalaren aktarik eta halakorik jasotzerik pentsatu be ez ei eben egin. Ezer bazenik ez dira gogoratzen, behintzat, eta, dinonez, preminarik be ez zegoen eta problemarik ez ei jaken sekula sortu. Entzule aldetik, kanpotik be bai banaka batzuk, baina, batez be, herriko jentea batzen zen gehienbat. Mallabiako herritarrek oso

ondo erantzuten ei eben, herriko gazteek antolatutako ekimen guztietan. Halan be, orduan ohi ziren bestelako jaialdien aldean, konparaziorik be ezin ei zen egin, izan be, orduko kantaldiak masiboak izaten ziren eta.

Hiru urtez jarraian, hiru txapelketa izan ziren gutira. Zergaitik itzi eutsien antolatzeari galdeturik, ez daukie gomuta garbirik: "Ez dogu uste arrazoi jakinik izan zenik, txapelketak amaitzeko. Urte batzuetan egin genduen, ustez bete genduen Bizkaiko bertsolaritza suspertzeko eta gazteak plazaartzeko helburua eta hortxe amaitu zen, beste barik. Gainera, Euskal Herriko txapelketa nagusia egin ala ez be berbetan hasita zegoen, eta guk nahikoa egin genduela pentsatuta itziko geuntsan. Ez daukagu gogoan, itzi ala jarraitu, eztabaida garbirik izan zenik".



J. L. Mugarza "Elgetzu" 1977ko Mallabiako txapelketako irabazlea.  
(Argazkia 1987ko Bizkaiko finalekoa da)

Urteen perspektibatik, zelako balorapena geratu jaken itaundurik, nahikoa garbi daukie euskararen eta bertsolaritzaren bizkunderako ekimen bat izan zela eta, alde horretatik, mogida indartsua eta eragilea izan zela. Txapelketa horren ondorioz, Bizkaian bertso-plaza asko irabazi ziren eta bertsolari gazte asko plazaratu zen. Txapelketaren irabazleak, batez be, izena hartzen eban eta, ondoren, plazak be ugari etortzen jakozen. 1977. urtekoa irabazi eban Jose Luis Mugarza "Elgetzu"-k dino: "Nik neuk, Mallabian txapeldun urten nebanetik, urtean plaza mordoa egiten neban Durangaldeko herri eta auzoetan, Elorrión, Markinaldean eta abar. Gogoan daukat, finaleko saioan, eskuturreko erlojua ordubete aurreratu jatala. Niri, behintzat, txapelketa harek bide asko zabaldu eustazen".

### 1975. urteko txapelketa

Mallabiako Bizkaiko 2. mailako Bertsolari Txapelketen lehenengo izan zen honetaz, zorionez, informazino ugari eta zehatza daukagu, *El Correo Español* egunkarian agertu zen kronika luze samar bati eskerrak, herrietako barriak emon ohi zituen Munitibar kazetariak sinatua bera. Abuztuko Andra Mari hurrengo zapatuan izan zen txapelketa eta kronikaren hasierak honela dino, erdaratik euskarara itzulita:

Zapatuan, eta egun osoan zehar, ia ekitaldi jarraitua izan baitzen, Mallabian jokatu zen Bizkaiko bigarren mailako Bertsolarien Txapelketa, joan deneko hamabi urtetik egiten ez zena. Mallabiako gazte-riak, Eusebio Arregi jauna buru dauen Udaletxearen laguntasunez, biztea lortu dau dema poetiko honek, munduan bardinik ez daukienak eta euskararen erabilera hainbeste sustatzen dabena.

Kazetariari "hamabi urte" horreen informazioa baten batek ez eutsan zuzen emon, Bizkaiko azkenengo txapelketa, Jon Lopategi ira-

bazia, 1966an izana zen eta. Bederatzi urte, beraz. "Munduan bardinik ez izate" hori be oraindino martxan zebilen topikoa zela ikusten da, jente kultoagan, gainera, Munitibar kazetariak bere antzeko eskolatuen ahotik jasoko baitteban uste hori.

Epaimahaian, honakoak izentatzen ditu: Aita Antonio Zavala, "jesuita eta «Auspoa» bertsolari gaien bildumako zuzendaria"; Mikel Zarate, "abadea eta euskal idazlea"; eta Abel Muniategi, "abokatua eta bertsolaria". Aurkezle eta gai-emoile Alfonso Irigoienek egin eban, kazetariak xehetasun hau gehitzen dauela: "Hain zuzen, Alfonsok laguntzailea izan eban bere semeagan. Ez jakon eskutik jaregiten eta behin eta barriro igoten eban oholtzara". Marrazki bizidunetako koadroa izango zen Alfonso aurkezten eta, aldi berean, bere mutiko txikia atondu ezinik ikustea. Hurrengo urteetan, Jesus Mari Etxezarreta "Izazpi" eta Luzio Gabiria be egon ziren epaile.

257

Lehenengo urte horretan, hamaika bertsolari aurkeztu ziren eta goizeko kanporaketan honako laurak gelditu ziren eliminaturik: Joseba Andoni Enbeita (Muxika), Iturri I.a (Muxika), Floren Amuriza (Etxano) eta Berasaluze (Zaldibar). Bardindurik geratu ziren Jesus Mari Sardui (Muxika) eta Jose Mari Ugartetxea (Markina), oraingo Ugartetxea anaian aita. Arratsaldean, bien arteko desbardinketa jokaturik, D. Sardui pasatu zen finalera.

Finalean, sei honeek izan ziren kantari: aitatutako Sardui, Iturri II.a (Muxika), Juan Mari Areitio (Abadiño), Jose Inazio Intxaurreaga (Zeberio), Mañukorta (Larruskain) eta Jon Enbeita (Muxika). Lehenengo itzulia binaka (Iturri II.a - Mañukorta; Areitio - Intxaurreaga; Sardui - Jon Enbeita) eta oinak emonda eta kartzelako gaiagaz ("*Euskal Herriko mendiak*") jokaturik, Areitio, Intxaurreagak eta Jon Enbeitak desbardinketa jokatu behar izan eban, lehenengo bietara nor

pasatuko. Enbeita nagusitu zen eta beronen eta zuzenean pasatua zen Mañukortaren artean jokatu zen txapela. Azkenean, txapeldun Jon Enbeitak urten eban. Kazetariak bere kronikan iruzkin hauxe egiten dau: "Epaia jakinarazo ebenean, txistu asko izan zen, txaloekin nahastean. Enbeitak eskerrak emon zituen bertsoan, eta orduan denek txalo jo eutsien. Gero Mañukortak, eta ha zoramena izan zen".

Orduan zelako gaiak ipintzen ziren antz bat hartzeko, hona kronikan agertzen direnak: "Eibarko eskopetak"; "Mallabiko kanpantorrean kanpai hotsak entzuten dira"; "Abadearen lapikua, benetan gozua"; "Gizontasuna ez da dirutan erosten; Etxe askotan dago andrea alkate"; gorago aitatu-tako "Euskal Herriko mendiak". Binaka, "langilea eta nagusia". Lau oinak emonda: *bagina, premi-na, fina, zeregina. Hotz, motz, zorrotz, zotz.*

### 1976. eta 1977. urteetako txapelketak

Urte horreetako txapelketetatik, irabazleen izenaz haragoko informazio handirik ezin izan dogu jaso, egitura guztia 1975. urtekoaren antz-antze-koa izan zela besterik.

1976ko abuztuaren 22an: Txapeldun, Juan Mari Areitio, Abadiñokoa.

1977ko abuztuaren 22an: Txapeldun, Jose Luis Mugarza "Elgetzu", Mallabiakoa.



1975ean, txapeldun Jon Enbeita eta Mañukorta bigarren izentatu ziren moduan, badirudi, hurrengo urte bietan, ez zela txapeldunaz besterik izentatzen, ez bigarrenik ez besterik. Halan be, interesgarri deritzogu urte horreetan, behin edo gehiagotan, Mallabiako txapelketan parte hartu ebenen izen zerrenda gehitxoago hornitzea. Baleiteke baten bat aitatu barik gelditzea, baina Mallabiako hiru informatzaileei eta beste bertsolari batzuei galdeturik, 1975ekoan aitatu

doguzen hamaika izenez gainera, honakoak gehitu geinkez:

Justo Longarte (Aulesti), Soloño (Elorrio), Mandiola "Asuntze" (Mallabia), Txarrate (Mallabia), Julian Larrañaga "Mañukorta II.a" (Larruskain), Olarra (Errigoiti), Giñerradi (Busturi), Moises Enbeita (Muxika) eta Juan Eguren (Berriatua). Beraz, 11 + 9, hogeitaz izen, behintzat, pasatu ziren, Mallabian, Bizkaiko 2. mailako Bertsolari Txapelketatik.

Amaitzeko, txapelketa haretako gertakari zirrargarri bat kontatuko dogu, hain zuzen, zerrendan azken aitatu-tako Juan Eguren berriatuarragaz gertatua. Bakarreko gaitzat, honakoa ipini eutsien, gitxi gorabehera: "Joan den astean seme bat minbiziz hil jatzu". Kontua zer izango eta kasualitatea batzuetan zelan gaiztotuko, kasu hipotetiko hori, hain zuzen, Juan Egureni berari egiaz gertatua izan zen, bi edo hiru aste lehenago. Gizonak negarrari emon ei eutsan, baina zelan edo halan amaitu ei zituen bertsoak.


260



# Izenak




261





## IRENEO AJURIA

1946. urteko otsailaren 10ean, Muxikako Ariatzako Fuenterrabia tabernan jaio eta bertan hazi zen.



1960ko Bizkaiko Txapelketan, Mungiako kanporaketan txapel-dun gelditu eta finaleraino heldu zen. Oraindino mutikoa zela hasi zen, beraz, plazarik plaza, eta, harrezkero, Bizkaiko txapelketetan erreskan eta Euskal Herriko zenbaitetan kantatu izan dau, azken urteetan leihara aurkezteari itzi eutsan arte. Gaztetan eta hel-

duaroan be izan eban, ez bertsozik, baina bai Euskal Herriko plazetatik urrundu beharra, munduko hainbat frontoitan zehar, urte mordo luzea egin eban zesta-puntalari eta.

Pilotari itzi eta Euskal Herrira behin betiko itzulirik, aspaldiko urteotan Gernikan bizi da, bertako Maria Luisa Garmendiagaz ezkonduarik, eta hiru seme-alaba dituela: Ibon, Alain eta Naia. 1996an, bere lehengusu Jon Enbeitak eta biek *Paperetik Plazara* taldea sortu eban, Roberto eta Kepa musikarien taldeagaz.

Txapelketen atalean, Ireneoren hainbat bertso agertzen delarik, hemen Donostiako Victoria Eugenia antzokian, 1992-I-19ko Bertsolari Egunean, Teodoro

Hernadorena, Emile Larre eta Mariano Izetaren omenaldiko jaialdian, Jon Enbeitagaz egin eban saioa dakargu, honako gaiaren gainean: *"Egunotan bihotzeko aldizkariak irakurriak omen dituzue. Jakin al genezake zer irakurri duzuen?"*.

### *J. Enbeita*

Irakurri ditugu  
*Lecturas* ta *Hola*  
hara zer jakin dugun  
ilustratuz hola.  
Australian andrarik  
ez da egiten atso  
bat ehunda bi urtekin  
ezkondu zen atzo.

### *I. Ajuria*

Miguel Bose-n ligeak  
ta Porcelanosa  
Jesus Gilen txorradak  
ta Lola karroza.  
Guatekerik guateke  
Marbellako Jett-a  
kontutik bizi zaigu  
makina bat jeta.

*J. Enbeita*

Mexikon kokaina  
oso zabal dabil  
sobredosisarekin  
behi bat omen da hil.  
Marruecosen berriz  
edozertako gai  
belarria jan dio  
maizterrak nausiai.

*I. Ajuria*

Eskiatzen joan zen  
errege zozoa  
beretzat zala ustez  
Bakeira osoa.  
Bide erdian txokea  
belauna dandarrez  
gorago izan balitz  
kalte aundirik ez.

264

*J. Enbeita*

Modatik pasa zaigu  
Bizkaiko txerria  
Italiatik dator  
sistema berria.  
Batek gasez puztu du  
jarri zedin iaio  
baina hiltzerakoan  
lehertu egin zaio.

*I. Ajuria*

Galeseko Diana  
jantzi da premama  
zalantza da ote den  
printzeak emana.  
Pantoja omen dabil  
nobioen bila  
Mañukortarengana  
etorri dedila.

*J. Enbeita*


Gaurko jaia ez dator  
Hola-n ez Lectura-n  
nahiko urri baidabiltz  
Herriko kulturana.  
Baina gu zorionez  
hortan gabiltz eta  
gora Hernandorena  
Larre ta Izeta.

*I. Ajuria*

Gaur omentzen ditugu  
hiru gizon haundi  
zorretan bizi baita  
eurekin Euskadi.  
Luzaro bizi bakez  
ta zorionean  
hauze opa dautsuet  
denen izenean.

## JOSE ALBERDI

Iurretan jaio zen, 1922ko abuztuaren 2an, Ertzilu-rruti baserri hirukotxean, eta orain Durangon bizi da, osasun eta argitasun onez.



“Umetan, eskolara buelta batzuk egin genduzen -zinoen alkarrizketa batean-. Maisua erdalduna zen eta komedia itzelak sortzen ziren, baina laster hasi ginen alkar uler-tzen. Irakurtzen be hasi ginen, freno bako bizikletaren antzera. Trenaren errailen modura, dena segidan, inon geratu barik. Aurre-an hasi eta atzeraino”.

Hamabost urtegaz, fabrikan lanean hasi zen, egu-nean pezeta bi irabaziz. Lanaz gainera, dantzari ona izan zen eta Iurretako taldeagaz, Madrilen, Asturiasen, Bartzelonan eta hainbat lekutan izan zen. Gerra eta gerroste gorria pasaturik, Mañarira ezkondu zen, eta, hiru seme-alaba izanik, modua eskura etorri jakenean, Durangora etortzea pentsatu eben bizitzera. Berrogeita bat urtean lanean ibilitako tailerrak porrot eginda, langabezian hamazortzi hilabete zeroela, Kurutziaga ikastolara-ko deia izan eban, zaintzaile lanerako, eta hantxe ibili zen jubilatuta arte. “Niretzat haxe izan zen -dino- inoizko barririk onena. Zelango jente argia eta zintzoa aurkitu neban bertan! Irakasleek, ikasleek eta gurasoek familia bat osatzen genduen. Gauetan, gazteak eta hain gazte ez zirenak batzen ginen gela batean eta orduak emoten genduzen bertsotan eta kontu kontetan”.

Bertsotan, Durangora Sanantonioetan etortzen zen bertso-paper saltzaile bati eta osaba erdi testulari bati esker hasi ei zen. Iurretako bere antzeko Bikandigaz batera, han-hemen kantetan hasi zen eta Bizkaiko lehenengo lau txapelketetan parte hartu eban, 1958, 1959, 1960 eta 1961ean. Harrezkero, urte mordo batean, Bizkaian hainbat

plaza eta herri korritu eban. 1990eko urtarrilaren 21ean, Donostiako Bertsolari egunean, bera eta Basilio Pujana izan ziren omenduak.

Orduko txapelketen kondairan, euren lekuan agertzen diren bat-bateko bertsoez gainera, hona, esaterako, 1982an, *Ibaizabal* aldizkarian argitaraturiko bertso sortatik batzuk euskarari buruz.

### Euskarak alkartuko ahal gaitu!

1)  
Sasiperikan saipe nabil  
kirikinua bezala  
bertso batzuek kantatu nahirik  
urraturikan azala.  
Aspaldi nago konturatuta  
neu be euskeldun nazala  
gauza batzuek entzun ondoren  
berotuten jat odola.

2)  
Konpondu ezina badagoela  
aspaldi gure Aberrian  
munduan zehar esaten dabil  
jendea ahua betian.  
Behar bezala portatu balira  
gurekin Madril aldian  
eztabaidarik ez zan sortuko  
seguru Euskal Herrian.

3)  
Aguretxo bat hementxe dabil  
lehenauko kontu zaharrakin  
ikaratuta sarri askotan  
ikusten diran gauzakin.  
Euskeldun batzuk behar lukete  
behin eta betiko jakin  
gure Aberriak nahiko duala  
lehen dituan zauriakin.

4)

Zenbat nahigabe izan dituan  
Arbola bedeinkatuak  
nundik ta nora ete dira gaur  
zuk emondako frutuak!  
Lehenago kendu izan baziran  
kontziertu ta fueruak  
zure adar bat saldu nahirikan  
dabiz euskeldun batzuak.

5)

Zenbat sufritzen ete dagoen  
gure Amatxo Euskera  
ikusirikan gabiltzazala  
alde batetik bestera.  
Itzi daiguzan diferentziok  
jokatu danok batera  
zatitu barik eroan daigun  
geure Aberria aurrera.

6)

Amaieria emoten nua  
neuk hartu duan lanari  
eskaritxo bat bihotzez einda  
Begoñan dogun Amari.  
Behin ta betiko jarri dedila  
gure Aberrian Zaindari  
garbitasuna emon dagion  
maite dogun Herriari.

(*Bertsolari eguna 1990. Basilio Pujana, Jose Alberdi. 46. or. Euskal Herriko Bertsolari Elkarte*)

#### **Alberdi ixilik**

(Alfonso Irigoienek funtsa. Irigoienek bertso bat bialdu eutsan Alberdiri, zirikatzen, antza, eta honek sei bertsotan erantzun)

*A. Irigoien*

Oso ixilik dago Alberdi  
ez du ateratzen hitzik  
bere burua juana dauka  
esatea da alperrik.  
Bertsoetara ez zaigu sartzen  
buruan ez du zentzunik  
horregatikan ez da ausartzen  
ta dago guztiz gorderik.

Alberdiren erantzuna:

1)

Laguntza eskatzen deutsut  
zeruko Aitari  
erantzuna emoteko  
Irigoienari.  
Jakin dau bizi dala  
ondino Alberdi  
ta ez dautsala itxi  
bertsozko lanari.

2)

Isilik banago be  
ditut motibuak  
ointxe ezin esan danak  
Alberdi gaixuak.  
Pazientzia emon  
deigula goikuak  
trabes gabiltzalako  
gaurko mundukuak.

3)

Gordeleku ederrak  
ditut Mañarian  
bertara juateko  
premina danian.  
Ondino ez naz aurkitzen  
horren beharrian  
argi nabilelako  
mundu zabalian.

4)

Akulari on batek  
jakin behar ditu  
idiak bizkortzeko  
nundik zirikatu.  
Zuk ere jakin dozu  
neuri nun ikutu  
ez naiten betirako  
ixilik gelditu.

5)

Neure arpegi latza  
ez da inoiz gorritu  
esan eta entzuteko  
beti nago gertu.  
Horregatik, Alfontso  
niri zirikatu  
zure lako gizonak  
euskerak behar ditu.


6)

Dozena erdiko sortan  
hauxe dot azkena  
zeuri bertsotatikan  
opa deusut dana.  
Mundun izan daizula  
bake-zoriona  
bertsoz sendatuteko  
geixorik dagona.

05. **Zure lako:** zu lango, zu bezalako.

## XABIER AMURIZA

Inoren aurkezpen gintzan nahitaezkoa den hirugarren pertsona erosoan ezingo dot neure burua ezkutatu, neure buruaz dihardudanean. Ataltxo bat besterik ez dena inori eragiteak, eleganteago emon arren, endredua baino ez lekarkeen, neuk egingo dot egin beharrekoa, labur eta errespetuz, (neure buruari zor deusadan neurrian), hain barik pasetako apaltasuna be ridikulua litzateke eta.



1941-V-03an jaio nintzen, Etxanoko (gaur Amorebieta-Etxano) Torreburu baserrian. Hamaika urtera arteko umezaroa, etxeko mendialdean eta Etxanoko eskola eta eliza inguruan, zoriontsua ez dakit, baina pozik gogoratzeko modukoa izan neban, eskolako estuasun batzuetatik aparte. Estuasunok ez ziren hainbeste izan maistra erdal-dun niretzat estralurtar samar baina onberaren aldetik, 5 urtetik 14-15era bitarteko adin misto aldetsuegien artean sortzen ziren hartu-emon sarritan basatien aldetik baino. Labana bat apuntatuz jarraitzen eutsan mutiko bati iheska, maistra pupitre artetik ikusi nebanean, pentsatu neban: "Hemen maistrea holan badabil, niri zer tokatu behar eta jatak?". Mendiko piztien senetik, estuasun horreek isiltasunez eta mentasunez saihesten ikasirik, umezaro desiagarria igaro nebala esan neike, harik eta hamaika urte gaz fraile joan gura nebala esaten hasi, etxeokok sinistu eta maleta egin eusten arte.

Hamaika urte gaz hasi eta hogeita laugaz abade egin arte, nire bizimodua seminarioko barnetegiko amaibakoek eta hasi orduko amaitzen ziren oporrek taxutu eben. Neure gogoia inork igarri barik betetzekoa izan balitz, beste askok egiten ebana (ospa) sarritan egin izango neban neuk be, baina, azkenean, abade egin nintzen, zorionez,

gainera, nire bizitzako aldirik beteenetarikoa abadetzekoa izan baitzen, hain haro emozioan-tea eta esplosiboa bizi izatea subertatu jakunez gero. Lehenengo urtea Gizaburuagako herri txikian bakarrik eta hurrengo bi eta erdiak Gizaburuagan eta Amoroton parroko eginik, kartzelako urteak etorri ziren, 1975ko abuztuaren 25ean etxeratu arte, oraindino bizirik edo, Agirrek behin kantatu ebanez, "disekaturik" jarraitzen eban Francoren azken fisikoa (ezen ez morala!) kanpoan ospatzeko, handik hiru hilera. Harrezkeroko nire lanbide nagusiak *Egin*-eko kazetari eta zutabegile, *Gara*-ko zutabegile, Ulibarri euskaltegian irakasle, Edertracken egokitzaile, itzultzaile, liburugile, eta, azken urteotan, Durangaldeko *Anboto* astekariko zuzentzaile dira.

Nire bertsozaletasuna etxetik eta oso umetarik hasi zen, aitaren eta inguruko taberna-bertsolarien eraginez. Gure aita oso kantaria, umoretsua eta fantasiosoa zen eta haren inguruan kantua, ipuina eta halakoxe haizea besterik ez zeitekeen hartu. Goiztarregi jarri ninduen kantari eta, lehen eskolako estuasunak aitatu baditut, bertsolaritzak pasarazo eustazenak ez ziren txikiagoak izan, neuk bilatuak edo deskuidatu nintzenak, bestalde, hain liluragarri jatazen giro eta erromeria haretan musturra sartuta ibiltzea gustetan jatalako. Gero seminarioko urte gazteetan, bertsolaritza kutxan egongo zen, maiterik baina isilik, giro etsaikor haretara edegitzen ausartu barik, harik eta hamaizazpi bat urte gaz, euskarari erdi errebeldeki ekiten hasi ginenean, eta, batez be, karrerako azken urteetan, Abel Muniategi eta beste zale batzuekin bat egin nebanean, bertsoari ia obsesiboki emon arte, zaletasun hutsagaitik beste, seguruenik, disziplina absurdotzat geunkan haretatik eskaputzat. Abade eginik, oraindino sotana eta guzti, Bizkaian plaza mordoa egin neban sasoi haretarako, gehienean Abel Muniategi lagun nebala, eta esan beharrik ez dago entzuleei izugarri txoketan jakela abade bat halan bertsoetan ikustea. Baita estimatu

eta euforia puntuz hartu be, zeozer ikusi eta entzun gura isilean, urteak zeroezen helduek eta apurtu guran zetozen gazteek. Urte hareetan, epaile be izan nintzen Bizkaiko 1966ko txapelketan eta Euskal Herrikoan, Xalbadorri txistuak jo jakozenean, hain zuzen.

Kartzelatik bueltan, 1976ko udabarrian egin neban debuta, Gernikako Jai-Alai pilotalekuan antolatu eben jaialdi handi batean, non sei bertsolari Abel Muniategiren agindupean, eta Oskorri taldea izan ziren. Harrezkero, giro politikoa eta soziala be bero-bero zebilenez, laster hasi nintzen Euskal Herri guztiko plazetara zabaltzen. Ibilera haretako ekimenik garrantzitsuenetarikoa, tokian tokirako presaturiko bertsoak eta koplak kantatuz, musikariekin egin neban hiru bat urteko esperientzia mardula izan zen. Ibilera haretako emoitzak, gaur berrikusita, zirrara eragiten deutenak, *Laurehun herri, mila bertso berri* izeneko liburuan jasota dagoz.

1980an, Euskaltzaindiak txapelketak berrabiatzea erabagi eban. Orduan puntan zebilzen bertsolari batzuek erreparo asko ipini eben arren, txapelketak aurrera urten eban eta ez neban zalantza izpirik izan aurkezteko. Irabazi egin neban, eta txapelketa harek zeresan handia ekarri eban, onerako eta txarrerako. Urteen distantziara, onerakoak gehiago gelditu direla ikusi badot be, une haretan nire txapela kuestionetan urten eban erreazino probintziano samarra mingarri egin jatan, ez min hartzen ohitzeke nengoelako, bertso-ibilera jente mota guztien artekoa izanik, beti eztabaida eta errezero bardinen erdian aurkitu beharra nekagarri egiten delako baino.

Txapelketa haretatik, neuk esatekoak ez diren alderdi on askoz gainera, bertsolaritzan bizi izan dodan alderik ederrenetarikoa ugaritu zen: bertso-eskolak. Santutxuko bertso-eskolak deiturik, lehenengo ikastaro luzea emon nebanetik, halako eki-

menak Euskal Herri guztira zabaldu ziren, eta neu be Euskal Herri guztian ibili nintzen, hitzaldi, ikastaro labur eta ikastaro luze, bertsolaritzaz gainera, lagungiro freskoa eta aurre-eritzi bakoa gozatuz. Oraintxe be han-hemen jarraitzen dot eta, benetan be, bertsolaritzak daukan zirkuitorik atsegingarriena da hori, nire moduko batentzat, behintzat. Beste kontu bat izango da bertso-eskola bat aurrera atera guran, edo eusten eta indarbarritu guran dabilzen arduradunentzat.

1982an, barrero Euskal Herriko txapeldun urten neban. Handik lau urtera, 1986an, hirugarren gelditu nintzen, Sebastian Lizaso eta Jon Lopategiren atzetik. 1987an, 1966tik honanzko etenaldi luzea apurtzera zetorren Bizkaiko txapelketa jokatu zen, eta bigarren egin neban, Jon Lopategiren atzetik. Hurrengoa Euskal Herrikoa izan zen, 1989an, baina txapelketa harek, ahots-korden ebakuntza baten ondorioz, urtebete inguruko isilaldian harrapatu ninduen eta ezin izan neban parterik hartu. Harrezkero, txapelketak albora iztea erabagi neban eta halantxe jarraitu dot gaur arte.

Bertsolaritzaren inguruan idatzi ditudan liburu batzuk aitatzekotan, garrantzitsuenak *Hitzaren kirol nazionala* eta *Hiztegi errimatua* izan direla esango neuke. Gero badagoz beste batzuk, esaterako: *Zu ere bertsolari, Bizkaieraz bertsotan, Bizkaiko bertsogintza I, II, III eta IV* (oraingo hauxe), *Bertsolaritzaren historia laburra*, Elhuyarren CD-rom baterako testuak, eta abar.

Bertso produkzinoan, honakoak izan daitekez garrantzitsuenak: *Menditik mundura, Laurehun herri, mila bertso berri, Agur sagar beltzeran* eta *Enaz banaz*. Liburuena bezain maitagarria izan dodan diskogintzan, honako izenburuak dagoz: *Menditik mundura* (egin neban lehenengoa eta, nobatadarik gehien moduan, lotsagarri samar gelditu zena), *Herriko plazan, Anje Duhalde Amurizaren kantari, Bizkaiko koplak zaharrak I* (Tapia

eta Leturiagaz), *Bizkaiko koplak zaharrak II* (Kepa Junkeragaz), *Xalbador bat-bateko mirakulua*, *Lazkao Txiki bat-bateko sorgina*, *Mende baten aldarrak* (Jon Maiak eta biok jente aurrean egiten doguna, eta diskoarena ala zelako formatoa emon pentsetan gabilzena), Oskorriren *Vizcaya-tik Bizkaia-ra* diskoaren proposamena eta bizkaierazko bertso-testu guztien hautatzea eta prestakuntza. Azkenik, ezin dot aitatu barik itzi gure abadegintzako *Gogor* disko kladestinoa, non, hainbat abade-lagunen koruagaz batera, bertsoak eta bakarlarri ahotsa neuk ipini nituen.

### Bertsoak

Bertso bilduma honetako azalpenak hirugarren pertsonan itziko ditut, euren kroniketan datozen moduan.

### Abade zaharra eta gaztea

(*Zeruko argia*, 1967, 246 zk., 6. or. Aizarnan, 1967ko urriaren 8an, herrian 50 urte eginak zituen Don Frantzisko Yeregi abade jaunaren omenaldian. Saio hauxe da Amurizak, abade sasoiaren, Gipuzkoan egin eban plaza bakarra, Joxe Agirre izen-abizendun beste abade giputz bategaz)

*Joxe Agirre abadea*

Ajez betetzen hasia nago  
eta urte batzuekin  
laguntzailia espero nuen  
albotikan zezan ekin.  
Apaiz gazte bat herriratu da  
bere fantasi haundikin  
bainan gaur egun ez dago giro  
apaiztxo gazte hauekin.

*Xabier Amuriza abadea*  
Apaiz gazteok behar bezela  
aspaldi kargutu gera  
gure munduak, lehenak utzita,  
joan behar dula aurrera.  
Zertarako da apaiz batentzat  
hainbeste urteko karrera?  
Sakristiatik atera eta  
azaldu zaitetz kalera.

*Jx. Agirre*

Goiz irten eta herritikan hok  
jungo dira urrutira  
etxetik kanpo laxter abitu  
ta ez dakit noiz erretira.  
Baserritako agure zaharrak  
emate'idade kupira  
hoengatikan zakur bezela  
bakarrik hilko baitira.

*X. Amuriza*

Zuk egun dana pasatzen dezu  
hilak lurpera eramaten  
oker zaudela kargutu behar  
zera zu egunen baten.  
Lan pixkat egin ta goiz guzia  
pasatu meza ematen  
hamaika apaiz badira herrian  
ogia alperrik jaten.

*Jx. Agirre*

Modu honetan jarri nazu ni  
orain kolpetik karguan.  
A zer nolako laguntzailia  
nik dadukaten onduan!  
Hoiiek egiten dutena zer dan  
esango det nik moduan:  
Haizia burun asko dutela  
Hortxe ibili munduan.



*X. Amuriza*

Apaiz gazteak idea berri  
 batzuk baditugulako  
 herrian eta kanpuan ere  
 lanik ez zaigu faltako.  
 Zeure burua zuritu nahirik  
 aitzaki hoiek zertako?  
 Herritik zu ez zera ateratzen  
 alper hutsa zeralako.

*Jx. Agirre*

Neri alperra naizela esan  
 bera izango da fina!  
 Ondo litzake hori esatia  
 konturatzen ez bagina.  
 Anda-fandango beti hor dabil  
 ez da hau apaiz zina.  
 Horrela, motell, noiz erakutsi  
 umetxueri dotrina?

*X. Amuriza*

Behar bezela egoten naiz ni  
 gure dotrina saian  
 baina baita ere ahalegindu naiz  
 oso lanbide seriuari.  
 Lehenoko kontu zaharrik ez dago  
 gaurko Ebanjeliuan  
 ea pixka bat mudatzen zeran  
 hurrengo kontziliuan.

*Jx. Agirre*

Oraingo saioz nahikua dala  
 digute adierazi  
 apaiz kontuak aipa ditugu  
 opizioak lehenbizi.  
 Zahar eta gazte biziko gera  
 geren hutseite ta guzi  
 ta Aizarnako kristau maitiak  
 zuek ere ondo bizi.

*X. Amuriza*

Alperrekuak ez dira izan  
 guk emandako pausuak  
 sarriagotan behar gendukez  
 holako egun gozuak.  
 Pixkat astindu ditugu hemen  
 apaizen arazuak  
 ta beste gabe agur danori  
 zabal-zabalik besuak.

**Durango (1976-VI-04)**

Biharamonean bete zen urtebete Gabriel Aresti hil  
 zela, eta bertsolariek omenaldia egin eutsien  
 Durangon. Abel Muniategi izan zen aurkezle, eta  
 J. Azpillaga, J. Lopategi, X. Amuriza, J. M. Arei-  
 tio, J. I. Intxaurreaga, E. Igartzabal eta J. Lizaso,  
 bertsotan.

Puntua: *Zer gizon modu gendun  
 Gabriel Aresti?*

*X. Amuriza:* Lehenean sustraiturik  
 geroaz amesti.  
 Heriotzak badausku  
 eroan zorrozki  
 biziko jaku bere  
 Euskadi ta guzti.

*"Amuriza neskatila gazte bat da, umedun gelditu  
 dana. Lopategi medikua".*

*X. Amuriza*

Aizu, mediku, hona neska bat  
 trantze estuan datzana  
 neure arpegian igarri zeinke  
 gertatu barri jatana  
 Haurdun esaten dabena nago  
 baina ez dot izan nahi ama  
 legez ukatzen jatan laguntza  
 eske nator zuregana.

*J. Lopategi*

Zuk norbaitekin jolastu dozu  
nunbaiteko zokonduan  
azkarregi jun zinan hargana  
ta nigana beranduan.  
Arrisku horren kontra baziren  
adelantuak munduan  
ezer egiten hasi baino lehen  
konsultatu bazenduan.

*X. Amuriza*

Konsultak egin arren gertatzen  
gara sarri atsekabez.  
Deskuido batek zergaitik jarri  
behar nau betiko trabes?  
Nik honen aita maite dot baina  
derrigor ezkontzeko ez.  
Gizon bazara trantze hontatik  
atara naizu, mesedez.

272

*J. Lopategi*

Neska gaixoa bizimodua  
hartu egizu serio  
kontra dituzu naturaleza  
lege eta erlijio.  
Zure gorputzak akatsik ez du  
bizi barri bat dario.  
Bizia zaintzen ikasi nuen  
galtzeko ez dot balio.

*X. Amuriza*

Praile arrazoia iruditzen jat  
Lopategik dinostana  
nik daukadana pertsona bada  
ni naz izarren buztana!  
Gerran hiltzera botatzen dabe  
amaren seme laztana  
eta derrigor biziago nahi  
oraindik ezer eztana.

*J. Lopategi*

Bizirik dagon maitasun biren  
korapilo bat da hori  
ta justizian munduratzea  
ezin galazo inori.  
Injustiziak sortutzen ditu  
zenbait gerra ta gudari  
lorak moztutzen hasten bagara  
nola salbatu Euskadi?

*"Gabriel Arestiri"*

*X. Amuriza*

Aresti zana dala-ta bada  
hainbat kontrako eretxi  
baina nolana bere aurrean  
burua behar da jeitsi.  
Bide barriak zabaldu zitun  
eta zaharrak ez itxi  
nahiz hasitako obra guztia  
amaitzera ez iritsi  
gelditasuna apurtu zuen  
eta ez da meritu gitxi!

Zeruan bada oraingo kendu  
dautsoz San Pedrori giltzak  
eta inpernuan bada errukarri  
Luziferreri deritzat.  
Zulatu zitun kaleak eta  
labratu zitun harritzak  
Akaso izarrak jausiko dira  
baina ez Arestiren hitzak  
etorkizuna bilatzen eta  
maite dabenengan behintzat!

**Donostia (1977-II-26)**

"Bertsolariek bertsolariei" izenburupean, omenaldia egin jakeen Xalbador eta Arozamenari, euren alargunen bitartez, Galarreta pilotalekuan. Bertolari askok parte hartu eban eta tartean bizkaitarrekin be bai.

*"Ikurrinari"**J. Azpillaga*

Hainbat urtean itxaron gendun  
iduri bat da agiri  
askok galdutzat bazuan ere  
oraindik ez da erori!  
Artistak eta kirolariak  
kantore ta bertsolari  
ikurrin baten biltzen bagera  
askatuko da Euskadi.

*J. Lopategi*

Ikurrin bakar hori hemen da  
lore bat litzaken gisan  
urte honetan garaiz aurretik  
saratsa loretu baizan.  
Ni're otoika mintzo natzaio  
izar gidari bailitzan  
Euskal Herriko indar guztiak  
lehenbailehen alkartu ditzan.

*X. Amuriza*

Batasunaren ezaugarria  
hemen dago ikurrina  
gorria eguzkiz, zuria ilargiz  
berdea izerdiz egina.  
Badakit hori sinbolo huts bat  
besterik ez dela baina  
horixe ere ez zen izango  
mantso ibili bagina!

*J. Azpillaga*

Pentsakizunak ugari daude  
hau da danen nagusia  
ikurrin baten jabe generala  
asabetan ikasia.  
Bera dala-ta makina batek  
eman izan du bizia  
orain frutuen zai hemen gaude  
botata dago hazia.

*J. Lopategi*

Hazia bota frutua dator  
begiratu lore horri  
Ebroren behetik berdinak dira  
guretzat zuri ta gorri.  
Afrika aldetik gugana ez zan  
gauz onik inoiz etorri  
Europarako batu ditzagun  
gure zazpi euskal herri.

*X. Amuriza*

Europar sartu nahi dugu baina  
ibil gaitezen arretan  
askatasuna falta baitzaigu  
kurutze bikoitz horretan.  
Geuk agintzea geuk landutako  
lantegi eta lurretan  
Euskadirentzat ikurrin hori  
eskatzen dut Galarretan.

*J. Azpillaga*

Egia da, bai, sartu nahi dugu  
Europaren babesean  
hiru kolore hoiek dauzkagu  
gu guziok bihotzean.  
Baina taldeka ibili gabe  
bildurik anai antzean  
eta orduan juango gera  
ikurrin baten atzean.

*J. Lopategi*

Ikurrin baten batasunean  
dator askatasuna're  
bestela astindu behar ditugu  
berrien berri goi ta behe.  
Herria herri, gizonak gizon  
geure kondairaren jabe  
Europar sartu nahi dugu baina  
nortasuna galdu gabe.

*X. Amuriza*

Nortasun hori hartzeko noizbait  
uste dut garaia zala  
ikurrin hutsa izan liteke  
mami gabeko azala.  
Guk nahi duguna Euskal Herriak  
herri libre bat bezala  
bere burua gobernatzeko  
indarra euki dezala.

**1966. urtean, Markinako karmeldarren komentua**

Pilarika eguneko bertsolarien ohiko bilkuran,  
ohiko hitzaldia izan zen goizez, oraingoan, Xabier  
Amurizak bertsolarien antolaketa baten preminari  
buruz eginikoa. Bazkal osteko saioan be, sotana  
zaharragaz batera, betaurreko barrien begiratua  
zekarren abade gazteak beregandu zituen gaine-  
rako bertsolariak eta ez zen zeresanik falta izan.  
Amurizaren bertso bakotxari txalo eta algara han-  
diak jarraitu eutsan:

*X. Amuriza*

Gaur Markinako bilera hontan  
badegu zerekin poztu  
esan ditugun gauza bakotxak  
orain barruan egostu.  
Baina pentsatu, ez da faltako  
alkarte hau zeinek moztu  
horregaitikan anai maiteok  
adarrak ondo zorroztu!

*B. Enbeita*

Jabier jaunak esan dabena  
orain jat gogorutzen  
bidea hartuta jarrai behar dala  
gure euskera goratzen.  
Etsai gaiztoak urduri dabiz  
gorrotoz bera zapaltzen.  
Hasi beharra daukagu danok  
adar okerrak zuzentzen!

*Artañola*

Hara Enbeitak esan duanai  
hartu nahi nioke kargu  
baldin ematen badute behintzat  
hitzeiteko hainbat leku.  
Zuk diozunez pauso berri bat  
gaurkoan emana degu  
gogo aldetik zaintzeko behintzat  
artzai bat ona badegu.

*X. Amuriza*

Zure bertsoak merezi du, bai  
erantzun oso zuzena  
eta badakit guztiok orain  
horrexen zain zagozena.  
Apellidua Amuriza det  
Jabier barriz izena  
bertsolari izan ta konfusioz  
abade egin nazena.

*A. Muniategi*

Gaur Don Jabier ez da azaldu  
hitzegiteko motela  
baina bildurra emoten digu  
sotana soinen duela.  
Traje alegre ta egoki bat  
aurki dezala berela  
ze toki hontan aurkitutzen da  
txorimalua bezela.

*X. Amuriza*

Adelantua sinistu nahi det  
detala bihotz barrutik  
baina zertako ibiliko naiz  
nobedadien eskutik?  
Traje barria jaztiak ez du  
aldatzen baten kondutik  
horregaitikan jarraitu leike  
atrasatuta burutik.

X. Amuriza

Apaizok ere sentitu degu  
moda berrien sorrera  
nahi eta nahi ez munduak holan  
joan behar du aurrera.  
Baina nik ez det guztiz maitatzen  
jantzi barrien aukera  
lehen bela beltzak ginanok orain  
Ye-Ye bihurtuko gera.

J. Azpillaga

Don Jabierrek oindik lan asko  
daduzka Euskal Herrian  
premia bada baten bat berdin  
joko luke muturrian.  
Kardenal eta obispo zaharrak  
eongo dira bildurrian  
berak hainbeste dakin apaizik  
ez nahi ikusi aurrian!

(Markinako Karmeldarren komentuko grabazinoak)

### **Txapelketa Nagusia 1982** **Idiazabalgo finalerdia**

*"Amuriza eta Lopategi. Amuriza, Lopategi parrez ari zaik".* Bigarren bueltan, Lopategik *"zuk apaiz segitzea / asko hobe zenduan"* amaiturik, Amurizak darrai.

Nere bizarrak honek  
hor ditu ikusten  
apaiz kontuak ere  
sortu dira azken.  
Malfraile batek nola  
hoik esan lezazken  
zu ere konbentuan  
gelditu zintezken  
kapaz ez zinalako  
bialdu zintuzten.

### **Txapelketa Nagusia 1982** **Finala**

Kartzelako gaia: *emakumea*. Lehenengo bertsoa  
hauxe kantatu eban:

Emakumea esanda  
esana da dana  
emakumetan bada  
bat txit bakana.  
Irratian han dago  
sortu ninduana  
Baldatikan oraintxe  
noa beragana  
aita dut joana  
hau pena dudana  
baina haren dama  
bizirik dut ama  
hauxe da poza bertsoz  
ezin emana.

Lopategi eta Amurizaren arteko desenpateko kartzelako gaia: *"Hi naufrago bat haiz itsasoaren erdian, ohol baten gainean. Badator itsasuntzi bat, ikusten hau, eta aurrera segitzen du".* Amurizak hiruko hauxe kantatu eban:

Itsaso hori dago zatarra  
nire oihua eta negarra  
untzi bat horra nun azaltzen den  
nik behar nuen izarra.  
Oraintxe sartu zait harra  
berriz piztutzeko garra  
baina hau da zoritxarra  
ikusitua aurrean eta  
ai hau destino baldarra!  
Laguna ondolik pasatu eta  
nik hemen ito beharra.

Une honetan ez dago errez  
hemen jartzea oso haserrez  
itsasoaren erdian nago  
laguntza horren beharrez.  
Untzi bat hor daukat aurrez  
lehenago hasi naiz negarrez  
ta azkenean didarrez  
nora zoazte hemen utzita  
nora zuen gizalegez?  
Bihotz apurrik hor baldin bada  
salbatu, otoi, mesedez!

Urak bete dit ia sabela  
ito zorian nago honela  
untzi haundi bat pasatzen eta  
niri ukatu batela.  
Hau da hilaren eskela  
edo zer esan bestela?  
Hori da bihotz ustela!  
Biziagatik oso gustora  
galduko nuke txapela  
baina munduak hor jakingo du  
kriminalak zeratela.

#### Zaldibia (1990-XII-15)

Lagunarte batek bertso bazkari bat beren beregi  
antolatu eban, Xabier Amuriza eta Sebastian Liza-  
so eroateko. Mendiko borda-txoko bat, Acapulco  
deitzen deutsiena. Bazkal aurretik, tiro-platoa  
euren artean. Inguruan edurra. Bazkariko menu  
nagusia oilaskoa. Bertsoariak hiru saio. Trikitila-  
riak tartean.

Aizak, orain kantuan  
hasteko ziotek  
botila joka hori  
eskatzen dik batek.  
Hemen jaten ederki  
eman bazigutek  
ondotik zer nahi duten  
antzeman zitekek.

Saioan aurrera, Lizasok "Bizkaiko txerria" aita-  
tzen dau, *"txerria hiltzen ere / ez dakizue ta"*.

Bizkai aldean nonbait  
badek hainbat gradu  
azpeitiar alproja  
batek esana du.  
Guk txerria hiltzen ez  
omen zekiagu  
etorri hadi eta  
probauko diagu.

Geroago, bizkaitar, azpeitiar, zaldibiar ika-mikan,  
Lizasok *"jazkeran gorabeheran / ez zegok gizona"*  
amaiturik, darrai:

Gizontasuna ez dek  
noski soinekoa  
hortan hik arrazoia  
dek benetakoa.  
Baina gizonez kaxkar  
zegok Gipuzkoa  
Azpeitik jeisten baitu  
batez-bestekoa.

Zortziko handiko saio luzea. Hasi eta berehala,  
Amurizak *"entremesetan erre dik honek / kristoren  
montecristoa"*, Lizasok *"montecristorik ez zan iza-  
ten / Jesukristoren garaian"* erantzunik, Amurizak:

Berriro ere oker hagola  
behar diat hortan esan  
orduak ere bazan sua ta  
kea ere behar izan.  
Montekristorik ez ote zegon  
hik esan dekanan gisan  
kalbarioa zer Monte huan  
Jesukristona ez bazan?

Geroago, aurretik izandako tiro-platoa aitatzuz,  
Lizasok *"neronek ere badut arma bat / aizu, neure  
baldarrean / jakin nahi nuke ia nor kristo / jar-  
tzen dan nere aurrean"* kantaturik, jarraitzen du:

Bere aurrean nor jarriko dan  
desafiauta zaudete  
badaezpadan ni makurtzen naiz  
nahi duena jarri tente.  
Honek aldean daraman arma  
pizten bada derrepente  
platerik ez du hautsiko baina  
igual platera bete.

Irak, petrolio, Amerika, kotxe... hainbat konturen  
ondoren, tonto kontuak urten eban.

Oinak nekatu zitezkek bapo  
haruntz oinez joatean  
beste biderik ez baldin bada  
etorriko nauk pakean.  
Baina alperrik diok hik "errez  
joango nauk kotxe batean"  
ez dek urruti joango tonto bat  
barruan den bitartean.

*"Tonto batekin bera joatea / ez badegu horren errez  
/ biok batera sartzen bagera / ezta abitu ere ez".*

Sebastianek esan duenak  
ematen dit ohorea  
kotxe gaixoak hartuko luke  
orduan jipoi doblea.  
Baina halare biok sartuta  
a zer koadru dotorea!  
Esango dute "hor zijoaztek  
tontoa ta tutorea".

### ETB-n, "Ezbaian" programan (1988-V-02)

Gai librean ordu beteko saioa, Sebastian Lizasogaz.

Aizak, Lizaso, beste kontu bat  
bazegok hemen bikaina  
nik dakidanez, gainean zegok  
txapelketaren kanpaina.  
Entzuna diat larritzen hasi  
ote zaikan tripa gaina  
prestatzen ere ari omen haiz  
fedea gutxirekin baina.

*"hi baina hoberik etortze'ez bada / lorik ez diat  
galduko".*

Oso panparroi presentatu haiz  
aizak, Lizaso gaztea  
txapelak ere bi alde zeuzkak  
jaztea ta eraztea.  
Lehenbizikoa hik lortua duk  
orain falta zaik bestea  
irabaztea baino gehiago  
kosta behar zaik eustea.

*"Hiru urte hauetan buru makurka / hemen dabil  
Amuritza / orain ez zuen zer umildurik / lehen  
harrotu ez balitza".*

Bi urte diok, baina ez dituk  
horiek hik uste hainbat  
ni sei urtetan izan ninduan  
txapeldun oso erabat.  
Txapelarekin aspertzen ere  
hasia ninun batipat  
esan nioan: "utz nazak eta  
bila zak buru-haundi bat".

*"Oilo loka ere aspertzen baita / arrautz ustelak  
berotzen".*

Konparazio oso txukuna  
ez duk jarri oraingoan  
baina beharko diat habia  
oilalokatik eroan.  
Txapelak ere zelebrezkoa  
egin zin azkenengoan  
arrautz hobeak bilatu nahita  
kapoi batengana joan.

Handik buelta bira, *"lehen e puntuak bistan bali-  
ra / ez huan irabaziko"*.

Puntuak bistan diok, gaixoa  
ta jarri haiz oso gailen  
harrotasunak hondatutzen dik  
gizona munduan gehien.  
Hire txapela jantzi orduan  
non hintzen ba al henkien?  
Apenas inork sinesten zian  
eta herorrek gutxien.

*"Pentsatzen nian hire buruan / enbor onean zego-  
la / baina haizeak lurreratzen dik / sustrai gabe-  
ko arbola"*.

Oraintxe jarri zaigu arbola  
ederra eta gizona  
Lizaso dauka apolidua  
ta Sebastian izena.  
Txapelak ere gauza bat behintzat  
egin zian hor zuzena  
pixkat gizondu egin zuela  
bestela egingo ez zena.

#### Andikoa (1990-V-27)

Eztarriko ebakuntza bat bide, urtebete eta erdi  
plazetan kantatu barik egon behar izan ondoren,  
Berrizko Andikoa bere auzoko jaietan egin eban  
berragerpena, Jon Lopategigaz, saio librean.

Eguerdi on gure Oiz mendi  
azpiko auzo maitea  
sekula bada Asentziotan  
urtero bete-betea.  
Aspaldi neukan barriz kantuan  
hasteko borondatea  
eta nahi neban lehenengo plaza  
Andikoan izatea.

J. Lopategik: *"Zorionean, sano ta salbo / agertu  
jaku gizona"*.

Sano nago bai, baina badaukat  
zerbait halako ikara  
hainbeste jente zelan ta nondik  
batu dan Andikoara.  
Ez dakit neuk be nora joango dan  
gaur hartzen dodan galtzara  
iguan joango da munduan behera  
ta igual Oizko puntara.

J. Lopategi: *"Sastraka edo sasitza baten / hankaz  
trabatuko balitz / atzetik joan behar naiako / asto,  
mando edo zaldiz"*.

Estimatzen dot borondatea  
preminik balitz benetan  
baina ni ez naz erruki zale  
behintzat bertsozko lanetan.  
Inoiz sasitzan trabatzen banaz  
edo agertu kunetan  
neu urteteko gauza izan arte  
nahiago dot segi bertan.

J. Lopategi: *"Beti ondoan izango nau ni / lagun  
edo kontrario"*.



Kontrarioak lehen be nahikoa  
 bajakuaz bizkarren gain  
 laguntasuna hartuko neukek  
 emongo baheunstak, bikain.  
 Urte ta erdi bada mundua  
 zertan dan ahaztuzeko lain  
 esaidak zeren alde ta kontra  
 kantatzen dozuen orain.

**Beasain (1991-III-23)**

Xabier Amuriza eta Sebastian Lizaso librea. Hain zuzen, egun berean, bost urte ziren, Lizasok Euskal Herriko bertsolarien txapela jantzi ebala. Handitik txikira aldaturik, X. Amurizak kantetan dau:

Luzetikan txikira  
 pasatu gaitezen  
 jakiteko hurrena  
 zertara goazen.  
 Martxoak hogeita hiru  
 gaur bost urte hain zuzen  
 gogoan al dek egun  
 hura zer izan zen?

S. Lizaso: *"ez da, ez, oroitzen nik / jantzi nuelako / baizik berak betiko / galdu zuelako"*.

Gipuzkoak horrekin  
 zenbat txalo ta jai!  
 Arrazoi daukak hortan  
 ez dit ukatu nahi.  
 Egun txar bat etortzen  
 zaiguk hemen danai  
 hik ez hun irabazi  
 neronek galdu bai.

Artean, Lizasok, gaixotasunak aitaturik, *"bi aspirina behar / lo puxkat eiteko / ta zenbat hartzen dituk / esna egoteko?"*.

Aspirinak ez dituk  
 udako mizpirak  
 hik jakin nahi al dituk  
 nere erretirak?  
 Hartzen dizkiat, baina  
 galdetzen badidak  
 kontrako zintzurretik  
 joaten zaizkidak.

S. Lizaso: *"hartu zak kajaka bat / tortila eginda"*.

Edozer esatea  
 honentzat atsegin  
 hor kea dariola  
 tximinia berdin.  
 Nik kaja osoa hartu  
 ta tortilla egin  
 ta prijituko diat  
 purutzar horrekin.

**Gasteiz (1992-VIII-09)**

Xabier Amuriza eta Jon Sarasua, Gasteizko jaietan, libreko saioan. Zenbait bertsoetan ingurua aztertu ondoren, Sarasuak Euskaldunen Egunkaria zabaldu eban eta hango barriak jorratzen hasi ziren. Buelta batean, Sarasuak amaitu eban: *"Denboraz baietz HB-n sartu / Jose Anjel Cuerda ere"*.

Gasteiz honetan alkate horrek  
 badu nahikoa endredu  
 nunbait txatarra danen ontzia  
 izateko omen gaude gu.  
 Ta PNV-k bialtzen badu  
 guk lasai har dezakegu  
 Tailandiako enbaxadore  
 igual jarriko degu.

J. Sarasua: *"abertzaleok oraindik ere / biolento zabilzate"*.

Abisu hori Gasteiz horretan  
iritsi zait oso garaiz  
ta erantzuna emango diat  
nola izan nintzen apaiz.  
Su apurtxo bat ikusi eta  
harritzen zarete hain maiz  
ikusiko duk katolikoen  
inpernura joaten bahaiz.

J. Sarasua: *"aizazu, 'Lentes', esan zaidazu / ze horoskopo daukazun".*

Ez daukat zaila horoskopoia  
oso harro esatea  
ohorea da maiatzak hiru  
munduratu izatea.  
Beraz, ni Taurus omen naiz eta  
kategoria betea  
ni naiz zezena eta hemen dago  
"El Niño de la Capea".

J. Sarasua: *"Taurus parean zer jartzen duen / lagun, nahi al dezu jakin? / 'Gaurkoan kontuz ibili zaitetz / zu baino txikiagoekin".*

Hori esan arren Gasteizen inor  
ez izan nire erruki  
normala naiz ta txikiagoekin  
ez naiz juango urruti.  
Baina arrazoia nola ez eman  
holako jakintsu bati?  
Zorriek eta arkakusoen  
molestatu naute beti.

#### Lasarte (1993-IV-23)

Bertso afaria Goiegi jatetxean. Gehiena librean.  
Bertso batean, Andoni Egañak *"ai Amuriza maitia... / gauza bakarra eskatzen diat / etxera eramatia"* kantaturik, X. Amurizak darrai:

Lehendikan ere Egaña honek  
bazebilen propaganda  
ez da mirari SOS eskatzea  
hain gautxoria izanda.  
Honen planetan kezkatzen nago  
halaxe ohitua zan-da  
zer demonio bilatzen dek hik  
neri maitia esanda?

A. Egaña: *"nik zeinen gaizki esan diodan / ta zein ondo ulertu duan".*

Adinak bere tikea badu  
ez badu ere berdindu  
honek gaizki esan, nik ondo ulertu  
bertsoak hala agindu.  
Detailtxo bat emango'izuet  
ez nazazuten sumindu  
nik ez nion hain ondo ulertuko  
hankaz ukitu ez banindu.

A. Egaña: *"esaten nun bai zigarro hori / potolo samarra zela".*

Ez dakit honek esan duena  
konprenitu duen inork  
bi hanka ere hor badituk hik  
eta dauzkanak edonork.  
Potolo samar omen zegoen  
honek burla gisa ziok.  
Ikusiko dek nora joango den  
sua ematen badiok!

#### Oiartzungo Gurutze auzoa (1993-VIII-29)

*"Tñaki Murua barberoa zara. Xabier ilea moztera etorri zaizu, baina belarri puska bat kendu diozu mozterakoan".* I. Muruak *"belarri-haundiei norma-la zati / txiki bat moztea"* amaiturik, X. Amurizak darrai:

Neronen bizar zuriak  
zeuden nahiko ageriak  
baina halere belarri puska  
orain moztu diak.  
Honelako aberiak  
zeuzkak nere belarriak  
baina entzuteko bestearekin  
nahikoa badiat.

I. Murua: *"belarria ere moztu diat nik / prezio berean"*.

Mila esker, gizon gaizoa!  
Ni nauk oso inozoa  
belarri punta hola moztea  
ez huken gozoa.  
Ez haiz oso mainosoa  
ezta ere kuriosoa  
mozten hasita moztu behar huen  
belarri osoa.

I. Murua: *"eta osoa moztu nahi badek / berriz jarri hadi"*.

Hik eman didak aukera  
konpontzen baldin bagera  
eta badakit zer egin, jaunak  
hontatik aurrera.  
Belarriaren aldera  
tori milako papera  
bihar goizean etorriko nauk  
bizarra moztera.

#### Usurbil (1994-V-06)

Unai Iturriaga eta Xabier Amuriza librean, bertso afarian. Aginagako angulen kontua aterarik, U. Iturriagak *"hemen jartzen du hauek direla / Nerbioi ibaian hartuak"* kantatzean, X. Amurizak darrai:

Usaian ere antza hartzen det  
Nerbioiko erresaka  
aginagatar lapur zahar batek  
gauzez egin zuen saka.  
Etorriko zan autopistatik  
argitzerako presaka  
oso freskoak daude gainera  
kongeladoran pasata.

U. Iturriaga: *"baina koparen orduan beti / patxarana da errege / 'Con las endrinas bien puestas' dago / Usurbilgo jentea ere"*.

Bertso afaria dela ta hemen  
etorri gara festara  
baina aurrera soilik, sozio  
ez behatu badaezpada.  
Oraindik zerbait berria denaz  
oso ahaztuak ezkara  
*"con las endrinas bien puestas"* joan  
zineten telebistara.

U. Iturriaga: *"endrina hoiek batzuri gora / igo omen zitzaizkien"*.

Sekula ez det pasatu izan  
halako gau atseginik  
endrina hoiek batzuei nora  
joan zitzaizkien jakinik.  
Eta han daude gizagaixoak  
barrenak txit irakinik  
ahora igo zaiena berriz  
tokira jetxi ezinik.

U. Iturriaga: *"kristonak bota, ondo pasatu / eta gainera kobratu"*.

Gazte jendea izanagatik  
ez zen ijitu motela  
Zarraoa jaunak atzo Gasteizen  
argitu zuen koktela.  
Hautsi omen zuten kontratu edo  
sinatu zuten papela  
eta denetan okerrera da  
normal kobratu zutela.

U. Iturriaga: *"guk hautsi gendun gauza bakarra /  
emisioa izan zen"*.

Hiru motiko eta neska bat  
oso planta eztikoa  
ez dakit zeinek zeineri eman  
zion hartan ostikoa.  
Saioa oso didaktikoa  
pintore ta guztikoa  
beste gauza bat asmatu degu  
bertsogintza plastikoa.

282

#### Aretxabaleta (1994-V-20)

M. Mendizabal, X. Amuriza, J. Sarasua, A. Egaña.  
Mendizabalek Amurizari, beronek sortutako  
doinu baten, *"gaur egun zentzuik ba al dik /  
misiolari izateak?"* galdeturik, Amurizak erantzuten du:

Lehenago ez nuen falta  
Afrikako ametsik  
aukerarik izan banu  
joango nintzan kasik.  
Gero handik irten nintzan  
gainera oso pozik  
orain badut bizarra ere  
ta ez zait falta deusik  
zer naiz, bada, ni Euskadin  
jantzita nahiz biluzik  
galtzearen den tribu baten  
misiolari baizik?

#### Donostia (1995-I-21)

*"Amuriza eta Peñagarikano Iparragirre eta Xenpe-  
lar zarete. Zer duzue elkarri esateko?"*. Peñagarika-  
nok lehenengo bertsoa *"Errenterian bizi naiz eta /  
egin zaidazu bisita"* amaiturik, Amurizak darrai:

Estimatzen dut zure gonbita  
elkarrekin bil gintezan  
ez da erreza urrun bainago  
Ameriketara hain zuzen.  
Hasi nintzen Milanen  
Londresera ondoren  
ta orain Buenos Airesen  
oraintxe noa baina ez dakit  
garaiz iritsiko naizen.

A. M. Peñagarikano: *".. komendante moduan  
/Euskal Herrian hain maite izan da / nola aldegin  
zenduan"*.

Jelosia edo inbidi pixkat  
ez al da zugar nabari?  
Nik ere zerbait egingo nuen  
musikarekin kantari.  
Nork eman dio fama  
itzala eta xarma  
Gernikako Arbolari?  
Neure gitarrak mundu osoan  
zabaldu du kanta hori.

A. M. Peñagarikano: *"Gerrazalea ez naiz / aitortu  
izan det maiz / baina zu zeu prest bazaude / nahi  
aina gerra emango dizut / bate kupidarik gabe"*.

Zuk bezelaxe gerra zitala  
neuk ere ez dut atsegin  
baina probatu nahi nuke zerbait  
hain matrakoso honekin.  
Iritsi naiz Hendaira  
hemen nago begira  
laster nauzu Errenterian  
kapritxo horren faltan bazaude  
ezin nizun hutsik egin.

**Gasteiz (1996-I-13)**

*"Xabier Amuriza inkisidore nagusia, Maialen Lujanbio eta Jon Sarasua sutan erretzera doazen herejeak".*

Inkisidore nagusia naiz  
Erromatik etorria  
ikustera zein deabruturik  
dabilen Kristau Herria.  
Hereje eta sorgin gaiztoek  
puskatu dute neurria  
suzko zigorra behar da hemen  
ifernutik igorria  
jakin dezaten zer izango den  
eternitate gorria.

**Hondarribia (1996-III-02)**

*"Maialen Lujanbio eta Xabier Amuriza elkarrekin bizitzen jartzea erabaki duzuen neska-mutilak zarete. Nola banatzen dituzue etxeko lanak?".*  
Buelta batean:

Ez daukat hainbesterik  
nik zertan erosi  
ez zaitea, maitea  
auzoraino jausi.  
Konpenetra gintezke  
karino ta guzti  
zuk telebista piztu  
eta nik ikusi.

M. Lujanbio: *"Ta nerea mugatzen / det larunbata / ta igandeetan jai / kristaua naiz eta".*

Apaizen batek nunbait  
hartua zaitu zu  
kristau fedea ere  
gogoratu zaizu.  
Eguna egin dugu  
baina orain, aizu  
gaueko lanak nola  
banatzen dituzu?

**Anoeta (1997-V-25)**

*"Kontaiozu alabatxoari ipuin bat, loak har dezan".*

Gaur Anoetan kantuz izan naiz  
lehendabiziko aldiz aurten  
aizu, Mirentxu, zuk ez dakizu  
han zein bihotz fina duten!  
Zure izena kantatu eta  
denek txalo jotzen zuten  
ia zeloso ipini naute  
nola hain maite zaituzten!

Gure Mirentxu neska txikiak  
aurten dauzka zazpi urte  
nik hori esanda haren begiek  
hola klis-klas egin dute.  
"Oi, aita, baina herri horretan  
zer magia egin dizute?  
Nola txaloa joko didate  
ezagutzen ez banaute?".

"Zure aita da txit ospetsua  
bere lente ta bizarrez  
zu nere haurra izan zintezken  
ez dute sinisten errez".  
Hitz hoiiek esan eta begiak  
itxi zaizka berez-berez  
gure Mirentxu ia lo dago  
ez jo txalorik mesedez.

**Lasarte (1997-VI-29)**

*"Patxi Etxeberria eta Xabier Amuriza, zuek zarete hemen gaurko zaharrenak. Duela zenbait urte, saioetara joateko, trena, autobusa... Gaur kotxe bana. Urte gutxian ez al dira gauza asko aldatu".*  
Amuriza honela hasi zen:

Oroitzapenak halako talkak  
sortzen dizkit bihotzean  
aurrerapenak guztia ona  
ez baitakar bizitzean.  
Haiek zituan garaiak, Patxi  
lehendabiziko hitzean  
maitale bana genduanean  
estazio bakoitzean!

**Deba (1997-XII-05)**

*"Jon Sarasua emazteak eta Amuriza senarrak ume  
bat ekarri nahi zenuten. Lau hilabetera, frogak  
egin eta emazteak sabelean zazpi ume dituela  
azaldu da".*

Bat behar gendula ta  
piloan etorri!  
Aitak ez dio gaizki  
iritziko horri.  
Bedeinkatua ama  
txit seinalagarri!  
Sabelean dauzkazu  
zazpi Euskal Herri.

Azken bueltan, Sarasuak "zazpirak bertsotan da /  
aita gaijartzaile" kantaturik, amaitzen dau:

Bertsotarako aitak  
hartuko du kargu  
amak parto egokia  
ai lortutzen badu!  
Manifestazioa  
bidean diagu  
kale borroka ere  
etxean seguru.

**Urnieta (1998-X-03)**

*"Hauxe dio kanta batek: 'Maitia nun zira?'. Lehe-  
nengo biak honakoak kantatu zituen:*

Neure Etxanoko auzuna  
gogoratu didazuna.  
Mutil koskorra hamar urtekin  
ez nuen gogo lizuna  
hantxe aurkitu ta galdu nuen  
neure lehen maitasuna.

Bera joan zen urrutira  
ni konbentuko argira.  
Geroztik ez dut berriz ikusi  
urte pila joan dira  
bizi bazera galdetzen dizut:  
"ene maitia nun zira"?

*"Andoni Egaña, hi naufrago bat haiz itsasoaren  
erdian, ohol baten gainean. Badator itsasuntzia,  
Amurizak gidaturik. Ikusi hau, eta aurrera egin  
beharrean, gelditu egin duk. Biok zaudete elkarri  
begira, baina elkarrengandik urrun. Gogoetan hasi  
zarete, baina ezin diozue elkarri entzun. Naufra-  
goa hasi, neurri eta doinu egokian". Egañak lehe-  
nengoa "...hau da nere zoritxarra / tipoa hemen  
geratu eta / txapela eman beharra!" amaiturik,  
Amurizak darrai:*

Hau da trantzea, hau aldartea  
entzunezina da bitartea!  
Eta bakoitzak izan behar du  
destino hontan partea.  
Badaukat borondatea  
irekitzeko atea  
honantz hurbildu zaitea...  
baina agian pentsatuko zun  
suizidatzera joatea  
eta salbatzen badut egingo  
diot betiko kaltea.

A. Egaña: *"Ene kapitain maitea / hain xuxen horri  
deitzen diot nik / kriminala izatea".*

Kapitain honek badauka zama  
eta bihotzak haruntz darama  
nahiz ta lehenago izana dudan  
korsario baten fama.  
Horrek izango du ama  
bihotzean daramana  
hau da destino bakana!  
Begiratuta izan behar du  
ene Egaña laztana  
Zarautzen hasi surfean eta  
itsasoan galdu zana.

#### Urepel (2000-XI-05)

*"Amurizari bere alaba ttikiak asmo haundi bat  
azaldu dio: 'Aita, bertsolari izan gura dot'". Hiruko  
hauxe kantatu eban:*

Oraino ttipi zerala  
baduzu asmo zabala  
Jainkoak babes zaitzala!  
Zure buruan berdinak dira  
nahia eta ahala  
baina ez pentsa nahi duten denak  
gero iristen dirala.

Ene Mirentxu maitea  
zabaldu duzu atea  
baina ohartu zaitea:  
maiz aipatuko dizute apez  
baten ume izatea  
ta zuk erantzun horixe zela  
Jaunaren borondatea.

Adinez gora nauzula  
ta zu neskato ahula  
ez dut ahantziko sekula.  
Zinez diotsut hauxe dudala  
ene desira mardula  
bizi nadila ikusi arte  
aita gainditu duzula.

#### Zornotza (2001-VII-23)

*"Lehenengo baserrietan, lehenengo jornala beti etxean  
iztea ei zen ohitura. Maialen Lujanbiok gaur  
irabazi dau lehenengoa, baita gastatu be, baina ez  
etxean itzita. Ez dakigu non, baina Amuriza aitak  
ez dau hogerlekorik ikusi". Amuriza honela has-  
ten da:*

Oso gustora nengon gaur arte  
zintzoa zan alaba hau  
eta ondino aitan bihotzak  
sentimentu hortan dirau.  
Hara, Maialen, zure jornala  
desagertu ein da ri-rau  
gure etxean ez da agiri  
katuak eroan ez badau.

M. Lujanbio: *"Ni etxeruntza abiatu naiz / ustetan  
patrikak lori / hobeto josi beharko det, aita / patri-  
kao zulo hori".*

285

Zorakeriak egin beharra  
izaten da lehenengorik  
gure alaba be zoratu egin da  
lehenen txanponak jasorik.  
Hara, Maialen, kontsejuxo bat  
hurrengorako emon nik:  
sartu egizu aman patrikan  
harek ez dauka zulorik.

#### Galdakao (2001-XII-23)

Urtearen balantzea egiten ziharduela, Lizasok bat  
*"urte berrian batu gaitezen / Belodromoan bezela"*  
amaiturik, Amurizak darrai:

Belodromotik futbol zelaira  
salto egin beharra daukat  
Realak igaz ta aurten be pasau  
ditu estuasun hainbat.  
Atzo sei ta huts irabazita  
harrotua da erabat  
hoba izango leuke sartzea  
domeka bakotxean bat.

### Bergara (2003-II-15)

X. Amurizak eta U. Iturriagak, Artatse elkartean, libre-ko saioan luze jardun eban. "Plataformen" kontuak urtenik, Iturriagak *"hauteskundeotan listan joaten / Balzak utziko al dizu?"* galdeturik, erantzun eban:

Oraintxe honek erantzunen bat  
ipini dit benetan gaitz  
Balza jaun horren deklarapenak  
irakurriak ditut maiz.  
Zer egingo dut lista hoietan?  
Pentsatu beharko garaiz  
agintzen badit insumiso naiz  
uzten ez badit joango naiz.

Iturriaga: *"Señor Amuriza" esaten zuen / behin ta berriz irratian / Nik Amuriza bat ezautzen nun / 'señor' zenik ez nekian".*

Harritua naiz neu ere nola  
aldatu ohi dan bizitza  
urte batzuek badituta eta  
oraindik hemen gabiltza.  
Badakizue: ofizio bat  
izan nuen apaizgintza  
lehen Don Javier izan nintzan da  
orain Señor Amuriza.

### 1980ko Txapelketa Nagusia. Finala

*"Gizona ez da ogiz bakarrik bizi"* bakar gaiari  
honako hiru bertso kantatu eutsazen:

Gai horrek badu mamia  
baldin ez banago gor  
hainbat jende, gizaseme  
ikusten ari naiz hor.  
Ogiaz gain gizonari  
anitz gauza zaio zor  
bestela mundu hontara  
hobe ez gaitezen sor  
ogiaikin justizia  
behar dugu derrigor  
hau sinisten ez duenik  
ba al da hemen inor?

Nik ez dakit ogi puskak  
indarrak baduenetz  
baina beste zerbaitekin  
bart egin nuen amets.  
Esperantza zuri daukat  
nahiz etorkizuna beltz  
ogi hutsez bizitzerik  
nik ez nezake sinets  
gizon batek hortxe ditu  
bihotza ta hainbat saihets  
zuek ezetz esan arren  
nik esango dut baietz.

Ogia da familian  
gauza maitagarria  
baina horrek beharra du  
azpian oinarria.  
Idi gisa daramagu  
buruan uztarria  
askatasuna da ogi  
eta gure neurria  
inoiz garbi irekitzen  
bada horren iturria  
betiko berdetuko da  
Semaforo Gorria.



1980ko final berean, "aita" bakar gaian, honako hiru bertso kantatu zituen:

Aita izena kanta beharrak  
jarri dit bihotza bero  
aukera eder hau izango zenik  
ez nuen hemen espero.  
Preso nengoen Zamoran eta  
han gelditu ia ero  
joan nintzen ta bertan nengola  
aita hil zitzaidan gero  
nahiago nuke edozer baino  
hemen bizirik balego.


Aita nuen nik umoretsua  
inoiz geza ta gazia  
harek agertu zidan bidea  
baitzen bertsoz ikasia.  
Oi, ene aita, nire egunak  
ere aurrera doaz ia  
baina zugandik hartua baitut  
bertsotarako grazia  
nik egingo dut arbola handi  
zuk emandako hazia.

Gai hau kolpera jarriko zenik  
ia ametsa dirudi  
baserri hartan izen genduen  
hainbat harri eta euri.  
Zu, aita, zinen hain on niretzat  
ez gogorra, baizik guri  
Euskal Herria nola dagoen  
orain Donostin ageri  
niri jotako txalo guztiak  
bidaltzen dizkizut zuri.

Urte haretako txapela, bere lehenengoa, jantzi  
ondoren, agur hauxe kantatu eban:

Oi ene txapel, zer sentitzen duk  
ene eskura heltzean?  
Ez haut buruan erabiliko  
baizik zintzilik iltzean.  
Iltzea berriz josiko diat  
nik dakidan bihotzean  
han egongo haiz uda beroan  
eta neguko hotzean  
bizi naizela biontzat eta  
berarentzat ni hiltzean.

## JUAN MARI AREITIO



1945-V-06an jaio zen, Abadiñoako Gaztelu auzoko Burgizar baserrian, ezizena auzo horretatik jator-kola. Umezaroa, auzo eskolako oinarrizko ikasketak eginez, base-rrian eginik, geroko lanbideak, baserri lanez gainera, tornerotza eta azken urteetan eraikuntza izan ditu. 29 urteaz, Maria Anjeles Azpiri berriatuarraz ezkondu zenetik, Iurretan bizi da eta hiru seme-alaba ditue. Euskaldun izate-aren konpromisoaren eraginez hasi ei zen bertsoan, eta Abadiño inguruko euskalza-le eta bertsozaleek bultzaturik urten ei eban plaza. 1982-1993 bitarteko txapelketetan parte hartu eban, bai Euskal Herriko, bai Bizkaikoetan. Horrez gainera, hainbat sariketatan kantatua da: Osinalde saria, Mallabiko saria, Zepai saria, Artxanberri saria...

Herri-bertsolari natoa izanez gainera, Areitio bertsolari militantea izan da, kausa guztietarako beti prest dagoena. Bertsolari eta bertsozaleen artean guztiz estimatua, askotan aitatu dogu beragaz abusatu be egin izan dela sarritan, edonorako eta edozertarako agertzen eban prestatun horregaitik. Azken aldion, plazak albora itzi samar ditu, behin edo behin bakarrik ibiltzeak buruko mina besterik ez dakarrela eta. Baina oraintxe be, ekintzaren baten barruan kantatzeko bada, Areitio bezain erraz baietz esatekorik nekez aurkituko da.

### Idiazabal. Zepai saria (1975-IX-21)

"Kalean hizketan zaudela bizkarra berotu dizunari"

*J. M. Areitio*

Gertakizunari jarten naiz  
hemen orain begira  
piskat pentsatzen jarri ezker  
penagarriak baidira!  
Egiak esaten ari eta  
zigorrakin erretira!  
Zelako etsaiak sartu zaiguz  
gaur gure Euskal Herrira!

Hau garbi ikusten deguna da  
ezin ginake ukatu  
itxura danez guk euskaldunok  
eiten du zenbait pekatu.  
Aurka daukaguz apaiz, obispo  
baita ere Aita Santu  
hitzegitea ere oraindik  
eingo deusku debekatu!

### Durango (1976-VI-04)

Biharamonean izango zen urtebete, Gabriel Aresti hil zela, eta bertsolariak omenaldia egin eutsien Durangon. Abel Muniategi izan zen aurkezle eta J. Azpillaga, J. Lopategi, X. Amuriza, J. M. Areitio, J. I. Intxaurrea, E. Igartzabal eta J. Lizaso bertsoan.

*"Areitio lanaren indarrez bizi dan behargina dogu eta Intxaurrea, aitak emondako ondasunetatik bizi da beharrik egin barik"*

*J. I. Intxaurrea*

Aspaldi baten hemen nabil ni  
bizi trankil ta erosuan  
ez naiz sekula behintzat aspertzen  
daroadan bizimoduan.  
Beste batzuek izerdiakin  
hor dabiz nere inguruan.  
Nik zertarako lan egingo dut?  
Aitak nahiko egin zuan!

*J. M. Areitio*

Zure esanai nik erantzuna  
emango'iot derrepente  
mundu honetan badadukagu  
hamaika zulako jente.  
Aita aberatsa daukazu eta  
bizi zerade dezente.  
Gure bizkarretikan badabil  
hemen hamaika tunante!

*J. I. Intxaurreaga*

Batzuek lana asko egiteko  
etorri ziran mundura  
ta handik aurrera bizitu behar  
hoiek hamaika tristura.  
Horregatikan lanik ein gabe  
ez zait nei bate ardura  
hamaika txarri gizentzen baita  
langilearen kontura.

*J. M. Areitio*

Guraso aberatsen umiak  
eskola asko ikasita  
ta gu behartsuok berriz hemen  
lan einda ezin bizita.  
Geure denporan bagaude nahiko  
miseria ikusita  
honek hor dabilta golferian  
bizar haundiak itzita

*J. I. Intxaurreaga*

Langile izardiak ez dira  
gozodunezko eztiak  
berdin nekatzen ikusten ditut  
bai zaharrak eta gaztiak.  
Zertarako, ba, lan egingo'gu  
ezbaigera piztiak?  
Nahi badute egin dezatela  
trikornio duten gaztiak!

*J. M. Areitio*

Laguna zure esan guztiai  
nator erantzuna ematera  
era horretan jasoko ete deu  
herria eta euskera?  
Bide hortatik baldin jarraitzen  
badezu zuk aurrera  
denpora asko baino lehenago  
ministro egingo zera.

**Donostia (1977-II-26)**

"*Bertsolariek bertsolariei*" izenburupean, omenal-  
dia egin jaken Xalbador eta Arozamenari, euren  
alargunen bitartez. Bertsolari askok parte hartu  
eben, eta tartean bizkaitarrek be bai. J. M. Arei-  
tiok "*lana*" gaiari bertso biok kantatu eutsazen:

Aizu, laguna, arrazoiz eta  
zuzen zara hitzegina  
ez da erreza herrialde bat  
bilatutzea berdina!  
Zintzotasunik ez dago eta  
dana zerri ta zikina  
horregatikan jaten dute hemen  
guk behartsuok egina.

Lana egin du oin arte beti  
makinatxo bat urtian  
ta hala ere aurkitzen gera  
eroririkan lurpian.  
Anai-arrebak arrazoi bataz  
danok oroitu gaitian  
lana egitea izan liteke  
geure buruen kaltian!

**Txapelketa Nagusiko azken-laurena  
Bergara (1986-II-16).**

"*Treanean diru eske dabilen eskale honek, Argiñarenak, apaiz batekin egin du topo, Areitioekin, hain zuzen*"

*J. F. Argiñarena*

Gaurko hontan aspaldiko markak  
beharko ditugu hautsi  
bakoitzak zer egin dezaken, ba  
beharko da erakutsi!  
Eskean apaiz haueri esker  
asko genduan ikasi  
eta berari eskatu gabe  
gaur ezin nezake utzi.

*J. M. Areitio*

Zu bezelaxe eskale gisa  
badabil hamaika alai  
baina horrela ikusten zaitut  
gaur oso umil ta anai.  
Nere limosna hartzerik hemen  
orain ez espero ta zai  
eskatutzea libre da baina  
ez ematea ere bai.

*J. F. Argiñarena*

Apaizak arpegiz ongi daude  
eta jokatu antzera  
eskatzekoan aurrera eta  
ematekoan atzera.  
Premin dagonari lagundu ta  
hori esanda ari zera.  
Ni premin nago eta lagundu  
nahi badezu, hor aukera!

*J. M. Areitio*

Egia esan asko emateko  
bezela ni ere ez nago  
badakizu apaizok gabiltza  
munduan nahiko esklabo  
Zu eskalea ikusten zaitut  
bai orain eta lehenago  
dudik ez dago zu izango zara  
ni baino aberatsago.

*J. F. Argiñarena*

Hitz politez gaur bukatu nahi du  
sortu dan korapilua  
hemen estu hartu detanean  
sortu zaigu istilua.  
Sermoitik bakarrikan apaiza  
ote zera ispilua?  
Emateko aukera badezu  
eman zazu ejenplua!

*J. M. Areitio*

Errezu eta sermoitarako  
hartu genduan karrera  
eta horrekin hemen gabiltza  
batera eta bestera.  
Ai, eskalea, leku txarrera  
gaur hemen hurbildu zera!  
Gu emateko baino hartzeko  
askosaz hobeak gera.

**1989ko Txapelketa Nagusia  
Finalerdia**

*Areitio dendari zaharra da, Jon Sarasua berria.  
Dendari zaharrak inoiz ez du merkealdirik jartzen  
eta berriak, berriz, urtean bi aldiz jartzen ditu".  
Bigarren bueltan J. Sarasuak "zure bezero diren  
atsoak / nigana etortzen dira" amaiturik, Areitioak  
darantzu:*

Berarengana joan diradela  
nere bezero gehienak  
arrazoi honek ematen deustaz  
neri samin eta penak.  
Baina zuk ere jasoko dezuz  
gero horren ondorenak  
luzaro ezin lezake iraun  
engainatzen dabilenak.

*"Bi hilabetez merke-merke ta / urte osoan garesti".*

Kontuak kontu nere bideai  
jarraitzeko asmoz nago  
nik honelaxe lan egingen det  
bai orain ta bai lehenago.  
Eta zu ere jarri horrela  
bestela laister akabo  
herri honetan zuk uste dezun  
hainbeste tonto ez dago.

#### **Lierni (1989-VII-03)**

Hitzetik Hortzerako saioaren azken ekitaldian, Jose-  
rra Garziak, Lierniko jatetxean, prenda bat emon  
etsan gaitzat: *"munduko globoa"*. Hiru bertsoetarik,  
lehenengo biak honakoak kantatu zituen:

Bertso batzuek kantatutzeko  
gai edarra ta bikaina  
honen barruan zer dan azaltzen  
egingo det ahalegina.  
Mundu eder hau lehen eta orain  
izan liteke berdina  
baina ez zaigu gutxi aldatu  
honen barrua ta gaina.

Mundu hau asko aldatu dala  
inork ezin du ukatu  
jakinduriak nere ustetan  
egin du hainbat pekatu.  
Hemen zertxobait egin nahi dunak  
badauka zertan nekatu  
berez hain eder egin zutena  
gizonak dute hondatu.

#### **Bermeo (1995-IX-13)**

*"Areitio anaia zaharrak ez dau ikasketarik egin,  
baina aberasturik dago. Unai Iturriaga anaia gaz-  
teak, barriz, sekulako karrera ikasi dau, baina ez  
dauka lanik"*. Buelta batean, U. Iturriagak *"edo  
bestela egin beharko / partiduaren karneta"* amai-  
turik, Areitiok darrai:

Kontu ugari baina hau ez da  
hemen nunbait lanen gura  
nik betidanik hartu baitiot  
honi alperren itxura.  
Lana aurkitzeko zertarako zu  
joango zara partidura?  
Oso ederto bizi zerade  
aita ta amaren kontura.

#### **1993ko Txapelketa Nagusia**

*"Baserri bateko ama-semeak. Areitio, ama; eta  
Iñaki Murua, semea. Semeak, oportetan kalean,  
bere lehengusuen etxean pasa du hilabete. Hilabe-  
te hori pasa denean, ama etorri da semearen bila,  
baina honek ez du baserrira itzuli nahi"*.

Hirugarren bueltan, I. Muruak etxera ez etortzeko  
arrazoien ondoren, *"gainera ikasi det / Ducados  
erretzen"* kantaturik, Areitiok amaitzen dau:

Oso ondo bizi dala  
Ducadoak errez.  
Ama tristuraz eta  
semea irriparez.  
Mundu hontan horrela  
gabiltz zoritxarez.  
Txorakeriak utzi  
ta etorri mesedez;  
ama laztana ez zazu  
eduki negarrez.

## GABRIEL ARESTI



Honezkerok, Gabriel Arestiren barririk ez dakien inor ez da egongo Euskal Herrian. Haren izenak ia ezelako aurkezpen barik edonon ezagutzen diren euskal izen bakan horretarikoa izateko ohorea dauka. Bere bizitza ez luzeez, (Bilbon 1933an jaio eta 1975ean hil zen), mundutik oharkabean igaro ez zen Aresti euskal idazleen arteko izen mitikoa dogu, dagoeneko. Hori guztia bagenkien eta hau ez da lekua, Aresti literato, hizkuntzalari, polemista eta militantearen perfila garatzeko.

Beharbada, gitxiagok dakiena da Arestik bertsolaritzagaz izan eban, ez zerikusia bakarrik, hartuemon zuzena baino. Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoak, beste zenbait xehetasunen artean, honakoak dinoz haren azalpenean: "...Euskal poesia modernoaren eta antzerkiaren bultzatzaile eta berriztatzailerik nabarmenena izan zen. Bere obrari herri-literaturaren, eta bereziki bertsolaritzaren, kutsua dario...".

Arestik, Alfonso Irigoienegaz batera, Bizkaiko txapelketak hasi zirenean, (1958tik gora), parte zuzena izan eban antolakuntzan, epaimahaie-tan eta, batez be, bertsolaritzari buruzko eritzian eta eztabaidan. Areago oraindik, bertso jarri mordoa egin eban, bertsolari kontzientzia osoz, hau da, bertsogintzaren molde eta tradizio osoz, nahiz eta, zelan ez, bere estilo hiritar, zorrotz eta guztiz barritzailean. 1958ko txapelketaren kronikan jaso dogu sorta bat, *Juan Ormaetxe Jaunari* izenez. 1962ko txapelketan be jaso dogu Arestiren artikulua guztiz interesgarri eta bitxi bat, bertan Jon Lopategiren bertso bat glosatzen dauela.

Bat-bateko bertsogintzan be ez zen saiatu bakoa izan Aresti, baina, behar besteko ahaleginik egin ez ebalako, edo gaitasunak horretan lagundu ez eutsalako, ez eban, esaterako, Alfonso Irigoienen trebetasunik lortu, zeina bat-batean tiki-taka eta artatsu egitera heldu zen. Inoiz, neuri be subertatu jatan Aresti bat-batean egin guran ikustea. Bertsoren bat edo beste kostata osatutakoan, ez zen jarraitzeko gai izaten. Bekaitz eban bat-bateko dohaina, baina bera ez ei zen horretarako gauza.

Aresti, ikutzen zituen gai guztietan legez, bertsolaritzan be polemista sutua izan zen. Bertsolaritza aurkitu ebanetik, 1952 inguruan, haren lan poetiko guztiak ez eutsan bertsoaren molde eta espirituari itziko. Baina, bertsolaritzaren ereduari, Txirritak ordezkatzeko eban tradizioa goraiatu eban, Basarriren diskurtsoa eta estiloa erruki barik astinduz. Jarrera horren adierazle, Basarriren *Nere bordatxotik* ezaugarriari Arestik *Nere bulegotik* edo *Nere ofizinatik* kontrajarriko eutsan. Sarritan aitatu ohi den bertsolaritza "modernoak" izen hori mereziago leuke, Arestiri gehitxoago begiratuko izan baleutso.

Arestiren bertso sortak, gehienez, oso luzeak izaten dira. Hiru eskainiko doguz hemen, ia neurri guztietan probatzeko zeukan grinaren adierazle. *Bizkaitarra* izenekoak bizkaieraz dagoz eta *Astepeko Sekretarioarenak* gipuzkeraz. Honeek guztiok osorik, eta beste hainbat sorta gehiago, liburu biotan aurkitu leitez: *Gabriel Aresti. Obra guztiak. Poemak (I)* eta *Poemak (II). Kriseilu*. 1976. Bilbao

**Bizkaitarra (I) (1959)**

Iretargi barriak  
ez dauko argirik  
ez gauberdiko  
eguzki hotzak  
berorik.  
Ez da egongo  
Bizkai maitea  
inoz penadu  
bagarik  
Halan diragutsue  
Gabriel Arestik.

1)  
Orienteko perlea  
nobia neurea  
bihotzeko puskea  
Melitxu maitea.  
Non da zure legea  
ta karidatea?  
Eukizu piedatea  
egin mesedea.

2)  
Guraso biak jaio jatzuzan  
Leongo erreinu zaharrear  
eta ez zenduan euskeraz eiten  
ikasi txiki denporan.  
Dinotsudana ez dozulako  
entendietan arean  
lastima handia egin jatana  
arimearen barruan.

3)  
Melitxu Basurtuko  
piko meladua  
mesperu ustel gozoa  
sagar eztitsua.  
Laster izango zaraz  
neugaz ezkondua  
neure bizilekua  
ez da komentua.

4)  
Zabal-zabalik dago zeruko  
bentana ikaragarria  
ikusit neban ordutik zeure  
arpegi zoragarria.  
Neska galanta zuk dirudizu  
paradisuko txoria  
uxala itsutu egingo banintz  
ez badinotsut egia.

5)  
Kantadu gura deutsut  
hamabi bertsotan  
euskotar neska batek  
zer egindu eustan.  
Ene bihotza orduan  
erdibitu jatan  
ikasi neban ondo  
dolorea zer dan.

6)  
Neuk hartu neban txiki denporan  
euskerearen gauzea  
euskaldun hutsa izango zala  
hartuko neban andrea.  
Bere zanetan zan korriduko  
garbia geure errazea  
mutil txikerra izan da beti  
bastante zentzunbagea.

7)  
Nire apelliduak  
ninduen harrotu  
Aresti Segurola  
horreikaz itsutu.  
Gizonen tonteriak  
mila itxura ditu  
baina apelliduenak  
guztiak bentzidu.

8)

Neure semeak ez ebelako  
inoz eukingo lotsea  
erdal izen bat eroateko  
egin neban promesea.  
Aberriaren altara hotzean  
emoten neban mezea  
Jangoiko todo-poderosoa  
izanik gure errazea.

9)

Arakatu nebazan  
Bilboko kaleak  
eta Bizkai guztiko  
baserri maiteak.  
Mandaturik bialdu  
ez neutsan neskeak  
kontestaduten eustan  
ezetz gizajeak.

10)

Hemengo jente gaztea dala  
basozale amorratua  
badakit ondo ez daukazuna  
ezelan bere ahaztua.  
Esan deustazu askotan dala  
apezino hori tontua  
ez neuke esango izan nintzala  
egun hareitan listua.

11)

Denpora eder bategaz  
udagoienean  
Urbira gindoiazan  
urriko bostean.  
Kotxea jente alaiaz  
beterik egoan  
baina lupua nintzan  
ni bakardadean.

12)

Handikan hona pasadu diraz  
zoritxarreko lau urte  
tristura handia emon deustenak  
eta alegrantzia bapere.  
Han ezagutu neban neskea  
bai azartuko nintzake  
orain esaten bildur barikan  
apur bat nebala maite.

13)

Akerraren gurea  
ahuntza topetea  
gizonaren bihotzak  
behar dau andrea.  
Autortuko deustazu  
errua, maitea  
hagaz ibiltekoa  
ez zala nirea.

14)

Neska polita zan ha benetan  
tximinoiaren lerdena  
Christian Diorrek sedaz jantzita  
ikusten jako buztana.  
Esperantza bat jatan kabidu  
gitxi poztu ninduana  
egunen baten geldituteko  
zorionez alarguna.

15)

Bizimodu tristea  
daroe gizonak  
enbreri eskuz lotuta  
Goikoak emonak.  
Zuen eskuetatik  
eskapetan danak  
errezibitan dituz  
ene zorionak.



16)

Andratxu harek eukiten eban  
ule beilegi lastoa  
eta begiak azul-azulak  
zelan balira itsasoa.  
Kolore horreik orain ahaztuta  
badirudie hostoa  
arbolatikan udazkenean  
lurrean jausitakoa.

17)

Etse bateko zan alabea  
inor badago aberatsa  
zazpi giltzagaz gordeta eukana  
bankuan diru mataza.  
Danok dakigu zidar artean  
arkituten dana satsa  
honegatikan etorkizuna  
presentadu jatan gatxa.

18)

Mandadua bialdu  
neutsan zoritxarrez  
zergaitik kontestadu  
egin eustan baietz.  
Hagaz gelditu nintzan  
azegaria lez  
musturra pasmaduta  
ta lepoa aldrebes.

19)

Zerua goian ta lurra behean  
hori zan ene ondasuna  
pobrero jaio banintzan bere  
ez naz inoren zorduna.  
Eskeindu jakon gorputz fuerte bat  
sufriduten ekiana  
eta ezer barik eskatu barik  
arima bat fededuna.

20)

Gorengo esperantzea  
eraz galdu neban  
arima penau batek  
desegindu eustan  
aldarriz kantatuaz  
Domu Santuetan  
zeruetan ez dala  
(enperadorikan?)

21)

Baina gizonen halanbeharrak  
asko nindun arduratu  
zergaitik gure sufrimentuak  
ez jakuzan akabadu.  
Jangoiko fuerte amoroso bat  
zeruan dogu paradu  
egun danetan tranquil ta umilak  
hareri egiteko erregu.

22)

Umanidadeari  
fabore emoteko  
semea prestau nintzan  
Gure Euskal Herriko  
hainbeste borondate  
nebala eukiko  
zelan nire odola  
hagaiti emoteko.

23)

Egondu nintzan ordu luzeak  
euskal libruen ganean  
izakerea, berbakuntzea  
geureak estudietan.  
Eskribidurik egoan dana  
legidu ez neban artean  
ez neban sartu ago mingots hau  
euskaldun lagun artean.

24)

Neure fede sendoa  
neutsan ofrezidu  
penak eta gloriak  
eiteko partidu.  
Obra miragarria  
gura neban sortu  
euskaldun jenteari  
lurra makinatu.

25)

Etseko alaba guztiak ondo  
dakiez gure barriak  
plaza-gizonak ez direala  
etseko jaun egokiak.  
Bolatokian galdu egiten  
badiraz postura handiak  
eskaratzean ez direala  
prijiduten haragiak.

26)

Euskal Herri maitea  
bolatokia zan  
eta neure fedea  
posturak zirean.  
Gizon handi guztiak  
amaitu dira halan  
itoten direala  
berakatz zopetan.

27)

Nire bihotzak ulertu eban  
egun haretan ederto  
zergaitik neska burubako harek  
tratadu nindun hain txarto.  
Pentsadu eban dirurik baga  
ez nebala maitatuko  
euskaldunaren Jangoiko altuak  
urrezko ipurdia dauko.

28)

Neure amodioa  
probatutearren  
behar nebazan itzi  
ahal baino lasterren  
nire pentsamentuak  
eta oindikarren  
nire ukaerea  
ez deust parkatuten.

29)

Gaztelu hatako torre fuertek  
lurrera jausi zirean  
neure fedea zarateagaz  
deungaro apurtu jatan  
zeru gorena urraturikan  
ekatx amorratuetan  
zelango negar malko mingotsak  
begiok busti ebazan.

30)

Hutsik gelditu nintzan  
munduan errege  
ez neunkala barruan  
kezkarik bapere  
zelan elai alaia  
galtzadetan libre  
Afrikarantza doian  
usoa legetxe.

31)

Parkatu istazu nobia maitea  
zeu ezagutu baino lehen  
enbren atzetik modu gatxean  
ari banintzan ibilten.  
Aharitoitsuak arroken kontra  
adarrak dauz apurtuten  
eta gizonak bere grinea  
tristurazko sabel baten.

32)

Honeik bertso tristeok  
 abendu honetan  
 Erdotar neska batek  
 aditu eutsazan  
 Gabriel Arestiri  
 ulertu barikan  
 neskarik galantenak:  
 Amelia Esteban

(*Poemak (I), 118. or. Gabriel Aresti. Kriseilu*)

### **Bizkaitarra (III) (1960)**

1)

Mila bederatzirehun  
 eta hirurogeian  
 Martik dituan egun  
 hogetabian  
 bosgarren "Bizkaitarra"  
 banua abian  
 kantaduten Bizkaiko  
 euskera errezian  
 eta ederrian  
 kotsola daitian  
 modu politian  
 nirekian batian  
 bederatzi puntuko  
 bertso barrian.

2)

Komeni diran bertso barriak  
 orain kantatzera nua  
 neugaz etorri bedi batera  
 gure Aita Eternua  
 inor badago laguntzalia  
 horixe da Jangoikua  
 horregatikan nire kantua  
 lehenengo harengana dua  
 laguntasuna emon degidan  
 bestela nago galdua  
 gero egin bedi niri begira  
 bizi garian mundua  
 gizarte gizagajua  
 gure Euskal Herrikua  
 lehengo koplari abilakandik  
 hartuko dot ejemplua.

3)

Euskeraz kantatzeko  
 banaz guztiz torpe  
 baina nire bertsuak  
 ez diraz merke  
 nire gustuan karu  
 salduko nituzke  
 erostunik ez dago  
 ta duaz debalde  
 ezer kobrau gabe  
 umezurtz dirade  
 aita gura dabe  
 hori izan beite  
 Arjentinan daguan  
 Justo Garate.

4)

Erderaz egin guran dagan  
euskaldunikan munduan  
egon ez balitz gure euskaria  
ez zan galduko hain duan  
holango gizon motzak ez dauke  
sarrerarikan zeruan  
pena handiak eukiko dabez  
zoritzarrian orduan  
eta Jangoiko poderosuak  
sartuko dauz infernuan  
han pasauko da justiziarik  
baldin badago altuan  
pentsetan dogun moduan  
daukagun adimentuan  
osterantzian Euskal Herriok  
zetako egin zituan?

5)

Justo Garate jaunak  
ederto jakinaz  
ez dau bape eskribidu  
inoz euskeraz  
haren libru ederrak  
eginik erderaz  
eskribitzeko modu  
arrote horregaz  
gustaduten ez naz  
egundaino jamas  
izango da kapaz  
egiten andemas  
gure kontrako mila  
kritika garratz.

6)

Parkazinua eskatu gura  
deutsat orain bihotzetik  
ezin ikusi leitekkelako  
gizon baten meriturik  
beraren falta guzti-guztia  
ez bada ikusten aurretik  
gure herriaren kontra falta bat  
dauko Garatek bakarrik  
lehengo bertsuan modu txarrian  
erakutsi deusuet nik  
baina horregaz ez dot esaten  
meriturik ez daukanik  
milaka kontatzekorik  
kantauko neukez poz-pozik  
bat ez izteko ez balegoke  
urtebeteren beharrik.

7)

Euskeraz ikasteko  
maisu gitxi dago  
herria estudietako  
bat gitxiago  
eskuan atzamarrak  
diriala asko  
hortik zenbat dagozan  
ondo kantatzeko  
bost edo sei baino  
ez dira arkituko  
ez deusat esango  
diriala nahiko  
guztirik da Don Justo  
lenen-lenengo.

8)

Begarako mediku jauna Don  
 Justo Garate handia  
 hareri emon gura neuskio  
 merezi dauan gloria  
 Bertsotan hasi nazan ezkeru  
 gura dot aitabitxia  
 estranjerian badago bere  
 bera da txit egokia  
 eskatzen deusat ipini deidan  
 behar dodan arpegia  
 harek eskutik hartuten banau  
 kontrarioen begia  
 ez da izango argia  
 ez bada guztiz nagia  
 eta ikusi ez da egingo  
 nire ganora txikia.

9)

Kantadu gura deusat  
 Justo Garateri  
 Euskal Herrian zelan  
 garian bizi.  
 Batez bere Bizkaian  
 astokilo ugari  
 zaldiekin batera  
 arrantza ta irrintzi  
 dagoz danak beti  
 goizalde ta arrasti  
 isiltzen ez daki  
 horrek animala  
 ahotik indarrak joan  
 jakez igesi.

10)

Gaube ilun bat igaro dogu  
 hogei urteko luzia  
 Arratiako bertsolariak  
 kantadu euskun letria  
 egun haretan entzunik haren  
 agotikan musikia  
 bertso galantak pentsaduteko  
 badauko abilidadia  
 bere ezpainetan arkitzen dogu  
 askotan jakinduria  
 euskal jenio bardinbakuak  
 deukotsa erakutsia  
 badauko etorri handia  
 gitxitan parebagia  
 bapere libruk ez dau bentzitzen  
 horretan bertsolaria.

11)

Autortu behar deusut  
 egia da hori  
 baina zeruan ez da  
 bapere eguzki  
 berrogeta hamar urte  
 luze desegoki  
 ilunabar tristiak  
 ebazan eduki  
 orain Pujanari  
 diotsat zegaiti  
 gure herriari  
 ez degutsan segi  
 egingo gauba zital  
 berorrek beti.

12)

Ez dot deseo ez dot espero  
holantxe pasadu daiten  
baina bihotza sartuta daukat  
negarrez ukabil baten  
nire bizitza guzti-guztia  
pasadu gendun entzuten  
urte danetan libertadia  
etorriko jaku aurten  
nonahi orduan entzungo dozu  
euskeraz berba egiten  
gure alde etorri egingo dana  
jaiota dago nonbaiten  
orain ez dot sinistuten  
asko deseadu arren  
honegaitikan bizkaitarrari  
kantaduten deutsat amen.

13)

Gure zeruan ez da  
ikusten argirik  
Euskal Herri guztia  
dago ilunik  
euskaldun gizajuak  
bagabiz itsurik  
ez dadukagulako  
bape linternarik  
ez gagoz bizirik  
hoba bagina hilik  
adimentu barik  
galtzen garaz hortik  
erremedio bila  
jakin bagarik.

14)

Itsuak dagoz topo egiten  
kale-kantoi guztietan  
pixkat alegre doiazanian  
jausten diradez basetan  
hareik maitatzen dituen gizon  
errukiorrak penetan  
dagodez beti lastima handia  
daukelako bihotzetan  
baina linterna baten premina  
bakarrik dagueanetan  
posible bada itsutasuna  
argiaz iluminetan  
eta garaz alegretan  
gure begien faltetan  
zelan sortuko da kupidia  
inoren errukietan?

15)

Bankete bat ederra  
igaz gendun egin  
lagun-kuadrila honek  
gure Santurtzin  
txarri baten pernilak  
mila sardinakin  
bustitzeko hemeretzi  
otxaba txakolin  
berrogei pospolin  
euren saltsarekin  
ez akabau arin  
egunian ezin  
eta kafe onduan  
bana pipermin.

16)

Orduan gureganaino egin  
 eben eskeko pobre bik  
 umildadiaz Jangoikuaren  
 limosna bat eskaturik  
 zoritxarrian genduzan danok  
 gure paltrikarak hutsik  
 bueltako trenea pagaduteko  
 inok ez eukan dirurik  
 hango apari-meriendak itzi  
 ginuan peseta barik  
 agindu geuntsen ogi zati bat  
 hartu egiela mahaitik  
 krstiandadez beterik  
 ez geunkatsen gorrotorik  
 Uretamendin bizi baziran  
 be aurreko domekatik.

17)

Bata txikerra narru-horia  
 itxura eukan ijito  
 bestea barriz altu ta fuerte  
 gallego zintzo lijito  
 honek eskatu euskun pagadu  
 gineien bana txikito  
 bihotz oneko pertsonak garaz  
 irudi jakun polito  
 sardina batzuk emon geuntsazan  
 ogian sartzeko gero  
 astebeteko gosea kendu  
 eban holantxe ederto  
 pentsatu baino hobeto  
 aste pare baterako  
 gure kantuan eta burletan  
 lagundu euskun biziro.

18)

Bestiak barriz eukan  
 arpegi gogorra  
 ez eban ezagutu  
 edukan zorra  
 esa'euskun bera zala  
 andaluzitarra  
 gerra denporan izan  
 zala militarra  
 gura eban patxarra  
 pospolin ederra  
 eta pernill zaharra  
 opetsi beharra  
 bestela emongo euskun  
 franku negarra.

19)

Berba egiteko eukan modua  
 ez jakun bape gustadu  
 hasi zan leku bertan genduan  
 eztabaidia akabadu  
 kaderetatik besuetatik  
 gendun andaluza koiu  
 Ibaizabal hil dan lekuko  
 ur zikinera botadu  
 bildur ginian ez leiten ura  
 tximinoi hazaz zikindu  
 uger egiten ez zekian da  
 beukan zegaitik damutu  
 zeruari erregutu  
 semiakaz akordadu  
 Bilbon jaiota gaozanakaitik  
 ez zan debalde burladu.

20)

Kuadrila hatan ez ginan  
biziten pobrero  
hamar gizon ezkondu  
ta hiru soltero  
udian hotz gendukan  
ta neguan bero  
hiru estudiante  
ta zortzi tornero  
bat zan igeltsero  
bestia torero  
jente ona gero!  
Bageunkan letrero:  
Amaitzen ez dakigu  
hasi ezkeru.

21)

Andra geuriak eta nobiak  
asperturikan egozan  
ez gendulako inoz ipinten  
kaderarika elexan  
gure errekuak eta errezuak  
ez genduzan egin mezan  
non pasaduten genduzan gabak  
sartu zirian peskisan  
eta Zierbanan gengozanian  
andra-taldia agertu zan  
merienda itziaz han  
korrikan joan ginezan  
ta Zierbanara allegau arte  
gelditu ez ginadezan.

22)

Ta gure apariagaz  
sardin-txakolina  
geratu zan poz-pozik  
gallego fina  
harentzat milagro bat  
zeruak egina  
apur bat ez izteko  
izan zan arina  
gozua sardina  
ona pospilina  
asetzeko aina  
guria zan baina  
agertu jakun nire  
andra sorgina.

23)

Jesukristoren Ebanjelio  
gutziz beneragarriak  
ejenpluetan argitzen deuskuz  
Haren egia handiak  
ondo konprendiazoten deusku  
zerua paraboliak  
komeni jaku zapaldutia  
Jangoikuaren biriak  
hartu daiguzan euskeraz Haren  
berba egiteko moldiak  
historia bat kontau dot uler  
dagizuzan errazoiak  
zegatik ene peniak  
ene bihotz fugertiak  
ezin legikez kontsideradu  
Bilboko euskaltzaliak.



24)

Gallegua legetxe  
ezin porta leikez  
pausuak desorduan  
emoten dabez.  
Komenitzen danian  
esan behar ezetz  
komeni ez danian  
orduan bai baietz  
guztiak aldrebes  
egiten dituez.  
Harruak zelan ez!  
Aingeruak legez  
euskeria hilteko  
jaio diradez.

25)

Ze salbazino eduki leike  
gure euskera maitiak  
itsuak baldin badiraz haren  
laguntasun-emoliak  
parabola bat kantaduko dot  
itxiko dabez begiak  
ez ikusteko nigandik euren  
itsutasun terribliak  
ta ze ardura izan leiskue  
trapu baten koloriak  
ze ardura bertso baten ipinten  
dan erderazko berbiak  
zortziko edo habaneriak  
abarka edo zapatiak  
kanposantuan lurra hartuten  
badau gure izaeriak?

26)

Sarri entzun nozue  
bertso guztietan  
Bizkaia dagoala  
beti penetan  
Baina horregaitikan  
ez naz alegretan  
ez naz alegretan da  
ez dot sufrietan  
banago baketan  
poz-pezik benetan  
zerren munduetan  
garade abrasetan  
merezidu ditugun  
arriskueta.

27)

Gerra denporan komendantiak  
mandatzen dabe soldautza  
ta pilotua obeditzen da  
datorrenian ekatxa  
ta kristianuak ez degutsie  
desobedietan hitza  
hau da eredia segietako  
bire guztietan giltza  
auzi bat ondo defenditzeko  
behar da abogadutza  
ganerakua da ametsa  
pentsamentu guztiz motza  
ezelan bere amorerikan  
emon ez leikian gauza.

28)

Baina gure Bilbagun  
hori ikusten dogu  
zelan ez dakiana  
izan dan maisu  
egiak jakiteko  
egiten da botu  
fuerte gedar eginaz  
errazoia dogu  
ostantzian galdu  
zorotzat pasadu  
hori dala modu  
egiak ukatu  
ganera jakitunen  
graduak hartu.

29)

Guzti honegaz gure Bizkaia  
kondenaturikan dago  
Araba barri lotsagarri bat  
bost urtian izateko  
problema hori ikusiteko  
gitxitxu gagozalako  
ta gure beso honeitan indar  
eskasa daukagulako  
akaso ez dau alkantzaduko  
bapere erremedio  
eta itsuen itsueria  
zantarra dala medio  
aurrerantzian ez jako  
bentajarik etarako  
jenio honeri Jangoikuak  
emon euskuna handiro.

30)

Euskaldun errazako  
jente erdalduna  
biziko da Bizkaian  
hau nire pena!  
Eta guzti-guztirik  
lotsagarriena  
eskuan daukagula  
erremedio ona  
ondo dakiguna  
danik ederrena  
iraungo dauana!  
Errua norena?  
Etorkizunak dino:  
Bizkaitarrena.

31)

Mutil gaztiok gauba honetan  
daukagu esperantzia  
urte batian etorko dala  
guretzat egunsentia.  
Nondik ta nora ez dakigula  
azkenian eguzkia  
gure zeruko ilunpian  
izango dala argia  
esperantza bat izan bagarik  
hori da gure fedia  
zetako orduan daukagu gure  
zanetan odol garbia?  
Nire berbien luzia!  
Nondik nazala torpia?  
Bertso honeiri emon beotset  
oragin errematia.

32)

Honeik hogeta hamabi  
bertsok dodaz para  
munduak jakin leian  
nire euskara  
Justo Garate jaunak  
naiala anpara  
edo bestelan niri  
kajia prepara  
errukitzen bada  
hamengo kulpara  
izan daitiala  
biguna kolera:  
Desterradu naiela  
Amerikara.

(*Poemak (I), 156. or. Gabriel Aresti. Kriseilu*)

#### Astepeko sekretarioaren bertso berriak

Berrogeita hamar bertsoatik gora dira, Arestik  
zenbatu barik emon zituenak. Batzuk hautatu  
doguz.

Iparragirren bozian nuan  
bertso batzuk esatera  
lege zaharrian zergatik jarrai  
arrazoia ematera.  
Ni ez nauzu atera  
inoiz plaza batera  
bertsolarien moldian  
zoritxarrian ez det ikasi  
soro artian goldian.

Euskal Herrian ez det ikusi  
oraindik bide zuzenik  
horregatikan ez det egingo  
aipatu nire izenik.  
Inoiz ez det esan nik  
kaletarra naizenik  
edota baserritarra  
Iparragirrek bezala egun  
joko det nire kitarra.

Sarri askotan deitu dirate  
niri bizkaitar iskua  
baina Bizkaian jaio ez banaiz  
ez da miragarritzua.  
Ni ez naiz harrizkua  
bai hori arriskua  
danok arkitzen gerana  
beraz sekula ez da jakingo  
gaur ezkututzen derana.

Tratantiaren moduan nago  
Gipuzkuan ibilia  
gauza gehiegi jakina dago  
erdaldun euskaltzalia.  
Ni naiz animalia  
eros ta saltzalia  
beti prezio merkian  
horregatikan ez naiz bizitzen  
aberatsen subertian.

(...)

Lau urte luze dira gerrara  
sakabanatu naizala  
Ama Birjina Pilarrekuak  
ongi anpara nazala.  
Umezurtza bezala  
kristau honen azala  
arriskuen ingurutik  
nire aitamak hil dituztela  
ez det kenduko burutik.

Nire aitaren etxe aurrian  
izan ez nuan atsegin  
modu zipriztin eta gaitzian  
birauka nuan hitzegin.  
Hura gerta ez zedin  
hala eta hutsegin  
zezaten pentsamentuak  
bakarrik etxe hari geratzen  
zitzaizkion zimentuak.

(...)

Galdetu nion nungua zan da  
haren herria Zornotza  
lurralde horrek ikusi zuan  
nire aitamen jaiotza  
pozik ene bihotza  
ez det zergatik lotsa  
senidiak ditudala  
mutil egoki hura zalako  
nire gusu naturala.

Ezaguera zelebrazteko  
topa genduan taberna  
Nafarruako ardo gorria  
Gipuzkuako lanperna.  
Nun zeguen galerna  
argitzeko linterna  
atera ginan hordirik  
trenbire hura geldituzteko  
ez zan bandera gorririk.

306

(...)

Gaurko kamio eta estartak  
ez dira oso errezak  
gerra bukatu berria dago  
guztiz dira aldrebesak.  
Hok dira esamesak  
ez pagatzeko mezak  
aita nirekin nenkarren  
gurdiak bulka egin zigun da  
aita hil zan Barazarren.

(...)

Errezo franko aditu zuan  
aitaren korputz ustelak  
dirutan ongi kobratu zuen  
hango parroko ezkelak.  
Opil eta pastelak  
txokolate-mistelak  
ederra okasiua  
modu horretan irabazteko  
Jaunaren barkaziua.

(...)

Mundu hontara jaiotzak eni  
ekarri ziran malurra  
eta gizondu nintzadenian  
zoritxarraren gailurra  
zerutikan elurra  
ta oinetako lurra  
hau zan nire ondasuna  
Jangoiko portitz eta liberal  
horrek eman didazuna.

(...)

Heldu berria nagan herri  
horrek ez dirudi dama  
beti prezio karu batian  
gordetzen duana fama.  
Hori da nire ama  
ta berekin darama  
odolian luzemia  
hala ta guztiz deklaritzen naiz  
Euskal Herriko semia.

(...)

---

Goiko zerutik gordetzen dira  
lurbirako gobernuak  
bildurgarriak egiten dira  
ikaratu infernuak.  
Hala dio sermuak  
Jangoiko eternuak  
zaintzen ditu artegiak  
bide okerrak argitzen dizkit  
neska baten arpegiak.

Amodioaz lurrera dua  
nire bihotza gainezka  
gaurko goizian ezagutu det  
maitatuko nauan neska.  
Badaukat nori eska  
arindutzeko kezka  
ariman barrenekuak  
maite horrekin izango ditut  
egun zorionekuak.

Neskatxa polit eder galanta  
zu zara nire gozua  
amodiuaz egun batian  
hartuko dizut mosua.  
Hala dabil zozua  
ez hain itxurosua  
piko helduak jan gura  
ilusian zure portuan  
bota bihar det aingura.

Alegrantziaz beterik dago  
ni bizi naizan auzua  
harantza dua abiaduraz  
ematen deran pausua.  
Izango zara usua...

Eta honelaxe izten dau bertsoa eta sorta guztia.  
*Bizkaitarren* bertsoetatik honeetara, euskalkiaz  
gainera, teknikan be alde handia nabari da. Nahiz  
eta ideiak eta estiloa guztiz arestiarrek izaten  
jarraitu, sorta honetan (eta beste batzuetan be)  
errima azkeneraino zorrozten ahalegindu zen, eta  
bai lortu be.

Bizkaiko tradizinoaren haritik, koplaritza be oso  
maitea izan eban Arestik. Badira haren letrak  
(*Apur dezagun katea, Biba Berango* eta abar),  
kantarien bitartez oso famatu egin direnak. Amaitu  
daigun Arestiren aitamena Eako herriari eskai-  
nitako koplak sorta bategaz.

### Eako koplak

Euskaldun artean Ean  
hemen bizi naiz bakean  
euskarak ahoaren erdian  
musukatzen nauenean.

Natxitua Bedarona  
hemen dago belar ona  
Eara behin helduaz gero  
itsas zabalaren gona.


Gizonik ezagunena  
ez dut esanen onena  
Joantxo sudur hautsia beti  
mozkorturik dagoena.

Niri pena ematen dit  
guztiek: *alde hemendik!*  
Euskadin ez da beste bat honein  
urrikalkizuna denik.

Tabernatik hilerrira  
Ama Lurraren erdira  
gizon tristeak otoitzarekin  
kontsolatu behar dira.

(*Poemak (II)*. 440. or. *Gabriel Aresti. Kriseilu*)

### JOSEBA ARREGI "ALTZU"



Joseba Arregi 1934-IV-03an jaio zen, 34-34, edo "tres del cuatro del 34", berak esan ohi dauenez, Berriatuko Altzu baserrian. Hortik jatoriko "Altzu" ezizenez gehiago ezagutzea. Beti etxe berean bizi izanik, gaur be bertan jarraitzen dau. Neba-arreba bi izan ziren, bera eta arreba. "Orduan familia handiak izaten ziren -dino- baina gure kasuan, ez dakit. Geu bi, eta gure ama-eta hamaika". Orduan ohikoena zen herriko eskola eta ohiko gaztaroa igarorik, 26 urte gaz ezkondu zen, Jesusa Urriolabeitiagaz. Hiru seme-alaba daukiez, neska bat eta mutil bi.

Bertsotako kantulagunik ohikoenak Mugartegi eta Azpillaga herkideak izan zituen. 1960ko hamarkadan, gerra osteko txapelketen lehenengo boladan, 1962, 1964 eta 1966an parte hartu eban, denetan finalera heldu zela. Gero, oraindino oso gazte, bertsozintzari iztea erabagi eban.

#### Markina-Xemein (1976-XII-08)

Bizkaiko saiorik entzutetsu eta garrantzitsuenetarikoa da Markinan Kontzezino egunez egiten dena. 1976ko haxe izango da, beharbada, lehenengo. Atzeratuen aldeko jaialdi moduan aurkeztu zen orduan. Grabazioan nabarmena da trantsizino garaiko giro abertzale beroa, bai bertsoetan, bai entzuleen txaloetan. Gaiak be garaiaren adierazle dira: erreferenduma, ikurrina, amnistia, batasuna....

#### "Bertso bi batasunari"

Batasunaren dei hori ondo datorkigu bihotzera  
 batasunakin txinorritxoak  
 nator gaur konparatzera.  
 Txinorritxoak saltomatxina  
 heltzen dira geratzera  
 guk ere Madril geratu geinke  
 txinorriaren antzera.

Iruditxo bat hortxe daukagu  
 segitu txinorriari  
 ezereza da mundu honetan  
 ezertxo ez da irudi.  
 Baina erakutsi ederra gaurkoz  
 badio Euskal Herriari  
 edo bestela izango gera  
 gu Madrildarren janari.

#### Zeanuri (1973-VIII-12)

Euskaltzaindiak antolatuta eta Udalak babestuta jokatu eben Zeanuriko saria Justo Longartek, Joseba Arregik eta Juan Mugartegik. Gabriel Manterola, Jose Mari Artetxe eta Alfonso Irigoienek osotu eben epai-mahaia eta Mugartegik eroan eban Barazarko ostatuak emoniko kopa.

Puntua: *Elefante bat dago  
 dantzan teilatuan*

Altzu: Holakorik ez det inoiz  
 ikusi munduan!  
 Hori agertuko da  
 behar dan moduan  
 laster jauziko da ta egon  
 behekuok kontuan.

Puntua: *Lau ta lau dira zortzi  
eta lau hamabi*

Altzu: Kontatzen ezingo det  
gehiagorik segi.  
Aspalditik Alfonsori  
bota dauosat begi  
Ai honek esan balau  
guzur aina egi!

A. Irigoien: "*Arregi txakurra eta Mugartegi katua  
izango dira*".

*J. Arregi*

Miazkatuaz sentitzen det nik  
hemen neure ondotikan  
eta orain aitzen emongo'izut  
gustora ta gogotikan  
Ule arruok bajatu egizuz  
bestela zuri hortikan  
dudarik gabe neure aginez  
helduko'izut lepotikan.

*J. Mugartegi*

Txakur gaiztoa ibili zaitez  
gauzak ondo pentsatuta  
pentsatu gero katua ere  
gaur dagola zapuztuta.  
Bere uleak gora jasuz  
begi biak'e piztuta  
erpe zaharrakin utziko zaitut  
begi biak itsututa.

*J. Arregi*

Ez da ibiltzen hau sukaldeko  
gozuak lapurtu barik  
uste dau honek ez daguala  
etxe honetan lotsarik.  
Ez bada piska bat ondratutzen  
ez daukat beste biderik  
katu hau alperrik da etxian  
ta nik jango dot bizirik.

*J. Mugartegi*

Txakurra zerbait zahartzen hasi  
batere ez dauka indarririk  
txikia baita berez ta ez da-  
go hori esan beharrik.  
Zuregatikan ez du egingo  
katu zahar honek negarrik  
katu gaiztuak ez du izaten  
txakur makalen bildurrik.

*J. Arregi*

Hasarre jarria nago eta  
ez daukat beste biderik  
ez det ezertxo ere lortuko  
hazur danak haustu barik.  
Orduan sinistuko dau honek  
ez ete dagon hobarik  
apurtuko det ta ez dau eingo  
ez miao ta ez marraurik.

*J. Mugartegi*

Txakur txikiak ez du egiten  
etxean hainbeste grazi  
berak nahi duen beste gradurik  
gaurkoz ezin irabazi.  
Berak nahi luke etxe haundian  
han izatea nagusi  
nik erpe zahar bat erakutsiaz  
hau juango da ihesi.

**Bilbo (1973-XI-17 eta 1975-I-17)**

Saio bi egin ziren Deustuko unibersitatean, hiru-  
rogeita hamargarren hamarkada hasikeran. Dikta-  
durako azken urteak eta ikasle artean egindako  
saioak izanda, (bertso idatzietan badago "Deustu-  
ko ikasle euskaldunak" sinaturiko sorta bat),  
nabarmena da giro abertzale beroa, bai bertsola-  
rien bertsoetan, bai entzuleen txaloetan.

1973an, Xalbadorrek, J. Lopategik, Lazkao Txikik,  
J. Mugartegik eta J. Arregik jardun eben bertsoetan.

Puntua: *Inoren laguntzarik  
ezin dugu espero*

Altzu: Itxaron daigun beti  
orain eta gero.  
Bihotzez jartzen bagera  
danok bero-bero  
asko lortuko dogu  
alkartu ezkerero.

A. Irigoien: "Arregi tabernerua da eta Lopategi  
ardozailea. Lopategik sarritan, gauerdia dela ere,  
tabernan sartu eta handik ezin du irten. Arregi  
tabernerua hasarre da horregaitik"

*J. Lopategi*

Honek ardura dauka  
sarritan bestena  
eta nireganantza  
luzatu eztena.  
Ardoa edan gaberik  
ni gizon tristena  
etxera joan orduko  
atera azkena.

*J. Arregi*

Lagunak konformatu  
nere esanian  
ez zaitut nahi ikusi  
zu hemen aurrian.  
Ez al dakizu edaten  
bere neurrian?  
Bestenetik etortzen  
da mozkortutzian.

*J. Lopategi*

Honen hasarrerikan  
ez nuen espero  
kliente onena ni  
egun ta gauero.  
Nahiz ta muturra jarri  
sarri bero-bero  
zer esanik ez duzu  
pagatu ezkerero.

*J. Arregi*

Motibuak ditut nik  
hasteko kejarzen  
azken orduan zera  
honuntza aldatzen.  
Aspalditxotik nago  
gauza hau pentsatzen  
zuri hasi behar naiz  
doblia kobratzen.

*J. Lopategi*

Nola esan lezake  
horrelako hitza?  
Beretzako dirua  
mozkorran emaitza.  
Hala ere kejarzen  
gauero zabilta  
hau arruinatuko zan  
ni izan ez banintza.

*J. Arregi*

Esango det hauxe be  
gertau da noizian  
gizon hau bizi da-ta  
arduan gosian.  
Itxura danez dabil  
gauza horren pozian  
ta andriak neri hasarre  
biharamon goizian.

**Markina-Xemein.**

**Bertsolarien Bilera karmeldarren komentuan**

1964an, gaiekin egin eben bertsoan. Artañola  
izan zen jartzaile eta, beste batzuen artean, hauxe  
ipini eutseen Lopategi eta Arregiri:

"Lopategi izango da konbentu hontako Aita  
zuzendaria eta Arregi kalean dabilen mutil koskor  
gaizto samarra. Kristal bat puskatu diote leihoari  
eta Aita zuzendariak uste du Arregi izan dala. Ate  
hur samarrean harrapatu du eta ez daki nola  
libratuko dan".



*J. Lopategi*

Konbentu hauxe zaintzera nabil  
neure desio haundian  
ta gertakizun itsusi asko  
pasau jaku aspaldian.  
Mutiko honek lehio bat hautsi  
ez zigun ba lehungunian!  
Belauniko gaur jarri behar det  
geure eleizaren erdian.

*J. Arregi*

Aita maitea zelan izan zan  
esango dizut onian  
harri batekin kristala apurto  
nuen lehengo egunian.  
Kurrido bat han ikusi nuen  
teillatu baten garian  
harek pikardi txarra egiten  
baitu soloko garian.

*J. Lopategi*

Hauxe izan da mutil koskorrak  
gaur esan digun itzala  
nik pentsatzen det bere barruan  
oilar asko daguala.  
Ezagutzen det gaiztakeria  
ez dala guztiz makala  
Pentsatu al zendun gu praile danak  
bela beltzak giniala?

*J. Arregi*

Beste hau ere esango dizut  
nik, Aita, ondorenian  
deskoidu baten izan zan eta  
konpondu gaizan onian.  
Dirua jada biltzen det pixkat  
errekaduko lanian  
ta kristal hori ordainduko'izut  
irabazten dedanian.

*J. Lopategi*


Gaiztakeria egiteko hau  
gazterik degu abila  
zuzendarien aurrian ere  
ez da azaltzen umila.  
Esan eiozu zure aitari  
honuntz etorri dedila  
ta egunero zu bialtzeko  
edukazioen bila.

*J. Arregi*

Praile honek gogor hartzen naitu  
hitza hain txarto eginik  
pentsatu zazu intentzio txarrez  
ez detala hori egin nik.  
Baina honegaz agurtzen zaitut  
neure eritzia esanik  
ez nuen uste horrenbesteko  
bihotz gogorra zinanik.

## XABIER ARRIAGA "TXIPLAS"

Errigoitiko Metxika auzoko San Migel baserrian jaio zen, 1957-X-16an, eta gaur be hantxe bizi da, nekazari, herriko eskolaz gainera, lanbide heziketa egin ondoren. Bizibideaz gainera, bere konpromiso nagusia baserria izan da eta dau, EHNE sindikatuan ekin-tzaile aktibo izanik. Konpromiso politikoak be urte mordoan preso eragin deutso, Espainiako hainbat kartzelatan.



Bertsolaritzako lehenengo urratsak lagunarteko giroaren eraginez egin zituen, Jon Lopategiren inguruan, batez be, eta beronek bultzaturik plazaratu zen. Entzutea emon eutsan lehenengo lorpena Bizkaiko bertso-eskolen arteko lehenengo sariketa irabaztea izan zen, 1984an, Mungiako pilotalekuan.

Harrezkero, Bizkaiko txapelketan hainbat bider parte hartu izan dau, 1990ean finaleraino heldurik.

Txapelketen sailean datozenez gainera, hona hainbeste zabaldu diren *Markosen Txarria* izeneko bertsoak.

### Markosen txarria

1)  
Markosek egin eban  
lastozko zubije  
bertatik pasatzeko  
bera ta txarrije.  
Pasatzen hasi eta  
jausi zan zubije  
Markosek hartu eban  
kristoren hostije.

2)  
Horrelaxe hil jako  
makina bat pizti  
baina aurrera doa  
euri ta eguzki.  
Markosi bardin jako  
busti zein ez busti  
errekan zehar doa  
txarri eta guzti.

3)  
Errekatik urten zan  
goraino bustirik  
gainera sikatzeko  
ez zan eguzkirik.  
Egindakoarekin  
guztiz damaturik  
barriz ez dau egingo  
lastozko zubirik.

4)  
Erreka bazterrean  
gardeagaz kezka  
lizentzi barik egin  
ete dauan peska.  
Eskuak gora jasoz  
Markosen protesta  
"hau neure txarria da  
arrankaria ezta".

5)  
Errekea pasatu  
eban ozta-ozta  
gero gardea zala  
ta txarriak ospa.  
Markosek bere atzetik  
mekaguen dioska  
"txarria pasatzea  
ez jat gitxi kosta".

6)

Markosen txarria zan  
artoz hazikoa  
San Martinetarako  
berebizikoa.  
Markosi alde egin  
ta igesi doa  
agur solomo eta  
urdaiazpikoa.

7)


Munduan ez egoan  
holako piztirik  
txarria maite eban  
eta ez besterik.  
Ez dau aurkitzen hilda  
ez eta bizirik  
inon aurkitu ezin  
holako hostirik!

8)

Txarri bila hor dabil  
behera eta gora  
igesi joan jako  
ta ez daki nora.  
Pentsamendu tristea  
jatorko gogora  
“gatzunaskaren baten  
gordeta egongo da”.

## ANTON ARRIOLA

1960-VI-12an jaio zen, Nabarnizko Mutio base-  
rrian. Herriko eskolaz gainera, ikasketa ertainak  
egin zituen, administraritza arlo-  
an. Bere anaia Josu Arriolagaz  
batera, bertso-eskolen bitartez  
urten eban plazara, prestakuntza  
nagusia lagunartea ebala. 1984ko  
Bizkaiko bertso-eskolen arteko  
sariketan parte hartu eban eta,  
geroago, 1987ko Araba-Bizkaiko  
txapelketan finalerdietan kantatu  
eban. Euskal Herrikoetan,  
1986koan parte hartu eban. 1990 inguruan, ber-  
solaritzari iztea erabagi eban.



### Sara (1986-II-09)

Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko azken-laure-  
na. Bizkaitik, goizean Anton Arriolak kantatu  
eban eta arratsaldean, bere anaia Josu Arriolak  
eta Ireneo Ajuriak. Animerik ez eben falta izan,  
entzule joandako bizkaitarrak, hain asko be ez,  
baina zaratatsuak ziren eta.

*"Zu, Arriola, eskalea zara; gaur zoologiko baten  
aurrean zaude eskean. Aurrean duzun Xanpun,  
zuri begiratu, tximu bati kakahueteak botatzen  
ari da".*

### A. Arriola

Dirudienez nire lagunak  
ondo betea du poltsa  
baina ez dakit nundik arraio  
galduko zitzaion lotsa.  
Hementxe nago oso gose ta  
probaturik goizeko hotza  
horra noraino heldu leiteken  
aberatsaren bihotza.

### Xanpun

Hor bi eskale ikusten ditut  
eta ez naute kezkatzen  
gizona utzita hortxet ari naiz  
tximinoaren bazkatzen.  
Gustagarria zaitela hori  
hemen ez dautsut ukatzen  
zuk ez dakizu tximino horrek  
bezin poliki eskatzen.

### A. Arriola

Tximino hoiek ikusten daude  
hemen gizon ta andere  
ta palomitak hoiei botatzen  
saiatzen dira gaur trebe.  
Hori ikusiz nik ezin egon  
ez lasai ta ez alegre  
hoiek ederto mantentzen dira  
zuk jaten eman gabe ere.

### Xanpun

Ez hemen saia eskale jauna  
bihotzaren garraitzeko  
gu ez baigira egun eginak  
naski elgar aditzeko.  
Tximino hori goxagarri da  
jendearen jostatzeko  
zuk bi sos hartu eta bazoaz  
hor segidan arrailtzeko.

### A. Arriola

Mundu honetan arras galduta  
daukagu gizonen sena.  
Ai ze pena dan, dana hobeto  
konponduta litekena!  
Hemen naukazu erdi hila ta  
ez didazu hartzen pena.  
Nire ustez zeu zara barruan  
egon behar zenukena.

*Xanpun*

Nik konseilu bat emanen dautzut  
 oraintxe jauna hitz bitan  
 nere arrazoi hori eduki  
 bihotz edo bai begitan.  
 Emanen dautzut bai zuri ere  
 ta gainera lorietan  
 hori bezala hasten bazira  
 orain ximinokeritan.

"Orain bakarka, Seaskari. Iparraldeko ikastolari"

Orain artean gure nausiak  
 mantendu dira erruge  
 ta bitartean danok sufritzen  
 gaude egun eta gaube.  
 Ez gara izan orain artean  
 geure buruaren jaube  
 Iparra ere euskalduna ta  
 ia salbaturik gaude.

Esan dudan lez sufritu dugu  
 goitik hainbeste eraso  
 geure hizkuntzak eta ohiturak  
 badute hainbat arazo.  
 Baina aurrera goaz gu eta  
 burua dezagun jaso  
 tartean dagon muga hori ere  
 kenduko dugu akaso

**Durango (1986-II-23)**

Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko azken-laurena. Goizean, Josu Arriola eta Irene Ajuriak egin eben bertotan, M. Mendizabal, A. Larrañaga, Laka, Goiburu, Otamendi eta Xalbador II. agaz batera. Arratsaldean, Anton Arriola izan zen, X. Euskitze, E. Alkat, Xanpun, X. Zeberio, M. Telleria, J. Narbaiza eta A. Egañagak jardun eban bizkaitarra.

Puntua: *Durangon gaude eta  
 kanta Bizkaiari*

A. Arriola: Hortan ikasi nion  
 nik neure aitari.  
 Herria bultzatzeko  
 ez naiz inoiz nagi  
 horregatikan egin  
 nintzen bertsolari.

"Bakarrean kantatzeko. Gabaz ohean loak hartu ezinik zaude. Zer dela eta?"

Atzamarrak dardadaka  
 ta oso urduri barrua  
 oinak ere hotzikeran  
 ta baltzituta larrua  
 inola ezin dut lorik hartu  
 hor sortzen zait amorrua  
 aspaldi hontako bertso saioek  
 daukate horren errua.

Txapelketa gogorra da  
 egiten naiz horren kargu  
 kantariak ardura bat  
 barru-barruan dakargu.  
 Eta bihotzak minutuero  
 ehun taupadatan dihardu.  
 Ez banuke nahi kanta, nire orde  
 zeinek kantatu behar du?

Neuk nahi ez da trabaturik  
 sarri askotan mingaina  
 ta atzean gelditzeko  
 hartua nengon usaina.  
 Ez naiz aritu gehien batzutan  
 neuk gure nuen adina  
 ta azkenean bukatua dut  
 ez da erreza izan baina.

## JOSU ARRIOLA

Josu Arriola 1964-VIII-16an jaio zen, Nabarnizko Mutio baserrian. Herriko eskolaz gainera, lanbide heziketa egin eban. Bere anaia Antonegaz batera, bertso eskolen bitartez hasi zen plazara urteten. 1984ko Bizkaiko eskolen arteko sariketa irabazi eban eta, 1987ko Araba-Bizkaiko txapelketan, finalurrekoetara heldu zen. Euskal Herrikoetan, 1986 eta 1989koetan parte hartu eban. 1990 inguruan, oso gazterik, bertso-laritzari iztea erabagi eban.



### Zarautz (1983-IX-07)

Bertsolari gazteentzako Lizardi saria jokatu zen zortzigarren. Andoni Egañaren aginduetara kantatu eban bertsolariak.

Agurra:

Martxan jarriko dogu  
gure kirol zaharra  
bakoitzak emango du  
barruko indarra.  
Hainbeste kiputz dago  
ta ni bizkaitarra.  
Artalde hontan neu naiz  
ardi beltz bakarra.

Azkena emonda:

*Perretxikoak bezain errezki  
ez dira sortzen bertsoak.*

Perretxikoak ematen ditu  
Euskal Herriko basoak  
sartenean be buelta bat eman  
ai zer janari gozoak!  
Ta berriz hemen esteak txarto  
eta dardaran besoak  
Perretxikoak bezain errezki  
ez dira sortzen bertsoak.

Puntua: *Zer dala uste duzu  
enamoratzia?*

*J. Arriola:* Gaur zaila izango det  
erabakitzia.  
Bihotz goxokoa ta  
beroa atzia.  
Zelai baten larrosa  
onena hartzia

### Sara (1986-II-09)

Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko azken-laurena. Goizean bere anaia Anton Arriolak kantatu eban.

Agurra:

Gaur Sara, gero Durango  
ez da erreza izango  
baina ezin egin tongo.  
Geuk dakiguna azaldu gabe  
ez gara hemendik joango  
Aurren edo azkenengo  
kantatu txarto edo ondo  
behintzat txaloak jo sendo!

*"Zu, Arriola, aita zaitugu eta zu, Xalbador, bere semea. Gaur biok etxetik kanpo zineten eta, taberna bereko erreserbatu batean, emakume banarekin topo egin duzue"*

*Xalbador II*

Maiz egiten ditugu  
guk bekatu batzu  
gero urrikiak eni  
emaiten deraut su.  
Ni horrela ibiltzea  
oraino naiz aizu  
baina emakumekilan  
aita, nun zabiltz zu?

*J. Arriola*

Indarrak joan zaizkit  
hala ere ez danak  
oraindik maite ditut  
neskatxen ezpanak.  
Hemen esango ditut  
nik ahal dudan danak  
lehor bihurtu dira  
amaren laztanak.

*Xalbador II*

Aita, hasarre batek  
zugana nerama  
ez baitzait asko gustatzen  
egin dezun lana.  
Itzul zaitte berriz bide  
zuzenarengana  
errespetatu semea  
eta nere ama.

*J. Arriola*

Ezkontz egunez ama  
hain aurpegi alaiz  
jaten emoten zidan  
ta gainera garaiz.  
Orain atzea beti  
ostikoa ere maiz  
beti jaki batekin  
aspertu egin naiz.

*Xalbador II*

Amaz aspertu dela  
nere aitak dio  
eta gauza horrek ni nau  
ezarri serio.  
Desohore asko bada gaur  
hau dela medio  
Horrek zuretzat ez dauka  
aunitz amodio.

*J. Arriola*

Emazte zaharra daukat  
nago erdi-alargun  
eta gaurko gauean  
jarri da adardun.  
Taberna hontan biok  
gaur baikara lagun  
tokian gaude biok  
ta goza dezagun.

Azken agurra:

Akaso ez ziren hemen beteko  
neure lagunen gustuak  
baina gehiago ezin zun eman  
gazteenaren auspuak.  
Juezak ere gaur badirudi  
ez zeundela hain justuak  
baina guk bezain lan zaila dute  
ta zergatik jo txistuak?

**Bilbo (1989-VIII-20)**

*"Nabarnizen, 248 lagunetarik, bat bakarria ei dago euskeraz ez dakiena. Halan da guztiz bere, agintari batzuek idazkari erdalduna bialdu gura dabe bertara, euskeraz ez dakiena". Bertso bietarik lehenengoa hauxe kantatu eban:*

Euskarak ez du gaur egunean  
falta eraso ilunik  
ta Nabarnizen ez dogu uste  
falta jakonik lagunik.  
Idazkaria inposatu nahi  
baina gu gaude zutunik  
ez baita hemen legerik eta  
ez gobernadore jaunik  
geure hizkuntza erabiltzea  
debekatuko digunik.

**JUAN GABIOLA,  
"AMOROTOKO ATXURRA"**



Alfonso Irigoienek bertso-paper bat gordea zeukan, "orain berrogei urte inguru, *Amorotoko Atxurra bertsolariak atariak*" oharrez. 'Atxurra' hori Juan Gabiola Atxurra da, Amoroto herrikoa, 1945-IV-17an Lekeition hil zena, 65 urte zituela. 1880an jaio zen, beraz. Hemeretzi urtegar joanda, aberats samar itzuli zen Ameriketatik. Dultzaina-jole susua zen. Ameriketan hemengo emakume bategaz ezkondurik, "andreak beste bategaz eskapatu eutsan", kontatu deuskue ondorengoek. Alaba bat izan eban, Ameriketan gelditu zena. Juan Gabiolak, Euskal Herrira itzuli ondorengo 21 urteetan, "beharrrik ez eban egin -dinoe-, dultzaina eta musika besterik". Bakarrik bizi zenez, bertso-sortaren motiboa bere burua zela dirudi.

318

1)  
Hamabi bertso atara ditut  
neuk ahal dodanan moduan  
publikuari esplikatzeko  
zer estadutan nagan.  
Baita ganera esan bihar dot  
formalidade osuan  
sobra batentzat suberte ona  
neurekin zelan dagan.

2)  
Umetatikan ikasi neban  
lana egiten finian  
baita segidu aspertu gabe  
diruak egin artian.  
Eta urtiak berrogeta lau  
kunplidu jatazanian  
pentsatu neban pasiatzia  
neure diruen trukian.

3)  
Halantxe nabil jan da pasiau  
harrezkeroko guztian  
udabarriko txoriak legez  
beti umore onian.  
Ez naz ibilten harrokerian  
eta gastu demasian  
baina bai ondo neure gorputza  
erabilteko bestian.

4)  
Eta gainera egiten nago  
dirutxua aurreratu  
neuri konbeni jatan guztia  
eginagaitik gastatu.  
Bizio txarrik ez daukat eta  
ez dot bere gura hartu  
bastua izan baino lehenago  
eingo nintzake urkatu.

5)  
Horrez ganera neuk daukadana  
sentimentuzko penia  
neure diruak mundu honetan  
modu txarrian iztia.  
Testamenturik egin bagarik  
izan ezkerio hiltia  
juezarentzat zati batzuek  
nora jakin ez bestia.

6)  
Hori pasatu baino lehenago  
gura neukien gauzia  
kriadatxu bat zuzendu eta  
danak berari iztia.  
Nolabaitian izango baneu  
topatzeko subertia  
ondo pozikan hartuko neuke  
konfiantzazko enbria.



7)

Kondizinuak esango ditut  
zelan izango dirian  
inork etorri nahi baldin badau  
alogeraren pozian.  
Testamentua lehenengotatik  
egin bere izenian  
eta soldata ona pagatu  
neu bizi nazan artian.

8)

Hamabitikan berrogeta bost  
urte bitarte duana  
ume bagerik baldin badago  
soltera nahiz alarguna.  
Baina derrigor izan bihar dau  
enbra ona eta fina  
beraren aita banintz bezela  
estimatuko nabena.

9)

Neure izatia konfiantzara  
bere eskuetan izteko  
ona ta fina eskatutia  
ez da izango milagro.  
Eta nik ez dot horixe baino  
beste gauzarik desio  
neure munduko bizi labur hau  
kontentuz akabatzeko.

10)

Ibilten bada modu txarrian  
eta neugaz abusetan  
errazoiagaz ernegau eta  
ipiniko nau berbetan.  
Baina badabil formalidadez  
bihar dan modu onetan  
neure bizitza pasatuko dot  
beti bera adoretan.

11)


Pentsau egizu ez dala izango  
beti honako aukera  
bizimodua ederra eta  
fortuna egin ganera.  
Inok etorri nahi baldin badau  
tratua zarratutzera  
bertsuetako kondizinuak  
ez dot egingo atzera.

12)

Zer borondate daukadan klaru  
egiten dot nik agertu  
eta baxotzak berak bihar dau  
zer egin orain pentsatu.  
Honenbestegaz gura dabenak  
egingo dau entendidu  
eta gehiago esan bagarik  
egiten naz despedidu.

01. **Ahal dodanan:** ahal dodanaren.**Sobra batentzat:** sobra dagoen batentzat.03. **Erabilteko bestian:** erabiltzeko beste, neurrian.06. **Zuzendu:** aurkitu, inguratu.07. **Aloger:** lansari, soldata.10. **Abusetan, adoretan:** abusatzen, adoratzen.

## JON AZPILLAGA



Bertsolaritzaren historiara plaza-gizonik handienarikotzat (handiena esatea ez litzateke oker nabarmena) pasatuko den hau 1935eko azaroaren 26an jaio zen Pasaia San Pedron, aita ondarrutarra eta Berriatuko Torre baserriko ama hara ezkondu baitziren, aitak portu haretako dragan lan egiten ebalako. Ez zen luzerako izan. Hurrengo urtean gerrak urten eban, aita Itsasalde batailoian frentera abiatu zen, eta ama-

umeak Berriatura itzuli ziren, amaren baserrira, Jonek hamasei hilabete zituela. Aita, zoritxarrez, ez zen gerratik itzuliko, Jata mendiko bonbaketan hil baitzen, seme bat eta sei hilabeteko haurdun zegoen alargun bat itzita.

320

Umezaroa eta gaztaroa Berriatuan eginik, soldadutzatik bueltan, Azpillagaren ama eta seme biak Ondarroara joan ziren bizitzera, harik eta 1960an, Isasimendiko Maritxu Arrizabalagagaz ezkondu-rik, Mutrikun kokatu zen arte. Harrezkero, hantxe bizi da eta, berak dinonez, handik inora aldatzeko gogorik ez dauka.

Mugartegi herkideagaz, lehenengo plaza, hamabost urtegaz, Amoroton eginik, Azpillagaren sena guztiz bideratu zen bertsoetara. Txapelketa handi batera, lehenengoz, 1959an aurkeztuko zen. Bizkaiko txapelketa zen eta bigarren egin eban, Balendin Enbeitaren ondoren. 1960an be bigarren egin eban, oraingoan Mugartegi txapeldunaren ondoren. 1961ean bera izan zen Bizkaiko txapeldun eta Sardui bigarren. 1962koa Lopategik irabazi eban eta Azpillaga bigarren gelditu zen. 1964an, berriro Lopategik irabazi eban, Mugartegi bigarren eta Azpillaga hirugarren gelditurik.

Bitartean, ostera, Euskal Herriko txapelketak be abiatuak ziren, 1960koa batez be, non Azpillaga gaztea hirugarren geratu zen, Basarri txapeldunaren eta Uztapide txapeldunordearen ondoren. Honeek biok lehendik be ezagunak eta ospetsuak izanik, Azpillaga izan zen txapelketa haretako errebelazino nagusia, ez gaztetasunagaitik bakarrik, egin eban saioagaitik baino. *Hasi, Azpillaga liburuaren 235. orrialdean dino: "Txapelketa horren aurretik, ni ez ninduen ia inork ezagutzen. Han egon zen jendearen %99 gipuzkoarra izan zen. (...) Ni orduan ezagutu nintzan eta handik aurrera ez naiz gehiago gelditu".*

Hurrengo Euskal Herrikoan, 1962an, Bizkaiko ordezkariak Azpillaga eta Lopategi izan ziren. Final haretan, Azpillaga ez zen goizetik arratsalderako sailkatu. 1964ko Euskal Herrikoan, Azpillagak ezin izan eban parterik hartu, Bizkaikoan hirugarren gelditu zen eta. Aitatutako liburuaren 241. orrialdean dino: *"Orduan laga nion txapelketa. Izan ziren gehiago, baina ni ez nintzen presentatu. Bazan halako zer bat, gipuzkoarra nintzela, bizkaitarra nintzela... inork ez zekien non goa nintzen ere, eta gero gipuzkoarra Bizkaian txapeldun... Bizkaitarrei hori ez zitzaien gustatzen eta neure artean esan nuen: ni zertan nabil hemen, ez gipuzkoarra, ez bizkaitarra... batez! Kontu hauek Mutrikura ezkondu nintzenetik sortu ziren. Batetik, Pasaian jaio, bestetik, Mutrikun bizi... 1967an ez nuen parte hartu ez Bizkaikoan, ezta nagusian ere".*

Bien bitartean, Loiola Irratiko sariketa be irabazita zeukan 1963an eta 1965ean. Beste sariketa batzuk be, Hernandorenaren eskutik, batez be, asko zituen jokatuak (Parisen, Gernikan, Iparraldean...) Lopategi, Xalbador, Basarri, Uztapide, Mattin... eta sasoiko onenen artean, Lopategigaz bikote eginik, batik bat. Txapelketetatik erretiretako moduan zegoen, beraz.

Halan be, 1967an, Oena pentsuek babestuta, Euskaltzaindiak sariketa berezia antolatu eban. Bere eritziz, hamasei bertsolari onenak hautaturik, Azpillaga be, zelan ez, barruko zen eta aurkeztu egin zen. Gero txapelketa guztiek eten luzea izan eban eta hurrengo aroko lehenengoa 1980an jokatu zen. Azpillaga aurkeztu zen eta finalean kantatu eban. 1982koan be, finalean sartu zen. Bizkaikoetan, barriz, aro barriko lehenengoa 1987ko Araba-Bizkaiko txapelketa izan zen. Azpillaga finalera heldu eta bosgarren gelditu zen, Lopategi txapeldun, Amuriza txapeldunorde, Jon Enbeita eta Elgetzuren ondoren. Horixe izango zen Azpillagak parte hartu eban azkenengo txapelketa.

Txapelketak txapelketa, Azpillagaren arrakasta nagusia, erabatekoa, Lopategigazko kideztatik etorri zen. 1962 inguruan hasita, bikotea gasolinazko sua legez zabaldu zen Euskal Herri guztian. Oraindino frankismo gorrian, herrian gorantz zetorren bizkunde-olatuari heltzen eta sakatzen asmatu eban, bertsolaritza, gerra osteko bertsolaritza, behintzat, inondik be ohikoa ez zen ausardiaz. Urteetan be ez zen izan bikote horri gerizarik egingo eutsan bertsolari-fenomenorik, gazteen artean, batik bat. Berotasun masiboa izan zen ha, euskararen esparru erlatiboan beti be, jakina. Eta ausardia ez zen beti inpune ibili. Azpillagak eta Lopategik zigor, debeku eta jarraipen ugari izan eban orduko gobernu zibil eta salatzaileen aldetik. Amoroton, 1950ean, lehenengoz kantatu ebaneko mende erdia antzina igaro da, eta Azpillagak oraindino kantuan jarraitzen dau, "... ahal dogun arte".

Mikel Aizpuruak, 2001ean, *Hasi, Azpillaga* izeneko liburu mardula argitaratu eban, Auspoa-Sendoa 272, non Azpillagaren bizitzaren eta bertsoen bilduma zabala jasotzen dauen. Hemengo bertsoak, besterik izentatzen ez denean, liburu horretatik hautatuak dira.

## Bertsoak

1970eko 181. zenbakian, *Anaitasunak*, Gernikan, Lopategi, Azpillaga, Xalbador eta Mattinen artean jokatzeko antolatu eban lehiaketa baten barri dakar. Ikus xehetasun gehiago, Lopategiren atalean. Azpillagak *Gernikako arbola* gaiari kantatutako hiru bertsoetariko bat jasotzen dau:

Gernika aldeko arbola zaharra  
jaso nahi zaitut gorantz  
zure ondoan dabiz euskaldun  
bertso, abesti ta dantza.  
Ekaitz gaiztoak izan dituzu  
ta egin duzu balantza  
baina oraindik zugaitz zaharra da  
euskaldunen esperantza.

Eta "*bertsolaria eta euskera*" gaian, honako bertso biok kantatu zituen:

Bertsolari ta euskera dira  
baten eskuak bezela  
askok sinesten ez badu ere  
nik pentsatzen dot honela.  
Euskera degu mamin sakon bat  
eta gu gera azala  
esan nahi nuen hau galtzen bada  
gu ere galdu gerala.

Euskerarekin hortxe gabiltza  
batera eta bestera  
esaten euskun: "bigun nago ta  
etorri neri eustera".  
Lehen bigun xamar egon bada ere  
gogortuko da ostera  
bertsolari bat dagon artean  
ez da galduko euskera.

## Deustuko Unibertsitatea (1975-I-17)

J. Arregi, J. Azpillaga, J. Lopategi, Mattin eta Lazkao Txiki izan ziren bertsoetan.

Puntua: *Euskaldun izatea  
ba al degu merezi?*

*J. Azpillaga:* Hementxe jaio nintzan  
ta hementxe hazi.  
Nahiz eta dana bete  
ota edo sasi  
ni ez naiz hemendikan  
juango ihesi.

Puntua: *Adanek ez zun izan  
amagiarrebik*

*J. Azpillaga:* sekulan ez det entzun  
holako egirik.  
Ez al dezu eduki  
ertera hoberik?  
Inork ez bagenduke  
ez zegon kalterik.

### **Txapelketa Nagusiaren finala (1960-XII-18)**

*"Hiru bertso bota behar dituzu, bertsolari zaharren  
gainean daukazun iritzia azalduz". Azpillaga gaz-  
teak hiruko haxe kantatu eban:*

Nik zer esango dizuet bada  
lehengo zahar haiei begira?  
Penagarri da baino hemendik  
aspaldi samar juan dira.  
Eta gazteak eman nahi degu  
ahal dan ondoen segira  
baino oraindik askozaz hobe  
zahar haiek bizi balira.

Izen batzuek kondairak ditu  
oroimengarriz jarrita  
gu baino askoz hobeak ziran  
hori nago igarrita.  
Garai bateko Pello ta Otaño  
eta hurrena Txirrita  
guk zer arraio egiten degu  
toki hontara etorrita?

Pello Otañoren bertsuak entzun  
ta bat hartzen du beldurrak  
Ameriketan gelditu ziran  
bertsolai honen hezurak.  
Zertako dira etsaiak eta  
zertako gauza maltzurak  
bertsolaririk onena hantxen  
estali bazuan lurak?

Uztapide, Xalbador eta Azpillagari, Basarrigaz txa-  
pela jokatzera nor pasatu lehian, kartzelako gai-  
tzat honakoa ipini eutseen: *"Lau bertso bota behar  
dituzu, esanik oraingo aurrerapenak zure ustean  
dauzkan mesedeak edo dituen kalteak".* Azpilla-  
gak lauko honegaz denak txundituta itzi zituen:

Aurrerapena dala merio  
hor dijua nere hitza  
egun batetik bestera dator  
laburtzen gure bizitza.  
Motuak eta kotxe guztiak  
galdu-gordian dabilta  
ez baitakite nun dadukaten  
belozidadeko giltza  
adelantuak ederrak dira  
onerakuak balitza.

Hamaika gauza triste ikusi  
izan behar da lurrian  
desgrazi hoiek hobe dirade  
ez izatea hurrian.  
Zeinbat heriotz ikusten diran  
karretera bazterrian  
oraingo hontan bizi gerade  
izate beldurgarrian  
hobe gaur ere bizi bagina  
lehenako era zaharrian.

Sekulan ez da gauza txarrikan  
nahi izan bizi guzian  
ia gehienak munduan gabiltz  
oso gorroto bizian.  
Begira ondo zer martxa dagon  
Amerika ta Russian  
bata bestia insultatutzen  
gerrarako garrasian  
adelanturik ez dago alkar  
hiltzeko izan ezian.

Etxian batek izaten ditu  
hitz eta laztan gozuak  
seme edarrak hazten dituzte  
horra beren gurasuak.  
Gero gerrara hor dijuazte  
han bala-kainonazuak  
mutil gaztiak eratu behar  
horrelako erasuak  
adelantuak zer diran horra  
Azpillagaren bersuak.

Uztapideri eta Azpillagari, nor aurrera pasatu, gai  
hauxe ipini eutseen: *"Hiru bertso bota behar dituzu,  
esanik zerua nolakoa ote dan zure iritzian"*. Azpilla-  
gak bigarren-hirugarrenak honakoak kantatu zituen:

Bertsolariak oso gaitza du  
hauxen ondo esatia  
zeruak ditun gauza guziak  
dizdiratzailiak dia.  
Dana omen du urre ta zilar  
ta berdin diamantia  
nik jakitzeko beharko nuke  
gero bertara juatia.

Zerua zer dan nik esango det  
behintzat neronen ustian  
mundu honetan guk nola jakin  
zer berri dagon bestian?  
Zerbait ikasi nuan dotrinan  
eskolara juatian  
gozamen guztiz bizi ohi dira  
eternidade guztian.

### Mutriku (1994-IX)

*"Uda aldean, batetik bestera bertsoan dabilen  
Mañukorta baserritarrari, Azpillaga azkonarrak arta-  
soro erdia hondatu dio"*. Buelta batean, Azpillagak:

Ontzat ez det hartuko  
jaun horren esanik  
plazaik plaza ibili  
ez du beste planik.  
Dirua irabazten du  
bertsotara joanik  
gainera ez zaio falta  
jan eta edanik  
orain arto jorratzen  
ez daukazu lanik.

### Mutriku (1996-IX-07)

*"Azpillaga erratzarekin bazterrak garbitzen ari den  
amama da, eta Mañukorta txoko baten amaraungi-  
nan ari den armiarma"*. Azpillaga hasten da:

Ni amona bat zaharra naiz baina  
batere ez zait inporta  
ta armiarma bihurtutako  
prenda bada Mañukorta.  
Zikintzen dizkit sukalde, atari  
armaio-atze ta korta  
berehalaxe hil behar det hau  
eskoba honekin jota.

Mañukorta: *"Zuk bezelaxe estimatzen det / nik ere  
neure bizia"*.

Bizia maite dezula baina  
egin beharko adio  
garbitasun ta txukunkeriai  
ez diezu amodio.  
Amarau eta zikinkeria  
besteik ez zaizu jario  
gaizki egiteko bestetarako  
zuk ez baitezue balio.

**1982ko Txapelketa Nagusia. Durango**

Puntua: *Zu haundi eta ni ere haundi  
nork erasoko lanari?*

*J. Azpillaga:* Gauz xebreak esaten orain  
hemen ez ote da ari?  
Arrazoa ere eman leioke  
hori esan dūn jaunari  
ta lana berriz utziko diot  
gogua dadukanari.

**Azpeitia (1977-XII-18)**

*"Larrañaga eta Azpillaga. Azpillaga neska laguntze-  
ra joan da eta begia belztuta etorri da. A. Larrañaga  
"ta ez zaio gertatu / gustoko neskata / norbaitek  
eman dio / muturreko latza" hasirik, jarraitzen dau:*

Jakin gabe hitz egin  
da hutsik haundina  
isilik egotea  
hobe ez dakina.  
Neskatxa hori zan gozo  
ona eta fina  
beltzuna hau da haren  
anaiak egina.

*A. Larrañaga: "Igurtziko zun maite / izan bazinuzen".*

Igurtzeko ere nago  
gizon aproposa  
ederki ibili zan  
halako larrosa.  
Nerekin hainbestean  
ez ziteken goza  
anaien disgustua  
neskatxaren poza.

**Donostia. Mattini omenaldia (1972-I-16)**

*"Joxe Agirrerri andreak ihes egin eta Azpillagarekin  
juntatu da". Agirre hasirik "honekin nola konfor-*

*ma leike / nirekin aspertu zana" esanez, Azpilla-  
gak darrai:*

Uste zenduan andrea hartu  
zendula beti-betiko  
baina koittauak alde egin behar  
honek ez bazuen hilko.  
Bere arrazoitan hau ibili da  
beti gogor eta tinko  
etxean ondo hartu bazendu  
nigana ez zan etorriko.

*J. Agirre: "Zurekin ez du, ez, pasatuko / nerekin  
hainbat denbora".*

Zure etxetik ihes eginda  
nerean dago behinepin  
egin behar ziran lanak egiten  
gogotikan dio ekin.  
Gizon jator ta ona nintzana  
hark lehendikan zuen jakin  
orain hi hago andrerik gabe  
eta ni berriz birekin.

**Azpeitiko Izarraitz pilotalekua (1975-XII-20)**

*"Negarrez jaiο den haurrari. Bertso bitarik biga-  
rrena haxe kantatu eban:*

Oraindik jaiο berria zera  
daukazu zotin umila  
mutil polita, begiak dir-dir  
ta gorputza borobila.  
Negar pixka bat egiten duzu  
kukurrumixka isila  
nik nahi nukena halako baten  
buelta etorri dedila  
gero garrasi egin beha'zu  
askatasunaren bila.

**Mutriku (1993-IX-11)**

*“Egaña Saioa alabarekin etorri da Mutrikura. Hemen Azpillagaren iloba Malenekin alkartzen da. Neskato biak, Saioa (Egaña) eta Malen (Azpillaga) berbetan hasten dira”.*

Aizu, Saioa, ikusten zaitut  
neska polit ta epela  
behin ikusita konfiantza ere  
hartu behar deu berela.  
Ikusten zaitut zure aitatzokoin  
honuntza heldu zarela  
eguna ondo pasatze'al dezu  
nik aitonakin bezela?

A. Egaña: *“Zu aitonataz harro bazaude / ni aita-  
txotaz ere bai”.*

Ni baino zerbait zaharrago zera  
ta badaukazu kemena  
telebistatik bertsoak aitzen  
nik ere badet ahalmena.  
Zure aitatzokoin Andoni Egaña  
badakit hain ona dena  
nere aitonak izan behar du  
bertsolaririk onena.

**1980ko Txapelketa Nagusiaren finala**

Puntua: *Oilo bat falta zaigu  
oilategiatik*

J. Azpillaga: Hori ez zendun esango  
behinik behin nigatik.  
Nolako gizona nagon  
begira bertatik  
sekulan ez det izan  
oiluaren faltik.

Puntua: *Batzuek eskubi ta  
beste batzuk ezker*

J. Azpillaga: Gaur horrela gabiltza  
makina bat bazter.  
Baina bildu beharra  
dadukagu laster  
banaka ibilita  
ez daukagu ezer.

**1976an, Segura**

Jose Mari Iriondok honako gaia ipini eutsen Azpillaga eta Igartzabali: *“Lehenago, gure garaian, oraindik urte asko ez dirala, dena pekatu huen, eta orain dena libre duk”.* Azpillaga hasi zen, honela:

Gure denboran zein libratzen zan  
pekatuaren gaitzetik  
guk ere maitemina baginun  
mingain eta bihotzetik.  
Desio asko bagendun baina  
konformaturik hutsetik  
nahiago nuke jaio bagina  
hoge bat urte atzetik.

E. Igartzabal: *“Eliza ere gaur azaltzen da / noski,  
beste era bateko / baina ez dakit mesedeko dan /  
edo hau ere kalteko”.*

Lehenago beldur izaten ginan  
gu musu bat emateko  
esku artean zeguen prenda  
nola ez gendun maiteko?  
Baina hala ere zerbaitengatik  
gauza ez genduan beteko  
Jainkuak berak agindu zuan  
alkar maite izateko.

**Donostia. Joxe Lizasori omenaldia (1977-I-16)**

*“Mattin eta Azpillaga. Mattin hila zelakoan,  
Mattinen trajea jantzita etorri da Azpillaga”.*  
Mattin hasirik, Azpillagak darrai:

Gauzak hala behar eta  
 hau're egin behar genduan  
 egin ez ta hobe nuen  
 gaur hotza nola dagan.  
 Beso muturrak bistan daduzkat  
 ta berdín belaun buruan  
 zure trajea jantzi ezkeru  
 plaira joateko moduan.

Mattin: *"Zangoraino ez heltzen eta / belaun gainan brageta".*

Oker txiki bat egin det  
 okerra behar da jaso  
 trajea hain txiki baina  
 txapela berriz eroso.  
 Ni ikusita jendeak ere  
 badu hainbat parre goxo  
 berez xelebrea banintzake  
 juan ninteke pailazo.

Mattin: *"Txaketa ere ez ailegatzen / lagun honeri gerrira / gainera behekuak guzien bistan / gero geldituko dira".*

Hala ere, honek gauzak  
 harro samar ditu kanta  
 jantzi honen barrendikan  
 nola egin zalaparta?  
 Hain da txikia, ez nau estaltzen  
 nunahitikan tela falta  
 baina nik traje hau jantzi nuen  
 gizon batena zala-ta.

#### Azpeitia (1977-XII-17)

Puntua: *Bi kilo txuleta jan  
 hala ere gosiak*

*J. Azpillaga:* nola geran berela  
 bete ezin klasiak.  
 Goserik pasa ditut  
 denbora luziak  
 ta orain jaten ditut  
 ahal diran guziak.

#### Aldaba (1970-IX-27)

Diktadura frankistaren azken aldera, Euskal Herriaren errebeldia politikoa bertsolaritzan ere plazaratu zen, 1970. urteko irailaren 27an bezala. Gipuzkoako Aldaban, Lopategi eta Azpillaga egun osorako zeuden. Bezperan Muñoz Grandes, Espainiako militarren buru nagusia, hila zen. Auzoa goian, mendi aldera egonik, saio luzean zehar Azpillagak kantatu zuen:

##### *J. Azpillaga*

Lehenago sarri entzuna  
 goian dago osasuna.  
 Aginteak e behian beti du  
 egundoko erantzuna.  
 Zuk zein kaletan bilauko dezu  
 hemengo askatasuna?

##### *J. Lopategi*

Bada hainbat gauza edar  
 zuen herri hontan zehar.  
 Baina euskaldunok aspaldi hontan  
 ez daukagu suerte lar  
 "Gora Euskadi" kantatutzera  
 mendira etorri behar.

##### *J. Azpillaga*

Lur hau behar da garbitu  
 nahi bada ongi segitu.  
*Muñoz Grandes e atzo gabean*  
 hil zala degu aditu  
 nahiago nuen lagunak ere  
 batera eraman balitu.

##### *J. Lopategi*

Hainbeste dira oindio  
 badute hainbat jenio.  
 Muñoz Grandesek hemen utzi du  
 bere hainbat ondorio  
 baina San Pedron aurrekaldean  
 pistolak ez du balio.



*J. Azpillaga*

Ez zala izan umila  
ezta gerrero debila.  
Nik opa diot bihotz-bihotzez  
zeruan gerta dedila  
baina handikan etorri bedi  
bere lagun zaharren bila.

*J. Lopategi*

Ez zuen ona bizitza  
falta du zeruko giltza.  
Militar jende zabar horiek  
lagun baitzuten eliza  
nahiago nuke Morcillo ere  
berakin juan balitza.

*J. Azpillaga*

Izan gaituzte katian  
Euskal Herrien kaltian.  
Morcillo juan izan balitza  
Muñoz Grande-kin batian  
sarrerarikan ez zedukaten  
hoiek zeruko atian.

*J. Lopategi*

Hoiek dirala bitarte  
baditugu zenbait kate.  
Gizon artean egin baitzuten  
nik ez dakit zenbat kalte  
purgatoioan egongo dira  
Euskadi libratu arte.

*J. Azpillaga*

Ezagutu nuen hala  
Bilbaon obispo zala.  
Ijito baten antzekua du  
arpegia ta azala.  
Nik galdetzen det zer ote degun  
obispo edo jenerala?

*J. Lopategi*

Edozer gauz bihotzian  
gabean eta goizian.  
Muñoz Grandes ta bere laguna  
hil direla aditzian  
sepultura bat ingo nieke  
Gibraltarreko haitzian.

**Zerain, 1972an**

Gerra oste luzean, Franco ez zen armada guztien  
“generalisimoa” bakarrik. Gotzaingaiek be, kon-  
kordatua bide, haren onespena behar eben. Fran-  
cok Santutegiak bedeinkatzen eta Katedralak  
inauguratzen zituen, 1972an Gasteizkoa legez.  
Hurrengo egunean, Azpillagak Gipuzkoako Zerai-  
nen honelaxe deskribatu eban elizkizuna:

Franco xar hori zan lenengua  
ministro danak atzian  
kanonigua sartu zan gero  
Jesukristoren trantzian.  
*Jesus zerutik etorri balitz  
eta elizan sartzian*  
danak ostikoz botako zitun  
Jerusalemgo antzian.

**Aia (1981-VIII-7)**

“Azpillaga eta Lopategi. Lopategiri afariak kalte  
egin omen dio. Koltza olioa ote. Azpillaga hasi  
zen, honela:

Ikusi degu Lopategiren  
gogoa ta pikardia  
honuntz etorri baino aurretik  
irten dio izardia.  
Juxtu-juxtuan zaude tente ta  
kolore berde-berdia  
askoz hobeto egongo zinan  
jan bazenduan erdia.

J. Lopategi: *"Nik mami hutsak jan ditut baina / honek mami ta hezurak / baina kalterik ez du sekula / hau bezelako zakurrak"*.

Txuleta haundi bat zuan aurrian  
hura zan haragi pila!  
Jan ezinian gogor ari zan  
triste ta isil-isila.  
Disimulatzen gero atzetik  
eskatu du mantzanila  
hainbat sufritzen ez dakiena  
etxera joan dedila.

**Leitza. Manuel Lasarteri omenaldia (1975-III-2)**

*"Azpillaga eta Lopategi, lehengo urtean, 1974an, biak Ameriketara izan ziren, hango euskaldunak koplutzen. Badakit esan ezin litezkeen gauzak badirela, baina zer moduz ibili zineten kontatu behar diguzue"*. Bigarren bueltan, Azpillagak kantatu eban:

Lopategi hau hemengo gisa  
han e saiatu zan tinko  
esan ziteken hangoa zala  
edo joan zala betiko.  
Nola beltza dan indioak e  
hau hartu zuten begiko  
nerekin jua ez baldin balitz  
honuntz ez zan etorriko.

J. Lopategi: *"Zuhur baitzebilen lore polit bat / beretzako nun zegoken / Azpillagari "Palo Blanco"-ren / izena jarri zioten"*.

Inolaz ere ezin gindezke  
ibili bihotz minduan  
hiru-lau lagun laga genitun  
hantxe ibili ninduan.  
Monumentu ta gauza haundiak  
han baziren inguruan  
baina Euskal Herri bakarra dago  
gurea hau da munduan.

*"Berriz jaioko bazina, zer izan nahiko zenduke?"*.  
Honeexek bertso biok kantatu zituen:

Urtez urte banijoa  
dator sortzeko atia  
laster hil beharko degu  
eman behar degu partia.  
Nik maite ditut Euskal Herria  
eta sorleku maitia  
berriz sortuko banintz nahi nuke  
bertsolari izatia.

Berriatun hazia naiz  
ta Pasain bataiatua  
Euskal Herriarentzako  
eginkizun bat hartua.  
Izan ninteke nabarmena ta  
kirtena edo kaikua  
baina berriz e izan nahi nuke  
oraintxe bezelakua.

**Txapelketa Nagusia 1982**

**Finala**

*"Lizaso auto-irakaslea. Azpillaga ikasten ari den gidaria. Biok autoan zoaztela, bazterra jo duzue"*.  
Azpillaga honelaxe hasi zen:

Nere irakasleak  
ez zaukan arretik  
orain maldizua  
sendo muturretik.  
Arnasa eta putza  
berriz suduretik  
esan didazu: "Juan  
zaite baztarretik"  
zeuk zuzendu behar zundun  
jo baino aurretik.

**Gabiria (1988-VIII-14)**

*"Xanpun sendagilea da, Azpillaga apaiza, Soroza-bal maisua. Zorioneko krisia dela eta, hiruretari-ko batek langabezian gelditu behar duzue"*.

Gu hiru lagun bildu gerade  
jarri gaitezen planian  
hirurotatik batek parora  
behar dula azkenian.  
Bat ezkontzen da, beste bat jaio  
nornahi dago agonian  
zuek parora joan zaitetze  
nik segiko det lanian.

Xanpun: "Nola, ba, utzi langile gisa / alperrena  
gaur lanean?"

Maisua degu lege berrien  
alde dabilen harrua  
mediku jaunak preserbatibon  
alde eiten du orrua.  
"Haurrak ekarri", altaratikan  
apaizaren enkargua  
orain umerik sortzen ez bada  
zuek dezute errua.

#### Zerain (1992-VI-07)

Azpillaga eta Lopategi omendu zitueen egunean,  
sariak jaso ondoren egin eben saiotik bertso bana:

*J. Azpillaga*  
Diktaturaren garaia zan da  
kontatu behar egiak  
hogeita hamar bat urte badira  
geunden sendo ta guriak.  
Hankak moteldu zaizkigu baina  
burutik gaude argiak  
oraindik beste saio mordo bat  
egin behar degu biak.

*J. Lopategi*  
Mundura jaio eta segidan  
gerrak zapaldu ginuzen  
zenbait senide frentean hilak  
Azpillagak aita, hain zuzen.  
Droga hoiekin sortzen zen gure  
sentimentua hain ozen  
gudari zaharren odola eta  
berrien arnasa baizen.

#### Mutriku (1995-VI-03)

"Zeure etxeko ispilua zara. Kontaiguzu Azpillaga-  
ri nolako erretratuak ikusten zaizkion, goizean jai-  
kitakoan, bazkalondoan eta oherakoan".


Ohetik jaiki ta erresumen bat  
ispiluan det egina  
koadro eder bat badaukat gelan  
etxean danik haundina.  
Goizean jaiki ta ez det ikusten  
oso gizaseme fina  
esaten diot: "zuk hobe zendun  
ohitik jaiki ez baizina".

Da eguerdian nun jartzan naizen  
indar ta sasoi betian  
bazkaldu eta ondorenian  
gela aldera joatian,  
esaten diot: "hoita hamar urte  
hik ez dauzkat apartian  
gutxienean hi biziko haiz  
beste berrogei urtian".

Baina gauean erakuste'itu  
aurrea eta atzea  
nekatutzean agure batek  
berakin dauka trantzea.  
Egun guztian hor ibilita  
dago indarrak galtzea  
esaten diot: "zahartu haiz ta  
hobe erretiratzea".

**JOSE LUIS BASTERRETxea "ALTZALEI"**

1956-II-08an jaio zen, Berriatuko Altzalei baserrian. Hortik jatorko izena baino ezagunago dauen ezizena. Herriko eskolaz gainera, batxilerra Ondarroan eginik, gero magistreritza egin eban Eskoriatzan. Lanbideetan, baserrian, arrautza-saltzaile, harotz... ibili ondoren, Bilboko eskoletan bertsolaritza emon eban urte mordoan, harik eta Bertsozale Elkarteko idazkari egin zen arte. Urte batzuk horretan eginik, orain be elkartearen antolakuntzan oso aktibo dabil. Irakasle, antolatzaile, eragile, gaijartzaile, aurkezle, testu-liburugile, bertsolaritzari lotuta daroa azken urte mordoan.



Bertsolaritzara etxeko eta inguruko giroaren eraginez zaletu zen, lagun artean beti kantari. Bertsolari legez, 1987 eta 1990eko Araba-Bizkaikoetan eta Euskal Herriko 1989koan parte hartu eban. Harrezkero, Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelketa guztietan dihardu antolakuntzan. Bizkaiko Bertsozale Elkarteko eragilerik garrantzitsuenetarikoa izan da eta izaten jarraitzen dau.

**Mungia (1990-XI-11)**

*"Zuk, Altzalei, espetxetik urteeran, barrura daroen Moises Enbeita zeure aitagaz topo egiten dozu". Altzalei honela hasi zen:*

Euskal Herrian sortuak eta jaiotakoak izanda herriarekin bat egin dogu nahiz ta izan hainbat demanda. Zuk erakutsi guztiak beti eroatea nahiko lan da zure kanpoko borrokan orain aita, neuk hartzen dot txanda.

M. Enbeitak *"eta kanpora urten artean / zaindu eizu ondo ama"*, kantaturik, jarraitzen dau:

Ondo dakizu beti izan naiz  
eta nere etxean zale  
zuk erakutsi, zure antzera  
semea ere abertzale.  
Lehen ni egon nintzan, orain zu, aita  
odol bat dogun seinale  
erakutsia jarraituko dut  
beti Herriaren alde.

M. Enbeitak: *"ama gaixoa triste daukagu / beti izango dot gogoan / zaindu dagigun, merezi dau ta / nik barrutik, zuk kanpoan"*.

Nahiko zeregin baditu eta  
barruak eta kanpoak  
gure burrukak aurrera darrai  
nahiz ta izan oztopoak.  
Batzuk barruan ta guk kanpoan  
borroka honen jokoak  
ta garaipenak aseko ditu  
gure amaren malakoak.

**JOSE LUIS MUGARZA "ELGETZU"**

1954-VI-07an jaio zen, Mallabiako Elgetzu base-  
rrian. Hortik jatorko izena baino ezagunago dauen  
ezizena. Herriko eskolan lehen he-  
ziketa eginik, batxilerra Derioko  
Seminarioan egin eban. Gero, tro-  
kelgintza izan eban lanbide eta  
orain be era horretako lanetik bizi  
da. 32 urte gaz, Debara ezkondu  
zen hango Nekane Salegiaz, eta  
bertan bizi dira, Eñaut eta Nora  
seme-alaba bikiekin.



Laurogeiko hamarkadan, bere kontura bertso  
zahar ugari ikasirik, lagunarteko eta bertso-esko-  
letako girotik hasi zen plazara urtetan. 1986 eta  
1989ko txapelketetan parte hartu eban. Araba-Biz-  
kaiko 1987koan, finaleraino heldu eta laugarren  
gelditu zen, saio benetan eleganteagaz. Mallabia-  
ko saria eta Mungiakoa irabazi eban, eta beste  
hainbat halako sariketatan kantatua da, Zepai  
sarian, Osinalde sarian, Artxanberri sarian, Lizar-  
di sarian... 1988an itzi egin eutsan plazako bert-  
sogintzari.

**Idiazabal. Zepai saria (1976-IX-26)**

*"Giltzapean egon diran bertsolariet"*

Zeinek ez daki, giltzaperatu  
dituzte bertsolariak  
gure herrian esan dituez  
izan diran lez egiak.  
Pekatu dana hori izan dute  
ai, gure adiskidiak  
baina kaiolan ere antzera  
kantatutzen du txoriak.

Gure lagunak ikusi doguz  
giltzapean ta katian  
baina horregatik, adiskidiak  
gu bildurtu ez gaitian.  
Aurrera ere kantaiko degu  
ez gabiltza beldurrian  
gure abotsa isilduko da  
sartutakuan lurpian.

*"Zein da gehien gustatzen zaizun egunkari edo  
aldizkaria eta zergatik?"*

Egia esan behar banuke  
behar bezela argian  
ez dot jakingo onena zein dan  
gaur gure Euskal Herrian.  
Bat baino gehio jatorrak dabiz  
gure euskaldun artian  
abertzaleak izan ezkeru  
maite ditut bardinian.

**Durango (1981-VI-21)**

Bertsolari gazteen sariketa jokatu zen, "Eguzki"  
aurkezle zela.

Eguzki: *"Elgetzuk M. Mendizabali dinotso: aizu!,  
bart neskatila zarela amets egin dot".*

Eder ikusten nuen  
nik zure baratza  
eta azaldu nahi det  
pozikan horrantza.  
Polita zeunden guztiz.  
Dirudi orratza!  
Jakin nahi det egia  
izan dan ametsa.

M. Mendizabal: *"Ez nintzan hola egongo / neska-  
txa banintza".*

Nik hor ikusi zaitut  
eta eman hitza.  
Horrenbeste sartua  
ote daukat sitsa?  
Zure zerrailarentzat  
jarri nahi nun giltza.  
Zu baino itsusiago  
hamaika dabilta.

Lau oinak: *harria, igarria, herria, barria.*

Etorkizuna nun dan  
dago igarria  
danok espero degu  
argi bat barria.  
Eta bultzatzen bada  
batuta herria  
laster botako degu  
lepoko harria!

332

#### Gasteiz (1986-II-02)

Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko azken-laurena.

*"Elgetzu kaletarra, asteburu guztietan bezela, bere mahai, aulki eta abar hartuta, Aittolaren zelaira etorri da bazkaltzera. Bazkaltzen ari dela, hor dator baserritarra".*

Aittola: *"Zelaia garbi nahi nuke eta / hori ez zazu zikindu"*

Aste guztia igaro degu  
hainbat ke zikin hartuta  
eta mendira abiatu naiz  
ni larunbata helduta.  
Zelai ertztxo hau nik utziko det  
gero ondo garbituta  
baina mendiko edertasun hau  
arren, ez zaidazu uka!

Aittola: *"Zelaia garbi utzi zazu ta / segi zaiozu mendira!"*

Nere atsedeen toki polit hau  
ez zaidazula izurra  
garbi diotsut ondo utziko  
dugu belar eta lurra.  
Paperak batu ta ertz batean  
pilatuko det hezurra  
gero gosiak egon liteke  
eta bialdu zakurra.

Aittola: *"Egun batean ez da tentetzen / zapaldu-tako belarrik".*

Zelai guztia ederra dago  
dena belarrez jantzia  
ta ertz batean zapalduko det  
lehorra eta sasia.  
Hasita nago ez nauzula ni  
maite pentsatzen hasia  
kaletik bota ta hemen nahi ez  
hau da nere desgrazia.

#### Bergara (1986-II-16)

Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko azken-laurena.

*"Zu, Jon Enbeita, herriko medikua zaitugu eta gaur zure lagunekin musean ari zarela, herritar hau, Elgetzu, presaka datorkizu, 90 urtetako bere aitona gaixo duela esanez". J. Enbeita Ordago bat jo aurretik badoala esaten hasirik, Elgetzuk darrai:*

Hori esango zidazula zuk  
neu ere ziur nenguan  
orain artean egondua naiz  
ni aitonaren onduan.  
Pausua ia jetsi zaio ta  
zorabioak buruan  
nahiz ordago hau zuk hemen galdu  
bizi bat dago jokuan.

J. Enbeita: *"laurogeita hamar urte izatea / dauka gaixorik txarrena".*

Aspalditxotik era horretan  
gero ta beherago dabil  
pultsua ere juaten zaio  
begirada dauka debil.  
Berak badaki, hiltzera doa  
eta azaltzen du umil  
baina laguntza eskaini gabe  
arren, ez zaigula hil!

J. Enbeita: *"Lasaitu hadi, egingo diot / egin neza-  
keen apurra"*.

Beraz bazatoz nerekin eta  
joko hau ezin amaitu  
aitona oraindik bizirik dago  
ez da itxoiten gogaitu.  
Seguru asko azken arnasaz  
bertan agurtuko gaitu  
baina seguru gero zerutik  
zu eskertu behar zaitu.

*"Bost urte kartzelan pasa ondoren, errurik ez  
duzula erabaki da"*.

Goguan daukat eskuak lotuz  
hartu ninduten eguna  
ondoren epai baten aurrera  
eta sortu zen jarduna.  
"Errugabe naiz!" oihukatu nik  
zigorrezko erantzuna  
utzi beharra nere sendia  
herria eta laguna.  
Errua ez zan beraz nerea  
eta zein da erruduna?

Errurik gabe itzalpe baten  
holako epe luzia  
nere barrenak sarri bota du  
kasik ero garrasia.  
Sentimentuak galtzen jua naiz  
nago garrazten hasia  
orain kendu da nere inguruan  
jarrita zegon hesia.  
Nork ordainduko dit bost urtetan  
nik galdu dedan bizia?

Jarri ninduten katez lotuta  
zer gizakume apala!  
Nere gorputza ezereztua  
sentitzen nintzan makala.  
Polizi harroz inguratua  
aurea eta hegala  
eta egunero entzuten nuan  
justizia bat badala.  
Nik betirako sartuko nuke  
ni sartu nindun fiskala!

## ABEL ENBEITA



1942-VIII-01ean jaio zen Muxikako Ariatzako Ormaetxe baserrian. Oinarrizko ikasketak herrian eginik, gainerakoak frantziskotarrekin egin zituen, Arantzazun, Foruan eta Zarautzen. Baserria zen bere betiko amesa eta, 26 urte gaz, Arabako Abornikanon lurra erosi eta hantxe kokatu zen bizitzeko, gaur arte. Durangoko Abelina Zugadigaz ezkondu, seme bi ditue, Zigor eta Oier. Zoritxar goiztarregiak alargun itzi eban Abel gazterik. Hain zuzen, 1987ko Bizkaiko finalaren bezperan hil zen Abelina. Saioa amaiturik, arratsaldean tristerik joan ginen denok hiletara.

Abeli bertsoari etxeko tradizionotik jatorri, batez be, aita eta aitita bertsolari ospetsuak izanik. Oso gaztea zela, Bizkaiko lehenengoetariko txapelketetan, 1962an, Mungiako eskualdekoan kantatu eban. Hurrengoan, 1966an, eskualdeko hasi eta finalista izateraino heldu zen. 1987ko Araba-Bizkaiko txapelketan parte hartu eban, eta hurrengoan finalista izan zen. Bertso-paper lehiaketetan, zenbait sari irabazia da: Urretxindorra eta Balendin Enbeita sarietan, lehenengo, Arabako 1992ko bertso-paper lehiaketan bigarrena, eta abar.

Arabako eskoletan bertsoari irakasten urte askoan jardun izan dau, baita bertso-eskolak sortzen eta sustatzen be, Gasteiz, Audio, Amurrión eta abar. Gasteizko eta Arabako bertsoari eragile handietariko bat izan da eta izaten jarraitzen dau.

## Añorga (1975-II-09)

Bigarren Orixe saria jokatu zan 1975ean. Bertan, Jon eta Abel Enbeita bizkaitar bertsolari gazteek parte hartu eban.

*"Zuek aita-semeak zerate. Florentino Goiburu gurasoa da, leitzen eta eskribitzen ez dakien gurasoa. Abel, semea, eskolara joan nahi ez duena". Goiburuk lehenengo bertsoa "ta aita honek zu nahi zaitu / eskola zintzo bialdu" amaiturik, Abelek jarraitzen dau:*

Aita jarraitu nahi nuke beti  
gurasoaren antzera  
ta eskolara zertako jua  
gaurkoz denpora galtzera?  
Maisu batzuen esanak eta  
guzur asko aditzera  
leitzen ta idazten jakin ez arren  
aita ona izan zera.

F. Goiburu: *"Eskola gabe ai zure aita / ona izan da munduan / baina aita honek bakarrik daki / zenbat sufritutzen duan".*

Sufrimentuak nik ere ditut  
aita berdintsu hartute  
ta ez zaitezela inola jarri  
semeakin damutute.  
Zer demonio nik egingo dot  
eskola hortan sartute?  
Maisurik eta onenak ere  
erdera irakasten dute.

Goiburu: *"Nik zu bialduko zaitutena / juzkatzen dut ikastola".*



Eskerrik asko bihotzez, aita  
nago zure esanian  
baina pixkaten utzi zaidazu  
baserri hortan lanian.  
Ikastolara juango naiz ni  
herria askatzen danian  
guztiok pozik euskera ikasten  
geure herria degunian.

Bakar gaia: "*Lotsari*".

Nola aterako det  
barrendik abotsa?  
Gizontasunez daukat  
gainezka bihotza.  
Aurrean ikusirik  
euskal bihotz hotza  
euskaldun izatea  
hauxe bai da lotsa!

Lotsagabea ez da  
izan Aranalde  
bestela puntu hontan  
behar diot galde.  
Gure herriak lotsa  
beharrean daude  
lotsa eta indarra  
herriaren alde.

### **Muxika (1991-IV-07)**

Herriko hiru bertsolari txapeldun omendu zitueen:  
Jon Lopategi, Euskal Herrikoa; Jon Enbeita, Biz-  
kaikoa, eta Abel Enbeita, Arabakoa. Hirurak libre-  
an, Abel Enbeitak bi honakoak kantatu zituen:

Zabale aldeko auzo txikian  
ginan jaio eta hezi  
gero bi hauek hemen gelditu  
nik Arabara ihesi.  
Omena izan nezakeenik  
sekulan ez dut sinetsi  
hauek seguru merezi dute  
nik behintzat ez dut merezi.

Gaurko eguna sinistu gero  
ez dut hain errez ahaztuko  
esker oneko nauzu, Muxika  
horra bihotza lekuko.  
Gaurtik aurrera indar gehiagoz  
diot lanari helduko  
omenaldi hau eskertu arren  
ez naiz erretiratuko.

## BALENDIN ENBEITA

1906an jaio eta 1986an hil zen Balendin Enbeitari gerra aurretik gerraoste luzerako zubi izateko egin-kizun garrantzitsua egokitu jakon. Frenteko ibilerak eta ondorengo kartzelaldia jasan ondoren, gerra-osteko zulo baltzaren ondoren, Bizkaiko bertsolaritzaren lehenengo bultzada eta erreferentzia bera izan zen. Lehenengo txapelketak hasi zirenean, Bizkaikoa izango zen lehenengoa, 1958an, Balendinek irabazi ebana. 1959koa be berak irabazi eban. Hurrengo beste hirutan be (1960, 1961, 1962) parte hartu eta finalean izan zen.



1958koa eztanda handia izan zen. Nik orduan hamazazpi urte neukazen eta ez jat egun bat sekula ahaztuko. Irailaren 8an, Gorozikako jaiak ziren. Gure aita hangoa zen eta nire urteko egunik handienetarikoa haxe izango zen, goiza elizaldean pasaturik, (meza eta meza osteko ikuskizunak eta erromeria giroa), bazkaltzera amama Pagaikonera joango nintzena.

Artean, Bizkaiko txapelketa jokatu barri zen eta Balendinek urten eban txapeldun. Eta hara non eguerdian entzuten dodan arratsaldean Balendin Enbeita zetorrela Gorozikara. Barri ha entzun nebanetik, zelako eguna pasatu neban esaterik ez dago. Nik ez neban Balendin ezagutzen. Estudiantea nintzen eta urtean bederatzi hilabete seminarioko internatuan egiten nituen. Abadegaia nintzen eta neure sasoiko mutilekin be ezin neban ibili, eta gitxiago (vade retro!) neskekin. Parentesia ulertu ez duzuenok pentsa zeinkie nahikoa bildurgarria izango zela. Baina Bizkaiko lehenengo txapelduna ezagutu behar neban eta hari bertso bat kantatu behar neutsala be setatu nintzen neurekiko, eta bai egun, batetik, espektantea eta, bestetik, larria pasatu nebana, neure bertso ditxosoa moldatu ezinik.

Eguna bazihoan aurrera eta halako batean han entzuten dot Balendin Enbeita hain tabernatan zegoela. Gure aita be ez zen halakoetan bakean iztekoa eta, nik zeozer kantetako grina baneukan, harek ez zeukan gitxiago, niri kantatu eragiteko. Berak be kantetan zituen zelako-halakoak, baina harek, txarrak kantetan, beste batzuek onak kantetan beste gozetan eban eta hortxe apurtzen ninduen. Tabernara sartu ginen eta han zegoen Balendin bere argalean, txapela zorrotz jantzia, jentzez inguratua. Gorozikan bazen entzutea gure etxean bertsoak kantetan zirela, eta laster heldu jatan kantatu beharra. Bat kantatu neban, Balendinek erantzun eustan, eta gero ahal zen moduan jarraitu behar. Niretzat egun intentsoa izan zen ha.

Nigan legez beste askogan be, erreferentzia deigarri horixe eragin eban Balendinek. Bertsolari legez zer maila zeukan albora itzita, izen bat izan zen, gerraosteko zulotik ilusinoa bizten eta argi bat ikusi eragiten euskuna. Bertsogintzatik aparte, ez neuke aitatu barik itzi gura Balendinen *Bizitzaren joanean* izeneko liburua. Bertan berak ikusi eta bizi izanaren lekukotza guztiz interesgarria itzi euskun, kontaera ezin atseginagoan.

Euren lekuan agertzen diren txapelketetako bat-bateko bertsoez gainera, hona Balendinen beste zenbait bertso bat-bateko eta bertso jarri, haren izakera eta bertsokera erakusten dabenak.

### Bertsoak

Zeanuriko taberna batean, inauteri egunez, Atxerren izeneko bertsolari batek honakoa bota eutsan:

*Atxerre*

Harro samartxu agertu jaku  
 Enbeita gure herrira  
 maskara pixkat jantzirik dator  
 gaur karnabal dan antzera.  
 Era horretan dabiltzazanak  
 gizon leialak ez dira  
 holantxe niri beti gustau jat  
 hitz egitea arpeira.

*B. Enbeita*

Hau da lotsari emon daustana  
 lagun artian gizonak  
 hemen ez dira danak izango  
 zuk legez hitz dagienak.  
 Neuk be arpeira esango dautsut  
 gaur entzun dagien danak  
 maskararikan ez daula bihar  
 zuk lango arpeia daukonak.

Beste behin, *Pipas* ezizendun batek honakoa bota  
 eutsan:

Hogeita hiru urte daukodaz  
 oraindik nago solteru  
 eta gainera ezkontuteko  
 gogorik ez jat berotu.  
 Horretarako aukera ederrak  
 gura danian ditugu  
 gaur ere errez aberatsenaz  
 eingo nintzake ezkondu.

*B. Enbeita*

Gazte zoruak uren gaineko  
 bitsetan ohi dabe amets  
 neskatxa eder eta aberatsaz  
 ezkonduko dirala errez.  
 Holangoari jazoten jake  
 harroputz askorik legez  
 etxe ondokua inok eroan  
 eta kanpoan topau ez.

(*Bertsotan 1789-1836, 268. or. Joanito Dorronsoro*)

**Hirurogeita hamabost urte**

1)  
 Hirurogeita hamabost urte  
 laburtu jataz pausoak  
 sentitzen ditut orain arteko  
 bizitzaren erasoak.  
 Igaro ditut arantza minak  
 bai eta egun gozoak  
 entzun daie la anai-arrebak  
 bardin Euskadi osoak  
 parkatu ondo bete ez baditut  
 neure Herriko arazoak.

2)  
 Hirurogeita hamabost urte  
 hamaseikoa hurrena  
 mingainez oso abila nago  
 baina pausoa herrena.  
 Lehengo amesak buruan eta  
 aitzaki bila barrena  
 ilusioak haundiak baina  
 heldu ezina txarrena  
 urteen buruz hau izaten da  
 zahartzaroak dakarrena.

3)  
 Geure bizitza kontzentzi garbiz  
 eroaten dogunean  
 gizona lasai aurkitu leike  
 zahartzera heltzen danean.  
 Ez da erreza gauza guztiak  
 eroatea leunean  
 baina ahalegina egin dagigun  
 garaia datorrenean  
 egiten dana izan daitela  
 Aberriaren onean.

(*Bizitzaren joanean, 169. or. Balendin Enbeita*)

**Ariatzako jaiak**

(Alfonso Irigoienen funtsa. Balendin Enbeita. 1944)

1)

Ariatzako jaiak  
Santakurtzietan  
irailan hamalauan  
urte guztietan.  
Nahiz aberatsetan  
bardin txiroetan  
jan-edanen faltarik  
ez da etxietan  
nahizta eskas ibili  
beste egunetan.

2)

Ariatza da gure  
tokirik gurena  
ariatzarrok beti  
maitatzen doguna.  
Santakurtz eguna  
barriz maitiena  
ahaztu barik gogoan  
beti daukaguna  
Ariatza da gutzat  
munduan onena.

3)

Santakurtze bezperan  
hasten dira jaiak  
ordu an eiten dira  
barrabaskeriak.  
Zaragi haundiak  
gure gaztediak  
jaietan edateko  
daukaz ekarriak  
duban edan dagien  
datozen guztiak.

4)

Bezperan batzen gara  
eleiza aurrera  
hemendik joateko  
Bixentien labara.  
Guztiok batera  
ardaua edatera  
zuri eta baltzari  
apuroa eitera  
ez dau inork esaten  
"nik etxuat gura".

5)

Danak egiten deutse  
ardauari tire  
eta bizkortzen ditu  
gizon ta agure.  
Gero hasten dire  
jire eta bire  
gorputza astun baina  
bizkor jarri gure  
ardaua ez dok, mutilak  
iturriko ure.

6)

Nahizta egon zutunik  
egon ezinean  
hasarrerik sekula  
Ez da gure artean.  
Biharamonean.  
sendo gorputzean  
nahizta bihamona euki  
polita aldean  
edanaren kezkarik  
ez da bihotzean.

7)

Ariatzar guztiak  
gitxi gorabehera  
ardauaz beti dauke  
danentzat aukera.  
Zaragi ingurura  
hainbat batzen dira  
gainera lotsa barik  
edan zenbat gura  
hamaikak garbitzen jok  
gaztien kontura.

8)

Goizean zuria ta  
atsaldean baltza  
eten bako txurrutai  
han ekiten deutsa.  
Hartzen dabe mahatsa.  
Ezin dira altza  
gorputza kili-kolo  
aurpegia motza  
ez dabe falta izaten  
kokoloen antza.

9)

Gaztien zaragiak  
bihotz ona deuko  
datozen guztientzat  
borondate haundiko.  
Baina entzun ondo  
ta aitu hobeto  
ardaua ekarten da  
neurritz edateko  
ez debalde dala-ta  
mozkorra hartzeko.

10)

Lehenauko zaharrak guri  
erakutsi euskuen  
zelan ibil behar dan  
zaragi kontuen.  
Ikasi genduen  
behar dan moduen  
egin daiguzan gauzak  
ahal danik onduen  
hurrengoek be euki  
daien akorduen.

11)

Ariatzarrak beti  
aldi guztietan  
eurenak ein ohi dabez  
Santakurtz jaietan.  
Dantza-aurrekuetan  
nahiz jan-edanetan  
gaur be nahi daunak olgeu  
holango gauzetan  
Ariatzara etorri  
Santakurtzietan.

12) (Jai ostean)

Ariatzako jaiak  
amaitu dira ta  
gaztedi guztia dau  
erdi tristetuta.  
Janak amaituta  
zagiak hustuta  
gitxi ardura, barriz  
balegoz pagauta  
pazentzia hartu behar  
egingo dira ta.

**Atxeli mendiko kurutzea**

1)

Gazte nintzala talde bat gendun  
euskaldun jatorra eta fededun  
Hartu genduan erabagia  
jartzeko Kurutz paregabia  
esan ta egin  
jarri genduan Atxelimendin  
herri osoan ikusi zedin.

2)

Zortzi metro ta erdi luzeran  
bi metro ta erdi zan zabaleran  
Aldapan gora geroen pozez  
noizik behin jausten ginean ahuspez  
zazpi mutilak  
danok sasoiko eta abilak  
borondatezko bihotz umilak.

3)

Zazpiko talde gazte senduak  
gizontasunean nahiko helduak  
Elio, Roman, Sabin, Balendin  
Satur, Imanol, Bitoren bardin  
kristau gauzetan  
euskal ohitura ta jolasetan  
ez ginan haserretuko ezetan.

4)

Kurutza jarri genduanean  
belaunikaturik lurran gainean  
agurtza deuna hasi genduan  
zazpi mutilok fede senduan  
hura zan poza  
bete zalako gure amesa  
Kurutzeagaz gendun promesa.

5)

Garai haretan ez gendun uste  
izango gendunik gaur hainbat nahaste  
hitzak ederrak egintzak labur  
eta bakeak egin dau agur  
Kurutzaz ahaztu  
behar ez diran gauzakaz nahastu  
lehengo bakerik Herriak eztu.

6)

Usparitxako mendi gaineko  
kurutzea dogu beti gogoko  
jarri genduan zazpi mutilak  
talde horretan lau dira hilak  
baina testigu  
egin genduanaren eredu  
mendi gainean Kurutza dogu.

(*Bizitzaren joanean*, 179. or. Balendin Enbeita. Bertsoon aurkezpentzat, liburuak dino: "Atxeli Usparitxa gaineko mendia da. 1932an, urriaren 8an, zazpi gaztek gurutze bat jarri zuten bere gailurrean. Euretariako bat Balendin Enbeita. Errepublikako 2. urtea zan, gurutzeak baztertzen ebiltzan garaia")

## IMANOL ENBEITA



Imanol Enbeita, Txotxojeuriren semeetariko bat, 1884an jaio zen, Muxikako Ariatzako Usparitxa auzuneko Jeuri baserrian, eta 1946an hil zen Gernikan. Bere anaia Kepa Enbeita baino sei urte gazteagoa zen hau be oso gazterik hasi zen bertso eta olerkigintzan, baita kazetari lanean be, *Ibaizabal, Baskonia, Jaungoiko-zale, Euzkera, Euskaria, Euzko Enda, Bizkaitarra, Aberri, Patria, Baserritarra...* eta halako bere sasoiko aldizkari

guztietan, eta, batez be, *Euzkadi* egunkarian. Julen Urkizaren *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia* izeneko aurkibidean, Imanol Enbeitaren 230 izenburutik gora datoz. Galduak eta faxistek gero erreak, barriz, beste hainbeste edo gehiago izan ei ziren.

Espainian soldadutzarik ez egitearren, 1908an Argentinara alde egin eban eta hantxe egin zituen, Hale izeneko herrian, hamahiru urte luze, 1921ean Euskal Herrira itzuli eta Balentina Barrena gernikarragaz ezkondu arte. Hiru seme-alaba izan zituen: Joseba Imanol, Miren Itziar eta Miren Gotzone. 1937an, gerrate gordinean, Frantziara alde egin beharra dauka bizitzera. 1941ean itzulirik, hileru kuartelera aurkeztu beharra izan eban, 1946ko azaroaren 7an hil arte.

Kepa Enbeita Urretxindorraren ospeak geriza egin badeutso be, Imanolek egin ohi jakon baino gomuta aktualagoa merezi leuke. Argentinan egin beharreko urteak bere herri-mina eta aberri-mina burutik ezin kendurik igaro zituen. Fede handiko gizona eta abertzale sutsua izanik, Imanolen gai nagusiak Jaungoikoa eta Lege Zaharra, Aberria eta Euskara izango dira; baita Maitasuna, Herria, Ohiturak, Natura eta halakoak be.

Hizkuntza eredian, artikuluetan batez be, bere anaiaren eta garaiko joera garbizalearen jarraitzaile zen. Beste erremediorik be ez zeukien, *Euzkadi* egunkarian eta orduko aldizkarietan idatzi nahi baeben, hango erizpideak guztiz garbizaleak ziren eta. Halan be, Imanol Enbeitak, bertsoetan, euskara herritarrari gehiago eutsi eutsan, beharbada, atzerrian bizitzeak eragin garbizaletik urrunago harrapatu ebalako, edo, beste barik, bertsoetarako sen horixe zeukalako. Esaterako, *Behi zaharraren kontuan amaia* izeneko sortan, *Komedi tokia* famatuko behiaren saltzea kontatuz, laugarrenean dino:

Esan neutsen azkenean  
ederra zala esnean  
lehenao gaztea zanean.  
Baina okerra jarri jakula  
orain antzutu danean  
beraren aldamenen  
behin aurkitu nintzanean  
jo nendula belaunean.

Hona, beste adibide bat legez, *Udabarria* izeneko sortako lehen-hirugarrenak:

Luginak badinardu  
"Aida! Jeurt hona"  
hau aroan ederra  
lurrak daukona!  
Arto lur berezia  
mamin sakona  
ehunka ordaintzekoa  
jaurtzen jakona.

Soineko barriakin  
harro zugatzak  
ezin apainaguak  
barriz baratzak.  
Guri dakus ziranak  
lehen sasi latzak  
lorakin estalduta  
euren arantzak.

Bertso honeek zazpi-bost silabako neurrian doaz, lau puntuan. Zortziko txikia lakoa, baina zazpi-sei barik, zazpi-bost eginez. Bizkaiko tradizioan honelakoak asko dira, eta Euskal Herri osoan be bai, kantetan. Zortziko txikia baino aurreragoko neurria da, eta berau baino aurreragokoa sei-bostekoa. Endekasilaboa, azken batez. Zortziko txikia honen eboluzinoz etorriko zen.

### Sabino Arana

(Hamabost bertsoa sortatik aukeraturiko batzuk)

1)

Gure didarrak ez entzuteko  
nun zagoz, aita Sabino?  
Zuri negarrez urtuten gagoz  
alde zendun ezketino.  
Etsaiakaitik zu hil bazinan  
gure bihotzak hau dino:  
Zu hilda bere etsai gogorak  
bizi dirala ondino.

2)

Etsai gogorrez inguratuta  
zu zinan ludi honetan  
Euzkadigaitik ibili zinan  
gudarik gogorrenetan.  
Geure aberri guztiz laztana  
maite zenduan benetan  
hargaitik zintzo jarraitu zendun  
bere legiak gordetan.

3)

Goiko Jaun ona, gu zer ginian  
kendu zeunskunian Sabin?  
Negar ulua baino besterik  
ez zan geratu Euzkadin.  
Ama Euskerak negar eite'ban  
ta bere semiok bardin  
esaten eben: "umezurtzak lez  
geratu gara oragin".

4)

Abertzaliak zer ziran bere  
geuk ez genkian antzina  
Sabin maitiak argitu arte  
ilunik geunkan adina.  
Zer izango zan gaur arte, Sabin  
zu bizi izan bazina?  
Euskaldunentzat poztasuna ta  
erdaldunentzat samina.

5)

Euskal Herrien maitetasunak  
zinopa ein zinduzana  
ta Euzkadiren alde eginik  
hartuten zenduan dana.  
Azilan hoge eta bostian  
betiko Sabin Arana  
agur eginda itxi zenduan  
geure aberri laztana.

(*Enbeitatarak I*, 89. or. Jon Enbeita)

04. **Adina:** adimena.

05. **Zinopa:** martiria.

### Txori abeslari bat

1)

Txori abeslari bat  
bai dago Muxiken  
gaur urrun dodan arren  
lehenago hur neuken.  
Jeuriko intxaurpian  
zelaiko gerizpen  
haren kantak entzuten  
nor aurkitu leiken!



2)

Ze txori haz gero heu  
eiteko bertsua?  
Birigarroa haz ala  
sasiko zozua?  
Entzutiarren heure  
abesti gozua  
heure atzetik jabilk  
Euzkadi osua.

3)

Idun luzia eta  
arpegi sikue  
oilagorren antzera  
zorrotza pikue.  
Hanka mehe luzietan  
dirudik mikue  
ta zintzotasunian  
martiko kukue.

4)

Zugaztitik noizik behin  
joadi urira  
euskel-erdel zaliak  
dagozan tokira.  
Eta han zoli-zoli  
eurari begira  
abestu joek eta  
bizkortuko dira.

5)

Habia baten biok  
jaio gintzoazan  
baina txori bardinak  
gu ez gaituk izan.  
Hi, ba, heure habian  
hor geratu hintzan  
eta itsas-antzarrak lez  
ni aldendu nintzan.

6)

Ni nok beste txori bat  
neguaren iges  
aldendu nintzoana  
itsas-antzarrak lez.  
Ostera bihurtzeko  
orain hegorik ez  
Ene Josu laztana,  
zer jazo da nigez?

7)

Agur, ba, Muxikako  
txorritxu bizkorra  
agur eiten deuat neu  
noian arte horra.  
Hik bitartian abes  
ein eik parra-parra  
goralduagaz Jauna  
eta Lagi Zaharra.

(*Enbeitatarrak I*, 89. or. Jon Enbeita)

343

Bertso honeek Argentinatik *Euzkadi* egunkarira  
bialdu zituen, bere anaia Keparentzat.

### Besoetako Imanoltxuri

1)

Buru bilosa eta  
ointxuak ortosik  
euki arren hor dabil  
Imanoltxu pozik.  
Ez dautsala ardura  
soina be bilosik  
erabiliagaitik  
zigorrez jo ezik.

2)  
Praka zahar laburtxua  
ziloz betekoa  
arkondaria bere  
honen antzekoa.  
Mendian izan arren  
edurra nahikoa  
hauxe da Imanoltxuk  
daukan soinekoa.

3)  
Ikastolarantza ba  
zazpi urte bage  
albotik kentziarren  
bialduten dabe.  
Baita lastertxu ein be  
idaztien jabe  
jakin ez arren ondo  
ezautzen A ta B.

4)  
Ta gudalketan barriz  
ez ei da lotzien  
ekin barik danakin  
ikubil-hotsien.  
Gaztetxua izan balitz  
oingo ingo'tsien  
ikurratz txikiren bat  
okotz-okotzien.

5)  
Lehenguan harrituta  
ein ninduan itxi  
esatian nintzala  
bere aitabitxi.  
Eta zelan hain ondo  
ez dotsen eritxi  
nire emotiari  
halan sari gitxi.

6)  
Neuk ez juat ikusi  
zazpi urte bako  
mutil koskorrik inun  
zoliaurik asko.  
Azeri batek baino  
tranpa gehiau dauko  
hau bai txindorkumia  
kaiolatxurako!

(*Enbeitatarrak I*, 112. or. Jon Enbeita)

04. **Ez ei da lotzien:** ez ei da lotzen, geratzen.

### Negua

1)  
Mendi tontor ta zelai  
baserri ta uri  
danak agiri dira  
edurragaz zuri.  
Eta itsas-antzar aldrak  
agur ta agur guri  
ihes-iheska doaz  
negute honeri.

2)  
Eskaliak atera  
txiro eta bakar  
soin guztia edurrez  
zuri-zuri dakar.  
Atondoan gaixoak  
hotzen hotzaz dardar  
bere hagin ustelak  
joka dabiz alkar.

3)

Harako zugatz orri  
apainak ziranak  
izotzak igartuta  
jausi dira danak.  
Margo horiskia dauka  
orlegia zanak  
eta edur matazako  
lorak ebazanak.

4)

Edur zuri-zuria  
behin hona, behin hara  
bihozge zabaldu da  
leku danetara.  
Haulan jarraitzen badau  
jausten mara-mara  
zugatz orritxuak lez  
jausi bihar gara.

5)

Udate beroetan  
itsasoa naro  
egoten zana orain  
orroaka dago.  
Arrantzale gaixoak  
batelian txairo  
itsaso hasarria  
ezin dau igaro.

6)

Udabarrian alai  
txoritxuak abes  
egiten eben baina  
gaur itun tamalez.  
Lumak be astinduta  
makalen makalez  
lehengo abots zoliak  
motelduak dabez.

7)

Artzaina ardientzat  
jana lortu guran  
mendirik mendi dabil  
edurragaz gudan.  
Bedar gurietara  
joaten zan udan  
otatzara be pozik  
gaur baleki nun dan.

8)

Luginik ez da ikusten  
inungo solotan  
negua agirian dau  
baserri askotan.  
Ganbaran arto gitxi  
ta bapez errotan  
eta aberiak gosez  
orroaka kortan.

9)

Aterpetik kanpora  
ezin leike lanik  
eta etxean barriz  
ez dago zer janik.  
Negutia txarretik  
txarrera joanik  
ez dirudi behingoan  
otzanduko danik.

10)

Basamortuetatik  
urten dabe hartzak  
otso goseti eta  
baita bela baltzak.  
Neguak damotsezan  
jasanaldi latzak  
berokinez uxatzen  
dabiz aberatsak.

11)  
Beste aldetik baina  
txiro eta arrotzak  
lurjota jarri ditu  
negute zorrotzak.  
Soineko arinakaz  
dantzan dabiz hartzak  
urdailak hutsik eta  
alkar joten hortzak.

(*Enbeitatarrak I*, 123. or. Jon Enbeita)

### Kirikiño

1)  
Erloju batek tik-tak taukadaz  
neure soin zati danak daukadaz  
samin zorrotzez ahulduta.  
Zelan ahuldu ez, atzo oindino  
gordin-gordin ta, gaur Kirikiño  
hilkutxan badau sartuta?

2)  
Kirikiñogaz adiskidia  
barru-barruko kutun maitia  
badakit izan nazala.  
Gaurko *Euzkadi* jaio baino lehen  
ezautu neban *Ibaizabal*-en  
bere artezkari zala.

3)  
Hitz neurtuetan zale-zalia  
deitzerik baina olerkaria  
ez jakon otu inori.  
Behin baten, baina, *Ibaizabal*-en  
nire izena harro etorren  
eskarrak Kirikiñori.

4)  
Zentzun gitxigaz idatziriko  
nire olerki asko be asko  
beretzako lez hartuta  
ebazan hutsak kenduta oso  
urtetan eben gozo be gozo  
Kirikiñok orraztuta.

5)  
Nire lehenengo lau-bost hitz neurtu  
*Ibaizabal*-en zelan agertu  
ziran badakit oindino.  
Une pozkor ha ezin jat aiztu  
ezek ez nau ni gehiago poztu  
hareik olerkiak baino.

6)  
Hain kutun jakun asterokoa  
euskera hutsian eginikoa  
zeharo galdu zanian  
itun geratu ginan tamalez  
ama hil jaken umezurtzak lez  
*Euzkadi* sortu artian.

7)  
Eguneroko izparringi hau  
argitaratu zanetik gehiau  
bere *Euzkel-atalian*  
Kirikiñoren izena bertan  
ikusiko zan goiz guztietan  
idazlanen barrenian.

8)  
Hamasei urte izparringian  
idazkortzagaz zintzo lanian  
beti kementsu ta gogoz.  
Bere idazkiz hurrian leike  
itsasontzi bat osoan bete  
pilo batian balegoz.

9)

Hain langile ta kistar zintzo hau  
Goiko Jaun onak beragandu dau  
lur honetatik lasterka  
zeruratu da Josuren maite  
gu hemen behian gaukozan arte  
hobi aurrian otoika.

10)

Gure irakaslak banan-bananka  
beste ludirantz joan jakuz ta  
itunak jota gauz oso.  
Lehenengo hil zan aita Sabino  
gero Eleizalde, gaur Kirikiño  
euzkotar hiru guraso.

11)

Bardinik bako hiru euzkotar  
hiru jakitun, hirurak kistar  
zintzoak, zintzorik bada.  
Gaur Donokian hirurak alkar  
aurkitukeran euskeraz azkar  
hasi dirana ziur nau.

12)

Laguntza eske zueri deika  
hobi aurrian zinez otoika  
ezingo dogu gogaitu.  
Arren bai arren oroitu gugaz  
guraso bako umezurtzokaz  
Euskel Herriaz ez aitzu.


(*Enbeitatarrak I*, 128. or. Jon Enbeita)

Sasoiko berba garbizale batzuk gorabehera, oso euskara herritarrean eta, neurri gatxa izan arren, kontakera naturalean eroaniko bertso sorta honetan, garbi agiri da Ebaristo Bustinza "Kirikiño" mañariarrak zelako estimua eta itzala izan eban bere garaikideen artean. Itzal hori, gerora, handitu egingo zen.

Imanol Enbeitaren bertso-sorta amaibakoen mostra txiki honen epilogotzat, barriz, ziur nago bat baino gehiago harriturik itziko dauela haren bertsokeraren kalitateak.

## JON ENBEITA

Balendin Enbeita eta Klara Ealoren sei seme-alabekotarik gazteena 1950-III-22an jaio zen, Muxikako Ariatza auzoko Ormaetxe baserrian. Umezaroa auzoko eskolan eginik, 13 urtetik 20 urtera fraile egon zen frantziskotarrekin, Arantzazun, Forun, Zarautzen eta Oliten. 20 urte gaz fraileztatik urtenda, kantari bakarlari hasi zen eta disko bat bere atara eban. Kantaritzari 26 urte gaz itzita, umetarik zekarren bertsolaritzari osoan ekingo eutsan.



1975eko uztailearen 19an Karmele Gardokigaz ezkondurik, alaba bi ditu, Zihara eta Oihane, bigarren hau bertsolaria bera be. Lanbidez, bank-administrari hazi zen Baserritarren Kutxan eta, 1978an, Bizkaiko Aurrezki Kutxara, oraingo BBKra aldatu zen, gaur arte bertan diharduela.

Kepa Enbeitaren iloba eta Balendin Enbeitaren semea izanik, esan beharrik ez dago etxean eta ume-umetarik aurkitu zela bertsoaren barruan. 3 urte gaz, antzerki batean parte hartu eta kopla bat kantatu eban. Lehenengo plaza Eubako pasiotarren komentuan egin eban, 9 urte gaz, eta urte berean Zarautzen, Basarri, Uztapide eta bere aita gaz kantatu eban. 11 urte gaz Bizkaiko txapelketa- ra aurkeztu zen Mungian. Lopategiri entzuna deusadanez, bera eta Taket be kanporaketa haretan zirela, Taketek esan ei eutsan: "Horregaz toketan bajakuek, zer kantatu behar joagu, ba?". Halan, gaztegia zela eta, kanporan iztea erabagi eben.

Jon Enbeitak, txapelketen historialean, gitxik bardindu leikeen marka dauka. Euskal Herriko Txapelketa Nagusietan, bost finaletan jarraian sartu da eta ez edozelan. 1980an txapeldunorde izan zen. 1982an, finalista izan zen, baina hirugarren postutik aurrera, ez eben sailkapenik emon.

1986ko finalean, laugarren egin eban, eta halako saioagaz ze, bertsozale bati baino gehiagori entzun deusat urte haretan irabaztea merezi izan ebala. 1989ko finalean, bosgarren gelditu zen. 1993ko finalean, azkenik, seigarren.

Araba-Bizkaiko 1987 txapelketan, hirugarren egin eban, Lopategi eta Amurizaren ondoren, eta ondorengo Bizkaiko txapel biak (1990 eta 1992) berak irabazi zituen. Hurrengo urte bietan finalista izan zen eta, 1997tik aurrera, ez dau txapelketetan partetik hartu. Beste hainbat lehiaketa txikiagotan be ibilia da, eta batzuk irabazia, 1975eko Mallabiako saria edo 1977ko Orixe saria, esaterako. 1978an Zepai sariketan eta 1978an Artzanberri sariketan bigarren egin eban.

1996an, *Paperetik Plazara* taldea sortu eban, Irene Ajuriagaz, eta Roberto eta Kepa musikarien talde gaz. Urte horretan bertan, Balendin Enbeitaren heriotzaren 10. urteurrena zela eta, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen ekimenez, *Balendin oroitzuz* izeneko ikusentzunezko lana burutu eta aurkeztu eban zenbait antzokitan. Lehenagoko *Inguruaren arduraz* poesia liburuz gainera, 1999-2000. urteetan, *Enbeitatarrak* izen orokorreko hiruko bilduma argitaratu eban, azpi-izen honeekin: I "Txotxo Jeuri" eta Imanol. II *Urretxindorra*. III *Balendin Enbeita*.

Bertso jarrien arloan, sorta irabazle ugari dauka han-hemengo lehiaketetan, honako izenburuak tarteko: *Umorearen bila*; *Udazken goiz arrunt baten*; *Bidai istilutsua*; *Egunsentia*; *Gernika*; *Itsoa*; *Ametsak bizi gaitu...* Bere bertso jarririk eza-gunenak, halan be, *Stressa* eta *Bakearen erromes* ditu. Badauka kasette bat bere bertsoekin; *Emoidazu eskua* singlea bakarlari legez, eta long-play bi: *Enbeitatarrak* eta *Kepa Enbeita*. Juan Karlos Irizarren *Itxaropena* diskoko hitz guztiak bereak dira, eta bardin Roberto eta Kepa trikitilarien *Bihotzetik Bihotzari* diskoko hitzak be.

Dinogun, azkenik, bertso-eskolen mugidan, Gal-dakaoko bertso-eskolan irakasle ibilia dela zortzi urtean, eta Lamikizko bertso-eskolaren eta II. Garriko bertso-eskolaren sortzaileetarikoa eta irakaslea izan dela. Azken urteetan, musika eta bertsoak buztartuz, zenbait saiakera egina da, *Pape-retik plazara* taldeagaz, lehenik, eta Urretxindorren bertsoak abestuz, gero.

**Donostia. Añorga (1975-II-09)**

Bigarren Orixe saria. "*Zergatik geratzen da jendea neskazahar eta mutilzahar?*"

Munduan bizi gera  
hamaika aldrebes  
lagunik politena  
lortuteko nahiez.  
Ta gero sortuten da  
beti zoritxarrez  
kanpoan aurkitu ez  
etxeakoak ihes

Belarriak jasota  
buruak argitu  
eta nik zer dinodan  
oin ondo aditu.  
Dana gura dabenak  
akats honeek ditu  
danak arrapeu ezin ta  
bat gabe gelditu

Puntua: *Diru asko dezula  
dute hor esaten*

*J. Enbeita:* Nere berririk hoiek  
ez dute jakiten.  
Pobrezan bizi naiz ta  
igaz eta aurten  
Bi egunikan baten  
bakarrik dut jaten

"*Zerk galarazten dizu bertsoetan hobeki egiten?*"

Jaio nintzan ta Herria nuen  
bihotz erditik hautatu  
Herri horrerri gero ein nion  
nik nekiana kantatu.  
Nahiz ta Jaunari argitasuna  
gehiago egin eskatu  
bera eman egin dit eta  
beraz behar konformatu.

Argitasuna eduki nuen  
bertsoetan ibilteko  
gure herriko sustrai hoietan  
dagon odola agertzeko.  
Hobeto inoiz ez badut egin  
ez daukat inon kalteko  
hobeto beti egingo nuke  
nere eskuan balego

**Idiazabal. Zepai saria (1975-IX-21)**

349

"*Nolako neskatxa nahi zenduke emaztetzat?*"

Burutik argi eta  
gorputz dotorea  
herrian lan eitteko  
nahiko adorea.  
Bere ezpain-musutan  
lore kolorea  
hauxe da nik maitatu  
nahi nuken lorea

Euskaltasun kutsuak  
aldean dituna  
bizitzen dakiana  
gaur degun eguna.  
Semeentzat daukana  
aman maitasuna  
ta nik bera bezela  
ni maite nauana

**Idiazabal. Zepai saria (1976-IX-26)**

"Biharko eguna denontzat gogoangarria: Irailak 27"

Nere begiak negarrez daude  
egun hau gogoratzean  
odol jauziak garraztasun bat  
sortzen baidit bihotzean.  
Gure odolak hola banaka  
lurrera isuritzean  
bizi berririk erneko al da  
agorrik den lur hotzean?

Herria, anaiak, ele, ohiturak  
egiz maite zenduezan  
zuen izatez, zuen adorez  
guztiok jantzi gaitez.  
Zuen odola edan nahi geunke  
hebreoek mana gisan  
hartutzen degun bakoitzen soinez  
barriro jeiki daitez.

350

**Txapelketa Nagusia 1982  
Idiazabalgo finalerdia**

"Kantak dioen bezala, zer eskatzen du herriak?".  
Honako hirukoa kantatu eban:

Banandu ginduezan  
Ipar eta Hego  
gero Hegoaldean  
askoz txarrago.  
Naparroa bat eta  
hiru Baskongado  
arbasoen aberri  
zaharra akabo  
konforme ez nago  
ez dut nahi esklabo  
banan gutxiago  
bat ginan lehenago  
batasuna eskatzen  
Euskadi dago.

Lapurdi, Ziberua  
euskaldun Iparra  
bi zatitan egina  
anai Naparra.  
Bizkaia, Gipuzkoa  
erdiko bularra  
Araba anai gaztea  
hegoko izarra  
loretu beharra  
da euskal lizarra  
anaien biltzarra  
da gure indarra  
batu ta aske dedin  
aberri zaharra.

Ez dezagun bururik  
lurpean ehortzi  
garaitza ez dela ta  
oindik jaretsi.  
Egun baten ezin da  
gizaldi bat hautsi  
herriak behar gaitu  
beregana sinetsi  
eguna iritsi  
leike bihar-etzi  
bitarte ez etsi  
borrokari eutsi  
Gora Euskadi gora  
zazpi probintzi.

**Txapelketa Nagusia 1986  
Finala**

"Zu, Enbeita, zure bizitzako gidaria eguzkia izan  
da beti, bere egunsenti eta ilunabarrekin. Hemen  
duzu, ordea, Peñagarikano erosi berri duen erloju  
honen bentajak kontatzen". Peñagarikano hasirik,  
Enbeitak darrai:



Aurrerapenak ugari dira  
gu bizi garan munduan  
baina ni nago oso gustora  
lehengo zaharren aginduan.  
Kuerda puskatu, pilak faltatu  
beti eroen moduan  
nire eguzkia faltarik gabe  
beti irtetzen da orduan.

Peñagarikano: *"Erloju ederrak nik bazeduzkat /  
Omega eta Zitizen / gaurtik aurrera nik esango dit  
/ Enbeita etxera goazen".*

Goizean goiztik nire eguzkiak  
beti jotzen dit aldaba  
eta gauean ibil beharra  
hain behartsua al da, ba?  
Neretzat ez da sekula izan  
gauaren iluna traba  
eguna dut nik lan egiteko  
eta lotarako gaba.

*"Ijito kastako haurtxo bat aurkitu duzu kalean,  
hotzez dardarka eta gosez, ia hilean. Besoetan har-  
tzen duzu eta kantaizkiozu hiru bertso".* Jon  
Enbeitak lehenengo-hirugarrenak honakoak kan-  
tatu zituen:

Ene haurtxo maitea  
ez duzu atsegin  
kale ertzean hotzik  
txakurren berdin.  
Zer ama ta zer gauzak  
ote du eragin  
bere haurra honela  
baztertua zedin?  
Duzu mila samin  
ziaite nigana jin  
egiten dizut zin  
saiatuko naiz fin  
mundua zuretzako  
ederra dedin.

Haur txiki bat honela  
baztertu beharra  
ama zintzo batentzat  
ez al da larra?  
Baina bukatu zaizu  
zeure ezbeharra  
eta jaso egizu  
ta zabal bularra  
bizi nahien garra  
da zure indarra  
ta gure izarra  
bihotzeko haurra:  
nik irri egingo dut  
zure negarra.

#### **Txapelketa Nagusia 1989** **Finala**

*"Zuk, atzerritarra izanik, Euskal Herrian eraman  
duzu ia bizitza osoa. Gaur jubilatuta, bazoaz  
zeure sorterrira".* Jon Enbeitak lehenengo-hiruga-  
rrenak honakoak kantatu zituen:

Munduko ilunabarra  
adinaren zoritxarra  
ahultzen dijoa indarra  
baina ez barneko garra.  
Etorri nintzen herri hontara  
berau zen nire izarra  
bertan utzi dut izerdia ta  
zorionaren aparra  
bertan uzten dut nire irria  
ta bertan nire negarra  
berriro neure jaio-etxera  
daukat itzuli beharra  
baina ez zaitut inoiz ahaztuko  
ene Euskal Herri zaharra.

Kanta izan dizut sarri  
hamaika abesti barri  
baina gaurkoan naiz larri  
joatea da mingarri.  
Zu ikusteko ardurak nindun  
garai haretan ekarri  
ezagutu ta gure bihotzak  
oratu ziren elkarri  
ordutik hona ni izan nauzu  
hau esateko egarri  
ni banijoa nere etxera  
adinez bainaiz elbarri  
baina zu beti izango zara  
nire bigarren Aberri.

**Ariatza (1988-IX-11)**

*“Zuk ezagutu zenduen lehengo Garriko eta, gainera, gaurko Garrikoko sortzaileetariko bat zara. Zer da zuretzat Garriko?”* (Garriko da Balendin Enbeitak-eta Areatzan sortu eben lehenengo bertso-  
eskola). Lau bertsoarik lehenengo biak honeexek izan ziren:

Garriko berriz da jantzi  
lenengoaren herentzi  
sortzaile hoiei gorantzi.  
Milatik gora bederatzirehun  
berrogeita hemeretzi  
Ariatzen zen ebatzi  
behar zala irakatsi  
eta bertsoari eutsi.

Pedro ta aita Balentin  
euskotar bikote gordin  
herri lanetan beti fin.  
Fuenterrabia taberna eben  
lehenengo eskola egin  
oztopoen aurka berdin  
bideari eutsen ekin  
zorretan gagoz eurekin.

**Ariatza (1988-IX-18)**

“Bertso bi Ariatzen den ohitura zaharra dela eta:  
Zaragiaren enterrua”

Bizenten laban jaio zan eta  
gaur bere entierria  
egarriaren pekatua dau  
heriotz honek errua.  
Jaio zan guri-guri  
bildots baten irudi  
gaur bakarrik dau larrua  
Kriston antzera bere odolez  
garbitu dausku barrua.

Triste dagona alaitzen daki  
kobardea jarri abil  
Ariatzako auzo hau pizten  
ia ehun urtean dabil.  
Kriston antza dauela  
esatean honela  
hain erratuta ez nabil  
urtero bertan jaiotzen baida  
ta urtero geugaitik hil.

**Sara (1991-II-17)**

*“Saratar bat, Bixente Garzia, Parisen preso dago.  
Eltzegor taldean kantatzen du eta, hari bezala,  
beste anitz eta anitz preso daudeneri hiru bertsu”.*  
Saioa honela hasi eban:

Gaua etortzen ez den artean  
ez zaigu bizten izarrik  
gure Herriko gaba honetan  
badugu argi edarrik.  
Zuentzat badut, anai presoak,  
bihotz barneko didarrik  
jakin zazute guda honetan  
ez zaudetela bakarrik.

**Bermeo (1991-III-09)**

Abel Muniategik atzeko bertsolariei bertso bana kantetako eskatu eutsan, eta *Bermioko portuan* doinuan, honakoak kantatu zituen:

Jon Lopategi dogu  
Euskadiko txapeldun  
atzeko hau ez dakit  
bere doble ez dogun.  
Begitu beraganantza  
hain dauka kolore baltza  
ez al dau Husseinen antza?  
Konprobatu dagigun.

*Egije da, egije da  
neuk ikusi nebalako  
egijje da, egije da  
porque lo he visto yo.*

Azpillagai ez jako  
aldatzen aurpegia  
formala izateko  
pixu haundiegia.  
Txuleta on bat badago  
edozer baino nahiago  
ondoren hogeit bat trago  
zelako zaragia.

*Egije da, egije da...*

Lazkao Txiki dogu  
bertsolari zuzena  
Euskadin zeinek ez dau  
entzun bere izena.  
Lazkaon jaio ta bizi  
ta inun ez dana hazi  
baina bihotzez ikusi  
bera da haundiena.

*Egijje da, egije da...*

Zirkuren bat ba al dago  
Bermio inguruan?  
Pizti raro bat baida  
Tellerian onduan.  
Jainkomendiko mutila  
ei dator nobia bila  
kontuz ibili dadila  
Bermioko portuan.

*Egije da, egije da...*

Hegalean pentsakor  
daukagu eseria  
hori kontrolatzea  
da nahiko komeria.  
Bibotez Tejeron lagun  
sudurrez Rodriguez Sahagun  
lotsarik ez dau ezagun  
hori da Telleria.

*Egije da, egije da...*

**Bilbo. Kirikiño ikastola (1997-XI-14)**

*"Estrasburgoko Parlamentuan bertsolari bat eroa-  
tea erabagi dabe, zeu, hain zuzen, euskaldunak  
zer edo nor diren argibideak emoteko". Lehenen-  
goa eta hirugarrena honakoak izan ziren:*

Agur Estrasburgoko  
jaun eta andere  
iritsi da ordua  
guretzat ere.  
Ez gara hiltzaileak  
ez gara abere  
nahizta etsaiak jarri  
sarri euren pare  
herria errege  
helburu ta xede  
bakearen alde  
borrokatzen gaude  
"bakoitzari berea"  
harturik lege.

Madril eta Parisek  
badute ardura  
izkutatzeko gure  
aberri hura.  
Egia zabaltzeko  
garaia heldu da  
aurretik heldu ginen  
gu gauden lekura  
ta lapur modura  
haustu zuten muga  
eurena da guda  
ez gure ohitura  
guk geurea besterik  
ez dogu gura.

### 1993ko Txapelketa Nagusia

*"Zuek biok sarean eroritako bi arrain zarete. Aro-  
zena, haundia zarelako, kajara bota zaituzte; eta  
zu, Enbeita, neurrik ematen ez duzulako, berriro  
uretara. Elkar agurtzen".*

M. Arozena "zuk behintzat ez daukazu / nere des-  
grazia" kantatzen hasirik, Jon Enbeitak darrai:

Barkatu ene lagun  
hola esatea  
baina harrokeritan  
zenbiltzan betea.  
Zeu zinan haundia ta  
zeu zinan fuertea  
baina gaur tokatu zait  
aske izatea  
txikiak ere noizbait  
behar du suertea!

Arozena: "gizonaren indarrak / hondatuko zaitu".

Gizonaren indarrak  
dakar mila nahaste  
eta arraiantzako  
hainbat buruhauste.  
Edonoiz erortzeko  
nahiz ta hala ez uste  
nigan gerta liteke  
zuregan hainbeste;  
baina oraingoz behintzat  
utzi naute aske.

Bakar gaia: *"Iratzargailu edo despertadore bat zai-  
tugu. Konta eiguzu, astean zehar, zure txirrina  
entzutean somatzen dituzun jokaera desberdi-  
nak".* Bigarren bertsoa honakoa kantatu eban:

Nire lana da guztientzako  
ernegu ta aldrebesa  
ni naiz goizetan kontzientzia  
itxartu dezaken meza.  
Baina etsaiak ditut guztiak  
langilea zein apeza  
Inun izan ahal baneza  
neronentzako babes  
Gizonak duen une onena  
izanik bere amesa,  
ames hortatik ateratzea  
ez da lanbide erreza.

Hitza/Gaia: "Lazkao-Txiki"

Beti izaten nintzen  
zure bertsoen zai  
entzun soilak jarri nau  
izerditan blai.  
Gorputzez txiki baina  
tinko eta ernai  
bihotza zabalduaz  
entzuleai nunahi  
hainbat amesen kai  
hainbat irrien gai  
tristuraren etsai  
euskotarren anai.  
Beste bizitzan ere  
zeugaz nuke nahi. (bis)

Bakar gaia: "Putre bat zara. Orain artean, urtero-  
urtero Leitzarango mendietan egin izan duzu zure  
habia. Gaur zeru gainetik autopista berriaren ina-  
gurazioa ikusten ari zara". Lehenengo bertsoa  
haxe izan zen:

Hegotan haize epela,  
barnea daukat goibela  
hau ikuskizun krudela  
nola aipatu bestela?  
Ikusi nuen makina zaharrak  
korrika bazetozela  
baina ez nuen inoiz pentsatu  
hau ikusterik honela  
apurka-apurka ludi zabal hau  
bihurtzen doaz gartzela  
gure kabia zemento gogor  
ez al da, jaunak, itzela?  
Leizaran ere puskatu dute  
beste tokiak bezela.

"Jubilatuena tabernan lan egiten duen gaztea zai-  
tugu, Aritz Lopategi, eta Jon, bertan zauden ema-  
kume zaharra. Egunero, bazkalondoko kafesnea  
ordaintzerakoan, amonak propinatxo bat uzten  
dio mutil gazteari". A. Lopategik lehenengoa "eda-  
dez zaharra izanagatik / ez zara hain egoista"  
amaiturik, Jon Enbeitak darrai:

Lehen bakarrikan etortzen ziren  
hiru moja ta bi apaiz  
zorionean, ene mutila  
zu azaldu zinan garaiz.  
Eskupeko ugari  
zure lanaren sari  
eskaini izan dizut maiz;  
zure irria ikusi eta  
neu ere gaztetutzen naiz.

Hirugarren bueltan, Aritzek "naukazu pozez bete-  
ta / neure amonak baino gehiago / ematen dida-  
zu eta" amaiturik, Jon Enbeitak darrai:

Zeinen samurki belarrietan  
sartzen dan zure esana  
zerbitziala, dotorea ta  
gainera oso otzana.  
Hola saiatuz gero  
gu biok egunero  
ene gaztetxo laztana  
gazte eginda aterako naiz  
zahar einda sartu nintzana.

## KEPA ENBEITA "URRETXINDORRA"



Enbeitatarren dinastian, Txotxojeuriren seme Kepa Enbeita (1878-1942) izango da, orain arte, behintzat, ospe eta itzalik gehien itzi dauena. Mende honen hasieratik gerrara arte, Kepa figura garrantzitsua izan zen, bai bertsolaritza, bai garaiko abertzaletasunaren gorakada giroan. Bertsolari gisan, aro nabarmen bi dagoz haren estiloan. Lehenengoa bertsolaritza betiko tradizionokoa, txapelketa batean Aizarna bertsolariari emondako erantzun hau, esaterako:

Zenbat pertsona diran hainbeste jenino Aizarnan arrazoa haundi dok horraino. Semeantzat nobia behar daula dino urtebete ta erdi ez ei dau ondino zopak hobe leukezak nobijia baino.

356

"Komedi tokia da", "Baserritarren bizitza" eta hainbat eta hainbat bertso daukaz, aro honetan sartzekoak eta bertsolari handi baten sena erakusten dabena. Bigarren arora bermoldatze zorrotz batetik igaro zen. Muxikara Jon Arrospide izeneko mediku bat heldu zen, sasoi haretan hizlari eta mitinlari handia zena. Honek Kepa Enbeitari erabateko buru-garbitasuna eman, bai politikan, bai euskararen garbitasunean. Aro oso baten lekukotza argia eta aldi berean gordina (oraingo ikuspegitik, jakina) itzi euskun Kepa Enbeitak, 1922ko urriaren hamaikako Euzkadi egunkarian idatzi ebanen:

"Nik gaztetxutatik neukan zaletasun aundia oleskigiñen ekiteko; eta nainoz eta nainun, beti gertu egoten nintzan onetarako. Trabernarik trabena erabilten nenduen; baña nik erabilten neban euskera... etzan euskerea. Eta berbetia be sarritan errezegia ez. Arrospide mutil gaztebikaña gure errira

osalari etorri zan; au nigaz aizkide egin zan, eta neu beragaz bardin. Arrospide abertzale andia zan, baña ni... edozer: Euskelerrri maitia bai, baña enekian zer zan abertzale izatia; ta gure aberri bakarria Euzkadi zanik bez. Arrospidek polito-polito esan eustan gure aberria zein zan, gu len zer giñan, gaur zer garan; zer izateko eskubidia geunkan; Sabin nor zan, zelakua zan, zelako asmoak eukazan; euzko-oleskariak antziña-antziña zelakuak izan ziran, orduan zer egiten eben; geruago oleskariak oitura onak galdu ebezela, aberri oleskari izatetik "trabena-oleskari" izatera biurturik ere abar.

Oneik gauza guztiok esanda, aurpegira begiratzen eustan; eta azkenik, onela: 'Ik, Kepa, eure anaikin eta abar, emetik aurrera, euskera garbian bertsuak eiten ekin biar dautsek. Lenenguan gatx izango yak ori eitia, baña bakarrik aguanian-eta, anaiakin etxian-eta, olantxe ekiok illebete inguruen, eta gero errez-errez eingok edonun'. Esan ta egin! Asi nintzan Arrospiden esana eiten eta beriala euskerea erreztu yatan. Eta ikusirik nik bere esana egiten nebala, ordutik aurrera, beti leun eta polito, aitak semiari lez, Arrospidek irakatsi eustan Jel-oleskaria izaten eta Aberria egiz maite izaten. Biok ibili izan gara gero uri ta baserri askotan, au itzaldiak egiten (eta ez edozelako itzaldiak) eta ni abestuten. Oneri itanduten neutsan nik zelan abestu biar neban eta onek poz-pozik esate-eustan zer gaitzaz abestu, eta nik be pozik egiten neban onen esana. Eta beti etxeratzen giñan atsegintsu, geure biarkuna, Jaunari eskarrak, bete genduala-ta...".

Lekukotza inpresionantea da hau. Aberriak eta abertzaletasunak sualdi izugarri zabalkorra izan eban. Aberria ez ezik, euskara be askatu edo beste hizkuntzen kutsu guztietatik garbitu gura izan eben. Eta askapen biak, bai aberriarena eta bai euskararena, bete-bete sinistu zituen. Kepa Enbeita sualdi harek buru-bihotz harrapatu eban

eta bera be berotasun osoz entregatu zen. Beharbada, guretzat eta bertsolaritzarentzat, hobe izango zen, euskararen ereduari, lehenengo aroan jarraitu izan baleu, baina sasoi haretan, Bizkai aldean, batez be, haxe zen espiritua eta halantxe egin zen gure historiaren zati garrantzitsu eta esplosibo bat.

Kepa Enbeita 1978ko irailaren 7an jaio zen, Muxikako Ariatzako Usparitza auzuneko Jeuri baserrian. Eskola eta gaztaroa etxean eginik (jaio zen etxean bizi eta hilko zen), Ibarruriko Benita Goiriagaz ezkondu eta zortzi seme-alaba izan zituen, artean Balendin Enbeita izango zena. Gerra aurre sutsu eta politikoki guztiz aktiboaren ondoren, gerrate mada-rikatua ahal eban moduan igarorik, ordurako oso gaixorik baitzegoen, 1942ko azaroaren 11n hil zen. Klinikatik etxeratu ebenean, etxean sartzean esan ei eban: *“Oraintxe nago zeruan. Neure denporan, Jau-nari azken arnasa neure jaiotetxe honetan emoteko zoria izan dagidala beti eskatu deustat, eta eskatua emon deustala ikusten dot”*.

25 urte zeukazala, Getxon txapelketa bat antolatu eben. Lau giputz (Txirrita, Aizarna, Frantsesa eta Pello Errota) eta bera izan ziren parte-hartzaile, eta lehenengo saria Kepa Enbeitari emon eutsien, bigarren Txirrita gelditurik. Txapelketa haretantxe kantatu eban gorago emondako “zenbat pertsona” izeneko bertso famatua. Txapelketa horrek ospe handia ekarri eutsan eta, orduko abertzale mogidaren goranzkoan, mitinetan eta abar kantetako deitzen hasi jakozen. Gero Muxikara mediku etorri zen Arrospide famatuak joera hori guztiz go-nera jasoko eutsan, eta, aurrerantzean, Kepa Enbeita euskararen, fedearan eta, batez be, aber-tzaletasunaren bertsolaria izango zen. Eta ez alfe-rra inondik be. Hogeita bost urte ingurutik berrogeita bategaz gaixotu zen arte, herri eta batzoki guztietan gelditu barik ibili bazen, ez zen gitxiago izan *Euzkadi* egunkarian eta garaiko aldizkarietan izan eban parte-hartzea. Julen Urkizaren *Euskal*

*Bertso eta Olerkien Bibliografia* izeneko aurkibide-liburuan 400 sortaren izenburuak datoz. Produk-zino izugarria da hori, hatara beren beregi dedi-ketan ez zen batentzat, baserritarra bera, gainera.

Kepa Enbeitaren lehenengo aroko bertso-rik entzu-tetsuenak, beharbada, *“behi zaharrarenak”* izango dira, non Kepa eta Imanol anaien arteko behi-erastea kontatzen den, alkarrizketan, hirugarren anaiak, Santik, azkena emongo deustala.

*Kepa Enbeita*  
Komedi tokia da  
gure okoilua  
behiak adarra dantzan  
ta hik akulua.  
Bi alditan hor habil  
mutil kankailua  
esnez bete ezinik  
heure katilua.

*Imanol Enbeita*  
Ni baino gehiago dok  
behi zahar hau indarrez  
ostikoka eiten jok  
gainera adarrez.  
Esnerik ezin kendu  
ta heu hortik barrez  
pazientzia hartzen  
ez jauk hemen errez.

*Kepa Enbeita*  
Esnia zelan kendu  
etxeko danentzat  
eskatzien euki dok  
plana bestientzat.  
Orain neure ustian  
falta dok heuretzen  
hori dok itxuria  
mutil gaztientzat.

*Imanol Enbeita*

Matusalen baino be  
zaharrago dan behia  
trabes iminten jaustak  
gaur neuri begia.  
Askan eukiagaitik  
nahiko janaria  
atzeko ostikoa  
dauko dantzaria.

*Kepa Enbeita*

Bi alditan hasi haz  
esnia batzien  
bietan katilua  
dok erdi hutsien.  
Hi baino abilaurik  
ez badok heltzien  
dantzan eingo jok horrek  
okoilu ertzien.

358

*Imanol Enbeita*

Argimutil on barik  
postien onduan  
hator ikusitera  
zer moduz nagan.  
Hurreratu ez banintz  
askoz hobe nuan  
ostikuaz jo naiok  
belaunen buruan.

*Kepa Enbeita*

Esne kentzen hasi haz  
harro eta mainez  
inori burletako  
uste ta ahaleginez.  
Hi haz mutil abila  
bakarrik mingainez  
behi zaharren ostikuak  
eraiteko ines.

*Imanol Enbeita*

Barriketia behintzat  
hik badok nahikua  
heuk eratzi nahi badok  
hemen jauk lekua.  
Eroan ezketino  
errora eskua  
adarrak dantzan dabiz  
zoli ostikua.

*Kepa Enbeita*

Nunahi erakusten dok  
abilaren antza  
esnia batzen barriz  
aparteko gatza.  
Bizkor eta garbiro  
neurria gorantza  
amak baieukak laster  
pitxer aberatsa.

*Imanol Enbeita*

Seguruan hauala  
gaur edozer dinok  
"Neuk eratziko juat"  
halan be ez tinok.  
Zikintzeko bildurrez  
esku guri finok  
heuk adarra jo eta  
lana barriz inok.

*Kepa Enbeita*

Mutilen finezia  
horraino haundi dok  
esnez janaritzeko  
etxeko guztiok.  
Ia gaineztu dozak  
dirian ontziok  
lar kendu barik, mutil  
apur bat itxiok.



*Imanol Enbeita*

Gazteak ezin leike  
ezer zaharrarekin  
ernegau erain daustak  
gaur heure koplakin.  
Banaiuak katilu  
eta pitxerrakin  
hemen daukok lekua  
heuk nahi badok ekin.

*Santi Enbeita*

Lau bertsolari dagoz  
gaur gure etxien  
bat askan ta bi kortan  
aita ezkatzien.  
Bi abilenak dabiz  
esnia batzien  
Manu hasarratzen da  
kolpe bakotxien  
esnezko aparirik  
ez dau arratsien.

(*Bertsotan 1789-1936*, 262. or. Joanito Dorronsoro.  
11. bertsoa Jon Enbeitaren *Enbeitatarrak II* liburu-  
ko bertsinotik egokitu dogu)

- 02) **Ez jauk:** ez jagok, *ez dago* hiketan.  
04) **Jaustak:** jeustak, *deust* hiketan.  
05) **Batzien, heltzien:** batzen, heltzen.  
06) **Jo naiok:** *jo nau* hiketan.  
07) **Eraiteko ines:** eragiteko ihes, ihes eginarazo-  
tzeko.  
08) **Eratzi:** eraitsi, jetzi, esnea batu.  
**Jauk:** jagok, *dago* hiketan.  
09) **Baieukak:** bajaukak, *badauka* hiketan.  
10) **Hauala:** hagoela.  
11) **Horraino:** horraitino, bai gero.  
12) **Koplak:** atxakiak, zirinkeriak, zuzter bako  
kontuak. Banaiuak: .banajoak, *banoa* hiketan.

**Ikusirik lora bat**

1)  
Ikusirik lora bat  
ez hemetik urrin  
neure poz-atsegina  
Goiko-Etxebarrin.  
Nik bera eskuratu  
ez dagidan egin  
batek baino gehiagok  
ein dabe ahalegin  
baina zirkin haundirik  
ez deustie eragin.

2)  
Ai neure bihotzeko  
lora usaintsue  
zeure gozotasuna  
kendu nahi dautsue.  
Baina zu beti nigaz  
maite indartsue  
zu zara niretzako  
hain atsegintsue  
zarela lora bat  
onoidadetsue.

3)  
Bizi zinian eder  
lorategi baten  
ez eutsula ezek be  
kalterik egiten  
ta ikusirik nintzala  
ni hurreratuten  
sasi baltzak albotik  
egin eutsun urten  
galazo gurarikan  
zu niganatuten.

4)

Alper nekauko dira  
arantza ta sasi  
osasun ederrian  
gu bagara bizi.  
Lora maitia sarri  
eingo zaut ikusi  
ta zuk maitetasuna  
neuri erakutsi  
ezkero, zelan baina  
eingo zaitut itzi?

5)

Lirio lora zara  
udabarrikua  
egizko euskeltzale  
bihotz onekua.  
Horrexegaitik zara  
neure gogokua  
laster luzetuko dot  
zeugana eskua  
hartzeko maite dodan  
lora pozezkuia.

(*Enbeitatarrak II*, 66. or. Jon Enbeita)

Bere emaztegai Benitari eskainitako sorta honezaz gainera, beste hainbat bertso bialdu edo eskuratu ei eutsan, baina neskaren etxean ez eben, antza, ezkontza ha begi onez ikusten eta Benitak, irakurritakoan, bertso-paperak erre egiten ei zituen, badaezpada. Batzuk gogoan gelditu be bai, honako hau, esaterako:

Kaminotik hurrian  
txito aldatsien  
dakit bizi zarena  
baserri etxien.  
Ze borondate dagon  
zure bihotzien  
jakitera banator  
domeka iluntzien.

(*Enbeitatarrak II*, 68. or. Jon Enbeita)

### Gabon eguna

1)

Urtiak daun egunik  
ospetsuena  
Euskal Herrian behintzat  
Gabon eguna  
oldozmenez beterik  
jarten gaituna  
zorioneko Gabon,  
Gabon kutuna.

2)

Mangutsik dinbi-danba  
aizkora-hotsian  
mukur txikitzen gogor  
dabiz ertzian.  
Montorrak eiten dabez  
ezkaratzian  
afari gertetako  
gaur arratsian.

3)

Sukaldiak berorik  
goruntza keia  
teilatutik ortzirantz  
pozkiro doia  
goitarrai esan nahirik:  
*Gabon alaia  
ospatzeko badabil  
etxekandria.*

4)

Seme-alabak batoz  
jaiotetxera  
gurasoak urtetan  
dautse atera  
besarkatzen dirala  
kistar antzera  
Gabon ospatuteko  
danak batera.

5)

Aspaldi kanpotik zan  
senar maitia  
noiz helduko zain dago  
bere emaztia.  
Heldu da ta kax-kax-kax  
jo dau atia  
ospatuteko Gabon  
pozez betia.

6)

Entzuten dira soinu  
pozkarizkuak  
dunbada, oihu, zantzo  
eta txituak.  
Mahaian jaki, edaki  
guztitaikuak  
Gabon ospatuteko  
gertaurikuak.

7)

Bizitoki biko etxe  
zabal batian  
sendi bi bizi dira  
bake-bakian  
alde baten aberats  
bat, ta bestian  
umedun alarguna  
ezerezian.

8)

Umetxuak amari  
esaten dautse:  
"Etxekonian bauke  
nahizenbat gauze.  
Dinue 'Gabon bonbon  
bete ta ase'  
hareik dana gainezka  
gu barriz gose".

9)

Ene kutuntxuok gaur  
ez ein negarrik  
ez zarie lotuko  
ezer bagarik.  
Ez dauku bixigurik  
ez oriorik  
baina taluak jang'uz  
bero-berorik.

10)

Lenengo baina goruntz  
jaso bihotzak  
zeruratu daitezcan  
gure otoitzak.  
Belenerantz begira  
oroi bakoitzak  
onetsi gaizak handik  
Jesus on hutsak.

11)

Belen aurrian gogoz  
ama ta ume  
belauniko agurtza  
otoizten dabe  
Sendi Deunaren aintzaz  
gokaxo-alde  
kistar zintzoen eraz  
nagirik bage.

12)

Otoi beruak egin  
ondorenian  
zutundu eta bira  
ein dabenian  
mutiko bat dakuse  
aldamenian  
ta otzara betia  
mahaian ganian.

13)  
Mutikuak dirautso  
alargunari:  
"Josuren izenian  
amatxok neuri  
emon daust bezuzadun  
otzara hori  
danok egin daizuen  
Gabon afari".

14)  
Mutikuai dirautso  
samur, maitetsu:  
"Amatxori milesker  
esan eiozu".  
Ta bere umezurtzai  
eginik mosu  
dino "errukitu da  
gurekin Josu".

15)  
Urtiak daun egunik  
ospetsuena  
Euskal Herrian behintzat  
Gabon eguna  
oldozmenez beterik  
jarten gaituna  
zorioneko Gabon,  
Gabon kutuna.

(*Enbeitatarak II*, 81. or. Jon Enbeita)

### Zazpi erriojanu

1)  
Eibartik Muxikara  
lehengo barikuan  
zazpi erriojanu  
ekarri nituan.  
Nere andreak hauek  
ikusitakuan  
grig-grag txikitu eta  
iruntsi zituan.

2)  
Nere andre maitea  
hain ona izanik  
nork sinistu gauz hori  
egingo zuanik?  
Ez zion utzi hezur  
azal ez maminik  
aspaldi ez da jazo  
holako krimenik.

3)  
Guzti hau einda ere  
biharamonian  
ezeren kezka gabe  
patxara onian  
ez eguan har asko  
bere gibelian  
ai zer kristauak diran  
Muxika aldi!

4)  
Guzti hau einda ere  
kezkarik ez izan  
ez dakit gauzok nola  
izan litekezan.  
Betiko espexera  
eraman ez dezan  
ene Bitor Arana  
inori ez esan.

(*Enbeitatarak II*, 112. or. Jon Enbeita)

Zazpi "erriojanuok" zazpi mahats-mordo ziren, Eibartik gauza gozotzat etxera ekarriak, gau beranduan, seguruenik. Orduan, mahatsa oso estimatua zen baserrietan. Kepak umeentzat-edo ekarriko zituan, baina amak ezin tentazinoari eutsi, goizean goiz, umeak baino lehenago jagieran.

**Don Jose de Artabe**

Don Jose de Artabe  
 nuestro señor Pater  
 comerciante de primera  
 e idem de chofer.  
 En cuestras y llanuras  
 leunkiro ta laster  
 hor erabili gaitu  
 uri eta bazter  
 para arreglar el "buche"  
 hoteles de super  
 con un gran apetito  
 Jainkuari esker.  
 En todas partes "trompis"  
 marca fina semper  
 y para retaguardia  
 erbi, pernil ta eper  
 Artaben kontu dabil  
 hamaikatxu alper.

(*Enbeitatarrak II, 115.* or. Jon Enbeita)

**La vida más tranquila**

"La vida más tranquila"  
 baserritarrena  
 "para ser uno fuerte"  
 biharra onena.  
 Hau da uritar askok  
 esan ohi dabena  
 baina horraitik eurak  
 ez jatozak hona  
 jakin arren biharra  
 dala osasuna.

Ogi, arda, igali  
 eta ortuari  
 okela ta enparau  
 jan eta edari  
 luginok damotseguz  
 uritar danari  
 gomutauko balebe  
 zer dan bihar hori  
 hobeto begituko  
 leuskigue guri.

(*Enbeitatarrak II, 116.* or. Jon Enbeita)

**Kukua entzun nebala**

1)  
 Kukua entzun nebala  
 gaur hogeiegun  
 baso, baratzak legez  
 harrapau nindun  
 txiro ta ilun  
 orririk ez lorarik  
 ez zala inun.

2)  
 Kukua izan arren  
 txori hain zuhurra  
 udabarria zaintzen  
 guztiz zigurra  
 aurten guzurra  
 dala esan legike  
 bere agurra.

3)  
 Aurten etorri jaku  
 inoizko goizen  
 eztatari ederrauaz  
 asko ni baizen  
 alai ta gizen  
 baina ez dakit lanok  
 zelan dabizen.

4)

Ni baino asko zaharrau  
bai da kukua  
nire aitita baino  
lehenagokua  
ez hain kokua  
aurten egin dau baina  
egitekua.

5)

Usterik orain zala  
bai udabarri  
neguan etor dala  
oin dau igarri  
oin dago larri  
loran orde ztxingorra  
daukala ugari.

6)

Uda-jantzi txairuaz  
heldu jakuan  
usterik eguraldi  
txar danak juan  
ziralakuan  
orain estalgi bila  
dabil auzuan.

7)

Kukua, zetan ez dok  
abes egiten  
lotsaz hor egon barik  
txingor-euriten?  
Hortako hobe dok juan  
udabarriten.

8)

Kukuak usteko'ban  
lehenau bezela  
negua ta udia  
bardin dauzela  
baina bai zera  
aldatau dira beste  
gauzen antzera.

9)

Lehen Marti Andra Mari  
heltzen zaneko  
zugatzak orriz jazten  
ziran ederto  
oin jorraileko  
azken aldian baino  
askoz hobeto.

10)

Gau ta eguna dagoz  
lehenauko antzez  
euren gora-beheretan  
orain be artez  
besterik bapez  
enparaukuak goi-behe  
haundiak daukez.

(*Enbeitatarrak II*, 121. or. Jon Enbeita)

#### **Euskara maitagarria**

1)

Gure asaba zaharren odola  
daukagun arte zanetan  
agertu daigun euskeldun antza  
geure arazo danetan.  
Euskera zaharra egarriz ito  
ez dein legorte honetan  
egarri hori ase daiogun  
maite badogu benetan.

2)

Hitzak bakarrik indarge dira  
egipenak zinaldari  
nor zelango dan bere egipenak  
erakusten dabe argi.  
Euskeldun batek Euskel Herrian  
beti erderaz badagi  
alperrik esan "soy vascongado"  
erdeldun hutsa da hori.

3)

Ikasi daigun erdera, prantses  
nahi ingelesen elia  
ikaste hori ontzat daukagu  
baina lehenengo geuria.  
Hizkuntza danak gurgarri dira  
autortu nahi dot egia  
guretzat baina gurgarriena  
Euskera maitagarria.

(*Enbeitatarrak II*, 48. or. Jon Enbeita)

### Viva España

Gerra aurrean, Oñatiko mitin batean, sozialista talde batek "viva España"-ka ziharduela, gerora Bizkaiko abertzale euskaldun gehienek kantatu izan daberen bertso hauxe bota eban:

"Viva España" didarka dagoz  
neuk bere "viva" dirautsat  
gorrotorikan ez dagolako  
nigandik Españarentzat.  
Katolikuok jakin dagigun  
zer dinon goiko Juezak:  
"besten gauzari bakian itxi  
zaindu beria bakoitzak"  
haugaitik "viva" dinot barriz be  
izan bedi españarentzat  
baita be dinot "Gora Euzkadi"  
geuria da ta geuretzat.

(*Bertsotan 1789-1936*, 261. or. Joanito Dorronsoro)

### Maixu batek behin

Maixu batek behin eskola-umiei  
egin eutsen hitzaldian  
hau esan eutsen: España zala  
ospetsuena ludian  
Amerika be menpetu eban  
indarrez behingo batian  
Españako bandera jarriaz  
Amerikako lurrian  
ta amerikarren gauzak ziranak  
bandera jarri artian  
españarrenak izan zirean  
ordutik aurrerantzian.  
Eskola-umiok poz-atseginez  
hitzaldi hau entzutian  
hogei mutiko azkar gerturik  
han doiaz arratsaldian  
zapi handi bat eskegi dabe  
makila baten ganian  
makila hori sartuten dabe  
maixuan baratzen erdian  
eta igalidun zugatz ganetan  
azkar hasi be lanian.  
Hau ikusirik maixu harruak  
dirautse hasarre bizian:  
"Lapurtzar horreik, zer dabilzue  
inoren gauzak hartzian?"  
Mutilak, baina, danak batera  
gogor erantzun eutsian:  
"Ixi, maixu hori! Ahaztu al jatzu  
zer esan dozun goizian?  
Ikurrin hori geuk jarri dogu  
oin geu nausi baratzian!  
Ta gu haugaitik lapur bagara  
orain gu garan antzian  
zeuk esandako españarrak be  
lapurrak izan zirian".

(*Bertsotan 1789-1936*, 265. or. Joanito Dorronsoro)

### Behi Nabarraren amesa

Atzo goizian ames ein nuan  
ai, ha zan amesetia!  
Ikusi neban behi nabar haundi  
eta ganera luzia  
Euskal Herrian musturra daula  
ta Madrilen errapia  
hemen jan ta jan ta han zirri-zarra  
erasten esne guztia  
behian aurrian euzko mutil bat  
errimia ta gaztia  
esku batian makila daula  
ta bestian idazkia  
idazki hartan idazkun hauxe:  
"Kendu behi honi askia  
emon egizko gosia  
hauxe dalako lotsabakoai  
ein bihar jaken gauzia".

366

(*Enbeitatarrak II*, 107. or. Jon Enbeita)

### Anaiak gara

Anaiak gara laburditarrak  
zuberotar ta naparrak  
anaiak baita gipuzkoarrak  
arabar ta bizkaitarrak.  
Guztion ama Euzkadi da ta  
gu bere seme bakarrak  
alperrik ezetz esango dabe  
gure arerio txarrak  
nik dinodan hau egiztutzen dau  
gaur hemen ein dan batzarrak  
Aupa! Gora anai azkarrak!  
Mugak kendu ta jarri dagigun  
aberri oso bakar bat!

(*Bertsotan 1789-1936*, 267. or. Joanito Dorronsoro)

### Izaro

1)  
Izaro ugartea  
Izaro, Izaro!  
Laidatik hur-hurrian  
luzaro, luzaro.  
Itsasoen altzoan  
aske ta gozaro  
inoiz gogaitu barik  
beti hantxe dago.

2)  
Goian zerua eta  
behian itsasoa  
honek damotsolarik  
besarka gozoa.  
Bera da ugazaba  
bera gurasoa  
beti aske bizi dan  
zorionekoa.


3)  
Urteak igaro ta  
urteak igaro  
ez zahartu ez gaztetu  
sen batean dago  
zirkinik egin barik  
harago ez honago  
gaurko gizonok baino  
zerbait sendoago.

4)  
Han dago gau ta egun  
begira Laidari  
baita udan Laidara  
duazan danari.  
Bera da jagolia  
bera zinaldari  
nor zelan ibiltzen dan  
itandu berari.

(*Bertsotan 1789-1936*, 264. or. Joanito Dorronsoro)



## MOISES ENBEITA



Muxikako Ariatzako Ormaetxe baserrian jaio zen, 1945-IX-30ean. Umezaroa etxe inguruan eta auzo eskolan eginik, 11 urte-gaz Arantzazun sartu zen, fraile izatekotan. Han eta Foruan batxilergoa, Óliten filosofia eta barriro Arantzazun teologia zati bat eginik, fraileztatik urten eta ardan-degi batean behar egin eban 1989ra arte. Harrezkero, Bizkaiko Frisoi Elkartean dihardu, gaur arte. Gernikako Pili Ibarragaz ezkondurik, seme bi ditu, Ardatz eta Xabier, hau be bertsolaritzaren inguruan dabilena.

Moisesek, Balendin Enbeitaren semea izanik, eta, gitxi-asko, neba-arreba guztiak bertsolariak zirela, bertsolaritzarako lehenengo urratsak non emon zituen esan beharrik ez dago. Hainbat sariketatan parte hartua da, baita Bizkaiko txapelketetan eta Euskal Herrikoan be. Bertso jarrietan, barriz, sari askotan parte hartua eta bat baino gehiago irabazia da. Horregaz batera, Bizkaiko bertsolari eta bertsozaleek Moises Enbeitaren irudi nagusia areago daukie eragile, antolatzaile eta behargin neka-ezin legez. Moises Enbeitak denerik egin dau Bizkaiko bertsolaritzan, baina gitxi izango dira berak beste lan isil eta jarraiturik egin dauenik, hasi Bertsozale Elkarteko zuzendaritza batzordetik eta sukaldaritzaraino, egitekoak beti ganoraz eta garantiaz eginez. Eta beti animoso eta animoa zabaltzen.

Txapelketen sailean agertzen diren bat-bateko bertsoez gainera, bertso eta koplak jarri batzuk aukeratu doguz.

## Mende barri, zaharrak barri

(Hamabiko sortatik aukeratutako bost)

Bi milagarrenean brau sartu da gure mundu hau zerata asko ekarren baina lehengo hatan dirau. Egunak egun gauak gau zer jan ez daukanak barau bizi ezinik asko ta asko bizi diranak lau.

Noiz helduko gengoan zai ikusminez danok ernai heldu danean, "hau al zan dana?" ilusinoak jai.

Mende barrian gagoz bai baina ametsak urrun, ai! Eta alperrik esango dogu "hau ez genduan nahi".

Zaharrak iraun dau ehun urtez ez zan usteldu subertez barria barriz jaio orduko jantzi da birtutez. Telebistak hogeikatez erosketak internetez atze ederrak jarriko jakuz jarrita egotez.

Lehengo bera ei da Pekin urrun dago ta nok jakin atzo lez gaur be ez da faltako nori, zeri ekin. Ni garbi eta zu zikin ezin bizi alkarrekin baina hori bai, beluko mezan "bakea zurekin".

Lau egun biziko eta  
horrenbeste barriketa  
harrik ez badau alper-alperrik  
ekingo erpeka.  
"Etsipenari kisketa  
eta ez galdu kasketa"  
Aittitte zanak aspaldi emon,  
eustan errezeta.

### Gure behie, Benitte

(2003ko *Jentilak* kopla lehiaketako 1. saria. Hamarreko sortatik aukeratutako bost)

Gure behie bai argie (bis)  
buztanean be begie  
ostikoaz hilko leuke  
hegaz dabilen eulie.  
Buztanean be begie  
hegaz dabilen eulie.

Itxura baten politte (bis)  
bere izena Benitte  
amuma be endakoa  
Kanadatik etorritte.  
Bere izena Benitte  
Kanadatik etorritte.

Cantabrian erosie (bis)  
badaki zer dan gosie  
errapea zimel baina  
hazurrez ondo josie.  
Badaki zer dan gosie  
hazurrez ondo josie.

Erosi gendun orduen (bis)  
edarra sartu euskuen  
sarritan esan dot baina  
hoba lo ein bagenduen.  
Edarra sartu euskuen  
hoba lo ein bagenduen.

Nahiz ondo esan berari (bis)  
ostikadea opari  
eta hori gitxi balitz  
ez da gelditzen ernari.  
Ostikadea opari  
ez da gelditzen ernari.

## JOAN ANTONIO ENBEITA "TXOTXOJEURI"

Enbeitatarren dinastia Joan Antonio Enbeita "Txotxojeuri"-gaz hasten da, 1848an jaio eta 1928an



hila berau. Kepa Enbeitaren aita eta Balendinen aitita honek bromoso fama handia itzi eban. Horretan, instituzino bat izan behar eban Muxikan eta, batez be, bere auzo Ariatzan. Ezizenaren jatorria adierazgarria da. Jeuri edo Jauregi bere etxearen izena zen eta da orain be. Eztegu egunean, ezkondu eta elizpera urten ebenean,

mutiko batzuek pilotan jokatzeko desafioa bota ei eutsien, tentatzeagaitik seguruenik, une eta solemnitate haretan ez baitzeitekeen ezkonbarria pilotan hasi. Baina Joan Antonio Enbeitak, andra barria aitagarrebagaz itzirik, desafioa jaso, jokatu eta irabazi egin ei eban. Aitagarrebak ez eutsan, antza, portaera hari zuzen eritzi eta partidua amaieran dinotso:

-Txotxo! Ezkondu eta andrea itzirik, umeekin pilotan? Hi beti "Txotxo" izango haz.

Eta bizi guztirako izen horrexegaz geratu zen. Txotxo + Jeuri = Txotxojeuri. Bizitzan hainbeste ateraldi eta pasadizo itzi bazituen, heriotza inguruko bat kontatuko dot, zirrada eragitekoa bera. Osasuntsua izan bazen be, heriotza gogorra izan ei eban. Oheratu eta bost egun egingo zituen bizirik, baina pena edo min izugarriekin. Jon Arrospide herriko mediku famatuak indizino batzuk agindu eutsazen, penak arintzeko. Bere seme Kepak orratza besotik sartu eutsanean, hots egin ei eban:

-Ai, koño, koño! Larogei urteko gizona penakaz egon ezinik eta ondino orratza sartu besotik!  
-Baina, aita! -kontsolatu gura izan eban semeak-  
Orain arte Jaunak osasun ederra emon deutsu eta pazientzia apur bat eukizu, ba.

-Zer balio jeustak orain artekoak? -hasarratu ei zen Txotxojeuri-. Oraintxe behar joat nik osasuna, oraintxe!

Txotxojeuriren bertso askorik ez jaku iritsi, baina, iritsi direnetarik, atera geinke horretan be bazela nonor. Sasoi haretan, karlistak eta liberalak ziren eta Txotxojeuri karlistekin sarjento ibilia zen bigarren karlistadan. Behin bertso hau bota eban:

Karlista ta liberal zuri eta baltzak  
danak egiten dabe bakotxak beretzat.  
Unidade karidade projimuarentzat  
ez dago gauza hobarik erlejinoentzat.

Badauka bertso-paper bat, "*Muxikako probak*" izenekoa. Gernikan jokatzekoa zen idi-proba bat galazo egin eutseen hemen, eta Elgoibarko alkateari parte bialdurik, honek baietz, berak libratuko ebal plaza. Errigotiarren eta muxikarren arteko joko kontetan da zortziko txikiko hamabost bertsoan.

369

### Muxikako probak

1)  
Muxikan pasatu da  
hau da komedie  
teile posture eginda  
joan Bizkergire.  
Handikan bueltatu ta  
Taberna Barrire  
probie armatu da  
jire eta bire.

2)  
Hamabi ta erdietan  
ha zan tertzioa  
Gizonak eukiteko  
ona juizioa.  
Agustin alkatie  
Lupariakoa  
kontrarioa barriz  
Markes Jeurikoa.

3)

Posture armatute  
bai ere jokatu  
irabazi ebanak  
ezin leiken galdu.  
Harro dabilenari  
zer jakon gertatu  
galdu eta berandu  
gero akordatu.

4)

Lumo aldetik jaku  
kontrakoa agertu  
Joakin Agerrekoak  
posture zarratu.  
Baina haren esanaitik  
ez gendun pentsatu  
Astelarren eingo zan  
probarik jokatu.

5)

Esandako berbie  
han eban kunplitu  
bai eta sasoirako  
idiek plantatu.  
Lehenen muxikarrari  
jaken suertatu  
bigarrenak arraiek  
ez zitun zarratu.

6)

Lumo baino gorago  
dago Erregoiti  
kontrarioa barriz  
parte horretati.  
Axio ta Txordoa  
orroaka beti:  
"ez dirala ikaratzen  
klase zuriaiti".

7)

Kaitano Erregoititik  
Pedro Muxikatik  
lizentzia ekarteko  
gobernu aurretik.  
Ez eben ezer lograu  
ahaleginakaitik  
bakea hoba zala  
Jaungoikoagaitik.

8)

Bake bat egitea  
genduan pentsatu  
Gernikako frontoian  
bai ere juntatu.  
Baina idi jabeak  
ziraden gogortu  
proferzaz ein behar zala  
proba hori jokatu.

9)

Elgoibarrera parte  
genduan bialdu  
hango alkate jaunak  
euskun kontestatu  
parautako bidean  
eiteko segitu  
berak egingo ebala  
plazia libratu.

10)

Hurrengo zapatua  
zan seinaladue  
Elgoibarren ikusteko  
idi indartsue.  
Lau joan ziran eta  
bat egon notaue  
Muxikako idi txiki  
gorri apaltxue.

11)  
 Atsalderako ziran  
 zuri beilegiek  
 ederto hasitakoan  
 egiten arraiek.  
 Baina azkenerako  
 ilundu begiek  
 gehiago izan zirala  
 aurreko txikiek.

12)  
 Axio eskumatik  
 Txordoa ezkerretik  
 larri ibili zituen  
 hogeita hamabi.  
 Gehiago ezin eben  
 ahaleginagaiti  
 baina ondo kunplituek  
 hogeita hamaika t'erdi

13)  
 Erregoitiar majuek  
 non dozuez begiek  
 sekula ez ezautzeko  
 holango idiek?  
 Ondo edukiaitik  
 okelaz josiak  
 gehiago izan zirala  
 aurreko txikiek.

14)  
 Erregoitiar majuek  
 ez zaize ikeratu  
 galdutako diruek  
 b'ozuez pagatu.  
 Bi joan ezketino  
 batek behar galdu  
 galdu ta beranduan  
 ohi da akordatu.

15)  
 Horra hamabost bertso  
 ditugu jarriten  
 ejenplugarritzako  
 atareak aurten.  
 Borondate onagaz  
 ditugu egiten  
 gura daunak erosi  
 txakur haundi baten.

05) **Arraiek:** arraiak, marrak. Gaur untzeak edo  
 plazak esaten jakenak orduan marraka neur-  
 tzen zirela dirudi.

06) **Klase zuria:** "zuriak" muxikarrak ei ziren.  
**Axio ta Txordoa:** itzainen izenak, edo ezize-  
 nak areago.

08) **Proferzaz:** derrigor, erdarazko "por fuerza".

12) **Hogeita hamabi:** arraiak edo untzeak.

Bertso-sorta hau egin ebanak gehiago be egingo  
 zituela pentsetakoa da, baina, Txotxojeuriren  
 kasuan, ateraldiak eta pasadizoak gehiago geratu  
 dira.

## FAUSTINO ETXEBARRIA

Diman jaio zen 1917an, Zamakola auzoko Etxe-nagusia baserrian. Arratiako euskal idazle aitzin-dariak liburuan, Iñaki Esparzak eta Angel Larreak idazten dabe:



*“Gazterik plazaratu zen bertsolari lanetan, bere herritarra zen Esteban Uriarte bertsolari handiarekin, II. Errepublikan. Gerra denboran preso egon zen Bilbon. Eragozpenei aurre eginez, bertsozale jarraitu zuen, eta 1960. urtean, Bizkaiko*

*Hirugarren bertsolarien Txapelketan, Arratiako irabazle atera zen. Orduan eta gero, Basilio Pujana bertsolariarekin bertsotan ibili da sarritan”.*

Aro modernoko txapelketetan be, 1987 eta 1990ean parte hartu eban. Aspaldiko urteetan, Galdakaon bizi da eta, jubilatuz zenetik, liburu bi idatzi ditu, *Nor garan azaldu* eta *Nire gazte denpora*, Auspoan argitaratuak.

### Dimako zezenak

(Gorago aitatu dogun liburuan, bertso-sorta luze-tik aukeratzen ditueen laurak dakarguz hona)

1)

Diman daukagu plaza polit bat  
zezen-plazatzat jarria  
begiratuta emoten deusku  
bistale ikusgarria.  
Alde batetik udaletxea  
zaindu dagian herria  
eta harri bat jarlekurako  
lehenaokoak ekarria.

2)

Gure Bizkaian ez da herririk  
holango plaza daukanik  
ikusiteko jende guztiak  
bera onena izanik.  
Dimako plazak ez dau emoten  
barriarentzako planik  
ez dago inun Euskal Herrian  
haren antzekoa danik.


3)

Giltza handi bat botaten eben  
Udalako balkoietan  
jinete batek hartuaz bertan  
zaldi ederran ganeti.  
Ate gogorra zabalduagaz  
giltzariaren aldetan  
kornetak bere agintza bota  
zezenak urten dau beheti.

4)

Hogei eta lau bertsotan jarri  
Dimako zezen kontua  
herriarentzat gozoa izan  
antxineko inbentua.  
Arratsaldean zezenak plazan  
gabatan bertso-kantua  
orain tristezan izango da, ba  
patroitzat dogun santua.

## JOSE RAMON ETXEBARRIA



Zenbait ingurutan "Txepetxa" ezizenez be ezagutzen den gizon nekagatx hau, euskal kulturaren, zientzian eta herrigintzan, Euskal Herri osoko erreferente nagusietariko bat dela bildur barik esan geinke, bere burruka politiko, akademiko eta sozial etenbakoa dela bide, askok publikoki onartu gura ez badeutso be. 1948-V-27an Gernikan jaioarik, goi-mailako ikasketak egin zituen industria injinerutzan. Lanbide nagusia irakaskuntza izan dau, fisikari moduan gehienbat, nahiz eta gizon honen kasuan gatxa den bere lanbide nagusia zein den esatea, lan pilo batera eroan ohi baitau beti. Eta, halan be, denpora luzea hartzen dau, era guztietako militantzia inkondizionalari ekiteko.

Jose Ramon Etxebarriaren curriculum, liburu, testu, hiztegi, material eta artikulugintzan, amai-bakoa da, mareatzeko modukoa. Laburtzen hasi be ezin da egin. Eta, horren guztiaren barruan, bertsolaritzarako tartea be aurkitu eban, ez edozelan, gainera. Bera izan zen Santutxuko bertso-eskolaren sortzaile eta eragile nagusietarikoa urte askoan, antolatzaile eta irakasle moduan. Hori nahikoa ez zela, bere ohiko argitasun eta ausardiaren gainean, bat-bateko bertsogintzan be abiatu zen, askoren musturrak okertzeko mailaraino heldurik. 1985eko Araba-Bizkaiko kanporaketaz gainera, 1982 eta 1986ko Euskal Herriko txapelketa nagusietan, Santutxuko eskolatik parte hartzea erabagi eban eta Jose Ramon, lehenengo fasea gainturik, azken laurenetan, finalerdietara pasatzeko atean geratu zen. Azken urteetan, bertsogintza aktiboari itzita egon arren, bertsolaritzaren zale eta jarraitzaile izaten jarraitzen dauela autortzen dau.

## Gasteiz (1986-II-02)

Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko azken-laurena.

*"Zuek biok senar-emazteak zarete. Etxebarria senarra eta Areitio emaztea. Emaztea ohean dago eta hor dator kio senarra, gaupasa eginda, txurroak eta txokolatearekin".*

*J. R. Etxebarria*  
Sarri izaten dogu  
hemen arazua  
eta emaztea da  
horretan kexua.  
Karinosa nator  
ematen mosua  
hemen ekartzen dizut  
zure armozua!

*J. M. Areitio*  
Horra nola datorren  
gaur gizon baldarra  
honako ibilera  
zuk egin beharra.  
Emazteai holako  
mosu ta irriparra  
nik txurro asko baino  
hobe bat bakarra.

*J. R. Etxebarria*  
Etxe hontako gizonak  
ez gara harroak  
nahiz gaupasa eginez  
egin milagroak.  
Bertan pattarra eta  
baita zigarroak  
txokolate beroa  
gainera txurroak.

*J. M. Areitio*

Aspaldi hola dabil  
gizon honen martxa  
parrandan beti doa  
hona ta harantza.  
Etxera etorri ta  
ezin zaio altza  
txurroz engainatzea  
ez egizu pentsa.

*J. R. Etxebarria*

Ohean sartu eta  
bertan zegoen zai  
ni porrua altzatzeko  
aspaldi nintzen gai.  
Ez zaite jarri triste  
arpegia alai!  
Hoiiek jan eta gero  
egingo dogu jai.

374

*J. M. Areitio*

Zure ipuiak ez nau  
jarriko ni alai  
gau guztia pasa det  
senartxoaren zai.  
Baina saiatu naiz ta  
zerbitu ere bai  
eskerrak eman behar  
auzoko morroia.

"Gaur sartu zara lehen aldiz hegazkinean. Hiru  
bertso kantatu dituzu Hondarrabiatik Forondarako  
bidean".

Abioi baten sartuta  
goraino jaso  
behian ikusia dut  
gure itsasoa.  
Jesarlekua zegon  
oso eroso  
nonbait jasanagatik  
haize eraso  
gaurko biaje hori  
izan da gozoa.

Foronda alderantza  
egin nahi bisita  
Iparraldean lasai  
ezin naiz bizi-ta.  
Hango panorama hori  
ondo ikasita  
esan neike Euskal Herri  
hau dela polita  
ta politago oindik  
goitik ikusita.

Hegazkin honetatik  
egin leiteke hitz  
txori hoiiek bezela  
txit gustora gabiltz.  
Izanagatik ere  
zeru hori bortitz  
biajea egin zait  
egia esan murriz  
hobeto egunero  
holan joango banintz.



**Txapelketa Nagusiko azken-laurena  
Bergara (1986-II-16)**

*"Emaztea eta biok haurtxo baten esperoan zeundeten. Haur hori, ordea, garaia heldu baino lehenago, galdu egin zaizue. Haur horrentzat erositia zenuen sehaska hutsari begira zaude".*

Negarrez gaude oraintxe biok  
tristura handien gisan  
baina burua altza dezagun  
eta anima gaitzezan.  
Haurtxo txikia zetorrela-ta  
sehaska genduen kaxan  
era hortako tristura handirik  
nolatan genduen jasan  
ez nuen uste gintezkeanik  
horren zorikabe izan.

Nire andrea, prestaturikan  
bai zenedukan atea  
uste gaberik gure etxera  
etorri zaigu kaltea.  
Ume ederra egiterako  
euki arren borondatea  
orain tristerik ikusten zaitut  
baina lasaitu zaitea  
burua altza eta alaitu  
ene emazte maitea.

Ume galtzea entzundakoan  
ai, zer nolako larria!  
Era hortako gertakizuna  
hain dogu penagarria.  
Ume txikia izaten baita  
etxearen oinarria  
baina guregan nola liteken  
izan horren jatorria  
trankildu zaitez saiauko gara  
egingo dogu berria!

Azken agurra:

Saiatuz kanpo ta barren  
nahiz ta batzuetan herren  
lehenengo bildots izan naiz eta  
saltzailea hurren.  
Epaiketa da nabarmen  
onenean hogeigarren  
baina etxera gustora noa  
kanporatu arren.

## TORIBIO ETXEBARRIA

Hona Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoak idazle honegaitik dinona: "Politikari, enpresari eta idazle gipuzkoarra (Eibar, 1887 - Caracas, 1968). Alfa enpresaren sortzaileetakoa, zuzendari eta gerente eta CAMPESA enpresako zuzendari izan zen. Gerra garaian, Mexiko, Irlanda eta Venezuelan atzerriratu zen; hainbat euskal aldizkaritan esku hartu zuen eta euskaltzain urgazle izan zen. *Flexiones verbales de Eibar* (1963), bertsoz eta prosaz moldaturiko *Ibiltarixanak* (1967), *La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo*; *Tres ensayos* eta *Viaje por el país de los recuerdos* liburuak idatzi zituen".



Eibarko Udal Artxiboa. T. Etxebarria fondoa.

### Gazte zaran artian

(Eibar, 1966, 90. zk. "Trikitirako koplak, Toribio Etxebarriak jarriak")

1)  
Gazte zaran artian  
jolaseri oratu  
behin ba gozautakua  
inork ezin kendu.

2)  
Aratostiak juanda  
garizuma ekarri  
garizuma igarota  
berriz pekatari.

3)  
Dirudunan ondoren  
ni laga ninduzun  
baina oin dirudunak  
beste bat ein lagun.

4)  
Darabizun gaztian  
gaizkirik ez esan  
gar horretan ez dakizu  
erreko ez zaran.

5)  
Ez dau soinuak eiten  
erromerixia  
ez da erromeririk  
ez bada han maitia.

6)  
Zeri zagoz begira?  
Erosi al nahi nozu?  
Mundu dana bat einda  
nahiku diru ez dozu.

7)  
Ikusi dot itsu bat  
zoiala gaur barrez  
ta zu begi ederrez  
zergaitik negarrez?

8)  
Behin izan nintzan baten  
zure basarrian  
zoriona aitu neban  
zer leku txikian.

9)  
Zu ederra izatia  
nik zorigaiztua  
burura jatzulako  
igo horren harrua.

10)  
Larrosiak lezkotxe  
ederra itxuria  
larrosiak bezela  
dozu arantzia.

11)  
Goikua ez lelengotzat  
nola pekatu dan  
bildur naiz maitiago  
ez ete zaitudan.

12)  
Eskeko bat aitizu  
ataiko atian  
neu naiz narabizuna  
aspaldi eskian.

13)  
Zenbat zazkarrek zuri  
berba eder finak  
maite zaituan honek  
asmatu ezinak.

14)  
Begirakun sorgin bat  
dozu begietan  
sarietan bezela  
preso nozu bertan.

15)  
Arrate aldietatik  
dan ifar haizia  
baino atseginaua  
zure arnasia.

16)  
Hausi neban legia  
kontentau guran zu  
zerua galduz gero  
zaitut zu be galdu.


17)  
Bart ein dot amesetan  
zuk maite nozula  
benetan esaidazu  
ez dala guzurra.

18)  
Erakutsi zestazun  
errez maitatutzen  
baina ezin ikasi  
orain zu aztutzen.

01. **Oratu:** heldu, atxiki.  
02. **Aratostiak:** aratosteak, inauteriak.  
07. **Zoiala:** zihoala.  
10. **Lezkotxe:** legezkoxe, lakoxe, bezalakoxe.  
11. **Goikua ez lelengotzat:** Jaungoikoa ez lehenengotzat hartzea "nola pekatu dan".  
12. **Aitizu:** aditu, entzun eizu; horra hor dozu.  
**Ataiko:** atariko, atarteko.  
18. **Zestazun:** zeunstan, zenidan.

## JUAN IBARZABAL "BUZTARRI"

Juan Ibarzabal Markinako Erlatx baserrian jaio zen, 1924an, eta Markinan bizitzen jarraitzen dau, orain kalean baina. Zortzi neba-arrebetarik gazteena jaioz batera hil jaken, eta beste zazpiren artean bera zen gazteena. "Buztarri" ezizena buztargile ofiziotik gelditu jako. Baserriko umezaroan, eskolara hasteko sa-soian, artzain hasi zen eta bere ilusiorik handiena artalde handia edukitzea ei zen.



Gerrak hamaika urtegaz harrapatu eban eta, miseria guztien artean, gauza on bat, behintzat, ekarri eban mutikoarentzat. Lehengusu bat zeukan Bilbon, aldi haretan euren baserrira etortzen zena, eta, bera baino urtebete gazteagoa izan arren, eskola apur bat bazeukanez, harexek irakatsi ei eutsan irakurtzen eta idazten. Gaztaroa eta soldadutza eginik, Markinako kalera ezkondu zen, Iturretako Martina Gandiagagaz, eta hiru seme-alaba ditue. Orduan ohi ziren familietarako, hiru ume ez ziren hainbeste eta, behin, Alfonso Irigoienek puntu hau ipini eutsan taberna batean:

Puntua: *Bi neska ta mutil bat  
bakarrikan hiru*

*Buztarri:* Kanpuan ere baditut  
hamaika aingeru.  
Zenbat diran esateko  
ez nago seguru  
hirurogeitik gora  
laurogei inguru.

Ofizios buztargilea izanik, oso inguru zabaleko baserrietan zehar ibiltzea egokitu jako, lanak bezeroaren etxean bertan egin behar ziren eta. Gero, buztarrigintza beherantz hasirik, Markinako enpresa batean hasi zen lanean, baina bere artea dauen buztarrigintzari ez deutso sekula itzi.

Bertsozaletasuna etxetik bertatik zekarren, amak kantetan zituen bertso-paperetatik, lehenik. Anaia Esteban eta lehengusu bat be bertsolariak zituen eta, hareekin nahastean, laster aurkitu zituen bertsoetan egiteko okasinoak. 1961ean, Bizkaiko txapelketan, finaleraino heldu zen, eta bardin gero, 1962an eta 1964an. Harrezkero, urte bolada luzean, plaza asko egin eban "Buztarri" edo, jaiote-txearen izenetik, "Erlatx" be esaten eutsien Juan Ibarzabalek.

Markinako bertso-eskolari be berak emon eutsan hasiera. *Nire aztarrenak* izeneko liburuaren 46. orrialdean dino:

*"Lehenengo bertso-eskola Patxi Goikoleak eta haren lagunak sortu eben. Orduan jendea niri burua berotzen hasi zan, neuk be Markinan bertso-eskola bat sortu nengian".*

Eta sortu eta aurrera atera eban, Justo Zabalagaz batera, karmeldarren eskolan hasita. Lan horri eta bere bat-bateko bersogintzari ezer kendu barik, ostera, bere ekarpenik interesgarriena, beharbada, aitatutako liburu maitagarri horixe izango da, non bere gomutak eta pasadizoak prosan batzen dituen, beste hainbat bertso eta bertso-sortagaz batera. Hona hemen liburu horretatik ateratako zenbait ale, txapelketen kondairan, euren lekuan datozenei gaineratzeko:

A. Irigoien: *Andriakin zer moduz  
konpondutzen zera?*

*Buztarri:* Igarriko didazu  
gutxi gorabehera.  
Zazpi urte haurrik gabe  
egonak baigera  
guraso izan nahi degu  
hemendik aurrera.

Baserri batera buztargile joanik, etxeoandreak, lanak amaitutakoan, kopau bat jatera gonbidatu eban. Mahaian, alaba be aurrez aurre puntuginan

jesarri ei zen. "Hasi nintzan emakume hareek tentatzen eta, holan genbilzela, neure hankan bultzada bat sentitu neban. 'Baina neska honek zer pentsetan ete jok?'. Eta barrero bultzada hankan. Halako batean, gorputza disimuluan atzerantz okertuz, begiratu neban mahai azpira eta hara non erreparetan deusadan txakur handi bati neure hanka gainean".

Ama-alabak lanian  
eta ni jan-edanian  
kontu kontari ibili nintzan  
nere afanian.  
Demoniuak danian  
horrela gabiltzanean  
txakur zahar batek buztargilia  
engainatu azkenian.

Barinagako Taberna Barrin afari ederra egin ondoren, aldamenetik etxeakoandrentzat bertso bat eskatzen hasi jakozen, eta hauxe kantatu eban:

Taberna hontan bilatu degu  
sendi bat oso otzana  
afalondoan etxeakoandrea  
inguratu da gugana.  
Erregalua eder askua  
eta gainera laztana  
Maria Jesus bihotzekua  
sekula ahaztuko ez dana.

### Bilbora jua ginan

1)  
Bilbora jua ginan  
zortzi bertsolari  
Balentin Enbeita ta  
Deunoro Sardui.  
Ireneo gaztea  
eta Mugartegi  
Ormaetxe zaharra ta  
bestia Alberdi  
ta Azpillaga hori  
eta ni Buztarri  
hantxe ginan jarri  
estu eta larri  
goiz hartan pasa gendun  
nahikua egarri.

2)  
Egun hartan nuen nik  
eztarria latza  
ahalegin egin arren  
ezin bozik altza.  
Lehenengotikan galdu  
nuen esperantza  
gaizki ote nenbilen  
hartu nuen antza  
batzuek gorantza  
bestiak beherantza  
hura zan balantza  
nerbiuak dantza  
pentsatu nola zegon  
nere bihotza.

3)

Laurak aldian gero  
bazkari fuertia  
fidegu-zopa eta  
ardi-txuletia.  
Ardo epela eta  
gainian frutia  
hoitamabina duro  
zan gure kantia  
kontu dezentia  
jaiki zan jentia  
zabalik atia  
libre juatia  
neri ez zait ahaztuko  
orduho bueltia.

4)

Neskazahar bat izan zan  
gu zerbitzekua  
hizketan ematen zun  
Kastilla herrikua.  
Gona motzak jantzita  
zabalik kolkua  
hanka okerrak eta  
bizkarra kakua  
gorputza sikua  
oingo modakua  
luzia pikua  
garbitu bakua  
danak biguindutzeko  
zer nolakua!

(Nire aztarrenak, 123. or. Juan Ibarzabal)

### Oiz barreneko baso baltza

1)

Ahaztuko ez dan eguna daukat  
Kointzezinoko bezpera  
Oiz barreneko baso beltzetik  
guk egin gendun jeiskera.  
Han egindako okerra berriz  
konpondu edo jostera  
Poliklinika San Antonion  
kristorenak ikustera.

2)

Askotan hola izaten dira  
mendiko irabaziak  
golpe batekin egin nituan  
ebagi eta hausia.  
Harek ziraden izardi hotzak  
harek ziran oinaziak  
hau ere nitzat gordeta zeukan  
abenduaren zazpiak.

3)

Egun haretan aurkitu nintzan  
laguntasunan egarriz  
nigaz ibili ziraden haiek  
eskertzen ditut mila aldiz.  
Haien eskuak busti nituan  
odolez eta izardiz  
galduta nengon zuen laguntza  
nigana etorri ez balitz.

4)

Aldapa eta haren lehengusu  
nituen nire hurrian  
hainbat bidian etorri nintzan  
mutil haien bizkarrian.  
Harek ein zuten egun haretan  
nerekin gizon-lorrian  
nik ezin neike hori ordaindu  
nago betiko zorrian.

5)

Poliklinika San Antonion  
nire oinaze egunak  
han ere asko lagundu zidan  
zeruko ama kutunak.  
Sartuta hurrengo egunian  
danak nituan lagunak  
lau monja etortzen ziraden eta  
lautatik bi euskaldunak.

6)

Osagile onak ziradela  
jakinda nenguan lehendik  
hainbat ahalegin egin zidaten  
Larrañaga ta Bikandik.  
Harek goraltzen aspertu gabe  
saiatuko naiz hemendik  
zuek egindako mesedea  
goguan daukat oraindik.


7)

Honelakuan asko lezake  
emazte adoretzuak  
nere onduan pasa zituan  
hango egun gehientsuak.  
Gaixoarentzat indarra dauka  
familiako gozuak  
pozik haundina eman zidaten  
nere umien bertsuak.

(*Nire aztarrenak*, 145. or. Juan Ibarzabal. Hama-  
biko sortatik aukeratuak)

## JOAN INAZIO INTXAURRAGA

1950-VI-01ean jaio zen, Zeberioko Errota izeneko baserrian. Umezaroa etxeko eta Zeberioko eskola inguruan eginik, 12 urtegaz Derio-ko seminariora joan zen, non bederatzi urte egin zituen, filosofia amaitu arte. Handik urtenda, Euskaltzaindiaren ardurapean, alfabetatze taldeetan eskolak emoten egin zituen urte batzuk, 26 bat urtegaz, zuzenbidea ikasten hasi arte. Bizkaiko Foru Aldundian, ahaldun nagusiaren, Makuaren, idazkari izan zen zortzi urtean. Gero, Ardanza lehendakariaren sasoian, Ajuriaenean egin zituen urte bi, prentsa-bulegoko zuzendari. Zeberioko udaletxean 16 urte egin zituen, eurentariko 14, alkate. Azken urteetan, Bizkaiko Aldundiko langile dihardu.



Seminariotik urten eta laster abiatu zen bertso munduan, 1972. urte inguruan, 1979an, Aldundian sartu zenean, bertsolaritza aktiboari itzi arte. Urte horreetan txapelketarik ez zen izaten, baina sarietan hainbat bider kantatu eban, Idiazabalgo Zepai sarian, Añorgako Orixe sarian eta Mallabiako sarietan. Bizkaiko plazetan, barriz, ugarienetarik ikusten zen bertsolari gaztea izan zen. Intxaurragaren ezaugarrietariko bat bere ahots-tinbre grabe samarra eta kantakera gozoa zen. Bertso jarriak be, argitaratu bakoak, "pilotxo" ei daukaz.

### Durango (1976-VI-04)

Gabriel Arestiren heriotza urteurrenean, bertsolari-riek omenaldia egin eutsien Durangon. Abel Muniategi aurkezle zela, Azpillaga, Lopategi, Amuriza, Areitio, Intxaurraga, Igartzabal eta Jose Lizaso izan ziren bertsotan. Hona Intxaurragak erantzuniko puntu bat:

Puntua: *Aresti euskaltzale  
eta olerkari*

*J. I. Intxaurraga:* Hortaz emanak zitun  
lan onak ta ugari.  
Jarraitu dezaiozun  
beraren lanari  
arnasa emateko  
Euskal Herriari

*"Areitio lanaren indarrez bizi dan behargina  
dogu, eta Intxaurraga aitak emondako ondasune-  
tatik bizi da, beharrik egin barik".* Intxaurraga  
honela hasi zen:

Aspaldi baten hemen nabil ni  
bizi trankil ta erosuan  
ez naiz sekula behintzat aspertzen  
daroadan bizimoduan.  
Beste batzuek izerdiakin  
hor dabiz nere inguruan  
nik zertarako lan egingo dut?  
Aitak nahiko egin zuan.

*Areitio: "Gure bizkarretikan badabil /  
hemen hamaika tunente".*

Batzuek lana asko egiteko  
etorri ziran mundura  
ta handik aurrera bizitu behar  
hoiek hamaika tristura.  
Horregatikan lanik ein gabe  
ez zait nei bate ardura  
hamaika txarri gizentzen baita  
langilearen kontura.

*Areitio: "Geure denporan bagaude nahiko / mise-  
ria ikusita / honek hor dabilta golferian / bizar  
haundiak itzita".*



Langile izardiak ez dira  
gozodunezko eztiak  
berdin nekatzen ikusten ditut  
bai zaharrak eta gaztiak.  
Zertarako, ba, lan egingo'gu  
gu ezbaigera piztiak?  
Nahi badute egin dezatela  
trikorniodun guztiak!

**Idiazabal. 6. Zepai saria (1976-IX-26)**

Puntua: *Euskal Herria ere  
dago banatua*  
*J. I. Intxaurreaga:* eta aspaldidanik  
goitik ukatua.  
Ikusi nahi ez bada  
hori zanpatua  
ahalegindu gaitezen  
jartzen askatua.

"*Xenpelar saria irabazi duenari*". (Xalbador zen  
berau)

Bihotza argi daukazu eta  
adimena ez dozu hotza  
Euskal Herriari kantatutzen  
hortaz hartzen dozu poza.  
Zuk kentzen dozu gure gainetik  
aspaldian dagon lotsa  
zu zara iparra eta hegoa  
alkartzen dozun abotsa.

Sarri askotan ibili zara  
Euskal Herritikan gogor  
abertzaletasuna adieraziz  
barnean dan bezain jator.  
Aspaldin gaisorik zagozala  
hortik albistea dator.  
Urte askotan bizi zaitezen  
Urepeleko Xalbador!

Kartzelako gaia: "*Zein da gehien gustatzen zaizun  
egunkari edo aldizkaria eta zergatik?*"

Gehien gustatzen zaidana hori  
orain berria da aurki  
albisteak eskeintzerakoan  
nabaritzen det poliki.  
Euskal arazoa ikutzeko  
bera hor dabil gozoki  
*Punto y Hora* gustatzen zait, ba  
nahiz euskera gutxi euki.

**Añorga. Orixe saria (1978-II-12)**

Bakar gaia: "*Haurrak, lanean gogor ari zerala  
ikusi zaituenean, zera esan dizu: aita, handi egin-  
dakoan, neuk lagunduko dizut lanak egiten*"

Esaldi hortan agertzen dozu  
haurra, nahiko gizatasun  
zure hitzetan ikusi det nik  
zure bihotzeko maitasun.  
Sarritan lana gogor ein behar  
izan dezagun ondasun  
baina nik lan gogor egiten det  
zuk lanik ein ez dezazun.

Zure hitzari erantzuteko  
ene barnean ez da hitzik  
eta zerori entzun ondoren  
isilikan nauzu kasik.  
Horregatikan, haurtxo maitea  
hauxe diotsut bihotzetik  
gizona ez da lanez hiltzeko  
lanez gozatzeko baizik.

## ALFONSO IRIGOIEN

Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoak honela azaltzen digu Alfonso Irigoien:



“Filologo eta olerkari bizkaitarra (Bilbo, 1929). *Euskara* aldizkaria zuzendu eta beste hainbat aldizkarietan parte hartu du. *Hi ta ni garade zu, to ez date no* poesia liburua idatzi du (1990). Bertsolari-txapelketen antolatzaile, moldatzaile eta zenbaitetan epaimahaikide izan da. Deustuko euskal filologiako

irakasle da. Hasieran euskaltzainorde izendatu bazuten ere, denboraren poderioz euskaltzain osoaren maila hartu du bere aulkiak (1963)”.

Aipatutako poesia liburu horri, *Herrian gara bizi* eta beste batzuk gehitu behar jakoz. Hizkuntzalarietan, barriz, zerrenda luzea, tartean *De re philologica linguae vasconicae* izenburu orokorrez ateratako bilduma luzea.

Alfonso Irigoien, euskalgintzan eta Euskal Herri-gintzan, oraindino autortzen jakon baino askoz pertsonaia garrantzitsuagoa izan da, batez be, Bilbo inguruko mugidan, Aresti eta abarregaz batera. Artean frankismo gordinaren menpean, bera izan genduen, Bilboko Erribera kaleko egoitza zahar misterioitsu hartan, Euskaltzaindiaren euskarri eta izate nagusia. Ia bakarra, esango neuke.

Bertsolaritzari jagokonez, barriz, Alfonso Irigoieni oraindino ez jako autortu izan eban garrantzi erabagigarria. Nahiz eta Euskaltzaindiaren izenean jardun, beragaitik izan ez balitz, 1960ko hamarkadan gertatu zen txapelketa uholde hain astintzaile ha ez zen, seguruenik, gertatu be egingo. Zorionez, orduan be izan ziren gizon argiak eta tolesbakoak, Irigoienen

lanari unean bertan erreparatu eta eskerra emon eutsienak. Hona hemen Jon Etxaide idazle handiak, 1960ko abenduaren 23an, Donostiatik bialdu eutsan gutuna:

Aurtengo urte bukaeran, lerro labor batzuek egin nai dizkiat, ire lan txalogarriaren zoriongarri. Emen jendea txoratuta utzi duk bertsolarien txapelketarekin. Eztiat euskal-jai bat ikusi, Santo Tomasetako bertsolari txapelketa bezain ongi eratua izan denik. Danok bazekiagu Euskaltzaindiaren azpian i agoen. Beraz, Euskaltzaindiari txalo eta iri bostekorik estuena. Eztiagu berdintasun batean pentsatzen, ez euskerari buruz, eta are gutxiago Euskalherria'ri buruz, baiñan eztiat uste ere oso aparte gabiltzanik. Gora-behera auekatik, ire meritu aundia ikusten eta aitortzen zekiat. Aspaldian lo zegoen bertsolaritza ik altxa duk dagokion jauntasun eta leñargitasunera eta euskal-elizako aldare nagusian iraun-erazi bear zaiok kosta ala kosta. Bertsolariak euskera leñargitzen ari dituk, gure mintzairaren etsaiak errespetua gorde-eraziz eta euskaldun lotsatai loak artutako euskal-gogoa berpiztuaz. Eta Azpillaga gazteaz zer esango? Emen txoraturik dauka jendea. Etorkezuna berari dagokio. Biarko “Basarri” bera izango dugulakoan ziara sinistuta gaude. Ikusten dukanean, emaiykiok zorionik beroenak ene partez eta Gipuzkoa osoaren partez.

Otoi, Urduliz'ko indartsuaz zerbait jakiten baldin ba'duk, gaztiga ezaidak lenbailen. Zorionak eun bider, Alfonso, biotz-biotzez zorionak euskaltzale eta bertsozale sutsu onen partez eta batez ere Pazko-jai auetan benetako zoriona opa diat bertso doñuaz alaiturik. Gabon eta Urteberri on! Izan ongi eta ekin eta jarrai hasitako bideari! Besarka bat. *Jon Etxaide*.

1960an gutun hau idatzi ebanak zelaz ez ete eban Alfonso Irigoien zoriondu izango, hamarkada haretako txapelketa erreskada guztia ikusi eta gero?

Bertsolaritzaren antolatzaile eta eragile moduan ez ezik, artxibo moduan be, Irigoienek ondare ezin baliotsuagoa itzi euskun, orain, zorionez, lan luzearen ondoren, sailkaturik eta ordenaturik dagoena. Liburu honetako iturri printzipala, eze-lako dudarik barik, bere artxiboa edo funtsa izan dogu. Badakigu, beragaitik izan ez balitz, 1958an abiatu ziren Bizkaiko txapelketak (zazpi, guztira, sasoi haretan) nekez egingo zirela. Baina, Alfonsoren artxiboagaitik izan ez balitz, egin zirenen barririk be oso gitxi izango genduen. Euskaldunoi buruz (neu barruko nazela), topiko zoritxarrez egiazkoegia da gauzak jasotzen eta gordetzen ez garela zaleegiak izan. Zorionez, bestelakoak be izan dira, eta Alfonso Irigoien dogu euretariko bat. Berari eskerrak daukagun txapelketa hareetako infomazino guztia ez dakit, bestela, nondik atera-ko genduen.

Esandako guztiak gitxi ez direla, bertsolari moduan be bazen nonor Alfontso. Behin baino gehiagotan ikusita gagoz ha, bat-batean zirtizarta, aukerarik zegoen guztian, halakoxe jenioa baitzeukan. Horretan, behintzat, ausarta, lotsa gitxikoa eta temoso samarra zenez, (bere borondatez, saiorik ez zen sekula amaituko), bertsolariei deserroso egiten jaken haren konpainia, edonon eta edonoiz kantuan hasteko nagirik ez eban izaten eta. Kalekumea, bilbotarra eta eskolatua zenez, arrazoiak be sarritan bitxiak edo, behintzat, ezohikoak ateratzen zituen, bertsolaritza oraindino rural harentzat. Gogoan daukat, artean abadea nintzela, berak gai-emoile egin eban Lekeitioko saio baten ondoren, itsas bistako taberna batean, Mugartegi eta biak zelan katigatu ziren. Halako giroan, Mugartegi askatu egiten zenez, eta Alfonsok tirantez beste loturarik ez zeukanez, plazako saioa baino ekitaldi luzeagoa joan zen, eta biziagoa be bai. Hatan, Mugartegik "gizon potolo buru-handia" itsasora botata ez genduela ezer galduko kantatu eban batean, Alfonsok erantzun eutsan (bertsoa bera ez dau-

kat gogoan, baina ideia bai): *Ni itsasora botatzen banozue, itsasoak gora egingo dau eta danok itoko zarie*. Askoz lehenago, ikasle sasoiari, 1960 inguruan, inoiz oporretan, Euskaltzaindi mamuzulo hartara (mamu maitagarriak) irrikaz joaten gine-nean, (Aresti be hantxe ibiltzen zen), neu be bertsolari guran bainenbilen, era guztietako eztabaidak izaten genduzen. Bertsolaritza "ikasteari" jagokonez, ni "berezkoaren" sentiera tradizionalekoa izango nintzen, halakorik oraindino planteatu be ez jatan egin eta. Behintzat, zeozer tematu edo itaundu izango neutsan batean, oso gogoan daukat zer esan eustan: *Nik ikasi dot, eta tontoa naze-la dinoe. Orduan, zuk askoz errazago ikasiko dozu*. Erantzun honek, bere oinarri argumentalaz gainera, Alfonsoren arma nagusietarikoa zen ironia erakusten dau, sarritan, noiz benetan eta noiz eztenean zebilen dudatzeraino. Uste dot jakin be ez zekiela guztiz bereizten.

Bertso-jartzaile moduan be ez zeukan nagitasunik. Txapelketen sailean, 1958 eta 1960koan, Alfonsoren sorta batzuk jasota dagoz. Bertsolari edo bertso munduan zebilen edonori gutunak bertso-tan bialtzeko grina zeukan. Zer esanik be ez, zeozer polemikoa edo kontra egitekoa bazen. Hona hemen, 1959-IX-27an, Basarri bialdu eutsan sorta:

1)  
Basarri, Oñatin itz erditxo bat  
esaten nintzaizun asi  
astirik gabe orduan ezin  
gehiago iñola adierazi.  
Lasai ta trankil zerbait bear dizut  
oragin jakinerazi  
entzun eidazu arreta aundiz  
laster egingo naiz asi.

2)

Nafarroa aldetik karta eder bat  
Euskaltzaindian da artu  
nai lukete an Bertsolarien  
Txapelketa bat prestatu.  
Ango txapeldun nor dan ikusi  
fama aundiz izendatu  
Euskalerriko aundi batera  
nai dute aiek presentatu.

3)

Jakin nai dute noiz izango dan  
Txapelketa aundi ori  
aurten izango bada edo ez  
bear zaie esan aieri.  
Euskalerriko euskera martxan  
jarri dala badiruri  
Nafarroatik etorriko da  
kemen ta indar ugari.

4)

Eibar aldean Euskaltzaindiak  
gauza aundi bat nai du egin  
euskaltzaleen batzar ederrak  
emendik laster eragin.  
Azaroaren zortzirako Eibar  
beteko da euskal jaiekin  
nor dan Gipuzkoan txapeldun aita  
an egin diteke jakin.

5)

Euskalerriko txapel aundia  
lendik artua daukazu  
txapel aundi ori arriskueta  
zuk jarri bear eztezu.  
Norbaitek kendu gura badizu  
bidea jarri eiozu  
Gipuzkoatik goruntza dago  
txapel horren pasadizu.

6)

Ongi iruditzen bazaizu zuri  
aurten egin dedin lana  
eskabide au bete eidazu  
eta egin erantzuna.  
Izenak eman bost bertsolari  
ta txapeldun berriena  
ta batez ere nondik dagoen  
bizilekua aiena.

7)

Gipuzkoarrak izango dira  
txapelketa ortan juez  
baldin bakizu iñor dagoen  
prest ortarako biotzez  
bultzatu ezazu parte ar dezan  
bertan borondate onez  
danon artean bertsolariak  
gora jaso arte pozez.

8)

Bertsolarien kontsolagarri  
sari onak dira jarri  
baldin badaude bertsolariak  
diru bearretan larri.  
Boltsa ederra bearko dute  
diruarentzat ekarri  
beste iñortxok jaso nai badu  
kantatu dezala sarri.

Azken puntuko "sarri" hau ez da bizkaierazko  
esangurakoa, "laster" baino, bertso-paperetan  
agertzen den *esango det sarri, kantatuko dut  
sarri* lakoen oihartzunez. Sorta honetan, harri-  
tzekoa da lehenengo bertsoko potoa, Basarriri  
bialdu beharreko bertsoetan, gainera. Gutun soil  
bat zenez gero, izan daiteke arineketan ibili iza-  
tea, edo, beste barik, konturatu arren, garrantzi-  
rik ez emotea, gauza batzuetan, ha ez zen kon-  
tenplazinoetan ibiltzekoa eta. Bertsook 1959an  
eginak dira, txapelketak abiatzen ari zirenean,  
bera be, bertso kontuan, oraindino berde samar

zebilenean. Nik gehiago ezagutu eta kantuan be entzun neban 1965etik aurrera, askoz gehiago ikasita zegoen, bai bat-batean, bai bertso jartzen, txapelketen eta berak gai-emoile egiten eban herrietako saioen ugaritze sasoian, aukera guztiak baliatzen baitzituen, berak be kantetako, saioen ondoren eta abar.

### Bere berbak

1993. urteko bertsolari egunean, Alfonso Irigoien eta Aita Santi Onaindia izan ziren omenduak. Motibo hori zela eta, beste hainbat ekitaldiren artean, alkarrizketa luze bana egin neutsen bie, eurei buruzko beste zenbait artikulugaz batera, orduko "Araba-Bizkaiko bertsolariaren elkarteak", Bilbao Bizkaia Kutzaren laguntasunez, atera eban *Aita Santi Onaindia eta Alfonso Irigoien, bertso-gintzaren lekuko* izeneko liburutxoan argitaratu zirenak. Pasarte batzuk aterako ditut bertatik, Alfonsoren beraren berbek emoten baitabe ondoren haren nortasunaren barri.

Arratiako amamarenean ezagutu nuen baserriko bizimodua. Gero inoiz, udaren batean, aitaren baserrian ere izan nintzen. Gure aita Lopertza baserrikoa zen, Debako Elorriaga bailarakoa.

### Eta nolako euskara egiten zenuen?

Nik beti amaren euskara egiten nuen. Lopertzan ere zerbait ikasi nuen, baina joera amaren hizkerara neukan. Etxean harena ikasi nuen. Nire umezaroa nahikoa gorri joan zen, hamalau urterekin lanean hasi arte.

### Hamalau urterekin?

Bai. Hamalau urte aurretik. Aztegieta Tintoreian hasi nintzen. Goizeko bederatzietan hasi eta zortzi ordu, eguerdian, bazkal orduak erdibiturik. Larunbat arratsaldeak eta dena. Astean hirutan, hura amaitutakoan, "Artes y Oficios"-era joaten nintzen, dibujoa ikastera. Goizean,

zortzietatik bederatzietara, akademia batera, kontaduria eta kultur kontuak ikastera. Beraz, egun guztia lanean egiten nuen. Eta igandeetan pintatzera joaten nintzen. Beti lanean, beraz.

### Eta neskatan-eta noiz egiten zenuen, ba?

Nik beti lan egiten nuen. Gero, soldaduzkara joan aurretik, lana aldatu nuen. Orduan beste akademia batera joaten nintzen, matematikak, trigonometria eta horrelakoak ikastera. Matematiketan oso ondo ibiltzen nintzen. Baina ikasketak horiek legezatu gabeak ziren. Jakite horrek ez zidan ezertarako paperik ematen.

### Ez zegoen larunbat ingelesik?

Ez ingelesik, ez euskaldunik. Ezer ere ez. Asperatu nintzen eta, behin, uztea erabaki nuen. Aita apur bat haserretu zen, baina hanka egin nuen.

### Eta? Hanka nora?

Ba, Euskaltzaindian ibili nintzen, euskaraz irakasten eta halako lan batzuk egiten.

### Mugimendu politiko batean ere ibili zinela entzunda daukat nik. Halako talde isilpeko samarra bera.

Bai, bai. Artean ezagunak nituen Julen Madariaga, Benito Del Valle, Manu Agirre, Mikel Barandiaran, Iñaki Gainzarain, Gurutz Ansola eta abar. Batzar klandestinoak egiten genituen. Gero taldeak egiten ziren. Hainbat talde ziren eta ni gorengoan nengoen. Oso isilekoa eta politikoa zen guztia. Harrapatu banindute, kartzelara joan beharko nuen. Bitxia bada ere, inoiz ez naiz preso egon, baina ez arriskuan ibili ez naitzelako.

### Eta zer egiten zenuten?

Hainbat gauza, kultur arloan, batez ere. Euskal Herriko historia eta abar. Zenbait gai prestatu eta zabaldu egiten ziren. Baina oraindik ETA sortzeko zegoen. Ni, ETA sortu zenean, ez nen-

bilén mugimendu hartan. Euskal kulturari ekiten hobe nuela eta aldendu egin nintzen.

**Diferentzia ideologikoak ala zer zela bide?**

Diferentziak? Beharbada, neure izakeragatik izan zitekeen.

Bere lan kulturala zertan zetzan kontetan dau: Euskaltzaindia, Mitxelena, Orixe, Zaitegi, "Euzko Gogoa", Azkue zahartua, Nazario Oleaga... eta Arantzazuko euskaltzaleen lehenengo biltzarra. Honetaz dino:

Neu ibili nintzen deitzen. Ordurako, euskarazko klaseak ematen ez ezik, Euskaltzaindiko idazkari antzera nenbilen. 1956an, *Euskera* aldizkaria atera zen.

**Atera zen? Nola? Nork atera zuen?**

Ba, egia esateko, neuk. Nik egin ez banu, inork ez zuen egingo. Euskaltzaindiaren aldizkari gisan atera zen, baina ideia eta ardura guztia neurea zen.

**Orduko Euskaltzaindia zer zen edo zer egiten zuen?**

Hilean behin batzartu. Horixe zen Euskaltzaindia.

**Eta eguneroko martxa?**

Hori neuk egiten nuen dena. Bizkaian neu nintzen eguneroko langile bakarra. Gipuzkoan ez zegoen ezer.

**Orain gatozen bertsoaritzara. Gerraosteko txapelketak hasi zirenean, zure irudia bertsozale guztien begietan zegoen. Nola izan zen txapelketen hasiera hori?**

Nahikoa hasiera simplea izan zen. Orduan Bizkaiko bertsolariak ez zebiltzan. Gipuzkoan, Basarri, Uztapide ta beste zenbait bazebiltzan. Hemen, Balendin Enbeita apur bat, baina ez

gehiegi. Gerra aurrean izan ziren txapelketak, izan ziren *Lore Jokoak*, bertsolariak bultzatzeko. Teodoro Hernandorena bide horretatik zetorren eta bertsolariak Parisera eramán eta halako txapelketak edo demak antolatu zituen. Guk horren entzutea bagenuen eta behin esan genuen: "Zer-gatik ez dugu hemen ere zerbaít egiten?". Eta pentsatu eta egin.

**Erraz kontatu duzu, baina ez zen hain erraza izango.**

Zaila ere ez.

**Baina antolatu egin beharko zen. Gaiak, epai-mahaia, propaganda eta abar.**

Ah, bai. Dena neuk egiten nuen. Gaiak asmatzea ez zen hain zaila, edozer ipinita ere, dena baitzen berria. Orduan, alde horretatik, ez zegoen oraingo koskarik. Dena zen berria eta dena onartua.

**Eta propaganda nola zabaltzen zenuen?**

Hori ere ez zen hain zaila. Telefono gidan, herrian, *Bar* ipintzen zuen guztietara sobre bat bidaltzen nuen, eta gero eurek jartzen zuten tabernan. Jendea oso ondo enteratzen zen. Batzuen batzuek sobreaki muzin egingo zioten, baina gehienek pozik jartzen zituzten kartelak euren tabernan.

**Hain zaila ez izate hori ez zen izango dena zeuk bakarrik egiten zenuelako?**

Ez dakit. Gehien kostatu zitzaidana, Gipuzkoako lehen txapelketarako, Uztapide konbentzitzea izan zen. Urriaren azken astelehen batez, Uztapide Gernikan zen, beste batzuekin. Egun osoan atzetik ibili nintzaion. "Nik txapelketa horretan asko gal nezake eta irabazi ezer ere ez", esan zidan. Hori betiko arazoa da. Orain ere arazo bera dago, zuk ondo jakingo duzunez. Baina neuk ere ez nuen esten, bertsoaritzari bultzada bat eman behar zitzaíola eta abar.

Baina Uztapidek ezetz eta ezetz. Nik ekin: "Gero Euskal Herri osokoa prestatu behar dugu eta bertsolaritzari indar handi bat eman behar diogu". Azkenean, aspertuta-edo, esan zidan: "Beno, beno! Jar nazazu, ba!". Eta jarri eta aurrera. Inor ez zen ausartu ez etortzen. Eibar-ko Unzaga plazan, agian, 15.000 lagun izango ziren, denak zutik eta adi. Uztapidek berak irabazi zuen.

#### **Txapelketa inguruko giroa nolakoa izan zen?**

Jarraitzaile aldetik, bikaina. Bilboko Arenala bete-bete egiten zen. Orduan ez zegoen ez telebistarik ez ezer, eta euskaldunek bazuten halako egarri gorde bat, eta zerbait euskaraz jarri gero, jendea aisa erakartzen zen; eta, bertsolaritzan bezala, txapelketa usaina izanez gero, askoz gehiago.

#### **Bertsolariei asko tiratu behar al zenien, parte har zezaten?**

Ez, ez, ez! Eurek ematen zuten izena. Nik iragarri bakarrik. Bazen kasuren bat edo beste, Uztapiderena bezala, baina hori beste arrazoi bategatik zen.

#### **Eta protestarik?**

Orduan inork ez zuen protestatzen. Gauza berria zen, eta nik uste Euskal Herriak bazeukala horren gosea.

#### **Zuk zeuk ere bertsotan egiten zenuen. Neuk ere entzun izan zaitut behin baino gehiagotan. Nola ikasi zenuen?**

Ba, hainbeste ibili eta hainbeste entzunda, erge-la ez denari zerbait itsasten zaio.

#### **Baina zuri zerbait baino gehiago itsatsi zitzaizun. Nik gogoan daukat zuk taka-taka egiten zenuela bertsotan.**

Ba, hara. Gogoan daukat, bazkalondo batean, neu ere hasi nintzela eta ekin.

#### **Aizu, baina hori "hasi eta ekin" beste gabe ez da egiten, eh!**

Ba, egingo nuen. Ez naiz gogoratzen. Hainbeste entzunik, teknika eta hainbat formula ere buruz ikasten dira. Eta gero aplikatu. Nik ez dakit onak ala txarrak egiten nituen, baina egin bai. Zeurekin ere bai behin, Markinan-edo, zu gartzelatik irtenda. Gogoratzen naiz behin Debara joan nintzela saio batera. Uztapide, Zepai eta Lazkao Txiki ziren. Eguna amaitzean, Zepaik: "Goazen geure tabernara afaltzera". Eta han goaz Idiazabalera. Han zebilen Frantzisko Mujika ere, bertso-saio guztietara joan eta grabatzen. Milaka jaso zituen. Ikaragarri dokumentu ona osatu zuen hark. Hura ere Idiazabaldego Zepairenera. Afalondoan, bertsotan hasi eta neu ere bai. Hor egongo da dena zintaren batean. Uztapide eta Zepaiz gainera, Lazkao Txiki ere han zen. Saio bat egin eta agurra. Neuk ere agurra. Baina bertsolariak ez ziren konformatzen ni azkena izateaz, eta jarraitu. Eta neuk ere bai. Goizeko hirurak eta Zepaik halako batean: "Ni ohera noa". Halako batean, nik bertso batean *Irgoien* eta *gailen* errimatu eta Lazkao Txikik: "Poto!". Eta Uztapidek: "Ez! Ez da poto izan". Haiek nik noiz amaitzen edo noiz huts egiten nuen zeuden, baina ni aurrera. Halako batean, baratxuri zopa. Hura jan eta segi bertsotan. Mujika dena hartzen. Eta Uztapidek: "Eguna argitu arte ez goaz". Goizeko seietan, argitzen hasi zuen. Zepai jaiki zen, Elorriora joan behar zuelako. Ni harekin Elorriora, hemen autobusa hartu eta Bilbora. Uztapide Mujikak eraman zuen.

#### **Harro etorriko zinen!**

Harro edo. Ni horretan nahikoa ausarta nintzen.

#### **Batzuek lotsagabea esango zuten.**

Ba, ez dakit. Beharbada, bai.

#### **Zuk misteriotsu fama ez al daukazu?**

Inork ez dit esan.

**Eta neuk esango banizu?**

Ba, ez dakit. Ni oso zerebrala naiz. Gauza guztiei buelta asko ematen diet. Semeak esaten dit: "Ah! Zuk koordenada guztiak ikusi behar dituzu". Eta batzuetan haserretu egiten zait.

**Egia al da polemiko samarra zarela? Azken urteotan, nahikoa zorrotz zabilta Euskaltzaindiarekin.**

Ba, bai. Une honetan, polemika hutsean nabil. Garai batean, ez gutxi kostata, purismoaren aurkako lan bat egin genuen, Sebero Altube, Aita Mokoroa "Ibar" eta abar inguruan genituela. *Aingeru, zeru, eliza* eta horrelako hitzak, nahiz eta latinetik etorri, euskal hitzak zirela, eta ez *txadon, donoki* eta halako berrikeriak. Horrek polemika izugarria ekarri zuen, baina aurrerapauso bat izan zen. Gaur hori inork ez du tematzen. Baina oraindik badago hor purismo bat, bestelakoa. Euskaltzaindian sekula ez da planteatu kultur hitzen problema behar den moduan. Eta horretan, Mitxelena ahotsa altxatu ez, baina kontra egin dion bakarra neu izan naiz.

**Ahotsa altxatu zertan?**

Ba, esaterako, hark *energia* hitzarentzat *kemen* proposatzen zuen. Hura haserretzen bazen, denak isilik. Horrelako hitzak ehundaka eta milaka dira, eta haren irizpidea zen hitz horiek "ezinbestean" bakarrik hartu behar zirela. Zer da "ezinbeste" hori? Mitxelena joan zen, baina antzera jarraitzen du. Eta, azkenean, errebelatu egin naiz. Kultur hitzak "ezinbestean" hartu? Aizu, barka, baina alemanek eta ingelesek grekotik eta latinetik hartzeko eskubidea badute, zergatik ez nik, era batera euskalduna eta europarra izanik? Ez dut indultorik edo bizia barkatzerik onartzen, europar hizkuntza hain ezberdinek hain normalki egin dutena euskaraz egiteagatik.

**Errebeldian deklaraturik zaudela, beraz.**

Bai!

**Hori gogor samarra ez al da?**

Ez! Nik gizon librea izatea pentsatu dut. Eta hori ezin du edonork esan. Bakoitzak bere aporazioak egin ditzala, eta balio badute, eskertuko ditugu. Baina ezer aportatu gabe agindu?

**Zure aporazioek ba al dute harrerarik Euskaltzaindian?**

Ba, uste baino gehiago, beharbada.

Elkarrizketa osoa gura dauenak gorago aitaturiko liburuan dauka, bai Alfonsorena, bai Aita Santi Onaindiarena.

**Lauro (1971-IX-29)**

Hona, orain, urte hareetatik gelditu jakun grabazino bat, dokumentu bitxia benetan, bertsolarien orduko ibileren eta Alfonsoren beraren izakeraren barri emoten dauena. Transkribapena entzuten den moduan emoten ahalegindu gara. Alfonso Irigoien gidari ebela, Mugartegi, Arregi eta Ibarzabal ziren kantetakoak, Kastrejana herritarragaz batera (beronek deituta, antza). Mugartegik ez eban joaterik izan. Gainerakoak han ziren, baina ez eben plazan kantatu, guardia zibilak galazo ebalako. Gero be ez zen gorabeherarik falta izan, kobratu beharrekoa zela-eta, alkateagaz konpondu ez zirelako. Bazkari sasoiari, ez zen falta izan barriketa eta bertsotarako gairik.

Puntua: *Nola bizi zerade zu Berriatuan?*

J. Arregi: Erabagia eman-go det segituan  
Beti nabil lanean  
ezin geldituan  
lehen alperraren sonak  
izan baintuan.



Puntua: *Tailerrean lana ta  
zapatun uztarri*  
*J. Ibarzabal:* Honelako zerbaitxo  
 esaten alkarri.  
 Ni nolakua naizen  
 didazu igarri...  
 Etxian gutxi daukat ta  
 kanpotik ekarri.

Puntua: *Sartuko ote zera  
zu zeru aldean?*  
*J. Arregi:* Aspalditik nabil ni  
 gauza horren galdean  
 Munduan aurkitzen gera  
 zerbait beharrean  
 Hori erantzungo dizut  
 joaten naizenean!

.....  
*Kastrejana:* Va a salir perdiendo y no le voy a  
 pagar nada. Por que ellos razón no tienen, berak  
 esan doste. Pues yo le pongo una denuncia! A mí  
 me tienen que pagar lo de los hombres estos  
 que... estos han venido y... ¿Con mil pesetas se  
 van a defender? ¡No, hombre, no!

*Ibarzabal:* Trankil. Arreglauko ga ta... baakigu  
 zelan izen dan!

*Kastrejana:* Bai, ba, baie joder! Bat ez da, ba, letxe  
 txarrean pareko? Kontestazino txarra lelengo  
 emon dostela da gero bigun, ondinarren. Esto-  
 mague bigun! Gero ondo. Baia ni joan nazenen  
 kontestazino txarra! Pues si no quieren eso, nada.  
 Lelengo kontestazino hori esan doste. Mekaguen  
 la mar... hori errezoia! Gizonak Loiure ekarteko  
 nik in doazen bueltak inte gero, hori errezoia  
 neuri kontestateko. Da eurek neuri deitu hara  
 como representante. Zuok han itzi ta neuri deitu  
 da gero hori kontestazinoa emon? Ez, gizon,  
 holan ez. Herri betentzako mile pezetan goibehe-  
 ran ez dau ezebe, ta ba gutzako... egune pasta-

ko... Dios! Ie-ie ezin aguanteu kasik izen dot eh...  
 Hemeko jaietarako, Loiun dan lez, Elixalden,  
 ezta? Hauxe! Besterik ez dau eh! Herrik ez deko  
 beste jairik eh. Aparte badauz honek fulbolanak  
 eta aparte, baia harako ez dau dirurik zetan emon  
 eh. Hango Eleixaldeko jaiak eta hauxe. Zenbat  
 emon dauela pentan dozue alkaldesek hemeko  
 jaiak zelebretako? Ia aber antzan bat emoten  
 botsezue!

*Ibarzabal:* Hogeta hamalau mile hogorleko.

*Kastrejana:* Hogeta hamabi mile hogorleko.

*Irigoi:* Ta bildurrez kobretako! Horrek diruok  
 nok gastetan deuz, ba?

*Arregi:* Naixa neban eh... Kastrejana! Ez aurrin  
 zazelako, baine parkatu eh... Naixa neban isilik  
 egon bazine piska baten, ze... kobrauko gendun bi  
 mile pezeta. Garbi-garbixek kobreuko genduzen  
 isilik egon bazine.

*Irigoi:* Duda barik, gainera!

*Arregi:* Ze alkati gu jun garenin hasi da esaten lez  
 eh... bueno, zuek ez daukezue kulpaik bape be,  
 geurí izen da dana ta guk ez daukeu diruan fal-  
 taik... Orduen ingo'ban, bueno, gu etorri ga ta  
 holantxeik da dana ta taka-taka pagau da...  
 akabo! Ba, bai, dudeik ez euki, eh!

*Ibarzabal:* Makaldu in de, bai. Makaldu in de.

*Irigoi:* Ba diru faltarik ez badau, pagau dana ta  
 kito. Harek ez pagauta ba... diru horrekaz zer ingo  
 eban. Lehen ein bazan, ez eban pentseu be ingo.

*Arregi:* Ez, ba. Ha bere burue bajatzen hasitxe eon da.

*Kastrejana:* Nik eh... nik letxe txarra euki dot bai,  
 lagunek, ta... txarto in bot parkatu!

*Arregi:* Ez, ez, ez dozu txarto ein.

*Kastrejana:* Nik letxe txarra euki dot, eh! Ze nik mile pezetak hartu baino lehenau harek hartu barik martxa eingo nendun eh!

*Irigoién:* Ba nik, gobernadorea izan banintz, mul-tea jarriko neutsien eta bi mile pezeta barik lau mila kobrauko nituen. Mul-tea euren erruagaitik. Multa lez. Errua eurena zan, ezta? Ba, bi mila barik, lau mila!

*Arregi:* Hamen gaz lau gizon. Geure aurrin esan dau. Zuen erru ez da izen, geurie baino.

*Irigoién:* Horregaitik, ba! Kastigua eurentzat. Ez guretzat!

*Arregi:* Harek ein bi'ban ordun... guk eskatu barik... aiba! Zuek esandako modure.

*Irigoién:* Hori egin behar eban lelengo momentutik.

*Ibarzabal:* Hori berbetan hasi baino aurretik ein bi'ban harek! Aiba zuei da akabo.

*Kastrejana:* Baie niri esan dosten lez mile bana pezeta ta ezpabe bape bez, ni ja berotu in nez. Atonte in nez... egie da, eh!

*Ibarzabal:* Baina hori alkatik berak esau'tsu?

*Kastrejana:* Bai, bai... berak berak... hantxe! Ez daizu zelan deitustan hak han... sekretario edo egoten danak, ez daizu? Lelengo goizen guar-diakaz egon danak? Harek deitu niri joateko alkateana.

*Irigoién:* Bai, baina kanpoko bat joatea horretara-ko hobe da, ze bertakoa, ba, beti biguntxuago. Kanpokoia izan ezkerro hobe da.

*Ibarzabal:* Laurok joan garenean gero, ba... makaldute egon da. Baina, ba, einde da hori!

*Irigoién:* Beti ez dabiz, ba, multak ipinten! Zerga-tik eureri ez jakiez ipinten, ba? Zer!

*Libe:* Zu ez zarilako inor.

*Irigoién:* Inor ez? Ba... begiratu! Lekeition behin nire potroak uretara jausi baziran itsasora, marea igongo zan.

*Kastrejana:* Da, zelan manejet'ozu, ba? Horrek eh... horrek estorbu galanta in ber dabe gero!

.....

*J. Ibarzabal*

Ai Irigoién entzuna nago  
oraintxe zure berria  
Markinatikan Lujora arte  
naguala etorria.  
Jornalik ez gendula jasoko  
haura zan gure larria!  
Pentsatzen nuen: nok ordainduko  
ote digu bazkaria?

*P. Kastrejana*

Zuek horrela etorri eta  
niretzat tristegarria  
hainbeste buelta eman da gero  
gorde nahi zuten saria.  
Gauzaik onena mundu honetan  
eman bakotxai beria  
horrela beti lagun artian  
dude barik da bakia.

*A. Irigoien*

Gaur goizean ni heldu naiz eta  
sentitu det atsekabe  
guardia zibilak etorri dira  
galazi suabe-suabe.  
Hobe genduan gaurko egunez  
ezer kobraturik gabe  
kantatu balitz toki haretan  
lauron artian debalde.

*J. Ibarzabal*

Mendi batian jaio ta hazi naiz  
Nork irabazi terkuan?  
Arrazoi asko esaten dakit  
nik behar degun lekuan.  
Horigaitikan gaurko egunian  
sartu gaituzte zepuan  
Gaizto samarrak bilau ditugu  
ondrauak diralakuan!

*J. Arregi*

Jartzen bagera pixka-pixka bat  
gai honi buruz pentsatzen  
beste gauzarik ezer gaurkoan  
Arregik ez du eskatzen.  
Geure lurrean hasiak dira  
geure gauza onak ukatzen  
Noz ez da ezautu bertsolari bat  
Euskal Herrian kantatzen!

*J. Ibarzabal*

Egia esaten sekulan ere  
ni ez bainaiz aspertuko  
egi bidea zer dan bersotan  
guk ez degu neurtuko.  
Gobernadore jaunak gu ontzat  
ez gaitu inoiz hartuko  
gure otoitzen bidez zeruan  
ez da jaun hori sartuko

*A. Irigoien*

Nik ere ez diot inoiz egingo  
jaun horri ohoria  
alper-alperrik izan du gaurko  
bere jaun ta umoria.  
Jaun hori zuk badakizu nor dan  
Bilbon gobernadoria  
mundu hontako lapur guztien  
maisua ta direktoria.

*J. Arregi*

Euskaldun gera ta Euskal Herritik  
ez guaz behintzat ihesi  
nahiz ta atzerritarrangandikan  
beharko degun ikasi.  
Gaurko honeri nire barruak  
hain gaizki dio eritxi  
ez dakit oraingo martxan nora  
beharko degun iritsi.

*J. Ibarzabal*

Bizkaiko lurra zigorturikan  
aurkitutzen zaigu aurten  
ia lurpean sartuak gera  
handik ezin degu urten.  
Baina egiak esaten hasi  
behar da halako baten  
laster ez degu errez izango  
euskaldun bizi izaten!

*J. Arregi*

Bideak zuzen eramateko  
eiten degu ahalegina  
pena bat daukat, gaurkoan hemen  
gertatu dala ezina.  
Bide onetik ibilitzeak  
inoiz ez du jartzen mina  
geuretzat askoz genduan hobe  
gaiztuak izan bagina.

*A. Irigoien*

Gaurko egunez Bilbo horretan  
norbait zitzaigun poztuko  
baina euskaldun arima hauek  
sekula ez dira hoztuko.  
Ez uste izan hain errez hortik  
euskera dala izoztuko  
gaurko hitz hori moztuáगतिक  
hitza ez didate moztuko!

*P. Kastrejana*

Ondo dakigu gutzat ez dana  
gauza horretako kargurik  
baina gu oso konforme gara  
geuriarekin bakarrik.  
Egundo bere euskeldun onak  
ez dau eskatu inorenik  
kanpotik hona geurea ostuten  
etor di tranpaz beterik.

*J. Arregi*

Kastrejana gaur nik gura neuke  
horretaz hitz egitea  
hementxe bilatu dabe askok  
baratza bete-betea.  
Eurentzat mesedegarri izan da  
eta guretzat kaltea  
baina zeinek zabaldu deutse horreei  
Euskal Herriko atea?

*A. Irigoien*

Halakorikan gure denporan  
behar genduan ikusi  
gerra zikin bat egin zuten da  
garai hartan irabazi.  
Gobernadore izatera ere  
Bilbo honetan iritsi  
baina ate hoiek itxi behar dira  
guk behar ditugu itxi.

.....

Puntukako saioa dator azkenean. Txandak anar-  
kiko samarrak dira.

Ib: Kastrejana zer berri dek Lujoa aldetik

K: Geur desgustu ederra nik neure barrenetik

A: Ezin gera aprobetxatu bestien lepotik

Ib: Danak parkatutzen dira neronen partetik

A: Jarraitu beharko degu aurrera lanean

Ir: Bestela galdurikan gaude gu danean

Ib: Segi dezagun guztiok txar ez bada onean

K: Geurkoa behintzet pasa du umore onean

K: Geurko egunagaitikan Arregi ez txarto hartu

A: Gaurko antzeko asko ditut nik pasatu

Ib: Gorrotua zer dan honek ez du ezagutu

Ir: Geroko danerako gaitezen alkartu

Ib: Gaur egunian ez dago kristadu formalik

K: Horregaitikan sarri gu gabiltzez bakarrik

Ib: Geur ere ez zuten ordaindu nahi gure jornalik

A: Horregaitikan ez degu guk kantatu alik

Ir: Etorriko ote gera berriz Laurosera?


Ib: Pausorik ez nua ematen horretxen pozera

K: Neuk inbitako zeitudez barrin etxe onera

A: Gaurko kontua pagauta guazen etxera.

**PEDRO ORTUZAR "ITURRI"**

Pedro Ortuzar Muxikako Ariatzako Iturria base-  
rrian jaio zen, 1932-IV-25ean, eta hil 2006-I-18an.



Etxearen izen horretatik jatorriko "Iturri" ezizena. Lau neba-arrebe-  
tarik lehenengoa izan zen. Umeza-  
roan geira eta gerraostea ezagutu-  
rik, bizimodu urria eta eskola be-  
tamainukoa izan eban. Gaztaroa  
etxean eta kanpoan beharrea egi-  
nik, 32 urte gaz ezkondu zen, Pilar  
Arrizubieta Ipazterkoagaz. Hiru  
seme-alaba izan zituen, neska bat

eta mutil bi.

Hogeita hamazortzi urte gaz, istripu larria izan  
eban Elantxoben, kamioi gainetik jausita, eta  
harrezkero gurgil-aulkian daroa bizimodua,  
andreairentzat laguntasun osoz. Mingarriena bere-  
tzat eta familiarentzat izango zenik dudatu  
barik, Bizkaiko bertsoaritzarentzat galera pena-  
garria izan zen Iturriarena. Kantuan jarraitu  
eban, berak halakoxe barrua zeukalako, baina  
ez zen bardina inondik inora be, azkenean, guz-  
tiz iztea erabagi arte.

Gerra ostean, Balendin Enbeita eta Taketen ondo-  
tik, Iturri izan zen lehenengo izen ospetsua, Biz-  
kaiaren barrualdean, behintzat. Haren bertso-  
kera guztiz berezkoa eta landu bakoa zen, eta, gaurko  
ikuspegitik ikusita, teknikoki irregularra, baina,  
Bizkaiko orduko tradizioan eta egoera politikoan,  
figura karismatiko bihurtu zen, hain bizkorra  
(gorputzez be txikia) eta graziosoa zelako. Azpi-  
llagaz Euskal Herri mailako bikote ospetsua  
egin arte, Lopategiren ibilerarik gehienak be Itu-  
rrigaz izan ziren. 1975eko Euskal Herri mailako  
Bertsolari Eguna bere omenez egin zen Donostian.  
Gurgil-aulkia beti be errukarria izanik, are minga-  
rriagoa da halako izaki alai eta maitagarria gaine-  
an daroala.

Hona mostra txiki bat, Idiazabalgo Zepai sarikoa,  
1975-08-21ean. Ordurako, urte batzuk gurgil-aul-  
kian zeroazen, beraz.

*"Zuk, Iturri, zure herriko elizatik bertako diru hon-  
darrak ostu dituzu, baina laster damutu zera eta  
aitortzera zoaz. Zu, Zeberio, herriko apaiz eta  
aitorlea zera."*

*X. Zeberio*

Begira, honek aspaldi hontan  
ni errezelutan nauka  
konfesatzera etorri zera  
ta egin bihar burruka.  
Nik ondo asko lehendik banekin  
ta orain ez zazu uka  
baina eindako pekatu horrek  
barkaziorik ez dauka.

*Iturri*

Lapurreta nik han egiteko  
banaukuan jenua  
eta lanean eiteko, berriz  
bapere ez amoriua.  
Baina ikusi det eleizako  
diruak duen baliua  
apaiza orain eskatzen dizut  
danaren parkaziua.

*X. Zeberio*

Sekula ezin zenduen utzi  
hartutako biziorik  
eta aspaldin ez dezu eraman  
horrelako raziorik.  
Baina orain zuk ez dadukazu  
hemen absoluziorik  
eta nik behintzat ez dizut eiten  
gaur horren barkaziorik.

*Iturri*

Zure aurrera ni etorri naiz  
guztiak autortuteko  
eta ostu nituzen diruak  
berriro ere ekartzeko.  
Baina zu gogor aukitzen zera  
neri hori parkatzeko  
mundu honetan ez al zera, ba  
Jaungoikuaren ordezkot?

*X. Zeberio*

Oraingoan nik ondo hartu det  
lapur txar honen esana  
baina jakintsu buelta behar da  
lehenago eramaten dana.  
Hargatik diruk berriz ekarri  
beha'ituzu niregana  
bestela barkazio eske jua  
Aita Santuarengana!

396


*Iturri*

Mundu honetan zoritxarrean  
hemen zulako asko dago  
ostu hori nik egin ez banun  
askozaz ere nahiago.  
Bihotz-bihotzez gauza hoiekin  
hain damaturik nago  
gaur parkatuten badezu hori  
ez det egingo gehiago.

Iturriren ateraldirik zelebreenetarikoa Taketi kantatua da. Bertsoa bera ez da gordetzen, baina bai ideia, gogoan gelditzeko modukoa da eta. Juan Ormaetxeri "Taket" esaten eutsien, hain zuzen, hanka bata zurezkoa zeukalako. Bera be gizon burlosoa izanik, hainbeste bider legez, Iturriren txiki kontua aitatu eban batean, honek erantzun eutsan bera be handiagoa litzatekeela, "zure moduko aldaminioan ibiliko banintz". Taketek, hasarratuta, etxera alde egin ei eban plazatik bertatik, halakoxe garratza ei zen eta.

---

## ARITZ LOPATEGI



1969-IX-09an jaio zen Gernikan eta bertan bizi, 18 urte gaz Muxikako Zabale auzora, aitaren jaiotetxe ondora aldatu arte. Oinarrizko hezkuntza Seber ikastolan eta batxilergoa Gernikako institutuan eginik, kimika ikasketak eta lizentziatua Leioan egin zituen. Gaur egun, Ajangizko Maider enpresan lan egiten dau, laborategian.

Jon Lopategiren semea izanik, argi dago bertsolaritzagazko lehenengo hartu-emonan nondik jatorkon. Halan be, berak elkarrizketan dinonetik, bertsoa beren beregi lantzen Seber Altube ikastolan hasi zen, hamalau urte gaz, gero aitagaz Gernikako bertso-eskolan jarraitu baeban be. Bizkaiko Eskolarteko txapelketan, txikietan eta handietan txapeldun izan zen. Euskal Herriko Eskola-arteoetan, barriz, birritan finalista eta behin txapeldunorde izan zen handietan. Beste sariketa batzuetan be parte hartua eta batzuetan irabazia da, BBK sarian, esaterako.

Bizkaiko txapelketa nagusia 1987an barriro antolatzen hasi zenetik 2000ra arte, final guztietan sartu zen, lehenengoan zortzigarren, hurrengo bietan laugarren, hurrengo bietan txapeldunorde, 1998an hirugarren, eta 2000koan, azkenik, barriro txapeldunorde gelditurik. Euskal Herriko txapelketa nagusian, lehenengoz, 1989an parte hartu eban, azken-laurenetan gelditurik. 1993an eta 1997an, finalista izan zen eta 2001eko txapelketa nagusian, azkenik, finalerdietan gelditu zen.

Txapelketa honetatik laster, Aritz Lopategik bertso-laritzari guztiz iztea erabagi eban. 2002ko Bizkaiko txapelketara ez zen aurkeztu. Erabagi hori, hain gazterik, zergaitik hartu eban itaundurik, elkarrizketan erantzuten dau: "Motibazino faltaz, ilusino faltaz. Segitzeko, ikusi dot emon neikeen maila

emonda neukala. Ez dot ikusten izan gehiago emon neikeenik. Eta, gainera, apur bat gogaituta edo nekatuta be bai, beharbada, motibazino barik egon nazelako".

Ea dezepzino punturen bat be egon ete zeitekeen itaundurik, dino: "Egon leiteke, bai, hori be. Dezepzinoa, motibazinatorik eza, ilusinatorik eza, dena da antzekoa. Dena batzen da. Denerik apur bat. Arrazoi gehiago ikusten izan dot ez jarraitzeko, jarraitzeko baino, eta, gustura ez jarraitzekotan, argi daukat hobe dela ez jarraitzea, bai norberarentzat, bai denentzat".

### Txapelketa Nagusia 1997 Finalerdiak

*"Zu, Aritz Lopategi, finalurreko saioan parte hartu zenuen bertsolaria zara. Saio hartako kartzelan hoztu eta egundoko pulmonia harrapatu zenuen. Kalte-ordainen eske zatoz Bertsozale Elkarteko Jokin Sorozabalengana". Aritz honela hasi zen:*

Antolatzaile jauna  
gura naiz kexatu  
Beasainen ez zinan  
oso ondo portatu.  
Batetik egin nuen  
pulmonia hartu  
gainera finalera  
ez nintzan pasatu.

Sorozabal: *"Hotza izan liteke / pulmoniarena / baina ez egindako / bi poto haiena".*

Nahiz ta nik ona egin  
neure sesioa  
ez zan zuzena izan  
zeure ofizioa.  
Batzuentzako hotza  
eta bizioa  
eta Egañarentzat  
kalefazioa.

Soroazabal: *"Baina hura ez zan ez / guk emana dena / baizik berak etxetik / ekarri zuena"*.

Ene lagun, ez zaite  
mintzatu horrela  
kolpeka ere hasi  
naiteke bestela.  
Eta esango dizut  
sentitu bezela  
zuen erruagatik  
galdu dut txapela.

Bakarrean: *"Zure kapritxoia izan da, urtero-urtero, Aralarren zuhaitz bat landatzea. Gaur konturatu zara azken urteetan landatutakoak hautsita daudela. Aurtengo landareari mezu bat erantsi diozu"*.  
Hona lehenengoa eta hirugarrena:

Mendia eta basoa beti  
izan dut oso atsegin  
ai ene, zenbat ahalegin  
egin ditudan Aralarra  
puntara igoaz arin!  
Hainbat arbola sartuagatik  
bizirik mantendu ezin  
baina han idatzi dut fin  
eta hara zer ipini dudan  
argiro gelditu dadin:  
"Hemen Aritzek landatu nau ta  
kontuz ni apurtzearekin!".

Ohitura hori hartu nuen behin  
eta ez nuke nahi eten  
nahiz ta ez den errez izaten  
gau ta egun nabil natura zaindu  
behar dugula esaten.  
Eta arboletaz ematen ditut  
ez dakit zenbat azalpen  
bat sartu nuen behin baten  
baina jentuza klase horrengan  
ez dut askorik sinesten  
eta hilero etorriko naiz  
nola dagoen ikusten.

### 1997ko Txapelketa Nagusia. Finala

*"Orain dela hogeita bost urte, UEUren sorreran parte hartu zenuten bi irakasle zaituztegu. Zu, Mikel Mendizabal, hogeita bost urte hauetan egindako aurrerapenaz oso gustora zaude, baina Aritz ez dago horren gustora"*. Bigarren bueltan Aritzek kantetan dau:

Unibertsital giro horretan  
badago ikasle pranko  
halan da guzti hizkuntza aldetik  
bizi dira nahiko plako.  
Euskeraz zerbait badago baina  
halere aitortu beharko  
pauso gutxitxo ez al dira eman  
hogeita bost urterako?

Mendizabal: *"Ahal dan azkarren lortu dezagun / euskararen normalkuntza"*.

Dena euskeraz ikasi nahia  
hori gendun geure ames  
baina ikusten da hainbat urtetan  
ez dala gertatzen errez.  
Bide hontatik jarraitu ezkerro  
diotsut halabeharrez  
guk ez dugu hori ezagutuko  
ta gure haurrek ere ez.

*"Rock talde bateko kidea zaitugu zu, Aritz. Urte batzuk badira, entseguetarako lokala eskatu zenu-tela, eta, erantzunik jaso ez duzuenetz, talde osoa, zeuen tresna guztiekin, udaletxeko batzar aretora sartu zarete. Maialen Lujanbio dugu alkatea"*.  
Aritz honela hasi zen:

Hertzainakoen antzera  
gabiltza gora ta behera  
baina lokalik gabe gaude ta  
hau gure ibilera.  
Hona etortzean eskera  
beti ein duzue atzera  
ta udaletxeko plenora gatoz  
hementxe jotzera.



Lujanbio: *"Igal txoko bat utziko diet / musika-  
eskolan"*.

Hauxe da gure bizitza  
rock and rollean gabilitza  
munduan zehar ikusten diran  
beste askoren gisa.  
Zuk eman diguzu hitza  
musika-gelan eskaintza  
baina ez gara fiatzen eta  
emaiguzu giltza.

*"Mendizalea zara. Zeure helburua hamalau zortzi  
milakoak egitea zenuen eta, ongi kostata, baina  
bai lortu ere. Gaur jakin duzu hamabosgarren zor-  
tzi milako bat azaldu dela"*. Hona lehenengoa eta  
hirugarrena:

Zortzi milako hamalau mendi  
nituen nik ezagunak  
puntarik punta eginak ditut  
amaigabeko jardunak.  
Elur artean pasata gero  
egun hotz eta ilunak  
entzun ditut oihartzunak  
esan didate lagunak  
hamalau tontor igo nahiean  
pasatu ditut egunak  
hamabost ere igo ditzake  
hamalau egin ditunak.

Mundu osoko laino urdinak  
izan ditut parez pare  
gora helduta sentitu izan naiz  
mundu osoaren jabe.  
Mendia baita nere bizitzan  
dudan oinarri ta habe  
beste bat dago halare  
oraindik nik igo gabe  
beraz, horretan jarraituko dut  
mendirantza trebe-trebe  
hori igota sentituko naiz  
mendi tontorren errege.

*"Mendizabal eta Aritz Lopategi paseoan dabilzan  
bi jubilatuz zarete. Orain arte, denbora eta dirua,  
biak faltan izan dituzue. Orain, bietatik soberan"*.  
Aritz Lopategik saioa honela errematatu eban:

Bizkar gainean baitaramagu  
urteen karga astuna  
hara ta hona pasiatuaz  
pasatzen dugu eguna.  
Bazkal ostean gero kartetan  
eguneroko jarduna  
geure kapritxo hauek beteaz  
jarrai dezagun, laguna  
ta bilobentzat gelditu bedi  
guk gastatzen ez duguna.

*"Zu, Aritz Lopategi, premiak jota, kaleko komun  
mugikor batean sartu zara. Sebastian Lizaso bri-  
gadako langileak komuna guari lotu eta beste  
leku batera airean daramala ohartu zara"*. Aritz  
Lopategi honela hasten da:

Jan da edaten nembilen  
lehenago jo ta su  
eta jakina gero  
hainbat enbarazu.  
Grua hona lotuta  
zertan zabilta zu?  
Ez dut bukatu eta  
nora naramazu?

S. Lizaso: *"Behingoan nerekin dut / era dotorea /  
kalean zabaltzeko / ambientadorea"*.

Baneukan komunean  
nik zeregin frango  
baina lasaitu ditut  
gorputz eta zango.  
Orain galderatxo bat  
eingo dizut ondo:  
Hor kotxean papelik  
ez duzu izango?

S. Lizaso: "Ateari itxita / zuk heldu zaiozu / edo bestela galtzak / galduko zaizkizu".

Hementxe aritu naiz  
gogor indarrean  
baina zu ez zatozkit  
hain modu txarrean.  
Orain nago etxera  
joan beharrean  
eta utzi nazazu  
portale aurrean.

S. Lizaso: "Etxera eramatea / ez da nere kargu /  
guk simaurrak soroan / zabaltzen ditugu".

Hementxe goaz biok  
gora eta behera  
nun bukatuko ote da  
gure ibilera?  
Zuen zerbitzu honek  
egin du hobera  
komuna ta taxia  
bi gauzak batera.

Finalurrekoa. "Aitor Sarriegi eta Aritz Lopategi,  
bi gazte, herrigintzan lan asko eginak. Orain, bioi  
funtzionario izateko aukera etorri zaizue. Zuk,  
Aitor, aukeraz baliatzea pentsatu duzu. Aritzi ez  
zaio burutik pasatu ere egiten hori". Aritzek hone-  
la errematatu eban saioa:

Ez dakit nola hartu nahi duzun  
hain erabaki astuna  
biok herrian eginak gara  
kriston ekintza bilduma.  
Ezkerra utzi ta aukeratu  
gura baituzu eskuma  
nik herrigintzan jarraituko dut  
ta zuk egin nahi duzuna  
baina hor sartzen baldin bazara  
ni ez naiz zure laguna.

### Muxika (1995-V-13)

"Aritz Lopategi eta Juanjo Respaldiza. Aritzek Res-  
paldiza detektibea kontratatu eban, emaztearen  
pausoak jarraitzeko. Gaur, emaztea eta detektibea,  
biak aurkitu ditu ohean".

A. Lopategi  
Ikertzaile honengan  
jarririk arreta  
bera kontratatzeko  
hartu neban beta.  
Ohearen barruan  
topau ditut eta  
zer, Juanjo, zer moduz  
doa ikerketa?

J. Respaldiza  
Ni atzetik nenbilen  
bai egun ta bai gau  
ta azkenean hemen  
plantatu zara rau!  
Ezin nuen gehiago  
hortan egin barau  
orain biok dakigu  
zertan dabilen hau.

A. Lopategi  
Ikertzaile hau ez da  
aterako merke  
nere etxea bera  
hartu dau aterpe.  
Lana hasi zendun da  
orain ondo bete  
informea idatziz  
hartu gura neuke.

*J. Respaldiza*  
 Sakonera jo gura  
 neuke laster hegaz  
 baina dena egingo  
 nenduke patxadaz.  
 Enteratu behar da  
 gehiago denporaz  
 besteren bat dagoen  
 enteratuko naz.

### 1993ko Txapelketa Nagusia

Puntua: *Egina al daukazu  
 gauerako plana?*

*A. Lopategi:* Ezta ederregia  
 nire panorama.  
 hemen eginda gero  
 sekulako lana  
 loadi ederra da  
 egingo dudana.

Hitza / Gaia: *"bihar"*

Txapelketak jarri zun  
 martxan bere trena  
 batzuk hautsi ditugu  
 zenbait eskema,  
 Baina final hauxe da  
 unerik txarrena  
 noiznahi egin daiteke  
 fallo edo herrena  
 ta horren hurrena  
 a zer zoramena!  
 Biharko ordena  
 nago ziurrena  
 gaur baino lasaiago  
 egongo naizena.

*"Sebastian Lizaso, biajante bat zaitugu; eta zu, Aritz, zahar-etxe bateko Madre Superiora. Biajante honek, denetik saltzen du eta gaur etxe honetara produktu afrodisiakoak ekarri ditu. Tinbrea jo du eta Madre Superiora irten zaio atera". Sebastian hasirik, "eta ez da prezixo/ zuk erabiltzea" esanez, Aritzek jarraitzen dau:*


Produktuak saltzea  
 duzu zeure kargu  
 igo gura zenduke  
 gora graduz-gradu.  
 Afrodisiakoez  
 zatozkit ondradu  
 guk errezatzeakin  
 nahikoa daukagu.

*S. Lizaso: "Aukera daukazu ta / probatu itzazu / hortan seguru nago / gustatuko zaizu".*

Saldu nahi zenidake  
 produktu itzela  
 plazer haundia lortzen  
 omen da horrela.  
 Baina ez dugu behar  
 diozun bezela  
 ez al dakizu beti  
 glorian gaudela?

## JON LOPATEGI

Joan Lopategi eta Santa Lauzirikaren hamar seme-alabetarik seigarrena (zortzi neska eta mutil bi)



Muxikako Ariatzako Aldauri base-  
rrian jaio zen 1934-III-07an, eta  
gaur be jaiotetxearen ondoan bizi  
da, berak egindako etxean, Gerni-  
kan hainbat urte igaro ondoren.  
Amaia Urrutiagaz ezkondu-  
rik, seme-alaba bi ditue, Itziar eta  
Aritz, bertsolari handia berau be.  
Umezaroa etxe inguruan eta Aria-  
tzako auzo-eskolan pasaturik,

Tolosako Sakramentinoen komentuan hamar urte egin zituen, filosofia osoa eta teologiako lehenengo urtea amaitu arte. Komentutik etxeraturik, Gernikako Dalian hasi zen lanean, bulegoan, baina laster helduko eutsan urteetako lanbide izango eban pentsu-saltzeari, harik eta, helduaroan, Bizkaiko Ikastolen Elkartek bertsolaritza eskoletara zabaltzeko zeukan proiektua bere gain hartu eban arte, magisteritza be orduantxe eginez. Bertsolari moduan lortu dauen maila eta garrantziaren neurrikoa izan dela esan geinke Bizkaiko ikastola, eskola eta bertso-eskoletan egin dauen lan esker-ga, inork ez lako arrakastaz, gainera, dedikazino zorrotzetik harago, gaztetxoak tratatzeko eskua eta bertsolariak ateratzeko intuizino aparta izan dituelako.

Lopategiren umezaroan zartada goiztarra gertatu zen, 1933an jaio bazen, 1936an gerra abiatu baitzen. Bere bizitzako lehenengo gomuta kontzientek gerrakoak direla esan leiteke. Honek euren etxean eta inguruan eragin eban astinaldia luze eta bizi kontetan dau *Jon Lopategi, bertsozko mezularia* liburuan, Luis Baraiazarrak egina berau. Sei urtegez, gerraoste berbertakoan eskolara hasita, han zelako giroa egon zeitekeen asma-tzea ez da gatxa, batez be, "Patrozinio maistra faxista eta gogor be gogorraren" eskuetan jausiz

gero. Sei urte egin zituen auzoko eskolara buelta-ka, handik kanpora, orduko baserri umetsu eta modu urriko zeregin eta jolas ohikoetan. Baina orduantxe be, etxetik etxera, aldea izango zen gurasoetan, eta Jonek gomuta ugariz eta samurrez hornitzen dau etxeko giroa, hain guraso maitagarriei esker.

Sasoi haretan joera handia izan zenez, etxeko mahaitik aho bat kentzea librakuntza dohatsua baitzen, mutikoa sakramentino sartu zen, Tolosako komentuan. Honek unean bertan uste zeitekeen baino garrantzi handiagoa izango eban, osterantzean egiteko modurik izango ez eban karrera bat egin ahal izan eban eta. Dena ez eban amaitu, 1946an joan eta 1956an itzuli baitzen, baina hamar urte baino karrera laburragoz hamaika badabil gaur be aditu-plantak egiten. Fraile sakramentinoetan, gehienbat, giro erdalduna eta errejimenekoa izan arren, (beharko, diktadura tipikoki iberiko haretan), euskararen eta abertzaletasunaren aldeko sentimendua zekarreen lagunak be ez zituen gitxi aurkitu, batez be, gaztaro heldurantz hurreratzean. Orotasun guztiaren barruan, ez ziren asko izango, baina, halako egoeretan, salbuespenak be nahikoa izaten dira, sentimenduek eta ordena ezarriaren aurkako errebeldiek isil baina sakon korritu daieen.

Hogeitazak urtetako mutil gazte fraileki ohiak, mundu barriari heltzeko ilusinoaz gainera, prestakuntza be bazekarren eskola aldetik. Bertsoaren har isila bazerabilen arren, kosta egingo jakon bertsolariz beteriko inguruan nabarmentzen, baina, egin zenean, erarik inapelableenean gailendu zen, Bizkaiko arteko bertsolaritza guztia gairidituz. 1960 eta 1961eko txapelketak (aurretik, bi eginak ziren, baina ez zen aurkeztu) aurrera egin ezinik pasaturik, 1962an, eskualde, finalerdi eta final, txapelketa guztia aurrean eroan eban barrenetik goieneraino. Txapelkun barriak denak durditurik itzi zituen. Gabriel Arestik berak be,

txapelketen sailean, urte horretako kondairan agertzen denez, artikulua gogoangarria idatzi eban erdaraz Bilboko *Hoja del lunes* egunkarian, Lopategiren figura barria goralduz. Hurrengo Bizkaiko txapelketa biak (1964, 1966) eta, eten luze baten ondoren, 1987ko Bizkaia-Arabako txapelketa be berak irabazi zituen. Lehenengo txapel haretaz geroztik, Bizkaian inork ez eutsan gerizarik egin haren nagusitasunari.

Artean, Euskal Herriko txapelketak be abiatuak ziren eta, Bizkaiko txapeldun legez, 1962an parte hartu eban lehenengoz. Harrezkero, Euskal Herriko final guztietan egon zen, beti geroago eta maila goragoan, harik eta, (aurkeztu ez zen 1980koan izan ezik), 1989an, Euskal Herriko txapela jantzi arte. Orduantxe erabagi eban txapelketei iztea. 1960an hasita, hogeita hamar urtez jarraian, bada edonoren lehia-grina asetzeko beste. Eta bitartean beste sariketa txiki mordo bat kontatu barik, Hermandorenaren eskutik eta abar.

Txapelketekin batera, eta seguruenik gainera, Lopategi urte bolada luzean Euskal Herri guztiko erreferentzia nagusi bihurtu ebana Azpillagagaz osaturiko bikotea izan zen. Azpillagaren presentzia eta kantakera ikusgarriari Lopategik ezartzen eutsan gurrupila eta sendotasuna gehituz gero, egin da zegoen bikoterik efektiboena, batez be, diktaduraren aurkako errebeldiaren eta bizkunde aberzalearen olatu hazkorren bozgorailu bihurtzeko sena eta ausardia izan ebenetik. Bertsolaritzaren historian, bikote probidentziala gertatu zen Lopategi-Azpillagarena, gazteriaren baitan, batez be. Azpillaga todoterrenoari Lopategik bidezidorren bihurrikeria ezarriko eutsan. Gaur egungo gizartemotatik ez dago imajinatzerik Lopategi-Azpillaga bikoteak lortu eban berotasun esplosiboa.

Lopategiren kasuan, bera dela esan geinke, bertsolaritzaren historian, lehenengo figura guztiz modernoa. Horretarako, gorago esan dogunez,

sakramentinoetan egindako hamar urteak ez ziren alferrekoak izan. Bertsolaritza klasikoa, hots, bertsolaritza rurala edo aparteko ikasketa bakoa guztiz nagusi zen paroraman, Lopategi izan zen lehenengo bertsolari eskolatua, figuren artean, behintzat. Horrek, ideia eta erreferentzia ezberdinak ez ezik, prestakuntzarako metodoak be ezberdinak zekarzen. Ekitea ez da txarra, baina efektiboki ekiten asmatzea hobea, eta eskolak horretarako be, aurreratzeko alegia, tresnak emoten ditu, baliatzen jakiteko senik izanez gero. Honen argibide garbitzat, 1962koa hartu geinke. Aurreko txapelketa bietan ez eban gauza handirik egin. Urte honetan, osterara, Mungiako eskualdekoan lehenengo gelditzea lortu eban, uztailearen 15ean. Finalerdia Gernikan izango zen, abuztuaren 20an. Eta hona, *Jon Lopategi, bertsozko mezulari* liburuan, Luis Baraiazarrak zer kontetan dauen, Lopategiren ahotik entzunda, jakina:

Beraz, hilabete baino gehiago batetik bestera. Jon Lopategik bene-benetan hartu eban txapelketa hau. Gernika inguruan sortu ziran esamesei aurre egin nahi eutsen: bat-bateko bertsolaria ez zala, hau eta bestea... Pixkat prestatu ezkerre, beste batzuk egiten dabena egin ezinik ez ebala izango uste eban. Holantxe, errimak lantzeari ekin eutsan, bere erako hiztegitxu bat osotuz. Landu zituen errimak nahiko abstraktuak ziran, edozein gaitan erraz sartzeko modukoak. Gaiak holakoak nahiz halakoak izan, errimak berez-berez burura etortea zan nahi ebana. Errimak eskura izatea. Lantegian goizeko ordutegia euker; 8etatik ordu bietara. Etxetik beherantz, errekatxu bat egoan eta, bazkal ostean, buztariaren gaineko ardi-narrua hartu eta haraxe joan ohi zan. Errimak lantzea etxean egin ohi eban; han behean lo apur bat egin eta ekin eta ekin jarduten eban, errimak hartu eta buruan ondo sartu arte; gero jo eta ke bere buruari gaiak jarri eta estunetik zelan urtengo... Gernikara joan eta ezin hobeto. Egur-hotsa atera eban. Saio osoan mende hartu zituan, antza, guztiak. Entzuleak ikaraturik

eta ahoa zabalik, aurreko urtean porrot eginik, mutil harek izan eban hobekuntza sinistu ezinik...

Prozesu hau guztia, horrelako efizientziaz, behintzat, nekez etorriko zen, artean eskolatua izan ez balitz. Horrek ez dau, jakina, bertsolaria egiten. Lantzen jakiteko sena ez ezik, sena bera edo lehengaia bera be nahitaezkoak dira. Ikasketak ez dau argitasuna sortzen, baina argitasunari metodoak asko laguntzen deuto garatzen. Lopategi, ezertan nabarmendu bada, argitasunean da, hain zuzen, eta ez bera aurreratzeko bakarrik, baizik baita besteei irakasteko be, bertso-eskoletako irakasle gisan sobra erakutsi dauenez. Baina, bertsolaritza lako jardun batean, argitasuna ez da nahikoa, malezia minimo batek laguntzen ez badeutso. Lopategiren kasuan, apenas dagoen inor persuaditzen hasi beharrik, haren malezia minimotik dezente gorakoa dela.

404

Argitasuna eta malezia be ez dira nahikoa, ostera, figura handia izateko. Beste oinarrizko eta jantzi-garrizko dohain guztiez gainera, Lopategiren bereizgarri bat izendatu behar baneu, *oportunitatea* esango neuke, hots, une bakotxean harakoxe *oportunoa* izatea, beti be, entzuleen egoerarekiko, jakina. (Kontzeptu hau euskal hiztegiok *egokitasun* eta horrelako sinonimo lainoz itzultzen dozue oraindino be, baina alfer-alferrik zabilze, beste berba askotan legez. *Egokia* eta *oportunoa* belarri bata besteagandik bezain ostean dagoz). Oportunitatea edo *oportunitasuna* (euskararen ahalaz hobeto baliatzeko) bistan dagoenari oste bat aurkitzea litzateke, berbertan dagoena, baina une hartan inoren begian ez dagoena; beste zirkunstantzia batean ebidenteia izan daitekeena, baina une jakin batean inoren arretan ez dagoena, nahiz eta denen sentieran egon. Adibide bategaz azalduko dot, 1962ko finalekoa bera, lehenengoz Bizkaiko txapeldun urten ebanekoa. Oso adibide goiztiarra izanik, Lopategiren oportunitasun senak zer ekarriko eban ondo adierazo leike.

Puntu baten erantzuna izan zen, honela:

A. Irigoien: *Mañaritik hasita  
Urkiolaraino*

J. Lopategi: Danak ondrazten dabe  
han San Antonino.  
Hamaika neskazarri  
ein dautse engaino  
baina gehiago ere  
joango dira ondino.

(San *Antonino* hau lizentzia badaezpadakoa denik inork pentsatu ez daien, Bizkaiko eskualde askotan, San Antonio barik, *San Antoniño* esan dogu beti). *Jendeak txalo zaparradaz hartu eban eta ni pozik* -dino liburuaren 128. orrialdean. Zer dauka bertso honek? Hainbeste neskazarri engaitetan dituen santuak ez dauela merezi gehiago ez joatea baino, edo horrelako arrazoi "egoki" asko jaulki zeitekezen, baina ez: *gehiago ere joango dira ondino*. Hori jenteak badaki, ohitura hori bizi dau, siniskera hori sentitzen dau, denak joan dira nonoiz, baina une haretan, engainuak arreta oso beste leku batera eroan deutesanean, horixe da gitxien pentsetan dabena. Baina pentsamentua hantxe dago, berbertako ostetxoan. Bertsolariak izendatzea bakarrik falta da, entzulea (une haretakoa, ez gaurkoa) "txalo zaparradan" lehertu daiten. Arrazoi baten ostean, ostera, erlazino amabakoak egon daitekez, hurbilak, urrunak, simpleak, konplexuak, naturalak, bortxatuak... Erlazino horreek kontrapuntuak badira, hobe; eta, zehar-puntuak badira, are hobe, ahalbide ugariagoak emongo ditu eta.

Baina oraindino ez dogu kontzeptua zehaztu, ze gauza baten ostean erlazino edo zehar-erlazino guztiak aurkitu daitekez, eta aurkitzen saiatzen gara. Kontua da zehar-erlazino horrek unean uneko entzulearen zuntz sentsiblea, sentipen indartsuren bat (serioa, umorezkoa, tristeia, satirikoa...) argi jotzen asmatu behar dauela, entzule-

ak itxaroten ez, baina aitatzeaz batera jabetzeko modukoa, halako eran non, enuntziatuz batera, ia ebidentzia emoten dauen. Baina ebidentziak ziztada horixe behar eban, bistartzeko. Une bakoitzean horrelakoxe ziztada sentisblea azartetako senari deitzen deusat oportunitasuna, Lopategigan gehien nabarmenduko neukeen dohaina.

Hona beste adibide bat, Azpillagaren atalean azaltzen den saio ospetsu batetik. Tolosako Aldaba auzoan zen, 1970. urteko irailaren 27an, frankismo latzean eta bezperan Muñoz Grandes Espainiako militarren burua hil barri zela. Azpillagak, Aldaba auzoaren goieraz baliaturik, bertso bat honela amaitzen dau: "*Zuk zein kaletan bilauko dezu / hemengo askatasuna?*". J. Lopategik jarraitzen dau:

Bada hainbat gauza edar  
zuen herri hontan zehar.  
Baina euskaldunok aspaldi hontan  
ez daukagu suerte lar  
"Gora Euskadi" kantatuzera  
mendira etorri behar.

Horra hor goiera edo mendiari aurkitu eutsan zehar-erlazino berbertako bezain ezin sentisbleagoa. Ulertzekoa da une haretako entzuleak esplosiboki erreakzionatzea; ulertzekoa denez, Azpillagaren edegitasun solemneari honelako bihurtura oportunoak (ez bihurrikeriak, hau be izan daiteke baina) erantsiz gero, bikotearen emoitza neurrigabeki biderkatzea.

### Bilboko sariketa, Capitol zineman

Lopategi, Mugartegi, Arozamena, Narbarte, Mitxelena, Xalbador, Lazkao Txiki, Garmendia.

A. Irigoien: "*Hildakoen kaja bati*"

Bertso bietarik lehenengoa.

Betiko ez da guretzat ere  
mundu hontako tokia  
danok izango dogu nozbaiten  
amaikera egokia.  
Horregaitikan izanagaitik  
intziri edo keja  
azkenengoko trajia dogu  
zerraldo edo kaja.

1970eko 181. zenbakian, *Anaitasuna* aldizkariak Gernikako sariketa baten barri dakar, non Bizkaiako Lopategi eta Azpillaga eta Iparraldeko Xalbador eta Mattin lehiatu ziren. Epaitzeko erari buruz, honakoa dino:

"Lau bertsolari haundi, ta laurak ondo. Epaitzeko era barria ta, dirudianez, herriaren gogokoa. Juez bakoitza bakarrean, bere mahaian. Bertsolariak ez ekien ze puntuazino emoten eutseen; eta juezak eurak bere ez ekien beste juez lagunak ze neurriko epaia emoten eban. Bakoitzak bere epai neurria, bertso bakoitzeko, entzuleei agertzen eutsen, numeroa ohol txatal baten ezarrira. Eta entzuleei begira egoan tablero baten emoten zan juez guztiena, bat eginda. Azkenez, danak ikusiz, eta oraindino ez bertsolariak eta ez epaimahaikoak ez ekielarik, erabagia irakurri zan: Lopategik, 387 puntu. Azpillagak, 365. Xalbadorrek, 360. Eta Mattinek, 353."

J. Lopategik, *Anaitasunak* dinonez, "*Gernikako Arbola*" gaiari hiru bertso honeek kantatu eutsazen, Lourdes Iriondoren "*Lin Pan mendia*" kantaren doinuan:

1)  
Gure arbola goratutzea  
niretzat ez da nekeza  
bere itzalean bizi naiz eta  
hortan daukat interesa.  
Nahiago neuke neure odolakin  
baldin mantendu ahal baneza  
mundua mundu dan arteraino  
Iparragirren amesa.

2)

Baina arbola gaixorik dago  
katez lotua nekatzen  
pinu baltzakin inguratuta  
landarakaitik kezkatzen.  
Bere irrintzia gorantza doa  
justizi pixkat eskatzen  
gure arbola ez da osatuko  
baldin ez bada askatzen.

3)

Iparragiren arbola hil zan  
zu zagoz ia jausia  
eta halan be aurrera doa  
zure etsaien auzia.  
Erori zaite, zapaldu etsaia  
ta erein ezkur hazia  
mantendu daiten belaunik belaun  
zure izpiritu bizia.

406

#### Donostia (1968-II-04 eta 07)

100.000 pezetako saria jokoan ipini eban Piensos Onenak, 1968an. Jose Mari Iriondo izan zen aurkezle eta epaimahaia Juan Mari Lekuona, Pedro Diez de Ulzurrun, Xabier Amuriza eta Emile Larrek osatu eben, eta parte hartu eben bertsolarien artean, Mugartegi, Azpillaga eta Lopategi zegozen. Azken honek bakarrik lortu eban finale-ra pasatzea, Uztapide, Xalbador, Mattin, Lasarte, Basarri, Arozamena eta Mitxelenagaz batera.

Kanporaketan, lan dotorea egin eban Lopategik. Bakarka izan eban bere eta beste askoren buruan egosten ari ziren pentsakera eta ardura barriak erakusteko aukera:

"Burniari"

Burnia zure kontuak  
nahi ditu esan talentuak.  
Kapitalistak zure bitartez  
daduzkate kontentuak  
baina zeugandik etorri dira  
ditugun adelantuak.

Baina zure izakera  
joan liteke kaltera.  
Urterik urte ipini dozu  
industriaren jokera  
eta Bizkaiak zuregandikan  
galdu dau bere euskera.

"Gaizki bizi den langilearen nagusiari"

Holako zerbait esan nahiean  
etorri nintzan honuntza  
ikusitzean langile horiek  
zelan doazen beheruntza.  
Hainbeste gauza agindu eta  
emoteko orduan hutsa  
nagusientzat bakarrik dago  
estaduaren laguntza.

Laguntasuna etorri jatzue  
modu oso samurrian  
ez al zarie sekula jarri  
ondorenen bildurrian?  
Mundu hontako jokabidea  
dago modu bihurrian  
zer konfesatu behar dozue  
Jaungoikuaren aurrian?

Inor mogitu ete liteke  
bertsoaren esateak?  
Agertu bitez zuengandikan  
nozbaiten borondateak!  
Mundu hontara hortatik datoz  
ikusten diran kalteak  
zuen bitartez zabaltzen ditu  
komunismoak ateak.



Neuri azkenengo hiru bertsook benetan interesanteak iruditu jataz, arrazoi bigaitik. Mentalitate aldaketa baten lekuko bizi-biziak direlako, batetik: estatua, nagusiak, Jaungoikoa, komunismoa = kaltea, baina arrazoitua. Nahasketa handia eta esanguratsua dago hor, geroko Lopategi ezagututa, batez be. Bestetik, sasoi haretako bertsolari bizkaitar gehienek egiten ez eben moduan, Lopategik bizkaieraz egiten eban gehienbat, Donostian, gainera.

Finalean bardin antzean geraturik, 10.000na hogierleko banatu zitueen Basarrik eta Xalbadorrek. Lopategi gazteak be (bosgarren, azkenean) lan ona egin eban eta nabarmendu beharra dago zaleen babesa agirikoa dala grabazinoan. Mikrofonora urten behar dauen bakotxean, txalo zaparrada beroak jasotzen ditu. Binaka Uztapidegaz, gazte maiteminduaren paperean, honako saioa egin eban:

"Zu, Lopategi, Mirentxu izeneko neskatx polit baten atzetik zabilta. Mirentxu, Uztapideren atzetik dabil"

#### *J. Lopategi*

Neskatxa hori irrifarrezka  
biori jaku azaldu  
bere atzetik juandakuan  
ni berehala bialdu.  
Ez dakit zeren sentimentuan  
ote zan zugana heldu  
Mirentxu nitzat egina da ta  
ez zazu alperrik galdu.

#### *Uztapide*

Beraz Mirentxu horren gainean  
biok behar degu mintza  
zuk badakizu lehen-lehenik nigan  
egina dala otoitza.  
Hurrengo hilean esposatzeko  
emanak gerade hitza  
ez zazu lorik galdu, gizona  
alper-alperrik zabilta

#### *J. Lopategi*

Egi garbia ote daukagu  
Manuelen esanetan?  
Neskatxak hori berriz badio  
jarri behar nau penetan.  
Baina alperrik ez naiz jarriko  
barrero itxaropenetan  
oztoporikan ez dot jarriko  
maite badozu benetan.

#### *Uztapide*

Lehenago ere esan det eta  
tratu hortan dago itsu  
gurasuari ere esan die  
neri bezala berdintsu.  
Badakit neskatx hori ez dala  
tamaina horretan berritsu  
alper-alperrik, zuk ez baidez  
ganbiatuko Mirentxu.

#### *J. Lopategi*

Berak gauz hori esaten badu  
nik egingo dot atzera  
ikusit dot gaur maitasunian  
zu be motela ez zera.  
Baina begira sartua zala  
baita nire bihotzera  
nikin kontuak izango'ituzu  
gaizki portatzen bazera.

#### *Uztapide*

Behin honetara geran kasuan  
saiatuko naiz ahalegin  
gerta liteke seguru uste  
eta Mirentxuk aldegin.  
Hori gurutze gogorra da ta  
ondo pentsatuta egin  
esposatuta geroxiago  
penarik izan ez dedin.

Bakarka, barriz, gai bitxi samarra tokatu jakon.  
Are bitxiagoak dira Lopategik berak botariko  
bertsoak.

"Operatu zaituzte eta, ezin sendatu zarela ikusirik, radiografi bat egin dizute ta radiografi bitartez ikusten da guraizeak barruan dituzula oraindik".

Gaixo negoen joan dan aspaldi osasunaren kaltera operatzia ona zala ta joan klinika batera. Zer gertatu dan, oi, entzuleak! zuei noa esatera artasi batzuk dira niretzat zeruetako sarrera.

Eta itzalez egiten ditut azken orduko kantuak gesu batean eman beharrez tribunalean kontuak. Erratu dira hainbat mediku guztiak zeuden batuak artasi horrek ebaki bitza animaren pekatuak!

Beraz gauz hori txarto gertatu ta hara baguazela! Eternidade neurrigabeak niregana datozela. Errakuntza hoiek noizian behinka ontzat izan ditezela artasi hori erabilko dot San Pedron giltza bezela.

#### 1976an

Puntua: *Aresti ez ote zan oso bertsozale?*

*J. Lopategi:* Inoiz egingo zuen pota edo kale. Borondatez ebilen ta horrekin bale beti mintzatu baizan bertsuaren alde.

#### Zornotza. Erkoles (1976-VI-06)

Abel Muniategi gaijartzaile ebela, Azpillaga, Lopategi, Amuriza eta Lazkao Txikik jardun eben bertsoetan.

"Amuriza kartzelatik urtenda dagoala bada denporatxu bat. Edadea be badauka ta sasoi dau espabilatzen hasteko. Lopategi, neskabila aukerakoa aurkitu dau Erkolesen".

#### X. Amuriza

Kartzela, jaunak, gauza latza da beti lau hormen esklabo neska polit bat ezin ikusi ilusioak akabo. Laminatxo hau tentatu nahi dot amesetan ez banago karino pixkat hartuko neuke emoteko prest badago.

#### J. Lopategi

Kartzela itzi eta basoan pinu-mutil bat bezelan dirudienez maitasunean ez du egin hainbeste lan. Hamairu urte abadegintzan sei urte ta erdi kartzelan gizajo honek ba ete daki noiz zer egin eta zelan?

#### X. Amuriza

Asunto hortan nik dakidana liburukoa dalako behar nuen, bai, maistra polit bat lezino pratikurako. Zuk irakatsi ta nik ikasi konponduko gara bapo esaminetan kalabazarik ez dot nik hor atarako!

*J. Lopategi*

Zer nahi zuen gaur heldu baino lehen  
konturatua nengoen  
honek gaur gauza aurkituko du  
berak pentsatu baino lehen.  
Zentzuna bizi jarri bajako  
kartzela itzi ondoren  
zuk nahi besteko borondatea  
ez jatzu faltako hemen.

*X. Amuriza*

Egia bada zuk dinozuna  
tratuan hasi gaitezen  
kartzelako hormen lehortasunak  
ia kentzen daustazuzen.  
Egia bada, guzurra ez bada  
ekarri eskua ta goazen  
bihar oilarrak zer nobedade  
joko ete dau Erkolesen?

*J. Lopategi*

Lagun bezela niregan dago  
gaur zuretzako ajola  
istoriuan gelditu dedin  
Erkoles edo Erkola.  
Pratikatutzen hasi nahi luke  
liburutako eskola  
disparatutzen hasten danian  
nork hartu honen kontrola?

#### **Markina-Xemein (1976-XII-08)**

Bizkaiko saiorik entzutetsu eta garrantzitsuenetari-  
koa da Markinan Kontzezino egunez egiten dena.  
1976ko hauxe izango da, beharbada, lehenengoa.  
Atzeratuen aldeko jaialdi moduan aurkeztu zen  
orduan. Grabazioan nabarmena da trantsizino  
sasoiko giro abertzale beroa, bai bertsoetan, bai  
entzuleen txaloetan. Gaiak be sasoiaren adierazle  
dira: erreferenduma, ikurrina, amnistia, batasuna....

Puntua: *Reformarik ez dago  
amnistia gabe*

*J. Lopategi:* Alperrik dabiltz Carlos  
Suarez ta Iribarne.  
Euskaldunak amnisti  
ta fueruen alde  
bestela Markinako  
gaztieri galde.

*"Orain hilabete hil zen Xalbadorri bertso bana".*  
Lopategik hauxe kantatu eban:

Ez dakit zer zan gure Xalbador  
profeta ala aingerua  
joan daneko, hotzak hartu daust  
bihotzaren ingerua.  
Etxean daukat testamentutzat  
itzi dauskun liburua  
letra guztiak ikasi arte  
ez dot altzako burua.

#### **Deustuko Unibertsitatea (1975-I-17)**

Arregi, Azpillaga, Lopategi, Mattin eta Lazkao  
Txiki ziren bertsoetan. Lopategik puntu bi honeei  
erantzun eutsen:

Puntua: *Giltzape ta heriotza  
herri baten mina*

*J. Lopategi:* Hau da arnasestua  
hau bizi ezina!  
Bihotzetik kentzeko  
badegu premina  
hoita hamasei urtean  
daukagun samina.

Puntua: *Zati bitan daukagu  
lehen herri bat zana*

*J. Lopategi:* Nahi danean ezin joan  
geure anaiengana.  
Burrukarako inork  
baleuka afana  
neuk emongo dautsuet  
metralleta bana.

"Bizitza garestitzen doa, soldatak ez"

Geroago ta larriagoa  
da krisi horren arloa  
ez ditugula berezitzen  
garia eta oloa.  
Ia horrela itzartzen dogun  
Euskal Herri honen loa!  
Euskal Herrian baita soloa  
eta Madrilen zuloa.

### Txapelketa Nagusiko finala (1967-VI-11)

"Zu, Lopategi, barkuko kapitana zera. Ontzia hon-  
doratzen dihoa eta, ohitura dan bezela, zu bertan  
zaude".

Momentu hauek ez dira izaten  
itsas barruan onenak  
ontzi honetan segurutikan  
laster dira hondamenak.  
Pasajeru ta gainontzekuak  
aditu nire ordenak:  
hemen kargua nik daukat eta  
atera zaiteze denak.

Itsaso hori jarritzekuan  
era oso bihurrian  
desio gendun arkitutzia  
guztioak geure lurrian.  
Oraintxen nago gora begira  
sekulako bildurrian  
bakar-bakarrik itzi binaue  
Jaungoikoaren aurrian.

Desgrazi hori azaldua da  
gizon batentzat kaltera  
bestiak denak salbatu dira  
neronen borondatera.  
Baina ez nua itsasuari  
ni agurrik esatera  
bere barruan amildu nahi dot  
neure ontziakin batera.

A. Irigoien: *Bertsoa botaiozu  
zere buruari*

J. Lopategi: *Hoixe erantzun behar  
neure kontuari.  
Nahi bezin ongi ezin  
Donostian ari  
askoz hobeagoak  
baidira ugari.*

### Lemoizko Andrakan

Iturri eta biak. (*Jon Lopategi, bertsozko mezularia,  
119. or.*)

Iturri ta biok behin  
Andrakan kantari  
bertsotan ginelarik  
ari eta ari  
guardia zibil bi ziren  
geuri adi-adi  
Iturrik kantatzean  
"eutsi euskerari"  
deihadarka hasi ziren  
"Ha dicho Euskadi!".

Eskerrak alkatea  
bizkor etorri zan  
itzulpen lanetara  
abogadu gisan.  
Hari esker multarik  
ez genuen izan  
guardia zibilen mende  
Francoren gerizan  
garai triste haietan  
xelebre genbiltzan.

### Xalbadorri, Urepelen.

(*Jon Lopategi, bertsozko mezularia, 318. or.*)

Agur tristea egin zenigun  
 omenaldiko egunez  
 ta huna berriz inguratua  
 gizon, andere ta umez.  
 Bizkaian erein ditut, Xalbador  
 zure zenbait azken amets  
 sortuko diren lore ederrekin  
 gaur egiten dautzut promes  
 urte guztitan etorriko naiz  
 Urepelera erromes.

**Kantatuaz** (*Gogor* diskoan)

Kantatuaz, kantatuaz  
 zorion eta penak  
 kantatuaz sortzen dira  
 gure itxaropenak.

Goizian goiz goiz argiari  
 kantuz dabil txoria  
 udabarriz eguzkiak  
 sortutzen dau loria.  
 Euskaldunen bihotzari  
 zor jako umoria  
 kantatuaz penak kentzen  
 dator bertsolaria.

Kaiolako txoritxua  
 ez al dozu ikusi?  
 Kantatuaz alaitzen da  
 nahiz eta preso bizi.  
 Inguruan ikustian  
 hainbeste injustizi  
 kantatuaz joan nahi dot  
 mundu honen ihesi.

Kantatuaz....

Kantatuaz, kantatuaz  
 nahiz ta egurra jaso  
 kantatuaz kantatuaz  
 nor garan adirazo.

Errekatxuak alaitzen  
 nau bere oihartzunez  
 itsasuaren deiari  
 kantari erantzunez.  
 Gazteriak gizartian  
 jokatzian zentzunez  
 kantatuaz nasaitzen da  
 nahiz ta inork entzun ez.

Nora ezian gaur dabil  
 euskaldun bidaztia  
 menderatu ezinian  
 gau ilun ta tristia.  
 Iretargi guzurtia  
 gure argi guztia  
 kantatuaz sortu daigun  
 egizko eguzkia.

Kantatuaz...

Kantatuaz, kantatuaz  
 nahiz ta egurra jaso  
 kantatuaz Herri zahar hau  
 biztuko da akaso.

**Txapelketa Nagusia 1982**  
**Idiazabalgo finalerdia**

*"Ez naiz ni gerraren zale / baizik bakearen alde".*

Pakearen eskaintza  
 egiten dute hor  
 eta dei horrentzako  
 ez nago entzungor.  
 Justizi on batekin  
 gura genduke lor  
 baldin bagera euskaldun  
 baldin anai ta nor  
 horretan ahalegin bat  
 ez ote dugu zor?

Izango ote gera  
hianbesterako din  
gerrak ekarri digu  
denontzat hainbat min.  
Pake itxaropena  
orain gugana jin  
anai bezela denok  
egin dezagun zin  
jokatuko dugula  
zintzo, garbi ta fin.

Amets hori lortzea  
gertatu leike gaitz  
mugitu behar ditut  
gaur harri eta haitz.  
Euskalduna pozteko  
noizbait pakezko jaiz  
gerraren durundia  
nahiz ta azaldu maiz  
ni pakearen alde  
beti juango naiz.

412

### **Txapelketa Nagusia 1982 Durangoko finalerdia**

*"Itsaso zabalean topo egin duzue, bakoitza itsasuntzi batean. Zu, X. Zeberio, Amerika aldera zoaz eta zu, J. Lopategi, euskal Herri aldera zator". Zeberio hasi eta lehenengo bertsoa "ta Lopategi, galdetzen diat / zer berri dek Amerikan?" amaiturik, Lopategik darrai:*

Amerika da dolar aldetik  
sendo eta indartua  
zerbaiten bila haruntz juteko  
jarri nintzan ni gertua.  
Baina berriro nator bueltaka  
neure txalupan sartua  
Euskal Herria maitatzen bai dut  
Euskal Herrian sortua  
gaur gaberako hartu nahi nuke  
Elantxobeko portua.

### **Txapelketa Nagusia 1982 Finala**

Kartzelako gaia: *"Emakumea"*. Bigarren-hirugarrenak honakoak kantatu zituen:

Ez zaituztet nik irainduko ta  
mantendu zaitezte lasa  
elkar harturik egiten dugu  
maitasunezko jolasa.  
Izan ditugu geure bizitzan  
hamaika denborapasa  
eta zuengan nere oroimena  
ez da sekula eskasa  
mantenduko dut gerora ere  
eskatzen duzuen jasa  
gizon zintzoaren traza  
hala jokatzen dut baza  
feministetan zabiltzatenak  
har ezazue arnasa  
zuekin lagun ondra nahi bai dut  
neure ijito arraza.

Nahi zaituztet nik bizimoduan  
gizon denak bezain aske  
eta harreman neurri onekoak  
laister eratu daitezke.  
Izate batek merezi baitu  
gutxienez horrenbeste  
handik ta hemendik azaldu dira  
gugana zenbait albiste  
Jaungoikuarren ez zaitezte  
gaur nerekin jarri triste  
berdin zahar ta berdin gazte  
nerekin bildu zaitezte  
proposizio txarra dugunik  
inola ez dut nik uste  
denok batera joan gaitezen  
etorkizunaren eske.

J. Lopategi eta X. Amurizaren arteko desenpateko kartzelako gaia: *"Hi naufrago bat haiz itsasoaren*

*erdian, ohol baten gainean. Badator itsasuntzi bat, ikusten hau, eta aurrera segitzen du” J. Lopategik hiruko hauxe kantatu eban:*

Entzun dut sirena hotsa  
iruditutzen zait motza  
nahi nuen baina horren laguntzaz  
ez nezake goza.  
Nunbait zen barku arrotza  
baina behar zuen lotsa  
horra noraino heldu diteken  
gizonen bihotza.

Biztu bainion zuzia  
ke beltz gabe biluzia  
baina hutsean gelditu zaigu  
amets nagusia.  
Orain hau nire auzia  
ezin mantendu bizia  
kapitan horrek desondratu du  
bizitza guzia.

Estu buru ta hestea  
ez da helduko bestea  
lotsagarrero bertan utzi du  
nik nuen eskea.  
Galdu da nire ustea  
ta munduko albistea  
agur semea, agur alaba  
agur emaztea.

#### **Txapelketa Nagusia 1986 Finala**

*“Zahartutako zeure erropak basurara bota dituzu eta hara non ikusten duzun beste gizon bat, zuk botatako erropak jasotzen”. J. Lopategik lehenengo biak honakoak kantatu zituen:*

Erropa zahar hoiekin  
etsian negoen  
beti jantzi ohi naiz ahal  
denik ondoen.  
Akaso bota ditut  
behar zen baino lehen  
baina ondorioa  
horra hor nabarmen  
triste nago zeren  
aitona zahar horren  
jokoa gaur zer den  
ikusi ondoren  
miseria gehiagi  
daukagu hemen.

Triste ikusten zaitut  
aitona izanik  
gaizki hartu zaituzte  
egia esanik.  
Zer eman nezake nik  
zuretzat nigandik?  
Ez nuen uste kasu  
hori inun zanik  
hartzazu dohainik  
ez eman ordainik  
bihotza jadanik  
lehertua daukat nik  
erropa gehiago ere  
badut oraindik.

#### **Txapelketa Nagusia 1989 Finala**

*“Zu, J. Lopategi, apaizaren esanetan ibili zinen gaztetan. Gaur, M. Mendizabal apaiza ezkontuta dago eta zu, berriz, oraindik soltero”. Lopategi honela hasi zen:*

Gogoan hartu beharrekoa  
Mandalunizen esana  
hemen nauzue mutlizaharturik  
lehenago gazte izana.  
Eta begira lehendik honera  
nola aldatu den plana  
apaizak berak egin du orain  
neri uzten ez zidana.

*“Herriko bi lagun atera zineten Everest gailurrera.  
Mendi ezagun horren azken maldan, zure lagunak  
istripu latza izan zuen. Zeu bakarrik izan zinen  
bere azkenaren testigu”.* Lopategik hiruko hauxe  
kantatu eban:

Mundu hontako justizia ere  
hain gertatzen da urria  
gutxien uste dugun garaian  
baidator gaitz bihurria.  
Munduan dagon goi altuenari  
hartu nahiean neurria  
hona bikote oso zalea  
martxa haundian jarria  
baina berela buka zitzaigun  
ilusioen argia  
hau da ene aldarria  
minbera eta larria  
lagunarekin biok genduen  
Everesten egarria  
azken boladan hola galtzea  
ez al da negargarria?

Ondo betea jarri genuen  
jan-edaritan saskia  
subentziotan hornitu ere  
ibilera garestia.  
Bion bihotzak sentitzen zuen  
esperantzaren izpia  
Everest gaina ia eskuan  
ibilera amestia  
baina ozpina agertu zen da  
aihenatu zen ezta  
hargatik nire abestia  
sentimentutan bustia  
Everest punta genuen amesa  
hura gendun eguzkia  
baina laguna eroritzean  
itzali zaigu guztia.

Jarraitu nahita jarraitu ezin  
bihotza jarri zait armin  
zeinek pentsatu gure irteran  
guretzat hainbeste lorrin!  
Galdu ditugu lagunarekin  
gure hainbat ames gordin  
hala ta guztiz Everest berriz  
jarri zaigu argi urdin  
ez ninteke ni bide erdietan  
gelditu inola erkin  
ez naiz sentitzen atsegin  
baina segitu nahi berdin  
punta hortara ailegatzeko  
saiatuko naiz behinpein  
lagunaren ta nire izena  
bertantxe idatzi dadin.



**Tolosa (1991-III-18)**

*“Jon Lopategi Athletic-en zalea izango da eta Andoni Egaña Realarena”. Egaña “neri hauentzat ez zait gelditzen / errukia besterikan” hasirik, jarraitzen dau:*

Erruki eta pesimismoan  
badabil gaur nahiko jente  
garai batean kopa ta ligak  
irabazirik dexente.  
Negatiboak etorri dira  
eta joan da Clemente  
lehoia siestan daukagu baina  
laster jarriko da tente.

**Lesaka (1992-VII-10)**

*“Gipuzkoako bertsolariak, bai inguruko herrialdeetan, egunkarietan, nahiz telebistan, nonahi agertzen dira. Alderantziz, bizkaitarrak ez hainbeste. Baina, hain zuzen ere, Euskal Herriko txapelduna, bai gaztetxo, bai helduena, bizkaitarrak dira. Non dago diferentzia? Nola dago bertsolaritza zuen herrialdeetan?”. Saio luze samarrean, bigarren bueltan, Peñagarikanok “bi gipuzkoar gehiago gera / hamabi bizkaitar baino” amaiturik, Lopategik darrai:*

Honek hitzetan armatzen ditu  
nahiko koplak eta nahaste  
txapelketara heldutakoan  
gero zenbait buruhauste.  
Naparruara heldu ez arren  
triste gaudenik ez uste  
herri denetan sobra daudenak  
esportatu ohi dituzte.

*“Hauek hobeak ditugunikan / nik behintzat ez det pentsatzen”.*

Hobeak garen ez dakit baina  
kantatu behintzat hobeto  
Gipuzkoako txapelarekin  
geldituko da hau keto.  
Honen figura Euskal Herriak  
ez baidu errez maiteko  
bi aldiz pasa behar dezu zuk  
nere itzala egiteko.


**Zumarraga (1992-XII-11)**

*“Txikitan zer egiten huen? Hire ametsak zein hituan?”. Hirukotik bigarren-hirugarrenak honakoak izan ziren:*

Nere mendiko zorion hura  
halako batean eten  
eta han nauzue neure kabitik  
urruti samar joaten.  
Nere aita-amak hamar umekin  
aho gehiegi baizuten  
hamabi urte egiterako  
praile bialdu ninduten.

Sakramentino komentu hura  
bai haundi eta itzela  
egun batzutan oilategia  
beste askotan kartzela.  
Hargatik sarri kantu ohi det  
gaur Zumarragan bezela  
udaberririk goza ez duen  
bertsolari bat naizela.

## GREGORIO LARRAÑAGA "MAÑUKORTA"



Bere jaiotetxearen izenetik, mundu guztiak "Mañukorta" legez ezagutzen dauen Gregorio Larrañaga, Matias Larrañaga eta Maria Mandiolaren semea, 1943ko abenduaren batean jaio zen Markinako Larruskain auzoan. Bost neba-arreba dira, anaia bi eta hiru ahizta. Bere oinarritzko ikasketak, "joaten zenean", berak esaten dauenez, Larruskaingo auzo eskolan eginez, umezaroa Jainkomentdiko Mañukorta baserrian emongo eban, eta bardin gaztaroa, harik eta, soldadutza amaituz batera, Ameriketako Nevadara artzain joan arte. Sei urteren buruan itzuli zen, gehiago ez joateko. Harrezkero, bere lantegi nagusia Berriatuko Cicaucho kooperatiba izan dau, 58 urtegar jubilatatu zen arte, oraindino ezkongai.

416

Mañukortak oso gauza on bat dauka aurkezle baten-tzat: izena esatea nahikoa da, mundu guztiak dena ulertu daien, behin ikusi badau, behintzat. Figura berezi eta irrepitberlik izatekotan, bat Mañukorta izan behar. Halan be, zeozer gehiago azaltzera beharturik gagozenez, dinogun bertsotan bere kontura hasi zela, bertso zaharrak ikasiz eta abar, era guztiz autodidaktan. Bertsotarako grina amaren aldeko senideakandik hartu ei eban. Bere ereduak Basarri, Uztapide eta Xalbador izan ditu, baina beste guztien gainetik, Lazkao Txiki.

Mañukorta batez be plaza libreko eta mahai inguruko bertsolaria den arren, txapelketetan parte hartzeko errepatorik sekula ez dau izan. Bizkaiko txapelketetan, 1964tik 1996ra arteko guztietan aurkeztu zen, bost bider finalista izanik. Euskal Herriko txapelketa nagusietan, 1982tik 1997ra arteko bostetan kantatu eban, 1986 eta 1989an final-aurrekoetara heldurik. Txapelketez gainera, osterantzeko sarietan be sarri ibilia da, Artxanberri sarian, Zepai sarian eta abar.

Mañukorta bertsogintzaren gailurrean ibili da beti eta gaur be hortxe jarraitzen dau, urtean saio piloia eginez. Bere bertsokera soil, konplexu bako eta oso pertsonalizatuari eskerrak, asmatu egiten dau, ez belarritik bakarrik, baizik, batez be, entzuleen begitik sartzen. Arlote paperean diharduenean be, badauka argitasun bat, egoerarik ezbardinenei etekinik onena ateratzeko. Eta sen bat, zaskarrerian lorrindu barik ibiltzeko. Kantuan zein berbetan, nekez aurkituko da kasurik, pertsona eta pertsonaia hobeto bat eginda doazenik. Entzuteko eta ikusteko baino gehiago, entzun-ikustekoa izateak arrakasta telebistaraino zabaldu deutso, non gehiago agertu ez bada, ez baita tiratu ez deustielako, berak neurtzen dauelako baino. Horretan be, Mañukortari ez jako argitasunik eta nortasunik falta, inon abusatu ez deioen.

### Idiazabal. Zepai saria (1975-IX-21)

"Nolako neskatxa nahi zenduke emaztetzat?"

Bihotzez jaiotzatican  
ni bainaiz biguna  
ta oin apartatu behar  
neretzat laguna.  
Zelakua izango dan  
ai, nere kuttuna!  
Fina izan dedila  
eta euskalduna.

Neskatxa fin batentzako  
nago egarrin  
urtiak ere aurrera ez-  
kondu beharrian.  
Gau ta egun saiatuko naiz  
bihotzez lanian  
zoriontsu izateko  
gu Euskal Herrian.

**Idiazabal. Zepai saria (1976-IX-26)**

"Bazkaria jan dizun katuari"

Goseakin gelditzeko  
gaur nere kontuak  
zenbaitek argiak ditu  
bere talentuak.  
Eta hondatu behar  
gu lako tontuak  
bazkari dana jan dit  
auzoko katuak.

Mahaia neukan jateko  
nik preparatuta  
eta albora alde egin det  
zerbait pentsatuta.  
Etorri naizenian  
dana bukatuta  
akabatuko al da  
enbenenatuta!

**Añorga (1978-II-12)**

"Haurrak galdetu dizu: aita, zergatik ezkondu  
zinan amarekin?"

Haur txikiak hartua du  
mundu hontako ardura  
galdera hori iritsi da  
beraren bihotz barrura.  
Maitasun hutsa berakin nun  
Jaunak aindu zun modura  
frutu berriak zu bezelaxe  
sortu nahi nitun mundura.

Puntua: *Heriotzari ezin  
inork ihes egin*

Mañukorta: Nahiz ta aberats danak  
ein hainbat ahalegin.  
Jaungoikuak justizi  
danentzako berdin  
ta hoixe eskatzen det  
beti izan dedin.

**Gasteiz (1986-II-02)**

"Zure haurtzaroa gogoratuz hiru bertso"

Nere gazte denbora  
ez dago urrian  
baina entzule asko  
gaur ditut aurrian.  
Dana azaldutzeko  
ez naiz bildurrian  
buelta-bueltaka jolas  
zelai ta lurrian  
hantxe ibiltzen nintzan  
Mañu basarrian.

Jolasteko banuen  
nahiko borondate  
auzoko txiki danak  
ez nitun aparte.  
Sasi ta egurrekin  
eiten gendun kate  
soka-saltuan saia  
saltoka jo ta ke  
eskola ikasi nuen  
hamar urtera arte.

Holaxe izan baizan  
nere ibilera  
eskola gutxi eta  
jolasteko aukera.  
Hamar urtian buka  
Mañuren karrera  
hala ta ere holan  
tontuak ez gera  
handikan jua nintzan  
ni ahuntzak zaintzera.

**Txapelketa Nagusia 1989**  
**Finalerdia**

*"Mendizabal, bertsolaria zaitugu eta Mañukorta, emaztea. Bertsolaria, askotan bezala, bertso-saioan izanda, berandu zatoz etxera. Mañukorta emaztea maletak egiten ari da". Mendizabalek lehenengoan "oraindikan urruti / dauzkagu opor-rak" kantaturik, Mañukortak darrai:*

Bertsolaria zera  
ez zera isila  
egun dana bakarrik  
ez nago trankila.  
Maletan sartua det  
nik erropa pila  
ta ames bat egin det  
oso biribila  
lehenbailehen banijoa  
beste baten bila.

Bigarren bueltan, Mendizabalek *"edo ez al dakizu / nik dedan langintza?"* kantaturik, Mañukortak darantzu:

Zazpi urtez arpei beltz  
gerade egonak  
neretzat errietak  
ta auzoan bromak.  
Juergan egiten ditu  
hain bertso sakonak  
gogo onez maitatu  
auzokoen gonak  
hori ez du egiten  
egizko gizonak.

*"Mañukorta senarra da eta Lertxundi, emaztea. Bart gauerdian, mugimendua nabaritu du emazteak ohean. Argia piztu eta hor ikusten du bere senar hau, almoadari oratuta". Lertxundi hasirik "alboan badaukazu / hoi baino hobia" esanez, Mañukortak darrai:*

Amesetan nenbilen  
hainbeste histori  
arduratsua baida  
txapelketa hori.  
Golpia jaurti eta  
albora erori  
baina bigarrenian  
helduko'izut zuri.

*"Egi bihurtu zazu / lehenbailehen ametsa".*

Ames eta zirrika  
hainbeste harmoni  
zerbait gauz egitia  
da bioi komeni.  
Indartsu eta leial  
abila nago ni  
ta buelta eman zazu  
Joxepa Antoni.

*"Bi muxu emango'izkizut / portatzen bazera".*

Biok zaleak gera  
nik ezin ukatu  
zer gauz politik diran  
atera ta sartu.  
Gizona egiten da  
indarrez osatu  
zer postura nahi dezun  
oin zuk apartatu.

**Txapelketa Nagusia 1997**  
**Azken-laurenak**

*"Aspaldian ez zenuen arreta handirik jarri ispi-luaren aurrean. Gaur, ordea, adi-adi egon zara denbora luzez". Mañukortak hiruko hauxe kantatu eban:*

Mundu honeri eman beharra  
 degu bakoitzak beria  
 ume denboran dana polita  
 hura-hura adoria!  
 Gorputza ere lirain-liraina  
 eguzkian koloria  
 txiste ta bertso, herri ta auzo  
 danerako umoria  
 hoge urtekin gazte polit bat  
 izaten da dotoria.

Aitona zanak ongi esaten  
 eiten zidan ahalegina  
 "ni ere lehenau polita nintzen  
 oso jatorra ta fina".  
 Urterik urte zahartzen ai gera  
 hori da gauza jakina  
 nahiz ta zahartzeak ematen digun  
 bihotzan erdian mina  
 gazte denbora mundu honetan  
 ez da betiko egina.

Ai, Mañukortak garai batean  
 bazuen bere grazia  
 gantzontzilorik gabe gorputza  
 ispilutik ikusia.  
 Halabeharrez urte batzutan  
 ni egon naiz berezia  
 igarri gabe iritsia zait  
 betirako desgrazia  
 horri begira egon naiz eta  
 hau da gorputz itsusia!

#### Aduna (1988-VIII-15)

Gaijartzaileak agindu eutsan hango neska batek  
 bere xehetasun guztiak jakin nahi zituela, eta ber-  
 tsotan esateko.

Langile fina, mutil ederra  
 izatez ez naiz bastua  
 jantzi ederra, morrosko ona  
 ilea ondo orraztua.  
 Dotea ere ipinita det  
 jarri zintezke poztua  
 nere etxean bi behi pinta ta  
 txakur bat eta astua.

Diru puxka bat aldian daukat  
 gustatutzen zait jolasa  
 kotxe bezela karneta badet  
 baitare kuartrolatasa.  
 Mañukortakin bizitza on bat  
 egin nahi badezu pasa  
 nekin ezkondu ta ugaldu leike  
 Jainkumendiko arraza.

Mañukortaren umore ederra  
 pagatzen zaila da sarri  
 irripar gozo, igurtzi onak  
 berdin aurpegi ta gerri.  
 Lagun on batez bizi guztian  
 neska, hik nahi baden jarri  
 gu oso ondo biziko gaitun  
 Jainkumendira etorri.

#### Baliarrain (1990-VIII-14)

*"Kontuak kontu eta berriketak berriketa, nolakoa  
 beharko luke zure nahiak beteko lituzkeen damak?"*  
 Hiru bertsoetarik lehenengoa hauxe kantatu eban:

Garai batetik gaur egunera  
 bada hamaika mudantza  
 ume txikikin ez leike bete  
 etxe bateko baratza.  
 Nik andragai bat apartatzen det  
 mutur harrua ta baltza  
 berrogei eta bost urte eta  
 dirutikan aberatsa.

**Eskoriatza (1992-II-23)**

Sebastian Lizaso, Mañukorta, Lazkano eta Jon Lopategi. "Gipuzkoarrak eta bizkaitarrak bata-bestearen aurka". Mañukortak bat hauxe kantatu eban:

Bertso jatorrak kantatze'izkiau  
umore onakin tin-tin  
bai berdin-berdin mendi gainian  
da berdin-berdin Donostin.  
Umore ona ipintzen diau  
berdin egin hainbat mitin  
gu apurtzeko semerik amak  
oindik ez dik ein Azpeitin.

**Lasarte (1996-VI-08)**

"Peñagarikano bankeruak gaur jakin du Mañukortak diru asko daukala, etxean ondo ezkutaturik, eta etxera doakio, dirua bankuan sar dezan proposatzera". Buelta batean, Peñagarikanok "bilete pila hortxe daukazu / zure ikuiluko txokuan / ta igual behiak jango dizkizu / arbiak diralakuan" kantaturik, Mañukortak darrai:

Gizon zuzenik etxe hoietan  
ez det ezautu egundaino  
faltsokeria, itxura txarra  
berdin eguzki ta laino.  
Ta Mañukortak ehun mila miloi  
beteta diru goraino  
behiak jatia ere nahiago det  
bankuat jatia baino.

"Behiak berdeak jango dizkizu / ta zu gosez hilko zera".


Gaizki esanez hasteko ere  
orain hartu du ohitura  
bizar ta guzti pajaritakin  
honek du honek fiura!  
Eskola asko ere ez daki  
non ote dauka kultura?  
Baina ogirik hik ez dek jango  
Mañukortaren kontura.

**Aginaga-Usurbil (2003-X-04)**

"Mañukorta eta Irazu, udan sos batzuk eskuratzearren, Aginagara etorri zarete piperrak biltzera. Zer moduz joan da uzta?" Buelta batean, hauxe kantatu eban:

Basarritarrak gera  
jator eta finak  
baina gainditzen gaitu  
nahi eta ezinak.  
Gorri, berri, potolo  
dira aldeginak  
ta gelditu diranak  
denak piperminak.

## JUAN MUGARTEGI



Andres Mugartegi eta Maria Iriondoren seme, 1933-VIII-26an jaio zen Berriatuko Patrokua base-  
rrian, eta bertan bizi da, Rufina Urruzunogaz ezkondu-  
rik, seme-  
alaba bi dituela. Gerra eta gerraos-  
te zorrotzean, oinarrizko ikasketak  
herriko eskolan ahal zen moduan  
eginez, umezaroa baserriko beha-  
rretan joan jakon. Gero be, Mugar-  
tegiaren lanbide nagusia nekazari-  
tza izango zen beti.

Bertsolaritzako lehenengo urratsak bere konturako zaletasunari (bertso zaharrak ikasiz eta abar) eta herriko lagunarte bertsozaleei zor deutse. Zeozergaitik zituen herkide eta ia adinkide Azpillaga, Arregi eta beste batzuk. Lehenengo saioa, hain zuzen, Azpillagagaz egin eban Amoroton, oso gazterik, 1949an. Gero be, kantulagunik ohikoenak Azpillaga, Arregi, Lopategi... izango zituen. 1959an hasita, Bizkaiko txapelketa guztietan parte hartu eban 1990era arte. 1960an txapeldun izan zen, Azpillagaren aurretik, eta 1964an eta 1966an txapeldunorde, Lopategi-  
ren atzetik. Euskal Herriko txapelketa nagusietan, Bizkaiko txapeldun edo txapeldunorde legez, hiru urte horreetan finalista izan zen. Loiola Irratiko sari-  
ketetan be parte hartu eban 1962an eta 1964an, eta irabazi be bai behin. 1982ko Bertsolari Egunean, bera izan zen omendua.

Txapelketa askotan ibilia izan arren, Mugartegiaren iaio-  
tasuna ez da lehiarakoa izan. Plaza librean bertan be, apur bat txikitze-  
ko joera izan dau, edo harrotzekoa ez, behintzat. Baina lagun artean eta mahai inguruan, alde paretik. Orduan hazi, gailendu egingo da, bertso-  
keta guztiz naturala eta harrigarriro erraza eginez. Basarri, Uztapide eta Lasarte zituela eredu, bertsozale askoren ustea zen Mugartegi zela Lasarteren estilora gehien hurreratzen zena.

## Zeanuri (1973-VIII-12)

Puntua: *Zenbat kilometro da lurretik zerura?*

*J. Mugartegi:* Kontu hori gaur ez dator neronen burura. Bihar edo etzi joan nahi bere ingurura gero neurtuko degu ahal degun modura

## Bilbo (1973-IX-17 eta 1975-I-17)

Deustuko unibertsitatean, Xalbador, Lopategi, Lazkao Txiki, Mugartegi eta Arregi.

*"Mugartegi ta Lazkao Txiki gaur eguneko gazte batzuk dira. Arratsalde batez aurkitzen dira dantzaldi batean. Lazkao Txiki neska ausarta eta Mugartegi mutil lotsatia".*

## *J. Mugartegi*

Mutilak zerbait badu neska zuretzako honek ez du nahi hartu bere laguntzako Eskabide bat egina diot nik dantzako baina ez dit lagundu lotsa naizelako.

## *Lazkao Txiki*

Dantzarako baimena eskatu bihar hik parean kalabaza kolpian hemen nik. Izan'e zu ikustean gaur dana isilik neri ez zait gustatzen holako mutilik.

*J. Mugartegi*  
Neskatxa honek dauka  
halako jokera  
begiratuko diot  
goitik eta behera.  
Dantzan hasita biok  
konponduko gera  
ni ere geldi-geldika  
joango naiz aurrera.

*Lazkao Txiki*  
Berotasunik ez du  
bai dala epela  
iruditzen zait mutil hau  
dagola txepela.  
Ilundu bitartian  
bastante motela  
gauean berotzen da  
katuak bezela.

422

*J. Mugartegi*  
Neskatxa pazientzi  
behar dezu hartu  
ni oraindik bide hortan  
gaur ez bainaiz sartu.  
Baina pixka bat nahi nuke  
hemen aurreratu  
arrimatuko naiz ta  
ez zaitez bildurdu.

*Lazkao Txiki*  
Banekin aurrez ere  
bildurrez zegona  
ez zuen ikuttu nahi  
nik daukaten gona.  
Jai-iluntzian mutilak  
erruz ta hau broma  
dudan nago ez ote dan  
egizko gizona.

Bakarrean: "Okelaren arazoari bertso bi".

Lehenago ez genduan  
honako kasorik  
orain gaitz txar bat dator  
munduan jasorik.  
Okela pixkat jan dut  
lehenguan gozorik  
harrezkeroztik nabil  
ni erdi gaixorik.

Indar ematen duna  
da okela berez  
baina txarra gertatu  
zaigu bai aldrebes.  
Bera nahikoa jaten  
ez daukagu errez  
ta orain txarra dalako  
etxean bat ere ez.

#### **Txapelketa Nagusia Finala (1967-VI-11)**

"Mugartegik hiru bertso kantatuko ditu orain, eta  
gaia izango da bertsoaritza eta euskera". Hiru  
honeexek kantatu zituen:

Itzal haundiaz gordetzen zaitu  
hizkuntza berdingabea  
bertsolari ta zure izatea  
gozoa ta suabea.  
Euskaldunentzat euskera baino  
zer da hizbide hobea?  
Galduko zaigun bildurrez nago  
hortan daukat nahigabea.

Gure hizkuntza zoragarria  
maitatzen zaitut barrutik  
ez zaitu askok ezagutuko  
behar bestian hurretik.  
Pixka bat alde eginda zaude  
gu sortu ginan lurretik  
lehengo lekura etorri zaitez  
geu galdu baino aurretik.



Bertsolaritza eta hizkuntza  
 daukagu oso betea  
 gaur Donostian hori dala-ta  
 dago euskaldun jentea.  
 Pena hartzen det gu utzi eta  
 beste batera juatea  
 pixka bat hori zuzendu dedin  
 lagundu, ama maitea.

**Amoroto (2000-VII-4)**

Mugartegik eta Azpillagak lehenengo plaza Biz-  
 kaiko Amoroton egin eben. Handik berrogeita  
 hamar urtera, egun berean eta ohitura berean,  
 hau da, mikrofonorik barik, San Martin egunean.  
 Hona saio haretako ale batzuk. (*Hasi, Azpillaga,*  
*213. or.*)

*J. Mugartegi*

Hasierako agur aldia  
 izaten da gogorrena  
 saio polita eskeinitzea  
 degu gauz horren hurrena.  
 Hemen aitortu beharra dago  
 memorira datorrena  
 entzule danoi opa dizuet  
 agurrik maitakorrena.

*J. Azpillaga*

Jaungoikoaren borondatea  
 izan dedila zuekin  
 berrogeita hamar urte badira  
 hemen ginala alkarrekin.  
 Bitartean zer egingo gendun  
 inork ez leike, ez, jakin  
 eskerrak goiko Jaungoikoari  
 eskerrak zuri, San Martin.

*J. Mugartegi*

Berrogeita hamar urte bete da  
 bertsotan hasi ginala  
 harrezkeroztik herri ta erbeste  
 egin degu eginahala.  
 Une honetan zer sentitzen dan  
 ezin esan berihala  
 esango nuke usterik gabe  
 urteak joan dirala.

*J. Azpillaga*

Esan dezaket gelditzen dira  
 marka guztiak hautsita  
 orduan hemen egon ziranak  
 gutxi ditut ikusi-ta.  
 Makinatxo bat herri jatorri  
 egin diogu bisita  
 Euskadi dena ikusi degu  
 Amorototik hasita.

*J. Mugartegi*

Zer esan ere ez dakigula  
 hainbeste lagun jatorri  
 oraindik ere heltzen diogu  
 lehenengo ohitura zahar horri.  
 Zuek aurrean ikustea da  
 gure pozaren iturri  
 joan zirenak ondo joan ziren  
 datozenai ongi etorri.

*J. Azpillaga*

Orduan behintzat izan genuen  
 kantatutzeko aukera  
 berrogeita hamar pasatu dira  
 eta urteak aurrera.  
 Gaurko moduan egonez gero  
 hemendik hamar urtera  
 zuen gustoa izanez gero  
 pozik etorriko gera.

*J. Mugartegi*

Gazte denboran ibiltzen ginan  
orain baino arinago  
urteak ere joan dira ta  
alde pixka bat badago.  
Baina oraindik zahartzaro horrek  
badu hainbeste abaro  
oraindik ere bizi gera ta  
zer behar degu gehiago?

*J. Azpillaga*

Goguan daukat Amorotoko  
egun hartako gradua  
Don Jose zegon hemen abade  
gustatzen jakon ardua.  
Guk e orduan tabernan sarri  
egiten gendun tragua  
mozkorren fama gendun guk baina  
geu baino mozkorragua.

424

*J. Mugartegi*

Hartu dugunez noizbait zabaldu  
izan da gure atia  
irudipenak ilundu eta  
ausardiaren kartia.  
Bainak nik hemen eman nahi nuke  
gauz horren erramatia  
ez dago ondo herri aurrean  
dana garbi esatia.

*J. Azpillaga*

Egia esan ederto neukan  
eta etorria era  
gaurko egunez eman nahi nuen  
bertsoaren bukaera.  
Bertso elkarte ta bertso eskolek  
jarri didate barrera  
beraz, ni sano nagon bitarte  
jarraituko det aurrera.

*J. Mugartegi*

Halabeharrez isildu behar  
ta da guztien kaltian  
itxaropena lagun harturik  
hemen ibili gaitian.  
Gazte denboran nahiz ta egondu  
arrazoi horren fuertian  
jarraitu daigun bertso kantari  
bizi geran bitartian.

Puntuetan egin eben saiotik, hona buelta batzuk:

Mug: Puntu batzuek alkar  
jarriaz aurrena

Azp: jendearentzat ohi da  
gauzik ederrena.

Mug: Aitortu beharra dago  
beraz datorrena

Azp: oraindik ezagun dago  
sasoiko gaudena.

Azp: Amoroton sarri izan  
gera bertsuetan

Mug: neskalaguntzen ere  
noizbait batzuetan.

Azp: Kantak jarri litezke  
gure pausuetan

Mug: Azpillaga inoiz galdu zan  
zuen auzuetan.

Mug: Neskalaguntzen joana  
beraz garai batian

Azp: hori ez zan izaten  
neretzat kaltian.

Mug: Ni berriz itxaroten  
tabernako atian

Azp: bapo jartzen zinan zu  
jan ta edatian.

Azp: Batek joan behar bazuen  
neuk joan beharko

Mug: hortarako ni ez nintzan  
eder eta guapo.

Azp: Inork ez zuen hartzen  
txikia zalako

Mug: gauza guztiak beti  
neure kalterako.

Mug: Pikardiaren falta  
ez zegon besterik

Azp: oso mutil lotsakor  
izan naiz gazterik.

Mug: Horregatik ez nago  
gaurkoan tristerik

Azp: zahartuta nor daukagu  
holako trasterik?

#### *J. Mugartegi*

Berrogeita hamar urte luzetan  
jarriak bertso kantari  
geure ustetan sekulan ere  
faltatu gabe inori.

Ondo pentsatzen jarri ezkeru  
ez al da nahikoa zori?

Orain guretzat omenaldia  
eskertzeko bada hori  
ondo izan eta agur ta erdi  
eskerrik asko danori.

#### *J. Azpillaga*

Historiak in ikusten da bai  
urrutira goazena  
baina oraindik ez da amaitu  
bertsoaren almazena.

Egia esan, zuzena izan da  
guk ibilitako sena  
agurtutzen det hemen bildu dan  
jende zahar ta gazte dena  
guri ez zaigu inoiz ahaztuko  
Amorotoren izena.

#### **Andoain (1991-III-23)**

*“Aspaldion ez zaitugu gehiegi ikusten hemen  
Gipuzkoan eta andoaindarrek ere ez zaituzte ikus-  
ten. Jakin nahiko genuke zer moduz bizi zeran”.*  
Hiru bertsoetarik lehenengoa eta hirugarrena  
honakoak kantatu zituen:


Ni aurkezpen bat zuen aurrean  
nago egin beharrian  
jaio nintzan da hantxe bizi naiz  
Berriatun baserrian.

Batzuk bezela bertso kantari  
ez nabil asko herrian  
dana kontentu ez nago baina  
ez nabil modu txarrian.

Sakontasuna eman nahiean  
hainbeste bertso mamini  
da horrelako bertso polit bat  
hemen nahi nuke eskaini.  
Ikastolako zuzenbideai  
esan nahi nuke nik zeini  
deitu didazutelako agur  
eskerrik asko Andoaini.

## ABEL MUNIATEGI

Alfonso Muniategi eta Maria Luisa Elortzaren seme, 1942-IX-30ean jaio zen Ereñoko Bengoetxe baserrian. Umezaroa Ereñoko eskolan eta bizimoduan eginek, hamabi urtegar Derioko seminariora joan zen abadegai, bertan, hamar urtean, sei urteko humanitateak, hiru urteko filosofia eta teologiako urte bat eginez. Handik urtenda, zuzenbidea egin eban, hainbat Udaletan, Bizkaiko Foru Aldundian eta, azken aldion, Gasteizko Justizia Sailean lan eginez.



Bertsozaletasuna etxean beran hartu eban, batez be, aiteitagandik eta amagandik, eta bere kontura bertso zahar ugari ikasiz. Seminarioko azken urteetan, Amurizagaz eta beste lagun batzuekin bat egin eban, bertsolaritza erdi ezkutuan lantzeko. Hain zeukan burua bertsoan, ezen, seminarioko beste eginkizun piadoso eta akademikoei albon arren, ez eutsan askorik ardura. Abadegintzari 1964an itzirik, Bizkaiko txapelketetan parte hartzen hasi zen eta, 1964an Ondarroan eta 1966an Durangon, finalista izan zen. Txapelketetatik aparte, sasoi haretan, plazan be asko ibili zen, Amurizagaz, batez be.

Urte batzuetara, bertsogintza aktiboari itzi arren, Abel Muniategik beti jarraitu dau bertsolaritzari loturik. Bizkaiko, Euskal Herriko eta beste sariketa txiki askotan izan da epaile, eta plazetan sasoi bateko gajartzailerik ohikoena izan zen. Hizlari eta idazle legez, barriz, bertsolaritzari askotan ekin deuto. Oraintxe be bertsolaritzari jarraitu beharrean aurkitzen da, bere seme biak bertsolari baititu.

### Bertsoak

1960ko hamarkadan, Pilarika egunean, Markinako karmeldarren komentuan egiten zen bertsolari

eguna, hispanitatearen egun horretan, bertsolariek plazan ez kantetako zeukien erabagiaren osagarri. Denerik egiten zen: meza, hitzaldia, bazkaria eta, bazkalostean, bertsoak, gaiekin eta librean. Oraingoan, 1966an gagoz. Honako bertsoak Azpillagak hainbat bertsolariren hutsa nabarmenduz eta Muniategik zein Amurizak gazteria barriaren izenean botatako aleak dira:

### *J. Azpillaga*

Gipuzkoarrak nahiz hainbestean  
ez gelditu lotsagarri  
ziran onenak ez zetoze  
goizez digute iragarri  
Uztapide, Agirre, Lizaso  
Lasarte eta Basarri  
hurrengo urtean onez ez bada  
katez lotuta ekarri

### *J. Muniategi*

Euskera zaharra ez da inoiz izan  
etsaitatik apartian  
krillu ta katez hemen gauzkate  
ez dakit zenbat urtian.  
Baina gazteok indartsu gatoz  
oso bolada fuertian  
ez da galduko gutariko bat  
zutik dagan artian.

(...)

### *X. Amuriza*

Batzuk prakadun ikusten ditut  
eta sotanaz besteak  
danon artean konpondu behar  
ditugun buruhausteak.  
Zertako ditut hamairu urtez  
egindako ikasteak?  
Ez du balio gure zorroa  
besteren lepo uzteak  
poztu zaiteze indartsu gatoz  
hortako apaiz gazteak.

1967an, Juan Mari Lekuona izan zen hizlari, bertso doinuei buruz. Eguneko eta bertsoetako protagonista Abel Enbeita gertatu zen, bezperan atxilotu ebena.

*A. Muniategi*

Bertsolaritza zer izango dan  
bide barriak hartuta  
bizi beharra daukagu danok  
nun gauden akordatuta.  
Euskal Herria ikusi daigun  
egun baten indartuta  
Abel Enbeita aurkitutzen da  
atzo kartzelan sartuta.

*B. Enbeita*

Neure fedea zalantzan daukot  
eta ez daukat leku onik  
egia esan ez dot ikusten  
inundik laguntasunik.  
Eleiz-buruai itaunduta be  
ez dago erantzupenik  
hau ikusita ezin esan lei  
Jaungoikua daguanik.

*A. Muniategi*

Gure Balentin kontsolatzeko  
hemen listo daude denak  
baina amai bat premizko dute  
sentimentu eta penak.  
Nun dira lehen aitatzen ziran  
indarrak eta kemenak?  
Atzaparrakin burruka bitez  
armarikan ez dutenak!

*X. Amuriza*

Injustizi hau ikusitzean  
bada zenbait buruhauste  
gure anai bat giltzapean ta  
gu hementxe gaude triste.  
Baina Enbeita kartzela hortatik  
ateratzerik ez uste  
zintzo portatzen bagera gu be  
laster sartuko gaituzte.

*Gabriel Aresti*


"Jaunak, hamen gauz danok kantaten ta bitartean  
Abel kartzelan. Nik uste dot gure kantu honekin  
oso mesede gutxi egiten deusagula. Eskatzen  
deutset hemengo bertsolari guztiei dokumentu bat  
firmateko, Bizkaiko gobernadoreari Abelen liber-  
tadea eskatzeko. Uste dot hau dala justiziari eta  
bertsolaritzari zor deusagun beharizan bat"

*A. Muniategi*

Gabriel Arestik esan duana  
danontzako da jakina  
adiskide bat libratutzeko  
nork ez egin ahalegina?  
Gugana heldu da dokumentu bat  
firmatutzeko premina  
praileren batek ekarri beza  
idatzitzeko makina.

Abel Muniategiren beste hainbat bertso ikus bere  
lekuan, 1964 eta 1966ko txapelketetan.

## BASILIO PUJANA



Basilio Pujana Zeanuriko Zulaibar auzoko Ugerkazelai baserrian jaio zen, 1913ko otsailaren 27an, eta 2005eko azaroaren 24ean hil zen. Familia txiro samarrekoa izan arren, zortzi neba-arrebak oso osasuntsu urten ei eben aurrera. “Eskolara arteko zazpi urteak –zinoen alkarrizketa batean– Jaungoikoak gura izan eban legez igaro ziren, Aingeru jagoleak zainduta. Eskolara zazpi urtegaz hasi nintzen. Orduantxe hartu neban mundu honetan lehenengo bildurra, hau da, eskolara sarreran, derrigorrez erdaraz egin behar zela. Durdituta gelditu nintzen, beste eskola-lagun guztien antzera”.

Lan kontuan, urtebete morroi eginik, gero harrobian hasiko zen, astean 36 pezetako soldataz, zapatuetan be behar eginez. Harrobiko lanari gogorregi eritzita, Bilboko tailer batean hasi zen, “gitxiago irabazten, baina pozik”. Soldadutzatik etxeratu eta lau hilabetera, gerra abiatu zen eta Basilio Ibaizabal batailoian ibili zen, beste hiru anaiagaz batera, Elgetan, Legution... Santoñan entregatu arte. Espainiako gerra amaitu eta urtebetera etxeratu zen, oraindino beste hiru anaiak kartzelan zegozela. 1944an, Pilar Arnaizegaz ezkondurik, lau seme-alaba ditue.

Bertsozaletasuna oso gazterik sortu jakon, Zeanurin bertsolariak, bai bertakoak eta bai kanpotik etorriak, Kepa Enbeita “Urretxindorra” eta Dimako Esteban Uriarte tarteko, nahikoa sarri entzuten ei ziren eta. Horretan, Pujanak oso xehetasun bitxi bat kontetan dau: “Hemen esan behar dot orain ikusten ez den detaile bat eta, zaharren batzuek izan ezik, inork ez ikusi ez entzun be egingo ebana. Bertsolari bi bakarrik izaten ziren beti edo gehienetan, eta patxadan plazaratzen

ziren, alkondara goraino loturik, eta, agur-bertsoa bota ondoren, gorengo botoia askatuz hasten zen saioa”. Pujanaren ama be oso bertso-kantaria ei zen eta, etxean zein soloan beharrean, bertsoak kantetan ei eutsezan, bertso-paperetatik ikasiak.

1959ko Bizkaiko txapelketan parte hartu ebanetik, ondorengo txapelketetan eta orduko plazetan asko ibili zen Pujana. 1990eko urtarrilaren 21ean, Donostiako Bertsolari Egunean, omenaldia jaso eban, Jose Alberdigaz batera. Halan be, itzi deus-kun ondasunik handiena prosan eta bertso jarrietan dagoela esan leiteke, hainbat liburu argitaratua baita, bere bizialdiko gorabeherak kontatuz. Euren artean dagoz: *Egi batzuek aixetaratzen; Oihuak; Deabruak ostutako urteak*. Pujanak, zelan ez, gerrako ibilerak eta motibo abertzaleak eten barik darabilz buruan, honako bertsoetan, esaterako, agertzen denez:

Mundu honetan gauza bat bera  
bitan ez dan lez egiten  
idatzi ezik betiko ahaztu  
egiten dira sarriten.  
Gerra zatar bat igaro gendun  
bizitzako aldi baten  
papel garbian jarri gura dot  
egundo ahaztu ez daiten.

Sarri askotan idazlariak  
idazteko euren lanak  
begira dagoz noiz hilgo diran  
testigu izan ziranak.  
Gero idatzi guzurti eta  
fanatikoak esanak  
baina hemen da egi garbia  
esana testigu zanak.

Gudari zaharrok geu gara eta  
geuk igaroaren jabe  
hori ez dausku inork kenduko  
mingaina ebagita be.  
Idazle batzuk hau idazteko  
danok hiltea nahi dabe  
ez gaitezan hil gudari zaharrok  
egia argitu gabe.

(*Deabruak ostutako urteak. 22-24 or. Basilio Pujana*)

Txapelketen kondairan euren lekuan agertzen  
diren bat-bateko bertsoez gainera, hona *Urkiolan*  
izeneko hamazazpiko sortatik hautaturiko batzuk:

### Urkiolan

1)  
Euskal Herriko lurrean  
Urkiola gailurrean  
fedearen izarrean.  
Arratiako herri guztiok  
urteroko batzarrean  
geure ohitura zaharrean  
fedea jarri indarrean  
San Antonioren aurrean.

2)  
Ze gauza miragarria  
eguzkiaren argia  
zeru goitik etorria!  
Eta berakin etorten jaku  
geure frutu ugaria  
Zeruko Aita guria  
hartu gure oparia  
ardaoa eta ogia.

3)  
Abadea zuzendari  
gu jarraituten berari  
San Antonio zaindari.  
Berotasunez jarraitu eta  
gurasoen fedeari  
egin dagigun opari  
aurrerantzako eskari  
lortzeko frutu ugari.

4)  
San Antonio, mundu honetan  
zure lagun zendun Jesus  
Urkiolatik be igaro zinan  
jarraitzean bere pausuz.  
Gure lurreko abere eta  
frutu danak bedeinkatuz  
santu handien birtute eta  
altasun handiak dozuz  
zeure aurrean gagozan danok  
arren bedeinkatu gaizuz.

5)  
Egunsentian entzun dira gaur  
Anbotoko deihadarrak  
ta dei hortara aditu gara  
itxarrik arratiarrak.  
Gure bidea argitu dausku  
Urkiolako izarrak  
San Antonion alkartu gara  
sendotzen ohitura zaharrak  
gu ez gaitu, ez, bape bildurtu  
euri ta denpora txarrak.

6)  
Gaur Urkiolan gagozan danok  
ekarri geure gogora  
sarri askotan gu gabizala  
zuzenbidetik albora.  
Ez dakigula nondik gatozen  
non gagozan ta ez nora  
zuzenbidera jarraituzeko  
begiratu daigun gora  
abisu honek iraun daijala  
hurrengotik hurrengora.

(*Debruak ostutako urteak. 22-24 or. Basilio Pujana*)

#### Nire haurtzaroa

1)  
Jaungoikoaren mundura etorri  
eta aurkitu Luzifer  
gutzat Jainkoak egindakorik  
ez gendun aurkitu ezer.  
Arnasan hartzen dogun haxe hau  
kentzen ez badeusku laster  
halan da bere bizi gara ta  
Jaungoikoa, mila esker.

2)  
Nire sortzean ondasunikan  
nitzako ez zan etorri  
baina egundo ez neutson itxi  
eskubide sagrau horri.  
Neure izerdiz eta kemenez  
zerbait egin dot ekarri  
horri eskerrak badaukat orain  
herrian oinak non jarri.

3)  
Erderaz ginan eskolan eta  
elizan barriz latinez  
aldi haretan beterik ginan  
era hortako mitinez.  
Lezino danak buruz ikasi  
zer esan nahi dun jakin ez  
askoz hobeto egin bagendu  
asto haundi bat buztinez.

4)  
Guk euki gendun maisu jaun hori  
izan zan geure herriko  
baina gu beti egon gintzazan  
beste bat noz etorriko.  
Gutzat bai eukan gogortasuna  
emon hainbat belarriko  
baita entzun be sarri askotan  
*salvaje* eta *borrico*.

5)  
Ehunda gehiago izan gintzazan  
mutiko latzak eskolan  
egia esan, maisu batentzat  
kontatzeko be nahiko lan.  
Erderarik guk ez gendun eta  
euskeraz ezin inolan  
gutzat bardin zan txoriak uger  
eta arrainak arbolan.

6)  
Hamahiru urte betetutean  
“eskola, Jainkoa lagun!”  
hemen jausi ta harago jaso  
*dividir* ikasi gendun.  
Guk euskaldunok gogortasuna  
guztirako zelan dogun  
bost urte ta erdi erderapean  
ta urten gendun euskaldun.



7)  
 Nire lelengo jolasleku zan  
 Zulai ibarreko landa  
 ta mendizale ein nintzanean  
 Gorbaie eta Lekanda.  
 Gero gerra ta iskimiliak  
 eroan nindun enbanda  
 baina herria ez neban aitzu  
 barruan euki neban-da.

(*Deabruak ostutako urteak*. 22-24 or. Basilio Pujana Hogeita hiruko sortatik hautatuak).

Ondorengo bertso biok bat-batekoak dira. Zeanuriko Jose Mari Artetxek, Pujanak "lagun mina" deitzen deutzan bertsolari-lagunak, behin kantatu eutsan:

Gure Pujana Bilbon bizi da  
 hango Matiko partean  
 baina herrira etorten jaku  
 beti astean-asteen.  
 Tranbi horretan ez etorteko  
 etorten jaku kotxean  
 eta bultzaka arrankau behar  
 hartzen dauan bakotxean.

*B. Pujana*


Kotxea badau Artetxek bere  
 indarrez dauz zazpi zaldi  
 zaharra da eta itxura baten  
 badaukaz hiru gizaldi.  
 Ibili daiten egiten deutzaz  
 makina bat zirikaldi  
 astegunetan ez da ibilten  
 eta domeketan geldi.

Azkenik, hona zer bertso elegantea eskaini eutsan  
 Lazkao Txikiri:

Lazkao Txiki joan zan baina  
 gogoan dogu sarriten  
 bada halako gizon argiak  
 egundo ez dira hilten.  
 Batzuk dinoe goian dagola  
 izar handien argiten  
 baina nik dinot bera dagola  
 izarrai argi egiten.

## JUANJO RESPALDIZA

1964-III-17an jaio zen, Orozkoko San Martin auzoko Goreitze baserrian. Euskal Filologia ikasketak eginik, Orozkoko Udalean eta Nafar Gobernuan itzultzaile egin zituen urte batzuk. Gero, bost bat urtetan, euskarazko klaseak emoten jardun ondoren, Bizkaiko Ikastolen Federakundearen daragoio bertsolaritzako arduradun, Jon Lopategik itzitako lanpostuan.



Bertsolaritzako lehenengo urratsak Audioko bertso-eskolan egin zituen, lehenengotan erdi autodidakta legez eta gero Abel Enbeita eta Trino Azkoitiaren laguntzapean. Lehenengo plaza Mungiako Taket sariketan egin eban, 1984ko martiaren 18an. Harrezkero, hainbat sariketatan parte hartu dau, batez be, Bizkaiko txapelketetan, 1987tik honanzko guztietan, 1992, 1994, 1996 eta 2000n, finalista izanik. Euskal Herriko Txapelketa Nagusian be partaide izan da 1993 eta 1997an.

Bertsolariz gainera, aurkezle, gaijartzaile, epaile, Bizkaiko Bertsozale Elkarteko zuzendaritza-batzordeko kide, artikulugile, denerik egin dauela esan daiteke, gaur egungo zeregin nagusia, aitatutako karguagaitik, bertsolaritzaren irakaskuntza, transmisinoa eta antolakuntza dauela.


Bizkaiko txapelketetan euren lekuan agertzen diren bertsoez gainera, hona 1987ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko azken-laurenetako saio bat. *“Zu, Andoni Egaña, bertsolari gaztea zara eta Juanjo Respaldiza zure ama. Orain arte, kafesnea izan da zure gosaria egunero. Gaur, ordea, arrautza pareta ardoarekin eta kafea koparekin jarri dizu gosaritarako”*. Egañak, gosaria zehazturik, *“fuerte kantatu nahi det / Lizason antzera”* amaitutakoan, Respaldizak darrai:

Fuerte jarri dizut  
horixe da plana  
badakit gaur duzula  
bertsotako lana.  
Gogorra behar duzu  
jana ta edana  
bertsolari erdi da  
gizon erdi dana.

*“Sabeletik hasten da / bertsolari ona”*.

Ez dut nahi izaterik  
kantuan baldarra  
badakit zure sena  
ez dala hain txarra.  
*“Sabeletik hasten da”*  
esaldi edarra!  
Plateretik burura  
joaten da indarra.

## DEUNORO SARDUI



1934ko Urte Barri egunean jaio zen, Muxikako Ariatzako Zubiondo etxean. Enbeitatarren familia-koa da ama partetik, Kepa Enbeita Urretxindorraren alabarik zaharrena baitzen berau. Ariatzako Garriko bertso-eskolako partaide eta eragile garrantzitsua, 1959ko Bizkaiko txapelketako finalean sartu zenetik, eta, batez be, 1961ean, Azpillagaren atzetik, txapeldunorde gelditu zenetik, orduko Bizkai-ko plazetako izenik deigarrienetarikoa izan zen. 1964ko finalean kantatu ondoren, bertsolaritzari iztea erabagi eban, plazetan, behintzat, nahiz eta lagunartean beti jarraitu izan dauen. Beste aldetik, bertsoak jartzen zalea eta ugaria izan da beti.

Arantza Agirre lumotarragaz ezkonduarik, Ariatzan bertan bizi dira, eurek egindako etxean. Seme bat daukie, Alex Sardui, lehengo *Ezkixu* eta geroko *Gatibu* taldeko musikari eta kantari ospetsua. Deunoro aitak semearen kantetan aurkitu dau bere bertsolari dohaina arrakastaz garatzeko modua.

### Bertsoak

Txapelketen atalean agertzen direnez gainera, hona, Markinako komentuan, Pilarika egunean egiten ziren bertsolari egunetarik bateko mostra bat. 1965ean, Jose Mari Iriondok egin eban hitzaldia goizean, bertsolaritzaren historia gaitzat hartuta. Bazkalostean egunari eta karmeldarrari librean botatako bertsoen ostean, gaiak jarrita jardun eban bertsolariek.

*"Deunoro Sardui, konbentu honetako prailea izango da. Jon Lopategi, Deunoro frailetzatik ateratzera infernutik datorren deabrua"*

### J. Lopategi

Bere lana du mundu honetan  
infernuko aingeru prestak  
konbentu hontan jarri nahi ditut  
maitatzen ez diran festak.  
Zure bihotzak ez ote ditu  
beste askok ditun kezkak?  
Ez al dizute bape tiratzen  
kanpotik dabiltzan neskek?

### D. Sardui

Konbentuan be izaten dira  
munduz kanpotiko sonak  
baina barruko kontzientzia  
zaindu behar du gizonak.  
Tailu txarrean galtzen ohi dira  
munduan hainbat personak  
Neskatxen truke konbentuan be  
ibiltzen ditugu gonak.

### J. Lopategi

Sarri askotan hurreratzen naiz  
konbentu horren ertzera  
eta banua pixka-pixkana  
bihotzeraino sartzera.  
Gogo txarrakin zabiltzalarik  
ez ba'zu egiten atzera  
hainbeste sufrututa gero ere  
nigana etorriko zera.

### D. Sardui

Etsai gaiztua horra bitxi bat  
nere bertsozko lanean  
bide bat hartu eta jarraitu  
nahi nukela zuzenean.  
Lehenago ere izandua naiz  
munduko zelai onean  
baina seguruago naukezu  
konbentuan barrenean.

*J. Lopategi*

Ikusten zaitut pentsamentutan  
aspalditikan galdurik  
zure bihotzak ez du sentitzen  
atsegineko ordurik.


Jauna zerbitu nahi zenduke ta  
ez dezu hortako modurik  
nere ondotik kanpora ez da  
utzat izango lekurik.

*D. Sardui*

Mundu engainagarria dezu  
egin dizudan hitzian  
baina gizona ez da fiatzen  
entzuten ohi dan guztian.

Bide zatarra agertu dozu  
zeure munduan atzian  
Jainkuan etsaiak tokirikan  
ez du beraren etxian.

## JUAN ORMAETXE "TAKET"



Berak, ezizentzat, "Sollubepe" sinatzen eban, baina bertsolari eta bertsozaleen gogoan, "Taket" legez lotu den Juan Ormaetxe Uribarri Meñakako "Bidezubitxeta" baserrian jaio zen, 1896. urteko irailaren 14an. Hainbat neba-arrebaren artekoa izanik, bera be, Matea Legarretagaz ezkondurik, Meñakako "Axpe" baserrian, zortzi seme-alabaren aita egin zen. Juan Ormaetxek hainbat lanbide izan eban bizitzan zehar. Artzain hasirik, gero Larrauriko "Seltzoko"

karobian behar egin eban, harik eta, 34 urte gaz, joan-etorria zaldiz egiten ebalarik, behin abereak, orduko kamioi urrietariko batek izaturik, kamioiaren beraren kontra jo eban arte, zaldunaren hanka bata belaunetik behera birrindurik. Zurezko ordezkoa ipini eutsien eta hortik etorri jakon "Taket" ezizena. Berari ez ei jakon ezizen hori askorik gustetan, baina, urteekin, onartu beharra izan eban. 60 urte gaz alargundurik, oraindino bizi luzea izan eban, bere azkena Mungiako zaharretxean izan arte, 1983. urteko azaroaren 16an, 87 urte gaz.

Gazte-gaztetarik euskaltzale eta abertzale beroa, inguruetako euskal jai eta batzokien inauguraziorik gehienetan ibili zen bertso kantari. Bertso-jartzaile moduan be, *Euzkadi* egunkarian eta aldizkarietan idazten errimean izan zen.

Gerrak adin helduan harrapaturik, frentean ibili ez bazen be, gerraosteak erruki barik heldu eutsan, 1940. urtean, guardia zibilek etxean atxilotu ebenean, "rojo-separatista" akusazinopean. Lau urteko kartzelaldia egin behar izan eban, Begoñan eta Puerto de Santa Marian.

Bizkaiko 1958ko lehenengo txapelketan bigarren gelditu zen, Balendin Enbeitaren atzetik. Txapelketen atalean luze kontetan denez, istilu handi samarra

sortu eban, irabazle berak izan behar ebala uste ebako. Hurrengo txapelketetan be parte hartu eban eta, orduko plazetan, gehientsu zebilenetarikoa izan zen. Bere omenez eta gomutaz, Mungian badago "Taket Bertsolaritza Alkartea" izeneko, urtean zehar, hainbat ekintza eta jaialdi antolatzen dauena. Azkenik, Asier Legarreta mungiarak *Juan Ormaetxe "Taket"* izeneko liburu monografikoan jaso dau haren izatearen eta ondorengo gomutaren barri.

### Zoritxarrian aurkitzen dira

(*Euzkadi*, 1934, 6803. zk., 12. or. Egilea: Sollubepe. Sarreran dino: "Hemen be 'gestorak' doguz ta gizon zuhurrak izan be. Gestora titulua hartu dabeneko idazkariari itaundu dautsiena hauxe izan da: ia dirukutxan zenbat diru dagan. Zetarako jakingura hori?")

1)  
Zoritxarrian aurkitzen dira  
jaurlaria ta gestorak  
honeik dabean buruko minak  
olgetakuak eztozak.  
Edozetako dirala barriz  
uste izan dabe kapazak  
inozentzian dagozan arte  
kolpez betatu ein dozak  
nondik harildu legikiez oin  
lortu dabezan matazak?

2)  
Gil Robles bere satorra legez  
azpitik dabil musturka  
eta Salazar Alonsok daukoz  
haren tretak sinistuta.  
Harrikadea honantz bidaldu  
berak burua gordeta  
erlejinua mihinian dabil  
Luziferregaz batuta  
hainbeste gizon Euzkadin dituz  
errurik barik lotuta.

3)

Gatikakuak hainbeste dira  
Gernikako espetxian  
maitetasuna besterik ez da  
anai horrein bihotzian.  
Aurrera beti, zu, Koldobika  
Lakanda anaiak nahastian  
besarkada bat opa dautsuet  
hor zauden danoi batian  
aurrera beti geure bidetik  
Euzkadi askatu artian.

4)

Agur, anaia bermeotarrak  
abertzale guztiori  
zuen endore izango ei da  
gestoratik Santi Mari.  
Ondo aditu egin daiala  
heldu orduko lanari  
horrelanguak itsu-itsurik  
heldzen dautse egurrari  
andra izena daukon gizonik  
inoz ez jat gustau niri.

5)

Aurten goizetik jarri jakuzak  
soluak belaz beterik  
guk ereindako arto gozuak  
biruan sartu gurarik.  
Uste ete dabe ez daguala  
usaina hartzen dakianik?  
hemen badoguz eper-txakurrak  
negurako erosirik.

05. **Biruan:** biroan. Biro: hegaztien papoa, paparoa.

### Zenbat geraden

1)

Zenbat geraden gabiltzazenak  
edozein bide hartuta  
pekatutara juaten garenak  
geuk argi-argi ikusita.  
Gomuta gabe zelan daukagun  
juez bat goian jarrita  
egunen baten hak esango dau  
nor ibil dan erratuta.

2)

Ixartu gaiten anai maiteok  
bidiak zuzenduteko  
alderdi danak hementxe doguz  
nahi dan eria hartzeko.  
Gomuta gaiten ez gariana  
hona etorri betiko  
negargarrizko azken ordua  
geugana heldu orduko.

3)

Emakumiak hemen dabilta  
moda barriak hartuta  
horrexek ditu demoninuak  
bere sarean lotuta.  
Motor ganian edonorantza  
edozein lagun hartuta  
arpei ta bihatz gorriak baina  
arimia baltzituta.

4)

Karidadia hil daku baina  
bizirik dago bengantza  
eta fedia harturik dago  
miloa ta erdi mudantza.  
Hemengoari emongo deutse  
bueltia edonorantza  
baina goikua aldatutia  
izango dabie gatxa.

01. **Erratuta ibili:** oker ibili.  
 02. **Eria:** era, komenentzia, modua.  
 03. **Baltzituta:** beztuta.

### Donostia (1974-XI-17)

Omenaldia egin jaken 70 urtez gorako bertsolariei.  
 Beste batzuen artean, Juan Ormaetxe "Taket" izan zen. Ormaetxek honelaxe eskertu eban:

Agur gozo bat Bizkaiak dauksa  
 giputz anai ta arrebari  
 nauen tokitik pozaz beterik  
 Naparroa ta Alabari.  
 Maitasunian bizi gaitzezan  
 eskatu goiko Jaunari  
 Nola utzi nik hau esan gabe  
 Frantzia azpiko anaiari?

Ai, banenduke askatasun bat  
 esateko dakitena!  
 Baina bildurrez ibili bihar  
 jazo gabe saguena.  
 Katue beti saguen jarrai  
 erpe zorrotzak dituna  
 Kontuz anaiok galdu ez deigun  
 Jaunari zor dautseguna!

Alfonso Irigoienek funtsean, saio bat dago, ez noiz ez non egin zen argi ez dagoena. Xenpelar Dokumentazino Zentroko fitxan, Mungia edo Arrasate ipini dabe, baina Leioan izan zela pentsa leiteke. Dakiguna da Arregik eta Mugartegik euren saioa egin ebela lehenengo, eta gero Pedro Kastrejana loitutarrak eta Juan Ormaetxe "Taket" mungiarrek euren.

Pedro Kastrejana hau Bizkaiko lehenengo txapelketara Irigoienek deitua izen zen eta parte hartu eban. Hurrengo txapelketa batzuetan be ibili zen, baina lehenengo kanporaketatik ez zen pasatu. Tabernako eta lagunarteko bertsolaria zen gehiago.

Puntua: *Nola bizi zerade  
 Mungiko partean?*  
*J. Ormaetxe:* Ez neuk uste neueneg  
 aspaldi batean.  
 Lehenago ondo nintzen  
 gazte nintzanean  
 oin inork begiratu ez  
 zahar ein nazenean.

Puntua: *Zure baserri hortan  
 nola dagoz behiak?*  
*P. Kastrejana:* Harek ondo entzute'ituez  
 nik ineko deiak.  
 Baina alperrikan saldu  
 ein dodaz esniak  
 kobreu barik dekodaz nik  
 aspaldin erdiak.

*"Ormaetxe, baserritarra izana, baina gaur egunean Bilbon egoten dana, automobilak zaintzen. Kastrejana, baserrian bizi dana".* (Gaia baino gehiago, euren aurkezpena zela dirudi)

*J. Ormaetxe*  
 Baserritara jaiua naiz ni  
 bihotzian dot sarturik  
 gaurkuan Bilbaun aurkituten naiz  
 beste ofezio bat harturik.  
 Baina gaur arte ez dot ikusi  
 lehengua baino hobarik  
 esango baleu agintan deunak  
 honek ez daukia zorrik!

*P. Kastrejana*  
 Ni baserritar jaiio nintzan ta  
 han nago urten be ein barik  
 nahiago neunke zeure moduan  
 banengo lan hori harturik.  
 Kotxe zainduten bihar erreza  
 han izerdirik ein barik  
 baina baserrin hainbeste bihar  
 sarri eiten du alperrik.

*J. Ormaetxe*

Zoritzarreko inbidiak direz  
mundutxo honetarako  
Sano banitza ez neuke gogo  
kotxiak zaindu eiteko.  
Konforme orain ez nengoke ta  
ni neu hanka bat galtzeko  
zeozer derrigor nik egin bihar  
bizitzia eroateko.

*P. Kastrejana*

Ondo harturik dinot Ormaetxe  
ez dot nahi hankarik galdu  
baina sano izenta be kontu hori  
ezin al laike bilatu?  
Ni lanerako zaharregi naiz ta  
beti eiten naz kantsatu  
zeuri laguntan eroan bi'nozu  
han egizula eskatu.

*J. Ormaetxe*

Maitetasunak haundiak dira  
ez dot inon gorrotorik  
ludi honetan ez dagolako  
hau baino bide hobarik.  
Ahal ba'ozu bizi izan zaitez zu  
inori kalte ein barik  
neuri zati bet eskatuidazu  
ez badekozu ogirik.

*P. Kastrejana*

Eskerrik asko, ondo esanda  
bihotza dauket beterik  
honen borondatez badaz gizonak  
beti izten danai danerik.  
Baina horregaz ez dauket ezer  
laguntasuna ber dot nik  
badakizu ondo barre egin ezko  
ez daona beste biderik.

438

*J. Ormaetxe*

Nola arraio erongo zaitut  
gero niri laguntzeko?  
Ez al dakizu dozun zati bat  
falta bihar da hortako?  
Ez eizu eskatu Jaigoikuari  
holakorik zeuretzako  
hobeto zagoz zauzen moduen  
deukozunaz be jateko.

*P. Kastrejana*

Eskerrik asko neure laguna  
kontestazino onari  
baina lanian inder eskasa  
egiten jako zaharrari.  
Horregaitikan ez nau konforme  
eskatu deusut ba zeuri  
huts egin badot park'eske nago  
mesedez parkatu hori.

Kastrejanaren lehenengo bertsoke *sarri eiten du*  
*alperrik* horretan, du = *dogu*-ren laburpena.



## FRorentzio ZARRAGA

Alfonso Irigoienen funtsean, Florentzio Zarragaren bertso sorta bat agertu da, Beraneanteak izenekoa. Azkeneko bertsoan dinonez, Leioan jaio eta Berangon bizi izan zena bera. Irigoien ordurako gizon helduak ziren Zarraga eta antzeko beste askoganaino heldu zen, Bizkaiko txapelketak bere eskutik hasi zirenean, 1958an. Bertso sorta hau ez da txarrena, Bizkaiko barru aldekoek, Zarragak eta garaikideek, bertsolaritzari buruz, zelako buruera xumea zeukien ikusteko.

### Beraneanteak

1)

Beraneanteak etorri dira  
plaian bainuak hartzeko  
euren burua hotzitu ondo  
deskantsuan egoteko.  
Denporea be nahia dauke  
gerezpetara joateko  
jan eta edan ondo eginda  
siestea botateko.

2)

Automobila begira dauke  
gura danean joateko  
prisarik bere ez dauke asko  
nahi dan lekuan lotzeko.  
Horixe dala gauza ederra  
ederto bizi izateko  
dirurik asko euki ezker  
edonondik gastateko.

3)

Oso aberatsa izan behar da  
holan bizi izateko  
gura danean dirua sobran  
baztarretan botateko.  
Suertea euki behar oster  
osasunez egoteko  
horixe dala gauza ederra  
mundua ikusiteko.

4)

Pobre danak be egingo leuke  
baleuko ezer gastateko  
baina beharren joan behar dabe  
jornala irabazteko.  
Hamar ordutik gora eginda  
etxera ailegatego  
gorputza ondo kantsaurikan  
gauza eskasa jateko.

5)

Bape bakoak txarto ta nekez  
dabiltza beti baraurik  
erropa zaharrak soinean eta  
erosteko ez dirurik.  
Pekatu da hori ez leuke egon ber  
munduan horrelangorik  
Jaungoiko Aitak ez dau agintan  
horretariko gauzarik.

6)

Negua bere heldu eiten da  
beharrera joateko  
erroparik be ez dauko askok  
gorputzean iminteko.  
Barri edo zahar, euki ezker  
hotza ondo kenduteko  
bildur barikan egon leiteke  
edonora joateko.

7)

Bidea bere txarto egoten da  
neguan ibiliteko  
eta etxean oinetakorik  
ez aldean iminteko.  
Aste duztia egin behar da  
dirua irabazteko  
honelan bere ailegatu ez  
barriak ekarriteko.

8)

Dana kantera, dana harea  
kamioiez eroateko  
hori be behar etxe barriak  
behar dan lez egiteko.  
Getxo, Berango herrri politik  
turistak bizi izateko  
baserritarrak biderikan ez  
etxetikan urtetako.

440

9)

Diputazino be etorri zan  
bideak ikusitera  
ezer ein barik joan zirean  
lehengo lekutik atzera.  
Barrero bere badatoz hareik  
Getxorik Martu aldera  
duztiok dogu pozik urtengo  
arin agurka bidera.

10)

Llona maitia kazan joan da  
txoriak harrapateko  
Zarraga jauna begira dago  
berarekin egoteko.  
Suertau bajako momentu ona  
nahi dan duztia hilteko  
automobilik ez dau izango  
etxera etorritoko.

11)

Andra Maritan joan ginean  
duztiok Begoña aldera  
meza eder bat entzuteko asmoz  
gure Amaren aurrera.  
Duztiz handia zan bere poza  
danok egonik batera  
bertso bana be kantadu geuntsan  
agur eginda etxera.

12)

Handikan behera jatsi ginean  
berba batzuk egiteko  
ardao zuria edan genduan  
apur bat nasaituteko.  
Bazkaria be Bilbon eginda  
hobeto han egoteko  
euri handia mogidu eban  
dana alperrik galtzeko.

13)

Domekarako itxi temea  
ez badator txarragorik  
ahal badozue joan duztiok  
entzutera bertsolarik.  
Arratsaldeko sei ta erdietan  
ez badao errakuntzarik  
duztiok hara joan gaitzean  
inortxo be lotu barik.

14)

Bertso barriok Zarraga honek  
pozikan dituz idatzi  
Lexonan jaio eta Berangon  
aspalditxoan da bizi.  
Inori txarrik eiten badeutse  
hartu daiela pazentzi  
laster konpondu egingo dogu  
guk daukagun diferentzi.

01. **Gerezpe:** gerizape, itzalpe.  
**Nahia:** nahi beste, guraina.
04. **Beharren joan:** beharrean, beharrera, lanera joan.  
**Gauza eskasa:** gauzea eskas, gauza urria.
05. **Egon ber:** egon behar.  
**Agintan:** agintzen.  
**Horretariko:** horrelako.
07. **Duztia:** guztia.
13. **Temea, tema:** eztabaida, ekina.  
**Lotu:** geratu, gelditu.

Zarragaren azpieuskalkian, artikulua mugatzailea erdi-jan egiten dela esan beharra dago, nahiz eta berbetan ondo bereizi. Halan, *diputazino*, *diferentzi...* horrela idatzi behar izan arren, berez, *diputazinô*, *diferentzî* dira. Gainerakoan, argi dago Zarragaren buruan ez zegoela errimaren bariazionorako ardura handirik.



442

# Bertso-eskolak

RDOTEGI & ERRETEC

M

443



Badakigu bertsolaritza Bizkaian ez dela gaur goizeko kontua. Bide luze horretan mugari asko egon dira, eta gaurko bertsoaren eta bertsolarien nondik norakoak aztertzeke, zer esanik be ez etorkizunekoak, ezinbesteko erreferentzia izango da bertso-eskolen funtzinoa aztertzea.

Bertso-eskolek be bidea egin dabe Bizkaian. Inoiz egon bada, zalantza gitxi dago gaur, bertsoa ikasi ahal dena ez eze, berezkoa dakarrenak be zer ikasi eta hobetua izan daikeela bertso-eskolan. Gaurko bertsogintzaren panorama ikusita, eskolon bidea, inon nabarmena izatekotan, Bizkaian da. Mende laurena ospatzen dabilz jadanik bertso modernoaren aitzindari izan ziren eskolak, eta Bizkaian bertan topatu geinkez haren aurretik euren burua eskolatzat jotzen eben bertsolari taldeak be.

Oro har, hiru aro bereizi geinkez bertso-eskolen mogimenduan, kronologikoki:

a) Tradizionala, zelanbait esateko: lehendik be bertsotan bazekieen bertsolariak batu ohi dira, elkarregaz trebatzeke. Muxikako Garriko eskola da ezagunena, baina Mallabian eta Lea-Artibaiko herri eta auzoetan be antzeke taldeak egon izan dira. Partaideek bazekieen bertsotan, baina eskolak ziren, halan eta guzti be; hau da, irakaslea izan zein ez (batzuetan gaijartzaile egiten ebanak hartzen eban paper hori), elkarregaz kantatu ez

eze, bertsoak aztertu eta hobetzeke ahalegina dago. Bertsoaren kultura bizirik zegoen nekazari herri txikietako fenomeno da, herririk euskaldunenak beti be.

b) Bertso-eskola moderna, Xabier Amurizaren teorizazinoa eta haren txapelaren gerizan eratuta, 70.eko hamarkada amaiera eta 80.eko hasikeratik. Molde eta esames zahar dezente apurtu eta bertsoa urbanoagoa da, erabat urbanoa be bai. Bilbotik, Santutxuko bertso-eskolatik hasita, Bizkaiko hainbat lekutan eratzen dira bertso-eskolak (Algorta, Durango, Mungia...). Herri handiagoak dira, huriburua barne. Bertso tradizinerik barik, askotan frankismo osteko euskararen borborrean, hizkuntzaren baliabide gehiago ikertzeke gogotik sortzen dira; hizkuntza praktikatu, ikertu, olgeta asmotik hasten da askotan. Jente euskaldun eta euskaltzalea da parte hartzen dauena, alfabetatua eta kultura maila batekoa, AEK edo ikastolen mogimenduaren ingurukoa. Gaur egungo txapelketa, Bertsozale Elkarte eta beste hainbat eginkizun eta ekintza bide horrextatik datoz.

Aurreko eskola mota biek inoiz talka eginda be, ez dago esan beharrik, beste askotan, denpora aldatu eta era naturalean gizartea bera aldatzen den eran, lehenengoak bigarrenaren ezaugarriak hartzen dituela (urbanoagoa, alfabetatua). Baina, moderna izanda be, bertsoa izango bada, ezin-

besteko dituela bigarrenak betiko bertsoaren ezau-garri gehienak, kantatzeko inguru bat, doinuak eta abar.

c) Umetatik euskaraz eta bertsoan ikasitakoek osatutakoak. Gaurko gazterik gehienek irakaskun-



Antton Mari Aldekoa-Otalora

#### **BELAUNALDI GAZTEAK**

Hor, bazter batean, buruan edo kolkoan, hor nonbait, hortxe bertan daukazuzala zure gomutak begitanduko jatzu, baina bai zera! Zure akordu bizi-bizian dagozen irudiok hogeitaka urte badaukez. Bizkaiko bertsolari gazteen irudiek honango, antzerako zeozer jazoten jat.

Gogoan ditut Algortan, 1984. urteko Ibilaldian gaztetxoek gai-jartzaile ekin neutsola eta han izan ziran Aritz Lopategi, Izaskun Tellitu, Elexpuru ta Ibarra markinañarrak... Hurrengo Ibilaldian be Bermion Elexpuru ta Elordi markinañarrak, Ainhoa, Larraitx, Izaskun, Olatz, Unax Durangoko Kurutziaiatik, Xiomara Gernikakoa, Mikel Urdangarin, Ajuria ta Mirari Lekeitiotik...

Handik geroagoetara azalduko jakuz Igor eta Unai, Ibon Iza, Iñigo Olabarri eta Meñika Arratia aldetik, Kepa Intxausti Lemoatik, Omagogeaskoa, enbeitatarrak Gernikatik, Peru, Gojenola ta Iratxe Lea-Artibaitik...

Buruz ekitea zer dan! Hortxe daukozuz eta era berean zein urrinekoak diran imajinok.

Bertso baratza Bizkaia aldean sekulako aroan egoen baina! Ongarri guztiekaz osoturik. Aspaldiko urteetan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa jokatu barik egoen eta 1980an barrero be Euskaltzaindiak antolatu ebanean bizkaitar bi: Xabier Amuriza eta Jon Enbeita izan ziran buruz buru txapela jokatu ebenak. Amuriza txapeldun. Handik lasterrera, 1982an ostera be Amuriza txapeldun, Lopategi bigarren eta

tza euskaraz egin dabe eta bertsoagaz lehenengo hartu-emonan be eskolatik dakarre, a) taldekoek (herritik, tabernatik, tradizinetatik) eta b) koek (alfabetatze kanpainetatik, helduaroko konpromisotik) ez legez. Eskolaz harago joan gura izan dabenen artean, batzuek erreferente izan ditue

Enbeita hirugarren. Bertso baratza oso prest dago Bizkaia aldean. Bertsozaletasunak taberna zokotik eta nekazal girotik periodiku, irrati, hiriko lagunarteko barriketara salto egin dau.

Bertsolaritza-maixu lez, Bizkaiko Ikastoletan Jon Lopategi hasi zan jardunean. Hara ta hona. Geletako ohiko erritmoa etenaz sartzen zan klaseetara. Barrikuntza zan aldetik, hasiera baten onartua izan zan. Bertsolari lez ospea eukon eta klaseetan, irakaslearen harridurarako, neskato-mutikoeke amen baten koplaxo bat osatzen eben eta hurrengo asteko klasearen irrikaz zain egozan, bertso kanturako gogoz.

A ze abiaduran doazen urteak! Bizkaiko txapelketan Amuriza, Azpillaga, Lopategi... kantari final batean eta handik urte bira, Aritz, Unai ta Igor, gizon izan nahian eta oraindik mutiko ahotsaren kordak aldatu baga.

Txirrindularien eta futbolariaren modura, barriz, Lopategi bertsolariok kontzentretan ebazan Kanpantxun. Horra batzen ebazan Bizkaiko lau kantoietako gazteak eta kantuan, jolasean eta txuflatxoren bat edo beste tarteko, arka-len lagun egingo zituen bertsolari geiok. Euskerarenganako estimua sendotu eta bertsoetan jardutea irudimena lantzeko jolas gustagarri bat izan daitekela adierazo. Honakoak dozuz, berba serio eta astunez, esanda Bizkaiko bertsolari belaunaldi gaztearen lehen pausuk. rri nahi izan dot gaur maite dodan txokora.

aurreko bertso-eskolak, eta hortxe jarraitu eta sakondu dabe bertso-jardunean; beste batzuek euren eskola edo talde propioak eratu ditue, eta bien arteko nahasteak be sortu izan dira.

Azken talde horretakoak dira gaur egungo bertso-laririk gehienak, txapelketan dabilzenen artean ia denak, denak ez badira. Bertso-eskola modernoaren hurrengo pausotzat hartu geinke, batetik, batzuetan eskolak berak hartu izan dauela ekimena, helduen eskola izatetik herriko edo eskualdeko gaztetxoei bertso klaseak emoteko; beste batzuetan, Ikastola Elkartetik edo Bertsozale Elkartetik, Udalen eta Aldundiaren arteko ekimenetik urten dabe taldeok. Inor aitatzekotan, liburuan aztertutako epean, Jon Lopategi da hori. Gerora beste irakasle asko ibili izan da Bizkaiko bazterretan gazteakaz. Lehenagotik bazegozen irakasleak eskualde bakotxean, baina zalantza barik bera izan da, herrialde mailan, luze-zabal ikastolarik ikastola ibilitako lehenengoa, eta orain arte bertsolari gazte gehien landu eta atera dituen.

Goazen, bada, bertso-eskolak banan-banan aztertzen, bakotxaren nondik norakoak, historia eta ezaugarriak eta protagonistak aztertuz.

## GARRIKO BERTSO-ESKOLA

Gaur egungo ikuspuntutik bestelakoa izan arren (eta ondo begiratuta, horren desbardina be ez zen), Garriko dogu Euskal Herrian eraturako bertso-eskola, seguruenik, lehenengoa. 50.eko hamarkada amaierakoa da, hau da, bertso-eskola modernoak sortu baino hogeitaz lehenagokoa, eta frankismo bete-betean jaiotakoa, Muxikako Ariatza auzoan.

Inguru horretan bertso-traidizinoa luzea da, bai bertsolari, bai zale aldetik. Baina hori guztia modu formal horretara, astean behin batu, saioa ondo prestatu, elkarregaz kantatu, gerokoak zuzendu, hau da, entrenamendu saio osoak atontzeko harra, kanpotik etorri zen zelanbait: 1958an jokatu zen gerra osteko Bizkaiko lehenengo txapelketatik, Euskaltzaindiak bultzatua bera, Irigoienek batez be. Balendin Enbeitak jantzi eban txapela. "Sarduitarrek (Deunoro eta Bitoren Sardui izan ziren eskolaren sortzaileetarikoak) pentsatu eben, Bizkaiko finalera joateko, indartu egin behar genduela hori", dauka akorduan Irene Aju-riak, eskolako gaztetxoena zen Jon Enbeita lehen-gusuagaz batera. "Ariatzak denen gainetik egon behar ebala eta holango gauzak esaten ziren, orduko denporakoak; Ariatza ezagutzera emon behar zela, Urretxindorren habia zela eta. Orduan Berriatuagaz eduki eben holango lehia bat. Azpilla, Mugartegi eta honeek zegozen Berriatuan, eta aprobak egiten zitueen: hara joan, bertsoan egin, gero eurak hona etorri. Eta erabagi eben: beno, ba, bertso-eskola bat sortu behar dogu".

Lehenengo saio biak erdi ezkutuka egin arren, hurrengoak Ariatzako Fuenterrabia tabernan egin zitueen, denen aurrean. Hain justu be, Pedro Aju-ria, Ireneoren aita zen Fuenterrabiako ugazaba. "Guk taberna bat geunkan hor, eta lehenengotan Sarduiren jangelan edo salan egin eben, ezkutuan, baina jentea berehala ohartu zen auzoan, 'honeek



zer darabile?', eta pentsatu eben, 'holan ezin dogu jarraitu'. Orduan gure aitak esan eban: 'tabernan egingo dogu, denen aurrean, jakin daieen'. Eta halantxe hasi zen".

Zorionez, orduko den-denak ondo bilduta dagoz agirietan, gehiago jakin gura daben guztientzat. Hara zer dakarren Garrikoko lehenengo batzar haren gainean, 1959ko urriaren 17an:

Geroago eta geiago izateko asmo bizi batez, Ariatzan bildu gara urriaren amazazpian. Eta zertarako batu ete gara? Nik eztaikit norena izango dan asmo au, dana dala, asmo oso ederra ta bikaña da: astean bi aldiz, zapatu gauetz eta domeka goizean aurkitzea danok batera Ariatzako Fuenterrabian. Eta zer izango da gure batzar-gaia? Gauza erreza, oso erreza: bertsoan egin, bertsoan, datorren urtian Bilbon izango dan txapelketa naguzian, naguzi izan daitean Ariatzako erria. Asmo ederragorik ezin geinke billatu, geurea dogun berbeta bizi au, munduaren zear ezagutua izan daitean, batez be geroago eta sendoago maitatuaz.

Agiriok idatzi eta gaur egunera arte heltzea Pedro Mari Aldanari zor deutsagu, bere lumari esker baitakigu ordukoaren barri, orduan bertan batutako eran: zer giro zegoen, nork zer lan egiten eban. Eta bertso asko be batuta dagoz.

Bertso-eskola Ariatzako Fuenterrabia tabernan hasi zen batzen, beraz, astero-astero, lehenengo aurreko astean agindutako bertso idatziak kantatu eta gero bat-bateko saioari ekiteko. Izenetarikoa asko jada agertuak badira be, hona Garriko eskola osatu eben bertsolarien zerrenda osoa: Jon Lopategi, Deunoro Sardui, Bitoren Sardui, Pedro Ajuria, Balendin Enbeita, Pedro Ortuzar "Iturri", Jon Enbeita, Ireneo Ajuria eta Pedro Mari Aldana.

Jentaurreko saioak izaten ziren Garriko bertso-eskolako zapatuetako bilkurak, gaueko bederatzi

eta erdietatik aurrera. Baina eskola-eskola zen, horratik, ez etxeko lanakaitik bakarrik, ezpada hasikeratik kantatu, ikasi eta hobetzeko helburua zeukielako. Eta ekina be holantxe bideratu eben: "Saioa amaitu arte, jentea isil-isilik egoten zen, txaloak jo eta isilik. Gero komentatzen genduen geure artean. Bitorenek-edo, 'hor ez dozu ondo egin, han ondo egin dozu, hau erantzuna bota deutsazu, baina hau barik, bestea bota bazendu, askoz hobeto geratuko zen', holango kritikak egoten ziren. Neuk uste oso bertso-eskola mamintsua izan zela. Sistema aldetik, fenomeno, eta sasoi haretarako, primerakoa", dauka Ireneok gomuta.

Pedro Mari Aldanaren agirietan (*Garriko* liburuan) irakurriz, argi agiri da serio hartzen ebela bertso-jarduna eta eskola, bai tabernan egindakoa, bai etxerako lanei jagokenez:

Eta hauxe izango da astero egingo dogun lantxua: Pedrok, gure maixuak, ipiniko dauskun gaitzaz, idatziko doguzan bertsoak irakurri ostean, bertsoan ekin. Bera izango da puntuak jarriko dauskuzana, eta guk egiten doguna txarto edo ondo dagoan esango dauskuna. (...) Oso bertso ederrak egin dabez Balendin, Iturri, Deunoro eta Jonek. Gauza bat esan bearrean aurkitzen naiz une ontan: txar-txuagoak ere izan dirala, eta gure batzar onek ontarako izango dirala: oker esango diranak zuzendu eta geroago eta obeto egiteko.


Guztira, hogeita bost batzar izan ziren Garriko bertso-eskolak iraun eban zazpi hiletan, 1959ko urritik 1960ko maiatzera bitartean. Ia denak Ariatzan, baina Garrikoko partaideek inguruko herrietara be egin zitueen txangoak. Halan, badakigu urtarrilaren 9an Gernikan izan zirela eta hurrengo hilean Zornotzan. Maiatzaren batean, Euban suertatu ziren eta aste bi geroago, Zamudion. Haxe izan zen Garrikoren azken batzarra, hogeita bosgarrena, lau Ariatzatik kanpora eta gainerakoak Fuenterrabia tabernan. Antzerki bat be idatzi

eben, inoiz taularatu ez zena, Pedro Mari Aldanak prestatuta.

Garriko eskolaren ibilbidea laburra izan zen, beraz, lehenengo ekinaldi haretan. Ez haren fruituak, horratik. Ahaleginak ahalegin, Bizkaiko hirugarren txapelketa haretan ez zen Ariatzako txapeldunik suertatu, nahiz eta Balendin Enbeitak urte haretan eta hurrengo txapelketa bietan parte hartu. Garriko be ez zen urte askoan batuko. Han ereindakoak ez ziren igartu, ostera.

Garriko eskolaren bigarren aldia 80.eko hamarkadaren bigarren erdian hasi zen, eta gaur egungo

gainerako eskolen antzekoa zen, pare bat ezaugarri salbu: eskolaren (eta auzoaren) beraren tradizioak eta, orduko lehenengo eskolan legez, familia hartu-emonek indartsu zirauela. Lehenengo eskolan, Balendinen eta Pedoren semeak ume koxkor agiri bajakuz, oraingoan, honeen seme-alabak datoz bertso-ikasle. Ez eurak bakarrik, horratik: Jon Enbeita dau gidari, eta Busturialde osoan zabaltzen dau bertso-eskolaren barria. Aurrekoan ez legez, bertsotan dakieen bertsolariak trebatzeko barik, edo horrez gainera, bertsotan irakasteko eskola da, txiki-txikitandik hasita. Ez da hemen agiri tradizioan hausturarik daka-reenik bertsotan ikas daitekeela eta antzeko



449

Garriko bertso-eskola

Garriko bertso-eskolako irakasle eta ikasleak

barrikuntzek dakarrezten moldeek. Garriko barria bertsoaritza modernoan txertatzen da, aurrekoa bere sasoiaren kokatzen zen legez.

Bien artean, zubi-lan luzea egin eban Garriko eskolatik kanpo egindako bideak, hain zuzen be, Mendatako Lamikiz auzoan egindakoak (hara ezkondu zenez Jesus Mari Sardui, Deunororen anaia). Garrikoko esperientzia amaituta, 70.eko hamarkadaren erdialdetik hasita, hantxe batu ziren 59-60. urte hareetan ibilitako batzuk: tartean ziren Balendin Enbeita, Deunoro Sardui, Bitoren Sardui eta Pedro Mari Aldana; Ireneo Ajuria ordurako Ameriketara pilotan zebilen arren, gogotsu joaten zen Lamikizera kantetan, Euskal Herriara bueltatzen zen udako hiletan.


Garrikoren ospea Euskal Herriko, seguruenik, lehenengo bertso-eskola izatearena bada be, orain dela ia mende erdi hasi ebenez ibilbidea, Lamikizkoaren jarduna luzeagoa izan zen. Balendin Enbeitaren heriotzagaz desegin zen hango taldea be, umezurtz geldituta edo. 1986ra arte iraun eban, beraz, "Lamikizko eskolak", baina aurreko esperientziagaz ez legez, oraingoan, bata desagertzeak beste bertso-eskola baten sorrera ekarri eban jarraian.

Mendatetik atzera Muxikara eta, zehatzago, Garrikora bertara jauzia egiteko sasoiaren zen. Bizkaiko hainbat zokotan sortuak ziren bertso-taldeak eta bertso-eskolak; bertsoak bere ohiko eremutik esparru barriak lortzen zituen egun egun, eta Xabier Amurizak abiatutako bidea lehenengo lorak emoten hasi zen. Halantxe hasi ziren Busturialderako barriro be bertsoaren topagune izango zen Garrikoko bertso-eskola indartzen, oraingo honetan, gaztetxoenei bertso-eskolak emonez eta bertsoetan ikasi gura ebenei ondo-etorria eginez. Jon Enbeita nabarmendu zen sasoi haretan Gernika eta inguruko hainbat ikastetxetan mezua zabaltzen. Muxikako Udaletik be, Ariatzako eskoletako gela bat lortu eban, eta laster lehendik ibilitako bertsoariak be hantxe topa-

tu eban lekua, tarteka-marteka afariak egin eta bertsoaz edo bertsoetan jarduteko.

Ikasleentzako eskola eta helduentzako topagune izateaz gainera, Garrikok dinamizatzaile jarduna be bere gain hartu izan dau, dela herriko elkarte eta ekitaldiekaz elkarlanean, dela berak bakarrik antolatutako ekimenetan. Urteotan egindako ekintzen zerrenda luzea da: ohiko saio eta kultur astez gainera, omenaldiak (Alfonso Irigoien, Santi Onaindia, Balendin Enbeita), mahai-inguruak, jaialdiak eta, denen gainera nabarmenduz, Garriko Bertsolari Eguna antolatu izan dabe, beti be bertsoaren bueltan.

.....



## Ireneo Ajuria

### Ireneo, noiz hasi zinen bertso-eskolan?

Nik Garrikon daukadan akordua gaztetakoa da. Oso gaztea nintzen, zenbat urte edukiko nituen, ba? 12-13 urte. Bai, hamabi urte neukaz, bertso-eskolan hasi nintzenean, eta Jon Enbeitak zortzi.

### Zelan izan zen?

Hor hasi ziren Deunoro Sardui, Jon Lopategi, Bitoren Sardui, Balendin eta honeek, Bizkaiko txapelketaren ostean, hurrengo urterako indartu egin behar genduela eta Ariatzako ezagutzera emon. Orduan galazota zegoen euskaraz egitea be administrazioetan eta eskolan; holangoetan pentsatu be ez euskaraz egiterik. Arauak-eta Pedro Mari Aldanak ipini zituen, denon adostasunean.

### Zein izaten zen edukitzen zenduen lana?

Etterako, gaia emonda, lau bertso egin behar ziren, eta gero zapatuetan, jente aurrean kantatzen genduzen. Gero bat-batean, puntua jarrita,

gaia emonda, teman, zortziko nagusian eta zortziko txikian egiten genduen. Orduan bertso luzeak Balentinek bakarrik kantatzen zituen.

### Zazpi hilabeteko ibilbidea izan ei zen.

Honek zazpi hilabete eta zeozer iraun eban bakarrik, eta hortxe amaitu zen gure bertso-eskola. Txapelketa etorri zenean, geure artean egon ziren hola-ko gauza batzuk, “zuk barik neuk joan behar neban aurrera”, ze entzulea be ez zen gaurko modukoa izaten; apur bat temosoagoa izaten zen. Geure arteko tirabira bategaitik, jentea hotzitzen joan zenez, pentsatu genduen: “honaino heldu gara ondo eta

hementxe amaitzen da”. Eta bakotxak bere bidea hartu eban. Lopategik be hementxe hartu eban zale-tasuna; izango eban lehen be, baina, gehienbat, geure bertso-eskolatik hartu eban. Nik uste dot esperientzia oso interesgarria izan zela bertso-eskola. Hortixek etorri ginen gu.

Nik 60an urten neban Mungian kantetan. Beste urtebete eta pikuan egon nintzen eskolatik urten eta Balentine baserrira joaten egunero-egunero. Osabagaz solora joan eta, bera ganaduarentzat janari batzen zebilen artean, nik bertsotan egiten neban osabagaz. Egunero-egunero, e! Hortixek hasi ginen, eta zaletasuna be sortu jakun. Gero Jon fraile joan



Garriko bertso-eskolako irakasleak. Ezkerretik hasita, J. Enbeita, D. Sardui, M. Enbeita, J. M. Sardui, J. A. Monasterio, I. Ajuria

zen. Guk Jontxu esan geuntsan orduan, txikiena zelako. Baina bera be ibiltzen zen, eta bardin Deunoro Sardui, Iturri (Pedro Ortuzar), Jon Lopategi, Balendin, eta gero Iturriren anaia bat be bai, Felix, inoiz etorri zen, baina hori geroago.

#### **Eta hori amaitu eta bigarren Garrikora arte?**

Ni gero pilotari joan eta hogeitun urtean ibili nintzen, 84ra arte. Bitartean, Lamikizera joaten ginen bari-kuro, entrenatzera, Jesus Mari Sardui, Deunororen anaia bat, hango baserri batera ezkondata dago eta. Balendin bizi zen oraindino; Jon, Jonen anaia Moises, Deunoro, Jesus Mari, eta neu joaten ginen, eta Bitoren gai-jartzaile. Eta hantxe ibili nintzen beste bi-hiru urtean.

Gero pentsatu genduen Ariatzan bertso-eskola sortzea, baina baserrietara jo barik, umeentzat aukera zabalduz Busturialde osoan. Baserri batera ezin dozuz eroan hogeitun urte barikuro. Inoren etxea be bada, eta pentsatu genduen Ariatzako eskola zela aproposa horretarako.

452

#### **Hori bertso-eskolen mogimendua hasita zegoe-la izango zen.**

Bai. Lopategik be bazeukan bertso-eskola bat Gernikan. Hortik urten eben Arriola anaiek, Txiplasek eta, ez dakit, beste bi edo hiru be egon ziren. Guk pentsatu genduen hementxe hastea Garrikoko bigarren etapa hori, eta ume piloa etorri zen lehenengo urtean. 28 bat-edo egon ziren, Gernikatik, Muxikatik, Foruatik, Busturialde osotik.

#### **Sistema zein zen?**

Denerik. Lehenagoko Garrikoko bertso-eskolatik apenas ezer. Irakasleak, Jon Enbeita, Bitoren Sardui, ni... Lehenengo, koplatan hasten ziren, gero lau oinak emonda bertsoa egiten; bertso-eskoletan egiten den gauza bardina.

#### **Eta lehen, Garriko haretan, holango zeozer egiten zendueen ala bazegoen ezbardintasunik?**

Guk orduan ez genduen pentsatzen azkena pen-

tsatu eta haregaz biribildu bertsoa eta holakorik. Gitxi gorabehera bai, baina egiten genduen zen azkar erantzun. Azkar erantzun behar zen; horixe izan zen jarri genduen sistema bat; ez behar beste itxaron eta gero erantzun; horrek ez eban balio. Entzulea tabernan egoten zenez, ha plaza bat zen guretzat. Orduan bertso saiorik ez zen egoten inon, eta jente asko etortzen zen Gernikatik eta ingurutik. Jentea ez zen kabitzen tabernan. Atea zabaldu eta, gure tabernak parrilla zeukanez, parrillaren azpian jente asko egoten zen entzuten. Hareek ohituta zegoen gerra aurreko bertso saio-etara, hasi eta amaitu geratu barik. Poto egin behar bazen, pote egiten zen, baina geratu ez. Errima galtzen bazenduen be, amaitu. Izango zen bertso txarra eta jentea ohartuko zen, baina legea izaten zen, potoa bada be, aurrera. Isilik egotea baino hobe. Sistemak horreexek ziren.

Saioa amaitu arte, jentea isil-isilik egoten zen, txaloak jo eta isilik. Eta gero geure artean komentatzen genduen. Bitorenek-edo: "hor ez dozu ondo egin, han ondo, baina hau barik bestea bota bazendu...". Holango kritikak egoten ziren. Guretzat, Deunoro eta horreek, Deunoro ni baino hamabi urte zaharra goa da, gizon helduak ziren. Lopategi eta Deunoro, eta Bitoren be bai. Balendin zer esanik be ez. Balendin guretzat Aita Santua zen.

#### **Jon eta zu, barriz, gaztetxoak.**

Guk bertsoa hasi eta amaitu erraz egiten genduen. Orain, esan, zenbat esaten zen eta zer bertso kalitate zeukien...

#### **Halandaze, helburua Ariatza leku dotorean iztea zen. Zuretzat, horren gazterik finalera heltzea ekarri eban eskolak.**

Ni Mungia joan nintzanean, bertsolari-bertsolari dezenterik gitxi zegoen. Hogeita zortzi-edo aurkeztu ginen, eta batzuek koplatan egiten eben, beste batzuek hiru puntukoak botatzen zituen. Hori bazekien Irigoienek eta zer egin eban? Pasa da bat zortziko nagusian eta beste bat zortziko

txikian, eta hortik aukeratu zortzi. Zarragak eta orain ahaztuta daukadazen beste bertsolari asko, Txorierrikoek, hiru puntutan egiten eben, trikitilariak koplatan egiten eben legez. Horreek kendu zitueen lehenengo pasadan, beste bigarren pasada bat, eta azkenean zortzi geratu ginen, lau puntutan egiteko modukoak. Niretzat munduko txapelketa irabaztea lakoa izan zen eskualdekoa irabaztea. Gero finalerdia zegoen Gernikan. Hor etorri ziren Azpillaga, Mugartegi, Deunoro Sardui, Pujaña, Alberdi eta ez dakit nor gehiago. Finalerdiak gogortxoagoak ziren; oharkabean pasatu nintzen. Eta finalera. Suerte txarrez, finalean osabagaz kantatzea tokatu jatan, Bilboko zezen-plazan. Osaba txapelduna zen eta zer esan be ez neban jakin, errespetua eta. Ez naz gogoratzen gaiagaz. Ni urduri nengoen eta nahiago neban osabak txapelari eustea, nik banekien ez nebala irabaziko eta. Gero gauza arraro bat pasatu zen: argia joan zen. Ordura arte, lau pasatzen ziren, eta hor bi pasatu zitueen, Azpillaga eta Mugartegi. Ez zegoela denporarik, eta erabagi eben Azpillagak eta Mugartegik azken saioa jokatzeko. Mugartegik urten eban txapeldun.

Ni Balendinengana entrenatzera joaten nintzen, oso pozik. Orduan zaletasun itzela neukan bertsoarako. Gero beste hiru finaletan egon nintzen. Eta, azkenean, hamazortzi urtegar, Ameriketara urten neban pilotari.

#### **Saioak be egiten zenduzen orduan?**

Asko. Nik suerte handia neukan, Euskal Herriko gazteena nintzelako bertsoan, eta Bizkaian zer esanik be ez. Mimatuta egon nintzen, nahi izaten eben plazetan gartzetxoak ikusi kantatzen, eta ilusino itzela zen, etorkizunerako-edo pentsatzen eben. Gehienbat neu joaten nintzen Balendinegaz, Bizkaia osoan. Gogoratzen naz, Urkiolan, Oromiñon, Algortan, Trinitarioetara-eta joaten ginen orduan, frailekiei kantatzen, baita hemen Karmelitan, Zornotzan be, eta San Kristobal eguneko saioak egiten ziren Lekeition. Autobusen ugaza-

bak jartzen eban bertso-saioa beti, txoferren eguna zela eta. Denean ibiltzen ginen, Natxitua, Bermeo, Lekeitio, Ondarroa...

#### **Gero, urte askoan, txapelketarik ez zen izan. Barriz eskola sortzeko egon zen motibo bereziren bat?**

Ni 78an etorri nintzenez, lehenengo hauteskundeak ziren. Orduantxe hasi nintzen mitinetan kantatzen. Jonek esan eustan, eta nik: "hogei urtean egin barik eta nik ez dot holango estutasunik pasatu gura hainbeste jenteren aurrean", eta "ezetz, ba! Bai, bai, hiru-lau bertso kantatuko dozuz, baina urten egin behar dozu". Joan ginen Casillara, Bilbora, eta leporaino jentzez beteta. "Nik esaten dodan azkenari zuk erantzun. *Euskal Herria* eta *Gora Euskadi* esan gura badozu, zeuk gura dozuna esan, hau ez da txapelketa eta. Eta egingo dozu". Hantxe bota genduzen lau-bost bertso, hankak dardaran neukazela, Ameriketatik etorri barri. Ez, Ameriketan nengoen oraindino, baina uda zenez, uda denporan hona etortzen nintzen hilabeterako... urte birik baten, hilebete edo bi hemen pasatu eta barriro joaten nintzen. Eta horixe aprobeztatzen neban, hemen bertsoan egiteko, baina plazaratzerik ez neban gura. Ameriketan kasete piloa neukan. Gastatuta edukitzen nituen, Euskal Herriko txapelketakoak eta Bizkaikoak. Ameriketan be, erosketak egiten joaten nintzenez, eta kotxean-eta, beti bertsoan ibiltzen nintzen, neure kabuz, neuk gaia jarri, neuk erantzun, eta haren erantzunari erantzun.

#### **Eta itzulitakoan, barriro ekin zeuntsan Garrikokoekin batzeari.**

Bai. Lamikizko baserrira joaten ginen. Bitoren izaten zen gai-jartzaile eta gu bertsoan, Deunoro, Jesus Mari, Balendin, Jon eta ni. Hor serioan ibiltzen ginen, gaia jarri, hiru bertso, bakarreko kartzelako gaiak eta abar.

### Hortik erabagi zendueen ume eta gaztetxoekin hastea?

Bai. Hori berez etortzen da: hau geuretzat bakarrik ez da, eta etorkizunerako be egin behar da. Hortixek hasi ginen. Jon horretarako ausarta da eta pentsatu genduen: "Zu gidari moduan hartu. Lehen zuen aita izan zen, eta orain zeu". Eta horren inguruan laguntzeko, geu izaten ginen, baina gehienbat Jon zebilen. "Eskola sortu behar da". Bera hasi zen propaganda eskoletara zabal-tzen eta esaten zelan bertso-eskola bat zabalduko zen eta Busturialde osorako zen, eta halan. 1987 bueltan edo izango zen.

### MALLABIAKO BERTSO-ESKOLA

Aitatu dogu, bertsoa gaur ezagutzen dogun fenomeno hedatu eta urbanoa izan orduko, Bizkaiko leku askotan ezaguna zela bertso-larritza. Garriko da, ziur aski, adibiderik onena, Frankismo osteko urteetan, Xabier Amurizaren eskutik abiatu zen bertso-larritzaren barritze prozesuaren aurretik zegoena, bertso-inguruaren barri izateko. Ez bakarria, horratik. Mendatako Lamikiz auzoko topaketak eskola zahar eta modernoaren arteko zubitzat erakutsi doguzen legez, Mallabia izan daiteke 60.eko hamarkadako bertso giroaren eta 80.eko txapelketak ekarritako zurrunbiloaren artekoa. Bizkaiko herririk euskaldunenetariko batzuetan, bertsoaren soka, bertso-eskolak berbiztu barik be, indartsu heldu da gaur arte. Horren adibide, Berriatua eta inguruko beste herri batzuk, eta aitatu dogun Mallabia.

70.eko hamarkadaren erdialdean, gazte mogimendu garrantzitsua zeukan herria zen, beste leku askotako antzera, urte hareetako egiteko gogoak inarrosi ebana. Euskara eta haren inguruko ekimenen artean, bertsoak be leku berezia izan eban, beraz, eta indartsu biztu zen, osterantzean be bertsoa ezezaguna ez zen herrian. Tartean ibili ziren Mugarza anaiak, eta ondo gogoan daukie jaietan bertso-saioak izatea ohiko kontua zela Mallabiako auzoetan. Kanpoko eraginik be egon zen, horratik: Mikel Zarate lezamar idazlea herriko abade suertatu eta, mezak euskaraz emon ez eze, bertsoak be kantatu izan zituen.

"Mallabian, gazte-talde handia batzen ginen, gauza piloa egiteko. Bertso-jardunaldi batzuk be egin genduzen Abel Muniategigaz, 1975 inguruan, Franco hil aurretik. Bertsoaren teknika irakatsi eta hiru-lau egunetan egon ginen beragaz, eta holan. Herriko jentea ginen, Mallabiako jentea", aitatu dau Jose Luis Mugarza "Elgetzu"-k. Bizkunde eta indar handiko urteak ziren, eta olatu horretan,

euskararen inguruko ekimen guztiek indar handia zeukien. Dantzak, gau-eskolak eta euskal kultura bultzatzeko bestelako egitasmo batzuen barruan egin eben bertsoaritza-eskola. Gitxika-gitxika nabari da aldaketa, bertsoagazko ideia batzuen gainean, oraindino bertsoaren eta bertso-eskolen hedapen handirik egon ez arren.

Mallabiako ikastaroa laburra izan zen eta, handik bertsolari askorik urten ez eban arren, testuinguru haretantxe kokatu zen herrian hiru urtez jokatutako bertsolari txapelketa. Izan be, ezin hobeto buztartzen ziren betiko bertsozaletasuna eta sasoi berriekin zetorren giroa. "Bertsolariak beti egon ziren Mallabian", dakarre gogora mugarzarrek, "Txarraka ibiltzen zen bertsoan pixka bat, eta beste zaharrago bat be bai, Asuntze. Gazte-taldea orduan oso bizi zegoen Mallabian. Ermita guztietan jaiak antolatu eta gauza asko egiten ziren: dantza-taldea, antzerki taldea be bai, antzerki lan batzuk be bai. Mogimendu kultural gogorra zegoen eta hortixek etorri zen bertsoena be".

Halan, Mugarza anaiek Durangorantz jo eben bertsoan laster, Juan Mari Areitio eta eskualdeko beste batzuekin bertso-taldetxoak osatzeko. Harek urtebeteko ibilbidea izan eban eta, alde batetik, Durangoko (eta gero Iurretako) bertso-eskolaren ernamuina izan zen. Bestetik, mallabiarrek, Lea-Artibai eta Durangaldeak bat egiten daben lekuan, Trabakuan, txoko ezin hobea topatu eben, aurretik ezagutzen zitueen bertsozale eta parrandetako bertsolari batzuekin hitzorduak egin eta astero-astero bertsoan jarduteko. "Parrandan egiten genduzen kontaktuak, Txixarron-eta. Han ezagutu eta: batuko gaituk?", dino Elgetzuk.

Trabakuko Ezkaratz zaharrea ipini eben hitzordua aurrerantzean, barikuetan batu, afaldu eta elkarregaz bertsoan egiteko. Bertsoan bazekien jentea zen, eta eurek be ez daukie argi bertso-eskolaren zentzunik estuenean hartu ete leitekeen. Bertsoa-

rako batzen zen lagun-taldea izan zen, baina luza-ro iraun ebana, edozelan be. Frankismo osteko lehenengo urteetatik 80.eko hamarkada hasierara arte bildu izan zen gazte mordoxka bat, aurreko esperientzia hareetatik bertsoarako gogoz jarraitu ebana eskualdeotan. Informala, agian, gorabeherak be izan ei zitueen; inoiz gehiago, inoiz gitxiago batuz, baina, agian horrexerik esker, ohi baino bizi-tza luzeagoa izan eban esperientzia hark.

.....

### **Jose Luis Elgetzu eta Pello Mugarza anaia.**

#### **Zuek nondik hartu zendueen zaletasuna? Zelan hurreratu zinien bertsoa?**

Zaletasuna, gehienbat, Loiola Herri Irratitik. Hantxe entzuten najuaz lehenengo txapelketak eta abar. Gehienbat, handik.

#### **Saioak-eta egiten ziren inguruan? Jaietan-eta, normalak ziren?**

Bai. Jaietan-eta egoten zituan saioak, hemen auzoan bertan (Trabakun) egoten zituan Mugartegi, Arregi-eta... Gu mutil koxkorrak ginenean. Baserrietan, Azpillaga-eta ikusi izan genduzen.

#### **Eta zuek hortik zaletu.**

Ni (*Elgetzu*) lehenengo Derion ibili nintzoan Mikel Zaraterekin. Seminarioan egon nintzoan lau urtean, eta Mikel Zarate hemendik hara joan zenean, berarekin eroan ninduan seminariora. Eta harekin. Euskara klaseak Mikelek emoten euskuaz. Han be ikusten genduan bertso zaletasuna. Mikelek berak botatzen jitu bertsoak meztan. Gero Mallabiako gazte-taldeak bertso-jardunaldiak egin juazen Abel Muniategirekin.

#### **Baina bertsoan gitxi-asko bazenkieen. Zer izan zen, teorikoagoa?**


Neurriak, zortziko nagusi eta txikiak eta horreek



nik banajakiazan. Mikel Zarateren bidez ikasi najuan. Besteak, azkena lehenengo pentsatzearena-eta, Abelek irakatsi euskuazen.

#### **Zelako esperientzia modua izan zen?**

Hortik geu bakarrik jardun ginuan, eta Areitiorekin batzen hasi ginuazen, Durangon. Patxi, orain hemen (tabernan) dabilena, Uxarteko Alberto, Sarrionaindia-eta, koadrilatxo bat batzen ginuazen, eta bertsoan egiten genduan. Hantxe urten najuan lehenengoz plazara, Orozketan, Murua eta Areitiorekin.



Asier Ibañeta

Jose Luis "Elgetzu" eta Pello Mugarza anaiak.

#### **Hemengo bertso-eskola gerotxoago izan zen?**

Orduantxe izango zuan hemen batzen ginena Asis eta. Ez jakiat, ba, hortxe-hortxe.

#### **Txapelketa be antolatu zenduen.**

Amurizagaz egin genduan hori. Guk genkiana esplikatu geuntsaan Amurizari. Hiru urtean egin genduan, gazte-taldeak antolatuta. Abelen ikastaroaren buelta horretan izan zuan txapelketa.

#### **Antolaketa zelan izan zen?**

Erraza ez. Akordatu jakuan zelan antzinatik ez zen egiten Bizkaiko txapelketarik. Alfonso Irigoienengana joan ginuazen eta esan euskuan: "Euskaltzaindiak nahi izan dau egin eta ez dau lortu, eta zuek ez dozue lortuko". Traba legalak esan nahi juan.

#### **Alfonsok hori esan eta zuek, halan be, segitu.**

Bai. Guk egin egin genduan. Ez euskuean garrantzirik emon, itxura denez, zelan gazteen kontua zen, gazteena-edo, bertsolari barriena. Lehenengo, herrian egin genduan bat, txapelketa bat, bertan herrian. Gero hurrengo, nik irabazi nebana, Durango-Urkiola, Foru, Ipiñaburu eta Fikan saioak egin eta finala Mallabian. Txapelketa handia. Montaje handia, baina jente asko batzen ginuazen.

#### **Zelako esperientzia izan zen hori? Ordurako, Durangon urtenda kantetan?**

Lehenengoan, Enbeitak eta Mañuk jokatu juen finala eta Enbeitak irabazi. Bigarrena neuk, eta hirugarrena Areitiok. Hirugarren hori Mallabian bakarrik egin zela uste juat. Enbeitatarren batzuk be egon zituan txapelketa horretan, Abel, Moises, Joseba Andoni. Jakin genduan enbeitatarrek bazirela eta geu joan ginuazen bila. Esperientzia ha niretzat ikaragarria izan zuan, pentsa.

#### **Herrian egon zen talde hori, euskararen bueltan edo zelan sortu zen?**

Bai. Batez be, euskarari buruzko zeozer zuan.

Gogoan jaukaat Iñaki Bastidak *Quosque Tandem* irakurrita, bertsoaren zera, han agertzen zen mistika, handik biztu euskuan kontu hori. Ez jakiat zelan, baina handik sortu zuan.

**Zuek Durangoko horretatik bertso-eskola antolatzeraz zer egon zen? Amurizaren txapelagaz eta?**

Ez. Gu aurretik hasi ginuazen batzen. Gero Altzalei-eta horreekin be batzen hasi ginuazen. Ander Lipus bera, gaur 33 urte jaukazak, ba, hamabi urtekin etortzen zuan. Ni akordatzen nok, txiki-txikia, eta di-da baten botatzen jua bertsoa.

**Non eta nortzuk batzen zinien?**

Agustin Monte San Migelgoa, Asis Urdiñurreta, Anakabe Amorotokoa, eta berrituarrak, Jose Ramon zapateroa, Altzalei, Aitor Elexpuru, Eloorrioko Sorozabal... Beti hementxe, hemengo Ezkaratz zaharrea, beheko sua biztu eta toki polita zuan. Tabernan lagatzen euskuen tokia eta.

**Eta asteen behin edo zelan izaten zen?**

Barikuetan izaten zuan. Hemen batu, batzuetan zer edo zer pikatu, ordu biak aldera arte egoten ginuazen, Ander bera be bai e, hamabi urterekin. Lana emonda baino gehiago, librean egiten genduan, puntu batzuk jarri eta gero segi bertsoan. Ez zuan eskola-eskola be. Lagun artea izaten zuan gehiago.

**Eta noiztik noiz arte iraun zenduen hemen batzen?**

Ez zuan konstantea izan; boladaka joan zuan. Igual nekatzen ginuazen, baten batek ezin ebanean, eta gero barriz hasten ginuazen eta... Ni gero Eibarren ibili nintzuan umei apur bat irakasten, eta Eibarkoekin be desafioak egin genduazen. Akordatzen nok zelan Eibartik etortzen zen beste talde bat, eskolarteko txapelketan zebilena. Neska batek, gainera, gaztea, txapeldunorde-edo urten jua behin Gipuzkoan.

**Beraz, bidea: Abelen ikastaroa, gero Durangora, eta azkenik hemen.**

Bai: Igual Durangokoan eta hemengoan batera ibiliko ginuazen. Hortxe-hortxe. Durangokoa... nik 21 urterekin kantatu najuan, 1975ean. 1974-75ean hasi ginuazen. 82ra arte, behintzat, ibili ginuazen.

## SANTUTXUKO BERTSO-ESKOLA

Xabier Amurizak egindako teorizazino, idatzitako liburu eta 1980an lortutako txapelketaren abarotan, bertsoak bide barriak eta ordura arte ezagutu bako eremuak lortu zituen. Hori guztia ulertzeko, ezinbestekoa da, bertso-eskolen fenomenoak kon-tuan hartzea ez eze, prozesu guztiaren erdi-erdian jartzea, azken hamarkada bietan urtendako bertsolari belaunaldien gaineko edozein azalpen emoteko.

Bizkaiko (eta Euskal Herri osoko) bertso-eskole-tan, biderik luzeenatarikoa egin dauen bertso-

eskola Santutxukoa da, eta mugarri izan da hainbat kontutan, bere sorreragaz batera, orain arte erakutsitako eskolekiko jauzi nabarmena emon eban eta. Orain arte, teorizazino apur bategaz izan arren, bertsoan bazekieenak eta elkarregaz trebatzeko taldeak izan ohi ziren, lehendik be bertsozaleak eta, zer esanik ez, guztiz euskaldunak ziren inguruetan.

Santutxuko bertso-eskolaren sorrerak bertsoa herri giro horretatik hirira dakar, bertsoa ia ezezaguna eta euskara baztartuta daukan eremura. Baina, era berean, hizkuntzaren aldeko indarrak eta alfabetatutako jenterik gehien dagoen espa-



Joseerra Bilbaoren argazki-bilduma

Santutxuko Herriko tabernan. Zutunik, ezkerretik, A. Fernandez, I. Urionaguena, O. Bernaola, I. Aurrekoetxea eta X. Jaka. Jesarrita, ezkerretik, J. Bilbao, B. Iturriza, J. Basterra eta J. Etxebarria. 1989-90 ikasturtea.

rrua be bada. Badago beste alde nabarmen bat be: aurreko eskoletan, une-unean ez ziren jakitun, esperientzia hareek garrantzitsuak izango ete ziren, ala lagun-taldeagaz egindako denporapasa ederretik askoz urrunago ez ete ziren joango. Agian, ez da erabat zehatza Garrikoko kasuan, hango saioen aktak-eta badagoenez, baina ezin aldera leiteke hogeit urte geroago datorren bertso-aren gaineko teoria eta planifikazio zehatzago honegaz.

Horren barri emoten deusku bertso-eskola sortu eta urtebetera, *Jakin* aldizkarian, Santutxuko bertso-eskolako kideek (orduan *bertsolari-eskola* deritzoe) idatzitako artikulu mamintsuak. Hiru helburugaz egindako idatzia da: esperientziaren

barri emotea, lehenik; bestelako bertsolari elkar-teekin hartu-emonak sortzea, bigarrenik; eta hirugarren helburua "bertsolaritzari buruzko alfabetapena zabaltzen hastea dugu, alfabetapen kulturala euskaldunaren atal garrantzizkoa dela uste baitugu".

Bertso-eskola 1979an sortu bazen be, bi edo hiru urte atzerago jo behar da, taldearen ibilbidea jarraitzeko: Jose Ramon Etxebarria irakasle zela, Euskaltzaindiko D titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu eben, eta horri lotuta, hurrengo urtean beste urrats bat emotea erabagi: B mailakoa lortzea eta idazleak sortzea. Hori be erdietsi ostean, itzulpengintzari ekin eutsien eta halan, 79-80.eko ikasturtearen hasieran, Literatura eta Bertsolari-



Iñaki Antiguiedad

### ASPALDIKO? EZ ANTZINAKO!

Zer eman dio ni bezalako hiriko euskaldun berri-ikasi bati bertsolaritzak? Burua beharrean jarrita, 80.eko hamarkadaren hasiera daukat gogoan, euskaraz gose ginen euskaldun asegabe batzuk Santutxun biltzen ginenekoa.

Euskaltzaindiak garaian araututa zuen B mailako irakasle titulua prestatzen ikasturtea eman ondoren, taldeak bizirauteko zer egin eta bertsoen urratsa ematera ausartu ginen, Jose Ramon eta Juanjo lagun bultzadaz; eta Xabier maisutan maisu. Hantxe hasi zen niretzat berba-jokoaren jolasa, errimen zorrotza eta belarrien soinu eza. Lehenengo bietan gustora moldatu nintzen, etorriaren etorriaz. Hirugarrenak liburuko ultzera sortu zidan. Horixe zor diot bertsolaritzari. Hainbat urte plazarik plaza emanda, potoak barne, taldea sakabanatu egin zen, nor bere neurrian, sutan jartzean pro-

batzen baita zelakoa den eltzea. Batzuk beste mundura joan ziren. Besteak bestelako munduaren alde honetan geratu ginen. Baina seguru nago batzuek eta besteek erri-ma eta soinua aldean dauzkagula, atxikian. Kanturako ez, baina ahorako eta eskurako beti izan dut bertso-sena bidai-de, Legebiltzarreko tribunan izan edo euskal prentsako zutabearen izan, azaldu gura nuena gozatuz azaltzeko. Ezin dut berba-jokorik gabeko mezurik bota, are gutxiago ofizialean berbek gero eta hutsalagoak diren honetan. Errimaren jolasa behar dut, izena eta izana. Total, Entzutegi Nazionaleko aulkian argitu behar izan nuen zertan zen euskaldunon jolasa, baina entzun ere ez zidaten egin. Nire buruak bor-bor segitzen du, honetaz edo hartaz, berbabideen jolasa gozatuz. Hori ere zor diot bertsolaritzari.

tzaren txanda izan zen. Biak lar zirela ikusita, bigarrena aukeratu eta, ordutik gaur arte, eguenero-eguenero batu izan da Santutxuko bertso-eskola, arrastiko zortziretatik hamarretara.


Halandaze, euskarazko kulturaren geroago eta gehiago murgildu guran, eta aurretik sortuta zegoen euskaltzale taldeari eusteko jo eben bertsolari-tzaren bidetik, berezko bertsozaletasunak bultzatuta baino gehiago. Bertsoa hurbiltzeko bestelako bide horrek, eta taldearen egiturak berak (jente heldua, alfabetatua eta euskal kulturako beste esparru batzuetan ibilia) lan teoriko garrantzitsua ahalbidetu eban. Xabier Amuriza oraindino txapela lortu bakoa zen, baina berak irakatsitako teknika eta teoria ugari praktikan jarri eben ordurako: bertsoa ikasi zeitekeen gauza zen; bertsoak bazeukan lekua hirian; eta euskara batua euskalkia bezain baliagarria izan zeitekeen bertsoarako. Hortik jarraituta, gau-eskoletatik urteten zebilzen euskaldun barriek zergaitik ez egin bertsoan? Eta, zer esanik be ez, andrazkoek.

Bertsoaren alde ugari landu dira Santutxuko bertso-eskolan: bertso zaharrak kantatu eta aztertu,

doinuak ikasi, etxerako lanak egin; astero idatzitako bertso bat gitxienez ekarri, denen aurrean kantatu eta aztertzeko; eta, astiro-astiro, ikasitakoa praktikara eroan, bat-bateko bertsoekin ausartuz. Puntukako lehenengo saioen ostean, udaberrirako, eskolakide asko bertsoa osatzeko gai ziren. Eta eskola formala ez eze, ostekoaren garrantziaz be jabetu ziren: "bertso osoak -txarrak baina osoak- bat-batean osatzeko ahalmena hartuz gindoazen. Kalera irtetea, ezin etxera zuzen joan eta ikastola ondoko taberna batetan puntura kantatzen amaitzen genuen. Eta hurrengo tabernetan gertatzen zenaz, guk beste inork ez daki", idatzi eben aipatutako *Jakin*-eko alean.

Bertsolari jausi moderno hori emonda be, ikusi eben, teoriak teoria, bertsoak ezinbesteko dauela giro bat, tabernak osatu ahal dauena. Gabon aurrean egin eben lehenengo afaria; Aste Santua baino lehenago, bigarrena, eta laguntasun bikotxa izan eben: Jon Lopategi eta Xabier Amuriza, alde batetik, bertso onaren lilura ez galtzeko, eta auzoko jentea, bestetik, beharrezko entzule-taldetxea eta giroa sortzeko. Ikasturte amaierako hirugarren afarirako, bertsolari bien parean kantatzen eben batzuek jadanik (abiaduraz gabilz, noski, ez bertsoen kalitateaz).

Ordura artekoa teoria-lana eta hori guztia "laborategian" praktikara eroatea izan zen zelanbait, baina laster emon eben jentaurrean kantatzeko urratsa be. Hiru eskolakidek, Iberdueroren aurkako asanblea antinuklear baten kantatu ostean, Santutxuko euskal astean, Jon Enbeita, Xabier Amuriza eta Jon Lopategiren saioaren aurretik, etxean prestatutako bertsoak bota zitueen laurhun lagunaren aurrean. Jentaurrera ohituta, eskolak aurrerantzean galduko ez eban "agentzia" izaera hartu eban laster: Uribarritik deitu eutseen, poteo batean kantatzeko, eta handik Iruñera jautzia. UEUko ikastaroetan bertsoak unibertsitate maila lortzeaz gain, lehenengo saio ofiziala izan



Joseba Bilbaoaren argazki-bilduma

Santutxuko ikasle eta irakasleak.

eben, eta Euskal Herri osoan hartu-emonak egiteko balio izan eutsen. Jose Ramon Etxebarriak praka laburretan kantatu ebala-eta sortu zen polemikak irribarrea aterako deutso bati baino gehiagori oraindino be.

Laster eskolakideak irakasle be baziren: Mutrikun eta Arabako Laguardian AEKgaz batera ikastaroak emonez, adibidez, edo hurrengo urteetan, antzeko hartu-emonak sortuz Santutxun zein Bilbo osoan. *Jakin* aldizkariak emoten deusku beste behin be, ordurako, Bertso-eskolak zer erronka zeukan: "hiri-bertsolaria" sortzea.

Hitz laburretan, guk nahi zein ez, Euskal Herriko populazioaren parterik handiena hiritarturik dago. Gure ustez, bertsolaritza sendotuz joan dadin, hirigiro horretara egokitu beharko da. Labor esanda, Bilborako bertsolaria edo, zabalago esanik, hiri-bertsolaritza indartu nahi genuke. Eta orain arteko bertsolaritzari ezer kendu gabe, bertsolaritza honek ondoko faktoreok eduki beharko lituzke kontuan:

- Hiritan gero eta euskaldun alfabetatu gehiago daude (...) euskaraz irakurtzen ohituak daudela esan nahi dugu (...). Faktore honek, neurri batean, markatu egiten ditu bertso barneko aldakuntza fonetiko eta kontrakzio asko. Eta modu berean, euskara batuaren intzidentzia seinalatzen du.
- Euskaldun berrien fenomeno ere oso kontutan edukitzekoa da.
- Batezbesteko euskaldunaren kultura-maila ere aipatu behar da, normalean hiritarrek ikaste batzuegiteko aukera izan baitute.
- Bukatzeko, hiritarren mundua eta interesak ditugu, kantatzeko gaiari dagokionez oso kontutan hartzekoak.

Era berean, arraina itsasorik gabe (edo urik gabe behintzat) bizi ezin daitekeen bezala, bertsozale hiritarra ere bultzatu eta indartu behar dugu. Bilbotarrak bertsozale!, nor esango luke horrelakorik duela zenbait urte?

Artikuluaren azken atal biak estu-estu lotuta zegozen: bertsolaria jaio ala ikasi egiten den, eta argi zeukien, gitxieneko baldintza edo ahalmen batzuk behar baziren be, ahalmenok landu eta hezi egin ahal zirela. Ahalmenotan, lau aitazten zitueen: euskaraz ondo jakitea, erreflexu mental bizkorra edukitzea, irudimen azkarra eta gitxieneko belarria, musikari jagokonez. Honeen ondoan, bestelako faktore batzuk be ezinbestekotzat jotzen zitueen, halan inguru euskalduna izatea, bertsozaletasuna eta entzulegoa, motibazioa eta taldekontzeptua, hau da, bertso-lagunak, bai kantatzeko, bai bertsotan ikasteko.

Eta teorizazio guztiaren ondorioa, bertsotan ikasteko, bertsotan egin behar zela zen, aurretik aitaturako elementu teknikoak teorikoki irakatsi eta praktikan ipini ostean, eta honeek guztiak aztertuta. Baina bertsotan ikastea posible zen.

Hortik hurrengo pausoa, irakastea posible zenez, irakaskuntza arautuan izan beharreko lekua zen. 80.eko hamarkada hasiera haretan, jadanik maila bi bereizten zitueen: bertsolaritza gaia, euskara eta literaturaren barruan, ikasle guztiek ikasi beharrekoa, hau da, oinarriko teknika eta bertsolaritzaren historia; eta bestetik, bertsogintza, benetan zaletasuna zeukien hareek bat-bateko bertsolari izateko prestatuz.

Urrats hori 80.eko hamarkadan zehar emon eben, Santutxuko bertso-eskola batu ohi zen Karmelo Ikastolan lehenik, ikastetxean eskaini ohi ziren eskolaz kanpoko ikastaroei (txistua, kirolak, e.a.) bertso-eskolan sartzeko aukera emonez; urte gitxitan, bat baino gehiago helduen taldean zebilen bertsotan. Aurrerago, Bilboko Udalagaz hitzarmena lortu eben, hiriko eskoletan antzeko ikastaroak emon ahal izateko.

Kanpora begira, bestelako hartu-emon sarea be sortu eben: hasierako kideetatik batzuk joan, bes-

teak etorri, eta erdibidean beste batzuk, Santutxutik urrunduz eta euren inguru naturalean, bertso-eskola sortuz joan ziren, baina hilean-hilean Guerniquesa tabernan ezarri eben hitzordura hutsik egin barik. Hangoxe hartu-emonetatik sortu zen Bizkaiko Bertsolari Ikasleen Elkarte,

bertsoaren inguruan zebilen jentea egituratzeko lehen ahalegina, oraindino Bertsolari (gaur Bertsozale) Elkarte sortu barik zegoen sasoi.

Oso talde dinamikoa izan zen hasieratik bertatik, beraz: bere inguru naturalean (auzoan, Bilbon)



Koldo Tapia

## BILBO ETA BERE GERRI-GUNEA

Amonaren eskolan, "Markesaren alaba", "Betroairenak", "Limosnatxo bat" Pello Errota, Txirrita... bertsolaritzaren iturri askotatik edanda munduratu izanik, hainbat joan-etorri beste hainbat satorzulotatik barrena egin, justizia eta zuzentasunaren itsasoan zainak bete, politika eta sindikalismoaren aldamiotan pankartak jarri, akiturik lurrera erori, eta iraganera bisita, eta orain ere dotore "bi alkandora jantzita". Amuriza, bardo garaikideak azaldu du burua eta bertso-eskolari buruzko teoriak praktikan jarri nahi ditu eta ez dakit nola, ezta zertako ere, Bilbon, grisen kuartelaren ondoan zegoen museoan, astean bi aldiz lauetatik seietera topo egin genuen bi Joserra, Jon, Iñaki, Bittor, Trino eta agian beste norbait ere, bizpahiru hilabetez. Jarraian etorri ziren "Santutxuko Bertsolari Eskola", Gernikesa tarbernako ostiraleko afariak eta gaupasak, jintoniketan bustitako bertsoak, Bilboko inauteritan Plaza Berriko saioak, 1982ko Txapelketa Nagusian parte hartzeko ausardia, Ibilaldia edo herriko festaren batean eskainitako gozamina, gu bertsoak osatu ezinik... Eskerrak oraindik ere bertsozaleek jarraitzen duten; horrela, behintzat, gainetik pisu handi bat ken dezaket. Bertsozaletasunak hedadura handia hartu zuen Bilbo eta bere gerri-gune osoan. Hedatuz joan zen nonnahi bertso-eskola deitzen genion taldeak sortuz, parranda galantak gineguz: Algortako eskola, Santurtzi, Durango, Mungia,

Leioa... Garai horretako gautxoriak ziren Joxemari, Iñigo, Xanti, Bego, Karlos... Joxemari artista zen 9 puntukoan. Ekarri handikoa izango zen Ikastoletako bertsolaritza lanke-tari ere garai honetan eman zitzaion hasiera, Jon Lopategi eragile zela.

1983ko abuztuko uholdea mugarri izan zen Bilboko zazpi kaleetan ostiral gauetako bertso-giroan: Gernikesa taberna urak ito zuen eta handik aurrera urak bide berriak egin zituen.

1985eko txapelketa antolatzeko, Euskaltzaidiarekin adostasunik lortu ez izanak 1987an Bizkaiko Elkartearen sorrera ekarri zuen, Bizkaiko txapelketen antolaketa bi urtez behin eginez; hamarkadaren amaieran, Bilboko Udalarekiko elkar-lana bideratu zen, Bilboko ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko; baina bertso-eskolek ez dute izan uste zen garapenik. Garaiak aldatu egin dira; gure seme-alabak pasatu dira ostiral gauetan parranda egitera; egoera askoz ere prekarietate handiagoz ageri zaigu, eta egin-moldeek ez dute zerikusirik mundu berri bat amestu zitekeela sinisten genuen garaietatik. Orain arte bezala, erroak sendo eta gerria bigun duela egin dezake aurrera mugimenduak, sortzaile eta eragileen arteko adostasuna oinarri duela, kudeaketa profesionala kultur proiektuaren zerbitzura jarritz eta kultur ideologia autonomia garatuz.

zegozen konpromisoetan, eten barik bertsolariak egoteko ohitura sortu eben, alde batetik; erakundeekin hartu-emonak be laster bideratu zitueen, bai bertso-ikastaroak egiteko 80.eko hamarkada erdialdetik aurrera, bai bertso-saioak eratzeko. Bilboko Aste Nagusiaren bigarren ekitalditik, bertsoak oso presentzia garrantzitsua izan dau Bizkaiko hiriburuko jaietan: Aratusteetan be bertso-saioa egiten hasi ziren eta, 1985etik, maiatzeko asteburuetan, Udabarriko Bertso Saioak izeneko saio arrakastatsuak antolatu zitueen Udalagaz batera (Bilboko Areatzan, hasieran, eta Zazpi Kaleetako beste txoko batzuetan hurrengo urteetan). Geografikoki ez eze, ikusi dogu bertsoa tratatzeko molde barri bategaz topo egin ebela. Ez ziren bakarrak, horratik, eta laster Amurizaren txapelek eta txapeldunaren liburu eta bultzadek eraginik, bertsolaritza egituratu eta indar barria emon beharraz jabetu ziren.


Alde horretatik, bertsoaren militante legez be hartu leiteke Santutxuko Bertso Eskola. Punta-puntako bertsolariarik emon ez arren, Euskal Herriko eta Bizkaiko lehenengo txapelketetan parte hartze nabarmena izan eben, bai bertsolari moduan, bai antolakuntzari jagokonez.

Jentea joan, jentea etorri, sare garrantzitsua osatu eben, eta aitatutako hiru esparruok ondo landuz, talde izaera be indartzea lortu eben, gaur arruntzat emoten diren hainbat lekutara helduz: esandako Aste Nagusiko bertso-saioak. Aratusteetako koplak lehiaketa antzinako erronkatzat daukie eskolakideek, *coplilla* lehiaketa izatetik, bere kutsu erdaldunagaz eta epaile euskaldun barik, euskara nagusi izan arte, urtero-urtero parte hartu izan dau bertso-eskolak. Horrez gain, Santutxuko Herriko Tabernan egindako afariak, Gipuzkoako sagardotegietan urtean behin, eta Bermeon ikasturte amaieran egindako txangoa eta abar. Joserra Etxebarria erreferente nagusi izan zen lehenengo hamarkadan.

Joserra Bilbaok be hasieratik dihardu eskolaren lemezain, eta tartean izen ezagun asko pasatu dira: Bittor Uranga, Begoña Iturriza, Santi eta Goio Jaka, Trino Azkoitia, Karmelo Landa, Jose Mari Pastor, Maria Angeles eta Agurtzane Alberdi, Juanjo Bastera, Iñaki Lasa, Karlos Ibarzabal, Iñaki Antiguiedad, Jon Sarasua, Joxin Iturrioz, Iñaki Aurrekoetxea...

Bilbo inguruko talde zein erakundeek antzinatek jo izan dabe Santutxuko Bertso Eskolara, edozein egitasmo esku artean zeukiela. Era berean, bertso-eskolak be erantzuten jakin izan dau kanpoan zein barruan zegozen interes eta eskaerei: batzuek euskara trebatu eta hobetu baino ez eben gurako; beste batzuek bertsoetan lagun artean egitea eben helburu; eta ez zen falta plaza eta txapelketetara bideratuta zegoenik. Agentzia-lana kanpoan nahiz barruan, beraz, urterik urte, Bilbora ikastera datozen Euskal Herriko txoko guztietako ikasleek be Santutxun euren lekua topatu izan dabela. Batzuek bazekarreen herritik bertsoaren ezaguera, beste batzuek eskolan ikasi dabe. Erdi eskola, erdi agentzia.

463



### Joserra Bilbao

**Hasierara joanda, zer girotan sortu zen bertso-eskola? Zer helburu izan zenuen?**

Nik uste dot bertso-eskolaren helburua ez zela bertso-bertsoa. Helburu bat horixe zen, baina beste bat zen erdaldun

gune batean euskal talde bat izatea, eta orduan sorreratik bertatik izan zen bertso-eskola atipikoa. Datu bitxi bat: guk bertso-eskola sortu genduenean, oraindino Amurizak txapelik ez eban lortu. Ipin genduzen baldintzak erabat atipikoak ziren ordirako: bertsoetan ikasi egin leitekeela, hasteko,



ze ordura arteko mentalitateak ziren bertsolari jaio egin behar zela.

**Lehenago, batzuk batzen ziren bertsoan egiteko eta entrenatzeko. Bertso-taldeak bazegoen.** Baina ez zen horrelakorik egiten. Bertsolari bako txak bere errima hiztegi sekretua zeukan; bertsolariak jaio egiten ziren, gitxi gorabehera, Jaungoikoak halan esanda. Oteizak esan eban horixe zela euskal neanderthalismoagaz lotura egiteko zubia, eta horreek gauza guztiak. Hori pil-pilean zegoen. Eta halako batean, guk pentsatu genduen: "bertsoak aztertuta, beharbada ikasi daitezke". Hori, bat. Gero, bertsoan egiteko, ez da zertan egin euskalki eta lokalismoetan. Posible da euskara batuan egitea. Hirugarrena: posible da, hizkuntza jakinez gero, euskaldun barri batek be bertsoan egitea. Eta gero, laugarrena: eta zergaitik ez andrazko batek, euskaraz badaki, bertsoan egin? Horreek lau baldintzak sasoi haretan erabat atipikoak izan ziren eta, gainera, jente asko asaldatu egin zen. Baina kasualitatez urten eban Amurizak, eta Amurizak betetzen eban horreetariko baldintza piloa: batuan kantatu eban; prest zegoen jenteari irakasteko... Beraz, posible zen hori egi-

tea, eta euskaldun barri batek batuan bertsoan egiten badaki, andrek zergaitik ez?

Amurizak taldetxo bat batu eban eta horko denak orduantxe hasi ginen animatzen. Gure salto publikoa UEUn izan zen, zelanbait, unibersitate maila baten. Hortxe egin ginen zelanbait ezagun. Bertso saio bat egin genduen, *amateurren saioa* ipini genduen Olariagak egindako kartelean, eta itzelezko kritika *Argia*-tik, Joxerra Etxebarria praka laburretan agertzen zelako. Polemika bat egon zen, hori lotsa galtzea dela, baina beno, umil-umil aurrera, eta, nik uste, askorentzako eredu izan ginen. Orduantxe hasi ziren beste batzuk, Amurizaren gidaritzapean, gure bertso-eskolaren antzekoak egin guran.

Guk emondako beste pauso bat izan zen bertsolaritza bera oso serioan hartzea eta, militantzia moduan, txapelketara agertzea. Orduan Euskal Herriko txapelketa egiten zen, eta gure eskolako dozena erdi han gengozen: Joxerra Etxebarria, Santi Jaka, Goio Jaka, Joxemari Pastor (berau izan zen, nik uste, lehenengo bertsolari euskaldun barria)... Eta gero hilean behin afariak egiten hasi ginen. Atxuriko Guerniquesa tabernan egiten genduzen, eta Amuriza eta Lopategi gonbidatzen genduzen. Hortxe hasi ginen biltzen Bizkaiko denak, UEUn ezagututakoak gehi Bizkaian gogoz zebilen jentea, Trino Azkoitia, Koldo Tapia... Gero gure eskolatik beste leku batzuetan be sortu ziren. Algortan hasi zen mogimendu bat sortzen, eta Trino han geratu zen Algortakoekin, nahiz eta gero afariak egiten genduzen. Beste batzuk beste leku batzuetan bardin. Hau da, Santutxutik urten eban beste eskola batzuk sortu zituen jentea be.

#### **Zelan izan zen Santutxu bilgune jente horrentzat?**

Barriak albiste legez urten eban: bertso-eskola bat sortu genduela. Gero Amurizagaz egin zen ikastaro hori, eta orduan bertson zegoen jentea. Jon Aurre eta horrelako jentea joan zen Amurizaren ikastaroetara. Guk antolatzen genduzen afarietara jente horixe biltzen zen. Eta hor halako talde



Joseerra Bilbaoren argazki-bilduma

Santutxuko bertso-eskolako kideen afari bat.

zabal bat zegoen, eta hortixek sortu ziren beste bertso-eskola batzuetarako hasiak.

### **Hasikeratik helduentzako bertso-eskola izan zen, beraz?**

Guk ez genduen planteatu be egiten eskola adineko jentearentzat egiterik. Hori geroagoko pausoa izan zen. Berez etorri zen, Karmelo ikastolan biltzen ginelako, eta gure taldeko batzuk, Juanjo Basterra, Joxerra Etxebarria-eta, hango gurasoak zirelako; orduantxe egin barri zen, gainera, eta bertan batzen ginen. Pauso bat izan zen, eta bertan, Karmelo ikastolako gazteekin hasi zen Joxerra Etxebarria. Batzuetan neuk laguntzen neutsan, baina batez be bera izan zen. Horixe izan zen gazteekin lehenengo aldiz eskola egiten hasi zena irakaskuntza ofizialean.

### **Zer urtetan izan zen hori?**

84-85a izango zen.

### **Txapelketara joatea konpromiso edo militantzia moduan aitatu dozu**

Guk militantzia moduan parte hartzen genduen txapelketan. Antonio Zavala uko egitekotan egon zen bertso-txapelketako finaleko liburu ateratzeari, Amurizak batzuetan ez dakit zer esaten ebalako, "kristorenak" eta horrelako berbak. Bestetik, ez zegoen prest H-rik erabiltzeko Auspoa liburutegian, eta Amurizak eskatzen eban bere bertsoak batuan zirela eta H-a sartzeko. Azkenean, Amurizak, liburu ez oztopatzearen, amore emon eban eta bere bertsoek be Zavalaren erizpidez idatzita urten eben. Hurrengo txapelketa egin zen, eta hor be nahastea. Euskaltzaindiak gauzak apur bat ilunpean-eta egiten zituen. Bertsolariei gustatu ez eta hasi zen bertsolarien artean mogimendua sortzen. Hortixek sortu zen Bertsolarien Elkarte. Gu erdi-erdian egon gara prozesu horretan guztian. Eta gero hortixek sortu zen Bizkaiko txapelketak egitea, barriro ekitea antzina itzitakoari, eta hor, kopurua egiteko, denok apuntatzen ginen blokean txapelketara.

### **Halandaze, egurra bertsoetik kanpo zebilzen bertso-aditu edo teorikoen aldetik, baina bertsolari munduagaz beti hartu-emon ona?**

Bai, bai. Gure lana bertsolaritzari pausoa emon eta aro ilunetik urteteko izaten zen. Basarriren arotik aurrera egiteko. Behin sartuta, lortu genduen UEU onartzea, gai moduan bertan klaseak emoteko; zelanbait bertsolaritzari maila unibertsitarioa emotea, gero elkarreak sortzeko eta abar. Munduan izan den, zelanbait esateko, lehenengo bertsolari elkarte geuk sortu genduen: Bizkaiko Bertsolari Ikasleen Elkarte. Hortxe sortu genduzen Bizkaiko txapelketaren oinarriak, baita dirulaguntzak eta guzti hori eskatzeko be. Gero Euskal Herriko Bertsolari Elkarte jaio zen. Ez hortik, baina geu izan ginen lehenengoak gauzak ofizial egiten, eta ez da kasualitatea Koldo Tapia egotea hor, Santutxun. Gero Bizkaiko Elkarte eta gero beste pauso batzuk emon ziren.

### **Aitatu dozuz UEU eta besteak, Euskal Herrira begira, baina Bilbon eta Santutxu auzoan be eragina izan dozue, ezta?**

Bai. Geu hasi ginen bertso-plazak sortzen Bilbon. Zer egiten genduen? Ez dakit zer jaialdi zela eta, joaten ginen bertsolari batzuk bertso batzuk kantatzera, agur moduan; ez dakit nongo jaiak zirela eta, guk eskaini: "bertsolariak gura dozuez?". Joaten ginen eta batzuetan egoera kafkianoak ziren: Arabellara joan eta, lehenengo, andaluz batek koplak batzuk kantatzen zituen, espektakulu erdi flamenko bat. Gero "y ahora van a cantar unos versolaris", eta urtetan genduen guk, geutariko bat erdi gaijartzaile jarrita. Baina plazak egiten genduzen. Hortik gauza asko etorri ziren: bata, udaletxeetan jente abertzalea zegoela aprobetxatuz, Bilboko jai herrikoak sortu eta bigarren urtean egin genduen eskaintza. Aurrerantzean, urte guztietan egon da Bilboko jaietan egunero bertso-saioa. Geu ginen Euskal Herriko Bertso Elkarte Bilboko ordezkari be, hau da, Txapelketa Nagusiko finalerdi bat ez dakit non egin behar

bazen, topatu lekuak, konbentzitu Bilboko Udala, Arriaga horretarako erabiltzeko... Ze Arriaga perla bat zen eta bertsoaritzak emoten eban zikinduedo egingo ebala, baina han be sartu, finantziaritzinoa lortu, eta gauza horreek guztiak eskolaren esku egoten ziren. Beti esan izan dogu gure bertso-eskola erdi eskola erdi agentzia dela.

Bizkaiko Txapelketa antolatzen ibiltzen ginenok erdiak baino gehiago geure eskolakoak izaten ginen. Bost ginen antolatzaileak: Koldo Tapia, ordurako eskolatik kanpora, baina eskolan ibilia, Mungiako Karlos Ibarzabal, Begoña Iturriza, Juanjo Bastera eta neu. Geu bostok ginen Bizkaiko Txapelketa antolatzen genduenak. Eta txapelketa antolatzeaz gainera, beste kontu batzuk: Balendin Enbeitari omenaldia; bere liburua be Balendinek idazten eban, baina Joserra Etxebarria eta biok ibili ginen denpora pilo batean liburua orrazten. Hau da, ez zen eskola bakarrik. Oro har, bertsoaritzagaz zerikusia zeukan guztia pasatzen zen gure eskuetatik.

466

#### **Inguruko erreferentzia izan zarie, beraz, auzoko ikastolan, irakaskuntzan, alfabetatzean...**

Guk beti emon dogu geure burua AEKko partaide ginelakoan. Prozesu horretan gengozela, Euskal Herriko Elkarte sortuta, Bilboko Udalean HBko Koldo Celestino egon zen Kultura arduradun. Beragaz batu Koldo Tapia eta biok eta: "irakaskuntzan egin daiteke zeozer"? Berak: "nik diru bat atera neike". Eta holantxe hasi ginen eskola publikoetan be. Hortixek sortu zen Bizkaiko Ikastola Elkartean bertso-atala gura izatea be. Gogoan dot, lehenengo momentuan, politikoki boteretik hurbilago zegoelako-edo, Jon Azpillaga ipini gura ebela, eta guk esaten genduen, geure ustez, Jon Azpillaga pertsona eta bertsolari ona zela, baina pedagogo moduan igual ez leukeela funtzionatuko, eta handik edo hemendik, Jon Lopategi hartu eben.

#### **Horren ondorioz, jente asko hasi zen etortzen? Bertso-eskolak beti eduki dau, txapelketarik bada-**

go, eskolako jentea txapelketarako prestatzea, eta gaur, zorionez, bertsoak Bilbon funtzionatzen dau gu barik, eta beste leku batzuetara heldu da berez. Baina orain hamar urte arte, bertsoagaz zerikusia zeukan dena pasatzen zen Bilbon geure eskuetatik.

#### **Amaitzeko, Juanjo Basterren papera zein izan zen?**

Juanjo Bastera ikastolan gengozelako sartu zen bertso-eskolara. Behargin itzela zen, batez be, gauzak aurrera eroateko azpiegitura behar zenean, bere laguntasuna, ingenioa eta hori guztia egoten zen. Gauza asko, berez guk egingo ez genduzenak, "hau egingo dugu?", eta: "bai, koño!". Eta hemendik edo handik egin eta egin egiten zen. Holako intelektualoideon artean zegoen behargin bat zen, baina haren laguntasuna sarritan ezinbestekoa zen, gauzak aurrera ateratzeko. Hau da, guri bururatu be egiten ez jakuzen gauzak, haren adorez, egin egiten ziren. Oso talde estua egon ginen, eta talde horretan ezinbestekoa zen Juanjo.

## ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA (ALBE)

Santutxutik abiatutako bideak laster izan eban lehenengo geltokia Algortan. Bilboko antzera, gerora jakin izan da Getxon be izan zirela bertsolariak, orain dela ez hainbeste. Baina bertso-eskola sortzeko orduan, bertsoa urrun zeukan testuinguru erdaldun samar eta erabat urbanoan kokatu behar dogu, 1980an. Getxora ezkondu eta Getxora beharrean etorritako Andoni Iriondo eta Trino Azkoitia izan ziren Algortako Bertso-Eskolaren sortzaileak. Bilbon hasitako ikastaro hareetatik, eta euskarak eta euskal kutsuko ekimenek sasoian zeukien indarra baliatuz, halan daukie gogoan Algortako eskolakideek sorrera, euren webgunean azaltzen dabenez: Trino Azkoitiak eta Andoni Iriondok elkar ezagutu eban, halanbeharrez, Bilboko Erakustazokan, euskararen alde egin zen jaialdi batean (*webgune honetako karatulan gure logoa osatzen duten pieza biak ageri dira, labirinto moduko batean sartuta, bueltaka, harik eta elkar topatu eta bat egiten duten arte. Pieza bi horiek Andoni eta Trino irudikatzen dute, eta piezen elkartzea bien arteko elkar ezagutzea*).



Ezkerretik, bigarrena Trino Azkoitia, Koldo Amezaga eta Uxune Iriondo. 1992-93 ikasturtean.

Lehenengo talde ha Algortako Zabala herri-ikastetxeko gela baten hasi zen batzen, martitzenetan. Jente euskaldun eta euskaltzalea ziren, eta Trino Azkoitiaren gidaritzapean, elkartu eta kantatzea eban teknika nagusi, jan-edanaren falta barik, askotan.

1981erako, San Nikolas ikastolara emon eban jauzia, Xabier Agirregomezkortari esker, eta hasierako talde haren oihartzuna inguru osoan zabaldu zen, ikastolari esker. Leku-aldatzeak eskolaren izaera bera be aldatzea ekarri eban, beraz. Aurreko talde natural antzeko haren orde, eskola formalagoaren beharizana zegoen, eskolara etorritako jente barriak halan eskatuta, baina baita ikastolak berak, bere baliabide ugariekin, halan eskainia be, beste aldetik. Arbela, bertso-idatzia eta magnetofioia bertso-eskolako tresna bihurtu ziren.

1985era arteko epean, eten bako goraldia izan eban Algortako bertso-eskolak, herrikoak batetik, eta, Santutxukoaren antzera, Bilbo edo Leioara ikasle joandako unibertsitariak, bestetik. Hirurogei ikasle izatera heldu zen, eskolatik kanpo be koadrila ziren lagun-talde osoak etortzen ziren eta. Azkenean, bertso-talde bi egin behar izan zitueen, hasi barriak eta bertsoan zebilzenak bereizi ahal izateko. Mungiako Taket eskola sortuko eban Karlos Ibarzabalek hartu eban bigarren taldearen ardura.

Goraldi guztiek beherako bidea hartzen dabenez, 80.eko hamarkada haren bigarren erdiak aldaketa ugari ekarri eban: zelanbait, euforia giroa geldotuz joan zen, hain indartsu hasitako jentea eskolatik urrunduz. Iturria ez zen agortu, zorionez, Trino Azkoitiak eskolako lehari eusteari eskerrak, bazegoelako, batetik, jadanik gitxieneko taldea osatuta, bertsoan bazekiena eta bazebilena; eta, bestetik, joandakoen kopuru berean izan ez arren, tantarik tanta, eskolakide barriak be sartu zirelako.

Hasierako kide barriak eskualdetik eta euskalte-gietatik bazetozen, bertsoak gitxi behar izan eban, aurrerantzean irakaskuntzan indarrez sartzeko. Urte batzuetan baino murriztuago ibili arren, gogotsu hartu eban erronka euren gain Algortako Bertsolari Eskolakoek, eta inguruko ikastoletan osatu eban gero bertso-eskolaren zutabe bihurtu-ko zirenen taldea. Ez zen berehala jazo, baina hazia polito erein eban.

Joseba Santxok ekin eutsan batetik besterako irak- kasle lanari, baina, Sopelan bakarrik berrogei ikasle izanik, eta Leioa eta Erandiotik be eskaria egonda, laster behar izan eban laguntasuna. Halan, Josu Landeta be hasi zen eskolaz kanpoko beharrean, eta eskolako emoitza barria izango zen haretako itu- rriak ahalik ondoen jagon zitueen, etorkizunerako beharrezko irudimena landuz.

Halan, esparru barriak eta landu bako bideak urra- tzea izan zen hurrengo urteetako jarduna. Ikaste- txeetako arrakastagaz batera, bertso-saio, plaza, irratsaio eta bestelako ekimenetan buru-belarri sartu ziren, eskualdeko prentsan, kultur eta udal elkarte- ekin hartu-emonean. Hango emoitzarik ezagunene- tarikoa Balendin Enbeita bertso-paper lehiaketa izan zen: lehiaketa bai, baina hainbat mailatan, sari ugari banatzen zen adinen arabera; eta diruz polito hornituta egoteaz gain, sari-banaketa dotore askoa antolatzen eban Neguriko Errota Zaharra jatetxean. Ez eban albo batera itzi bertso-paper-lehiaketek sarri izaten daben hutsunea be, eta lan sarituak liburu itxurosoan argitaratu zitueen.

90.eko hamarkadan indar barria hartu eban, beraz, geroago eta abiada bizkorragoan. Algortako Bertso- lari Eskola ALBE elkarte bihurtu zen 1995ean, lege-



Joseba Santxo Sopelako Ander Deuna Ikastolako ikasleekin. 1990-91 ikasturtea.

aldetik kultur elkartearen izaera hartuz. Hasieratik egon zen asmoak hamabost urtean itxaron behar izan eban, baina denporak haretara behartuta, legearen bidea hartu eben tramite eta ordainketa kon- tuak egiteko (diru-laguntzetarako bardin). Bertsolari Elkartea Bertsozale Elkarte bihurtu zen sasoian, Algortakoak Bertsolari izenari eustea erabagi eben: horixe ei zen eskolaren oinarria.

Aurrerantzen be, bide luzea egin dau ALBEk, eta, beste elkarte batzuetan ez legez, ezin esan txar- rako izan denik eskolaren "ofizialtzea": Martitze- netako erritmoari eutsiz, saio ugariaren ardura dauka bere gain (20tik gora urtero), logoa eta webgunea be ipini ditue; eskolaz gain, ikastaroak be antolatu, euren lokala lortu, eta AHOBien gala, eskolaren eten bako bizibarritzearen seinale.

.....



### **Joseba Santxo**

**Andoni Iriondo eta Trino Azkoitia garrantzitsuak dira, baina jente gehiago be behar- ko zen.**

Testuinguru hori inportantea dok, ze euskararen booma esaten deusogu beti. Euskara oso modakoa zoan orduan, gau-eskolak bere bai, eta ikasle asko jegoazan; bizitasun handiko sasoia izan zoan; jente guztia prest euskararen aldeko ekitaldietan parte hartzeko. AEK zala, EHE zala, oso jentetsuak eta oso biziak izaten zoazan. Eta hori honen alderako zoan. Orduan, eskola sortu eta ahoz aho zabaldu zoan. Lehenengo, lagun batzuk batzen dozak hor eta kantatu, aparteko lanketa barik, kantatu bertso-zaharrak-edo; piko- teoa bere egoten zoan, (Trinok beti esaten joan hori, sagardaoa eta gaztaia tarteko zirela), halako modu naturalean. Lehenengo batu zoazan inguru- ko euskaldunak, euskaltzaleak eta bertsozaleak,

eta hurrengo urteetan, 81ean, 82an hasi zoazan hurbiltzen euskaltegiatik, ikastoletatik, eta abar. Talde natural horretakoak helduak zoazan eta izen batzuk bajekoazat buruan, Azkargorta, Ares- ti... Beste batzuk aurpegiz gogoratzen joazat.

### **Lehenengo taldea ordurako osatuta?**

Bai. Lehenengo horreek, nik uste joat, egon zoa- zan urte baten edo bian. Gero beste batzuk, gau- zak forma aldetik egituratzen joan ahala joan zoa- zan izten. Dana dala, ordukoa eskola izaten zoan, eskola formala, arbelean, errima eta teknika lan- tzen zoan, bertso-papera bere bai, audizinoak bere bai, baina gero tabernakoa, bigarren zatia egoten zoan beti. Ez zoan egon saltorik lehenen- gotik bigarreneira. Bai egon zoan, formalismo aldetik, aurrerapausoa: kopla zelan osotu, zortzi- koa eta abar, azaltzen zoan.

### **Euskaltzaleak ziren lehenengo eskolakide hare- ek, bertsozaleak baino gehiago?**

Euskaldunak, euskaltzaleak eta apur bat bertsoza- leak. Bai, bertsozaleak bere bai, ez bertsolariak; batzuetan bertso batzuk bota-eta, horixe zoan hasikerako taldea. Lehenengo lokala Zabala herri- ikastetxekoa izan zoan, eta holako lokalean haze- nean, badakik, arbela badaukak eta emoten jok gonbidatu egiten hauela teknika apur bat emoten, oso era naturalean. Baina guk susmoa baino gehiago jaukaagu, arinago, 80a baino lehenago hasiko zirela honeek batzen. Bertsoan ez jeude- an egingo beharbada, baina kantatu eta bai.

### **Hurrengo urtean, San Nikolas ikastolara pasatu zen. Zergaitik?**

San Nikolas ikastolan aitatu beharreko beste ekin- tzaile bat egon zoan: Xabier Agirregomezkorta. Zale-zalea izan zoan eta San Nikolas ikastolako administratzailea zoan. Harekek erraztu joan harako pausoa. Han, bere babesean, ikasgelak eukiten genduazan, gimnasialekua bere bai, eta askoz bere erosoago paratu gintzoazan.

Handik aurrera, badinoat, handik urte bira-edo hasi zoan asko zabaltzen euskalategi mailan eta, batez bere, gazteen artean. Gazte asko apuntatu zoan. Pasoko jente asko bere bai, unibertsitateko ikasleak eta. Izen batzuk botako deuzat: Andoni Iriondoren alabak, hirurak, Nagore, Leire eta Uxune, Josu Amezaga, Iñigo Aranbarri, gero Joxe Belmondo, Joxe "Erromo" esaten geuntsana, itzultzailea. Hor koadrila bat sortu zoan ikaragarritzko indarra ekarri ebana, eta harek eskolari beste dimentsino bat emon jeutsaan.

#### **Gazteak bertsoan etorri ziren, ala irakasleakaz ibiltzen ziren?**

Ez, hor ikasleakaz. Guk 81eko datuak bajaukaguzak. Ikasle asko jegoan, 40tik gora, asko eta asko ikasleak, unibersitateko ikasleak, baina gazteak, gehienbat: Laura Mintegi, Antton Azkargorta, Bingen Zupiria, Santi Jaka eta horreek zerrenda polita osatzen jeudean. Irakasle, lehenengotan, Trino izan zoan. Etxetik eta berezkoena, eskolatuena, bera ibili zoan hasikeratik dinamizatzaile, eta gero Karlos Ibarzabal sartu zoan, hirugarren urtean-edo.

#### **Amurizaren txapelak, bere liburuek, zer pisu izan eben?**

Guretzat oso zeharkakoa izan zoan. Han eskolan ez zoan egiten Amurizaren teoriaren lanketarik; igual komentario mailan bai gero, tabernan. Han sartu jeuskuean bertsolari egiteko har hori, zuzenean. Amuriza gora-behera, gu ez gintzoazan adituak, han sartu ziranak, danak ikasleak zoazan. Amurizak pisua eduki joan, ez bertsolari moduan bakarrik; politikari moduan bere bai, eta errespetu moduko bat hedatzen zoan.

#### **Beraz, sasoi haretan giroa sortzeko zen gehiago, edukietan galdu barik?**

Hori dok. Edukien lanketarik ez genduan egin, beti-betiko eskola zoan, Trinoren eskola natural hori. Trino artista dok, komunikatzaile ona eta gero, pedagogia mailan bere, pazientzia handikoa. Imajinatu han jente guztia eta kopla bat egin

behar txandaka. Pazientzia handia jeukaan eta oso umoretsua zoan. Ni beluago sartu nintzoan eta Trinok segitzen joan. Irakasle moduan, oso oso kontuan hartzekoa izan dok beti.

#### **Ikasleen sasoi hori, booma aitatuta, hori gatxa bada, horri eustea gatxagoa izaten da.**

Bai. Gero beherakada egon zoan, euskararen ostean bere, boomaren osteko efektua. Euskararen bai, eta gurean bere bai. Beste planteamendu batzuk agertzen dozak: "hemen gabiltzez, zetako?, ezin helduz goaz", eta jente batzuk badakik, ikasle-jentea azterketa sasoiaren-eta, urtetik urtera igarten zoan. Ez zoan urte bateko beherakada izan, progresiboa izan zoan, ia igarri bere ez egiteko modukoa. Apurka-apurka, geroago eta gitxiago, eta halako baten: "hi! bost bat gajagozak hemen", barra bueltan kontu-kontari, baina bueno, beti egoten zoan corpus bat, horrerri eusten eutsona. Lehenengo zerrenda luze haren eusleen artean, hor jagozak Iriondo, Josu Amezaga... horreek eusle onak izan zoazan. Gero geu agertu gintzoazan; euskaltegiko irakasleak hasi gintzoazan joaten, baina tangadaka; ikasle mailan, mintza-praktikako jentea etorten zoan; alternatiba polita zoan, euskararen inguruan segitzeko

#### **Eta bide batez bertso zaletu.**

Beste batzuk guztiz bertsozaletu zoazan. Hor egon zoan aurreko katebegia, Nagore, Josu eta horreek han jegoazan oraindino. Gu beste batzuk, nire sasoiokak, Iñaki Benito del Valle, neu, Josu Landeta igual apur bat geroago... Batzuk agertu gintzoazan eta besteek alde egin egin jeudean. Nik uste horrexeri begira egozala. 85ean edo izan zoan hori.

#### **Bertsoa ikasi ete zeitekeen eztabaidaren oihartzunik heltzen jatzuen?**

Han ez zoan debaterik egon. Han printzipio haretatik abiatu egiten zoan: bertsoan ikasi leitekek. Trinok horixe demostratu jeuskuan bere jardunaz. Berak bertsoan egiten joan, guk ikusi, eta: "bertsoan holan egiten da, taka-taka", arbelean, eta

horixe sinestu genduan lehenengo egunetik. Ez jegoan bertso tradizionorik. Bajegoan aurreko belaunaldia, gero jakin dogunez, baina orduan: "hauxe dago? ba, ondo etorria!". Lehenago tradizioa egon dan lekuan, egongo zolan kolisino txiki hori; gurean ez, behintzat. Gurean, dana barri.

### Kanpoko hartu-emonak zelan eroaten zenduezen?

Nahikoa goizetik, 82-83tik, bajaukaguzak doku-



Unai Elorriaga

### AKORDATZEN

- 1- Akordatzen naz hamazortzi urte bete eta zazpi hilabete eta hamalau egun geroago heldu neutsala eskutik bertsoari. Esku biguna eukan. Eta gogoratzen dot atzamar biren artean izerdia eukala, izerdi hotza, lau gradukoa.
- 2- Gogoan daukat ikastolako frontoian batzen gintuala bertsoak. Hantxe topatu neban, beste bertso baten eskutik, umemoko bat, bederatzi urtekoa: mister Alfredo Paia. Umemoko bi alkartu ginan han: bederatzi urtekoa bata eta hamazortzi urte, zazpi hilabete eta hamalau egunekoak bestea.
- 3- Akordatzen naz batzuetan etorri be ez zala etorten irakaslea, eta han gengozala gu, umemoko biak, bertsoaren eskuari helduta, ordu bi bertsoa gora eta bertsoa behera. Gogoratzen dot bertsoa zer zan be ez genkiala seguru.
- 4- Jendaurrean bota neban lehenengo bertsoa zazpi puntukoa izan zala gogoratzen dot, eta Fredik buruz ikasi ebala.
- 5- Akorduan daukat ikaragarri txarto pasatzen nebala saioetan eta bihotzak egiten eustala tank-tank.

mentuak eskolan. Egin zolan ahalegin bat diru-laguntza lortzeko; elkarte egiteko asmotan bere bili zoazan, baina ez zolan ezer zertu. Hor Andoni Iriondo aitatu behar dok, oso trebea zolan berbetan-eta, horrelako lekuetan ibilten ohituta. Berak hartu joan arlo administratiboa, goiz-goizetik.

### Eskola moduan, plazak zeuek topatu zenduezen, eurak etorri jatzuezen?

Gure lurra landu bakoia zolan, eta orduan, alde



horretatik zeozer antolatzen bazen, euskaren alde, hi!, bertsolariak behar dirala?, Nagore eta Josu, hurrengoan hau eta bestea. Orduan plaza mordoa egoten zozan. Askotan, bertsoa bigarren mailako zera zozan, ez zozan bertso-saioak, batzuk bai, baina gehienez, bertsoa atxakia zozan. Edozein ekitaldi kulturaletan, bertsoa bota eta listo. Baina saio asko egiten zozan.

#### **Hasikeratik egon zen hori, saioen egarria?**

Saioak 83an edo kalkulatu joat. Nagore eta honek joaten zozan saioetara, bueno, saioen bat edo beste, omenaldiak eta abar, asko. Nik gogoan daukadan lehenengo saio formala, Bateginik kanpainan, Sopelako frontoian egindakoa dok. Hor jagozak Josu Amezaga eta Nagore, eta gu barriak, Iñaki Benito del Valle, eta neu, eta gero Trino. Trino guztion aita eta irakaslea.

Lehen esandakoa: guk Trinoren eskola hartu genduan neurri handi batean, ez horrenbeste Amuriza eta teorizazinoa. Hori bere bai, baina, azken batean, han aurrean Trino eduki genduan. "Makina bat bertso entzundakoa nok ni!", esaten joan. Ha zozan naturala, eta ederto esplikatatu euskunez, maitemindu naturaltasun haregaz. Hori, neurri handi baten, Trinoren meritu pertsonala dok.

#### **Erreferente izan zen eskualdean, beraz?**

Argi eta garbi, eskualde osoan. Berangotik edo Urduliztik bere etortzen zozan. Erreferente kulturala zozan, bai. Eta gu sartu ginanean, entzunda gengoan eskolarenak; dinamikoak zozan, eta ekintzaileak. Ibili jebiltzezan.

#### **1985 inguruan hasten da bertsoa eskola munduan sartzeko. Zelan izan zen zuen kasuan?**

Konturatu gintzoazan, 87an-edo, batzuek itzita, eta beste batzuk izteko bidean: "ostra, eskolea geure eskuetan jagok! Ez bat, ez bi. Geuk aurrera egin ezik, hau bajoak". Orduan hasi gintzoazan planteaten: hau zabaldu behar bada, zelan zabaldu? Ikastoletara joan beharko da, umeak eta gaz-

teak dabiltezan lekuetara. Eta halantxe hasi gintzoazan planteaten eskoletan bertsolaritza emotea. 89an izan zozan hori. Algortan San Nikolasen hasi gintzoazan, Leioan, orain Betiko dok, lehen Gobela zozan, eta Ander Deunan, Sopelan. Harre- ra ikaragarria izan zozan.


Nagusien eskolak martitzenetan izaten zozan, batu hiru-lau lagun, batzutan barrura sartu bere ez; tragoa hartu kanpoan eta kito, bota bertso batzuk. Baina, batez bere, adorea hartu genduan eskola-umeak ikusita. Sopelan 40 ikasleto, estra- eskolar modura, eskema guztiak hausita, antzer- kian lau, bestean zazpi, eta gurean berrogei. Eta ezin atenditu. Neu hasi nintzoan, eta problemak eduki genduzan Sopelan. Orduan egiten genduan formalenaren konplizitatea hartu: "Mirentxu! Eto- rri, egon honekaz eta abisatu eta ni"... Hiru talde, hamabost lagun, Algortan beste hogeit bat, ikasle mordoa, eta ilusinoz. Holantxe ibili nintzoan pare bat urtean neu bakarrik, eta hirugarrenean errele- boa. Neu hasi nintzoan, Iñaki Benito del Vallek hartu jeustaan Getxokoa, Geroa. Gero Josu Lan- detak Sopelakoa eta Erandion bere hasi zozan. Momentu batean eskualde osoa atara genduan. Hurrengo galdera dok: eta handik eskolara? Batzuk bai, baina ez larregi. Baina bitxi- ena dok orduan erein genduan hori urtekarrene- ra agertu zala. Peio Unzurrunzaga, Josu Arroyo, Payatarrak, horreek danak etorri zozan gero, pare bat urtera.

## DURANGOKO BERTSO-ESKOLA

Durangokoa dogu Bizkaiko bertso-eskoletan zaharrenetarikoa eta, gora-beherak gora-behera eta aldaketak aldaketa, Iurretako eskola bihurtuta, gaur arte iraun dau. Bertako kideak data zehatzetan galdu arren, badirudi frankismo osteko lehenengo urteetarako, bazegoela Durangon bertsoetarako batzen zen lehen taldetxo bat. Jesuitetan batu ohi zen eta urtebete inguruko ibilbidea izan eban Anjel Mari Usaola *Kapelak*, *Elgetzuk*, Juan Mari Areitiok eta beste batzuek eraturako taldeak.

Asmo ha bere horretan gelditu bazen be, ez eben bertso-eskola osatzeko gogoia baztarrean itzi, eta Durangoko bertso-eskola osatuko eban multzo

sendoa eratu zen hurrengo urteetan, Kurutziaga ikastolan, Kapelaren gidaritzapean. "Urtebete lehenago-edo, izan zen ahalegin bat horrelako zer edo zer egiteko, eta elkartu ziren, baina ez zen bertso-eskolarik mamindu. Kapela bera, Juan Mari Areitio "Gaztelu", Elgetzu, hareek batu izan ziren, baina ez eban emon holango fruiturik. Haren ostean, Ikastolako irakasle mordotxo bategaz ibili zen kontaktuan Kapela. Eta hurrengo ahalegin baten, barriro zale gehitxoagori deitu euskuen, zabaldu egin zen apur bat deia. Kapela, Kristina eta neu egon ginena, bertako irakasleren bat, gero plazarako biderik hartu ez ebana, Mari Tere Zugaza-Artaza, Goio Eguren, Mari Asun eibartarra, gai-jartzaile ibili dena, Jabi Isasi, irakaslea, UEUko zuzendari ibilitakoa, eta abar", gogoratu dau Justo Alberdik.



Ezkerretik, A.M. Aldekoa-Otalora, J. Urbina, A. Imaz, J. Jaio (kantuan), K. Mardaras, X. Elxebarria, Begi, I. Erzilla eta, eskumatik bigarrena, A. Erzilla. Durango, 1986-1-12.

Ikastola eta euskarazko alfabetatze eta euskalduntzearen inguruan zebilen gau-eskolako jenteagaz hasi ziren bertso-eskolan. Bertsoa ez zen erabat ezezaguna, euskaldunak ziren eskolakideak, eta herriko jai eta ospakizunetan ikusita zeukiezen bertsolariak. Baina eremu erdaldunagoko lekuetan legez, euskara bera zen hasierako asmoa bertsoa baino gehiago: frankismo osteko urteetan ohikoa zen ezagutzeko gogoia, euskal kultura sakontzea eta hizkuntzaren baliabideetan ikertzea, eta horrelaxe ekin eutsien hiru hileko ikastaroari.


Kapela izan zen hasieratik bertso-eskolako eragile eta irakaslea. Askotan ohi denez, asmo handirik bako egitasmoak heltzen dira urrunen, eta Durangon be, Gabonetan ikastaroa amaituta, beste hiru hilean jarraitzea erabagi eben. Ordurako, teoria apur bat bazekieen, neurri eta doinu

batzuk ezagun zitueen eta puntuka be egiten eben. Eta behin Aste Santura arte helduta, beste hiru hilean be jarraitu eben, ikasturte naturala amaitu arte, ordurako lehenengo bertsoak osatzen zitueen eskolakideek.

80.eko hamarkadan, ibilbide garrantzitsua izan eban: lehenengo ikasturte haren ostean, Jon Lopategigaz beste ikastaro bi emon zitueen, bertsoaren oinarri teoriko sendoagoak jasotzeko, eta Xabier Amurizak idatzitako materiala be erabiltzen eben bertso-jardunean. Soldadutzatik itzuli eta bertso-tarako irrikan zegoen Andoni Larrea be orduantxe hasi zen Durangoko bertso-eskolan: "eguaztentean batzen ginen, gaueko 10:30etik 12:30era. Lopategi bera joaten zen, eta han Justo, Kristina, Kapela, Ibon Ertzilla, Dimako Jabier Etxebarria, Emilio, Mari Karmen Meñika, koadrilatxo bat batzen ginen. Nik han urte bi egin nituen, 82-83 eta 83-84 kurtsoak".

Handik gitxira, ikasitakoa plazaratu beharra be ikusita, kanporako jauzia egin eben: Durangoko Andra Mari elizpeko saioak bertsolari askoren lehen (eta baten edo besteren azken) plaza izan ziren. Domeka goizetan izanik, arrakasta handia izan eben hasieran.

Ikasturtean zehar, hilero egiteko ohitura hartu eben zenbait urtez, eta beste bertso-eskola batzuekin be izan eben hartu-emona, Durangora bertsoetan etortzeko gonbita eginez. "Eskola asko ekarri genduzen: Santutxu, Mungia, Algorta, Markinaldea, giputzak be bai, Danel Goikolea, Sarasua eta Almen eskolakoak, nafarrak be bai. Gero Araba partekoak, Rikardo Gonzalez de Durana, Serapio Lopez... horreetariko lau bat edo ekartzen genduzen, eta eurekin nahastu hemengoak, eta gaijartzaile, hemengo bat. Gaiekin, gitxienez, sei bat baginen, eta besteok oholza ipini, mikrofonoa eta... Orduan meza bi egoten zirela aprobejxetan genduen. Batetik urtetan ebenean, puntu-puntu



Santi Belaren argazki-albuma

K. Mardaras kantuan, Begi erdian eta atzean, ezkerretik, J. Alberdi, A. Begoña "Paluko" eta R. Zugaza-Artaza, Arriandin.

saioa hasten genduen domeka goizetan, eta jentea geratu egiten zen” dino Justo Alberdik.

Garaiko bertso-zurrumbiloan, bete-betea sartuta egon ziren, beraz, geroko Bertsozale Elkartea sortuko eban taldeagaz hartu-emon estuan, Kapela, Kristina Mardaraz eta Justo Alberdi. Mungian eraturako Taket bertso-txapelketan eta Euskadi Irratiak antolatu eban Herri Artekoan be parte hartu eben urte hareetan. Aitatu dogu Kapela bera izan zela Durangoko bertso-eskolako gidari. Hurrengo urteetan asko hazi zen, ostera, eta talde bi eta azkenean hiru egin behar izan zitueen, beste horrenbeste irakaslegaz: eskolan sartu barriekin,

bertsotan zerotik hasten zirenekin bat; zer edo zer bazekieenekin bigarrena; eta bat-batean ibiltzen zen taldeagaz gelditu zen Kapela bera.

Hamarkada aurrera joan ahala, taldea desegiten joan zen astiro-astiro. Iurretako desanexinoagaz, herri barrirantz mogidu ziren orduko dinamiketako batzuk, eta eskualdeko huriburuan beherantz joan zena Iurretan indartu zen, gaurko Urruxar bertso-eskolaren aitzindari bihurtuz, Kristina Mardaraz gidaritzapean. Talde batek Durangon jarraitu eban bertso-eskolak emoten, gazteeri begira eta ikastolan zebilzenei batez be. Baina helduen taldea deseginda, bertsoak laster egin eban



Kristina Mardaras

## ● ZERK EROAN NINDUEN BERTSOLARITZARA?

Sarri itaundu daustie eta Durangoko ikastolako deiagaz hasten dot beti istorioa. Zer pentsatua emon daust itaunak. Nirekin batera beste emakume batzuk hasi ziren bertso eskolan: Marikarmen, Maritere, Mariasun. Honeek ez eben bertsotarako biderik hartu eta nik bai. Nire buruari sarri itaundu daustat, mutilekin izandako loturakaitik sartuko ete nintzen, ala sufritu nituen diskriminazioengatik, ala hizkuntzarekin lotura zuelako, konpromisoa, sormena... norbait izan gurea. Jakizu, ba!


Umetatik nuen gogoko mutilen olgeta eta libertatea. Mutilek futbolera olgetan eben eta nik be bai. Gogoratzen dot, urtero-urtero kuleroak, galtzak eta oparitzen eustiezela eta nebieri, barriz, baloia, botak, Athletikeko galtzerdiak... Begiek be eroaten eustiezan gauzak; eta beti gogo bardina: *neuk be mutile izen gure dot*. Gure auzoko futbol ekipoko titularra izan nintzen 11-12 urterarte. Baina hau guzti

hau, *andratzeagaz* batera amaitu zan. Eta nik *mutile izan gure dot*, neure kolkorako.

EGB amaitzean, arazoa agertu jatan etxien: *Ezin dozu ikasten jarraitu ze atzetik mutil bi datoz eta horreek egin behar dabe karrerie*. Denpora batera, Komertzioa ikastera joan nintzen, libretik, eta hiru bat urtera lantegi baten beharrean hasi. Gabaz ikasten jarraitu neban, libretik azterketak eginez. Ondoren, Herri Gaztegi, Alfabetatzen, ikastolak, ezkontza, umeak, magisteritza, bertsolaritza... bata bestearen atzetik etozen. Artean, bertsolaritza gizonena bakarrik zen, emakumeei galerazia bezala. Eta ni horrekek erakarri? Galarazita egoteak, gizekoena bakarrik izateak? Agian... Dena den, ohitua nengoen zailtasunei aurpegia erakusten eta bertsotako plazandre bihurtu nintzen. Bertsolaritzak ez dauka sexu jakinik. Gaur edonork dakiena da.

bere bidea irakaskuntza arruntean. Halan, Jon Lopategik hartu zituen ikastoletako ikasleak, durangarrak barne, eta Iurretan eskola amaitutakoan, oraindino bertsotan jarraitu gura eban taldea osatuta, harantz bideratu ziren Durangaldeko bertsolari gazteak. Bataren gainbeherak bestearen loraldiagaz bat egin eban, beraz, eta urterik urte Urruxar indartuz joan da, eskualde osoan saioak eginez eta Iurretan bertan, San Migeletan, saioa eta neguan Iurretako Bertso Txapelketa antolatuz.

.....



### Justo Alberdi

**Zelan izan ziren lehenengo pauso hareek, gaur Iurretako Urruxar eta orduan Durango-ko eskola zena sortzeko?**

Orain Iurreta moduan funtzionatzen dogu, baina lehen Durango zen. Kurutziaga ikas-

tolan sortu ginen, baina ez zen Durango soilik; Iurreta, Abadiño, Berrizera heltzen zen; apur bat Durangalde funtzinoa bete gura izan eban. Santutxukoa baino gerotxoago izan zela uste dogu. Santutxu izan zen lehenengo bertso-eskola modernoa markatu ebana.

**Eta zeren inguruan sortu zen hemengo taldea?** Durangoko ikastolan zegoen irakasle mordotxo bat. Guretzat eragile "Kapela" izan zen. Anjel Mari Usola, garaitarra. Garaitarra ala berriztarra esango dogu? Izan be, etxean ezkaratza Berrizko partean zeukan eta korta Garaiko partean, Garai eta Berrizko muga-mugan. Kontrabando etxea izandakoa zen lehenengo fiolatoetan-eta. Zaragiak atartetik sartu eta kortatik atera eta holango gauzak. Garaitar moduan daukagu, edozelan be, Kapela.

Ni neu Kristina neure emazteak esan eustalako hasi nintzen. Kapelak ezagutzen eban, biak irakasle izanda, eta deitu eutsan. Nik AEKn alfabe-

tatzeko talde bat neukan eta euskalduntzeko beste bat. Egun birik behin, astean hiru egunetan egiten genduen orduan. "Egun bat libre hartu, holan kontuak ahazteko". Holantxe. Eta besteekin: "Nor gehiago? Honeri be gustetan jako eta... esan deio-gun", Holantxe, bakotxak nor ezagutu. Paperak ipintzera heldu ginen: "Bertsolaritza ikastaroa". Noiz hasiko zen eta noiz amaitu. Lehenengoak hiru hilabeteko ikastaroak izan ziren eta gero luzatzen hasi ginen. "Zergaitik ez dogu egiten irailetik maiatzera arte, eskolako antzera, astero?"

**Bertso-eskolakoak ibiliak zinien bertsotan ala zaleak bakarrik zinien? Ikasteko gogoz zegoen euskaltzale taldea zer jente mota zinien?**

Neure esperientzia pertsonalean, AEKn genbilzen klaseak emoten, alfabetatze-euskalduntze prozesu horretan. Eta bertsoa beste esperientzia bat zen, euskara jorrazteko beste modu bat. Bertso mundu horretan zaleak ginen aurretik, ibilita gengozen herriko jaietan-eta, bertso-saioak antolatzen genduzen San Migeletan eta hori denori. Bertsoa entzule moduan ezagutzen genduen eta gustetan jakun, baina teknika hori gehitxoago ezagutu gura genduen.

Hasikeran, iraillean antolatu genduen, eskolak hasi ziren sasoiari, aproba egiteko, Gabonak arte. Gusto ona geratu jakun, zer edo zer ikasi genduen, puntua botatzen be hasi ginen, eta halan, Aste Santu ostetik, esan genduen: "beno, ba, ikastaroa amaitu arte, beste hiruhilabeteko bat zergaitik ez dogu egiten, astean behin elkartuz?". Guretzat gozada bat zen, geure ardurara normaletatik alde egiten genduen; lelokeriak esan, edozer edozelan esan eta gozatu egiten genduen.

**Irakaslerik, metodologiarik edo izaten zenuen?**

Eragile Kapela bera izan zen. Kapelak gu baino gehitxoago zekien, gai zen bertsoa egiteko. Bere anaia be bai, beste anaia bat zaharragoa zeukan, orain Bergaran bizi dena, lehenago Juan Mari

Areitiozag eta ibilia. Horreek irakatsi euskuen eta halantxe hasi ginen, bertsoa zer zen, neurria, errima eta holangoekin.

### Gauza teorikoa be bai, beraz.

Bigarren urterako Lopategiri deitu geuntsan. Berak emon euskuzen hiru-lau asteko ikastaro bi. Ordurako bagenbilzen bertsotan; geure modura, baina egiten genduen. Gogoratzen naz Lopategi etorri jakunean hasi ginela azken puntuarena planteetan. Ordura arte ez geunkan argi, bertsoa

egiten genduen, hasi eta ahal zen moduan amaitu, goitik behera. Berak esan euskun: "pentsatu azkena. Orain esan: zer pentsatu dok? Berba bat edo zer edo zer gehiago, esaldi bat. Neurtu dok?". Ba, horixe, neurtzen ahalegindu eta hortxe hasi ginen.

### Materialik erabiltzen zendueen?

Amurizaren lehenengo liburu biak: *Zu ere bertso-lari*, *Hizkuntzaren kirol nazionala* eta errimena. Horreekin baliatuta eta bertso-zaharren liburu



J. Alberdi kantuan, K. Mardaras eta X. Etxebarria. Atzean, A. Imaz, J. Urbina, A. M. Aldekoa-Otalora, Begi eta I. Erzilla. Durangoko Andra Mari elizpea, 1986-I-12.

marroi haregaz, liburua zabaldu eta bertso zahar-  
 rakk kantatu, doinuak ikasteko. Errima lantzeko,  
 arbela erabiltzen genduen, eta neurtze kontu hori  
 be bai. Teoria egiten genduen, adreiluak ipintzen  
 diren moduan: hau horma bat da eta horrenbeste  
 silaba, eta honek eta honek errimatu egin behar  
 dabe, eta errima zenbat eta aberatsago... Amuri-  
 zaren teoriak. Denporagaz, hiru talde egitera aile-  
 gatu ginen, sei-zortzikoak, eta hor bakotzak bat  
 zuzentzen eban, genkien apurra irakatsiz. Irakas-  
 le baino gehiago eragile ginen, gidoi bat eroanez.

**Hasieran, helburu plaza izan zendueen ala eus-  
 karazko taldea zen gehiago?**

Hasieran ez geunkan plaza helbururik. Gure hel-  
 burua euskararen beste arlo bat lantzea zen. Alfa-  
 betatze giroan genbilzen Kristina eta biok, Kapela  
 bera be bai. Antton Mari Aldekoa-Otalora zen  
 ikastolako administraria, eta saio batzuetara etorri  
 zen, baina kantetako eta gogorik ez eban hartu.  
 Horixe zen: euskara lantzea bertsoen bitartez.  
 Gerotxoago, 80rantz-edo, hasi ginen planteatzen:  
 "Eta zergatik ez dogu hau kalera ateratzen, saio  
 txikitxo batzuk Durangon edo ermitetan edo jai  
 txikietan eginez, asmo handi barik?". Eta halantxe  
 hasi ginen berotzen.

**Baina Durangoko bertso-eskolak bazeukan izen  
 bat ordurako.**

Hor 81-82 inguruan hasi ginen saio batzuk antola-  
 tzen Andra Mariko elizpean. Hiru edo lau bat urte-  
 an, hilean behin egiten genduen. Lehenengo geuk  
 egin genduzen saio batzuk eta kontaktuan jartzen  
 hasi ginen beste eskolekin, eta erabagi genduen  
 bakotxean eskola bat ekartzea kanpotik. Durango-  
 ko Udalak babestu ginduzen. Ibon Erzillak marraz-  
 ki bat egin euskun, hilero-hilero izenak aldatzeko,  
 mural baten. Eta giro bat sortu zen.

**Hortik aurrera, Durangaldeko beste herri  
 batzuetan be ibili zinien?**

Jai txikietan parte hartzen be hasi ginen. Ez dakit

noiz arte, urte batzuetan eutsi geuntsen horreei  
 saioei; hiru-lau denporalditan. Antolatzeko ardura  
 geuk hartu genduen, Kristinak eta biok, Udalagaz  
 kontaktu gehiago geunkalako. Kapela eskolaren  
 eragilea zen, berak mogitzen eban, nahiz eta  
 momentu baten, inguru horretan, hiru talde egite-  
 ra ailegatu ginen: lehendik genbilzenak, barritxo-  
 agoak eta barrienak. Irakasle ez dot esango, ze  
 neuk be ez nekien askorik, baina talde bat neuk  
 hartzen neban, Kapelak beste bat, onentxoena,  
 eta Kristinak bestea.

**Beti helduen eskola izan zen ala gaztetxoekin  
 be egin zendueen?**


Helduena. Gero, Ainhoa Imaz eta honeek hartu  
 eben ardura, bai saioena eta eskolarena, gu apur  
 bat Iurretarrantz etorrita. Kristina Iurretan hasi  
 zen, Lopategi be eskoletara etortzen hasi zen.  
 Fenomeno politikoa be egon zen 80.eko hamarka-  
 da amaieran (90ean, Iurreta Durangotik bereizi  
 zen). Iurretarrantz tiratzen hasi ginen. Durangon  
 martxan zegoen gauza, eta "jarraitu zeuek".  
 Durangon apur bat hotzitu edo ez dakit zer egin  
 zen. Gure atzetik etorri zirenekin Santi Belarrek,  
*Begik*, jarraitu eban, eta Santi izan zen Beñat Gaz-  
 telurrutia, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta honee-  
 kin kontaktatu ebana. Horixe izan zen eragile,  
 talde horregaz. Ordurako, Lopategi bazebilen ikas-  
 toletan. Begik eskatu euskun ea hemen lokalik  
 libre zegoen eta honantz etortzen hasi ziren.  
 Hemen bazen lokaltxo bat eta berton hasi ziren  
 entseguak egiten. Eta Kurutziaagakoa apur bat  
 amatatu egin zen eta Iurretakoa esan leiteke  
 jarraipen bat izan zela, 90 inguru horretan.

**Hasierako kontuetatik plazarako jauzia ikusi  
 zendueen zuek. Bakotxaren kontua izan zen  
 ala?**

Taldean egin genduen. "Zergaitik ez dogu erakus-  
 ten? Hemen bagabilz, baina honek merezi dau  
 jenteak ikusi daien; aportazino bat egin geinke  
 guk". Elizpean egin genduen agerpena, sei edo

zazpi, ausartenak-edo, Kapela, Joseba, Xabier Etxebarria Dimako alkate izandakoa, Ibon Erzilla, Santi Belar, Kristina eta Justo, eta Ainhoa Imaz be han zegoen. Juan Mari Areitiori be deitu geuntse-la uste dot. Areitio be noizbehinka etortzen zen, gustetan jakon bertsotan egitea; errima lantzerik eta holango gauzarik ez; hori eskola zaharrekoa da. Handik laster, Emilio, Atxur, eta besteren bat be ausartu ziren. Honeek Abadiñoako mutil bi ziren, egundoko zaletasuna zeukien, baina erraztasunik ez; inoiz kantatu eben plazan, saio bat edo bitan. Gogoan daukat Emiliok behin, Durangoko elizpean zegoela, hain nerbioso ze, mikrofonoari be heldu eutsan, bota eban bertso bat, beste bertso bat, eta saioa amaitu genduenean, halako saioa, esan eban: "ni ez najatok gehiago. Agur!". Goio Eguren ez dot uste plazaratzerik lortu genduenik, nahiz eta guk baino hobeto egiten eban bertsotan. Inoiz Mari Tere Zugaza-Artaza be bai; bertan zebilen irakasle, baina ez eban jarraipenik eduki. Roman Gallastegi be, beste irakasle bat, etortzen zen; horrek be ez eban plazarako biderik hartu; nahikoa arin itzi eban.

Gero, sasoi horretan, ikastolan Alberdi "Txo" zegoen kontserje. Bertsolari zaharra, ha be hurbiltzen jakun. Normalean teoria saioa egiten genduen. Hirugarren aldiko honetan, hiru bat talde egitera ailegatu ginen, jente barria sartu zen eta. Andoni Larrea Zornotzakoa eta Mari Karmen Meñika andra-gizonak be etorri jakuzen, orduan ez dakit ezkontuta zegozen baina. Horreek biak, Eibarko Mariasun, Joseba Zabala, garaitar bat, Enolgo Lakueta (Asturias) hil zena, ertzainen helikoptero bat erreskate txakurrekin jausita. Txasio Mazaga apur bat gerotxoago etorri zen, Ibon Ertzilla gaztetxoagoa, Santi Belar *Begi*, Unai eta Igorren irakasle izan zena. Beste neska bat be bazegoen, Ainhoa Imaz. Jose Inazio Mazaga *Txasio*, irakasle eta dantzaria, bertsotan birritan-edo plazaratu zen; 1984an hil zen Mont Blanc-en, Arrizabalaga Ondarroakoagaz; biak jausi ziren. Gero Joseba Zabala, 88an, Lagosen hil zen. Ibon Erzilla durangarra perlatxo bat zen; Elgetan istripuan hil zen, eta gero Santi Belar, gaixotasunez; Kapela bera be beste istripu baten hil zen. Pentatu zelako historia eduki dogun!



Santi Belarren argazki-albuma

Paluko, Begi, J. Alberdi, K. Mardaras, I. Ellakuriaga,  
U. Esturo kantuan, Abarkas, L. Zarrabeitia, A. Munitxa eta  
A.M. Aldekoa-Otalora. 1990 inguruko argazkia



**Saio berezirik-edo badaukazu gogoan?**

Gogoratzen dot saio berezi bat egin genduela. 83 edo izango zen, Urkiolan lehenengo AEKanpada antolatu zenean. Hara joan ginen, lehenengo bertso saioa, eta gero kontzertua. Oso polita izan zen, Kapelak eta geuk-eta kantatu genduen, baina guk, antza, soso-edo, normal. Gero kantatu eban Abadiñoko batek, izenik ez naz akordetan, trabatu egin zen bertsoan, barriro hasi, amaitu eban kantatzea, eta jentea, txaloka, hasi da "beste bat!, beste bat!" eskatzen, nik sekula bertso saio baten ikusi ez dodana. Barriro urten eta barriro kantatu behar izan genduen, beste agur bana.

81ean uste dot hasi ginela kantetan. Gero Taket sarian parte hartu genduen Kapelak, Kristinak eta nik. Nahikoa berde gengozen, zortziko nagusian eta zortziko txikian egiten genduen. Ailegatu ginen Mungiara eta kanporaketan hamarreko txikia sartzeko asmoa daukala dinosku Lopategik. Dinotsagu: "Zertan habil, guk neurri horretan ez joagu entsegurik bat be egin eta?". Harrituta, urduri, esan euskun: "Beno, beno, zortzikoan egingo joagu, baina gero pasetan direnak bai, e! Pasetan direnak hamarreko txikian". Ni kanpoan geratu nintzen eta Kapela eta Kristina pasatu ziren. Eta Txiplasek irabazi eban.

Bageunkan holango hartu-emona bertso-eskolekin, Kapelak gehiago. Guk hareek hona ekarri eta inoiz joan ginen geu be Santutxura; gonbidatu ginduezen eta eurekin nahastean egin genduen saio bat.

**Eta hortik gitxira elkarteak sortu zen. Horren bueltan ibili zinienez?**

Batzarretan parte hartu genduen, bai Kapelak, bai Kristinak, bai nik. Nik uste dot eskola guztiak egon ginela. 86ko txapelketa horretan parte hartu genduen, Kapelak ez dot uste. Durangaldetik, Areitiok eta geuk biok. Lehenengo saioan kantatu genduen, Aretan, Laudion. Areitio pasatu zen eta gu biok kanpoan gelditu ginen lehenengoan.

Aurretxoago, Taket sariaren ostean, Euskadi Irra-

tiak antolatutako herri arteko txapelketan parte hartu genduen. Iurretatik Areitio, Kristina eta neu ginen. Bizkaitik Santutxuk parte hartu eban: Joserra biak, Bilbao eta Etxebarria, eta Bittor Uranga. Horreek jokatu eben Errezilen kontra, guk Hernaniren kontra. Hernanikoei irabazi egin geuntsen, eta gero hemen Segura egokitu jakun. Eta Segurak irabazi egin euskun. Gero Segurak irabazi eban txapelketa hori, Zarautzen kontra. Andoni Egaña zaparro bat zen orduan, baina esan genduen: "Hau txapelduna izango da Euskal Herrian". Hori 85ean izan zen. Herriarteko txapelketarako entrenamendua Iurretan egiten hasi ginen. Hortxe inguruan hasiko zen Durangokoa Ainhoa eta horreen esku izten, eta gu honantz etortzen.

**Eta hemen Kristina hasi zen irakasle?**

Bai, hemen bera hasi zen (Goiuria ikastolako loka-lean). Izaskun Ellakuriaga, Ainhoa Munitxa, Zarrabeitia ahizta biak; hor zegoen gaztetxo batzuk eta eurekin hasi zen, gitxi gorabehera, eskola sasotik pasatu zirenean. Horixe izan zen prozesua, eskolatik urteterakoan hasi ginen hemen saioak egiten. Lehengoetatik geu geratzen ginen, Ibon Erzilla koitadua, Kapela be beharrean aldatuta, gitxiago elkartzten ginen beragaz; Joseba Zabala 88an hil zen, Begigaz batzuetan elkartu eta egiten genduzen entseguak

Begi Unai Iturriaga eta Igor Elortzagaz zebilen eta hona etorrita zegoen ordurako. Ez ziren Iurretako bertso-eskola, eta Durangoko bertso-eskola be ez. Talde bat ziren; lokala eskaini geuntselako hasi ziren hemen. Baina balio izan eban. Beste talde batzuek be entseatu dabe hemen, bai durangarrek, bai iurretarek, musika edo trikitixa edo... eskatu dabenek.

## GERNIKAKO BERTSO-ESKOLA

70.eko hamarkada amaieran eta 80.eko hasieran sortutako bertso-eskolarik berezietarikoa izan zen Gernikakoa. Arestian aitatu doguzen ezaugarrietariko batzuk batzen zituen, izan be, Jon Lopategik bere inguruan bildutako taldeak: eskualderik euskaldunenetan ikusi dogun betiko bertsozaletasuna (partaiderik gehienak, bertsozale ez eze, bertsoan ba bazebilzenak ziren, baina plazarako asmo bakoak, bertsoa parranda giroagaz eta era informalgaz lotzen ebenak), baina,



Xabier Arriaga "Txiplas"

## BERTSOA KARTZELAN

Izenburu hau irakurtzerakoan, norbaitek pentsa dezake bertsoa ere kartzelan preso dagoela. Ez, bertsoa ez da preso egoten, baina bertsolaria egon daiteke. Edota pentsa dezakezue bertsolaritza ezagunak diren "kartzelako bertsoetaz" mintzatuko natzaizuela. Ez, bada, kartzelan bertsoa, bertsolaritza eta bertsolariak baizik.

Lehenengo aldiz kartzelan egon nintzenean, batek baino gehiagok esan zidan: "Orain kartzelan bertsoan entrenatzeko astia eta aukera daukazu eta, ateratzen zarenean, txapeldun, Amuritzza bezala". Danok dakigu Amuritzak kartzelan bertsolaritza landu zuela, bere atal guztietan. Badakit euskal preso politikoak elkarrekin zeudela eta kartzela barruan bertso-eskola sortu zutela, baina nik ezagutu ditudan kartzela garaiak sakabanaketa ostekoak izan dira, eta kartzela barruan ere bakarrik (isolatuta) edo binaka geunden. Beraz, bertsolaritzarako aukera eskasak. Bertso idatzietarako aukera, bakarrik egonda ere, izaten da, baina danak ez gara bertso idazleak.

era berean, sasoi barrietako bertso-giro eta taldekimena.

Txiplasek dauka sasoi hori gogoan: "Esan behar deuat nik baneukala bertsoarako zaletasuna eta noiz edo noiz, jai giro edo taberna giroan, bertso antzeko batzuk kantatzen nebazala, trago batzukaz lotsa kenduta, 'laburrean'. Geroago jakingo najoan zortziko txikian egiten nebala. 'Puntura' be eginda najegoan inoiz mozkortiren bategaz, Fruizen-edo. Jakin, ez jakiat neure lehenengo esaldi errimatua noiz kantatu neban, beharbada

Fruizen bertan, ze bajegoazan pare bat gizon, goizaldean mozkorraren inspirazioagaz bertsoan egiten ebenak bertan, eta gu be goizaldeak sarritan harrapatzen ginjuezan han, ez jakiat seguru. Seguru dakidana dok neure lehenengo bertsoa erdi mozkortuta botako nebala”.

Bertsozaletasuna errazagoa zen sasoia zela deritzo Txiplasek, tabernetan asko kantatzen baitzen, baina bertso-eskolen mogimenduak beste oinarri batzuk be bazituen: “Garai haretan, Amurizaren bertso-eskola batzuk abian jegoazan. Nik uste joat Lopategiren lehenengo bertso-eskola ‘ofiziala’ izango zena sortzeko, hasierako harria 1979ko abenduaren erdialdera jarri genduela, eta 1980ko urtarrilaren hasieran, Errege egun ostean, hasi zela martxan. Nik hogeita bi urte najeukazan”.

Errigoitikoak, Jon Lopategik bideratutako bertso-eskolan hasi ziren gehienen antzera, bertsozaletasun handia zeukan, baina ez bertso-eskolan izena emon eta han ekiteko. Gernikako AEKn alfabetatzen zebilen jenteagandik jaso eben bertso-eskola sortzeko asmoaren barri, eta hasieran ez eutsien jaramon handirik egin: “Zearrak bajekian nire bertso zaletasunaren barri, eta esan jeustaan ea ez nintzen animetan bertso-eskolara hasteko. Nik, ez neukala bertso-eskola batean hasteko asmorik; bai, gustetan jatala bertso-eta, taberna giroan eta holan ibiltzeko”.

Lopategik laster izan eban Txiplasen barri, horratik. Errigoitira egunpasan joan zen egun batean, hain zuzen be. “Potin tabernan bazkaltzen gelditu zoazan, eta Errigoitira ezkonduko kortezubiar bat taberna horretan jegoan beharrean. Jai eguna zoan eta atara jeuen barriri be bertsolari eskolaren kontu hori. Ondino ez dauela sortu, ez dauela jenterik aurkitu eta abar Lopategik. Orduan esan jeutsaan J. A. Zearrak Lopategiri: ‘Hemen bajagok, ba, gazte apasionatu bat’.

“Lopategik ‘non dago hori!? Esan etortzeko hona oraintxe! Eta ez badator neu noa bera dagoen lekura!’. Zearra segituan etorri zoan gure baserri- eta joateko eta joateko Potin tabernara. ‘Baina... baina’, nik. Azkenean joan nintzoan eta hantxe izan zoan nire lehenengo kontaktua Baltzagaz. Nik lehen esan nebana: nire asmoa ez zela ‘plaza-bertsolari’ izatea, tabernan eta holan bai, baina... tira. Han egon gintzoazan tabernan, albotik jenteak, Zearra tarteko, animetan, bertso-eskola sortu behar zela eta abar. Ea neure antzeko inor ezagutzen neban esan jeustaan Lopategik. Ordurako nik ezagutzen najoazan Nabarnizko Arriola anaiak eta beste zelebreren bat. Beraz, baietz esan najeutsaan Baltzari. “Tira, ba, esan beste horreei be, eta urtarrilaren hasieran hasi behar joagu”.

Txiplasek, Arriolarrek eta beste hiruk-edo konbentzitura ekin eutsien Gernikan, Jon Lopategiren gidaritzapean, bertso-eskolari. Denak be lehendik bertsozaleak eta tarteka bertsoan ibilitakoak, baina antzeko ideia zeukienak: “Bertsotan bai, baina plazan-eta egiteko ez gero!”. Lopategiren beraren alaba be ibili zen han.

Denporagaz, jente gehiagok egin eban eskolarako joan-etorria eta, ohi denez, batzuek itzi be egin eben, baina sei-zortziko talde finkoa sortu zen. Gustura ibili ei ziren bertsoan taldean, baina laster ezustekoa ekarri eutsien Baltzak: “Bertso-saio bat egin behar genduela Foruko auzo baten. Hantxe egin genduen geure lehenengo bertso-saioa ‘plaza-bertsolari’ izateko ez ginenok”. Handik aurrera, Gernika inguruko herri batzuetako jaietara joaten hasi ziren eta hor ibili ziren, geroago eta plaza gehiago eginez.

Geroago, Mungian antolatutako bertso saio batera deitu eutseen, beste bertso-eskoletako bertsolari batzuekin batera. Josu Arriola eta Txiplas bera izan ziren Gernikako eskolaz kanpoko bertsolari-ekin kantatu eben lehenengoak. “Beharbada, han-

txe zabaldu zoan Lopategiren bertso-eskolaren izena Bizkaira". Herri berean, Mungian antolatu eben Taket txapelketa, bertso-eskoletan zebilen jentearen arteko txapelketa. Lehenengo sari biak Lopategik Gernikan sortutako bertso-eskolako kideentzat izan ziren. Lehenengoa, Txiplasentzat berarentzat.

## ONDARROAKO BERTSO-ESKOLA

Bizkaiko eskualderik euskaldun eta bertsozaleenetariko izanda, bat baino gehiago izan dira Lea-Artibain (azken haran honetan, batez be) sortutako bertso-taldeak. Luzeagoak edo laburragoak, gauza arrunta da aspalditik bertsotan dakien jentea era "naturalean", eskolaz kanpo eta zaletasunez sortu izana. Besteak beste, gogoratzekoa da 1980an Berriatuan batzen zen bertsozale taldea, zenbait bertso-afari antolatzeaz gainera, plazan ibili bako bertsolari zenbaiti kantatzeko aukera emon eutsana hiru-lau urtean, edo aurretik aitatu dogun Mallabiako bertso-taldea. Berriatua, Amoroto, Markina eta inguruko bertsolariak batu izan ziren Trabakuan.

Berrituar bat izan zen, hain zuzen be, Ondarroako bertso-eskola sortzeko ardura hartu ebana. Jose Luis Basterretxea *Altzalei*-k gogoan daukanez, "Ondarroako Kresala Kultur Elkartetik deitu eusten 83. urtean. Sabin Etxaburu zen Kresalako lehendakari, eta bion artean prestatu genduen propaganda guztia eta, herrian zehar bozgorailuaz, Kresalaren urteko egitasmo guztia, bertso eskola barne, pasatu genduen. Denentzat luzatu zen deia, baina helduak apuntatu ziren, batez be".

Horreetariko bi izan ziren Jose Mari Aranbarri *Botx* eta Jon Arrizabalaga. Ondarroan bertsoa oso fenomeno arrakastatsua zela gogoan daukie, eta bertsoa txiki-txikitandik ezagutu izana be bai: "Gure gazte denporan, hemen Bizkaiko Txapelketa bat be egin zen Berdura Plazan. Eta saioak egoten ziren zineman. Uztapide eta Xalbador eta horreek ikusitakoa naz ni", dino Jonek. Botxek, barriz, gogoan dauka etxeko giroa: "Nik uste, lehenengo bultzada etxean izan dela; etxean beti izan dira bertso zahar asko zekieenak eta kantatu be egiten eben. Lehenengo sustraia hortik zetorren".

Beraz, bertso-eskolan hasterako, bertsoan baze-kien hainbatek. Bertsoan *alfabetatuta* egon ez arren, parranda giroan-eta askotan ibiltzen ziren, elkarregaz puntuka, gitxienez. "Kresalan ikasi genduen lehenengo. Bertsoa, puntuak, doinuak, errima eta horreek kontuak izan ziren. Doinuetan ez dogu inoiz arazorik izan. Oraingo gazteek bai, baina guk doinuak denak jakin doguz, etxean be entzunda, pilo bat. Eta gero kopletan hasi ginen. Errimak emon eta idatzi eta gero kantatu. Zerotik hasi ginen, orain gazte bat hasiko litzatekeen moduan. Bakarrik doinua bagenkiela, horixe zen gure abantaila"

Euskaldun zahar asko alfabetatzeko orduan legez, kantatzeak baino gehiago, bertsoaren oinarriak ikasteak zeukan garrantzia orduko haretan. Horretarako, "astero batzen ginen Artabide kaleko Kresalaren egoitzan. Irakasle neuk jarduten neban, Amurizaren *Hiztegi errimatua* eta *Zu ere bertsolari* oinarritzat hartuta. Bertso zaharrak kantatu, arbelean teoria ikusi, eta bat-batean jarduten genduen. Azken puntua esan eta ondoren lehen puntutik hasi, neure laguntasunagaz. Etxerako lanak izaten genduzen, neuk be bai, eta gustora egin be, giro onean", dino Altzaleik.

Halan, ikastaroa amaitu eta laster plazetan zegozen han parte hartu ebanak. "Gu plazetan-eta pixka bat hasi ginenean, berrogei urtetik gora geunkan, publikoki lehenengo bertsoak kantatu genduzenean." Ondarroako Berdura Plazan izan zen debuta, orduko bertso-eskoletakoak (Durango, Gernika) eta goi mailako bertsolariak (Amuriza, Peñagarikano) nahastean zirela, herriko Botx, Jon eta Liborio Urrutiagaz batera. "Erabateko arrakasta izan zen, jentez gainezka eta barre mordoa", aitatu dau Altzaleik.

Ikastaroa amaitu bai, baina han sortutako taldeak aurrera jo eban urte askoan. Eskolaz kanpo, ikasle baten elkarte gastronomikoan batu, afaldu eta

kantatzea izaten zen aurrerapausoak emoteko eraginkorrena. "Bide Onera zineman urtero antolatzen genduen bertso-saio potentea, eta herriko jaietako bertso-saio antolaketa be geure esku zegoen". Gaur egun be jarraitzen dabe horren ardura hartzen. Ondarroako Bertso Zaleak izenagaz jarraitzen dabe eta Ondarroako bertso kontua jarraitzen dabe, urtero Udaleko batzarretan parte hartuz eta urtean zeharreko saioen zama hartuz.

Aurrerantzean, irakasle eta ikasleak elkarregaz jarraitu eban, ikastaroan ikasitakoak praktikan ipintzen. "Sei-zazpi urtean egon ginen Altzaleigaz, baina behin hori ikastaro hori eginda, kantatu egiten genduen. Hona etorri eta kanta, geu hasieran, gero Leire Bilbao eta honeek txapelketarako prestatzeko". Mokadutxoak inoiz ez dira falta izan, "jan beti, e!, jan barik ez". Bertsoa gozatze-ko erarik onenean, asko kantatu izan dabe, Altzaleiren gidaritzapean urte batzuetan, eta euren kontura beste hainbeste urtetan.

Udalagaz be hartu-emonen egon dira hasieratik, eta oraindino halantxe jarraitzen dabe herriko bertso-saioak antolatzen eta kultur arloko batzarretan parte hartzen. Era berean, bertsoaren bueltan, bestelako elkarteek antolatutako ekimen askotan be, sarri jo izan dabe Botx edo Jonengana, antolakuntzan edo gai jartzen laguntzeko. "Ondarroako Udalagaz urteak dira gabilzena, jaietan pare bat bertso-saio; urte barruan, Errege egunean antolatzen genduen Antiguoko Ama egoitzan, eta asmoa daukagu ostera be hartzeko".

Herritik kanpora begira, hartu-emon ugari izan dabe inguruko bertsolariekin, Berriatua, Markina edo Mallabiakoekin, batez be. Lehenengo urteetan izan ziren hartu-emonok estuenak, afari eta saio ugari elkarregaz eginez, baina Bizkaiko txapelketan parte hartzera be xaxatu zituen Altzaleik, eta halantxe emon eban izena Liboriok, Botxek, Artek eta Jonek.

Denpora aurrera joan ahala, "eskola barik, bertso-taldea" gelditu dela dinoe, hasieran barikuro-barikuro, gabaz berandura arte biltzen zirenak. Gero aste birik behin egiten hasi ziren, eta orain noizean behin batzen dira, afaldu eta bertsotan egiteko. Edozelan be, pozez ikusten dabe gazteagoak, ikastolan edo gaztetxean, zaletuta eta gauzak egiteko gogoz dagozela. Horregaitik, euren laguntzaz eta Udalarenagaz, prest egon izan dira beti herrian biztutako bertso ekimenak babesteko.

## ARRATIAKO BERTSO-ESKOLA

Arratia eskualde bertsozalea izan da antzinatik, baina bertso-eskolarik ez eban 80.eko hamarkadan ondo sartu arte ezagutu, Bizkaiko beste eskualde batzuetako esperientzien ostean. Horixe da, agian, Arratiako berezitasuna, lehendik be bertsolariak egonda, eta herrietako jai eta auzoetan bertso-saioak gauza arrunta zirela kontuan izanda.

Lehenengo bertso-eskola, horraitino, Andoni Larreraren eskutik etorri zen. Lemoara ezkondu-tako zornotzarra Durangoko bertso-eskolan ibilia zen, eta Lemoan bertso-ikastaroa emoteko eskatu eutsien. "85. urtean, EGA titulua ateratzeko zegoen koadrila batek eskatu eustan ea joango nintzen bertsoari buruzko ordu biko hitzalditxo emoten. Beno, pentsatu neban, dakidana esango deusuet. Eta beste barik joan nintzen bertara, eta ordu biko klase horretan hasi nintzen bertsoa zer den, errimak zer diren, gero zortziko nagusia, zortziko txikia, halako gauzekin hasi nintzen eta esan neban: 'hemen teoria barik, hoba da praktikara joatea'. Errima bilduma ipini, esan: 'ea, errima bat -ARA amaitzen dena', eta jentea botatzen hasten zen. 'Orain koplak txiki bat egin behar dozue, 7-6, 7-6'. Eta jenteak, denpora luzeago edo laburragoan, baina koplak egin. 'Beno, orain kantatu daigun *Aurtengo zezenak* doinu horregaz'. 'Orain beste koplak bat'. Eta beste bat egin, eta beste bat. Eta ordu biak konturatu barik pasatu ziren. Amaitu nituen neure ordu biak eta esan neutsen: 'zeuek gura dozuen arte'".

Laster deitu eutsien atzera, ea jarraitu zeikeen klase hori emoten, oso gustura egon zirela eta. "Barikuetan, arratsaldeko zazpiretatik hamarretara batzen ginen, institutuak itzitako gela baten, sei-zortzi lagun, denok hogeitertitik gorakoak. Momentu haretan gure asmoa ez zen izan bertsolariak ateratzea; gure asmoa izan zen batzea, ber-

tsotan ikastea, noizbehinka afaritxo bat antolatzeari, inguruko jentea hurbiltzea eta bertso inguruko giroa bat sortzea”.

Talde harek urte bian segitu eban bertsotarako batzen, eta hor daukagu, zelanbait, gero sortuko zen Arratiako bertso-eskolaren abiapuntua. 1987ko udarako, taldea desegin egin zen, beharreko arazoek



Juanjo Respaldiza

#### AIARAKO BERTSOLARI ESKOLA, MUGAKO LAGUNARTEA

Bertsoa bertso zala jakin barik joan nintzan ni bertso eskolara. Han ikasi neban zazpisei eta hamarzortzi egin behar dala, eta errimatuta, ganera! Domeka goizetako irrati saio baten entzunda kateatu ninduan bat-batekotasunaren edertasunak, baina nik ez nekian ganetikoa arauen barri. Urte bat edo bi geroago, neuk hamazortzi urte neukala, jakin neban Laudion bertsolari eskolea sortzeko zirala eta itsu-itsu joan nintzan izena emoten. Orozkotik errez egiten dogu Laudiora. Lau arabarrek (hiru amurriar eta audioar bat) sortu eben eskolea: Serapio Lopez, Josu Aldama, Jon Guerrero eta Txaber Errazti. Lauretatik hiru euskaldun barri-barriak orduko denporan. UEUn bertso-ikastaroa eginda, gogotsu egozan laurak bere Aiarako bertsolari eskolea abiarazoteko. Bakarrik hasi ginan lehenengo urtean, lau lagunak UEUtik ekarren zientzia guztia eta Xabier Amurizaren *Zu ere bertsolari* metodoko jarraibideak laguntzat hartuta. Abel Enbeita eta Trino Azkoitia laguntzaile etorri jakuzan hurrengo urte parean. Bakotxari onena kenduta, handik aurrera geure kontura segidu genduan. Unibertsidadeari ekin geuntsan. Areta auzoko El Tunel jatetxea goimailako ikastetxetzat hartu genduan luzaroan. Guretzat Tunela izan zan beti.

eraginda. Hurrengo urteetan, Arratian sortutako bertso mogimendua desbardina izan zen, Bizkaiko gainerako eskualdeen antzera. “Beste helburu batez sortzen da mogimendu barria: harrobian bertsolaririk ez dagoela eta atera egin behar direla. Hasieran joan ginenean, gero ikusi genduen beste koadrila bat zegoela, eta guk ez genduen jarraitu. Hor ibili ziren gazteak, Ibon, Kepa, Meñika eta taldetxo hori, eta

Barikuan eskola ordua bageunkan euki, eta batzuk agertu bere egiten ginan bertara, baina bertsolaritza serio hartuta eukanak Tunelerantz egingo eban afalduan. Han benetan egiten zan bertsotan, bat-batean, ia burrukan txandea hartu gurarik, gai librean, orduetan... Inprobisazioa eta intuizioa ziren metodoa. Autodidaktismoa eta gogoa akuilu. Afariburuan, kafeagaz batera, lehenengo bertsoagaz hasiko zan *Bizkar*, Pedro Bizkarguenaga, dimoztarra. Besteok nagiak ginan hasteko, baina ha hasi egiten zan berbazko eztabaidea beroenean egon arren. Eta handik aurrera ez zan etenik izaten. Hasten danak amaitzeko arriskua dauko: hamar-hamabi urte garrenean berez-berez amatatu zan gure asteroko jardun emonkorra. Harrez gero batzuk bertsotan gabiltz eta bestetzuk ez dabe ez bertsoa ez ordukoa ahaztu. Arabak eta Bizkaiak muga egiten daben baztar honetan bertsoa entzuten hasi bazan, Aiarako Bertsolari Eskola sortu izanari zor jako zati handi bat; orain bere badago ondorengorik.

azkenean lau-edo nabarmendu ziren. Baina hori izan zen hareexek aurrera ateratzeko; ez zen izan guk eduki genduen helburua, halako taldetxoa sortzea, giro bat sortzea”.

Izan be, hamarkada aldaketako sasoi horretan, bat egiten dabe euskaltegien eta euskaltzetasunaren inguruko bertso-eskolek, orokorrean, jente helduz osatutakoek, eta eskola arautuan eta Jon Lopategik Bizkaian emondako eskoletan urtendako lehenengo bertsolari gazteen taldeek. Lehengoek bertso-eskola, hau da, bertsoan ikasteko funtzinoa zeukien hasieran, eta aurrerantzean, bertsoarako eta bertso-giroa osatzeko taldetxoarena. Bigarrenak, barriz, bertsoan bazekieen baina askotan saio faltak edo txapelketa prestatu beharrak eraginda sortutako bertsoan trebatzeko taldeak ziren.

Bide horretatik ibili ziren arratiar gaztetxoak, 1992an bertso-eskola eratu eben arte, Karmelo Uriartek gogoan daukanez. “Zelan hasi? Lehenengo eta behin, neu hasi nintzoan jente guztiari deitzen, eta gero batzar horretara neu ez nintzoan joan! Ahaztu egin jatajan joatea. Ni egon ez arren, emon zoan lehenengo pauso hori. Kristoren taldea egon gintzoazan eta hortik sortzen hasi gintzoazan. Orduan esan genduan: ‘non hasiko gozak?’. Ez geunka ezelango lekurik. Herriko Tabernan batzen gintzoazan bariku arrasti-iluntzeetan, tortilla eta pintxotxoakaz, hotz hori apurtzeko girotxoan. Danak eskotera ipini eta holan egiten hasi gintzoazan”.

Laster erabagi eben egoera finkatu egin behar zela, taldeak indar bat hartzen ebala ikusita: “Honeri beste forma bat emon behar jeutsaagu, pentsatu genduan. Udaletxera joan, udaletxekoakaz berba egin eta lokal bat eskatu, gaur dagoen azpiegiturak, musika-eta edukitzeko. Lokal ezbardinetatik hor ibiltzen gintzoazan eta talde majotxoa batzen gintzoazan, sei-zortziko laguneko taldean”, dino Uriartek.


Xabier Amurizak eta Ikastola Elkartek argitara-

tutako materiala bazeukien be, helburua bat-batekoa zen eta bat-batekoari emoten eutsien batez be garrantzia. Talde moduan, Igorre izan da urte askoan bilgune, aspaldion leku hori Zeanurik hartu deutsan arren. Edozelan be, eskualdeko Udal askogaz izan ditue hartu-emonak, bertso-saioak eta bestelakoak antolatzeko. Besteak beste, azken urteotako erreferentzia San Jose egunerako Igorren antolatzen daben saioa da.

Gaztetxoak topatzeko arazo gitxi izan ohi dauen eskola da Arratiakoa. Adin batetik aurrera, gazteoi eutsi eta helduen taldea osatzea gatxago suertatu jake. “Horixe izaten izan dok guretzako erreferentzia gaindiezina beti: eskoletan eta institutuan ondo, baina institututik gero unibertsitatera salto egiten dabenean, jentea galdu egiten dok. Oso gitxi jagozak hortik aurrera segidu dabena. Arratia mailan bat be ez, esango neukek. Inoiz ahalegina eskatu, eta ‘ez, ez, ikasketak-eta’... holan ibiltzen gozak”.

Kontuak kontu eta batzuek itzi eta beste batzuk sartu, 1992tik indartsu dihardu Arratiako bertso-eskolak, bertsolari belaunaldi barriak ekarriz. Sanjoseetako bertso-saioa antolatzen, BBKko eskualdeko lehiaketa prestatzen edo Jentilen koplalehiaketa, geldirik ez dagoen eskola dogu Arratiakoa.

.....



## Karmelo Uriarte

### Arratiako bertso-eskola nondik nora sortu zen, zer jentegaz?

Bertso-eskola berez sortu zoan 92an. Orduantxe hasi gintzoazen zeozer formala egiten, baina ordurako bajegoazen holango ahaleginak, eta alda-

keta handiak edo norabide edo funtzionamendu ezbardinetako foro batzuk sortu zoazen. 85ean-edo, Arratian lehengoetariko piloatoak izan zire-



nak Andoni Larreagaz hasi zoazen. Andoni etor-  
tzen zoan hona, nik orduan asko ez najoan parte  
hartu, baina bera hasi zoan mogimenduan bert-  
so-eskolakaz. Gero bertso-eskolako mogimen-  
dua sortu zoan, Arratia ikastolatik bertsolaritza  
lantzen hasi zirelako Karmele Angoitia eta beste  
irakasleak. Ikastola horretatik urten jeurean  
Kepa Intxaustik eta Iñigo Olabarrik, lehenengo  
mogimendukoak. Iñigo, Ibon, Igor eta horreen  
taldetxoak.

92an hasi eta mogimendutxua egon zoan, ez lar  
fina, talde zehatz barik egon zoan eta. Gehienbat,  
Herriko Tabernan egiten zoazen saiotxoak, batzar-  
gelan, bertso-klaseak edo dana dalakoak. Hortik  
neu izan nintzoan apur bat mogitzen, 90-91n.  
Andonik be itzi joan hori, ikusirik ez zegoela  
mogimendu larregi, eta Zornotzara hurbiltzen  
hasi zoan. Esaten hasi gintzoazen: "Zeozer egin  
behar joagu hemen". Bien bitartean, Lopategi be  
ibili zoan BIEtik, eskolarik eskola bertsolariak bil-  
tzen eta mogitzen. Irakaskuntza araututik aparte,  
bertso-eskolari beste zer bat emon gura geuntse-  
an, ze hor bajegoan interesa zeukan beste jente  
bat, eskoletatik aparte gegozenak.

Urtebetean edo bian iraun genduan nahikoa modu  
informalean; joaten zena joaten zoan. Apurka-  
apurka, neu izan nintzoan horri indarra emoten  
hasi nintzena. Elkartean Kepa ibiltzen zoan ordura  
arte zuzendaritzan eta ni bere ordeztatu nintzo-  
an, eta horri forma gehitxoago emoten hasi nin-  
tzoan. Elkartean kontaktu gehitxoago najeukan;  
entzuten najoan zelango jarduerak eta zer egoera  
ezbardinetan zegoen bertso-eskola bakotxa.  
Batzarretan mahai gainean egoten zen gaia zoan.

#### **Lehenagotik hain formala izan ez zen bertso- talderik egon zen?**

Bertsozaletasuna sortzeko neurri baten bakarrik.  
Bertsozaletasuna eduki dogunok, lehenengo  
garaietan, hamalau lagun be batzen gintzoazen,  
adin ezbardinetako jentea; ez zoan izaten erraza  
horreek guztiak batzea bariku guztietan. Ez gen-

duan eduki egitura formalik. Bertsotan hasi eta  
ariketa batzuk egiten genduzen, batzuetan ida-  
tzian, eta idatziz bertsoa osatu, errimak emonda.  
Gero bakotzak kantatu. Egia esan, pare bat ordu-  
ko jardunaldiak izaten zoazan lehenengotan.

Apurka-apurka, hori galtzen hasi zoan, eta falta  
sumatu eta etenalditxo edo esango neukek baze-  
goela. Halan hasi gintzoazen, 92. urtean, bertso-  
eskola egituratzen. Sanjoseetako bertso-saio hori  
be hartu genduan konpromiso serio legez, eta  
gerotxoago be ekintza batzuri heldu geuntsean,  
kopla-lehiaketa antolatzen-eta.

#### **Arraroa da hemen ez egotea Garrikoren modu- ko talderik. Lea-Artibain be hainbat talde egon dira bertsoarako, bertsolari-bertsozaleenak, ikastolen mogimenduak baino lehenago. Arra- tian egon dira, ba, bertsolariak.**

Baina nik esango neukek, lagun talde bat batzen  
zela-eta, orduantxe hasi zela, Andoniren garaian.  
Andonik ahalegintxo bat egin joan horri forma  
apur bat emoten, eta jente bat sartzen zoan. Ni  
oindokarren horretan ez nintzoan egon sartuta,  
baina nik uste hortxe sortu zela.

Haren aurretik zer egon zen? Ez joat uste horrela-  
ko mogimendurik egon zenik, ez. Neuk uste, lehe-  
nengo bertsolariak, bertso-eskola inguruan sortu-  
tako bertsolari formalak, Iñigo, Ibon, Igor eta  
Kepa, horreexek izan zoazen lehenengoak. Gero  
besteak, hik esan doana, solte egon direnak, baja-  
gozak hortik, Pujana eta Faustino eta beste  
batzuk, eta zera, Dimakoa... baina horreek beste  
garai batekoak zoazan. Horreek dana euren kon-  
tura egiten jeurean, euren arteko talderik ez jeu-  
rean edukitzen; garapena euren kontura izaten  
zoan.

#### **Zuen eskolan, bazeunkien eredurik ala autodi- taktak zinien, batez be?**

Nik uste joat gehienbat autodidaktak ginela.  
Erraminta legez erabili dozak Amurizaren Erri-  
ma Liburua eta BIEk erabili dituen dokumen-

tuak. Baina nahikoa modu informalean, nahiz eta bertso-eskola izan. Gehiago emon jakok hemen indarra beti bat-batekotasunari. Bertso-ekolara joan eta ordubete edo ordu eta erdiko saiotxoak izaten zoazen. Gero, BBKko txapelketa etorri zenean, negutik udabarrira arte edo txapelketara arte, nahikoa martxa egoten zoan, nahiz eta emoitzak hain onak izan ez orduko garaietan. Irakaskuntzako kurtso normal baten egutegia edukitzen genduan, baina ez egituratuta, maisu zehatz batez.

### **Baina talde moduan parte hartu izan dozue hainbat kontutan.**

Bai, talde moduan beti. Bertso-eskoletarako gidari, zuzentzen eta ariketak planteatzen, Kepa ibiltzen zoan lehenengo aldi baten. Ibon be bai; Iñigo inoiz bai. Orain beste talde bat jabik. Eñaut eta Jabi Olibares eta horreek euren martxa jeukiek. Nik BBKn-eta jarraitzen joat. Nik uste, azken 3-4 urteotan, BBKn nahikoa mailan ibili direla, eta hori badok motibazioa, urtean-urtean segitzeko. Orain Zeanurin jagok zentratuta; lehen Igorren egoten zoan. Dimatik, Lemoatik be baten batzuk etorten zoazen. Arratia zelan zabala den leku batetik bestera ibiltzeko, jente gaztea nork ekarri eta nork eroan, beti gurasoak etorten zoazen. Gero ordu eta erdi itxaron behar, seme-alabak bertso-eskolatik urten orduko; nahikoa ezerosoa izaten zoan.

### **Zelan egin dozuez biak, Arratiara begira eta eskola barrura, udaletxeakaz-eta ekitaldiak antolatzeko erreferente izateko?**

Bertso-eskola bajagok Arratia mailan. Bertso-saioak bakotzak berak gura dauen neurrian eta berak gura dauen iturrietatik antolatzen jozak. Baina bere garaian, behintzat, ez jakiat bertso-eskola sortu zelako ala zergaitik, beharbada bertsolariak eduki dauen oihartzun horregaitik izango zoan, bertso-saioak antolatzen hasi zoazan, eta orduan askok galdetzen jeuskuan: "Bertso saio

bat antolatu gura joagu eta zelan egin behar joagu?". Nahiz eta geure egitasmoen barruan eduki urteroko bertso-saio hori antolatzea, hortik aparte be, ekintza ezbardinak antolatzen gendua-zen; eskaintza bat egiten joaten gintzoazen. Arratia nahikoa txikerra dok eta joaten gintzoazen ez dakit nongo ermitan jaia zegoela-eta. Horrelako batzuk egiten gendua-zen, baina, egia esan, gitxi zoazen. Iñigo, Ibon, Kepa-eta ibili zoazen, gero beste gaztetxo batzuk urtetan hasi zoazen, uni-bertsitatera arte.

Baina Arratian egon izan dok bertso-giroa, eskolaren aurretik be, Bizkaian beste leku askotan egon ez den moduan. Bai, bai, bertso-giroa beti egon dok. Txapelketetan, Basilio Pujana eta Alfonso Irigoienek garaiko txapelketetan, eskualdeko txapelketak antolatzen zoazen. Baina zenbat jegoazen? Ba, lau-bost bertsolari, ez jegoan gehiagorik.

### **Baina zaletasuna behar da, ze, bertsolaria egotea gatxa bada, nori kantatu edukitzea...**

Sanjoseetako saioagaz gora-behera itzelak izan joguzak entzule aldetik. Lehenengoa 92koa izan zoan, mila eta piku lagun, kiroldegia topera. Gero bajatzen hasi zoan, eta 1999-2000n, oso behean, ehunda piku lagun. Hortik gorantz hasi gozak, berrehundik gora, hirurehun; igaz hirurehun lagun inguru. Horregaitik jinoat bertsozaletasun horrek gora-behera handiak edukitzen dituela. Orain bertso-eskola Zeanurin dagoenez, hango Udalak gura izan jok holango bertso-saio bat. Ahalegintzen gozak Arratiako horreekaz sartzen eta Arratia guztian zabaltzen. Areatzan egin genduan, Lemoan egin genduan, Diman beste bat edo bi egin joguzak.

Udaletxeakaz inplikazioa lortzen ahalegindu gozak. Saio legez bakarrik saltzea oso gatxa dok. Orain, saio hori programa baten barruan sartuz gero, errazagoa izaten dok, jaietan, esate baterako, edo aste kultural baten barruan. Beti ahalegindu izan gozak horrelako momentu puntualak

aprobetxetan eta orduan saioa herri horretara eraten. Hori aprobetxatuz, esango neukek nahikoa harrera ona izan dogula. Igorreko Udalak beti, bere aurrekontuen barruan, bertso-eskolari laguntzeko kopuru bat zehaztuta jeukak. Hortik abiatzen gozak eta hortik gabilzak.

### **Aurreko bertsolariakaz hartu-emonik egon da, elkar ezagutzeko?**


Bertso-eskola mailan ez, indibidualki bai. Nik bajakiat Kepa eta Ibon eta horreek, adibidez, Faustino Etxebarriagaz eta Basiliogaz asko egondakoak direla, euren elkarriketatxoak egin eta elkarregaz ados paratu eta; "Zu! Zelan egiten zendezen saioak eta zeuen egituraketa, eta zelan hasi zinien bertsoak osatzen?", eta holan.

Erreferenteak horreexek izan dozak, Basilio Pujaña eta Faustino Etxebarria. Gero besteak, Sabino Bilbao eta horreek, espontaneoagoak eta nibela apur bat bajutxoagoa. Dimako alkate izan zen Jabi Etxebarria bera be ibili zolan. Beste hartu-emonik ez dok egon, eta egon dena, maila pertsonalean.

### **ZORNOTZAKO BERTSO-ESKOLA**

Bizkaia erdialdeko bertso-eskoletan, esperientziarik handienetarikoa daukana Andoni Larrea da. Soldadutzan bere kabuz bertsoetan ikasi ostean, Durangon, Arratian eta Zornotzan ibili zen bertso-eskoletan. Bere berbak izango doguz, beraz, argigarrienak, Zornotzan eta inguruetan egondako bertso-eskolen mogimendua jasotzeko.

.....



### **Andoni Larrea**

**Andoni, azaldu bertsoagazko hartu-emona nondik edo zelan daukazu.**

Nik soldadutzara arte ez nekien ezer be. Madrilen alferrez egon nintzen 1982an eta, egia esan, nahikoa soldadutza

txarra tokatu jatan. Normalean egiten nebana zen gelan sartu eta irakurri. Irakurri eta irakurri, liburu pilo bat iruntsi nituen. Orduantxe irakurri nituen Amurizaren liburuak eta, berak esandakoen arabera, bertsoak idazten hasi nintzen, bat egin eta beste bat egin eta pentsatu neban: "Hau ez dok hain gatxa". Eta halantxe hasi nintzen zer edo zer pentsetan, posible zela hori ikastea.

Soldadutza amaitu eta etorri nintzen. Zine bat zegoen Zornotzan eta bertso saio bat egon zen. Joan nintzen Lopategigana eta esan neutsan: "Badakizu bertsoak zelan ikasi leitekezen? Ze gogo apur bat sartu jat". Eta berak esan eustan: "Durangon bertso-eskola bat ipintzen goaz eta, gura badozu, zatoz Durangora". Esan eta egin. Nik han urte bi egin nituen, 82-83 eta 83-84 kurtsoak.

### **Eta hortik Arratiara.**

Lemoara ezkondu nintzen. 1985ean, EGA titulua prestatzen zebilzen batzuek ordu biko bertso-ikastaroa eskatu eusteen, eta laster ikusi neban teoria

barik praktika behar zela. Azkenean, koplak be osatu zitueen eta, handik denpora gitxira, barrero deitu eusten, klase horregaz jarraitu ahal izateko. Esan neutsen: "Zeuek gura dozuenean". Orduan hareek astelehenetik eguenera edukitzen eben EGA titulua ateratzeko eskola, eta barikua libre zeukiela esan eusten. Batu gaitzen, ba, asmo handi barik, kantetako, giro apur bat sortzeko.

### **Taldea osatzeko, beraz, aurreko eskola haretako jentea izan zenduen.**

Ahoz egiten genduen: "Ez dakit nor etorri leiteke". Euskaraz ikasten ibiltzen zen jenteari esan: "Zu! Badakizu gu prest gagozela horretarako". Eta gero lagun artean eta holan egiten genduen. Holantxe ibili ginen urte bian, 85-86 eta 86-87 kurtsoetan. Eta esaten deusudana, asmoa afariak antolatu, beste lagun batzuk gonbidatu, hasieran koplaxo batzuk, gero bertsoetan egin... Batez be, puntueta-ara moldatzen ginen.

87ko udan itzi egin genduen. Jentea hasi zen ezin ebala etorri; bolada baten negutegiak egon ziren, jentek euskaraz ikasteko, (egun erdian euskara ikasi eta beste erdian lan egin, eta diru horregaz ordaindu), eta horko batzuek han lan egiten eben.

Hori amaitu zen eta gero urtebete inguru egongo zen ezer be barik, eta gero Alvarogaz egon nintzen. Karmelo be handik zen, eta gogoratzen dot zelan batu ginen lokal baten, eta "hauxe egin behar da", baina hori eskola moduan izan zen. Ordura artekoa bertso-eskola edo bertso-koadrila izan zen; ez zen izan bertsolariak ateratzeko eskola. Bertso giroa sortzeko batzen zen talde bat izan zen, ez bertsolariak ateratzeko. Gero, bat-batera heltzen zarenean, ez dakit bertsolari bihurtzen zaren, baina plazetarako asmo handirik ez geukan.

Bestea izan zen: "Zu, hemen jente gaztea dator; eskoletan hasi da ikasten eta hemen bertsolariak atera behar doguz. Beste leku batzuetan, Muxikan, Durangon, ez dakit non, bertsolariak dagoz,

eta hemen ez dago bertsolaririk. Bertsolariak sortu egin behar dira hemendik". Horixe izan zen: "Goazen eskola bat sortzen, ikastoletan dabilzen mutikoak hona ekarri eta ikastoletatik aparte klaseak emoteko, baina bertsolariak sortzeko. Etor-tzen bagara 30, eta 30etik lau ateratzen badoguz, itzel! Eskola honen betebeharra, eginda".

Ni egon nintzen lehenengo batzar bi edo hirutan, eta gero Zornotzakoa antolatzen ekin neutsan. Arratia itzi eta Zornotzara etorri nintzen.

### **Eta hemen be eskola sortu.**

Hori udan itzi genduen, ekainean edo. Ni Lemoan bizi nintzen eta Zornotzan be baneukan hartu-emona. Eta orduan gogoratzen naz, behin Zornotzan koadrila bategaz berbetan, zelan esan neban bertso-eskola bat sortu nebala eta penaz baina zelan itzi neban.

Orduan batek: "Zornotzan eginez gero, ni joango nintzateke". Eta beste batek: "Ba, neu be bai!", eta beste batek be bai. Zu, ba, nigaitik eginda dago hori. Ea ba zenbat topetan doguzen eta, koadrilatxo batuz gero, ni prest nago Lemoatik Zornotzara etortzeko.

88ko kurtso hasieran bildu ginen koadrila bat, dozena bat inguru. Batez be, AEK inguruan zebilen jentea zen, eta halantxe hasi ginen, zerotik, AEKk itzitako lokaletan. Giro polita sortu zen eta esan genduen: "Hau jarraitu egin beharko dogu, ezta?". "Ba, bai. Datorren urtean jarraituko dogu. Eta hain gustura egon ginen, hain ondo urten euskun denak ze, esan genduen: "Goazen publizitate apurtxo bat egiten, goazen kartel batzuk ipintzen, goazen apurtxo bat mogitzen, ea gauza garen, hau handiago bihurtzeko".

Hurrengo urterako, eskola apur bat hobeto antolatu genduen, kartelak leku guztietan ipiniz, jentea etortzeko konbentzitu. Eta lehenengo egunean, AEKko gela horretan gelditu ginen, eta a zelako sustoa! Oraindino gogoratzen dot: 35 lagun etorri ziren, 12 urtetik 35era arte. Eta esan genduen: "Hau zelan demontre antolatu?".

Pentsatu genduen: "Hemen egin behar dena da 16 urtean-edo ebagi, eta talde bat hortik gora eta beste hortik behera. Halan eta guzti be, talde handiegiak gelditzen jakuzen, eta gainera nagusien artean, batzuek bazekieen zer edo zer eta beste batzuek ezer be ez. Lau talde egitea erabagi genduen: bat aurreko urtekoa, beste bat 16 urtetik gorakoak, baina ezer ez zekienak, eta gero txikien artean, talde bi. Baina nik lau taldeekin ezin neban eta aurreko urtean egon ziren bik hartu zitueen talde txiki horreek.

Holantxe antolatu genduen: astean ordu bi. Bata, normalean zaharrena, 20:00etatik 22:00etara; gazetxoena 17:00etatik 19:00etara; eta halantxe antolatu genduen 89-90 kurtso hori. Nik martitzen eta eguenetan neukan, eta beste biak be martitzen eta eguenetan uste dot.

Urte horretan apurtxo bat gehiago mogitzen hasi ginen. Egon ginen udaletxean, esan geuntsen zelan bertso-eskola bat sortu genduen, eta laguntza eskatu geuntsan, ze ikasleek ez dabe inoiz ezer ordaindu. Beraz, irakasleek ez dabe inoiz ezer kobratu, baina batzuetan gastuak egoten dira, liburu bat erosi gura dozula, zinta bat erosi gura dozula, fotokopiak atera behar dozuzela... Hasieran denak neure poltsikotik joaten ziren.

Udaletxeak lehenengo urtean 100.000 pezetako laguntza emon euskun. Itzel etorri jakun, gastu guztiak horrexegaz egiten genduzen eta. Gela bat geunkan geuretzat bertan, eta AEKk inoiz ez deusku ezer eskatu. Guk lagunduz ordaintzen genduen: "Zu, ez dakit zer egin behar dela? Geu joango gara eta geuk lagunduko dogu, taberna bat ipini igual Zornotzako jaietan. Ba, igual pare bat txanda egiten genduzen. Geure burua AEK barruan bagengoz legez edukitzen genduen, eta orduan, horretarako, eurak beste kontsideratzen ginen.

Halantxe egin genduen 89-90 urtea eta halantxe jarraitu genduen. Hurrengo urtean, diru kontuan sartuta, barriz joan ginen udaletxera negoziatzen, baina udaletxeak esan euskun ez zegoela lagun-

tzarik bertso-eskolarentzat. Eurekin negoziatzen ibili ginen, Zornotzak bertso-eskola bat zeukala eta Bizkaiko bertso-eskolarik handienari (momentu haretan halan zen) laguntza emon behar eutsala; ezin genduela laguntza barik gelditu. Heldu ginen akordio batera: bertso-eskolak bertso saio bi antolatuko zituen, bata nagusientzat eta bestea gazteentzat, eta geu arduratuko ginen den-denaz, bertsolariak ekartzeaz, gaiak ipintzeaz, gaijartzaila egiteaz...

Gero beste pauso bat negoziatu genduen: "Udaletxeak ez deusku laguntzarik emongo; laguntza hori irabazi egin behar dogu". Udaletxeak esan eban: "Zornotza nahikoa handia da, auzo piloa dauka; orduan Udalak auzo bakotxari bertsolariak eskainiko deusaz, doan. Bertsolariak gura badozuez, eskatu bertso-eskolari eta eurak joango dira kantetan". Guri esan euskuen: "Eskatzen badeutsue, joan egin behar dozue auzune horreetara kantetan, gitxienez, hiru lagun". Orduan, saioko hamabost mila pezeta emongo euskun. Guretzat oso ona izan zen. Hori lortu genduenean, oso pozik urten genduen, gauza bigaitik: batetik, laguntza edukiko genduelako geure gastuetarako, eta, bestetik, gazte-gaztetarik, hasiera-hasieratik, jenteak plazaratzeko aukera izango ebalako.

### **Eta plazara urteten hasi zinienez?**

Bai, bai! Lehenengo urtean zortzi bat saio egingo genduzen, eta bigarrenean, hamarren bat. Jenteak kanpora urteten dau. Betiko moduan, hasieran oso txarto pasetan dozu, baina amaitu eta gero, oso pozik eta oso harro, egindako lanagaitik. Jentea animatuz joan zen, saio horreetatik hartzen genduen diruagaz geure gastuak ordaintzen genduzen, eta hiru hilerik behin edo, afaritxo bat egiten genduen. Hor, plazaratzen ausartzen ez zirenak, edo oraindino maila txikia zeukienak, puntura edo dena dela, soltatu egiten ziren. Alde horreatatik, hori oso ondo etorri jakun.

Urte bian ibili ginen era horretan, nahikoa ondo, gero jaisten hasi zen baina. Hirugarren urtera,

klase bi baino ez ziren egon. Ibili ginen bueltaka 91-92 urte horretan; denerik topatu genduen. Igual dedikazio larregirik ez geuntsen ipintzen gaztetxoei, baina niri atentzinorik handiena emon eustana bestea izan zen: 16tik gorakoak zergaitik izten eben?

### **Eta? Zergaitik izan zen hori?**

Motibo bat baino gehiago egon ziren. Hasieran, jentea plazaratzen zenean, oso gustura, oso pozik egoten zen, baina, urte bi pasatu eta gero, plaza-zeagaitik kobratu barik, ze diru guztia eskola-rentzat zen... Alde batetik, gogo falta hori ikusten neban. Hasieran 15-20 ibili baginen, azkenean

beti izaten ginen sei. Eta esaten genduen: “Zu, hogeitaz, eta sei bagabilz, eta seik ateratzen badogu dirua, besteak...”. “Zu, hurrengo domekan ni barik egin ahal badozue, gurago”, horixe nabaritu neban. Beste gauza bat be ikusi neban: talde-txoa izanda, batzuk nabarmendu egiten ziren eta beste batzuk atzean gelditu. Aurrera joaten zirenek gogo handiagoa ipintzen eben atzean gelditzen zirenek baino. Batzuk bat-batean ibiltzen ziren, beste batzuk, nahiz eta urte bian ibili, ez ziren gai oraindino; igual puntuetara sartzen ziren, baina bertso oso bat egiteko ez ziren gauza. Ikusten neban bat-bateko taldeak gogo handiagoa zeukala besteak baino.



*Mikel Urdangarin*

## **MUSIKA ETA BERTSOA**

Musikagatik sartu nintzen bertsolaritzara eta musikagatik atara edo urrundu nintzen bertatik. Haurtzaroko kontuak dira. Jose Ramon Arbek, Ikastola garaiko euskara eta matematikazko irakasleak sarritan kantatzen euskun klasean. Bertso zaharrak entzuten, doinu erraz bezain sarkor horiek liluratuta, sorginduta lez emon neban lehenengo pausua bertsolaritzara. Ondoren Lopategik hartu ninduen besoetako eta beragaz ibili nintzen sasoi batez, atzera eta aurrera, ilusio handiz hasieran, nerabezaroak ekarritako apatiaz gerora, trenetik jaistea erabaki neban arte. Huts egin izan baneutso lez sentitu naz sarritan, geroago bertsoen mundura barriz itzuliko nintzan arren. Esker onik baino ez daukat Jonenganako.

Hasieran esaten neban lez, musikagatik sartu nintzen bertsoen mundu eder honetara eta musika beragandik urrundu. Ahalegindu nintzen bertsoetan eta garai batez sentitu

nintzen bertsolari bere. 24 urte izango nebazan. Orduan gozatu neban gehien, bai saio normaletan zein txapelketetan; gozatu egiten neban sufritu baino, gauza zaila benetan. Baina aldi berean, musikako arra handiagotzen, ate joka etorren inoz baino sendoago, eta bat-batean mudantzak egiten harrapatu neban neure burua: kabi batetik bestera, gaur bizileku dodan etxera, alegia.

Asko zor dauosat nik bertsolaritzari. Markatu nau. Musika eta hitzen arteko harremana modurik sakonenean ulertzen lagundu nau. Orduan baino, gaur da eguna bertsoak emon deustanaz konstziente nazena. Eta doinu zaharren indarrak eta magiak nire baitan irauten dabe, sendo. Orain, barrutik baino, kanpotik bizi dot bertsolaritza. Edo agian ondotik esan beharko neuke; beragandik hurbil oinez, elkarri begira, elkarren lagun.

**Halan be, herri bakar bat izateko, ez zendueen martxa makala atera.**

Hamarren bateko taldea izango ginen gelditu ginenak, bosgarren urterantz. Denen artetik bi nabarmendu ziren: Unai Ormaetxea eta Mikel Urdangarin. Gero beste neska bi be bai, Amaia eta Aitziber, nahikoa onak etorri ziren, baina horreek ez eben gura izan hurrengo pausorik emon. Geugaz batera plazaratzen ziren, baina ez eben aurrera jo gura. Beste koadrila txiki bat egon zen, noiz-behinka AEKko afaria egindakoa ibiltzen zirenak, bat-batean botatzeko gauza zirenak; baina honeek be ez eben aurrera jarraitu gura izan. Beraz, eskola honetatik bi izan ziren esan ebenak "aurrera goaz eta txapelketara aurkeztuko gara". Eta hortxe jarraitu genduen boladatxo batean, koadrilan. Bosgarren urtean hamar baginen, zazpigarrenean sei-edo, baina beherantz.

96-97 urtean, lan arazoezin hasi nintzen eta ezin izaten neban neuk gura neban denpora guztia atera. Kurtso horretan esan neban: "Jarraituko dot arduradun moduan kurtso honetan, baina zortzi urte emon ditut Zornotzan eta, hurrengo urterako, beste batek hartu daiela ardura. Ni, hemendik nabilenetan, etorriko naz, baina gura ez dodana da ardura hartu. Zornotzan nagoenean, etorriko naz, baina ardura barik". Eta esan neban: "Ez da egongo arazorik, ze jentea badago prestatuta, ni beste edo gehiago".

Horixe planteatu neban kurtso hasieran. Eta hila joan, hila etorri, esaten neban: "Badakizue, kurtsoa amaitzen denean, ni banoala". Amaitu zen kurtsoa eta inor ez zen egon eskolaren ardura hartzeko prest. Nik azken urte hori nahikoa txarto pasatu neban. Jentea ikasteko prest ikusten neban, afaltzen joateko, plazaratzeko, baina ardura hartzeko, jentea ez zen egon prest. Alde batetik, desgustua hartu neban, inor ez nebalako topetan, eta, bestetik, hase-reea be bai. Esaten neban: "Zortzi urtean hemen ibili zara eta inor be ez da gauza hau hartzeko?". 97an, kurtso hori amaitu zenean, esan neban: "Nik amaitu dot. Eskolak jarraitzen badau, etorriko naz".

Hortik aurrera nik badakit pare bat edo hiru batu izan zirela, AEKra joan, batu eta euren bertsoak eta halan egiteko, baina esango geunke Zornotzako bertso-eskola 97ko udan hil zela. Penaz, tristuraz, baina halantxe da.

Hortik aurrera, ahalegin txikitxoren bat egin dot, baina ikusten dodanez bidaiatzea tokatzen jatala, esaten dot: "Zelan sartuko naz leku baten, gero aurrera egiteko gauza ez banaz?".

**Eta kito? Horrela beste barik?**

97tik aurrera, beste gauza batzuekin hasi nintzen. Esaterako, Garriko eskolara joaten nintzen barikuetan. Baina horra ni Andoni Larrea legez joaten zen, ez Zornotzako ordezkari. Barikuetan klaseak egoten ziren, afaritxoa egiten genduen. Lehenengo, klasea, gero afaria, eta afalostean bertso pilo bat bota eta etxera poz-pezik. Eta han egiten genduen Zornotzan zergaitik ezin zen egin pentsetan ibili ginen. Plazaratzen ez diren bertsolarien txapelketaren hamargarren urteurrenean, lehenengo urtean Maumen izan zen, eta hori prestatzeko, hemen batzen ginen 6-7 lagun, hamabostero, eguaztenetan, eta afalostean bertsotan egiten genduen, gai-jartzaille bategaz. Halantxe ibili gara batzen 2004ra arte. Bolada batean hamabostero, gero hilerro, eta atera kontua, uste dot gazteena neu nazela, zer edo zer egin guran, eta bat-batean egiteko gauza garen lagun batzuk batu gara. Orain itzita daukagu, baina nik uste dot hartuko dogula barriro, eta orain horretantxe nabil.

Daukadazen azkeneko barrien arabera, neu ez nago hor sartuta baina, barriro dago asmoa, Zornotzan bertso-eskola sortzeko. Badakit mogimendu batzuk badagozena. Lehengo egunean esan eusten: "Hor dabilz, lehengo barriro martxan ipini guran, eta ikusiko dogu".

**Beste eskolekin zer hartu-emon izan dozue?**

Zornotzan bertan antolatu genduzen eskola-arteko saioak, eta Galdakaokoak etorri ziren, Durangokoak, gu Durangora joan gara, Galdakaora be

bai. Baina gure kontaktuak, batez be, horreexek izan ziren, eta ez dot gogoratzen Garrikora joan ginenik eskola moduan, soltean bai. Gero klaseetara Lopategi etorri izan da, klasea zelangoa den ikusten. Amuriza bera be inoiz etorri izan da; Jon Enbeita be bai.

Guk txapelketarako prestakuntza berezirik ez genduen egiten. Errimak landu, doinuak sartu, egiten dozuna da denpora gehiago emon. Gehienbat izaten zen Jon eta Mikel, biak ipini eta tira. Gaiak ipini eta bata bestearen kontra, edo bata nigaz edo bestea, eta halan, gauza zehatzik ez. Ni ikasleekin exijentea izan naz errimekin. Errimak aberatsa izan behar dau, errimak landu eta landu, egun bakotxean joan eta arbelean ipini eta hartu errima bat; 30ek urtetan baeben, eurekin bueltaka. Eta txapelketarako, orduak sartu.

## LARRABETZUKO BERTSO-ESKOLA

Larrabetzuko bertso-eskola Bizkaia mendebaldeko bertso-eskolarik gehienen antzera sortu zen, 1987an: Betiko bertsozaletasunetik baino gehiago, euskaltzaletasunak bideratu eban zortzi-hamar laguneko koadrila bertso-eskola sortzera. AEKren inguruan antolatutako taldea izan zen. "Nik uste dot euskaratik geunkala gehiago. Gu AEKren barruan gengozen eta aurretik be hasi ginen alfabetatze eskolekin. Hortixek urten eban, alfabetatzeko kanpainetatik. Horreek Txorierri mailan planteatzen ziren eta hor inguruan ibili ginen. Geure familiakoak batzuk, Etxahunen gurasoak, apur bat euskararen munduan mogitzen ginen zortzi-hamar bat lagun", dauka gogoan Joseba Etxebarriak.

Herriko lehenengo bertso-eskola haretako kideek ez zeukien bertsolari bihurtzeko asmorik. Bertsoa ezagutu eta haretan sakontzea zen asmoa: "Larrabetzuko bertsozale koadrilatxo bat batu eta hor hasi ginen bertso zaharrak batzen, kantatzen; bertso idatziak eta holango gauzak egiten genduzen. Bertsolari izateko ezelango asmo barik, apur bat bertsoaren munduan sartu eta bertsoa ulertzeko, bertso zaharrak kantatuz".

Txiplas izan zen talde haren irakaslea. "Ezagutzen genduen lehendik. Eurak Gernikan hasita zegozen Lopategigaz, eta orduan eurek erabiltzen eben materialagaz egin genduen, askorik be ez zegoan eta. Material hori ekartzen eban eta errimak landu, bertso zaharrak kantatu eta eguneroko martxatxoan ibiltzen ginen".

Xabier Amurizaren liburuak erabiltzen zituen bertso-eskolarako. "Erreferentea zen. Amurizarena erabiltzen zen errimak-eta lantzeko, eta gero fotokopia bidez-eta gehienbat. Txiplasek ekartzen zituen fotokopiak eta arbelean lantzen genduzen errimak, nahikoa maila apalean" dino Joseba



Etxebarriak. "Gurea koadrila baten momentuko beroaldia zen, baina zaletasun itzela eduki genduen. Gogoan daukat azkenengo klasea: jentea hasi zen huts egiten eta huts egiten, eta gogorazten naz azkenengo klasean neu bakarrik egon nintzela. Ez zen inor etorri. Ez dakit Txiplas be artean kartzelara eroanda edo zelan zegoen, baina azkenengo aldian, eta koadrilan, neu bakarrik. Eta bertso batzuk egin nituen, hango jente guztia aita-tuz, bakotxari bertso bat".

Ez eban bizitza luzerik izan lehenengo talde harek, ikasturtea amaituta bertan behera gelditu zen eta. Handik gitxira, baina, beste era baten antolatu eben bertso-eskola barria, lehen zegoenez gainera, Larrabetzuko ume eta gaztetxoak kontuan hartuz: "Eskolako umeak sartu zirenean, beste material eta beste martxa bategaz zebilzen. Larrabetzun bertan hasi zirenak institututa pasatu ziren, eta institutuan be jarraitu eben beste bide batetik. Guretzat inportanteena horixe zen: zale batzuk sortzea. Etxahun gaztetxotan hasi zen. 1979koa da. Orduan berak 6-7 urte zeukazen, bere arreba pare bat urte zaharrragoa da, eta etorri egiten ziren eskolara, olgetan. Hareek be lehenengo hasikera hantxe izan eben".

Halan, Joseba Uribarri izan zen talde haretako lehenengo irakaslea, eta Patxi Gezuragak hartu eban ardura jarraian. Liburutegian egiten zituen eskolak herriko eskolan egiten hasi ziren. Era horretan, taldea bera be zabaldu egin zen, jadanik herriko jenteez gainera, han ikasten zebilzen eskualdeko gaztetxoak be hurbildu egin ziren eta. Handik aurrera, bertsoa orokortu egin zen ikastetxeetan. Jon Lopategi Larrabetzun be hasi zen eta, zenbait urtetako hutsunearen ostean, 2000. urtean, atzera be hornitu eben, eskola araututik kanpo, bertso-eskola osatzeko taldea. Hasieran legez, atzera be herriko liburutegian batzen da taldea.

.....

## Joseba Etxebarria

### 1987 buelta haretan sortu zen bertso-eskola. Zer helburugaz?

AEK bueltan genbilzen hamar bat lagun ginen, plaza edo txapelketa asmo barik, bertsoen gainean zer edo zer gehiago ikasteko gogoz. Bertso zaharrak kantatzen genduzen, doinuak ikasi eta etxean idatzitako bertsoak. Ez geunkan asmo handirik, eta Txiplasegaz hasi ginen, indartsu, baina gero, astiro-astiro, hotzitu egin zen kontua. Gureak urtebete pasa-edo iraun eban, gero bertan behera geratu zen, eta handik urtebetera edo, biztu egin behar zela pentsatu genduen.

### Lehenengo eskola 86 inguruan kokatu behar dogu, beraz. Egon zen haretarako motibo bereziren bat?

Neu izan nintzen kontua berotzen eta jentea animatzen ibili zena. Gero beste gazte batzuk be, orduantxe institutu sasoiari zegoen batzuk, Juan Luis Goikoetxeagaz zebilzen institutuan. Horreek be ikusi eben aukera, animatu ziren eta holantxe hasi ginen taldetxoan.

Baina bai. Txapelketak bere eragina edukiko eban. Orain, Larrabetzu bera ez da sekula izan bertsolari herria, plaza handia be ez. Dena egin da egin behar zelako eta gogo apur bategaz. Txapelketak eragina eduki eban, eta urtero saiatzen ginen jailetan-edo musturra sartzen, saio edo bertso-afariren bat egiteko.

### Kanpora begira, zer beste hartu-emon izaten zendueen Udalagaz, esaterako, saioak antolatzeko eta?

Eskolatik kanpora zeozer egoten zenean, guk planteatzen genduen bertsolaritza, herriko jailetan, esate baterako, huts egin ezin eban kontua zela. Bertso-saioa beti egin beharreko ekitaldia

zen, nahiz eta afizino handirik egon ez, baina, gitxienez, kontzientzia zabaltzeko edo.

### Saiook eskolako bertsolariekin izaten ziren, ala kanpotik ekarrita, nahastean, zelan?

Ez. Horrelako saiok plazako bertsolariekin izaten ziren. Gero, udaletxe aldetik, lehenengo legegintzaldietan, herri kandidatura batek aurrera egin eban, eta laguntasuna eduki genduen alde horretatik. Bertso-eskola legez baino gehiago, herriko beste kultur-ekintza bat legez.



*Joseba Etxebarria*

### IPAR URIBE, BERTSOZALE HI BE

Errekan behera datorren ur bizigarriaren antzera heldu jaku, urte batzutatik hona, bertsoaren bizigaia Ipar Uribera. Bizigaia dinot, esan be, halantxe izan dalako, Bilbo alde eta inguruak eraldundu ahala, eskualdeak bertso zaletasunari zelan edo halan eutsi deusolako. Urak lurra bizibarritzen dauan legetxe ongarritu eta landu dabe azken hogetazak urteotan bertsozale eta bertsolari talde batzuek Ipar Uribeko bertso-soloa. Zenbat behargin fin urterik urte, herririk herri, eskolarik eskola! Batzuk itaurren, maisutzan, beste batzuk atxurren, bertsoaren, sasoi heldutakoan, uzta joria batzeko ilusinoaren jantzia aldean-da. Uribe Kostan, Algortako Bertso Eskola, Mungialdean Taket Bertsolariitza Alkartea eta Bertso-Eskola eta Txorierrin Larrabetzuko Bertso-Eskola, beste alkarte eta ixilpeko askoren laguntzinoa, eta saiorik saio beti zintzo dabilen bertsozalea izan dira loraldia bideratu dabenak. Gaur egun a zelako gomuta ahaztu ezinak uzta batzeko uanean: San Antontxuetan Mungiaiko plazan izaten diren saiok, bertso-papelak eta bertso-bazkariak, uda aldean Algortan balkoitik

### Lehenengo taldea desagertu eta eskola barriz biztea zelan egin zenduen?

Sasoi barrian pentsatu genduen aurretik egon ginenontzat bakarrik ez egitea. Gazteagoak zegozen han, eskolako umeak, eta horreexentzat. Eta orduan gutariko bat, Joseba Uribarri, Larrabetzun lan egiten eban errigoitiarra, animatu zen gazte-txoei eskola emoteko. Pare bat urte egin zituen gazteekin, gurea itzi eta gaztetxoekin, eta hantxe hasi ziren Etxahun Lekue eta beste batzuk. Herriko liburutegian egiten genduen, lehenago

balkoirakoak eta enparauak, Abra txapelketakoak, Lauroetan San Migeletakoak, Larrabetzun Natibitate eguneakoak, Zamudioko bertso-afariak, eskualdeko txapelketakok... eta beste hainbat! Uzta emonkorren adierazgarri bikaina da 2004ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean Ipar Uribeko hiru bertsolari kantatu izana. Ez da, ez, ahuntzaren gauerdiko eztula.

Bertsoak alkartu gaitu bertsolariak eta bertsozaleak eskualdean, eta bizipen zabal, aberats eta emonkorrek ekarri deuskuz. Bizitzaren zirrikitu guztietan aztarka egitera eroan gaitu, barbarik berba, oinik oin, doinuuz doinu, neurri nagusi sakonetan nahiz txiki bizietan, bateko bertsojera jasoan, besteko arinean, plaza zabalean nahiz areto itxian, agoz zein idatziz. Bertsoak alkarren adiskide egin gaitu, bertsoak bizi gaitu. Esku artean daukagun altxorari eustea geuri jagoku, baita bide eginez berau indartzea be. Ea, ba, eupadari eusteko gai garan eta gaur bizigai doguna bihar-etzi hilgai bihurtzen ez dogun.

eskola zaharra izandako lokalean. Urte bi edo hiruan ibili ziren hor; gero herriko eskolan egitea planteatu zen. Eskolak abantaila zeukan: ez bakarririk larrabetzuarrak, Txorierrikoak be bazegozen, hasi Sondika, Derio, Zamudio, Lezama, eta Morgatik be bai. Eskolaz kanpoko zen, eta eskola hasi aurretxoan sartu zen Patxi Gezuraga irakasle. Batzuk nabarmendu zirenean, Lopategi be sartu zen, apur bat koordinatzen, eta horixe da historia.

**Edukitzen zenduen batzeko leku edo egun zehatzik?**

Hasiera-hasierako bertso-eskolan, astean behin batzen ginen, ordu bian, berez-berez hotzitu eta amatatu zen arte.

**Eta tarte horretan eskolaz kanpoko ekitaldirik antolatzen zenduen?**

Bertso-afariren bat edo beste gogoratzen dot; ekin-tza bereziren bat egoten zenean, bertso idatziren batzuk kantatu be bai, koplak, koplak idatziak; bat-bateko saio ahaleginen bat be inoiz egin genduen eskolako jenteagaz, baina oso maila apalean.

**Halandaze, bat-batean be egiten zendueen eskolan, ala entzule aditu izatera bideratutako eskola zen gehiago?**

Gure ahalegina beste horretatik joan zen, bai: bertsoak aztertu. Bat-batean askorik ez genduen kantetan. Etxean hurrengo egunerako bertso idatzi batzuk gaia ipinita eroan, gero han kantatu eta komentatu, eta horrelakoak egiten genduzen, giro horren barruan. Plaza ez zen gure asmoa. Geroko umeena beste kontu bat zen, gurea ez; gu elkartu ginen har horixe barruan geunkalako.

**Hor sasoi horretan, Sebastianek txapela irabazi eban, Elkartea sortu zen... Izan zendueen hartu-emonik beste eskola edo jente bategaz, kanpotik?**

Egia esan, ez. Hartu-emonik ez. Pertsonalak bai, ni neu be ibili nintzen hasieran Santutxuko ber-

tso-eskolan, Jose Ramon Etxebarria eta Iñaki Antxiñako (Antiguedad), Jose Ramon Bilbao eta honeek zegozenean. Ez dakit zenbat urte izango diren. Ni klase batzuetara joan be joaten nintzen bertara, baina ez zen oso eroso haraino joatea, eta itzi egin neban. Hartu-emonia beti maila horretan izaten zen.

**Zuek be, finaletara-eta, beti koadrilan joaten direnetarikoak zarie**

Bai, bai! Euskal Herriko finaletara, denetara joan gara eta beti koadrilan, orduan saioetan zebilen jenteagaz. Zaharrak igual ez hainbeste, baina orduan hasitako gaztetxoak gaur Bizkaiko txapelketako saio guztietara joaten izan dira elkarregaz.

## MUNGIAKO BERTSO-ESKOLA (GAUR, TAKET BERTSOLARITZA ALKARTEA)

Mungiaiko bertso-eskolaren sorrera estu-estu lotuta dago, 1980an, Santutxun, Xabier Amurizaren eskutik eratutako eskola eta ikastaroetara eta handik jarraian Algortan osatu zenera. Bertsoaz ikuspuntu eta molde barriak zekarzen eta, era berean, ordura arte bertso-girotik urrun egon zen jente kaletarragoa hurbildu zen, euskararen kontzientziak bultzatuta, bertsoak berak baino gehiago.

“Orduan, Amuriza eskolak emoten hasi zen gaur egun museoa dagoen lekuan (Etnologikoa), Unamuno plazan. Eta holantxe sortu zen. Bertso-eskolan urtebete egin genduenean, gero beste bat egin zen, baina Amurizak esan eban, aurrera segitze-ko, talde naturalak egin behar zirela, eta nik Mungiaiko bertso-eskola sortu neban”, aitatu dau Karlos Ibarzabalek.

Karlos Ibarzabal arduratu zen beste leku batzuetan osatutako talde hori Mungian be sortzeaz. Herrian bertan egiten zen lana, alde batetik, baina beste bertso-eskolekin hartu-emona galdu barik. Hilean behin, Bilboko *Guerniquesa* jatetxean batu ohi ziren.


Karlos Ibarzabalek holan gogoratzen dau: “Amurizaren denporetan, eta gerorago be luzaro, praktikarako erabiltzen zen Bilbon zegoen eta oraindino be badagoen taberna bat, Guerniquesa. Goian zeukan jantokia, eta hantxe batzen ginen bertso-eskoletakoak, hilaren azkenengo barikuan. Hara joanez gero, bagenkien zelan afaria egongo zen, merketxo, eta bertso-saioa. Eta, horregaitik, enbeitarrak, eta sarduitarrak, eta Amuriza bera etortzen ziren nozbehinka; batez be, Deunoro Sardui. Deunoro zirikatzaile itzela da. Hantxe egoten ginen itxaroten. Iñaki ‘Antxinako’ geugaz ibiltzen zen eta ha oso *lantza*u zen. Trino isilagoa, eta horreek bertso-saio mundiala egiten eben. Baina

Enbeita edo Deunoro etortzen baziren, elkarregaz ibilita zegoenez, “orain zuk puntuak, orain besteak” ibiltzen ziren, apur bat zuzendari egiten, klasean legez. Eta horretan asko lagundu deuskue. Ez bestela gugaz hartu-emon handirik eduki dabelako, ze euren eskola zelanbait instituzionala da. Gureak Amurizagandik urtenikoak dira; apur bat diferenteak dira”.

Laster izan zen Mungiakoa bertso-talde indartsua, eta bertakoak Bizkaiko hainbat zokotara joaten ziren legez, eurek be saioak antolatu izan ditue, bertso-eskoletan dabilen jentea ekarriz.

Ibarzabalek dinonez, “Patxi Aranburuk akademia bat zeukan; ondo etortzen zen, ze han arbela eta mahaiak zegoen. Hantxe hasi ginen Kepa Urruti-koetxea, Mardaras, Etxebarria, Iñaki Sarriugarte, Martin Olazar... horreexek hasi ginen hemen; gero gauza asko egin ziren”.

499




Ezkerretik hasita, K. Ibarzabal, T. Azkoitia, A. Iriondo eta Urrusti (bizkarra emonda), 1980ean.

Tartean egon zen *Bertso Eskoletako partaideen txapelketa*, bertso-eskolen txapelketa. Parte-hartzaileen artean ziren: Xabier Rico, Rikardo Gonzalez de Durana, Serapio Lopez, Koldo Tapia, Joserra Bilbao, Anton Arriola, Kristina Mardaras, Jose Mari Bilbao, Urrusti, Kapela... 20 edo 30. "Gipuzkoako bat bakarrik etorri zen, Zaldubi, gure lagun handia zena. Taket I. Saria izan zen, gero gehiago ez zen egin. Han egon ginen Lopategi, Mikel Mendizabal, Joserra Etxebarria eta ni epaimahaian eta txapela Txiplasek irabazi eta Amurizak emon eban. Bigarren Anton Arriola eta hirugarren Bittor Uranga izan ziren. Xabier Ricok eroan eban graziosoenaren saria. Ha Taket saria izan zen, baina gu Mungiako Bertso Eskola izan ginen. Apur bat instituzionalizatu arte, saioak antolatu eta holakoak egiten genduzen".

Bertso-eskola osatu eta laster antolatu eban Taket txapelketa, hortaz. Karlos Ibarzabal buru, gorabehera handiak izan zituen eskolak, jente batek itzi eta beste barri bat sartu, martitzenetan (astero ez bada, hilero edo hamabostero) soziedean batu eta afaritxoak egiteko. Astaro batzea txapelketa sasoiatarako-eta izten dabe, Mungia-koak bertsogintzaren esparrurik gehienak bete gura izan ditu antzinatik eta: bertsolariena ez eze, gaiak emon, jarri, edo epaile beharrean tratzea. Baina plazak be ahaztu barik.

"Amurizak emondako lezinoak erabiltzen genduzen guk, baina helburua ez zen plazetan kantatzea, nahiz eta kantatatu genduen. Urrutikoetxeak, nik, Urrustik, Bernardok, Iñaki Beitiak-eta, plaza asko egin doguz. Baina gure helburua zen,



J. Ormaetxe "Taket" eta K. Ibarzabal.

bertso saioa entzuten bazoaz, bertsolariak nondik joten dauen, zelako tranpak egiten dituen, betegarriak zeintzuk diren, zeintzuk diren onak, zein den errima ona, zein txarra, horreek danak jakitea. Formakuntza lana”, dino Ibarzabalek.

Horregaz batera, bertso-saioak antolatu, alboherrietako jenteari lagundu, bertso jarriak egin, bertso-afariak, urtero-urtero pare bat. “Ez da bizimodua bertsoetatik ateratzea. Bertsolariari laguntasun eta babes moduan, herriari, erakundei, Korrikari eta holangoari”.

Ibilbide oparo horrek be bere beherakada izan eban, eta, 1990erako, talde moduan desagertu egin zen. Ordurako, eskoletatik sortzen zebizilen bertsoarako hazi barriak, eta Mungia be ez zen salbuespena. Sortu baino gehiago, ordurako helduta zegoen Asier Legarretak belaunaldi bien arteko zubi lana egin izan dau, *Bertsolari* aldizkarian gogora ekarri eban legez: “1991n, bertso-eskola bila hasi nintzen, nik entzuna bainuen bazela bertso-eskola bat gure herrian. Aitzitik, gertuen nituen bertso eskolak Algortakoa eta Santutxukoa zirela erantzun zidaten. Bernardo Mandaluniz gai-jartzaile lanetan aritzen zen, Karlos Ibarzabalek bazuen bertso irratsaio bat... Tarteka elkartzen ziren elkarrekin hainbat bertso arlotako gaiak aztertzeke... baina bertso eskolarik jadanik ez zen”.


Jon Lopategik ikastolan bultzatutakoak asko ziren, eta 1992an sortu eben bertso-eskola. Bitartean, aurretik osatutako bertso-taldeak bere bidean jarraitzen eban, tarteka batuz, afariak eginez, eta txapelketa eta saioetarako beharrezkoak antolatzen. Taldek biek bilerak egin zitueen, bakar bat osatzeko. “Horreek euren taldea daukien legez, eta guk geurea, udaletxean hartu-emonak eta diruak-eta eskatzeko, orduan batu egin ginen. Orduantxe sortu zen Taket Bertsolaritza Alkartea. Ez Bertsolari Elkartea, ez Bertsozale Elkartea;

Bertsolaritza Elkartea pentsatu genduen, dena daukalako: nonora deitzen badabe, batzuk joateko moduan dagoz, antolakuntzan dabilzelako... bertsolariak eze, bertsolaritzak dakarren dena: jentea prestatu, epaimahaiko egiteko, nahiz kantetako, nahiz bertso idatziak egiteko, nahiz gai-jartzaile egiteko, nahiz gaiak emoteko, nahiz edozertarako prestatuta dagoen jentea sortzeke”, dino Karlos Ibarzabalek.

Taket Bertsolaritza Alkartea 1997an sortu zen, aurretik aitatutako biek bat egin ostean. “Izena iminteko, *Taket* izan zen hemengo bertsolari bat, Ormaetxe edo *Sollubeko*. Behin Bizkaiko txapel-dunorde izandakoa, Balendinen ostean, nahikoa pertsonaia zera... batzuek maitatua, beste baten batzuek ez hainbeste, oso ezaguna zen, ze hanka bat taketagaz zeukan. Horregaitik zen *Taket*. Bere omenez, “eta sari moduan be bai, oso egoki eta originala delako”, euren gonbidatuei eta urteroko bertso-paper lehiaketako irabazleari taketa emoten deutsie sari edo oroigarritzat.

Mungian antolatzen diren ekintza ugarietariko bat da hori, baina mahai bueltatik hasita, beste asko be badaukiez. Garrantzi handia emon deutsie, batetik, bertsolariez gainera, bertso kritikari, gaijartzaile zein epaile paperak lantzeari, eta horren barruan dago Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako gaijartzaile taldeak prestatutako gai bilduma.

Kanpora begira, San Antontxu eguna garrantzitsua da, eta Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa Mungiaara eroan arte, Sanpedroetan be jaialdi aitagarria antolatzen eben. Bertso-paper lehiaketa be badaukie. Elkartean batu eta afaria atxaki hartuta gonbidatu izan daberen bertsolari zerrenda be oso luzea dela ahaztu barik, Euskal Herriko ezagunenak pasatu izan dira bertatik eta.



## Karlos Ibarzabal

### Karlos, Mungia alde honetan txiki-txikitandik ezagutu do-zue bertsoa?

Ni gogoratzen naz lehenengo txapelketetako kanporaketak egin zirenean, gaztea nintzelarik, orduan Irigoien gaijartzaile zela, ez naz ondo gogoratzen, baina hor Mungiaiko plazan ikusita daukadaz bertso-saioak; horreexek izango dira nire lehenengoak. Gero Gipuzkoan edo izandako saio bat, txapelketa antzeko bat, gogoratzen naz, irratiz emondakoa, zelan Gamizen entzun neban. Iparaldekoak Xalbador eta Mattin, Lasarte eta horreek be tartean. Gainera, etxean beti entzuten zena, "Nere Bordatxotik", Basarrik baserritarrentzat egiten ebana irratian, eta beti azkenean bertso bat edo beste kantatzen ebana. Garai haieran, euskara eta entzuteko era zen, ze ez zen izaten erraza orduan.

### Hemen inguruan, baina, bazen, tabernetan eta, bertsoarako girorik?

Ez, ez. Hori egoten zen Diman-eta han inguruan. Entzunda daukat afalostean bertsoa kantatu behar izaten zela eta ostantzean isuna egoten zela, baina hemen ez da egon holakorik. Kantatu bai, asko, bilbainadak, tangoak, baina euskara askorik be ez. Tabernan ezagutu neban Taket, baina bertsolari moduan baino gehiago, pasadizo edo trakeskerietan arituko zen esperoan.

### Zuk, beraz, bertsoagaz hartu-emona noizkoa dozu?

Hartu-emona plazarik plaza ikusita, irratiz entzunda eta etxean fraileen "takoak"-eta irakurrita daukat. Gero, 1970ean-edo, antolakuntzan ibiltzen nintzen, era askotako jaiak antolatzen: idi-probak, ehiza-txakurrak... Herri Irratira joaten nintzen sarri

propaganda eroaten. Horrelaxe ezagutu nituen Inma Gallastegi eta Juanjo Iraolagoitia izan ziren orduan euskaraz hasi zirenak, eta eurek esan eusten irratirako hemengo inguruko barriemoile izateko, Uribe Kostakoa. "Gaurko Barriak" izan zen lehenengo euskarazko irratsaioa Bizkaian. Ni Uribe Kostako barriemoilea izan nintzen, Unzeta, bikarioa dena, Durangaldekoa, Mendizabal Barakaldokoa, PNVko zinegotzi egondakoa, Paulin Mungialdekoa. Ni 75era arte-edo egon nintzen hiru-lau urtean. Lehenengo erdaraz (orduan Franco bizi zen) grabatzen genduen eta gero euskaraz, zer esaten genduen kontrolatzeko. Ordubete egiten genduen, hamabietatik ordu batetara, euskaraz bakarrik.

Orduan txapelketa ikustera joan ginen, 1980an, Amurizak lehenengoa irabazi ebanean, eta gero, bertso ikastaroa bere eskutik. Ondorioz, antolatzaileentzat eta han inguruan ibiltzen ginenontzat hasi zen bertso eskolak emoten. Esan geinke aro barriko lehenengo bertso-eskola horixe dela. Baziren beste batzuk, Muxikako Garriko eta, batzen zirenak, baina antolatutako lehenengoa horixe izan zela uste dot. Amurizak esaten eban: "Ni dakidana beste batzuei irakasteko prest nago, ez daukat problema-rik". D eredia (gaurko EGA) ateratzeko ikastaroan, Bostak Bat taldekoak maisu zirelarik, ezagutu nituen Elkarreko Goio Jaka, Santi Jaka, eta beste batzuk apuntatu ginen ikastaro horretara.

### Zelan jarraitu eban zure bertso ibilbideak?

Amurizaren talde naturalak sortzeko ideari jarraituz, taldeak antolatu ziren, bertso-eskolak sortu ziren. Bilbo aldekoak Santutxura batu ziren. Guk, ostera, Algorta hautatu genduen, Algortako eskoletan lehenengo, eta gero ikastolan. Hantxe batzen ginen Jon Aurre, Santi Jaka, Goio Jaka, Joserra Bilbao, Trino Azkoitia, goizaldera arte kantuan, txarto edo ondo. Nik barrientzat Mungiaiko bertso-eskola sortu neban eta lagun koadrila bati irakasten hasi. Eskoletatik hasi ginen auzoetara joaten. Gaur diruagaz egiten dena guk borondatez egiten genduen. Igual deitu Olakoaga-La Cuadra-tik,

“etor leitekez lau?”, eta joaten ginen igual Durangotik, Algortatik, hemendik eta Santutxutik, adibidez. Holantxe egin genduzen saio batzuk eta ni horrelaxe hasi nintzen.

Erakundeei, Korrikari eta holangoei laguntzen be ahalegintzen gara. Korrika lehenengoz geuk zertu genduen hemen, taberna montatu AEK-koei, “bertso-saioa egin beharko litzateke, eskoletan”, orduan egiten genduen, deitu pare bati, bertso-saioa montatu, lagundu, gajartzaille egin, megafo-  
nia... eta holantxe segitzen dogu.

Mungiakoagaz batera, martizenetan Algortara joaten nintzen, zortzi-hamar urtean, eskolak emoten eta ostean, herrian zehar kantuz, txikiteoa egiten genduen. Batean han eta bestean hemen egiten genduen. Ez daukat damurik. Algortan Isidro tabernan afaritxoak egiten genduzen; geuri emoten euskun giltza. Bera joaten zen kalera eta geuri izten euskun sukaldea.

### Non egin zenduen lehenengo plaza?

Nik lehenengoz Santutxun kantatu neban. Santutxukoa beti izan da aitzindaria; han zebilzen Joserra Etxebarria eta Joserra Bilbao. Eta eurekin batera izan ginen, Iñaki Antxiñako, Jose Mari Pastor, Jon Aurre eta neu.

Esan behar da ni borondatetsua, bai baina nahikoa kaskarra izan nazela, eta “obligazinoz” kantatu izan dodala toki askotan. Horregaitik, beste ondorengoak etorri zirenean, antolakuntzan, gajartzaille, Bizkaiko txapelketan epaile, beti ibili izan naz hor, baina kantutik kanpora. Militante moduan kantatu izan dot. Esate baterako, Meñakara, “hi, etorko zarie jaietara?”, eta “beno”, egiten zenduen. “Libre hago?”, edo “Faduran daukagu ikastolaren urteurrena eta pare bat...”, eta Urresti eta ni-edo joaten ginen, eta holantxe izaten zen beti. “Santurtzin dago omenaldia...”. Gero igual joan eta neu baka-  
rrik; pare bat bertso kantatu, inork ulertu ez, eta etxera. Horrela, ofizialki kantetan asko ibilita nago ni, nahiz eta nik gehienbat bertsotan baino antolakuntzan gehiago lan egin dodan.

### Diru arloan konpontzeko?

Jakina, honeek bertso-eskolok funtzionatzeko, diru behar izaten zen eta erakundeetara jotzen genduen. CIFA zela eta, konplikatzen hasi zenean, egoera legezatzzea pentsatu genduen. Joserra Etxebarriak, Joserra Bilbao, Uxune Iriondok, Trino Azkoitiak, Kristina Mardarasek eta nik batzorde txiki bat egin genduen, eta ni, Jabi del Valleren laguntasunagaz, paperak bete eta legezatzaz arduratu nintzen. Bertso-eskolen elkarte gura genduen, baina ezin izan zen; eskolek egindakoak federazioa-edo izan behar eban. Eta orduan Bizkaiko Bertsolari Ikasle-  
en Elkarte (BBIE) sortu zen, egoitza geure etxean ebalu. Joserra Bilbao aukeratu genduen lehendakari, ni idazkari eta Uxune Iriondo diruzain, eta gero Kristina Mardaraz, Trino eta Koldo Tapia izan ziren bokalak. Horixe izan zen lehenengo legeztapena eta horretatik egin ziren Euskal Herriko Elkartearen estatutuak. Bai, geu izan ginen lehenengoak, Euskal Herrikoa baino arinago.

### Zer urtetan izan zen hori?

Hori 1983an izan zen. Holantxe funtzionatu genduen, eta gero, Euskal Herrikoa egin zen, eta Bizkako adarra, BBIE, desegitea erabagi genduen. Baina aurrerantzean be, bertsolaritzagaz hartu-  
emon handia izan neban. Bizkaiko arduradun nintzela antolatu genduen Bizkaiko txapelketa, Lopategik irabazi ebana, eta Amuriza bigarren. Finala Arriagan jokatzera lortu genduen, eta lortu genduen Diputaziotik diru-laguntza, eta Alfonso Irigoienek txapela ipintzea.

Lehenengoz egin ostean, eztabaida txiki batzuk egon ziren eta joan ginen Diputaziora. Gainera, Amurizak eta Lopategik esan eben eurek ez zirela gehiago aurkeztuko, eta guk pentsatu genduen, mahai gaine-  
an diru asko ipiniz gero, zelan denok gagozen diru-preminan, iritiz aldatuko zirela. Dirua lortu genduen, baina baldintzagaz: Praderak (Ahaldun Nagusiak) txapelketa ipintzea. Ez Amuriza ez Lopategi ez ziren aurkeztu, eta gero heldu ginen Jon Enbeitaren arora. Ordutik, urte birik behin egiten segitzen dau. Hori neure apustua izan zen.



Ni gero erretiratu egin nintzen. Eztabaida batzuk izan nituen goiko kargu batzuekin, eritzi ezbardinak, eta laga egin neban. Ez nengoen ados Lopategigaz, gazte bi finalean sartu gura izan zituelako. Nik esan neban, sartzeko kapaz baziren, baietz, baina lekua birentzat gordetzea ez zela zilegi; ezin dela itzi gazte bientzat lekua eginda. Hor eduki genduzen gorabehera batzuk, saioen eraketaren inguruan, txapela nork emon, eta antolakuntzan be bai, eta esan neban: "Beno, segitu zeuek; ni erretiratu egingo naz".

### Beste ekarpenik zure "agintaldian"?

Beste ideia baten inguruan, herririk herrikoa antolatu genduen. 84. urte amaieran, saiorik egiten ez zen edo gitxi egiten zen herrietan, saioak antolatu genduzen. Gehien bat Diputazinotik lortutako diruagaz eta tokiko Udalen laguntasunez. Ermua, Santurtzi edo Zalla lako herrietan bertso-saioak burutu genduzen.

504

### Zu Amurizaren eskolatik hasi zinen kantetan, baina lehenago, beste eskualde batzuetan, baze-goen mogimendutxo bat. Elgetzu, Txiplas, Altzalei... hortik ibilitakoak dira.

Ez, lehenago ez. Txiplasen ordurako, gu kilometroak eginda gengozen. Horreek gurea aprobetxatu eben, Joseba Santxo eta horreek dira guk egindako bidean sartu direnak, baina guk ez genduen biderik eduki. Guk bakarrik genkien euskara mundutik, Amurizarenetik, saioak antolatu genduzen, eta hortxe hasi ginen, lehenengo Santutxun, gero Algortan, gero Mungian, eta gero antolakuntzan. Egia da, bai, Elgetzu, Areatio, Intxaurreaga, enbeitatarrak eta ibiliak zirela plazarik plaza. Horren adibide zehatza Mungian bertan daukagu. Bazen hemen Lauaxeta Taldea (Kosme, Lavilla,...) bertso txapelketak gazte-entzatzat antolatzen zituen. Behin, Urdulizen eta Lezaman kanporaketak egin ondoren Alkatek irabazi eban Mungiako finalean.

### Baina plazak egin dozuz zeuk be.

Asko. Baina hala moduzkoak. Batez be, gaijartzaile

moduan sentitu naz erosoago. Mundu horretako gomuta batzuk ondo gogoan daukadaz:

Kantetako inoiz jarriko ez neukeen gaia. Behin baten, Igorren (84-XII-08), ziklo-krossa egiten den lekuan tokatu jatan. Han ziren Jose Lizaso eta Amuriza, besteak beste, eta jarri neutsen: "Zuk, Amuriza, gorantza (bizikletan) irabazten dozun dena, honek beherantza harrapatzen deutsu". Amuriza, argala eta gaztea; Lizaso, edadetu eta gizenaren kontratipoan... Berotu egin ziren; nik uste neban errietan egin behar ebela bertan.

### Gaiak berak ez dau hain arriskutsua emoten, ba.

Baina inoiz ez dakizu nondik helduko deutsien gaiari. Zuk jartzen dozu hemendik joango direlakoan, baina euren urtenbidea eurek aukeratzen dabe, eta batek badaki nondik doazen. Egia esan, bata bestearen aurka aritzeko izatean, gairik gehienak, lodi-argal, zahar-gazte, bardin oinez zein idi-probetan zein edozertan aplikatu daitekez.

Beste behin (86-VIII-21), Bilbon. Aste Nagusian sarri egin dot egun baten gaijartzaile, eta orduan suertatu zen "graziosoak" izeneko saioa, eta neu gaijartzaile. Kantuan Mitxelena, Lazkao-Txiki, Mañukorta eta Anjel Larrañaga. Hasi ginen eta Lazkao-Txikiri: "Mutil zaharra zara eta agentzia batera joan zara emakume baten bila, eta han topatu dozu...", eta horrela. Gero Lazkao-Txiki eta Mitxelena, ohitura den legez. "Emaztea besoetan eroan behar dozu seigarren pisura, baina igogailurik ez dago. Lazkao-Txiki senar eta Mitxelena emazte ezkonbarriak". Gero, bakarrekoa heldu zenean, Lazkao-Txikiri beti gai serioa ipintzen neutsan, ze Lazkao-Txiki bertsolari alaia zen, baina serioan hunkigarria, goi mailakoa. Orduan emon neutsan gaia: "Honeek ezkondu eta izan dabe umea, eta urtebete ez dauka. Sehaskatxoan dago eta zu bertsoetan hasten zara". Publikoko barreak lehenengoan isildu zituen, bigarreanean biribildu eban, eta hirugarrenean, denok ia negarrez gengozen. Bilbon guk Someran, Bizkaia-Bi izeneko jatetxean, edo Anboton edo bazkaltzen genduen, eta Lazkao-

Txikik gazte bat edo ume bat euskaraz ikusten bae-ban, han emoten eutsazen bost hogerleko edo hogei hogerleko, beste barik, euskaraz egiteagaitik bakarrik, hain zen sentimental-sentimentala.

Beste gomuta bat, 1983koa. Abuztuaren 26ko uholdeen egunean, gaijartzaile suertatu nintzen. Orduan Plaza Berrian egin zen. Lehenengo, idi-probak egon ziren, desafio bat, eta gero bertsolariak, Bizkaiko lau handiak: Azpillaga, Amuriza, Lopategi eta J. Enbeita. Aste Nagusiko egun nagusia, baina saioa ezin amaitu euriagaitik.

### Uriola geroago ez zen etorri?

Bai. Gero bazkaltzen joan ginen, Maria Muñoz kale-  
ra. Hantxe egon ginen bazkaltzen, eta bostak edo seirak inguruan, Iturribidetik errioa etorri zen goitik behera; postrerik jan barik urten behar izan genduen. Nik lortu neban Artxandara igotea, baina nigaz egon zenak, Iñaki Beitia "Arbildu"-k, erripan edo eduki eban kotxea, eta kotxe barik lotu zen.

### Elkarteak antolatutako lehenengo txapelketa zelan izan zen?

Han batu ginen gipuzkoar batzuk: Aiesta, Rufino Iraola, Joxerra Gartzia... Bizkaitik joaten ginen Lopategi eta ni, Amuriza, Koldo Tapia, Kristina Mardaras... Joserra Etxebarria be etortzen zen batzar nagusietara, baina ordezkari moduan, Lopategi eta ni neu. Nafarroatik etortzen ziren Lekuona eta Bittor Elizagoien, eta Arabatik Rikardo edo Serapio. Euskaltzaindiagaz haustura izan ostean sortu zen Euskal Herriko Bertsolari Elkarte, baina Bizkaikoa lehenagokoa zen.

Hor egon ziren eztabaidak, gehien bat epaimahai-kideekiko deskonfiantza, adibidez, puntuazinoak atera orduan, agirian izan behar ebela eta. Eskuz ateratzen hasi ginen bertsoz bertso. Hori geuk montatu genduen. Kartelekin lehenengo aproba geuk egin genduen Bizkaiko Txapelketan. Kanporaketetan, Iñaki Sarriugarte, Muniategi, Luis Baraiazarra, Andoni Iriondo, Aldekoa-Otalora, Eusebio Osa eta ni, geu izan ginen epaimahai eta geu hasi ginen

kartelak ateratzen, puntuazinoak bertsoz bertso emonez. Gero Gipuzkoakoan, tranpa txiki bat egin eben: bertsoa atera beharrean, hiruko (edo bertso blokeko) ateratzen hasi ziren. Horretara, makillatuta gelditzen zen puntuazinoak.

Lehenengo, Bizkaia eta Arabako txapelketa izaten zen. Hori geuk antolatu genduen, orduko kontuak orain aparte badagoz be. Txapelketan, kanporaketa bat edo beste Araban egiten zen, Aramaion edo behin Lapueblan be bai.

Arabako bertsolariantzat bakarrik, Abel Enbeita eta nik, Arabako Diputazinora joan, dirua lortu eta San Prudentzio saria antolatu genduen. Dirua lortu bakarrik ez, gaiak eroan eta gaijartzaileak aurkitu, hori dena egiteko, hainbeste joan-etorri egin behar izan zen. Egia da laguntzaile bikainak genduzela Gasteiz eta Laudio inguruan: Mendiguren, Txipi Ormaetxea, Rikardo, Serapio, Xabi Rico... Laguntzeko onak ziren. Lehenengo Sariketa "Txinotxu" ezizeneko batek irabazi eban eta gero desagertu egin zen. Gero Bizkarguenaga bat egon zen, "Bizkar", oso nerbiosoa; Rikardo, Zigor Abelen semea... Orain eurek bakarrik jokutzen dabe Arabakoa. Ondo dago.

### Segitzen dozu bertso mundua?

Esandako moduan, plazetan kantatzeari itzi ondoren, kantatu izan dot lagun artean edo ezteguen baten edo. Gaijartzaile eta antolakuntza lanetan gehien bat, eta bertso jarriak be idatzi izan ditut. Algortako Balendin Enbeita sariketan eta Mungiako San Antontxu bertso-paper lehiaketan sariren bat edo beste lortu ditut.

Gure koadrilan, Taket elkartean, beti egon da bertsolartzagaz hartu-emonak. Epailleak direla eta, bi-hiru sarri, gure artekoak; gaijartzaileak direla eta, gaur egunean be Benar hor dabil, e.a. Lantzean behin bertso afariak antolatzen doguz, punta-puntako bertsolariak ekarrita. Bertsozale fidelak daukaguz ezagunen artean, eta eurakan oinarritzen gara. Bagabilz!


506



# Elkarrizketak



507




**Elkarrizketak**  
.....  
**Sasoi batekoak**

## Jose Alberdi



*"Nik horrela bildurrik egundo be ez dot izan.  
Etxera guardia zibilak txitean-pitean etortzen ziren  
gurean. Nik jaramonik be ez. Zer egiten neban,  
ba, txarrik, ahal nebana kantatu besterik?"*

Jose Alberdi Astarloak ETBri inork ez lako begiekin begirutzen deutso, hantxe ikusten baitau bere jaiotetxea, Ertziluntzi baserria, orain Iurretako Euskal Telebista dagoen lekuan egon zena. 1922ko abuztuaren 8an jaio zen, eta orduan txikitat jotzen zen hiru neba-arrebako familia, beharbada, handiagoa izango zen, bera oso txikia zela, aita hil ez balitxake. Goizean beharrera urten eta ortu parean tripetako minek emonik, etxera itzuli eta, iluntzean, "batak purga emoteko, besteak gauza beroa ipintzeko", berbertan hil zen. "Apendizea edo izan zen, antza, baina orduan zer zenik be ez", dino. Eta zelan diren kontuak, bizimoduaren zati bat emoten



A. Plaza

eutsen paradako izkoa be kendu egin behar izan eban amak, aita barik ha maneiaterik ez zegoela eta. Berba errazeko gizona, alaia eta irribarretsua, gaztetan, mutil sinpatikoaren prototipoa izango zen hau, 1949an ezkondurik, Iurretatik Mañarira aldatu zen, bere andra Mari Asun Arrizabalagaren etxera, eta alaba bi eta seme bat izan ditue. "Eta zazpi iloba!". Hori esaterik ez jako Joseri ahaztuko. Mañaritan hogeit bat urte eginik, Durangora aldatu eta bertan bizi dira gaur.

### **Eta, Jose? Berbetarako gogorik bai?**

Hoba ez! Orain guk zer besterik egin geinke, ba, berba besterik?

### **Hasi gaitezen orduan bertso kontuekin. Lehenengo aztarrenak nondik hartu zenduzen?**

Nire bertsoaren lehenengo aztarrena gure aita-ren lehengusu bat izan zen. Gure etxea hiru bizitzakoa zen eta denok ginen senideak. Aita-ren lehengusu horrek lantzean bertso batzuk kantetan zituen, eta gu zaparrook, afal ostean, sutondoan epelduz, hantxe egoten ginen gustura, haren bertsoak-eta entzuten. Gero zaletasun apur bat hartu neban eta, sanblasetan eta sanantonioetan eta, bertso-paperak saltzen etortzen ziren. Erosi eta halantxe pixka bat.

### Buruz ikasten zenduzen?

Buruz ikasi eta kantatu, bai bakarrean, bai aukera neukan leku guztietan. Gero han auzoan baneukan lagun bat, zaletasun apurtxo bat zeukana, eta biok biotara ekiten geuntsan.

### Bat-batean?

Bat-batean, bai. Zelan edo halan, baina ekin. Eta hasi, holantxe egin ginen.

### Eta plazetara?

Auzoan eta inguruan baziren ermitatxoak, Goiurrian, Izurtzan, Mañarian eta abar, eta deitzen hasi jakuzen. Orduan bertsoa ehunetik laurogeik ez eban ulertzen. Gura bai, afana bai. Zeozer gura. Herria sentitzen eben eta, Euskal Herria edo horrelakorik aitatzuz gero, beno!

### Horixe berberori esan deusku Pujanak. Jenteak zoezer nahi izaten ebala.

Bai, bai. Ulertu ez, baina nahi bai, uuu! Lehenengo eskualde-txapelketa Urkiolan egin zenezan, 1959an, Gorpuzti eguna San Antonio egunez izan zen, eta hamar mila lagun-eta esaten eben egon zirela.

### Askotxo ez da izango?

Bai. Neuretzat bai. Eliza buelta eta atzeko bizkarra bete-beterik zegoen. Jenteak gosea! Bertsoena ez, zoezerena. Zeozer entzun gura. Orduan euskara politika zen hemen, eta bertso bidez, ba, zoezer esaten genduen.

### Ausartzen zinien ezer esaten?

Ni bai. Ni kartzelan egonda nago. Eragin eusten bidaia bat. Lau edo bost egun egin nituen hotelean.

### Bertsoakaitik?

Bertsoakaitik, bai. Izan zen, Santa Marina bezperan, egun hau jai izaten zen eta, afal ostean kafetxo bat hartzera urten neban. Han bodegilla

bat zegoen eta hango ugazaba idazkari izana zen udaletxean. Euskalduna, Mañariko semea. Gero asturiar bat zegoen idazkari, eta alkate maisua zegoen. Ni joan nintzenerako, eztabaida bat zerabilen, euskara dialektoa zela eta ez zela. Mutilzahar bat, abertzalea, denen artean ito egin eben. Ni ailegatu nintzenezan, esan neban: "Mutilak, eh! Hi idazkaria izan haz, nahiz eta gauza handirik jakin ez. Hi maisua haz. Euskalduna eta maisua. Hik umeei zer irakasten deutsek? Euskara dialektoa dela? Euskara hizkuntzarik zaharretarikoa dok European. Ni, badakizue, frankotarra ez nok. Zeuek daukazue egunkaria, zeuek ipintzen deusazue prezioa, eta harexek dinonagaz konforme?" Isilik geratu ziren. Behingoan hartu eta barrura sartu ziren. Handik zortzi egunera edo, "Cabecilla del Duranguesado" nintzela eta, -"beno, beno, beno!"-, atxilo eroan ninduen eta bost bat egun eragin eustezen. Gero uste eben gehiago ez nintzela herrira joango edo, eta, hara bodegara sartzan nintzenezan, txak, ospa egiten eben. Erromeria! Batek esan eustan ze... Bera teniente-alkate zegoen, ni barrura sartu ninduzenezan, eta, etxe aurrean jesarrita nengoela, bazetorren goitik behera, solteroa zen, eta: "Hi, Jose!" - "Zer?" - "Ni ez nintzoan izan gero!" - "Esan egin deuat ala?" - "Ez, baina hik ez heustan ondo begitzen" - "Hiri pasetan jak (esan neutsan) askori pasetan jakona. Grano bat bajaukiek hemen goian, eta denak harexeri begira dagozela pentsetan jabek. Nik ez deuat esan hi izan hazenik". Erromeria!

### Pekaturia daukanak...

Bai, ba! Beste bat etorri jatan, "jefe lokala". Urten eta biharamonean, ni beharrera. Gurean, amaginarrebak ez joateko, eta nik: "Bai, bai! Ni beharrera noa". Joan nintzen eta etorri jatan jefe lokala esaten eutsien hori eta: "Oye, Jose! Eso no ha sido cosa del pueblo, eh!" Esan neutsan: "Ez! Hori Frantziakoa izango zoan. Frantziakoa haizearen denuntzia".

**Orduko txapelketetan-eta, zelako giroa egoten zen orduan?**

Itzela! Aparta. Polizia eta guardia zibilak be han ibiltzen ziren, baina giroa aparta.

**Aparta, politika kontuagaitik, ala umoreagaitik, ala zergaitik?**

Zeozer behar zelako. Herriak eskatu egiten eban. Zeozer aldekoa entzun gura eban, Euskal Herria edo zena zelakoa. Giroa aparta zen. Orain, guardia zibilak eta faltatu barik, eh!

**Ez zinen bildur izaten, pentsetan zenduena botatzeko?**

Ez, ez!

**Etortzen jatzuna?**

Hor doa!

**Jarein? Agindu?**

Agindu! Larregi barik, eh! Tamainu batzuen barruan orduan. Bertsotan hasi orduko, guardia zibilak etortzen ziren eta esaten euskuen: "¿Qué vais a cantar?" - "Ez dakigu, ba, zer! Datorrena". Nik horrela bildurrik egundo be ez dot izan. Etxera guardia zibilak txitean-pitean etortzen ziren gurean. Nik jaramonik be ez. Zer egiten neban, ba, txarrik?

**Jenteak zeozer entzuteko afana dinozu, baina dena ez zen gai horretakoa izango. Beste zeri kantetan zeuntsien?**

Ba, lehenengo, halako zerak izan ziren, neska-zahar-mutilzaharrak, ezpain-pintatzeak eta halakoak. Lehenengotan geuk be zer genkien, ba! Zeozeri ekin. Baina gero geuri be, gauzak zelan zihoazen ikustean, sentimendua sartu jakun eta apur bat gogortxoago jotzen hasi ginen, eta jentea gustura egoten zen.

**Zer jente klase egoten zen orduan bertsoak entzuten?**

Denerik. Hasi Guardia Zibilak eta beste enparau guztiak.

**Abaderik-eta arrimatzen zen? Hareek be entzun egin beharko eban.**

Bai, banaka bat, bai. Jesuita bat, Aita Goikoetxea, saio guztiera etortzen zen, bere magnetofonia hartuta. Bera Loiolan zegoen eta nahikoa zaharra zen orduan be. Denerik egoten zen, egarria zegoen eta. Lehenengo txapelketa Arenalean izan zenean, joseus! Zer izan zen ha!

**Zuk Bizkaiko lehenengo lau txapelketatan parte hartu zenuen. Gaurko bertsolariak urduri egoten ei dira, txapelketara joateko. Zu larri egoten zinen?**

Ez hainbeste be. Ez zen hain gogorra. Orain asko exijitzen dabe. Jakin be asko dakie orain eta. Guk zer egingo genduen orduan, ba? Datorrena bota eta, ondo badoa ondo, eta, txarto badoa, zer egingo joagu, ba?

**Halako gomuta berezirik edo zeozer gogoan gelditu jatzunik?**

Gomuta berezia, Gernikakoa daukat. Finalerdia zela uste dot. Han esan eban: "Gernikako arbolari oraindik inoiz ez jautsi egin". Ni artean kantetako nengoen eta gogoan daukat zer kantatu neban:

Paradisuan arbola bat zan  
zeinek gogotan eztauka?  
Beste beraren antzerako bat  
herri goxo honek dauka.  
Mundua sortu zanetik hona  
arbolok doguz banaka  
zeruko Aitan abildadea  
une honetan banauka  
berriz be bedeinkatuko neukez  
Arbola hori ta Gernika.

Hori gogoan geratu zen han. Ene! Zer zen ha!  
Zer zen ha!

**Joan-etorriak zelan egiten zenduezen?**

Trenez. Eta, hemen hurrean bazen, oinez.



**Neska konturik eta?**

Arrimetan ziren, bai, baina nik andragaia gazte-rik izan neban. Zortzi urtean ibilita ezkondu ginen eta, bertsoan hasi nintzenerako, halan plazarik plaza, ezkondata nengoen, eta badakizu, ba.

**Orain txapelketa eta abar, bertsolariek hor ekiten deustie entrenetan, preparentan. Zuk zer egingen zenduen? Irakurri? Lehen buruz ikasi esan dozu.**

Irakurri, ez kontixu. Orduan egon be zer egoten zen, ba, irakurtzeko?

Oraintxe esango deustut. Tailerlean makinaren kontran paratu eta, makina automatikoa zenez, hamaika bider egiten neban, aurreko egunen batean hain lekutan egon eta gero, bertsoa neuk bota eta neuk erantzun. Batzuetan, lagunak etorri eta ondoan paretan jatazen, entzuten.

**Bertso idatzirik egin izango dozu?**

Idatzi bertso asko egin nituen, baina galdu. Behin bost bertso Rosa Lejardi izeneko irakasle bati bialdu neutsazan, Eskoziara edo joan zenean. Berak, beharbada, igual edukiko ditu. Nik ez nituen gorde. Etorri zenean, esan eustan negarrak be urteten eutsala han. Azkenengo bertsoa daukat gogoan, besterik ez.

Gure artetik alde egin du baratz oneko larrosa  
bera ikusita aspalditxoan  
ez dogu guk asko goza.  
Baina notezi onak daukaguz  
hori da guretzat poza  
besarkada bat hartu zazu ta  
zeu etorri arte, Rosa.

**Antzina ikasten zenduzen bertsoak be gogoan izango dozuz, beharbada.**

Nik bertsoak, zakukadak, baina orain ez jataz gogoratzen. Lagunen izenak be sarritan gogora-

tu ezinik ibiltzen naz. Burua ez daukat txarto, baina gauzak ahaztu egiten jataz.

**Etxean zelan hartzen eben orduan zu bertsolari izatea? Andrearen etxera ezkondu zinenez gero, amaginarrebak ez zinduzen erdi golfantzetat hartzen?**

Ez, ez. Etxean pozik zegoen. Gauza bat esango deustut. Hau honako ez da.

**Etxean pozik, baina amaginarreba be bai?**

Baita. Behin, Eubako pasionistetara joan ginen. Behin baino sarriago, baina orduan Ormaetxe *Taket* eta biok joan ginen, eta amaginarreba be eroan neban. Hantxe ha be bere maletatxoagaz, han ez zegoen andrazkorik barrura sartzerik eta. Euren lokalera bai, baina fraileen jantokira eta ez, eta pasadizoa hau bai bada. Bertsoan egin genduen eta frailekeekin bazkaritan ginarden, amaginarreba eta beste andrazko batzuk aparteko gela baten zegozela. Joan nintzen eta esan neutsan: "Zer? Zeozer gura dozu? Ondo zagoz? Zeozer falta jatzu?" - "Ez, ez! Ondo nago", esan eustan. Alde egin nebanean, esan ei eutsien: "Bai gizon gaztea daukazuna!" Horixe esan ei eutsien eta ha be pozik. Gure amaginarreba gaztegina zen eta horixe pentsatu eben.

**Andrea konforme zegoen, gizona bertsolaria izateagaz?**

Bai. Bera be eroaten neban lantzean leku bate-ra, eta pozik etortzen zen. Inoiz Arriagara be eroan neban, Enbeita, Ormaetxe eta hirurok joan ginenean. Gero bazkaritan denok alkarregaz eta ondo. Pozik ibiltzen zen.

**Ormaetxe *Taket* aitatu dozu. Zelako gizon modua eta zelako bertsolaria zen?**

Bertsolaria ez zen txarra. Bat-batekoan, ondo mol-detan zen. Gizajoari andrea hil jakon eta, hanka bata zurezkoa zeukanez, Bilboko aparkaleku baten egoten zen, kotxerak zaintzen. Gero beste bat eto-

rri zen hona, Mañarira, "Txantxikua" esaten eutsiena, Oñatikoa, eta biok ibiltzen ginen, baina gizajoa... Hau be hor ipintzeko ez da.

**Itzi egingo deutsalagu, orduan. Enbeitagaz be ibiliko zinen.**

Askotan. Bera, *Taket* eta hirurok ibiltzen ginen. Gero Pujana etorri zen. Eta gero, ba, Azpillaga, Mugartegi eta Lopategi be bai. Behin, Mungia joan ginen, Enbeita, *Taket* eta hirurok, eta gazteen txapelketa zen eta Lopategi be hantxe zegoen. Ez eban ezer egin. Gero esan eusten: "Eta? Zer eritzi deutsalak?" - "Ba, Bizkaiko Basarri hortxe jagok", esan neutsen Lopategigaitik eta igarri egin neban. Hurrengo urtean, Mungian txapeldun, finalerdian txapeldun, eta Bilbon be txapeldun. Harek jakituria itzela zekarren. Esaten neutsen: "Horreek preparatuta jagozak!" Gure moduan ala? Hamahiru urtera arte eskolan

ibili, erdietan sasi-eskola egin, beste erdietan itaurren edo behizain.

**Baina zu zeu be asko ibili zinen plazetan.**

Bai, bai. Geratu barik. Nik urtean txahaltxo bat ekartzen neban etxera. Orduan eh! Denetan bardin ez euskuen ordaintzen. Igual joaten zinen Goiuriara eta berrehun pezeta eta bazkaria-edo emongo euskuen, baina igual Gernika, Durango eta horrelako lekuetan, bostehun pezeta inguru. Gero, Alfonso be ibiltzen zen, eta haregaz inoiz mila pezetakotxoa be bai. Jaietan beti, eta astegunetan be sarri ibiltzen ginen, inor ez zegoen besterik eta.

**Umetako kontuak be aitatu beharko doguz, ba. Zure eskolaldia zelakoa izan zen?**

Eskolaldia edo! Hasi, zazpi urtegaz edo hasiko nintzen, ia kazkonduta. Erdararik, ba, zer zenik



Jose Alberdi, 1959ko Bizkaiko txapelketako finalean, Bilbon, 1959-IX-6an.

be ez. Maisu erdalduna, Don Domingo Abasolo, kristo baino gorriagoa zen. Behin, abezedarioak zenbat letra zeukan, eta nire alboan zegoenak 29, baina ez zen esaten ausartzen eta neuk esan neban: "hogeita bederatziz". Eta mekauden! Hator hona aurreko mailara!, eta holan. Eguerdietan, hamaika eta erdietan, dotrinara joan behar zen. Iurretako plazak hiru urteera zeukazen, eta urteera bakotxean abade bat.

#### **Eskolara bildurrez joaten zinien?**

Bildurrik bat be ez, neuk behintzat. Sasi-eskola be sarri egiten genduen eta.

#### **Zer egiteko?**

Basora eta joateko. Apur bat ingurutik urrundu eta tiragomagaz baztarrak jo eta okerreriak egin. Sagar lapurretan, mailukiak eta horrelakoak. Egon be ez zegoen gauza handirik eta.

516

#### **Zigortu egiten zinduezen, dotrinarik ez jakitearren?**

Ez, zigortu ez. Eskolan bai, hor gogorrago hartzen ginduezen, baina dotrinan ni numero uno nintzen eta eskurtsinoetan eta joaten nintzen.

#### **Lehengo abadeak gogorrek ei ziren, ba.**

Oh, bai, gogorrek ziren, bai. Lehengo abadeek gauza bat zeukien: ez eben eliza ingurutik urtetan. Hara eta hona, zigarroa erre eta hantxe beti. Arin ernegatu be bai, eh! Horretan gogorrek ziren. Baten ee, hau be kontatu behar deusut, ba. Zapa-roak ginen. Mojak Iurretako plazatik gorantz eskurtsinoan joan ziren, Goiuriantz. Bueltan, mokil batzuk bota geuntsezen, eta hareek elizara abisua, kexa. Beno, nortzuk ginen be bai, itxuraz. San Antonioren bederatziruena zen Azkorreko baselizan, eta geu be bederatziruenera, eta parrokoak seromoitan non dinon: Urليا eta urليا! Entzunda nago urليا eta urليا mojei harrika egin deusela. Horixe esan eban denen aurrean. Kanpora urten genduenean, uuu!, etxera joaten be bil-

durtu. Gure ama didar baten. Lehengusua eta biok bildur. Azkenean, itzelezko haserrea bai, baina besterik ez zen izan. Abadeak zelan esan leike hori denen bistan, ume batzukaitik?

#### **Erromerietara zelan hasi zinen gogoan daukazu?**

Izango ez dot, ba! Hamalau urtegez, beharrea hasi nintzen, tailerrean pintxe. Hojalateroen pintxe. Irabazi be, egunean pezeta bi eta txakur handi bi. Orduan dirurik ez zegoen. Eta gero erromeriara. Erromeriazaleak ginen gu. Baita dantzariak be. Ni, hamazortzi urtegez, Iurretako plazan dantzan egiten hasi nintzen. Iurretako plazan edonork ez eban dantzan egiten, eh! Orduan dantzari asko zegoen. Geuk hartu genduen plaza eta urte piloan geuk egiten genduen Iurretako plaza. Dantzari-dantza. Eta gero erromerian... hau honako larregi da.

#### **Erromeriatik aparte, denpora librea zertan emoten zenduen?**

Denpora liberrik ez zegoen orduan.

#### **Domeketan be ez? Egun guztian beharrea ez zinien ibiliko.**

Goizean behiak zaindu, edo ganadu-jana egin edo zera. Eguerdia ostean bai. Gure baserri inguruan bazen bolatoki bat eta pixka baten han bolan egin eta gero erromeriara.

#### **Neska-laguntza eta guzti?**

Oh! Barbaroak! Oraintxe esango deusut. Behin, garizuma, Uxemaltzako txakolinean, Oromiñon, ia Maumen. Orduan txakolineria joaten zen jentea. Intxaurrak jan eta tortilaren bat, eta gero Muniketako erromeriara. Garizuma zenez, erromeriarik ezin zen egin eta neska-mutilak pasioan ibiltzen ziren. Joan ginen geu be eta gero lagun bi neska-laguntzen abiatu ginen, Undebaso esaten eutsiena, Jaungoikoak dakien lekura, han Ibarruriko ez dakit non be. Haranzkoan ondo, baina bueltan ezin kaminorik topatu. Goi-

zeko hiruretan jo genduen Montekalbo gainera. Garizuman eta hareek ziren orduak!

**Zuek pozik baina, neskekin bide gozoa eginda.**

Pozik bai, kaminoa topatu genduenean!

**Baserritik aparte, zer behar klase egin dozu?**

Tailerrean hamalaugaz hasi eta berrogeita hama-sei urtera arte ekin neutsan. Gero, tailerra zarratu zenean, 56 bat urtegaz, dingiliz gelditu nintzen. Kurutzia ga Ikastolatik zaintzaile lanareko deia etorri jatan eta hantxe pozik, 65 urtera arte.

**Gerrako kontuak be aitatu beharko doguz, ba.**

Nik gerran 14 urte nituen. Orduan etxean moldatu behar zen, ogia, artoa eta zegoena. Gero fazistak sartu ziren, eta ganaduak be bi geratu jakuzen, dena aurrean eroaten eben eta. Eta hantxe, arrebagoz, ama hilda...

**Aitarik ez zenduela ezagutu eta orain ama be hilda?**

Ama be laster hil jakun, bai. Anaia zaharra hortik, eta arreba, ni baino zahartxoagoa, eta biok behi paretxo bategaz geratu ginen. Nik, zaparroak, jorنالtxoa atera eta bizi. Lehen esan dodan lehengusuak, bertotan-eta egiten ebanak, beste behia, hirugarrena, eroan ebena, hor Alonsotegi aldean edo, ezagutu egin eban eta hartu eta ekarri egin eban. Gerrako kontuak. Eta gerra ostea.

**Gero soldadutza be egin beharko zenduen.**

Nik soldadutzarik ez neban egin, gaixorik jausi nintzen eta. Ospital militarrean eroan ninduen, eta Arratiako bat zegoen han, Ibar gutxi. Biok kinta batekoak, lagun egin ginen, eta esan eustan: "Hi! Lagun on bat jeukaat hemen. Nik bajeu kaat itxaropena, eta heuk be egin behar heunke". - "Horixe egingo baheu!" Esan eta izan. Ha libre bialdu eben, eta neu be bai, etxera.

**Zer gaixo zeunkan, ba?**

Nik ezebez! Holantxe izaten ziren gauzak. Ibar gutxi biajante ibiltzen zen eta musikaria be bazen. Gero Durangoko parroki an organoa jotzen eban. Lagun handi egin ginen. Harexek libratu ninduen soldadutzatik.

**Bertsoak batu gaituenez gero, bertso kontuekin amaituko dogu. Gaur egun jarraitzen dozu bertsolaritza?**

Jarraitu? Ez dot jarraituko, ba? Beno! Telebista eta zer ez? Ni, txapelketetan, beti joatean naz Donostiara, eta Bizkaikoetara be bai.

**Zer deritzozu gaurko bertsolaritzari? Zuek egiten zenduena, gaur egiten dena... Zer alde ikusten dozu?**

Uuuu! Oraingo bertsolaritza gogorra eta sakona da, eta meritu handikoa, neureztat. Basarri eta Uztapide ezagutu nituen, eta esaten eben Uztapide herriari barre eragiteko eta hobea zela, baina Basarrik bazekien hango horma osteetan zer zegoen be. Gogoan daukat, final baten, Donostian, zelan *Bixigua* ipini eutsen gaitzat, bertso bana botatzeko. Uztapidek zeozer esan eban, baina Basarri hasi zen "bixigu begi-gorri" eta ez dakit zer, eta zelako bertsoa! Basarrik asko zekien eta idatzi be asko egiten eban. Beste bat be bazegoen, Mitxelena. Gogorra zan ha!

**Bertsolaritzak zer poz emon deutsu zeuri?**

Maila horretan, dena.

**Kezkaren bat edo arantzaren bat ez jatzu geratu?**

Bat be ez. Nik ez daukat arantzarik. Txarto esan baneban, malezia barik izan zen eta, ondo esan baneban, ederto. Txarto esanei jaramonik ez, eta ondo esanekin aurrera.

## Martzel Andrinua




*“Gauza bera ezbardin esateko era bat bertsoa da. Herria horrelakoa bada, herriaren erara berba egin behar da. Bertsolaritzak daroan bidea ona dela uste dot. Euskal kulturaren barruan, txikitatik hori sartzea, euskal izatearen ezaugarri legez, hori aberastasun handi bat da”.*

1930-VIII-18an jaio zen, Bolibarko Iruzubieta auzoko Katekua baserrian, zortzi neba-arrebaren artean hirugarrena. Mutikotan pasiotarren ordenan sartu eta fraile eginik, Bilboko San Felizisimon egingo zituen urte batzuk, gero biziadirik gehiena Zornotzako Eubako komentuaren inguruan emoteko. Hamaika urtean laugarren bikaritzako (Durangaldeko) bikario izanik, orain, Mañaria eta Izurtzako elizak zerbituz, Bizian gora ekimenean dihardu, adinekoen zerbitzuan. Euskarazko hainbat liburu argitaratu dau, prosa eta bertsoa tartekatuz: *Txikiak haundi; Kezkaz; Zu ta*

*ni, biok; Aitita-amamen jakituria bertsotan; Jesusekin topo; Zer deritxazu?; Aita Patxi; Jainkoak bedeinkatu zagizala; eta Berbearen ogia.* Aita Martzel liburu honetara ekartzearen arrazoi nagusia da, bertsoari bizitza guztian emon deusan leku nabariatz gainera, Bizkaiko eta Euskal Herriko gerra osteko txapelketen segidako epaile eta eragilerik handienetakoa izan zela. Bere lekukotza ezin emonkorragoa da, bertsolaritzaren aro garrantzitsu ha ezagutzeko.

**Zu sermoilari ospetsua izan zara. Ospe horren arrazoi bat sermoiak bertsotan egitea zela entzunda daukat. Jenteak zelan hartzen eban hori?**

Oso ondo. Badira betiko egiak esaten jakenak, batzuetan, ilunak, astunak, irunsteko gatx edo garratz gertatzen direnak, eta orduan hiruko paper bat atera neban, Betiko egiak izenagaz. Hamasei zortziko ziren eta kristauei esaten neutzen: “Aizue! Orain atera poltsikoan dagoen paper horreek”. Eta atera eta azaldutako egiari zegokozen bi, zortzikoak, denon artean abesten genduzen elizan, aurretik berbaz esandako guztia laburpen legez. Nahiz eta aurretik kristorenak entzun, bertsoak kantatu ondoren, gustora joaten ziren etxera.



A. Plaza

**Gero etxean be kantatu egin zitueen, beharbada.**

Baita ikasi be, sarritan. Lehengo batean, (hau oraingoa da), Meñakako emakume batek esan eustan: Hareek paperak, misinoetan zabaltzen zirenak? Ba, halakoxe bat lortuko baleust, pozik hartuko neuke. Arrastorik be ez neukan. Batera eta bestera ibili nintzen eta, azkenean, aurkitu nituen bertsoak, lehenen atera neban *Kezkaz* izeneko liburuan. Fotokopiak atera eta emon neutsezen berari eta bere lagunei, eta berak: "Baina honeek bakarrik?", alde batetik begiratu. - "Ez, bestetik be badauka" - "Ah, bai, bai! Hamasei ziren eta!" Harek denak buruz zekizen.

**Zelan bururatu jatzun elizan bertsoan egitea?**

Nik ikusten neban neuretzat gozoago zela gauza bera bertsoan irakurtzea edo agertzea eta, orduan, entzulearentzat be gozoago izango zela uste neban. Gaur egun be, Mungian eta Laukizen eta, esaten dabe: "Honek lehen bertsoan egiten eban sermoia, eta horrexen zeragaz egoten dira". Eurek eskatu eusten: "Hurrengo zatonean, ekarri bertso-papere batzuk". Eroan neutsezen eta ez genduen bakerik izan, hareek abestu eta gozatu arte.

**Neure gizonari entzuna deusat, behin, Mendexako Santa Luzian, sermoia egiteko deitu eutsiela, eta baldintza ipini ei eutsien: "Baina sermoia bertsoan egin behar dozu, ze hemen igaz Aita Martzel egon zen eta harek bertsoan egin eban".**

Ja, ja, ja! Jabierrek gustora egingo eban.

**Zeu akordetan zara horregaz?**

Bizkaian herri eta ermita gitxi izango da, ni egon bakorik, ezta? Baserri edo ermita eta horrelako lekua zenean, gustorago eta gehiago egiten neban bertsoan. Berbetan legez, baina errimaturik. Abesten geroago hasi nintzen, ospakizun, meza, batzar eta halakoetan. Baina orduan

gehiago izaten zen berbaz esaniko ideiak eurak hartu eta bertso antzera botatzea, hirukoak edo zortzikoak eginez. Jenteak berak eskatzen eban, gainera.

**Ez da mirari eskatzea, meza eta bertso-saioa batera entzuten bazituen.**

Ba, hara! Behin gogoratzen naz, Lekeition, Pazko egunez, ohitura zela Elizatik Madalera-rantz prozesinoan joatea, eta sermoia neuk egin behar nebala. Sermoiaren azkenerantz, kantuan hasi nintzen, bertsoan, eta Aberri Eguna be ikutuko neban zelan edo halan, eta ez jataz, ba, denak txaloka hasten, elizan bertan! Neu be harrituta. Ez nenkien zer egin. Gero, lagun batek hartu eta kotxez ekarri ninduen, Oiztik badaezpadan, poliziaen bildurrez edo. Orduan jentea arin berotzen zen.

**Kostaldekoak beroagoak ei ziren, gainera.**

Ba, kresalak badauka zeozer, antza, ze, beste Pazko egun batean, Ondarroan be polita jazo jatan. Han be bota nituen hiru-lau gauza, gehienak bertsoan. Jentea harrituta! Nik gauza normaltzat neukan hori. Banekien jentea berotu egiten zena, baina ni ez nintzen sartzen beste arazo askotan. Batzuek gero sakristiara etorri eta zoriondu egin nindueen, baina izan zen bestelako bat be: "Yo no sabía que se predicase en verso... no sé qué no sé cuántos" - "¿Ah, no sabía? Pues, una cosa más que sabe". Abadeak eta bildur ziren: "ea hemen jentea berotzen jakun!" Gero jatetxe batera bazkaltzera joanda, hara non aurkitzen doguzen Azpillaga eta Mugartegi be, gero bertsoan jo eta su ekingo eutsienak. Han bazen mediku bat, Arriola edo, bertako herrikoa, eta halako isilune batean dino: "Tengo que..." (erdaraz berba egin eban) neure kezka bat agertu behar dot. Hemendik aurrera, neuk be medikuaren errezetak eta abar euskaraz eta bertsoan egiten hasi beharko dot - "Bueno!" -esan neutsan argi-argian- "Hori egin-

go bazendu, pastilarik ederrenak baino indar gehiago edukiko leuke, euskaldun askoren gatzak kentzeko. Esan bakarrik ez. Hasi eta ikusiko dozu zelan gatz asko kenduko dozun euskaldunen buruetatik”.

**Sermoa bertsotan egiteak elizkizuna apur bat teatro ez eban bihurtzen? Elizako mezua ondo transmititzeko, distraitu ez eban egingo?**

Ba, ni konbentzituta nago, lehen be bai, eta orain be bai, eta hori, gainera, zientifikoki frogatuta dago, bost minututik gora, jentek ez daukala ahalmenik, esaten jakona hartzeko.

**Adi egoteko esan gura dozu?**

Horixe. Orduan, nik egiten nebana zen gauza bi edo hiru, bardin antzekoak, bi edo hiru eratarata esan. Ez da gauza asko esatea, bat edo bi ondo sartzea baino. Eta gauza bera ez bardin esateko era bat bertsoa zen. Ez zen teatroa. Jakina, elizan hori ez zen denek onartua, gitxik egiten ebelako, edo beste intentzino batzuk ikusteko makurkeria zegoelako, baina neuretzat gehiago zen bestea: herria horrelakoa bada, herriaren erara berba egin behar da; bestela ez da. Alferrik da gauza haundiak esatea. Horrek ez deutsu entzuten baina! Jenteari lagundu egin behar jako bizitzen, eta, horretarako, bere barruraino heltzeko modua aurkitu behar da.

**Bizkaiko txapelketak hasi ziren sasoiaren, euskara bera be nahikoa susmagarria ei zen. Sermoa bertsotan egiteak batzuekan sortu zeikeela esan dozun “makurkeriatik” aparte, euskaragaitik gogoratzen dozu halako esperientziarik?**

Gogoratuko ez dot, ba! Txapelketak hasi baino lehentxoago, ni Bilbon nengoen, San Felizisimon, eta hango gerra osteko lehenengo mezak euskaraz neuk emon nituen. Gupide Gotzainak baimena emonda, hilaren lehenengo barikuetan, Alameda Recaldeko eskolapioetan hasi nin-

tzen. Lau hilabetera edo, galazo egin euskuen. Gero Indautxuko jesuitetara joan ginen eta han be nahaste-borrasteak. Gotzainak deitu eustan, baten batek salatuta edo, eta esan neutsan: “Ba, jauna, hemen dozu, gura badozu, nik euskaraz egiten dodana, badaezpadan idatzi egiten dot eta” – “No, no, no! Zugaz konfiantza badaukat eta, bakotzeko, zeuk eta entzuten deutsuenek ehun urteko indulgentziak daukazuez” – “Ez da gitxi be” –pentsatu neban– “Oraintxe aprobe txatu beharko da!” Handik lau hilabetera, agindu bat etorri zen, euskarazko meza guztietan, erdaraz egin behar zela laburpen bat.

**Herri euskaldun txikietan be bai, Gizaburuagan edo Mendexan, esaterako?**

Bai, bai! Denean, Mendexan, Mendatan, Mañarian... edonon. Lagunei esan neutsen: “Baina, zu! Hau ez da... Alemaniako kolonia bat hemen balego eta alemanez egiteko baimena eskatuko balebe, alemanak bakarrik joango litzatekez meza haretara eta ez aleman ez dakieenak, ezta? Euskaldunek ez al daukie eskubiderik, non eta Euskal Herrian, mezatxo bat euskaraz edukitze-ko, erdarazko mezak bazter guztietan izanda? Meza bakar horretantxe be laburpena egin behar dogu? Ba, ni hori ez noa egiten, ze, hemen erdaraz hasten banaz, jenteari esan barik, denok goaz kanpora”. Berba eginda, hatan hasi ginen, bapeza baino hobe zela-eta, baina han be bardin. Edo bertsoak zirela, edo beste zeozer zela, lau hilabete baino lehenago, kartatxo etorri jatan, gehiago ez neukala han mezarik emoterik. Orduan Bilbotik Eubara etorri nintzen.

**Euban, mezak euskaraz ez ezik, euskal jaiak be egiten ei zenduezen.**

Bai. Eubara etorri nintzenetik urte bira edo, euskal jai bat egiten hasi ginen. Bizkaia osoan ez zegoen euskal jairik eta halakorik, dena galazota zegoen eta. Bertsolari piloa pasatu zen hemendik. Kostatzen jakun baimena lortzea,

baina bageunkan azpitik lagun bat, baimenen bulegotik hur samar, eta harexen bitartez egiten genduen.

**Txapelketak Euskaltzaindiak antolatzen zituen, baina horren atzean Alfonso Irigoien ei zegoen. Zer irudi daukazu harena?**

Bazegoen beste bat, Nazario Oleaga, eta haren kerizpea orduan beharrezkoa zen, txapelketa bat egiteko. Harena eta beste batzuen. Batzarra egiten genduen. Gabriel Arestik be bi edo hiru urtetan parte hartu eban. Aita Onaindiak be bai. Batzar horretan, gaiak eta arauak ipintzen genduzen, eta gero hori agirian agertzen ebana Alfonso Irigoien izaten zen.

**Bertsolari askok halako errezelotxoak be ba ei eutsien. Estuasunak pasatu eragiten eta konpromisoan ipintzen ei zituen.**

Bai. Berak ez dakit noraino zeukan bertsolari sena. Ez dot uste handirik zeukanik. Gustetan jakon, bai, bertsolariak estutzea. Gero, lehenengotan, ez zeukan erraztasun handirik euskaraz, edo euskara landua edo beste era batekoa zeukan, eta orduan baserri giroko bertsolarietako ondo-ondo ulertu be ez eutsien egiten. Gainera, ez zen horrela lagunarteko gizona be. Bera pentsalaria edo bakarzalea zen. Ez zen baserri girokoa. Bera kapitalekoa zen.

**Lehen Aresti aitatu dozu. Aresti, izakeraz, pertsonaia polemikoa eta antiklerikala zen. Aresti Aresti izan zen. Zelan konpontzen zinen haregaz eta zertan txoke egiten zendueen?**

Beno, ni neu txoke egiteko baino gehiago izan naz onartzekoa, bakotxa den modukoa. Baina gogoan daukat, bai. Nazario Oleaga eta horrelakoak, gizon bibotedunak, gizon handiak, kape-ladunak, horreen aurrean formal samar ibiltzen zen bera be. Baina Aita Santigaz eta, hau berau be zirikatzailea zenez, samatik heltzeko moduan jartzen zen. Aresti arau eta lege guztiak

apurtzekoa zen. Bera sortzailea zen. Ez eban hainbeste begiratzen aurretiko tradizioak zer egin dauen, edo aurrekoek zer sinistu daberen, edo bertsoetan zelan edo zer. Lar zen, lar, lar. Gainera, oraindino gazte, ha zen bin-bon-bin-bon. Epaimahaian oso jente ezbardina gengozen. Pilo bat oker egingo genduen segurutik, baina fin ibiltzen ginere.

**Okerrak esan dozunez gero, eta hainbeste bider epaile izan zinenez gero, bai Bizkaiko eta bai Euskal Herriko txapelketetan, zeintzuk dira, zeure ustez, emon zenduezen epaietan, hain zuzenak izan ez zirenak?**

Bat, ba... Bizkaian tentazinoa izaten zen, nahiz eta gaitik kanporako bertsoa bota, herri guztiak txalo jotzen ebanean. Orduan izaten da txarra.

**Konpromisoa esan gura dozu?**

Jakina! Eta orduan jo behar dozu: Ez. Onena botata be, hamarreko nota merezi dauena bada be, gaitik kanpora bota dau honek, ezta? Iparraldekoekin be arrisku handia zegoen. Jente askok ez eban ulertzen, eta gero beste gauza batzuk be ikusten ziren. Orduan epaimahaikook nahikoa moltzoa egiten genduen. Basarri eta Uztapideren arazoan, esaterako. Basarri hasarratu egin zen eta *Diarioan*-eta idatzi eban, itzelezko purrustadak botatzen, berari txapela kendu eta Uztapideri emon jakonean. Berak esaten eban (eta ni horretan beragaz nengoen), inoiz kentzekotan, aurreko urtean kendu behar jakola, baina ez urte horretan, ze urte horretan, neure ustez be, bertso batzuetan, biek elkarregaz jokatu ebanean, Basarri hobeto ibili zen. Bere burua neurtzen berak be bazekiela esaten eban, eta artikulua latza agertu zen. Nik orduan telefonoz deitu neutsan, esanez: "Aizu, zeure onerako da, gizon! Izan dozun kategoria guztia galdu egin behar dozu. Gainera, Uztapide beti zeure ondoan erabili dozu".




**Epaimahikoek moltzoa egiten zendueela esan dozu, baina, kasu horretan ez zendueen hain moltzo jokatu, antza.**

Baziren giputz batzuk, behin behintzat, txapela besteari emotearen aldekoak, alde handirik ez bazegoen. Nik ez neban horrela ikusten eta kontra egin neban, baina hor ikusten zen bloke bat zegoela Uztapideren alde. Eta gero Xalbadorren zerean be... Bertso batzuk bota zituen emazte hilaren soinekoaz! Entzuten nengoela, pentsetan neban: "Beno, baina gizon hau zelan da kapaz, horrelako gauzak bat-batean asmatu eta botatzeko? Hau bai sartu dela bere emaztearen gona

barruan!" Zelan bota eban! Eta nik esan nebana: "Aizue! Horreei bertsooi, edo aparteko saria emon behar jake, edo eurak bakarrik dira nahikoa, gizonari txapela emoteko". Gero bardin, harako txistuak jo jakozenean be. Hor bazen giputzekin zer bat. Giputzena beste mundu bat da. Horreek euren tranpak eta zerak daukiez eta euren artean azpijoko gehiago daukie.

**Eta, entzule legez, zeintzuk gogoratzen dozuz horrela unerik zirrargarrienak?**

Ba, oraintxe esan ditudan Xalbadorrenak, ezta? Soinekoarenak eta beste hainbat. Beste behin,



Eibarren Lasarteri omenaldi bat egin jakon eta oso bertso gozoak eta sakonak kantatu ziren han. Gero, jakina, gustora entzun, hemen Bilboko Institutuan be bai, hor egin genduenean zera... ez dakit nortzuk etorri ziren, Lopategi eta Azpillaga eta. Gustora entzutea bertsoagaitik beragaitik eta giroagaitik be izaten da. Arenalekoa izan zen horrelako bat. Dena gertu zegoen, bertsolari txapelketa egiteko, eta azken orduan galazo egin eben. Jentea, barriz, milaka. Azkenean, lortu genduen. Bazen abade famatu bat, Don Jose Etxeandia, Durangoko Santa Anako parrokoa, eta, bera be epaimahaikoa, baina politikaz errejimenekoa zenez, azpitik leku askotara heltzen zen eta esan geuntsan: "Zu! Hau honela ezin leiteke gelditu. Zuk badakizu hemen buruak non dagozen eta benga!" - "Hori, ostera...", hasi zen, baina gustetan jakon kontua berak atera ebala aurrera entzutea, eta lortu egin eban. Giro itzela sortu zen eta giroak bertsolarietuei be atera eragiten deutesiez lapikoak. Gero beste bat, Xabier Amurizari berari entzun neutsana, txapela atera ebanean, eta, batez be, aitaren bertso hareek, aita hemen bizirik balego eta abar. Ha be oso ederra izan zen. Beste bat Lopategirena, gaia jarri eutsiengan: *Gaztetatik beti itsasoan ibili zaren arrantzalea zara. Orain gaixorik zagoz, zeure gelako leihotik itsasora begira.*

#### **Txapela atera ebanean izan zen hori.**

Gero berak be esan eustan, oraindino antzina ez dela: Hau eta bestea eta, zu! Batzuek esan eusten hareek bertsoak... errimak betetzera bakarrik joan nintzela. Ño! Errimen ardura izan behar da, baina niretzat bertso ederrak izan ziren hareek. Giputzak, bizkaitarrak txapela irabazten hasi zirenean, larritu egin ziren, baina Lopategik eta Xabierrek eta beste eskola bat ekarri dabe, beti lehengo bertsoetan ibili beharrean. Beste gai batzuk, beste kultura maila bat

eta beste bide bat. Hori eten bat izan zen. Eta orain, ba, Andonik eta horreek aurrera jarraitzen dabe, ezta?

#### **Eta zeure bertsolariarik edo bertsokerarik kutunena zein izan dozu?**

Ni neuretzat, neure izakeraz edo neure zerean, sakontasunari begiratuta, Xalbador. Bertsolari bai, baina beste maila bat be bazeukan harek. Poeta, olerkari, mistiko, beste mundu bat. Berak esaten eban zelan behin, bera artzaina baitzen, zera... Zaragi bat, zaragi txiki bat eroaten ei eban, eta behin zaragi txiki hori emon ei eutsien, hurrengo astean ezkontzeko zen bikote batentzat gordeta zeukiena. Tabernariak oker hartu eta berari emon. Ba, zaragitxoari trago batzuk kendu eta gau guztian ekin ei eutsan bertso kantetan. Hareexek harrapatu begeuntsaz zintan, eh!

#### **Ederrak izango ziran.**

Ziur. Niri, batez be, gustetan jatana, kontraste-ko zeraz gainera, bere mundua zen. Ez da bardin Xabierren mundua eta harena, ezta? Bere artzain mundua, euskal mundua, fede mundua... Bera mundu horregaz bat eginda zegoen. Eta zelan adierazten dauen mundu horren barrua!

#### **Bertsolaritzaren eboluzinoa zelan ikusi dozu, txapelketak hasi zirenetik?**

Asko landu da! Lehen be esan deutesuten hemen, batez be, Bizkaian, ez zegoela tradizionorik horretan, eta bertsolarietuek nahikoa egiten eben plazara urteteagaz.

#### **Atera egiten zenduezen eta!**

Bai, ba! Tiraka legez, eta benga, eta animatu, eta halan. Baina gero, esate baterako, Lopategi eta Xabier eta honeek hasi zirenean, lehendik be kultura bat zeukien pertsonak izanik, beste maila bat ikusten da, ezta? Azpillaga,

esaterako, adinez Lopategiren antzekoa zen, baina Azpillaga gehiago da plaza-gizona, edo beste era batekoa. Orduan, eurak eurretara, txapelketetara eta plazara joaten zirenean, hor izan zen aro bat nahikoa nahastua, lehengoa eta gaurkoa batera ibili zirena, eta oraindino be jarraitzen dauena, ze, esate baterako, nork ez dau bertsoetan egin Jainkomendiko bertsolariagaz? Horregaz ez dago misterioetan ibiltzerik. Horrek herriko bizitzan eta saltsan erabiltzen dau jentea. Baina, bestetik, orain, gaurko egunean, zer esanik be ez, mailak nahikoa gora egin dau. Landua. Eta horrek ekarri dau, bertsoaren ulerkeran be, jente nagusia gitxitzea eta gazteak gehitzea. Euskara kontuak berak be asko eragin eban. Batuagaitik, politika zeragaitik, edo ulertzen ez ebalako, jente nagusia alendu egin zen. Gaur egunean, eskolako eragin handia dago, eta eboluzino hori nik uste dot irabazpide handia izan dela. Ikusten da bertsoa gai dela, ez gauza ziztrinak edo huskeriak erabiltzeko bakarrik, baizik baita ideologia eta kultura mundua lantzeko eta herrian zabaltzeko be. Horretarako, nik uste dot maila handia hartu dauela.

#### **Gaur egungo bertsolaritza jarraitzen dozula ulertu behar dogu?**

Bai. Askorik ez, astiagaitik, denporagaitik, baina osterantzean bai. Eta gero, batez be aurten, Bizkaiko txapelketa nahikoa jarraitu dot, eta oso onak dagoz, eh! Gazteak, egoten dakieenak, erantzuten dakieenak, eta ondo, ondo.

#### **Finalera heldu zirenak, denak dira titulu uni-bertsitarioa daukienak eta, orduan, lehengotik diferentea derrigor izan behar.**

Bai, ba! Gero gauza ona da maila horretako jenteak bertsolaritza aintzat hartzea, eta bertsolaritza bidetzat hartzea, gainera, bere nortasuna agertzeko be. Hori aberastasun handia izan da.

#### **Eta emakumeak bertsolaritza? Zuk pentsatuko zenuen emakumeak inoiz horrela plazan ibiliko zirenik?**

Beno, hori, ahalmen kontua baino gehiago, kultura kontua izan da. Badakizu, andrazkoa, orain urte batzuk arte, etxe bazterrean edo sutondoan edo gauza txikietan lekutzen zen, baina horrela alkate izateko modukoak, bertsoetan ibiltzekoak, plazan agertzekoak... Eta, jakina, hori askotan gitxitzat legez hartu izan da, andrazkoak gaitasunik ez baleuka legez, baina Lujanbiok nori deutso ezer zorrik?

#### **Hurrengo Euskal Herriko txapela larri ibiliko da haregaz.**

Bai, ba! Zelako jarrera eta zelako patxada daukan egoteko, ezta? Orduan, hori beste lorpen bat izan da, andrazkoari berari aukera bat emoteko, eta, gainera, aukera horri heldu eta ipini egin dau bere lekuan. Aberastasuna da hori.

#### **Frankismoaren azken aldiari abiatu zen bertsolaritza politiko-soziala, elizatik eta komentuetatik zelan hartu zen, zeu elizgizona zaren aldetik?**

Hor barruan denok ibili ginen, edo pilo bat bai, behintzat. Orduko politika giroa denok bizi izan genduen, barru-barrutik. Alde batera edo bestera, bertsoetan, abestietan eta denean sartu zen hori. Gainera, hor egon diren edo agertu diren asko eta asko geure kolegioetan edo geure komentuetan egondako jentea izan da.

#### **Orduko erromerietan eta giro haretan, protestakanta bizi-bizi zebilen. Bertsoa be, asko, hari beretsukoa zen. Elizatik zelan ikusten zen hori?**

Ez dakit. Nik, behin, bertso batzuk atera nituen, Santuen protestak izenez. Orduan dena protesta zenez, ba, altarako Santuak be protestan ipini nituen. San Benito eta Santa Luzia eta Santa Ageda eta... Joño! Geure izenean egiten joezak horreek egitekoak! Halan, bertso batzuk badau-


kadaz Santuen protestekin. Baina, hortik kanpora, nik neuk, behintzat, ikusi dodana ondo zegoen. Elizkizunetan, ermitetara gindoazenean, gehienetan neuk zabaltzen nituen bertso-paperak, eta mezarik gehiena bertsoetan egiten genduen. Handik kanpora urtenda be, plazan bertsoaritza zen jaien zati bat.

**Mañukortak zugazko istorio bitxia dauka. Aita Martzel noiz eta zelan ezagutu eban kontetan dau. Zuk gogoan daukazu?**

Berak esanda. Ez dakit zer urtetan, 1972-73an edo lehenago, beharbada. Elgoibarrera joan behar neban, garizuman gogo-jardunak emotera, eta Jainkomendin ez dakit nondik entzun eban. Baleiteke Arrate irratitik izatea, orduan Oiztik Anbora saioa egiten genduen eta. Behintzat, sermoia bertsoetan egiten nebala entzunda, beste barik etorri zen Elgoibarrera, sermoia entzutera, eta joño! Baietz, egia zela. Handik aurrera, egunero etorri zela esan eustan behin. Ondo gogoan zeukan, bai, eta neuri be halantxe geratu jatan.

**Amaitzeko, zuri be nahitaezko itauna egin beharko deutsugu. Bertsoaritza etorkizuna zelan ikusten dozu? Norantz jo behar leukeela uste dozu zeuk?**

Daroan bidea ona dela uste dot, eh! Euskal kulturaren barruan, txikitatik hori sartzea, euskal izatearen, nortasunaren ezaugarri legez, nik hori ondo dagoela ikusten dot. Oraingo gazteak nagusi egiten direnean, eurek moldatuko dabe etorkizunak esaten deutsenagaz. Gaztetarik horretan hastea, eskola eta abar, euskal kulturaren barruan eta gaur daukan eragin horregaz, urte askotan izan daite-la, ze hori aberastasun handi bat da. Norantz joango den? Hori gaurko gazteek eurek esango dabe, helduz-helduz doazenean. Ez dot uste txarragora joango denik, eh! Hor arrisku bat egon zen, edo batzuek uste eben, gazte-txook hasi eta zaharrak erretiratu zirenean, laster baten katea eten, edo gastatu, edo bertan behera geldituko zela. Ez dot uste. Eta, gainera, nik beti esaten dot: "Lamentuzko profeziak ez dau askorik onduko".



XDZ

Abel Enbeita kantuan. Atzean, Jon anaia eserita 11 urterekin eta Aita Martzel. 1961eko Txapelketa Nagusia.

## Joseba Arregi "Altzu"




*"Orduan oso inportantea, derrigor behar zena, ahotsa zen. Gaur be gustatuko litxakit ahotsari garrantzia emotea. Ahotsari ez ezik, kantakerari berari be garrantzia emon behar jakola uste dot".*

Joseba Arregi 1934ko apirilaren 3an jaio zen, 34-34, edo "tres del cuatro del 34", berak esan ohi dauenez, Berriatuko Altzu baserrian. Hortik jator-ko "Altzu" ezizenez gehiago ezagutzea. 1960ko hamarkadan, Bizkaiko bertsolari ezagunetarikoa izan zen. Gerra osteko txapelketen lehenengo

boladan, 1962, 1964 eta 1966an parte hartu eban, denetan finalera heldurik. Gero, oraindino oso gazte, bertsolaritzari iztea erabagi eban. Berbal-dun joria eta atsegina, obserbatzaile eta aproba-tzaile handia. Buruari buelta handiak emongo deutsoz, beti zer asmatuko, baita pentsakizun bitxiak eta orijinalak burutu be, azalpen argietan aurkeztuko dituenak. Hemen be halako ugari agertuko da eta, irakurleak guk elkarrizketa egiten beste gozetan badau, unada atsegina pasatu behar dau benetan, kontatu deuskun guztia sartzea gatxa izango da baina.

527



Juanitxo Egalea. XDZ

Joseba Arregi 1987ko Bertso Egunean.

### **Joseba, Altzu, Jose Mari, Ongarri, Arregi... Izenekin be badaukazu zuk nahikoa historia piratazkoa.**

Norbere benetako burua disimuluan pasetako da hori. Ni Joseba Mirena nintzen gerra aurre-an, baina gerra ostean batzuk ez zegozen kon-forme herrian, eta udaletxean Jose Mari ipini eusten, sei urtegaz. Semeak inoiz esan deust ea ez dodan izen hori lehengora aldatu nahi. Ez, itzi, -esaten deutset- "izena aldatu deuste, baina izatea ez deuste aldatuko". Herrian Jose-ba nintzen, bertsotan hasi nintzenean, Jose Mari be bai. Karteletan Arregi, baina lekurik gehienetan "Altzu", baserriaren izenez. Pentsu

saltzen Ongarrigaz nenbilenean, askok "Ongarri" esaten eusten. Beste izen batzuk aprobatu barik ez neuke amaitu nahi.

**Gure gai nagusia bertsolaritza denez, horraxeko joko dogu zuzen. Eta hasiera badakizu. Nondik hartu zeuntsan bertsoari burpila?**

Niri bertsoak ikastea gustetan jatan gehien. Kortan, soloan, nonahi nenbilela, aitak edo bestek bertso-paperik ekartzen baeben, buruz ikasten nituen. Eta kantetan ebenei ikasi be bai. Orduan, hor Milloiko filarmonikarenak be denak ikasi nituen, nahiz eta handik urteetara galdu, ahaztu eta beste bati ikasi behar izan neutsaizen. Basarrien lehenengo liburua be, *Kantari nator* uste dot, ailegatu zen, eta handik be edozenbat bertso ikasten neban.

**Hori zenbat urtegaz?**

Hamaika-hamabi urtegaz.

528

**Eta bat-batean noiz eta zelan hasi zinen ?**

Azpillaga, Mugartegi eta ni adin bardintsukoak gara, urte biren barruan. Orduan Uztapide eta Basarri etorri ziren Berriatura bertsotan. Hareei entzuten egon ginen eta gero, Kanpetxaneko tabernan, Mugartegi bertsoak kantetan hasi zen. Nik hamahiru bat urte neukazen. Handik laster, Azpillaga be hasi zen eta biek egiten eben bikotea. Erromeriara alkarregaz ibiltzen ginen eta, neuk be bertso ikasiak asko nenkizenez, oinarria baneukan. Halako baten, gogaitu egin nintzen hareei entzuten eta, eurek gogo gitxiago zeukienean-eta, neu be batzuk kantetan hasi nintzen eta gero jarraitzea besterik ez zegoen.

**Azpillaga Lopategigaz ez zen ibiltzen, ba?**

Hori askoz geroagoko kontua da, 1962 ingurutik aurrera. Azpillaga eta Lopategi alkarregaz buztartu zirenean, Mugartegi apur bat atzera geratu zen, eta orduan Mugartegik eta neuk egiten genduen bikotea. Plaza askotan kantatu genduen, urte

askotan. Hareek biak asko ibili ziren, politikan eta orduko errejimenean gehiago sartzen ziren eta. Gu ez hainbeste. Herrietan jente klase asko zegoenez, denak ez ziren izaten, deitzaileak behintzat, hareen aldekoak, eta geu be asko ibiltzen ginen. Gipuzkoan ez hainbeste, baina Bizkaiko herri guztietan ibili ginela esan leiteke.

**Zer edo zeri kantetan zeuntsien orduan? Jenteak zer entzun nahi eban?**

Orduan herrietan frankistak ziren eta halako zer itsusiren batzuk egin bazituen, igual plazan, hasi aurretik, esaten euskuen: Urliak hau eta hau egin dau eta gustatuko litxakigu horri ekitea. Eta, apur bat disimulutxoan bazen be, batzuetan zeozer aitatu egin behar izaten zen. Osterantzean, umorezkoak, neska-laguntzak eta halakoak, baina hori be gatxa zen, eliza oraindino oso gainean zegoen eta. Dena disimuluan esan behar izaten zen. Bertsolari bien arteko gorabeherak be bai, batari ardaoa gustetan jakolako, besteari bestea, eta beti zeozer, elkarri zirika.

**Guardia zibilekin arazorik izan zendueen inoiz?**

Guk ez genduen horrelako arazorik izan. Jakin bagenkien zer gorabehera zebilen, baina bildur ginen, euskara bera aitatzeta be arriskutsua zen eta.

**Entzuten zenbat jente eta, batez be, zer jente klase izaten zendueen?**

Orduan bertsolaria asko miresten zen. Dohain berezi bat zela, jaio egin behar zela. Ni neu be, garbi esateko, horrexegaitik, ez nintzen preparatu be egiten, ze ez neban pentsetan, preparatuta be, Azpillaga edo Mugartegi beste izango nintzenik. Jainkoaren dohaia bazen, ba, harexeri ekin eta bakoak zeukanagaz aurrera. Ez neban prestakuntzan bururik ipini eta, gainera, orduan beste behar batzuei garrantzi handiagoa emoten neutsen.

**Plazetatik aparte, beste okasinorik izaten zendueen?**

Ezteguetan be orduan asko kantetan zen, eta nik neuk ia plazan baino gehiago. Ezteguetakoa asko gustetan jatan, ze samurtasun edo hunkigarritasun gehiago edukitzen eban ezkontzetakoak, ume ekartze, maitasun kontu eta abar. Niri olerkia be asko gustatzen jatan.

**Plazan gaijartzailerik erabiltzen zendueen?**

Ez. Lehenengoan ez. Nire lehengo plaza edo gizartea taberna bat izan zen. Ondarrutik Lekeitiora bitartean, Frantsesana esaten eutsien lekuan, taberna bat zegoen. Hantxe ekin geuntsan lau berriatuarrek kantari. Matias Ikaran Nagusikok be egiten eban, eta Azpillagak, Mugartegik eta neuk.

**Orain bertsolariak urduri, larri ibiltzen direla esaten dabe batzuetan. Zuek lasai joaten zinien plazara?**

Ez, ez. Ha barruko harra beti izan da eta halan izango da beti. Onak errezago egin leike, baina erantzukizuna be badauka, eta behean dabilenak be, pixka bat itxuratzeke, estutu egin behar. Oso gatxa da, ze, idatzita, konpontzen dozuz gauzak, baina bat-batean, lau gauza eroan behar ziren batera. Orain, diptongoak eta abar, neurrian akats batzuk egin arren, pasatu egiten da. Orain gauza asko esatera dago joera, eta metrika kontuak errezago parkatzen dira. Orduan neurriari asko begiratzen jakon. Baita errimari be. Horretan, esaterako, Lasarte oso miretsia zen. Esaten pobretxoago gelditu arren, haren bertsokera oso estimatua zen.

**“Lau gauza batera” esan dozu, baina neurria eta errima bakarrik aitatu dozuz.**

Bai. Neurria, errima eta zer esana. Eta laugarrena, orduan oso inportantea, derrigor behar zena, ahotsa zen. Gaur be gustatuko litxakit ahotsari garrantzia emotea. Ahotsari ez ezik, kantakerari berari be garrantzia emon behar jakola uste dot.

**Txapelketetatik zelako inpresinoa gelditu jatzu, zu horretan be asko ibili zinen eta?**

Bai. 1962tik aurrera, punta-puntan be ez, baina hantxe ibiltzen nintzen, Bizkaiko finaletara ailegatuz. Euskal Herriko txapelketetan be ibili nintzen. Beti izaten da hobetzeko gogo eta beti izaten zen zeozer barria, baina txapelketa denentzat da gatxa, bai bertsolarientzat, bai epaileentzat.

**Ordurik hona zer alde somatzen dozu?**

Aldeak asko dagoz, baina ni epaile banengo, lehen esaten ibili garen legez, ahotsari eta kantakerari bere balioa emongo neuskio. Gure sasoiak kantatzea asko baloretan zen. Tabernan, bertsotan etorri handia izan arren, ahots eskasa bazeukan, “hago isilik” esaten jakon. Orain kirrimarra kantua dabil, baina hau be pasatuko da modatik eta etorriko da barrero, beharbada, lehengo erara kantatzeko grina, baina orain holantxe da eta aurrera.

529

**Anekdotarik edo zeozer gogoratzeke modukorik? Herrietako pertsonaia zelebreren bat edo?**

Lazkao Txikiri entzun neutsan behin, Kontzezinon Markinan, beste inon entzun ez dodan txiste bat. Berak asmatuaren antz guztia dauka. Jesukristo, bere hiru ikasle kutunak inguruan zituela, Getsemaniko ortuan otoitz eta otoitz ari zela, San Pedrok esan ei eban: “Honek gure Maisu honek jaukak pazientzia!” Eta atzetik gizon batek: “Horrek pazientzia? Pazientzia neuk jeukaat hemen!” - “Hi nor haz, ba?”, San Pedrok, eta berak: “Ni ortu honen jabea. Dena zapaldu deustazue eta oraindino ez dot txistik be egin”. Lazkao Txikiri akordatu behar pertsonaia ha han topatzea!

**Zuk bertsogintzarik ez zenduela landu esan dozu. Zer egiten zenduen, ba?**

Bertsokak ikasi asko, baina landu bapez. Berezkoa zela eta aurrera. Eta gero sarri pentsatu

izan dot instintoa bera be landu egin behar dela. Bertsoaritzaz niri txofertzagaz konparatzea gustetan jat, neu be beti horretantxe ibili naz eta. Gaur egun edonork daki txofer, baina txofertzan be kontu asko dagoz. Nik gaur zuen etxera etortzea pentsatu dot eta banator, baina ez da nora heldu gura dozun bakarrik. Bitartean, retrobisoretik begitu behar dozu, atzetik nor edo zer datorren, frenoari be lantzean behin sakatu behar deutzazu, batzuetan apur bat, beste batzuetan gehiago. Enbragea non dagoen be arin topatu behar dozu, azeleradorea, gehitxoago, gitxitxoago, kanbioak... zenbat gauza eroan behar diren batera. Horreek denok pentsatuta egitekoak balira, ezingo geunke kaminora urten. Instintoan dagoz, baina ibili eta landu ezik, torpetu egiten zara. Instintoak atal asko daukaz eta lantzen ez badozuz, sortu egiten da. Bertsoaritzan be antzera jotzen dot: errima, neurria, berbak... Landu ezik, han bertan gatxagoa da etortzea, baina ni halantxe ibili nintzen, Jainkoaren dohaia zelakoan.

**Bertsolarien artean, baten bat izan dozu mirestu dozunik?**

Ez dot inor izan, halan bereziki mirestu dodanik. Beno, mirestu, neuk debilidadea daukadako, Xalbador egiten neban gehien, bere olerkarako formagaitik eta denagaitik. Haren bertsoak ikaragarriak ziren batzuetan, sorginarenak eta. Halakoak idatzita be ez dago gaingaitzerik.

**Gaur egungo bertsoaritzari jarraitzen al deutzazu eta, halan balitz, zelan ikusten dozu?**

Jarraitu, jarraitzen dot zerbait, baina beste buruhauste batzuk be badaukadaz eta badakizu. Ikusten ditut, bai. Bertsoariak gaur ikaragarriak dagoz. Inoiz baino eskasagoak be bai. Sasoi baten urtengo ez eben moduko bertsoariak urteten dabe gaur jente aurrera. Baina bertsoari onen tontorra be gaur oso altu dago.

**Emakumeak be badabilz. Zer deritzozu horri?**

Emakumea, denean be, geroago eta geroago joango da. Gaur oso ondo egiten daben emakumeak dagoz. Orduan gatxa zen, abadeak be gainean egoten ziren eta. Niri bardin deust andrazkoa zein gizezkoa izan. Ganorazkoa bada, horixe aurrera, eta ganorabakoa bada, bazterrera, gizon zein andra. Neuk holan ikusten dot, bertsoetan eta gauza guztietan.

**Zu plazan asko zenbilzen, arrakasta zenduen eta bat-batean itzi egin zeuntsan. Zergaitik edo zelan izan zen hori?**

Apurka-apurka. Orduan piloa erretiratu ginen. Nik uste dot, gauza guztietan legez, sasoi batera ezkerro, jakin egin behar dela alboratzen. Askorentzat sakratua izango da Aita Santua bera be, baina ez dago multinazionalik, horrelako gerenterik daukanik. Bertsoaritzan be, halan ikusten dabenek segi daiela, baina neuk ez neban hor atzera-aurrera ibiltzeko motiborik ikusten.

**Ameriketan be ibili ei zinen bertsoetan.**

Lopategi eta Azpillagagaz izan nintzen, behin, Elkon, 1974an. Hilabete egin genduen, gastuak ordainduta. Ondo ibili ginen. Hantxe kantatu neban nik 4.000 lagunuen aurrean, Estatu Batuetako jai nazionalean, uztailearen 4an. Gero, 3.000 kilo txuleta erre zitueen hiru gizonen artean, bat, hain zuzen, sukaldari-buru egiten ebana, Gizaburuagako Jose Txapo. Plater bana emoten euskuen, eta norbera joaten ginen bila. 3.000 kilo, eh! Ameriketan dena da, izan be, handia.

**Handia izatea da bat, baina sarritan entzun deutsudan hango arbolena be ez da txikiagoa, beren beregi ikustera joan ei ziniena.**

Hori 1990ean izan zen. Andrea eta biok eta Markinako koinatu-koinatak joan ginen. Kaliforniako Sequoia National Park. Parke izugarri



haretan, 500, 800, 1.000 metroko kubikoko sekuoiak erreskadan zegozen. Handienak ia 1.500 metro kubiko daukaz. Gerrian, 15-16 metro, eta luzeran, 86 metro. Berriatuko plaza barrenetik kanpantorreko puntaraino 33 metro dagoz. Arbola harek daukan adar bakarra 40 metrotara dago eta 38 metro kubiko daukaz. Beste adarrak ihartuta daukaz, puntako adar txiki moltzoa izan ezik. Eta handiena, arbola horrek, Jesukristo jaio zenean, 1.500 urte zeukazela. Ez da bera zaharrena, gainera. Txinan ba ei dagoz 5.000 urtekoak. Baina munduko handiena bera da. Gu, arbola hareei begira, milagrorik handienean baino liluratuago gengozen. Eta txikiagoa ez da Idahon ikusi genduen Simploten granja, 97.000 mila burukoa, denak gizentzeko txahalak, euren kortetan. Durangalde guztia besteko ikuilua, hasi Elorriotik eta Zornotzaraino. Orain, 120.000 burutik gora ei daukaz. Ikusita be gatxa da sinistea.

### Elkoko bidaiara itzulita, Lopategik han be egin-go eban bereetarikoren bat.

Lopategik? Jesus! Orain Iparraldekoekin tratu handiagoa hartzen hasita gagoz, baina orduan gu hareentzat espainolak ginen eta eurak be guretzat frantsesak. Behin taberna baten frantses-euskaldun bat topatu genduen. Bertsolariak ginela eta, egunkarian zelan urtenda gengozen, ezagutu egin ginduzen. Artean Xalbador eta Mattin be izanak ziren. Harek esan eban: "Zuek espainolak, ezta?" Eta Lopategik: "Ez. Gu euskaldunak" - "Euskaldunak bai, baina espainolak" - "Euskaldunak bai, baina espainolak ez". Eta halan. Gero autobusean joan ginen beste paraje batzuetara, eta bueltan, barriro taberna haretan, frantses-euskalduna han zegoen eta dino: "Zelan? Berba batzuk ingelesez be ikasiko zenduezan, espainolak izan arren". Eta Lopategik: "Ikasi doguz, bai, sanababitz eta holakoak" (son of a bitch = putakumea). Majo ulertu eban. Gehiago ez eutsan ekin.

### Alkate be egona zara Berriatuan.

Bai. Zinegotzi edo alkate, 22 urte egin nituen udaletxean. Horri be bertsolaritzari legez itzi neutsan, aurrera jarraituz gero, Francok baino denpora luzeagoa egin beharko nebala eta. 22 urteok hiru arotan banatu ziren. Berriatua Ondarroara anexionatu nahi eben, eta 7 urte horren aurkako burrukan egin genduzen, ni udaletxean zinegotzi nintzela. Ondarroak Berriatua beregandu eban eta 8 urte egin nituen han zinegotzi, aldi berean, desanexino batzordeko buru nintzela. Azkenean, Berriatua barriro herri izatea lortu genduen, eta 8 urte egin nituen bertako alkate. Eta gauzak zelan diren! Frankis-



Joseba Arregi eta Juan Mugartegi. 1976-X-00

moan ezarri euskuen astakeria haretatik, azke-  
nean, mesede gehiago atera genduen kaltea  
baino, ze herri bien arteko banaketa geografiko  
barria eta naturalagoa eginik, bai ondarrutarrak,  
bai berriatuarrak, denok gustura geratu ginen.  
Anexinoa etorri aurretik gengozen baino gustu-  
rago esango neuke. Euskal Herriko arazo oroko-  
rrean be, sarritan pentsatu dot, han egin gen-  
duen legez jokatuko bagendu, beste modu bate-  
an gengokezela.

**Zer ahokera itzi eutsun kargu horreetan ibil-  
tzeak? Egia da erre egiten dauela?**

Nik neuk ez neban erreta urten. Ondarroan gu  
Berriatuko gauzetan ahalegintzen ginen eta herri-  
rako komeni zela ikusten genduena, harexeri  
tiratzen geuntsan. Ondarroan, PNV eta HB oso  
tema gogorrean ibiltzen ziren. Niri politika kon-  
turik ez jatan gustetan. Berriatura zeozer onik  
ekarri ahal bazen, PNV zein HB izan proposatzen  
ebana, nik horrexeri emoten neutsan garrantzia.  
Berriatua apartatu zenean be, neure erizpide  
berari eutsi neutsan. Eztabaida politikoan zara-  
taka ibiltzea sekula ez jat askorik gustatu.

**Oraingo martxa politikoari zer deritzozu?**

Nik euskarari emongo neuskio indarra. Hori joa-  
nez gero, Euskal Herria joan da, batez be, orain  
esaten den globalizazioan. Euskara indartzea  
da beharrezkoa. Gero beste kontuak, bakotxak  
ikusten dauen moduan, joango dira zelan edo  
halan, baina bitartean euskara joateko arriskuan  
dago. Hemen bat egin ezinik gabilz. Horretan,  
Francok mesede egin euskun, batu egin gindu-  
zen eta. Baina orain larregi kostatzen jaku  
batzea.

**Bertsotan zenbilzenean, abadeek asko agintzen  
ebela esan dozu. Gaur egun zelan zabilz erleji-  
no kontuan?**

Erlejinoak munduan bi mila ei dagoz. Gehiago be  
egongo ziren. Hemen bakotxa geurea bakarra

delakoan gabilz, baina bakotxak zergaitik ezin lei  
berea izan? Nik, Jaungoiko eta abar, neure senti-  
kera daukat, baina neurea. Beste askok eurena  
legez. Horixe da behar dena. Behin Ondarroatik  
abade bat etorri zen, konfesino orokorrerako pre-  
parazino moduan, eta esan eban gaurko gazte-  
riak erlejino "kartara" hartzen dauela. Ez jatan  
bape gustatu. Geuk ezagutu doguz hiletak pri-  
merakoak, segundakoak, tertzerakoak... Orduan  
Elizak "kartara" lurperatzen zituen kristinauak?  
Behin Elorriotik etorri zen misiolari bat, kirten  
samarra, andrazkoei eta edozer esatekoa. Gizo-  
nakaitik be behin esan eban ze astoak ura legez  
edaten dabela ardaoa. Gure aita ditxolari samarra  
zen eta urtekeran, barretxoak eginez, esan eban:  
"Gizon horrek Jaungoikoaren gauzetan asko  
jakingo dau, baina astoak ura zelan edaten  
dauen ez daki, suabe-suabe-suabe. Gizonak  
ardaoa holan edan?"

**Zuen ume sasoiari, euskaragaitik eta edozergai-  
tik, zigorra ugari izaten ei zen eskolan. Zuk zer  
gomuta daukazu horretaz?**

Berriatuko eskolan bazen maisu bat, euskaraz  
entzun baino edozer nahiago ebana. Baten bat  
euskeraz berbetan somatzen baeban, harexeri  
pasetan jakon giltza. Azkenekoari sasi-okanez  
eginiko makila fin bereziagaz emoten euskun  
lepotik behera. Gero, oraintsu, erregea ikusi  
neban behin telebistan, esanez erdara ez zela  
Euskal Herrian ezarritako hizkuntza izan, eta  
nik esan neban, nik hartutako zartadak, anda-  
luz harek emonak, berak hartu izan balitu,  
erregeak ez ebala halako tonto-aurpegirik euki-  
ko. 70 urte daukadaz eta tratu hareek ez jataz  
ahazten.

**Eskolaren paralelo eta sarritan batera joan ohi  
zen dotrina edo orain katekesia esaten dabena  
be aitatu beharko dogu.**

Orduko errezuak eta denak daukadaz gogoan.  
Behin Munitibarren, taberna baten, erdi-edan-

da zebilen batek esan eban ze, dena inorena barik, "ni pekataria" esaten ikastea be ez litza-tekeela txarra, eta esan neutsan: Edan erronda hori eta ondoren, gura badozu, neuk esango deusut 'ni pekataria' hiru eratarata - Zelan hiru eratarata? - "Latinez, euskaraz eta erdaraz. Eta hasi nintzen: "Confiteor Deo omnipotenti, beatae Mariae semper virgini..." Banindoan aurre-ra eta geratzeko agindu eustan, nahikoa zela eta. Eskerrak geratu nozulako, bestela, euskaraz eta erdaraz eta beste hizkuntzaren baten be igual entzungo zenduen, jakin daizun hemen "ni pekataria" esaten dakienak be bagarela.

**Bertsotan gaztetxorik hasi zinela esan dozu, erromerietan eta abar. Bertsotan bakarrik?**

Dantzan be laster hasi ginen gu, neu behintzat. Hamabi urtegaz, Milloiko sanantolinetan, neska bategaz dantzan egin neban. Nik neskekin arin hartu neban adiskidantza. Beno, soltean bakarrik, eh! Neskak hasi ziren eta batek nire lagun baten lehengusinagaitik esan eban: "Horrek ez jeukak nogaz eginik". Eta nire lagunak: "Ba, honek be egiten jok", eta ra urten neban. Hanka bizkorak neukazen orduan! Gainera, lehiaketetan be ibilia nintzen eta polito egiten neban.

**Eta lotuan noiz hasi zinen?**

Lotuan be ahal zenik bizkorren, denpora galtzen ibili barik. Hamazazpi urtegaz aureskua be egin neban. Ondarroako Julian Barbero txistulariak irakatsi eustan, aitarene bitartez, bere etxera joanda.

**Eta neska-laguntzen?**

Hamabi urtegaz dantzan egin nebanagaz lehenen. Dantzan egin eta gero, bere etxerantz joan ginen, baina bidekurutzaraino bakarrik, mosurik eta holako barik. Gero akabo, ba! Neska-laguntzak, beno! Ugari.

**Pasadizoren batzuk gogoratuko dozuz orduan, horrelakoak dotrina kontuak baino gozoagoak izaten dira eta.**

Pasadizoak be ugari, batean batak besteari neska kendu, hurrengoan besteak norberari. Handiena neure andrea topatu nebanean izan zen. Goizean aureskua egin neban. 18-19 urte izango nituen. Auresku ondoren, dantza-premioak be baziren eta, sarietan, emakumearentzat galtzerdi kristalezkoak zegozen, orduan kontrabandoan ekartzen zituenak, eta gizonezkoarentzat gerriko zintura eder bat. Emon euskuengan sariak eta gero bolan be tiraldi onak egin nituen eta, gerrikoa sama bueltan nebala, oilarra baino harroago nenbilen. Eta hara, egunean bertan, iluntzean, nobia topatu nebala. Nik beste neska bat neukan begiz jota, baina ha beste mutil baten inguruan zebilela eta, iluntzean beste neska-laguntza bat egin neban, eta jarraitzen hasi eta azkenean beragaz ezkondu nintzen. Jesusa Urriolabeitia dau izena.

**Sasoiari sasoioko gaiztakeriak edo okerreriak be ez ziren faltako.**

Ez askorik. Guk hasarrerik eta apurtzerik eta holakorik ez genduen egiten. Kantatu eta dibertitu. Gurasoek be horretan bazeukien zerikusia. Gogoan daukat behin gure aitak esana. Sanpedro batzuetan, ondarrutar mutil batzuek kalteak egin zituen, eta gero udaletxetik deitu eta gurasoei ordaindu eragin eutseen. Hori zela eta, gure aitak mahaian gogoan daukat zelan esan eban: - Horraino heltzea! Geu be gaztaroa pasatutakoak gara, ba. Ez gara izan lehenengoak, baina azkenengoak be ez. Eta holakorik barik gozatu ginen. Erremara bat zabalik topetan bagenduen, zabalik itzi. Itxita topetan bagenduen, zabaldu eta barrero itxita itzi. Gozatu geurea eta besteari bakean itzi. Ez dogu beste modutan jokatu. Gogoan hartu neutsan eta neuk be horixe egin neban beti. Ez daukat gogoan ezelako astakeriarik. Sekula ez dot erremararik zabalik itzi.

Aitak esan ebalako, halako sentimenduagaz. Bertso eta kanta zaharrak eta holakoak nahi beste, baina, bestela, bakez ibiltzen ginen.

**Gaur egungo gazteriaren martxari zer deritzozu? Alde handia? Handiegia?**

Handia edo handiegia, baina ezin lekikeo ezer egin. Gizarteak berak ipintzen dau martxa. Gu gaur jaio izan bagina, aurrenengo be ez eta atzenengo be ez, gure aitak esan eban moduan. Hortxe ibiliko ginen. Eta geure gurasoak be gaur jaio izan balira, orduan hau eta hori pentsetan ebela, baina hareen pentsakerak be, gaur, gaurko antzekoak izango ziren. Gaur be badagoz aurreratua eta atzeratua, orduan be baziren, baina hemen inork ipintzen gaitu moltoan, eta gehienbat hortxe ibiltzen gara.

**Zuk, karrera handikoa izatera, asmatzailea izateko jenioa daukazunez, honenbeste aurrerapen zelan ikusten dozu? Martxa moderno geldiezin honi zer deritzozu?**

Martxa bai, eta depresinoa be %4an gorantz doala entzun neban lehengoan, eta egia da. Aurrerapenak menpekotasuna sortzen dau, gauza guztiak euki beharra. Gerra osteratzen naz eta etxean patina nahi neban, bizikleta baino lehenago, eta hantxe ibiltzen nintzen goitik behera patintxoan, denei inbidia emonez. Gaur kotxeagaz bardintsu pasetan da. Derrigor behar dozu lan klase askotarako eta, gainera, kotxe ona, ahal bada. Kotxeak jaio eta jaio ari dira oraintxe bertan. Eta beste aurrerapen guztiakin bardin. Hortxe gagoz eta hortik ezin dogu urten. Gerra ostean ez zegoen ezer, ez irratirik, ez bizikletarik... Gosea galanta! Orduan huskaria bat nahikoa zen, pozik jartzeko. Ez zegoen zer aberiaturik be, ia ezer ez zegoen eta. Orain, hainbeste aurrerapenez, aberietarako be soldata bat behar dozu. Eta denak beharrezkoak badira eta erosi behar badozuz, gero etxe baten jabe egiteko, komediak. Oraingo gazteriak nahi-

koa buruhauste dauka. Arineketa eta egarri horrek depresinoak be martxa berean dakaraz gero. Ni neu ahalegintzen naz zoramen horretatik libretan eta, behin honezkero, libratuko nazela uste dot.

**Zu ausarta be bazara, Bahametako bidaian ondo erakutsi zenuenez. Horixe kontatu barik ezingo dogu amaitu, ba!**


1982an edo, andreak eta biok mundualdi bat egitea pentsatu genduen. Bahametan jaisten hastean, ez da, ba, hegazkinaren hego bat aberiatu! Hegazkina okertzen eta denak izaturik. Hantxe baino buru argiagorik ez dot sekula izan. Ez neukan gogorik hiltzeko. Emon zituen azalpenak hizkuntza guztietan, salbagailuak itsasora saltatzeko, dena negarra, irrintzia, andrea be zoratu beharrean. Saltatzeko esan badabe, salto!, esaten neutsan. Nik ez neban lehorrera nahi. Azafata batek be jo eban behea, denak elkarri helduta. Inor ez zen gauza, egoerari aurre egiteko. Azkenean, mikroa hartu eta neu hasi nintzen jentea frankiltzen. Halako baten, lurreratzen zirela... Oihuka jentea animatuz, burua argi neukan, baita salbatuko ginen itzaropena be. Noizbait lur hartu eban, eta hango txanpain hotsa eta poza, erdi mozkortuta. Gero beste hegazkin bat ipini eben, baina batzuk ez ziren sartu. Barkuan eta ahal eben moduan itzuli ziren, gehiago ez ebela hegazkinera igongo eta. Idatzita be badaukat, baina negarrik egin barik ezin izaten dot irakurri.

## JUAN IBARZABAL "BUZTARRI"



*"Euskara sobra geunkan guk; ogia falta zen. Zelan sobrarik ez zen egoten, nik askotan esaten dot guk ikasi genduen bertsoketa dirurik ez geunkalako zela".*

Lanbidetik "Buztarri", jaiotetxetik "Erlatx", bietara ia Bizkaia guztian eta bere izen-abizenetatik ia inork ezagutzen ez eban gizon suabe eta maitagarri hau 1924an jaio zen, Markinako Erlatx baserrian. Hogeita hamar urtegez, Iturreta auzoko Martina Gandiagagaz ezkondurik, Markinako kalera aldatu zen, gaur ere hantxe bizi dela, hiru seme-alaba izanik. Gizon suabea, baina ez alperra, bat izatekoan, sasoi be halakoxea tokatu jakon baina. Berbetan, mantso, astiro, gozo egingo deutsu, berba egokien bila baino gehiago, berba bakotxari, ahotik joaten itzi aurretik, gozotasun guztia kendu guran legez. Kontalari



iaioa, gauza handiak zein txikiak tonu bardin interesgarrian azalduko ditu, ahots grabeak denari solemnitatea emoten deusala. Eta hain erritmo grabe eta solemnean, solaskidea ezusteko ikaragarriak joko dau, bat-batean begiak, barrezka, sagar egosiak legez urtzen eta gorritzen jakozenean, kontatzen ari denak grazia egiten deusan lekuan. Gozamena da honelako gizon bategaz berba egitea, arrapatako mundu honetan asti apur bat hartzeko argitasunik bagendu.

### **Buztarrigintza gatxa dela entzun deusut beti. Zergaitik da hain gatxa?**

GANADUAK denak dira diferenteak. Denek daukie buru espeziala, altu-bajuak, adakera diferenteak... Beti egin behar dozu buztarri barria. Lehenengo handi-handia egitea ez da gatxa, baina gero hori ganadu bakotxaren burura ajustatu behar dozu. Horixe da gatxa.

### **Baina, azkenean, ondo urteten deus. Non dago trukua?**

TRUKU nagusia neurrietan dago. Lehenengo, neurriak ondo hartzen badozuz, gero ondo joango da, baina han deskuidotxo bat izan badozu, gero erremedio gatxa dator.

**Buztarrigintza norbere kontura ikasten da ala karreratxo bat lakoa da?**

Karreratxoa? Sekula amaitzen ez dena. Hori norbere kontura ikastekoa ez da, hain gitxi gaztetan, burua zoro samar eta gorputza gerakatx dabilenean. Ni hasi, Arroako bategaz hasi nintzen, 25 bat urtegaz. Azpeitian bizi zen eta haregana joan nintzen ikastera, bertan lo eta dena eginez. Laster zertuko nebala uste neban, eta behin esan eustan: "Ni baino hobea izango haz. Nik oraindino... (ez dakit zenbat urte esan eustan) ez joat ikasi. Hori sekula ikasten ez dena dok".

**Ederra animua! Zenbat denporan ibili zinen haregaz, edo zenbat behar da, "oraintxe banok zeezer" esateko?**

Hamahiru hilabete egin nituen haregaz. Astean behin joaten nintzen, eta bertan egoten ginen, baserririk baserri ibiliz, zapatuan etxera eta astelehenean barriro joanez. Lo be joaten ginen etxean egiten genduen, igual Durangora, Mallabiara, Elgoibarrera... dena kotxe barik.

**Etixerik etxe ibiltze hori alegrea izango zen zu lako gazte batentzat.**

Denerik egoten da. Nik askotan esan dot diferentzia handiak egongo direla nazino batetik bestera, eta herri batetik bestera, baina baserri batetik bestera lako diferentziarik ez dot uste inon egongo denik. Tokatu izan jat izara barik lo egitea eta, hurrengoan igual, erregeak be ezin leikeen ohean. Janean be alde handia zegoen, baina hor ez genduen goserik pasatu. Tragotxoa be bai. Goizean jagi eta kafea, igual kopatxo bat. Gero igual hamarretakoa ostera be. Urdailetik izorratuta ibili nintzen eta iztekotan be egon nintzen. Oraingo buztarrigintza diferentea da. Joan, neurriak hartu eta lanik gehiena norbere etxean egiten da, norbere etxeko bizimoduan, baina orduan beti kanpoan eta leku diferentetan ibili behar izaten genduen.

**Mutil gazte bat holan ibiltzea, sasoi haretan, bekaizgarri be izango zen, ezta? Igual joan eta hango gizona etxetik falta eta andrea edo alabak bakarrik eta...**

Bai, izaten ziren horrelakoak be, baina kanpaiak gehiago. Gu geure lanean ibiltzen ginen.

**Lantzean leku batean, jente zelebrea be topatuko zenduen.**

Baita. Behin buztarrigintza amaitu neban eta gizonak esan eustan. "Orain bazkaldu barik ez haz joango" - "Beno" - Bazkaldu genduen eta: "Kontua zenbat dok hirea?" - "Ba... (hamabost duro edo zen), beno. Ikusi ganaduok zelan dabilzen eta, ezeren zerik bada, zuk egin kasu, konpondu edo zeezer egiteko" - "Bai, bai! Ez dok milagro hik buztarria ondo ez egitea. Jaungoikoak be mundua egin joan, baina ez joan ondo-ondo egin, ze harrezkero hemen jabilzek arregeluan eta". Handi samarra gero! Bidean be pentsetan joan nintzen, eta izan be horretaraxe da.

**Beste andra harena be kontatu beharko dozu, ba, inoiz entzun izan deutsut eta.**

Bai. Andra sanao zen ha. Halako andrak asko gustetan jatazen, gaxik bakoak. Goizean ailegatu nintzen, ez dakit zer ordu izango zen, gizona be azaldu zen eta egurra ipini eta hasi nintzen beharrean, eta gizona neuri begira. Etxe aurrean sastegi handia zegoen, ota zehea, atadian botata, azkenean simaur egiten zena. Ota bota barri zegoen eta gizonak esan eban: "Hara! Nabo-lorak be loratzen hasi dituk eta laster Pazkoazkoa be egin beharko joagu, ba!" - "Bai, bai. Sasoi da -nik- Abadeak eta pozik egongo dira, kontu barriak entzuten hasteko". Handik urrun barik lixiba egiten ziharden andreak badino ze: "Bai. Makina bat kontu jakiten dabe, horreetan egunetan, behintzat, baina dena poza izango denik be ez pentsatu, eh! Hareek han entzuten dituenak entzunda, han barruan aguantatzeaz

nahikoa egiten dabe. Urten kanpora eta bertan ekiteko be!” Gizona eta biok gora-goraka barreka. Eta serio esan be gero! Urten kanpora eta bertan ekiteko be! Niri holako andrak asko gustatu izan jataz. Beste batzuek erdi disimuluan esango leukiena harek sano-sano bota eban, eta zer polito esanda!

**Etxe batean, halan sukalderaino eta gaeuz oheraino, berba batean, bizimodu pribatu baten muineraino sartzeak, urduritasun interesgarriak be derrigor sortu behar zituen, batik bat, mutil edo gizon gazte odolberoa izanik.**

Odola hozteko modukoa be gertatu jatan beste etxe batean. Andreak esan eustan: Etorri barrura, kopautxo bat egitera. Eskaratzean, alabak puntua egiten edo eutson. Nik andrazkoari beti ekiten neutsan apur bat, tentetan. Itxuraz, zeozer berdekeriaren bat esango neban, eta alabak mahaipetan tak zapaldu eustan oina. Gerotxoago, barriketa aurrera eta barriri be tak hankan, eta halan. Neure artean pentsetan neban: Joño! Zer bizimodu edo zer jagok hemen? Disimuluan apur bat atzeratu nintzen eta... txakur zahar bat mahaipetan! Harexek sakatzen eustan. Etxera joan eta anaia zaharrari kontatu neutsanean, harek egiten zituen barreak!

**Buztarrigintzaren atxakian, beste karrera batzuk be majo ikasi zenduzela esango neuke.**

Maisu ona neukan, eduki be. Oso detaillosoa zen. Etxe batera arrimatu orduko, esaten hasiko zen: Hemen, honelako idiak egongo dituk, tiratu edo sakatu egiten dabenak, eta horrelako detaileak, eta nik pentsetan neban: “Honek zergaitik jinok hori, idirik oraindino ikusi be ez joagu egin eta?” Eta berak: “Ez al haz konturatzen oinatzetan? Idien oinatzetan”. Edo: “Hemen emakumeak ganorazkoak egongo ditut”. Nik: “Zergaitik, ba? Oraindino ez gara ailegatu be egin eta?” Berak: “Ez al haz konturatzen zelako lorak eta? Begitu hor ortua be

zelakoa dagoen”. Horrelakoxea zen, detaillosoa. Zapatu batean, ni etxera eta bera han geratu zen. Esan eustan: “Joan heinteke han Milloin behera, Atxurra deritzon baserri batera? Esan Agustini datorren astean joango garela Amorotora”. Hartu bizikleta alokairuan eta banoa airoso. Andrazko batek urten eustan atera. “Agustin etxean dago?” – “Ez. Mezatarra joan da Amorotora. Zer nahi zenduen, ba?” – “Zeuk be bardin esango deutzazu. Buztarriginak gara eta esan datorren astean joango garela Amorotora; han berak jakingo dau nortzuri esan” – “Bai, esango deutzat”. Joan nintzen etxera, eta astelehenean: “Esan heuntsan?” – “Bai. Bera ez zegoen, baina andrazko batek hartu eustan errekadua” – “Ezkondua ala ezkongea edo zer zoan?” – “Horixe ez dakit, ba” – “Zeri begira egon hintzen, ba?” – “Zeri begitu behar neuntsan, ba?” – “Atzamarretan eraztunik bazeukan edo. Gonak altzatu eta begituta ez, behintzat!”.

537

**Gauza alaiak kontetan dozuz, baina, orduko bizimodua hain urria izanik, etxe pobreak be aurkituko zenduzen.**

Oh! Askotan, kobratu egin behar eta kobretako gogoia be joan egiten jatzun. Jente pobre asko. Etxe triste asko pasatu behar izaten genduen.

**Eta igual ume piloa inguruan.**

Umeak zokondo guztietatik. Behin etxe batera ailegatu nintzen eta neskatotxo bi han zebilzen. “Aita non da, ba?”, itaundu neutsen. “Aita amagaz ohera joan da” – “Eta aitita?” – “Aitita bestekora joan da narrutara” – “Beno, itxaron egin beharko dogu, orduan”. Han nago zain, eta halako batean jaiki da aita eta badator, eta geroxoago han dator aitita be, behi-narru handi bat besoan zekarrela. Umeen esateko sanidadea, eh! Beste buztargile lagun batzuenak be politik daukadaz gogoan, esateko komenentziarik izanez gero.

**Izango ez da, ba? Gauza politik isiltzekotan, zertara etorri gara?**

Ba, nire lagun bat Nafarroako etxe batera joan zen buztarrigintzan. Harek be hantxe egin behar eban lo eta dena. Ugazabandreak etxeko barri guztia emon eutsan, baina, oherakoan, gizona gogoratu zen komun konturik ez eutsala aitatu. Ezkaratzera jaitsi eta: "Barka, andrea, baina gorputzak bere zereginak eskatzen dituenean, nora joan behar dot?" - "Ah, bai! Egon apur baten". Andrea joan eta handik denpora luze samarrera itzuli ei zen, egunkari moltzooa esku batean eta akuilu handia bestean, esanez: "Tori papera, eta beste hau erabili bildur barik, bestela, oiloek eta txarriek jan egingo zaitue eta". Kortara joan behar ebana susmatzen ei eban, baina ez akuilua ikurrina legez astintzeko lekura. Beste buztargile lagun batek be polita entzun eban baserri batean. "Logela librerik ez daukagu eta mutilaren ohean lo egin beharko dozu", esan eutsien. Bertan, aitita-bilobek lo egiten eben ohe banatan. Buztargilea ohe batean eta aitita-bilobak bestean ipini ei zitueen. Goizalde beranduan, aitita, amesetan edo, orduko María Dolores edo halako izen bateko kanta ospetsuari ekiten hasi zen. Bilobak ukondokada bat emon eta isi! agindu ei eutsan. Aititak, erdi sustoan itzarturik: "zer pasetan da?" hots egin ei eban, eta bilobak: "Lehenengo eta behin, goizaldeko laurak direla, eta gero, eskue-tan daukazun hori ez dela zeurea".

**Buztargileak bazeukan, beraz, nahai izanez gero, larakoaren neurriak nondik kalkulatu.**

Ete zeukan, ba! Logela arrotzean, ilunetan, ahalik kuriosoen zagozela, entzutekoa da gero!

**Autu politean gabilz, baina elkarriketa honen motiboa bertsojaritza dena jakingo dozu, ezta?**

Horri be ekin egingo deutsagu, behar bada.

**Zure bertso aztarrenak nondik datoz?**

Aita neban nik bertsolaria edo apur bat egiten

ebana. Gari-jotzeetan eta Gabonetan eta horrela kantatzen zituen bertsoak, bestela plazan ez baina. Kanta-paperak be ekartzen zituen feriatik eta nik hareexek ikasi eta kantatu egiten nituen. Beti kantuan, baserrian.

**Zer bertso ziren gogoan daukazu?**

Bertsoak ahaztu egin jataz, baina baziren Azken Juiziokoak, Santa Barbararenak eta horrelakoak.

**Aitak bat-batean be egiten eban?**

Egiten eban, bai; moldatzen zen.

**Nogaz? Non?**

Geugaz, gari-jotze eta horrelakoetan. Kontrarioak be geu ginen. Etxean ezkondata gelditu zen anaiak ez eban plazara urteten, baina haxe zen gurean gehien.

**Zu baino gehiago?**

Bai, ni neuretzat, ha bertsolariago zen ni baino.

**Eta zeu noiz hasi zinen bat-batean?**

Nahikoa gazterik. Tabernan. Dirurik ez genduen edukitzen eta, dantzan egiteko be, pezeta bat kobratzen euskuen, eta, ha ordainduta, tragoa be egin nahi izaten genduen, eta, zelan sobrarik ez zen egoten, nik askotan esaten dot guk ikasi genduen bertsoaketa dirurik ez geunkalako zela. Ze bertsoak kantatzea denek kantatzea izaten zen, eta kantatzen ez ebanak kuartiloo ordaindu behar. Han baziren guk baino diru gehiago zeukienak eta hareek paso egiten eben, eta bertsoak entzun, eta dirurik ez geunkanok edo gitxi geunkanok, ez ordaintzearren, kantatu egiten genduen, ahal zen moduan.

**Derrigorra maisu ona dela esaten dabe.**

Bai, bai. Pixka bat ona da hori.

**Jente zelebrea be izango zen tartean.**

Bazen, bai. Bazen bat afan handikoa, baina ezin



izaten eban amaitu. Ez jakon etortzen eta amaitu ezin. Hasteko listo, baina amaitzen kontuak. Oraintxe be gazteak bertso luzeak botatzen ibiltzen dira, eta pentsetan egoten naz: Hori zergaitik hasi ete dok holan? Horren luzeak! Eta behinolako haxe gogora ekartzen deuste. (Gogora ekarri ez ezik, barre itzelak egiten ditu Buztarrik).

**Baina zuk gehitxoago egingo zenduen. Landu be egiten zenduen zeure kontura zeozer? Irakurri edo?**

Irakurri bai, bertso liburuak eta. Hori asko gustetan jatan. Erreterian bazegoen inprimategi bat, gerra osteko bertsoak-eta saltzen ebezena, eta inoiz haraxe joaten nintzen erostera.

**Erreteriaraino bertsoak erostera? Orduan, Markinatik haraino joateko, afizinoa be behar zen, eh!**

Ba, joaten nintzen, ba. Behin baino gehiagotan joan be. Bertsoa asko gustetan jatan.

**Lagunekin joango zinen baina.**

Ez. Bakarrik joaten nintzen. Zeozer aztarrena nonbaitetik hartuta nengoen eta aurkitu neban.

**Zenbat urtegaz?**

Soldadutzara joan aurretik, behintzat. Gero, soldadu be, bertan parajea, Donostian egon nintzen, eta orduan hobeto.

**Liburua etxera ekarrita, zer egiten zenduen? Irakurri? Ikasi?**

Ikasi, ikasi! Eta gero neure kontura kantatu, eta inoren aurrean be bai, halako eta halako bertsoak eta horrela. Tabernan jentea bertsoak entzuteko gogoz egoten zen; jentea bertsozalea zen.

**Zuri zeuri tokatu jatzun tabernan inoiz ordaindu beharrik?**

Bai. Erronda ateratzen zen eta neu be morapilatzen nintzen inoiz.

**Bertso ikasiak kantatzeagaitik be ordainduko eutsuen igual.**

Bai, ba! Bertsoak kantatu, neure gustokoak, eta tragoa inork ordaindu, majo ibiltzen nintzen ni.

**Eta tabernatik aparte? Etxean edo non kantetan zenduzen?**

Etxean eta soloan, eta bakarrik nenbilenean. Baita besteren bat edo batzuekin be. Han gure auzoan baziren nire antzekoak. Lehengusu bat be baneukan, eta haxe hasi zen horrela. Bedarra ebaten edo batzen, edo behizain, eta bertsoan ibiltzen ginen. Bertso ikasiak kantatzen genduzen.

**Eta bat-batean noiz hasi zinen?**

Tabernatik etxeranzkoan. Bidean alkarregaz joaten ginen, bertsotan. Gero, etxera orduko, ha mendi batera eta ni bestera apartetan ginen eta menditik mendira be bertsotan jarraitzen genduen. Orain neuk, orain heuk. Afizino handia geunkan.

**Altu kantatu beharko zendueen, menditik mendira elkarri entzuteko.**

Horixe, altu! Ahal genduen guztia. Orduan bes-tela be ez zegoen altabozik eta ohituta gengozen. Bertsoa kantakeran, geratu egiten ginen. Gure etxera bidea luzea izaten zen orduan.

**Tabernan hasi eta hori guztia, gitxi gorabehera, zer adinegaz?**

Hamabost-hamasei urtegaz, baina holan, soltetan, hamazazpi bategaz hasiko nintzen. Tabernara eta erromeria be adin horregaz hasten ginen. Praka luzeak janztea hamalau bat urtegaz izaten zen. 15 urte neukazela, latonerian, tailerrean hasi nintzen eta, ugazaba kantaria zenez, halan alkarren ondoan eta, kantatu egiten genduen, esmerilean bisagrak eta eginez. Berak be orroe galantak ateratzen zituen. Bertsozale baino gehiago, kantuzalea zen.

**Plazako lehenengo saioa gogoan daukazu?**

Izango ez dot, ba! Auzoko San Martinetan, lehengusu harexegaz kantatu neban lehenengo. Jose Mari Anitua zen, Sumiña baserrikoa. Hamazazpi-hamazortzi urtegaz.

**Larri egongo zinen.**

Larri bai, baina gogoia edukitzen genduen eta gu harro genbilzen. Batzuek hau eta beste batzuek hori esaten euskuen, eta gu pozik. Handik laster Markinara deitu euskuen eta hori salto handitxoia izan zen, bai.

**Gerra ostea zela kontuan izanik, zer gai kantetan zendueen edo zeri ekiten zeuntsien?**

Zer gai? Garia eta ogia! Argentinan gari asko zegoela eta hemen haxe falta zela; gosea galanta, eta guk harexeri ekin.

**Politika konturik ezingo zen aiatu.**

Ezta pentsatu be! Bildur itzela zegoen. Gainera, geunkan goseagaz, horrelako konturik pentsatu be ez genduen egiten.

**Euskara, behintzat, aiatuko zendueen.**

Euskara eta holakorik pentsatu be ez. Euskara sobra geunkan guk; ogia falta zen.

**Lehengusuaz harago, beste bertsolarien entzuterik bazenduen?**

Bai, Gipuzkoara be joaten nintzen eta. Azkoi-tiar bategaz kantatu neban, Etxaniz izeneko bategaz be bai. Gero Uztapide eta Zepai ezagutu nituen. Basarriren entzutea be baneukan, baina ez genduen ezagutzen. Basarri gerra ostean trabajadoreetan-edo egon zela entzun genduen eta, libratu ebenean, haxe ikusteko gogoagaz genbilzen. Gero Tolosan txapelketa bat izan zen, Basarri, Uztapide, Zepai, Mitxelena, Saiburu eta beste bat Kortajarena-edo. Basarrik irabazi eban, Uztapide bigarren, hirugarren Mitxelena.

**Ezaupideak be egingo zenduzen.**

Ez askorik. Nik joan eta entzun egiten neban, isil-isilik. Handik zortzi egunera edo, Hernanin beste saio bat izan zen. Hernani Txikia hantxe ezagutu neban.

**Zer inpresino egin eutsuen?**

Maila handia ikusten neban.

**“Ailegatuko ete nok horraino” edo zer burutapen egiten zenduen?**

Ailegatu, ba, hainbesteko burutapenik ez, baina lagatzeko konturik ez, behintzat. Gero, Bizkaia Alfonso Irigoienek mogidu eban asko. Mugartegi, Azpillaga, Arregi... Txapelketak hasi zirenean, hara-hona handian sartu ginen.

**Landu edo zeozer egiten zenduen, txapelketa-rako?**

Gurea ekina zen. Bestelako lantzerik ez genuen askorik egiten. Berbarik horretaz besteekin ez genduen askorik egiten. Errimen bila eta, neure buruan bueltak emon bai, hori asko, puntuari erantzuteko eta. Berba gatzen bila eta, kontrarioak zeozer egiten baeban. Alfonsogaz gaia emonda gehiago egiten genduen eta, ni neuretzat, gaiekin ez zen bape txarragoa, ze bestela, herri batera joan eta inoiz esaten genduen: “Hemen zer kantatu behar joagu, ba, ezagutu be ez joagu egiten eta?” Uztapidek be halantxe esan ei eban behin: “Jaungoikoa ona dela edo zer esan behar diagu?” Beti arrimatzen zen baten bat, halakoa eta holakoa esanez, eta zeozer jakiten zen, baina, osterantzean, zeozer ezagutu ezik, eta nahi izaten da, gatxa zen, baina, gaia ipiniz gero, badaukazu edo badakizu, behintzat, zeri ekin.

**Zeure bertsolari kutunik edo gehien gustatu jatzun estilorik izan zenduen?**

Bai. Niri gustatu jatazen bertsolariak garbi dagoz bi. Uztapide eta Lazkao Txiki. Halako zer bat zeukien.

**Inoiz, bat aukeratzekotan, Lasarte entzun izan deutsut.**

Bai. Lasarte asko gustetan jat. Haren errima, kantakera, dena. Lasartegaz kantatzerik ez jatan inoiz subertatu. Uztapidegaz askotan. Hau ego-kia zen, konprimentu bakoa.

**Bertso jarriak egiten be zalea izan zara zu.**

Hori geroago. Halako zer bat sartu jatan, bana-jabilk, baina ezer idazten ez bajoat, ez dok ezer geldituko, eta holan. Gaur egun, bat-batekoak be jasotzen dira, baina ezer barik geratzeko arriskua ikusi neban.

**Zuk orduan urtean plaza asko egingo zenduen?**

Alfonsoren sasoiaren asko.

**Urtean 50etik gora?**

Ba, igual bai.

**Eta gero iztea zelan erabagi zenduen?**

Itzi, neuk sekula ez deutsat itzi, baina ni baino hobeak be bazirela eta, entzutea be zelan gustetan jatan, eta, gaztea datorrenean, ba, badakizu. Azpillaga eta Lopategi eta horreek gora zetzen. Orduan Sardui be asko zebilen. Saioko mehaztu arren, ni, deituz gero, joaten nintzen.

**Tabernan hasi bazinen, tabernetan sarri kantatua izango zara. Zelakoa izan zara? Luze ekitekoa?**

Hori ez jatan gustetan. Orain, beste taberna batera joan eta han be ekin, hori bai, baina, batzuen moduan, leku berean ekin eta ekin, hori ez jat sekula gustatu. Hemen isildu eta han ekin, txoriak egiten dauena, horixe da niri gustatu izan jatana.


**Zeure buruarentzat ez zenduela askorik landu, baina bertso-eskola sortu zenduen zuk.**

Bai, jentearen enpeinuz, hor Sarasua eta Aretxebaletan Goikolegaz hasi zirenean. Jenteak

esaten eustan: "Hementxe Markinan be holakoxe zeozer ederra izango litzatekek, ba! Egin egin behar dok". Eta halantxe hasi ginen. Gero Lopategi agertu zen eta, ha hasi zenean, nik itzi egin neuntsan. Umeekin hasi ginen, fraileetan. Eurak etortzen ziren. Ume txikiak ziren, zortzi bat urtetik gorakoak. Hareek olgetako gogoia zekarrean, baina ordubete edo pozik pasetan eben.

**Zer egiten zenduen edo zer eragiten zeuntsen?**

Ba, bertso zahar bat hartu eta zatitu egiten neban; puntuak apartatu egiten nituen, eta eurek ordenatu behar eben. Bat-batean apur bat ahalegintzen ginen, puntua ipini eta abar, baina askorik ez. Bertso zaharrak kantatu eragin be egiten neutsen. Umeak pozik etortzen ziren, iluntzeetan, eta denpora behingoan joaten jakun.



Buztarri, Basarriren hileta egunean. 1999-XI-05

**Bertso-eskola sortu eta zeu, umetan, eskolara gitxi ibilia izan. Hori be bada, ba!**

Nik umetan eskolara ostera gitxi egin neban. Behin edo. Sei urte nituela, artzain hasi nintzen. Aitak ardi batzuk ekarri zituen eta hareexek zaintzen nituen. Eskolara bapez. Nik ikasi neban eskola apurra neure edadeko lehengusu bategaz izan zen. Bilboko zen eta oporretan gurera etortzen zen. Ardiak zainduz, harexek irakatsi eustan erderaz eta idazten, eskolan ibilia zen eta. Gero, tailer-rera hasi nintzanean, gaueko eskolan eskolatu nintzen apur bat. Hantxe be, tailer ondoan, eskola ondoan, jasotzeko harri bat zegoen eta hari gogotsuago begiratzen geuntsan eskolari baino.

**Zeure denporan aldakuntza handiak ikusiko zenduzen. Iretarargira joaten hazi zirenean, sinisten zenduen?**

Sinistu, oraintxe be ez dot ondo egiten. Eta, gainera, enpagua emoten deuste. Ez dago hemen berton zer arreglaturik, hara barik? Hemen jentea goseak hiltzen eta harako hainbeste milioi, ernegatu egiten dot.

**Iretargira ailegetako zirenean, emoten zeuntsen federik, helduko zirenik?**

Ez. Ezetzerakoa gehiago. Esaten juek, baina guzurra be igual izango dok eta. Horixe pentsetan neban.

**Orain sinisten dozu ailegatu direnik?**

Esaten dabena entzun. Nik uste dot hori mundu-apurtze bat dela. Zer ekarri behar dabe handik?

**Harria eta hautsa eta txarrikeria besterik ez ei dago eta zer ekarriko dabe, ba?**

Beharbada, denok enbenenatzeko zeozer. Hiltzeko.

**Horrenbesteraino?**

Nork jakin! Ni neu fiatu, bat be ez. Ezer ekarri

ezin lekien lekura zertara joan behar dabe, ba, bestela?

**Baina, ona ala txarra den alde batera itzita, zeuk sinesten dozu joan direnik, ala oraindino be ezetzean zagoz?**

Bakakizu Fernandok zaharrak zer esan eban? Sorginak badirenik ez dela sinistu behar, baina ez direnik be ez dela esan behar.

**Eliza kontuan, beroa ala zelakoa izan zara?**

Hara! Nik lehengo iretargi kontuetan baino gehiago sinisten dot hor zeozer badagoena. Zer den edo zelakoa, hori ez dakit, baina egon, zeozerk egon behar dau. Elizara joan izan naz eta orain be joaten naz. Abadeek eta ez nabe askorik estutu.

**Baina santujalea apenas zaren.**

Nik santu guztietan eduki be ez daukat federik. Hor batzuk gerreroak eta horrelako badaezpako asko dagoz. Hauxe Patxi zaharrau be, orain gatxa da baina, sasoi baten pentsetan neban: "Hauxe be jaso behar juek altarara!"

**Bizimoduaren aldakuntza hau guztiau zelan ikusten dozu?**

Hemen atzera lehengo zeren bat etortzen ez bada! Semea be preso izan neban eta.

**Orain bertsolaritzari jarraipenik egiten deutzazu?**

Orain ez dot hainbeste zertzen. Eta, bestetik, gazteen bertsoketa ez dot hainbeste jasotzen. Bertso luzea be egiten dabe, baina biribildu... Gauza asko esaten dabe, hemen ikutu, han ikutu, baina biribildu... Askotan, biribilduta be, zer esan nahi daben garbi ulertu ezinik ibiltzen naz. Sebastian bertsolari zera da. Beste bat irazu; haxe be gustetan jat.

**Eta neskarik?**

Maialen Lujanbio be gustetan jat, bai. Harek ondo egiten dau.

**Nork esango eban emakumeak holan bertso-lari, eh!**

Ba, ni aituta nagoenez, bertso-keta emakumea-gandik ei dator, ba. Hor Zestoa inguruko hortxe ohitzen zela, zeinda enterruko zerean, zeozer esateko modua edo esan nahia; eta hantxe esaten zituen gauzetatik datorrela bertsoa. Nik sarritan pentsetan neban: "Hau ez dot karga jasotzea be eta". Pentsetan neban, bai, eta ez naz harritzen emakumeek urteteaz. Iratxe Ibarragaz txapelketan kontuz; ha ona da horretarako.

**Zeuk aspaldion kantatu dozu inon, lagunartean edo?**

Ez, aspaldion ez dot egin, ez. Hor bat kartzela-tik etorri zenean, kantatu neban, baina bestela ez. Kinto bazkarian eta bai. Azkenengoan, bost edo sei bakarrik izan ginen. Etorkizuna hor be estutuz doa.

**Eskelei begitu zalea zara egunkarietan?**

Ez. Inoiz bai, jakiteko eta, baina ez jat askorik gustetan, ez.

**Osterantzean, zer bizimodu edo gizarte egiten dozu?**

Musean eta egiten doguz bromaldiak, baina, bestela, ortuan zeozer eta besterik ezer gitxi. Gure saltoak amaitu ziren.

## “Gorozikarrak”, bertsolari ospetsuen dobleak



*“Zaletasuna ez dakit, baina berotasuna orduan askoz handiagoa zen. Guk uste genduen bertsolaritza galdu egingo zela, eta horrexek emoten euskun bildurra. Orain saioak be edonoiz dira, jaiak, gazteak... Bertsua ia eguneroko gauza bihurtu da eta egunerokoak ez dauka hainbesteko graziarik”.*

Bizkaiko (1958) eta gerra osteko Euskal Herriko (1960) txapelketak abiatu zirenean, “gorozikarrak” esatea nahikoa zen, bertsozaleen burura Gorozikako (Muxika) laguntalde guttiz izentatu bat etortzeko: Migel Etxebarria “Narbarte” (1931-IX-29) eta Sabin

Etxebarria “Lazkao Txiki” (1933-IV-26), Asua-Beheko lehengusuak; Jose Antonio Euba “Matxin” (1938-VI-16), Uria baserrikoa; Pablo Irazabal “Mitzelena” (1930-VI-30) eta Lauren Irazabal “Arozamena” (1936-V-07), Zugaztietako “Estazinoko anaiak”; eta

545



Lauren Irazabalen argazki-bilduma

Ezkerretik eskumara, M. Etxebarria, J. M. Sardui, B. Sardui, B. Pujana, P. Irazabal, D. Sardui eta S. Ugalde.

gorozikarra ez zen bakarra, Deunoro Sardui "Xalbador" (1934-I-01), Muxikako Ariatzakoa. Seikote honek txapelketa guztietako finalak eta saiorik gehienak korritu zituen. Osterantzean be, hamaika saiotara joan izango ziren kuadrilan. Ez zen edozelako joatea. Egun osorako jan-edan ugari eta guzti, erromeria gogoangarrien antolakuntzaz egingo eben bidaia. Gauza bat da, ostera, bertsozale izatea eta beste bat bakotxa, ezizentzat, bertsolari ospetsu baten izena hartzeraino heltzea. "Narbarte", "Lazkao Txiki" eta "Matxinen" kasuan, ezizenok jabeen benetako izenak ezkutatzeraino heldu ziren, herrian eta inguruan. Horregaitik, azken bion ezizenak ("Narbarte" hilda dago) elkarriketan be halantxe erabiliko doguz, beste hirurak izenetik aitatuz.

**Noiz eta zelan bururatu jatzuen izen horreek ipintzea, "Narbarte", "Matxin", "Lazkao Txiki" eta abar?**

**Pablo:** Guk bertsolariak gurtu egiten genduzen, maite. Maleta onagaz joaten ginen, jateko onagaz eta ardao onagaz, ondo preparatuta, zerbileta eta guzti, kuadrilan. Txapelketa guztietara joaten ginen eta jente ezaguna hurreratu egiten jakun. Bertsolariak be hurreratzen jakuzen eta gonbidatu egiten genduzen, jan-edana guraina eroaten genduen eta.

**Lauren:** Lehenengoa, seguruenik, Mattinena izango zen. Gure Jose Antonio honi, berau be potolotxoa zenez eta burua be antzekoa zeukanez, "Matxin" esaten hasi ginen. Gero "Lazkao Txiki" izango zen, ha be beti hurreratzen jakun eta. Handik gure beste "Lazkao Txiki" hau, Sabin, elkarren antza be bazeukien eta. Gainera, honek bertsoan egin be polito egiten eban eta beste barik "Lazkao Txiki" ezizenagaz geratu zen. "Narbarte" geroago agertu zen.

**"Joan" eta "etorri" dinozuenean, nora joaten zinien edo nora etortzen jatzuezan bertsolariak?**

**Lauren:** Haraxe Donostiako zinema aurrera, lehenengo finalak Astorian izan ziren eta.

**Eta zuek mahaia zabaldu eta hamarretakoa egiten zenuen?**

**Pablo:** Ez. Zutunik. Gu hantxe albo baten paretan ginen, espaloian, jenteak pasatu behar eban lekuan, sarreratik hur, eta jan-edanak atera eta gosaldu egiten genduen.

**Matxin:** Berba edo eupada egiten euskuenei edo geuk ezagutzen genduzenei zahatoa eskaintzen geuntsen.

**Zuek han hamarretako ederra egiten ikusita, esango eben: "Honeek be a zelako jentilak hemen!"**

**Deunoro:** Askok gipuztatz hartzen ginduzen eta guk: "Ep! Gu bizkaitarrak gara gero!"

**Bertsolariak be zuekana hurreratzen ziren?**

**Lauren:** Bai, ba! Handixek hur-hurretik pasatu behar eben eta. Basarri eta Uztapide izan ezik, beste guztiak etortzen jakuzen. Hareek ez. Hareek, gu ikusi arren, aurrera egiten eben. Baina beste guztiak bai, Mattin, Lazkao Txiki... Arozamena be geratzen zen eta gugaz denporaldia egiten eban, barriketan eta jan-edanean.

**Pablo:** Oraintxe be gogoan daukat Arozamenak behin zelan kontatu eban abade erretzaileen kontua. Abadeak joan ei ziren gotzainagana, galdetzerara edo baimena eskatzera, ea, otoitz egin bitartean, erre zeitekeen, eta gotzainak: "Ez! Inondik be ez!". Beste abade batek esan ei eban: "Hori neuk konponduko dot". Gotzainagana joan eta jaulki eutsan: "Jauna! Erretzen ari nazela, otoitz egin neike?". Eta gotzainak: "Zeuk gura dozun beste!". Halan, abade harek egunaren hogeitalau orduetan erre ahal izateko baimena ekarri eban. Arozamena berbaldun frankua eta lagunkorra zen.

**Gitxi gorabehera, zer urtetako kontuak esaten zabilze?**

**Pablo:** Gu, Basarrik irabazi ebanean, hantxe egon ginen, 1960an. Gero Lopategi be hasi zen, baina hori geroago izango zen.

**Orain goazen izen kontuetara. Esaterako, zuri, "Matxin", zelan ipini eutsuen ezizen hori? Banan-banan izan zen ala denoi batera?**

**Matxin:** Batera, batera!

**Lazkao Txiki:** Narbarterena geroago izan zen, geroago agertu zen eta.

**Deunoro:** Bai. Narbarte etortzen zen eta: "Kaixo! Zahatua! Zahatua!" hots eginez hurreztatzen zen.

**Mattinen izena zergaitik ipini eutsuen? Zeu be potolotxoa zinelako?**

**Matxin:** Mattin etorri zen eta esan eustan: "Emongo deustazu zahatoa?". Harek bere berbakera esango eban, baina horixe esan eustan, eta nik emon egin neutsan.

**Deunoro:** Zelebrea izan zen. Honi begiratzen eustan, berau be txiki samarra eta potoloa zen eta. Orduan, antza euki arren, ezbardinak zirela esateko, edo antz gehiago be ba ete zeukien ikusteko, txapela kendu eban, burusoila erakutsiz eta esanez: "Eta hau? Eta hau?". Orduan honek beronek be kepisa kendu eban, eta han be iretargia. Mattinek egin eban zantzoa! Baina zantzoa, eh!

**Eta zuri zergaitik "Arozamena", Lauren?**

**Lauren:** Niri, ba, bertsorik eta ez neban botatzen, baina...

**Pablo:** Tipoagaitik, tipoagaitik.

**Lauren:** Noblea nintzelako! Horrexegaitik izango zen, Arozamena be noble-noblea zen eta.

**Eta zuri be, Pablo, itxuragaitik "Mitxelena"?**

**Pablo:** Bai, bai. Tipoagaitik. Gainera, nik bertso batzuk kantatu be egiten nituen.

**Eta zuri, Deunoro, "Xalbador"?**

**Pablo:** Honek be surra galanta dauka, eta horrexegaitik.

**Lazkao Txiki:** Nire kasuan be bardin-bardin. Lazkao Txikiren antza ei neukan eta haxe.

**Deunoro:** Eta "Narbarte"? Orain biak be hilda dagoz, bai Narbarte benetakoa eta bai gure "Narbarte", baina bardinagorik ezin zen egin. Exaktoa!

**Pablo:** "Xalbador", "Mitxelena" eta "Arozamena" arin amaitu ziren, baina beste honeenak jarraitu egin eban. Gurea ez zen sustraitu, geure arteko zer batzuetan izan ezik, baina "Matxin", "Lazkao Txiki" eta "Narbarte" herritarren ahotan be halantxe geratu ziren.

**Geratu zelan? Izen horreek zabaltzea nondik etorri zen?**

**Lauren:** Orduan hemen jai asko egiten zen, Gorozikako soziedadean eta. Bertsoan asko egiten zen, eta ez geuk bakarrik.

**Eta zuek zeuk be elkarri "Mattin", "Lazkao Txiki" eta holan esaten zeuntsien?**

**Mattin:** Jakina!

**Lazkao Txiki:** Hau "Matxin", ni "Lazkao Txiki", Migel zena "Narbarte", askok gure ize-nik jakin be ez zekien, apur bat urrunagoko jentek, behintzat.

**Deunoro:** Guk hemen, soziedadean eta, afari eta bazkari ugari egiten genduen. Ez geuk bakarrik, eh! Jente piloa. "Lazkao Txiki" botako zituen bertso batzuk, eta "Arozamenak" be, lehen ezetz esan dau, baina lantzean bertso bat bota egiten eban, ukaTU, sakaTU, -tu, -tu, -tu, bakotzak bere erara. Ezizenok zabaldu ziren, ez geuk esanda. Jenteak entzun, gogoan jaso eta ohitura haxe hartu eban. Kontuak atera: hemen hainbeste jai egiten zen ze, behin Zugaztietako Legarrari eta niri, "Xalbador" moduan, omenaldia egin euskuen.

**Pablo:** Lopategi be egoten zen eta gero zeu be bai, Amuriza, eta beste batzuk. Lopategi hor ibiltzen zen txandarik hartu ezinik, "orain neu, orain neu", baina bizkor sartzen ez zenak bidaia galduta zeukan.

**Mattin:** Honek Pablok esaten eustan: "Matxin! Amaitu dok bertsoa?".



**Eta lehenago, Bizkaiko txapelketetan be, Arenalera-eta joaten zinien?**

**Denak:** Bai, bai. Horixe joaten ginena! Denetara.

**Orain, aurrera eginez, zelan izaten zen egun osoa, ze zuek, goizean urten arren, ez zinien gauzez be behingoan etxeratuko.**

**Pablo:** Hamaiketako bi igual; bat bidean eta beste bat bertan, saiora sartu orduko.

**Deunoro:** Hangoa ofiziala izaten zen.

**Lauren:** Ordu bi arinago ailegetan ginen, han hamaiketakoa astiz egiteko. Hori obligazinoz.

**Gero, goizeko saioa amaitzen zen eta bazkaria zelan egiten zenduen?**

**Pablo:** Bertan, hantxe goizeko lekuan.

**Denei han inbidia emoten? Beste jenterik baze-  
goen, zuen moduan hori egiten ebanik?**

**Matxin:** Ez. Pentsatu be ez. Beste inork ez eban halakorik egiten.

**Orduan, denak zeuei begira?**

**Deunoro:** Bai, ba! Hortik dator, ba, bertsolariak be hurreratzea, "hemen zer pasetan da?" esanez.

**Lauren:** Lehenengotan izaten zen hori, bazkari-  
rako be, maleta eta guzti joaten ginena.

**Lazkao Txiki:** Gero bazkaririk ez genduen eroaten. Tabernan bazkaltzen genduen, hantxe ondoan.

**Arratsaldeko saioa amaitzen zen eta gero zelan egiten zenduen bueltakoa?**

**Deunoro:** Hiru urtetan Elgoibarren afaldu genduen, soziedade baten.

**Zelako maleta klasea izaten zen? Zer eroaten zenduen?**

**Lazkao Txiki:** Tortilak, txorizoak, makailoa, okela, eskaloa, zer ez?

**Lauren:** Baina ondo ipinita, eh! Lehenengo urtean, Ginerratzako Eusebiogaz joan ginen eta maleta geure amak ipini euskun.

**Eta edariak? Ardaoa bakarrik ala gehiago be bai?**

**Pablo:** Koñakak eta horrelakoak bertan topetan genduzen. Guk ardaoa bakarrik.

**Edan be polito egingo zendueen.**

**Denak:** Uuu! Edan, musturrak emon ahala.

**Lauren:** Samaraino beteta, txoferra izan ezik. Geuk edan eta besteei emon.

**Pablo:** Orduan Lazkao Txiki benetakoa be polito edaten eban, eh! Eta jan be polito.

**Deunoro:** Gehien Arozamena etortzen zen, Lazkao Txiki be bai. Baita Xalbador be. Etortzen zen eta, jan eta edan, harek be, suabe-suabe, geure moduan egiten eban.

**Pablo:** Zelebreena Lazkao Txiki izaten zen. Geure kuadrilakoa balitz legez egoten zen gugaz.

**Deunoro:** Basarri eta Uztapide ez ziren hurreratzen, baina Uztapidegaz Natxituan niri pasatu jatana itzela izan zen. Bertsotan ginen, Iturri eta ni Bizkaitik eta Lasarte eta Uztapide. Guk orduan ez genduen ez azkenik pentsetan, ez jesukristorik. Aita Santi zegon gai ipintzaile, eta gero bazkaria. Uztapideri esan neutsan: "Txo! Zuek bertsoak ikasita etortzen zarie ala?" - "Zer, ba?" - "Hain ondo egiten dozuez danak" - "Ez!". Harekek emon eustazen niri lehenengo lezinoak, Natxituan. Esan eustan: "Ez. Guk egiten doguna da bertsoaren azkena pentsatu, zer erantzun behar jakon, eta gero haxe apainduta eroan". Lehenengo biderrez entzun neban nik hori. Abadios! Hilabetean zoratuta ibili nintzen, neure buruari azken bat ipini eta halan biribilitzen. Uztapidek zabaldu eustazen begiak.

**Donostiatik honanzkoa be ez zen laburra eta isila izango.**

**Pablo:** Gu bertsoan isildu be ez, nahiz eta bertsoa hutsa izan. Urte baten edo bitan, Lopategi be etorri zen eta ez geuntsan astirik emoten.

**Lauren:** Lopategik be zer egingo eban, ba, gure artean?

**Matxin:** Behin, Areition goitik behera, Zaldibar gainean, bertsoa kantetan hasi nintzen eta Zornotza pasatu eta...

**Deunoro:** Baina pasatu aurrerantz, eh! Erletxe-etaraino joan ginen, Gernikarantz hartu beharrean.

**Denok be antzera zentozeen, beraz.**

**Lazkao Txiki:** Erletxeetaraino heldu ginen eta hantxe hasi ginen esaten: "Txo, baina nora demonino gaiozak gu?".

**Eta Matxinen bertsoa oraindino amaitu barik?**

**Pablo:** Aurrera honek!

**Matxin:** Autzaganen behera gentozela, Pablok dinost ze: "Akabatu dok?". Eta nik: "Hau akabatu da". Eta holantxe akabatu zen.

**Bertsoa hasi eta hainbeste kilometrotan jarraitzeko, zer esaten edo zeri ekiten zeutsan?**

**Matxin:** Ba, ni hasi nintzen eta akaberarik ez jatan bururatzen eta aurrera.

**Baina arnasa hartu beharko zenuen!**

**Lauren:** Beno, bertsoan baino gehiago, erdi berbetan, erdi kantuan egiten eban. Zer esaten? Gogora etortzen jakona.

**Etorri egin behar da, hainbesteko bidea isildu barik egiteko!**

**Deunoro:** Atera kontuak. Areition behera hasi eta Zornotzaraino, 20 bat kilometro; Erletxe-etaraino joan-etorria beste 15-16 kilometro bai. Zornotzatik Autzaganen ostera, beste 3-4, ba, berrogei kilometro bertso bat amaitzen, eta bizkor-bizkor be ez ginen etorriko.

**Lazkao Txiki:** Eta akabatu be, agindu jakolako, osterantzean oraindino be han gabilz.

**Matxin:** Lagunek nahikoa zela esanez gero, obeditu egin behar neban, baina nik amaitu ez neban egin, eh, ebagi baino!

**Nora ailegetan zinien eta zelan egiten zenuen azkena?**

**Pablo:** Azkena Zugaztietako geltokian izaten zen, geure etxean.

**Han be bertsoan jarraitzen zenuen?**

**Matxin:** Han be ekin guk!

**Deunoro:** Bertsoan bakarrik ez genduen egiten, eh! Txapelketako bertsoen komentarioak be asko: "halakoa huts samarra izan dok; bestea dotorea zolan, baina zera falta jakolan; ha bai, ha biribila izan dok", eta horrela, geure kritikak eta azterketak egiten genduzen.

**Bidaia horretatik aparte, Gorozikan edo inguruan kantetan zenuen, plazan edo bestelakotan?**

**Pablo:** Kantatuko ez genduen, ba? Guk orduan bertsoa... baita amesetan be.

**Lazkao Txiki:** Behin, halantxe tabernan gengtela, Olarra Errigoitikoan agertu zen, laguna genduen bera, eta esan eustan: "Hi, Lazkao Txiki! Beti tabernan-eta lotsagarri ibili barik, Busturin kantatu behar joagu plazan" - "Nik plazan kantatu?" - "Bai! Neu be joango nok eta hik be etorri egin behar dok". Eguna heldu zenean, Busturira joan ginen, izena emon genduen eta, aurretik hamarretakoa eginda, hantxe kantatu genduen. Piloa ginen. Bizkaiko txapelketako eskualdeko kanporaketa zen. Jesus Mari Sarduik irabazi ebala uste dot, gainera. Deunororen anaiak.

**Pablo:** Jesus Mari, jarraitu izan baleu, bertsolari ona izango zen.

**Matxin:** Bai. Harek boz elegantea dauka. Boza ederto dominetan dau.

**Deunoro:** "Lazkao Txiki" honek be bertsoan elegante egiten eban orduan, eh!

**Zuen ibilera edo joan-etorri hori alde batera itzita, orduko jentearen zer gomuta daukazue? Zelako jentea joaten zen txapelketetara?**

**Lazkao Txiki:** Orduan gazte gitxi joaten zen.

**Zeuek gazteak eta beste gehienak zaharrak?**

**Denak:** Bai, bai. Gehiena jente adinekoa zen. Gaztea oso gitxi ikusten zen.

**Deunoro:** 1915-16tik, errepublika sasotik, gero gerra eta gerroste, bertotan entzun barik zegozenak, horrelakoak ikusten ziren gehienbat. Eta eurak baserrietatik, eh! Baserri guztietatik joaten ziren. Bertsozaletasuna ikaragarria egon da hemen inguruan. Nik ez dakit Urretxindorragaitik ala zergaitik, baina hemen Muxika bueltan, Ibarruri, Gorozika eta inguruetan, bertsoa jan egiten zen. Bilbon jente adinekoa erruz ikusten zen.

**Donostiara be jente asko joaten zen Bizkaitik?**

**Lauren:** Donostiaraino gitxi hemendik.

**Deunoro:** Gehiago be joango ziren, baina inguru honetatik, Muxika aldetik, geu bakarrik. Donostia urrun zegoen orduan. Baina zaletasuna bai gero! Neu nago ikusita. Basarri eta Uztapideren saio bat irratitik zuzenean emoten ziharduen, eta Buruburuko tabernan, Josefinaren tabernan, han egon ziren sei-zortzi lagun, bankuan jesarrita, orduko irrati handi hareetariko bati begira. Entzuten. Atzetik bati itaundu neutsan: "Zer? Zein da hobe". Eta erantzun eban: "Hemendiko alderdian dagoena". Harek bazekien nor zegoen alderdi batean eta nor bestean. Irratiari begitu eta ikusi egiten eban.

**Zuek, zeuen maleta eta guzti, erdi erromerian joaten zinienean, baina jentea zelana joaten zen?**

**Pablo:** Oh! Jentea serio joaten zen han. Gu halan ikustea ez dakit txokatu ala zer egingo jaken, baina eurak elizara legez joaten ziren.

**Lazkao Txiki:** Gero barruan, denok formal eta serio egoten ginen.

**Matxin:** Hori bai gero!

**Berba be egingo zendueen zeuen artean, bertsolarien mailaz eta abar. Zeuen gustukoa edo faborittoa nor izaten zendueen?**

**Pablo eta Lauren:** Uztapide esango neuke nik.

**Lazkao Txiki:** Ni neuretzat be Uztapide.

**Matxin:** Elegantienean bera zen.

**Deunoro:** Basarri apur bat aa... zera izan zen guretzat. Bai, Uztapide guretzat.

**Eta gero, Lazkao Txiki eta agertu zirenean?**

**Denak:** Oh, Lazkao Txiki espeziala izan zen.

**Deunoro:** Xalbador bera zen serioagaz, guk eza-gutu genduen ikaragarri txistosoak. Lazkao Txikiren parekoa. Serio beti, baina kristorenak esan. Zelako pasadizoak eta zelako gauzak esan, txo! Matxin izan zen beste bat bizia, apur bat arintxoagoa baina.

**Lazkao Txiki:** Xanpun be bizia zen.

**Entzundako saioetatik, bertsorik ikasten zendueen? Gogoan daukazue zer kantetan zendueen?**

**Deunoro:** Gehien-gehien, Xalbadorrenak. Egin be, inpresinoa egiten eban.

**Pablo:** Bai gero! Hareek sorginarenak eta, alar-gunaren soinekoarenak eta...

**Deunoro:** Xalbador bisitatzera be joanda gagoz gu Urepeleraino.

**Hara be egun guztiko maleta eta guzti?**

**Lauren:** Baita lau egunerako be guk maleta!

**Deunoro:** Xalbadorrek etxean be errespetua sartzen ebala ikusi genduen. Osterantzean, lagun artean eta, ez zen horrelakoa, eh! Hareek itzelak kontetan zituen. Eta zelako urtekerak lantzean-lantzean!

**Noiz arte jarraitu zeuntsien martxa hari, orduko txapelketak 1967an amaitu zirenean eta?**

**Pablo:** Guk jarraitu egin genduen, hemen soziedadean eta, batez be. Gure bertsozaletasuna itzela zen.

**Orain jarraitzen dozue zelabait elkartzenean eta giro hari eusten?**

**Lazkao Txiki:** Orain gitxi.

**Lauren:** Urteak be ez doaz alperrik aurrera eta.  
**Deunoro:** Egin genduen halako saiakera bat soziedadean, "barriro hasi behar joagu" eta halan, baina ez da erraza.

**Banan edo koadrilan, gaur egun jarraitzen deutzazue bertsoari?**

Gitxi-asko, denek baietz erantzuten dabe, irratia, Hitzetik Hortzera eta horrela.

**Matxin:** Niri bertsoa norberarena gustetan jat; inorena ez hainbeste.

**Eta jarraitzen dozue norberarena kantetan?**

**Matxin:** Orain askorik ez.

**Zuek hasi zinienetik hona, zelan ikusten dozue bertsolaritza? Iraungo dau? Ez dau? Hobeto dago? Okerrago?**

**Lazkao Txiki:** Ni neuretzat, lehengoak hobeak ziren. Oraingoak, guretzat, aitzeko be gatxagoak dira.

**Eta bertsozalea? Orain ala orduan zegoen zale-tasun handiagoa?**

**Lazkao Txiki:** Zaletasuna ez dakit, baina bertsozale-tasuna orduan askoz handiagoa.

**Deunoro:** Orduan egarri handiagoa zegoen, entzun be gitxiago egiten zelako. Bertsolariak, banakak, urrunekoak ziren, apur bat Jainkoa



X. Amuriza

Ezkerretik eskumara, D. Sardui, S. Etxebarria, L. Irazabal, P. Irazabal eta J. A. Euba.

lakoak. Gaur, gazteak be hasi direnean, norberak ez bada, ondokoak egiten dau. Bertsoa ez da hain misteriosoa eta ez da hainbeste estimetan. Gazteak eurak alkarregaz dabilz. Ez dira bakarrak; piloan dabilz. Eta piloan ez da hainbeste preziatzen gauza fina. Lehengoan, Gernikan, Busturialdeko kanporaketan, berrogeita hamar bat lagun gengozen. Jose Antonio Arana Martijaren ondoan nengoen eta harek be zinoen: "Tos! Bertsoetan asko egiten da, lar egiten da. Jente lar presentetan da txapelketara". Eta horrek garrantzia kentzen deutso.

**Beheko mailak itzita, konparazinoak goian eginenez gero, zuk, Pablo, zelan ikusten dozu?**

**Pablo:** Gauza asko dagoz hor bitartean. Gaurko gazteek guk baino hobeto aitzen dabela uste dot bertsoa, eta aitzen dauena bertsozalea da. Nik uste dot bertsolaritza salbatuta dagoela. Guk uste genduen bertsolaritza galdu egingo zela, eta niri horrexek emoten eustan bildurra.

552

**Eta hemen, zeuen inguruan, orain zaletasuna zelan dago?**

**Matxin:** Lehengo konparazinarik pentsatu be ez.  
**Denak:** Orain saioak be edonoiz dira, jaiak, gazteak... Orain oso ezbardina da. Bertsoa ia eguneroko gauza bihurtu da eta egunerokoak ez dauka hainbesteko graziarik.

**Amaitzeko, pasadizoren bat be izango dozue, ba!**

**Pablo:** Pasadizoak asko, baina, beharbada, barregarriena behin Orioko taberna baten gertatua. Tortila bat pernilagaz egiteko esan geuntsen. Begirakune aldrebesa ipini euskuen, baina gu trankil. Handik gerotxoagora, han dakarre gure tortila, perrexilez eginda. Han "urdaiazpikoa" esaten dabenez, gure "pernila" zelakoa "porejila" ulertu eben.


**Lauren:** Eta guk haxe be jan!

## Pedro Ortuzar "Iturri"



"Eskolan "cara al sol" kantatu eta bandera jaso eta jaitsi besterik ez genduen egiten. Gaurko bertsolari gazteek gauza arraroak esaten ditue. Batzuei ulertzen jake, baina beste batzuei ulertu be ez deutset egiten".

1932ko apirilaren 25ean jaiorik, bertso munduan eta denean, bere jaiotetxearen izenetik ezagutu izan dogun muxikar hau Bizkaiko bertsolaritzak izan eban zabalkunde eta populartzearen eragile nagusietariko bat izan zen. Gorputzez txikia, buruz bizkorra eta jenioz ausarta, hemengo bertsozaleen kutunetarikoa izan zen. Bere harrotasun



Anjel Rodríguez. Bertsolari aldizkaria.

handietariko bat hasieran gehienbat beragaz ibili ohi zen Jon Lopategi bertsolari handi egitearen erantzule izana da. "Nigaz ibiltzen bazara, ikasiko dozu bertsotan eta edozertan", esaten ei eutsan. Bertsoaren teknikaz eta gainerako formalismoez sekula gehiegi arduratu ez zen txori kantari honek (irudi exaktoa beretzat) bere presentzia eta jarrera hutsez lortzen eban entzuleen ikusmina. Ipazterko Pilar Arrizubietagaz ezkondu eta hiru seme-alaba izanik, istripu dohakabe baten ondorioz, gurpil-aulkian daroaz 33 urte, egoerari era harrigarrian aurre eginez.

### **Ia bizitzarik daroazu gurpil-aulkian. Zer deritzozu gertaera latz haretatixek hasteari?**

Hasi eta amaitu, behin honezkero hementxe egin beharko dot. Nire destinoa hauxe izan da eta zer egingo deutzazu, ba? Basañezegaz beharrean nenbilen, apeatan eta kamoi kargetan, eta hantxe izan neban istripua 38 urtegez, Elantxoben, kamioi gainetik jausita. Txarto subertatu eta honelaxe gelditu nintzen.

### **Istripua izan eta gero be ibili zinen, baina, bertsotan, neuk be inoiz ikusi zaitut eta.**

Bai. Neuk gura nebanagaz joateko esaten eusten. Nire anaiak kotxea zeukan eta haregaz leku askotara joaten nintzen, aurretik beste guztiekin

ibiltzen nintzen baina.

**Gatozen kontu alaiagoetara, gaur horretara etorri gara eta. Lau neba-arrebatan lehenengoa zinen. Etxeko prakaduntxoa, beraz. Bertso kontuan noiz eta zelan hasi zinen?**

Hamalau urtegaz, San Esteban egunean, Morgako Gerekiz ganean, Patri esaten eutsien bategaz egin neban lehenengo saioa. Harek 72 urte eta nik 14. Ha Urretxindorragaz ibiltzen zen. 1946an izan zen hori. Gure aitak bertso zahar asko zekien, mitinetan eta Urretxindorri laguntzen ibiltzen zen eta. Aitari entzuteak ekarri ninduen bertsoa. Gero, Ariatzan, bertsoeskola moduko bat bazegoen eta handik be bai apur bat. Baina nik egin dodan apurra, dena berezkoa dot.

**Aitaren bertsoak zer ziren? Bertso-paperak?**

Bai. Gernikan eta erosten zituen eta gero etxean kantatu. Berak bertsoak ez eban egiten.

**Eta zeuk?**

Nik, lehenengotan, harexeri ikasiak kantatu. Hamalau urteko horixe izan zen bat-bateko lehenengoa.

**Eta ausartu egin zinen.**

Bai, eta bera hasarratu egin zen, gainera, gehiago egin neutsalako. Aurretik, etxean neu bakarrik ibiltzen nintzen bat-batean.

**Zure kontrarioak edo lagunak nortzuk izan ziren?**

16 urte ingurugaz, Balendin Enbeitagaz hasi nintzen plazetara. Gero Deunoro Sarduigaz, Lopategigaz... Baina, Lopategi hasi zenerako, ni asko ibilita nengoen.

**Zure sasoiari, plazetan zelako giroan egoten zen?**

Itzela! Orduan txarrena be ona zen. Ez zegoen euskaraz egiterik, eta guk euskaraz egiten gen-

duen. Guardia Zibilagaz nahaste handiak edukita gagoz gu. Eako sanjuanetan, Sardui eta biok eta Balendin Enbeita ginen. Kantetan hasi orduko etorri jakuzen ea zer kantatuko genduen galdezka. Ez genkiela zer kantatuko genduen, eta esan euskuen: Pues, vaya cantaores de los cojones!

**Zuek zeuen barruan harro sentituko zinen, halako mirariaren jabe.**

Harro? Bildurra bai galanta! Jolin! Andrankan, beste behin, agurrean esan neban euskara jagon egin behar zela, eta nire "gora euskeria" ha "gora Euskadi"-tzat hartu eta jaitsi eragin euskuen, eta, ez kobratu ez ezer, arineketan alde egin genduen Mugiara, ze bestela kartzelara gindoazen. Taket, Balendin Enbeita, Ajuria edo Deunoro eta neu izan ginen. Bakion be, beste behin, han ginen nire anaia eta biok, Lopategi, Deunoro eta Balendin Enbeita. Lehenengo, manifestazinoa egon zen. Ha pasatu arte, ez genduen kantatu. Amaitu zenean, kantetan hasi ginen eta Guardia Zibilak etorri, jaitsi eragin eta ez kantetako esan euskuen. Hangoek ordaindu gura izan eben, baina guardia zibilek txekea kendu eta apurtu egin eben. Gero bakiotarrak etxera etorri jakuzen ordaintzera. Bildur itzelagaz ibiltzen ginen.

**Jente asko edukitzen zendueen entzuten?**

Asko be asko. Gaztea baino edadekoa gehiago, 30 urtetik gorakoa.

**Eta zer kantetan zendueen?**

Neskazahar-mutilzahar kontuak; herrian urtentxoa zenen bat edo famatxoa zeukanen bat bazegoen, harexeri ekin. Orduan ez zegoen gairik. Dena librean. Gaiak gero etorri ziren. Gurea bata besteari adarra jotzea eta ekitea zen, Take-tegaz eta. Hau ni baino 30 urte zaharragoa zen, baina ez eutsan ardura.

**Taketegaz zer gomuta daukazu?**

Behin hasarratu egin jatan. Harek Txorierriko barri dena jakiten eban eta esaten eban: Orain urliari kantatu behar deusagu, gero sandiari. Hango barri guztia zekienez, niri beti aurea hartzen eustan eta behin hasarratu egin jatan, nik hango barririk bere moduan ez nenkiela esan neutsalako. Eta hasi jatan (hori dena bertsotan), ez dakit zer eta badakit zer, "zu oraindino gaztea eta txikia zara, niri bertsotan egiteko", eta erantzun neutsan: "Ni handia sekula ez naz izango, baina zure moduan aldmino ganean benenbil, neu be handia izango nintzateke", zurezko hanka zeukan eta. Eta jentea, beno! Baina bera hasarratu egin zen. Jaitsi eta hanka egin eban.


#### Herrenak okerrak izaten direlako ez da dena guzurra be, orduan.

Bermeon be, beste behin, bertso saioa bertan itzi eta alde egin euskun, haserretuta. Neu, Sar-

dui, Balendin Enbeita eta bera. Saio aurretik, hamaiketako emon euskuen, eta bagabilz tabernan bertsotan eta berari eraso geuntsan. Gero bertsotara ez zen agertu be egin, beti berari adarra jotzen genbilzela eta. Hanka egin eban. Okerra zen, bai, beti bereagaz urten beharrekoa. Nik aldminoarena bota neutsanetik, gitxiago zirikatzen ninduen, baina beti gura izaten eban neu joatea, Balendin Enbeita eta barik. Nik orduan motorra neukan eta saioetara atzean eroaten neban, bere hanka albotik luze-luze eginda. Eskerrak orduan trafiko handirik ez zebilen. Nigaz pozik ibiltzen zen.

#### Sasoi haretan, motor-jabe izatea luxu handitxo ez zen?

Gernikan neu izan nintzen lehenengoa. Aitak hiru txahal hazi zituen, motorra erosteko. 1952ko kontua da hori.



Ezkerretik hasita, Juan Ormaetxe "Takek", D. Sardui, P. Ortuzar "Iturri" eta I. Ajuria. 1959ko Bizkaiko txapelketako saio batean.



### **Saio bereziren bat gogoan daukazu?**

Saio onak asko egin nituen. Ez dot apartekorik gogorutzen. Gehien ibili, Sardui, Balendin Enbeita, Lopategi eta horreekin egin nintzen. Pujana eta horreekin be bai, baina ez zen hase-rerik eta halakorik izaten.

### **Nondik ibiltzen zinien?**

Bizkaia guztian zehar. Lehen Bizkaian ez zegoen herririk, bertso saio barik. Orain ez dago orduko erdirik be.

### **Zelako ibilera moduak egiten zenduezen?**

Motorrean hain txarto be ez. Lehen egun guztirako izaten zen, lehenengotan bizikletan, gero motorrean, goizean urten eta gauetz bueltatu arte. Leku askotan kobratu barik, euskaragaitik, ez zeukiela dirurik eta. Gero 300 pezeta kobretan hasi ginen. Orduan dirutza zen ha! Asko zen. Gero ondo kobretan zen. Ni Lopategigaz egun bakarrean bost lekutan egonda nago, San Isidro egun baten: Larrabetz, Lezama, Zamudio, Derio eta Getxo. Egun guztia 1.000 pezetagaitik, Lopategik tratua eginda. Ha pentsu-saltzaile ibiltzen zen eta jenteagaz tratua zeukan. Mila pezeta diru handia zen orduan! Baina debalde be sarritan ibiltzen ginen.

### **Lanean noiz hasi zinen etxetik kanpora?**

Hamalau urtegaz, pintxe hasi nintzen Malta lan-tegian. 32 urterarte. Gero aita txarto jarri jakun gaixorik eta, baserrian baten bat behar zela eta, horrexegaitik gelditu nintzen etxean.

### **Fabrikan soldatutxo edukiko zenduen.**

Ez pentsatu. Aste guztian ia ehun pezeta be ez. Gero, bertsoan joaten hasi nintzenean, egun batean gehiago irabazten neban han aste osoan baino. Baimena be eskatu behar izaten neban, ze sarritan astegunetako urteera izaten zen, baina ugazaba lagun handi neban eta orduak sartzen

izten eustan, bertsoan joateko, eguna libratzearen, eta halantxe konpondu ginen.

### **Beharrean zer giro zegoen?**

Kanpotik etorritako asko. Orduantxe bete zen hau kanpotarrez. Orduan 700 bat behargin egongo ginen. Orain ez dira 200 be egongo. Bertoko baserritarrak be asko ziren eta majo mol-detan nintzen.

### **Lopategigaz zer gomuta daukazu?**

Lopategi lehenengoz neuk atera neban plazara, San Isidro egun baten, Ajangizen. Lopategiren etxea eta gurea bostehun bat metrotara zegoen. Ni behiak jagoten egoten nintzen, Lopategi etortzen jatan, han euren etxetik hurrean, eta hantxe egiten genduzen entrenamenduak biok, bera plazan hasi aurretik. San Isidro egun baten, Ajangizkoei esan neutsen: "Aurten beste bat ekarri behar deusuet. Lopategi" - "Nor dok hori?" - "Neure auzokoa da. Frailletatik oraintxe etorrita dago eta bertsoan polito egiten dau". Hantxe hasi zen eta gero beti. Lopategigaz asko ibili nintzen hemen Bizkaian. Gipuzkoan nik ez dot kantatu; Arrasaten... leku bitan edo, baina gehiago apenas.

### **Gipuzkoan, bertan zegoen bertsolari ugari, Uztapide eta abar.**

Baina hareek Bizkaira be etortzen ziren. Ni kantatuta nago Basarraigaz eta Uztapidegaz, Natxituan, Santagedetan eta, Arteagan, Sanantolinetan. Hareek biak eta Balendin Enbeita eta ni. Uztapidek estimatu eduki ninduen. Gizon ona zen.

### **Lehenago bertso-rik badaukazu gogoan, ikasitakorik edo?**

Ikasi asko egin genduzen, baina ahaztuta.

### **Eta irakurri?**

Hareexek bertso-paperak, aitak Gernikatik ekartzen zituenak, baina nik irakurtzen sekula ez dot afizinorik izan.

**Eta errimak ikasi edo buruari bueltak emon?**

Bai, hori beti. Baina, oraingo gazteek urteten daben moduan, azkena pentsatuta, guk ez genduen horrelakorik egiten. Honeek lehenengo-lehenengo azkena pentsetan dabe. Gero bete egiten dabe, errimekin eta, haxe errima betetze-arren. Nik sarritan ulertu be ez deutset egiten.

**Zeuk ez zenduen azkenik pentsetan? Zelan egiten zenduen orduan?**

Azkena berez etortzen zen.

**Zetorrena zetorrela?**

Halantxe etortzen zen. Oraingoek lehenengo-lehenengo azkena pentsetan dabe.

**Zortziko handia, txikia, hamarrekoa... zer zen zuena?**

Orduan zortziko handia eta txikia izaten ziren.

**Eta kopletan eta?**

Kopletan gitxi.

**Lopategi eta biok entrenamenduan ibiltzen ziniela esan dozu. Zer egiten zenduen?**

Bata-besteari kantatu. Gure entrenamendua horixe zen. Gero, Garriko izeneko eskola bat ipini eben Ariatzan eta, hara joaten nintzenean, gai batzuk eta ipintzen eustezen. Etxean bertsoak egiteko gaiak be ipintzen zituen, baina, nik orduan idazten be ez nenkienez, zelan edo halan egiten nituen, eta upiolako barreak egiten eustezen. Horreek besteek idazten be ondo zekien, Lopategik, Sarduik, Jon Enbeitak, Balendin Enbeitak berak be bai. Barre egiten eusten, baina nik albo egiten neban eta aurrera.

**Istripua 1970ean izanik, noiz arte jarraitu zenduen eta zergaitik itzi zeuntsan?**

Laurogeita hamarrean itziko neuntsan. San Martin egun bat zen. Beti inor behar izaten neban

eta neu be beti ez nintzen ondo aurkitzen, eta ha ez zen martxa. Nekatu egin nintzen. Deitzai-leek esaten eusten: "Geuk ekarri eta eroango zaitugu". Horrela be askotan kantatu izan dot. Mañura urte askotan joan izan naz Karmenetan, eurek eroan-ekarrita, baina, azkenean, ezetz esan neutsen. Nengoen moduan egonda, ha ez zen gizona ibiltzeko modua.

**Taketegazko pasadizo batzuk kontatu dozuz lehen. Beste inorgaz halakorik badaukazu gogoan?**

Balendin be, behin, Ariatzako Santakurtzietan, bertso batean erratu egin zen eta esan neutsan txapela bazeroala buruan, baina ez zeukala zer handirik barruan, eta hasarratu egin jatan. Osterantzean, horrelako pikerik ez dogu inoiz izan.

**Etxean zelan ikusten eben zu bertsolari izatea?**

Gure aita zenak esan eban: kantuak dakartzuna txistuak eroango deutsu. Alegantzia eta dibertsinoa esan gura eban, dena bertan behera itzita joan behar izaten zen eta. Orduan kobratu be ez genduen askorik egiten eta sarritan doan, gainera. Ni neu, gehienetan, kobratu barik ibiltzen nintzen, baina, Lopategigaz hasi nintzenean, honek tratua aurretik egiten eban. Lopategik esaten eban: Zenbat eta leku gitxiagotan kobratu, hainbat leku gitxiagotara eroango zaitue. Haregaz joaten nintzen lekuetan, gehienetan kobretan neban. 600 pezeta edo 1.000 pezeta. 600 pezetakoak baziren, baina 1.000koak be bai. Geroago, Lopategi Azpillagagaz hasi zen eta horreek 20.000 eta 30.000 pezeta eta horrela kobretan eben, baina horreek askoz geroagoko kontuak dira. Ni ordurako itzita nengoen.

**Andreak zer esaten eban, gizona bertsolaria zeukalako?**

Andrea pozik, diru apur bat ekartzen nebanean.

**Baserritik bizi zinien?**

Baserritik eta kanpoko lanetik be bai. Harik eta istripua izan arte, ezkondu eta sei urtera. 29 urte daroadaz pisuan bizitzen eta istripua orain 33 urte izan zen.

**Hain istripu madarikatuaz pentsatzeak erne-gualdirik ez deutsu eragiten?**

Buff!!! Itzelak. Omenaldi ugari egin eusten orduan. Lehenengoa Ariatzan bertan. Hurrengoa Gernikan egin eusten, frontoian. Gero beste bat Gernikan, lehen zinea egon zen lekuan. Donostian, Zarautzen, Larrabetzun, Ipazterren, Mungian... Dirua hartu neban bakarra Donostiakoa izan zen, eta Gernikako frontoian be bai apur bat. Beste guztiak omenaldi hutsak izen ziren.

**Inoiz ez dozu idazterik pentsatu?**

Ezin neban idatzi, eta izan be ez naz idaztekoa izan, eskolarik be ez neukan handirik eta. Gaur edonork dauka eskola. Ni hamabi urtegaz hasi nintzen eskolara eta hamalau itzi neutsan, lanean hasteko.

**Hamar urtera arte zer egin zenduen edo non zengozen, ba?**

Etxean beharrean, itaurren eta behar zen denean. Gure sasoiaren 9-10 urtegaz hasten zen eskolara.

**Eskolako urte bi hareetan zer ikasi zenduen?**

Ezebez! Sumar-restar-dividir. Irakurtzen eta idazten justu-justu. Gero partikularrera ibili nintzen sei hilabetean. Han gehiago ikasi neban eskolako urte bietan baino. Eskolan "cara al sol" kantatu eta bandera jaso besterik ez genduen egiten. Erderarik egiten ez nebalako, zigortuta egoten nintzen.

**Zelako maisua edo maistra zen, ba?**

Maistra bat, Maria Dolores, Bitoriako alaba, gaiztoa, txarra. Hamaika bider eduki ninduen bazkaltzera joaten itzi barik, erderaz egiten ez nebalako. Nik dena euskaraz egiten neban.

**Halan zela, eskolari pozik itziko zeuntsan orduan.**

Bai horixe! Gero Gernikara etorri nintzen sei hilabetean, maisu bategaz. Oraindino bizi da, 95 urtegaz. Harexegaz ikasi neban idazten eta irakurtzen. Bestean, bakarrik egiten neban goizean bandera jaso eta iluntzean jaitsi. Horixe eragiten eustan beti maistra zantarrak, zigortuta, erderarik egiten ez nebalako.

**Abadeak zelakoak ziren?**

Abade bat egon zen hemen gaiztoagoa!! Don Pantaleon. Ariatzan hiru-lau abade egon ziren. Bat ona zen, Don Zoilo, Arratiako semea. Besteak gaiztoagoak!

**Zer egiten eben, ba?**

Zigortu!

**Eliza inguruan be zigortuta egoten zinen?**

Beti, kontixu!

**Total formala be ez zinen izango eta.**

Nik ezin izaten neban dotrinarik ikasi eta hareek ez eben sinisten. Nik ezin eta hareek sinistu ez. Derrigor egin behar nebala. Kredoa eta aita gurea eta ikasi nituen zelan edo halan eta aurrera.

**Eta olgatu, umetan zertara olgetan zendueen?**

Pilotan, etxe aurrean, Ariatzan eta abar. Han ez zegoen besterik.

**Eta neskekin?**

Puf!!! Neskekin orduan pentsatu be ez. Neskak mutilak aparte egon ginen eskolan.

**Gaur egungo umeak, zuekin konparaturik, zeure lobak-eta ikusita, zelan ikusten dozuz?**

Gure sasoiaren, jostailurik eta ez zegoen pentsatzerik be. Gaur egun, dena daukie eta edonoiz: urteak, Erregenak, Olentzero... Guk Erregene-

tan txokolate apur bat eta intxaur batzuk izaten genduzen, zapatan ipinita. Eta gauza handia zen.

**Eta gaurko honi onerako ala txarrerako ala zelan deritzozu?**

Onerako izango da. Gure bilobak dena dauka: bizikleta bi edo hiru, jostailuak, ordenagailua... zer ez! Gure bizimodua tristeza izan zen, gerra ostea be bazen eta.

**Gose eta guztikoa?**

Gosea, kendu bakoa.

**Hori kalean bai, baina baserrian zeozer eduki-ko zendueen.**

Baserrian taloa, esnea, lapikokoa...

**Gaur egun, zer jateko ilusinoa izaten dozu?**

Ezebez! Orain gura dena edonoiz jan leiteke. Hau dena aldatuta dago.

**Zer deritzozu hainbesteko aldakuntzari?**

Ona izango da.

**Iretargira txangoa be egin ei leiteke.**

Berton gelditu balira, hoba!

**Ailegatu egin ete dira iretargira?**

Nik ez dakit, baina baietz dinoe. Telebistak engainetan gaitu denok. Gaurko umeak, horrexeri begira, mogitu be ez dira egiten.

**Neska kontuan, noiz hasi zinen erromerietara eta?**

Hamazortzi urtetik gora.

**Eta artean?**

Artean, pentsatu be ez holakorik! Karta jokoan egin, ze hamazortzi urtera arte, tabernan sartzen itzi be ez euskuen egiten. Urik be ez euskuen emoten. Gero beste taberna bat ipini eben

eta han izten euskuen. Limonada edaten genduen. Baina dirurik be ez zegoen eta zelan joango ginen, ba?

**Neska-laguntzen egiteko ez da dirurik behar.**

Neska laguntzen? Pentsatu be ez horrelakorik!

**Eta erromerian?**

Hogei urte pasatu eta gero hasi nintzen Gernikara joaten. Igual amari zeozertan laguntzen, plazara edo bai, baina bestelan pentsatu be ez.

**Andrea topatu zenduen, ba. Non eta zelan izan zen?**

Ipazterren, Santiago batzuetan. Lopategi eta biok bertetan joan ginen. Lopategik nire andra honen ahizta ezagutzen eban, Donostian soldadu egonda. Gero, egun batean, nire koinatua dena eta biok Gernikan gengozen bodega batean eta zotz egin genduen samigiletan nora joan: Ereño, Mendata ala Ipaztererra. Halantxe, Ipaztererra urten genduen eta hantxe zegoen ahizta biak, baltzeko, aita hilda. Nik, neure andrea dena barik, bestea ezagutzen neban, Lopategigaz joan nintzenetik. Handixek hasi ginen ezagupidea hartzen eta gaur arte.

**Gerraosteaz zer gomuta daukazu?**

Nik, Gernikako bonbaketa bezperan, bost urte egin nituen. Gernika bonbardatu eben hegazkinak geure etxe paretik pasetan ziren. Gure etxe ondoan estarta zahar bat zegoen, sasiz zarraturik, eta haraxe joanda egon ginen, igual etxea botako ebela eta. Aita gerran eta ni etxean, ama, aitita eta amamagaz. Gogoan daukat Gernika zelan apurtu eben. Gero etxetik alde eragin euskuen eta Gordexolara joan ginen amagaz. Aitita-amamak be bai. Lehenengo, Derioraino, burdian eta astoagaz. Etxeko burdian, oheak eta hartuta, behiekin. Ariatzen urten, gaba Mungian egin eta gero Deriora.

Derioko seminario aurrean institutu bat zegoen eta hantxe nengoela apurtu eben dena. Gero handik Bilbora eta Bilbon osaba batek furgonetatxo bat zeukan (orduan kotxerik eta gitxi zebilen) eta harek hartu eta Gordexolara eroan ginduzen. Hile bi egin genduzen han. Etxean behi bi, txahal bi, oiloak eta abar itxi genduzen eta bueltan ezer ez genduen topatu. Denak ostuta. Golde, are eta holakoak, hareek be auzoko etxeetan, eta eske be joan ezin. Denak falangistak ziren eta gu isilik, badaezpada. Aitak, gerra amaitutakoan, hiru urte kartzelan egin zituen. Gu ahal zen moduan moldatu ginen, beharrerako erremintarik ez ezer ez geunkala. Ha tristeza izan zen. Bost urte neukazen, baina ondo gogoan daukat dena. Gordexolan, ostatz egon ginen lekuan, dena mairuz beterik, hareentzat dena txokolatea eta jatekoa bazegoen, eta gu gose itzelagaz, eta nik "pan y coco" esaten neutsen, neuri eta arrebari emoteko. Beste neba-arreba biak jaiotzeko zegozen.

**Etxean, umetan, zer behar klase egiten zenuen?**

Iturren, artajorran, astoagaz bedarra ekarri, eta horrelakoxeak. Han ez zegoen traktorarik.

**Gaztaroa pozik, triste... zelan gogoratzen dozu?**

Dena batera. Pozik be bai, halantxe zela eta. Besterik pentsatu be ez genduen egiten. Zer egingo genduen, ba? Gaztaroan, sasoiak laguntzen dau gehien.

Orduan nork esango eban oraingo konturik! Lehen erropak garbitzeko, etxe ondora zetorren ura txarra zen eta hara erreka nagusira lagundu behar izaten jakon amari, baldea eroaten. Lopategiren etxearen azpiko erreka joaten ginen.

**Erropa barriak be lantzean behin erosi beharko ziren.**

Oh! Erropena, bata-besteak erabiliz konpon-

tzen zen. Elizarako, abarketak izaten genduzen eta eliza baino honatxoagoko txabola bateraino ortozik joaten ginen, abarketak txabolan janzteko, euri zein aterri. Goizeko zazpiretan, ez oraingo moduan; eta joan egin behar, bestelan hantxe agertzen zinen zerrendan eta.

**Konfesatu be bai?**

Konfestatu astean behin.

**Zer pekatu esateko?**

Pekaturik ez, baina joan egin behar. Orduan dena zen pekatua.

**Neskekin ibiltzea izango zen pekatu bat.**

Neskekin ibiltzerik pentsatu be ez. Orduan abadeak jagoten ginduzen gu ondo. Orain abaderik be ez dago eta lehen hiru: parrokiari bi eta Ariatzan bat. Elizara derrigor joan behar zen.

**Errepublikari sasoiko konturik entzun zenuen etxean?**

Bai. Aitak esaten zituenak, baina ni gaztetxoan nintzen oraindino.

**Urteak aurrera eta, beti gorpil-aulkiri lotuta, denpora zelan pasetan dozu?**

Ba, hementxe. Eguraldi ona eginez gero, kalera bueltatxo bat egiten dot, edo eragiten deuste, eta bestela etxean, leihotik begira, terraza ederra daukagu eta.

**Zure ondoan beti andrea ikusten dogu, beti irribarrez eta berbaldun atsegina.**

Nik, neure zoritxarrean, andreagaz suberte itzela daukat. Esan be ezin leiteke egin honek nigaitik zenbat egin dauen eta familia zelan aurrera atera dauen.

**Eguna luzetxo ez jatzu egiten?**

Gabeko hamarrak etortzeko desietan egoten naz, oherako. Jesarrita, nekatu egin naz asko.

**Orain bertsozik entzuten dozu edo gaur egungo martxari jarraitzen deusazu?**

Irratitik eta telebistatik eta jarraitzen dot, bai. Hor be, Lizaso eta Egaña eta horreek entzun eta beste gazteotara, badago aldea. Honeek eskolatik dabilz.

**Zer egiten jatzu arraro gazteakandik?**

Esaten dituen gauzak eta. Gauza arraroak esaten ditue. Batzuei ulertzen jake, baina beste batzuei ulertu be ez deutset egiten. Inoiz andreari esaten deusat: "Horrek zer esan dau? Zer dino horrek?".

**Oraingo bertsolarietan, zeintzuk gustetan jatuz? Badago zeure gustokorik?**

Bai, hor Gipuzkoa partean badagoz onak. Egaña eta Lizaso eta Peñagarikano eta. Hori neska hori be, Maialen Lujanbio, bertsolari polita da. Horrek hurrengo txapela berak irabaziko dau, beharbada. Hor badagoz, bai, bertsolari onak.

**Eta zeure sasoi nor zenduen idoloa, idolorik baldin bazenduen?**

Nire sasoi, Gipuzkoa partean, Uztapide izan zen nire idoloa. Hemen, ba, Enbeita zaharra, Urretxindorra.

**Eta Xalbador-eta?**

Ona. Xalbador be ona zen. Hareri aitzen be gatxagoa izaten zen. Mattin be bai, txikia eta bizkorra. Eta Lazkao Txiki zer esanik be ez. Haxe be asko gustetan jatan. Askok! Lagun handia zen nirea. Balendin Enbeitaren hiletan badakizu zer esan eustan harek? Han gengozen denak eta agurtzera etorri jatan eta esan eustan: "Zu Jaungoikoa baino gehiago zara" - "Zer, ba?" - "Jaungoikoak ez dau bera baino handiagorik egin eta zuk seme-alabak zeu baino handiagoak egin dozuz".

## Basilio Pujana



*"Nik sarritan esan dot munduko argirik ederrena mundua bera dela, ikusi gura dabenentzat. Iretargira doanak edo atzera etorri behar dau edo bidean galduko da. Gabriel Aresti laguna izan neban, eta harek mundua asko erakutsi eustan".*

1913ko otsailaren 27an, Zeanuriko Zulaibar auzoko Ugerkazelai baserrian jaio eta, eta Bilbon hiltzen 2005eko azaroaren 24ean. Familia txiro samarrekoa izan arren, zortzi neba-arrebak oso osasuntsu urten ei eben aurrera. Soldadutzatik etxeratu zenetik lau hilabetera, gerra abiatu zen eta Basilio Ibaizabal batailoian ibili zen, beste hiru anaiagaz batera, Elgetan, Legution... Santoñan entregatu arte. Espainiako gerra amaitu eta urtebetera etxeratu zen, beste hiru anaiak oraindino kartzelan zirela. Harik eta munduan apur bat eroso jarri arte, hain bizimodu urria eta gogorra jasan eban gizon honi



Conny Beyreuther. Bertsolari aldizkaria

ez jakon gogorkeriarik gelditu, ez berbetan, ez sentimenduetan. Kontulari atsegina eta errespetu handikoa, gerra aurreko eta oste hurbileko bertsolaritzaz izan dogun lekukorik garrantzitsuenetarikoa izan dela esan geinke. Bertso liburuak be mordoa egin ditu, euren artean, *Egi batzuek aixetaratzen, Oihuak eta Deabruak ostutako urteak.*

### **Egun on, Basilio. Zelan doa zure bizimodua?**

Ondo ez dakit, baina luze bai. Eta onean be, hain txarto ez.

### **Grabagailuari apur bat errezeloz begitzen deutzazula dirudi, baina zuk honeri jaramonik be ez egin.**

Ez dagoelakoan badagoela?

### **Horixe!**

Gero horrek ez dau ametituko "nik ez neban esan" eta horrelakorik.

### **Horren gauza tropeak esan behar dozuz ala?**

Lehenengo eta behin esan behar da umetan, apurtxo bat sasaira heldu arte, esan genduzen eta egin genduzen guztiak ez daukaguzela gogoan, ze orduan ez geunkan argitasunik be, holako denak hartzeko. Aldi batetik aurrera, orduantxe

hasten da bizitza ikusten. Artean olgatu, galapan egin eta halan. Lehenago esaten zen moduan, (gure aitak, behintzat, esaten eban, orain ez da berba hori entzuten baina), "jirin jaion". Esatea legez ze: Hori bajabilk, baina nondik nora ez jakik. Txoriburu antzera. Horren antzeko beste esakera bat be esaten zen, "alabaiburu". Horrek be horixe esan gura dau, gitxi gorabehera.

**Lehenen-lehenengotik, umezarora jo dozunez gero, eta gustetan jatzula dirudienez gero, hasi gaitzen bertatik.**

Ni Zeanuriko Zulaibarko Uberkazelai baserrian jaio nintzen, 1913ko zezeilaren 27an. Bederatzi neba-arrebatatik zortzik aurrera urten genduen, orain hiru bakarrik gagoz baina, arreba bat eta anaia bi. Ezkondu arte baserrian bizi nintzen. Beno, aurretik Bilbora ihes egin neban, ikusirik baserrian ez zegoela denontzat bizimodurik eta urten egin behar zela. 1944an ezkondu nintzen, Pilar Arnaizegaz. Lau seme-alaba daukaguz, bi eta bi. Bilobak be beste sei daukadaz.

**Seme-alabek badakie euskaraz, Bilbokoak izanik?**

Bai. Jakin badakie. Lau bat urtera arte ondo etorri ziren, baina gero hemen Bilbon ez zen erraza eustea, eurek be errazera jotzen eben eta. Orduan euskaraz oso gitxi egiten zen Bilbon. Baserritik be, morroi edo neskame joaten ziren, eta neskak Bilbora eta ahal zen moduan atontzen ziren. "Filomena, qué hora es?" - "Las bederatzi, señora", eta halan. Orain bilobek denek dakie. Bilobak oso jatorrak daukadaz laurak.

**Zure umezaroan ez zen izango euskara faltarik, nahiz eta eskolan, maisu-maistrekin eta abar, estuasunak be izango ziren.**

Gure aita-amek euskaraz ondo egiten eben, oso ondo, eta auzoan eta, denek. Eta geuk be bai. Artean, gure mundua txikerra zen, hantxe geure

artean matrakan ibili eta halan. Eskolara hasi ginen orduan, ume asko pilotzen ginen maisu bakarragaz. Aldi batean, 120 ume, denak mutikoak. Kontetan be nahikoa behar zeukan Don Inazio maisuak, herrikoa bera.

**Hainbeste ume maisu bakarragaz, eta bitartean erdara be hantxe zenduela, zer eskola modu izaten zendueen?**

Lehenengotan, nahikoa ondo atontzen ginen, baina gero, gauzak ikasten hasi ginenean eta buruan sartzen ez jakunean, orduan kontuak. Ikasi egin behar eta ezin ikasi; ezin buruan sartu. Bildurra bai sartu jakun ederto, eta bildurrak jakiturari lekurik itzi ez eta halantxe ibili ginen gu. Dotrinan be, dotrina zaharra eta dotrina barria izaten ziren. Gero erdaraz be egin behar zen eta buruz ikasten genduen dena, zer esaten genduen ez genkiela. "La circunferencia es una curva cerrada y plana cuyos puntos equidistan de otro interior que se llama centro".

**Hara! Oraindino be gogoan daukazuz, eh!**

Bai, bai. Dena horrelaxe; dena buruz.

**Eta zer esaten zenduenik be ez?**

Ez, ba! Orduan esakera zen moduan, txoriak uger eta sardinak arbolan. Geu be halantxe.

**Mutikoak bakarrik zengozeela alkarregaz esan dozu. Neskak non zebilzen, ba?**

Neskarik ikusi be ez. Itzi be ez inork. Begitzea be pekatua zen eta! Mutilak mutiletara ibiltzen ginen. Okerkeriarik ez daukat neure buruan. Okerkeriak gero etorri ziren, maisuak gogortzen hasi zirenean, sasi-eskolak eta horrela. Maisu on bat be etorri jakun, arabarra, eta harek asko irakatsi euskun; kantuan be bai, musika, solfeo eta abar. Nik neuk zigor handirik ez neban hartu. Esana egitekoa nintzen. Dotrina be eskolan ikasten zen orduan. Elizara, gehiago, errezetan joaten ginen. Inoiz barrabeskeriaren bat be egingo gen-



duen, baina neu ez nintzen izan okerretarikoa. Presara joan eta busti, etxerako berandu egin eta horrelakoak bai, gero, etxera joateko bildurrez, beranduago egiteko. Orduan izaten zen maisuak belarrondokoak emon eta etxean be hartu egin behar, baina neuk ez neban askorik hartu.

**Gero, apur bat kozkonduta, erromeriara zenbat urtegaz hasi zinen?**

Baserrietarako erromerietara nahikoa goiz has- ten ginen. Baina ezer be ez; joan eta etorri baka- rrik. Orduan, pilotarik be patxadazkorik ez zegoenez, arbi zimelekin eta ibiltzen ginen. Ez zegoen ezer, ezta txirringarik be.

**Gaurko umeek dena daukiela ikusita, zer eriz- ten deutzazu?**

Gauzak aurrera joatea ondo dago, baina geure denporan honenbeste ikustea, honenbeste alda- kuntza, horrek zer pentsatu handia emoten dau. Non gelditu behar dogu, honela bagoaz? Gaur umeari burua ostu egin deutzie; ez dago umeal- dirik. Ume izan barik egin dira munduko uga- zaba. Eta ume denporan ume izan ez denak ez dauka bizitza osorik, nahiz eta urte askoan bizi.

**Neska kontuetan noiz eta zelan hasi zinen?**

Hori soldadutzatik etorreran. Artean, dantza soltean bakarrik egiten zen, aureskua eta atzes- kua eta. Gu pozik ibiltzen ginen, baina poza amaitu baino lehenago, eguna amaitzen zen eta etxera. Janean be, zegoena janez bizi ginen, esnea eta horrela, komenentzia handirik be ez zegoen eta. Goserik, gose handirik ez genduen pasatu, baina jateko gogoia bai.

**Eta soldadu?**

Zaragozan. Urtebete egin neban, 21 urtegaz. Lau anaiok jarraian egin genduen. Eta gerrara be lau anaiok joan ginen. Gurea gogorra izan zen. Ama hil eta hirugarren egunean gerrak urten eban. Gerra urtenda zegoen, baina moldetan ginen. Eta


ama be orduantxe hil! Gero, anaiok gerrara joan- da, aita bakarrik lotu zen etxean. Prisionero be lau anaiok egon ginen. Ha gogorra izan zen.

**Gerratik bueltan, behar egin beharko zen gogoz.**

Ni laster hasi nintzen beharrean. Prisionero nen- goela, tailer batean lan eginarazotzen euskuen eta asko ikasi neban. Horretan subertea izan neban. Gero tailerra neuk ipini neban, eta sei langileta- raino heldu ginen. Orduan asko zen hori. Taile- rrean zartaginak eta egiten genduzen. Lehenengo, mekanika gehiago egiten neban, eta beharginak, ba, txarrak eta onak. Batzuk oso txarrak, sartu gurakoak, eta beste batzuk onak. Baina asko be ez ginen eta aurrera egin genduen.

**Gerratik etorririk eta arratiarra izanik, Bilbon zelan moldetan zinen? Euskaraz nogaz edo zer egiten zenduen? Trankil bizi zinen?**

Trankil ez. Buruan pentsamendu asko nerabilen,



A. Irigoien

B. Pujana, Alfonso Irigoienek marraztua, 1983an.

baina isilik egon behar. Euskaraz, ba, Arestigaz lantzean behin, Irigoienegaz... Honegaz bertso-tan be egiten neban. Erdaraz moldatzea gauza gatxa izan zen, baina halantxe jausi ginen eta zer egingo geuntsan, ba? Bizitzeko beste ateraz gero, pozik.

**Frankismoa eta gerra ostea Bilbon egitea ez zen gozoa izango, zeu galtzaileen bandoko hain izentatua izanik.**

Gogorra izan zen, baina lagun on bat subertatu jatan polizian, eta harexen bitartez lortu neban aurrekari polizialak aldatzea, eta halantxe urten neban aurrera.

**Zeanurira joaten jarraitzen zenduen?**

Bai, baserrira joaten nintzen inoiz. Orain arrebada dago han. Aita bizi zen artean, joaten nintzen, baina, orduan be, jaiotetxera baino gehiago, neure etxera, ze nik neuk egin neban etxea Zeanuriko plaza ondoan. Etxe polita daukat han. Hantxe daukadaz gauza guztiak, tresna guztiak, garaikurrak... Zer onak eta txarrak, denak hantxe dagoz.

**Lehenago Zeanuritik oraingora, alde handia somatzen dozu?**

Handiegia. Horrek be zer pentsatu asko emoten deust. Zeanurin be lehen esan dogun beste leku guztietakoa pasatu da. Desengainu handia emoten dau geure izakeratik honenbeste aldatzeak. Guk esaten doguzen egiak entzun be ez ditue egin gura eta, gainera, sinistu be ez. Baina halantxe hartu beharko da.

**Eta gaurko bizimodua zelan ikusten dozu?**

Ba, zulo baten aurrean gagozela ikusten dot, jausteko arriskuan. Hau lar da, arinegi goaz. Ezerezetik larrera etorri gara, eta hurrengo pausoak ez dakit zelakoak izango diren munduarentzat. Ilun eta gatx ikusten dot. Aurrerapenak, onerako direnean, ederto dagoz, baina

txarrera doazenean, alperrik izatea baino okerragoa da hori.

**Iretargira joatea eta horrelakoak sinisten dozuz?**

Sinistu behar, baina nik hori bertsoetan be esanda daukat: Harantz doanak edo atzera etorri behar dau, edo bidean galduko da. Mundu horretan sartuz gero, argirik handiena be ilundu egiten da.

**Gatozen orain bertso kontuetara, horixe da gaurko motibo nagusia eta. Noiz eta zelan hasi zinen bertsoetan eta bertso munduan sartzen?**

Lehenago, hamalau bat urtera arte ez zegoen urteteko baimenik. Erromeriak be iluntzean izaten ziren, eta ordu horretan etxean egon behar zen. 14 bat urtegeaz hasten ginen urteten, ilusino handiz. Errogatibak egiten ziren San Antonio Urkiolakora, hiru orduko bidean oinez, eta, nahiz eta abarketak apurtu, gu pozik. Urkiolan mezea egoten zen, eta gero salgai neurri-kordelak eta halakoak, eta lantzean-lantzean "bertso berriak!", hots egiten eben, eta guk: "Honeexek bertso berriok erosi behar joguzak". Hantxe Urkiolan ikusi eta ezagutu neban Txirrita be, bertsoak kantetan beste lagun bategaz. Bertso-paperak erosi eta gero ikasi, halantxe hasi ginen. Orduan baserrian be, lanean zebilzela, bertsoak kantetako afizino handia zegoen. Gogoratzen naz zelan amak gerrakoak kantetan zituen, Europako gerrakoak eta. Eta zelan kantetan eban: Su bat isioko da / ikeragarria / erre ta kiskaltzeko / munduko guztia. Eta gu amaren inguruan, laguntzen edo enbarazu egiten, hortik be ikasten genduen apur bat. Eta beste kontu bat be bazen orduan. Udabarrian artzainak soloak garbitzen zabalzen ziren, bedar hondakinak, narrondokoak esaten geuntsenak, ardiei jaten emonaz. Orduan artzainek txakurrik be ez eben edukitzen, edo, behintzat, ez eben erabiltzen. Gu

mutilak izanik, esaten euskuen: Hi! Hareek ardiak gorantz ekarrizak! Eta halan, gu mutikook pozik, igual zeozer emoten euskuen eta. Bien bitartean, Anton Etxebarriak, Basilio Etxebarria famatuaren aitak, berak ateratako bertsoak kantetan ekiten eutsan. Harenak entzunez, amari beste apur bat, Urkiolatik ekarrita-ko paperak irakurriz eta abar, halantxe hasi nintzen ni.

#### **Eta plazan noiz eta zelan hasi zinienez?**

Plazan eskolatik urten eta gero hasi ginen. Orain arteko kontuak mutikotakoak dira. Han bazen beste bat, artzaina, Leon Lejarreta, beno, bertso-rik ez eban neurritz eta patxadaz kantetan; testulari antzera gehiago. Tabernara hasi gine-nean, kantetako zuzterrik ez geunkan, baina, beti hari entzunda, geuk be ekin egiten geun-tsan, eta umeen zentzuna, kanpoan entzuna be zelan den, neuri be gustatu egiten jatan. Hari entzunda, beste batzuek temoso paratu eta zeo-zer kantatu egiten eben, eta geu be hantxe ego-ten ginen, guran, eta halantxe hasi nintzen. Gero, apurka-apurka, munduari erantzuteko be, bertsoa ona zela ikusi neban eta neu be zeozer esaten hasi nintzen, dotrinan eta zarraparra. Ez nintzen halako balientea, baina tira, hasi egin nintzen zeozer esaten, eta, besterik be ez zego-enez, kantetan hasi ginen. Ez dakit zer esaten genduen, baina jenteak barre egiten eban. Gero umei dotrinan, bitarteetan kantetako be balio eban, neu be oraindino erdi-ume bainengoen, eta halantxe hartu neban lehenengo hegazkada.

#### **Plazarik plaza be ibiltzen zinienez kantetan?**

Gitxitan.

#### **Eta txapelketetan?**

Hori geroko kontua da, gerra ostekoa. Gerra aurretik, lehen esan dodana: taberna bazterre-tan eta hortxe zeozer. Gero Zeanurin Lexuri ize-neko aldizkaritxo batek urtetan eban eta, parro-

koak esanda, bertso batzuk ipintzen nituen harako. Gogoratzen naz zelan Lexuri horretan etortzen zen: Munduan egin barik / Judasen antzean / gauza onak esanda / harra bihotzean. Parrokoak egiten eban: Honek esango jok zeo-zer. Eta halantxe.

#### **Eta nor zenduen orduan lagun?**

Ni erdi bakarrik ibiltzen nintzen. Horrela lagun jakinik ez neukan. Geroago txapelketetan bai, baina ordurako plazan apur bat ibilita nengoen. 1934an kantatu neban, Zeanuriko batzokia zabaldu zenean.

#### **Zeuk bakarrik?**

Jai bezperan hasi zen eta han neuk bakarrik kantatu neban, baina hurrengo egunean Jose Mari Artetxe izan neban lagun.

#### **Jenteak gustura entzuten eutsuen?**

Bai. Zelango barreak eta zelango poza izan eben! Honek esango jok zeozer, eta halan, ez dakit ezer probetxukorik esango genduen baina.

#### **Zeu be harrotxo, oilartxo ibiliko zinen.**

Bai. Gogoan daukat zelan behin parrokoak kar-tera bat erregalatu eustan, baina hutsik. Hurren-goan batzen nituenak gordetzeko izango zen. Jenteak pozik entzuten eban, nirea eta denena. Orduan egarri handia zegoen.

#### **Hortik txapelketara zelan jo zenduen?**

Oh, txapelketa hortik urrun zegoen oraindino. Txapelketetan hasi orduko, gauza asko pasatu ziren. Lehenengo eta behin, soldadutza. Gero, soldadutzatik etorri eta apur bat mundua zelan eroan behar den zentzuna etortzen hasten da, eta, hemen ez jagok etorkizunik pentsaturik, Bilbora hasi ginen beharrean. Gauerako Zeanu-rira, baina behar Bilbon. Bertsoak banerabilzen buruan, baina burutik ezin atera. Eta gero oke-rrena etorri zen: gerra eta ondorengo kartzela.

Horreek denak pasatuta, ezkondu be egin nintzen. Oraindino txapelketak urrun zegozen. Bertsoa burutik ezin neban kendu, baina aukera handi barik nenbilen.

**Eta halako batean txapelketak heldu ziren.**

Oso halako batean. 1940 inguruan gerraoste bal-tzean sartu baginen, lehenengo Bizkaiko Txapelketa 1958an izan zen. Ordurako, berrogeitazak urte neukan. Nik zeozer entzun neban, txapelketa zela edo izatekoa zela, baina ez neban gauza garbirik jakin. Ez zen asko zabaldu, antza. Eta Nazario Oleagari, Zeanurikoa berau, deitu neutsan, ea zer izan zen hori, eta telefonoz esan eustan: Hori Irigoieni itaundu. Irigoienek daki hori. Irigoienengana joan nintzen, han Erribera kalean, orduko Euskaltzaindian, eta orduantxe hasi nintzen idazten. Irigoienen sarean sartu eta hortixek zuztertu neban. Bertsoak jarri eta Euskaltzaindira bialtzen nituen, misio-

lariak etorri zirela eta halakoen gaineko bertsoak. Idatzi eta Irigoieni bialdu. Hurrengo urtean, 1959an, neu be txapelketan sartu nintzen. Txapelketa horrexen ostean egin neban hegazkada konpletoa. Orduantxe hasi nintzen herririk herri eta abar.

**Zer gogoratzen dozu txapelketa haretatik?**

Badagoz bertsoak. Nik Zeanuriko etxean badaukadaz, Irigoienek kopia bat emonda. Irigoienek behar asko egin eban. Batzuek halakoa zela eta igual esaten dabe, baina: Hi! Hori inork ez jok egin! Harexen inguruan ibiltzen ginen gu. Txapelketetan, urte batzuetan ibili nintzen, batean aurreratxoago, bestean atzerago. Donostiako Aurrezki Kutxak antolaturiko lehiaketa batean be parte hartu neban. Bertso jarriak ziren eta laugarren saria irabazi neban. Beste hirurak giputzak ziren. Ni harro, bizkaitar saritu bakarra neu izan nintzela eta.



Conny Beyreuther. Bertsolari aldirakaria

B. Pujana Bilboko bere etxean.

**Enbeita, Taket eta horreena, zer gogoratzen dozu?**

Nik Enbeita txapelketara arte gitxi ezagutu neban. Balendin Enbeitak baino lehenago kantetan ebana bere anaia Sabin izaten zen. Balendin geroago hasi zen. Sabinegaz inoiz kantatu neban, baina Balendinegaz ez. Gero, txapelketen ondoren, herririk herri, gehien Balendinegaz ibiltzen nintzen.

**Orduko plazetan zer giro egoten zen, gogoratzen bazara?**

Gogoratuko ez naz, ba? Gose handia. Lehen esan dodan moduan, orduan gose-egarri itzela zegoen. Jenteak zeozer barria gura eban, zeozer entzun gura eban, lehen entzun ez ebana, gauzak esaten orduan ez zegoen erraz baina. Nik sarri kantetan neban ze bertsolariarena, berak dinona baino gehiago, esan gura ebana zela, eta entzuleak ulertu behar dauela.

**Zer gai edo zeri kantetan zeuntsien?**

Politika konturik ez zegoen erraz. Gehien-gehien, gizakiaren eskubideak eta kantetan genduzen.

**Eliza konturik ez zenduen kantetan?**

Orduan Elizari errespetu handia jakon, eta, errespetua baino gehiago, bildurra be bai.

**Zer jente klase edukitzen zenduen entzule?**

Ba, zintzoak edo zeozer entzun gura ebanak sarritan elizgizonak eurak izaten ziren, abadegai edo abade; gotzainak be bai. Hor txapelketak hasi zirenean, Anasagasti gotzaina aurrenengo egoten zen entzuteko. Bazen beste bat, Abaroa edo, jesuita bat. Inoiz jazo jatan nik ha ez nebala ikusi, baina hantxe egongo zen, ze hurrengo egunean lanera etorri jatan, neure kontura neukan lantegitxora, eta esan eustan: Horreek dira aireak! Horregaitik dinot Elizako jenteak be, gazteek batez be, sentitzen ebela horren gosea.

**Zeuk bertsoa zelan lantzen zenduen? Irakurritz Buruan bueltak emonaz?**

Bai. Hori norberak ikusi behar dau. Munduko argiari begiratuta. Nik sarritan esan dot munduko argirik ederrena mundua bera dela, ikusi gura dabeneztat.

**Zuk bertso idatziak be asko egin dozuz. Zer-gaitik? Zerk eragiten utsun bertsoak idaztea?**

Asko idatzi dot, bai. Ni kantari handia ez naz izan, ahotsa be ez dot indartsua izan eta. Gero bizimoduan kargak be etorri jatazen eta orduan pentsatu neban, kantetako aukera handirik ez baneban, idatzi egingo nebala, eta horrexegaitik hasi nintzen gehien be.

**Gaia non edo zertan topetan zenduen idazteko?**

Ba, ikusten zena eta jazoten zena. Eta bestea, norberak; norbere pentsakizunak.

**Eta kanpoko gauzek, gerrek, deskubrimendu handiek edo horrelako kontuek pentsatu eragiten utsuen?**

Jakina. Horrelakoek pentsatu eragiten dabe. Eta gero azkeneko zerik onenak uste dot nik, ba, Gabriel Arestigaz izan nituela. Beragaz gitxitan egoten nintzen, baina lagun onak izan ginen. Euren etxean be egonda nago. Eta haregaz be gauza asko zabaldu jatazen.

**Irakurtzen zalea zinen?**

Irakurri gaur be egiten dot, baina denpora be behar izaten da, eta irakurri eta idatzi baino gehiago, buruz ibiltzen naz ni.

**Plazarik plaza ibiltzeari noiz itzi zeuntsan?**

Ba, leku barik gelditu nintzenean. Txapelketa sasoi haretan, urte batzuetan polito, baina gero gazteak eta denerik etorri ziren, eta pentsatu neban: "Beno, plazan ez jaukaat lekurik eta idazten hasiko nok", eta halantxe, baina itzi total ez. Gero be, eta oraintxe be, inoiz kantetan dot.

**Gaurko bertsolaritzari jarraitzen deusazu? Zelan ikusten dozu? Telebistakoa entzuten dozu?**

Bai. Entzuten dot. Jarraitu be bai apur bat, eta ez daukat txarto esaterik, baina gaurko bertsolaritzari ez deusat aurkitzen perrezilik. Batzuk, lau edo bost edo sei edo egongo dira onak, baina beste batzuk galtzua sartzen dabenak dagoz eta, gainera, euren erara. Entzuleen bihoztzera sartzekoak be badagoz, baina denak ez dira horrelakoak.

**Zeuk zein bertsolari mirestu izan dozu? Nor da gehien gustatu jatzuna?**

Era askotarakoak egon dira. Kepa Enbeita Urretxindorra entzun neban apur bat gerra aurrean, eta halako zentzuna emoten eutsan bertsolaririk ez dot entzun, era haretan, eh! Bere erara, ze batzuek gauza batzuetara jotzen dabe ondo eta beste batzuek beste gauza batzuetara. Lehenagokoetan, entzuterik handiena, esaterako, Basarrik izan dau. Kantatu be ondo egiten eban. Lan handia egin eban eta denak ezin leitekez ondo egin, baina, egin zituen lanetarik, onenak hartuz gero, asko ditu onak. Jakina, bertsoa dena ondo betetzeko, asko behar da, eta ha be sarritan azaltxoagotik ibili zen. Gero, gaur, Sarasua polito etorri zen, baina ez dakit, ba. Orain ez da entzuten. Gero, Egaña. Horrek denera egiten dau; denean ondo.

**Bertsolarietatik aparte, pertsonaia bereziren bat edo gogoan daukazu?**

Lehen esan dodana, Gabriel Aresti. Harek mundua asko erakutsi eustan. Haregaz esaten genduen bertsolariak, kantatu bakarrik ez, esan egin behar ebalu. Egundo entzun ez dena eta ahaztuko ez dena. Hori beti gatxa da, jakina, ezinezkoa, baina bertsolariak horretaraxe jo behar dau.

**Zure bertso jarrietan, Eliza eta fede kontu ugari agiri da.**

Bai, ugari. Ni, ustez, kristinau fededuna naz, eta, lartxo esatea ez bada, fededun handia.

**Laurogeita hamar urte aspalditxo pasaturik, bizimodua ez zenduen biguna izango, baina laburra be ez. Orain egunak luze ala labur egingen jatzuz?**

Batetik luze eta bestetik labur. Buruan gauza asko darabilt, baina denak egiteko astirik ez eta hortxe nabil. Ni pozik bizi naz. Egunkariak be irakurtzen ditut, eta denak ezin leitekez irakurri. Batzuk komeni be ez, gerra, burruka, hiltzea besterik ez dakarreenak. Ni konforme bizi izan naz.

**Konformitate horren barruan, zeintzuk izan dira zure poztasun handiak?**

Era askotako poztasunak izan ditut, bide askotatik etorriak, eta denak leku berera doaz, bihoztzera. Azken urteotan dirua be izan dot, baina diruagaz neurtzen ez diren pozak asko dagoz; txarrak be bai.

**Gomuta txarrik?**

Batez be, familiako heriotzak.

**Etorkizuna zelan ikusten dozu? Zeure bizitzan horrenbeste aldakuntza ikusita, mundua aurrera doa?**

Mundua aurrera? Aurrera egingo dau gero?!

**Euskarak aurrera urtengo dauela uste dozu?**

Gura bai, baina gatx ikusten dot horixe. Hau mundu hau dena euskaraz ipintzea, izenak, kaleak, bizimodu guztia... Euskara hain da aberatsa, baina txikerra! Gatx ikusten dot.

## Deunoro Sardui



*"Ni estu ibiltzen nintzen bertsoan. Estu, benetan! Eta, bestetik, nik neukan beharra eta bertsoa inkompatibleak ziren, eta pentsatu neban: 'Bah! Gehiago egin be ez eta kito'. Baina bertsolaritzari hur-hurretik jarraitu izan deusat beti".*

1934ko urtarrilaren 1ean jaio zen, Muxikako Ariatzako Zubiondo etxean. Enbeitatarren familiakoa da ama partetik, Kepa Enbeita Urretxindorraren alabarik zaharrena berau. 1959ko Bizkaiko txapelketako finalean sartu zenetik, eta, batez be, 1961ean, Azpillagaren atzetik, txapeldunorde gelditu zenetik, Bizkaiko izen gazte nagusietariko bat bihurtu zen, 1964ko finalean kantatu ondoren, bertsolaritzari iztea erabagi eban arte. Elkarrizketan adierazten dauenez, alde batetik, estuegi pasatzen ei eban eta, bestetik eta batez be, martxan ipini barri zeukien tailerra eta bertsoaketa inkompatibleak ziren. Plazetatik erretiratu arren, bertso-

laritzari hur-hurretik jarraitu deutso beti, bertso jartzen be zalea eta ugarria izanik. Arantza Agirre lumotarragaz ezkondurik, Muxikako San Roman auzoan bizi dira. Seme bakarra dabe, Alex Sardui, lehengo Ezkixu eta geroko Gatibu taldeko musikari eta kantari ospetsua.

**Gerra aurretxoan jaiorik, zure umezaroa zelakoa izango zen imajinatzen ez dago gatx, Ariatza lako auzo baten.**


Gainera, gure etxean, (orduak beste etxe askotan legez), zortzi neba-arreba ginen eta, etxetik bialtzearren edo, abadegai joan nintzen Arteako seminariora. Etxetik bialtzearren, edo mahaian aho bat gitxitzearen. Ez neban denbora luzerik egin. Kurtso bat bakarrik eta bigarrenaren zatitxo bat.

**Auzoko eskolakoez gainera, ikasketa horreek bakarrik bakarrik egin zenduzen?**

Horreexek.

**Beharrean noiz hasi zinen, orduan?**

Seminariora 13 urtegaz joan nintzen eta 14gaz barrira etxean nengoen. Nik zeozer ikasi egin gura neban, baina aitak segiduan esan eban: "Ikasteko lekuan oraintxe egon haz. Orain beha-



A. Plaza

D. Sardui ilobagaz Muxikako bere etxean.

rrera". Eta, 14-15 urte neukazela, Gernikako Idiga-n hasi nintzen beharrean.

### **Seminarioan urtebete pasatxo egin zenduela dinozu. Zelan hain arin etxera baina?**

Arinago etorri banintz hob! Begitu, nik erdaraz ez nenkien ia bat be. Lagunekin, Errigoiti, Gernika eta abarrekoekin, beti euskaraz egiten neban, eta beti zigortuta egoten nintzen, batean, elizan eskuak zabalik mezatan, bestean jantokian ez dakit zelan. Bazen han Dimako bat, Petralanda, ni baino zaharragoa eta sudur-zapala, beti zirika ibiltzen jatana. Harek bazituen 16 bat urte, eta beti neuri burlaka. Behin, komunean idatzi neban: "Petralanda, surra janda, inori ez burletako daukazu esanda". Buuu! Hango atzera-aurrerak! Laster atera eben neu nintzela, beste inor ez zeitekeela izan halan euskaraz idaztekorik eta. Don Isidro Larrauri, Don Jose Maria Iruretagoiena eta Don Manuel Estonba, (honeek biok euskaraz bazekieen), erretore eta zuzendari espiritualak, deitu eusten eta sekulako hasarrea egin eustan bakotxak. Iruretagoienak, gainera, esan eustan: "¿Cómo puedes ser tan terco, para no saber más castellano?" Nik euskaraz erantzun neutsan: "Guzurra dela esan leiteke Ama Birjina Begoñakoa seminarioko zaindari izan eta euskaraz egiten ez iztea". Orduan berak: "Pues, vamos a llamar a tu familia y te vamos a mandar a casa". Eta nik: "Ez, ez! Zuek ez nozue botako. Neu joango naz". Hurrengo bisitan, izeko Edurne etorri jatan, eta gogoan daukat zelan esan neutsan: Izeko! Hasi bialjea preparentan, ni hemendik banoa eta.

### **Eta etxean zelan hartu zinduezen bueltan?**

Egia esateko, nahikoa gogortxo. Aitarena lehen be esan dot, eta amak be desgustu handia, orduan seminariotik etxera etortzea lotsagarritzat jotzen zen eta. Gainera, hainbeste nebarrebaren artean, aho bat kentzeagaitik bialdu eta hain arin itzultzea, ba, ez zen gozoa izango.

### **Seminarioan ez zinela, beraz, euli epela izan, eh!**

Zer egingo neban, ba, erdaraz ez banenkien eta ikasi be ezin baneban? Begitu, han bazen *Libro de preces* izeneko bat, egunero esku artean erabili behar izaten genduen. Ba, nik, "preces" hori zer zen be jakin barik, urte osoa igaro neban. Erdara, latina... dena buruz ikasten neban, eta urtea halantxe aprobatu neban

### **Zure antzera, beste batzuk be ibiliko ziren han.**

Horixe zebilzena, baina ni ez nintzen kikiltzen. Bigarren kursoaren hasieran, Don Manuel Estonbak (honek euskaraz ederto zekien) Igorreko Murgoitio abizeneko bati, han pasioan gindoazela, esan eutsan: "¿Tú ya sabes escribir en euskera? A ver, escribeme algo. Por ejemplo..." Eta "gaur arratsaldean pasiatzen urten dogu denok batera", edo horrelako zeozer esan eutsan, bostsei berbako esaldia. Mutilak idatzi eban eta berak: "Puf! Siete faltas en cinco palabras!" Nik orduan esan neban: "Horrek baino hobeto egingo neuke nik". Eta berak: "¿Tú qué vas a escribir, desgraciado!". Etxera itzuli nintzenez, neuk be neure etorrera justifikatu guran, amari han zelako gauzak esaten eustezen azaldu neutsan, eta "desgraciado" horixe ez jakon bape gustatu. Handik urte askotara, Don Manuel Estonba hori Urkiolara erretiratu zen, bere azkenengo urteetan. Amagaz Urkiolara joan nintzen batean, han agertu zen bera, eta amari esan neutsan: "Ama! Horixe da 'desgraciado' esan eustana". Amak, bi bider pentsatu barik, joan eta badinotso: "Zu zara gure semeari 'desgraciado' esan eustana?" Eta Estonbak, "este Sardui, este Sardui!" eginez, marmarka alde egin eban. Amak orduan: "Orain-txe sinisten dot esan eutsuna!"

### **Ondo hezita urteteko moduko hezkuntza zendueela dirudi seminarioetan!**

Euskara bakarrik ez zen. Dena zen halakoxea. Beste prefektu bat (ofizioaren izena be begitu



zelakoa!) Santiago Duo genduen, mundakarra, euskaraz bazekiena, eta zorrotza bera be. Handik urteetara Gernikan ikusten neban, eta erdi lotsaturik esaten eustan: Gaiztoak ginela, baina agintzen euskuen dena egin izan bagendu! Don Antonio Anda izeneko arabar batek deklamazino klasea emoten euskun. Tú! A la palestra!, eta horrela, lantzean bat ateratzen eben. Niri sarri toketan jatan urten beharra. Behin, testu bat “guerra! –gritó el cura– guerra! hasten zen, guerra... guerra... jarraituz, eta azkena, behintzat, honakoa zen: “Porque no hay un pedazo de tierra sin una tumba española”. Deklamatu neban eta beherantzean marmartu neban, alboko lagunentzat: “Euskaldunak be nonon egongo dozak, ba!” Ez dakit entzun egin eban ala baten batek txibatu eutsan, behintzat, hilabete osoan zigortuta egon behar izan neban meza denporan, eskuak zabalik.

#### **Hil horretan nota ona aterako zenduen pietatean, nota bat horixe izaten zen eta.**


Pietatean ez dakit, baina portaeran, “konduktan”, ama pozik etorri zen behin, hamar atera nebala eta. Zer izango eta “diez bajo cero” zen; “-10” edo horrela. Zeretik be inpernuko lekuan. Gure amak, 10 ha irakurri ebanean, zeruko miraria ikusi eban.

#### **Etxera etorri eta beharrean hasi behar izan zenduela esan dozu. Zertan joan zen zure gaztetxo eta gazte aroa?**

Gernikan Artes y Oficios hasi barri zegoen, aurreko urtean lehenengo kurtsoa, eta bigarren kurtsoan sartu nintzen. Han urtebete eginda, 14-15 urte neukazela, Gernikako Idiga-n hasi nintzen beharrean. Handik soldadutzara. Soldadutza ostean, Elgoibarren egin nituen lau urte, eta gero pentsatu genduen, 1961ean, han ibili ginen batzuen artean, tailertxo bat ipintzea, Bazkidek izenekoa. Neuk ipini be egin neutsan izena. Sortu genduen eta hantxe jubilatu nintzen, 63 urtegaz.

#### **Gatozen orain bertso gaira. Zuk bertso jarri asko egin dozula ikusi dogu. Zertatik zaletasun edo gogo hori?**

Beno, nire hobya euskaraz irakurtzea eta apur bat jakitea izan da. Orduan ez zegoen ikastolarik, ez non ikasirik be. Beraz, dakidan apurra neure kabuz ikasia da. Etxean, hamabi batzen ginen mahaira eta, hainbesteren artean, bakardaderik ezin topatuz, ganbarara igoten neban, liburuak eta paperak hartuta.



*D. Sardui 1962ko Bizkaiko txapelketako finalean.  
1962-VIII-26*

**Nondik jiretan zenduzen liburuak, paperak, edo bertso-paperak?**

Nik Garoa, Kresala, Auñamendiko Lorea eta halako Txomin Agirrearenak eta Eusebio Erkiagarenak, liburu piloak neukan. Aita Santirenak, zer esanik be ez. Neure pezetatxoak horretantxe gastatu nituen. Parkatu hitza, baina putetan ez dot pezeta bat gastatu, eta liburuetan, neukan guztia.

**Orduko sasoiak be bai?**

Neure bizitza guztian. Gero, Lizardiren *Bihotz-begietan*. Jo! Ha irakurri nebanean, ia niretzat gehiena haxe zen. Orixen eta beste pilo bat be irakurri nituen. Harrapatzen neban guztia, euskarazkoa bazen. Erdarazkorik bat be ez. Askok esaten deuste: "Zergaitik ez dok irakurtzen *El Quijote*?" Ba, *Quijotea* irakurri dot, baina soldadutzan, besterik ez neukalako. Haxe irakurri dot; osterantzean, erdal libururik ez dot inoiz irakurri. Gero, Azkueren hiztegi bat topatu neban eta harexegaz lagunduta ibiltzen nintzen ganbaran, beti ganbaran. Hamaika ordu sartu neban han! Hortixek sortu jatan gauzak esateko gogoak, errimaturik eta neurturik.

**Hainbat aldizkaritan agiri dira zure bertso jarriak. Enkarguz ala zeuk bialduta?**

Eskatu egiten eustezen. "Txo! Hik bertsoak idazten dozak, eztok?", eta: "Bai noizik behin" - "Hi, ba, hauxe jeukaagu, aldizkariaren jaiak, eta zeozer egiten badok" - "Beno!" Eta halantxe. Aita Santi beti eske edukitzen neban.

**Orain be jarraitzen dozu horretan?**

Bai, bai. Egiten ditut, ez lehengo beste baina.

**Gogoratzen dozu sorta bereziren bat, zeozergaitik gogoan gelditu jatzuna?**

Ba, begitu. Oraintxe Gernikatik bialdu deustezenak, esaterako, Luistarren jaiak bat edo egiten ebenekoak, 1982an. Neure arreba gazte Eli ezkondu

zeneko bertsoak be gogoan daukadaz. Haren alaba Xiomara be neure begikoa izan zen. Jaiak eta urtebete egiten arte, ez eban ordubete isilik egiten, beti negarrez. Ezkondu zenean, bere bizitzako lehenengo urtea zela-eta, hamabost bertso egiten neutsazen. Bertso politak direla esaten deuste.

**Zuek hemen Garriko bertso-eskola eduki zenuen. Zelan izan zen hori?**

1959a zen. Gure osaba Pedro (Ireneo Ajuriaren aita zen hau), ha zen bertsozalea, baina zalea, haxe izan zen! Bizkargin jaiak. Eta gero osaba Balendin, gure bertsolari... onentzat ez, guk bertsolariaren Jaungoikotzat geunkan ha. 1958an txapelketa egon zen, Alfonso Irigoienek aukeratu-ta, sei edo zortzi edo, eta osaba Balendinek irabazi eban. Osaba Pedrok esaten eban: "Hau gertatu be egiten leiteke. Hemen, bertsoetan asko eginez gero, egiten leiteke, egiten leiteke!". Pedro Mari Aldana frailetzan be zortzi urte eginda zegoen eta pentsatu genduen: "Hauxe izango dok ona, gaiak ipintzeko eta zer zelan egiten behar dogun esateko". Harek gero Garriko liburua be idatzi eban. Ba, hortixek sortu zen.

**Eta non batu edo zer egiten zenuen?**

Lehenengoa geure etxeko jantokian egiten genduen, baina, bigarren edo hirugarrenarako, osaba Pedrok (ha zuhurragoa zen, izan be!) esan eban: "Txo, hemendik jantokitik urten eta tabernara eroan behar joagu". Guk uste izan genduen, ba, taberna zeukan legez, beragaitik izango zela, baina harek, hain zuhurra izanik, beste kontu batzuk atera zituen, eta bai asmatu be. Han jantokian, zer egiten ete genduen, zertarako batzen ete ginen eta abar, arriskutsua zen. Tabernara pasatu ginenean be, bazen nahikoa kontrol. Jente asko batzen zen bertsoak entzuten. Foruko fraileak be bai. Taberna bete-beterik egoten zen. Baina, tartean, ezezagunak be sartzen ziren, udan be garbardinekin eta, azpian grabagailuak zituela. Osaba Pedro horregaz guztiaz jabetzen zen. Arra-

zoirik ez eban falta. Auzoko bertakoren batek salaturik, guardia zibilek etorri eta taberna itxi egin eutsien, pare bat hilabeterako edo. Zabaldueban eta, geroago, barriro itxi eragin eutsien. Atxilotuta be eduki eben. Salaketa guztiak auzotik bertatik zetozenez, esan eban: "Kokoak auzoan berton daukaguz eta hurrengoan be haxe gertatuko da. Hemen ez dago bakerik eta hobe izango da geuk egitea bakea". Taberna betiko itxi eban.

### **Zer entrenamentu klase edo zer eskola sistema erabiltzen zendueen?**

Pedro Mari Aldanak gaiak ipintzen euskuzen tabernan, eta guk ekin hantxe.

Zuk eta zuk haxe. Zuk haxe gaia, eta horrela. Gero, aste barrurako, beste gai bana ipintzen euskun, hiru bertso egiteko. Niretzat horixe izaten zen polita: Hau holan esango dot, baina igual, gero hurrengoa hobeto esateko, hemen hau holan. Astiz egiten zenduen bertsoa, eta gero horrek plazan be lagundu egiten eban bertso osoa errazago egiten.

### **Bertsoak idazten goiz hasi zinelarik, plazarako saltoa noiz edo zelan egin zenduen?**

Hori historikoa izan zen. Beno, lehenen-lehenen, Santakurtz hurrengo domekan. Hamalau urte neukazen. Domeka horretan, Astelarren jaia zen. Iturri ni baino zahartxoagoa zen eta esan eustan: "Bertso batzuk botako joaguz hementxe?" - "Beno!" Niri bardin eustan. Zelako halako bertsoak egin genduzen. Hurrengoa Ereñoko taberna baten, monjorra zeukiela eta. Eta han egon zen natxituar baten bitartez, Natxituko Santa Agedetara deitu euskuen. Nik hamabost urte izango nituen. Basarri eta Uztapide zetoze eta hareexekin egiteko. Halakorik! Basarri eta Uztapidegaz bertsoan!

### **Errespetuz ala lotsa barik?**

Errespetua bai, baina lotsarik bat be ez guk, eta zer esaten genduen be, tamainuan. Kantuan

genbizela, nik neure kautan: "Kabenaletxe! Honeek bertsoak zelan amaitzen ditue hain ondo, ba? Denak ondo!" Gero, bazkaritan, Uztapidek bere ondora deitu eustan, eta badinotsat: "Zu, Manuel!" - "Zer?" - "Zuek bertsoak ikasita ekartzen dozuez ala?" - "Zer, ba?" - "Hain ondo amaitzen dozuez denak!" - "Ez! Bertsoan azkena pentsatu behar da". Azkena pentsatu? Holakorik! Ha izan zen deskubrimendua! Harrezkero, hasi nintzen horretan eta, hilabete barru, neuk be erraz-erraz egiten neban azkena pentsatuta.

### **Zu txapelketetan hainbat urtetan ibili zinen. Txapelketen historia bere atalean kontetan da, baina zeuk gogoratzen dozu halako anekdotarik edo?**

Anekdotak? Jo! Nazario Oleaga zen epaile bat, eta haregaz ee... Gai baten, kamioi-txoferra nintzen eta honelako zeozer kantatu neban, neurri zehatza ez daukat gogoan baina: "Hona hemen txofer bat kamioian hain nago estua, pasau arren be hau kotxe hau inora be eztua". Holantxe esan neban, "eztua", "ez dua" esan beharrean. Eta Oleagak: "Poto!". Baina altu, eh! Beste behin be, Gernikako semifinal baten, kantatu neban: Erantzupena emongo deusut / euskera neure elian. Oleagak, barriro be, ra zutundu eta: "Hori da berbie!" Altu balkoitik, denek entzuteko moduan.

### **Jentearen aldetik, zer giro egoten zen orduan?**

Nik uste dot orain baino askoz be biziagoa. Jentea bizitu egiten zen, zoratuta paretan zen. Eta gehien-gehiena jente zaharra zen. Gazterik, gitxi.

### **Zuk orduan plazak be ez zenduzen gitxi egingo.**

Nik ez dakit horrela numerorik eta, baina, Bizkaian izateko, orduan sasoiaren, igual berrogei edo berrogeita hamar egingo genduzen. Txoriherrin, behin, Iturri eta biok bertsoan, eta gizon batek altu oihu egin eban: "Iturri! Hi Biz-

kaiko obispoa baino ezagunagoa haz hemen!”  
Eta Iturrik goitik: “Jakina, ba!”, eta aurrera.

**Eta onenean zengozela, bertsoan ibiltzeari itzi!  
Zergaitik hartu zenduen erabagi hori?**

Ni estu ibiltzen nintzen bertsoan. Estu, benetan!  
Denek esaten eben: “Jo! Horrek jaukak aurpe-  
gia!” Eta neu non nengoenik be ez. Baina, baina  
estu, eh! Alde batetik hori. Eta, bestetik, tailertxo  
bat ipini genduen eta, badakizu. Aurrera urteten  
lanak eta, erdi buru egiten nebanez, gauetan be  
tailerreko gauzak pentsetan. Horretara bertsoan  
ibiltzea ardura okerra da. Nik neukan beharra eta  
bertsoa inkonpatibleak ziren, eta pentsatu neban:  
“Bah! Gehiago egin be ez eta kito”.

**Ño! Erabagi gogortxo dirudi horrek. Ez jatzu  
sekula damutu, sasoirik onenean iztea?**

Ez. Beno, deitu, deitzen eusten askotan: Sardui!  
Zergaitik ez zatoz hara edo hona? Ibili egiten nin-  
tzen, baina zer esango deusut, ba? Igual Txipla-  
sen etorrerako jaian, edo Areitiori egin eutsien  
bestean eta holan bai, baina saio handietan ez.

**Horrela itzi eta gero, zer jarraipen egin deusa-  
zu bertsoaritzari?**

Jarraipena beti. Ni txapelketa guztietara joan  
izan naz, oraintsu-oraintsu arte, beti. Eta saioe-  
tara be bai. Bertsoaritzari hur-hurretik jarrai-  
tzen deusat.

**Zuek etxean semea be badaukazue, musikari  
eta kantari ospetsua. Parterik hartu dozu haren  
lanetan, letrak egiten edo?**

Oraingoan ez. Esan neutsan: Txo! Ia handitxo  
be bazara, eta zeuk kantetan dozu, zeuk kobre-  
tan dozu, ba, letrak be zeuk egin. Osterantzean,  
lehenago, sarritan lagundu izan deusat, letrak  
zuzentzen, ulertzen eta abar. Ikastoletako Fede-  
razinoagaz egin eban diskoan, esaterako, “aitak  
lagunduta” ipintzen dau.

**Lehenengotan, musika klase hori, taparratapa-  
rra, etxean entzutea ez jatzuen gogortxo egin?  
Andreak zer esaten eban?**

Andreak? Eta auzokoak? Saxofoiak eta txistuak  
eta txirulak eta... beno, beno. Topatu be egiten  
dau instrumentutan! Nonora joaten bada, gauza  
arraro guztiak ekartzen ditu. Txo, eta sarritan  
norbera biagoan igual eta piriri! pururu!, one-  
nean, eta tarratada hotsean, bestela. Bera lo  
dagoela, barriz, ez egin txistadarik, eh! Txaku-  
rrak be ez daiela ahausirik egin. Aguantatu egin  
behar!

**Aguantatu? Askok gura leuke zuen semearen  
mailako bat etxean eduki!**

Hori be izan leiteke, bai. Zer egingo deusazu,  
ba?

**Berbak etsipen plantakoak dozuz, baina, ber-  
bakeratik, harrotasun handitxo darizula esan-  
go neuke.**

Zuk badakizu euskaldunok, sarritan, gauza  
inportanteak aldrebes esaten doguzela.

# Elkarrizketak



## Bertso-eskolen sasokoak

## Jose Luis Basterretxea "Altzalei"



*"Txapelketa kontuan, Bizkaian suberte handia daukagu. Jenteak parte hartzen dau, Udalak ateak zabalik dagoz, eta Aldundia eta BBK bardin. Lana, lagunak, lagun giroa... benetan mundu gustagarria da nik bizi izan dodana".*

1956ko azaroaren 8an jaio zen Jose Luis Basterretxea inor gitxik identifikatuko leuke bere izen-abizenetatik. Jaiotetxearen izenez, "Altzalei" esanda, ostera, bertsolari eta bertsozale guztiek badakie Bizkaiko Bertsozale Elkartearen (baita Euskal Herrikoaren be) eragile nagusietariko bat izan dela eta izaten jarraitzen dauela. Ekile gerakatz, aktibo, asmatzaile, antolakuntzaren garrantziaren pregoilari, berbetan be konbentzimendua eta berotasuna darioz. Bilboko eskoletan bertsolaritza emoten urte mordoia eginik, Bizkaiko Bertsozale Elkarteko idazkaritzan, elkartearen pisu nagusia


bere bizkarrean egon da azken urteotara arte, nahiz eta orain be hortxe jarraitzen dauen, dedikazio eskusiboz ez bada be. Irakasle, antolatzaille, eragile, gai-jartzaile, aurkezle, testu-liburugile, baita bertsolari be, bertsolaritzari lotuta daroa bere jarduerarik gehiena.

### **Bere dedikazioaren hasiera honelaxe kontetan dau:**

1991n zela uste dot. Eskoriatzan magisteritza amaitzen nenbilen, eta deitu eusten esanez zelan Bilbon behar bat zegoen, eta beharra zen Bilboko euskara zerbitzuak eginiko proposamen bati erantzutea, hau da, bertsolaritza, Bilboko eskoletan, euskararen lagungarri sartzea, beste pretextsino handiagorik barik.

### **Nork pentsatuko eban Bilboko Udaletxetik etorri behar ebala bertsolaritzaren zabalkunde hain ekimen aurrelaria izango zena?**

Egia. Bertsolaritza oraindino be baserri giroagaz batzen ohituta dagoen askoren sentikieran gatxa dirudien arren, mirari txiki batzuk gertatu egiten dira. Baina, jakina, ni orduan magisteritza amaitzen nengoen eta ezarri beharreko proiektu hori prestatu egin behar zen, curriculum, materialak eta abar. Ikasi barria prakti-



Altzalei, 2004ean Marokora egindako bidaiari.

kan jarri behar zen. Zer esanik ez, Bilboko egoera soziolinguistikoa eta eskola markoa kontuan hartuta. Eta hasi ginen...

**Itxaron apur batean. "Hasi ginen" dinozu, baina aurretik azaldu eiguzu zeure magisteritza kontua, ze, 1956koa izanik, berandu samar hasi zinen ikasketa horretan.**

Bai. Hogeita hamar urtetik gora neukan, Eskoriatzan hasi nintzenez.

**Hasi zelan? Zer pentsatuta, ze, ordurako, zu beharrean ibiliko zinen nonbait.**

Jakina. Ni hainbat lanbidetan ibilia nintzen, baserrian, arrautza-saltzaile, arotz... baina, beti aurrerago begira bizi nazenez, karreratxo bat egitea bururatu jatan. Gazteagotan, aparejadore ikasten hasi nintzen, baina bertan behera itzi neban. Gero, irakaskuntza gogoko nebanez, berari heldu neutsan, eta oraindino ez neukan hain sasoi txarra be.

**Eta, magisteritza amaitzen zenbilzela, proposamen horixe etorri jatzun.**

Halan da, bai. Hasieran, irailean hasi eta Gabonak arte zen plana. Horixe zen kontratua. Baina gero geuk be erronka bat lakoa egin genduen: "Zergaitik ez dogu hau luzatzen?". Eta halan, udaletxeokokin berba egin genduen eta ontzat hartu eben. Ekainera arte jarraitu genduen eta hurrengo urterako be baiezkoan geratu ginen.

**Esakerak dinon "atzamarra bada, besoa" benetan egin zendueen, beraz: atzamarretik hasi eta besoa atera.**

Ba, bai. Hiru hilabeterako hasi eta urteetarako jarraipena bermatu genduen. Bigarren urtean, esperientzia soiletik gora zihoala ikusirik, materialak be hobeto prestatu genduzen, ikasturte osorako ekintzak be eratzen hasi ginen, eta halan.

**Baina prestatu edo eratu, zer? Bilboko eskoletan, zer trataera emon zeinkioen bertsolaritzari?**

Orduko helburuetan, bertsolaritza lantzeaz batera, bertsolaritza agertzea sartzen zen. Gabonak, Santa Eskea, Aste Santua, eskola ezbardinetako jaietan parte hartzea; halako urteurren, kultur aste eta abar, ba, zelanbaiteko okasino guztietan, sortutakoa agertzea zen kontua. Klasean sortutako lana, produkzioa erakustea. Azken batean, euskarari eragiteko modu bat gehiago zen, kasu honetan, modu erakargarria, gainera, geure ustez, behintzat.

**Eta? Etekinik lortzen zendueen?**

Gelarik gela bai, baina ikastetxeetako proiektuan sartzea eta ikastetxeak inplikatzeko ez hainbeste, batez be, irakasleak asko aldatzen zirelako. Gero (hiru urtetara edo izango zen) irakasleak egonkortu egin ziren eta perspektibagaz prestatzen zituen ikastetxeetako proiektuak, curriculumak, eta gure mundua be blast aldatu zen. Orduantxe hartu genduen benetako indarra. Urterik urte, plangintza bat, balorazioak eta abar eginez, eta irakasleen konplizitateagaz, osotasun bat lortzen joan ginen.

**Irakasleen egonkortasuna eta konplizitatea dinozu. Hori zer da zehazki?**

Orduantxe izango zen mapa eskolarra osatzen jardun ebena, eta Bilboko eskoletan horrek garrantzi handia izan eban. Irakasleek lan handia egin eben eredu euskaldunaren alde. Hainbat zentrotan burruka gogorrak egin zitueen, eredu definitzen. D eredu ezarri nahirik, azken baten, eta ez zen edozelako kontua. Gu euskaldunok, edo euskal inguruan bizi garenok, ez gara konturatzen zelako ahaleginak egin ziren D eredu aurrera ateratzen, Rekalde baten, Zurbaran baten, Deustu baten... Burruka latzak izan ziren. Eta Bilbo mailan B ereduak behe-rantz eta D ereduak gorantz egin eban, eta eredu hauxe gelditu da hainbat zentrotan. Ni

Bilbon hasi nintzen lehenengo urtean, 1991n, D eredia ikastoletan eta Txurdinagako eskoletan bakarrik egongo zen. Felix Serranon be bai; eskolaurrean ezarri zen; orduantxe, neu hasi nintzen urtean. Eta gero denean.


**Horrek euskara arloan zelako garrantzia izan zeikeen igartzea ez da gatxa, baina zure bertsolaritza irakaskuntzan zer aldakuntza ekarri eban?**

Motibazio eta euskara maila igoteak, euskaragaz eta bertsoagaz gozatzea errazten dau; ondorioz, emoitzaren ondu egiten da. Errazago helzen zara ikasleakana. Produktzioak eta kalitateak gora egiten dabe.

**Bertsolaritza klasean lantzeaz gainera, urtean zeharreko ekintzak aitatu dozuz lehen. Gehi-**

**txoago zehaztu zeinke?**

Klasean egindakoa agertzeko egin zeitekeen edozerk balio eban. Esaterako, guretzat ez zen gauza handia edo gatzegia, baina eurek garrantzi handia emoten eutsien Bizkaia Irratia lako medio batean agertzeari. Astean ikastetxe baten ardura izaten zen irratsaioa prestatzea, eta hirulau astetako klaseak horretaraxe bideratzen guden. Ikasle askorentzako deskubrimendua izaten zen euskaraz bakarrik emititzen dauen irrati bat ezagutzea. Eta, halan, irratiako programa horrek prestigioa eta zabalkundea zekarren, eta orduan handik eta hemendik deiak hasi ziren, Muskiztik, Sestaotik, Barakaldotik... eta neu be hara eta hona hasi nintzen klaseak emoten, baina itota nenbilen, ze ardatza Bilbo zen eta ezin neban denera ondo ailegatu.



Mikel Alonso. XDZ

*Araba eta Bizkaiko txapelketa. I. Ajuria eta Altzalei, B. Mandaluniz gai-emaiarean ahotik gaia entzuten. Igorre. 1987-XI-29*



**Denera ailegatu ezin bazenduen, zeozer egin beharko zunduen.**

Derrigor. Muskizen, esaterako, kontseilu bat zegoen edo sortu zen, ikastola, eskola publiko, AEK eta abarren artean, eta bertako jentea prestatzea zen onena, eta horretantxe hasi nintzen, hara joan eta bertasolaritza zelan emon azaltzen. Baina klaseak geuk emoteko eskatzen euskuen. Marta Ortiz eta Peru Aranburu hartu genduzen lankide. Ordurako, gainera, bertako Udalen eskariz, Unai Ormaetxea be bazebilen Amurrio eta Laudioko sei-zortzi ikastetxetan. Gainera, Txorierriko eskolen eskaria jaso genduen eta planteamendu serioa egin beharra zegoen. Aitatu beharrekoa da, zeregin guzti honetan, napparak izan genduzela bidelagun. Antzeko egoera zen hangoa be eta alkarregaz prestatu genduzen curriculuma eta materiala. Esperientzia trukea izaten genduen.

582

**Eta txapelketak be antolatu beharko ziren.**

Baita. Orduan egoitzarik be ez geunkanez, komedia estuagoak izaten ziren. Norbait hartzen genduen txapelketa antolatzeko, zuzendaritza batzordekideon laguntzaz.

**Honelako elkarteen ezaugarrietariko bat informaltasun horixe izaten da, hain zuzen. Jente ezbardina eta kolaboratzaile aldakorak eta sarritan esporadikoak ibiltzen dira.**

Bai, baina behin neurri bat hartuz gero, egitura sendoagoa behar da. Hiru-lau langile han eta hemen beharrean badabilz eta, gainera, beste arlo batzuk ezin badira ondo zaindu, zerbait pentsatu beharra egoten da.

**Eta orduan zeu izendatu zinduezen elkarteko arduradun nagusi. Zertan zetzan zure programaren barritasuna?**

Urteko egitasmoa, sailez sail, zegokon arduran eta bion artean prestatzen genduen; zer esanik ez, Euskal Herri mailako eritziak kon-

tuan hartuta. Sail bakoitzeko azterketa ondo egitea da giltza, perspektibagaz eta harrotasun puntu bategaz, gainera, hau ontzeko kapaz gara pentsatuta. Ondoren, egitasmoa betetzea baino ez da gelditzen. Egoitza erosi genduen, Elkartearentzako bulego duina izatea garrantzitsua baita, bai behar egiteko, bai batzarrak egiteko; erreferentzia-gune izateko, azken baten. Zuzendaritza Batzordea be ezin da ahaztu, hilerohileroratu eta denaren jarraipena egiten dauena. Uste dot horreexek izan zirela gure azertuak. Lau langile ginen sasoi horretan elkartean, eskolarik eskola zebilzen Unai Ormaetxea, Aitor Elexpuru, Etxahun Lekue eta neu. Irakasleokin berba eginda, prestatze-eguneratze premina ikusten genduen.

**Eta prestatze hori zertan zehazten zen?**

Eskoriatzako Magisteritza Eskolagaz tratua egin genduen, geure proiektuaren komenentziako ikastaro batzuk "on line" egiteko.

**Zuk, orduan, Elkartearen ardura hartu zendue-netik, horretaraxe bideratu zunduen zeure ahalgina. Aurreikuspenak ondo bete jatzuzen?**

Baietz esango neuke, bideratu ez ezik, lortu be egin zen eta. Ia Bizkaia guztira zabaldu zen, Gernikan, Arratian eta horrelakoren batean izan ezik. Bilbo guztia, Balmaseda, Zalla, Galdakao... Gure euskal inguruan be bai. Nik eskaintza bat egiten neutsan Udal, Mankomunitate eta lekuan lekukoari: Hauxe eta hauxe daukagu. Jente prestatua daukagu. Eta "Bertsolaritza ikastetxetan" proiektua mahai gainean ipintzen neutsen, onartzeko moduan.

**Plan hori zer zen, gitxi gorabehera?**

Guk bertsolaritza bakarrik ez genduen eskaini behar. Irakaskuntzari zeozer aportatu behar geuntsan. Ez bertso-eskola bateko betiko elementuak bakarrik, hezkuntzako beste gehigarri batzuk baino, bertsolaritzaren bitartez. Ahozko-

tasuna, komunikazioa, memorizazio gaitasuna, irudi literarioak, jente aurrerako gaitasuna eta horrelakoak. Horretarako, irakasle tituludunak behar ziren eta, geure burua prestatzeko, ikastaroak egitera, Eskoriatzara joan behar genduen.

**Baina, Eskoriatzan zein beste edozein goi-ikas-tetxetan, bertsolaritzari buruzko argibide espe-zifiko handirik ezingo eutsuen emon.**

Baina eurek emon zeikiguena oso garrantzitsua zen bertsolari-irakasleentzat, ikasitakoak gogorarazteko eta pedagogia korrante barriak ezagutzeko; eguneratzen joateko, azken baten. Eta, jakina, horregaz batera, beste erronka handi bat, Euskal Herri mailan, curriculum barria geuk preparatzea zen. Ez beste batzuek guretzat preparatu, bertsogintza ezagutzen dogunok geuk baino. Eta, horretarako, beste kontratu bat egin genduen Eskoriatzagaz. Jexux Murua eta biok joan ginen Eskoriatzara, honako pentsakizunez: Orain prestakuntza egin behar dogu, eta prestakuntza antolatua egin be, horren azken emoitza curriculum barria izan daiten. Eta, harrezkero, horretantxe gabilz. Irakasleak euren soldatagaz dabilz, eskolen araberrako soldatagaz, eta martxa aurrera doa.

**Hori guztia hezkuntza arautuan. Eta bertso-eskoletan? Hor eragin zendueen nobedaderik?**

Hor be izan da eztabaida eternoa, oraindino amaitu ez dena, eta da ea bertso-eskolekin zelako hartu-emona izan behar dauen Bertsozale Elkarteak. Talde batzuek uste dabe, jente batek uste dau, bertso-eskolei euren kontura itzi behar jakela; zeozertan lagundu, ahal bada, baina euren martxan sartu barik. Egin daieela ahal dabena, baina guk ezin deutsegula bestelakorik esan. Eta guk horretan...

**Horretan zer? Zer pentsakera dabil gaur egungo Bizkaiko Bertsozale Elkarteetan?**

Azken aldion egin diren urratsak handiak dira

eta guk esaten genduen zera da: Hemen egin behar dena da bertso-eskolei eskaintza bat egin: materialak, ikastaroak eta abar. Bestela, bertso-eskoletan, batzuk txapelketarako doaz, beste batzuk bertsolaritza ezagutzeko, eta beste asko eta asko, kantetako, beste barik. Bertso-eskoletan be beste arlo bat izan zen eta hainbat aurre-rapauso emon dela uste dogu. Harrezkero be ondu da arlo hau.

**Bizkaiko Bertsozale Elkarteetan ez ezik, Euskal Herrikoan be oso aurrean ikusi zaitugu beti.**

Bai. Niri tokatu jatan beste kontu bat izan da Euskal Herriko eta Bizkaiko Elkarteetan hartu-emona garbitzea. Ni eskolak emoten ibili nintzanean, Bizkaitik Euskal Herrikora hartu-emon handirik, holan antolatuta, ez zegoen. Hango batzarretara Bizkaitik joan be apenas inor joaten zen. Ni hartu-emon hori ohikotzen eta egonkortzen saiatu nintzen. Halan, hango batzarretan parte hartu, nor joango zen izentatu eta hartu-emon etenbakoa gauzatzera heldu gara. Bizkaiko barriak hara eroan eta hangoak hona ekarri. Gaur egun, informazio-truke horrek "barne boletin" forma hartu dau, internetaren bitartez.

**Lehen, txapelketa kontua aitatu baino ez dogu egin. Egia da Bizkaian txapelketen antolakuntza inon baino sendoago dagoela?**

Txapelketa kontuan, Bizkaian suberte handia daukagu. Eskualde, Udaletxe eta abar, harmonia handian egiten dira gauza guztiak. Jenteak parte hartzen dau, Udalak ateak zabalik dagoz, Aldundia eta BBK bardin, eta holan Arriagatik Euskaldunara pasatzea be ez zen bape kostatu. Eta begitu: orain bera be txiki gelditu!

**Horretan guztian, Elkarteetan ondo antolatuta ego-teak be zerikusi handia izango dau.**

Dudarik be ez. Kanpora begira antolatzen dogun ekintzarik entzutetsuena, jarraipen haundiena daukana izanik, mimoz tratatu behar da. Kon-

tuan hartu zenbat jente inplikatzan den txapelketa bakotxean eta ez da gitxiagorako: milaka entzule, Foru Aldundia, BBK, dozena bi Udal, zientu bat bertsolari, epaileak, antolatzaileak... Elkartean ideiak garbi dagoz kontu horretan. Antolaketa eta irudia ondo zaindu behar dira.

**Antolatuta egon arren, txapelketak buruko min handia ekarriko dau.**

Ez hainbeste. Gauza bat da nekagarria izatea, lan handia egin behar delako, baina, ondo antolatuta egonez gero, ez dauka zertan buruko minik ekarri. Txapelketak, Bizkaian, alazo joan ohi dira. Aurkezle, gai asmatzaile, epaile... azkeneko ordura arte begira egon barik antolatzan dira. Epaile taldea zein da? Hauxe. Gai-jar-tzaile taldea? Hauxe. Txapelketako saio bakotxean, ordu erdi lehenago, taldeak eta ordezkotzak, hantxe. Antolatzaile taldea hamabietarako egoten da aretoan; egin beharreko prestakuntzak egin, bazkaldu eta astiz eta trankil, lagunarte ederrean ibiltzen gara. Euskaldunara joan behar dela? Ba, bardin. Goizeko zortziretarako joan, egin beharrekoak egin, bertako jatetxean bazkaria enkargatu, eta dena ondo. Garantia bategaz.

584

**Aurretik eskoletan eta gero Elkartean, 14 bat urteko historia kontetan zabilz. Zer sentsazio gelditu jatzu zeuri urte horreana guztiena?**


Ni Elkartean gustora ibili naz. Behar eginda, baina pozik. Elkarteko lana dela eta, hartu-emon handiak izan ditut, bai pertsonekin, bai erakundeekin, bai mogimenduekin. Gainera, bertsolaritza berez be beti gustatu izan jatan arloa da eta oraintxe be hortxe jarraitzen dot, betiko moduko ilusinoz. Lana, lagunak, lagun giroa... benetan mundu gustagarria da nik bizi izan dodana.

## Jose Antonio Aranburu "Natxi"



*"Une gailen bat apartatzekotan, Euskaldunarako salto horixe esango neuke. Durangoko egoitza barriarena be une handia izan zen. Unerik larriena Bizkaiko Ikastolen Elkarteagaz ondo konpontzen ez asmatzea izan zen".*

Nork daki Jose Antonio Aranburu nor den? Inork gixik. Nork ez daki Natxi nor den? Hori be ia ezinezkoa. Natxituko Natxitupe baserrian 1947-I-14an jaio eta Garaiko Ana Maria Berriozabalgoitiagaz ezkondurik, seme-alaba bi izan eta Natxitan bizi den irakasle hau euskal kultura, herri-mogida eta militanzia politikoan ugarienetarik ikusi dogun aurpegia da. Eta ikusten jarraituko, besteak beste, bere seme Peru Aranburu bertsolaria preso dagoelako. Bizkaiko Bertsozale Elkarte eragile gerakatz nato honexen ardurapean egon zen urte mordoan, eta zalantza barik esan geinke Elkarte horren oraingo sendotasunaren erantzule



XDZ

nagusietariko bat bera izan dela. Eta izaten jarraitzen dauela, Natxiren kasuan ez baitago bildurrik, "ebanak badau" esaerak huts egingo dauenik.

**Bizkaiko Bertsozale Elkartearen arduradun nagusia izan zinen, urte mordo batean, bai lehendakari legez, bai, batez be, idazkari edo arduradun nagusi legez. Zer sasoitan eta zelan hasi zinen?**

1994ko udan izan zen. Ikastolan eszedentzia hartu eta bi urtez buru-belarri ibili nintzen Elkartearen. Bizkaiko Bertsozale Elkarteagaz lehenagotik neukan hartu-emonan eguneroko lanbide edo bihurtu zen. Neu ikastolan egotean, Jon Lopategik, Bizkaiko Ikastolen Elkartearen (BIE) bitartez, ume eta gaztetxoekin hasitako egitasmoan sartuta nengoen. Bertsozale Elkartearen be, izen eta nortasun apur bat banekanez, zirt edo zart erabakia hartu genduen, antolaketa barri bati ekiteko. Ordurako Bizkaiko txapelketak urte birrik behingo erritmoa hartuta zeukan. Amuriza, Lopategi, Enbeita..., bizkaitar bertsozaintzaren lekukoa gazteei pasatzen hasiak zirenean, Euskal Herri mailan, bertsozaintzak ospe handiko loraldia bizi eban, eta unea aprobetxatu egin behar zen, bedar-metari metazila jartzeko, nahiz eta, normalean, lehe-

nen metazila jartzen bada be. 1985 ingurutik, bueltan-bueltan ibilia nintzen. Hurrengo urrats handia 1987ko Araba-Bizkaiko Bertsolari txapelketa izan zen, eta, 1994ko irailetik, horretantxe nenbilen beren-beregi.

### **Zelako egoera aurkitu zenduen Elkartean eta zer gehitzera sartu zinen?**

Kontua zen Elkartea, nahitaez, egituratu barik zegoela, nahiz eta, entitate legez, Bizkaiko Bertsotzale Elkartea egituraturik eta onarturik egon. Hilean behin batuta, eguneroko dinamikarik ezin zen aurrera eroan. Orduan konturatu ginen zeozer egin beharra zegoela. Alde batetik, BIEko lana fruituak eta garapen barria lortzen ari zen. Bertsolari gazteak eta bertso eskolak, ikastoletan eta eskoletan, era ordenatuan landu beharra ikusten zen. Txapelketak be geroago eta formalitate handiagoa eskatzen eban, eta hori be, era batera edo bestera, artean bila genbilzen dedikazio bategaz hornitu behar genduen. Lekua BIEkoekin konpartitzen genduen Zornotzan. Karmen 14.ean egiten genduzen batzarrak.

### **BIEkoekin lekua ala gehiago be konpartitzen zendueen?**

Antolakuntza moduan, gauza asko erdi batera zihoazen, baina gorabehera txiki batzuk sortu ziren. Kontua zen ez gengozela gustura ez batzuek ez besteak, eta leku bila hasi ginen: Errigoitin, Durangaldean... Muxikako Garriko bertso-eskolakoek esan euskuen leku bat bazeukiela, eta hantxe hasi ginen horri guztiorri taxua emoten. Ez zen leku txarra, baina zeozer tinkoagoa behar genduen. Hurrengo urtean, Karmen kaleko lonja batzuetan gela batzuk zeukazen Zornotzako Udalagaz kontratu bat egin genduen, honakoa: gu lokal haretan egongo ginen, doan, baina trukean, Elkartea legez, urtean pare bat saio Zornotzako herriari eskaini behar geuntsazan. Eta hantxe egon ginen lau-bost urtean, Durangora aldatu arte.

### **Hori gehienbat egoitzari buruzko kontua zen, kontu garrantzitsua bazen be. Orain esaiguzu zerbait egiturari buruz.**

Orduko jenteak oso argi geunkan egitura bat behar zela. Jente hori honakoak ginen: Jon Lopategi, Karmelo Uriarte, Moises Enbeita, Aita Luis Baraiazarra, Joxin Iturrioz, Joserra Bilbao, Iñaki Aurrekoetxea, Altzalei eta ni neu. Nahikoa talde konpaktoa ginen eta horretan subertea izan genduen. Egitura horrek, geure ustez, egitura fisiko bat eta etenbako lan bat suposatzen eban, eta horrek, jakina, baliabide batzuk eskatzen zituen. Eta gure jarraibidea honakoa izan genduen: proposamen bakotxari diru hornidura bat. Horrexek ekarri eban gure tinkotasuna. Aldi berean, proiektu bat sortu zen, Bizkaiko ikaste-txeetan bertsolaritza lantzeko, geuk goitik beheara kudeaturik: eskabidea zentroetan planteatzea, erantzuna emotea eta abar. Eta horrek guztiak eguneroko atentzinoa eskatzen eban. Ez zen eskolara joatea bakarrik. Horren kudeaketa be geure bizkar hartu behar genduen.

### **1987ko txapelketa aitatu dozu lehen. Txapelketak berak ez zinduezen hobeto antolatzer behartuko?**

Jakina! Txapelketa haren ondoren, beste txapelketa batzuk etorriko ziren. Orduan, gure orduko beste ardatz nagusi bat txapelketak eurak izango ziren. Txapelketa bat ondo egiteak aurretiaz denpora luzea behar dau. Hamar hilabete aurrerago lanean hastea eskatzen dau, eta horretan be politika bardina erabiltzen genduen: Zer kostu dakarsku guri? Ba, horrexen bila joko dogu. Horretan, gure zutoinak honakoak izan ziren: Bizkaiko Foru Aldundia eta Udalak, Bilboko Udala, batez be. Gerora, beste hainbat Udal pilotzen joan ziren, eskoletan bertsolaritza lantzeko. Eta, zelan ez, BBK. Harrokeria barik esan leiteke maila horretan ondo funtzionatu genduela eta konfiantza eta prestijioa lortu genduzela. Atzetik geunkan,

eta hori beti sentitu izan dogu, Bizkaiko bertsozale eta bertsolarien babesa.

**BIEgaz lekua konpartitzen zendueenean, gora-beherak sortu zirela esan dozu. Gehitxoago zehaztu zeinke?**

Une kritiko batzuk izan ziren. BIEgaz ez genduen asmatu elkarlan bat egiten. Ideia ezbardinak zegoen eta orain alferrekoa da errudun bila hastea, baina Bizkaian ez genduen jakin elkarlan hori bideratzen, eta neurri batean paraleloki funtzionatu izan dogu. Gaur egun, hartu-emon horreek normalduta dagoz, ze bakotxak bere arloa definituago dauka eta.

**Egituratze prozesu horrek zer aro hartzen dauela ulertu behar dogu?**

1987ko txapelketak eta hurrengoek lan zentratuagora behartu ginduzen, eta egituratze-aro nagusia 1994tik 2000ra bitartean izan zela esan leiteke. Tarte horretan, gure erronka nagusia egituratzea izan zen, eta horretan asmatu egin genduen. Beste arlo garrantzitsu bat, eta horretan Alzalei zen gehien zebilena eta zekiena, eskoletan Bizkaia osora geure programatxoa zabaltea izan zen. Eta geu izatea gai, hori guztiori zuzenean kudeatzeko. Hau da, Bertsozale Elkarteak berak, bitartekorik barik. Horretan be pozik egoteko moduan gagoz.

**Horrelako egituratze lan bat erronka polita edo, behintzat, interesgarria izan zela pentsa leiteke. Gatxa be gertatu zen?**

Gure erronkaren alderik politena horixe zen, baina egituratze horretan, zerotik hasi ginen. Bazegoen egituraketa bat, baina ez geunkan esperientziarik. Euskal Herriko Elkarteak Gipuzkoaratuta zegoen; ez asmo txarrez, baina halantxe zen. Orduan, guri proiektua eta talde baten erakundetze prozesua geure kabuz asmatzea tokatu jakun, zerotik hasi eta gaurko egunera arte ekartzeko, eta hori bai kostatu jakun. Esa-

terako, ni neu hasi nintzen eta, bigarren urtera, erabagi egin behar izan neban lehengo lanera bihurtu ala bertan jarraitu. Eta bihurtu egin nintzen. Gure pausorik handiena Durangora pasatzea izan zen. Durango kulturagune garrantzitsu bihurtzen ari zela somatzen genduen, baita bilgune be, geografikoki; eta beste gauza askotan be bilgune izango zela pentsaturik, hantxe kokatu ginen eta eredugarri izan da beste herrientzat eta Euskal Herriarentzat.

**Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak aitatu dozu. Zelan zegoen urte hareetan elkarte bien arteko hartu-emona?**

Horixe zen, hain zuzen, egituratzeak eskatzen eban beste arlo handietariko bat: Euskal Herriko Bertsozale Elkarteagazko hartu-emona zelan eguneratu ahalik eta modurik egokienean, eta Bizkaitik zelan egin loturok. Horretan be, ikasketak prozesu guztiek dakarrez zailtasunak izan genduzen, haserre puntutxoak eta abar, baina uste dot arazoa bere lekura eroatea lortu dela. Hau da, guk geure autonomia izango dogu, baina Euskal Herriko mogimendu bat gara, eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak gauzak naturaltasunez egin behar doguz. Horixe da gure erreferentea, nahiz eta gure lan esparrua Bizkaia izan.

**Zuk zeuk, dedikazio osoan ibili zinelarik, pertsonalki zer jaso dozu hortik, ez baitzen izango "edozelako" lanpostu bat?**

Gauza piloa irakatsi deust. Lehenik, esparru zabal bat, bertsozalearen azpimultzo guztietan: bertsolariak, bertsozaleak, herri-eskoletako jentea... Hori aberastasun pertsonal intransferibela da. Gero, egituratzen esperientzia apur bat baneukan, baina ezerezetik zeozertarako pauso horretan, horrek be halako zer bat emoten deust, ezta? Lagun barri askoren erregalua be bai. Eta, bigarrenik, Bizkaiko Bertsozale Elkarteak izateak, hots, esparru ezbardinetan gauzak egi-

teko gai den zer bat sortzeak, horrek ilusino handia emoten dau. Eta euskalgintzan gure ekarpena, Bizkaiko Bertsozale Elkarte legez, hortxe gelditzen da.

**Gauza asko eta handiak esan dozuz erreskan, baina gehien zertan asmatu zendueela uste dozu? Edo zer izan zen alderdirik erabagiarriena?**

Nik uste dot bertsolari, bertsozale eta bertsolari gazteen mundua lotzen asmatu genduela. Eta, ezeri ukorik egin barik, erakunde publikoekin hartu-emon duin bat eta lan duin bat egiteak, ba, horrexek eroan dau Elkarte gaur egungo egoerara.

**Liburugintzan be, zure aroan, hainbat ekimen burutu edo abiarazo zendueen. Zuk zeuk zeri ekin zeuntsan gehien?**

Liburugintzari jagokona gauza bitxia da. Elkarritzeta hau Bizkaiko Bertsogintza IV.rako denez gero, ideia hori Bizkaiko Foru Aldunditik etorri zen. Urtero-urtero, urteko plangintza aurkeztean, joko bi egiten genduzen. Alde batetik, gauzak zelan aurkeztu, ze hori be ikasi egin behar izan genduen. Eta, bestetik, kultura-politikaren ardura zeukan jenteagaz egon. Hantxe agertu jakun lehenengo ideia. Gero, ostera, ez dakit, ba. Plana aurkeztu edo erakusteko bilera egitean, liburugintza edo historia hori biltzen eta horretarako lanak egiten nortzuk zebilzen ikusi ebenean, halako aurpegi muzintiagoak ipini zitueen, baina hasitakoa amaitu egin behar zela eta hori oso inportatea zela, eta halantxe zihuan hartu-emon, baina lana serioa zen. Egi-leak edo egileren bat, begi ofizial batzuentzat, hain estimatuak izan ez badira be, lana serioa da eta honeri be bidea emon behar jako.

**Pasadizoren batzuk be izango dozuz erakunde-ekiko zeure ibilera hareetan guztietan.**

Behin, bere aurrera sartu nintzenez, Tomas Uribetxebarriak egundoko errieta egin eustan.

1987ko txapelketa ondoren izan zela uste dot, talde antolatzailea nahikoa zalantzan ibili zena. Txapela nork emon eta halako gorabehera desatsegin batzuk izan ziren, ze hori guztia borondatezko lana da, baina txapela nork ipini behar dauen eztabaidan hastea, ba, beno. Ordura arte zegoen taldeak esan eban: Guk 'erria' egiten dogu, ze holan ezin leiteke lanik egin. Ez gogorik ez zegoelako, ezpadaze begitantzen jakelako txapela nork ezarri edo nork ez eta horrelako huskerien menpean egon behar bagenduen, ba, horixe, hanka eta hor konpon. Zorionez, barkuak aurrera egin eban.

**Pertsonaia bitxirik edo zelebrerik topatu zenuen bidean?**

Bertsolariak eurak! Bestelakoak be egongo ziren, baina ahaztu egin jataz. Alde horretatik, suberte handia izan dot. Ez zen gauza arrarorik izan.

**Gauza arrarorik ez bazen be, larritasunen bat edo beste pasatu beharko zenuen.**

Hori bai. Nire egitekoan, langa gatx bi zegoen. Alde batetik, ezjakintasuna bera. Beharbada, perspektiba falta eta zelan egituratu ez jakitea. Hori apur bat ikusten hasi ginenean, konturatu ginen Bizkaian bazegoela beste talde indartsu bat, bertsogintza eta bertsolaritza lantzen zitueena. Hareen eta gure esparruak bereizgarriak ziren, neure ustez, baina, beno, unerik larriena BIEgaz ondo konpontzen ez asmatzea izan zen. Gaur egungo errespetuzko tratua heldu bagina, ondo, baina hori be gatx egin jakun. Beharbada, hori ezer konkretua baino gehiago, arazoari zelan forma emon izango litzateke. Perspektiba falta bat izan zen dena. Eta gero, beste erakunde bategaz tupust egin genduenean be, nahikoa une gatxa izan zen.

**Zailtasunak zailtasun, harrotasun puntu bat be geratuko jatzu horraitino.**

Puntualki, bai. Txapelketak izan dira gure

harrogarri nagusiak. Txapelketa guztiak. Teknikoki be, ondo prestatzen jakin genduen, eta horrek upielako satisfakzinoa emoten eban. Beharbada, satisfakzinorik handiena, geuretzat, gure helburuak Euskalduna izan behar ebalabagari genduen izan zen, eta hor arrazoi ezbardinak egon ziren, halako erabagia hartzeko. Arrazoi bi, batez be, neuk uste. Bata zen espazioz urri genbilzela, eta geure burua aprobata egin gura genduen; hori be holantxe da. Eta, bestetik, ba, a posteriori, pasatu eta gero, bertsoaritzaz izatea lortu genduen herri kultur-gintzako jarduera bakarra, Euskalduna lehenengoz bete ebana. Hori ez genduen geuk esan; eurek esan eben.

**Zeuek esan ez, baina sentitu bai egingo zenuen, ezta? Ze, aurreko eztabaidetan, batzuek, askok, temeritate handiegiztat jotzen eben Euskaldunara saltatzea.**

Gitxi-asko, horren bildur denok ginen. Oso salto handia izan zen benetan. Une ikaragarri pozgarria izan zen Arriagatik Euskaldunara joaten ausartu eta ha be bertsoz beteta ikustea, eta hori herri-kulturako adierazpen bategaz lortzea. Une gailen bat apartatzekotan, Euskaldunarako salto horixe izan zela esango neuke. Aurreko hila ez genduen lasaia igaro, zenbat sarrera salduko ete ziren pentsatuz, ea uzki bistan geldituko ete ginen. Eta hara, uzki bistan barik, buru-goi geldituko ginela.

**Beste salto bat be gertatu zen zure sasoiari, Durangoko egoitza barirra.**

Baita, baita! Durangoko egoitza barriarena be une handia izan zen. Gai izan ginen, geure dinamikarako nahitaezkoa zen leku bat lortzeko, eta ez batetik bestera pasatze hutsagaitik, gestinoaren eta aurrera-pausoaren ikuspegitik baino.

**Amaitzeko, zu, bertsolari moduan be, zeure abenturak eginga zara, baita txapelketaren bate-**

**an edo batzuetan parte hartua be. Laburbilduko al deuskuzu zeure bertsolari-ibilera, entzutea daukagunetik, bitxi samarra izan zena?**

Zaletasuna, gaztetxotatik, Derioko seminarioan jaso neban, Karmelo Etxenagusia euskara irakasleagaz eta X. Amuriza, Abel Muniategi eta Anjel Ugarteburu lagunekin. Gero *Zu ere bertsolari*, bertso-eskola eta horrelakoez gustaturik, Lekeition bertso-eskola sortu genduen. Handik laster, Lea-Artibaiko Bertsolari Txapelketa izan zen, eta, Jose Luis Guenaga "Gorri" mendaxarragaz eta Manu Ziluaga ikastolako ibarrangeluar lankideagaz batera, lekeitiar ordezkariak erabili genduen eskualdean zehar. Elkarri buruak berotuta, Bizkaiko Txapelketako kanporaketan be sartu ginen (atera be laster egin ginduezen!). 1989 ingurua zen, eta langintza miragarria zela konturatu nintzen, baina niretzat larregia. Harrezkero, makina bat bider esan behar izan neban ni ez nintzela bertsolaria, baina polita izan zen garai ha.



Niko Moreno. XDZ

*Natxi, Bizkaiko Bertsozale Elkarteko lehendakaria, I. Elortza txapelaldunari makila emoten. Euskalduna jauregia. 2000-XII-17*



**Ibilera ausart haretatik, jazoera bitxirik edo gogoratzen dozu?**


Bitxia? Baita sustoa be galanta! Lehen aitatu dodan Lea-Artibaiko txapelketako finalean gertatu zen. Txapelketarako, bost hiruko osotu genduzen eta, Mendexako pilotaleluan jokatu zen finalera, Markinako taldea eta geu sailkatu ginen. Saio puntuagarria amaitu eta, Mañukortaren azken agurrean, jentea barre-zantzoka ari zela, ez jaku, ba, bertan eszenatokia goitik behera braust jausten! Finis koronat opus. Jentea (eta geu!) minik ez genduela hartu konturatu zenean, upielako txalo eta barre zaparraden artean amaitu genduen saioa. Gogoangarria, batetik, eta, bestetik, abisua: nire bertsolari-bizitzak besterik ez ebala merezi, kontixu!

## Arriola Anaiak



*“Gurea suberte itzela izan zen. Adina, behar ziren  
pertsonak ezagutu, lagun asko, bertsolaritzaren bizkundera...  
Ederra izan zen ha!”*

Nabarnizko Mutio baserrian jaio ziren Anton (1960-VI-12) eta Josu (1964-VIII-16) anaiak oso gazterik itzi eutsien bertsolaritzari, 1990 inguruan. Askok penatxo hartu arren, euren ez jake ezelako kezkarik somatzen. Areago oraindino, atsegin eta alaitasun handiz kontetan dabe euren esperientzia, bizitzako aro eskergarri bat legez. Bat-batekotasunak pasarazotzen dituen ohiko estualdien gainetik, ibilera aberatsa eta pozezkoa gogoratzen dabe, gaztetasunaren indar konbergente guztiekin. Lagunartea, hartu-emon ugari, ezagutza barriak, herrigintza, dibertsinoa... Zeozer aportatuz, ondo pasetako aukera bikaina. Ber-



Josu Arriola 1987ko Araba eta Bizkaiko txapelketan.

tsolaritzari izteko erabagia argitasun osoaren ondorio izan zela igartzen jake; ez zela izan ezelako porrot edo zaputzen ondorio. Anaiok entzunez, bertsolaritzaren zehar-alderdi positibo asko agertzen da, lehiatik askoz harago doana.

**Zuen aita bertsolari polita ei zen. Bertso grina nondik jatortzuen garbi dagoela esan geinke, beraz?**

**Anton:** Bai, bai. Etxetik, aitagandik, batez be. Gure aitak bertso zahar asko kantetan eban. Bat-batean be egiten eban, baina gure aurrean ez. Bertso jarriak asko zekizen. Beharrea, arto garantzen eta abar, bertsoak kantetan zituen. Aitaren familian, denak ziren zaleak: anaiak, arreba, eta amama Frantziska be bai.

**Josu:** Gurean, jairik nekez amaituko zen kantu barik. Familia batzean, beti kantatu ohi zen. Gero aita Ameriketara joan zen eta bertsozale-tasuna apur bat lotan gelditu zen.

**Anton:** Etxetik aparte, Ereñon be bazen “Txirrita” edo “Txirri” esaten eutsien bat, Jabier Bida-buru, herriko tabernetan bertso kantetan ibiltzen zena. Ez zeukan kontrariorik, inork ez zekien erantzuten eta. Etxean pentsetan genduen: Horrek hauze kantatu jok. Horrentzat ez jagok erantzunik? Eta pentsetan ekiten geuntsan.

Bertso batzuk erdi-preparatu eta pentsetan neban: Hauxe botako jeutsaat. Orduantxe konturatu nintzen, pentsatuz-pentsatuz, erraztasuna hartzen zela, errimak-eta norbere kontura landuz gero. Eta, noiz behinka, etxean pentsatua tabernan egoki-egoki bota eta, ondo urteten ebalatuta, halantxe hasi nintzen.

### Zenbat urtegaz hori?

**Josu:** Hamasei-hamazortzigaz. Jentea harrিতා gelditzen zen. Ene! Honek bertsoan ikasi jok? Bai, ba! Aita be bertsolaria dok eta. Odolean eukiko jok. Baina, benetan, bertso hareek etxean ondo pentsatuta joaten ziren. Gero, tabernan be hasi ginen noizik behin, puntuka eta abar. Halan be, guretzat detonante nagusia Amurizaren lehenengo txapela izan zen, Antonen 20 urte eta nik 16 genduzela. Taberna baten gengozen, Lopezenean. Bera be bertsozalea zen. Enbeitagazko desenpatean, "aita" gaia ipini eutseen. Amuriza kantetan hasi zen eta: Lehenengo bertsoa ona. Bigarrena hobea. Eta hirugarrena! Buruz ikasi genduzen. Guretzat dotrina lakoak izan ziren. Ez guretzat bakarrik. Beste batzuentzat be bai. Egaña be orduantxe zaletu ei zen. Ordura artekoekin konparaturik, bertso diferenteak ziren, barritasun handikoak. Amurizaren txapelketa haretako bertsoak eta liburuak (*Hiztegi Errimatua, Hitzaren Kirol Nazionala*) dotrina ziren guretzat.

**Josu:** Gero Lopategigaz eskola sortu genduen. Lehenengo, gure anaia zaharra eta Txiplas hasi ziren. Gero geu be apuntatu ginen eta halantxe hasi nintzen ni. Lehenengotan asko ginen, hamabi baino gehiago. Lehen aitaturiko Txirri be bai. Honek bazekien bertsoan. Bere erara egiten eban, herriko hizkeran, baina grazia handia zeukan.

### Eta itzi egin eutsan?

**Anton:** Itzi ez. Ha oraintxe be hasteko prest egoten da. Tabernarako ona zen, baina plazarako ez

eban hainbeste balio. Tabernan gu baino gehiago zen. Plazan gu baino gitxiago. Ez zen plazagizona. Bere herriko hizkera aldatzen hasten zen eta txarto urteten eutsan.

**Josu:** Iturriaz-eta afariak egiten zituen, eta behin honakoa kantatu eutsan:

Plazarik plaza ibiliko naz  
hortxe bihar edo etzi  
maisu zaharrak lehenengo moduan  
eiten badau erakutsi.  
Zuek prisatuta hartzen dozue  
neurri eta rima gitxi  
gehiatuta ikasten gatx dekozue  
lehenengo apurrari eutsi.

**Anton:** Guk eskolan batuan eta zuka egiten genduen eta hori harentzat gogorra zen. Berean graziosoa zen, baina geu be oso pedante jarri ginen hizkuntza aldetik, beti batuan eta zuka.

**Josu:** Eskola haretatik pasatu ziren Txiplas, Damian, gu biok, Aritz Lopategi, Ajangizko batzuk... Eskolak famatxoa hartu eban.

### Bertso-eskolan, taldeka, banan... Zelako metodoa erroten zenduen? Zelan eta zertan betetzen zenduen denpora?

**Anton:** Astean behin batzen ginen eta ordu bi inguruko ekitaldia izaten zen. Metodo zehatzik ez genduen errotan. Gaia ipini eta bota.

### Errimarik eta ez zendueen lantzen?

**Josu:** Ez. Hori baktzak bere kontura egiten genduen. Taldean ez genduen horrelakorik egiten, kantatu baino.

### Afaritxoak eta horrelakoak be egingo zenduezen.

**Josu:** Batzuetan bai, Gernikako Lehizar tabernan eta.

### Eta plazan noiz edo zelan hasi zinienez?

**Anton:** Lehenengoz, Santa Ageda kantetan. Handik laster, Bertso Eskolen eguna ospatu zen

Arraten. Eibartik Arraterantz, aldatsean gora, Lopategik, bere furgonetan gindoazela, esan euskun:

- Agurren bat-edo pentsatuko zendueen, ezta?
- Guk ez.
- Zelako ezetz?
- Kantatu egin behar dogu ala?

**Josu:** Ha izan zen goiza! Bertso bat botatzeko dena. Goizean agur bana besterik ez zen. Arratsaldean, patxaran apur bategaz, puntutan bizi-bizi urten euskun eta arrakasta izan genduen. Gure lehenengo plaza hantxe izan zen.

**Baina gero dezente ibili zinien, hainbat plaza ginez. Zeintzuk urtetan eta zelakoa izaten zen zuen ibilera?**

**Anton:** 1982-83 inguruan. Lopategiren bitartez ibiltzen ginen, batez be. Herrietatik berari esaten eutsien, eta berak guri saioak, afariak eta abar prestetan euskuzen. Gaijartzaille, Obieta erabiltzen genduen. Aurkezle grazioso eta saltsa-ipintzaille ona zen bera. Saioa, gai eta abar, erdi-prestatuak errotan genduen, baina dena be ez. Gernika inguruan, leku askotan ibiltzen ginen, Foru, Arratzu, Ajangiz, Ereño eta abarrean. Busturialde osoan eta Lea Ibarrean be bai.

**Orduan, zuek aitik esan leiteke ondo pasatzeko-tan hasi eta plazarik plaza amaitu zendueela?**

**Anton:** Bai, gitxi gorabehera. Gure helburua ondo pasatzea zen, baina hori saio ostean gehiago izaten zen. Bazkariak-eta egiten genduzen eta oso ondo pasetan genduen, bertsoak eta kanta kantatuz. Plazan estualditxoak pasetan genduzen, baina geroko parrandagaitik, edozer onartu zeitekeen. Ekipo ona ginen, lagunarte itzela. Eta itzel pasetan genduen.

**Josu:** Saio aurretik, larri egoten ginen. Aurrean jente ezaguna ikusita, pentsetan genduen: Orain zer bertso edo zer egin behar joagu guk?


**Anton:** Bat-batean ez ginen hain abilak, eta

publikoak inponitu egiten dau. Onak ez ginen, baina, beharbada, zelebrea bai, kolpetxoak eta abar. Txiplasek, esaterako, kolpea zeukan. Ni serioagoa nintzen, baina neuk be baneukan kolpetxoa. Plazan serio beti. Horrek errespetua emoten dau.

**Entzule askok ez eban zuen eskola mogidaren barririk jakingo. Gehientzat, "bertsolariak" izango zinien, beste barik. Zelako harrera zeunkien?**

**Josu:** Harrera ona. Bertsolaritza, eskualde guztietan, boom sasoi izan zen ha. Bertsolariak programa guztietan agertzen ziren. Jenteak gu ikusteko gogoia zeukan. Modan gengozen. Urte bakarrean, 30 saio-eta egiten genduzen geure inguruan.

**Anton:** Gero, txapelketak be baziren tartean, orduantxe barriro abiatuak, eta horrek be eragin handia izan eban.



Anton Arriola, 1987ko Araba eta Bizkaiko txapelketan.

**Josu:** Euskaltzaindiak antolatu ez eban lehenengoan parte hartu genduen guk, 1986an. Kanporaketak eskualdeka egin ziren eta apuntatzea libre zegoen. Lehenengo saioa Gernikan izan zen, Busturialdeko geure taldeagaz. Ireneo Aju-ria eta Moises Enbeita be han ziren. Saio arrakastatsua izen zen.

**Anton:** Neuk irabazi neban han. Oso lasai joan nintzen eta ondo prestatuta. Presinorik barik. Txalo asko jaso genduen. Pentsatu zelako poza eroango genduen etxera!

**Josu:** Ofiziotan bioi tokatu jakun. Doinu barria erabili genduen, aitari entzuna. Doinuaren kontuan, aitak esaten eban: Jose Agustin eta Mari Martaren bertsoak. Inoiz plazan kantatu bakoa zen. Ahots bitara legez kantetan genduen.

#### **Doinu hori inon jasota badago?**

**Anton:** Dorronsoren liburuan, baina txartodago.

#### **1986ko txapelketa izan zen, beraz, zuen agerrialdia nagusia?**

**Josu:** Duda barik. Gernikan oso saio ona egin genduen. Geurea izan zen, Euskal Herri mailan, kanporaketetako puntuazinarik altuena. Goizetik gabera ospetsu egin ginen.

**Anton:** Ni orduantxe hasi nintzen presinoa sentitzen. Merezi ez neban presinoa, bestalde. Eta presino harexek hondatu ninduen.

**Josu:** Handik hilabete eta erdira etorri zen hurrengo kanporaketa saioa. Batzuek Markinan kantatu eben eta niri Algortan tokatu jatan, bigarren fasean.

**Anton:** Nik Markinan kantatu neban eta presino handiagaz joan nintzen. Bigarren geratu nintzen, baina merezi barik. Izenagaitik puntu asko emon eusten. Saio eskastxo egin neban. Josu Algortan lehenengo geratu zen, aldeagaz, gainera. Mikel Zabaltza agertu zen eguna izan zen. Hurrengo egunetan, bertsoak egunkarietan etorri ziren. Gero, hemendik Euskal Herrikora ez

ginen ondo ibili. Durangon justuan ibili ginen.

**Josu:** Handik urte bira, Bizkaikoa izan zen eta han be parte hartu genduen. Orduan be, lau kanporaketetan, lauretan, Gernikako eskolak irabazi eban. Barriro ondo gelditu ginen, hasiera ona emonda.

#### **Txapelketetatik aparte be plaza asko egiten zenuela dinozue. Zer inpresino geratu jatzue? Zelan moldetan zinien?**

**Josu:** Defenditu ozta-ozta. Saio asko, baina Gipuzkoara-eta ez ginen ailegatu. Gernikaldean, Durangaldean, Mendexan eta abar. Gero ni soldadu joan nintzen, 1984an, eta haria apur bat galdu egin neban.

**Anton:** Saio asko geunkan, baina afizintotik obligazina pasatu ginen. Arratiako andra batek esan eustan: Zer? Bertsoan jarraitzen dozu ala? - Beno, erdi itzita legez nago - Zueri afizinoa obligazino bihurtu jatzue eta obligazino txarra da. Arrazoa zeukan. Afizinoa obligazino bihurtu zenean, ez genduen ezer jakin gura. Hortik aparte, nik neure burua gehiago ezin emonda ikusten neban eta hori garbi neukan. Neuk progresinorik ikusi ezik, ez neban izan dudarik txikienik be izteko. Beharbada, arinago itzi behar izango neutsan. Urte larregitan luzatu zen ibiltzea, abildade larregirik barik.

**Josu:** Lehenen Antonek itzi eutsan, eta nik urtebete geroago.

#### **Ez eutsuen penarik emon halako ibilerari agur egiteak?**

**Anton:** Ni neu oso lasai gelditu nintzen neure buruagaz, denek ez eben nik iztea ondo hartu baina. Nik ez neban izan dudarik txikienik be.

**Josu:** Ezta neuk be. Lopategik beti esaten eban bertsoaritzaz gogorra zela. Oso gogor bihurtu jakun. Geroago eta dei gehiago. Militantzia be asko. Eta lan be egin behar zen. Kobretan hasi ginenean, kontua okertu egin zen. Kobratu barik pozik, baina kobratuta, obligazino zen. Deiak

handik eta hemendik, eta ezetzik esaten ez genien. Asteburuetan, dena itzi eta joan egin behar. Sarritan, bertso bi botatzeko, ez dakit noraino joan beharra gogorra zen, edozein aste-gun buruzuritan.

**Anton:** Hori be bazen motiboa, apur bat nekatzeko.

**Txiplasek ez eutsan itzi, ba.**

**Anton:** Ha gu baino gogorragoa zen horretan. Bakotxak ikusi behar dau. Ni oso trankil nago neure buruagaz. Beste batzuek jarraitzea ondo ikusten dot. Baina erabagiak errespetagarria izan behar dau, eta hor akatsa ikusi neban. Hau ez da itzi beharrekoa. Segitu egin behar da, eta holako kritikak izan ziren, eta hori ez neban onartu. Iztea zein jarraitzea, biak dagoz ondo.

**Azkenean, zuri be horixe pasatu jatzun, Josu?**

**Josu:** Ba, bai. Geroago eta lotura handiagoa zen eta bertsoarako puntua be eskasago neukan, galduta. Ezin bertsoz erraz egin. Geroago eta eskasago egiten neban eta itzi egin neutsan. Freskura amaitu jatan. Artileria amaitu jakun. Anton joakeran, taldea apur bat apurtu egin zen.

**Anton:** Guk urte onak aprobetxatu genduzen. Zeresana izan genduen, eta esan genduen. Eta amaitu jakunean...

**Josu:** Ez daukat ezelako damurik. Dandarrez ibili baino hobe da... jakin egin behar da noiz alde egin bidetik. Gainera, atzetik oso onak zetozen: Iturriaga, Elortza, Aritz Lopategi...

**Pasadizoak, pertsonaiak eta abar jasotzen be iaioak zarie zuek. Kontatuko al zeunkiez batzuk, gogoan badaukazue?**

**Anton:** Pertsonaietan, gure inguruan, bat aparta Txirri ereñarra zen. Ha beti zegoen kanturako eta edozertarako prest. Batzuetan txizak egiten genduzen beragaz. Damian muxikarra be zelebrea zen.

**Josu:** Pasadizoak be ez dira gitxi. Behin Kantaxura joan ginen bertsoan. Erromeriaren aurretik, bertsoan egin behar genduen taldean. Gernikatik joandako gaztetxoak zain zegoen, erromeria noiz hasiko. Gure ekitaldirik ez eben itxaroten, antza, eta oholtzarantz eskilaretan gora goazela, batek badino ze: "Bájate de la moto, tío!".

**Anton:** Txirrik, behin, amaieran, "guztioi agur" esan beharrean, "guztioi egur" kantatu eban. Hurrengo astelehenean, bertso-eskolan, bertsoak entzun egiten genduzen barrero, hatarako beren beregi grabaturik. Lopategik dino: Ea! Ipini atzokoa. Halako baten han entzuten da "guztioi egur" delakoa, eta Lopategik: Zer izan dok hori? Ipini barrero. Eta "egur". Haren barre-ak eta gureak!

**Josu:** Beste behin, Mañun ginen, Karmen inguruan. Trino, Jon Aurre, Txiplas eta ni kantetan, eta jente asko entzuten bertan. Gaijartzaileak gaia esan ondoren, bertsoarion artean komentetan hasi ginen, zer doinu erabili edo halako zeozer. Eta bat handik atzetik orroeka hasi zen, besoak altzaturik: Ea horreek autook! Ea horreek autook! Tranpa egiten edo ari ginela pentsatu eban, antza.

**Urte batzuk badira, erretiratu ziniena. Harrezkero, zer bide egin dozue? Gaur egungo bertsoaritzari jarraitzen deusazue?**

**Josu:** Askorik ez. Telebistan edo bai, batzuetan, baina bestelan ez. Umeak be badaukaguz eta.

**Anton:** Neuk be ez askorik, lehengo moduan, itsu-itsuan behintzat. Inguruan saioeren bat badago, gustetan jat entzutea. Azaleko jarraipena egiten dot.

**Zuen esperientzian, helburu nagusietarikoak ondo pasatzea ei zendueen, baina erizpide edo gusturen batzuk be izango zenduezen. Nor edo nortzuk izan ziren zuen ereduak?**

**Anton:** Duda barik, Amuriza. Esan, kantatu,

idatzi... Geure bertso-dotrina zen ha. Barrikuntza handia ekarri eban, guri behintzat asko gustatu jakuna. Oso ondo hartu genduen, beste guztien gainera. Lopategi be orduan asko ibiltzen zen, baina haren bertsojera ez zen hain espektakularra. Tradizionalagoa zen. Bera be barrizatu egin zen. Nik uste dot, geurea ez ezik, orduko eskoletako jentearen sentipena zela hori.

**Beste bertso-eskolekin bazendueen hartu-emonik?**

**Anton:** Bai. Lantzean saio batzuk egiten genduen elkarregaz.

**Zeuen umeei bertsorik kantetan edo aitatzen deutezue?**

**Josu:** Nik batzuetan bai, baina oso gitxi. Erdi olgetan. Oraindino txikiak dira.

**Anton:** Gureek ez dabe ezer jakin nahi. Eskolan zeozer esaten badeutsee, neuri agintzen deuste egiteko. Osterantzean, kantetan hasten banaz, isiltzeko agintzen deuste. Geroago, beharbada, ikusi egin behar.

**Zuen bertsolari sasoiria itzulirik, eta amaituz joateko, konformidade handia agiri jatzue. Oker gagoz?**

**Josu:** Ez, ez! Halantxe da. Ni neu topea emon nebala eta oso konforme geratu nintzen. Ez genduen ezelako asmorik izan, inora heltzeko. Ondo pasetako hasi ginen eta oso ondo ibili ginen. Taldean giro itzela geunkan. Gure entrenamendua gaia ipini eta kantatzea zen. Bertso-tan edozer esaten genduen, baina hasarratu barik. Lopategigaz be oso tratu ona geunkan. Inoiz ez genduen hutsik egiten, ez guk, ez berak. Bertsolaritza zela eta, jente asko ezagutu genduen eta oso tratu ona izan genduen.

**Anton:** Hogeita hiru urte neukazela, lanean hasi nintzen. Orain daukadan lana be bertsolaritzari esker daukat, hain zuzen. Bertso-eskolari esker,

Obietaren bitartez. Jente klase asko eta ezagupide handiak egin genduzen.

**Ezagupide horreetan, ligetxoak be ez ziren faltako.**

**Anton:** Ligatu? Gogoratu be ez. Gure buruan bertsoa besterik ez zegoen.

**Josu:** Lopategik bertsolariak atara gura zituen.

**Anton:** Guk pixka bat kontrakoa ikusten genduen.

**Josu:** Saio ostekoa izaten zen guretzat onena. Izugarri ona.

**Zenbat denporan ibili zinien horrela?**

**Anton:** Lau edo bost bat urte egingo genduzen mundu horretan.

**Josu:** Nik Lopategik irabazi eban txapelketan parte hartu neban azkenengoz.

**Anton:** Nik urtebete lehenago itzi neutsan.

**Anton eta Josu:** (Oraingoan, ia biek batera berba egiten dabe, ahobatasun osoz). Gurea suberte itzela izan zen. Adina, behar ziren pertsonak ezagutu, lagun asko, bertsolaritzaren bizkundera... Ederra izan zen ha!

## Jon Aurre



*“Atsotitzetatik hasi eta koplartzara salto, hortik bertsolaritzara eta horrela ibiltzen gara. Oraindino ibilbide hori guztia egiten dot klasean, eta ikasleei be gustatu egiten jake. Nik neuk ezer baino gurago dot lagunarteko bertso giro beroa”.*

Zornotzako Aldana auzoko Azkarraga baserrian 1954-X-16an jaio eta umezaro-gaztaroak Bizkargi mendiaren magalean igaro zituen Jon Aurre, bere sasoiari bertsolari eta beti bertsozale izateaz gainera, irakaskuntzan bertsolaritzari eta koplartzari emoten deutesen lekuagaitik dakargu hona. Aspaldiko urteetan, Bilboko IRALEko iraskale dogun honek batu be ez dau gitxi egin herriaren ahotik, bai eskolako lan moduan, bai ahozko tes-tuen altxorra osatzeko grinaz. Aurreko Bizkaiko Bertsogintza bietan kolaboratzaile oparoa izan genduenaren lekukotza ale honetan be jaso gura izan dogu, bertsolaritzaren transmisioan, euska-

raren ikaskuntza atalean, hain garrantzitsua den katebegia agirian egon daiten.

**Aupa, Jon! Zuk be, beste guztien antzera, bertsozaletasuna etxetik dakartzula esan behar deuskuzu?**

Ba, bai. Horretan ezin dot bape orijinala izan. Gure aita-eta bertsozaleak ziren. Lehenengo bertso saioa, plazan eta oholtza gainean, Errigoitin entzun neban, lau urtegaz. Inpresionaturik gelditu nintzen.

**Lau urtegaz?**

Bai, bai. Lau urtegaz. Pentsa hain umezaro goiztarreko inpresioek zelako eragina izan leikien.

**Eta gero nahikoa ibilbide handia egingo zenuen, eta egiten oraindino.**

Handia ez dakit, baina luzea bai. Abiatu, etxetik abiatu nintzen, baina gero hazurdura osatzen seminarioan hasi nintzen, hamabi urtegaz. Gure sasoiari, seminarioan euskarak bere lekua eginda zeukan. Mikel Zarate geugaz estreinatuz irakasle. Euskaltzalea eta bertsozalea zen, eta geuk be hari horretatik jo genduen. Gero zaletasunetik egiturak eta abar ezagutzera pasatu ginen. Hirugarren urrats inportantea Amuri-



J. Aurre, J. Etxebarria, J. M. Pastor, J. Bilbao, I. Antiguada eta K. Ibarzabal, 1982ko Santutxuko jaietan.



zagaz izan zen. Orduan nik Bizkaiko Museo Historikoko (gaur Euskal Museoa) pedagogia sailean behar egiten neban euskararen ardura-dun, han sortzen ziren materialak itzultzen, eskoletatik edo euskaltegietatik-eta etortzen ziren umeen eta adinekoen bisitak-eta euskaraz egiten eta abar. Museoko pedagogia saileko azpiegitura erabiliaz antolatu neban ikastaroa Amurizagaz. Artean, *Hiztegi Errimatua*, gerora bertso-eskoletako oinarri-oinarrizko liburua izango zena, oraindino argitaratu barik zeukan Xabierrek, eta originalaren fotokopiak erabili genduzen ikastaroan. Jente mordoa batu ginen bertan: Trino Azkoitia, Jose Ramon Etxebarria, Iñaki Antigüedad, Iñaki Lasa, Koldo Tapia... Hamabost bat eguneko ikastaroa izan zen, astean behin, urte osoan zehar. Zenbat ikasi genduen txapeldun barriagaz!

#### **Eta eskolatik plazara, ze zu plazetan be asko ibilia zara.**

Bai. Euskal Herriko txapelketan be parte hartu neban, 1982an, Euskaltzaindiak antolatutako bigarrenan. Markinan kantatu neban. Bizkaiko txapelketan be parte hartu neban, 1985ean edo, 1987ko txapelketarako izango zen kanporaketan. Gogoratzen dot zelan Mungiako frontoian kantatu neban neure hanka apurtu eta guzti. Txarto ibiltzea normala, hanka apurtuta!

#### **Zelako ibilerak daukazuz gogoan? Non edo zelan kantetan zenduen, edo zendueen?**

Txapelketetan baino gehiago, bertso-eskola inguruan ibili nintzen ni. Santutxun sortu zen bertso-eskola bat eta handixek antolatzen ziren ekitaldiak. Zazpi Kaleetako La Gernikesa jate-txean afariak egiten genduzen. Lantzean behin, kanpotik be ekartzen genduen jentea. Amuriza behin baino gehiagotan etorri zen. Hantxe batzen ginen eskolakoak eta bertsozaleak. Elkar zirikatu, ondo pasatu, kantetako giroa sortu, alaitasun giroa garatu... Bertsolaritza guretzat

bizitza zen. Plaza batzuk be egin genduzen, Arriolarrekin Ibarrangelun, Mañuan eta abar, eta geure zirkuitotxo osatu genduen.

#### **Zelan gogoratzen dozuz ibilera hareek, jentearen harrera aldetik, batez be?**

Mañuan-eta, entzule adinekoa izaten zen, eta honeek pozik egoten ziren. Gazteek, barriz, hemen zeozer bajagok pentsatuz begiratzen euskuen. Bertso txarrak kantatuko genduzen, baina gu aurrera, erdi-kuadrilan ibiltzen ginen eta. Behin Jainkon, (Arrietako auzoa dela uste dot), bertso saioaren ondoren, idi-probak ziren. Txiplasegaz ginen, handik Errigoiti bertan dago eta. Baginarduen kantuan eta, ordua etorri zenean, antolatzaile batek agindu eban: Ea, bertsolariok! Kanpora hortik, idi-probak datoz eta! Denerik zegoen.

#### **Lagunartean-eta majo ibiliko zinien, baina hortik plazara beste kontu bat izango zen.**

Plazarako saltoa be tradizino bat zen, baina guk ez geunkan bertsolaritzan gauza handiak egiteko helbururik, ez bitartekorik. Genkiena plazara eroateaz beste helbururik ez geunkan. Gaur ezbardina da: errima onak, ahapaldi luzeak, esaldi bereziak... Gurea genkien apurra plazaratzea zen. Klean bizi genduen oholtzara eroatea.

#### **Eta gero itzi egin zeuntsan. Ala? Zergaitik edo zer gertatu zen?**

Ez dakit itzi egin neuntsan ala bidean galdu nintzen. 1985-86an hasi zen bertsolaritza "teknikoagoaren" bolada. Bultzada handia izan zen. Plazara ezin zen edozelan urten. Plazak geroago eta "profesionaltasun" handiagoa eskatzen eban. Denera ezin iritsi, eta berez-berez itzi neutsan.

#### **Bertsolaritzan, ostera, beste arlo garrantzitsu bat be izan dozu zuk. Bertso batzailea izan zara eta horri ez dot uste itzi deutzazunik.**

Bertso batzaile kasualitatez egin nintzen. Ni

lehenagotik irakasle nenbilen, euskararen irakasle, *Irale*-n eta. Bizkaiera emoteko, lekuan lekuko euskalkiak jaso, grabatu eta horrela ibiltzen nintzen. Ez bertsoak bakarrik, baita koplak, pasadizoak, ipuinak, gertaerak... gauza zoragarriak. Eta jenteagazko tratua bera be zoragarria zen. Hortixek etorri zen nire batze lana. Horrez gainera, esan behar dot, alde batera, horren mundu guztiorren parte nazela neu be. Ahoz aho eta belaunez belaun iraun dauen mundu oso baten ikuskera, sentikera eta bizikera daukan jenteagaz beharrean ibiltzeko zoria izan dot. Karino handia deutset, zelan ez, ba!, horrelako kontuei.

**Bertsolaritza euskarazko ikasleen klaseetara be eroaten zenduen, beraz?**

Bai. Goi mailetan, jakina. Herri literaturan, bertsolaritza beti sartzen dot. Hortik koplaritza, kopla mota ezbardinak: erromeriakoak, eskekoak eta abar. Baita baladak eta erromantzeak be. Atsotitzetatik hasi eta koplaritzara salto, hortik bertsolaritzara eta horrela ibiltzen gara. Oraindino ibilbide hori guztia egiten dot klasean, eta ikasleei be gustatu egiten jake, gustatzeko moduan emoten ahalegindu behar da baina.

**Klasean zer egiten dozu zehazki? Koplak eta bertsoak zer metodoz, zelan aurkezten deutsezuz ikasleei?**

Lehenengo eta behin, hiztegia lantzen hasten gara: zer den atsotitza, esakera, kopla, bertsoa, zirtoa, zirtolaria, bertsolaria... Gero, koplaritzaren eta bertsolaritzaren arteko ezbardintasanak azaltzen ahalegintzen naz, adibide jakinekin. Adibide horreek, sarritan, geuk han-hemen jasok izaten dira, ikasleekin batera edo ikasleen bitartez. Gehienbat, euskalkiaren klasean izaten denez, bakotzak bere inguruko zeozer jaso daien ahalegintzen gara. Gero testu horreek klasean azaldu, kontestualizatu eta behar diren argitasunak emoten doguz: geografikoak, ohitu-

razkoak, jenerozkoak. Hau da, koplak badira, ikusi ea erromeriakoak, eskekoak... diren; erromantzeak, baladak... diren; bertsoak, kantak... gauza bakotxa zer den eta nondik datorren. Berbarako, koplaren eta bertsoaren arteko ezberdintasuna ikusteko, mendi igoera baten adibidea erabiltzen dot.

**Bertsoz eta koplaz alpinismoa egin zeitekeenik sekula ez dogu entzun.**

Ba, oraintxe entzungo dozue. Egin daigun mendira igon dogula eta batek igoera bideoz grabatu dauela, eta beste batek ibilbide beraren diapositibak atera dituela. Hurrengo baten, igoera ha bera gogoratzeko, lagunartean batu eta, lehenengo, diapositibak ikusten doguz eta, gero, bideoa. Diapositibak mundu estatikoa adierazten dau, instante baten jasotako irudiak dira, irudi izoztuak, baina oso esanguratsuak, ñabarduraz beteak, kolorez jantziak. Eta irudi horreekin



A. Plaza

egindako konposizinoa ezin ederragoa izan daiteke. Bideoan, barriz, irudiak mogimenduan ikusiko doguz, oina non jarrita eta zeri helduta emon genduen punta-puntarainoko azken pausoa ikusi geinke. Bideoak mundu dinamikoa erakusten dau, mogimendua da bere izakera. Bideo emonaldia irudiak mogimenduan aurkeztean sortzen den edertasunean oinarritzen da, eta horren emaitza be ezin ederragoa izan leike.

#### **Adibidea argi dago. Orain zelan egokitzen da konparazinoa bertSORA eta koplara?**

Egin daigun diapositiba koplak dela, ideien aurkezpen estatiko esanguratsua; bideoa, ostera, bertsoa, ideien garapen dinamikoa. Bata ala beste aukeratu (kopla ala bertsoa), edertasunaren neurria baino gehiago da egokitasun eta gustu kontua. Klasean, halan be, koplak eta bertsoak, biak erabiltzen doguz: kantatu egiten doguz, testuak landu, eta antzekoak sortzen ahalegindu be bai. Hori ikasleen edo unean uneko taldearen arabera be izaten da. Batzuk oso prest egoten dira, eta beste batzuekin ez dago hain urrun joaterik. Baina euskara maila handi samarra daukienen artean, gehienak oso gustura engantxatzen dira.

#### **Gaur egun jarraitzen deutzazu bertsolari-tza? Zelan ikusten dozu oraingo panorama?**

Bertsozale Elkarteko bazkide naz sorreratik bertatik eta poz-pozik nago. Nahiz eta gaur egun bertso munduaren jarraipen zuzen-zuzenik ez egin, ez nabil guztiz aparte. Nik beti maite izan dot bertsoa eta bertso mundua. Zelan edo halan, bertso munduko ofizio gehienetan ibili naz: bertsolari, bertso-jartzaile, gai-jartzaile, antolatzaile, epaimahaiko... Guztietan labankorrena eta esker gitxikoena azken lanbide hauxe bada be. Baina bai. Bertsolari-tza maite dot, asko gustetan jat, eta bertso onak maite ditut, gaurkoak zein lehengoak izan.

#### **Bertsoak buruz ikasten zalea ei zara. Zer esan gura dau? Bertsoak eurak ala buruz ikastea gusetan jatzula?**

Lehenengo, bertsoak eurak gustatu behar dira, jakina, baina nik memorizetako ohiturarik ez galtzarren be egiten dot. Hauxe ikasi behar joat, eta ikasi egiten dot, ea buruan gelditzen jatan.

#### **Zuek, lehen, buruz ikasten ei zenduen. Gaur hori apenas hainbeste egiten den, ezta?**

Gaurko barririk ez dakit. Guk bai. Amurizaren eskolako ohitura bat zen. Bertsoak buruz ikasi behar zirela esaten euskun. Baita bertsoak jarri be. Eta, saioaren batean, bertsoaren bat edo batzuk gustatu bajatzuz, haxe edo hareexek zelan burura ekarri ahalegindu. Osterantzean, makina uhartu egiten da.

#### **Gaur egungo bertsolari-tza zelan ikusten dozun gehitxoago azaldu zeinke?**

Lehen esan deutzazu moduan, jarraitzen dot, baina neure baitarako, apur bat urrunagotik. Estimatuko neuke lagunarteko bertsolari-tza, ez entzuteko, norberak parte hartzeko baino. Baina gaur gehiago da txapelketarako bertsolari-tza; gehiago da kompetizino bertsolari-tza, lagunartekoa baino. Horrek asko marketan dau. Alde batetik, kalitatean asko eskatzen da: maila bateko bertsoa ez bada, ez dau balio. Eta esanahi aldetik be bai, txapelketak eta lagunarteak bide ezbardinak egin ditue. Bertsoa lagunarteko komunikazino tresna moduan apurtxo bat hotz gelditu da. Horixe da nik pentsetan dodana.

#### **Zein edo zeintzuk bertsolari izan dozuz gustuko? Nortzuk miretsi izan dozuz?**

Xabier Amuriza bera, maisu legez eta bertsolari legez, Zamorako bertsoetatik hasi eta plazaraino. Kartzelatik urten ondoren, Gernikako Jai-Alai pilotalekuan entzun neban lehenengoz, eta zirrara itzela eragin eustan haren kantakerak.

1980ko txapelketan, barriz, gailurra izan zen. Haren bertsojera beti gustatu izan jat: ikutu liri-koa, dramatikoa, metaforak eta abar. Seminario-tik pasatzeak be izten dau ikututxo bat, ideien mundu berezi bat. Mundu hori erreinu oso bat da eta, beharbada, horixe da batzan daukaguna. Bide horretatik, Xalbador ezagutu neban eta ha be miretsi neban. Basarri eta Uztapide, oster, beste bide batetik ezagutu ditut.

**Zu Basarri eta Uztapideren gaineko batze eta iker-lan luzea eginda zagoz, hain zuzen, gero behar harek ez eban aurrepiderik izan baina.**

Kasua izan zen ha be. 1990 aldera, Etor argitaletxeak, hainbat egileren artean, Bertsolaritzaren Historia egiteko proiektua aurkeztu eban. Tartean ginen Joxerra Gartzia, Pello Zabala, Inaxio Mujika, Jon Sarasua, Patri Urkitzu, Josean Agirre, Jesus Mari Mendizabal, Xabier Amuriza eta neu. Egileotako bakoitzak bertsolaritzaren atal bat genduan geure kargu. Niri hamargarren tomoa zegokidan eta Basarri, Uztapide eta garai-kideak nituen aztergai. 1991eko uda osoa emon neban Arantzazuko liburutegian, Basarrik, Uztapidek eta garai-kideek egindako bertsoen atzetik. Ehundaka batzuen kopia ondo ordenatua badot etxean. Baina alferrik. Proiektuak pott egin eban eta egile bakoitza bere aldetik abiatu zen. Oker ez banago, Amurizaren liburu honek beronek be proiektu hartantxe dau sorburua. Amuriza tematia izan: "halan ez badok, holan argitaratuko joat; ni ez najagok alperrik lan egiteko". Uztapide plazan kantetan ezagutu ez izanaren pena daukat. Gero, jakina, Lazkao Txiki be hor zegoen. Oso maitea neban. Eta, azkenik, bizkaitarra eta zati bat muxikarra izanda, zelan ez ezagutu eta estimatu Enbeitatarrak-eta, Sarduitarrak-eta, Iturritarrak-eta, Lopategi-eta, Muniategi-eta...

**Estutasunik edo pasatu izan dozu jente aurrean?**

Plazan estutasun orokor bat izaten neban:

aurrean ez neban inor ikusten. Norentzat kantatu behar joat? Hori urduritasun puntu handia zen niretzat. Frontoia bete jente egon eta aurrean inor be ikusi ez. Horrek bildurra emoten eustan. Lagunartean beste kontu bat zan.

**Pasadizo, zelebrekeria, pertsonaia... Zuk horretarako memoria ona daukazu eta zeozer izango dozu, ba, gogoan, zeuen ibilera martxoso samar haretatik.**

Bertsolaritza dela eta, gaupasa ederrak egin naz. Behin, Lesakan, handik agertu zen Moises Jaso zeritzon bertsolari bat. Gaintzako seme, baina Irungo udaletxeko kale-garbitzaile zen ofizioz. Izaten da, ba, kontrarioa izanez gero, hazi egiten den bertsolaria; ba, horreetarikoa zen Jaso hau. Tartean zebilen Juan Garzia be asmoeske. Uste-uste barik topo egin genduen hirurok alkarregaz, eta gaua labor geratu jakun esan beharreko denak bertsotan esateko. Giro horixe bizi izan genduen guk.

601

**Bertso-paperak be zeuek egin eta zeuek saltzen ibilita ez zagoze zuek?**

Ah, bai! Gure lehenengo bertso-paperak geuk egin eta geuk saldu genduzen. Oso polita izan zen. Orduan Iñaki Lasa zebilen gure artean, Gipuzkoako Garin herrikoa. Biok pentsatu genduen Bilbori bertso barriak jarri eta Plaza Barrian saltzea, domeka goiz batez. Badakizu, domeka goizetan Plaza Barrian itzelezko giroa izaten da: umeak kromoak aldatzen, nagusiak seilu eta txanpon bildumak osatzen, beste batzuk txori-kantariak saltzen eta abar. Horretarako, dena ondo pentsatu genduen. Sebas Angoitari (Oihartzunak musika taldekoa bera) bafleak eskatu geuntsazen, eta Arteatik ekarri. Udaletxera joan eta han baimena eskatu genduen; eta zorionez, ze, osterantzean, txori-saltzaileek aurrean aterako ginduezen. Bertso-paper saltzaile taldetxo be antolatu genduen. Tartean badakit Pello Telleria ibili zena. Gitarra,

mikrofono eta guzti kantatzen genduzen bertso-  
ok. Kantatu, eta orria 25 pezetan saltzen gen-  
duen.

**Nondik eta zertatik etorri jatzuen aldikada edo  
"harrikada" hori?**

Bertsolaritzan, bertso-papera elementu funtsez-  
koa izan da. Guk bertso-paperen esangura oso-  
agaz egin genduen hori. Ez dirua ateratzeko pre-  
mina larririk genduelako, errito guztia aplika-  
tzearren baino: papera atera, kantatu eta saldu.  
Inguruan korrutxoa egiten zen eta euskara uler-  
tzen ez ebenak be euren interpretazioa egiten  
eben. Kartel bat geunkan atzeko zutabeen itsa-  
tita, armada edo soldadutzaren kontrakoa zena,  
eta: parece que están cantando algo contra el  
ejército, eta horrelakoak entzuten genduzen.  
Baina beste batzuek ezagutu egiten ginduezen  
eta taka-taka ordaintzen eben. Orduan, Arriaga,  
antzokia ez ezik, entzute handiko jatetxea be  
bazen, eta hantxe egin genduen sei-zortzik baz-  
kari edarra, bertso-paperen kontura. Itzela izan  
zen. Ez jat inoiz ahaztuko.

**Santutxuko bertso-eskola aitatu dozu. Besterik  
ezagutu edo hartu-emonik izan zenduen?**

Ekintza moduan, Santutxukoa. Algortakoa eta  
Gernikakoa be (Arriola anaiak, Obieta, Txirri, Ola-  
rra...) ezagutu nituen, eta niretzat suberte handia  
izan zen hori. Bertsolaritza zabaltzeko aukera  
handia izan zen. Bertsoa kaletartzen lan handia  
egin genduen. Bertso-eskola, baserriko tradizioa,  
bertso ikasiak... dena batera egiten genduen.

**Aspaldion bertsoan egiten dozu ala total itzita  
zagoz?**

Lagunartean egiten dot eta, aukera gehiago iza-  
nez gero, gehiago egingo neuke. Nik neuk ezer  
baino gurago dot lagunarteko bertso giro beroa.  
Baina, zoritxarrez, sarriegitan aurkitzen naz  
horren faltan; eta, pentsetan dot, ni legez beste  
asko. Zahartu egin gara eta.

**Bilboko bertso-paperen historia bitxi horretatik  
aparte, beste bertso sortarik jarri izan dozu?**

Bai. Ale batzuk *Argia* aldizkarian argitaratu  
nituen. Beste batzuk hartzaile jakinentzat izan  
dira, eta, bertso-paperen ohiturari jarraituz,  
kartak be egin izan ditut; adibidez, anaiari,  
soldadutzan zegoela, hemengo barri emonez.  
1980-1985 bosturtekoa izan zen bertsolaritza-  
ren sugarra bizi-bizi bizi izan nebana. Gazte  
be bai eta!

**Eskolan, lagunartean, plazan, bertso-papergile,  
bertso-jartzaile... Bertsolaria be bazarela esate-  
ko, zer gehiago behar da?**

Bertsolaria edo... Bai. Algortar batek behin esan  
eban: "Hau betiko promesa dok". Horixe, pro-  
mesan gelditu gara gu betiko.

## Trino Azkoitia



*"Nik uste neban oso bertsolari ona nintzela, eta oso txarra nintzen, baina txarren artean neu nintzen onena, eta horrek bere bentajak zituen. Nik suberte handia izan dot. Nire ondoren, jente asko eta ona etorri da eta, batez be, kapaza, gauzak antolatzeko eta".*

Aspaldiko urteetan Algortan finkaturik bizi den azkoitiar hau, Euskal Herri mailan, epaimahaitik ezagutzen dau gehienbat bertsozaleak. Bizkaiko txapelketetan be, 1987an barriro abiatu zirenetik, kide jakina eta segurra dogu epaimahaian. Baina Trino, Bizkaian, behintzat, epailetza desatsegin eta eskerbako horregaitik baino gehiago, bertsoaren zale eta eragilerik handienetariko bat legez ezagutzen dogu. Bera izan da, Bizkaiko bertso-eskolen hasieran eta gaur arteko jarraipenean, partaide eta bultzatzaile nagusietarikoa. Bertso-eskolen arteko hartu-emonak be ez deutso gitxi zor Trinoren lanari eta, batik bat, bere senari, ze,


ahaleginaz gainera, Trinok aparteko dohaina izan dau gazte taldeak dinamika ekilean eta gustagarrian erooten eta zabaltzen.

**Izenagaz beti oker-ulertuak edo, behintzat, zuzen ezin ulertuak izan dozuzela entzunda gagoz.**

Bai. Algortara etorri nintzenean, kuadrila baten integratu nintzen eta inork ez eban sinisten ez Trino ez Azkoitia nintzenik. "Trino" kantuagatik zela uste eben eta "Azkoitia", ba, Azkoitikoa nintzelako. Baina nire izen-abizenak horreexek dira. Eta azkoitiarra be banaz, jakina.

**Elkarrizketa honeek bizkaieraz argitaratuko doguz. Zugaz zelan egingo dogu? Honezkero ohituta egongo zara bizkaieraz egiten, ezta?**

Bizkaieraz nik gitxi. Gero zeuek gura dozuen moduan jarri, baina nik neure erara hitz egingo deusuet. Hemen Algorta aldean, ia inork ez dau euskalkian egiten. Hemengo euskaldunen artean egiten dot bizitza, baina ia denak euskaldun barriak dira eta bizkaieraz ez dot askorik entzuten, hortxe bertso-eskolan batzuei izan ezik. Ulertzen dot bizkaiera eta gustatuko litxakit jakitea, baina, behin honezkero, ez da erraza izango.



Niko Moreno, XDZ

*Trino Azkoitia epaile-lanetan, 2004ko Bizkaiko txapelketan.*

**Algortara etorri zinela dinozu. Etorri eta geratu, gehiagoko barik, ala zelan izan zen hori?**

Ni Alemanian egon nintzen hiru urtean. Azkoitiara bueltatu nintzen eta lanean hasi behar neban. Non hasiko? Lana Bilbon aurkitu neban eta haraxe etorri nintzen. Egun baten, egunkaria hartu eta iragarki bat irakurri neban, eta sekretaria bat eskatzen eben, aleman idazten eta berbetan zekiena. Iragarkiari erantzun neutsan esanez, sekretaria ez, baina sekretario banintzela eta, beharbada, balio neikeela, eta hartu egin ninduen. Gero, soldaduzkara joan (1975ean) eta han lagun on bat egin neban, algortarra bera. Harexen bitartez etorri nintzen Algortara bizitzera. Bere kuadrilan integratu nintzen eta, harrezkero, beti bizi izan dot "kuadrila".

**Eta hortik Algortako bertso mundura be sartu zinen ala zeuk sortu zenuen?**

Beno, ni hona etorri nintzenetik, beti egon nintzen pixka bat euskal munduan sartuta. Klaseak emoten jardun neban hasieratik. Zer euskal giro zegoen pixka bat ezagutu nebanean, harrituta gelditu nintzen. Oso jende fina, jatorra eta euskaltzalea aurkitu neban, nahiz eta herria ia erabat erdalduna izan. Oso giro jatorra zegoen. Orduan neu be hortxe murgildu nintzen eta hortxe ibili nintzen: euskarazko klaseak emoten, kantak irakasten, eta, halako baten, bertsolaritza ezagutu neban Santutxuko eskolaren bitartez, eta hareekin kantuan hasi nintzen. Gero, Xabier Amurizak ikastaro bat emon eban Bilbon eta han ezagututako jenteagaz eta abar, azkenean, Algortan bizi zen Andoni Iriondo ezagutu neban. Oso bertsozalea zen eta ez eban behar izaten gauza handirik, bertsoan hasteko. Horrelaxe ezagutu neban nik Andoni. Eta askotan esaten geuntsan elkarri: Zergatik ez joagu bertso-eskola bat edo horrelako zerbait hementxe egiten? Bera ilusinoz hasi zen bere lagunei eta ezagunei deitzen eta horrelaxe hasi ginen bilzen. Lehenengo, elkarren ezagunez osatutako

talde bat hasi ginen, metodo handirik barik. Ni Xabierrengandik ikasita nengoen errimak eta neurriak eta horrelako gauzak lantzen, eta botila ardao bat edo bi erdian jarri, eta ekin. Botilak amaitzen zirenean, agur. Horixe zen gure metodoa eta denpora neurria.

**Ekin bertsoari eta ekin botilari? Hori baino metodologia gehiago be erabiliko zenuen zeure "klase" hareetan.**

Ba, nik pixka bat jarraitzen nuena Xabier Amurizagandik ikasia zen: errimak, neurriak, ariketak...

**Baina guk informazinoa dogunetik, hori ez ei jatzun gehiegi gustatzen. Zu "aktiboa" ei zinen. Kantatzearen aldekoa.**

Bai, errimak eta abar lantzen genduzen, baina denporarik gehiena kantuan pasatzen genduen. Eta klase doblea egiten genduen. Lehenengoa botila ardoak irauten eban arte, eta gero tabernara pasatzen ginen eta hor ez zegoen errimarik-eta lanzerik.

**Horixe ei zen zuri asko gustetan jatzuna. Teorriak eta paperak eta hori, tamainuan. Zurea praktika ei zen. Kantua.**

Gure klaseetan beti egin dogu hori, eta uste dot oraintxe be horrelaxe jarraitzen dabela. Ondorengo onak izan ditut, ni baino hobeak, baina uste dot neure ildotik jarraitzen dabela.

**Askotan ikusi zaitugu zaparroz inguratuta, ez zeu zaparroa zarelako, baina hortxe, beti gaztez eta gaztetxo inguraturik.**

Egia da, bai. Horrexegatik esaten dot beti gazte kontserbatzen nazela. Beti gaztez inguratuta ibiltzen naz. Suberte horixe izan dot. Ez dakit bertsoak berak daukan alderdi alegre hori. Arintasun hori gazteen artean gehiago izaten da zaharren artean baino, eta hori medizina ona izan da, gazte kontserbatzeko. Bertsolaritziari lotuta edo bertsolaritza, jente gaztea dabil,

geroago eta gazteagoa, eta nik neure inguruan be ikusten dot. Klaseetan eta, beti izan da jente gaztea, baina orain... Esate baterako, orain Bizkaiko txapelketan gabilz eta epaimahaian, zaharretarik, neu bakarrik gelditzen nazela uste dot, eta epaimahaian be mutikoz inguraturik nago. Ia lotsatu be egiten naz.

**Lotsatu zergaitik? Horrek badauka bere xarma puntua, ezta? Ez al da adierazgarria, esanguratsua?**

Gertatzen dena da, zuk zeure lekua gordetzen badozu, eta zeure lekuari eusten badeutsazu, besteak aurrera doazela. Eta gazteak badatoz eta zuk edo eurekin bat egiten dozu, edo, bestela, erretiratu egin behar dozu. Eta ni oraindino erretiratu ez naz egin. Ahal dodan neurrian, saltsa horretan segitzen dot. Subertea izan dot ni beti, bai euskal mogimenduan, bai bertsolari-tzan sartzeko, bai bestean lasai ibiltzeko. Neure lanetik atera dot bizitzeko lain eta ez dot izan problemarik, neure hobby maite horreetara dedikatzeko. Horrek bentaja handia emoten dau eta beste askok ez dabe hori izan.

**Horrenbesteko bertsozaletasuna nondik jatortzu?**

Gure ama beti ibiltzen zen bertso zaharrak kantatzen. Bertso zahar pila zekien eta kantatu egiten zituen, lanean, sukaldean..., eta hortik. Hamar urtegaz, Arantzazura joan nintzen eta lagun batzuk banituen, bertsoan jarduten ebenak (Nikolas Segurola, Naparra) eta enbeitatarrak (Abel oso ezaguna zen, Moises be bai). Txapelketak garai hartan irratiz entzuten genduzen, adi-adi. Holantxe sortu zen nire zaletasuna.

**Zuk zeuk garai haretan bertsorik lantzen zenuen?**

Bai. Ez horrela sistematikoki, baina bertso saioak be egiten genduzen Arantzazun. Ni Arantzazuko jantokiko pulpitutik kantatuta nago, eta

urtearen azkenean ohitura izan zen hori. Beti hasten ziren kaparrada emoten, kantatu egin behar nebala eta abar.

**Eta zuri gustatu be bai ala erdi derrigorrean? Ala plaza-gizontxo zinen?**

Bai, niri gustatu, ikaragarri gustatzen jatan kantatzea. Uste dot lehen orain baino errazago kantatzen nebala. Orduan neukan ona zen ez nintzela konturatzen noiz gaizki egiten neban, eta hori abantaila handia da: gaizki egiteko bildurrik ez izatea. Gaur be ikusten ditut hemen eskolakoak horrela, eta bai ondo pasatzen dabena. Eta kakoa horixe da: ez daukie gaizki egiteko bildurrik.

**Horixe izan ei zen zure lemetariko bat: "bertso ona nahiz txarra, bota! Ez isildu!". Ez da holan?**

Bai. Nik izan neban etapa luze bat horretan, bertso ona eta zer txarra zer zen konturatu nintzen arte. Eta orduan kitto. Baina horretarako denpora luzea pasatu neban. Gu hemen Algortan hasi ginenean, eta Santutxun agertu nintzenean, nik uste neban oso bertsolari ona nintzela, eta oso txarra nintzen, baina txarren artean neu nintzen onena, eta horrek bere bentajak zituen. Eta oso ondo pasatzen genduen, isildu be egiten ez ginelako. Beti txanda hartu ezinik!

**Bilboko Gernikesako afarietan egoten zinen?**

Bai. Santutxuko eskola izaten zen nukleoa, eta gero Xabier Amurizaren ikastaroan ezagututako jentea; Algortako eskolatik be joaten zen jentea. Oso giro jatorra benetan. Eta penagarria izan zen: taberna ha Bilboko urioletan amaitu zen. Gernikesa orduantxe apurtu zen. Gero beste nonbait hasi ginen, baina ez eban jarraipenik izan. Pena itzela izan zen.

**Eta horren guztiaren helburua zein izan zen, zure buruan, behintzat?**

Ondo pasatzea, gozatzea, lagun on pila bat



elkartzea. Asko disfrutatzen genduen. Gainera, oso jente bariatua elkartzen ginen: Santurtzitik, Bilbotik, Mungiatik, Gernikatik... Eta hango "bertso-etsaiak". Behin gogoratzen naz Jon Aurrek eta biok zenbat bertso bota ete geuntsan elkarri, adarra jotzen eta ikaragarriak esaten. Eta bertsoak horixe dau ona. Bestela esaten ez direnak esan egiten direla. Dena baleko.

#### **Epaimahaiko be ibili zara eta zabilz.**

Bai. Hori "aro modernoko" txapelketak hasi zirenean sortu zen, Euskaltzainditik kanpora. Epaimahaikoak behar ziren, eta hain garbia izan behar eban, hain demokratikoa, hain edegia, ea nor atrebitzen zen horra joaten. Eskatzen hasi ziren eta, bertsolarien konfiantza osoa zegoela eta, orduan neu be apuntatu egin nintzen, edo apuntatu egin nindueen, eta hortxe hasi nintzen. Txapelketa haretan nota bistan jarrita izaten zen. A zer espektakulua emoten genduen guk han! Handik aurrera, Euskal Herriko pare bat txapelketatan izan naz eta gero, Bizkaikoe-tan be, beti izan naiz. Oraintxe be hor nago.

#### **Epaimahaian zagozanean, zein da zeure gustu edo balorapen pertsonala, arauetatik kanpora?**

Niri bertso osoa gustatzen jat. Tradizional ikutuko hori be bai, euskara gozoan eta ziriz datorrena, eta euskara polita dakarrena goitik beheraino. Niri asko emoten deust oraindino tradizino- bertsoak, eta uste dot ona dela epaimahaian alde horretatik be pixka bat egotea. Ez hobea edo txar- ragoa delako, epaimahaian gustu diferentek egotea konpletoagoa delako baino. Eta gero nik inoiz ez dot bildurrik izan, ez 9 emoteko, ez 1 emoteko. Iruditzen jatana emoten dot eta kitto. Horrexegatik ibiltzen naiz hain salto handiak emonez. Baina gustura, bai bertsolaritza zaharretik bizi eta hartu izan dodanagaz, bai barritik ikasi dodanagaz. Ze barritik ikastea be tokatu jat. Xabier Amuriza izan da gure maisua eta hor barritik edan dogu gehiago zaharretik baino.

#### **Txapelketaren batean parte hartu izan dozu?**

Ez. Ni orduantxe hasi nintzen bertso ona eta zer txarra zer zen ikasten. Txapelketan ez dot inoiz parterik hartu. Errespetu handiegia zen. Plazan kantatu, bai. Hori, aukera neban guztian.

#### **Zelan ikusten dozu azkenengo 25 bat urteotako bilakaera?**

Oso positiboa dela uste dot. Lehengo bertsolariak ikusi eta gaurkoak ikusi, uste dot asko aurreratu dela, izenik esan barik. Bai gaiak erabiltzeko aldetik, bai teknika, bai barrikuntzak sortze aldetik, uste dot asko aurreratu dela. Garai bateko bertsolariak, nik lehenen ezagutu nituenak, Uztapide eta Basarri eta horreek ziren. Txapelketak irratiz entzuten genduzen. Ni Uztapideren aldekoa nintzen. Baina oso eboluzio positiboa egon da. Orduan punta-puntakoak bi ziren; gaur, ostera, askoz gehiago. Zabaldu egin da. Baserritik unibertsitatera pasatzeak be aldakuntza barria ekarri dau.

#### **Zuek bertso-eskolen inguruan ibiliak zarie. Garai baten, kritikak egon ziren: balio dabela, ez dabela...**

Halan da, bai. Eta normala zen hori sortzea, ze, jakina, garai haretan bertsolaria kontsideratzen zen pixka bat Espiritu Santuak inspiratutako pertsona bat, ezta? Bertsoa ikasi leitekeela eta edonork ikasi leikeela eta hori esatea edo irakastea kolpe handia zen. Uste dot normalak izan zirela kritika haiek, baina laster joan ziren. Fundamentu barik gelditu ziren, historiak eta errealtateak erakutsi dauelako eskolan bertsoan ikasi leitekeela, ze hori berbetan legez da. Ahalmena behar da, baina zeuk be egin behar dozu zerbait; bestela ez dau ezertarako balio. Hor dagoz eskola-ikastolatetik sortutako txapeldunak. Ea nork esaten dauen horreek ez direla bertsolariak. Gaur egun ez dago horren diskusinorik; demonstratuta dago. Ni entzunda nago Amurizagaitik: Hori

bertsolaria al da, ba? Eta gaur egun bere miresle handiak dira. Baina horrelakoxe gauzak esaten ziren.

**Zuri berbetan entzunda, badirudi bertsolaritza egundoko poz iturria dela, ia-ia zorionaren eskusiban patentatzeko modukoa.**

Nik sentitzen dodana dinot. Eskusiban ez dakit, baina beti ibili naz oso pozik bertsolaritzan, bai plazetan eta, batez be, eskolan legez, koadrilan juntatzen ginenean, geure plazatxoak egiten. Garai hareetan, Ezkerraldean, Basaurin, Santurtzin... bertso saioak egiten hasi ziren. Ez eben sartzen "profesionalik"; geu joaten ginen betegarri. Hobeto esanda, bizigarri sartzen ginduen. Jentea hurbiltzen zen eta euskal giroa sortzen zen, bai gure inguruan, bai geure artean. Oso gauza polita izan zen inguruko erdaldun girorako, Ezkerraldean, batez be. Eta baita Plentzia, Mungia eta inguru horretarako be. Guk Mungiaiko eskolagaz beti konexino zuzena izan dogu. Bertsolaritza, orokorrean, oso pozgarria izan da. Ondo pasatzea gauza normala da. Ez da gauza eszeptzionala izan.

**Gaur egun jarraitzen dozu Algortako Eskolan?**

Ez, ez. Nik suberte handia izan dot. Nire ondoren, jente asko eta ona etorri da eta, batez be, kapaza, Joseba Santxo eta; gauzak antolatzeko eta. Eragileak, baina ez talde txikienak, makro-organizazio baten baino. Gaur egun, Algortako eskolakoek ikutzen daben ume kopurua uste dot 1.500 inguru dela. Eta hortik, halako itsasoa dagoen lekuan, halako izebergak sortzen dira, eta batzuk punta-puntakoak: Payatarrak eta beste gaztetxo batzuk eta abar. Nire subertea da jente ona eta kapaza dagoela. Parte zuzenik ez dot hartzen eskolako ekintzetan, lanagatik ezin dodalako, baina afarrietan edo bestelako ekintzetan, beti parte hartzen dot. Eta, nahiz eta eduki handirik ez izan, izen legez, oraindino neu naz Algortako Eskolako presidentea.

**Anekdotarik ez ei dozu gogoratzen, baina zu askotan ibili izan zara kantari goizaldera arte.**


Hori niretzat ez da anekdota; hori normala izan da. Lehengo egunean, Lezaman izan zen eskualdeko kanporaketa, eta gero hantxe elkartu ginen betikoak eta goizeko seirak arte isildu barik ekin geuntsan. Nabarniztarren sisteman aritu ginen: bat jartzen da mahai edo sila gainean, eta besteak behean. Goikoak bertsoa botatzen dau eta, beheko norbaitek ontzen badau, publikoak erabagitzen dau nork igon behar dauen gora. Goikoa jaitsi eta beste bat gora. Nik Nabarnizen egiten eben txapelketa baten ezagutu neban hau. Gaurko eskolakoentzat barria da eta asko gustatzen jake.

**Emakumerik ibili izan da zuen inguruan?**

Gehienak ia. Nire garaian, hamarretik zazpi neska gazteak ziren. Neskatila gazte politikak, animatuak, alegreak zegoen han, eta orduan mutilak, jakina, ingurura biltzen ziren, eta eskola hazten-hazten joan zen.

**Bertsotan mailarik lortu eban neskaren batek?**

Bai. Gertatzen dena garai ha haretantxe geldit-



A. Plaza

Trino Azkoitia, etxeko bulegoan, 2005ean.


tu zela. Eskolan ibili ziren bitartean, saioak eta egiten zitueen. Iriondotarrak (Nagorek ondo egiten eban, Uxunek eta Leirek be bai), Miren Kareaga... Honeek plazetan kantatuak dira. Gero puntu bateraino heldu ziren eta beste gauza batzuetara dedikatu ziren. Oraintxe be bertsozale badira, baina bertsolari ez. Gaur egun be, ondo datozenak uste dot neskak direla: hiru-lau bat badagoz. Horrelakoak ikusten ditudan bakotxean, izugarrizko poza hartzen dot. Nik ez dot zerikusi zuzenik honeekin, baina katea neugaz hasi zen, eta batzuetan pentsatzen dot zerbait ona be egin dodala bizitza honetan. Merezi izan dau.

## Jose Ramon Etxebarria



*"Nik ordurako be buruan pasatuta neukan dena ikasi daitekeela. Edozer ikasi daiteke. Beste gauzak ikastekoak badira, zergaitik ez da ikasiko bertsogintza be? Eta txapelketetan oso paper duina egin genduen".*

1948eko maiatzaren 27an Gernika jaio zen fisikari, euskalgin, ekintzaile eta langile nekagatx honek ia itaundu barik daki zer esan behar dauen. Azalpenetan argia eta zehatza da, lege fisikoak azaltzen balihardu legez. Bertsoaritzan, txapelketetan parte hartze eta guzti, egin zituen urteak ez ziren oharkabean pasatu, batez be, pentsakera tradizionalako bertsozale eta kritikarientzat. Santutxuko bertso-eskolaren sorreran eta garapenean, barriz, eta, oro har, bertso-eskolen mogimenduan, gizon honen ekarpena eta antolatzeo ahalmena



Argia aldizkaria

J. Etxebarria UEUn egindako bertso-saioan. Atzean ezkerretik hasita, X. Zorrotza, I. Antiguedad, T. Azkoitia eta J. L. Goikoetxea.

funtsezkoak izan ziren. Eta arlo bietan, zen lako gizona eta pertsonaia zelako, eta izaten jarraitzen dauelako, bere lekukotza guztiz jakingarria eta irrepetiblea da.

### **Zu lako zientzialari batek zer egiten eban, bertsoaritzan sartuta?**

Ene! Zer egin behar neban, ba? Neu be pertsona naz, beste guztiak legez.

### **Pertsona bai, baina oso beste mundu diferente bat bizi izan zenduen zuk.**

Bai, ba! Baina pertsonak mila aspektu daukaz. Niri zientzia gustetan jat, neure lanbidea da, gozatu egiten dot, baina zientziagaz bakarrik ez dot gozetan. Nik gozetan neban, antzina, futboleant egiten, orain ez dot egiten baina; mendira joaten; nire afizinoa mendira joatea da. Ez dauka zerikusirik batak besateagaz. Euskarazko gauzekin, poesiagaz, literaturagaz, nik gozatu egiten dot. Eta bertsoan egin dot, gozatu dodalako. Puntu. Ez dago beste esplikazinerik.

### **Normalean, zientzia eta artea elkarrengandik aparte samar ikusi ohi dira.**

Ba, oker. Zientziak non dauka inkompatibilitaterik arteagaz? Inon be ez. Gertatzen dena da ez

dozula pretenditu behar gauza guztietan onena izaterik, eta nik pretentsino hori ez daukat. Nik bertsoan egin dot, euskara maite nebalako eta euskaragaz jokatzeari gustetan jatalako. Kirol bat ez da? Ba, kirola. Gero, egin behar zelako, euskaltzaletasuna bultzatzeko eta abar, hori be bai. Eta mundu polita izan da, ikusteko eta kantetako. Bertso zaharrak eta barriak asko dagoz gustua emoten dabenak. Eta kantatzea bera be gozamen bat da.

**Baina zu, bertsolaritzan, artean gizon heldua zinela sartu zinen. Zelan edo nondik hasi zinen gustu hori hartzen edo, beharbada, lehendik zenkarren gustua hain entregaturik lantzen?**

Kontua da Santutxun euskarazko klaseak emotea, gau-eskolak eta, neuri tokatu jatala, 1973an edo 1974an. Alfabetatze ikastaroak ziren, batez be. Jentea azkenean alfabetaturik geratzen zen eta ez zeukan interesik beste gauzarik egiteko. Eta orduan pentsetan ibili ginen zer egin zeitekeen, jentea animetako. Ideia bat izan zen *Anaitasuna*-rako artikuluak-eta idaztea, eta beste ideia bat izan zen kanta zahar batzuk eta bertso zahar batzuk eta kantetan ikastea. Eta horrelaxe hasi ginen bertsolaritzagaz.

**Bertsolaritzagaz hasi zinien, baina zertan? Zer eta zelan egiten zenuen edo zer lantzen zenuen klaseetan?**

Disko batzuk baziren, Valverde, Letek eta horrelakoek egindakoak, nik uste, Txirrita, Xinpelar eta horrelako klasikoen bertsoekin. Ederra zen. Bertsoak betikoak ziren, eta hareexek entzuten, ikasten eta kantetan hasi ginen.

**Hor oraindino ez zegoen bertso-eskolarik. Ala?**

Ez. Hori alfabetatze klaseetako kontua zen. Baina orduan beste gauza bat gertatu zen. Xabier Amuriza *Hitzaren Kirol Nazionala*, *Errima Hiztegia* eta horrelakoak prestatzen ari zen, eta orduan Santutxuko batek eta beste batek, eta Jon Aurrek eta

alfabetatze kanpainaren inguruan zebilzenek eskatu eutsien Xabierri ikastaro bat emoteko, eta ikastaro hori orain Euskal Museoa dagoen lekuan izan genduen, Etxebarrieta plazan. Holan hamarhamabi bat laguni, ikastaro berezi bat emon euskun, bertsolaritzaren teknikari buruz. Zer zen neurria eta neurriaren klabea, errima eta errimaren hiztegia zelan antolatuta zeukan. Nik uste dot geugaz espermentatu zituela berak idatzi zituen bi edo hiru liburu horreek. Nik uste dot gu bere entzuleak izan ginela, berak idatzita zeukazen edo idazten zebilenen inguruan, nik ez dakit, hori berak jakingo dau, eta geu izan ginen espermentuko kuiak. Eta halantxe hasi ginen, ni, behintzat, bertso teknikaren tripak ikusten eta ikasten.

**Ha izan zen bertsoagazko zure lehenengo hartu-emon?**

Lehenen-lehenengoa. Guztiz lehenengoa.

**Artean, beste aztarrenik ez zeunkan inondik?**

Ez. Nik egiten nebana kantatzea zen, kantatzea gustatzen jatan eta. Gure etxean oso kantariak ginen. Amak kanta zaharrak-eta kantatzen zituen; arreba bat daukat koro-zuzendaria dena; neba-arreben artean be asko kantetan genduen, ez edozelan, gainera; gustetan jakun teknika, apur bat musikarena; eta halan bertsoak be bai, baina bertsoak ez hainbeste. Lehenengo kontaktu sendo samarra Leteren disko horrexena izango zen, zer musika politak zegoen, eta bertsoak be, joño, zeozer esaten ebela eta ondo kontatutako gauzak zirela, eta horrelaxe hasi ginen guraria hartzen zeozer gehiagorena. Eta Xabierrek emon euskun ikastaroa ikasketa moduko bat izan zen.

**Zer ikasteko? Zer lantzen zenuen?**

Ba, teknika, batik bat. Zortziko handia, txikia, eta abar, neurriaren klabeak, errimaren kakoak, oin sortak, eta hareekin bertsoak egiten saiatu eta abar.

### Bertsolaritza "berezkoa" zela eta horrelakorik ez zeunkien entzunda?

Entzunda bai, baina nik ordurako be buruan pasatuta neukan dena ikasi daitekeela. Edozer ikasi daiteke. Lan egin behar da. Orduan eztabaida handia zegoen ea bertsolaria "jaio" ala "egin" egiten den. Gure hipotesia zen "egin" egiten dela. Jakina, lehenengo jaió egin behar da. Beste gauzak ikastekoak badira, zergaitik ez da ikasiko bertsogintza be? Beste kontu bat da puntako bertsolaria izatea, baina horrela, lagun artean eta bertso batzuk botatzeko? Hori edonork. Ez dela horrela? Ba, aprobatu egingo dogu, eta horretarako ikastaro bat egingo dogu, eta gero ikusi. Eta halan, Xabierrek emondako apunteekin eta, kantetan be hasi ginen, zergaitik ez, ba? Gu ez ginen bertsolariak, baina geure artean kantatzeko, zergaitik ez? Eta gehienak helduak ginen. Nik orduan hogeita hamar urtetik gora neukan. Gehienak Santutxu ingurukoak ginen. Gero etorri ziren beste batzuk be, Bizkaitik eta Gipuzkoatik eta. Pertsona helduak ginen, bat Jon Aurre. Batzuk bertsolaritzagaz zerikusi gehiago izan ebenak, baina ekimena Santutxukoona izan zen. Gehienbat, ni neu eta Joserra Bilbao, baina beste batzuk be bai, Iñaki Antigüedad... denak helduak. Bagenkien hor Gipuzkoa aldean bazela hamar-hamabi urtekoen eskola bat, Sarasua anaiak eta, baina gu horreek baino dezente zaharragoak ginen. Gure jarrera zen bertsoaren sekretu batzuk ikasi, aprobatu eta geure artean gozatea, ez gauza serioetarako bakarrik, parrandan eta lagunartean ibiltzeko baino. Hasiera horixe izan zen. Eta gero laguntasuna, ba, Xabierrek emondako ikastaroa laguntasun itzela izan zen.

### Baina hori ikastaro bat izan zen eta ikastaroa amaitu egingo zen. Hor oraindino ez zegoen Santutxuko bertso-eskolarik. Ala bai?

Ez. Oraindino ez, baina berbertan zen, ze gero neu hasi nintzen irakasle. Ikastaroko material haregaz eta neuk gehitzen neutsan apurragaz,

talde bat egin eta astean behin batzen hasi ginen. Nik diskoko bertsoak entzun, hautatu, eta gero kantatu egiten genduzen. Neurriari, errimari eta abarri buruz nozino batzuk emoten nituen, eta gero kantatu egiten genduen. Lehenengo idatzita eta gero idatziak kantatu. Gero bertso-afariak egiten hasi ginen, hilean behin edo, Alde Zaharreko Gernikesa tabernan, eta hasieran etortzen ziren Xabier Amuriza bera, Jon Lopategi eta holan. Hareei entzun eta gero, eurekin nahastean, edo geure kontura, geuk be kantatu egiten genduen, zarraparran, eta ederto pasetan genduen.

### Eta bat-batean noiz edo zelan hasi zinen plazan?

Beno, horrela hasi eta gero, bertso-eskolan bertso saioak antolatzen hasi ginen Santutxun eta Bilbon, Bilboko udaletxeagaz kontaktuan, eta Udabarriko Saioak egin genduzen, lehenengoak. Bertso saiotxo batzuk antolatu genduzen. Lehenengo-lehenengo, antolatzaille izan ginen. Bilboko saiorik gehienak Santutxuko eskolak antolatzen zituen. Eta gero gogoratzen naz nik publikoan zelan debutatu neban, desastrea, baina beno. Xabier Amuriza eta Jon Lopategi, eta besteren bat, ekarri genduzen Santutxuko Basarartera. Nik eurekin batera kantatu neban agurra. Ez naz gogoratzen zein zen agurra, baina detaille bat gogoan daukat. Zortziko handi bat zen eta hirugarren puntuan, pot, blokeatuta geratu nintzen. Amaiera jaia edo horrelako zeozer zen. Eta albotik Lopategik esan eustan: Bizkaia, Bizkaia! Eta, halantxe, zelan edo halan amaitu neban bertsoa. Horixe izan zen nire publiko aurreko lehenengo saioa.

### Ez zenduen min handiegirik hartu, antza, ze plazara ez ezik, txapelketetara be aurkezten hasi zinen.

Hasi ginen, ez nintzen bakarra izan eta. Eskolaren bigarren urtea edo izango zela uste dot. Euskal Herriko txapelketa antolatu zen, oker ez

banago, Xabierrek irabazi eban bigarrena, ze 1980koa zerrenda itxia izan zen. 1982koa, beraz. Bertsolari eskolan, dozena bat lagun inguru ginen, denak pertsona helduak, eta kurtsoan esan genduen: "Mekasuenlamar! Presentatu egin behar joagu!". Eta hamar apuntatu ginen. Eskolako hamar! Baina hori ez da mirari. Miraria da hiruk lehenengo kanporaketa pasatu egin genduela. Hamar aurkeztu ginen eta ez genduen erridikulurik inork be egin. Eta benetan dinotsut, gu baino bertsolari eskasagoak baziren. Hori egia da. Eta, gainera, hiru aurrera pasatu gu! Uste dot izan ginela, uste dot, eh, Iñaki Lasa "Garin", Koldo Tapia eta hirugarrena neu. Hasieran hirurogei edo ziren, eta hirurogei horreetatik, gu hiru pasatu ginen. Bigarren kanporaketa zen, batzuk aukeratzeko, sailkatuta zegozen izen handiko bertsolariekin aurrera egiteko. Orduantxe izan zen Lizaso, Murua eta horreek denak be lehenengoz aurkezten zirena. Ba, kanporaketa horretan be oso paper ona egin genduen. Ez ginen sailkatu, baina sei bakarrik aukeratu zituen, eta eurak oso onak, jakina, normala. Orduan epaimahaiko be Euskaltzaindiak egiten eban eta nik bakarrik dakit Euskaltzaindiko batzuek esana: "Jo! Paper ona! Kasik-kasik klasifikatu eta dena egin zarie!". Kasik. Nik ez dakit zenbatgarren geratu ginen. Ez daukat interesik. Baina nik dinotsut oso paper duina egin genduela. Gero hurrengotan be aurkeztu ginen, 1986an izango zen, eta orduan be oso paper ona egin genduen. Ordurako baginen bertsolari. Ez dot esango puntakoak, baina edonorekin kantatzeko modukoak bai, isildu barik ekitekoak eta erridikulu handirik ez egitekoak. Eta noizean behin bertso politikak egin. Orduan sailkapen diferentea izan zen, herrialdeka. Lehenengo kanporaketa, gurea, Bizkaian izan zen, eta gu barriro aurkeztu ginen. Bizkaian paper ona egin genduen eta sailkatu egin ginen, Bizkaiko ekipo modura, eta hori guretzat gauza handia izan zen. Gero fina-

lerdiak etorri ziren eta hor, jakina, ez ginen aurrera joan, baina lan polita egin genduen. Eta hortxe amaitu zen gure historia.

### **Historia amaitu? Esakune fuerte samarra ez al da hori?**

Gure bertsotarako berotasun ha esan gura dot. Nirea, behintzat. 1986an, politikan izan neban eginbearra. Mahai Nazionalean sartu nintzen eta esan neban ezin nebala jarraitu eta erreleboa Jose Ramon Bilbaori pasatu neutsan. Bera geratu zen arduradun eta antolatzaile, eta horregaz batera esan neban: "Beno, nik gehiago ez dot kantatuko. Bertsolari eta irakasle moduan neure lana egin dot, ni baino hobeak badagoz; oso pozik nago, gozatu dot mundu horretan, baina, aurrerantzean, hainbeste gauza batera ezin ditut eroan".

### **Zure izena, sasoi haretan, nahikoa polemikoa izan zen, zure bertsogintza nahikoa artifiziala zela eta abar.**

Izan zen polemika bat, bai, nik ez neutsan jaramon handirik egin baina. Ez jatan gustatu, baina niretzat hortxe geratu zen. Nik ez neukan saltsa horretan sartzeko interesik, hori baino ardura handiagoak neukazen eta. Euskitze izan zela uste dot, eta esaten eben: "Joe! Horreek Bilbokoek oso artifizial kantatzen dabe", eta abar. Nik esan neban: "Nik kantatu dot publikoan, ez dot ridikulurik egin, kantatzeko aukera euki dot bertsolari on guztiekin. Hobeak direna badakit. Kantatu dot Bizkaiko guztiekin, Xabierrekin, Jonekin, enbeitatar guztiekin, Lizaso, Lazkano... denekin kantatu dot. Joe! Zer behar dot gehiago?". Isildu egin nintzen. Egin genduen egin genduen eta kito. Gero, orain urte batzuk, ez hainbeste, Jon Lopategik egin eustan autorpen bat, niretzat pozgarria izan zena, justu aldrebeskoa. Esan eustan: "Ez deusut inoiz esan, baina zuri horrelako kritika egiteak itzelezko mina emon eustan. Esaten eben zuen kantakera artifi-

ziala zela, eta, oster, niretzat, zuk estilo zahar-  
rean kantatzen zenduen, bertsolarien estilo  
zaharrean". Gitxi gorabehera horixe esan eustan  
eta hori niretzat piropo handia izan zen.

#### **Kantakera artifizialaren azpian, esaten ausar- tzen ez ziren beste zeozer ez zen estalduko?**

Ez dakit. Nik beti pentsetan dot: "Begitu, nik  
kantakera artifizialik ez dot uste, ze, beste edo-  
zer izan leiteke, baina nik kantetan badakit;  
beti kantatu izan dot". Niri gustetan jat bertso-  
lariak kantatu daiela, ez ahots onagaz baka-  
rrik, desentonatu barik eta erritmo onagaz  
baino. Ez jat bape gustetan batzuek egiten  
daben moduan, oraintxe astiro eta oraintxe  
bizkor. Nik kantetan badakit. Desentonatu ez  
dot inoiz egiten. Beste bertsolari askok des-  
tonatu egiten dabe eta askok niri min emoten  
deust belarrira. Ni desentonatu barik eta ondo  
kantetan saiatzen nintzen. Zergaitik esan eben  
harek gu artifizialak ginela? Ba, orduan ez  
zegoelako protestarik.

#### **Ez eben esan gurako bertsoak egiteko era, arra- zoiak lotzeko modua, hizkera, horrelako zer- bait?**

Baleiteke, ze, jakina, ni eurentzat probokazino bat  
nintzen, bertsolari bat, 30 urtetik gora, ideiarik be  
ez zeukana... beno, nik euskaraz banenkien, hori-  
xe zen abantaila, eta euskaraz jakinda, abildade  
apur bat badaukazu, ze berba egiteko, nik ez dau-  
kat problemarik, kantatu be egin leiteke, kanta-  
tzea berba egitea lakoa da eta. Guk orduan frogatu  
genduen praktikan ikasi egiten dela. Beste  
kontu bat da bertsolariarik onena edo ona izatea.  
Horretarako, beste kualitate batzuk euki behar  
dozuz: sentimendua, zorrotasuna, kontatzeko  
modua, bihotza, esperientzia... baina hori inork  
be ez dauka garantizaturik. Nik uste dot, batez be,  
eskola klasikokoak muzindu zirela gugaz, bertso-  
laria "jaio" egiten delakoaren aldekoak. Jode! Jaio  
neu be egin naz! Baina hori ez da kontua.

#### **Berba egiten, behintzat, ez dot uste inork erraz- tasunik eta argitasunik zuri ukatu leikizunik.**

Ez dakit, ba, ze gero, Jon Lopategik hori esan-  
da... Bizkaitik, jakina. Hori be ulertu behar da.  
Ni bizkaitarra naz, berba egiteko modua be bai,  
eta bertsolarien batzarretan-eta, Bertsolari  
Elkartea sortu zenean, denak ahalegintzen ziren  
ez dakit zelan egiten, eta nik, berba egiten neba-  
nean, normal egiten neban. Nik badakit euska-  
ra batuan berba egiten, eta egiten dot, baina  
bertsolarien batzarretan etxeko moduan egiten  
neban, eta igual hori be ez jaken gustatuko.  
Beno, euren problema da. Ni horretaz ez naz  
kezkatzen; paso egiten dot. Orduan, Jon Lopa-  
tegi hori esatea niretzat oso pozgarria izan zen:  
"Zer esaten jabilzak horreek, gure kantakera  
horixe dok eta?". Holako zeozer esan eustan, eta  
nigaz ez zeukan zorrik hori esateko, baina poz  
handia emon eustan.

#### **Sasoi ha joan zen. Harrezkero, hamaika arlotan ikusi zaitugu, baita hamaika burrukatan be. Gaur egun, zer jarraipen egiten deutzazu ber- tsolaritzari?**

Distantziatik. Txapelketak eta dagozenez, inte-  
resez irakurtzen ditut datuak eta, batzuetan,  
bertsoak. Esate baterako, azkeneko Nafarroako  
txapelketan, harritu nau Xabier Silbeirak, lagu-



*Ezkerretik, atzean, I. Ajuria, J. Lopategi, J. Etxebarria,  
J. Erbeita eta J. R. Etxebarria, eta aurrean, Txiplas,  
J. Arriola eta X. Amuriza. 1987ko Gernikako Aberri Egunean.*



na dodalako. Xabier Silbeira nigaz egon zen gose-greban. Majoa, jatorra, berezia da. Eta kantatu zituen bertso batzuk irakurri nituenean, harrিতuta geratu nintzen: "Baina zelan? Hau guztia barruan zeukan mutil horrek?". Ze horrek barrutik urteten dau. Holantxe ikusten dot, distantziatik. Ez naz obsesionetan. Ez naz saio askotara joaten. Orain, esaterako, Santxutxun antolatu ditue Bilboko udabarriko saioak, eta horreek denak entzuten ditut, etxetik hur be badagoz eta. Datorren zapatu eguerdian be hantxe izango naz. Baina gozatzeraz joaten naz; ez noa sen kritikoz. Gainera, faboritismorik ez jat bape gustetan. Pozten naz, gazte bat datorrenean. Esaterako, lehengo zapatuan, agertu ez zen bertsolari baten ordeaz, han zegoen gazte-gazte-txo batek kantatu eban, eta harrিতuta itzi ninduen. Xabier Paia zen. Zer ondo eta zer txukun egin eban. Ez naz obsesionetan bertsoekin. Gustuko ditut, jarraitzen dot, informazinoa jasotzen dot, Bertsozale Elkartekoa naz, baina ez naz saltsetan sartzen.

#### **Zuk zeurea egin zenduela eta kito, beraz?**

Ba, bai. Nik neurea egin neban eta, bertsolaritza aurrera doala ikusita, pozik.

#### **Une larririk, edo bereziki pozgarririk, edo beste zerbait aitagarrikerik gelditu jatzu gogoan?**

Une pozgarriak, asko eta oso onak. Lagunekin beti pozik. Zerbait aitagarria... oraintxe gogoratu jat bat, oso esanguratsua. Gogoratzen naz zelan geroago, ikastolentzat-eta, hainbeste ikastaro antolatu genduen, eta, jakina, komatxo artean, neu bihurtu nintzen ikastaro emoten espezialista, eta, hain zuzen, irakasleentzako bertsolaritza ikastaroa neuk emoten neban. Gogoratzen naz gero hor epaimahaiko dagozen batzuk eta beste zenbait aditu nire ikasle izanak direla, eta hori bitxia eta pozgarria da, ezta? Ba, begitu, bertsolaritza beste alde on bat ikusi neban han. Niretzat, lehenengotan, bertsolariak


aparteko pertsonak ziren, abildade espezialekoak, estraterrestreak. Gero ikusi dot bertsolariarik onenek be makaluneak dituela, eta hori pozgarria da. Lehen esan deusut nire lehenengo plazan zer gertatu jatan, bertsoaren erdian ahaztu eta hori. Ba, gero, bertsolariarik onenak be lantzean huts bat egiten ikusi ditut, eta hori ez da kritika, pozgarria baino. Esaten ari nintzen ikastaro horretara gogoratzen naz, ez dakit Orion, edo Zumaian edo, Gipuzkoako kostaldean, behintzat, orduko sasoiaren ondoen zebilzen bertsolariak ekarri nituela. Erakustaldi bat egitera ekarri nituen, eta bertsolariak ziren Xabier Amuriza, Jon Lopategi eta Imanol Lazkano. Hori lau-rogeita bian edo hiruan, hirurak puri-purian zegozenean. Ba, hantxe geure aurrean kantatzen ziharduela, hirurek egin eben huts. Eta esaten neban: "Honeek be pertsonak dozak! Honeek be labankadak jaukiezak". Eta hori nik ez dot negatibotzat hartzen. Alderantziz. Beti ez da asmatzen. Eta zer? Zer pasetan da? Orain, gero asmatzen denean, asmatu egiten da. Aparta paretik!

## Joxin Iturrioz



*"Txapelketa aldetik, ondo joan zen, baina geure artean gorabeherak sortu ziren eta itzi egin neban. Ahalegin harek lagundu ebala uste dot, gero lortu den sistematizazio hori lortzeko. Orain hobeto funtzionatzen dela uste dot"*

1959-XII-29an Azpeitian jaiorik, 12 urte gaz seminarioa joan zen, Donostiara. Hemen eta Bilbon, 11 urtean abadetzarako ikasten ibilirik, 23 urte gaz karrera ha itzi eta, urte batzuetara, soziologia egin eban. Ordenantzako kontserje plazan, urte mordera Bilbo inguruan eginik, barriro jaioterrian bizi da, Azpeitiko eskola publikoko kontserje. Artean, Urte bi LABen egin zituen liberatu, eta beste bat, 1987-88an, Azpeitiko udaletxean kultur animatzaile. Bertso-eskolen mogimenduan urteetan ibili ondoren, 1997-98an, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen arduradun izan zen. 2001ean, Urola eskualdeko bertsolaritzari buruz,



XDZ

liburu interesgarria argitaratu eban, *Urolaldea bertsolari* izenekoa.

### **Bizkaiko Bertsozale Elkartearen sartu aurretik, zer ibilbide egina zinen bertso munduan, baldin egina bazinen?**

Izango ez nintzen, ba? Nire ibilbidea bertso-eskolei zuzenean lotuta dago. 24 bat urte gaz, 1984 inguruan, beraz, Algortako bertso-eskolan hasi nintzen. Trino Azkoitia eta Karlos Ibarzabal izan nituen irakasle. 27 urte gaz Gipuzkoara joan nintzan beharrera, eta hantxe amaitu zen aldi bat. Bilbora itzulita, Santutxuko bertso-eskolan hasi nintzen, 30 urte gaz edo. Geroago, Deustuan ikastaro bat antolatu eta beste bertso-eskola bat sortu genduen. Neu nintzen irakasle eta arduradun. Santutxun eta Deustuan, bietan ari nintzen, beraz.

### **Eta noiz eta zelan hasi zinen Bizkaiko Elkartearen martxan sartzen?**

Bertso-eskoletan urteak neroazenez, Bilbo eskualdeko ordezkari legez hasi nintzen Elkartera hurreratzen. Karrera amaitu nebanean, geroago eta gehiago sartu nintzen bertso munduan, zuzendaritza batzordean planteamenduak eginez eta abar. Natxigaz berba egin neban eta planteaa-

tu neutsan, batez be eskola arloan, ea zer egin zeitekeen. Nire aurretik, Iñigo Olabari egon zen, baina txapelketa antolatzeke baino ez, eta orduan asmoa zen Elkartea konfiguratzeko edo horretarako lana pixka bat sistematizatzea.

**Baina hori guztia zu Elkarteko arduradun jarri aurreko kontua izango da, ezta?**

Bai, bai. Elkarteko arduraduntza oso gero etorri zen. Nik orduan bertso-eskolak emotea neukan buruan. Baldintza batzuk ipini nituen, lan hori eskola munduagaz konpaginatzeko, eta Natxik ez eban problema handirik ipini. Orduan kontua izen zen, Elkartea moduan, zerbitzu bat martxan ipintzea, egunerokoa; bertan egiten zena instituzionalatzea, zerbitzu moduan, eta eskola munduan sartu eta hor zelako aportunak egin zeitekezen ikustea. Artean, Altzalei bazebilen Bilboko egitasmoagaz. Orduan, zelanbait, neu be hortxe sartu nintzen.

**Horretan urte batzuk egin ondoren, 1997an, Bizkaiko Bertsozale Elkarteko arduradun jarri zinen. Zelan izan zen zure sarrera eta zertan ekin zeuntsan?**

Lehenengo lana zer zegoen begiratzea izan zen, zer eskakizun, zer kontu. Eskakizun mailan, bertso-eskolen koordinazioa planteatzen zen. Hor kontaktatu batzuk egin genduzen, ikastaro batzuk antolatuz eta abar. Xabier Amurizagaz, bizkaieraz kantatzearena antolatu zen. Nik antolatutakoa bigarrena izan zela uste dot. Gero, batzar batzuk egin ziren eta bertso-eskoletako gazteen topaketak antolatu ziren, neuk dakidala, lehenengoz. Ni arduradun sartu nintzenean, horrelakoxe kontuak izan ziren Bizkaian.

**Eta Euskal Herriko Elkartegaz?**

Bizkaia apur bat bere kontura zebilen orduan. Euskal Herriko Elkartegaz koordinazio bat bideratzea eta gauzak adostea be bagenduen

buruan. Ahalegina horixe izan zen, behintzat. Tartean, Bizkaieraz bertsoan liburua neure garaian argitaratu zen. *Hiztegi Errimatua*-n be lagundu genduen.

**Zu arduradun zinela, zenbat txapelketa antolatu ziren, eta zelan?**

Nik denpora laburra egin neban arduraduntzan, 1997an hasi eta 1998aren azkenean itzi baineban, urte horretako txapelketa amaituz batera.

**Zergaitik hain kargualdi laburra?**

Orduan txapelketak aste osoko lana emoten eban eta nik eskolako lanagaz konpaginatzen neban. Hemen gorabehera batzuk sortu ziren, disponibilitate falta eta abar, baina, azkenean, txapelketa ha nahikoa ondo joan zela uste dot. Beno, txapelketa aldetik, ondo joan zen, baina geure artean gorabeherak izan ziren eta, txapelketa amaitutakoan, itzi egin neban. Natxiri azaldu neutsazen izteko arrazoiak. Guztira, urtebete eta bederatzi hilabete egin nituen karguan.

**Zeri ekinez? Zer asmo edo plangintza garatu zenduen denpora horretan?**

Berba eta buelta asko egin neban. Bulegoa martxan ipini genduen, baina, eskoletara joaten nintzen egunetan, ez zen inor egoten. Erantzungailua ipini genduen, eta gero enkarguak jaso eta erantzun egiten neban, mezu eta abar. Eskoletan egun bi eta Elkartean hiru egiten nituen. Hamabostean behin, Donostiara joaten nintzen, erizpideak bateratuz, Euskal Herrikoan egiten zena Bizkaian martxan ipintzeko eta abar.

**Urtebete eta bederatzi hilabete denpora laburregia ez al da, ezer ganorazkorik egiteko?**

Nire kasua nahi eta ezina izan zen. Ahalegin handia egin nebala uste dot, baina ez neban jentea neuganatzen asmatu.

**Orduan, zure iztearen arrazoia batzuen batzuekiko konpondu ezina izan zela ulertu behar dogu?**

Nire iztearen arrazoia guztiz pertsonala izan zen. Beno, pertsonala... Nik, behintzat, neukan kontzientzia zen gauzak aurrera ateratzeko ahalegin handia egiten nebala, eta nire ahaleginari albo egiten jakola. Horrela ez zegoen ezer egiteko modurik. Esaterako, nik aurkeztu neban planteamendu bat zera izan zen: Euskal Herriko Elkarte antolatuta zegoen legez, Bizkaian be arloka antolatzea; funtzionamendu ezbardin bat, beste lan banaketa bat edukitzea. Erantzun txarra jaso neban. Eta, gerora, horren aurka sutsuen egiten ebanak berak ipini eban martxan plan hori.

**Txapelketa ondo joan zela, baina beste gorabehera batzuk sortu zirela esan dozu. Zeozer gehiago zehaztu zeinke?**

Ez dau merezi. Txapelketa, formalki, ondo joan zela uste dot, baina neuk, pertsonalki, erreta amaitu neban eta itzi egin neban. Memoria entregatu eta kito.

**Kontu pertsonalak alde batera itzita, hango lanak, dinamikak, gauzak egiteko aukerak zer aportatu eutsun? Ala ez zenduen ikusten zeure planak aurrera ateratzeko biderik?**

Kontua da nik ahalegin bat egin neikeela, baina gero beste batzuekin kontatu behar zela, aurrera egiteko. Nik hartu-emon piloa egin neban, jente askogaz egon nintzen, esaterako, bertso-eskolen mailan. Bertso mailan be eskatzen zen, ba, ikastaroak, laguntasunak, ez dakit zer, saioak egiteko dirua, eta horrelako kontuak. Gauza batzuk bideratzen saiatu ginen, baina ez zen araberako erantzunik izan.

**Bertso-eskolak aitatu dozuz. Zer bide edo plangintza zeunkan buruan, arlo horretan?**

Plan bat zen eskolen artean txandakatzea. Esaterako, Ondarroako eskola Garriko eskolara gon-


bidatzea eta gero, alderantziz. Sare bat muntatzea zen asmoa. Horrelako proposamenak egin nituen, baina ez eben funtzionatu. Gauza batzuk egin ziren, baina ez eben uste genduen erantzunik jaso.

**Gorago aitatu dozuzen "laguntasunak" zer ziren? Diruzkoak, gehienbat?**

Bai. Elkartetik dirua erreklamatzeko, saioak antolatzeko, eta guk ez genduen ikusten dirua emonda bakarrik saioak ugarituko zirenik. Jentearen promozinoa behar bazen, beste era batera antolatu behar zela uste genduen. Orduan, horretan, harrera txikia egon zen, zuzendaritzakoakandik hasita, eta planteamendua zen: Beno, Joxin. Zuk ahal dozuna egin eta gero ikusiko dogu. Erabagi formalak zuzendaritza batzordean hartzen ziren, baina gero, etxera joandakoan, ahaztu egiten ziren. Eta ni bakarrik geratzen nintzen.

**Baina zertan zegoen kaka edo ikuspegiaren aldea?**

Antolatzeko moduan. Orain, zorionez, funtzio-



Joxin Iturrioz, 2005ean.

namendua diferentea dela uste dot. Orain, bost edo sei arlo dagoz, eta Bizkaian arlo bakotzeko arduraduna dago, eta liberatua elkartean, arlo bakotzeko arduradunekin batera, jarraipena egiteko, planifikazinoa egiteko, kontrastatzeko, erabagiak hartzeko eta abar. Esaterako, nik zerbaiten faltarik hartzen banaban, kontrastearena zen. Ez neukan inor, ezer kontrastatzeko. Ezezkoak, osterak, ugariak izan ziren. Euskal Herrikoan izan neban, bai, laguntasuna, baina Euskal Herriko erizpideak Bizkaian halamoduz hartzen ziren.

**Zure kontakeratik, ezinaren aurkako esperientzia mingarri samarra izan zenduela emoten dau, baina gauza batzuk egin be egingo ziren, ezta?**

Bai, bai, jakina. Nire esperientzia laburregia izan zen, baina gauza batzuk egin genduzen: ikastaroak, saio berezi batzuk, txapelketa etorri zenean, saio osagarriak... Gauzak egin ziren. Nik uste dot akatsa, egin zena baino gehiago, estrukturazino eta sistematizazino lan hori izan zela. Hori ez zen lortu, baina ahalegin harek lagundu ebala uste dot, gero lortu den sistematizazino hori lortzeko. Orain hobeto funtzionatzen dela uste dot, arloak eta abar. Txapelketan be, gauza batzuk sistematizatu ziren. Lehen gauza solteak zirenak urte horretan idatzita ipini ziren, bai arautegia, bai aktak, eta gero hori guztia memorian jaso zen, hitzarmenak, baldintzak eta abar.

**Beno, Joxin. Eskoletako irakasle eta Elkarteko arduradun ez ezik, zu bertsoan be hamaika bazterretan ikusi zaitugu, parranda giroan, batez be. Kontaiguzu apur bat zure esperientzia zelakoa izan den, bertsolari moduan.**

Nik egindako saio ia guztiak bertso-eskoletara egindako deien ondorio izan dira. Hau da, saio-etara ez nintzen Joxin legez joaten, bertso-eskoletako partaide legez baino. Bertso-eskoletako

partaideen hartu-emonen bitartez be joaten ginen. Halako lekutan zerbait egin gura ebela, eta doaneko bertsolariak behar? Ba, han ginen gu. Adibide bat ipintzearren, Irala auzoan, Korrikaren alde antolatu eben bertso-afari gogotan geratu jat, ondo aritu nintzelakoan. Deustuan be hainbat bider kantatu dot, San Pedro plazako kioskoan, San Pedro jaietan, esaterako.

**Lagun artean be ez zara zu gitxitan ibilia izango, etxera joan ezinik.**

Horixe! Ni lagun arteko txoria izan naz, eta naz. Desafioak be egin izan doguz lagun artean, eta parte hartu izan dot, baina beti be taldean, jentea animatu guran. Beti bertso-eskolako dinamikaren barruan. Azken urteetan, Bilboko Kafe Antzokiko bertso-eskolan eta Gaztainondo bertso-eskolan aritu izan naz. Bertsozalea eta ekinzalea bai, baina ez naz plaza-gizona.

## Aritz Lopategi



*“Txapelketara denak joaten dira oso urduri, eta neu be bai. Azkenean, denpora aurrera joan ahala, apurka-apurka, norbera norberaren mugaraino heltzen da. Argi daukat: ni neuretzat, bertsolari aroa alderdi guztietatik positiboa izan da”.*

1969-IX-09an jaiorik, hamazortzi urtera arte Gernikan bizi eta harrezkero Muxikako Zabale auzoan bizi izan da, orain urte bi, barriro Gernikara bueltatzeko. Bertsolaritza ez jakon, antza, txarto etorri, gero kimika ikasketak arrakastaz burutzeko. Beste txapelketa txikiago guztiez gainera, Bizkaiko eta Euskal Herriko finaletan hainbeste bider hain lan ona egiten ziharduela, bertsozalea asko harritu zen, Aritz Lopategik bertsolaritzari itzi egiten eutsala entzutean. Elkarrizketa honetan agertuko denez, erabagi argia eta arrazoitsua izan zen. Dezepzino puntu bat izan zeitekeenik be ez dau ukatzen. Aritzen bertsokeran, bazen ironia puntu guztiz pertsonal bat, jabea erabat iden-


tifiketan ebana, grazia berbertan eginik, sarritan, arrazoia bigarren bueltan harrapatu behar zena.

**Zure kasuan, daukazun aita edukita, bertso grina nondik abiatu jatzun itauntzea alferrik izango da.**

Ez da, ba, lirudikeena, hainbestean, behintzat. Aita bertsolaria izanik eta abar, nire hasikera etxetik izan zela pentsa leiteke, baina, egia esan, ikastolan hasi nintzen, Gernikako Sebero Altuben, 7. mailan nengoela. Sakona bertsolaritza emoten hasi zen eta hantxe hasi nintzen bertsoa zer den jakiten eta egiten.

**Etxean be aztarrenen bat hartuko zenduen baina.**

Bagenkien aita bertsolaria zena eta hori guztia, baina etxean ez eban inoiz bertsotan egiten; hori bai, umetan batez be, kantu eta bertso zahar asko kantatu eta irakasten euskuzen. Gero aita Bizkaiko Ikastolen Elkartearen hasi zen eta lehenengo txapelketa antolatu zen, nik hamalau urte nituela. Orduantxe hasi nintzen bat-batean aitagaz, bertsoa zelan egin eta abar. Ikastolan idatzi eta kantatu bai, baina bat-batean jarduteko beste ez genduen egiten. Orduan, txapelketa antolatu zenez, eta aurkezteko moduko jente askorik be ez zego-



Juanxo Egana. XDZ

Aritz Lopategi 2001eko Txapelketa Nagusian.

enez, aitak esan eustan: Aprobatu gura dozu? Bertsoa bat-batean zelan egin ikasi neban: azkena pentsatu, zortziko txikia, zortziko handia, lau oineko bertsoa... Hasi, holantxe hasi nintzen.

### **Lehenengo plaza, beraz, txapelketa izan zenuen?**

Ez. Lehenengo plaza esaten dena txapelketara joan aurretik egin neban. Aitak Markinara joan behar izan eban, Mañukorta, Arregi eta Mugar-tegigaz-edo kantetan, eta neu be beragaz joan nintzen. Euskararen jai bat zen. Printzipalak eurak ziren, baina bertako gazte batzuek (Aitor Elexpuru, Juanjo Elordui, Iñigo Ibarra eta Patxi izeneko bat) saiotxo bat egiteko zegoen, eta neu be gonbidatu nindueen, gura baneban. Ordurako hasita nengoenez, hantxe egin neban neure lehenengo plaza. Gero, aitatutako txapelketa egin neban bat-batean eta, ondoren, markinar honeekin saiotxo batzuk egiten hasi nintzen. Halantxe hasi nintzen plazan kantetan.

620

### **Gernika inguruan, zure sasoiari, zer bertsolari zebilen zure antzekorik?**

Arriola anaiak, Txiplas, Txirri... baina ni gero-txoago hasi nintzen eurekin, 17-18 urtegar. Bat-batean kantetan genduen eta plaza batzuk be egiten genduzen.

### **Galdera topiko honegaz gogaituta egongo zara, baina beste behingoagaitik ez da zure kimika desintegratuko. Zientziak eta bertsolaritza zelan lotu zenduzen?**

Betiko galdera izaten da, bai! Eta beste batek abokatu ikasten badau, zelan lotzen da hori? Berez, ez daukie loturarik, ez hartu-emon handirik, baina uste dot horrek ez daukala zerikusirik, eta lotu beharrik be ez dago.

### **Beno, bertsoa hizkiak dira eta zientzia, barriz, zenbakiak, ezta?**

Bertsokak be badaukaz zenbakiak nonbaiten:

silabak eta metrika eta abar. Baina ez dago zertan lotu gauza bata besteagaz, aparte ederto dabilzenean. Edozein pertsonaren gogoan, oso gauza ezbardin asko dagoz batera. Bertsoa, zientziak, edo beste alde asko.

### **Etxean aitagaz hasi zinenean, aurrerakada handia egingo zenuen.**

Aitaturiko txapelketa aurretik, zeozer egin neban, lehen esan dodanez, baina geroztik aitagaz bereziki inoiz be ez neban egin. Gero Gernikako bertso-eskolan, Txiplas, Arriola anaiak eta abar, eta han bai egiten genduen talde moduan. Nik uste dot beste edozein bertsolarik be etxean ez dauela bertsotan egiteko gogorik izaten.

### **Arlo pertsonalagora etorririk, zeure lehenengo gaztaroa zelan gogoratzen dozu?**

Zer sasoi?

### **Ikasketa sasoiari, 17-18 urtegar. Sasoi horrek berez dakarren golfo usainaz bestera, formalegia zinela entzunda gagoz.**

Nahikoa formala izan nazela uste dot, bai. Unibertsitate sasoiari ez hainbeste. Baina, beno, formal fama badaukat, hortxe itziko dogu. Unibertsitate sasoiari oso oroitzapen onak daukadaz; jente barria, ezbardina ezagutu; zabaldu egiten zara.

### **Zergaitik aukeratu zenuen kimika?**

Egia esan, dudari egon nintzen, geologia ala kimika. Berez, geologia gehiago gustetan jatan, baina, etorkizunera begira, lan mundura begira, kimika aukeratu neban, lana topatzea errazago izango zela pentsaturik.

### **Kimikan zer da gehien gustetan jatzuna? Ikerketa ala beste arloren bat? Orain zer lan egiten dozu? Beste zeozer gusturago egingo zeunke?**

Nik egin neban espezialitatea Kimika Analitikoa

izan zen. Orain, nahiz eta espezialitate bat egin, kimikan mila bide diferente dagoz; gauza asko egin leiteke. Ni orain Maier enpresako laborategian nabil eta ez dauka nire espezialitateagaz zerikusi handirik. Beharbada, fisikagaz zerikusi handiagoa dauka orain egiten dodan lanak, baina, beno. Laborategi bat da eta mundu horretanxe nabil. Automozinoarentzako piezak egiten doguz Maier-en batez be, eta baita telefonia eta etxetresna elektrikoetarako be; plastikozko piezak akabera diferenteekin egiten doguz, margoztuta, kromoztatuta... Orduan, zeozelako erlazinoa badauka ikasi nebanagaz, ezta? Ni gustura nabil egiten dodan lanagaz.

**Zeure laborategi-lanetik kanpora, bidaiarik eta egin behar izaten dozu?**

Ez gehiegi, baina batzuetan bai. Maier-ek plantak daukaz Nafarroan eta Galizian. Ingalaterran be planta bi daukaz. Bezeroak, barriz, leku askotan, eta, azken aldion, Ingalaterrara joatea tokatu izan jat, halantxe subertatu delako, baina ez naz kanpotik larregi ibiltzen.

**Geure gaurko gai nagusira itzulirik, bertsolari-tzan, barriro hasiz gero, noraino heltzen ahaleginduko zinateke? Zelan ikusten dozu zeure ibilbidea?**

Gaztetan sartu garenok, behintzat, konturatu barik sartzen gara eta, ikasten-ikasten, batzuk gorago heltzen dira eta beste batzuk beherago. Azkenean, denpora aurrera joan ahala, apurka-apurka, norbera norberaren mugaraino heltzen da. Uste dot norberak lortu leikeen maila horixe lortu leitekeela, aurrera jarraituta be. Neure kasuan, behintzat, horrelaxe ikusi dot nik.

**Hamalau urtegaz hasita, beti txapelketaz inguratuta ibili zara. Plaza-gizona esaten denez, "txapelketa-gizona" zinela esan geinke?**

Hasikeran, gaztetxoan txapelketan ibiltzen nintzen. Apurka-apurka, Bizkaiko txapelketan parte

hartzen hasi nintzen. Ez dakit zenbat izan ziren, baina lehenengo postuetan ibili naz beti. Nik uste dot neuk emon neikeen gorena hortxe izan dela. Ikusi nebanean gehiago ezin nebala lortu edo ezin nebala aurrerago joan, ba, beharbada, horixe izan neban azkenengo erabagia hartu eragin eustana. Hurrengo txapelketara ez joatea erabagi neban. Apur bat nekatuta be banengoen hainbeste txapelketagaz, eta ikusten neban ez nindoala aurrerago, ez eustala ezer gehiago aportetan. Beharbada, motibazioa galdu neban.

**Txapelketatik kanpora be plaza asko egina zara zu. Hor be nekatzen hasita zengozen?**

Plazan be gertatzen da batzuetan pozik geratzen zarela, beste batzuetan, ez hain pozik. Gorabehera asko egoten da. Nik uste dot bertsolari guz-



Aitor Gonzalez Kinana. Bertsolari aldizkaria

Aritz Lopategi 1987ko Txapelketa Nagusiko finalean.



tioi pasetan jakula hori. Egiten dozuzen saioen erdietan, beti kezka geratzen jatzu: Ez nok ondo ibili, txarto egon nok, hobeto egin behar najoan. Beste batzuetan, ostera, oso pozik geratzen zara. Hori denoi pasetan jakula uste dot. Bertsolariaren lana horrelakoxea da.

**Benetan erretiratuta zagozela esan geinke?**

Erretiratuta edo itzita nago, bai. Itzi egin neutsen, bai plazei, bai txapelketei.

**Zergaitik hartu zenduen horren erabagi zorrotza?**

Motibazino faltaz. Ilusino faltaz. Jarraitzeko, emon neikeen maila emonda neukala ikusi neban. Ez neban ikusten gehiago emon neikeenik. Eta, gainera, apur bat gogaituta edo nekaturta, edo motibazino barik egon nazelako.

**Dezepzino puntu bat be egon leiteke?**

Bai. Egon leiteke hori be. Dezepzinoa, motibazino falta, ilusino falta, dena da antzekoa. Dena batzen da. Denerik apur bat. Arrazoi gehiago ikusten izan dot ez jarraitzeko, jarraitzeko baino, eta, gustura ez jarraitzekotan, argi daukat hobe dela ez jarraitzea, bai norberarentzat, bai beste guztientzat.

**Bertsolaritzari guztiz itzi deutzazu ala jarraitzen deutzazu, apur bat kanpotik bada be?**

Jarraitu, jarraitzen dot. Egia esan, aspaldion ez naz sarri joan saiorik entzutera, baina telebistatik jarraitzen dot. Txapelketetara entzutera joateko gogoia be badaukat. Finaletara be joaten naz, jakina. Argi daukadana da bertsoa gustetan jatala, eta jarraitzen dot, baina beste aldetik, entzulearen aldetik, eta hori be alderdi polita da. Horretan be asko gozetan da.

**Zure planen barruan, bueltetako asmorik izan leiteke?**

Oraingo momentuan ez dot uste. Nork jakin

hamar urte barru zer pentsatuko dodan? Baina ez dot uste arlo horretan barrero sartuko nazenik.

**Zer bertso molde zenduen gustukoen? Gaiak jarrita? Librean? Zer bertso mota?**

Hasikeran, gazteagotan, konfiantza lar ez daukazunean, gaiak emonda gusturago ibiltzen zara. Trankilago, behintzat. Librean, gaztetan, ez daukazu hainbeste konfiantza edo ez dakizu ordubeteko saioa betetzeko gauza izango zaren. Hasikeran, beraz, gaiekin lasaiago. Gero, apurka-apurka, erraztasuna hartzen zoazenean, esperientzia pilotzen dozunean, nire azkenengo 8-10 urteetako kasuan legez, librean gusturago ibiltzen zara, bertso-afari eta abar. Ni neu, behintzat, horrela gusturago ibili naz gaiekin baino. Zortzi bertsolariko saioak ez jatazen gehiegi gustetan. Puntua galdu egiten dozu, hoztu, berotu, jesarri, altzatu...

**Zer kostatzen jatzun gehien? Etxetik abiatzea, plazara urtetea, kantuan hastea?**

Uste dot, gehienontzat, momenturik txarrena hasi aurrekoa izaten dela. Saioa zortziretan bada, han zagoz larri eta urduri; hasi arte, arduraz. Etxetik urtetan dozunetik bueltara arte, horixe izaten da momenturik larriena. Pentsetan dozu: "Zertan etorri ete nok ni hona, etxean trankil-trankil egongo nintzena!" eta horrelakoa. Eta aldi berean pentsetan dozu: "Baina neure gustura najabilk" eta hortxe jarraitzen dozu.

**Aitagaz buruz buru inoiz kantatu izan dozu?**

Ez. Askotan ez. Bizkaiko txapelketa batean tokatu jakun eta, bestela be, horrela inoiz bai, baina gitxitan.

**Gustatu be ez jatzun egingo eta. Ala bai?**

Ez, ez! Arraro egiten da, niri, behintzat. Ez dakizu zer esan zeinkeen, zer ez. Ez dakizu etxean

ala plazan ari zaren, edo ari behar dozun. Ez da egoera bape eroso.

**Inoiz zuen aitari entzun izan deusagu zu txapelketara lasai joaten zinela. Goizean gosaria normal-normal jaten ei zenduen. Egia da hori?**

Gosariarena izan leiteke, baina bestea ez. Txapelketara denak joaten dira oso urduri, eta neu be bai. Txapelketa denontzat da trote gogorra.

**Zeure Gernikako taldetxoagaz hamaika bider ibilia zara. Zer ibilera mota egiten zenuen?**

Saioak egiteko, talde moduan funtzionetan genduen; denon artean pentsetan genduen nor joango zen hara eta nor hona. Lantzean afari bat be egiten genduen geure artean, baina ezer berezirik ez.

**Zer bertso klase eta zelako estiloa dozu gogokoen?**

Ez neuke bat esaten jakingo. Gai serioak be gusetan jataz, umorezkoak be bai. Denak gusetan jataz. Neurrietan, bardinean, gehiago gusetan jat zortziko txikiko saio bat, ona bada, jakina. Zazpi puntuko bertso bat, ona bada, ederra da. Baina bat-batean bertso luzeak eta onak asko ez dira izaten.

**Bertsolari bereziki gustukorik izan dozu?**

Ez. Ez dot idolorik bereziki izan.

**Zinegotzi be egin zenuen legealdi bat, Ezker Abertzalearen aldetik. Bertsolaritzaz oso beste esperientzia bat izango zen ha.**

Mundu horretan asko ibili bakoa nintzen. Egia esan, ondo jakin barik sartu nintzen. Lau urtean egon ginen hor. Asko ikasi neban: udaletxeak zelan funtzionetan dauen eta abar. Aberasgarria izan zen. Argi neukan, aldi ha amaitu zeitenean, ez nebala jarraituko. Lanean bazabilz, ez daukazu denpora gehiegirik horretara dedi-

ketako, eta horrexen kezka geratu jatan: ez neutsala behar zen beste denpora dedikatu. Oso interesgarria izan zen, gaur ez dot jarraitzen baina.

**Bertsorik idatzi izan duzu?**

Bai, baina, neure ekimenez baino gehiago, inork eskatuak: ezteguak, jaunartzeak, aldizkari batzuek eskatuta... Neurez, bertso idatziak egitekoea ez naz izan.

**Bestela idazteko asmorik izan dozu inoiz?**

Ez.

**Anekdotaren batzuk be geratuko jatzuzen.**

Ez dot askorik gogoratzen... Behin, Baldatikara bertsoara joanda, sukalki lehiaketa bat zegoen eta epailerik ez zeukien. Txiplasek eta biok egin genduen epaile. Epaile, bertsolari eta dena egin genduen.

**Egia da, bertsolari izateagaitik, ligatu be gehiago egiten dena?**

Ez dakit gehiago ala gitxiago. Ezaguna izateak apur bat laguntzen dauela esan leiteke, baina segun kasua. Lagundu leike, ezagutzen bazaitue eta abar, baina gero norbere abildadeak erakutsi behar dira, eta hor bakotxak bereak daukaz.

**Zuk bertsoari iztea jenteak zelan hartu ebalaste dozu? Inork animetan zinduzen jarraitze-ko? Kritikarik jaso zenuen?**

Kritikak beti. Denek esaten eusten: Zergaitik itzi deusak? Jarraitu egin behar dok. Baina nik izteko erabagia argi neukan eta alde horretatik trankil nago.

**Ziur zagoz maximoa emon zenuela?**

Bai, bai. Bestela, jarraitu egingo neban eta motibazioa be sentituko neban. Baina ikusi neban gorantz gehiago ezin nebala egin, eta

motibazinoa falta neban. Horrexegaitik erabagi neban iztea. Gero, gauza asko batzen da. Batera eta bestera ibiltzen nekatu be egiten zara.

**Iraganeko etapa bat distantziatik epaitzeko moduan jarri zarenez gero, zuretzat zer izan da bertsolaritza?**

Batez be, jente ezbardina ezagutzeko modu bat, aukera bat: herri diferenteetara joan, jente ezbardinagaz egon, jai ezbardinak ezagutu, mogimendu horretan ibili. Bertsolariak aukera hori maite dau, hori gozetako da izan be eta. Baina bertsotan sufritu be asko egiten da. Bertsolariok denok dakigu hori zer den. Jenteak uste dau dena dela jaia eta ondo pasatzea, baina alde biak daukaz. Poz handiak be bai. Ondo zabilzenean, etxera buelta atsegina izaten da, oso ona. Jente asko ezagutuz, jantzi egiten zara, ikasi egiten dozu. Argi daukat: ni neuretzat, bertsolari aroa, alderdi guztietatik, positiboa izan da.

## Kristina Mardaras



*“Ni maistratxo bat izan nintzen 9-10 urtegaz be. Berez, neure izakeraz, zeozer galazota badago, harexen atzetik joango naz. Orduan bertsolaritza zen andrazkorik agertzen ez zen arloetariko bat. Halan, bertso-eskolatik abiatu eta, eskolaren babesean, aurrera egin neban”.*

“Mardaras, Kristina. Bertsolari bizkaitarra (1948). Lanbidez irakasle da. Durangaldeko bertsolari-eskolan ikasi eta 1982an plazaratu zen lehen aldiz. Asko nabarmendu ez bada ere, txapelketa batzuetan hartu zuen parte. 1980.eko hamarkadaren hasieran emakume bertsolari bakarra izan zen, gero etorri direnentzat bide-irekitzaile”. Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoaren aipua da hau, ez hainbeste Kristinaren laburpen hori ez genkielako, entziklopedia batean sartzeko merezitzaile ikusi ebelakoak kategoria baten autorpena adierazten dauelako baino. Izan be, 1948ko apirilaren 13an jaiozik, Justo Alberdi senar eta Asier eta Amaia



I. Gallego, Bertsolari aldizkaria.

seme-alaba dituen iurretarrak honek, era guztietako militantzian eta ekimenetan ikusi izan dogun eta oraindino ikusten dogun eragile nekagatx honek, bertsolaritzara be egundoko nobedadea ekarri eban, emakumearen presentzia plazaratzen ausartu zenean. Berbetan argia eta ugaria, umorean be ez da atzean gelditzekoa. Zeozergaitik da Kristinaren barrea bere izaera-agiria, mundu guztiak atoan identifiketan dauena.

### **Lehenengo eta behin, nongoa zara, Kristina, batean batekoa eta bestean bestekoa entzun dogu eta?**

Ni jaio, oraintxe bizi nazen baserrian jaio nintzen eta hau Zornotzako partea da, Etxanokoa. Izatez, beraz, Etxanokoa naz ni, nahiz eta auzoa Oromiño izan. Baina gurasoak, paper guztiak, erroldak eta abar, Durangon egin eustezen, hurrago zegoelako. Elizaz, oster, Iurretakoa naz, arrazoi bardinagaitik. Eta “kanpaipeko” Bakixa auzokoa. Nongoa nazen? Batekoa eta bestekoa. Sentimenduz, gehien Iurretakoa, beharbada, hartu-emonakaitik eta denagaitik. Eskolara Oromiñora joaten nintzen eta hau Iurreta da. Bestela be iurretarra gehienbat, baina beste horrek guztiorrek be bere eragina dauka nigan. Beraz, mundukoa.

**Kalean urte piloa eginda, barriro baserrira itzuli zarie, zeure jaiotetxera.**

Ezkondu ginenean, Iurretako hurigunera joan ginen bizitzera. Han 30 urte egin eta barriro jaiotetxera etorri gara, eta, egia esan, orain gusturago nago lehen baino. Beti gustura eta harro, baserritar izateaz, baina orain areago, ze, biak aprobatu ondoren, kontrastea izugarri gozetan dot.

**Umezaroko gorabeherak kontetan hasten zarenean, amaibako mundura transportetan legez ikusi zaitugu sarritan.**

Oh, umezaroa! Amaibako mundua benetan! Ni jaio nintzen baserrian, amama, aitita, amamaren osaba bat eta amaren neba-arreba guztiak bertan bizi ziren. Baserri koxkor honetan, 11 lagun bizi ginen, denak batera. Nire neba-arrebak be hementxe jaio eta bizi ziren eta batzuk joan, ezkontzaz eta abar, eta beste batzuk etorri, beti kuadrila handia bizi izan ginen. Horrez gainera, gurean jente askoren sartu-urtena izaten zen, ze Karmelo Cedrun, hainbeste urtetan Bilboko Athleticeko atezain internazionala, gure osaba da, eta orduan gure etxera Karmeloren lagunak, jokalaria eta, sarritan etortzen ziren, Mauri, Maguregi, Arieta eta abar. Gure baserria txikia zen, 8.000 metro koadro ingurukoa, behi bat, txarri bi, oilo batzuk, ortua, etxerako jeneroa eta horrela. Ez gara baserritik bizi izan. Aitak eta baten batek beti kanpoan behar egin dau, tailerrean. Gure bizimodua ez zen baserritar hutsarena. Gure mundua edegiagoa zen, eta nik, begiak edukirik, ikusi egiten neban.

**Eskolara Oromiñora ibili zinela esan dozu.**

Bai. Auzoan bazen eskola txiki bat eta, sei urte pasatxo neukala, eskolara hasi eta 14 urtera arte hantxe ibili nintzen. Zortzi urte hantxe gora eta behera bueltaka, hori bizialdi oso bat da. Nik umezaro atsegina gogoratzen dot; asko jolasten ginen. Ikasi be asko egiten neban; ez nintzen

horrela distiratsua, baina nota onak ateratzen nituen. Irakurtzea asko gustetan jatan eta jolas-tea be bai. Eta, etxeko lanak eginda, baserri handiagokoei eskolako lanak egiten laguntzen neutsen, kopiatzen itziz eta abar, eta halan ni maistratxo bat izan nintzen 9-10 urtegaz be. Orain nazena izateko, beraz, badaukat lorratz bat. Eta, gainera, kobratu egiten neban, eh! Etxean falta zen zeozer baserri handiagoetan bazegoen, esaten neutsen: Ba, ekarri mizpirak edo ekarri anpoilak, ze gurean ez zen egoten mizpirarik, ez kerixa anpoilarik. Nik eskolako lanak egiten neutsezen eta hareek ekarri egin behar izaten eustezen, San Joan sagarrak, mizpirak eta horrelako jeneroak.

**Sasoi haretako eskolek ez zeukien entzute onona be. Zueri zelako irakasle jentea subertatu jatzuen?**

Guk nahikoa maistra ona eduki genduen, erdalduna, gasteiztarra, baina, neure ustez, abertzalea. Ez zen hain zorrotza. "Cara al sol" eta Francoren denporako kanta guztiak kantetan genduen, baina ez derrigorrez, eskua altzaturik eta horrela, beste leku batzuetan kontetan dabenez. Arduratzen zen erdaraz ikasi gengien, baina, euskaraz eginda be, ez ginduzen zigortzen, beste batzuek legez. Bertoko okin bategaz ezkontuta zegoen eta okin hori oso abertzalea eta bertsozalea zen eta bertsoak idatzi be egiten zituen, eta maistra bera nahikoa jatorra zen. Gero, hau erretiratzean, beste irakasle gazteago batzuk etorri jakuzen, eta nahikoa suberte izan genduen, ze bertoko inguruko jentea ziren. Nahiz eta erdaldunak izan, bertoko kantak be irakasten euskuezen. Gero, 9 urte nituela etorri jakuna niretzat eragin handiko pertsona izan zen, Juanito Gallastegi abadea, eskolan bertan katekesia emoten euskuna. Euskal munduan berak sartu ninduen. Euskaraz irakurtzen eta idazten irakatsi euskun eta bertsolaritza be bere eskutik aprobatu nebala uste dot.

**Horrek eskolatik haragoko beste ibilbide paralelo bat emoten dau. Oromiñon horrelako mogi da handitxo sortu zela entzun izan dogu beti.**

Leku askotan orduan, eta Oromiñon be bai. Oromiñoko eskola-umeak Euskaltzaindiak antolatzen zituen lehiaketetan parte hartzen hasi ginen. Bilbora joaten ginen, abadeagaz, azterketak egitera, Erribera kalera. Aita Martzel hantxe ezagutu neban, lehiaketa horreen bueltan, eta Juanito Gallastegi abadearen bitartez hasi ginen Kili-Kili aldizkaria hartzen, eta horrexek eroan ninduen, zelanbait, Oromiñoko zuloxtotik Bizkaira. Egia da Juanito Gallastegi oso jatorra zela eta berari eskerrak zabaldu ginela mundura. Taldeka hartzen ginduzen eta denpora libreko monitore moduan eroaten ginduzen Ajuriara, Ibarrurira eta abar. Hango umeak beste batek antolatzen zituen. Ajurian Alberto Gabika zegoen, Ibarrurin Don Txomin, eta auzo edo herri-txoetatik elkartzen ginen, gaztainerre-janak, txokolate-janak eta horrelakoak eginez. Gero Gernikara edo beste nonbaitera joaten ginen Kili-Kili egunean, eta jente asko batzen ginen. Orduantxe hasi ginen euskara, Euskal Herria eta horrelako sentimenduak garatzen. Etxean horrelako barbarik ez zen egiten, edo oso gitxi. Juanitoren bitartez ikasi genduen Euskal Herria bazela, euskara garrantzitsua zela, eta kontzientzia egiten hasi ginen. Gero kantatu be nahikoa ondo egiten neban eta sari batzuk irabazi be bai, eta nora eta Coliseo Albiara sariak hartzera. Pixka bat, eszenategiko mundu hori be gelditu egin jatan.

**Familian ez zendueela Euskal Herriaz eta horrelakoez berba askorik egiten esan dozu. Bildurragaitik, beharbada?**

Nik uste dot orduko etxe guztietan antzera zela. Bizimodu urri ha ez zegoen kontenplazinoetarako. Eta bildurra be bai, jakina. Baina gure etxean izan zen beste gauza bat, ni markatu ninduen. Gure familian, aitaren aldetik, trikitila-

riak ziren. Jo eta kantatu egiten eben eta, ni txikia nintzela, disko bat atera eben eta ezagutu neban. Gure osaba-izeko batzuk, Serafin Kamirero "Oromiño" esaten eutsiena, eta bere arreba Antoni (honek kantatu egiten eban) plazetan ibiltzen ziren eta diskoa be atera eben. Beste osaba bat be bazen, Osaba Satur, gero Gernikara bizitzen joan zena, eta osaba biok ibiltzen ziren Oizko erromerietan. Oromiñok soinua jotzen eban eta Saturrek jazbana. Jazbana batera moduko bat zen. Orduan, zaletasun hori, musikarako, dantzarako, bertsoarako, hortik hartu neban. Irakurtzea be asko gustetan jatan eta, txiki-txikitarik, eskura zetozen paper guztiak batzen nituen; lurrean zegoenak be bai, letrarik edukiz gero, erdaraz zein euskaraz. Esaterako, malbabisko karameloez barruan ekartzen zituen koplak, erdaraz, Zaragozako Ama Birjinaren kantak eta ez dakit zer, horreek denok gorde egiten nituen. Inoiz eskolan, maistrak zigortu be egiten ninduen, beti poltsikoa paperez beterik nerabilelako. Aitaren aldetik trikitilariak baziren, gure ama kantari ona zen, ume-kantak eta, batez be.

**Juanito abadeaz gainera, beste abade batzuekin be izango zenduen hartu-emonia, ze zuk orduko abadeen mogimendua nahikoa hurretik bizi izan zenduen, ezta?**

Bai, bai. Juanito abadea beste herri batera aldatu ebenean, Julen Kaltzada etorri zen. Hau beste era batekoa zen. Honegaz jada pertsona kontzientzia, gizarte kontzientzia, konpromisoaren aldeko kontzientzia hartzen joan ginen, bai euskaldun, bai emakume, bai gazte moduan, eta, hor kuadrila horretan, Xabier Amuriza ezagutu neban. Xabierregaz gitxitan egoten ginen eta bertsoari buruz ez genduen hainbeste berba egiten, baina bere gitarragaz eta abar, bertso kantatzen be ibili izan ginen. Ordurako baneukazen hamazazpi-hamazortzi urte, edo igual gitxiago. Gu Gizaburuagara, Xabier abade zegoen herrira,

joaten ginenean, neskatoak izango ginen, igual hamabost bat urte. Xabier abade konprometitua zen, baina bertsolaria be bai. Nik Gizaburuagan ikusita daukat sotana eta guzti bertso kantetan. Talde horretan eta martxa horretan hartu genduen gizarte konpromisoko formakuntza horrexek eroango ninduen, azkenean, bertso munduan be oina ipintzera, konpromiso legez. Geroago, nahikoa nagusiak ginela, ezkondata nengoela, Durangoko ikastolatik gonbita etorri jakun, taldetxo bat bazegoela bertsoan ikasi guran eta ea animatuko ginen. Eta, halantxe, gizona eta biok hasi ginen.

**Baina zu, aurretik, bertsoa beren beregi lantzen ibilia zinen inoiz?**

Ez, inoiz be ez. Neure kontura ikasi eta kantatu, bertso txoak egin, errimatu eta hori bai, oheak egiten nenbilen bitartean eta halan, baina besterik ez.

**Eta kantetan zenduzen horreetan, errimaz eta abarrez kontziente zinen?**

Ez bereziki. Errimatu bai, irakurtzen nituenen antzera, eta neurtu be bai, doinuaren arabera. Zelan doinuak berak marketan dauen metrika, ba, hantxe, silaba bat gorabehera, bertsoak egin eta kantatu.

**Baina bertsoa pieza legez hartu, kontzienteki landu, deszifratu, hori ez zenduen sekula egin, ikastolatiko gonbit horretara arte?**

Gonbit horretara arte, behin be ez.

**Eta hori zenbat urtegaz izan zen?**

Hogeita hamar urte inguru neukala. Orduantxe hasi ginen zortzikoa, hamarrekoa eta abar zer diren ikasten, Lopategigaz eta. Kapela izan zen lehenengotan. Hau irakaslea zen eta oso bertsolari ona, oso ona, eta beragaz batera ikasten genduen. Kuadrilatxoa ginen, denak nagusiak, eta gero Lopategiren laguntasuna izan genduen,

apur bat sakontzeko, eta hortixek sortu zen Durangaldeko bertso-eskola. Hainbat jente egon ginen eta batzuek geure burua bertsoarako konpromisora bideratu genduen, batez be, gure aurreko bertsolarietatik eten bat ikusten genduelako. Lopategi-eta gu baino zaharragoak ziren eta bitartean eten bat zegoen. Gizona eta biok hasi ginen horretan eta plazetara urteten genduen, plazak errekuperetan eta halan, zulo txoak topetan genduzen lekuetan. Hortxe ibiltzen ginen, zortzi bat lagun.

**Nortzuk?**

Ba, Justo senarra eta neu, "Paluko", Kapela, Joseba, gero Santi Begi bera be bai inoiz, Ibon Ertzila... Honeek lau azkenok hilda dagoz. Segida tristeia izan zen ha. Gero Zornotzako Andoni Larrea, Dimako Etxebarria, alkate egon zena... Gero hortik egin genduena zen, bakotzak bere lekuan, antolatzaile ardura hartu. Saio asko egin eta berreskuratu zen guri eskerrak.

**Eta zeuek be orduan plaza mordoa egingo zenduen.**

Beno, asko-asko be ez. Urtean hamabost bat plaza edo. Antolatzea zen gehiago egiten genduena. Durangora urteetan be ez zen bertsolari-rik ekartzen, eta urte baten Lora Jokoen mendeurrena zela eta, hilean saio bat geuk antolatu genuen, bertso-eskola moduan. Hilero-hilero saio bat egiten genduen, Andra Mariko elizpean, han ilunetan. Lehenengo saioetan ia inor ez zen etortzen; ezagun batzuk baino ez. Gero eszenatokia elizako ate sarreran ipintzen hasi ginen, meza batetik urten eta bestera sartzeko bitartean, hamar minutuan edo, eta jentea hantxe gelditzen zen entzuten, eta pentsetan genduen publiko handia zegoela. Batzuetan, bertso-eskole-letako partaideak ekartzen genduzen, beste batzuetan, hobetxoak. Haraxe ekarri genduen, lehenengo aldiz, Jon Sarasua be praka motzetan, Almen eskolakoekin. Ohitura sortzen joan

ginen, eta geroago, Sanfaustoetan, Durangon egonda dagoz Lazkao Txiki, Mitxelena eta abar. Iurretan be bardin. Urtero-urtero antolatzen genduen bertso saioa, San Migel egunean, hiru bertsolarigaz. Geuk be auzoetan kantetan genduen, Garain, Zornotzan, Mungian...

**Zu ibili zinen sasoi horretan, 1980 inguruan, zelako harrera izaten zenuen, bertso-eskola-koak zinen aldetik?**

Guk demostratu genduen bertso-eskoletatik urten zeitekeela plazara eta ikasi zeitekeela, ze hemen, bestela, nondik edo zelan atera behar genduzen bertsolariak? Hortxe ikusi zen Amurizak esaten ebana arrazoa zela, eta eskema batzuk apurtu egin ziren. Egia da bertsolariak ekarria behar dauela, eta etorria be bai, ze beti ekartzen be ezin lei ibili; etorri be egin behar jako, berezkoa be behar dau zeozer. Baina landuta, askoz hobeto.

**Eta zeu andrazkoa zinen aldetik? Hori txokante samarra izango zen.**

Txokantea zen, bai, baina astiro-astiro demostratan hasi zen andrazkoa bertsotarako be bardin zela gai. Andrazkoek horretan eta beste hainbat gauzatan demostratu behar izan dabe ahal dabela, eta bertsolaritza beste erronka bat gehiago zen. Ni neu berez, neure izakeraz, zeozer galazota badago, harexen atzetik joango naz. Orduan bertsolaritza zen andrazkorik agertzen ez zen arloetariko bat. Halan, bertso eskolatik abiatu eta, eskolaren babesean, aurrera egin neban. Gehienean, norbere ingurukoekin kantetan da, eta, andrazkoa izakeran eta sentiera ezbardinak edukieran, gauza ezbardinak esaten ziren eta, batzuetan, gauza txokanteak be bai. Orduan, gitxienez, andrazko bat artean zelako, zenbait ironia ez zen egiten, neskazahar eta abar. Entzunda daukat bertsolariren batek edo bestek ez ebalaz nigaz kantatu gura, feminista nintzelako. Beno, deserosoa izan neintekeen.

**Zu, bertsozalea izanik, gizonezko hutsten entzule be sarritan izana zinen. Zeu kantuan sartzen zinenean, entzuleen jarreran edo giroan alderik igartzen zenuen?**

Gogoan daukat lehenengoz kantatu nebanekoa, Bilbon. Eskola bakotxetik bik kantatu genduen. Durangaldetik Kapelak eta biok, Mungiako bik eta Santutxuko beste bik. San Antongo plazan zela uste dot. Eta gogoan daukat entzuleen artean egundoko isiltasuna sortu zela, ea zer kantatuko ete neban edo. Eta gero, bertsoa kantetan nebanean, ordaina txalo piloa izaten zen, eta nik halako txalo pilorik ez dot uste merezi nebanik. Bertsolari moduan izan dodan konpentsazioa handia izan da, ze ni beti izan naz kontziente ez nazela bertsolari ona. Baina zelan kantetan neban eta ausarta nintzen, eta, gainera, eszenatokira gonekin joaten nintzen, ba, itzelezko txaloak jotzen eustezen.



*K. Mardaras bertsolari txapelketan parte hartu zuen lehenengo emakumea.*



**Barrukoaz gainera, beste estuasunen batzuk be pasatu behar izan zenduzen? Alegia, bertsolariren batzuk zu estutzero zihozela edo konturatu zinen?**

Ez. Beti daukazuz bertsolari batzuk, beste batzuek baino gehiago eroaten dakieenak. Batzuek gehiago laguntzen dabe, baina ni, normalean, nahikoa ondo tratatu nabe. Ni Amurizagaz eta Lazkao Txikigaz kantatuta nago Eibarko plazan, Sanandresetan, eta oso gomuta ona daukat. Bardin Peñagarikanogaz eta Imanol Lazkanogaz Soraluzen, eta oso gomuta ona daukat zelan eroaten eben. Egañagaz-eta be kantaturik nago Hondarribian. Egaña, Peña eta Maialen Lujanbio ziren besteak, hau neskatotxoak artean, eta bardin. Amañan be kantaturik nago, Mañukortagaz eta Azpillagaz uste dot, eta han be ondo. Mugartegigaz eta Mañukortagaz be bai inoiz, eta esan gura dot nagusien artean be ibilita nagoela, eta oso gomuta onak daukadaz.

**Publikoaren aldetik, halako zer zakarren bat edo jaso izan dozu inoiz?**

Ez, sekula be ez. Neu be ez naz zakarra izan bertsoetan. Nahikoa arin ikasi neban bertsolaritza espektakulu bat dela, eta jakin behar da beti ezin dela norberak gura dauen guztia esan. Pentsetan dena esan behar da, baina esateko modua zaindu egin behar da. Horrek bere arriskua dauka, halako nortasun doble bat sortzeko, baina plazak eskatzen dau forma batzuk zaindu egin behar dira.

**Zuk, andrazkoa izanik, horretan, behintzat, erreferente direktorik ezin zenduen izan.**

Bat bera be ez, tamalez. Horixe izan zen nire problema. Beti pentsetan neban ez neukala eredurik. Esateko moduak nahikoa maskulinoak, klitxe maskulinoak ziren, eta horixe zen nire bil-durra. Giroa eta gizartea nahikoa maskulinoa zen orduan; ez bertsogintzan bakarrik, bestela

be bai. Esateko moduetan eredurik ez izatearen ardurak asko mugatzen ninduen. Kontziente nintzen andrazkoa nintzela, baina kantatu egin behar nebala, eta askotan esamoldeak eta klitxeak maskulinoak etortzen jatazen eta, ordezkorik aurkitu arte, ba, horixe zen nire sufrimentuetariko bat.

**Halan be, neurri bateraino, zegoenari jarraitu beharko zeuntsan. Zegoen haretatik, zeuk zer bertsokerari edo bertsolariri begiratzen zeuntsan?**

Nire idoloa orduan Xabier Amuriza zen. Ez bera bakarrik, baina batez be bera. Eta nik irakurri neban estiloa eta Xabierrek zekarren barritasuna niretzat inportantea zen. Ez zen bertso ironiko, zirikatzailea bakarrik, ordura arte nik eza-gutzen nebanetik, ezta? Beste jantzi bat eta beste testuinguru bat ipintzen eban eta beste arte bat zeukan, bertsoa janzteko. Gero musika zailagoak, errima zailagoak, beste eskakizun bat. Xabierren saioak asko jarraitu doguz, bai neuk eta bai nire gizonak.

**Gaur egun, zelan ikusten dozu kontua? Zure sasoiatik hona, bertsolaritza zelan dagoela esango zeunke?**

Niretzat, bertsolaritza ondo dago. Ez orain urte batzuk zegoen bezain puzturik, beharbada, baina kalitate handiagoa dauka eta lekutuago dago. Beharbada, freskura apur baten falta ikusten deusat. Zenbat eta bertsolaria kultuagoa izan, freskura hori galtzeko arrisku handiagoa dago. Niri ziria eta horrelakoak be gustetan jataz. Eta horreexen falta hartzen dot sarri.

**Bertsozale heldu samar askori entzun deutsegu gaurko bertsolariei ez deutseela ulertzen. "Ez dot aitzen zer dinoen", esaten dabe. Zeozer badagoela dirudi, asko aldatu dena. Zeuk zelan ikusten dozu hori?**

Geuri be bardin gertatu behar jaku gazteagoe-

kin. Klabeak diferenteak dira, berba egiteko moduak be bai. Hori normala da. Segun zer gairi buruz dabilzen, publikoak erreakzino ezbardinak ditu. Segun zer metafora darabileen eta abar, jakina. Heltzen joanaz batera, pipertu be egingo dira, eta horrexen falta sometan dot apur bat. Nik, esaterako, Egaña eta Lizasoren saio libre bat entzutea oso gustuko dot, eta hori gazteei ez deutset hainbeste ikusten. Bertso jantziagoak, potoloak, beharbada, baina beste piper hori falta, hemen gure inguruko bertsolarien artean, behintzat. Gero, ba, bertso mundua, mundu moduan, beste espazio batzuk irabazten doala uste dot, ezta? Lehen baserritar batzuen eta hizkuntza baztertu baten forma bat izatetik (nahiz eta hori be baloratu egin behar den), une honetan bere espazioa zabalitzen ari da. Ez behar den beste, halan be, ze nik uste dot bertsolaritzak, eskola formal mailan, institutuetan sartuta egon behar leukeela. Literatura arloan, olerkiak legez, bertsolaritzak be hortxe egon behar leuke, ze gure olerkia bertsoen metrikakoa da. Baina zelan irakasleak maila horretan prestatu barik dagozen, ba, ez da egiten. Behe mailetan askoz gehiago lantzen da, bigarren hezkuntzatik gorantz baino. Orduan, unibertsitatean be, literatura barruan, bertsolaritza sartzen denean, beste helmuga batzuk etorriko dira.

**Eta gaur egun zer puntutan gagoz, bai emakumeen bertsolaritzango presentzian, bai bertsolaritzaren zabalkundeetan, oro har?**

Nik normalizazioa maila guztietan etorriko den itxaropena daukat. Andrazkoen presentzia normala horixe normaltzen denean etorriko da. Etorrita dago, baina proportzino handiagoan, beharbada. Ez dauka zertan etorririk, gura ez badau, baina normalizazioa etorriko da normala denean, plazetan andrazko gehiago dabilenean. Gure sasoian, eta orain be bai, hamasei bat urtera arte, neskak gehiago ziren. Gero,

nagusitzen direnean, neskak gitxiago dira mutilak baino. Baina, lehenago, desagertu egiten ziren eta, orain, batzuk mantendu egiten dira. Horrek esan gura dau badoala normalizetan. Hortik aparte, Bertsozale Elkartek elkarte sendoaren itxura dauka. Herrialdeetan be elkarte indartsuak dagoz; Bizkaian zer esanik be ez. Artxibo, nazinoarteko hartu-emon eta abar, beste prestigio bat dago. Bertsolaritza gaur indartsu dago.

**Orain, bertso kontuei apur bat itzita, baina hain era ausartean plazaratu zen emakume harek zer ibilbide zekarren jabetzeko, zein da zure lan curriculuma? Beti irakaslea izan zara?**

Ez, ez. Hasikeran, nire formakuntza administratiborako izan zen. Enpresa handi baten, pertsonal-buruaren idazkari egon nintzen urtebete eta erdian. Gero, enpresa horretan, kontaduriara pasatu nintzen, beste urtebete eta erdirako, eta hor nembilela, ikastolatik eskaria etorri zen: ikastola batean andereñoa behar ebela, baina andereño euskaldunik ez ebela aurkitzen. Ordu-rako baneukan Euskaltzaindiak emoten eban euskara irakasteko titulua eta hainbat ikastaro ere egiten neban. Nahiz eta enpresan beharrean nembilen, iluntzeetan ikastera joaten nintzen, eta baita udan-eta egiten ziren ikastaroetara ere, matematikak eta abar, ze nire gogoia beti irakasle izatea zen.

**Eta, azkenean, lortu egin zenduen irakasle izatea.**

Ikastola batean beharrean hastea, behintzat, lortu neban, Otxandion, hain zuzen. Han urtebete egin ondoren, alde egin beharra izan neban, eta gero, Basaurin, beste hiru urte egin nituen. Gazterik ezkondu nintzen eta itzi egin neutsan lanari, baina gehiago ikasteko, titulua ateratzeko aprobetxatu neban eta, bitartean, Zornotzako eskola publikoan hasi nintzen beharrean, eta handik, Iurretako ikastolara. Orain Iurretako eskola publikoan nabil.

**Iurretako ikastolako aro ha apenas ahaztuta daukazun.**

Ez gero! Ikastolan dena egiten genduen, irakasle, guraso, militante, dirua ateratzeko ekintzak, jaiak, dena. Oso giro ona, baina dirurik ez, eta dena geuk egin behar. Aro ederra izan zen eta izaten jarraitzen dau, baina, beharbada, pena daukat neuretzat denpora gehiago hartu ez izana, etxean eta familian gehiago gozetako. Baina egindakoa eginda dago eta oso gustura nago.

## JOSU ZABALA



*"Bertikalitatea berreskuratzean, shockeatua nago. Osorik ikusi barri dot neure bizitzako bertso erakustaldirik handiena, eta, gainera, butakarik pribilegiatuenetik".*

1954ko ekainaren 6an jaioa, Otxandioko Mekoletan, Felix eta Felizianaren best seme-alabertarik azkena. Urte bi zituela, familia Gasteizera aldatu zen. Bizialdirik gehiena han eginik, (Gernikan eta Arrasaten be bai urte batzuk), azken 13 urteotan, bere jaiotauzoan bizi da barriro, irlandar Rita Murphy lagunagaz. Izen-abizenak, Josu Zabala. Ezagutzen? Horrela esanda, ez hainbeste, beharbada. Baina baietz entzun dozuela Hertzainak musika-talde hertzianoa! Nor zen talde horren zerebroa? Bera! 1986an, irakaskuntza

itzi eta musikatik bizitzea (edo bizitza, berea eta inorena, musikaz astintzea) erabagi ebana. Bertsolaritzaren alderantzia emon zeikeen musika-biziera ha ez zen Josurentzat eragozpen izan, bertsolaritzagaz, edo bertsolari batzuekin, behintzat, hartu-emon artistiko eta pertsonal estua gartatu zeien.

Elkarrizketa honen motiboa bitxia izan da, zelebrea ez esatearren, eta garbiena eta praktikoena bera azaltzetik hastea izango da, kortesiazko itzulinguuetan geure buruak lorrinzen ibili barik. Josu Zabalar liburu honetarako kolaborazio bat eskatu jakon, zutabe moduan joango zena, beste hainbat izen interesgarriren artean. "2.000 karaktere inguruko artikulutxo bat, zeuk bertsolaritzagaz izan dozun edozein esperientzia kontatuz". Horixe izan zen eskaria, berak behingoan onartua, edozertarako ohi dauen eskuzabalez. "Zer, Josu? Zelan doa zutabea?" - "Badoa, badoa! Bihar bertan bialduko deutsut" - "2.000 karaktere atoa betetzen dira eta" - "2.000? Ba, nik ez ditut kontatu, beste ordenagailu batean nabil eta". Kontatu zituen eta 8.000tik gora zihoan. Aibadios! Orain zer egin behar joagu? Hainbeste laburtzerik ez zegoen. Zutabea hainbeste luzatzerik be ez zegoen. Idazkia lan-taldeari hain bitxia eta diferentea



Joseba Olaldearen argazkia. XDZ

U. Iturriaga, Josu Zabala eta I. Elortza, 7 Eskale taldearen aurkezpenean.

begitandu jakon ze, zelan edo halan aprobetxatu egin behar zela erabagi zen. Eta, azkenean, ganoraz sartzeko modu bakarra elkarrizketa forma emotea zenez, horixe onartu zen, testua hornitze-ko, hiru-lau itaun gehigarri eginik.

**Alukeria ederra egin deustazu, txo! Neugazko ibilera bat kontatzen dozu, eta orain, gainera, neuk elkarrizketatu behar zu.**

Ezer ez eskatzea zeunkien. Badakizue nigaz beti sortzen dela konplikazinoen bat.

**Eskatua justu emotea gitxi ez dela, zuk eskaria bost bider ondu zenuen. Zelan oldartu zinen hainbesteko desneurritaino?**

Inauterien zorabio berbiztua izango zen, kontatzen hastean inguratu ninduena. Nahi badozue, moztu bildur barik edo egin nahi dozuena, eh!

**Moztea penagarri litzatekeen prosa egin dozu bertsoaren gainean. Liburu honi ez jako txarto etorriko zure narrazino astrala.**

Ba, neure bizi guztiko lehenengo artikulua izango da, enkarguz, gainera!

**Noiz hasi zinen bertsolaritzaren barri jasotzen edo zeozer entzuten?**

Aitak bertso batzuk kantatzen zituen, gerrakoak, Sabino Aranaren gainekoak eta abar, baina, gure etxean, bertso giro gitxi zegoen. Eta Gasteizen eta orduan, askoz gitxiago. Ez dok Amairu-gaz, Xabier Letegaz eta halan hasi nintzen bertsoak entzuten. Gero, trantsizino garaian, han-hemengo jaietan, plazan be hasi nintzen bertsolariak ikusten, baina nahikoa urrunetik.

**Beraz, nik musikari bila zeugana jo arte, ez zenuen bertsolaritzagaz hartu-emonik izan?**

Halako hartu-emon hurrekorik ez. Eta, izan nebanean be, enkarguz edo eskariz izan zen, kasu haretan, zeure bitartez.

**Geroago, Unai Iturriaga eta Igor Elortzagaz izan zenuen mogidaren ekimena zeurea izango zen.**

Ezta! Hori be enkargu baten ondorio izan zen. Basauriko Trintxera elkartetik, Josu Egireunen bitartez, pobreziaren inguruko jardunaldietan parte hartzeko gonbita etorri jakun, *Bertso berriak, pobreziari jarriak* izeneko sortagaz bete genduena. Gero, gure artean dena konplikatzen denez, kantu-ikuskizunezko talde bat sortzea pentsatzen hasi ginen, eszenografia eta guzti-koa. Halantxe sortu zen *Zazpi eskaleak*.

**Eta gero, "Barrenkaleko bluesak".**

Hori be enkarguz etorri zen. Ekimenen meritu guztia aitaturiko Josu Egireunena da. Drogari buruzko jardunaldiak antolatu zitueen Basaurin, eta guk drogari buruzko interbentzino musikal bat izango genduen. Baina ez ginen heldu Basaurirako ezer prestatzera. Halan be, konplikazinoetan sartzeko geure grinari ukorik egin ezinez, asmoak aurrera jarraitu eban eta beste kantu-ikuskizun bat garatzen hasi ginen, dena droga munduaren inguruan, handik urtebete ingurura burutu genduena. Halantxe sortu zen "Barrenkaleko bluesak".

**Hirugarrenik izango ete da?**

Harrezkero, gauzak asko aldatu dira eta ez da erraza, baina leitekeena da. Josu Egireunen edo beste enkargatzailearen baten zain gagoz.

**Orduan, zure sormen guztia enkarguzkoa da?**

Mundura be "enkargaturik" sortuko nintzen eta!

Hemendik aurrera, Tolosako inauteri-ibilera datorrenez, elkarrizketagileak hirugarren pertsonara pasatu beharko dau, ez neu tarteko nazen gaua kontatzen dauelako bakarrik, baizik, batez be, nitaz hirugarren pertsonan egiten dituen aipuak zu pertsonara egokitzeak testua adulteratuko leukeelako.

**Goazen, ba, Tolosako inauteri-gau haretara, eta hasi gaitzen prestakuntzatik, gatxa baita inork ez ezagutzeko moduan aurkeztea kalean bertan inprobisatzea.**

Arratsaldeko seirak eta erdiak aldera geratuak ginen Gamarran, Gasteiz ondoan, Hertzainak rock taldearen sasoi haretako entsegu-lokalean. Inauterikidea heldu zenean, ni ondoko aroztegian nengoen, karretilla moduko zurezko tramankulu baten fabrikazinoan, hango arotzari laguntzen. Arotzaren lana pagatzeko, tramankulu haren funtzino eta erabilerarako helburuaz, galdeketa mesfidatia pairatu behar izan neban. Benetako erantzuna emoteak arotzari jakinmina areagotu egiten eutsan, eta dirutan hain merke lortu genduenak garesti samar urten eustan azalpenetan.

**Karretilla zertarako behar zendueen?**

Egon pixka batean, neuri be ulertzea kostatu jatan eta! Karretilla egin beharra zegoen eta egina zen. Gainerako mozarroak be prestatu genduzen, de inkognito!, ekintza ha sekretuan eta inori azaldu barik egin behar genduen eta. Gerrilla-asalto bat legez. Xabier garai zaharretako lau hankako ikazkin bihurtu zen, arropa zarpailez, arpegia baltz margoturik, zaku bat burutik, neguko haize-uritan arbitara legez, eta praka bien ezkerreko hanka bere gorputzeko eskumako hankatik sarturik, praken eskumako hanka airean itzi eta operazino inbertsoa eginez beste praka biekin bere beste hankan.

**Esplikazino hori imajinatzea errazagoa da ulertzea baino. Eta zeu?**

Niri sorgina-edo izatea tokatzen jatan Xabierren gidoiaren arabera, eta, beraz, gau batez trabestitu nintzen, neure lehengusina batek, momentu haretan zertarako jakin barik, prestatu eustan euskal dantza-taldeko soinekoagaz. Eguraldiak itxura lar segurua ez zeukala ikusita, aitaren lonjatik goardasol prehistoriko eta erraldoi bat

hartu genduen. Xabierrek manifestazinoetan antolatzaileek erabiltzen ditueen eskuko megafonillo horreetariko bat be ekarri eban nondibait, txatar-batzaileraren bati kenduta edo. Eta Tolosara abiatu ginen.

**Itxaron apur batean, Tolosan martxan hasitakotan, argibideetarako egokierarik apenas izango den eta. Nondik edo zelan sortu jatzuen Tolosako inauterietara joateko haizealdi hori?**

Pare bat aste lehenago, biok inauterietan parranda-saio bat egiteko gonbita luzatu zidan Xabierrek. Mozorrotu eta, doinuz eta bertsoz. Tolosako asteartean, jentilajea murgildu. Ni oso festazalea nintzen, baina... abade izandako bategaz, zer motako gaupasa egin daiteke? Xabierri, beragaz hainbat plaza, entsegu, bidaia eta bizitza-zati musikari laguntzaile gisa pasata, ezin neutsan golfoa izaterik leporatu. Ostera, golfo artean ondo moldatzeko gai zela autortu bai. Azken finean, oso proposamen punkia

635



Joseba Oialderen arxiboa. XDZ

7 eskale taldea, 1994ean.

-garaikidea- zen, eta erraz konbentzitu ninduen. Ondoren, bera joan zen ideia lantzen, mozorroen gainekoa, karretillarena eta abar.

**Intentzinoena mozorroena baino hobeto ulertu dogula emonik, kokatu gaitezen plazan. Zelan edo zertan hasi zinien?**

Gaueko hamar eta erdietan helduko ginen Tolosara. Ekitaldia hasi aurretik, zeozer jateko gogoia bagenduen, baina nire amesetako afaria pare bat pintxo eta kokakola bat bihurtu zen. Hain zuzen, herriko ostalaritzak eskaintza-eskarien arteko egundoko desoreka pairatzen eban une haretan, alkoholzale mozorrotuen uholdeei esker. Kaleak beterik zegozen eta tabernak topera. Giro alaia eta kaotikoa. Gu, sasoirako jantziak, eta, batez be, Xabier, bere antzezpena martxan jartzeko irrikitan.

**Buruan lan luzeak eta urdailean afari laburra?**

Tira! Zurezko karretilla (egur zaharrezkoa, hobeto esanda) kotxetik atera genduen eta nekez akoplatu geuntsan guardasola, euri-tanta batzuk hasiak ziren eta. Guardasola zabaldukotan, karpa ibiltari ikusgarria zen gure muntaia. Soinuagaz karretillan jesarri eta, parrandakideak aginduta, fandango bat jotzen hasi nintzen, koplatan abiatu behar zela eta. Xabier gure egoerari buruzko koplak inprobisatzen hasi zen: gu biok, astebete lehenagotik, ezkonbarriak ginen eta, modu esplikaezinean erditzeko nengoenez, senarrak karretillan ninderoan maternitatera... urgentementian!

**Urgentementian eta gelditi?**

Ez luzaro be. Jenteari zabaltzeko astia emon behar jakon. Gengozen lekuan, hiru-lau koplak airera bota, megafonilloa eskegi eta karretillan etzunda eroaten ninduen kale zaratatsuetan zehar, nengoen jarreraren eta mogimenduekin, biribilketa moduko zerbait jotzen saiatzen nintzen bitartean. Jente-inguru egokia ikusten eba-

nean, karretilla geratu eta fandangoa edo arinarina eskatzen eustan barriro. Eta barriro be maternitatearen kontuagaz hasten zen, inspirazioa emoten eutsien ikusleei eskainitako koplak zirikatzaile eta barregarriak tartekatuz.

**Jenterik hurreratzen jatzuen?**

Beharko, geu sartzen ginen jentetzan eta!

**Zelako erreakzinoz? Ikusleek zelan hartzen eben zuen intrusinoaz?**

Jenteak barre-algaraz eta txaloz zelebratzen zituen haren koplak eta, zer esanik ez, batzuk berehala harritu ziren. Posible ete zen lau hankako (baina tente!) ikazkin eskatologiko ha Xabier Amuriza bertsolari txapeldun eta ospetsua izatea? Lehenengotan, nortzuk dozak honek? eta abar, luzaro ibili ziren identifikatu guran, baina mozorroek eta megafonotxoaren soinu tonboleroak ez eben lortu Xabier ezkututzerik, eta gure "de inkognito" pasatzeko asmoa frakasoia izan zen.... beno, nire kasuan ez.

**Xabier identifikatzea ez zen gatxa izango, aho-tsean eta kantakeran.**

Hain erraza be ez zen. Megafonilloak ahotsa deformatu edo bozinate egiten eban, eta berak be apur bat aire ganberroa emoten eutsan kantakerari. Eta, batez be, inori ez jakon burutik pasatzen Amurizak halan agertu behar ebanik. Baina kantatzen zituen gauzakaitik, anonimatu luzea be gatxa zen, batez be, Tejeroren aitame-nak egiten hasten zenean. Hain zuzen, Tejero-kolpearen lehenengo urteurrena zen eta harexen oroitzapena zen gure agerpenaren arrazoitzat kantatzen ebanetariko bat.

**Eta zu?**

Ni, mozorroaz lotsatua, karretillan etzunda eta oinak lurrik zapaldu ezinik, soinua gainera jausita jotzen eta gora begirako jarrera deseroso eta neketsu haretan, urduri eta erabat bulnerable

sentitzen nintzen. Eskerrak, halako laguna ondoan nebala, nigan inor ez zela fijasen. Gutaz konturatzen zen jente asko hasi jakun eurekin parrandan elkartzeko eskaintzan, trago eta abar, baina Xabierrek fagotizatuak izateko arriskua segituan sahiesten eban, karretillari heldu eta barriro martxan, edozein norabidetan eten barik, publiko barriaren bila. Gabeko giro euforikoan, batzuk ausartzen ziren, hasieran, Xabierri erantzunak edo puntuak emoten, baina, nogaz ari ziren ohartzean, publiko pasiboaren paperera pasatzen ziren, errespetuz. Salbuespena erdaldun bat izan zen, Xabierrek, azkenean, erdarazko koplak baten bidez, dotore uxatu ebana. Horrela, gure kuadrila gau osoan mantendu zen, bere hasierako egitura minimoan.

#### **Tabernetan be sartzen zinien ala kale hutsean zenbilzeen?**

Tabernetakoa, zaratagaitik eta lekurik ezagaitik, ez zen gure espektakulurako girorik egokiena, eta ez ginen bertara sartzen eta, jakina, ez genduen ezer edaten. Harrigarria parranda!

#### **Zeu Maternitaterako bazinen, mogimenduek kuriosoak izan beharko eben!**

Ez dakit horixe! Ni, karretilla haretan etzunda, soinuaren presinoa gainean eta lurragazko kontaktua galduta, preso eta abandonaturik sentitzen nintzen. Guardasolaren azpi baltzari begira, mundua beste guztien kontrako perspektibatik ikustera kondenatua nengoen. Xabier, oster, energiak beterik, bere saltsan zebilen. Parrandaren lema berea zen. Berak erabagitzen (edo inprobisatzen) eban dena: nora joan, non geratu, zer jo, zer kontatu... Hasi nintzen jabetzen. Somatu neban nire laguna beste mundu batean zegoela eta, erreklamu gisa, edo bertso barrien hausnarketarako tartea irabazteko bakarrik behar ebala nire konplizitatea. Egoeraren kontrol osoa berea zen. Ha guztia dexente urruntzen zen nire gaupasa perfektuaren eskematik.

Xabierrek, geroago eta probokatzailago, geroago eta ausartago, bertsoaz soilik mozkortzen, ez zituen errezibitzen nire atsedenaldira eta tragorako S.O.S.ak. Ordu bata eta erdiak izango ziren, gau haretako atsedenaldira bakarrik lortu nebanean. Karretilla aparkatu eta egarria presaz kendu genduen taberna batean, kokakola eta botila bat uren laguntasunez, laster barriro abiatzeko. Kale nagusira heldu orduko, jente asko zegoen jakitun, lau hankako ikazkin bertsolari batek neska jantzitako soinularia zerabilela karretillan, Tolosako kaleetan.

#### **Indarbarriturik edo indartxo-barriturik, zer aurkitzen dozue bigarren ekitaldian, "bigarrena inoiz be ez hobea" delakoa gertatzen ez bajatzue?**

Atertu egin dau eta iretargia be, nahiz mozorrotu barik, festara apuntatzen da. Epeldu be egin dau eta sentitzen dot zelak, kale zaratatsu honetan, gure musikak inguruko zaratak ahultzen dituen, errespetua sortzen, geroago eta inguru zabalagoan. Geroago eta garbiago entzuten dot neure soinuaren hotsa. Karretilla geratu egin da, eta gugaz batera atzetik datozen kuadrila batzuk be bai. Xabierrek orain erregistroa aldatzea erabagi dau. Ziriak eta barreak albo batera itzi eta gai sakon eta transzendentetara jauzi egiten dau. Nire memoria gaixok gogoratu ezin dauen bertso-doinu standar bat eskatzen deust orain.

#### **Gai transzendentetan sartzeko, ez dirudi okasinorik izentatuena.**

Ez dirudi, baina bada. Doinua lirikoa da. Jotzen dot melodia behin, eta itxaroten dot. Kalea mutu da, eta Xabierrek gau haretako lehenengo bertso "serioa" osatzen dau. Segian, karretillari heldu eta martxan abiatzen da geldiro. Gure atzetik, dozenakako koro bat be martxan dator, bertsoaren azken puntu biak errepikatuz. Instintiboki, (Xabierrek kontraseinua pasata?), melodia tarte bat gehitzen dot, bertso barri baterako sarrera



emonez. Xabierrek barriro karretilla geratzen dau, eta, beragaz batera, jarraitzen deuskun segizio gero eta handiagoa be gelditu egiten da. Eta emoten dau denpora be gelditu egin dela. Bigarren bertsoa hasten da. Bijilatzen gaituen iretargiari begira dago: bertsoa eskaintzen deutso, isiltasun harrigarriaren erdian. Amaitutakoan, barriro karretillari heldu eta, mantso-mantso, kalean gora doa, atzeko koru gero eta handiagoaren errepikapena entzuten dogun bitartean. Eta hor Xabier erraldoitzen da. Kaleaz jabetu da, egoera zeharo kontrolatua dauka, eta gauarentzat, bizitzarentzat, gogoeta lirikoz beteriko bertsoek hipnotizatuko dabe, minutu batzuk lehenago, kale zalapartatsu, ero eta fribolitatez betea zena.

**Hainbeste urteren ondoren, kontatzen baino gehiago, ikusten ari zarela dirudi.**

Halantxe da eta! Giroa erlijiosoa sortzen da. Lehengo kaosa prozesino ordenatua da orain. Aurre-aurrean gidari, Xabierrek ez dau orain megafonillo kutrerik behar, bere boza entzunarazteko. Kaleko ohiartzun naturalak proiektatzen dau bere bertsoa, giro magikoa sortuz. Airea sentsazino paranormalez kargatzen da. Denak erabat irrealak dirudi, serenitatez eta ordenaz betea. Txamanak lortu dau integrazino kosmikoa.

**Eta zeu non zagoz integrazino kosmiko horretan?**

Ni, kalea, jentea eta zerua astralki konektatuak gagoz bere ahots dirdaitso eta gardenera. Zerura begira eta jenteari lepoa emonez kantatzean, trantzean dagoen mistikoa emoten dau. Oilonarru totalean nago. Zeremonia handi bateko monagiloa izatea tokatu jatala sentitzen dot. Ama Birjina eta Jose Belengo portalerako bidaia-aren, edo Parisen mando-apustua galdu eban albokariaren irudiak nahasten jataz buruan.

**Tolosako kaleetan, egun horretan, milaka lagun pilotzen da nor baino nor zaratatsuago, eta zuek zeremonia mistikoa?**

Gu hantxe, Tejeroren "aquí no pasa nada" ("pero ya pasará") famatuan kontzentraturik. Gugaz gurutzatzen diren parrandazaleak mutu, inpresionatuta gelditzen dira gure komitibaren tamainu eta solemnitaez, eta gehienak geure atzetik datoz orain kantari, kale osoa hartuz. Xabierrek, geldialdietan, bere arimaren zatitxo bat oparitzen deuskun baktotxean, trukean ehundaka ahotsetako koruak erantzuten deutso leialki, eta ohiartzun liluragarria, behin kalean gora, behin kalean behera, mantso-mantso doa, gau osoko bidaia eginez. Goizeko bostetan-edo, bidaia amaituzat emoten dogu, Maternitatera heldu barik.

**Eta umerik egin barik!**

Badakizuenez, inauterian dena aldrebes izaten da eta, azkenean, ez naz neu izan erditu dena, Xabier baizik, Tolosako kale nagusian. Ama barri baten moduan sentituko da orain, nekeari eta minari nagusitzen jaken zorion infinituan. Bai! Badirudi oraintxe asetu dela. Gaurko saio luzeak ariketa fisiko galanta eta ezohikoa eskatu deutso bere gorputz eta buruari.

**Eta zuk karretillatik jaitsi egin behar, hatara ohitzen hainbeste kosta eta gero!**

Bertikalitatea berreskuratzean, shockeatua nago. Osorik ikusi barri dot neure bizitzako bertso erakustaldirik handiena, eta, gainera, butakarik pribilegiatuenetik. Erreflexurik barik, trepetxuak batu eta Xabierrek bueltatzen nau etxera. Barne poza ezin dau disimulatu bidaian. Bere plana ondo baino hobeto bete da eta, bere buruaren kontra egindako erronkatik, garaile urten dau zalantza barik. Gaupasalari onen tankeran, biharamoneko lanei piper eginda, egun-sentiagaz goaz ohera, baktotxa berera, noski, ez baikara benetako ezkontideak.


**Ni ez nau hori guztia sinisteak muzintzen, xehetasun ezkutatu asko barritu badeustazuz be, baina irakurleak ez ete dau pentsatuko Josu Zabalaren beste "hertzainkada" bat izan dela?**

Irakurleak eskubide osoz izan leikez zalantzak, narrazino honen objetibotasunean. Neu be oheratzerakoan, 1982ko Hauts-egun goiz haretan, gertatutakoaz oraindino txunditurik eta loak hartu ezinik, erabateko konfusino mentalaren erdian, ames, haluzinazino edo kokakolari zeozer botako eutsielako teorietan nenbilen. Arratsaldean jagikeran, abduzino kasuetan ohi den moduan, asko ahaleginduta be, ez nintzen bertsorik gogoratzeko gauza, baina, soinuaren auspoari eragiteko, besoa leher eginda neukan. Lehengusinarene jantzia ohe gainean topatu neban, eta gogotik kendu ezinik nenbilen zurezko (egur zaharrezko) karretilla Gamarrako Hertzainen lokalean agertu zen.

# Elkarrizketak



## Luze eta zabal



## Xabier Amuriza



*"Nik bertsolaritzan egitekoak eginda daukadaz. Umetan diru kontetan gozetan baneban, orain hasita nago denpora kontetan. Kontetan baino gehiago kalkuletan, ze nire denpora amaitzen ari da, eta bertsoaz beste gauza asko daukat oraindino egiteko, edo saiatzeko, behintzat".*

Nork pentsatuko eban neure senarra elkarrizketatu beharko nebanik! Parera etorri denez gero, beste temaldi bat gehiagogaitik, etxea ez da lokatuko. Nire gizona (berak "gure andrea" esango leuke), bertsolari baino lehenago, "Gizaburuagako abade" ezagutu genduen guk, beste batzuek "Amorotoko abade" ezagutu eben legez. Inoiz grazia be emoten deust, baina nire inguruan dabilen gizon kokkor honek, neure geruza sakonetan (umezaro-gaztaroretan), "gure abadea" izaten jarraitzen dau. Hainbeste bider bere aurrean belaunikatu nintzen Don Jabier ha oraingo Amuriza honegaz batzea zelebrea litzateke, etxean beste izen batzuekin izentatuko ez bagendu. Ez Don Jabier, ez Jabier, ez Amuriza, ez Xabier, ez... Baina ezizenak izentetan ezingo dot hasi, amari (bere amari) zeruan erremuskadaren batek urten ez deion.

**Zelan, gizon?**

Halan, andra.

644

**Lehentxoago-gerotxoago horraxa jo beharko dogu eta abiatu gaitezen bertatik. Zu zergaitik hasi zinen nigaz?**

Igual izango zen arrazoi barik. Neu ala zeu hasi ginen, ba?

**Hemen galdetzailea neu naz.**

Ah! Ofizio ezagunean gabilz, orduan. Tiratu zeunstalako izango zen.

**Baina zeuk deituta. Ala ahaztuta zagoz?**

Zelan ahaztuko nintzen, ba, kafetxo bat elkarre-gaz hartzeko egin neutsun proposamenari esaldia amaitu aurretik baietz erantzun zeuntsana?

**Nire baietza Don Jabierrentzat izan zen.**

Eta nire deia lehenengo jaunartzea emon neutsan neskatoarentzat. Horrexegaitik ipiniko genduen hitzordua Bilboko Mucedades kafetegian.

**Majo etorri zinen zu hara, hitzordua baino lehenago eta segundo-orratza baino zoliago.**

Eta zuk, etorriaz batera, zapla mosua emon halakorik itxaroten ez ebanari, segundo-orratza lasaitzeko.

**Ni lehen be zuri mosuak emonda nengoen, kartzelatik etorri zinenean eta.**

Bai, ba, preso gizajoa! Oraingoan, ostera, ez nentorren kartzelatik, Bilbon kafetxo bat hartze-ra gonbidatze susmagarritik baino.

**Erratuta zagoz, nire mosua gizalege huts eta garbitik haragokoa izan zela uste baduzu.**

Nik ez neban pentsatu garbia ala zelakoa zen, mosua zela baino. Haretaz zeozer pentsetan hasita nengoen neska gazte batena, hain zuzen. Eta ez nenbilen hain oker, hurrengo asteko hitzordu proposamenari be baietz esan zeuntsan eta. Are gitxiago, hurrengo astean, aterkia eta eskolako apunte guztiak nire autoan ahaztu jatzuzenetik. Eta, batez be, *Egineko* nire Semaforo gorria zutabearen errekorre bat karteran horiturik zeneroala ikusi nebanetik.

**Zuri pentsamenduak, orduan legez oraintxe be, lartxo korritzen deutsu.**

Gehienetan, bai, baina izaten ditu salbuspen handiak, Arenaleko bertso saiora etorri zinenekoa, esaterako.

**Ni denetara joaten nintzen.**

Nik neu nengoenekoa bakarrik ikusi neikeen. Eta saio ondoren, -zapatu eguerdia izango zen-, Bilbotik Gizaburuagara joan behar zenuela eta, neuk eroango zindudazela bide batez esan neutsun, eta baietz erantzun zenuen, "bide batez" horrena sinistekoa izan ez arren; eta nik, baietzaren azpian, zeure poza ulertu-uste izan neban, nirea bistan zegoen eta.

**Eta badakizu bidean zer esan zeunstan, Gernikara baino lehentxoago, Ariatzako elizaren pare-parean?**

Gauza asko esango neutsuzen, atsegin izan guran.

**Edarra atsegina! "Zuk egin behar dozuna da jandajotaibili"**

Bai, ba! Dena kezka eta eginbeharra eta morapiloa besterik ez zenduen agertuko eta.

**Eta ni kotxearen ate kontrara josita. Zelan esan leikio hori bere abadea izandako batek halako neskato laño bati?**

Ez zen, antza, hain txarto esana izan, azkenean horretantxe amaitu genduen eta.

**Ez zuk nahi bezain arin.**

Bai, bai. Laster konturatu nintzen azkena urrun zegoela han.

**Nire aurretik zenbat izan zenduzen?**

Hori be gaiaren barruan sartzen da?

**Dinogun irakurleakanako eskuzabalean.**

Gero zeuk irakurleei galdetuz jakiteko?

**Nik zeuri galdetu deutsut. Ea elkarrizketa honek neuri be balio deustan bide batez. Eta "bide batez" hori hartu zeure goragokoa legez.**

Izan nituen, bai, bide-lagun batzuk.

**Bide-lagunak?**

Zeuganako bidea egiten lagundu eustenak. Batez be, Atxuriko geltokian, aita medikuagana eroatetik bueltan zentozela, ni haregaz ikusteak amorru itzela emon ei eutsuna.

**Emongo ez eustan, ba? Han jatorik aitari gerrako kontuak aitatzen eta niri venezolana mosukari bat aurkezten!**

Nik zelan jakin behar neban zure amorruaren

barri? Adinean geunkan aldeagaz, aukera hori otu be ez jatan egingo.

**Gero egin jatzun, ba!**

Egin jatan, egin jatan... Gizaburuagara nindoan bakotxean, hain abegikor hurreratzen zinen beti!

**Ni denekin nintzen abegikorra, batez be, jente apur bat errespetagarriagaz.**

Neuk be horixe uste neban, harik eta, zuen kua-drilari Orioko pisuko giltzak itzi eta dena eginik, zure martxan mutilekin ebatzirik ikusten ez nebanez, (eta pretendienteak bazenduzen!), beste interpretazino bat laztantzen hasi nintzen arte. Baina, horretarako, urteak joango ziren.

**Ni oraindino neskatoa nintzen eta.**

Neskato heldua. Neuk aurea hartu ez baneu, oraindino zain egongo zinen?

**Nik banenkien etorriko zina.**

Errakuntzak be izaten dira horretan, eh!

**Baina ni seguru nengoen.**

Ikusi eta gero. Oraintxe jabetzen naz emakumeen intuizino delako hori burugogorkeria be izan daitekeela.

**Etorri zinen, ba, neuk pentsetan neban modu-moduan! Baina lehengo galdera airean dago oraindino. Bide-lagun "batzuk" hareek zenbat izan ziren?**

Bat eta bi baino gehiago eta bideak baino askoz gitxiago. Bertsolari zailduen ohikotik oso urrun, edozelan be.

**Zu, abade zinela be, ez zinen azkenengoa izan-go. Abadetxean sartu-urten handitxo ez zen ibiltzen han, Herri Gaztedi eta abarren atxakian?**

Ni orduan finean nenbilen. Ez pentsamenduak laguntzen ez eustalako, geure abadetza

errebeldia pasarte paraleloekin lorrintzeko baino argiago jokatu behar zelako baino. Zer besterik ez eben maiseatzaileek estimatuko, atxaki on bat aurkitzea baino, zegaz eta elizgizonen lakio sekularra zen gona-istilu bategaz? Beharbada, neskaren batek benetan tentatu izan banindu, jausiko nintzen, baina hori be ezinezkoa zen, edo niri ez jatan gertatu, behintzat. Konturatzen nintzen, edo neuk uste neban, sasoi eta inguru haretako neskek, erreparoagaitik, errespetuagaitik, zintzotasunagaitik, dena delakoagaitik, inpentsabletzat nindeukiela. Nire abade sasoiaren neska gazte izandako batzuek, zugaz nembilela zabaldu zenean, esan eben: Jakin izan bagendu horrela disponible zegoena! Neuk be orduan ez nekien halako suposamenen barririk, eta bizitza hau horrelaxe doa, gurutzatze erabagigarriak burutuko leukiezen pentsamenduen inkonfluentzian.

646

**Horrek esan gura dau gu bion konfluentzia inkonfluentzien arteko kasualitate bat izan zela?**

Kasualitateak dezepzionatzen bazaitu, egizu zeure sentimenduen sendotasuna berresteko hobia dirudien determinismoa izan zela. Filosofoak kontzeptu kontradiktorioen buruhaustean dibertitzen badira be, berba bata zein bestea errealitate beraren sinonimoak dira.

**Hori bertsoan esango zeunke?**

Esango neuke, baina bertso tentela litzateke. Gauza asko eta asko dagoz, pentsamenduko gehienak, neurritz eta errimaz kantatzeak grazia guztia galdu eragingo leuskienak.

**Zeintzuk dira orduan bertsoak grazia handituko leuskien gaiak?**

Ba, esaterako, geu bion hartu-emonaren herrian publikoki deklaratu genduen.

**Oraindino ez deustazu esan zuretzat bizitzako saiorik gogoangarriena bera izan zenik.**

Duda barik. Oraingoan, entzun nahi zenduena eta egia bat datoz, zeu ez zinen saioan izan baina.

**Gaixorik nengoen!**

Ala gaixotu egin zinen? Gorputz-gogoek izate bakarra osatzen dabela argi geratu zen orduan, gorputzak ederto libratu baitzinduzen gogoak ekidin nahi eban larritasunetik. Beren beregi egun haxe aukeratu, geure hartu-emonaren zure herriaren aurrean deklaratzeko, herri guztia bertan, eta zeu falta. Eta ni han, arriskuaren aurrean bakarrik, mozoloa bitrina argiztatuan legez. Saiorik onena ez dakit, baina gure bizitzako inportateena galdu zenduen.

**Gero agertu nintzen elizaldera.**

Sama buelta izara lako zapi koloretsuagaz batu-batu eginda.

**Behin honezkero, kontatu egin beharko dozu zelan izan zen.**

Denpora luze samarra generoan elkarregaz. Lehenengotan, nahikoa luzaro, ez zenduen nahi izaten herrian bikote moduan agertu geintzen. Zurrumuruak zabaldu ziren, mundu guztiak bazekien, eta esaten neutsun: "Egunen batean hartu-emon hau publiko egin beharko dogu, ba, herrian trankil ibili gaitzen be. Denek dakieena ezkutetan ibilita, ez dogu txarto-esana besterik irabazten, geure artean seguru bagagoz, behintzat". Halan, herriko jaietan, iraileko Andramarietan, bertsoan egiteko eskatu eustenez, egun haxe izango zela aproposa pentsatu genduen, geure zera ofizialtzeko. Andramari bigarrena zen eta egun horretan Oibarko ermitan izaten da meza eta meza ostekoa. Lopategi eroan neban lagun. Harek bazekien gure barri, eta esan neutsun: "Hi! Badakik, eh! Suabe eta kontuz, zakarkeria barik, hau kontu delikatua dok eta. Heu hasi aitatzen, kurioso-kurioso, eta

segi astiro-astiro, dena deklaratu arte". Lopategik elegantzia handiz egin eban aurrelari lana eta nik, harek tiratu ahala, sokari jarraitzea besterik ez neukan. Hormagain erdi jausi batetik kantatu genduen. Herriko eta erbesteko, jente piloa zegoen. Zeure gurasoak eta etxeoak be hantxe ziren. Denek itxaroten eben zeozerk urtengo ebala, eta ez geuntsan usteari marro egin. Halako aditasunik eta entzungurarik ez dot uste beste inoiz subertatu jatanik.

### Zorionean ez nengoen bertan!

Hautsi zen misterioa, eta gero zeuenera joan ginen bazkaltzera, publikantza biribila izan zeiten.

### Beste bertso saio bat be kontetan dozu *Enaz banaz* liburuan, abadetzako lehenengoa, Giza-buruagan, hain zuzen.

San Isidro egun bat izan zen. Gizaburuagan jai handia egiten zen orduan, egun horretan, eta

pentsatu neban: "Ez litzatekek hauxe egun eta plaza txarra, bertsolari-debuta egiteko". Neuk be antolakuntzan parte hartzen nebanez, proposatu neutsen, eta hareek zer besterik nahi? Abel Muniategi izan neban lagun eta, aurretik programan iragarrita zegoenez, han be espektazino itzela zegoen. Ordubete lehenago, meza-emoile eta sermoilari ikusi eben abadea, sotana eta guzti bertsotan entzutea (sasoi haretarako, gauza zorrotz samarrak kantetan, gainera), hori inoren buruan ez zen irudikatzen.

### Liburu honetan bertan, Aita Martzelek dino bertsoa oso baliabide egokia dela sermoigintzarako. Zuk egiten zenduen sermoirik bertsotan?

Inoiz egin neban Mendexako Santa Luzian, eurek eskatuta, aurreko urtean Aita Martzelek, hain zuzen, halantxe egin ebala eta. Baldintza horixe ipini eusten. Gehiago ez neban egin. Apur bat exhibizionismoa zela emoten eustan



Xabier Amuriza Abel Muniategigaz, Zornotzako Bernal, 1965 inguruan, oraindino sotana eta guzti.



eta ez jatan gustetan. Urte bero hareetan eta neure gaztetasan zintzoan, mezuagaz ardura-tuago nenbilen bitartekoekin baino. Aita Martzelek bere esperientzia kontetan dau eta oso interesgarria da, baina nik ez neban neure burua horretan ikusten. Gainera, nik bertsotan plazan egiten neban.

**Sotanagaz bertsotan egitea bitxia izango zen eta argazkiak be badaukaguz, baina sotana iztea bera be nobedadea izango zen, ba!**

Ez makala, eta hori be ez daukat ahazteko. Gizaburuagako baserririk menditarrenean, Urrexolan, herriko gazteriak, neska eta mutil, gatzatu-jana egiten eben, eta pentsatu neban: "Hauxe izan leitekek egun egokia, jente aurrean 'prakadun' agertzeko". Halantxe egin neban eta nire gorputzak egun haretan beste ikusmin sekula ez dau sortu.

648

**Eta lehenengo bertso saioa sotana barik?**

Hori be ondo gogoan daukat, Lekeitio, San Kristobal egunean, txoferren batzordetik deituta. Mugartegi, Arregi eta neu izan ginen. Argazkiak be badagoz. Lekeitio, Gizaburuagaren aldean, potzu handia zen eta jente klase asko zebilen han, batez be, errejimenekoak eta eliz zirkulu kontserbadorekoak. Baina gehienak pozik eta ahopeka animatzen. Aro ederra izan zen ha.

**Lehen aitatu dozun Abel Muniategigaz eta, seminarioan halako bertso-eskolatxo bat atondu ei zenduen.**

Ha be ederra izan zen, seminarioko bizitza ilunean argiune. Behin, teologiako jantokian, ospakizun bati buruzko bertso bat edo bi kantatzera urten neban. Oholtzako eskilaretan gora nindoala, Abel Muniategi atzetik zetorren. Ni teologiako hirugarren urtean eta bera lehenengoan gengozen. "Hik zer egin behar dok?", marmartu neutsan harriturik, eta berak: Bertsoak kantatu". Egitekoa egin genduen eta beherakoan esan neutsan: "Zer

egiten joagu elkarren ondoan bizitzen, elkarren barri jakin barik? Hasiko al gaituk bitartean elkartzen, bertsotan egiteko?". Muniategik ez zeukan, baietz esateko, hango bizi-errejimenagazko eskrupulu handirik. Hasi ginen, lantzean beste lagun bi edo hiru be batzen jakuzen, eta Muniategik eta nik, batez be, urte haretan ez genduen beste ardurarik izan, seminarioko zurruntasun tridentinoari bertsotan ihes egiteko zuloak aurkitzea baino. Disziplina koartelero haren transgresinoa, zeinaren gratuitatea kontzientziaren karga handi barik libratzekoa zen, alternatiba ilusinotsu bategaz duintzeko era bat zen.

**Aurretik, seminarioko urte guztietan... zera, zenbat urte izan ziren, guztira?**

Hamahiru. Hamaika urtegaz sartu eta hogeita laugaz urten.

**Hori bizialdi bat da.**

Hiru bizialdi. Umezaroaren zati bat, nerabezaro guztia eta gaztarorik gehiena.

**Eta seminarioko urte horretan guztietan, aurretik ez zeuntsan bertsoari ekin?**

Lehenengo sei-zazpi urteetan, ezta pentsatu be. Bertsotan zelan egingo genduen, ba, euskaraz egitea ezkutuko bizioa bazen? Gero, filosofiako urteetan dezente bizkortu eta nortu nintzen, baita sistema eliztar-militar haren aurka errebelatzen hasi be, intelektualki, guztiz, eta disziplinarki, trebetasunak ostu zeikeen beste, bizirau-penaren barruan. Euskara eta euskal mundua nire ikasgai nagusi bihurtu ziren, eta bertsolaritza be hortixek sartu zen, urteetako inexistenzia alde batetik dohatsuaren ondoren eta...

**Geldi, geldi! Niri egidazu berba ulertzeko moduan. Zer da inexistenzia dohatsu hori?**

Ba, urtebete karmeldarretan eginik, bigarrenean seminariora eroan nindueelarik, hango sunda antieuskalduna beste larribide bat gehiago izan-

go zela jabetzeak kontsolapen handi bat ekarri eustan: "Hemen, behintzat, inork ez jeustak bertsozik eskatuko". Ez nintzen erratu.

**Ezbehar handi bat legez esan dozu. Zer zeukan, ba, "bertsoa eskatzeak"?**

Larrialdi galanta. Nik, umetan, bertsoa zela eta ez zela, estuasun itzelak pasatua nituen. Ezkutatu egiten nintzen jente artetik, "bota bertso bat!" fatidiko ha aurreikusten neban okasino guztietan. Beti ez neban ondo kalkuletan, neu be jai-giro eta jan-giroan egonzale bainintzen, eta, batzuetan, apoa txoletan legez harrapatzen nindueen.

**Horrek, larritasuna barik, harrotasuna izateko hobia dirudi. Zu ez zinen, ba, "Torreburuko mutiko bertsolaria"?**

Horixe nintzen, bai, ospeak trebetasunari aurea hartu eutsalako.

**Baina zuri gustetan jatzun zeure inguruan famatutxoa izatea. Ez dinozu, ba, *Enaz banazen kontetan dozunez, Bizkargira lehenengoz joan zinen eguna zeure bizitzako egunik liluragarriena izan zela?***

Izan zen, bai, eta barrero kontatzeko gozamenari ezin deusat itzi. Gure aitaren fantasiari esker, nire lehen umezaroko zerik handiena eta intriganteena neure munduratzeari buruzko legenda zen. Beste "txotxo" guztiak Paristik etorriak ziren bitartean, ni Bizkargi menditik ekarri ninduen osaba soinu-lariak soinuaren barruan, maiatzaren hiruko Santakurtz egunean, kitanoei ostuta. Noiz joango naz Bizkargira?, ekiten neutsan aitari, etxetik urrun baina bistan zegoen mendi tontor ha eta zirkunstantzia guztiak bertan ikusi guran. Oraindino txikitxoa haz, Bizkargiraino joateko, esaten eustan berak. Aurten bai!, halako batean. Eta, harrigarria eta niretzat zapuzgarria, urte haretan edurra egin



X. Amurizaren lehenengo saio "prakaduna", Lekeition, J. Arregi eta J. Mugartegi lagun dituela. 1970 inguruan.

eban maiatzean, eta joan barik geratu behar izan neban. Zaharragoei itaundurik, edurte ezohiko ha 1947an egin eban. Beraz, ni, 1941ean jaiorik, hurrengo urtean zazpi urtegaz joan nintzen Bizkargira lehenengoz, oraindino legenda guztia sinisten nebala. Egun zoragarria izan zen nire begi oro-ikusgurentzat, bueltako Autzagane tabernako neure lehenengo bertso saio eta guzti, aita behean eta ni mostradore gainean. Gure aitaren inguruan, kantua eta umorea besterik ez zegoen. "Kartzelas" ezizeneko beste taberna-bertsolari batek txapela pasatu eban eta diru piloa eroan neban etxera. Joseparen mostradore gainera jaso nindueenean, ikaratu nintzen, baina ez neban izan larritzeko ahalmenik, aldi burrundatsu ha laino batean legez joan jatan eta. Goizaldean etxerakoan, hormako mahaia jaitsi eta kriseilu ketsuaren argipean, ama goitik marmarka eta aita azken zigarroa erretzen, diruen kontaketa amaitu nebanean, egun "apoteosikoa" esango neban, berba hori eza-gutu izan baneu.

650

#### **Orduan zer? Zer zeukan bertsoak "ezbeharrrik"?**

Orduan ez, baina harrezkero bai, edonon bertso eske hasten jatazen eta. Bertso ikasiak eta kantak banekizen, aita irakatsita, baina bat-batean zelan egingo neban, ba, nintzen bildurtiaz, gainera? Derrigor-derrigorrean, hasi eta amaitu egiten neban, baina jakin gura neuke zer eta zelan esanda. Aitak egiten eban antzera, seguruenik, baina hari ez eutsan ardura txarto zein ondo egin. Berak kantatu eta berak barre egin, haregaz ez zegoen barre egitea besterik.

#### **Baina zu, mutiko buru-handi, orduantxe be harroxkorra izango zinen, txaloak eta txanponak harturik, gainera.**

Ni jentearen eder indirektoak (aitaren bitartez entzunak eta ez gitxi berak asmatuak edo, behintzat, hanpatuak) kilikatzen ninduen, bai, baina oraindino ez neukan banitatearen kontzientziarik. Niri biziro gustetan jatana jente

artean egotea eta ibiltzea zen, baina ez banengo legez; dena ikusten eta entzuten, baina neuri inork ezer esan barik. Are gitxiago, ezin nebana eskaturik. Ez dot esango umezaroa apurtu eustanik, (dena jota, nire umezaroa fantastikoa izan zen), baina "bota bertsoa" konpromiso hori nire umetako bildurretariko bat izan zen. Seminarioari eskertu behar bildur horretatik libratzea, handiagoetan sartu ez banindu.

#### **Orduan, zuk bigarren umezaroa gainean daukazu, ze aspaldion hor zabilz esaten bertsolari-tzatik aldendu egin gura dozula, alde ez esatearren.**

Ba, bai! Nik bertsolaritzan egitekoak eginda daukadaz, eta umetan diru kontetan gozetan baneban, orain hasita nago denpora kontetan. Kontetan baino gehiago kalkuletan, ze nire denpora amaitzen ari da, eta bertsoaz beste gauza asko daukat oraindino egiteko, edo saiatzeko, behintzat.

#### **Esaterako?**

Esaterako, idatzi. Eta, idazteko, jesarrialdi luzeak egin eta bizitza batuagoa behar da. Ez da denpora materiala bakarrik, denpora internoa baino. Bertsolaritzako ibilera nahikoa absorben-tea eta oso barreiatua da. Gauza bat dauka ona: emonkorra dela. Idaztea, ostera, niretzat eta orain arte, behintzat, ruinosoa izan da. Eta, bizibidea nahitaezkoa denez, nondik atera behar dogu jesarrialdi luzeetarako bitartea, amaitzen ari den denpora zeken horretatik?

#### **Niri ez itaundu. Hori zeuk ikusi behar dozu.**

Baina bizibidea biona da, eta zu insegurantzak zenbat liluratzen zaituen badakit.

#### **Insegurantzak nor liluratzen dau, ba?**

Beno, insegurantza edo segurantza "osorik" eza esan gura neban.

**Osorik, osorik... hori inoiz be ez dago.**

Horixe dinot, ba, neuk be! Inoiz egon izan gara larri, edo bizimodu larrian, behintzat, baina orain ez dirudi larritzeko motiborik daukagunik.

**Hori geure artean erabagiko dogu. Zu, batzuetan, euforiko etxeratzen zara bertsotatik, esaterako, azken aldion, Sóraluzetik, Urruñatik, Iturrendik, Legazpitik, Elorriotik...**

Ni, gehienetan, bertso-afari edo bertso-bazkarie-tatik oso pozik itzultzen naz. Plazako saio libre-etatik be bai, baldintza egoki samarretan toka-tzen bada, behintzat.

**Eta hori dena bertan behera iztea pentsetan zabilz, holan beste barik?**

Hori dena izteak ez dau esan gura den-dena izterik. Aurkituko ditut lekuak eta motiboak, etxera pozik itzultzekoak. Munduan, baita geure euskal mikrosisteman be, badago bertsoaz beste hainbat edertasun.

**Batzuetan, egia esan, errukarri etortzen zara bertsotatik.**

Oriotzatik pasatutako indioilarra legez? Ba, bai. Batzuetan, sentsazio horixe ekartzen dot. Gertatu barriaz jabetu gura eta ezin lumajerik askatu. Gainera, ez da saioena bakarrik. Bertsoa dela eta ez dela, bakakizu urtean zenbat konpromiso txiki batzen den? Konpromiso txikiak, bertso aldetik, (igual, pare bat bertso kantetako baka-rrik), baina eguna edo egun erdia bardin jaten dabenak. Atzera-aurrera horretan ez dago nik gura neukeenera zentratzerik.

**Bertsotatik bueltan, zergatik kostatzen jatzu hainbeste ohera etortzea? Bajatork goizaldeko hirurak-lauretan eta, demoninoena! Hor jabilk beste ordubetea edo bian ezkaratzean buelta-ka, urten ezinik dabilen tapirra legez.**

Badakizu niri munduan gauza bi kostatzen jata-zena: ohera sartzea eta ohetik urtetea. Ohe-

ratzea, ez hainbeste loa heriotzaren entsegutat hartzen dodalako, itzarraldia eten behararen penaz baino. Animoso nabilenean, arantzea handitzen deust umetarik dakardan sentipen irremedi-ableak, hots, aldi onak arinegi amaitzen direla. Orduan, uretara derrigor saltatu behar dauen felid-oda legez ibiltzen naz, zingira ertzean hara-hona. Jaikitzean, barriz, bizitzara itzultzeko arrazoirik ez jat sekula parean subertetan, eta posizino-aldatzeak ikuspegi-aldatzea ekarri daien bildu-rrez, geldi-geldi egoten naz, pentsatuz: "Hartu eizue danok popatik! Nekatuta najagok beti leku berera itzultzen".

**Animoso zabilzenean, oheratzea gaitzi izatea ulertuko neuke, kokoagaz zagozenean be bar-din egingo ez bazendu.**

Orduan loa, entsegua barik, heriotza bera begi-tatzen jat. Hori ez litzateke oztopo, abailaldian desiagarri gerta leitekeenak hartara jotzeko kemenik eza bistaratuko ez baleu.

**Goazen kontu graziosoagoetara, zure lehenengo txapelera, esaterako, han be aurkituko dozu kontrabistaren bat baina.**

Kontrabistak bila joan barik etorri ziren, neure aldetiko nahikoa inozentzian, gainera.

**Baina zuk, pribatuan behintzat, beti esan dozu itzela izan zela ha. "Apoteosikoa" eta horrelako epitetok jaregin izan dozuz.**

Batez be, denporaren joanetik. Hogeita bosga-rren urteurrena igaro ondoren, izan dot halako unera heltzeko zoria, non, gazi-gozen bilakae-ran, gaziak urtzen eta gozoak apartzen joata-zen. Aitatu dozun "apoteosikoa" okerreko interpretaziorik eragin ez daien, berba horre-gaz, neure orduko gogokera edo barne-sentikera dinot, ez hainbeste egin neban saioa, nahiz eta hau be inoiz egin dodan konpletoena izan. Ni txapelketa haretara ilusino konbatiboz joan nin-tzen, batez be, finalerako sailkatzean, neure

aurreikuspen anbiziotsuak gertagarri ikusi nituenean.

**Zeintzuk ziren aurreikuspen anbiziotsuok?**

Ba, zenbait doinu eta neurri barritan menturatzeta, batuan kantatzea, aurretik zaleen aldetik nahikoa eztabaidaturik eta ez gitxik maiseaturik nekarren izena duintasunez markaturik iztea eta, oro har, egin neban lakoxe saio bat egitea.

**Txapelketa haretan ez zen sasoi haretako gailur guztia egon.**

Hor konpon! Nire ardura ez zen hainbeste nor-tzuk ziren lehiakide, zelan neure lana pentsatutako moduan burutu baino.

**Hamahiru urteko txapelketa bako hutsunearen ondoren, Euskaltzaindia barriro hariak mogitzen hasi zenean, bertsolarien aldetik nahikoa jarrerara kontrajarriak agertu ei ziren, txapelketa bai ala ez.**

Euskaltzaindiak ez eban, ez, erraz izan txapelketa ha antolatzen. Bertsolaritza ez dela lehia, ez dela jokia, jokia ez dela errenta, errentak kultura hondatzen dauela, eta halako argudioekin, batzuek ez eben txapelketaren egokitasunik ikusten. Funtsean gertatzen zena zen -dinot *Enaz banazen*- asko dabilenari ez jakola interesatzen bere hegemonia eroso perturbatzeko nobedaderik eta gitxiago errenta on bat galtzeko arriskurik. Hori Alfonso Irigoienek ederto azaltzen dau, Uztapide konbentzitzea zenbat kostatu jakon kontetan dauenean: "Urriaren azken astelehen batez, Uztapide Gernikan zen, beste batzuekin. Egun osoan atzetik ibili nintzaion. 'Nik txapelketa horretan asko gal neza-ke eta irabazi ezer ere ez', esan zidan. Hori betiko arazoa da. Orain ere arazo bera dago, zuk ondo jakingo duzunez. Baina neuk ere ez nuen esten, bertsolaritzari bultzada bat eman behar zitzaiola eta abar. Baina Uztapidek ezetz eta ezetz. Nik ekin: 'Gero Euskal Herri osokoa prestatu behar dugu eta bertsolaritzari indar handi bat eman

behar diogu'. Azkenean, aspertuta-edo, esan zidan: 'Beno, beno! Jar nazazu, ba!' Eta jarri eta aurrera. Inor ez zen ausartu ez etortzen. Eibarko Unzaga plazan, agian, 15.000 lagun izango ziren, denak zutik eta adi. Uztapidek berak irabazi zuten". Uztapide, behintzat, gardena izan zen, bere benetako ardura itzulinguru apaingarrietan ezkutatatu barik.

**Eta zeu zer bloketan lerrotu zinen?**

Nik argi neukan, txapelketarik antolatzen bazen, aurkeztu egin behar nebala. Banekien nire bertsolari izatea askok eta askok errezeloz ikusten ebena, eta neure ibilbidea txapelketan berretsi gura neban, nahiz eta ez zen hainbeste mendeku grinaz, erronka gogoz baino. Nik gogoa neukan txapelketarako, ea erakustaldi bat emotea lortzen neban. Ez nintzen bakarra. Bertsolaririk gehien-gehienak txapelketa antolatzearen alde zegoen, eta bertsozaleak zer esanik be ez.

**Eta irabazi egin zenduen.**

Bai. Ederra izan zen ha. Zeu be hantxe egon zinen entzule, ondo larri, oraindino ezkongai ginela. Eta txapela zeuri eskaini neutsun, ospetsu egingo zen bertsoan.

**Baina gero kontrako erreakzinoak sortu ziren. Neuk be gogoan daukat, handik denpora batera, zelan deitu zeunstan, ea arratsaldea elkarregaz pasatuko genduen. Artxandako landa batean jesarrita, (hego-haizea zebilen), buruari heltzen zeuntsan, esanez: "Baina hemen zer gertatzen da? Zertara dator mogida hau guztia?"**

Hego-haizearena izango zen.

**Ni, behintzat, ikaratu egin nintzen, zu halan ikustean.**

Izan ziren, bai, erreakzino tribalak eta probintzianoak, baina orain ez daukat gogorik, horrei barriro ekiteko.

**Enaz banaz liburuan, kondaira minduegia, mingotsegia ez dozu egiten txapelketa haren osteaz?**

Irakurleari, beharbada, inpresino horixe emon leikio, baina ez dot uste esageretan dodanik. Gauza horreek guztiak (guzti-guztiak be ez nituen kontatu) nonon esanda itzi behar zirela uste neban. Gertatzen dena, bertsolarien tradizioak gehiago garatu izan dauela, barrua agertze-ko benetasuna baino, ezkutatzeko elegantzia. Hori egiazko abildadea da, baina nik, liburu hori idaztea pentsatzen hastetik bertatik, argi neukan kronika esterno bat ez jatala interesetan.

**Eta zuk zeuk, bertsolaritza modernoaren erreferentzia nagusitzat jotzen zaitueenean, zertan egon zela esango zeunke inflexinoa?**

Kontua nahikoa sinplea da. Bertsolaritza klasikoak ez da hainbeste den modukoa, baserri edo artzain girokoa zelako, eskola-maila jakin batekoa zelako baino. Nire buruaren egitura guztiz rurala eta menditarra zen eta izaten jarraitzen dau, baina ni karrera bat egina nintzen; pentsamenduaren, literaturaren eta artearen mota eta korrontekak ikasiak eta batzuk oso barneratuak nituen; preso egoniko urteetan, bertso surrealistikak be egina nintzen, kontzientzia osoz; hiztegi errimatua eta beste hainbat gauza idatziak nituen, eta EGINeko zutabegilea be banintzen. Berba batean, gitxi-asko, gaurko edozein bertsolari karreradunen antzeko hornidura intelektuala eta erreferentzia-mundua neukan. Orduan, horrek bertsoan be nahitaez agertu behar eban. Niretzat "bihur bekizkit esteak harri" eta horrelako esamoldeak nahikoa normalak ziren, antzekoak idazten edo irakurtzen ohituta nengoelako. Gaur be, entzule mota batzuen aurrean, badakit euren erreferentzietatik larregi ez urruntzeko modura egokitzen. Sen hori ez daukan bertsolaria ez da urrun helduko. Baina, Euskal Herriko txapelketa batean ez bazen, non itzi behar neutsan neure buruari libre ibiltzen?


**Final haretan, gure aitari zer jazo jakon gogoan daukazu?**

Gizajoa! Gerratean frontean eta ostean presoaldi latza igaroa. Zuek ahizta biok eta ama etorri zinien Donostiara, aita etxean itzita. Bueltan, oheraturik aurkitu genduen, arduratan, zein barri txar etorriko. Finala irratiz jarraitzen ziharduela, hor entzuten dau aurkezlea esaten: Orain, Amuriza kartzelara eramango dute. Kartzelako saioa, alegia. Sanababitx! Horrek hortxe be egin jok behar ez denen bat". Eta, ernegaturik, ohera alde egin eban, kartzela kontua benetan hartuta. Handik orduetara, gu etxeratu eta nik txapela, hemen dakargu, ba! esanez, ohe gainera jaurti arte, harek ez zekien ezer.

**Preso zengozela, bertso surrealistikak egitera heldu zinela esan dozu. Kartzelaren eraginagaitik ala zeure eboluzino intelektualagaitik?**

Ez dago dudarik inguruak adimenari norabide baterantz edo besterantz tiratu leikiola. Kartzela,

653




Xabier Amuriza Zamorako kartzelako abokatu-gelan, kartzelako barroteen atzean, 1975 inguruan.

horretan, absurduaren inperioa da, eta hori estilo surrealistaz adierazi leiteke, ez ondoen, beharbada, baina bai ondo. Absurduak, paradoxaz, adimena garatu egiten dau, ezereztua izatetik libratu bazara. Argi dagoena da esperientzia horreek minimoki beregaindu eta gaintitza lortu daunenaren adierazteko moduek ezin dabela bertsolari tradizionalenak izan, nahiz eta tradizioan be (galerianoarenak, Etxahun Barkoxeko...) badiren adar urragarriak, uste baino gehiago.

**Kartzelagaitik izan ez balitz, zure lan teorikorik garrantzizkoenak hutsean geldituko ete ziren, Hitzaren Kirol Nazionala eta Hiztegi Errimatu, esaterako?**

*Zu ere bertsolari be beste kartzelaldi batetik eka-*



Iñigo Gallego. Bertsolari aldizkaria

*Xabier Amuriza, Arantza Plaza emazteagaz eta Miren alabagaz.*

rri neban, Jon Idigoras eta biok Basaurin egon ginen haretatik, Euzkadiko Ezkerraren fiantza-ordaintze makarra harek harrapatzeko lotsaizunetik kasualki libratu ginelako. Kartzelan, horrelako lanak egiteko, denpora sobra zegoen eta, lagunen laguntasunez, dena eskuz kopiatu behar baitzen, egitea lortu neban. Handik kanpora edo hara barik be, nonoiz egingo nebala uste dot, ideia nahikoa garbi neukan eta. Gero etorri diren erraztasun informatikoekin, ez zen hainbeste denpora beharko.

**Eta bertsogintza bera? Beti entzun izan deusut kartzela ez dela bertsotarako lekua.**

Niretzat ez zen izan, behintzat. Hainbeste urte izateko, oso produkzino txikia daukat kartzelakoa. Beharbada, hain inkomunikaturik egon ez bagina, gehiago egingo neban, baina zertarako egingo nituen bertsoak, kanpora atera ezin banituen? Pasatzea lortzen genduen papertxo klandestinoetan, (neuk be, urtekeran, kanuto dotorea atera neban uzki-zuloan, barruan geratzen ziren lagunen mezuekin), bertsoak baino aurrezagoko kontuak zegozen.

**Eta bat-batean? Zeure lagunekin batzen zarenean, sarri entzun zaituet hango bertso-eskolaz berbetan.**

Lehenengo urtean, bazkaloste guztietan egiten genduen. Urte osoan egunero, ez da gitxi. Baina, gero, gaia, edo ingurua, edo gogoa, agortu egin jakun berez-berez. Denporagaz, kartzelako bizi-modua gogortzen joan zen, geu be gogortzen joan ginen, eta badirudi bat-bateko bertsogintzak eskatzen dauen dibertsino kutsua muskildu egin zela. Ez zen umorerik ez geunkalako, baina ez genduen, antza, bat-bateko bertsotarako behar zen ganberro-punturik sentitzen.

**Kartzelatik etorri zinen, abadetza itzi zenduen, eta bertsolaritzan be esperimantu klase guztiekin ekin deutsezu: tokian tokiko bertsoak, bertso**

musikatuak, saio ibiltariak, saio integralak, koplaritza musikariek, errima progresiboa...

### Esperimentalismoaren grina ala mania?

Esperimentalismoa kontzeptu peioratiboa ez al da? Dinogun esperimentua, edo, beste barik, esperientzia. Bat-batekotasuna egoera barrietan jartzea da, edo egoera zaharrei era barrietan heltzeko modua. Inprobisazinoa, definizinoz, barritasun etenbakoa da, egoera barriak sortzeko ahalmen berezkoa daukalako. Ni ez naiz esperimentu txotxoloen zalea, arerioa baino. Egin ditudan aproba guztietan, inprobisazinoaren ezaugarri sakonetan oinarriturik jokatu dot. Beti arrakastarik ez lortzea ez da izan aprobaren beraren okerragaitik, beste faktore batzuek baidir. Hor dago, esaterako, tokian tokiko bertsoen aroa, gero *Laurehun herri, mila bertso berri* liburuan jasota gelditu zena eta nire bertsoaritzako emoitzarik ederrinetarikoa izan dena. Bertso-afariak eurak be, "bertso-afari" kontzeptu moduan, grina horretatik sortu ziren, eta begira noraino heldu diren. Nik afal edo bazkal osteko "puntako saioak" proposatu nituen, Mungiako bertso-eskolan oso ondo gogoratuko dabenez. Gero, kartelen batean halako saioari "bertso-afaria" deitu eutsien eta izen konbintzente horrexek urte eban aurrera. Musikariekiko koplaritzak, barriz, satisfakzino itzelak emon deustaz, eta emoten darrai. Musikaz lagunduriko bertso jarrien aroa be (Anje Duhalde, Mixel Ducau...) ez daukat sasira botatzeko. Eta beste kantari batzuekin...

**Nahikoa da, nahikoa da! Hari bat emonez gero, harila hartzen dozu zuk. Esaiguzu hurrengo esperimentua zein daukazu buruan, eta horixe izango da egoera honetako barritasuna.**

Ba, hain zuzen, gorago eta sarritan iradoki deusdanez, (sinistea kostatzen jatzu baina), nire hurrengo esperimentua bertsoaritzatik aldenetzea da.

**Bertsolaritzatik aldendu, alaba horretantxe sartu denean, eta neu be inguruan nabilenean?**

Ikusten dot, bai, arriskua. Suari ihes egitea pentsatzerako, suak inguraturik aurkitu. Baina ahaleginak egiteko dira. Bertsolaritzaz berba egiten edo idazten dodan azkena liburu hauxe izan daiten gura neuke. Salbuespenak onartu beharretik nekez libratuko nazena badakit, baina bertsoaritzaz esan beharrekoak esan ditut.

**Isilik egon beharko dozu, orduan, ze zuri ardurarik leikizun konturik apenas inork galdetuko deusun.**

Ba, isilik egongo naz. Neuk gura dodanik interresetan ez bada, inor ez daitela nitaz interesatu. Hemendik bostehun edo mila urtera, *Hiztegi errimatua* inork ez dau gogoratuko, baina bai aitaturiko dabe *Oromenderrieta* edo *La explosión de la conciencia*, gizateria suntsitu barik irauteko beste zentzatu bada.

655

**Zeure garaikideen adimena arbuiatzen dozula esan guran zabilz?**

Orain arteko giza historian, mende guztietan adimen maila, arbuiagarria baino areago, errukarria izan da. Ezin dot limitazino zerebral batek harako kamustasun mentala arbuiatu. Trankiltzen nau pentsatzeak joera aldatzerik itxaroten nekatu beharrik ez dagoela, aurrerapen basatiak lehenen lesionatzen dauena intelgentzia bera baita.


**Uuu! Bertsolaritzatik urruntxo joateko arriskuan gabizela uste dot oraintxe. Amaitu daigun zure adimen exigentea larregi bortxatuko ez dauen sinpletasun bategaz. Bertsolaritzak iraungo dauela uste dozu?**

Bai.

**Eta euskarak?**

Ez dakit.





Conny Beyreuther. Bertsolari aldizkaria

## Jon Azpillaga



*"Plazara urtenda, urduritasuna barik, nortasuna,  
pertsonalitatea eduki behar da. Nik suberte horixe izan dot".*

Mutrikun egin dogu hitzordua Jon Azpillagagaz. Berandutzen zebilela-eta arduratzen hasi garenerako, han ikusi dogu plazan behera, tipirri-taparra hurreratzen, astiro baina seguru. 60. hamarkadatik aurrera, Euskal Herri osoan hara eta hona bertsoan gehientsuen ibili direnetariko da Jon. Hamabost urtegaz kantatu eban plazan lehenengo. Beharrean, barriz, hamalau gaz hasi zen. Barquetako motorrak konpontzen ez zebilenean, bertsoarena martxan zeukalako izango zen. Bizialdi neketsua agiri dau aurpegiko zimurretan, baina bai gozatsua be irribarrean. Pasaian jaio, Berriatuan hazi, Ondarrun behar egin eta Mutrikura ezkondu... Nongoa den galdetuta, ez dau dudarik egiten. "Ni abertzalea", dino.

**1935ean Pasaian jaio eta 18 hilabete zeunkazela etorri zinen Berriatuara. Zelan gogoratzen dozu zeure umezaroa? Familia, herria, eskola...**

Berriatuko Torrean esnatu nintzen ni, ze 18 hilabetegaz... Eta gero gerra denpora. Gerra zelan amaitu zen be gogoan daukat. Apirilaren 1ean, zelan amak esan eustan: Txo, gerrie amaitxu de! Eta nik aita falta. Aita gerran hilda. Gero handik aurrera, ba, orduan ez zen eskolan-eta oraingo moduan hasten. Sei urtegaz hasi nintzen ni eskolan, eta gero hantxe, sei urtetik hamalau urtera arte, eskolan. Gero, eskolatik urtenda, berehala etorri jatazen Ondarrutik, tailerrera beharrera joateko. Hamalau urte egin orduko hasi nintzen beharrean.

**Torre baserriak zer dakartzu gogora?**

Ama, hogeita zortzi urtegaz, gizona gerran hilda, gazte-gazterik geratu zen alargun. Ez zeukan laguntzarik be. Beste aldetik hil zirenei pagatu egiten eutseen soldata. Baina hari ezer be ez. Ezer esan baleu, kastigatu! Orduan bere jaiotetxera joatea erabagi eban, Pasaiatik Torreara. Eta hantxe bizi izan ginen, neuk hogeita hiru urte egin eta Ondarrura joan ginen arte. Anai-arreba asko ziren amaren aldekoak, gerran ibili

eta etorri zirenak be bai bi anaia, aitita-ama-mak... Hamabost-hamasei bizi izaten ginen Torrean. Ondo. Hamaika bider esaten dot zenbait etxetan Gabon egunean baino ambiente hobea egoten zela gurean egunero afaltzen! Gerrako kontuak eta barriketa eta zera... Nahiz eta beste umeak lo egon, nik denak entzuten nituen. Gero alemanek be urten eben Europako Gerran, eta hareen kontuak beti izaten ziren. Hitlerrek bere burua zelan hil eban eta.

**Etxetik jatortzu bertsozaletasuna? Bazegoen kantu girorik Torrean?**

Ez, Torre partetik ez. Beste aldetik. Azpillagarenetik. Gure aitaren aitita Tomas Turrust, "Txurru" esaten eutsien, haxe ei zen Txirritagaz Ondarruko plazan behin kantatutakoa. Baina harek ez eban plazan asko kantatuko. Kantatzen ei eban tabernan. Orduan txikiteorik ez zen izaten -geroago be ez!- eta gizonak tabernan batzen ziren. Mahaian jarri, edan eta hantxe. Gu orain gara Azpillaga. Ondarrun "Txurruteroak" esaten euskuen guri, Txurrutenekoak. Tomas Txurrut. Kontuizu, gustatu egiten jakon edo. Oso zelebrea ei zen. Neuk ez neban ezagutu. Gure aita be egiten ei eban pixkaren bat, baina ni jaio aurreko kontuak dira horreek. Nik horreek Ondarruko batek esanda dakidaz.

**Zeu zelan zaletu zinen? Bertso-paperik eta eskuratzen zenduen?**

Nik hori beti izan dot. Bertso-paperak irakurri, eta liburuak be bai, Pedro Mari Otañorena eta. Nik Pedro Mari Otañoren bertsoak ia denak buruz ikasi nituen eta nire estimatua haxe izaten zen beti. Txirritarenak be bai, Xenpelarrenak, Zabala anaiarenak... Nik horko bertsoak buruz ikasi nituen, baina mordoa! Ez dakit nik nondik eskuratzen nituen, baina buruz ikasi eta kantatzen nituen behizain nengoela, eta auzoetako aitonak entzuten egoten ziren gustora. Otañorenak, Kubako gure anaiei jarritakoak eta.

Niri grazia egiten eustana zen lehenengo hasiera "Gure lehenengo guraso aita / Adan ta ama Ebaren" errima hasi eta esaldiagaz bigarren puntuan "lehendabiziko semeak Kain / ta Abel izan ziraden" jarraitzea. Hori gitxik egiten dabe orain, eh! Kepa Enbeitak be egiten ei eban. Neuk be egin izan dot. Askori gustatu be ez jake egiten, baina nik horri inportantzia galanta emoten deusat.

#### **Amama be estimatua ei zeunkan.**

Berak be bai ni. Euskaltzalea zen ikaragarri. Harek inoiz... Ni eta nire lehengusinak geure eskola eginkizunak egiten genbilzela, eta igual erdaraz... Negar egiten eban harek! Negar gu erdaraz ikusita. Hari ez jakon gustatzen erdara entzuterik be. Ha be, ama baino zahartxoagotan, baina gazterik geratu zen alargun. Berrogeita bi urtegaz.

#### **Aita gerran hila, amaren neba bi be gudari ibiliak... Berriatuan zer giro zegoen zuek lakoentzat?**

Han be karlistak bazegozen eta eurek agintzen eben. Alkatea beti bat izan zen hainbeste urtean; aguazilak be bai; kontzejalak be bai. Guk isilik egon behar. Hareen kontra ez zegoen ezer egiterik. Bertsotan-eta egiten genduen, baina horretan sartu barik. Familiagaitik ez ginduezen estutzen, edo neu, behintzat, ez naz akordatzen. Baina argi ibili behar izaten zen, ze bestela...

#### **Lehenago esan dozu eskolaldi laburra eduki zenduela, baina, bere laburrean, zelakoa izan zela gogoratzen dozu?**

Euskararik ez zela egiterik be ametitzen eskolan. Bata-besteagaz be ez, eh! Inork euskaraz egiten baeban, eskolako giltza emoten jakon, eta harek hurrengo egiten ebanari! Eta azken gelditzen zenak -nik sarri egin neban- ehun bider idatzi behar izaten eban: No hablaré euskara en clase. Horretan kastigu itzela eduki gen-

duen. Denak ez ziren izan... Azkeneko irakasle bat eduki neban Galdakaoko emakume bat. Oso jatorra. Harexegaz ikasi neban gehien. Bera be euskalduna zen, eta, jakina, harek be ezin eban eskolan euskaraz egin, baina harek ez eban hori kastiguori sekula emon.

#### **Zeu zelako ikaslea zinen?**

Gustatu, ikaragarri egiten jatan ikastea niri. Horixe izan zen nire afizinerik handiena. Baina ezin zen. Ez zegoen modurik, eta beharrera joan behar izaten zen. Hamalau urtera arte izaten zen eskola orduan. Harek irakasle harek, azkeneko egon zenak, gure amari esan



*Jon Azpillaga, 1959an, Ondarroako Santa Eskeko bazkarian, Uztapidegaz.*

ei eutsan ea inondik bazeukan dirurik, semea instituturen batera edo beste nonora bialtze-ko. Ikasi erraz egiten neban nik. Behin irakur-riro gero, listo. Horretan, gaztetan itzela nin-tzen, baina zelaz joango ginen, ba, gu inora? Beharrera! Tailerrera eta akabo. Gero nik sarri esaten dot: eskolan ikasitako hainbeste gauza... gero ezertarako balio izan ez deuste-nak! Esate baterako, ofizinan edo beste nego-zio batzuetan izan balitz! Baina tailerlean dabilen batek algebra, raiz cuadrada, raiz cú-bica, quebrados... Horreek denak ikasi gendu-zen. Horreek sekula ez deuste niri balio izan! Horixe esaten dot nik, orain be makina batek ikasiko dabela makina bat alper-alperrik!

Jonentzat bat izan ziren beharlean eta bertsoan hastea, hamalau-hamabost urte zeukazela. Mugartegi eta biak Santa Agedaren bizitzaren gai-nean buruz ikasitako koplak kantatzen hasita zegoen lehenago, baserririk baserri eskean. Eurak asmatutakoak kantatzen be ekin eutsien gerora, eta, azkenean, tabernan egin ziren bertso-lari. Haxe izan zen euren bertso-eskola. Behin beharlean hasi eta gero...

**Baina hain gazterik, zertan hasi zinen beharlean?**

Barkuak konpontzen hasi nintzen ni tailerlean, hamalau urte egin orduko. Orduantxe hasi ginen gu Santa eskean eta tabernan bertsoan. Behin beharlean hasi eta gero, taberna eta erromeria-ra be hasten ginen. Besteen moduan. Praka luzeak jantzita, orduantxe egiten zen mutil. Aurretik inork ez eban praka luzerik janzten. Edurra egiten ebanean, akaso, osabaren batenak edo. Baina bestela ez; inork be ez. Hori ridiku-lua zuan!

**Tabernako giro hori zer izaten zen? Aste barruan be joaten zinien?**

Astean zehar, jente gaztea, nekez. Zapatu ilun-tzean. Zapatu iluntzera arte, behar egiten zen

orduan. Domeka bakarrik libre. Domekan, goi-zeko bostak edo seirak arte igual, juergan, eta gero goizean, ostera beharrera. Askotan etxera joan, aldatu eta beharrera zuzen, ohean sartu barik. Han ez zegoen, oraingo moduan, bariku iluntzean beharretik urten eta, zapatuan, egun guztia jai, gauzez erretiratu ez, eta domekan lo. Ez. Orduan ez zegoen horrelakorik. Domekan egin behar zen dena. Ez zegoen bakazinerik be. Lehenengo, hamar egun ziren, gu beharlean hasi ginenean. Gero hamabostera altxatu eben. Orduak, barriz, orduan astean berrogeita zortzi ordu ziren, baina hamaika bider egiten gendu-zen guk egunean hamalau edo hamabost. Egin-da nago, gelditu barik, berrogei ordu be. Barkua amaitzeagaitik, jo eta egin eta egin eta berrogei ordu! Ia egun bi osorik. Oraingoa ez jakiat zer den, baina ha itzela zuan.

**Dinozunetik, oso gomuta gogorra gelditu jatzu-la atera behar dogu?**

Gogorra! Ikaragarria zen. Gero, beharlean be, asto-behar asko egin behar izaten zen. Nik sarri esan dot: orduan Ondarruko portuan beharlean genbilzenak, sendo samarrak edo sasoi ona genduenak, geu ginen gruak. Ez zegoen oraingo moduko guariarik eta zerik. Grua bat bai, handi-ko puntan, eskuzko grua bat; baina pisu handi-ko motorren bat sartzeko edo. Bestela, norberak lepoan hartuta eroan behar dena barkura. Eta gero, orain, hazur guztiak apurtuta. Nigaz han ibilitako gehienak egongo dira holan. Izorratuta.

**Astea holan bota eta gero, domeka itzela izan-go zen, ba!**

Sasoia genduen ederra eta, domeka? Itzela! Goi-zean lehenengo mezatarra, hori dudarik be ez. Gero etxera joan eta, etxean gari ebatea edo bazegoen, ha be egin. Eta gero iluntzean erro-meriara. Orain, ezer ez zegoenean, pilotan egi-ten genduen guk. Horixe izaten zen gure afizi-noa. Gehienbat, esku-pilota, eta zestan be bai.

Handik makina batek urten eban. Nik ez neban urten, laga egin neutsalako. Zesta bat erregalatu eusten, baina ez neban denbora luzerik egin. Beharragaitik dena itzi neban, esku-pilota, zesta eta dena. Ez zegoen astirik eta! Gero, ba, bertotan hasi eta, horrexetan.

**Mugartegi zu baino urte bi zaharragoa da, baina gertukoa. Elkarren bertsozaletasunaren barririk bazendueen?**

Eskolan elkarregaz genbilzen eta baserriak be, elkarren hurrean. Bai, bagenduen elkarren bertso afizinoaren barri. Halantxe hasi ginen. Bederatziretako mezatara joaten ginen eta, handik urtenda, tabernara. Jarri mahaian eta bertotan. Hantxe ikasi genduen guk. Inork ez euskun guri irakatsi. Zortziko txikia eta zortziko handia kantatu bai, baina txapelketara joanda jakin neban nik zer zen zortziko txikia eta zergaitik zortziko handia. Horreek guk ez genduzen jakiten. Doinuak bai, lehengo doinu zaharrak hartu eta ekin. Gizon nagusiak eta agure zahar samarrak batzen ziren han, eta harek haxe nahi! Harentzat, dibertsinoa haxe izaten zen. Baegozen bertotan egiten ebenak. Plazan ez eben sekula kantatu, baina bazegozen. Bat, gainera, nahikoa ona zen, Paskual Etxano. Bestea ha baino gazteagoa, Hilario Ikaran. Gero Frantzia aldean egon zen eskapatuta, eta han be egiten eban bertotan. Hango euskaragaz egiten eban bertotan gero. Bertsolari polita zen. Gero Arregik, gure edade ingurukoak, harek be egiten eban, baina itzi egin eutsan. Txarto pasatzen ebalá eta horretarako ez ebalá merezi.

**Lehenengoz, plazan, Amoroton kantatzea be taberna girotik subertatu ei zen.**

Bai, ba. Amorotoko batzuk tabernan entzun eta hareexek esanda joan ginen. Udaletxeko balkoitik egin genduen, nik hamabost urte egiteko neukazela eta Mugartegik hamazazpi,

harek be egiteko. Hantxe egin genduen lehenengoz, eta berrogeita hamar urte geroago be bardin-bardin egin genduen. Dena mikrofonoz beteta zegoen. Amoroto guztia. Hango musikariak eta kristoak! Guk bat be barik. Han primeran entzuten dok, gainera! Herri itxia dok, ba. Gu gazteak ginela, soinua be bera bakarrik izaten zen. Orduan ez zegoen altabozik. Orain, altabozekin soinu bat, nahikoa dok bera! Arraten be ipintzen dabe sarrerako eszenategi handi bat eta musika bat. Bat bakarrik. Ni akordatzen naz, gaztea nintzenean, Arraten dozena erdi dantzaleku egoten zirela. Batekorik ez zen bestean entzuten. Denean hori, Santa Eufemian eta... Dena erromeriaz beteta.

**Sasoi horretan, bertsolaria izan eta zuk zeunkan plantagaz, arrakasta edukiko zenduen, ba, erromerian!**

Arrakasta zertan? Neskaguntzan eta, besteen moduan ibiltzen ginuan gu! Dantzan egin bai, eh! Dantza soltean saria atarata be banago. Soltean orduan denok egiten genduen. Hobetoxoago edo eskastxoago, neska eta mutil, denak.

**Zeure emazte dozunari laguntzen be joan-etorri handiak egindakoa ei zara.**

Bai. Berriatuatik hara Isasimendira lehenengo. Olatzera bizikletaz joan eta handik oinez. Ezagutu be, Isasimendin bertan ezagutu neban. Karrera bat zen, saltaka karrera bat, hango biren artean, eta Berriatua osoa joan zen haxe ikustera. Erromeria be egin zen eta hantxe ezagutu neban. Horrelakoxe gauzak pasatzen ziren. Gero Mutrikura etorri zen bera, etxe batera neskame, eta orduan primeran. Orduan bizikleta beharrik be ez neukan, ze autobusak zegozen ordu guztietan. Baina etxera berandu joan behar baneban, orduan bizikletan joan behar.

**Ez dakigu neska-laguntzan zelakoa izango zinen, baina, bertsolari moduan, lasai eta seguru fama izan dozu. Lehenengo plaza hareetan urduri jartzen zinen?**

Bai zera! Nik horrexetan izan dot bentaja. Ni nerbioso egon izan nazena txapelketa bakarrik da. Baina ez bertsoakaitik! Zerk urtengo ete dauen eta zeri kantatu edo... Horrelako zerak bai, baina bestela? Ez beste batzuen moduan, gabaz lorik egin barik eta! Nik ez dot horretarako arazorik izan. Bestela, neu be ez nintzateke

joango. Oraintxe be, gazte askori pasatzen jako hori. Gaztetan primeran etorri eta gero, hamazortzi-hemeretzi urte pasatutakoan, asko sufritzen dabela.


**Patxadaz gainera, plazan beti aurretik joatea izan dozu beste ezaugarri bat. Zure liburuaren izenburuak be *Hasi, Azpillaga* dino.**

Hori ez da hasteko neu besteak baino hobe nazelako. Niri ez deustalako inportarik! Beste batzuek nahiago dabe hasi baino, ez hasi. Uzta-pide be ea zelako bertsolaria zen! Ba, nigaz sekula ez zen bera hasi! Urte baten, hirurogeita hiru plaza kantatu genduzen elkarregaz, 1961ean. Ez dakit, ba, inon hasiko zen. Basarregaz be, behin, harrituta geratu nintzen Mendexan. Beti bera hasten zen ha, eta Mendexako udaletxeko balkoira urten genduenean, "Hasi, Azpillaga" harek be. Ni harrituta. Mendexan niri hori esatea Basarrik!

**Amorotokoaren ondoren, inguruko beste plaza batzuetan be hasiko zinien ibiltzen.**

Ibiltzen ginen, bai. Mugartegi soldadu joan zen arte, nahikoa ibili ginen. Ez oraingo moduan, baina bai; batean eta bestean ibiltzen ginen. Gero, hiru-lau urtean, nik ez neban bertsoarik egin. Mugartegi bularrekoagaz zegoen eta etxetik mezatara be urten barik egon zen. Nobia be topatu neban nik, tailerra... Eta bakarrik ezin leiteke bertsotan egin! Gero, neu soldadu nengoela, akordatzen naz zelan, baten, Jose Intxaustigaz egin neban bertsotan. Ha beti bertsotan ibiltzen zen eta, egun baten, danba!, nik. Buztarrigaz be bai behin edo behin, Markinan tabernaren baten-edo batzen baginen. Baina gitxi.

Etenaldia ez zen, baina, lar luzatu. Bizkaiko txapelketak 1958an jokatzen hasita zegoen eta, 1959an, eskualdeetako kanporaketak egin ziren lehenengo. Lea Artibaiko kanporaketan parte



A. Irigoienen artxiboa. XZD

Jon Azpillaga 1962ko Bizkaiko txapelketako finalean.

hartu behar ebela eta, Mugartegiren etxean jo eban Azpillaga gazteak atea, eta alkarregaz aurkeztu ziren Markinan. Urte haretan, Bizkaiko finalean kantatu eban Jonek, eskualdeko irabazle legez. Eta, 1960an, finalista ez eze, bera izan zen Bizkaiko txapeldun. "Handik aurrera, akabo!", dino.

### **Zelako gomuta daukazu txapelketen hasiera harena?**

Alfonso Irigoienek antolatutako txapelketekin hasi zen hemen mogimendua. Harexek astindu eban dena. Bizkaian, ordura arte, bertsoak, behin edo behin, nonon. Basarri eta Uztapide, Zepai eta Txapel, Enbeita eta besteren bat... Baina horreek be zer? Bi edo hiru plaza egingo zitueen, gehien be. Gero, txapelketak ipini eban dena martxan. 1959koak be bai, baina gehien 1960koak uste dot nik. 1960an, Euskal Herrikoa be jokatu zen, hainbeste urtean egin barik egonda. Uztapidegaz hiru desentate jokatu nituen nik orduan.

### **Zeuek zelan hartu zenduezen txapelketak?**

Txapelketak egitea ondo hartu genduen guk. Ni Bilbora, Bizkaiko Txapelketara joan nintzenezan, hogeita hiru urte neukazen oraindino. Hara joan nintzenezan, Enbeita zaharra, Alberdi, Ormaetxea... zortzi ginen. Neu eta Sardui gazteenak. Nik esperantzarik ez neukan han ezer egiteko, baina sasoi ederra. Gu kioskoan eta zazpi mila lagun, Bilboko Arenalean! Euskal Herri guztitik etorritako jentea zegoen han. Gipuzkoatik-eta trenkadak beteta! Itzela zen ha, baina ez pentsatu niri harek sakadarik-edo egin eustanik. Ni poztu! Ez dakit zergatik izan den nigan hori, gaztetatik akolito hasi nintzelako edo...

### **Enbeita, Ormaetxe, Kastrejana, Pujana, Alberdi... Txapelketatik aparte be ibiltzen zinien?**

Denekin. Enbeita, Alberdi... Ormaetxeri "Taket" esaten geuntsan. "Sollubepe" be esaten jakon,

Larraurikoa zen bera eta. Hantxe kantatu neban nik azkenengoz haregaz. Lehenago be sarri, Urkiolan, Gernikan, Ondarrun... Gero Euskal Herriko Txapelketak be hasi ziren, eta denekin ibili naz ni. Basarrigaz gitxien. Uztapidegaz mordo, Zepairekin be bai; Lasarte, Agirre, Lizaso zaharra... Lizaso gazteak be, Sebastianek, neugaz kantatu eban lehenengoz plazan. Ni denekin konpondu naz ondo. Orduan oso giro ona zegoen. Oraingo aldean, jente asko joaten zen. Bertsoak entzutera bakarrik ez ziren joango, baina orduan plaza guztia beterik egoten zen, eta denak isilik! Orduan jentea, jaietara, asko joaten zen. Badakizu zer zen hori? Telebisinorik ez zegoela. Eta irratia be etxe gitxitan. Jenteak urten egin behar eban nonora, zeezer ikustera.

### **1961ean, Uztapidegaz hirurogeita hiru saio egin zenduzela esan dozu. Lanean be orduak eta orduak egiten ei zenduzen. Zelan moldatzen zinen?**

Bizkaian ez neban nik askorik kantatu. Gipuzkoara joaten nintzen batez be, eta autobusez mogitzen nintzen. Autobusa zegoen bazter gutietatik; eta trena. Askotan, biharamunean buelta. Tailerrak jai emoten eustan, holan bertotara joaten nintzenezan, baina gero hareek egunak bakazinoetatik kendu. Eta bakazinoetan behar egin. Bakazinorik bat be ez.

### **Gipuzkoan, Nafarroan, Lapurdin, Baxenafarroan... Denean asko ibilitakoa zara. Zelan konpondu izan zara euskalkiekin?**

Nik Iparraldean be hango euskaraz egiten neban. *Herria* hartzen neban, hango aldizkaria. Aldizkari polita zen, gero hartzeari itzi neutsan baina. Orduan, hemen *Zeruko Argia* egoten zen, baina, hango barri jakiteko, *Herria* hartzen neban. Halantxe ikasi neban nik hango euskara eta han halantxe kantatzen neban. Gipuzkoan, barriz, neu Berriatuan bizi arren, gipuzkeraz.

Hasieran, bizkaieraz be egiten neban, baina guk gipuzkeraz ikasi genduen. Bertso idatziak eta, denak gipuzkeraz zetozen, eta, ikasi, hortixek egiten da.

**1969an, Parisera be heldu zinien, Teodoro Herandorenak antolaturiko desafioa zela eta. Lopategi eta zeu, Mattin eta Xalbadorren kontra. Zelan ibili zinien?**

Parisen? Jesus! Trenean joan eta lau-bost egun egin genduzen. Hango pare bat lagunekin, metroan ibili ginen. Paris zaharrean be bai. Paris itzela dok, eh! Trenean sartu ginenetik, lehenengo etxeak ikusi eta estazinora heldu arte, nik ez dakit zenbat denbora egingo genduen. Paris itzela baina! Eta dotorea be bai. Ederra... Etxe altuak ez, baina asko bai, eta jentea be hainbeste. Paris dok... Ha kotxean pasatzeko be, egun osoa behar dok. Itzela! Dena erakutsi euskuen. Hiru bider edo urten genduen. Eiffel torrea be ikusi genduen, hara gora igon eta... Euskal Etxetik aparte, beste leku batzuetan be egin genduen bertsoan. Pasatu genduzen egunak, kristorenak.

Izan be, elkarregaz makina bat ibilera egindakoak dira Azpillaga eta Lopategi. Herririk herri, urteetan, bertsolari askogaz kantatzeko aukera izan dau Jonek, baina, bertsolaritzaren historian, Azpillagari loturiko izenik badago, Lopategi da. Frankismo garaian, makina bat bihotz abertzale bertu eben euren bertsoekin.

**Noiz eta zelan hasi zen Azpillaga-Lopategi bikotea martxan?**

Ezagutu, txapelketan ezagutu genduen alkar, baina gero, Mutrikuko ganadu feria egunean kantatu genduen plazan elkarregaz, lehenengoz. Baserritarren egunean. Marka izan zen haxe be. Gipuzkoarrak mordoa zegozen bertan, ataundarrak eta. Orduantxe esan euskuen hiru-lau lekutarako, eta gero handixek hasi ginen, jo eta su!

Politika kontuan eta, asko sartzen ginen. Guk esan egiten genduen. Besteak ez ziren atrebiztzen, ez ez zekielako, baina... Ez jaken begitantzzen egin behar ebenik. Gu horretaraxe jarri ginen eta beinga! Guardia Zibilak eta txibatoak bazter guztietan egoten ziren. Baita Iparraldera joaten ginenean be. Askotan, saio biharamunean tailerrera Guardia Zibilak agertu eta koartelera, zer esan genduen eta multa eta kristoa. Baina segi! Galazota be egon ginen. Bertsolariak ipintzeko, baimena eskatu behar izaten zen Gobernu Zibilera. Nortzuk ziren eta zeintzuk gai izango ziren, bialdu egin behar izaten zen. Beste batzuen izena ipini eta geu joan be egiten genduen. Hiru urte egin genduzen holan.

**Halako berotasunean ibilita, anekdotarik ez da faltako, beraz.**

Lopategi kartzelan be egon zen, multa pagatu ez ebalako. Nik pagatu egin neban, ze Donostiako abokatu batek esan eustan, pagatuz gero, listo; ez zegoela debekurik. Nik gurago neban zazpi mila pezeta -orduan diru asko zuan!- pagatu eta segitu. Lopategik ez eban pagatu eta zortzi egun egin zituen kartzelan. Beste behin, ez dakit zein herritan zen, Goierri aldean-edo, kontrola jarri eben eta gu Lopategiren Dos Caballosean. Beste kotxe guztiak gelditu zitueen, eta gu aurrera. Burutik pasatu be ez jaken egin hareei bertsolariak halako kotxean joango zituanik! Problemak baziren, baina jenteak eskertu be bai. Horrexegaitik joaten ziren denak. Eta zeresanak be baziren ikaragarri. Zelako ibilerak! Behintzat, jentea espabilatu genduen eta!

**1974an, barriz, hemen debekatuta zengozeela, Ameriketara!**

Estaturik gehienetan egon ginen. Hilabete egin genduen, San Joan egunean joan eta Santiago egunean etorri. Boisen egon ginen, Californian, New Yorkeen, Washingtonen, San Frantziskon, Las Vegasen, Renon, Sacramenton... Denean



edukitzen genduen euskaldun jentea zain. Lekuak itzelak topatzen genduzen; afariak eta juerga denean. Baina handiena, Elcoko Euskal Egunean. Urtero egiten dabe, baina handia, lau urterik behin, eta haxe tokatzen zen. Han Ameriketa guzitik etorritako jentea zegoen, estatu guztietatik. Ez dakit nik zenbat mila batuko ziren. Auskalo zenbat txahal hil ziren, denei jaten emoteko!

**Gauza batek baino gehiagok harrituko zinduzen, Euskal Herri txikitik hain paraje handietara joanda.**

Bat, hango emakumeak. Gu hemen, orduan, ez gengozen halan ohituta. Hango neskak eurak etortzen ziren. Eta entenditzen ez! Eta libertatea, itzela. Hango euskaldunek, denek zeukien

ikurrina balkoian, eta hemen, ikurrinarik ezin ipini! Washingtonen, Etxe Zurian be egon ginen. Nik horixe ikusten neban txarto. Presidente baten etxea museo baten moduan ikustea libre izatea. Manifestazino bat be ikusi genduen. Ni harrituta. Zenbat milaka jente holan! Orain hemen be egiten da, baina orduan... Eta gero, hormetan eta, partidu batek besteagatik zertzuk! Hemengo aldean handiak, eh! Hemen oraintxe be esaten ez direnak. Nixon zegoen orduan presidente, eta akordatzen naz kartel bategaz... Putero legez-edo! Eta Estatu Batuetako presidentea larrugorritan, bere katxarro haundia bistan zeukala, eta aurrean emakume bat biluzik, eta hari segika. Neuri ez jatan bat be gustatu! Bakotxak bereari bai, baina besteari holakoak? Orduan, eliza aldetik be beste pen-



J. Azpillaga eta Maritxu emaztea, J. Lopategi eta Amaia emazteagaz, ezkontza batean.

tsakera bat geunkan. Pekatu mortala begintzen jatan niri ha.

**Eta 1975ean Franco hil zen. Hemen be aldaketak gertatu ziren.**

1975ean Franco hil, demokrazia etorri, eta orduan libre zen. Bertsolariak gura ebana esan zeikeen, eta Lopategi eta Azpillagarena hortxe amaitu zen. Gero, guk edozer esanda be, ez eban egiten inpresinorik. Periodikoan eta hasi ziren denak esaten, eta guk esaten genduenak ez zeukan lehengo inportantziarik. Eta ordura

arte beti elkarregaz ibiltzen ginenak, gero noizean behin bakarrik joaten ginen, Lopategi eta biok. Ordura arte, dena zen alderdi bat legez. Espainolisten kontra abertzaleak. Gero gertatu zen banaketa. Partidu bat, beste partidu bat, beste partidu bat... Bertsolaritzari be eragin eutsan horrek, baina gehiago zen, libertatea-gaz, guk esaten genduenak ez zeukala indarrik. Ni ez naz inon afiliatuta egon. Ni beti izan naz Sabino Aranatarra. Horixe izan da nire dotrina. Sabino Arana izan ez balitz, Euskadirik ez zela izango. Harexek ipini eban dena martxan. Baina nik bertsoan, Batzoki askotan legez, HBkoen Herriko Tabernetan be kantatu izan dot behin baino sarriago. Zarauzko komunisten egoitzan be bai. Zergatik ez dot, ba, joan behar? Nik horreekin ez daukat problemarik, bertsoan joateko.

Politika kontuetan bakarrik ez; beste arlo askotan be, aldaketa handiak ezagutu ditu Jonek, bere mundualdian zehar. Aitatu doguz lehenago telebistarik ez zegoen garaia, erromeriak, neskalguntzak edo hamasei lagun elkarregaz bizi ziren baserria. Portuko eta itsasoko beharra be ez dela gitxi aldatu dinosku.

Konparatzerik be ez dago. Hasteko eta bat, aparatuak askoz hobeak dira. Motorrak ez daukie hainbesteko aberiarik. Lehen dena zen aberia. Orain drau kentzen dabe bata, drau sartu bestea, eta listo. Orduan arreglatu egin behar izaten ziren. Seguritate aldetik be, gaur zer irrati eta zer aparatu edukitzen daben! Helikopteroak be prest, bila joateko. Orduan ez zegoen holako salbamenturik. Barkua urperatu eta denak ito, sarri gertatzen zen. Neure osaba be bai. Eta asko eta asko igerian ez zekienak. Neuk be izan nituen eskaintzak, makinan joateko. Gustora joango nintzen, baina mareatu egiten nintzen. Zisko eginda bueltatzen nintzen. Baina orduan, urte guztian



J. Azpillaga kantuan, J. Lopategi lagun duela.

lehorrean baino gehiago, antxoatan bakarrik irabazten zen. Orain ez. Han ez dago soldatarik. Harrapatzen dena eta saltzen dena, horrenbeste. Beste bat... Arrantzaleek ez dabe sekula bakazinoak izan, eta lehorrean, hilabete ko bakazinoak-eta etorri zirenean, soldatak be gehiago irabaztekoak, barkuetako motoristak eta denak hasi ziren, bata Markinako fabrikara, bestea bestekora, makinetara beharrera. Batetik irabazi gehiago eta bestetik oporrak. Asteburua be etxean. Itsasoan holakorik ez dago. Orain kanpotarra dabil asko, balzak eta. Baina zenbat barku dago, ba, Ondarrun? Lehen ehundik gora izaten ziren, eta gaur ez dituk helduko berrogeira!

**Bertsolaritzan be ezagutu dozuz aldaketak. 80. hamarkadako txapelketetan be hartu zenduen zuk parte.**

Azkenengoz, Bizkaiko Txapelketan urten neban, 1987an. Laugarren izan nintzen. Baina hara joan nintzen eskatu eustelako, joan eragin edo... Joan behar nebala eta joan nintzen. Ze ni akordatzan naz, Bizkaiko txapela atera nebanean, orduantxe enteratu ziren epaile zegozenak ni ez nintzela Bizkaian jaio ta, eta, ordurako, Mutrikun bizi nintzena, gainera. Batek esan ei eban: "Ni epaile nagoen artean, horrek ez dau gehiago irabaziko". Besteek be horixe pentsatuko eben denek. Hurrengo urtean, hirugarren ipini nindueen, eta orduantxe pentsatu neban, gehiago alperrik izango zela eta, bape ez joatea.

**60. hamarkadakoetan ez eze, 80 eta 82ko Euskal Herriko finaletan be han zinen. Amurizaren txapelek polemika handia ekarri eben, bere bertsokera barria zela eta. Zuk zeuk zelan bizi izan zenduen?**

Orduan gauzak esaten ziren, baina baten batek irabazi behar eban, eta harixe emon eutsien. Bertso luzeagoak eta euskara batuan eta egiten eban, baina nik ez dot uste horrek, epaile zego-

zenakan, eragingo ebanik. Bertsoa zelakoa zen, haxe. Ni neu 82an ez nintzen ondo egon. Ez neban egun ona izan. Egund eskasa. Bezperan kristoren juerga botata, Idiazabalen bertsotan izanda, goizaldean etxera. Biharamunean txapelketara joan behar, eta nik neukan zera! Bururik be ezin altxatu. Ordurako formaltzeko beste edade baneukan nik baina...

**Amuriza 60. hamarkadaren erdialdera, Bizkaian agertu zen belaunaldi barri bateko kide zen. Sotanapean diskurso barria ekarri eban.**

Amurizak ondo egiten eban bertsotan. Bestea Muniategi. Jente ikasia ziren. Lopategi bera be bai. Hamaika urte egin zituen honek be. Neu nintzen zerena, hamalau urte gaz eskolatik urtenda. Muniategi be bertsotan ona zen, baina Amuriza? Amuriza, akordatzan naz, Etxanon lehenengo meza emon ebanean be... Lopategik eta biok saioa frontoian egin eta bera be han zegoen. Guk amaitu eta gero, sota-na eta guzti zelako bi bertso bota zituen! Eta bai, guk ezagutu genduzen abadeekin konparatuta, diferentea zen. Gero laga egin eban abadetza eta... txapeldun!

667

**Emakumeak bertsotan hastea zelan hartu zenduen?**

Ondo. Kristina Mardaras izan zen lehenengoa, eta gero urteetan ez zen besterik izan, baina orain ea zenbat dagoen! Onak, gainera. Eta guk hartu, ondo. Emakumea bertsolari? Lehenengo bertsolaria Euskal Herrian Mari Lasturkoa izan ei zen. Bertsoak harengandik hasi ei ziren. Hori ez dot sinisten. Bertsoak urtengo eban bazter guztietan, lantzean bat. Baina Lasturko Mari bazen, behintzat, bertsolaria, lehen be.

**Txapelketak itzi eta gero, plazan lehenengo moduan zabilz?**

Nik txapelketari izterik ez neban igarri. Egia da, normalean, txapelketan dabilenak aukera gehia-


go izaten dauela, baina nik bardin samar segitu neban plaza aldetik. Norberaren izaeraren gorabeheran egongo da hori. Nik egutegian apuntatzen dot dena. Zein herri, zer ordu eta nogaz. Goizean jagi eta lehenengo haraxe begiratu. Joño! Libre jaukaat! Edo ez. Nik gehien kantatu dodana, urte batean ehun eta hirurogeita hamazortzi plaza dira. Egun baten lau lekutan eta... Lau eta, gainera, ez elkarrean hurrean be! Baina horreek larregi dira. Nik orain ez dot nahi bi be egun baten. Egin behar bada, egin, baina bat nahikoa da. Joan gustora egiten naz, baina, zenbat eta hurrago, nahiago. Egun bi elkarren segidan be... Nik nahiago dot astean bat. Pare bat eguneko tartea, behintzat, etxean egon eta deskantsatzeko. Nekatu egiten da hor egun guztian. Gazteagotan ez, baina orain...

#### Omenaldiak be asko egin deutsuez.

Bat Elkarteak egin eustan, Donostian. Eta herri askotan be bai. Ondo hartu ditut nik. Hamalau omenaldi egin deustez: Iurretan, Arriandin, Zestoan, Ondarruko Gorozikan, Mutrikun, Berriatuan, Bermeon... Leku askotan, urteetan joan izan nazelako. Hogeita bost urte be bai, baten baino gehiagotan. Baina nik ikusi dodana da, herri askotan, omenaldia egin eustenean, fin! Etxea trastez beteta, baina gehiago deitu ez. Harritzekoa da Elgoibarkoa. Omenaldia aspaldi egin eusten, eta, harrezkero be, urtero joan izan naz feria egunerako. Baina, zer egingo deutsek, ba? Beste bat eroaten badabe, konforme.

#### Plazarik estimatuenak zeintzuk izan dozuz?

Nik plazak, maite ditudanak, asko. Bat, herriko



J. Azpillagaren argazki bilduma. XDZ

J. Azpillaga eta J. Lopategi.

legez, Kalbarioa. Uztapidegaz han kantatu nebla be ez dira urte gitxi! Elgoibar beste bat, urte askotan kantatu dodana. Eta Itziar. Ez naz urtetan izan! Bertsoarako herri ona. Paraje ona eta bertsozalea. Lastur be oso bertsozalea. Denak ez dira izaten, eh! Beste leku batzuetan, bai, bertsoak entzuten jente asko, baina ez dakit, ba. Jente hotza edo.

**Bertso bizialdi luzea izan da zurea. Plazarik plaza ibiltzeko, askatasuna be behar izaten da. Seme-alabak izan dozuz, lana... Zelan konpon-tzen zara?**

Seme-alabak eta ama ondo konpondu dira beti, eta ez dot nik horregaz problemarik izan. Mutilzaharren inbidiarik edo? Soltero gelditu banintz be, bardin-bardin ibiliko nintzen ni. Beste bizikera bat izango da, baina... Mutilzaharrak horixe dauka, ibilera libreagoa, bai. Gaztetan ederto ibiltzen da bakarrik be, baina zahartutakoan? Ez andrari, ez umerik. Eta heu bakarrik etxean bahago, dedio! Gu primeran gabiliz oraindino. Baina gero? Ni zahartuta nago, eta ama zahartzen denean? Horixe beste bat, asko aldatu dena. Lehen hamabost lagun-eta etxeetan. Orain arineketan alde egiten dabe. Ez dakit, ba. Bat etxean geratuta edo... Gazteena, adibidez. Eta etxera ezkondu. Gero etxea berarentzako.

**Oraingo bertsoalaritza zelan ikusten dozu?**

Gaiak eta oso diferenteak dira. Hemen Mutrikun, aurtan be kristoren saioa egin da, baina jenteak esaten eban, bertso saioa baino gehiago, txapelketa emoten eba. Jente askori gehiago gustatzen jakoz gai sinpleak. Errazak edo... Ez hain sakonak. Lehengoei horrelako gairik ezin jaken ipini. Orain jentea eskolatua da, euskaraz ondo dakiena, euskara batua be bai, eta bertso eskolan ikasita, errimak, neurriak eta kristoak. Lehen ez zen horrelakorik izaten, eta orain bertsolariak asko dagoz onak. Ea zenbat bertsolari dagoen! Denek ezingo dabe asko ibili. Basarri zenak, herri guztietan bertso-eskolak egiteko

asmoa agertu eutsienez, esan ei eban: "Pozten nauk. Hola, behintzat, etorria edo bertsolari izaera daukanak irtengo dik. Baina bertsolari onak beti izan dituk hamabi. Eta bertso eskolak jarriko dituzte eta, beharbada, lehengoak baino hobeak izango dituk, baina bertsolari onak, beti izango dituk hamabi". Niretzat, hamabi baino gehiago dagoz onak, baina gero ez da bertsolaria izatea bakarrik. Plazara urtenda, nortasuna be eduki behar da.



671

Bertsolari Aldizkaria

# Jon Enbeita



*"Bertsolariak bertsotan gozatu egin behar dau, eta ez sufritu."*

Irribarretsu zabaldu deuskuz Jonek Gernikako etxeko atea. Alkarrizketa honetan barrizera gatozen bizialdiaren adierazgarri diren irudiak ikusi ahal izan doguz bertan. Bulegoko txapel eta sariak, Zihara eta Oihane alaben argazkiak korridoreko hormetan, liburuz beteriko apalak, edo zorrotik ateratako gitarra egongelan, kasurako. Karmele emazteak eskainiriko freskagarriak edanez jesarri gara mahaian. Barriketarako gogoz topatu dogu Jon, bertsotan gehien ibili izan den sasoiaren gainditu ezin izan ei dauen presinoa albo batera itzita, nasai. Ikuspegi ederra dogu leihotik, eta bere umezaroko Muxika be ez dago urrin.

**Bizia bera eta bizitza bera legez, hasi gaitzen errazena eta naturalena denetik. Motiboa bertsolaritza dogunez, egizu zeure umezaroaren laburpen bat.**

Ez da laburpen erraza. Baserri-baserriko giroa zen ordukoa. Gaur egunean be, baserria dago Muxikan gehienbat, baina baserritik bizi den jenterik, gitxi. Sasoi haretan, bertso-eskolaren inguruan eta Ariatzan, asko abesten zen. Hiru taberna zegoen, eta tabernatik tabernara bazen kantu-giroa. Pasetan dena da, hamar bat urtera arte, gazteegia zarela giroaz konturatzeke. Ume nintzeneko gauza gitxi gogoratzen dot. Hiru urte neukazela egin genduen antzezlaneko flash batzuk bai: eszenatokira urteera bat, osaba Pedroren begiradapean, zelan kamioian joan ginen... Nik koplak bat abesten neban, artzain ume baten paperean. Balendin aitak prestaturiko antzerki bat zen, Jesusen bizitza, euskaraz, bertsoz eta koplaz egina. Nik uste dot, gehienbat, euskaraz zeozer egitearren egin ebala, elizaren babespean. Bestela, ezin zen euskara usaineko ezer egin. Prestatu bakarrik ez, berak zuzendu eta aktore moduan be parte hartzen eban. Familiako eta auzoko batzuekin osotu eban antzerki taldea: seme-alabak (Abel, Libe, Moises, Joseba Andoni eta neu), lobak (Deunoro eta Bitoren Sardui eta Beda Ajuria), auzoko-

ak (Jesus, Karmen eta Mertxe Lopategi). Lopategiren ama Santa eta gure ama Klara ziren modistak. Eskolara sarrera be gogoan daukat, sei urtegaz. Euskaraz eginez gero, botoia emoten euskuela, eta zelan sarritan zigortuta egoten ginen. Botoiarena ez zen maistrak euskaraz entzuten eutsanari botoia emoteagaz amaitzen; gero honek besteren bat harrapatu behar eban euskaraz berbetan, berari pasetako, eta, klasea amaitzean, botoiagaz geratzen zenak zigorra jasotzen eban. Orduan geu jartzen ginen batabestearen polizia, eta horrek sortzen eban giro bat! Zazpi-zortzi urte neukazen, Elortzak egingako dokumental baten agertu nintzenean. Aitak eta Joseba Andoni anaiak be parte hartu eban. Handik aurrera, bertso-eskolaren inguruko gorabeherak, lehenengo plazaratzea bederatzire urtegaz...

**Gerraosteari buruz gabiliz, ezta? Sasoi haretako eskolan irakasten zenetik, zeuen etxean edo auzoan entzun eta ikusten zendueenera, alde handia zegoen?**

Eskolako historiak eta etxekoak ez zeukien antzik. Gurean, behintzat, gure Aberria zein zen txikitatik ikasi genduen, nahiz eta kalean altu eban ezin, eta eskolan gitxiago. Erdi klandestinitateko kontuak ziren. Kontuz non eta zer esaten zen. Gogoratzen naz Labegerieren diskoa be zelan ezkutuan entzuten genduen. Gure baserria, gainera, gerra ostean hutsik gelditu zen. Behiak lotzeko katerik be ez. Hormak ez beste guztia eroan euskuen, eta isilik egon behar! Aita kartzelan egonikoa izanda, apur bat "zainduta" be bai. Beste alde batetik, errespetua be baeutsien. Maistrak berak be bai. Ez dakit, gizon serio moduan edo ikusten eban. Karrerarik bakoa izan arren, denerik zekienez, edozer pasetan zenean, bera-gana jotzen eban. Kontrakoek be errespetua eutsien. Eskolagaz lotuta, barriz, maistrak kastiguren bat ipiniz gero, etxera joan eta, aitak jakituan, beste kastigu bat izaten genduen. Horretan

gogorra zen, baina, kastigu hori euskaraz egitearren emondako botoiagaitik bazen, ez genduen bigarren zigorrik izaten.

**Muxikako umeek, eskolatik kanpora, zertan emoten zenduen eguna? Zer dibertsino, zelako jolas motak ziren ordukoak?**

Jolastu, ahal zen guztia jolasten genduen, baina behar egin be, soloan eta, gaurko umeek baino gehiago. Gurean, etxeratzeko ordua ipinita edukitzen genduen, eta ondorengo zeregina be bai. Eta kontuz berandu ibiltzeagaz. Ni tiragomazale amorratua nintzen. Beti nerabilen poltsikoan, bardin zen eskolara joan zein elizara. Monagilo be izan nintzen eta, sakristiako leihotik txoriren bat ikusiz gero, bertatik! Ez neuk bakarrik; zale-tasun handia zegoen orduan. Txori guztiak euren kantutik ezagutzen genduzen, eta habiak aurkitu be bai. Beharbada, ehiztari gehiago ibiltzen ginan tiragomekin, eskupetekin baino. Ehizan bakarrik ez: inoiz, leiho artetik edo kotxeei jaurtika, barrabaskeria batzuk be bai. Asko landuta edukitzen genduzen tiragomak. Urkuluak egiteko egoki ikusten genduzen zuhaitz adarrak, gehienetan leizarra, lotu egiten genduzen, forma hartzen joan zeitezen, eta gomak be bereziak, eskatuta. Botilen txotoetako berunak batzen genduzen, eta biribildu, harri moduan botatzeko. Hortik aparte, pilotan elizpe eta eliza aurrean, futbolean ahal zan lekuan, kastorrean, arandelekin, txopinera eta abar. Besterik ezean, geuk asmetan genduzen jolasak zein jolas-tresnak.

**Bertsotan be ume-umetan hasi zinen. 9 urtegaz kantatu zenduen lehenengoz plazan. 11 urtegaz, barriz, itzi ez eutsuen arren, Bizkaiko Txapelketan parte hartu gura izan zenduen. Garriko bertso-eskola be inguru horretantxe sortu zen. Zelakoa zen orduko bertso giroa? Egiten zen saiorik, Muxikako jaietan edo?**

Txapelketak hasi barri ziren eta, parte hartzeko, ez zegoen adinaren mugarik. Aurreko urtean,

Ireneo Ajuriak 14 urtegaz irabazi eban eskualdeko kanporaketa eta finalaurrekoan be aurrera egin eban, finalean sartzea lorturik. Hurrengo urtean, neuk be izena emon neban, eta baiezkoa erantzun eusten. Eguna heldutakoan, pozik eta harro igon neban eszenatokira, baina batzuek gazteegia nintzelako kexatu egin zirela eta, jokatu barik jaitsi behar izan neban, negar malkoari eutsi ezinik. Amaieran, irabazleagaz, Lopategigaz, saio bat egin neban.

Ez naz gogoratzen ume denporan, 1960 aurretik, behintzat, plazan bertso-saiorik entzun izanaz. Tabernan edo bazkalosteren baten bai, baina modu informalean. Baina ni ez gogora-



*Jon Enbeita, haurra zela kantuan; alboan Aita Martzel Andrinua.*



tzeak ez dau esan gura egin ez zenik. Bertso giroa baino gehiago, bertso gosea zan zegoena. Bertsoaritza ondo "zainduta" zegoen, eta kontuz ibili behar zen. Garriko bertso-eskola be, Ariatzako Fuenterrabia tabernan, jentearen aurrean egitea erabagi bazen, ez zen izan taberna aukeratu zelako bertso-eskolarako, barruan talde bat elkartzen zela ikúsiz gero, hurrengo egunerako galazota egongo zelako baino. Jentearen bistan egin behar zen, ezer arrarorik ez zegoela erakusteko. Halan be, izan ziren denuntziak! Niretzat, zortzi-bederatzi urteko ume koskor batentzat, gauza haundia izaten zen tabernara sartu, mahaian jesarri eta nagusiekin bertsoan egitea. Bertso-eskolaren egunean, taberna bete egiten zen. Lehenengo bertso-eskola izan zela esan leiteke. Bizkaiko txapelduna Balendin aita zenez, bere inguruan sortu zen. Gero lararin apurtu zen, baina...

674

1963an, 13 urte zituela, fraile joan zen Jon. Muxika zati baterako ez eze, orduantxe agurtu eban umezaroa betiko. 20 urte egin arte egon zen frantziskotarrekin: Arantzazun lehenengo; Forun, Zarautzen eta Oliten gero. Bera baino lehenago, lau anaietarik hiru ziren bide bera harturikoak.

#### **Enbeitatarrak fededunak izan direla esan behar dogu?**

Gure etxean, errosarioa egunero errezetan zen. Federik eduki behar ez zenik bururatu be ez jakun egiten! Gabonetan be ospakizun berezia izaten zen gurean. Jesusen Bihotzaren irudi bat geunkan egongelan. Gabonetan, aitak ha eskue-tan hartu eta beraren atzetik, denok prozesinon ginela, *Kristo gure errege* kantatuz, ezkaratzera eroaten eban eta han, otoitz egin ondoren, gertu gengozen Gabon Aparia hasteko. Auzoko batzuk be etortzen ziren zeremonia haretara. Ezkaratzean izten zen Gabon jaiak igaro arte eta, amaitzen zirenean, barriro lehengo lekura eroaten genduen. Nik gotzain gura neban. Denak

fraile? Ni lehenengo gotzain eta gero fraile! Gero, 11 urte neukazela hil jatan aitita Gabiño, amaren aita, karino itzela eustana, eta neuk be bai berari. Hasarre nengoen eta, ez gotzain ez fraile, ez nindoala inora erabagi neban. Pare bat urte egin nituen horretan. Herriko eskolan ikastekoak amaituta neukazen eta aitak nonora mogidu beharko nebala esan eustan, kolegiara ez bazen, beste nonora; ofizioen bat edo zozzer ikasi behar nebala. Azkenean, anaien bideari jarraituz, Arantzazura joan nintzen. Izan be, fraile joatea gauza normala zen. Edo Arantzazura, edo pasionista, edo sakramentino... asko joaten ziren. Beste alde batetik, hotzean begiratura be, ikasteko aukera bakarria haxe zen. Unibersitateko karrera bat orduan, Muxika osoan, batek egingo eban. Dirurik ez zeukanarentzat, haxe zen herri unibersitatea.

#### **13 urte baino ez, eta etxetik kanpora. Zelan hartu zenduen, egun batetik bestera, etxeko ezkaratetik, komentu handian aurkitzea?**

Hasieran kostatu jatan! Etxea burutik kendu ezin, belarrondoko batzuk hartu be bai... Lehenengo urte haretan, gura ebenak etxera joateko esan baleuskue... Hango disziplina gogorra zen. Neu aginduetara moldatzen errezagoa nintzen beste batzuk baino, baina apur bat errebelde-toago zenarentzat... Orduko garaira jo behar da, ulertzeko. Orduko irakaskuntzan, eta ez kolegioetan bakarrik, "la letra con el palo entra" zen nagusi. Laster konturatu nintzen arazoa, isilik egon behar zenean, isilik egotea zela, ikasi behar zenean, ikastea... eta horixe zela han egin behar nebana eta hobe zela egoera gatxago ez egitea. Udan bakarrik etortzen ginen etxera, hilabeterako. Ez naz ahaztuko lehenengo urtean izan neban etortzeko ilusinoagaz, eta hartu neban desilusinoagaz. Ni, Arantzazura joan nintzenean, gure etxea handia zen. Etxe inguruak be handiak ziren. Niretzat mundu bat zen ha dena. Eta, bueltan etorri nintzenean, dena zego-

en txikituta. Etxea, txikia; ingurua, txikia... eroan neban shock bat! Arantzazuko kolegioan gure baserria lako lau sartzen ziren! Tiragomaz be hainbat ameseta egin neban. Hantxe zegoen, gorde neban lekuan. Hartu eta joan nintzen ehizara, baina, lehenengo txoria hil nebanean, berari begira, sartu jatan tristezia bat! Etxea bakarrik ez; neu be aldatuta nengoen.

**Gerora, han eta hemen azpimarratu eta goratu izan da, hamarkada haretan, Arantzazuk euskal munduan bete eban lekua. Artista askoren topaleku izan zen, adibidez; eta euskara batuaren sorgune be bai. Botoiaren eskolagaz alderatuta...**

Ikasleen artean, denerikoak eta leku askotakoak gengozen. Gehienak Euskal Herrikoak ginen, baina baziren estatuko probintzietatik etorriak be (Burgos, Madril). Izaten genduzen geure diskusinoak... Han bildur barik. Handik nora joango ziren, ba! Fraileen aldetik, barriz, oso positiboa. Ekitaldiren bat zegoenean, sarritan bertoren bat eskatzen eusten, eta ni pozik. Ez neukan inongo arazorik bertso bat botatzeko. Nire anaia zaharrena, Kepa, 63an kartzelara sartu ebenean be, fraile bateri esan neutsan, eta kapilan, behin baino gehiagotan, beraren alde errezatu genduen. Euskara be han, galazo ez, irakatsi egiten zen ikasgai moduan. Batua gerotxoago etorri zen, ni Zarautzen nengoela, baina Arantzazun ikasi neban nik euskara gramatikala, bizkaieraz eta gipuzkeraz. Abestu be egiten zen euskaraz, erdaraz baino gehiago. Bazegoen, bai, euskal giroa. Euskal kontzientzia aldetik, han, etxeko moduan. Nik ez neban ezagutu fraile bat be horren kontrakorik.

**Ikasleen artean hainbeste lekutatik etorritakoak egoteak be eragingo eutsun, ba, zer pentsatua.**

Hiru kurtsotan banatuta, baktotxean ehun eta piku egongo ginen. Jente asko! Ordura arte inguru txiki batean egon eta gero, beti hiru-lau gaz eta beti auzo edo familia ingurukoekin, jen-

tarte horrek eragiten dau, bai. Han aurrerago imajinetan ez neban gauza asko ikusten zen, eta mundua zabaldu. Mundua zabaldu, alde batetik, baina, bestetik, "internatua" izatean, zarratu be bai; mundu horretatik isolatu. Nik hango urteetatik dodan damu bakarra horixe da: bizitzaren udabarria ingurutik isolatuta pasatu izana. Geure umezarotik gaztezarorako bidea ez genduen era naturalean, kalean, inguruagaz batera egin. Beste alde batetik, gu han gengoze-la, gauza asko gertatu zen Euskal Herrian zein kanpoan, 68ko maiatza tarteko. Ez dot esango ezegaz enteretan ez ginenik, baina ez genduen ha dena joko-zelaian bizi; ez ginan aldetaren parte, irakurle baino.

**Arantzazun batxilergoa ikasita, Zarautzen nobiziatua eta Oliten filosofia egin zenduzen. Fraile izateko bidea eginda zeunkan, baina, 20 urtegaz, habitua eskegi egin zenduen. Zelan hartu zenduen erabagia?**

Hori apur bat konplikatua da. Ni neu ez ninduen "bialdu", baina hasieran, zoazenean, ez dakizu zertara zoazen. Gero, bertan zagozela, fraile izatera zuzenduta dago dena. Ikasketak eta, nahiz eta batxilerrekoak izan, hasi goizetik eta eguneroko meza eta errezuak eta San Frantziskoren bizitza... horrax zuzenduta dagoz. Zu sartzen zoaz, baietz konbentzitzen. Gero etortzen dira hamabost urte, hamasei, hamazazpi, eta hor dudak sortzen hasten dira. Hamabi-hamairugaz ez hainbeste; edade horretako dudak etxean hobeto zagozela pentsatzeak dakarzenak dira. Kontua ez da, fraile izateko egon, eta bat-batean ezetza erabagitea. Baizean zagoz denbora batean. Bazoaz aurrera, baina bidean zalantza asko datoz. Horren kontra egon ez arren, zeure burua beste leku baten ikusten dozu. Ez da momentu bat. Apurka-apurka, ideia bat mamitzen zoaz. Pausoa emon arte, sufritu egiten da. Dikotomia batean ipintzen zaitue: edo hau edo hori. Bizitzak bide bi balitu


legez. Beti zagoz pausoa emongo, ez emongo. Nik ez neban urten fedea galdu nebalako. Baina, batez be Zarauzko nobiziatu garaian, zu Jainkoaren apostolu izateko aukeratua izan zarela sartzen deusue buruan. Bizitza errazagaitik izten dabela askok frailetza, eta horrelakoak. Alde batetik, geroago eta argiago ikusten neban neure burua handik kanpora. Baina ni, izatez, eskrupulosoaz naz; gauzak ondo egitea gustetan jat, eta hori gauza ona da. Baina horrek, perfekzionismoan jausten denean, sufri-

tuarazo egiten dau. Inogaz be ez badozu hutsik egin gura, Jainkoagaz gitxiago! Eta orduan problemak sortzen dira. Urtebete igaro neban horrelaxe: bai, ez, bai, ez. Behin erabagi eta urten nebanean, hartu neban nasaitasun bat... itzela!

1970ean, Jonek komentutik urtekeran, irakiten topatu eban kaleko giroa. Politikoki eta sozialki bero-bero zegoen Euskal Herria, eta kultur mogimendua bizi-bizirik. Bestelako adierazpideak galazota egonik, esan ezin eta esan behar zenaren mugan, kultur adierazpideak bihurtu ziren mamitzen zebilena azalertzeko modu. Euskal Kantagintza Berria esan jakona bere onenean zegoen orduantxe; plazak bete egiten ziren, bakarlariak entzuteko. Ordurako, frantziskotarrekin zegoela, gitarra jotzen bere kabuz ikasia zen Jon. Kanta batzuk eginak be bazeukazen. Plaza batera urten, harek beste bat ekarri, eta horrelaxe sartu zen kantagintzan.

### Bertsolari moduan baino lehenago, bakarlari legez emon zenduen, beraz, zeure burua eza-gutzera?

Ordurako, *Ez Dok Amairu*-koak indar handia hartuta zebilzen, eta euren inguruan bakarlari asko sortu zen. Hemen, Gernika inguruan bertan be bai. Nik urten orduko, urtebete arinago, Lertxundi geurean egon zen bazkaltzen, Ariatzan abestu eta gero. Nik baneukan harra. Betidanik gustatu izan jat, eta pentsatu neban neuk be egin neikeela ahalegin bat. Umetan be, bertsotan plaza batzuk eginda, banekien jendaurrean jardutea zer zen, eta gitarra bategaz izan zeitekeen modua. 70ean hasi nintzen eta, hurrengo urtean, 71n, grabatuta neukan lehengo diskoa. Bertsotan be egiten neban, baina gitxi. Kantuan arinago sartu nintzen, behar bada, diferentea nintzalako, neu nintzalako. Txar-to edo ondo abestu, neureak ziren letra eta doinuak. *Ez Dok Amairu*-tik aparte, hemen ingu-



XDZ

Jon Enbeita gitarra bategaz kantuan, bazkalondo batean, 1975 inguruan.

ruan sortu ziren askok inoren kantik kantetan zitueen, batez be. Lehenengo egunean, Abadiñon zela uste dot, askatasunari kantetan urten neban, eta sasoi haretan askatasuna aitatzea bera... Letrak, mezutik aparte, egokitu egin behar dira. Askotan, konturatu ez arren, kantik beraren kadentzia eta errimarentzako lekua daukaz, eta batek hori errespetetan badau, kadentzia eta letra josten baditu, beste era batera sartzen da. Horrexegaitik, beharbada, hasieratik lortu neban lekua bakarlari moduan; joskeran asmatu nebalako. Izan be, zoritxarrez, kanta askok belarrira min egiten dau, ez letra edo musika txarragaitik, elkarregaz josita ez doazelako baino. Zer esanik be ez, bertsolari ivateak horretan asko lagundu eustan.

**Giro haretan, komentutik urten barri batentzat, batez be, erakargarria izango zen halako mogimendu aitzindari batean herririk herri ibiltzea. Gaztea be bazinen. Parrandarako eta neskatarko be edade onean zengozen.**

Bai. Niri, frailetzan ibili nintzen denporan falta izan jatana horrek emon deust gerora. Galdutakoa apur bat errekupeetan lagundu izan deust. Garaian bertan bizitzea beste gauza bat da. Liburuan irakurtzea eta norberak bizitzea ez da bardina. Hori bai, gero neuk hartu neban bideagaz, dena kolpera jaso neban. Hiru-lau urtean biziko neban beste batek hamar urtean bizitakoa. Baina, hartu-emonetan, esate baterako, kostatu egin jatan neure burua askatzea. Kantuan eta bertotan ibiltzeak bidea apur bat arindu arren, normalagoa izan behar eban hartu-emon hori gauzatzea gehiago kostatu jatan. Dantzalekuetan eta, gitxi ibiltzen nintzen. Koadrila be ez zen horren zalea. Gainera, asteburuetan kantuan ez bada, bertotan bazabilz, beste parranda edo hartu-emon klase batzuk bizitzen dira. Egun bakarrean, bertso eta kantu, sei saio egitera heldu nintzen. Horrelaxe zen. Momentua halakoa zelako, gose itzela zegoen.

**Lehenago esan dogu fededun itzi zenduela frailetza. Herririk herri gitarragaz ibili zinen; urte horreetan, barriz, oso bestelako pentsakerak ezagutu zenduzen. Jainkoaren heriotzaz berba egiten ebanik be bazen ordurako. Kristautasunetik marxismora, erlijino bat beste bategaz trukatu ebala be batek baino gehiagok esan izan dau gerora. Zure mundu-ikuskerak aldatu zen, horreetan urteetan?**

Zelan azaldu! Fedearen gorabeheran, neure hausnarketak eginda neukazen, eta egiten dihardut. Nik orduko bizipenak ez nituen fedegaz lotu. Niretzat, inguruak fedea eduki zein ez, errealitatea da hor dagoena, eta bardin oratu behar jako. Ez dakit beste federik inoiz eduki dodan. Nik bizitzaren inguruan daukat fedea. Geroko bizitzara dena mugatzen dauen fedea edukitzea ez da erraza, baina, edozer dela pentsatuta be, geroa energia bat edo gura dena dela, izango dena hementxe hasten da, eta hemengo-  
 xea da zuzendu behar dena. Hau transitoa dela, hemen zer egiten dozun, gero han halako saria daukazula, "kontuz!, huts egiten badozu, Jainkoak kastigatu egingo zaitu-eta!"... hori dena arkaikoa da; inkisizino denporako kontuak; pobreen kezak isiltzeko larregitan erabilitako esaldiak, ahaltzuen mesedetan. Horretarako, Jainkoaren izena erabiltzea be! Jainkorik bada-  
 go, ezin dau kastiguzale izan, ez eta arau zale be, zintzotasun zale baino. Geure neurriko Jainko egin gura dogu, beraren izenean gerra egiteko. Azken batean, amaitzen ez den energia baten parte bagina be, niri horrek ez deust buruko minik emoten. Niretzat ez da "bai ala ez" argitu beharreko tema. Argitu behar dena da errealitate hauxe eta pertsonaren duintasuna. Gerokoa etortzeko dago eta joanikoa joanda, eta gaur hemen gagoz. Egunerokoa eta egunera bizi behar da. Atzokoa eta biharkoa ez dira atxakia, gaurkoa egiteko edo ez egiteko. Pentsakera horretan, izan dot neure garapena, baina ez da kolpera aldatu den zeozer. Orain daukadan

fedea ez da izango frailetzatik urteteen neukana, baina ez da izan, funtsean, aldaketa traumatikorik.

Hareek sasoi hareek zelakoak izan ziren erakusgarri, zentsurak eta debekuek eragindako gertaera ugari dauka Jonek akorduan. Meñakan debekaturiko kantak zelan baimentzen eutsiezen, egun berean, Mendatan, adibidez. Eta alderantziz. Igoerreko futbol-zelaian, ehundazak Guardia Zibil sartu eta oholtza azpian ezkutaturik egon zenekoa be bai; edo Moises anaia Amaran "sekretatzat" hartu ebenekoa, bere bizar, betaurreko baltz eta aurpegikera serioagaitik. Euren artean, lurretan bizi izandako bat gogoratzen dau bereziki. Beharbada izango da, gotzain izatera ailegatu ez arren, sermoi bat botatzea, behintzat, lortu ebalako azkenean.

Leku batzuetan, zeu bakarrik joaten bazinen kantari, eta zeu galazotzen bazinduezen, jaialdia galazotzen zen, eta horixe pasatu zen lurretan. Plaza bete-beterik zegoen, eta abadeak esan eustan, gura banaban, beraren sermoiaren orde, neuk kantetako. Joan nintzen eta -fededunak be bai orduan gaur baino gehiago-, eliza beterik zegoen. Beraren sermoia baino diberti-garriagoa izango zela esanez aurkeztu ninduen abadeak, eta urten neban gitarragaz. Koruan tipo arraro bi ikusi nituen, "sekreta" antza zeukienak, denak bardin janzten ziren eta; baina gustora egin neban abadearen agindua. Elizatik kanpora urtenda, txosna bi zegoen plazan eta batetik bestera ibili ginen. Begiratu eta atzean, trikornio bikote bat. Joan beste mostradorera, begiratu eta, han be atzean. "Koruko informazioa arin pasatu da hemen", pentsatu neban; baina neu be jente asko inguruan eta babestuta sentitzen nintzen. Momentu batean, erdi-bakarrik geratu nintzen eta tak-tak ikutu eusten atzetik. Buelta emon eta Guardia Zibilak: "Siganos!". Abade Etxearen osteria eroan eta han kotxe biren

artean sartu nindueen. Baina nigaz zegoen bat konturatu eta eroan egin nindueela esaten hasi zen, eta orduan jentea Abade Etxearen kantoira hurreratu zen. Guardia Zibilek be haraxe begiratzen eben eta galdera apur bat tontoak egiten hasi jatazen. Abadea be, enteratu zenean, bertara etorri zen eta ea zer pasetan zen itaundu eutseen. "Cosas de rutina", erantzun eben eurek. Elizakoagaitik bazen, beraren kontua zela abadeak, eta bera egingo zela erantzule. Abadearen portaera ha ez daukat ahazteko. Kotxe gainean zegoen karneta eta gitarra hartu eta laster egin neban ospa!

**Orain kontatzeko politagoak dira horreek gorabeherok, baina beste ibilera batzuk gozatsuak izango ziren orduan be. Hit Paradean be behin baino sarriago egon ei zinen lehenen.**

Hit Paradea Aresek-eta egiten eben Radio Bilbao-n. Entzuleek emoniko botoen arabera saillkapen bat zen, eta gero irrastian eta egunkarrietan agertzen zen. Boom bat zegoen. Hiru abesti izan nituen lehenengo postuetan: *Horrela doa mundua*, *Dirua* eta *Emoidazu eskua*. Hirurak disko berekoak. Ez neban beste diskorik grabatu. Madrilgo disketxe batetik, bigarren diskoa grabetako etorri ziren, baina letra bat aldatzea gura izan eben, eta nik ezetz, eta eurak baietz. Kapitalismoa eta komunismoa lako berbak sartzten nituela eta horreek gogor emoten ebela. Eurak terko eta ni terko... Haren lekuan beste kanta bat sartzeko aukera be emon eusten, baina nik zentsurarik ez neban onartzen, eta halantxe geratu zen. Franco hil eta euskal kantagintza profesionalizetan hasi zenean eta, aurrera egiteko, taldeak sortu beharra etorri zenean, gitxik iraun eben. Bakarlariak, banan-banan, desagertzen joan ziren. Nik ez neban inguruan taldea sortzeko aukerarik izan, eta egin behar ez nebana egin neban: gitarra bere zorroan sartu eta hogeit urtean atara be ez! Gainera, 1975ean, Mallabian antolatu eben Bizkai-

ko Bertsolari Txapelketa irabazi ostean, barriro bertsoari lehentasuna emotea erabagi neban. Oraintsu, Kilometroak 2002 zela eta, *Ez Dok Amairu*-ri omenaldia egin eutsien. Garai haretan ibilitako Busturialdeko abeslarioi Muxikan egiteko zen jaialdi baten parte hartzeko eskatu euskuen, eta barriro harra sartu eta banabil. Kanta barriak egiten be hasi naz.

**Halan be, kantari asko heldu ez diren lekuetan kantatu zenduen geroago be. 1977an, Anton Larrauri musikariaren *Diálogos* lanean, Bilboko Buenos Aires Antzokian, -Bilboko orkestra sinfonikoagaz-, Madrilgo Teatro Realen -Televisión Españolako orkestragaz- eta Kanariar Uharteetan -orkestra nazionalagaz- jardun zenduen kantari.**

Anton Larraurik letra bat egiteko eskatu eustan *Diálogos* izeneko bere obrarako. Oso obra abanguardista zen. Soinu tresna tradizionalaz gainera, txapa-zaratak, sirenak eta... Gauza guztiak elkarregaz berbetan. Hortik *Diálogos* izena. Letra be sonoritate handikoa eskatzen eban, R askogaz eta gogor samarra, eta halantxe idazten ahalegindu nintzen. Erabat gustatu jakon eta, abestu be, neuk egitea gura ebala esan eustan. Bilbon estreinatu genduen eta gero, Teatro Realera joan behar zela eta, neuk joan behar nebala hara be. Ni bankuan beharrean be banenbilen ordurako, Baserritarren Kutxatik Bizkaiko Aurrezki Kutxara aldatu barri, eta ezin nebala erantzun neutsan. Orduko giroan, gainera, Madrilera, Teatro Realera joatea ez neukan hain garbi. Antonek orduan, neuri esan barik, bankuko zuzendariagana joan eta ez zeukala ordezkorik eta derrigor behar ninduela esan eustan. Etorri zen Gernikako bulegora zuzendari nagusi hori -sartu barri be bai ni eta errespetutxo!- eta "¿Quién es ese imprescindible que tenemos aquí?" itaundu eban. Denok elkarri begira, inork ez genkien zertaz ari zen. Eta holantxe joan nintzen, baina egitarauan nire izenik ez ipintzeko

esan neutsen; cantante, versolari edo gura ebena ipintzeko. Saio bi egin genduzen. Bata arratsaldeko 7retan, ikasleentzat, eta arrakastatsua izan zen. Hiru bat bider urten behar izan genduen txaloak jasotzen, kamerinoetan auto-grafoak sinatu etabar. Bigarrena, barriz, gaueko 10etan, jente helduarentzat. Pajaritek eta jantzi luzeek bete eben antzokia. Euskara entzuteagaz bakarrik hasi ziren batzuk "Rojo! Separatista!" deihadarka. Sirena hotsa be poliziagaz lotu eben, antza. Eskerrak txaloak be izan ziren, zaratak tapetako. Entzulea behin agurtuta erretiratu ginen. Handik urtebete ingurura, Kanariar Uharteetan, bai Las Palmasen, bai Tenerifen izan ginen. Honela agertu zen *El Correo Español*-en be: "Un versolari se enfrenta a la Orquesta Nacional". Arrakasta itzela izan genduen. Seizazpi bider urten behar izan genduen agurtzera.

Dena dela, kantaldi jakinen bat gorabehera, 1977an itzita zeukan Jonek kantagintza. Bertsolari karreraren zentratuago zebilen, plazan askorik kantatu ez arren. Gaurko aldean, oso jaialdi gitxi egiten zirela dino. Bizkaian Lopategi eta Azpillaga zegozen, gainera. Jon bera apurka-apurka hasi ei zen. Gernika inguruan eta, gazteentzako sariketa- ren baten. 1980ko Txapelketa Nagusian txapeldu- norde geratuta emon eban jauzi handia.

Plazarik eza orekatzeko, Lamikizko bertso-eskola sortu genduen. Astean behin batzen ginen aita, Moises, neu, sarduitarrak, Monasterio... Ni plazan oraindino gitxi ibiltzen nintzen, urtean hamar-hamabost saio, eta Lamikizko eskolari esker mantendu neban maila. 80ko Txapelketa Nagusian bigarren urten nebanean, ia-ia ezagutzera emotea legez izan zen, askok gehiago ezagutzen baininduen abeslari moduan, bertsolari moduan baino. Txapelketa Nagusi haretako finala, urduritasuna barne, gozada bat izan zen. Orduan ez nintzen joan gerora gainditu ezin izan dodan presinoagaz. Final aurrekoan bai,

urduriago ibili nintzen. Nekiena demostretako ilusino eta gogo handia neukan. Urteteko aukera bakarra txapelketa haretan zeozer egitea zela argi ikusten neban. Orixe saria irabazita neukan; Mallabiako txapela, Zepai eta Artxanberrin be, bigarren... baina horreek jentearentzat bigarren mailakoak ziren eta ez eben hainbeste eragiten, ez zeukien hainbeste éntzute. Txapelketa Nagusi haretan, finalean sartzea bai izango zen kontsagretako modua. Sailkatu nintzenean, ospatu be halantxe ospatu neban. Puru, juerga... tentsino guztiak askatu nituen, eta erdi gaitotu be bai. Aspirinak hartuta joan nintzen finalera, baina aparteko ardura barik.

**80ko Txapelketa Nagusian, bigarren izan zinen. 82an, 86an, 89an eta 93an, beste lau bider izan zara finalista gerora be. Txapelketa bakotxa zer sentimendugaz gogoratzen dozu?**

Nik Txapelketetan, nagusietan batez be, asko sufritu izan dot. Baina ez aurreko egunetan bakarrik. Hileetan! Halan eta guzti be, goiz parteko saioa nahikoa ondo eroaten neban. Arratsalderako, nekea eta buruko mina saltzeko beste izaten nituen. Trankilen lehenengora joan nintzen eta ondoen orduantxe pasatu neban. Txarrenak, bigarrena eta azkena. Bigarrena, batez be, oso txarto. Lehenengoaren konfirmazio moduan ikusten zenez, presinopean, oso lotuta, bai finalerdietan, bai, batez be, finalean. Han egin neban bertsoketa guztia errekurtsioei esker izan zen, blokeatuta nengoen eta. Txarto pasatu neban. 89ko finalean, gauza onak egin izanaren sentsazioa gelditu jatan. 86koan, gus-torago abestu neban, batez be, goiz partean. Gomuta ona daukat. Hortxe-hortxe ibili nintzen.

**Batek baino gehiagok dino txapeletik gertu ibili zinela.**

Ez dakit. Deneriko eritziak egon ziren; epaileen artean be bai, antza. Epaille bik lehenengo nindeukien bitartean, beste birentzat azkena nintzen.

Gainetik kendu ezin izan dauen presinoa aitatu deusku Jonek. Gainerakoek zer esango beti arduran ibili beharrean, gehiago gozatu ez izanaren damua dauka orain, bertsotan trankilago egiteko gogoz, baina aukera gitxiagoz aurkitzen denean.

80ko txapelketak guztiz aldatu eban nire bertso mundua. Bizkaian dozena bat plaza egitetik, Euskal Herri osoan kantatzera pasatu nintzen. Gipuzkoara joaten nintzen bakoitzean, etsamina bat izaten zen. Ezezaguna izatetik txapeldunorde izatera kolpean pasatu nintzenez, jenteak arreta berezia jartzen eban: huts egiten ete neban, ez ete neban; benetako mailarik ba ete neban... Ni neu, behintzat, halantxe sentitzen nintzen, belarriak gorrituta. Gero, derrigor, maila hori emon beharrean aurkitu naz. Demonstratu beharra sentitu dot. Beste era batera hartu behar neban, baina neure izaera "perfezionistak" ez deust askorik lagundu. Plazetan presino hori kentzea lortzen nebanerako, atzera barritzen jatan txapelketetan. Eta horrek lotu egiten zaitu. Bertsolariak bertsotan gozatu egin behar dau, eta ez sufritu. Persona batek gozatzen dauenean, beste sentsazio bat emoten dau, beste itxura bat. Gaur beste jakin izan baneu..., baina, sasoiari sasoi. Txapelketak itzi, akatsen ardura larregiak kendu eta, trankil, gozatuz bertsotan egitea erabagi nebanetik, gogoa be gehitu egin jatala esango neuke, nahiz eta bertsotan egitea beti gogoko izan dodan. Baina, txapelketak iztean, zoritxarrez, bertsotan egiteko aukerak be gitxitzen joaten dira.

**80ko Txapelketa Nagusian, Amuriza izan zen txapeldun. Artean nagusi zen bertsokera kontuan hartuta, aldaketa bat gertatu zen, eta horrek be eragingo eban bertsozale askoren jarreran. Zeu be kontziente izango zinen horretaz. Bazeunkan proposamen bat, bertsokera bat...**

Bai. Amurizak gauza asko demostratu dau bertsolaritzan. Nire aldetik, zegoen teoria bat alda-

tu gura izan neban, baina ez ulertu zen moduan. Orduan poesiak bertsoagaz ez zeukala zerikusirik esaten zen; bertsoa gauza bat zela eta poesia beste bat. Nik bertsoan poesia egin leitekeela demostratu gura izan neban. Bertsoak denerako emoten dauela. Formari be beraren garrantzia emon gura izan neutsan, euskara zuzena erabiliz, berbák ondo ebagita, teknika-ren arauak (neurria, etenak, oinak...) zainduz. Kantetan zen bertsoak idazteko modukoa izan behar eban.

**Bertsokerari buruz gabilenez, zeintzuk izan dira zure erreferentziak bertso munduan zein hortik kanpora?**

Nik ez dot eduki osoan imitatu gura izan dodan

pertsonarik. Bertsoak denerik edukitzea gustatu izan jat: Lazkao Txikitik, Xalbadoretik, Urretxindoretik..., baina ez bata besteagaitik kenduz. Nik neurez jo dot poesiara, bertsoan ahal den euskararik garbiena erabiltzera, teknika hobetzera... Beharbada, hutsune bat ikusten nebalako. Ez dot eduki erreferentzia zehatzik. Edukitzekotan, aitarena, hamahiru urtegaz kolegiara joan arte; baina gero, hogeitaz urtegaz handik urten eta barriro bertsoan hasi nintzenez, neu bihurtu nintzen neure erreferentzia. Ez dot inoiz bertso liburu bat osorik irakurri. Ez orduan, ez gero. Niri bertsoan gauzak sujeritzea gustatu izan jat, baina esatea be bai. Esan barik itzi eta besteak harrapatu daiela bai, batez be, gai arinetan; baina, sakondu behar denean,



Jon Enbeita Karmele Gardoki emazteagaz, eta Zihara eta Oihane alabekin.



esan egin behar da, eta berbek ahal den kargarik handiena eroan daieela. Hori idatzian egiten dozu, baina hori bat-batera eroatea... horixe izan da nire helburua.

**Bat-bateko bertsolarien artean, denerik dago, baina ez da orokorra bertso jarriak egitea. Zuk sarri landu dozu arlo hori. Idatzizko beharra poesiarako edo perfekzinorako joeragaz lotuko zeunke?**

Bertsoak sentimenduak ateratzeko erronka bat jartzen deustalako idazten dot nik. Eta bai, idazten jartzen nazenean, ahal den kargarik handiena ipintzen ahalegintzen naz. Ez naz hasten hamabi bertso barri jarri behar ditudala eta, nahiz eta, batzuetan, horrelakorik be egin behar izan. Bertso bategaz hiru egunean bueltaka ibili naiteke, ez, bertsoa ona izan daiten bakarrik, neuk gura dodana esan arte baino. Beste zortzik arratsalde batean urten leikie. Idatzi neikez bertso batzuk neure errekursoekin. Teknika alde-tik, txukunak eta, beharbada, oso bertso onak izango dira. Oso ondo. Sariketa bat irabazi be egin neike. Baina eurretan ez badot barruan neukan kargarik irauli, beste guztiak ez nau asezten. Askok nekatu egiten ei dira bertsoak idazten. Neu be bai, eskabidea kanpotik datorrenean, baina, neure sorkuntza lana denean, gozatu egiten dot, eta atera gura dodan sentimendu hori bertso bihurtzen badot, nekatu baino gehiago, nasaitu egiten naz. Pena, gure bizitza estresatu honek ez deuskula horretarako ia astirik emoten.

**Plazak eta bertsokideak, zeintzuk izan dozuz gustoko?**

Ez dot izan bertsokide finkorik. Batzuk gustokoago beste batzuk baino, hori bai, baina, aukera izan dodanean be, ez dot exijentzirik ipini. Gustatu be ez jat egiten hori. Apur bat denen artean ibiltzea gurago dot. Plazen artean, barriz, jenteak kontrakoa pentsatuko dauen arren, niri

afalosteak eta ermita osteko libreko saioak gustetan jataz gehien. Edo taberna baten sortzen den giroa. Jaialdiak beste seriotasun bat dauka. Jaialdiak aukera gehiago emoten dau, gauza solemne bat egiteko, baina, neuk disfrutetako, gurago dot afaloste bat. Antzoki baten egin leitekeen saio serioa be gustetan jat; afalosteko batek ez deustu aukerarik emoten bertsoakera horretarako, eta batak ez dau bestea kentzen. Gaiak laguntzen badabe, eta zeuk eguna badaukazu, jaialdiak zeuretik emoteko aukera dira. Baina neu, naturalen eta erosoan, lagunarteko giro horretan sentitu izan naz.

Etxeko giroa be gogoko dauen gizona da Jon, baina, bateko lana, besteko saioak, bertsolari gehienak legez, kanpoan asko ibilitakoa da.

Beharra, bertsoa eta familiako bizimodua ondo buztartu gura izan arren, ez da erraza gertatzen. Gizon handi baten atzean, andra handi bat ostentzen dela entzun izan dogu. Neu ez naz inoiz handia izan, baina bai izan dot ondoan andra handi bat, ez gorputzez, baina bai izatez. Familiako kargarik gehiena bere gain hartzeaz gainera, beti animatu izan nau eta aurrera egiten lagundu. Aurrezki Kutxan lan egitean, barriz, arratsalde erditik aurrera, saioetarako libre egon naz, baina, batez be, uda parteko goizeko saioetarako, ez. Hortik aparte, lanbidea -dena zerbaki artean eta erdarazko eragiketetan murgildurik- eta bertsoa -berbaren kirol-jolas- ez dira elkarregaz ondo ezkontzen. Egunero "txipa" aldatu behar, batetik bestera igarotzeko. Honek ahalegin extra bat eskatzen dau, egunera egoteko.

**Zure alaba biak be bertsotan ibili dira, eta Oihane plazan dabil gaur egun. Zelan bizi izan dozu hori, aita bertsolari legez?**

Harro eta pozik, alde batetik, eta arduraz, bestetik. Euren aukera hori sufrimentu barik gozamen

bihurtu daieen txikitatik irakasten ahalegindu naz. Neuk hain maite dodan mundu horretan, alabek be parte hartzea gauza ederra da.

Bertsolari sendia da enbeitatarrena. Jon bera, bertsolari baten seme, bertsolaria eta bertsolari biren aita da. Elkarrizketa amaitu eta, hain maite dauen bere bodegako botila árdao bat zabaldu orduko, ez dogu itaundu barik itzi gura izan kate horretan bere burua zelan ikusten dauen.

Zertan esanik be ez, zazpi bat belaunalditan eten barik mantendu den kate baten zati izateak halako sentimendu atsegin bat sortzen daue-la; eta gehiago, zeugan be ez dela amaitu, eta hurrengoek lekukoa hartu dabela ikusteak. Baina ni ez naz bertsolari egin kate hori apurtu ez daiten, ezta inork behartu nauelako be, neuk halantxe sentitzen dodalako baino. Ez dot neure burua bertsolaritzatik kanpora ikusten. Beste gauza bat da familiako bertso eta abertzale giroak izan dauen eta daukan eragina. Norberaren etxeko esnea da haurrak lehenen edaten daue-na, eta bertsoen upeletik edan dauen batek bertsoa ez maitatzea arraroa da. Eta abertzale giroa aitatu badot, ez da kasualitatez izan. Denok dakigu bertsolaritzak zelako garrantzia izan dauen, izaten diharduen eta izango dauen, euskararen osasunean.



Juanxo Egaña. XDZ

## Jon Lopategi



*"Klasiko-klasikoetatik hasi, Mattin, Xalbador, Uztapide...  
(Basarrigaz asko ez, baina batzuetan bai), eta horreekin  
guztiekin parte hartu, eta zuekin gaurko gazteekin be  
kantatzeraino: horixe da nire satisfazinoa".*

Jon Lopategi 1934ko martiaren 17an jaio zen Aldauri baserrian, Muxikan. Lau bider Bizkaiko txapeldun, beste behin Euskal Herrikoa, Azpillagagaz batera, kontzientzia-itzarrarazle 60ko hamarkadan... Izan den bertsolariarik handienetarikoa, azken finean. Plazatik kanpora be, bertsoa izan dau ogibide eta esan leiteke, eskolarik eskola, bertso-irakasle legez egindako lanari esker dagoela gaur Bizkaiko bertsolaritza dagoen lekuan. Berrogei urteko bertso-ibilbidea da Lopategirena, paperera ekarrita laburtzen gatxa.

### Umezaroko zer gomuta daukazu?

Aitagandik herri kanta batzuk jaso nituela dot gogoan, hiru-lau urte nituela, bere belaun gainean jesarrita ninduela, oinagaz konpasa markatuz irakatsi eustazenak. "Ikusten duzu goizean...", hori Ameriketako arrantxo batean lan egin ebanean ikasia izango zen, kontuizu; "Horra hor goiko areztitxu baten"... Aldapeko sagarrarena eta holako batzuk daukadaz gogoan. Ama kantari ona zen, ahots gozokoa. Kopla zaharrak ziren gehien kantetan zituenak, "Santa Eufemiako zelaian", "Lezamako neskatila", "Mari Joana lutuduna" eta holakoak dira ikasi neutsazenak. Eta, etxetik kanpora, bazen gure auzoan zestogile bat, Lion Petralanda, bere labetxabola handian auzoko ume guztiak batzen ginduzena. Bere kareletatik zumetzak atera bitartean, hainbat ipuin eta kanta irakatsi euskun. "Ez dok hamahiru" ipuina kantuz, "Marijesiak", Santageda kopla zaharrak eta beste hainbat jaso genduzen haren ahotik.

### Gerrak bete-bete harrapatu eban zure umezaroa.

Nik gerra denporan hiru urte neukazen. Gogoratan naz guk alde egin genduela baserriitik. Borikeneko gainean frankistak agertu zirenean, aita mungiarra zenez, Mungia jo genduen. Buztartu behiak, lotu burdia eta denok Mungia-  
ra, hango senideakana. Gero, frentea hara aile-

gatu zenean, Barakaldora, beste senide batzue-  
nera. Eta Barakaldon gure aita preso hartu eben.

Jonen aitaren kartzelaldia ez zen luzea izan, baina auzoko gizon batek, Esteban Elorriagak, gerora Muxikako Alkate izango zenak, abisua eta laguntasuna emon izan ez balitu, nork jakin zenbat eta zelan luzatuko zen. Azkenean, Jonen amaren atzera-aurrerek izan eben euren eragina, eta hiru bat hilabetera bueltatu zen aita.

Trenez etorri zen Bilbotik eta, herrian jaitsi beharrean, Zugastietan jaitsi zen, apropos, antza. Herriko batzuekin topo egin gura ezta etorri zen Areatza eta Astelarra bereizten dituen estartatik. Gaixorik zetorren, sukarragaz; manta handi bategaz batuta ikusi genduen urrunetik. Eskekoren bat izango zela pentsatu genduen. "Ama! Eskekoa!". Etorri zen ama ataurrera, hurreratu zen mantadun gizona, eta geure aita zela!

### Muxikan gerra ostean zer giro zegoen? Zatiketa, bildurra...

Auzoan bildurra, bai. Edonogaz berba egiteko edo gauzak esateko zegoen bildurra. Baina bildurra eraginda, beste bandora joandakoek be ez euskuen guri geuri kalterik inoiz egin, eta lagundu behin baino gehiagotan. Mungia, Barakaldo eta Bilbon zehar ibili ostean, zazpi ume eta aita kartzelan, amak bereak eta bi jasan zituen. Etxea desastre bat eginda aurkitu genduen, gainera, alderdi bietako gudari eta soldaduek erabili ebelako.

### Eta Muxikatik Tolosara, Sakramentinoetara joatea zer izan zen? Bokazinoa?

Ez, egia esan, nik ez neukan abade edo fraile izateko ezelako gogorik. Baina arratsalde batean, eskolatik etxera heltzean, fraile sakramentino bat aurkitu neban itxaroten. Tolosako ikastetxerako mutiko bila zebilen. Erakutsi

eustan argazki pilo bat, zelako ikastetxe atsegina zen adierazo gurean, baina gurasoen aurrean, beragaz joan gura izango neban itaundu eustanean, erdi lotsaz baina ezezkoa emon neutsan.

Konturatu nintzen gurasoek eta arreba nagusiek ondo ikusten ebela frailetzaren eskaintza. Gai-neko egunetan, lagún baina eten barik ekin eutsien neure baietzaren bila. Eta lortu be lortu eben nonoz baiezko baldintzatu bat: “Joan bai, baina gustora aurkitu ezik, barriro zuzen etxeratzekotan”. Hasi ziren fraileak eskatzen eban ekipoa prestetan: lau praka pare, lau alkandora... eta abar. Nork egin gero atzera? Muxikako gure Santakurtze jaiak ez nituela galdu gura, horixe izan zen nire azkeneko baldintza bakarra, eta onartu egin eusten etxekoek eta fraileek. 1946.eko irailaren 18an joan nintzen Tolosako ikastetxera, urte haretako beste mutikoak baino astebete beranduago.


Afaltzeko sasoiari heldu nintzen eta konkistatu ninduen fraileak eroan ninduen jantokira. Beste hiru mutil bizkaitarren ondoan ipini ninduen. Morgarrak ziren bi, Luziano Olea eta Balentin Elorriaga eta, Ipazterkoa bestea, Joserramon Arteta, Ainhoa Arteta kantariaren aita, hain zuzen. Luziano Olea izango zen meza emotera helduko zen bakarra. Hiru mutiko horreekin ondo konpontzen nintzen berbetan, baina inguruko giputzekin komeriak izaten nituen lehenengo egunetan. Erdaraz ulertu bai, baina ez nintzen gauza ganoraz berba egiteko.

Kolpe gogorra jaso neban hurrengo egunean, oporretan inor ez zela etxera joaten esan eustean. Zuzenean etxera karta bat egin eta “etorri bila!” agintzeko erabagia hartu neban lehenengo beroan. Gero, bertako mutikoen jatortasunak eta denen arteko anaitasun giro bereziak menderatu ninduen.

Gustora edo bestela, liburuetan topatu eban atsegina Lopategik Tolosako Sakramentinoetan. Emi-

lio Salgari eta Julio Vernerrenak, “harrapatu zituen guztiak” irakurtzen ei zituen. *Bertsolariya* aldizkariaren bilduma bat eta Lekuonaren *Literatura oral vasca* liburuekin be hantxe egin eban topo. Orririk orri denak iruntsi arte ez ei eban deskantsurik hartu.

Gero, halako baten, laugarren edo bosgarren urtean, hiru-lau lagun euskaltzaletu egin ginen eta geure artean “ekipoa” eginda hasi ginen beste be euskaraz egin eragiten eta abar. Orduantxe agertu zen *Euskaldunak* Orixerena. Hamabost hogerleko kostatzen zen. Fraile batek ale bat itzi euskun eta hasi ginen goitik behera kopiatzen. Ekipoko atandarra, Iñaki Aierbe, kaligrafian ona zenez, harek idazten eban. Horrelaxe ezagutu genduen Orixeren liburua. Gerora, erostea be lortu genduen eta baita Eme-terio Arreseren beste bat be.



Jon Lopategi Iturrigaz, Errigoitin, 1961ean.

**Horrek liburuok problema barik lortzen edo erosten zenduezen?**

Ez. Azpitik, azpitik. Dirurik edukitzea galazota geunkan. Ezin genduen zentimo bat bera be eduki, legez.

**Baina, osterantzean, euskaraz zirelako?**

Ez. Euskaraz izateagaitik ez. Fraileak ez ziren euskararen kontrakoak; aldekoak gehiago. Euskara ez eben emoten bildurragaitik. Laugarren kurtsoan hasi jakuzen astean euskarazko klase bat emoten. Artean, ezer be ez euskarazkorik. Baina gero, lanak eta euskaraz egin arren, konkurtsoetan-eta onartu egiten eben. Konturatzen ginen eurak euskararen aldekoak zirela. Nik urtean-urtean irabazten nituen sariak euskarazko ipuin eta olerkiekin.

**Sortu zendueen ekipo horregaz ba ei dago anekdota bereziren bat.**

Bai. Batzokia sortu genduen guk, gerra osteko lehenengo Batzokia. Nobiziaduan gengozela, bakotxak gela bana geunkan. Neurea aukeratu genduen, Batzoki nonbretako. Akordetan naz hartu nebala *Historia de la Nación Vasca* liburu eta Sabino Aranaren bizitzaren laburpen-txo bat idatzi nebala euskeraz Batzokiaren inaugurazinoan irakurtzeko. Gero *Iñaki Jainkoak bialdua* himnoa kantatu (Sabino Ararena izango zela pentsatzen dot euskaragaitik) eta horixe izan zen Batzokiaren inaugurazino. Horren ostean, lehenengo ekintza etorri zen. Han bazegoen Durana abizena zeukan lego bat, arabarra. Apur bat eskolatutxo zen, legoa baina eskolatutxo. Harek barrabasak behean zeukan gela, guk goiko pisuan eta berak behekoan. Eta han zeukazen Francoren irudia, eta Jose Antonio Primo de Riverarena be bai. Guk atetik lantzean behin ikusi egiten genduzen. Egun batean, horreek apurtu egin behar genduzela eta, jarri estrategikoki pasietako ertzak jagoten eta Otegi, Lasartekoa,

sartu zen bala bat legez, eta denak apurtu eta kristoren ziskoa armatu zen. Kapitulu espeziala organizatu eben fraileek, eta Otegi hori hiru egunean ogi eta ur hutsez egotera kondenatu eben, gela batean preso.

Batzokia eta ekintzak gora-behera, Tolosako ikasketak amaitu eta Areatzara, Arratiara joan zen sakramentinoen biderei jarraituz filosofiako ikasketak egitera.

Han erreka bat pasetan zen seminarioaren albotik, nahikoa zikina, gainera. Nik uger be ikasi gura neban, baina galazota geunkan. Apur bat errebeldetxoak ginenak ezkutuan bainatzen ginen, eta halantxe ikasi neban uraren gainean justu-justu ibiltzen. Hantxe galdu neban ekipoko lagunik estimatuena, Iñaki Aierbe ataundarra. Uger ondo jakin ez eta erreka alboan zegoen sahats bati heltzeko esperantzan salto egin ei eban. Gero, eskua luzatu ebanean, beherantz egin, antza, eta hantxe geratu zen. Gogoratzen naz bertso batzuk egin nituela beretzat, baina galdu egin nituen. Halan serio idatzitako nire lehenengo bertsoak hareexek izan ziren.

**Hortik aurrera, zure egonaldia ez zen asko luzatu Areatzan. Zelan izan zen izte hori?**

Joan nintzenerako, nik banekien bueltan etorriko nintzena, lehentxoago edo gerotxoago. Baina gero kosta egiten da han hori pauso hori emoten. Han nortasun guztia galdu egiten da. Burua jaten deusue eta, kaguen, zeinda, handik urtenda, kondenatu egingo bazina legez. Bildurra. Bildur morala eta etxekoena. Etxekoena, bildurra barik, disgustua emotea zen. Eta hantxe, erabagia beti geroagorako izten. Etorri zen botoak egiteko sasoi eta pentsatu neban: Kaguen! Orain ez dago besterik. Erabagi egin behar da, ba! Jarraitzeko presinoak, zalantzak, bildurrak... prozesu luzea izan zen. Azkenean,

gure ekonomoari esan neutsanean be, "¡Tú que tienes tantas hermanas monjas!", sakatu eustan berak. Baina nik erabagita neukan. Ipini eustazen hantxe erropatxoak, zapatillak eta zelako halakoak, eta iluntzeko tranbia Arratian hartu eta Zornotzara, eta Zornotzatik azkeneko trenean. Etxerako bildurretan nentorren, etxean zelako disgustua hartuko eben pentsetan.

#### **Eta zelan hartu eben?**

Kontua zen arreba monja batek bazekiela nire zalantzen barri eta harek etxera karta bat idatzita zeukan, etxera joan behar nebala, ez nengoela ondo... Baina nik ez nekien harek kartarik egin eutsenik. Heldu nintzen iluntzean bildurretan eta, joño! Denak besarkadaka, Ameriketatik banentor legez. Hartu neban arnasa orduan!

#### **Gero, laster samar, soldadutzara joan beharko zenuen.**

Ez. Nahikoa tardatu neban. Etorri eta neure txanda galdu egin neban. Bigarren txandan sartu nintzen, etorri eta urtebete eskasera. Donostiara tokatu jatan. Ni soldadutzan fenomeno. Disziplina bazegoen, baina disziplina handian usatuta nengoenez! Gero, gazteekin tabernan egote hori. Nik hori, han Areatzan nengoela be, faltan hartzen neban: pertsona normala izan, beste batzuen moduan ibili, ez frailean moduan, beti konpostura jagoten. Udan Kontxara joan eta bainua hartu... Soldadutzak mesede egin eustan. Ah! Ez dot esan! Francori zazpi guardia egin neutsazen nik!

#### **Francori zer?**

Zazpi guardia! Franco Aietera etortzen zen oporretan. Jardinarean hormatik kanporako guardia geure konpainiari toketan jakon. Barruan moroak eta kanpoan gu. Zazpi bider tokatu jatan joatea.

#### **Ikusi egin zenuen inoz?**

Bai. Behin holantxe, pare-parean. Formatu egin behar izaten genduen, bera sartzan zenean, ilada bat alde batera eta bestea bestera, fusilagaz eta baionetaz. Hiru lau bider pasatu zen neure aurretik, eta ni fusilagaz, kaguen!

#### **Gatozen bertso kontura. Noiz ekin zeutsan bertsoari? Soldadutzatik bueltan?**

Soldadutzara joan orduko entzun nituen, lehenengo, Iturri eta Deunoro Sardui, Ariatzako Santa Kurtzetan, Muxikan. Deunorok ondo neurtzen eban, errima sinpletxoak, baina neurtu ondo egiten eban. Iturri sorgin-sorgintxoak, mutil bizkorra, uleak be tente eta bihurri-bihurria piuran be. Boza zeukan zolia eta kantaera arkaikoa. Neurrian egingo zituen bere tranpak baina kantuagaz disimuletan eban. Erriman nahikoa pobrea, baina grazioso zen, jenteari grazia egiten eutsan. Deunoro, oster, astiro-astiro, baina teknika aldetik zuzen-zuzen. Ni haregaz teknikagaz identifketan nintzen. Ordurako, neu be neure bertsoak idatzia nintzen Arrese Beitiaren erara, eta honek be errima simplea erabiltzen eban. Eta pentsetan hasi nintzen, hareek biak ikusi nituenean: "Ahaleginduz gero, neuk be egingo neuke igual zeozer horretan!".

Ez eban asko itxaron behar izan. Ariatzako jaiak zirela-eta, auzoko mutil batek, Nikolas Ibarguengoitiak berotuta, etxean, gonbidatu eguneko bazkalostean bota zituen Lopategik bere jentaurreko lehenengo bertsoak, Nikolas hori lagun ebala. Gerora, soldadutzan be egin ei eban saioen bat, hernaniar bat eta aiar bat tarteko zirela.


Soldadutzatik bueltan, Ariatzan, jaien bezperan, makailao-jana egiten zen. Han nengoela, Deunoro Sardui be hantxe zegoen eta hasi zen koplak kantetan, "Donostiako hiru damatxo" doinuan. Entzuten eta entzuten, eta halako

batean, neu be apur bat zurrut eginda, animatu egin nintzen, tapa!, erantzuten. Eta, koplan zenez, ba, joño, manejatu egiten nintzen. Jenteak sorpresa hartu eban, ze ez jaken ezta burutik pasatu be egiten nik bertsotan egin neinkeenik, eta neu animetan hasi ziren. Holantxe egin genduen ekitaldi nahikoa luze bat koplatan. Gero, handik beste egun baten, jaien barruan, Ireneo Ajuriaren aitak be (Fuenterrabia izenekoa taberna zeukan Ariatzan) ikusi ginduzen eta esan euskun: Zuek zergaitik ez zarie hemen gure tabernan batzen, zapatu iluntzeetan? Egin entrenamendua eta preparatu udabarriko txapelketarako.

Txapelketak orduantxe hasita zegoen, eta ontzat emon geuntsan.

**Baina zu zeu, lehenengo txapelketara, ikusle joan zinen.**

Bai. 1959an. Arenala gainezka egiteraino bete eben entzuleen artean nengoen neu be. Akordetan naz Iturrigaz joan nintzela, harek orduan motortxoa zeukan eta. Han ziren Alberdi, Pujana, Ormaetxe "Taket", Balendin, Deunoro eta Azpillaga. Deunoro eta Azpillaga ziren gazte bakarrak. Eta, joño, Azpillagari beste gauza bat ikusten jakon, beste errima asunto bat eta abar. Beste denak, Ormaetxe, Alberdi eta, ba, lehen-



J. Azpillaga, K. Lizaso, J. Lopategi, Uztapide, M. Lasarte, J. J. Mitxelena, Mattin,  
J. Lizaso eta Xalbador. Ereñozu, 1975-V-04.



goko Bizkaiko eran. Esan gura dot, tekniko-teknikoa barik, sinplettoa. Eta Deunoro polito, baliente, jarreran batez be, desafiante.

Egun haretako ezustekorik politena Azpillaga izan zen. Gehienok orduantxe ezagutu genduen, eta egun haretako txapela Balendin Enbeitak irabazi baeban be, argi geratu jakun erreleboa nondik helduko jakon. Baina ez genduen igarri, orduan oraindino ezagutzen ez genduen beste berriatuar bat, Mugartegi, izango zen hurrengo txapelduna eta. Urtebete geroago, 1961ean jasoko eban Azpillagak bere Bizkaiko txapela, Deunoro Sarduigaz buruz buruko burruka bizi eta dotore bat izan ostean.

#### **Zuk zeuk, lehenengoz, noiz parte hartu zenuen?**

1960koan. Mungian egin zen eskualdekoa, eta joan egin nintzen neu be. Iturri be bai, eta Irene Ajuria, hamalau urtegaz. Gugaz batera ziren Taket, Zarraga bat, Kastresana Loiukoa... Eta, joño, egia esan, neuk be esperantzatxo neukan. Ofizioan, Jatabeko Urrutikoetxea tratanteagaz tokatu jatan. Ipini be tratante moduan ipini eban Irigoienek, ni beragaz tratuan nenbilen baserritarra nintzelarik. Behi bat eskaintzen eustan tratanteak eta nik, erantzunetako batean, nabarmenkeria handitxo botu neutsan. Gitxi gorabehera: "...nire albotik batera datoz / murrusia ta berbia / baina oraindik ez dot igarri / zein dogun animalia". Gerora, epaileetariko baten ahoz jakin genduen esamolde "oso itsusi" horixe izan zela ni kanporatzeko arrazoirik sendoena.

Iturrik eta Ajuriak jokatu eben finalerako txartela, eta Ajuria izendatu eben Bilboko finalerako. Baina Iturrik nahikoa saio polita egin ebanez, pentsatu neban, Bizkaiko finalista adintsuen artean, landare gaztetxo bat aurkeztea izango zela Irigoienen asmoa. Iturri eta ni haserre geratu ginen, behintzat. Iturrik tabernan, koadrilan gongozela, erabili eban protesta eta zera. Han

bertan nik ez neban erakutsi haserre hori, baina barriro txapelketara ez joateko erabagia hartu neban.

Halan, Iturri eta biok hasi ginen herririk herri. Orduan Iturri zen gure inguruan plazarik gehien egiten ebana. Salaua zenez, nahiz eta teknikoa izan ez, beti deskaraua eta bizi-bizia, grazia egiten eban. Hainbeste plaza egin nituen, harek deituta. Urtean 25 plaza inguru egingo genduzen, eta hori ordurako asko zen. Mendata, Bedarona, Ipazter, Gernika eta hor inguruko auzoak eta herriak. Mungian eta Txorierrin be bai. Iturri zorrotz-zorrotza zen eta ni, ba, serio-serio, filosofiak egiten. Eta kontraste itzela egiten genduen.

#### **Esanak esan, azkenean, 1961eko txapelketara joan egin zinen.**

Nik ez neukan joateko amesik, baina orduantxe Ameriketatik etorriak ziren anaiari eta osaba bati poza emotearren joan nintzen. Hareek ilusino handia zeukien ni txapelketan ikusteko, eta joan egin nintzen. Eta, Mungian, tipi-tapa tipi-tapa, neuk irabazi. Gero, Gernikako finalerdian, ez nintzen askorik luzitu eta hantxe geratu nintzen.

Sasoi haretan, Lopategiri askorik gustatu ez jakon marmarra zabaldu zan bere inguruan. Ikasia zela, idatzizko bertsoetarako balio ebala, baina bat-batean ez ebala neurririk emoten eta halakoak entzutea tokatu ei jakon.

Bai. Gernikako finalerdian aurrera egin ez nebanean, horixe komentario hori zebilen: Gura jok eta ahalegintzen dok, baina horrek ez jok egingo. Eta ni orduantxe pikatu. Hurrengo uda arrimatu zenean, neure hiztegi errimatu txiki bat egin neban. Landu neban eta, hurrengo urtean, 1962an, joan nintzen Mungiara eta irabazi. Joan nintzen Gernikara eta han be neu lehenengo. Periodikoetan be agertu zen "la

gran revelación de este año” eta horrek estutu egin ninduen. Gogoratzen naz amagaz zelan komentatu neban: Gurago neuke baten batek ez joateko esango baleust. Joan nintzen Bilbora eta zer da kontua eta, Azpillaga be tartean zela, azkenean, neu txapeldun! Neu be sinistu ezinda.

**Ordurako, Azpillaga bazen nor. Gipuzkoan ibiltzen hasita zegoen.**

Bizkaiko txapelduna bera zen. Eta, hori baino handiagoa, Donostian hirugarren eginda zegoen ordurako, Xalbadorren aurretik. Bertsolaria zen oraingoxe bestekoa, eta gu ondino printzipianteak ginen. Orduan modan jarrita egoen Azpillaga eta Uztapide. Gero, nik txapeldun urten nebanean, Bizkaia mailan, Azpillagagaz lotu nindueen.

Lehenengo Bizkaian eta geroago Euskal Herri osoan, esan leiteke orduantxe hasi zela Azpillaga eta Lopategi, “Juan” bien karrera meteorikoa. Ez izen bera zeukielako, baina, horren harira, anekdota bitxia gertatu zen beste final batean.

1964ko txapelketaren finala Ondarrun egin zen, domeka arratsalde batez. Lau pasatu ginen aurrera: Mugartegi, Arregi, Azpillaga eta neu. Gero, laurok egin eta bi aurrera pasatu behar, eta Irigoienek urten eban mikrofonora: “Aurrera pasatzen dira Juan Mugartegi eta Juan... (egon egin zen apur batean) Lopategi”. Hasi zen jentea txistu hotsean, eta hortik aurrera etenik barik. Mugartegik eta biok egin genduen saioa, txistu eta zarata artean. Upielako jaleoa armatu zen. Kontua zen Azpillaga kanpora bota ebela, eta Azpillaga orduan jainkoa zen Ondarrun. Ondarrutar moduan figuretan eban. Sariak hartu eta Iturriren motorrean arrapaladan alde egin genduen. Halan be, ez zen inor gugaz sartu. Urtebeteren barruan, txistualdi bi izan nituen, bigarrena neure aldekoa.

**Baina bigarren hori Euskal Herriko Txapelketan, ezta?**

Bai. Esan gura dot urte beraren barruan zelan egon ziren txistualdi bi, Xalbadorrenak baino askoz luzeagoak. Goizeko saioa egin genduen eta, arratsalderako, Mitxelena, Lazkao Txiki eta Xalbador pasatu ziren. Laugarrena izentatzeko, Mattinen eta nire artean desenpatea ipini eben. Eta aurrera Mattin pasatzen zela entzutean, hasten dira denak txistuka jo eta su, denak “Lopategi! Lopategi!” oihuka. Irigoienek ez zekien zer egin, mirofonoaren aurrean geldigeldi. Halako batean, etorri zen neu nengoen lekura eta, eskua emonez, “zorionak!” esan eustan publikoaren aurrean. Orduantxe baretu zen jentea.

**Txapelketatik plazako ibilerara etorrita, Azpillagagaz eta biok bikote indiskutiblea egiten zendueen. Zelan ausartu zinien orduan beste batzuek esaten ez zitueen gauzak esaten? Kontzientea zen zuen aldetik jarrera hori?**

Guk bertsoa abertzaletasunagaz lotzen genduen oso-osoan. Bizkaian egiten genduenean be, Iturrik eta biok saio guztietan botako genduen zeozer, hasieran edo amaieran. Gipuzkoarrak be hasiko ziren, baina gerotxoago. Basarrik be izena hartzen hasi barritan itzi eutsan plazetan ibiltzeari. Uztapideri be entzun izan neutsazen inoiz kolpe latzak. Baina azpeitiarrak izan ziren gugaz lehenen identifikatu zirenak. Jose Lizasok, Agirrek eta Lazkanok ez eutsien muzinik egiten gure haize barriari.

**Eta jentea hori estimatu egingo eban, ezta?**

Bai, bai. Geu izan ginen lehenen hasi ginenak, halantxe izan behar ebalakoan, eta orduan, batez be, hor Goierri inguruan, Gipuzkoan, ez zegoen beste bertsolaririk geu baino. Ataunen urte batean sei saio egin genduzen. Zaldibira, beste urte batean, zazpi bider, seitan Azpillagagaz eta beste behin, Lazkao Txikigaz. Hareen-

tzat ez zegoen beste bertsolaririk: "Bizkaiko Gazteak". Berrogei urtegaz, eta "Bizkaiko gazteak" deitzen euskuen oraindino!

**Eta jarrera horrek, jakina, arazoak be ekarri eutsuezen.**

Lehenengo multa Urnietako saio bategaitik etorri jatan. Gero beste bat Amezketatik etorri zen, zazpi mila pezeta ingurukoa. Eta, handik laster, Amezketako Ugarte auzotik beste bat. Errekurtsoka ibili ginen eta, azkenean, Guardia Zibilek deitu eusten Gernikako kuartel barrira, Hidalgo izeneko kapitain famatuagana. Upielakoa rolloa sartu eustan, multa ordaintzeko. Nik ezetz, ez nindoala pagetan. Pagatuta neukazela bi edo hiru eta eskarmentatuta nengoela, guzurra zen baina. Besteak, barriz, horregaitik diruagatik kartzelara joatea be ez zela kontua. "Vas a ir a la cárcel y allí , pues, encontrarás gente igual de ETA...", ea nik ze aurpegi ipintzen neban begira. "Y luego hay tambien homosexuales", eta sarjentoak niri belarrira: "Maricones!" Nik barriro be ez nebala ordainduko eta, kartzelara joan behar baneban, ba, joango nintzela. Hilabeterako esaten eusten. Eroan ninduen. Basaurin, barriz, sartu eta datuak hartzen hasi zirenean, bertako batek esan eutsan buru egiten ebanari: "¿Entonces es éste el que viene para seis días?" Sei egunera-ko zen, antza, mila pezetako eguneko. Hareek apropos esaten eben hilabete, pagatzea gura ebelako. Ez eben bertsolari bat kartzelara eroteko eskandalu hori gurako, antza. Sei egun esan ebanean, trankildu nintzen. Trankildu edo poztu.

**Horretan urteetan, karteletan agertu barik be ibili behar izan ei zendueen bertsotan.**

Bai. Bizkaiko eta Gipuzkoako gobernadoreek alkar hartu eben eta Azpillaga eta biok galazota gengozen. Orduan egiten genduen, ba, inor ipini ez kartelean, edo beste batzuen izenak ipini, eta

gero geuk be eurekin kantatu. Antolatzaileek eurek zabaltzen eben, gazteen artean, geu be joango ginela, eta horrelako saioak be nahikoa egin genduzen.

**Inoiz ezkutuko bertso-afariren batzuk be bai, entzunda daukagunez.**

Behin baino gehiagotan. Iparraldean izan nintzen gau bi daukadaz batez be buruan. Bat, Azpillagagaz gau osoan isildu barik, ahotsik barik amaitu nebana goizaldean. Beste behin, afari bat mendi batean, ehun bat lagun eta elementu guztiak euren artean. Ikaragarria izan zen gau ha. Lazkano izan neban orduan lagun.

**Sasoi horretarako, zelanbait esateko, abertzale-tasun tradizionaletik aldentzen hasita zengozen, beraz.**

Bai, hori bai. Ordurako, asuntoa apur bat banatuta zegoen. Ez ginduezen, esaterako, Donostiako Ur-Kirolak soziedadera eroaten. Ez dakit Azpillaga joango zen, baina amaitu zen urtero hainbeste bider joate ha. Soziedade haretakoak tradizional-tradizionalak ziren, PNVko ideia-koak.

**Zeuk zelan egin zenduen alde batera?**

Apurka-apurka. Logikari jarraituta. Ikusi ETAKo-ena legezkoa zela eta, burrukan egin ezik, ez egoela zereginik. Berez-berez hartu neban sinpatia alde horretarantz.

**Noiz amaitzen da Azpillaga-Lopategi bikote hori?**

Alderdiak sortzen direnean. Hor Azpillaga engantxatu eben eta karneta egin eragin eutsielea, egin ebala, ez ebala egin... Gainera, gure bikote horrena, amaitu baino gehiago, gitxitu egin zen asko, Amurizaren agerpenagaz. Amurizagaz-eta gu bat ginen. Muniategi be koadri-lan zegoen. Estudiante elkarregaz ibilitakoak ziren, eta inoiz berba egin be bai, zeozer elka-

rregaz organizatu behar geunkeela bertso jarrien bueltan. Ideia orduantxe sortu zen. Musikatu eta kantatze hori neure ideia izan zela pentsetan dot.

#### Hori Amuriza kartzelara joan aurretik?

Bai. Gero, Amuriza kartzelatik etorri zenean, biok hasi ginen elkarregaz bertsoak jarri eta musikagaz kantatzen. Azpillaga be tartean zen. Hirurok hasi ginen. Azpillagak eta nik egiten genduen lehenengo libreko saio bat, bat-batekoa. Gero, Amurizak eta biok kantetan genduzen bertso jarriak, musikaz lagunduta.

#### 1980ko txapelketa.

Holantxe genbilzela etorri zen 1980ko txapelketa. Edo igual 80ko txapelketa musika kontuak baino lehenago izango zen? Bardin deustso. Kontua da etorri zela. Batzar bat egin zen Itziarren, txapelketara joan ez joan erabagitzeko, eta han giputzek-eta, ba, jakina, zu topera bazabilz bertsoan, txapelketarako gogo gitxi daukazu, eta neuk be gogo gitxi neukan, egia esateko. Asuntua da gehienak ezezkoan jarri zirela. Baina esanda libre-libre, bakoitxak berak gura ebana egitea zeukala. Amurizak behar eban bere burua erakutsi eta joatea erabagi eban. Azpillagak be deitu eustan gero, eta bera be joateko konbentzituta zegoen. Holantxe joan ziren biak. Eta Amurizak irabazi eban txapelketa, ba, ezkerregaz.

#### Zeu zergatik ez zinen joan?

Estuasunetan sartzeko gogorik eza zen arrazoi bakarra. Ordurako hiru finaletan izana, azkenengoan hirugarren Uztapide eta Xalbadorren atzetik, plazak behar baino gehiago... horixe, nagikeria. Amurizak, ostera, beharrezkoa eban horrelako eskaparate bat, barruan zekarrera erakusteko. Topera prestatuta zetorrela erakutsi eban, gainera; bertso guztietan sartzan eban indar handiko arrazoiren bat. Seku-

lako erakustaldia egin eban. Ni emozionatu ninduen, behintzat.

#### Amurizak ez eban ate bat zabaldu, ordura arte natural kontsideratzen zena landu egin behar zela ikusteko?

Bai, bai. Beste bidea be bertsolariak landu ebalako egin zen, edo egiten zen. Bertso zaharrak eta esakerak ikaste hori. Betsolari tradizionalak be igartzen jaken. Azpillaga-eta be berez preparatuta zegoen. Euren eskemak, inkontzienteki igual, baina bertso zaharretatik-eta hartutakoak ziren. Bakotxak modu batera asimilatu arren, sistemak denak dira bardinak.

#### Esan dozu 1980an ez zeunkala gogorik, baina 1982an, ostera, zeu be sartu zinen txapelketan.

Orduan be ni ez nengoen joatekotan. Lazkano izan zen klabea. Deitu eustan eta: "Hi! Txapelketa asuntoan deitzen diat. Oraingo hontan joaten ez bagaituk, herriak ez ziguk barkatuko sekula, eta pentsatu egin beharko diagu". - "Heu ba al hoa?" - "Joatea erabaki diat, azkenean" - "Bueno, hi joaten bahaiz, neu ere joango nauk", esan neutsan azkenean. Holantxe erabagi neban. Ha joan eta neu ez joateari ez neutsan egoki eritzi eta joan egin nintzen.

#### 1980ko txapelketaren sasoiaren plazan asko zenbilzeenok ez zendueen beharrianik sentitzen. Baleiteke 1980ko txapelketa horrek zuek uste baino eragin handiagoa eduki izana?

Bai. Izan zeitekeen hori be, eta gero beste kontu bat be bai. Amuriza ezin irunsi eban tradizionalistek. Ni gogoratzen naz, pentsuen bihurtarrek: "hori ez da zuek bezalakoa". Ez eban dijeritzen. Lar zen. Hori kontzeptu hori baze goen. Hori zela eta, igual egongo zen eragina be, Amurizak beste batzuekin zer egiten eban ikusteko. Behintzat, Lazkano joateko, zeozkerk eduki eban sakada.

Joan zen Lopategi txapelketara eta baita Baldako finalera heldu be. 1980ko txapelketan, Amurizak eta Enbeitak jokatu eben desentpatea gogoan, bertsolari eta epaileek aurretiaz erabagi eben ez zela desentpaterik egongo, bardinketa matematikorik egon ezean. Baina...


Amaitu genduen goizeko saioa eta hara non jatordazen Antton Aranburu eta Aranalde, esanez: "Amurizarekin egon gara eta pentsatu dugu, ba, zera, akorduan jarri gara, ba, enpaterik badago, desentpatean zortziko txikian egitea saiotxo bat, gero..." - "Baina zer desentpate egongo da, ba? Miraria izan behar da enpate matematikoa egitea!" - "Ez, ez, ez! Gertatzen bada!" Holan geratu zen asuntoa.

Arratsaldean kartzelako gaiagaz amaitu zen saioa. Neu izan nintzen azkena. "Emakumeak" gaian, hiru bederatziko luze jaurti nituen eta oso gustora geratu nintzen. Alboan neukan Lazkanok "hortxe ibiliko haiz Amurizarekin" bota eustan. "Desentpatea diagu orduan" bota neutsan nik, eta Aranaldek eta Aranburuk esana kontatu neutsan. Harrituta geratu zen.

Esan eta izan. Urten eban Iriondok eta: "Enpatea dago!" Desentpatean, neu izan nintzen lehenengoa kartzelakoan. Egin neban eta gero etorri zen bera eta, naufragoarenak kantatu zituenean, pentsatu neban: "Berea dok". Haren kantaera eta publikoaren erreakzioa be ederra izan zenez, halan eritzi neutsan. Ez zen egon txisturik, denek onartu eben. Gero baloratuta, diferente da, baina han momentuan jenteak ontzat hartu zituen, eta neuk be bai. Gerora, kartzelakoak ikusi nituenean, emakumeari buruz kantatu zituenak, ba, ez neutsen topetan han bota zituenak hainbeste zirenik. Eta pentsatu neban neuretzat be izan zeitekeela ederto baten, baina, egia esan, hori gatxa da esaten. Baina ni elegante gelditu nintzen, ze jende askok "Txapeldun" esaten eustan, eta, saioagaz be konforme geratu nintzenez, horre-

xegaz satisfazinoagaz geratu nintzen. Emakume talde batek omenaldia be egin eustan Bergaran, "Beltza txapeldun" inskripzinodun txapel bat eskainiz. Kontuak kontu, Amurizak eta biok geure artean lagun jarraitu genduen, nahiz eta plazan elkarri ziriren bat edo beste jaurti.

Lopategiren bizitzan, bertsolaritza ez da plaza eta txapelketa bakarrik izan. 80ko hamarkada hasieran, Gipuzkoako Ikastolen Federazioak ikastoletan bertsolaritza lantzeko irakasle bat hartzea erabagi eban. Mikel Mendizabal hasi



Jon Lopategi, Arriaga aurrean, Aritz semeagaz, 1987ko Bizkaiko txapelketako txapela eta saria eskuan dituela.

zen lan horretan. Bizkaian be antzeko figura baten beharrezana ikusita, Andres Osa "Sakonak" gogor ekin eutsan Bizkaiko Ikastolen Elkartean.

Bera hasi zen Ikastolen Elkarteko arduradunei jo eta su ekiten, Bizkaian be zeozer egin behar zela. Azkenean, ekin eta ekin, lortu eban Sakonak arduradunak konbentzitzea, ze, antza, hasieran, dudaren bat bazeukien ezkerrekoegia ete nintzen edo. Behin arduradun batek umorez esan eustan Sakonak asko bultzatu ebala ni ezagutzeko, baina ez ebala guztiz engainatu. 1983-84 ikasturtean hasi nintzen Ikastolen Elkartean.

**Bertsoak irakasteko gaiagaz lotuta, sasoi hareetako eztabaida eta gaurkoa be badanez, bertso-laria jaio ala egin egiten da?**

Amurizak eta nik eztabaidatu dogu horretaz behin baino gehiagotan. Jaio bai. Ze, "bertso-gile" edonor egin daiteke ahaleginduz, baina plazarik plaza ibiliz sortu ahal dauena da niretzat bertsolari-bertsolaria. Horretarako, bertsoak sortzeko gaitasunaz gainera, jentaurrerako beharrezkoak diren adore, egokitasun eta kantaera erakargarria, zelanbaiteko karisma... behar dira. "Quod natura non dat Salmantica non praestat". "Demostenes" gitxi ezagutu ditut neure denporan.

**Zeozzer-zeozzer zeuk be eduki beharko zenduen, ze 1986ko Txapelketa Nagusia ez zen gozozoa izan zuretzat, ezta? Ez zen giro oneko Txapelketa izan.**

Giro zitala. Benetan zitala. Eskasena. Han finalean eduki genduen asuntoa... Ekipoa osatu eben Muruak, Lizasok eta Peñak. Nabarmen. Bi alde batean eta bestea beste aldean, eta bata besteari atzetik berbetan eta keinuka ibili ziren. Kantetan gu, eta atzetik Peña arengetan euraek. Gero, Peñak doinua be

aldatu egin eustan, eta saioa bakotzak bere doinuan egin genduen. Jenteari hori motz geratu jakon. Ez dakit puntuazinoan zenbateko eragina eduki eban, baina detaile bat grafikoa horixe izan zen: "lotsagarria!". Akordetan naz, saioa amaituta, Lazkano etorri zela sariaren bat emoten, eta Peñaren jarrera ez jakola gustatu esan eustala. Orduantxe hasi haiz hi jaisten, esan eustan.

**Zelan amaitu zenduen eguna? Ze goizean berrogei puntu inguruko aldea zeunkan.**

Bai. Baina arratsaldean, kartzelara joakeran, han eduki neban Eibarko lagun bat puntuak kontatzen, orduan bistan emoten ziren eta. Harek eskuagaz lau keinu egin eustan: lau puntu gitxiago neukazala edo. Kaguen! Goizean bederatzikoak ederto urtenda... Pentsatu neban topera egin behar nebala. Ostera be, bederatzikoan. Urten neban zezenaren moduan harexegaz egin behar nebala edo apurtu edo lehertu. Eta gaia potrozorria izan zen, joño! *Azkeneko udaletxeko batzarrean hartutako erabagien barri eman ezazu.* Niri, denei legez, euskararena etorri jatan burura, baina topikotzat jo neban. Hasi nintzen halako kalea ilun dagoela eta ez dakit zer... Baina bederatziko puntuko estuan, ba, ezin ezer esan! Hantxe lorrindu nintzen. Hantxe galdu neban txapela neure erruz, tentsinoan jarri nintzelako.

**Dana dela, bazeunkan buruan txapela lortzeko asmoa, ze 1989ko Txapelketa Nagusirako ondo prestatu zinen.**

Bai, 1989an, azkenean, Amuriza eta Arregiren berbek zertu nindueen. Arregik denda zeukan Matienan eta haregaz egoten nintzen. Esaten eustan: "Joan hadi eta egik azkenekoa ondo gelditzeko, gero hor mutikoekin ibili barik", saka eta saka, animoa emoten. Mallabiara joaten nintzen orduan klaseak emotera. Ordu erdi libre edukitzen neban eta astero geratzen nintzen

Amurizarenean. Eta harek be sakatu, intentatu egin behar nebala derrigor; joan ezik, besteei emongo neutsezela arrazoiak eta joan egin behar nebala. Joan nintzen, ba, gogorik bat be barik, egia esan, eta denak ondo urten. Ondo edo neurrian, behintzat.

#### **Trankilago joan zinelako, beharbada?**

Bai, kunplitzera. Ze, trankil-trankil esaten dena, ni Bizkaikora joan nintzen, 1987kora. Obispoa baino trankilago joan nintzen hara, eta, gainera, esan egiten neutsen denei. Nik Bizkaiko txapelen asuntoa likidatuta neukan, hiru irabazita. Fase hori pasatuta neukan. Gogoan dot, atean sartukeran, Santutxuko batek esan eustala: Irabazi! Irabazi! eta nik: "Bai! Gaur bai!" Pasioan ibili nintzen, egia esateko. Nasai-nasai, eta denak ondo urten, gainera.

#### **1989koa irabazi zenduenean, zeure buruagaz zorrak kitatuta zenduzela sentitu zenuen?**

Bai. Esan neban: "Amaitu da! Orain esan daiela esan gura dabenek esan gura dabena, baina amaitu da". Exijentziak beteta geratu nintzen, tenplau.

#### **Txapelketa horren ostean, ibili zinen bertsoan, baina lehenengo lerrotik erretiratu egin zinen, ala bestela izan zen?**


Txapelketa horren ostean, nire plazak ehun bat izaten ziren. Aurrerago ehun eta berrogeita hamar zirenak, gitxi gorabehera. Gero ehun inguruan, urte bian edo. Hortik aurrera, apurka-apurka, neu izten be bai, eta gaixoaldi bat be izan neban, gainera. Beharragaitik zoratuta ibili nintzen. 32 klase emoten nituen astean, leku ezbardinetan, beti arrapaladan. Bizkaiko Bertsozale Elkarteko batzuekin be txoke fuerte bat izan neban eta estres gogorra etorri jatan. Izten-izten hasi nintzen eta, handik aurrera, gauza handirik ez. Orain urtean hogeira ez naz helduko.

#### **Baina zeu gogotsu zagoz? Kantatuko zeunke gehiago?**

Librean izatera, bai. Baina gai-jartzaileagaz eta horrela, ez. Joaten nazen apurretan, libreko saioak izaten dira normalean.

#### **Zure irakasle beharra dela eta, hainbeste bertsolari atara dozu, eta esaten da asmatu egin zenuela metodoan: Kanpantxuko barnetegiak, eskolarik eskolako saioak, lagun giroa sortzea...**

Bai, bai. Lehenengo, lagunartea egin. Lagun egin, pentsamendu bereko jentea batu eta horrela ilusinoa sortzen da, beti elkarregaz egoteko. Benetako lagunak egin. Gero, beste kontu



Comy Beyreuther. Bertsolari aldizkaria.

oso praktiko bat gazteak eskolarik eskola erabiltzea da. Nik asteen lau saio egiten nituen, Durangalde, Gernika, Arratia eta Lea-Artibaiko bertsolariekin.

### Begia be bai, jentea aukeratzeko orduan?

Ez. Ez nintzan neu banan-banako aukeraketak egiten nituena. Bolada batean, gela osoei klaseak emon ostean, ikastorduz kanpo bat-bateko bertsogintza nortzuek landu gura eben galdetzen neban. Sei-zortzi umeko taldetxoak sortzen ziren. Asterik aste ekiten eutsien batzuek, ariketetara hutsik egin barik. Beste batzuk, lagun baten eraginez-edo izena emoten ebenak ez

ziren hainbeste ahalegintzen eta, atzerago gertzean, berez-berez joaten ziren taldea izten. Ez neban neuk inoiz inor taldetik kanporatu. Gertzen ziren finenak, ekinaren ekinez, erakusketa itxurazkoak egiteko gaitasunera iristen zirenean hasten nintzen eskolarik eskola, geratzen ziren gaztetxoekin. Ez neban neuk inoiz inor baztertu. Ahalik eta landare barririk gehien ateratzea izan zen nire helburua.

**Zure bertso ibilbidea ez da edozelakoa izan. Hirurogeigarren hamarkadatik gaurko garaira arte: Uztapide, Azpillaga, Amuriza, Egaña...**

Bai. Nire satisfazinoa horixe da. Klasiko-klasi-




J. Lopategi etxean, mahai inguruan, bertsolari gazteekin. Ezkerretik hasita, I. Iza, B. Gaztelu-Urrutia, U. Iturriaga, I. Elortza, K. Intxausti, J. Lopategi, I. Gojenola, X. Gezuraga, J. M. Oragojeaskoa, I. Olabari eta J. Goikoetxea.



koetatik hasi, Mattin, Xalbador, Uztapide, Basarraigaz asko ez, baina batzuetan bai, eta horreekin guztiekin parte hartu, eta zuekin be kantetaraino. Horixe da nire satisfazinoa.

**Ibilbide horretan ezagutu dozun zein bertsolarik itzi deutsu arrastoa?**

Ni Xalbadarren mireslea izan naz beti, guztiz ezbardina zen eta. Berezkoa zeukan harek. Batbatean ez geuntsan dena jaten, baina gero irakurri eta fenomenoaren zen. Ha inimitablea zen! Beraren modukoa izateko pretentsinoa alperalperrekoa zen. Harek armetan zituen nobelak bertsoan, harako txapelketako sorginaren bertsoak-eta... Asmatu egin behar da gero! Xalbadot, Uztapide, Lazkao-Txiki... Hareek zeukien berezkoa hareek!



Bertsolari aldizkaria

# Gregorio LARRAÑAGA

## "Mañukorta"



*"Nire laguna herria izan da. Ni herriak atera najok beti.  
Herriak salbatu najok, duda barik".*

Gregorio Larrañaga Markina-Xemeingo Larruskain auzoan jaio zen, 1943ko abenduaren lehenengo egunean, Mañukorta baserrian. Jaiotetxearen izena aldean eroan izan dau beti eta, bere buruaz berbaz diharduenean be, "Mañukorta" esaten dau, hirugarren pertsona bat balitz legez. Ameriketako Nevada eta Idahoko eremu zabalak zein Euskal Herriko herri eta zokorik txikienak ezagutzea tokatu jako bere ibileretan. Bertsolarien artean berezia eta bakana, bizi-filosofia propio batetik berba egiten dauen gizona da "Mañu", taburik eta konplexurik barik.

#### **Nondik jatortzu bertsoarako afizinoa?**

Baserritarrak beti izaten gaituk, geure baserrian, lantzean bertso batzuk entzundakoak. Santa Eskeko koplak batzuk ikasi, baserririk baserri koplari bat aurretik dela kantuan ibili eta hari ikasitako koplak amaitu... Nire lehenengo gomuta Santa Eske batekoa da. Hamar bat urte izango nituen. Aurrekoari albotik salto egin eta bota najuan: "Hor goijen dagoz lau ardi / bi baltzak eta bi zuri", eta ugazabak erantzun: "Lehenengo bijek ixengo zittuan; beste bijek hemen taldien ibiliko dittuk, seguruago, gurien ardi bal-tza bakarra jak eta". Handik aurrera ondo manejetan nintzuan. Gero, gizon egin ginenean, tabernan kuartilu ardaoa edanda, bertsolariak, ez plazan zebilzenak, baina bertsoak onak egiten zitueenak, mordo zegozen. Eta neu be hantxe, geldi-geldika. Izan be, gure erromeria haxe izaten zuan. Neska laguntzera joanda be, belar-rondokoak hartzen genduzen eta, bokadiloren bat jan, kuartilu bat ardao edan, eta kuadrilan ekin. Eta bertsoa ona zen, eh! Baserri bertsoa.

#### **Beraz, zeure inguruan, baziren tabernako bertsolariak.**

Bai, bai, eta osterantzekoak be bai. Ha Iriondo Larruskaingoa, "Kortatxupe" deitzen eutsiena, bat. Harexek ekarri eustan lehenengo bertso liburua, nik baneukala ikasteko materiala eta.

Kantatu be harexegaz egin neban lehenengoz, Larruskainen, kamioi baten gainean. Hamairu-hamalau bat urte edukiko nituen. Nik orduan, saioetara joan eta bertso onak entzuten banituen, hamarretik zortzi grabatuta geratzen ziren. Oraintxe be bai, neure gustukoa entzunez gero. Klak!, grabatuta geratzen dok.

#### **Baserriko umezaroko zer gomuta daukazu?**

Gomuta onak. Bost neba-arreba ginen, neu anaia zaharrena, eta aitita eta amama be geugaz bizi ziren. Ardiak be bageunkazen, eta ganaduak be bai. Errenteroak izan arren, baserria entzute handikoa zen. Kanean ez zegoen jatekorik, eta dirurik be ez, eta baserrian, behintzat, ba, goserik ez genduen pasatu. Gerra ostea zen eta kanean, sasoi haretan, dirua edukita be, ez zegoen erosterik. Ogia be arrazionamentuan egoten zen. Baserria orduan gauza handia zen. Gaur, barriz, ezer be ez.

#### **Eta zelako umea zen Mañu?**

Ume okerra. Ni okerra beti. Okerra eta aldrebe-sa. Torniloari be ezkerretera buelta emon behar bajako, nik eskumara. Beti.

#### **Eta eskolan?**

Eskolan... Hasi, sei bat urte neukazela hasiko nintzuan. Hamairu urtegaz, nik pentsatu izan banau eskola ona zela, baita abokadu karrera be ikasiko neban, duda barik. Neuk nahi nituen gauzak, txisteak eta txarlatanenak, herrian kontatutako ordu biko gauzak be, denak eroaten nituen nik buruan grabatuta. Baina pentsetan najuan: Bah! Mañukortako maiorazgue izanda, Markinatik gora ez nok sekula pasauko eta zetako ikasi bijuazat mapak eta? Zetako eskolie? Eskolie bajakijat nik! Lantzean neska gazte bati arropak apurtu eta kristuek eta aurrera! Halako baten, maistrak aitari esan eutsan: "Honek ez dau ikasi nahi!". Eta aitak: "Etxera! Hartu atxurra eta mendira, ehun pezeta irabazteko". Ehun

pezetako jornaleta onak zen orduan, eh! Hamalau-gaz hasi eta hogeita bat egin nituen arte. Hogeita bat egin eta Marinara soldadu.

**Soldadutzara orduko, Bizkaiko txapelketan parte hartu zenuen.**

Bai. 1964koa zela uste juat. Ordurako, afizino pixka bat bagenduen eta azaldu egin ginen. Larruskaingo elizpean kantatu genduen eta Muniategik irabazi juan. Bigarren, Iriondo, lehen esan dodan "Kortatupe" hori, eta hirugarren, neu eta Longarte. Gero, handik urte bira, 1966koa izango zuan duda barik. Lea Artibaikoa irabazi najuan Markinan. Handik Lekeition zen hurrengo, baina ni, ordurako, soldadu nengoen Ferrolen, eta Alfonso Irigoienek dihar egin da etorri nintzen, hamabi eguneko permisoagaz, semifinala jokatzeko. Eta gero, Durangon finala jokatzeko be, beste hamabost eguneko permiso bat ekarri neban nik. Francoren denborak zituan eta bildurrez aidean denak. "Baina hi zer? Eroango habe kartzelara!" - "Ez! Ni ez. Ni permisoakin etorrita najak Ferroldik, Bizkaiko kanpeonatuan kantetako".


**Eta horreek permisoak zelan lortzen zituen, ba, Alfonso?**

Alfonso Irigoienek dihar egiten eban hara, Euskal Herriko poeta on bat nintzela, eta hemengo txapelketan porvenir handi bat neukala, eta, ahal bazen, mutila hona bialtzeko, hemengo seiluekin eta gauzeekin. Eta bialdu egin ninduen birritan. Behin Lekeitiora eta hurrengoan Durangora.

**Baina hori zelan hartzen eban han, Ferrolen, zure nagusi egiten ebanek? Euskal Herriko poeta on bat zinela eta hori denori?**

Ba, esango deuat. Han be ondo ikusita nengoen ni; "reposterero mayor" nintzen. Bazegoen agintari bat euskalduna zena, donostiarra: Fernando Albisu, gizon handia, koronelaren tamainukoa.

Bertsoak kantarazo egiten eustazen bere urte-egunean eta. Neure ustez, laguna neban. Permisoak goizeko seiretatik aurrera emoten ziren, baina ez zen egoten tren bizkorrik iluntzera arte, eta, tren geldian etorrita, egun bi behar ziren, hona etortzen. Esan najotsan Albisu horri: "Dios! Hauxe arazo hau dauket! Eta, goizeko seiretan barik, iluntzeko zortziretan firmetan badeustazu, gabeko hamarretan urtengo dot, eta bihar goizeko hamarretarako etxean nago. Bestela, hortxe ibili beharko dot ganora barik". Eta berak: "Ez. Euskaldunak danak mozkorrek zarie eta, hara joaten bahaz, hik mozkor bat gehiago atrapaiko dok eta hi hementxe egongo haz. Goizeko seiretarako firmauko deuat". Etxera egun eta erdi beranduago heltzea zen hori. Baina bazegoen beste nagusi bat, galegoa, Sotelo izenekoa. Txarra euskaldunentzat!



Mañukorta, ezkerretik hasita lehenengoa, soldaduzkan.

A. Irigoienaren artxiboa. XDZ

Bilbora etorri behar nebanean, haxe zegoen guardian. Joan nintzuan eta esan jeustan: “¿Y qué eres tú?” – “Poeta”. Eta txiste batzuk bane-kizenez erdaraz, txistea bota, eta berak: “¿Y te reclaman de Bilbao?” – “Sí” – “¿Y qué pasa?” Esan najotsan donostiar horrek, Fernando Albi-suk, zer egin eustan, eta berak; ¡Luego nosotros somos cabrones! ¡Mira que no hacerte tal favor! No a las ocho. Sal a las seis, come un bocadillo, toma un café a mi cuenta... “¿Tienes dinero?” – “Sí, tanto sí” – “Sino, te voy a prestar yo”. Iluntzeko seiretan emon jeustan permisoa. Gale-goia txarra zela euskaldunentzat, baina... Biha-

ramonean, handik urten behar neban ordurako, ni etxera ailegatuta nengoen.

### **Txapelketa jokatzeko heldu ziren, behintzat, eta zelan joan zen Durangoko finala?**

Zortzi bertsolarik jokatu genduen. Lau ziren: Mugartegi eta Arregi, eta Muniategi eta Lopategi. Abel Enbeita eta ni, sei. Besteak ez jaukazat orain gogoan. Goizean buelta bi eragin euskuezen zortziroi, eta arratsalderako lau onenak apartatu zitueen. Ni libre. Lopategik atera juan txapela.

### **Eta soldadutzatik bueltan, Markinatik gora sekula pasatu behar ez eban Mañukortako maiorazgoa Ameriketara. Zelan, ba?**

Nik ez neukan dirurik. Txakur handirik be ez! Soldadutza egindakoan, neukazetak gastatuta nengoen. Ameriketatik, hiru urtean, hirurogei mila hogaroko ekartzen ziren, eta berrogei milakin pisua erosten zen. Pentsatu najuan: Ostias! Pisu bat erosteko beste diru ekarri, eta Ameriketarako eta gauzak ikusi... Nik neukan sasoiagaz! Mendian beharrean nenbilen eta ni orduan jentila beste nintzuan! Joan nintzen eta egin neban horreek baino diru gehiago be, baina, hiru urte egin nituenean, hona telefonatu eta pisuak doblera joanda. Eta gero, sei egin nituenean, orduan eta urrunago etxea. Etxeak eskapetan jeustan hango jornalak baino gehiago!

### **Zelakoak izan ziren horreek sei urteok?**

Hiru urte eginda, ugazabak, artzain ona begitanduz gero, hango residente legal egiten hinduen. Tarjeta bat emoten eben, herrian behar egiteko edo pistola bat erosteko balio ebana. Amerikano eginda geratzen hintzen. Baina ni ez nintzuan amerikano egin. Urtebete egin najuan ugazabagaz eta esan najotsan: “Hi! Nik Euskal Herrira joanda be, karnetik ez jaukaat eta karneta atera gura juat. Txofer edo erakusten badeustak?” Eta harek: “Ez. Nik txofer era-



Merino. A. Irigoienen arriboa. XDZ

Mañukorta, 1966ko Bizkaiko Txapelketako Durangoko saioan, aldamenean A. Irigoien gai-jartzailea dauela.

kusten badeuat, hi kalera joango haz!" – "Bai, bai. Ni bizi guztian ez nok hemen egongo! Ez eik euki dudarik be!" Besteak: "Bai eta ez eta zera eta..." Ez gintzuzen akordura heldu. Hantxe eskua emon eta herrira. Gero, Idahora joan nintzuan. Hango enkargatu batek aginduta neukan, urte bete beragaz artzain egiteagaitik, karneta emongo eustala. Joan eta lehenengo egunean emon eustan. Bista probatu eta gero, eta indarra be bai... Bale haz hi!, esan eustan.

### Berak emoten eban karneta ala?

Ez, ez. Polizietara eroanda, hango ugazaba zaharrak. Lagunak zituan, ba! Esan jeustan zaharrak: Galipotik ez eik zapaldu urte betean! Han mendian ikasiko dok hik eta txofer ona izango haz! Halan, urte bian istripurik izan ez nebalako, International Mundi emon eusten, denerako balio dauen karneta. Gerora, hona etorri eta maniobrarik egiten jakin ez! Han dena aurrera! International Mundi! Baina, beno, balio izan jeustan hemengoa ateratzeko be. Bilbora joan eta praktika bakarrik atera neban, ez teorikarik, ez ezer be ez. Niri Ameriketek hatarakoxe balio izan jeustek: haxe karneta ateratzeko eta, hemendik kanpora be, gal-tza bete lan badela ikusteko. Hau Euskal Herria dela, baina hemen ondo bizi garela, ze, orduan, "kanpoan ondo, han bai!" esaten genduen, baina ez, ez, ez.

### Gogorra hango bizimodua?

Ordurako, ez. Ni neu nengoen orduan gogor eta ez nintzen nekatu be egiten, ezta hirurogei kilometroan zaldiak baino bizkorrago ibilita be. Baina gaur joan behar baneu? Nora!? Ezta...!

### Zelakoa zen zuen artzain bizimodua? Zenbat ardi gobernetan zenduezen?

Ba, udan, mila ardi eta mila eta bostehun bat

bildots. Lau hilabetea, norbera bakar-bakarrik, hiru mila metroko mendiaren gainean. Hango trumoi zartadak-eta... laostia!

Mañuri artzain denborak aitatuz gero, pasadizo asko etortzen jako burura. Euretariko batek zaldi bategaz dauka zerikusia. "Zaldi zahar bat banekuan, lagun ona, Roonnie, hauts koloreko zaldi bastoa, alperra. Hanka lodi-lodiekin". Ugazabak esan ei eutsan zaldi harek ez ebalaz ezertarako balio, hobeaz zela txorizotarako bestetarako baino. Mañuk, baina, estimadu zeukan zaldi zahar hori. "Berrogeita hamar bider kanpora eroan izan ez banindu, honezkero hotzak hilda najauan. Nire izenik etxuan inork jakingo hemen". Eta, ia-ia, baita halantxe izan be.

Neguan, lagun biren artean, hiru mila ardi erabiltzen genduzen, beste hiru-lau txakur eta zaldi bi. Egunean berrogeita hamar kilometro egiten genduzen, Idahoko lineatik Kaliforniara, negua pasatzera. Eta udabarrian, alderantziz. Eta behin, bagindoazela, iluntze baten, ugazabak esan jeustan: "Hi! Kantinflas!" Niri "Kantinflas" esaten jeustan. "Lau-bost egun hementxe geldi egin. Larre ona jak eta etxak presarik". Zaldiak, Rooniek, barriz, "Iiiiiiii!". Parrilaren gainetik salto egin eta alde egin juan. Sekula ez eban holakorik egin nire bistan. Ugazabak: "Hara! Burua endredatu jakok! Horreei burua kokoa sartzen jakuek, eta hori zaldiori ez dok gehiago ikusiko!" Han, zaldiak larran, jaberik bakoak, asko egoten zituan, ba, milako aldrak eta, mustanguek esaten jakenak. "Halako koadrila batera joango dok eta hareexek akabatuko juek". Nik: "Beno, ba, zer egingo deusagu, ba? Mundua holantxe dok eta" – "Haxe beste pintoa, haxe ekarriko deuat" – "Ondo jak". Joan zen etxera ugazaba. Hirugarren egunean, jagi nok eta laurogei zentimetroko edurra. Ostia! Zer egin behar juat nik orain? Jarri beste zaldiaren gainean eta, hara

eta hona, apurtu edurra eta... Beheko rantxora heldu nintzuan. Telefonatu jeutsat ugazabari, ekarri eskabadora, nahastatu hiru artzainen bederatzi mila ardi, hartu pentsua aldean, eta hareei jaten emoten... kriston gastua. Ardi guztiak erdi alperrik galdu! Hamabosgarren egunera, Kaliforniako lineara azaldu gaituk, edurrik ez zegoen lekura, eta... han jauan ha, Roomnie! Bai ongi-etorri edarra egin be! Esan najotsan ugazabari: "Ikusten dok hori? Mustanguek jango ebela eta! Aita San Antoniok hil beharko jok, nik ez juat hilgo eta! Ondoan joan izan bagina..." Abisatu jua harek! Harek eskapatu egiten jeutsan edurrari. Kalkulatuta jeukazen horreek danok! Animaliak jakin jakik, munduko pertsonarik inteligenteenak baino gehiago; mendian hazi eta mendian jaiotako animalietan, edozeinek. Zaldiak be bai, eta gehien, gainera, astoak.

**Denak ez ziren mendiko kontuak izango baina. Lantzean behin, herrira jaitsi eta amerikarrekin be izango zenduen tratua, ala?**

Ez, ez. Azkenean bakarrik, hantxe Idahon egon nintzenean. Euskal jai batzuetara joan eta, kaixo!, eta neska polita zara zu! eta hola-ko batzuk esan eta dantza batzuk eta... Hori azkeneko urte bietan, baina lehenago, ezta ikusi be! Lehenengo hiru urteetan, mendira 25 zentaboko diru bategaz joan eta 25 zentabogaz jaitsi nintzen ni hiru urtera, bandera juratzera, txakur handirik gastatu barik. Hareexek hiru urteak, berrogei mila duroan Markinan pisua erosteko beharrean, eta dihar egin nebanean, seirehun mila pezetara joanda jeuzazen pisuak! Ostia! Egingo ditut, ba, nik seirehun mila peze-ta! Bai. Milioi bat eta erdi be egin najuazean, baina, ordurako, hiru milioira igonda! Esker-rak, behintzat, erosi egin najuan... Zorrrak hemendik eta hortik pagatu eta kito. Nire Ameriketara joateak horretarakoxe egin jeus-tak bentaja.

**Akordu ona daukazu, behintzat!**

Bai, bai, bai... Nik ez daukat Ameriketako txarrik ezer be. Ondo hartu ninduen eta! Gainera, aile-gaeran be, ikurrina hantxe ezagutu najuan nik!

**Hemen inoiz ikusi barik?**

Holantxe dok hori. Hogeitalau urtegez Ameriketara joatean, nik banekien ikurrina, izan, bazena, baina begien aurrean ikusi, Elko-Nevadan, Artzain dantza batean. Ailegatu eta bertan egunean tokatu zen, gainera! Bai, bai. Nik ikurrina hantxe ezagutu najuan. Hauxe dok gure banderie, esan jeusten.

**Ze, zu hemendik joan zinenean, hemen giroa bero egongo zen, ezta?**

Etorri nintzenean, beroagoa oraindino! Etorri nintzenean, ETA eta burruka eta kristoak... Ikurrina bistaratu nahi, eta besteek egurra! Orduantxe laster afusilatu jituen horreek beste laurok, Otaegi, Txiki eta besteak. Handik gerotxoago libratu juen ikurrina.

**Eta bertsoa? Hartu-emona galduko zenduen, ba, Ameriketara, sei urtean.**

Ez, ez. Nik bertsoarik ez najuan galdu Ameriketara. Artzain mendian, eta txakurrari be kantetan najotsan nik bertsoa. Gero, Lopategiren anaiak han astean irratsaio bat zeukan, hemendik *Zeruko Argia* eroan eta hemen zer kirol eta nork zer egiten eban... Eta holan, neuk be, lantzean behin, herri bueltan nenbilenean, Lopategik berba batzuk egin eta nik hiru-lau bertso kantatu eta... Orain, handik etorri eta bertsolaria izan behar nebanik? Plazarik plaza ibili behar nebanik? Sekula ez jatan holakorik akordatu. Baina etorri eta urte betera orduko apuntatu nintzen Mallabiko txapelketarako. Zer izango eta galazo egin eben Guardia Zibilek. Handik urte betera, ostera be, Mallabikoa egin eben. Orduan bigarrena atera najuan. Jon Enbeitak kendu jeustan. Hortik aurrera, Idiazabalera, edo

batera, edo bestera... Hortik aurrera, nire laguna herria izan dok! Ni herriak atera najok beti. Txalo eta kristoa! Ni herriak salbatu najok, duda barik.

Mañuri, Ameriketatik etorri eta Euskal Herrian hain beroak izan ziren urte hareetaz gogoratzean, bertso bat etortzen jakó burura bereziki. Munitibarren botatakoa da, afaloste batean, gaiari erantzunez. Mañukortak bere bertsoen historian daukan esperientziarik gogorrena. "Zortzi egunean kriston bildurra emon eustan tailerrera joateak be". Gaia zen Euskal Herri guztian ikurrina libratu zela, eta Bilboko Diputazioan oraindino ez

zela libratu. Eta ha galazota zeukana Unzeta zela, Gernikako semea.

Hasi nintzuan:

Zu bezalako faltso harroekin  
lehen ere nago beteta  
Gernika ere hortxe daukagu  
gerra denboran erreta...

... "Unzeta" amaitu nahi najuan bertsoa, baina hirugarren erriman eskapatu jeustan:

Ikurrin kontra nola mintzatu  
bertako seme Unzeta?  
Bihotz erdian sartuko'izute  
metro erdiko puntzeta.



Ameriketean artzain, Roonnie zaldiaz, 1970 inguruan.



Eta biharamonean hil juen Unzeta hori! Biharamonean garbitu juen, tiroa emonda. Bai, bai! Eta nik ha jakin nebanean: Aiba laostia! Nire bertsoa grabatuta bajak, joan behar juat kartzelara! Eta orduan kartzelara joatea zer zen bada-kik, eztok? Hartzen zituazten tente ezin egoteko modukoak. Orduan pasatu nituen zortzi bat egun! Akordetan nok, martitzenean edo, etxean telefonorik ez, eta tailerrera dihar egin jeustan Muniategik nonbaiterako; jaialdiren bat emoteko izango zuan. Nik eroan najuan bildurra telefonora!

#### **Txapelketetara zelan hurreratu zinen barriro?**

Nik afizino handia neukan. Ameriketatik etorri nintzenean, ikusten nituen Muxikan-eta egiten ziren txapelketak, eta orduan zegoen Iturri, Jon Enbeita, Areitio... Koadrila bat zegoen. Pentsa zelako afizinoa neukan, Mallabiko 76ko txapelketan, neure arrebaren eztegua tokatu (Lizarran, naparra dauka gizona) eta, txapelketara joategaitik, ezkontzara joan barik geratu nintzen. Nahi kantatu! Ikusten neban abildadea be baneukana, baina eskolara joan eta ikasterik ez. Hori ez!



**Landu zelan egiten zenduen? Zeure kontura?**

Bai, bai! Nik Jon Enbeitak eta berbak zelan esaten zitueen banekien eta, neuk aldrebes esaten baneban, iepa! Hori beti euki juat nik, besteena kontuan hartzea buruan.

**Besteren batzuekin elkartu edo?**

Ez. Sekula be ez. Sekula!

**Arregi eta zu baino nagusitxoagoak ziren, izan be.**

Arregik atera ninduen ni bertsolari, inork atera banau. Arregi eta Mugartegi ibiltzen ziren hemen auzoetan asko. Eta Arregik, Panderiako pentsuekin zebilenean, ordu batzuk egin eta gero, bertsoak kantatu eta dena egiten eban. Baina gero berak hartu eban pentsu almazena aparte, eta orduan esan eustan berak ezin eutsela bertsoei kasurik egin. Hamar jaialdi jaukazen, hamar auzotan hartuta, eta antolatzailleei berak esango eutsela zer pasatu jakon. Nik hamar jaialdi hareek kantatu orduko, egin najuazen lagunak han, alboetan eta kristoan be bai! Orduantxe soltatu nintzen eta hasi nintzen Euskal Herrian, apurka-apurka, ezagun bihurtzen. Eta gero, ba... dena! Hasi punta baten eta besteraino.

**Hasi zinen sasoiari, zer bertsolari edo bertsoke-  
ra zenduen gustuko?**

Niri asko, Agirre zaharrak eta Lizaso zaharrak eta zerabilen bertsoa gustatzen jatan. Uztapiderena zer esanik be ez. Nik hari segitu deusat, soldadu joan orduko. Mutil koxkorra nintzenean be bai. Egunpasan joandakoan, pare bat botila koñak tragetan jitan harek, baina haren bertsoa! Bertsoak, sinistu ezindakoak, Lasartek be bai. Gero, neuk tratatu ditudanen artean, lagunak, denak! Mugartegi bera be bai bat. Gizon ona. Orain, goizean hamaiketako handia egin behar izaten zen haregaz. Azpillaga be estimadu jaukat nik. Areitio bera be bai

hemen. Gipuzkoan be denak: Agirre zaharra, Lazkao Txiki zena beste bat. Zenbat jaialdi kantatuko nituen nik harekin! Eta, gaur egun, lagunik handiena, ba, Zeberio, dudarik barik. Egunpasan haregaz noanean, ezteguan baino gustorago egoten nok ni!

**Gaur egun be, hara eta hona bazabilz plazan,  
baina, sasoi batean, berrehun plazatik gora  
egin zenduzela entzun izan deutsugu.**

Harako Lopategik txapela irabazi ebanean, berrehun orduantxe egin nituen, 1989an. Donostiara joan barik, puntu bategaitik geratu nintzenean. Beno, geratu ez, laga egin nindueen juez bi-hiruk. Ondo pentsatuta, gainera! Ez dago horren dudarik egiterik. Baina nik herria eduki dot lagun beti! Herria lagun, gauza ona da. Bestela, ez nintzateke joan be egingo. Nik ez daukat gaur preminarik: pisu bi eta baserria daukadaz; tailerreko parteak, kobretako; asegu-roak eta ostia denak be eginda daukadaz... Eta berrogeita hamazazpi urtegaz, horreek egin dituen mutilik, Mañukorta bakarrik egongo da, seguruenik. Bai, bai. Dudarik barik.

**Barrero be berrehun plazei tira eginez, ez zen,  
ba, erraza izango horri beharra gehitu eta, gai-  
nera, bertsoan gozatzea, ezta?**

Holan dok hori. Ez neban ondo kantetan. Joaten nintzen eta tailerra nekan buruan. Eguerdian bertso saio bat, eta gauez beste bat, eta, beharrera gaueko hamarretarako ailegatzen ez banintzen, hamar eta erdietarako joango nintzen igual. Gau guztia beharrean emon eta, biharamonean, ordu bi lo eginda, atzera Naparroan zehar, bertso tara. Neure osasunetik be urtenda. Ez neban gozatu kantuan, lo be ez neban ondo egiten eta beharrik be ez. Egin nei-keena baino askoz gitxiago, hori seguru. Orain, han lehenengo urtean, egun guztiak errekupe-  
ratu nituen nik, ordurik bat be galdu barik! Urte-  
ak ziren onak beharrean. Gero, azkenaldian,

estutu nindueen eta, estutu nindueenean, ba... Estutze hori be, gainera, neuk irakatsita. Tailer guztiari txarto neuk irakatsita! Ze gure etxean ez zegoen telefonorik, eta Cikautxora deitzen eben nire eske: Mañukorta telefonora! Laga makina, telefonora joan, jaialdia hartu, etorri makinara, makinan agenda bete... Alboan zegoen neska-motz handi bat markinarra, jatorra. Horrelakoe-tan, neure makinako beharrak berak egiten eus-tazen, eta bereak be bai neuk inoiz. Eta ikusi eben, ikusi, nagusiek: Aibadios! Hemen lagun bi barik, bategaz be ibili leiteke! Hortxe ikasi juen. Bestela niri ondo portatu jatazak Cikau-txon. Ez jaukat bat be kexarik.

**Beharrari buruz gabilzenez, inoiz entzun deusugu, sasoi batetik, zuk ezagutu dozuzen azke-neko urteetara, aldea egon dela, gaurko gazte-ak fabrikan gogorrago daukiela eta...**

Bildurgarria. Bildurgarria aldea! Lehenagoko makina zaharrek-eta, zabaltzen eta zarratzen denbora egiten eben, eta, hareek denak egin arte, ez zen hasten makina beharrean. Gaurko adelantuekin, ostera, heuk ikutu orduko, egin beharreko dena eginda daukak. Eta, "calidad y cantidad" eta horrekin gauzokin, makinak baino estuago hartuta daukie jentea. Ebentualak oraindino tristeago. Pentsaik, nik berrogeita hamazazpi urte neukazenean, halako mutil batzuk ipintzen eustezen ondoan, neuk sekula ikusi bako adelantuak zeukiezen makinan, hala-ko numerazinoekin eta automatiko hutsak... Akabua! Berrogeita hamazortzi urtegaz, prejubi-letako deitu eustenean, "Ieeeepa! -esan najo-tsen-. "Bihar daukadaz eta berrogeita hamazaz-pigaz prejubiletako zer egin behar dot, ba, oraintxe?" Begiratu eta personal-burua sekula baino gustorago barre egiten! "Orain hori akor-datu jak?" - "Egin neikek?" - "Egin heinke, baina urte betean egon behar dok jornalik kobratu barik, eta heure poltsikotik hilean ehun mila pezeta pagatu behar dok aseguora"

- "Zahartzarora etorriko jat okerrik?" - "Ez. Ostias!" Firmatu eta derrepente, ez inori galde-tu, ez biharamonerako pentsatu, ez kristorik! Ieup! Ze, alde handia dago sasoi batean behar egin ala orain egin.

**Bertsotarako be sasoi ederrean hartu zenduen erretiroa.**

Bai, bai. Orain trankil najabik. Besterik ez jau-kat eta! Ganaduak badagoz gure etxean, baina anaiarenak dira. Laguntzen deusat lantzean behin, baina nahi dodalako. Neuk ez daukat ardurarik. Goizean galdetu neure buruari: Hi! Nora joan nahi dok? Eta haraxe. Niri bertsotara joatea gustatu egiten jatak. Orain, geroago eta bildur handiagoa emoten deust honeek jente gaztea gai ipintzen dabilen jaialdi moderno horreetara joateak. Guk ez dakiguzen gaiak ipintzea be erraz-erraza da eta! Orain, nik dau-kadan aurpegiagaz, neuk ez dakidan gaia ipin-tzen badau, lehenengo bertsoan kantatuko deus-tat ha gaia ez dodala nik ikasi eta ez dodala entenditzen, eta aibadios! Jente guztiak hartuko jok ontzat, neu nazelako!

**Horretaz gabilzenez, zeuk be horrelakoetan esan izan dozuna baino gehiago dakizula irudi-tu izan jako askori. Zeuk be, batzuetan, horre-gaz jokatu ete dozun.**

Tonto papera eginda, gehiago irabazi beti. Nahiz eta jakin, jenteari barre eragiteagaitik. Gehiegi dakiela pentsatuta baino gehiago estimetan dau jenteak.

**Txapelketak aspaldi itzi zenduzen. Sufritu edo egiten zenduen ala?**

Nik ez neban sufritzen. Sufritu baneu, txapelak etxean edukiko nituen nik! Baina nahi nebana zen gozatu, jenteari barre eragin eta jentea neure poltsikoan eroan. Bestela, nik Bizkaiko txapelen bat edo ostiaren bat... Apur-apur bat errima batzuekin entrenatuta, baina ez, ez, ez...

Irabazteagaitik baino gehiago egiten neban nik bestela. Eta, gainera, txapelketatik kanpora be, motibo barik geratu nintzen ia-ia. Behin, finale-ra pasatu ez nintzela eta, hurrengo urtean joateko asmoa neukan, kanporaketan sartuko nintzelakoan, baina umeekin ipini nindueen, han behe-behe-behean. Eta joño! Hantxe laga neutsan eta gehiago ez jat akordatu be egin. Orduan be, kanporaketan sartzea izan balitz, behar bada, gaur be txapelketan ibiliko nintzateke. Baina ez daukat joan ezaren damurik. Bat be ez!

### **Zeure gustuko plaza klasea zein izan da? Non ibiltzen zara gusturen?**

Denean. Horreetan auzo txikietan-eta, herri txikietan, meza nagusi ostean jentea batzen denean. Plazak, horreexek. Gero, herri bazkariak eta herri afariak. Entzulea be baserriko jente modua, bertsoa estimetan badakiena, eta, altabozik barik kantetan den lekua bada, gurago oraindino. Ze, altaboza badago, urruneko arbolapen be jarrita egoten dira, eta tabernan be bai, handik entzuten dela eta. Baina entzuten ez bada, bertsoa entzun nahi dabenak, jo eta buelta emonda, samak luzatuta ikustean, ez daukadan be atera egiten juat! Neu nazena baino gehiago. Motibazino bat hartzen dok. Neuri entzuteko jakak horreek!

### **Bertso ibilera zer den ondo ezagutzen dozu eta bertsoan abila izateaz gainera, zer behar da, bertsolaria izateko?**

Bat, herriak estimatua izan. Ordurako ailegatu, kasu egin, egunon esan eta euren esana entzun. Aldeeran be, eskerrik asko esan, eta: "Nahi badozue, hurrengo urtean be, geu edo beste batzuk ekarri, hemen bertsolariak edukitzeak balio dau eta". Izaera bat dok, azken baten. Horretan ona, Azpillaga, esaterako. Harek denei mosu bina emon eta, aldeeran be, honako egunik ez dogu aspaldian pasatu!, eta horrelakak... Norberaren poza jenteari emon. Ze izan


leiteke bertsolari on bat, baina beti isil-isilik, igual. Eskastxoagoa izanda be, nik gurago bertselakoa.

### **Horretan asko aldatu da bertso mundua gazteekin?**

Gazteek ez dabe ikasi hori lehengo hartu-emon fresko hori, hartu-emon konbertsazino hori. Herriagaz bat egiten oraindino gaurko gazte askok ez dabe ikasi. Eta askok pentsetan dabe, gainera, eurak apur bat gehiago direla besteak baino. Baina, lau edo zortzi bertso on kantetako abildadea eduki arren, bat be kantetan ez dauen aitita zahar batek nik beste abildade eduki leike, eh! Dударik be ez egin. Ez da bertsolaria beste munduko gauza, etorri pixka bat daukalako eta landu dauelako.

### **Entzundakoak entzunda, esan leiteke beti konpondu zarela ondo jenteari: soldadutzan koronelagaz, Ameriketara ugazabagaz, bertsoan herriagaz... Non dago horren sekretua?**

Bat: jaio egin beharko dela uste dot. Bigarrena, ba, ikusi zelan dagozen gauzak eta, hik ikusten



Bertsolari adizkaria

badok, joño!, hor zehar bide txarra jaukat eta, hemendik zehar bide onetik ibiliko nok, ba, heuk hartzen dok. Eta hori konfiantzak emondako zera dok. Baina, batek jaio egin beharko jok, eh! Bat jaiotzen bada harroa edo inori kasurik egiten ez deutsana, bera goian eta besteak behean, ba... Eta gero, bertsotan, gure moduan denekin ibiltzeko, ba, jakin egin behar dok zein bertsolariri zer, nondik kantatu behar jakon, herriari gustua emoteko, hari minik emon barik. Amuriza bati leku batetik kantatu beharko deutsak. Agirre bati beste leku batetik. Hari burruka egin beharko deutsak, hankak moztu nonbaitetik, edo hor ibili beharko dok, bestela. Azpillagari, barriz, ondotik segi. Bota bera aurrera, segi ondotik eta, lantzean behin, "poum!" burutik beherako bat emon. Baina ha han joango dok: alkatea eta alkatearen andrea eta alaba, eta abadea eta meza eta... segi ondotik eta, halako batean, "poum!", lantzean buruko bat.

#### **Lehen meza kontua be aitatu dozunez, federik izan dozu edo badaukazu?**

Bai, bai, bai! Handia nik fedea! Elizara ez naz joan be egiten, baina herri-meza baterako edo esandakoan, bai, gustura. Niri ez deust elizak ezer kentzen. Errespetetako gauza da fedea. Orain, barriri biztu eta zeruan sartuko garela eta inperua eta... Hori ez juat sinesten hainbeste, baina, behintzat, enterruak eta dagozenez, denok hantxe joaten gaituk eta, etxeko bat edo ezagunen bat denean... Hareek ez dira etortzen bigarrenean, eh! Orduan, ba, fedea...

#### **Eliza be tarteko denez, betikora joango gara, baina hori be aitatu beharko da. Ezkontzerik ez jatzu sekula akordatu? Ez dozu gura izan?**

Sarri niri akordatu.

#### **Baina gura izan dozu?**

Beno, zer esango deuat, ba, nik... Beharbada, Ameriketatik bueltatu nintzenez, neure

tamainuko neska batek esan baleust: Hi! Joño! Ezkontuta biziko gaituk eta hau eta bestea..., ba, beharbada, baietz esango najotsan. Baina bertsotan, igual, beti esan juat mutilzahar hobeto nabilela... Azken batean, ailegetan dok ordu bat, gaur egunean, begiratu munduari eta ehuneko hogeita hamar bat dibortziatu egiten direna. Eta beste hogeita hamar bat umeakaitik geratuko dira dibortziatu barik. Eta nik pentsetan dot ezkontuei damutuko jakela eta ezkontu bakoei be bai. Beharbada, hirurogeita hamar urtegaz, zapatilak jantzi ezinik nagoela, joño, andrea izan baneu! esango juat. Baina andrea izan baneu, beharbada, zapaldu egingo nindueen gehiago oraindino; eta, umeak izan banitu, urrunera eskapatuko eben, neuk daukadazanak denak janda. Orduan, orain, sikeran, neuk zaintzaile bat pagetako dirua edukiko dot. Pisu bat saldu eta neu zainduko nauen andra bati bere jorنال pagetako, eduki egingo dot. Mutilzaharrrak badaukaz bere arrazoiak. Gaur, gainera, ezkontu beharrik be ez jak eta! Arrimatuta bardin bizi dok jentea. Hori ezkontze hori lehen be alper-alperreko zera izan dok. Urte bat edo bi egindakoan, kanpoko beti izan dok etxeko andrea baino ederragoa. Horren barri neuk jakiat ondoen. Gainera, ni ez nok txarto bizi! Gaur, argi gorriak eta kristoak moda-modan dagoz. Neure tamainu baten, badakit nik ibiltzen eta nahiago dot holan, alboko parteko andreagana joan eta gizona eta familia endredetan ibili baino. Ni neure lekuan najabik, alla ostias!

#### **Mutil zaharrarena aitatu deustut, ze badirudi beti txisterako bakarrik aitatzen dela.**

Niri horrek ez deust minik emon, eh! Ze izan nok mutilzaharra, baina ondriaz beti. Izan banintz, ba, jokolaria edo beharrik egin nahi ez dodana, edo inori txarto egiten nabilena, akaso. Baina ni, inori kalterik egin barik, neure

bakean nabil, eta niri, mutilzaharra izan edo zazpi bider ezkontuta egon, horrek ez deust ardura. Gero, ba, kantetako zeozer behar izaten dok. Gainera, gauza bategaz konturatu nok: ni hogeita hamar urtegaz, Ameriketatik etorri eta mutilzaharra nintzuan. Lazkao Txikik ezagutu ninduenean, hara mutilzahar bil esan juan. Eta pentsatu be horixe orduan, gizona, behin hogeita hamar urtera ezkerro, halantxe zuan eta. Orain neu hirurogeira ailegatuta, berrogeikoak umeak begitantzen jatazak. Alla ostias!

#### Sasoian zagozen seinale.

Ez nok kejetan. Nik oraindino, aurten be, 90 jaialdira heltzeko asmoa bajaukat, gustora, gainera. Kantatu ondoren, txarto kantau juat! eta horrelako tonto ardurarik bat be barik. Askori esaten deusat, txapelketa laga arren, bertsota ez lagatzeko. Ze asko kantatzea gatxa da hemendik aurrera, baina behin urtean 30 bat jaialdira ailegatuz gero, balio dau bertotan ibiltzeak. Gazteak, barriz, berrehun euro gehiegi dela-eta, berrogeita hamar kobratuta be, joan daitezela eta kantatu daieela, biharko etorkizuna hortik izango da eta. Ailegatuko da gero kobretako sasoia. Joan daitezela auzo guztietara, bildurrik barik, eta ahal dabenik ondoen egin. Hori beti. Ez hemen ez dau merezi ondo kantatzeak, eta hemen ganora barik eginda be, bardin da eta... Hori ez, eh! Bilboko Arriagan egon zein Berrizko San Pedro Txikin egon, bardin-bardin da. Bertсотara zozenean, han herriaren aurrean zagoz. Emoten dabena hartu, eskerrik asko esan eta aurrera. Horreexek ikasi daieezela, ze Euskal Herrian ez gaituk luzaro biziko, behin 60 urtera ezkerro, baina soinua, bertsoa, erromeria eta hau umore hau galtzea tokatu ezkerro, ez jok balio bizitzeak be. Geure gauzak dituk eta! Eta gazteek be hori pentsatu daieela. Jakingo dabe horrenbeste baina!

#### Zuk, behintzat, galtzen izteko intentzinorik ez daukazu.

Urte gitxi geratzen jatazak niri. Hi! Botaik metroa eta ehunera gitxi ailegetan dituk. Azkeneko hogeiak "ni vivir ni morir". Aitak ez daie la entzun, ze 84gaz ondo bizi dok, baina hortxe izaten dituk. Eta neu hirurogeira ailegatuta, ba, ostias! Hor milagrorik ez jok inork egiten. Geratzen jatan apurra ahal denik ondoen pasatu eta aurrera!



Conny Beyreuther. Bertsolari aldizkaria

## Jon Mugartegi



*"Gure bertso-eskola taberna izan da. Bertso giroa jakintza handiagokoa da gaur, eta nik nahiago dot aurrera joan daiten, erdibidean geratu daiten baino"*

Etxean baino hobeto ez da egoten inon gizona. Horixe da, behintzat, Jon Mugartegiren eritzia, eta hantxe geunkan zain geuk be, Berriatuko Patroi-kuan. Baserriak ba ei daukaz zazpirehun urte, eta Jonek ez daki izenaren jatorriaren barri zehatzik. "Behin edo behin, patroiren bat izandakoa-edo", dino. Herrian bertan, gehiago dira etxe honi Astapotxue deitzen dautsienak. Astoei edaten emoten jaken potzuren batek pare-parean behar eban sasoi batean, eta hortik etxeari be halan esatea. Errekarurak bertatik pasazokeran, potzua desagertu egin zen, baina izena geratu. Jonek berak, halan be, gurago dau jatorrizko izena. Egon, esan dogu aurre-rago, etxean ondoen; baina ibili, han eta hemen be ondo ibilitakoa da Mugartegi. Ateak zabalkeran, ibilerok kanporako bidea hartu dabe barriro.

Ni, jaio, hementxe jaio nintzen, 1933ko agorri-laren 26an. Gero, hiru urte neukazela, gerran frentea tokatu zen hemen. Hor, Txindurri mendia dago alde batera, eta bestean, Kalamendi. Eta tiroketak. Eta nik, ba, mutil koskorren kontuak... errepidera urtetan nebala! Gure ama Andonegi Errotako alaba zen, eta aita zena, Andonegi Etxebarrikoa. Auzoak izanik, eta gerra denporako historian, ama zenaren etxera eroan nindueen, hamabost urte egin arte. Hamabost urte egin nituenean, etxera etorri nintzen eta, harrezkero, beti bizi izan naz hementxe.

#### **Aitita-amamekin eta osaba-izekoekin hazi zinen han. Amamagandik ei jatortzu bertso-rako zaletasuna be.**

Hortik datorrena da, bai, ze amama zenari asko gustatzen jakon hori bertso giro hori. Kopla asko zekizen, lehenagoko kopla zaharrak; Santa Agedaren bizitzakoak eta. Eta ni amamak kantatuak entzun eta hantxe ibiltzen nintzen kantatzen, zortzi-bederatzi urtegaz hasi eta hamar-hamabi urte-ra arte. Amamak, gainera, bazeukan hori txispa hori. Ni neu ez naz akordatzen gerra sasoi-az, baina, gerora entzundako kontuak... Gerra den-

poran, jenteak etxeak hustu behar izaten zituen, ba, eta ahal zen lekura bakotxa! Andonegi Errotakoak Ibarrangelura joan ziren. Neuk ez daukat gogoan zelan joan ziren eta ezer, baina bidean negar egiten ei neban nik, eta amama zenak esaten ei eban: "Oraintxe, txakurkumeak baino gehiago balio ez baleu, jo baztarrari eta aidean jaurtiko neuke!". Xelebrea zen piska bat. Eta ama zena be bai. Ez, geure ama zelako, baina harek zeukana baino ahots ederragorik! Sinistu be ez egiteko modukoa zeukan ahotsa. Ataun, hemen Millo menditik gora dagoen baserri bat da Ataun, eta amak esaten eban, hementxe etxe ostean deihadar egin eta Ataunen dagoenari entzun eragingo leuskiola berak. Igual handitxo izango da, baina...

#### **Hamairu urte zeunkazela, Basarri eta Uztapide etorri ziren bertsoan Berriatura. Adi-adi egon ei zinen entzuten.**

Asko gustatu jatan; inpresino itzela egin eusten. Gero hasi nintzen, behiak zainduz, eta gero lagunartean, bertsoak kantatzen. Hurrengo urteera, Etxegurutzera. Ermitatxo bat bertan, eta horra etorri ziren bertsoan Uztapide eta Joxe Lizaso. Entzuten egon nintzen eta gero bertan bazkaldu genduen. Bazkaltzen euren ondoan egon nintzen eta gero eurekin kantatu nituen bertso batzuk. Han Burgo edo Artadialde esaten eutsienak, idiprotetan eta ibiltzen zenak, Uztapideri esan eutsan: "Hau Gipuzkoa aldera bialduz gero, zer egingo leuke honek?". Uztapidek erantzun eutsan: "Horrek ez dauka inora bialdu beharrik. Inora bialtzen ez badezue ere, berorrek erakutsiko du bere burua". Norbera be poztu egiten da apur bat holakoak entzunda! Eta gero, ba, hortik aurrera, geldi-geldika. Lehenengo plaza, barriz, Azpillaga eta biok Amoroton egin genduen. Handik aurrera asko ibili ginen.

#### **Bestela, bertso-paperik edo antzekorik heltzen jatzun?**

Hemen auzoan, bazen Txirrita esaten eutsien bat.



Nik bera ez neban ezagutu, baina haren lehengusua bai, Paulo. Ha be bertsozale amorratua zen eta geurera etortzen zen jaiero, aita zenagaz kontuak esan eta botila bete ardao edan eta... Kontuak esateko apur bat animatuta, ezta? Lehenengo kontuak esaten egiten eban ekinaldi bat, eta gero hasten zen bertsoan. Lehenagoko Txirritak ez dakit zelako eta halakori kantatutakoak, halako eta honakoak, eta neu be gustora egoten nintzen entzuten. Bertsoan ahalegintzen zen jentea bazegoen inguruetan. Matias Ugarteburu beste bat, eta Pastor esaten eutsiena be bai. Pastor Urresti. Erdi-bertsolaria zen ha, bertsoak, osorik barik, txiste moduan kontatzen zituena. Mitinetan-eta, kontuizu, parte hartzen ei eban. Hor Milloi gainean mitina emon ei eban behin eta esan ei eban: "Bost ahuntz daukadaz kanpuen eta bost mile errial bankuen". Eta hurrengo esan ei eban: "Papera, zidarra ta urrie, ez pentsau gero Pastor danik pobrie!" Horrelako txisteak.

**Gainerantzean, zelako umezaroa dozu gogoan? Eskolan-eta, zer edadetara arte ibili zinen?**

Nik, hamabi urtegaz, hamairu egiteko urten

neban eskolatik. Orduan eskolari ez jakon emoten inportantziarik. Etxeko beharra izaten zen lehenengo. Ez da izan holan hori gauza hori, baina... orduko kontuak! Berriatuko eskolara joaten nintzen ni. Andonegitik ez da bide luzea; berrogei bat minutu edo. Gogoan dot ogia arrazionamentuan zegoela orduan, eta neuk eroan behar izaten neban ogi hori eguerdian, eskolatik urtenda, etxerantzean. Osorik eroateko esaten eusten etxean, baina osorik ezin eroan, ze, goizean be armozu haundirik egin barik egoten ginen eta! Etxera orduko, zatia janda eroaten neban, eta amamak esaten eustan: "Oin be jan dok, ba, hik!" Gerotxoago esango eustan: "Bueno, ondo jak! Probetxu ein badeua, ondo jak". Baina, esan dodana, guk ez genduen askorik ikasi. Hamairu urtera arte, ba, horixe. Zeozer ikasi genduen, baina gauza gitxi. Gerora, falta igarri dot eta neu be ez naz izan... Bertso munduan pixka bat dabilenak -ni oraintxe konturatzen naz- irakurri egin behar dau apur bat. Apur bat baino gehiago egiten badau, hobe oraindino. Nik ez deusat kasurik egin. Ibili. Ez dot ahaleginik egin gausa horretan, eta orain ja pasatu zen istorio hori.



J. Mugartegi J. Azpillagaz, Gorozikan, 1960 inguruan.

1950. urtean kantatu eban Mugartegik plazan lehenengoz, gerora be bere bertso-lagunik ohikoe-na izango zen Azpillagagaz batera. Lagunartean bazen be, ordurako bertsotan polito egiten eben biek be. Amoroton, behintzat, bazeukien euren barri eta San Martin zaindariaren jairako deitu eutseen. Berrogeita hamar urte geroago be, 2000.ean, ordukoxe baldintzetan jardun eben barriro, udaletxeko balkoitik eta ezelako altabozen laguntasun barik.

Soinu jotzen Angiozarko itsua zegoen, eta gero bertako abadea, nafarra edo, Don Jose esaten eutsiena. Geure bertsoketa egin genduen, eta Angiozarko itsuak esan eban: "Zuek bertsoetan



J. Mugartegi 1985 inguruko Bertso Egunean saria jasotzen.

edozeinen moduan egiten dozue eta!" Esan geuntsan: "Edozeinen moduan ez, baina jardun egiten dogu, behintzat, geuk be!" – "Bai, bai! Ondo egiten dozue bertsotan zuek". Eta gero bandeja pasatu eben, diru apur bat edo batuko ebela eta. Orduko sasoirako, asko batu eben. Laurehun pezeta batu zitueen. Berrehun bana pezeta guretzat orduan dirutza handia zen!

### Biak berriatuarrak, gazteak eta bertsozaleak izanda, laster bat egingo zendueen Azpillaga eta biok. Zelan hasi zinien?

Ermita bat dago hemen, Aita Kurutzekoa, eta hor tabernatxo bat dago. Nik hamabost urte inguru neukazela, -Azpillaga ni baino urte bi gazteagoa da-, bederatziretarako mezetara joaten ginen. Mezetatik urten eta tabernara joaten ginen. Hor batzen ziren pertsona nagusiak; galleta batzuk jan eta ardao zuri pixka bat edanez, eta geu be hantxe egoten ginen eta: Beinga mutilak! Bazekieen guk bertsotan egiten genduen pixka bat, eta hasteko pozik egoten ginen. Hantxe egiten genduen. Gure entrenametuak hortxe izaten ziren. Tabernazaleak izan gara gu. Gerora be, hemen Eguren tabernan batzen ginen inguruko bertsolariak: Arregi, Buztarri, Azpillaga... Bateko merienda, besteko aforia. Eta afalostean beti musika bardina. Bertsoaren musika. Gure batzarrak horreexek ziren.

### Bertsotan bakarrik ez zendueen egingo. Erromeriak eta gainerakoak be izango ziren. Ala?

Azpillagak andrea Iساسimendikoa dauka. Elkarregaz joaten ginen gu hara, erromeriara. Neu be hango inguruko neska bategaz ibili nintzen apur baten. Behin, Santiago egunean Mutrikura joan ginenekoa da akordatzen nazen neska-laguntzarik luzeena. Han zegoen neska batzuk eta ea lagunik edo behar ete eben etxerako, eta baietz, bakarrik zegozela. Olaztarrak ziren neskok. Olatzen itzi neska eta mendirik mendi urten Iساسimendira, handik jaitsi Madalenara,

eta hor goitik behera, etxera. Bostak jota, ia goizeko seiretan etxera. Goizean jagi egin behar, zazpirak inguruan, eta estu baina...

Soldadu joan nintzenean, ahaztu nintzen neskokin eta hango historioekin, baina Mutrikutik lagundu neutsan neska hori gero be ikusten neban inoiz eta esaten eustan: "Ño! Zu alperra zarela pentsetan dot" - "Zer, ba?", esan neutsan, eta erantzun eustan: "Behin etorri zinen nire ondotik eta gehiago ez zara atrebitu. Bidea luzetxoa edo..." Orain nire andrea dena be ezagutzen neban lehenagotik eta, soldadutzatik bueltan, gaixoaldia pasatu eta gero, beragaz elkartu nintzen, eta hortxe amaitu genduen istorio hori, baina, neska-laguntzak handiak egingoak gara gu. Ibilera ganorabakoak be asko.

Burgosera joan zen Jon soldadu, kaballeriara. Gazte eta sasoiko urten eban etxetik, Markinako Eizmendi kanteretan eta zerran behar eginda gero, baina gaixorik bueltatu zen handik. Pleurak jo eta denbora luzea behar izan eban osatzen.

Ospitale militarretik bialdu nindueen. Gero Bilbon zegoen mediku bat ona, Irarragorri, eta hemengo medikuak be haraxe bialtzen zituen holako zerik zeukienak. Orain urak atera egiten deutseez gehienei, baina orduan ez. Orduan, bertan sikatu; indizino eta halako eta holako. Errekuperatzea asko kostatu jatan eta neuk be ez neukan gogorik ibiltzeko. Urten bai, baina gitxi egiten neban. Urez beteta eduki neban hau eskuma alderdi hau dena. Ganora barik egon nintzen hiru urtean, ezer be egin barik! Ez neukan aurretik egiten nituenak egiteko gogorik.

#### **Egia da Bizkaiko Txapelketek atera zinduezela etxetik?**

Soldadutzatik etorri eta gaixorik egon eta gero, hurrengo urteera Markinara egin neban, Bizkaiko Txapelketan parte hartzeko. Irigoien zen orduko gure zuzendaria eta orduan, nik lehenengoz urten

nebanean, Azpillagari emon eutsien lehenengoa. Buztarri be han zen eta neu ez dakit, bigarren edo, dena dela... Hori 59an zen. Eta 60an, ba, Markinakoa eta Bilbokoa, eta hor neuri emon eustezen horreek zerok: Bizkaiko txapela. Gero, 62an be parte hartu neban, baina orduan ez nintzen ondo ibili. Eta 64an, Ondarrun, Lopategi neukan kontrariorik gogorrena. Ha ikasia eta ni ikasi bakoa... Horrek be asko esan nahi dau eta! Eta han, ba, nahikoa estu ibili ziren gauzak, eta jenteak, neu bertokoa izaneran, hemengoak neure zerean zegozen... Lopategi orduan gitxi ezagutzen zen eta. Jaleoak be itzelak egon ziren. Irigoienek bildurtuta eskapatu eban, itsasora botako ete eben-edo. Lopategik be esan ei eban -gerora entzun dot nik hori- motorrez joan zela eta berak be laster alde egin ebala handik. Ezer be ez, puntu baten alde edo, baina... Gero, 66an Durangon zen berriro txapelketa, eta han be geu biok geratu ginen lehenengo-bigarren.

#### **Euskaltzaindiak eta, batez be, Alfonso Irigoienek antolatu zituen lehenengo txapelketa hareetan, aurrera egiten zenduenontzat, plazarako aukerak be ugaritu egingo ziren.**

Nik 60an egin neban lehenengo; 64an, bigarren, eta 66an be, bigarren. Euskal Herriko finalean be kantatu neban eta, gero, Loiolako Herri Irratian be sortu ziren txapelketak eta han bi bider parte hartu neban, batean lehenengo eta bestean bigarren eginez. Gero hara eta hona hasi ginen. Ezagutu ginduezen eta asko ibili ginen. Irigoien izaten zen gure orduko zuzendaria, eta berak deitzen euskun, eta hasi hemendik eta Durangotik-eta pasatzen ginen; Txorierrira be eroaten ginduzen, eta, Txorierrira aldean, hor denean ibiltzen ginen... Arratian be bai; Lemoa, Zeanuri, Artea...

#### **Nortzuk zinien orduan Bizkaian bertsoetan egiten zenduenak, halan plazarik plaza?**

Arratian Pujana zegoen eta, oraintxe ziur ez

dakit, baina bestea Artetxe zen. Harek be egiten eban pixka bat. Gero, Txorierrri aldetik, Kastrejana eta Bilboko Arenalean guarda egiten ebana... Ormaetxe, "Taket" esaten eutsiena. Horreexekin ibiltzen ginen. Hareek bertako berbeta erabiltzen eben. Arratiakoek Arratiakoa eta Txorierrrikoek Txorierrrikoa. Eta kontrastea izaten zen, ze bizkaiera diferentea da leku bakotxean, eta, gainera, guk hemen... Bertsoetako joera gurea ez da izan bizkaieraz. Guk, lehengo orriak eta zerak irakurtzen hasi ginenean be, Gipuzkoakoak ziren beti, eta guk horixe zer hori hartu genduen, gipuzkeraz egitekoa, eta hortxe jarraitzen dot nik. Nik bizkaieraz bertsozik ez dakit. Baina, gu geure zerean eta eurak eurenean, ondo konpontzen ginen.

**Sasoi horretantxe jokatu zen Piensos Onena-  
k antolaturiko sariketa be. Ehun mila pezetakoa  
zen saria. Dirutza handia ordurako.**

Orduan, ez dakit, bi mila pezetaren bueltan edo ibiltzen ginen gu saioko. Ez dakit ziur, baina gero, sariketa baten, hoge mila hogerleko ipintzen zituenean... ño! Hori numero handia zen, eh! Joateko pozik, etorreran beti ez baina.

**Izan be, bertsoak beti eduki dau horretatik be.  
Batetik, gustoko zeregina, baina etxerako  
laguntasuna be bai, diru aldetik.**

Bai, bai. Ondo etorria beti. Beharreko soldata izan eta, gainera bertsoan ibiliz gero, apur bat, laguntasun handia da hori. Gero bertsolari batzuek, ez noa esatera zeintzuek, esaten eben eurek ez ebela egiten diruagaitik. Herriagaitik. Behin, bati esan neutsan: Herriagaitik denok gabilz hemen, baina, bide batez, horrek beste horrek be kalterik ez dau egiten, eh! Isilik geratu zen. Nik beti esaten dot gure edadean zeozeren poza eduki behar dela, bertsoetara joateko. Ze, bestela, afizinoagaitik, lagun onen artean bai, baina... hara eta hona? Ni orain ez nabil eta kito, baina, hau bitarteko dagoen bitartean,

horrek asko aldatzen dau gauza. Diruak asko zertzen dau. Txakurrari be dantzan eragin ei eutsan, nik entzutea daukadanez.

Bizkaian ez eze, Gipuzkoan, Nafarroan eta Lapurdin be behin baino gehiagotan egin eban Mugar-tegik bertsoan. Xalbador, Ezponda, Xanpun eta Gipuzkoatik joandako Errexil ezagutu zituen han. Irribarretsu kontatzen dau, behin, Azpillaga bertsoan politika kontuetan berotu eta Uztapidek zelan esan eutsan: "Berriz joateko esperantzan etorri haiz edo ze esperantza ekarri dek, ba?". Gehiegi ez deskuidatzeko edo. Ez ei zen ezer pasatu, baina...

Neu ez nintzen sartzen, ze, gaur be ez asko, baina hobeto ezagutzen dot hori historia hori, zer dabilen, gitxi gorabehera. Nik neuk bai, hori sentimentu hori beti, ezta? Euskaldunarena. Baina, hortik aparte, ez nekien nik, ze gurean gurasoek be ez zekieen horrelako historiarik ezer be. Esan nahi dot etxean be beti egoten dela kontaktua, eta ni ez nintzen sartzen politikan. Lopategi eta Azpillaga sartzen ziren horretan eta, horregaitik be, gehiago ibiltzen ziren. Bakotxa bere terrenoan eta nik neurean jarraitzen neban. Orduan be denerik egoten ziren. Entzun nahi ebenak eta ez ebenak. Batzuk alderdi batekoak, beste batzuk bestekoak. Bazegozen batzuk, eh? Bazegozen batzuk hori gauza hori ez ebenak zertzen. Ez zela sartu behar horretan esaten eben, hori ez zela gure mundua eta. "Ez! -esaten neban nik-. Badakigu ez dana gurie, baina guk geure sentimentue daukagu, eh!" Niri, gustatu, asko egiten jatan entzutea. Lehen esandako moduan, neu ez naz sartu, ze hori gauza hori ezin neike dominatu. Orduan gitxiago, barriz!

**Iparraldera joaten zinienean, hizkuntza zela  
eta, bertsoan elkar ulertzeko problemarik izaten  
zendueen?**

Xalbadorregaz pixka bat. Harek sartzen zituen

berba batzuk... gaur gehiago ulertzen dot nik asko be, orduan baino! Entzunez ikasi egiten da. Atentzinoa zelan ipintzen den be alde handia dago. Orduan, noizik behinean entzunda bakarrik, eta Xalbadorregaz, berba batzuk... zer esaten ebanik be ez! Behin, kasua pasatu jatan Etxahun Irurikoagaz, Urte askoko kontua da. Bertsotan izan ginen Azpillaga eta biok Artxandan, eta Basaurin zegoen hogeita lau orduko jaialdi bat, bertso eta halako eta honakoa. Guk eguerdikoa geunkan Artxandan eta jaisi ginen haraxe. Etxahunegaz bat egin genduen. Nik ez neban ezagutzen aurretik, eta eskua emon alkarrri eta, berbetan hasi zenean, bapez! Zer esaten eban be ezin ulertu. Euskaraz eta ezin ulertu!

**Artxanda eta Basaurira baino ibilera handiagoak be izango ziren orduan.**

Koxme Lizasok deituta joan ginen, behin, Sunbillara. Nik egun baterako zelakoan urten neban

etxetik. Joan hemendik Debara autobusean, Deban hartu trena Donostiara, Donostian gero Koxmek berak hartu ninduen, eta Mitxelena be bazen. Lehenengo egunean bertsotan egin genduen, eta bigarren egunerako be gelditzeko. Bazekien Koxmek. Ha preparatuta joan zen! Erropak be eroan zituen aldatzeko. Mitxelenak ezin ebala gelditu; bere zerak zeukazela eta, alde eban harek. Koxme eta biok gelditu ginen. Han izaten zen eguerdian eta, gero, bazkalostean hasita, tabernan goizaldera arte. Goizeko laurak, bostak be igual. Ostera be eguerdirako jagi egin behar! Hirugarren egunean be gelditzeko kontua, eta neuk esan neutsan: Nik hirugarrenean ezin neike geratu, ze, bestela, hurrengo etxera noanean, etxetik kanpora bialduko nabe! Eta gero erropak, lehen esan dodana, harek eroan zituen aldatzeko be, baina nik ez, eta uda be bai; abuztua zen eta izerdia, taberna... Hirugarren egunean, iluntzean etorri nintzen etxera.



J. Mugartegi 1973ko San Antonio egunez Urkiolan kantuan, A. Irigoien gai-jartzaile dela.

Hementxe ate sarreran andreak esan eustan: Bazatoz ala etxera? Dios! Hori da zikin usaina dakarzuna!

**Bertsolari askogaz kantatu izan dozu. Zeintzuk izan dozuz zeuk gustoko?**

Ni neuretzat, Uztapide. Lasarte eta Joxe Lizaso be bertsolari ugariak ziren. Horreek neure gustokoak ziren. Basarri esaten eben onena bera izan zela, baina nik neure duda daukat. Bertsolari moduan, neuk pentsatzen dot Uztapide hobeia zela. Basarri idazteko-eta hobeia izango zen, jakin gehiago egingo eban, baina, lagunartean bertsotan egiteko, Uztapide. Lasarte, ba, errimaz eta... Baina Uztapide ugariagoa zen. Agirre, beste bat. Bertsolari modura, zorrotza da, eh! Oraintxe be hor dabil. Etorri handikoa eta... Orain, ba, Egaña eta Lizaso eta... Egaña esaten dabe onena dela eta ez dot ezetzik be esango, baina Lizaso, gairik barik eta librean egiteko, ez da makala! Bertsolari on asko dago orain. Asko. Onak asko. Preparatuta dagozelako da. Hori hobeto, lehenagokoak baino. Lehenago, ba, etxetik urten eta "ieup!" eta "bagatoz gu!". Trago batzuk jotakoan, segi aurrera! Baina, orain ez da hori.

**Uztapide, orduan, apartekotzat daukazu, bat hartzekotan.**

Bai, eta laguna, hoberik ez besterik, Uztapide baino. Gizon jatorra. Behin, Uztapidegaz Aulestira joan nintzen bertsotan, nik txapeldun urten neban urtean, 60an. Uztapide etorri zen Ondarrura, Ondarrutik Markinara, eta Markinatik furgoneta baten eroan ginduezen Aulestira, eta hiru saio egin genduzen, herri kirolekin txandan. Gero, hangoak amaitu zirenean, barriro ekarri ginduezen Markinara. Tatenie tabernan sartu ginen barrura eta, ikusi ginduezenean, jenteak ra! Bete egin zen barrua. Ondarrurako autobusa hartzekoak ginen biok. Etorri zen autobusa, eta kafea hartzen gengozen gu orduantxe, eta bertsotan. Neuk esan neban: "Uztapide, etorri da, ba, autobusa!" - "Etorri al da?" -esan eban. "Dijoa-la, ba, aurrera, ni kafe hau hartu gabe ez nijoa inora-ta!" Nik ez neukan neuk be prisarik, eta gero Koska esaten eutsien beste taberna batera joan ginen. Beste pare bat saio egin genduzen han be, eta gero taxia hartu behar, ez zegoen beste aukerarik eta. Hementxe etxe parean gelditu eta: "Bueno, zenbat edo?" - "Lasai, esan eustan, lasai lo egin, eh? Neuk egindako okerra izan da eta neuk zuzenduko det".

**Lasarte be aitatu dozu. Zeuri be errimaren ego-kitasuna eta esaldiak tolesteko elegantzia gorai-patu izan jatzu.**

Bai, hori neure zera da. Ez dot liburuetatik hartu. Gustatzen jat errima, ahal bada, zuzen erabiltzea, eta esaldia be bai. Denok ondo ateratzea ez da erraza, baina neuri horixe gustatzen jat. Gure modukoakaitik badakizu zer esaten daben orain? Gure bertsokerak gaurkorako ez daukala aberastasunik. Guk zortzikoetan eta hamarrekoetan egiten genduen. Inoiz bederatzit puntukoan be bai, baina gaur beste era batera egiten da bertsotan. Bertso luzeagoak. Beste modu batera egiten da. Guk, hamarrekotik gora, bederatzikoa, eta bederatzikoa ona ateratzea ez



Gil Pepe. XDZ

Lazkao Txiki eta J. Mugartegi, 1974ean, J. Lizaso, I. Lazkano eta J. Agirre hiru azpeitiarrei egindako omenaldian.

da erraza, eh? Gaurkoentzat be hori nahikoa gatxa izango da.

**Lagunarteko giroan, edonoren pare egiten ei zenduen zuk bertsoan, baina, ez dakit halan den, plazan asko estutzen ei zinen.**

Bajatu egin nazela apur bat? Bueno, momentuak egoten dira. Batzuetan, plazan be ondo urteten dabe gauzek eta, beste batzuetan, igual ez. Zelako eguna tokatzen den izaten da hori. Txapelketan, esaterako, nik pentsatzen dot... Hasi aurretik edonork edukiko dau apur bat urduritasuna, ezta? Eta amaieran igual handiagoa! Txapelketan be itxura batean hasten bazara, norberaren martxan, orduan sartu egiten zara apur bat harian. Norberak igartzen deutso ondoen bere buruari, zelan dabilen. Apur bat aldrebes hasten bazara, gero zuzentzea kostatu egiten da asko. Orain, plaza-gizonak ez dira denak izaten! Niri beti horixe esan izan jat. Bueno, hor ibili naz neu be eta egin dot ahalegina. Beharbada, egin behar neban beste ez neban egingo, ze ez naz izan harako beti pentsatzen-eta, beste batzuen moduan, baina, orain guri gehiago eskatzea alperrekoa da.

Orain oraingoei eskatu behar jakela dino Mugartegik. Bere semea be ibili ei zen bertsoan, baina zesta-puntan gehiago nabarmendu. Estatu Batuetan dabil gaur egun, Bisforden ez denean, Milforden. Badauka pena apur bat Jonek. Haregaz aterako ebala bertsolaria esaten ei dau Lopategik be. Halan be, inoiz euskaldunak elkarregaz txokoan batzen direnean, kantatzen ei dau bertsoen bat orain be.

Hamar urte pasatu dira, joan zela. Arduratsua da, izatez. Sarri deitzen dau. "Zelan gabilz, Jon?", eta "Ni pozik" -esaten dau-. "Hemen kontratua emoten deusten bitartean, ni ez noa beharrik egitera beste inon be". Miamin dago orain. Guri beti esaten ibiltzen da: "Zeuek noiz etorri behar dozue hona, ba?" - "Urrintxo egongo dok guretzako hori". - Eta berak: "Ez! Abioian

sartu ezker, ekarriko zaitue!" Nik neuk ez daukat gogorik harako. Ingelesik jakin ez, eta andrea eta biok oraintxe bata kaderatik operatuta, bestea belaunetik operatzeko zain... Baina, joateko eta joateko. Orain, Gabonetan etorriko da barrero eta sartuko deusku lata ostera be! Alaba egon zen. Joan zen udan, hilabete egin eban han, bere umeeekin. Mutikoak hamabi urte daukaz eta lau neskak. Mutila ez dot uste dena... txarto ez baina, han lagunik be ez. Hemengo girorik ez han. Txikia bai pozik!. Oraintxe piszinan eta oraintxe halako lekutan, eta... Bera badoala esaten dau ostera be Gabonetan hara.

**Eta bilobek egiten dabe bertsoan?**

Ez. Mutilari gustatu egiten jako, baina semeari legez pasatu jako. Lazkao Txikiren marrazkiak ikusten be hor egoten zen, baina orain esku-pilotan hasi da hori be. Markinara joaten da astean birritan. Aparte, musikan be bai, eta orain eskolan be lehenagoko konturik ez dago; ingelesa eta denak sartzen ditue orain. Denak aurrera ondo ateratzen erraza ez da izango, eh? Neskatxoa, barriz, biziagoa da bolandera baino! Diferentea da. Bertsolaria izango den, ez den, baina ni pentsatzen egoten naz: "Orain emakumea be bardin izan leiteke eta haxe bertsoan hasiko balitz!".

60-70eko hamarkadako txapelketak eta bertso giroa dira Mugartegik ondoen ezagutu zituenak, baina aro barriko lehenengo txapelketetan be parte hartu eban, 80an eta 82an. Amurizaren urteak dira horreek. Bertso munduan erreboluzino moduko bat gertatu zen eta zarata be, halakoxea.

Holako txapelketa handietan gaitza zen gure moduko batek aurrera egitea. Azpillagak egin eban, baina egun ona eduki behar dau gure moduko batek, aurrera joateko. Amuriza be ikasitako bertsolaria zen. Amurizaren bertsoak eta bertso giroak aldaketa ekarri eban. Horrek bertso mundu barri bat sortu eban, eta nik pentsa-

tzen dot hortik segitzen dauela gaur be. Zenbat eta gehiago ikasi, mesedegarriago da; bestela, atzerantz joatea da. Lehengo bertso-giroa zen tabernakoa, alkarri askotan txarto esaten be bai igual. Denak ez, eh! Baina lehengo girokoa diferentea zen. Oraingoa jakintza gehiagokoa da eta zenbat eta gehiago ikasi, hobe. Horren kontra ez nago ni. Neure eritzia horixe da, behintzat.

### Zuk zeuk plaza libreko saioak izan dozuz gus-tokoago?

Txapelketa guztiz diferentea zen. Gure bertso-ta tabernakoa zen. Eta txapelketan gaiak ipinita egin behar eta momentuan gauzak, denak ez dira etortzen burura. Gero bai!, "Holan egin banau eta holan egin baneu!", baina gerokoak ez dau balio. Gu ez gengozen horretara ohituta. Gaur lehenengo horretantxe hasten dira eta eskola hori dominatuta daukie, baina, gaiekin bertsoan ondo egiteko, jakin egin behar da gauza asko. Norberaren ideiak bakarrik ez dira nahiko izaten. Geu ere hasi ginen, lehen esan dodan moduan, Irigoien zuzendari genduela, saioetan gaiak ipinita kantatzen, baina nik neuk, aukeran, librean nahiago. Bertso-tara herri batera joan eta beti azaltzen zen baten bat. Herrian hau dago edo hori da edo... Bestela, nondik nora zoazen be ez dakizu eta, lar be ez, baina zeozeren argibidea edukitzea ona da. Gero, batak esanda-koari besteak erantzunez, berak emoten deutsu bidea apur bat. Hartu egin behar da handik eta hemendik. Irakurri egin behar da asko, eta nik, ba, ez dot egin.

Bertsolariaren bizimoduan, beste edonorenean legez, gozotik beste probatu behar izaten da gazi-tik. Mugartegiri be bietatik tokatu jako apur bat, eta barru-barruan daukaz arantza bi. Bata IZ-gaz kaleratu eban kasetak itzitakoa eta bestea, minga-riagoa, Auspoak argitaraturiko *Segi, Mugartegi* liburuak eragindakoa.

IZ-koekin ez nintzen geratu konforme, ze tratua egin genduen hamabost mila duro kobratzeko lehenengo, eta gero, ehuneko bat, saltzen zene-tik, oraintxe ez dakit zehatz. Eta ez eusten egi-ten kasurik be. Bertan, Donostiako IZ etxean, eguerdi parte batean egin genduzen grabazino-ak. Gero hemen Egurenen egon ziren saltzen kasetak, eta bastante saldu ei zen, baina niretzat ez zen ailegatu ezer be. Halako batean bertara joan nintzen neu, Donostiako IZ-ra. Bertara joan nintzenean, hareek bazekieen ni zer egitera nin-doan. Neuk esan neutsen: "Noiz arte itxaron behar da edo zer da hemen egin behar dena?" Orduan momentuan ezin zeikiela eta etxera bialduko eustela eta zera eta bestea... gaur arte! Bertsolari askok atera genduzen kasetak orduan, eta beste batzuk be badakit antzera ibili zirena. Batzuek kobratu ei eben azkenean, baina ni neu bape barik geratu nintzen. Gehiago be geratuko ziren kobratu barik, seguruenik. Dabilenari denerik subertatzen jako.

### Eta liburuarena zelan izan zen?

Beti esaten neukan Joakin Berasategi, ea liburu-a noizko aterako neban. Garmendia bertsolaria be hor Auspoan saltzaile ibiltzen da, eta neuk, libu-rua ez, baina zeozer egiteko beste, prest neukala ikusi nebanean, esan egin neutsan. Laguna ebala eta berak esango eutsala Joxemari Iriondori eran-tzun eustan. Etorri ziren biak eta Iriondok esan eban hirurehun eta berrogeita hamar bat orrial-dekoa ateratzeko beste material bazegoela. Azke-nean, zatia falta dau horrako baina! Eroan zituen nire bertso-paperak denak, eta Berriatuan liburu-a aurkeztu zenean egon nintzen Joakin eta Irion-dogaz. "Liburu polita, eh?", esan eban Joakinek. "Bai!" -esan neutsan- "Polita izan beharko dau, bai, ze, ederra izateko, asko falta jakola uste dot". Nik esan neutsen ez nintzela liburuagaz gustora geratu; potoak-eta be bazegozela hor, nik egin bakoak; esaldiak aldatuta eta... Gero, nire gora-beheran esaten legez: Azpillaga dau, ba, bere



begikoa, eta Azpillaga haundia eta Azpillaga haundia! Garmendiari esan neutsan: "Ez jataz gustetan horreek tiruok". Badakigu Azpillaga haundia dena. Nik ez daukat hori inork esan beharrik. Nik Azpillaga Iriondok baino hobeto ezagutzen dot. Nigaitik, esan nahi dot, apur bat beherakoa gehiago, gorakoa baino. Idazkiak be badagoz liburuan. Muniategirena gustatzen jat, baina Baraiazarrak idatzita dauka hor eta harek be ipintzen dau... Plaza-gizona beste batzuren modukoa ez nazela izan, lotsatia eta gaixoa, gainera, oraindik. Mutilak! Bakar bategan egoteko, nahikoa oker dituk horrek! Eskatu neutsezen neure orriak be, baina gehiago niri ez deuste kasurik be egin! Ez da agertu bueltan hona orri-rik! Baina, liburua ondo balego, bardin deuste niri orriek. Hareek gitxienez egin behar ebena zen, esan: "Hauxe dago preparaturik eta ea zer begitantzen jatzun, ezta?", baina... Makina batek esango eban: "Hor egon dok hainbeste urtean eta hau dok egin dauena?".

### Orain idazten dozu bertso-rik?


Noizik behinean, zeozer egiten dot, baina gitxi. Baina hasi behar dot egiten. Aurretik apur bat hausnartuta ez badaukazu, eta burua ez badabil, alperrik da mahaiari jarrita egotea. Ezin leiteke. Nik gabaz egiten dot burutik pasatu eta idatzi, ze, bestela, luzarorako izten badozu, gero joan egiten da. Orduan, ba, haxe idatzi eta han egoten da. Gero bilobak, alabaren semeak, ordenadorean ta-ta-ta pasatzen ditu eta: "Ondo dagoz, aitita?", galdetzen dau, eta: "Bai, ondo dagoz". Etxean daukat orain sekretarioa!

Izan be, Jon semea Ameriketara dabilen arren, Patroikuan bizi dira mugartegitarak. Nerea alaba bertara ezkondu zenetik, hazi egin da familia, eta han dabilz gora eta behera Urtzi eta Oihane bilobak be, Jon eta Urrupina aitita-amamen pozerako. Baserria bera 1988an eurakandu eben.

Madrilgoak ziren ugazabak, Markinako morga-tarren lehengusuak. Errenta pagatzera joaten ginen Bilbora, Santo Tomas egunean. Han zeukien administrazioa. Errenta hori pagatu eta eguna pasatzen genduen ederto. Gero beti ea noiz erosi behar neban etxea. Egun batean, etorri zen "Soy Don Joaquín" esanez, eta ea etxeagaitik zenbat diru pagatuko neukeen. Berak jartzeko prezioa nik, eta hamasei milioi eta erdi eskatu eustazen. Hemen Berriatuan, orduantxe, antzeko baserriak hiru milioiren bueltan erositakoak zegozen. Astero egiten neban berba bere abokatuagaz, eta nik sei milioi bakarrik agindu. Luzaro jardun genduen horrela, eta gero, baserri honek, hemendik aparte, hektarea bi eskasera daukan terrenoa itzita, ea pagatuko ete neukeen sei milioi eta erdi. Orduantxe ni pozik!

### Hiru urte zeunkazela, Andonegi Errotara joan zinetik, ondo aldatuta egongo dira inguruak.

Berriatuan, lehenago dena zen baserri giroa. Baserri onak, gainera. Hauxe eskasena! Honeek bide kontrako etxeok, ba... Gero, bideetan ganaduagaz-eta ibiltzen ginen geu be, baina gaur ezin leiteke ibili. Lehengoan be txahala soltatu zen, eta hementxe egongelan gengozen gu. Orrua entzun neban! Bidean zegoen lagun batzuk eta batu genduen, baina... Ez daukagu geuk be sasoirik, gainera, holan ibiltzeko. Kale-etxeak hiru-lau ziren lehen, eta orain ikusiko zenduen. Horreek hor lehenen dagozen bloke biok, horreek geure terrenoan eginda dagoz. Orain barrero noiz etorriko zain nago ni hemen, zeozer etorriko balitz. Honek etxe honek be zazpahun urte badaukaz, eta horretxen zain nago ni, barrero diru apur baten jabe egiteko. Jaurti ganadua aidean eta barria egin! Orain, pentsamentuak beti aurrerago joaten direla pentsatzen dot ekintzak baino, baina amesa, behintzat, horixe daukat.



Bertsolari aldizkaria

# Abel Muniategi



*"Bertsoa da gauza sinpleak ahalik egokien esatea. Ahotik ahorako horixe. Eta, ahal dela, gauza txiki bat, detailetxo bat itzi, gogoan hartzeko modukoa. Dotore esanda, hizkuntza ondo erabilita, eta inork ez legez apainduta".*

.....

Abel Muniategi Ereñon jaio zen, 1942ko irailaren 30ean. Derioko seminarioan Xabier Amurizagaz emon zituen bere lehenengo pausoak bertsolari-tzaren estartetan zehar, eta, harrezkero, bertsoaren barruko eta inguruko arlorik gehienak jorratu ditu: bertsolari, gai-jartzaile, epaile... Bere sasoiko bertsoak izan ziren guztiek haren etorria aitatzten dabe eta, gaur egunean be, berak dinon moduan, "apur bat kanpotik" begiratzen dauen arren, zeresanik ez dau falta.

**Umezarotik, bertsoagaz zer hartu-emon edo etxean zer giro zeunkien azaldu eiguzu, hasteko.**

Ume denporan, gure etxean, bertso giroa bazegoen, eta nik uste dot gure baserria zela orduan halako irla baten antzeko zeozer. Ez zegoen bertsozaletasunik herri mailan, eta bertsolaritza zer zen be inork ez zekien, neuk uste. Gurè familia zen familia abertzalea, eta horregaitik zegoen gerra aurreko *Euzkadi*, *Ekin* aldizkarien errekorreak, hainbat bertso-paper... Gero bildurrez, gerraostean, neu umea nintzela, erre egin ziren. Nik denak irakurtzen nituen, eta bertso asko buruz ikasi be bai. Erretentibaren mekanika errimetatik segituan hartzen da buruan. Bestetik, gure aitita gipuzkoarra zen, Mendarokoa. Harek bazekarren, familiaz, bertsozaletasun handia. Ez zekien irakurtzen ez idazten, baina bertsoak buruz, egun guztian kantatu ahala: Xenpelar, Udarregi, Txirrita, Pello Errota... Nik horreen barri banekien oinez ikasteagaz batera. Akordatzen naz zelan ibiltzen ginen anaia eta biok, soloan genbilzela, elkarri bertso zaharrak kantatzen. Aititaren anaia bat be, Luzio Elortza, Nabarnizkoa, bat-batean txapelketa batean parte hartutakoa zen, eta omenaldia egin eutsien 1959ko Bizkaiko Txapelketan. Ez zen bape landua, baina bertsoakera espontaneoak zeukan, berezkoa. Umetan Nabarnizen, beragaz pare bat bertso bota izanaren gomuta be badaukat.

**Ereñoko familia giro horretatik seminariora, salto handia izango zen.**

Seminarioan lehenengo urteetan isil samar zabilz. Ez dakizu besteen barri be asko, eta zeure mundutxo horretan beti. Baina etxera, kartetan, bertso batzuk botatzen hasi nintzen. Eta konturatu nintzen bertsoaren zer bategaz: berbak, ilara parretakoak, behintzat, bardin amaitzen dira, eta silabak be antzera batean; ilara inparretan silaba batzuk eta parretan beste batzuk. Apur bat autodidakta izan nintzen eta horretaz segituan konturatu nintzen. Orduan, neu hasi nintzen neure kontura bertsoak idazten. Eta publikatu be egin nituen batzuk. Gernikan Gaubeka liburudenda zegoen eta hantxe publikatu nituen. Txar-txarrak! Baina, bueno, behintzat, mekanika elemental horregaz eginda. Apurka-apurka, zeure mundutxo horretatik urtetan hasi eta lagunak egiten dozuz, eta elkarregaz berbetan eta abar, Xabier Amuriza be handik zebilen, eta halako batean topo egin genduen. Baina, ordurako, filosofian egongo ginen. Honegaz esan gura dot urte asko pasatu genduzela elkarregaz konektatu barik, bakotxa bere kontura lantzen bere euskaltzaletasun hori. Urte mordoak, sei edo gehiago bai!

**Zuk euskaltzaletasunaren nozino hori bazeukan?**

Bai, nozino hori baneukan, baina uste neban neuk bakarrik neukala eta neure barruko mundu intimo bat zela, eta ezer gehiago ez. Gero, filosofian izan zela uste dot, zeozer susmoa edukiko genduen elkarrena Amurizak eta nik. Behintzat, seminarioko jai batean hara non urtetan dauen Amurizak jantokian denen aurrea, kantatzeko asmoz. Eta pentsatu neban: "Bertsotan batek bakarrik baino bik hobeto egingo dabe, ba! Neu be banajoiek". Holantxe hasi ginen. Lehenengoz publikoan elkarregaz egin genduenean, aurretik entrenamendurik ez eze-lako ezer egin barik izan zen. Ondoren hasi ginen elkarregaz egunero-egunero. Mutil eginak ginen, hamazortzi hemeretzi urte filosofian eta

gero, teologiako azkeneko urteetan be, elkarregaz ekiten geuntsan. Entrenamendu gogorak izaten ziren. Elkarri gaia ipini eta bertsoak botatzen geuntsazen gaiari, ba, hamazazpina igual!

### Horretarako girorik bazegoen? Buru zirenek eta zer esaten eben?

Bueno, hori publikoan egitea toleratzen zen, entrenamendu bat zelako, erdi folkloriko-rustiko horrelako zeozer. Baina giroa bertan? Ez, pertsegiturik gengozen. Inork ez zekien bertsoa zer zen, eta han morroi bi beti elkarregaz kantetan, ba, pentsatu, nahikoa persegituak izan ginen.

### Zelan elkartzen zinien orduan, bertsoan egiteko?

Gaueko bederatziretan afaria izaten zen, eta ondoren, errekreio moduko bat, ordu lauren batekoa. Ohera joan aurretik, apur bat pasiatu, gero elizara eta azkenik ohera. Bitarte hori aprobetxatzen genduen. Kanpora urten eta sartu egin behar zen osera barrura laster. Guk sarri egiten genduen kanpora urten eta bertan geratu pasioan, batez be udan, eta ekin bertsoan goizaldera arte. Gero leiho batetik sartzen ginen barrura, sotana eta guzti. Biharamonean, besteak mezatarra eta zihoazen bitartean, guk lo egiten genduen. Azkeneko urteak ziren eta ez jakun ezer pasetan.

### Zuk izteko asmoa be bazeunkan eta.

Bai, hori be bai. Batez be horrelako entrenamendu gogorak zapatu gauetan egiten genduzen. Hamaika hotz be pasatu genduen han, bertsoak zirela-eta! Behin, gogoan daukat, zapatu gaua zen, domeka goizaldea ordurako. Batzuetan, jai bezperetan, "adoración nocturna" deitzen jakona egiten zen. Gau guztian jentea gora eta behera, gela batetik bestera. Jauna esponitzen eben eta haxe gurtzen, txandaka. Joan ginen geure bertso saio hori egitera eta, halako batean, barrura be sartu beharko joagu, ba! Hamaikak, hamabiak... kaguen! Hotza! Akordetan naz uraren tubo bat izoztuta zegoe-

la gu sartzen ginen leihoaren alboan. Baina Iru-retagoiena izeneko nagusi bat, zaintzailea, goiko pasiluan zebilen eta guk handixek pasatu behar! Abadeek borla gorria zeukien bone-tean eta guk baltza. Eta borla gorri hori hara eta hona ikusten genduen. Egon eta egon, goizeko hirurak arte hotzak akabatzen hantxe. Holantxe gengozela, esan neutsan Amurizari: "botaiok Iruri bertso bat!" Orduantxe bota eban bertso famatu hori. Neu nintzen testigu bakarra eta neuk zabaldu dot hor zehar gerora. Iruretagoia hau Errektore-ordea zen. Obispoa zen nagusi, gero Errektorea eta berau hirugarrena Bizkaian. Gerra denporan, hemen Gaztelumendin, Francoren tropekin zetorrela, abiazino frankista erratu egin zen eta bere lagunak bonbardeatu zituen. Iruretagoiena horrek atzamar bi galdu zituen bonbardeo horretan eta esku batean hiru bakarrik zeukazen. Bertsoa holan izan zen:

729



Merino, A. Irigoienen artxiboa. XDZ

A. Muniategi, 1966ko Bizkaiko Txapelketako Durangoko saioan, aldamenear A. Irigoien gai-jartzailea dæuela.

Izena ere Iru dau eta  
hiru atzamar gelditu  
eta Bizkaian hirugarrentzat  
hori dabe elejitu.  
Horra hor bada hiru hiruko  
gizon batengan hornitu  
milagro ez bada arraultzak ere  
horrek hirukotzak ditu.

1964ko otsailaren 17an izan zen hori. Oraindino  
gogoan daukat.

#### **Halako batean, seminariotik alde egin zenduen.**

Bai. Urten neban kanpora eta, neukan bagaje  
horregaz, Markinako eskualdeko txapelketara joan  
nintzen. Txapeldun geratu nintzen. Bigarren gera-  
tu zen beste bat, faborittoa zena, Iriondo Larrus-  
kaingoa, ze ni ez ninduen inork ezagutzen. Polito  
egiten eban bertsoan. Gero Aulestiko bat, apur  
bat landu bakoa zen, Justo Longarte. Eta lauga-  
rrena, Mañukorta. Mañukorta gaztea zen eta urte-  
kera grazioso batzuk be izan zituen. Mañukorta-

gaz orduantxe egin ginen ezagun. Pentsatzen dot  
izen hori zabaltzen kontribuitu nebala, ze tipo bat  
da fisikoki, bere izen-abizenek deskribatu ezin  
dena. Askoz hobeto deskribatzen da baserriaren  
izenetik: Mañukorta. Neuk zabaldu neban izen  
hori. Gogoan daukat agur bi eroan nituela presta-  
tuta. Hasteko gengozela, Amurizari esan neutsan:  
“Agur bi jaukaazat hemen eta entzuidazak biak,  
ea zein botako dodan”. Bigarrenaren errima zen  
Larruskain, bikain, lain... “Botaik horixe bigarre-  
nori”, esan eustan. Bota neban eta agurrak berak  
bakarrik egin eban inpaktua! Bertsoan adituak  
zirenentzat be bai. Pentsatu bertsoaritzaz oraindi-  
no zelako sinplezan zegoen! Horreek errimok  
botatzea deskubrimendu itzela zen. Nik, ordura-  
ko, seminariotik beste gauza bat be baneukan.  
Idatzita zegoen euskarazko literatura guztia eza-  
gutzen neban, eta Xabierrek be bai, seguru asko.  
Hasi Axular eta Leizarragagandik eta ordura arte-  
koa. Seminarioan bazen astia irakurtzeko eta pen-  
tsatzeko, asko! Eta nik Iparraldeko lexikoa nahi-



A. Muniategiren argazki-albuma. XDZ

A. Muniategi X. Amurizagaz kantuan, 1968ko ekainean.

koa dominatzen neban. Esate baterako, errimarako, bortitz, murriz, anitz... eta holako bat edo bi sartzen zenduzen 1964ko giro haretan, eta pentsatzen eben fenomeno bat zinela. Horrelakoxe gauza sinpleak ziren.

**Hori izan zen parte hartu zenduen lehenengo txapelketa, baina aurrekoak be jarraituko zenduzen entzule legez, ezta?**

Bai, bai. Ni ez nintzen han izan, baina inpaktantea izan zen 1958koa, eta horren meritua autortu behar jako, eta azkenean aitortu geuntsan, Alfonso Irigoieni. Behar eskerga asko egindako gizona izan zen. Orduan, ba, harek 1958ko txapelketa hori egin eban, bertsolariak banan-banan berak aukeratuta, gitxi gorabehera. 1959an, han nintzen. Balendin Enbeitak irabazi eban, baina errebelazinoa Azpillaga izan zen. Eta, egia esan, Azpillaga gaztea zen eta nik orduko bertso batzuk oraindino gogoan daukadaz. Ondo egin eban bertsoan. Deunoro Sarduik be ondo egin eban. Pentsatu, oraindino bertsolariak, sasoi hareetan, zaharrak eta baserritarrak izan behar eben. Baina 1959an destakatu zirenak mutil gazteak ziren, eta, izan be, mutil gazteak baserritik zetozenak, baina nahikoa urbanoak. Deunoro bere ofizioagaz tailer batean Gernikan, eta Azpillagak be bere tailerra zeukan Ondarrun. Herriko-hiriko jentea ziren.

Gaur bertsolaritza gaztetuta dago eta denak dira unibertsitarioak, baina nik uste dot, Alfonso Irigoieni esker, 1959ko data hori klabea dela, hortik eta 1966ko txapelketara arte. Hortxe emon zen salto bertsolaritza ruraletik urbanora. Bertsolaritza intelektualizatu be orduantxe egin zen. Hortik aurrera, eskualdeetatik hasitako formatua ezarri zen, eta Lopategi joan zen gailentzen, bertsolari hegemoniko bihurtzeraino.

**Zeuk azkeneko bietan parte hartu zenduen, 1964 eta 1966an.**

1966an egin zen garai horretako azkenekoa. Nik uste dot Gobernu Zibilagaz eta zeukazen pro-

blemakaitik itzi eutsala Euskaltzaindiak. Azkeneko txapelketa Durangon egin zen. Sistema bardina zen, eskualdeak, semifinalak... Goizean, finaleko lehenengo saioa Astarloa zineman egin genduen. Ni estudiantea nintzen, eta pentsatu! Hemen bai egin dela aldaketa handia, ze, orduan be gazteak ginen, baina jentea trajea jantzita joaten zen, jake eta gorbatagaz, igual.

**Basarriren eraginez?**

Zergaitik ez dakit. Nire kasuan, estudiantea nintzen ni. Baina baserritarrak eurak be, alkondara zuria kuelloa ondo lotuta ebela joaten ziren. Orduan Durangoko Astarloa zinema toperaino bete zen. Beste publiko bat zen. Gaur publikoa bai gaztetu dela asko. Ordukoa zaharragoa zen eta ez zen estudianterik tartean. Geu be, intelektualki eta abar, publikoaren gainetik gengozen. Berba batek beste bat dakarst, baina bertsolaritza hau be pasatu da. Lehenengo txapelketak egin zirenean, Bertsolari Guduak, Aitzolek eta Zubimendik eta organizatuta, 1935-36an, Donostian, bertsolariak oso baserritar rustiko analfabetoak ziren. Ostera, epaileak, Lekuona, Zubimendi eta abar, errebistetan, *Jakintzan*-eta idazten ebenak ziren. Intelektualki bertsolarien gainetik zegozen. Gaur, ostera, bertsolariak eurak jarri dira juraduaren gainetik. Hor salto itzela egon da. Bertsolariak, bai bertsolaritza, eta zer esanik ez, bertso gintza, jakitunagoak dira juradua baino.

**Eta zu plazaratu zinenean, zelan zegoen kontu hori? Ze zu zeu be eskolatua zinen.**

Bueno, orduan, hemen gure denporan, juradua oraindino gainetik geunkan, nahiz eta juradua espeziala zen. Juradua ziren: Aita Martzel, Aita Santi Onandia, Bordari, Gabriel Aresti, Amuriza bera, Don Jose Etxeandia... Eta lehenengo errebeldia hori estudianteakandik etorri zen. Zer pasatu zen? Nik garbi neukan orijinala izan behar zela lehenengotatik. Eta pentsatu neban: "Durango". Durangon ez zen entzuten sasoi hare-

tan euskararik inondik be. Gernikan bardin pase-tan zen. Nik pentsatu neban, Pedro Pablo Astarloa be bertakoa izanda eta abar, ba, hortik jotzea. Ez naz ahapaldiagaz gogoratzen, baina agurra bota neban, esanez, Astarloaren herrian, guzurra badirudi be, ez zela entzuten euskararik eta herri maketo bat zela, edo horrelako zoezer. Altzetan da Don Jose Etxeandia juraduko mahaitik eta: "Kontuz bertsolariak! Durango lako herririk, eta ez Astarloa bakarrik..., eta ez dakit zer eta bada- kit nor. Inoiz entzun deusat Aita Luis Baraiazar- rari be bera saiora berandutxoago etorri zela eta, sartu zenean, atzamarra altzatuta topatu ebala, hasarre baten, Don Jose Etxeandia. Bertso-saioa bronka eta guzti hasi genduen!

#### **Nor zen, ba, Don Jose Etxeandia hori?**

Don Jose Etxeandia, Durangoko Santa Anako parrokoa, euskaltzain urgazlea zen eta Euskal- tzaindi barruan behar bat ona egiten eban. Hor Irigoien listo portatu zen, ze Irigoien problema zen ateak zabaltzea. Gobernadoreak eta denak frankista hutsak ziren. "Versos. ¡Qué bonito! Sí, sí... levantan piedras, cantan... ¡Qué bonito!" Baina, jakina, gobernadoreagana joan egin behar zen eta Bilboko udaletxera be bai. Eta Euskal- tzaindian karlista euskaltzaleak sartuta zegoze- nez, Irigoienek erabili egiten eban Etxeandia, ate batzuk zabaltzeko. Akordatzen naz 1959ko txap- elketa ha zelan lehenengo izan zen abuztuaren azkeneko domekan jokatzekoa, baina bertan behera geratu zen, altabozik ez zegoelako Alkate- ren baimenaren faltaz. Ni abadegaia orduan, Don Jose Etxeandiaren ondoan subertatu nintzen, eta akordatzen naz zelan esan eban: "Pues si el alcal- de se pone tonto, le cuesta la alcaldía". Harek influentziak zeukazen, Orejatarrekin etxeko zen... Eta horretarakoxe erabiltzen eban Alfonso Irigoie- nek Don Jose Etxeandia.

#### **Entzunda geunkan San Inazioaren bertsoagaitik izan ete zen bronka hori.**

Ez, ez. Agurragaitik. San Inazioaren bertsoa gero etorri zen, Arregigaz egin neban saio batean. Ez naz barriro hemen kantetan hasiko, ze bertso hori eta saio guztia urte horretako txapelketaren kronikan etorriko dela uste dot.

#### **Badator, bai, Amurizak gero Euskaltzaindira bialdutako idazki luze batean jasoa, hain zuzen.**

Bai. Xabier Amurizak bertso hori publikatu egin eban. Arregiren bertsoa be ona izan zen, eta ha, ba, akontezimentua izan zen. Baina Don Jose Etxeandiaren bronka ez zen horregaitik izan. Horreexekaitik bertsookaitik uste dot klasifikatu ginela Arregi eta biok, baina bitxia izan zen, ze laugarren bertsoak ziren. Arregik, hiruna kantatu ondoren, laugarrena bota eban, eta nire erantzuna be, San Inaziorena, laugarrena izan zen. Saioz kanpokoak, beraz, baina merezi izan eban. Orduan arratsalderako geratu ginen Arregi bera, Lopategi, Mugartegi eta neu. Arratsalderako klasi- fikatu gineno buruz, oraintsu gogoratu dau Jose Luis Lizundiak, orduko haretan, Arestik zer bota eban: Zuek danok ez zerate, ba, EGIkoak izango! Lopategi, Mugartegi, Muniategi, Arregi. Gero, urte laburretan, aktibitate handia eduki neban nik Amurizagaz. Bikotea egin genduen eta Bizkaia guztian ibili ginen.

#### **Horretan, txapelketak zerikusirik izan eban? Plazak ekarri utsuzen?**


Ez, txapelketak ez. Beno, fama igual bai, baina plazak, bestela. Gu, bikote moduan, seminariotik egin ginen, ze nik urten egin neban eta bera han- dik hurrengo edo bigarren urtera abade egin zen. Orduan nik uste dot ez zela txapelketaren eragi- nez izan. Orduan berbizkunde kultural bat egon zen, politikaren eraginetik be bai, baina ez dakit honeek gauzok esatekoak diren, ze, oraindino gaur egun be, gauza batzuk esaten bildur naz, pentsatu! Errepublikara garaietan, Aitzolegaz eta egon zen berbizkunde kultural bat, eta nik uste dot

esan leitekeela, hemen be, 1960.eneko hamarkadan egon zela berbizkunde bat. Orduan elizak protagonismo handia eduki eban. Honeek, abade gazteak, gero urten ebenak, gerrako bildurrak galduta, barriro hasi ziren errekupezino kultural batean, herri mailan. Eta orduan eliza izan zen eragile garrantzitsua. Elizaren inguruan sortu ziren halako zine aretoak, elizaren azpiegitura hori hasi zen teatroa egiten, hitzaldiak antolatzen, bertso saioak be bai. Nik uste dot Amuriza eta biok, batez be, seminarioaren ondorio moduan ibili ginela herririk herri eta plazarik plaza, Bizkaian, behintzat. Ez genduen urte asko egin, ze Amuriza kartzelan sartu eben laster. Baina intentsoa izan zen. Zapatu domeka guztietan genbilzen hor zehar. Amurizak fama handia lortu eban. Pentsatu, abade bat ikustea sotanagaz kantatzen, ba, datorrela hona be!, esaten eben denek.

#### **Zeuk bertsoari noiz itzi zeuntsan? Zergaitik?**

1969an, erdi bakarrik geratu nintzen, Amuriza

kartzelara eroan ebenean. Karrera be orduantxe amaitu neban eta, bertsolari barriekin hasteko, neure neurriko lagunik ez neban topetan, ze, jakina, nik banekien Amuriza zer zen. Jente askok esaten eban: Joño! Abadea bertsoan!, eta horrek asko erakartzen eban jentea. Baina Amurizak bertsoan ondo egiten eban! Total, bakar samar geratu nintzen. Baina, enbeitatarrekin be ibili nintzen, eta gero holan sakabanatutako bertso-saioetan be bai. Honeetan orduko bertsolari gehienekin kantatu neban. Bizkaikoekin sarri: Lopategi, Azpillaga, Arregi, Mugartegi... Gipuzkoarrekin be kantatu neban. Uztapidegaz birritan bai, behintzat, Muxikako Ariatzan eta Errenteriko plazan. Ondo portatu zan ni lako "noba-to" bategaz. Basarrigaz Markiñako fraileen komentuan, Mitxelenagaz Lekeitian... Ikasketak amaituta, abokatutzan hasi nintzen, eta orduan bertsolaritza ez zegoen gaurko moduan ikusita, eta biak konpajinatzea be ez zen hain erraza. Beste zer inportante bat 1966ko



Abel Muniategi kantuan J. Azpillaga, J. Lopategi, J. Agirre eta I. Lazkano lagun dituela.



azkeneko txapelketa izan zen. Hantxe amaitu zen. Ni oraindino gaztea nintzen, hogeita lau urte, eta, promozionetako, derrigor behar nituen oraindino txapelketa batzuk. Lopategi-eta lehenago hasita zegoen, baina nik oraindino ibilbide laburra neukan, urte bi bakarrik.

Gero, pentsatzen hasita, -orain be holantxe ikusten dot-, bertsolaritzak merezi dau, hor punta-puntan bazabilz, edo errendimendu bat ateratzen badeutsazu. Baina saltokako bertsolaritza horrek ez dauka zentzunik. Edukitzekotan be, zentzun ludiko bat, baina ez da serioa. Eta hori be pentsatu neban. Gero, -dena esan behar da-, Amurizak oso ondo kantetan dau eta ni, ostera, belarriz estu samar ibiltzen nintzen. Eta dinozuna inportantea da, baina doinua be bai. Estrofaren edukitik aparte, doinuaren ardura badaukazu, kantatu orduan nahaste-borraste bat egin zeinke, azkenean. Hor neure burua apur bat mugatuta ikusten neban eta, geldiro-geldiro, izten joan nintzen.

### **Ez zenduen, halan be, bertso mundua albo batera itzi, guztiz, behintzat.**

Ez. Estudioak amaitu eta segituan joan nintzen kooperatibetara abokatu. Eta han gauza bitxia pasatu jatan. Mondragoen, hara non jatordan tipo bat: Muniategi! Bertsolaria!... Patxi Goikolea zen. Nik ez neban ezagutzen, baina bertsozalea zela eta egun batean eta hurrengoan be etortzen zen esanez zeozer egin behar geunkeela, hor zegoela Almen ikastola, umeei zeozer irakatsi behar geunskiela, baina eurek ez zekieela ezer. Taldean zegoen Goikolea, Santi Iparragirre, Akixu... Nik oinarrizko azalpen batzuk emon neutsezen, eta gero eurek ekin eutsien. Sarasua anaiak, Izarzelala, Danel Goikolea, Arantzazu Loidi... Horrekin denok Almenetik urten eben. Gero, han inguruan, batez be, gai jartzen ibili nintzen. Aretxabaletako frontoian egiten ziren saioak, Xalbador, Mattin eta denerikoekin. Deba bailara horretan, Xalbador asko gustatzen zen.



Mikel Alonso. XDX

Araba eta Bizkaiko txapelketa. Epaimahaia: L. Baraiazarra, I. Sarriugarte, A. Muniategi, A. M. Aldekoa-Otalora, T. Azkoitia eta E. Osa. Bermeo, 1987-XI-08.

Xalbadorregaz badauka Muniategik gomuta berezi bat. Estudiante garaian, gerora hain entzutetsu egin den *Amalur* filma egiten zebilzen Nestor Basterretxea eta Fernando Larruquet. Bertsolariak gura zitueela-eta, kontrastea topatu guran, Urepelgo artzainaren ondoan, Muniategi estudiante gaztea aukeratu eben, filmaren pasarte baterako.

Irungo txalet batean grabatu zen. “¡Pues teneis que cantar aquí!”, erdaraz dena. Eta esan neutsen: “Pero aquí, ¿Cómo? ¿De improviso?” – “Bueno, como quieras. Canta aquí una de entrenamiento”. Filmean, laiari batzuen ostean sartuko ginduezela eta, holantxe bota neban lehenengo bertsoa, entrenamendua zelakoan, laiak eta aitatu. Azkenean, bertso horixe geratu zen definitibotzat. Eta Xalbador, atzetik.

#### **Demokrazia bazetorrela eta, bertsolariei hitzaldi batzuk emoten be ibili zinen.**

Bai, hori geroago izan zen. Nik, bertsolaritza barruan, ez dot sekula eduki protagonismo afanik. Disposizino bat eduki dot: bertsolariak hemen dagoz eta nik zeozer aportatu ahal badot, edo zeozer behar badabe, ni hemen nago, eta esango deuste. Eta, giro horretan, 1975ean, Franco hil beharrean zegoela hasi ginen apur bat bertsolarien inguruan batzarrak egiten. Hitzaldi batzuk antolatzea pentsatu genduen, eta Loiolan batzen hasi ginen zapatu guztietan, baina koadrila, eh! Ze bertsolariak ez dira elkarrengana batuerrazak, pentsatzen dot nik. Hitzaldiak ez ziren bertsoari buruzko hitzaldi teknikoak. Lehenengo eta behin, euskaldunon historia apur bat: nortzuk gara eta nondik gatoz? Gure nazinoa zer da? Nazino honen inguruan zer doktrina egon da? Sabino Arana, abertzaletasuna eta horrek kontu guztiak apur bat azaldu. Nazinoak zer falta dau? Estatua falta dau. Eta, jakina, estaturik inoiz izango bagendu, hori kontroletako, eta izango ez bagendu be, agintera iristeko, instrumentu batzuk dagoz eta partidu politikoak dira. Gero, hortik aparte, hemen legeak

aldatuko dira eta, langile munduan be, sindikatuak sortuko dira, eta sindikatuak zer dira? Ba, horrelako azalpenak.

#### **Helduen eskola baten antzeko zeozer izan zela esan leiteke.**

Bai, baina apur bat konturatzeko ezingo zela lehenengo estilora kantatu. Beste mundu bat agertuko jaku, entzuleak be beste modu batekoak izango dira, ze ordura arte zen “Gora Euskadi!” esan eta aurrera. Baina ikusten genduen hori, aurrearrantzean, hain izango zela gauza simplea ze, horrek ez euskula balioko. Francoren denporan, hori itzel zetorren, baina Franco hil egingo zen, eta hil eta gero, ezin zen bertsoaketa bardina egin. Eta entzulegoa be, bardin. Ze, zu izango zara bertsolari bat PNVkoa, baina igual entzuten dagoena ez, eta ezin dozu esan “Biba PNV!”, lehen “Gora Euskadi!” esaten zenduen lekuan. Horrelakoxe kontuak azaldu nahi genduzen hitzaldi horreekin.

#### **“Gu” esaten dozunean, nori buruz zabilz?**

Amuriza eta neu izango ginen, batez be. Berbaldiak neuk emoten nituen, ze tekniko-juridikoak ziren, baina bai, “gu” horretan, Amuriza sartu behar da, ze ez dot uste besterik zegoenik. Gainera, Amurizak eta nik nahikoa historia luzea genkarren. Negu-udabarri bat izan zen. Luzaroan elkartu ginen, zapaturu. Baina, beti be, halako zentzu aseptiko didaktiko batetik. Ze nik hori, ardura hori, beti eduki dot, hau da, bertsolaria tipo listoa eta suspikaza da, eta ez daieela pentsatu: Ea honek berak egiten deuskun partidu politiko bat eta sarea beretzat botatzen dabilen. Hori garbi, hasieratik. Nik uste dot mesede egin ebela horreek hitzaldiok, eta inoiz Lazkanok be aitatu dau Bertsolari aldizkarian. Loiolako Etxanizen kafea hartu, fraileen, jesuiten, komentura joan, eta hantxe pasatzen genduen pare bat ordu inguru. Gero jentea bere bertso saioetara joaten zen, zapatua zen eta. Nahikoa planifikatuta zegoen. Gomuta ona daukat.

Zure gai-jartzaile lanak direla eta, 1975ean zeuk idatzitako testu hauxe topatu dogu: "Komeni da bertso jaialdietan, ez txapelketetan, bertsolariei gaiak esatea, kantatzen hasi baino zerbait lehenago, esate baterako, bost minutu lehenago. Jokabide honekin inprobisatzeak ez luke galduko eta bertsolariek lasaiago kantatuko lukete, bertso hobeak moldatuko lituzkete eta entzuleek bertso bikainagoak entzun, eta gusturago egin ez, zerbaitekin enteratuko lirateke".

Ah, bai! Begitu, nik ikusten neban neure burua bertsolariekin eta pentsetan neban: "Neu be bertsolari izandakoa naz eta ea emoten dodan sentsazioa, besteak aprobetan nabilela, besteak estu ipintzen". Ez dauka zentzunik. Eta, gainera, jenteak zer nahi eban? Bertso onak entzun eta ondo pasatu! Ahal dela, gai-jartzailearen ardura horixe da. Bertso saio orekatua egin behar dau.

Gerora, sarritan egon naz pentsetan: Zer da inprobisatzea? Inprobisatzea da, zuk almatzen bat daukazunean eta hori jente aurrean darabilzunean? Hitzaldietan argi dago. Orduan, bat-batekotasun hau, azkenean, ez ete da zer mugatzaile bat, tonkokeria bat? Beno, ba, nik pentsatu neban hori beste modu batera egin behar nebala. Eta izan nituen problemak bertsolari batzuekin hasieran, baina, azkenean, denak pasatzen ziren. Zer egiten neban? Ba, aurretxoan komentatu. Beste batzuetan, barriz, egiten neban, batzuk kantetan zebilzela, jarrita dagoen bertsolariaren ondora joan eta esan: "Urlia, bertsolari horregaz kantatu behar dok, eta hire gaia hau eta hau izango dok". Orduan astia zeukien, besteek kantetan zihardueela, euren eskematxoak egiteko. Ezin leiteke hartu bertsoa inprobisazioaren zentzu absurdu, estu eta estupido horretan. Hori ez da inprobisatzea! Han mikroaren aurrean, arnasa hartzeko astirik be ez. Txapelketan ondo dago, ze han dena neurtu behar da, baina bestela, jaialdietan? Bertsolariak lasaiago kantatuko dau, badaki nogaz kantatuko dauen eta han bertan esaten deusazu. Inprobisa-

tzea da! Azkenean, lehenengotan egoskor agertzen zirenak be etorri egiten jatazen. Ez beti, baina horixe egin neban, bai. Denekin, eh! Hegoako, Iparreko eta denekin! Denei tratu bardina.

**Epaile be urteetan ibili zara eta izango dozu zeresana. Epaile lana be ez da erraz-erraza izango, ezta?**

Epailtza da gauza bat, asmakizun baten antzekoa, ze bertsoa subjektiboa da. Ni kasik hasi barritan seguruago egoten nintzen neure erabagiaz gerora baino. Esaten neban: Bertsoak hauxe dauka: neurria, errima, ideia bat eta zelan esaten den ideia hori, eta kito. Neurtzea gatxa ez da, zazpi, zortzi... Izan behar dauena! Gero, urteak joan ahala, apur bat nasaitu edo egin nintzen, ez dakit, akatsak eta errazago irunsi. Gitxiago exijitzera legez joan nintzen geldiro-geldiro. Baina, lehenengotan, ni akordetan naz Euskaltzaindiaren txapelketetan eta, neu nintzen igual gazteena, baina neure burua seguru ikusten neban. Denporagaz, gauzak erlatibizatzen joan nintzen. Gero, epailtzan, deneriko sistemekin egin izan dot. Lehenengotan, bakotzak bere puntuazino indibiduala erooten eban, bertsoz bertso. Ez naz izan errimak apuntatu zalea; nik gogoan edukitzen nituen; baina bertsoaren osoko argazki hori bai. Orduan bertso saioak kalifikatzen ziren, ez puntuak batuta, bakotzak, bere puntuazioaren arabera, lehenengo, bigarren... nor zeukan baino. Puntuak batu beharrean, emoitzen ordena kontuan hartuta. Eta ez dakit txarrago den! Igual bera da hobe. Nik neure duda itzelak daukadaz.

Gero, puntuazino konkretuetara pasatu ginen. Hori txarra da epailearentzat. Elkarrenak konparatzen dozuz, besteek zer ipiniko daben ardura daukazu, zeure akatsak be han geratzen dira... Arriskua egoten da, bertso-txapelketa epaile-txapelketa bihurtzeko. Hor epaileak galdu egiten dau bere osotasunezko ikuspegi hori, ze erreze-oso plantetan da. Juradua bertsolariaren gaine-

tik badago, ez dago problemarik, baina juraduak ikusten badau bertsolariak eurak dagozela norbera baino kultibatuago, edo puntuazioak aztertu egingo deusuezela, libertatea galtzen dozu. Eta orduan, epailetzan, geldiro-geldiro, horixe pasatu dela uste dot.

**Eta presinoa be bai, ezta? Ala ez?**

Bai. Juraduak presino itzela dauka. Hasteko, badakizu zure puntuazioak Bertsozale Elkartera joango direla eta bertsolariak aztertu egingo ditueela. Prentsara be nire puntuazioak inoiz joan izan dira.

**Adibidez, Lopategik txapela irabazi eban urte haretan.**

Orduan istilu gogorrek sortu ziren, eta giputzak konbenzituta dagoz, nik ez dot izenik aitatuko baina, bizkaitarren trikimailu bat izan zela hori. Ondo preparatuta joan zirela bizkaitarrak; bertsolari eta epaile eta horrela joan zela hori. Beno, nik pentsetan dot, kasu haretan, neure uste apalean, inor ez zela larregi nabarmendu. Ze, txapeldun fijo bat edukitzeko, eta epaileak trankil geratzeko, batek destakatu egin behar dau. Problema izaten da bat destaketan ez denean. Txapelketa haretan halako zeozer pasatu zen. Neure ustean, nik Lopategi eduki neban lehenengo, eta beste batzuek be bai. Nik orduan esan neutsen Elkartekoei: Bale! Ni listo nago. Ipini mahai bat zeuek gura dozuen lekuan, eta ni gertu nago, neure postura defendatzeko, ezer gorde barik. Inork ez eustan hortik aurrerabiderik emon, neure jarrera azaltzeko. Eta nik uste dot, Lopategiren kasu horretan, hau ez dot esan sekula, igual ikusirik, beharbada, bat ez zela nabarmen gailendu, nik uste dot gailendu zela, baina emon daigun ezetz, ba, hipotesi horretan, igual hor bai eduki leike pisua nor nor den edo zer historia daukan. Ze Lopategi birritan zegoen bigarren geratuta. Orduan, hor, igual eduki leike historia batek pisu bat. Ez dakit kasu honetan

egon zen ala ez, ze ez zen egon pentsatzeko astirik be. Neuk be honek gauzok gerora pentsatu ditut.

Dena dela, sentsazio tristea emon genduen, ze puntuazioak agertu egin ziren, eta giputzak alde batera zegoen, eta bizkaitarrak bestera. Nik uste dot, edozelan be, erabagia ondo emonda egon zela. Lopategiren txapela hor dago, eta nik uste dot Lopategiren buruan txapelak ez dauela ezer galtzen. Eta Lopategiren moduko bertsolari bategaz, ba, igual txapelak berak irabazten dau, ze, behintzat, segurtasun bat badao oker ez zela emon. Hari ez emotekotan, nori? Hori be esan dot mila bider. Halandaze, gomuta gazi-gozoa daukat epailetzatik.

**Bertsoaren bueltan, aspaldion zeresan eta teori-zazino asko egon da. Badakigu zuk, horri jago-konez, gauzak nahikoa garbi daukazuzela. Zuretzat zer da bertsoa?**

Bertsoa da gauza sinpleak ahalik egokien esatea. Hortxe dago bertsoaren sekretua. Nik beti esan dot bertsolariak ez dauela ibili behar ezer asmatzen. Berezko injenioak laguntzen badeutso, hobe, baina ez marabillak asmatzen. Burura bajatortzu inori sekula akordatu ez jakon zeozer, hobe, baina bertsoak ez dau izan behar tesi metafisiko bat. Bertsoa gauza sinplea da, ahotik ahorako horixe. Eta, ahal dela, gauza txiki bat, detailetxo bat itzi, gogoan hartzeko modukoa. Dotore esanda, ahal dela, hizkuntza ondo erabiltita, eta inork ez legez

# Aurkibideak



## SAIL BAKOTXEAN ZEINTZUK IZEN

Aurkibide honek sail bakotxean zeintzuk bertsolariren bertsoak aurkitzen diren adierazten dau.

### TXAPELKETA

#### 1958ko Bizkaiko txapelketa

Alfonso Irigoien  
Juan Ormaetxe  
Balendin Enbeita  
Pedro Ajuria  
Basilio Pujana  
Gabriel Aresti

#### 1959ko Bizkaiko txapelketa

Jon Azpillaga  
Luzio Elortza  
Deunoro Sardui  
Basilio Pujana  
Juan Ormaetxe  
Balendin Enbeita  
Jose Alberdi

#### 1960ko Bizkaiko txapelketa

Jon Azpillaga  
Juan Mugartegi  
Alfonso Irigoien  
Eusebio Olalde

#### 1961eko Bizkaiko txapelketa

Jose Alberdi  
Juan Ibarzabal  
Jon Azpillaga  
Deunoro Sardui  
Ireneo Ajuria  
Juan Ormaetxe  
Juan Mugartegi  
Jon Enbeita  
Balendin Enbeita

#### 1962ko Bizkaiko txapelketa

Jon Azpillaga  
Ireneo Ajuria  
Balendin Enbeita  
Basilio Pujana  
Joseba Arregi  
Jose Alberdi  
Juan Martitegi  
Juan Ibarzabal  
Jon Lopategi  
Juan Mugartegi  
Manuel Sarrionandia

#### 1964ko Bizkaiko txapelketa

Joseba Arregi  
Juan Mugartegi  
Jon Azpillaga  
Jon Lopategi  
Juan Ormaetxe  
Jon Enbeita  
Abel Muniategi  
Jose Maria Gurtubai  
Basilio Pujana  
Jose Alberdi  
Francisco Mandiola  
German Uriguen  
Juan Martitegi  
Manuel Sarrionandia  
Manuel Basabe  
Pedro Kastrejana  
Pedro Ortuzar, "Iturri"  
Deunoro Sardui  
Ireneo Ajuria

#### 1966ko Bizkaiko txapelketa

Juan Martitegi  
Abel Muniategi  
Juan Mugartegi  
Joseba Arregi  
Jon Lopategi

#### 1987ko Araba eta Bizkaiko txapelketa

Xabier Arriaga, "Txiplas"  
Juan Mugartegi  
Gregorio Larrañaga, "Mañukorta"  
Rikardo Gonzalez de Durana  
Moises Enbeita  
Abel Enbeita  
Josu Arriola  
Jose Luis Basterretxea, "Altzalei"  
Aritz Lopategi  
Xabier Amuriza  
Ireneo Ajuria  
Jon Enbeita  
Jon Lopategi  
Jose Luis Mugarza, "Elgetzu"  
Juan Mari Areitio  
Jon Azpillaga  
Anton Arriola

#### 1990eko Araba eta Bizkaiko txapelketa

Abel Enbeita  
Iñigo Gojenola  
Juanjo Respaldiza  
Rikardo Gonzalez de Durana  
Aritz Lopategi  
Ireneo Ajuria  
Jon Enbeita  
Gregorio Larrañaga, "Mañukorta"  
Xabier Arriaga, "Txiplas"  
Unai Iturriaga

#### 1992ko Araba eta Bizkaiko txapelketa

Gregorio Larrañaga, "Mañukorta"  
Juanjo Respaldiza  
Aritz Lopategi  
Abel Enbeita  
Juan Mari Areitio  
Jon Enbeita  
Ireneo Ajuria

## IZENAK

Atal honek, Izenak saileko izendegian, bertsolari bakotxari jagokon bildumaren barruan, beste zeintzuk bertsolariren bertsoak datozen adierazten dau, halan den kasuetan.

**Ajuria Ireneo:** Jon Enbeita.  
**Alberdi Jose:** Alfonso Irigoien  
**Amuriza Xabier:** Jose Agirre abadea, Jon Lopategi, Jon Azpillaga, Artañola, Balendin Enbeita, Abel Muniategi  
**Areitio Juan Mari:** Joan Inazio Intxaurraga, Jose Fermin Argiñarena  
**Aresti Gabriel**  
**Arregi Joseba, "Altzu":** Juan Mugartegi, Jon Lopategi  
**Arriaga Xabier, "Txiplas"**  
**Arriola Anton:** Xanpun  
**Arriola Josu:** Mixel Xalbador  
**"Atxurra" Juan Gabiola**  
**Azpillaga Jon:** Jon Lopategi  
**Basterretxea Jose Luis, "Altzalei"**  
**"Elgetzu" Jose Luis Mugarza**  
**Enbeita Abel**  
**Enbeita Balendin:** Atxerre  
**Enbeita Imanol**  
**Enbeita Jon**  
**Enbeita Kepa:** Imanol Enbeita, Santi Enbeita  
**Enbeita Moises**  
**Enbeita Joan Antonio, "Txotxojeuri"**  
**Etxebarria Faustino**  
**Etxebarria Jose Ramon:** Juan Mari Areitio  
**Etxebarria Toribio**  
**Ibarzabal Juan, "Buztarri"**  
**Intxaurraga Joan Inazio**  
**Irigoien Alfonso:** Joseba Arregi, Juan Ibarzabal, Pedro Kastrejana  
**"Iturri" Pedro Ortuzar:** Zeberio  
**Lopategi Aritz:** Juanjo Respaldiza  
**Lopategi Jon:** Uztapide, Xabier Amuriza  
**"Mañukorta" Gregorio Larrañaga**  
**Mugartegi Juan:** Lazkao Txiki, Jon Azpillaga  
**Muniategi Abel:** Jon Azpillaga, Xabier Amuriza, Balendin Enbeita  
**Pujana Basilio**  
**Respaldiza Juanjo**  
**Sardui Deunoro:** Jon Lopategi  
**"Taket" Juan Ormaetxe:** Pedro Kastrejana  
**Zarraga Florentzio**

## NOREN BERTSOAK NON

Bertsolaririk gehienak, Izenak saileko bakoitxaren bildumaz gainera, beste batzuen izen-atalean be agertzen dira, eurekiko saioaren batean. Baita agertu daitezke txapelketa bat baino gehiagotan be. Zerrenda honek izen bakoitxaren bertsoak non dagozen adierazten dau. Sarritan, bertsolari baten bertsoak kontesturatzeko, bere ofiziokidearen bertso zati bat (gehienean, azken puntua) emoten da. Horrelakorik hemen ez dogu jaso. Bertso osoa denean bakarrik. Euren bilduma daukien izenen kasuan, izena eta (Izenak) saila errepikatu egiten da, bilduma propiorik ez daukienakandik bereizteko. Baita Izenak eta Txapelketak bereizteko be.

**Agirre Jose abadea:** Amuriza (Izenak)

**Ajuria Pedro:** 1958ko txapelketa

**Ajuria Ireneo:** 1961, 1962, 1964, 1987, 1990 eta

1992ko txapelketak. Ireneo Ajuria (Izenak)

**Alberdi Jose:** 1959, 1961, 1962 eta 1964ko txapelketak. Jose Alberdi (izenak)

**"Altzalei" Jose Luis Basterretxea:** 1987ko txapelketa. "Altzalei" (Izenak)

**Amuriza Xabier:** 1987ko txapelketa. Xabier Amuriza (Izenak), Jon Lopategi (Izenak), Abel Muniategi (Izenak)

**Areitio Juan Mari:** 1987 eta 1992ko txapelketak. Areitio (Izenak), Jose Ramon Etxebarria (Izenak)

**Aresti Gabriel:** 1958ko txapelketa. Gabriel Aresti (Izenak)

**Argiñarena Jose Fermin:** Juan Mari Areitio (Izenak)

**Arregi Joseba:** 1962, 1964 eta 1966ko txapelketak.

Arregi (Izenak), Alfonso Irigoien (Izenak)

**Arriola Anton:** 1987ko txapelketa. Anton Arriola (Izenak)

**Arriola Josu:** 1987ko txapelketa. Josu Arriola (Izenak), Anton Arriola (Izenak)

**Artañola:** Xabier Amuriza (Izenak)

**Atxerre:** Balendin Enbeita (Izenak)

**"Atxurra" Juan Gabiola:** "Amorotoko Atxurra" (Izenak)

**Azpillaga Jon:** 1959, 1960, 1961, 1962, 1964 eta 1987ko txapelketak. Jon Azpillaga (Izenak), Xabier Amuriza (Izenak), Juan Mugartegi (Izenak), Abel Muniategi (Izenak)

**Basabe:** 1964ko txapelketa

**"Elgetzu" Jose Luis Mugarza:** 1987ko txapelketa. "Elgetzu" (Izenak)

**Elortza Luzio:** 1959ko txapelketa

**Enbeita Abel:** 1987, 1990 eta 1992ko txapelketak. Abel Enbeita (Izenak)

**Enbeita Balendin:** 1958, 1959, 1961 eta 1962ko txapelketak. Balendin Enbeita (Izenak), Xabier Amuriza (Izenak), Abel Muniategi (Izenak)

**Enbeita Imanol:** Imanol Enbeita (Izenak), Kepa Enbeita (Izenak)

**Enbeita Jon:** 1961, 1964, 1987, 1990 eta 1992ko txapelketak. Jon Enbeita (Izenak), Ireneo Ajuria (Izenak)

**Enbeita Kepa:** Kepa Enbeita (Izenak)

**Enbeita Moises:** 1987ko txapelketa. Moises Enbeita (Izenak)

**Enbeita Santi:** Enbeita Kepa (Izenak)

**Etxebarria Faustino:** Faustino Etxebarria (Izenak)

**Etxebarria Jose Ramon:** Jose Ramon Etxebarria (Izenak)

**Etxebarria Toribio:** Toribio Etxebarria (Izenak)

**Gonzalez de Durana Rikardo:** 1987 eta 1990ko txapelketak

**Gurtubai:** 1964ko txapelketa

**Ibarzabal Juan:** 1961 eta 1962ko txapelketak. Ibarzabal (Izenak), Alfonso Irigoien (Izenak)

**Irigoien Alfonso:** Alfonso Irigoien (Izenak), Alberdi (Izenak)

**Intxaurreaga Joan Inazio:** Joan Inazio Intxaurreaga (Izenak), Juan Mari Areitio (Izenak)

**"Iturri" Pedro Ortuzar:** 1964ko txapelketa. Pedro Ortuzar "Iturri" (Izenak)

**Kastrejana Pedro:** 1964ko txapelketa. Alfonso Irigoien (Izenak), Ormaetxe "Taket" (Izenak)

**Lazkao Txiki:** Juan Mugartegi (Izenak)

**Lopategi Aritz:** 1987, 1990 eta 1992ko txapelketak. Aritz Lopategi (Izenak)



**Lopategi Jon:** 1962, 1964, 1966 eta 1987ko txapelketak. Jon Lopategi (Izenak), Xabier Amuriza (Izenak), Joseba Arregi (Izenak), Jon Azpillaga (Izenak), Deunoro Sardui (Izenak)

**Mandiola Francisco:** 1964ko txapelketa

**“Mañukorta” Gregorio Larrañaga:** 1987, 1990 eta 1992ko txapelketak. “Mañukorta” (Izenak)

**Martitegi Juan:** 1962, 1964 eta 1966ko txapelketak

**Mugartegi Juan:** 1960, 1961, 1962, 1964, 1966 eta 1987ko txapelketak. Juan Mugartegi (Izenak), Joseba Arregi (Izenak)

**Muniategi Abel:** 1964 eta 1966ko txapelketak. Abel Muniategi (Izenak), Xabier Amuriza (Izenak)

**Olalde Eusebio:** 1960ko txapelketa

**Ormaetxe Juan “Taket”:** 1958, 1959, 1961 eta 1964ko txapelketak. Juan Ormaetxe (Izenak)

**Pujana Basilio:** 1958, 1959, 1962 eta 1964ko txapelketak. Basilio Pujana (Izenak)

**Respaldiza Juanjo:** 1990 eta 1992ko txapelketak. Juanjo Respaldiza (Izenak), Aritz Lopategi (Izenak)

**Sardui Deunoro:** 1959, 1961 eta 1964ko txapelketak. Deunoro Sardui (Izenak)

**Sarrionandia:** 1962 eta 1964ko txapelketak

**“Txiplas” Xabier Arriaga:** 1987 eta 1990eko txapelketak. “Txiplas” (Izenak)

**Txotxojeuri:** Joan Antonio Enbeita (Izenak)

**Uriguen:** 1964ko txapelketa

**Uztapide:** Jon Lopategi (Izenak)

**Xalbador Mixel:** Josu Arriola (Izenak)

**Xanpun:** Anton Arriola (Izenak)

**Zeberio:** Pedro Ortuzar “Iturri” (Izenak)

## AURKIBIDE ZEHATZA

<b>Hitzaurrea</b>	<b>9</b>
<b>Sarrera: Praka bakeroak sotanapean</b>	<b>13</b>
<b>Txapelketak</b>	<b>34</b>
1958ko Bizkaiko txapelketa	39
1959ko Bizkaiko txapelketa	63
1960ko Bizkaiko txapelketa	99
1961eko Bizkaiko txapelketa	115
1962ko Bizkaiko txapelketa	137
1964ko Bizkaiko txapelketa	159
1966ko Bizkaiko txapelketa	177
1987ko Araba eta Bizkaiko txapelketa	191
1990eko Araba eta Bizkaiko txapelketa	223
1992ko Araba eta Bizkaiko txapelketa	241
Bizkaiko 2. mailako txapelketak. Mallabia	253

<b>Izenak</b>	<b>260</b>
Ireneo Ajuria	263
Jose Alberdi	265
Xabier Amuriza	268
Juan Mari Areitio	288
Gabriel Aresti	292
Joseba Arregi, "Altzu"	308
Xabier Arriaga, "Txiplas"	312
Anton Arriola	314
Josu Arriola	316
Juan Gabiola, "Amorotoko Atxurra"	318
Jon Azpillaga	320
Jose Luis Basterretxea, "Altzalei"	330
Jose Luis Mugarza, "Elgetzu"	331
Abel Enbeita	334
Balendin Enbeita	336
Imanol Enbeita	341
Jon Enbeita	348
Kepa Enbeita, "Urretxindorra"	356
Moises Enbeita	367
Jon Antonio Enbeita, "Txotxojeuri"	369
Faustino Etxebarria	372
Jose Ramon Etxebarria	373
Toribio Etxebarria	376
Juan Ibarzabal, "Buztarri"	378
Joan Inazio Intxaurrea	382
Alfonso Irigoien	384
Pedro Ortuzar, "Iturri"	395
Aritz Lopategi	397
Jon Lopategi	402
Gregorio Larrañaga, "Mañukorta"	416
Juan Mugartegi	421
Abel Muniategi	426
Basilio Pujana	428
Juanjo Respaldiza	432
Deunoro Sardui	433
Juan Ormaetxe, "Taket"	435
Florentzio Zarraga	439

<b>Bertso-eskolak</b>	<b>442</b>
Garriko bertso-eskola	447
Mallabiako bertso-eskola	454
Santutxuko bertso-eskola	458
Algortako bertsolari eskola	467
Durangoko bertso-eskola	473
Gernikako bertso-eskola	481
Ondarroako bertso-eskola	483
Arratiako bertso-eskola	485
Zornotzako bertso-eskola	490
Larrabetzuko bertso-eskola	495
Mungiako bertso-eskola	499

<b>Elkarrizketak</b>	<b>506</b>
<b>Sasoi batekoak</b>	<b>509</b>
Jose Alberdi	511
Martzel Andrinua	519
Arregi Joseba, "Altzu"	527
Juan Ibarzabal, "Buztarri"	535
Gorozikako kuadrila	545
Pedro Ortuzar, "Iturri"	553
Basilio Pujana	563
Deunoro Sardui	571
<b>Bertso-eskolen sasoikoak</b>	<b>577</b>
Jose Luis Basterretxea, "Altzalei"	579
Jose Antonio Aranburu, "Natxi"	585
Arriola anaiak	591
Jon Aurre	597
Trino Azkoitia	603
Jose Ramon Etxebarria	609
Joxin Iturrioz	615
Aritz Lopategi	619
Kristina Mardaras	625
Josu Zabala	633
<b>Luze eta zabal</b>	<b>641</b>
Xabier Amuriza	643
Jon Azpillaga	657
Jon Enbeita	671
Jon Lopategi	685
Gregorio Larrañaga, Mañukorta	701
Juan Mugartegi	715
Abel Muniategi	727

<b>Aurkibideak</b>	<b>739</b>
Sail bakotxean zeintzuk izen	740
Noren bertsoak non	742
Aurkibide zehatza	744

Kolaboratzaileak	746
Material batzaileak	746
Iturriak	746

## KOLABORATZAILERAK

Antton Mari Aldekoa-Otalora  
Martzel Andrinua  
Iñaki Antiguiedad  
José Antonio Arana Martija  
Xabier Arriaga, Txiplas  
Karmen Marina Arteagabeitia  
Luis Baraiazarra

Unai Elorriaga  
Joseba Etxebarria  
Kristina Mardaras  
Juanjo Respaldiza  
Joseba Santxo  
Koldo Tapia  
Mikel Urdangarin

## MATERIAL BATZAILERAK

Arantza Plaza

Igor Elortza

## ITURRIAK

- *Aita Santi Onaindia eta Alfonso Irigoien, bertsogintzaren lekuko*. Euskal Herriko Bertsosale Elkarte (E.H.B.E.)
- Alfonso Irigoienaren funtsa
- Araba eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 87
- *Arratiako euskal idazle aitzindariak*. Iñaki Esparza eta Angel Larrea
- *Bertsolari Aldizkaria*.
- *Bertsolari eguna 1990*. B. Pujana, J. Alberdi. E.H.B.E.
- *Bertsolari Txapelketa 1980*. E.H.B.E.
- *Bertsolari Txapelketa 1982*. E.H.B.E.
- *Bertsotan 1789-1836*. Joanito Dorronsoro
- *Bertsotan 1936-1980*. Joanito Dorronsoro
- *Bizitzaren joanean*. B. Enbeita
- *Bizkaiko eskualdeetako bertsolari txapelketak 2000*. B.B.E.k ateratako prentsa txostena
- *Deabruak ostutako urteak*. B. Pujana
- *Enbeitatarrak I*. J. Enbeita
- *Enbeitatarrak II*. J. Enbeita
- *Enbeitatarrak III*. J. Enbeita
- Euskadi Irratiko grabaketak
- *Euskal Bertso eta Olerkien Bibliografia*. Julen Urkiza
- *Euskal Herriko txapelketa 1993*. E.H.B.E.
- Gabriel Aresti. *Obra guztiak. Poemak (I)*. Kriseilu. 1976. Bilbao
- Gabriel Aresti. *Obra guztiak. Poemak (II)*. Kriseilu. 1976. Bilbao
- *Hasi, Azpillaga*. Mikel Aizpurua.
- Herri Irratiko grabaketak
- *Jon Lopategi, bertsozko mezularia*. Luis Baraiazarra
- *Juan Ormaetxe "Taket"*. Asier Legarreta.
- Markinako Karmeldarren komentuko grabaketak
- *Nire aztarrenak*. J. Ibarzabal
- Santa Ageda 2004. Algortako Bertsolari Eskola
- Santa Ageda koplak Sopelana-Urduliz inguruan. Labayru Ikastegia.
- Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)
- Zeruko Argia aldizkaria